

L. AKESOLO

IDAZLAN GUZTIAK

KS-1**

KARMEL SORTA
Zuzendari: Julen Urkiza

© *Ediciones El Carmen* (KARMEL)
I.S.B.N.: 84-7305-055-X
Legezko Gordailua: BI-1333-89


Fotocomposición Didot, S.A., Nervión, 3-5.º - BILBAO

LINO AKESOLO

IDAZLAN GUZTIAK

Edizioaren prestatzaile:
JULEN URKIZA

Larrea - Zornotza
1989



KARMEL SORTA-1**



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Argitalpen au Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin egin da.

II
EUSKERA ETA BIBLIA

JOANNES LEIZARRAGA ETA PROTESTANTEEN EUSKERAZKO BIBLI-ITZULPENAK

I*

Oraingo onekin, artikulu-sail bati asiera eman nai diogu, euskerazko bibli-itzulpenei ta bibli-euskeratzaillei buruz. Gogo onez eltzen diogu lanari.

Joannes Leizarragarekin asten gera emen. Ongi merezi du. Bera degu leenengoa. Zor anditan dago euskera berarekin, eta, ain zuzen, oraintxe dira laureun urte bere Testamentu Berria eman zigula. Orain dala laureun urte, 1571-an, argitaratu zuen. Nafarroako Erregiñari eskeintzen zion, eta aren ondoren, euskaldun guztiei. Euskaldunentzat gertakizun eta opari gogoangarria benetan.

Unamunok bein baiño geiagotan mundo guztiari baietz esan zion aiTen, ez zan, ez, bera euskerazko leenbiziko liburua. Etxeparek, beinik bein aurea artu zion. Leizarraga ez degu bere egunetako euskal-idazle bakarra ere; bederatzi urte lenago atera zuen Elsok, euskeraz eta erderaz, bere *Doctrina Christiana* (1561), orain galdua bada ere. Eta oraintsu jakin degunez, Leizarragaren egun beretan baziarduen idazten beste apaiz batek, Donibaneko semea, Joannes Etxegarai izenez, eta *Artzain Gorria* pastoralaren egillea. Berau ote da, higanautek gaizki erabillita, 1570-n il zan izen bereko ta erri bereko apaiza? Ikus onen berri, *L'Art poétique basque d'Arnaud d'Oihenart*, Laffite jaunarena, eta Moreau-ren *Histoire de l'âme basque*, (p. 176).

Ez da bere lana, Etxeparena dan bezela, gure euskal-baratzeak berak sortua, ez biotzak eta euskal-zaletasunak eraginda idatzia; auzoko alorretik aldatua da, erdal-

* *Joannes Leizarraga, Testamentu Berriaren leenengo euskeratzaillea*, Jaunaren Deia (1970, 33.zenb.) 271-285.

izkuntzetatik itzulia, eta iñoren aginduz egiña. Ala ere, gure egunetan iritxi degun gaindegitik begiratuta, euskera zaarraren lekuko bezala, ez dauka berdiñik, noski, eta itzultzaillaren izena gaillen geldituko da bere aldiko ta geroagoko euskal-idazleen artean.

Bere laugarren eun-urtea dalata, izkuntzalariek eta euskalzaleek ez dute, ez, aitzuko Beraskoizko seme argi au eta sartzen gauden urte onetan gorespenik izango du, bai, batzuen eta besteen aldetik.

Geure alegintxoia egin eta geure aletxoia ekarri naiez gatoz gu ere aren omenerako. Liburu santuen euskeratzaillaren berri eman gogo degu zenbait artikulutan; baiña aien artean leku berezia eta ba nakako aipamena ez ote zaio zor Leizarragari? Urte askoz, 16-garren mendetik asi ta 18-garrenearte, bera izan da bakarra alor orretan lan egiten. Bera bakarrik ekarriko degu guk ere erdira, eta bere *Testamentu Berria* besterik ez degu aztertuko leenengo artikulua onetan.

Joannes Leizarraga

Leizarragaren idaz-lana osorik iritxi zaigula dirudi; baiña bere bizitzako berririk oso gutxi dakigu. Oraindaño ez digu iñork argitu ez noiz jaio zan ez noiz il. Ez gaitezen arritu; berdintsu gertatzen zaigu beste batzuekin.

Itzulpen-lanetan asi zanez geroztik, orraitio, argi geiago ikusten degu bere biziari jarraitzeko. Arteño, ezer gutxi.

Berak esan zigulako, Beraskoizko semea dala bakadigu. Baña noiz jaioa zan edo bere gurasoak nortzuk ziran, ez da aztarrenik ageri. Apaiz katoliko izana zala ere naiko argi dago. Baiña noiz apaiztua ta non apaiz izana? Ontaz illunpe itsuan gaude. Testamentu Berria itzultzeko Pabera deitu ziotenean, Lapurdin zegoela besterik ez dakigu, ango errien batean apaiz edo erretor, nonbait. Lapurdin izana zala, bere euskeratik ere ateratzen zuten Duvoisin-ek eta beste batzuk.

Haranederrek esan omen zuen, or 1550-tik 1560-ra, Calvinisten alderdira egin zuelakoa: baiña Haranederren susmoa besterik ez da. Geiago ere esan zuen Haranederrek: erlijio berrira igaro zalako espetxean egona dala, alegia. Leizarragak Joana Albrete-ri zuzendutako itz batzutatik atera zuen ori. Itz oietan, ordea, ez dago gauza ain argi. Erregiñari esker ona erakutsiz, Beamora deitu ta an eguneroko saria eman izan ziolako, onela dio: «Halaz eman izan zait, ithoa bezala azpitik nendukaten gogo-arrangionerarik, eta orhoitzeak ere buruko biloa latz erazitzen drautan kaptibitatezko suiekzionetik ilkhiteko okasione eta moien». Itz oietan ez da ikusten kautibitate ori lau orma-arteke illunperik izan danik; gogoarena izan zala dirudi gorputzarena baiño areago.

Eleiza katolikoa utzi ta bide berriak noiz artu zituen ez dakigunarren, gutxi gora bera badakigu noiz deitu zioten itzulpen-lanetarako: 1563-ko azkenean, edo 1564-ko asieran. Orduan Paben izan zuten batzar-batean, calvinistek agindu au eman zuten: «Lapurdin dagoen Leizarragari ona etorteko agindu bekio». Testamentu Berria, otoi-tzak eta kristau-ikasbidea euskerara itzuli bear zituen, eta, gero, berak nai baldin bazuen, Euskalerriko bazterren batean ministro (eleiz-artzain) izateko gertatu. Ori zan batzarraren naia, ta orixe Erregiñaren borondatea.

Arrezkero, auexek dira aren biziko berririk irtenenak:

1565-n, maiatzerako bukatutzat du bere itzulpen lan guztia, eta Olorongo sinodoan lau artzai euskaldun izendatzen dira, Leizarragak egin duena ikusi ta zuzentzeko. Urte berean, Sauveterre-ko sinodoan, lau artzai oiek beren txostena ematen dute. On irizten diote itzulpenari; baiña eztabaida sortzen da Leizarragaren euskerari buruz, Euskalerrri guztiko ez dala-ta. Euskera ongi dakiten beste batzuekin elkar arturik, garbitu beite eztabaida ori.

Urrengo urtean, Nay-ko sinodoak Leizarragaren aipamena egin du: Iainkoak doai andi ta ugariak eman omen dizkio, eta Sauveterre-ko batzarkideei esaten zaie on litzakela gizon argi ori, Nafarroako errien batera bialtzeko.

Pabe-ko batzarrean, 1567-n, Leizarraga aztertu dute, beste batzuekin batean, eta fede-aitormena egiñazi die, eta besterik gabe, artzai izateko on artua izan da Beraskoiztarra, eta Labastidara bialia.

1569. Lescar-eko batzarrean aurkitzen da, beste euskaldun birekin batean, eta Leizarraga euskaldunen artean lan egiteko nai dute.

Geroxeago, 1571-n, Rochellan degu bera, Testamentu berria inprentatzen. Antxe idazten du Nafarroako Erregiñari egin dion liburuaren eskeintza.

Pabe-ko sinodoak Labastidara bialtzen du berriz ere, Testamentua ateratzen izan dituen neke ta gastuak ordainduta gero; au, 1573-n gertatzen da.

Urrengo urtean, 1574-n, Pabeko sinodoak beragana bialtzeko agintzen du iru ministro edo artzai euskaldunen semetxoak. Iru urte egingo dituzte berarekin euskara ikasten; gero Lescar-era joango dira, Nafartarren eleiz-diruen lepotik, beren ikaspenak an bukatzeko.

Andik urte batzuetara, 1582-n Labastida-ra eldu da Thou, aldi artako protestanteen istorigille ospetsua. An aurkitzen du Leizarraga, Testamentu Berriaren leenengo euskeratzailea. Euskera nai erdera oso ederki egiten omen daki. Katolikoan eleizan bertan egiten omen zituen bere itzaldiak, ordu gutxi batzuk beretzat arturik, baiña iñori mifiik eman gabe, iñolako zaparradarik sortu gabe, pake giroan.

Azkenengo urteetan, 1593 eta 1596-n, Leizarraga ez da aurkitzen Pabe-ko sinodoetan; ordezkoa bialtzen du, zaarrez eta miñez bera ezin baita azaldu. Oraindio, 1598-n Labastidan jarraitzen du, artzai bezela. Eta azkenez, 1601-n, ondorengoa izendatzen diote: Bustanobi, Donapaleuko zerbitzaria.

Beraz, 1598-tik 1601-ra bitartean il zala esan dezakegu, argibide zeatzagorik azaltzen ez dan bitartean.

Artzai Ezkongabea, Artzai Euskalaria

Leizarragaz gaiñera, beste apaiz euskaldun gutxi batzuk ere jo zuten orduko erlijio berrira. Guztien artean, au du berak nabarmengarri: ez zan ezkondu. «Non marié» deitzen diote beretarren batzar-agiriak, eta artzai eskongabeari bezela neurtzen diote bere lan-saria.

Orrez gaifiera, jakintsua da, liburu-zalea, eta euskeraren muiña ta barruak beste bere lagunak baiño sakonago ezagutzen dituena; onetan maixutzat zeukaten beste guztiek. Orregatik, beren erlijioaren arimazaitzari beren semeetan iraunerazi naiez,

Leizarragana joten dute, beren aurrei euskera irakatsi ta euskaldunen artean artzai izateko gai atera zitzaizkien.

Beste oiek, bear bada, euskera aitzuxe zeukaten. Bearnora edo urrutirago joaten ziran erlijio berriko gaiak ikastera, eta ola, gazte xamarik atzerrira joanaz, beren etxeko izkuntza galdu egiten zuten. Askotan aldatzen zituzten gero Euskalerritik atzerrira, Bearnaldera, eta erdalerritik Euskalerrira. Gaiñera, bear bada, beren semei irakasteko astirik ez gaitasunik ez zeukaten. Leizarraga zan maixu bakarra orretako. Bere urterik onenak Euskalerraren biotzean egiña zan, euskaldun jaiotako eta euskaldunen artean luzarago bizia. Sustrai sendoagoak botata zeuzkan euskerak bere gogoan eta mingaiean.

Eta orrexegatik billatu zuten bera itzulpen-lanerako ere, beren Ebanjelioak eta beste esku-liburuak euskeratzeko. Erregiñaren belarrietaraino iritxi zen bere izenaren otsa, eta ez zuten onik izan Bearnora eramanez.

Itzulpen-lanetan

Erregiña 1562-garren urtean gelditu zan alargun. Arrezkero, gero ta sutsuago ekin zuen erlijio berriaren alde. Urrengo urtean agertu zan Testamentu Berria bere menpeko geienen izkuntzan, Bearnokoan, beste calvinisten eskuliburuekin batera: dana, Joana Albrete-ri, Nafarroako erregiñari eskeiñirik. Eta orra orain euskeraren aldia etorri.

Leen ere ikusi degu: Olorongo sinodoak (1564?) eman zion indarra asmoari. Gizon andi batzuk jo zuten Leizarragana, beronek Erregiñari egin zion eskeintzan dionez: Erregiñaren Lieutenant Generala, Belsuntze eta Meharin jaunek, eta beste adiskide batzuk. Oien erregetan, Sinodoaren erabakiekin batera, Erregiñaren borondatea zetorkion. Ikusi, ez degu uste Erregiñak eta berak inoiz elkar ikusi zutenik. «Ezagun gabea bezala» agertzen dio bere burua Erregiñari. Ain zuzen, 1571-garren urte orretan Erregiña bera izan zan, urriaren 17-n, Pabe-ko sinodoan: baiña egun aietan Labastidako artzaia Rochellan zegoen.

Zer erantzun eman zien Leizarragak etorri zitzaizkion erreguei? Apurka apurka beldur eta zalantza guztiak utzirik, baietza eman zuten, eta gaiñera egozten zioten len neketsua bere gain artu.

Neketsua zan benetan, izan ere, berak aitortzen duenez. Egiteko zaila izan da, dio berak, beste izkuntzentzat ere liburu santuen itzulpena, eta zailagoa izan bear gurean, ainbat zailago «zenbatez nik eskribatu dudan lengoaje mota baita esterilnetarik eta dibersenetarik: eta oraino, translazionetan behintzat, usatu gabea». Naiago luke berak neke ori besteren batzuk artzen balute. Antxinako Poedaretus ura bezala, pozik legoke, bera baiño euskaldunago ta jakitunagoak milla sortuko balira, bera bazterrean gelditzeko eta lan ori trebetasun geiagoz egiteko. Bein baiño sarriago, bere eziña ikusirik, eta ain arazo andia artzeko gai ez-tala-ta, uko egiteko zorian egon da.

Baiña, bestetik, arrazoi asko ikusten ditu, lanera «gogaeraziteko»: Ain basatiak ote dira, bada, euskaldunak, jaunaren itza beren izkuntzan ezagutzeko erarik ez eukitzeko? Jainkoaren itzak ez ote du izan bear sartzerik eta aurera egiterik Euska-

lerrian? Orrez gaiñera, ez ote da sortuko beste bera baiño lagun gaiagorik eta denetan jantziagorik, lan orretan laguntza eman dezaiokenik, «Obran esku edukiren luenik»?

Dana ondo begiraturik, eta Erregiñari atsegin eman eta bere asmoetan laguntza eskeintzearren, baietz esan zuen, bere aalak egingo zituela: «gogo egin nezan, neure ahal guziaren egitera».

Eta, eskatu zioten bezela, Pabera dioa eta lanari eltzen dio. Ez du beste egitekorik. Erregiñak eta sinodoak agindu zuten erriaren ondasunetatik emateko berari saria. Urte betean amaitu zuen itzulpena.

Galdera batzuk baditugu emen egiteko: Nondik egin zuen bere itzulpena: Vulgatatik, ala Gerkeratik? Ez ote zan frantzes-itzulpenen batez baliatu? Gai onetan argi egiten Lafon jauna uste degu saiatu dala geien (*Le système du verbe basque au XVI^e siècle*, t.1, p. 54-57).

Onela laburtu genezake beronen erantzuna: Leizarragak protestanteen aldetik izan zuen ezkerro Testamentu Berria itzultzeko egitekoa, errez ulertzekoa da protestanteek zerabilten prantzes-itzulpenen bat izan zuela aurrean. Oiek Olivetan zeritzan baten itzulpena erabiltzen omen zuten, 1535-tik aurrera, askotan orraztu ta zuzendua. Biblia orri, calvinistek zabaldu zuten orri, Ginebrako Biblia esaten zaio. Leizarragak, 1560-ko argitaldia erabili zuen, bear bada. Orri jarraitzen omen dio askotan beraz, ez Vulgatari ez Gerkerazkoari jarraitzen ez dionean. Noizik bein, ordea, Vulgataren edo Gerkerazkoaren bidetik omen dabil, Ginebrakoa alde batera utzita. Beraz, labur esanda, Ginebrako Biblia ori artzen du eredu; baiña, obeto iritzi dionean, ez zaio ari lotu; Vulgata ta Gerkerazkoa ere aurrean izan ditu.

Eta bere itzulpen-legea zeaztasuna izan da. Berak ala dio: «Haur bai erranen dut, ezen bethi orhoitik nola Jainkoaren manu expresa den haren hitzari deus edeki eztakion ez eratxeki, hala egin ahal dudan fidelkiena egin ukan dudala».

Jainkoaren itzari ez zaio ezer kendu ez erantsi bear. Orregatik, noiz edo bein, Jaunaren itzaren argigarri, euskeraz beste izen bat sartu bear izan badu liburu santuen itzei zeatz ez dagokiena, olako itza letra xeeagoz jartzen du. Ortik jabetuko da irakurlea ez dirala itz oiek «textu gorputz berekoak, baina deklaragarri iarriak».

Orregatik, aldea dago Leizarragaren Testamentu Berriaren itzulpenetik beste protestanteen eskuliburuen itzulpenera. Emen ez da ibiltzen frantzes-textoei ain loturik.

Leizarragak zein euskalkitan idatzi zuen?

Euskera batetik bestera aldea dago. Ola da orain, eta ola zan Leizarragaren egunetan. Egoera onek bere buruausteak ekarri zizkion gure idazleari. Zein euskeratan idatzi? Bateko ta besteko itzetatik zeintzuk autatu, eta adiz-jokoetatik zeintzuk erabili? Askotan egin behar zizkion olako galderak bere buruari. Korapillo onetaz beingoan konturatu zala dirudi, lanean asi zaneke.

Onela dio berak: «Batbederek daki heuskal-herrian kuasi etxe batetik bertzera ere mintzatzeko maneran zer diferentzia eta diversitatea den: razoin hunegatik sensu egiazkotik aldaratu gabe, lengoajeaz den bezenbatean, ahalik gehiena guziei adieraziteari iarreiki izan gaitzaitza, eta ez xoil edozein leku iakineko lenguaje bereziri».

Beraz, ez da iñongo leku iakineko euskera Leizarragarena; badu batzuen eta besteenetik. Beraskoizko semea da; baiña, geroago, Lapurdin urteen batzuk egiña. Bi euskalkiren jabe zan, gutxienez, geiago edo gutxiago. Zeiñi eman dio lekurik andiena?

Arkaismo batzuk kontuan artu gabe, (eta badu Leizarragak olakorik), esan dezakegu, jakintsuen iritziz, bere euskarak Lapurdikoarena duela kutsurik geien, Lapurdiera dala geien batean. Batez ere, Testamentu Berrian. Idazlan txikiagoetan, Zuberokoaren aztarren geiago badu, esaterako, *gizoner*, eta ez *gizonei*, Testamentu Berrian, ordea, Lapurdiko bukaerak ditugu, fonetismoak Lapurdikoak dira, eta Lapurdikoak hitzak, naiz ta forma zaarretan.

Ala ere, emen egin genezake beste galdera bat: Nola atera zan liburu au leenengoz Leizarragaren lumatik? Ikus degunez, Leizarragaren lana aztertzeke izendatu zuten batzordekoei azaldu zitzaizen euskalkien auzi au, aren lana ikusita. An ikusi zuten, nonbait, ez zala guztientzat ain ulertteraza ark zerabilen euskera. Izan ere, zuberotarrek ziran batzordeko geienak: Joanes Txeberri edo de la Rive, lapurditarra, Donibane Loitzungo semea; eta Piarres Landetxeberri, Tartas eta Tardets, Zuberoko semeak.

Auzia erabakitzeke, beste batzorde bat sortzea erabaki zuten: euskeraren jabe ziran batzuk artean bear zituzten, batasun batera etortzeke. Batzorde orrek nondik nora jo zuen ez dakigu; sortu zanik ere ez, garbiago esateko. Ala nai ola, esan dezakeguna da zuberotarrei ez zitzaie la batasunera bide orretan amor andirik eman; oien euskerarik gutxi sartu zan Testamentu Berrian.

Besterik ezean, orraitio, iztegitxo bat sartu zuten liburuaren azkenean, Zuberon erabiltzen ez ziran itz-mordoska baten itzulpenarekin. Obeki elkar artu zuten, noski, lapurtarrek eta manexek. Baiña, nork daki non zan eta non ez zan orduan euskalki batetik besterako aldea?

Beraz, Leizarragak berak eta besteak esan zutenarekin gelditu gaitezen: alegia, ez dutela erabili iñongo leku iakineko euskerarik, bai tarteko bat, eta tarte onetan lapurdierak eraman zuela leoiaren zatia, andiena.

Leizarragak eta besteak esan degu. Kontuan izan bear degu, izan ere, Erregiñari zuzendutako gutunean Leizarraga *nika* ari dala; baiña urrengo datorren eskeintzitzetan, euskaldun guztiei zuzendutakoetan *guka* ari dira. Ageri denez, emen ez da bat bakarrik mintzo, bai batzordeko guztiak, guztien iritzia emanez.

Kontuan artzekoa dala uste det lerroetan esaten ziguna ere: «Badakigu ezen denborarekin anhitz hitz eta mintzatzeko manera eridenen dela obra hunetan bertzela hobeki erran zatenik». Aitorpen zintzo ta apala! Beren euskera iñork gaizki artu baleza ere, irikita uzten dute bidea, ohea egiteko gai danari obeki egiteko eskubidea aitortuz. Badakite iñork iñoiz urratu gabeko bideetan dabiltzala: euskera, itzulpenetan, artean «usatu gabea» dala. Beraz, ez da mirestekoa utsik gabekoa ez bada berena: «Hunelako gauzak, guziz lengoaje oraino usatu gabe batetan, ezin behingoan halako perfekzionetan iar daitezke, nola behar bailizateke».

Orregatik, prest daudela adierazten dute egin duten lana berriz ikusi ta zuzentzeke, urrengo argitaldi batean. Borondate oberik eta apalagorik ezin zezaketen erakutsi.

Ez dute neke makala artu euskaldunik geienek aditzeko euskera egitearren. Ez

dute beti errezenera jo. Iñoiz itz berriak ere asmatu dituztela esango genuke. Esaterako, *targoa* ez ote da leenbiziko aldiz liburu onetan agertu dan itza? Guk ala uste degu. Itz ori irakurtzen da bein Pauloren *schisma* esateko. Leizarragak berak asmatu duela dirudi, berez bezala. Batzuek Paulotarrak, besteak Apolotarrak dirala diote? Zuek ez erabili olako fargoarik. Berdin esango nuke beste sustrai bereko itz batez ere: *bere buruentar*, Pauloren *filautoi* edo *seipsos amantes* esateko.

Euskera zaarraren aztarnak

Itz berri egokirik badu Testamentu Berriak, eta bai euskera zaarraren aztamak ere. Oartu zitzaian Larramendi, XVIII-garren mendean, eta bere iztegiaren itzaurrean aipatzen ditu. Bi edo iru erakutsiko ditugu emen.

Euskera zaarraren aztarna du aditzaren agintzeko edo inperatiboko aditz-joko batzuetan. Pitean pitean erabiltzen du urrengo gizalditik aurrera errez aurkitzen ez diran inperatiboko forma bat, *albei* edo *albeit* aurretik duela: esaterako, *albeileki*, *albeintindoa*, *gure jakin beza* edo *bijoa-ien* ordez.

Are geiago aurkitzen da leen-aldian, igaroan, orain subjuntiboan bakarrik erabiltzen degun beste forma bat: *ethor zedin*, *egin nezan*, *gure etorri zen* edo *egin nuen* en ordez. Onek ez du esan nai *zen* eta *nuen*, ezagutzen ez dituenik, beren aldiaren eta bakarrean dijoztela, beste laguntzaillerik ez dutenean, eta zearretako esaeretan: adibidez, *ethor zedin* esango du, batetik, baiña gero, *ethorri zenean*, bestetik. Forma oiek Bizkaian oraintsurarte erabili izan dira erri batzuetan eta kantaren batean entzuten dira gaur ere.

Ez du zeresanik gutxi eman beste bere joera batek: bai Testamentu Berrian, bai Kateximan eta otoiizetan, alkar-izketan eta galde-erantzunetan, *ika* ari da beti. *Ika* itz eragiten die guztiei, bai Jainkoarekin ta bai beste nornairekin.

Onek ere ez du esan nai zuketarik ez duela ezagutzen. Ain zuzen, berak Erregiñari egindako gutunean zuketa erabiltzen du Erregiñarekin: Jainkoarekin *ika*, baiña Erregiñarekin ez. Orregatik utsunetxo aurkitzen diogu ontan Lafon jaunari, XVI-garren mendeko euskal-aditzari buruz egin zuen liburuan. Leizarragaren *zukako* formarik jaso ez duelako. Mordo bat bazuen an, atari-atarian.

Zuka-ikako gorabeera au Leizarragaren liburuan orain bezelaxe dago. Bizkaian gure egunotaraiño askozaz arkaikoago azaltzen izan zaigu, Aita Bartolome-ren liburuetan ikusi liteken bezela. Adibidez: Aita Bartolomek *dozu* erabiltzen du plural bezala; Leizarragak sekula ere ez, *duzu* esango du sigularrean, eta *duzue*, pluralean.

Zergatik derabillen ainbeste *ika* eta *zuka* ain gutxi? Beste auzirik degu or. Bear bada, biblia zaarretan eta protestanteen otoiizetan oitura ori artu zutelako, gure idazleak bide beretik jo du. Gogoan izan dezagun, gaiñera, Leizarragaren lan guztia itzulpena izan dala, itzez itz egindako itzulpena, ain zuzen. Orregatik bide bat artu du: latinezko edo frantsesezko *tu* guztiak *hi* egingo ditu; baiña bai frantsesezko *vous* guztiak ere, *zu* edo *zuek*, bietara. Eta orixe da oraingo euskera; orixe da oraindik ere, gai onetan, gure euskera beste inguruko izkuntzetatik bereizten duena; gurean, *vous* bikoitza da, *zu* ta *zuek*; besteetan, bakarra, Leizarragak onetan ez dii beste misteriorik, gure ustez.

Testamentu Berria leenbiziko aldiz argitarara

Ez dakigu zerk atzeratu zuen Testamentu Berriaren argitaratzea. Ain azkar egin zan lana sei urte geroago agertu zan. Bearbada, leen esan degunez, luzeegi joan ziran zuzentzailleen eztabaidak eta dana argitu arte, ez zan aurrerako urratsik eman.

Inprentako lana ikertu ta zuzentzeko, Rochellara bertara deitu zioten itzulzailleari. Antxe izenpetu zuen liburua Erregiñari eskeintzeko egin zuen gutuna. Agorrillaren 22 zan. Baiña egunik gogoangarriena, inprentako lana bukatu zanekoa: urrengo illaren, buruillaren 24. Egun au Leizarragak berak utzi zigun markatuta bere egutegian.

Liburuak titulu auxe zekarren: «Jesus Christ / Gure launaren / Testamentu / Berria». Tituluaren azpian, Nafarroako Erregiñaren armariaren irudia; armariaren azpian, Mateoren Ebanjelioko, itzok: «Haur da ene seme maitea, zeinetan neure atsegin ona baitut, huni beha zakizkiote».

Eta orrialdearen azpian: «Rochellan. Pierre Hautin inprimizale. 1571».

Emen Testamentu Berriaz bakarrik ari gera; baiña esan dezagun liburuaren ale batzuekin batean, bazetoztela beste batzuk ere. Aldi artan Calvinistek atera oi zituzten liburuak dira. Beren esku-liburu bezala erabili oi zituzten: Calvinoren *Advertimendua*, Othoitza Ekklesiastikoaren forma, Baptismoaz, Cenaz, Ezkontzaz, erien bisitaz eta Catexismea (oraintsu izen berri batekin berriro argitaratuak); eta Fedeko Konfesionea (*Confessio Galicana delakoaren itzulpena*). Urte berean argitaratu zituen *Kalendrera*, *Bazko noz daten*, eta *ABC*, edo *Kristinoen instrukzioea*. Oien berri zeatzagorik ez degu ematen emen.

Beraz, ale guztiak ez dira berdiñak; batzuetatik besteetara baiño geiago edo gutxiago daukate. Gaiñera, ale batzuetatik besteetara itz batzuen aldea dago, Lakonbe eta Vinson jaunek erakutsi zuten: *diroano-dezakeano*, *arthalde-arthegei*, *diotso-diotsa*.

Xeetasun oietatik ateratzen dute batzuk ateraldi bat baiño geiago izan zuela Testamentu Berriak, edo ale guztiak, beintzat, ez zituztela batera inprentatik atera, ateraldia luzatu egin zala. Eta ala dirudi.

Badirudi liburu au ez zala 1571-n berean banatu ta zabaldu. Urrengo urtean il zan Nafarroako Erregina, eta norbaitek esana da liburu ori ikusi gabe il zala. Leizarraga bera ere Rochellan agertzen da 1573-garrenearte. Orduan, azillaren 12-an, ordaindu zizkioten inprentatzen artutako nekeak, eta urrengo urtean, 1574-garrenean, Abenduaren 15-n Pabeko sinodoan erabaki zan Testamentu Berria nola ta nortzuk zabaldu.

Beste bi argitaraldi

Ez da XVI-garren mendeko euskal-libururik Leizarragarenak baiño zori obea izan duenik. Ainbat aldiz argitaratua izan da gero, bai zatitan eta bai osorik argitaratua.

Zatitan agertu diran puskek alde batera utzirik, bi argitaraldi izan ditu XX-garren mende onetan bertan:

1) 1900. Strasburg-en. Alemanian ezagutzen ziran aleetatik Linschmann eta Schuchardt jaunek aterata. Testamentu Berria bakarrik ez; Leizanagaren idazlan guztiak daude emen.

2) 1903-1908. Londresen. «*The Trinitarian Bible Society*» dalakoak aterata, itxura danez, Dogson-en ardurapean. Testamentu Berria besterik ez (1).

Nolako arrera izan zuen

Gure idazle onen mendean idatzi ziran beste euskal-liburuetatik ia ez zaigu alerik gelditzen. Leizarragarenak ainbeste daude, ainbat lekutan zabalduak: Euskalerrian, Madriden, Frantzian, Alemanian, Ingalaterran, Erroman.

Erromako Kardenalen eskuetan izan da; kalonje, apaiz eta prailleen eskuetan agertu da. Bai andikien eta legegizonen eskuetan ere. Bibliografi askok eman dute bere berri. Iñoiz, ori bai, bitxikeririk ere esan dute: *Berria* norbaitek euskeraren izentzak artu zuen. Nicolas Antoniok bere «*Bibliographia Hispana*» dalakoan leku eman zion, Leizarraga espainola zelakoan, noski. Eta oraintsu, Gaztelako biblialari batek (J. Pradok) bere latinezko «*Institutionum Biblicarum Compendium*» delakoan aipatu du.

Ez dakit nola asmatu duten norbaitzuk ale gutxi iritxi zaizkigula, protestantea zalako. Katolikoan amorrak surtara botatzen omen zuten liburu ori. Zorioneko sua! Olakoxe sua bearko zuten beste orduko euskal-liburuak, zori ohea izateko.

Egia esan, ez dakigu ez zenbat ale atera zituzten, ez gutxi ala asko zabaldu ziran, ez nolako arrera izan zuen. Nolanai ere, erretzeen aipamenik ez degu irakurtzen iñon. Orduko berririk asko iritxi zaigu, calvinistek berak emanda; baiña liburu-erretzeenik, itzik ere ez. Ortaz zenbaitek esana berak beren buruetatik atera dute.

Egiago litzake, gure ustez, beste zerbait esatea: alegia, ez zuela ez berprik ez otzik sortu. Irakurle txarra izan da gure erria, eta galduak izan diran beste liburu asko ere ez dira geiegi irakurtzez galdu ez agortu. Ez dago emen surik asmatu bearrik.

Oarpen oietxek egin zizkion euskaldunen batek Llewelyn Thomas jaunari, Urteren *Ethorkia*, beste protestante baten itzulpena argitaratu zuenari. Egia besterik ez zion esan, gure ustez.

Testamentu Berria bera baiño bildurgarriago zitezkean katolikoentzat ark geigarriztat zeuzkan beste calvinisten eskuliburuak; baiña alakorik gabe ere atera zituzten ale batzuk. Oietako aleren bat izan zuen eskuetan Larramendik, Baionako kalonje batek emanda, eta badakigu zer esan zuen: Nafarroako Erregiñaren armarriak atarian ikusi ez balitu, ez zuela beingoan igarriko protestanteen liburua zanik.

Haraneder ez zan, orraitio, iritzi berdiñekoa izan: «Ezin gelditu da [Leizanaga], bere obrari iretxiki gabe zenbait lekutan berak hartu zuen izurritik eta iretzi zuen pozoifiatik». Onegatik egin zuen berak beste itzulpen bat, unengo menderarte argitaratuko ez zana.

(1) Orain Leizarragaren lan guztien edizioa daukagu, neronek utzitako ale batek Ordago-k argitaratua, 1571ko edizioaren kopia.

Izurrik, pozoïnarik, egia esateko, ez dezakegu esan itsatsi zaionik Testamentu Berriari. Auzi onetan, Larramendik arrazoia zuelakoan gaude, alde batetik. Baiña, bestetik, egia da Calvinistena dala Leizarragaren itzulpena: calvinistek zerabiltzen frantzes-bibliarena duela bere mamia. Leizarragak ez zion ezer kendu ez erantsi nai jaunaren itzari. Calvinistek beren itzulpenean erantsi naiz kendu ziotena besterik ez zuen kendu ez erantsiko.

Baditu olako bi eraskin, esaterako, *Pater noster* otoitzean: bat, Mateoren textoan, eta bestea Lukasenean. Baiña ez dute pozoïfiarik, ez dute ezeren izurrik. Mateorena, oraintsu, Eleiza katolikoak ere bere mezan sartu du, ez noski Ebanjeliokoa dalako, baiña bai, *Didaje* liburutik dakigunez, antxiña-antxiñako kristauak *Pater noster* orren ondorean esaten zutelako. Ona gure Leizarragaren itzulpena: «Ezen hirea duk resuma, eta puisantza, eta gloria sekula sekulakotz». Lukas-en eranskia, berriz, Mateo-renetik artuta dago. Oraintsu, ekumenikoek egin duten itzulpenean ez daude ez bata ez bestea.

Leizarragaren itzulpena baiño urte batzuk lenago agertu zan liburu bera Beamoko izkuntzara itzulita, eta ez omen da aren aztamarik. Onek ere gureak baiño zori gaiztoagoa izan du. Eta iñork ez du surik aipatzen.

Aipa dezagun emen Llewelyn jaunaren beste iritzi bat: Urteren *Ethorkiari* jarri zion itzaurrean dionez, Testamentu Berria Euskalerrian asko zabaldu balitz, gero-txoago Morgan-en Bibliak Galesko izkuntzari egin zion mesedea egin zezakeon gure euskerari: euskera literarioa sortu, euskerari batasuna eman, euskalkien arteko banatasuna ausi. Zer esan? Balizko errotak iriñik ez omen da eioten, eta alperrik ariko gera zer gerta zitekean asmatzen. Ala ere, Leizarragaren euskera ez zan, bere aldian bertan, euskaldun guztien batasuna egitekoa, ez guztiek ulertzekoa. Berak ere bazekien ori. Nolabaiteko batasuna egin zezakean lapur eta nafartarren artean. Andik kanpora, ez ain errez.

Zorionez gure euskerak Galesko izkuntzak baiño bizi ohea izan ote duen nago, eta Morganik gabe, bere banatasunean, osasuntsuago irau du beste izkuntza askotxok baiño. Ez da gauza utsa.

Batasunik gabe ere, bizi gera. Eta bizi geralako, ospatu nai degu gure Leizarraga, gure batasunaren sortzaille bikaintzat, bederen.

Orain, beintzat, ez du arrera txarrik ez surik izango. Orain, beintzat, ez da aren aldiko gudu ta burruka-girorik. Orain badakigu nor nor dan, non dan ta nora dijoan orduko eztabaidazko gaietan, eta elkar ongi artzeko giroa sortu da.

Giro obe onen paketan, Euskalerrriak maitez oroitu beza Beraskoizko seme argia; biotzez gogoratu beza 1571-garren urtea, eta urte orretan buruillaren, irailaren ogei ta laua.

Egun onetan idatzi zuen Leizarragak bere egutegian, *Kalendreran*, euskaldunen-tzako berri on auxe:

«Egun hunequin Testamentu berria Heuscaraz lehenic imprimitzen acabatu. 1571.»

Bibliografia

Artikulo au egiteko aztertu diran liburu batzu:
 Leizarraga, *Testamentu Berria*. Batez ere 1900-n argitaratua.
 Vinson, *Bibliographie de la Langue Basque*, p. 5-46.
 Lafon (René), *Le Système du Verbe Basque au XVIIe siècle*, p. 48-65.
 Vinson, Schuchardt, Jaurgain eta Lacombe-ren lanak.
 RIEV-aldizkarian, batez ere 1907-1908, eta 1931-an.
 Moreau (Roland), *Histoire de l'âme basque*, p. 169-180.

OARRA: Nola da Joanes Beraskoizko seme onen izengoitia, Lizarraga, ala Leizarraga? Berak frantsesez Lizarrague erabiltzen du; baiña euskeraz Leizarraga. Onela jarri degu guk.

Leizarraga-ren Euskera (atalak)

Mat. 1, 18-21

Bada lesus Kristen sortzea hunela izan da. Ezen Maria haren ama Iosephekin fedatua zela, ek elkargana gabe, izorra eriden zedin Espiritu Sainduaganik.

Orduan bere senhar Iosephek, zeren iustoa baitzen eta ezpaitzuen hura diffamatu nahi, sekretuki utzi nahi ukan zuen.

Baina gauza hauk gogoan zerabiltzala, huna, launaren aingema ager zekion ametsetarik zioela: Ioseph, Dabiden semea, ez aizela beldur eure emazte Mariaren hartzera: ezen hartan konzebitu dena, Espiritu Sainduaganik duk. Eta erdiren duk seme batez eta deithuren duk haren izena Iesus. Ezen hark salbaturen dik bere populua haien bekatuetarik.

Mat. V, 38-42.

Enzun ukan duzue, ezen erran izan dela: Begia begiagatik, eta hortza hortzagatik.

Baiña nik erraiten drauzuet: Eztiezozuela resisti gaizkiari; baina baldin norbeitek io baheza eure eskuineko mathelan, itzul iezok berzea ere.

Eta hiri auzi egin nahi drauanari, eta eure iaka edeki, utzi iezok mantoa ere.

Eta nork ere nahi ukanen baiheu bortxatu lekoa baten *egitera*, albeitandoa harekin biga.

Eskatzen zaiyanari emok: eta hireganik maillebatu nahi duena eztezala iraitz.

Mat. XXII, 36-39.

Majistma, zein da manamendu handia Legean?

Eta Iesuek erran ziezon: Onhetsiren duk eure Iainko Iauna eure bihotz guziaz, eta eure arima guziaz, eta eure pensamendu guziaz. Haur duk manamendu lehena eta handia. Eta bigarrenak hura imdi dik: Onhetsiren duk eure hurkoa eure buma bezala.

Jn. I, 1-8.

Hatsean zen Hitza, eta Hitza zen lainkoa baithan, eta lainko zen Hitza. *Itz* haur zen hatsean lainkoa baithan. Gauza guziak *Hitz* hartaz egin izan dirade: eta hura gabe deus ezta egin, egin denik. Hartan zen bizitzea, eta bizitzea zen gizonen Argia: eta Argi hunek ilhunbean argitzen du: eta ilhunbeak hura eztu konprehenditu.

Izan zen gizon bat lainkoaz igorria, Joannes deitzen zenik. Haur ethor zedin testimoniaje *ekartera* Argiaz testifika lezantzat, guziek harzaz sinhets lezatentzat. Etzen hura Argia, baina *igorri zen* Argia testifika lezantzat.

/ Cor. 1,10.

Othoitz egiten drauzuet, anaeak, lesus Krist gure launaren izenaz, gauza ber bat erran dezazuen guziek, eta ezten zuen artean targoarik; baina zareten adimendu batetan eta gogo batetan.

II Tim, 3,1-5

Haur, bada, iakik, ezen azken egunetan izanen dela denbora perilosik. Ezen izanen dituk gizonak bere buruentar, avarizioso, bantari, urgulutsu, disfamazale, aita-ametara desobedient, ingrat, lainkoaren menospreziatzale, afekzione natural gabe, leialtade gabe, kalumniatzale, moderamendu gabe, krudel, on diradenen gaitzetsle, traidore, temerario, hantuak, lainkoari baino boluptatei obe erizle, pietatearen irudia dutelarik, baina haren berthutea ukatzen dutelarik: aparta adi, bada, hetarik.

Apoc. XXII, 16-17.

Nik, lesusek, igorri ukan dut neure Aingerua gauza haur testifika lietzauentzat Elizetan. Ni naiz Dabid-en zaina eta jenerazionea, Izar argitzen duena eta goizekoa. Eta Espirituak eta Esposak erraiten dute: Athor. Eta egarri dena, bethor; eta nahi duenak har beza bizitzeko uretik, dohainik.

II*

Testamentu Berria euskerara itzuliaz, arlo onetan bukaturik gelditu zen Leizarraga-ren egitekoa. Ez zuen onek aurrerago jotzeko asmorik artu. Esan nai det: Biblia osoa euskeratzeorik ez zitziola burutara etorri. Testamentu Berria itzultzeko agindua besterik ez zioten eman, eta berak bere oldez eta gogoz ez zuen geiago egiteko nekerik artu. Agindu ta ordaingu ziotena egiñez ase ta beterik gelditu zala dirudi.

Geienaz ere, egin zuen lana berrikusi, zuzendu ta obetzeko gertu zegoen. Ala esan genuen lengo arkuluan. Orain zerbait geiago esan bear degu: gertu zegoela (eta au protestanteen biblietan nabarmen eta arrigarri samar egiten zaigu), urrengo ateraldien batean, bere Testamentu Berria oarez omitzeko ere, «baldin launak plazer badu (ala dio bérak), pasaje difizilenen deklaragarri anotazioen ezarteko».

Emen, bere aldiko Montaigne ospetsuaren iritziko zan, nonbait. Montaigne-k, euskerazko Testamentuaren berri jakinda gero, ain zuzen, idatzi zuen Liburu Santuak erri-izkuntzetara itzultzea ez zala naiko, erriak ulertzeko. Itzek ez omen daukate errurik edo obenik, idatzirik aurkitzen dan guztia ulertu ezin bada. Bibliaren pasarte askok argitasuna bear dute, eta Leizarragak ez zien ukatu nai laguntza au irakurle euskeldunei.

Zentzunezko asmoa zan berea, baiña, damurik, asmo utsetan gelditua. Eta urteak joan ziran, Biblia osoa euskeraratzeko nekea lenbiziko aldiz norbaitek erakutsiko zuen arte. Leizarraga-ren antzeko bat saiatu zan orretan, leenik apaiz katoliko izan eta gero protestanteen artera igaro zan bat, eta Euskalerritik kanpo, Ingalaterran, saiatu ere. Andik aurrera Ingalaterra-tik etorriko da euskerazko Bibliak zabaltzeko protestanteen oldarra eta bultzada.

Pierre D'Urte-ren lana

Protestante egindako apaiz eta fraide euskal-idazle orrek Pierre (Betri) d'Urte du izena. Biblia osoa eman nai izan zuen euskeraz. Eta onela asi zuen bere lana:

Biblia Saindua

Testament zaharra eta berria
idukitzen dituen.

Bertzela,

Alientzia zaharra eta berria:
edo Iskritura Saindu guzia.

Asiera ederra, asko agintzen zuena, benetan, jarraipenak edo amaierak lagundu izan balio! Baiña lan orren puska bat besterik ez da gure ezagutzera eldu: Genesis, edo *Ethorkia*, eta Exodo, edo *Ilkhitzea*, XXI-garren kapituluraino.

Ez da bera Urte-k egin zuen lan bakarra. Izen andia du beronek, gramatikalaria ta iztegitigille bezala ere. Latin-euskerazko iztegi bat badu, *Commotus* itzeraino eginda; argitaratu gabe dago. Gero, *Grammaire cantahriaue*, edo euskal-gramatika ere bai, 1900-an Bangéres de Bigorre-n argitaratua.

Bere Bibli-itzulpena leenago eman ziguten, eta bi argitaldi izan ditu gutxienez: 1894-an, Oxford-en, Llewelyn Thomas-en ardurapean (Urte-ren lan osoa dago emen, *Ethorkia* eta *Ilkhitzea*, *Genesis eta Exodo*); eta beste bein, Londres-en, 1898-n, *Ethorkia* edo Genesis-liburua bakarrik, Trinitarian Bible Society dalakoak aterata.

Beste liburu batean ere utzi zuen euskerazko aztarrenik: *Oratio dominica in diversas omnium fere gentium linguas versa* dalako liburuan. Euskerazko iru *Gure Aita* azaldu ziran bertan, bat Urte-ek berak egiña Donibaneko euskeraz.

Bere asmo nausian, Biblia osoa euskeraz ematekoan, poto egin zuen arren, leku berezia zor zaio donibandar oni gure bibli-itzulzailleen artean. Aztertu bat eman dezaioگون berak onetan egin zuen lanari, eta, lendabizi, bere nortasunari.

Nor degu Urte au? Asiera-asieratik aitortu bearra daukagu, gizon oni buruz ere illunpe andian gaudela. Inglaterran protestante egiñik agertzen dan arte, ezer gutxi dakigu bere berri.

Berak esan du Donibaneko semea dala. Ari-mutur oni elduta, gogor saiatu zan Vinson jauna aztarren batzuk atera naiez, baiña argirik gutxi aurkitu zuen. Iru Betri edo Pierre aurkitu zituen Donibane Loitzungo eliz-agirietan, 1664-tik 1669-ra jaioko: irurak elkarren anai edo senide. Leenbizikoa, 1664-koa, gure Urte izan zitekela uste izan zuen, baiña batere segurantzirik gabe.

Inglaterrako agirietatik fraide (kaputxino) ta apaiz izana zala ageri da. Noiz ta non fraidetu ta apaiztua, noiz bere Eliza utzi ta bestera igaroa? Ez da argirik bat ere azaltzen. Nolanai ere, fraide ta apaiz izateraiño iritxi zala jakiñik, ez dezakegu siñetsi berak bere buruaz esan auxe: alegia, amaren sabeletik izan zala katolikoen siñiskerien etsai. Bere Gramatikan ola dio. Zer esan nai ote zuen orrekin? Protestanteen ederra egitearren esan ote zuen? Etsaitasun orren goiztar ori ez dator bat, iñondik ere, geroxeago fraidetzarako ta apaiz izateko joerarekin.

Inglaterran, 1706-an agertzen da lenbiziko aldiz bere izena. Urte orretan apaiz protestante egiña bezala izendatzen dute, bere emazte ta semetxoarekin. Aurra izan berriak ziran, noski, andik amabi urtera ere seme orri aurtxoia esaten baitiote. Urte orretan asi zan protestanteengandik urteroko diru-laguntza artzen.

Nondik etorri zaizkigu berri auek? Inglaterrako errege jaunak, urte aietako batean, batzorde bat sortu omen zuen, atzerrietatik zetozten protestantei diruz laguntzeko, bizibiderik ez zeukatenean. Batzordeak garbitasunak eman bear zituen nori zer ematen zion, eta aren agirietan azaltzen da gure idazlearen izena, 1706-tik asi 1719-raiño. Azkenengo urte onetan, arteiñoko laguntza ukatu egiten diote. Zergatik? Batzordearen baimenik gabe, berriz ezkondu zalako, eta bere erlijiokoa ez zan emaztearekin, gaiñera. Orrela, urak ekarria urak eramane zion.

Bi urte leenagorarte bizi izan zuen lenengo emaztea, eta bera adiñetaratua dagoela esaten zaigu. Zenbat urte geiago bizi ote zan emazte berriarekin? Ez zaigu oraindaiño iñolazko argibiderik etorri eta erantzunik gabe utzi bearko ditugu ori eta beste egin litezken galdera asko.

Bere biziko illunpe oiek argitzerik ez degun ezkeru, jo dezagun bere euskal-ianetara. Arrigarria da nola piztu zitzaion, atzerri urrutian, euskeraren alderako sua. Bear bada, ez zitzaion bere barrutik sortu: bearbada, bestek sartu zioten: protestanteek, batetik, eta jakintsuek, izkuntzalariek, bestetik.

Izkuntzalari ta jakintsu asko ibiltzen omen zitzaizkion inguruan. Olako baten gogoa egiteko itzuli zuen Donibaneko euskerara *Gure Aita*. Olakoen onerako asi zuen latin-euskerazko iztegia. Eta olakoentzat idatzi zuen, noski, bere euskal-gramatika.

Jakintsu oientzat zorion aundia zan euskaldun jator eta kulturadun bat beren alboan izatea, eta lagun artu zuten, euskerak zer nolako giltza eskeiñi zezakean jakin naiez, izkuntzalarien eztabaida batzuetan argi egiteko.

Gero, ordurako asiak ziran Inglaterran elkarte batzuk sortzen, munduan zear Bibliaren argiak zabaltzeko asmoz, eta oiek ere berebiziko aukera zuten gure donibandarrarekin Liburu Santuak izkuntza berri batera itzultzeko. Ez da bat ere arritzekoa Urte-ri laguntza eskatu bazioten.

Noiz ekin ote zion Biblia euskeratzeko lanari? Gutxi gorabeerako erantzuna eman dezaiokegu galdera oni. Bere Gramatikak 1712-an egiña dirudi. *Gure Aita* 1715-an azaldu zan. Guztiz oker ez gera ibilliko, urte oien inguruan asia duela esaten badegu bere bibli-itzulpena.

Asi bazuen asi, ez zuen bururatu, ez zuen amaitu. Bearbada, eriotzeak ez zion astirik utzi geiago egiteko. Eta bere lana illunpean gelditu zan, iñork ezagutu gabe, eta itzalpean egillearen izena, XIX-garren menderarte.

Zorionean berak utzitako paperek nork gorde aurkitu zuten, eta ez zan, beintzat, dana galdu. Joan dan mendean, Ingalterran, Shirburn gazteluan, Macclesfield-eko kondearen liburutegian aurkitu zituzten, eta kondearen baimenaz argitaratu, leen esan degun urtean.

Argitaratu baiño leen, dana ongi azterrerazi zuten eta ona zer eman zuen azterketak.

Itzulpenak ariñik egiña dirudi, berriz ikusi ta ezer zuzentzeko astirik artu gabe. Vinson-en iritziz, Urte-k bere lana berriz ikusteko astirik artu balu, uts batzuk ez zituen dauden bezela utziko, esaterako, iketako forma batzuk noketakoan ordeztatu. Itz banaka bat edo beste itzuli gabe dago, euskeraz nola esango gogoratzen itxedon ez balu bezela. Urte-ren esku-idaztarian puskatxo batzuk utsean, zuri utzita daude, eta argitaratzaileak bete dute gero utsunea.

Urte-k erabilli zuen oiñarri-testoa Ginebrako frantzez-itzulpena dala agerian da. Eta berak egiñerazi dio utsen bat edo beste gure idazleari. Esaterako (Gen. 12, 10), gosetea (famine) emaztetzat ematen du: *Emazte bat ethorri izan zen herrira*. Ori zioen lekuan, *gosete haundi bat ethorri...* jarri dute argitaratzaileek. Beste bein, *mutil* esan bearrean, *orkhaitz* dakar, frantsesen *cerf* eta *serf* bat egiten dituela.

Bestela, olaxe arrapaladan egindako uts batzuk kendu ezker, Urte-k euskera on eta jatorra darabil, eta aintzakotzat eman zuten kritikoei. Euskaldun arrunt askori eman zioten testoa irakurtzeko, eta naiz eta ia berreun urte leenagokoa izan, bere euskera denak argi ta erreztzat eman zuten, batzuk erretegitzat ere bai.

Erdaldunen artean Wentworth Webster, Vinson eta Van Eys izan ziran iritzi-emaille, eta beste euskaldun askoren artean, Larrieu jauna. Jaun onek esan zuen Urte-k erabiltzen dituen itzak ulerterrezak dirala gaur bertan ere, eta itzulpen osoa naiko ontzatdauka. Vinsonjaunarentzat, bikaiñadaitzulpena, argi, garbi, txukun eta zeatza, gramatika-legez, berriz, akatsik gabea; eta euskalki baten eredu bezela, Leizarragarena baiño askoz ohea.

Ainbeste eder iritzirekin, begiak argitu zitzaizkien argitara naiez zebiltzenei, eta liburuak arrera ona izango zuelakoan inprentara bialti zuten. Protestanteek beste euskal-idazle jator eta on bat azaldu zezaketen, Leizarraga-renaz gaiñera.

Urte-ren asmoa ta amesa, Biblia osoa euskeraz ematekoa, ez zan bete. Baiña bein artu zuen asmo eder orri, eta egin zuen lantxoari, euskaldun guztiek eder iritziko diotelakoan gaude.

Gramatikalari bezala, Larramendi-ri urte batzuek aurrea artu zion eta bere gramatika punto askotan *El Imposible Vencido* egin zuenarena baiño beteago ta aberatsago da.

Gure bibli-itzultzaileen artean, deduzko lekua, leku berezia izango du noski.

Itzulpen berriak 1825-ko urtean asita

Inglaterrako Biblia-zabaltzailleen elkarteak XIX-gn. mendean ikusten ditugu beren lanean gogatsuago ta ekiñago. Beren eragitez azaldu ziran 1825-n eta 1828-n Ebanjelio batzuk eta Testamentu Berri osoa ere bai: 1825-an, Ebanjelio saildua S. Mathiuren arabera, Lapurdiko linguayaz; 1828-n, Ebanjelio Saildua S. Mathiuren arabera, Lapurdiko eskuararat itzulia; eta urte berean, Laur Ebanyelioak eta Apostoluen egintzen Liburua, eta Testament Berria osorik, Lapurdiko eskuararat itzulia.

Askotan aipatzen dira Leizarragaren argitaldi berriak balira bezala. Alakotzat sartzen ditu Vinson-ek bere *Bibliographie* andian. Baiña, arretaz begiratu ezker, Leizarraga-ren kutsurik gutxi ikusten degu aietan. Orregatik itzulpen berrizat jartzen ditugu emen.

Beste oien iritziak badu bere tankera. Izan ere, Ingalterran bada Leizarraga-ren ale bat edo beste. Olako bat artu zuten bibli-elkartekoek, kopiak aterazi eta norbaiti euskera berrian jartzeko eman. Vinson-ek dionez, tartean ziran bi artzai protestante: Pyt jauna, Baionakoa, eta J. Martin, Bordelen artzai izana.

Eta Vinson-ek uste du ez zutela zuurregi jokatu beren asmoa egiteetara eramatekoan. Leizarraga-ren itzulpena kopiatu ta lenen aurkitu zuten euskaldun bati eman omen zioten testo zaarra berritzeko lana, eta euskaldun orrek borondaterik geiago omen zeukan egikizun orretarako jakiterik baiño. Iñork ez omen zion ongi iritzi egin zuen itzulpenari. Orregatik arrera txarra izan omen zuen euskaldunen artean.

Lafitte jaunak euskaldun orren izena edo goitizena ere atera digu nonbaitetik: Gaidor, Beraskoizkoa eta muga-gizona omen zan. Eta bere lana egiteko ez omen zuen erabili Leizarraga-ren *Testamentu Berria* bakarrik; Haraneder-en itzulpena ere, artean argitaratu gabea, aurrean izan omen zuen.

Baiña ez dago dana argi emen; bada illuntasunik. Galdera auxe datorkigu ez-paiñetara: Zein da Gaidor orrek orraztu ta antolatu zuen Testamentua edo Ebanjelioa? Urte oietako itzulpenek ez baitirudite esku batek egiñak, ez baitira berdinak. San Mateoren Ebanjelioa, 1825-an azaldua, eta 1818-koa ez dira berdiñak; eta azkenengo au ere ez dator bat urte bereko Testamentu Berri osoan datorrenarekin.

Onek, Testamentu Berri osoak, artu du ikuturik geien; beronek ditu, Larramendi-ren iztegitik artuta, itz berri batzuk (Lafitte-k nonbait esan zuenez, «néologismes abracadabrants»). Au ote da Beraskoizko mugazaiñak antolatu omen zuen Testamentu Berria?

Inglaterrako bibli-elkarteek argitaldi oietan esku zabal jokatu zutela dirudi. Urte-ren argitaratzaillak dionez, bai 1825-n eta bai 1828-n, liburu bakoitzetik 1.000 ale atera omen zituzten. Emen ere, ori bai, norbait ez da gelditu suaren aipamena egin gabe. Apezpiku jaun batek, ez dakigu zeñiek, surtara bota omen zituen 800 ale. Ez dira gutxi. Ala ere, oraintxe bertan, gutxien uste dan lekuan, aurkitzen dira salgai.

Badirudi protestanteek bereziki lotutak, atxikiak izan dirala Lapurdiko euskerari. Orain arteko ebanjelio oiek Lapurdiko euskeraz daude. Eta arrezker, bein ta berriz argitaratu dute euskalki orretan bibli-puskaren bat edo beste: San Mark-en eta Joanes-en ebanjelioa, Duvosin-ek egindako itzulpenetik artuta (1887); eta San Lukas-ena, 1828-ko itzulpenetik, ez orraitio Testamentu osoa dakarrenetik (1868, 1871, 1878, 1887...).

Emendik ere ageri da 1828-ko Testamentuak ez zuela arrera berorik izan. Leizarragak berak zori ohea izan du. Vinson-ek eta Van Eys jaunak San Mark-en eta Mateoren ebanjelioak eman zituzten Leizarraga-ren testoaren arabera (1874, 1877). Eta Dogson-ek, Trinitarian Bible Society dalakoaren laguntzaz, osorik atera zuen Testamentu Berriaz gaiñera, zatika eta banan ere ia liburu guztiak atera zituen 1901-tik 1908-ra.

Nik ez dakit naiko garbi gelditu zan leengo artikuluan Leizarraga-k zenbat argitaldi izan dituen gure mende onetan. Ez dakit an naiko argi esan nuen ala ez iru argitaldi izan dituela gutxienez: 1900-koa Linschmann eta Schuchard-ek egiña; eta Dogson-enak bi: 1903-koa eta 1908-koa.

Beste euskalki batzuetarako itzulpenak

Asierako joerari jarraituz edo, protestanteak Lapurdiko euskerari josiagoak ageritu dira beti beste edozein euskalkiri baiño. Joan dan menderarte beste euskalkiez ez ziran asko arduratu. Eta leenbizi, Gipuzkoako euskerari iriki zioten atea; urrengo, Zuberokoari. Gipuzkeraz bi Ebanjelio atera zituzten: San lukas-ena (bi itzulpen), eta San Joan-ena; Zuberoko euskeraz, San Joanen Ebanjelioa, eta S. Pedroren epistolak.

Bizkaiko euskerak, ain bizia eta ain zabaldua izan arren, ez du lantzaillerik aurkitu protestanteen aldetik.

Gipuzkeraz.

Gipuzkerazko ebanjeliorik zaarrena 1838-an Madrid-en argitara emana da. Argitaratzailea: George Burrow, gizon bitxi nabarmen ospetsua. Eta titulua: Ebanjelioa San Lukasen gisan. Argitaratzaileak jakiñerazirik, badakigu zein itzulia dan: Oteiza osalariak, beste argitasunik gabe. Nor zan berau? George Burrow orrek emanda badakigu beste xetasunik ere: alegia, bi urte leenagorik erosi ziola Oteiza-ri euskal-itzulpen ori, eta ez zuela argitaratzeko gogo andirik, ez zala bere gogokoa, ez zuela asetzen. Baiña oberik aurkitu ez-ta, bera eman zuen argitara. Burrow jaunak berak ere ba omen zekien euskera apurren bat, gaztetandik ikasita. Españan zebillelarik, Emaniko euskaldun bat ere izan zuen morroi, ezin zintzoago ta leialagoa, nausiaren iritiz.

Bibli zabaltzaille burubero onek gure euskerari ez zion omen txikiagorik egin nai izan ijitoen izkuntzari baiño; eta San Lukas-en Ebanjelioa, euskerazkoa eta ijitoen izkuntzan egiña, biak batera atera zituen.

Baiña zer gertatu zitzaion? Agintariak bata eta bestea zabaltzea eragotzi; biak eskutik kendu, guztiz 30-en bat ale bakoitzetik. Kalo-izkuntzazko ebanjelioak, orraitio, ez zuen ain zori gaiztorik izan. Agintariak eraman bai, baiña gorde egin omen zituzten, eta gero sari onean saldu. Baiña iñork ez baitzuen euskerazkoen eskabiderik egiten, Madrid-en gelditu omen ziran agintarien mandioen batean saguen edo sitsen janari, eta alerik oso gutxi aurkitu da gero.

Esan dezagun Oteiza-ren itzulpena euskera errez eta jator samarrean egiña da-goela bere aldirako, Larramendi-ren itz berririk gabe, erderazko itzulpena aurrean

izanik egiña. Jakiña da leengo mendeko protestanteek askotan (Burrow ere bai), Torres Amat-en izeneanzabaldu zan erdal-itzulpena artu zutela Gaztelerrietan zabalteko (1).

Oteizaren Ebanjelioak ez du zabaltzerik izan euskaldunen artean. Esan degunetik erre zurlertzekoa da. Non aurkitu alerik? Orregatik ez dakigu inoiz berriz argitaratu danik. Orregatik, geroxeago beste itzulpen bat eman izan dute protestanteek, ez dakigu nork euskeraturik, bein ta berriz argitaratu dana (*Jesukristo-ren Ebanjelioa San Lukas-en araura*, Londres, 1870; Buenos Aires 1877; 1884 Londres; 1900 Madrid, 1909...)

Beste Ebanjelio bat, gipuzkerazkoa, San Joanena degu (*Jesukristoren Ebanjelioa Joanen araura*, Londres, 1879, 1880; Madrid, 1909...) Beste guztiak bezela, egi-llaren izenik gabe dator, eta zeiniek itzulia dan ez dakigu.

Zuberoko euskeraz

Zuberoko euskerara itzulirik, Testamentu Berriko bi edo iru liburu baditugu, protestanteek aterarik: *Ebanjelio Saintia Jesus-Kristena*, *Jondane Johaneren arabera* (Baiona, 1873, eta Orthez-en, 1888; eta *Jondane Phetiriren epitriak* (Baionan, 1873, 1887).

Itultzaillaren izenik ez duten arren, badakigu norenak diren: Anna Urruthi andereñoarenak. Aski bedi bere izendapena, eta izan beza zor zaion ospe ta omena, Oteiza eta Gaidorrekin batean, euskerazko bibli-itultzaillaren artean.

Bukaera

Emen ematen diogu bukaera gure lantxo oni. Orain, aztertu ditugun bibli-lanei gain-begiratu bat emanik, or nekatu diran guztien merezimentuak gogoan izanik, zer esan dezakegu?

Gauza bat gelditzen da naiko nabari: Leizarraga ezker, ez dala gure alorrean agertu aren maillakorik.

Urte-ren saioa gogoangarria da, txalogarriak bere asmoak; baiña uts eman zuten. Eta arrezker, protestanteek euskerazko biblia osorik emateko ez dute amesik ere egin. Lengo mendean, 1828-ko saioak ez zuen inor ase, eta uts eman zuen. Urte artako Testamentu Beniak liburu ederra osatzen du: baiña bere euskera ez da inoren gogokoa izan.

Gero argitaldi asko izan dira; baiña liburu bat edo besterenak, bakarrik. Inoiz Testamentu Berri osoa atera nai izan dutenean, protestanteek Leizarragarenera jo dute, jakintsuen joerari geiago amor emanik, erriaren premiari edo gogoari baiño, bearbada.

(1) Obetoago, ik. 855. orr.

Puska Batzuk**Urte-ren Ethorkia-tik (Genesis, 1, 1-13)**

- 1.— Hastean kreatu zituen Iainkoak zeruak eta lurra.
- 2.— Eta lurra molderik gabe zen eta hutsa, eta illhunbeak ziren lezearen gañean, eta Iainkoaren Izpiritua higitzen zen uren gañean.
- 3.— Eta Iainkoak erran zuen: Izan bedi argia: eta argia izatu zen.
- 4.— Eta Iainkoak ikusi zuen argia ona zela, eta Iainkoak apartatu zuen argia illhunbeenganik.
- 5.— Eta Iainkoak deithu zuen argia eguna, eta illhunbeak deithu zituen gaua; horrela izatu zen arratsa, horrela izatu zen goiza. Hori izatu zen lehenbiziko eguna.
- 6.— Gero Iainkoak erran zuen: Izan bedi hedadura bat uren artean; eta aparta betza urak uretarik.
- 7.— Iainkoak bada egin zuen hedadura; eta apartatu zituen hedaduraren azpian diren urak hedaduraren gañean direnetarik; eta hala izatu zen.
- 8.— Eta Iainkoak deithu zuen hedadura zeruak. Hala izatu zen arratsa, hala izatu zen goiza. Hori izatu zen bigarren eguna.
- 9.— Gero Iainkoak erran zuen: Bill beitez leku batetara zeruen azpian diren urak eta ager bedi leihorra. Eta hala izatu zen.
- 10.— Eta Iainkoak deithu zuen leihorra lurra; ur-billduma ere deithu zuen itsasoak; eta ikusi zuen Iainkoak hori ona zela.
- 11.— Gero erran zuen Iainkoak: Pusa beza lurra bere egozkia, erran nahi da, belhar bere motaren arabera hazia dakharkena, eta arbola fruitudunak, bere motaren arabera fruitu dakharketenak, zeñiek izan dezaten bere hazia bere baithan lurraren gañean; eta hala izatu zen.
- 12.— Lurra berez ekharri zuen bere egozkia, erran nahi da, belhar bere motaren arabera hazia dakharkena, eta arbola fruitu dakharketenak, bere hazia bere motaren arabera bere baithan dutenak, eta ikusi zuen Iainkoak hori ona zela.
- 13.— Hala izatu zen arratsa, hala izatu zen goiza, zeña izatu baitzen hirugarren eguna.

(Ikus *egozki* itza, iztegiek ez dakartena, emaitza, *produit*, *production* esateko, *egozte-ren* idekoa.)

Lengo gizaldiko, 1828-ko Testamentu Berria-tik.

(Leizarraga-renarekin konparatzeko, arenetik artu genituen atal berberak jartzen ditugu.)

Mat. 1, 18-21.—Bada, Jesus Kristoren sortzea gisa huntan gerthatu zen: Maria haren ama ezkontzaz hitzmana izan ondoan Josephi, esperantzetan izatu zen Izpiritu Sainduaren *berthutez*, elgarrekin izan baino lehen. Orduan haren senhar Josephek, zeren gizon yustua baitzen, eta ez baitzuen hura desohoratu nahi, segretuki utzi nahi izan zuen.

Bainan gauza hauk gogoan zabiltzalarik, Jaunaren aingerua agertu zitzaion amets batean, eta erran zion: Joseph Dabiten semea, ez izan beldurrik Maria zure emaztearen hartzeko; ezen hartan konzebitua dena Izpiritu Saindua ganik da. Eta erdiko da seme batez, eta emanen diozu izena Jesus. Ezen hark salbatuko du bere populua beren bekhatuetarik.

Mat. 5, 38-42.— Aditu duzue errana izan dela: begia begiarendako, eta hortza hortzarendako. Bainan nik erraiten derautzet: ez kontra egitea gaizkia egiten dautzuenari; bainan baldin norbaitek yoten bazaitu eskuineko mathelan, eskeint zozu ere bertzea. Eta baldin norbait auzitan yoan nahi bada zure kontra, eta edeki nahi badauz zure arropa, utz zozu kapa ere. Eta baldin norbaitek nahi bazaitu bortxatu berekin yoaiterat lekoa bat bide, zoazi biga. Galdegiten dautzuenari emozu, eta maileatu nahi dautzuenaren ganik ez zaitela urrunt.

Mat. 22, 36-39.— Nagusia, zoin da legeko manamendu handiena? Jesusek erran zion: maithatuko duzu zure Jainko Jauna zure bihotz guziaz, zure arima guziaz, eta zure gogo guziaz. Hori da lehena eta manamendu handiena. Eta huna bigarrena, bertzea iduria: maithatuko duzu zure proximo laguna zeroni bezala.

1 Cor. 1, 10.— Bada othoitzmendatzen zaituztet, *ene* anaiak, Jesus Kristo gure Jaunaren izenaz, atxik dezazuen guziek solas bera, eta ez dadin izan nahaskeriarik batere zuen artean, bainan guziak izan zaitetzen bilduak izpiritu berean, eta gogo berean.

1 Tim. 3, 1-5.— Badayakin ezazu hau, azkenegunetangerthatukodeladenbora gaistorik. Ezen gizonak izanen dire beren buruez hartuak, lukhuruak, banoak, furfuyatsuak, blasfematzaileak, desobedientak beren burrasoei, esker gaitzak, profanoak; amodio naturalik gabe, emaatzen ez direnak, kalomnitzaileak, lizunak, krudelak, hastiatuz onezko yendeak; traidoreak, insolentak, urguluz hantuak, Jainkoaren baino gozoen maitatzaileak; dutelarik Jainkotiartasunaren iduria, bainan ukhaturik haren indarra. Aparta zaitte beraz halako yendetarik.

Oargarria.— Leizarraga-ren i ta no-ketaren aztarrenik ez da gelditu emen, eta ez, errian forma oiek galduak ziralako.

Joanen Asiera zuberoko euskeraz eta Gipuzkoakoaz

Hatsarrian Elhia zen, eta elhia Jinkuareki zen, eta elhe hau Jinkua zen. Hastian Jinkuareki zen. Gaizak oro harek eginik dira, eta hura gabe ezta egin izan deus ere. Hartan zen bizia, eta bizia zen gizonen argia. Eta argiak argitu du ulhunpetan, bena ulhunpek eztie errezibitu. Gizon bat izan da Jinkuak igorria, deitzen zena Johane. Hura jin zen jakitate errendatzeko, jakitate errendatzeko argiari, eta haren argiaz orok sinhets lezen. Etzen hura argia, bena igorriarik zen jakitate errendatzeko argiari. Han zen egiazko argia, mundiala jiten diren gizonen ororen argizale dena. Mundian zen, eta mundia harek eginik izan da, bena mundiak eztu ezagutu. Jin da berenetara; eta berenek ez die errezibitu. Bena errezibitu diener orori eman deie Jinkuaren haur izateko zuzena, erran nahi da haren izenian sinhesten diener. Eta zuin ezpeitira sorthu odoletik, ez eta aragiaren nahikuntetik, ez eta gizonaren nahitik, bena bai Jinkua ganik. Eta elhia aragi egin izan da, eta egon izan da gure artian graziaz eta egiaz betherik; eta ikhusi dugu haren loria, loria bat beita aitaren seme bakhoitzaren loria bezala. (Baiona, 1873).

(*Gipuzkeraz*).

Asieran itza zan, eta itza zan Jaungoikoarekin, eta itza zan Jaungoikoa. Au, itza dana, asieran Jaungoikoarekin zan. Gauza guztiak egiñak izan ziran artaz, eta hura gabe ez zan ezer egin, egiña izan zanetik. Bizia aregan zegoen, eta bizia zan gizonen argia. Eta argiak distiatu du illunbetan, eta illunbeak ez dute ezagutu. Izan zan gizon bat Jaungoikoak bialdua, Juan izena zuena. Au etorri zan lekukoa izateko, eta argiaren lekukotasuna emateko, guziak artaz fedea zezaten. Hura ez zan argia, baizik etoni zan argiaren lekukotasuna ematera. Hura, zeñña zan argi egiazkoa, da mundu onetara datorren gizon guziari argi egiten diona. Munduan zegoen, eta mundua berak egiña izan zan, eta munduak bera ezagutu ez zuan. Bere etxera etorri zan, eta beretakoak ez zuten errezibitu. Baño bera errezibitu duten guziaz eman diote Jaungoikoaren semetzeko nausitasuna; esan nai da, bere izenean fedea izan duten aiei; zeñak ez dira izan sortuak odolez, ez aragiaren borondatez, ez gizonaren borondatez, baizik Jaungoikoaz. Eta Itza egin zan aragi, eta bizitu zan gure artean; eta ikusi genduen beraren gloria, Aitaren Seme Bakarra bezelakoaren gloria, doiaz eta egiaz betea. (Madrid, 1909).

LEIZARRAGARI OMENALDIA BESKOITZEN*

Beskoizko (edo Beraskoizko) semea da Joanes Leizarraga, Jesukristoren Testamentu Berria leenen euskerara itzuli zuen euskal idazlea. Aurten dira laureun urte, liburua agertu zala. Euskaltzaindiak eztu urteurren au aaztu, ez Beskoitzek ere. II onen 4n ospatu da idazle orren omenezko jaia, Euskaltzaindiak eta Beskoitzek batera antolatuturik.

Leenbizi, **goizeko** amarretan Meza Nagusia zan, lau apaizek emana: erditan, Aita Iratzeder, eta aldamenetan, Aita Villasante, Lafitte eta erriko erretor jauna, oker ezpagaude. An zan, Alkate edo auzapeza buru, Beraskoitze osoa, zaar eta gazte, neska ta mutiko, serora ta kantari; an zan, Leizarraga eliz-artzai izan zuen erriko Labastidako alkate jauna ere; an zan, andik ortik eta emendik etorrita, euskaldunmordo ez urria. Aita Iratzeder, izlari; eta Mezako irakurgaiak Leizarragaren itzulpen zarretik artu zituzten, Baionako gotzai jaunak artarako baimena emanik. Dana, Eku-menismo-girorik ederrenean. Gaurkotasuna ta betikotasuna zerien Ebanjelioko itzei: Uzta andia da, baina langile guti. Elizaren alorrean bakarrik ez; ez ote da orixe gertatzen euskerarenean ere?

Meza ondoren, Elizaren eta Erriko Etxearen bitartean, dantzaldiak Leizarragaren omenezko kantua eta Beraskoizko erriak bere seme ospetsuari eskeini dion oroitarria agerian jartzea itz oiekin: «Berazkoiztarrek Joanes Leizarraga idazleari». Eta urrengo, alkate jaunaren itzak, guztiei agur egiñez eta Leizarraga nor izan zan azalduz. Eku-menismo-kutsuzko itzak alkatearenak ere. Baiña non ikasi ote dute erri txiki aietako alkatetxoak euskeraz orren ongi mintzatzen? Norbaitek esan zuan apaizak pulpitotik baiño obeto ta sutsuago egin zuela.

Alkatearen euskera entzun eta Erriko Etxean sartu gera. Eta emengo itzaldiak (Aita Villasanteren agurra) entzuten asi geranean, berriro ekumenismoa datorkigu

* El Diario Vasco [38] (1971, 10.302.zenb.) 9.

gogora: Euskerak ere ekumenismoa du gaur. Mezakoan, apaizek, «eskerrak emanez» ari izan ziran; alkate jauna, gero, guztiei «ezkerrak biurtzen»; eta orain, Euskaltzainburua, «eskerrak errendatzen». Ez ote da ori ere ekumenismoa?

Eta asi da Leizarragaren omenezko batzarra. Haritschelhar jauna itz emaille, eta iru izlari: Akesolo (1), Lafitte eta Lafon jaunak. Gauza berririk gutxi esan ziguten; baiña bai zerbait. Lafitte jaunak xeetasun berri bat eman zuen Leizarragari buruz: noiz jaioa zan, 1506-garreanean. Beraz Testamentu Berria euskeraratzen asi zanean, irurogei urtetik urbil zebillan. Zertan eman ote zuen bere gaztaroa?

Bai Akesolok eta bai Lafon jaunak esan zuten Leizarragak ezagutu zuela, noski, Etxepareren euskal-lana; baiña ezuela aipatu, etzuela apaitu nai izan, ekumenismorik-ezaz edo. Gogorrena, orraitio, Leizarragaren euskerari buruz Lafon jaunak esana: aren idazkera, baldar xamarra dala; Etxepare bera ere, bertsotan egoki ta jator ari delarik, prosaz trakets agertzen dala bere itzaurrean.

Gure artekoren batek olakorik esan izan balu, mokokalditxoren bat sortu zitekean; baiña atzerritar batek esan zuen, eta ez da okerrik gertatu, ez da pake-girorik autsi.

Eta Protestanteak? Ez ote ziran omenaldi artara azaldu? Ezetz uste det nik. Alare, an ziran nolabait, an zeuden, protestanteen opari noski, nai zuenak eramateko, liburuxka txiki batzuk (bat euskera eta gazteleraz), Londresen, eta Barcelonan irarriak, idazti deunen zatiz osatuak, eta, gaiñera, napargipuskerarik garbienean idatziak.

Dana bukatu ta nor gere bazkaritarako aldendu ginanean, gogora zetorkidan mezan entzuna: Uzte andia da, baina langile guti. Etzan nai aña lagun, nai aña euskaldun joan Leizarragaren omenaldira. Leenago Euskaltzaindiak, aukera obeak antolatzen omen zituen olako batzarretara joan nai zutenentzat. Baiña, norbaitek esan zuenez, euskaltzain askok beren kotxea dutenez gero, ainbeste eztutenentzat bideak sasitu egin dira. Oraingoan bat baiño geiago gelditu da (Aita Intza lekuko) joan nai ta joaterik gabe.

Ori ola baldin bada, ekumenismoak or uts egin zuela esan bear.

(1) Ik. 208-216. orr.

TESTAMENTU BERRIAREN 400 GARREN URTEURRENA*

Laureungarren urteurrenean gaude: 1571-n argitaratu zan leenengo aldiz euskeraz Testamentu Berria. Baiña urtea bakarrik ez, geiago ere badakigu. Leizarragak berak esanik, alegia, buruillaren (iraillaren) 23-n bukatu zala liburu orren inprenta-lana. Xeetasun au euskeratzailleak berak utzi zigun bere beste liburu baten, bere kalendrera, egutegian. Leizarragak Testamentu Berriaz gaiñera beste libururik ere atera baitzuen urte berean: eliz-otoitzerako bidea, Kristau-ikasbidea galde - erantzunekin (Kalbinorena), Frantziako protestanteen siñesmen-ageria (edo Confessio Gallicana delakoa euskeraz), ABC edo beste kristau-ikasbide laburragoa otoitz batzuekin. Eta guztietan laburrena: egutegia, au da, Kalendrera edo Bazko noiz daten.

Guztiok batean, orduko protestante batzuen eskuliburua bezalakoa osatzen dute. Leizarraga degu guztien euskeratzaille. Itzulpenak, ia beste lanik ez zuen Leizarragak egin. Lerrerik gutxi du bere bererik, itzulpen ez danik. Bear bada, Testamentuaren atarian euskeldunei zuzendutako itzak, eta ABC delakoan Euskalerriko gazteria eskolatzeo kargua zeukatenei esana, besterik ez zuen berez idatzi. Bai, oietxek, eta egutegian, Testamentu Berria inprentatzeko lana noiz bukatu zan esateko idatzi zituenak, noski. Ezpaitegu uste protestanteek erderaz erabiltzen zituzten egutegietan olako berririk sartuko zutenik.

Egutegi onek, Kalendrera delakoak, mamirik gutxi du, izan. Dana zenbakiz eta izenez osatua dago, 1.572-an asi ta 1.623 garren urterarte. Pazko eguna zein egunetan izango dan, orixe dakar leenbizi, gero, urrenik urren illez ill urte guztiko egunak datoz, noizik bein jaiegunik andienak eta santu batzuen izenak emanez: Kristorenak, Andre Mariarenak, apostoluenak, Jose ta Mikel doneenak, Donibane ta Domusantu, eta antxiñako santu batzuenak.

* El Diario Vasco [38] (1971, 10.362.zenb.) 10.

Tartean tartean, beste xeetasunik ere badakar; munduan gertatu izan diran gertaldi batzuen berri ere ematen digu: Lutero eta Kalbino noiz asi ziran beren bide berriak urratzen, Karlomagno, Hus eta Luteroren eriotzea, noiz erori zan Konstantinopla Maomatarren mendean (1453), edo Erroma, Borbontarren eskuetan (1527), eta abar. Gertakariok nonbait, garai artako protestanteen kalendarioetatik artuak ditu. Orrelako gertaldien artean sartu zuen bat, berak beste iñork baiño obeto zekiena, Euskarazko leenengo Testamentuari buruzkoa.

Beste egun bi ere aipatzen dira, bai, Leizarragaren lan osoan. Esaterako, urte artan bertan, 1571-ko agorrilaren 22-n idatzi zuen Naparroako Erregiñari egin zion Testamentu Berriaren eskaintza, eta urriaren leenean izenpetu zituen Euskaldunen irakasleei zuzendutako agurra eta oarrak, bere ABC delako liburuaren atarian.

Bi egun oien artean degu, ain zuen, buruillaren (iraillaren) 23. Egun au gogoangarritzat jo zuen Leizarragak, eta ez zuen aazturik utzi. Orregatik, egun ortara eltzean, ona zer idatzi zuen:

«Egun hunequin Testamentu Berria euscaraz lehenic imprimitzen acabatu 1571».

Biar degu laureungarren urtea. Egun gogoangarria benetan.

LEIZARRAGAK EZ ZUEN «LIBERTORIK» AIPATU*

Egunotan iritxi da nere eskuetara FONTES, Naparroako Diputazioaren laguntzaz ateratzen dan aldizkaria. Beti bezela, azter-lan jakintsu eta jakingarriz beterik dator. Lanik luzeena (68 orrialde baditu) Leizarragak erabili zituen itz guztien bilduma da: «**léxico empleado por Leizarraga de Briscous.**».

Titulua eztu, nere ustez, egokiegi jarria. Norbaiten lexikoaren billa gabiltzanean, ez da izaten gure asmoa aren liburuetan aurki litezken itz eta izen guztiak biltzea. Giza-izenak eta toki-izenak ez dira lexiko-saillean sartzen. Baiña bakoitza da bakoitzaren asmoen jabe. Lexiko onen biltzaillea G. Aresti degu, idazle zabal ezaguna, oraintsu bere Hiztegi ttipia eman diguna, dena giza-izenek bete eta toki-izenik bixienez beteago. Oraingoan berdin egín du: «Testamentu Berrian» eta Leizarragaren liburuetan dauden itz eta izen guztiak bildu nai izan ditu. Lan ez ain bearrezkoa eta gaiñera zailla.

Orregatik ez bedi iñor arritu itz eta izen guzti-guztiak jaso ez balin baditu, eta gutxiago guztiz zeatz. Noiztik ona da *ihiki: totalmente*, eta ez *errezki*? Zergatik ez du bildu *gogozgaraitik*, gogoz kontra esateko, ez *hogen emalea*, kalumniazale esateko? Zergatik dira Lithostrotos eta Gabbata toki-izenak?, Leizarragak euskerazko itzulpena eman dio: «Pabadura», eta au Arestik *embaldosado* itzuli du. Toki-izena, nondik?

Bada zer argitu eta zer zuzendu Arestiren lan ortan. «FONTES», berean Bouda jakintsuak egindako lan bat aurkitzen degu, beste jakintsu batek euskal-saillean egindako okerrak zuzentzeko egiña. Beste lan au ere norbaitek zuzendu bearke du. Ez dezala iñork artu Aita Santuaren itza baiño siñistagarriagotzat.

Nik uts aundi samar bi zuzendu nai ditut. Bi itz oso oker ulertu ditu gure idazle enziklopedikoak: *libertu* eta *marrezan*. Leenengo ori *liberto* bezela itzuli du erderara: bigarrena, berriz, *violencia* bezala. Bata eta bestea, zearo oker.

* El Diario Vasco 40 (1973, 12.040. zenb.) Suplemento dominical, 12.

«Libertu» ez da ez liberto ez liberado ez beste olakorik ezer. Itz ori Confessio Galicana deritzaionaren itzulpenean dator, eta ona nola: Gizonak «bere spirituan eta bere bihotzean gaixoturik, galdu ukan du integritate eta perfetione guzia. batre «libertu ez gelditu gabe». Alegia, pekatu egin ezkerro, gizonari ez zaiola leengo osotasunetik ezer gelditzen, geroztik ez duela gizonak leengo integritate orren «linberrik» edo ondarrrik. «Libertu» eta gelditu, bi itz oiek gauza bat bera esan nai dute emen. Frantzesak textu ortan itz batberaz esaten duena Leizarragak bi itzez euskeraratu zuen; frantzesaren *rester* bi itzez: *libertu* eta *gelditu*, itzuli. «Libertu» itzaren sustraia ez dator libre-tik ez antzeko beste itzetik, liber, linber, lipar edo liparretik baizik. Ondar, lipar bezala gelditu esan nai du.

Marrezan, beste itz ori ere errezegi itzuli du Arestik. Kalbinistek, bere Confessio delako ori ezaguerazteko Erregeri biali zioten gutunean dator: «Iauna, iragan denboretan suz eta marrezanez nehork usatu ukan du» (frantsesez: «des feus et glaives dont on a usé parcidévani.»). Beraz «ezpata» esan nahi du. Lerro batzuk leenago dator *violencia* ori *gogorgoa* itzulita euskeraz. Beste itz oietan «suak eta ezpatak» aipatzen dira, ez «gogorgoa» bera, gogorgoa ori nola erabilli izan zan baizik. Bi gauza, bi itz oso ez berdiñak, alkarren antz gutxikoak: «marrezan» ez da «violencia», eta bai ezpata, aizkora txikia edo olako zerbait. Lhande-ren iztegiak badu itz bat, argi emango diguna: Marrauz. Eta bertan irakurtzen danez, gaztelerak ere badu sustrai bereko itz bat: marrazo; hacha de dos bocas, machete corto.

Agerian da gure idazle enziklopedikoak gutxigoraberaka jokatu duela emen. Eta gutxigoraberako jokabidea ezta, ez, FONTES bezelako aldizkari bati izen edo omen aundirik ematekoa. Gutxi gorabera ala uste dana, geiagokorik gabe ala dalakotzat ematea ezta jakintsuen legea. Gurekin jokabide au erabilli duenak euskaldunok «idiotatzat» artu ote gaitu? Ala dirudi, berak bere lanaren sarreran adierazten duenez. Nork nori esan bear dio emen «idiota»?

Baiña onek beste solasaldi bat merezi du. Eta, «urbillen artio», Larreko zarrak esan oi zuen bezela.

NORENTZAT DA ARRIKADA ORI?*

Erdaldun aurrek, beren eztabaida eta sarrealdietan, elkarki jaurtikitzeko arririk gogorrenetakoa «idiota» esatea izaten dute. Itz onek orduan sekulako indarra artzen du aurren agoetan. Entzun dedanetan, askotan gelditu naiz arriturik nere buruari esanez: Zorigaiztoko itza! Greziatik asita, zerk ekarri ote du gizaldiz gizaldi, izkuntzaz izkuntza, gure inguruko aurren agoetan duen egoeraraño?

Orain, FONTES aldizkarian Leizarragaren iztegia atera duen poeta enziklopedikoak euskaldunen gaiñera jaurtiki nai izan du arri bera, zentzu askorik gabe, baiña aur erdaldunen asmo berdintsuz. Jaurtiki nai... Baiña nai ori izan duena oartu ote da bere buruaren gaiñera erortzen zaiola arria?

Nik eztaikit zer pekatu egin duen itz orrek gure poeta bere senetik ola ateratzeko. Erdalitzulpen berri bat billatu dio. Zergatik ez ote du zegoen zegoenean utzi, beste erdal-jatorrizko itz guziekin egin duen bezala? Nondik nora esan nai du *idiota* itzak *monolingue*? Eta, batez ere, zergatik gogoratu bear izan dio irakurleari, sarrerasarreran, bere asmakizun ori? Borrokalaritxoa da bera: baiña ez ote ditu istilluak errezegei sortzen, txorokillezko etxeak lasterregi egiten?

Berak maite ez duen idazle batek berak nai luken bezala itz bat, «idiota» itza, itzuli ez duelata-ta, ezin izan dio barruko irakiñari eutsi; eta or artzen du bidea euskaldunei edo euskaldun batzuei erdaldun aurren arrikada ori jaurtikitzeko. Orixe egin nai izan du. Baiña guzia, poeta beraren kaltetan. Bere oarkabean, ez-jakin aundi bat dala besterik ezpaitu erakutsi ortxe bertan, ain zuzen.

Eztu ulertu latin-grekozko itz orrek zer esan nai duen. Are geiago. Eztaki itz ori Leizarragak eta Olabidek nola euskerara itzuli zuten. Bere burua ain maisutzat duenarentzat ez-jakite geiegi degu emen. Geiago ikasi bear zuen iñori arrika asi baiño leen.

Bere lotsagarritzko oker au datorchio zer au ez-jakitetik: itz ori lau aldiz badatorrela Testamentu Berrian. Ez bakarrik Leizarragak *idiota* itzuli duen lekuan, bai beste iru

* El Diario Vasco 40 (1973, 12.046.zenb.) Suplemento dominical, 11.

geiagotan ere, alegia, Apostoluen Egiñetan, laugarren kapituluan bein, eta beste iru aldiz Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako epistolari, 14-garren kapituan. Leizarragak leenbiziko lekuan bakarrik itzuli edo utzi zuen latinean aurkitu zuen bezela. Jerusalemgo agintariak arriturik zeuden Pedro eta Joan Apostoluen adorea eta itzetorria ikusirik: «ezaguturik ezen gizon letragabeak eta idiotak ziradela, miresten zuten». Or ezta esaten apostolu aiek *monolingué* ziranik, izkuntza bat bakarra zekiten. Gaiñera, gauza jakiña da aipatutako apostoluek, beren jatorrizko izkuntzaz gaiñera, beste bat ere egiten zutela. Leizarragak bazekien orrenbeste eta ez zuen besterik esan nai izan. Beste iru lekuetan, zer itz dakar *idiota-ren* orde? Iruretan, itz bakar bat: «Ignorant» edo «ignorante, ez-jakiña».

Arestik eztu Olabideren itzulpena asko obe ezagutzen. Onek baditu itz orrentzat iru itzulkerak: Apostoluen Egiñetan, *alotza* (au da Arestiri begian min ematen dion itza): «Ikasgabe eta alotzak zirala yakin zutenean, arritu ziran». Eta beste iru lekuetan? Bein, idiota *erriko* entzulea da, eta beste bietan, *orkoren bat*. Ongi ote daude?

Iñork ez beza uste izan, beintzat, ezberdintasuna euskal-itzulpenetan bakarrik gertatzen dala. Erdal-itzulpenetan ere itz asko irakurtzen dira gauza bera esateko: «gente del vulgo, del pueblo, sin instrucción, simple asistente (Olabideren *erriko entzulea*), no iniciado, profano», eta olakoak. Berez guzti ori ta geiago esan nai du *idiota* itzak: leenik, jende xea, errigizon utsa, lagunabarrekkoa, kargurik edo aginpidetik gabekoa; eta ortik datozkio beste esan-nai batzuk, eskolagabea, ikasi gabea, jakitate gabea, zozoa eta abar, erdaldun aurren arrikadaraiño. Kristauen artean, katekumeno ere esan nai zuen, eliz-oiuren eta eliz-izkuntzaren berri aundirik ez zekiena; noiz edo bein beste nonbaitetik etorritako kristau arrotza (Olabideren *orkoren bat*).

Beraz, bai Leizarragaren «ignorant» (esan-naiaren aldetik, ez euskerarenetik) eta bai Olabideren *erriko entzulea* eta *orkoren bat* ere, ez daude oker. Monolingüe orren antzekorik ez du esan ez bata ez besteak. Esan bearrak ere ez, «idiota» itzak ezpaitu zer ikusirik izkuntza bat ala geiago jakitearekin ezta ez jakitearekin ere.

Ala ere esan bearra dago baduela nolabait izkuntzarekin zer ikusia Paulo Apostoluen epistolari; baiña ez edozein izkuntza, kristau-izkuntza berezia, edo kristau-arteke doai berezia, «glosolalia» esaten zaiona baizik. Nolanai ere, doai orrez mintzatzaren ziranak ez ziran berez entzuleak (idiotak) baiño poliglotago. Entzuleak (idiotak) jakin zitzakean besteak baiño izkuntza geiago, baiña doaidun orrena ez ulertu. Paulo apostoluen epistolari, entzuleak mintzatzaillearen esana ez ulertzea ez zetorren onek baiño besteak izkuntza gutxiago jakitetik, doai berezidun orren izketa edo otoiketa ulertu ezifietik baizik.

Orregatik, gure artean, Duvoisin andiaren itzulpena eztago ain zuzen eta zeatz. Onek lau eratara itzultzen du itz bera: bein, jakitate gabea (Apostoluen Egiñetan), gero jende xehea, urrengo bere mintzaiera baizik ez dakiena, tokiko mintzaia baizik ez dakiena (korintoarrentzako epistolari). Apostoluen itzak argitzearen egin du ori, noski, badaezpadako itzultzaillaren bati jarraituz. Onek ematen ote dio arrazoi puskareri bat Arestiri? Iñondik iñora ere ez. Arestik Leizarragaren iztegia eman nai izan digu, ez Duvoisinena, eta Leizarragaren *idiota* zer dan esan bear zigun. Eta au ezta frantzesen *idiot* baiño besterik. Orain artean eztegu entzun frantzesentzat itz orrek *monolingüe* esan nai duenik. Erdaldun aurren itz edo arrikadatik urbillago dabil, noski

Norentzat da Arestieren arrikada? Begirik duenak ikusi beza.

KATOLIKOEN EUSKERAZKO BIBLI-ITZULPENAK*

Haraneder-enganik Duvoisin-enganaino.

Euskerazko leenengo Testamentu Berriaren lareungarren urtea aurten dala-ta, artikulu berezi osoa eskaini genion Joanes Leizarraga Beraskoizkoari. Urrengo artikuluan, protestanteen beste bibli-itzulpenei gainbegiratu egin genien, Urte-ren saiotik asi ta joan dan mendean eta oraingoan azaldu izan diran itzulpen eta argitaraldietaraino (1). Orain, protestante ez diran itzulpenetara, edo katolikoenetara nai ditugu begiak itzuli.

Katolikoak, esan bearra dago, ez ziran goizegi esnatu, berandu xamar agertu ziran lanera; baiña, azken-orduetako langille izan arren, berak bakarrik jo zuten azken-muga; berak bakarrik eman digute euskeraz Biblia osoa. Joan dan mendean iritxi zuten goi-muga ori, Bonaparte Printzeak euskal-idazleei eragindako bultzadari esker. Eta gero, gauden mende ontan, bigarrenez iritxi du elburu bera Olabide sutsuaren kemenak. Duvoisin, Uriarte eta Olabide: orra iru izen, iru izar andi bezela, ditziratsu agertzen zaizkigunak gure literaturaren zeru ontan. Baiña oiei, zor zaien bezala, aipamen berezia egitean, ez ditugu utzi bear, aaztu ta bazterturik, ots gutxiagoko beste izen batzuk. Batez ere, Bonaparte baiño lenagotik, eta aren bultzadari ezer zor ez diotela, bideak urratzen nekatu ziran oien izenak ez ditzagun aaztu: Haraneder, Harriet-Dassance, eta Lizarraga Elkanokoa.

Haraneder-en *Testament Berria*

Katolikoan artean, Joanes Haraneder, Donibane Lohitzuko seme ta apez argia izan zan sail ontan leenbiziko langillea ta urrengoan aurrelaria. *Urte* kaputxino izan-

* Jaunaren Deia (1971, 35.zenb.) 85-102.

(1) Ik. 823-843. orr.

dakoaren errikoa zan, eta aren adintsukoa, gaiñera. Bere zaartzaroan, 1740-n, bukatu omen zuen bere *Testament Berria* (Emendik aurrera Leizarragarentzat Testamentu Berria zana Testament Berria biurtzen zaigu).

Zerk eragin zion Haranader oni itzulpen au, nundik etorri zitzaion lan ori egiteko asma? Berak ematen digu, galdera oni erantzuteko, argirik naiko. Aitzin-solasean, liburuaren sarreran onela dio: «Ezin akhabatuzko lana liteke Elizako aitek liburu jainkozko hunen laudorioetan eta hau maiz eta behar den espirituarekin irakurtzekin heldu diren probetxuen gaiñean atxiki izan ohi dituzten solhas ederrak hemen aiphatzea. Aski da erratea Jainkoaren hitza dela». Jainkoaren hitza degu emen, «Jesukristok bere haurrei utzi izan daroen Testamenta. Jainkoaren umeen bazka eta ogia, Jainkoaren Izpirituak miragarriki guziei aphaindu izan daroena».

Orregatik leiatu dira Frantziako apezpikuak liburu santu au beren Elizbarrutietako eskuetan, frantzesen ikuntzara itzulita, jartzen. Eta euskaldunek ez ote zuten, bada, ogi orren bearrik? Euskaldunen apezpikuek ez ote zuten beren artzaiepeko ardien artarik? Entzun dezagun Haranederrek dioena: «Jainkoak hainitz graziaz señalatu dituen arren eskaldunak bere haur maiteenetarik batzu bezala, ondikoz orai arterainokoan nihor ez da izatu irakurtzerat eman izan daroenik bere Aita onaren Testamenta, eskararat eskaldun guziek adi dezaketen lengoayarat itzulia; nihor ez da izatu bere Aita amulsuak utzi izan daroen ogia eskurat eman daroenik».

Ez ote du, bada, Haraneder onek Leizarraga Beraskoizkoaren berririk? Bai, badaki «Joanes Leizarraga zeritzan Beraskoizko aphez edo erretor zen batek noizbait aspaldi inprimazari izan zuela Testament Berriko liburu berak eskararat itzulirik». Baiña, ain zuzen, aspaldi egiña da, eta, orrez gaiñera, itzulpen ori ez da aurkitzen kutsurik gabe; eta beldur izatekoa da, liburu ori eskuraturik, irakurleak «Aitaren ogi purutik» jan ustean, etsaiaren pozoietik jan ez dezan. Orregatik «gure apezpikuak», bere ardien grifiaz eta hek bazka on eta sainduetan erabiltzeko duen arduraz nai izan du «diozeza huntako zenbait aphezek Testament Berriko liburu sakratu hau eskararat garbiki eta fiedelki itzul dezaten».

Orra nondik datorkion donibandar aphez oni bere lanari eltzeko bultzada. Haranederrek beretzat artu du apezpikuaren esana egitea, eta, bere itzez esateko, orregatik «entseiatu gare gure egin ahal guziaz haren handitasunaren (apezpikuaren) xedea bethetzerat».

Berak esango digu nola izan zan ere: «Eliza Ama sainduak beregainki aprobatua» duen *Vulgata* artu du aurrean, eta aren zentsua eta, al dala, letra bera nai izan digu eman. Eta itz utsei jarraikiz euskeraz zentsunik eman ezin dionean, bi frantzes-ek itzultitako Testamentu berrietan aurkitu du argia ta laguntza, «batean batari bertzean bertzeari garraizkola» (ala dio berak), lekurik gaitzenetan zentsunik garbiena emateko.

Euskaldunentzat artu zuen Haranederrek bere lana, eta onela esaten die bere gogoko euskaldun irakurleei: «Har zazue, beraz, gure herriko jainkotiarrak, eta jan zazue lehia handiarekin zuen Aita onak eman izan darotzuen ogitik... Lrakur ezazue zuen Aitaren testamenta, eta ahal bezanbat gogoz har ezazue».

Ortarako zan Haranederren lana, ez zokoan gordea gelditzeko. Zergatik gelditu ote zan utsean itzultzailearen lana? Zergatik gelditu ote zan argitara gabe eta euskaldunen eskuetara gabe?

Haranederrek Testamentu berri osoa euskeratu zuen; baiña eun ta amabost urte igaroko dira aren zati bat, besterik gabe agertu arte. Joan dan mendean, 1855-an, azaldu zan titulu onekin: *Jesukristo I gure launaren ITESTAMENTI Berria I Lehenago I I.N. Haraneder I Done Ioane Lohitzuko laun aphez batek I eskararat itzulia; I orai, artha berezi batekin, garbikiago, I lehenbiziko aldikotzat ager-arazia I laphurtar bi laun aphezek. Baionan.*

Eta ona zer zioen, atarian, Baionakoffi'&an'o *Yeneralak*: «Aspaldion arima argitu eta Jainkotiar guziak galdez zaudezen noiz bada Euskal-herrian eskuaraz irakurtuko zen Iesu-kristoren Ebanyelioa. Hekien fede biziak eta ez gutiago hekien bihotz khar-tsuek nahi zuten zerutik iautsi den Berri-on hori aditu hizkuntza zahar eta gozo hortan. Egia da noizbait agertu izan direla lau Ebanyelioak eskuararat itzuliak. Bainan ez zuten ardietsi izan Elizako buruzagien baimena; aitzitik, merezi zuten hetaz arbuiauak izatea, beldur izaiteko baitzen Iaunaren hitza ez zela liburu hartan aski garbiki ezarria. Bertzalde, ez zen han aurkitzen gauza gaitzen aditzea errex zezaketen xehetasunik. Horri darraikola, diozesa huntako bi iaun aphezek orai nahi dute obretan eman denbora duela gogoan zarabillaten xedea, agerarazi eskuararik garbienean lau Ebanyelioak, zeinak bertze orduz izan baitire latinetik eskuararat itzuliak aphez aiphatu batez». Ondoren, Arambure iaunak, Baionako Bikario orrek, ontzat ematen du «itzulari iakintsu eta argituen obra».

Goiko itzok arretaz irakurri ezkeru, or ditugu ainbat argi ta xeetasun. Leenbizi, Haraneder zaarraren lana argi ta garbi aipatua dakusagu. Zer gertatu zan aren itzulpenarekin? Ez zan argitaratu, baiña ez zan galdu ere egin. Robin apezak ederki egindako kopia bat beste aphez baten eskuetara etorri zan. Eta orra non eldu zaion argitara ateratzeko ordua. Jaunaren itza eskuaraz irakurtzeko Haranederren egunetako gogo berak dirau bizi bizirik. Bien bitarten protestanteek aurea artu diete berriz ere katolikoei. Orraitio, 1828-n agertu ziran lau ebanjelioen aipamena besterik ez digute emen egiten, ez urte bereko Testamentu Berri osoarenik. Haranederren Testamentu Berri osoa ere ez digute aipatzen, lau Ebanjelioak besterik ez. Oiek, gutxienez, argitara nai dituzte bi apezek. Luzaroan erabilli duten asmoa, orra azkenez bururatu. Haranederren itzulpena artu dute oiñarri: eskuararik garbienean jarri nai izan dituzte; edo, *garbikiago* agerrazi dituzte.

Nortzuk dira apez oiek, eta zer ikutu egin diote Haranederren lanari?

Testament Berri onen argitarazaille ta antolatzaillak (obe ta zeatzago ezateko, Lau Ebanjelioen argitarazaille ta antolatzaillak), auexek dira: Maurize Harriet (1814-1904), Haltsuko semea, bata eta Pier Nereo Dassantze (1801-1858), Ustarizkoa bestea. Biak, gaztetarik, irakasle izanak. Harriet jaunak bizi luzea izan zuen; eta bere azken-urteetan euskerazko iztegi andi bat biltzeko lanari lotua ikusi zuten. Dassantze Paris-en izlari ospetsu izateraiño iritxi zan, eta oso trebea omen zan frantzesen izkuntza erabiltzen. Pamiers-ko apezpiku izendatu zuten, baiña berak ezetza eman zion izendapen orri. Beste liburu batzuen artean, badu Testamentu Berriaren frantzes-itzulpen bat ere. Azken urteetan Euskalerrira itzulia zan, eta emen orduan sortu ziran euskal-bestetan parte artzen asia. Norbaitek esan du ez zuela diru-laguntza besterik eman Ebanjelioen liburua ateratzeko. Baiña zergatik bear degu ukatu liburuaren bertan aitorzen dutena, alegia: biak egin zutela lan, biak jarri zituztela eskuak Haranederren

euskera garbiago jartzen? Bazuen berak orrenbesterako argirik, bai euskeraren aldetik, eta bai biblialarien aldetik; eta biak egindako lan ortan, Dassantze orren frantzes-itzulpenaz baliatu gabe ez ziran gelditu, noski, euskerazkoa argiago ta ulerterrexago egin naiean.

Haranederren testua, esku-lana, Uztarizko Semenarioan dago, eta ikusi dutenek diotenez, alde andi xamarra dago andik beste bi apez oien testura, eta Duvoisin jaunak esan zuenez, Haranederren izena baiño obe Harrietena ermatea merezi luke. Batarena izan, biena izan, tomo ederra egiten du, eta itz batzueri adibidetzat, 21 orrialde baditu euskal-iztegi labur batekin. Euskera argi ta garbia erabiltzera jotzen du, itz berri asmatu on artu gabe, ala ere. Ortan, 1828-ko Testamentuak baiño bide jatorragoa darabil.

Azkenez, or zuten euskaldunek Ebanjelioak euskera jatorrean batere bildurrik gabe non irakurri. Haranburek baimena ematean zioen bezela, euskaldunek «liburu saindu hau irakurtuz, hainitz hobekiago ezaguturen dute bere Jainko Salbatzailea eta lehia gehiagorekin jarreikiko zaizko haren irakhaspenari, hura, agian, khartsukiago maitatzeko».

Lizarraga Elkanokoa

Haraneder-enganik Bonaparte-renganainoko bitarte ontan, ez dakit aipamenik merezi duen Agustin Chaho ospetsuak bibli-itzultzaileen artean. Job-en liburua eskuatu omen zuen. Nola nai ere, argitaratu gabe dago. Baiña bai merezi duela beste batek, Joakin Lizarraga, Elkanoko Bikario izanak. Bera ilda urte pilla geroago agertu zan bere «Jesukristoren ebanjelio saindua Juanek dakarren gisan», 1866. Bonapartek argitaratua da, baiña ez berak eragiña. San Mateoren Ebanjelioa ere omen dauka euskerara itzulita. Eta gehiago ez? Napar-idazleetan berau degu ugariena (Axular baiño ere bai, eta au esateak ez dio iñori miñik eman bear); ainbat lan ditu, bere eskuz idatziak, Iruñan, Diputazioan eta Semenarioan gordetzen diranak. Eragozpenak izan zituen, noski, bere bizian libururik ateratzeko. Bera illez gero, azalduak dira bere *Platikak*, bere *Koplak*, San Joanen Ebanjelioa eta Frantsizko Xabierren bizitza.

Eta gauza arrigarria da nola, artarako giro urria zegoen aldi artan, idazle au, bere oldez eta moldez, jarri zan Kristoren Berri Ona euskeraz jartzen. Bear bada, inguruko giroak eragin zion, orduan asi baitziran zabaltzen erderazko bi itzulpen, aita Scio-rena eta Torres Amat-en izenean zebillena.

(Emen, Torres Amat onen izena begietara etorri zaigun ezkerro, aitortu dezadan leengo artikuluan azaldu zan oker bat. Gaztelierrietan Amat onen izeneko erdal-itzulpena zabaldu zutela protestanteek esan nuen, eta oker esanda dago. Aita Scio-ren itzulpena zan Burrow-ek eta zabaldu zutena) (2).

Bonaparteren Garaia

Euskera aztertzen saiatu díran jakintsuen artean Bonaparte Printzeak nolako izena, nolako ospea duen ez dago íñori gogoratu bearrik. Beste batzuk testo zaarretan aztertu dute gure izkuntza; Bonapartek naiago zituen bizi biziak, bere egunekoak, toki bakoitzeko izkeraren berri emateko egokienak. Eta toki batetik besterako aldakuntzak jasotzearren, testo berbera agintzen zien askori beren euskerara itzultzeko. Eta asmo orretarako, zer egokiago Kristau-ikasbideetako edo Liburu Santuetako testuren bat baiño? Orra nondik ditugun Bibliako ainbat liburu euskerara itzulirik; orra nondik ditugun eta batera, eta leenbiziko aldiz, Biblia osoaren bi euskal-itzulpen, bata gi-puzkeraz, lapurdieraz bestea.

Bonaparte Printzeari esker egin zan mirari ori. Beste bein ikusten degu emen esku aberats eta leiñu argiko baten laguntza. Nafarroko erregiña bati zor badiogu leenbiziko Testamentu Berria; Biblia osoa ere ez zan leenbiziko aldiz euskerara itzuli errege-odoleko baten laguntzarik gabe. Bonapartek bultzaturik eta diruz lagundurik ekin zioten beren lanari, bai Duvoisinek eta bai Aita Uriartek. Eta arek eutsi ta lagundurik eraman zuten azkenera asi zuten arloa.

Bonapartek egin zuenak badu, alde batetik, bere utsa. Ez du ez erlijio-sustrairik, ez gure Euskalerrari laguntzeko edo on egiteko asmorik. Bere asmoa ez zan, ez, Euskalerrian liburu santuak zabaltzekoa; euskera aztertu ta ezagutzeko gaien billa zebillen. Katolikoa zan; Duvoisinek 1863-n Hiribarren apez eta euskal-idazle azkarrari idazten zionez, Luzien Bonaparte Printzeak katoliko egiten eta aitortzen zuen edonon bere burua, agerian eta goraki ala ere; baiña gai ontan beste nonbaitetik zijoazten aren xedeak; izkuntzalarien asmoak ziran bereak. Eta asmo orretan sarturik, Bibliaren itz utsak obe zituen beste íñoren itzez eta argibidez naastuak baiño. Orregatik, Uriartek edo Duvoisinek ortaz oarrik edo eskerik egiten bazioten, ez zien berak erantzunik ere ematen. Zergatik atera bear zuten bere asmoetarik eta beste asmo batzuetan sarrerazi?

Eta Bonaparte-ren laguntzaille oiek bazuten Liburu Santuak Euskalerrian zabaltzeko kezka edo ardurarik? Ezetz dirudi. Bonaparte-ren asmoetarako ziarduten, eta ark nai zuen bezela egiten zuten beren lana, ark emandako araei zintzo jarraikiz. Aien kezka auxe zan: egiten zitezten bibli-itzulpenak ez ote zuten Elizaren debekurik merezeko, itzulpen utsak ziralako, eta Elizak agintzen zuenez, oarrik ez beste argibiderik ez zeramatelako, ez ote zituzten artuko protestanteen Bibli-elkarteen laguntzailletzat. Bonaparte Londres-ko izkuntzalariekin alkartasun onean zebillen. Eta Bibli-elkarteekin, ez? Aita Uriartek erakusten zuen ontan bildurrik geien. Elizaren debekurik merezitzeko lanik ez zuen egin nai. Baiña ez berak ez Duvoisinek ez zuten Printze jaunaren gogoia aldatzerik lortu. Ala ere, ez zioten utzi jaun arentzat lan egiteari. Aren morroi jarri ziran, eta ala egitea zegokien. Ez du gezurrik esan euskal-idazle oiek Bonaparterentzat lan egin zutela esan duenak, ez ain zuten Euskalerraren-tzat, norbait orregatik asarretu bada ere.

Katolikoak ziran, bai, langille biak; katolikoa zan lan eragillea; gogoz ekin zioten aiek artu zuten saillari; lanean aurreratuago ta andiagoa zan euskerari ta Bonaparteri zioten maitasuna; baiña jakiñen gaiñean zeuden beren euskerazko Biblia ez zala

iritxiko erriarenganaño; irakurlerik gutxi izango zuela, Bonapartek alerik geien atera zuenean ere, ezpaiztuen atera 251 ale baizik, leenik arpidedun eta jakintsuen eskuetarako

Uriarte Aitaren Biblia Osoa

Bi euskalki autatu zituen Bonapartek Biblia osoa aietara itzultzeko. Puska txikiagoak, liburu santuetako bat edo beste, euskalki askotara itzulerazi zituen. Biblia osoa, Lapurdiko euskerara eta Guipuzkoakora baizik ez. Intxauspe jaunak bere laguntza eskaiñi omen zion Zuberoko euskerara ere itzultzeko, baiña Bonapartek ez zion eskaintze ori onartu.

Guipuzkerazko itzulpena egiteko Bizkaiko seme bat izan zan autatua: Aita Jose Antonio Uriarte, frantziskotarra. Urte batzuk leenago, sermoe bat entzun omen zion Printze jaunak, eta arrezkero bere lankidetako artu omen zuen, leenbizi, Iturriagaren *Diálogos* liburuia, Mateoren Ebanjelio eta *Apokalipsis* bizkaeraz eta gipuzkeraz emateko. Gero Testamentu Zaarra gipuzkerara itzultzeko nor billatuko, eta Uriarteri agindu zion leenengo liburuaren itzulpena. Artean ez zeukan erabakirik Biblia osoa itzultzeko lana nori emango. Uriartek bere leporako geiegi irizten zion lan oni; baiña azkenean, beste laguntzaillerik sortzen ez zala-ta, baietza eman zuen eta bere gain artu lan osoa.

Zorionez, bai Uriartek eta bai Duvoisinek, beren lanaldian Bonaparteri egindako kartarik geienak argitaraturik daude, eta gure aukeran ditugu. Orrela dakigu urte aietako ainbat xeetasun. Orrela dakigu Uriarteren atzerakuntza ta uzkuratasuna neke au bere gain artzeko. Batez ere, bizkaitar zalarik, ez zeukan bere burua naiko ikasi, trebe ta gaitzat, gipuzkera ongi ta jator erabiltzeko. Bonapartek bazeukan giputz bat berarekin lagun, Azpiazu jauna, eta onek zuzentzaille egingo ziola-ta, baietza eman zuen Uriartek. Leenengo liburuaren itzulpenean agertzen da Azpiazu jaun orren laguntza. Gero, badirudi bakarrik egin zuela Uriartek bere lan gutzia, 1859-n asi ta 1868-n bukatu zuen arte.

Ikusi dezagun nola egin zuen bere itzulpena, nolako lege ta araupean, eta nongo euskera erabilliz. Ontaz argirik asko ematen digute frantziskotar praille beronen eskutitzak. Arauak Bonapartek jarri zizkion. Ori jakiña da. Zein arau jarri zion, bada, Uriarte Aitari? Leenbizi, Gipuzkoako euskera erabilli bear zuela, beste euskalkien naasterik gabekoa, eta ez Gipuzkoa barruko edozein euskera ere, beste askori agintzen zien bezela, ez alako ta olako errien edo ibarren batekoa, gipuzkera literario erakoa baizik. Uriartek Beterriko gipuzkera artu zuen oiñarriztat, eta bi idazle izan zituen eredu: Lardizabal eta Agirre Asteasukoa. Lardizabali jarraikiko zitzaion itzetan, eta Agirreri aditzetan. Beste edozeiñen gaiñetik, Lardizabalen euskera jator, apain, garbi, euskal-kutsuzkoa erabilli nai zuen; baiña Liburu Santuak euskeraratu bearrak eta Bonaparteren asmoak kontuan eduki bearrak, ez dio utziko Lardizabalen bidea oso osoan artzen.

Bere itzulpena itzez itz egiña izango da, zeatza, Liburu Santuetako itzei urbilletik lotua. Bein ta berriz adierazten du Uriartek bere lanean darabilen jokabide au. Eta

oiñarriok azaltzean, are xeetasunik geiago ematen digu. Esaterako, alegiñak egingo dituela latinezko *Vulgatako* Itzak eta euskerazkoak leku berean jartzen: latinezko itzak zenbat, euskerazkoak ainbat; latinezkoa non, euskerazkoak antxe bertan. San Mateoren ebanjelioa bizkaierara itzuli zuanean, jokabide ori darabil; eta orain, gipuzkeraz Biblia osoa itzultzean, bide beretik ibilliko da. Adibidez, latinezko *dicunt illis* ikusten duan lekuan, ez du *dirautse* esango, *esaten deutse* baizik: Latinez zenbat itz, euskeraz ainbeste. Guipuzkerazko Mateo ematean, lege orri lotuago ibilli dala dio berak, Bizkaierazkoa eman zuenean baiño. Ori egitean, izkuntzalariari zer ego-kiago zitzaion izan zuen gogoan. Bonaparteren morroi zintzo azaltzen zaigu or.

Orrek ez du esan nai danetan Bonaparteren morroi izan nai zuenik. Ez; bein ta berriz gogoratu zion jaun andi ari euskerazko Bibliari oar batzuk jarri bearra. Bestela ez zan ongi artua izango. Jarri ere egin zituen asieran batzuk. Onela esaten zion bein Bonaparteri: «Emen ez dute Bibliarik irakurri nai, oarrik edo argibiderik ezpadu. Orregatik jarri ditut batzuk, eta or bialtzen dizkizut; ez dira asko, baiña bai naikoa; ea, Haranederrek dauzkan bezela, gipuzkerazko itzulpen oni jartzen dizkiozun». Alperrik. Bonapartek entzungor egin zien beti olako eskabideei. Jaunaren itzarekin ez zuen gizonenik naasi nai.

Andia da, orraitio, geroago gai ortan Aita Uriarteri gertatu zitzaiona. Berak ainbat aldiz gogoratu Bonaparteri oarren premia ori, eta bera sari gabe gelditu zan Donostiako sariketa batean, oarrik jarri ez zuelako Apokalipsis liburuaren itzulpenean. Sariketa ortan maipurukoek Uriartek bialitako itzulpena besterik ez zuten aurkitu sarigarri, eta ez zioten eman, Aita Scio-ren itzulpenak dituan oarrik jarri ez zuelako.

Aita Scio aipatu degun ezker, esan dezagun nondik eta nolako laguntzarekin egin zuen aita frantzizkotar onek bere itzulpena. Latinezko testua, *Vulgatakoa*, erabil-tzen zuen oiñarri, eta andik aldatzen zuen euskerara, leen ere esan degunez. Baiña latinezko esakerarik edo itzik illun xamar aurkitzen zuenean, Aita Scio-ren gaztelerazko Bibliara jotzen zuen argi billa; eta Scio orren testua ere estuegi edo lotuegi aurkitzen zuenean, Torres Amat-enaz baliatzen zan.

Orra, bada, nolabait azaldurik Aita Uriarteren iturriak, oiñarri-lege ta itzulpen-legeak. Auetxek aurrean zituela, gogatsu ekin zion lanari. Asi, 1859-n asi zan Testamentu Zaarra itzultzen, eta itzulia-ala, aldian aldian, Bonaparteri Londresera bialtzen. Otsaillean asi ta Maiatzaren azkenerako euskeratua zeukan *Ge/iesi's*-liburua... Askotan tarketa marteka egin bear izaten zuen lan au. Sermolaria zan, mixiolaria. Mixio-aldi luzeak izaten zituen urtean bein baiño sarriago, eta ortik lana eten bear asko sortzen zitzaion. Ala ere, 1859-garren urtebarruan inprentan aterata zeuden *Genesis*, *Exodo eta Levff/co*-liburuak, eta beste liburu batzuk ere itzuliak ditu.

Leenbiziko lan oiek, ordea, saio-antzean egin ditu. Artean erabaki gabe zeukan Bonapartek zeñek egingo zion Biblia osoaren Gipuzkerazko itzulpena. Urrengo urtean, 1860-ko Maiatzean esaten dio frantzizkotarrak Printzeari, beste iñork egiten ezpadu, bere gain artzen duela lan ori. Erabakia artua du, eta Liburu Santuak bata bestearen ondoren datoz arrezkero bere lumatik. Orrelaxe, pizkaka, baiña beti aur-rerako ekiñean, 1865-ko Azaroaren 25-n bukatu utzi du Testamentu Zaarra. Andik bi urtera gabe, euskeratua zeukan Testamentu berria. Eta 1868-ko urtarrillaren 25-n bialtzen zizkion Bonaparteri beste iñongo itzulpenetan agertzen ez diran liburu batzuk, *Vulgatan*, Bibliaren geigarri bezela argitaratzen dituzten liburu oiek: Manases Erre-

geren otoi-tza, eta Esdrasenak diralako irugarren eta laugarren liburuak. Andik luzaro gabe, urrengo urtean, bukatu zan itzultzaile zintzo ta azkarraren bizia ere.

Aita Uriarteren Bibliaren leenbiziko puska, leen aipatu deguna, besterik ez zan agertu. Beste guztia argitaratu gabe gelditu zan. Zergatik argitaratu gabe? Ez dakigu gauza argirik; zerbait antz eman dezakegu, ordea. Bonapartek ez zion miñik eman nai bere langille leialari, eta au ainbesteko kezkatan sartua ikusten zuen ezkerero, bere Biblia Elizaren baimenik gabe eta oarrik gabe azaltzen zala-ta, etendurik utzi zuen bere argitaraldia. Ori da noski arrazoia.

Zorionez ez da Uriarteren lana galdu. Bonaparteren paper-artean gelditu zan, eta Guipuzkoako Diputazioak erosia du, eta Zarauzko frantzizkotarrek beste kopia bat badute andik aterata.

Erosi zanean, bibliotekan gorde gabe, argitaratua izan balitz, mesede andia egingo zien euskerari eta gure eliz gizoni.

Duvoisin-en Bible Saindua

Duvoisin Jauna artu zuan Bonaparte Printzeak Biblia osoa Lapurtarren euskerara itzuli zezaion, eta Duvoisin-ena izan da gure menderarte Biblia osoaren euskerazko itzulpen bakarra, Aita Uriartek egindakoaren argitaraldia, esan degunez, asieran bertan etenik, ezpaitzen bukatu.

Duvoisin, mugazaiñen *kapitaina*, ez zan ez-ezaguna Printzearentzat arazo au eman zionean. Zabalduak zeuzkan iru liburu eder: *Liburu Ederra* (1856), Ituriagaren *Diálogos* dalakoa (1857-an, Bonaparte berak argitara emana), eta *Laborantzako Liburu* (1858). Ezaguna zan egunkarietako idazle bezela ere. Euskeraren jabe zan, eta garai artan euskaldunen artean gutxi bezelako maisu.

Larresoroko Semenariotik zekarren euskeraren alderako zaletasun sutsua, an egin baitzituen gaztetan urte batzu. Berak aitorturik dakigu au. Larresoron aziak zituen, an 1828-inguruan, beraz gazterik, euskeraren giltzen jabe egin naiez, bere alegiñ eta aztartzeak. Eta arrezkerero ez zituen bere bizian iñoiz ere utzi zearo. Ortarako «gure libururik ederrenak irakurri ditut eta aietan ikasiak jaso» (ala esaten zion 1862-n apez bati); Frantzia-aldeko Euskalerrri osoan bizi izana naiz, denetan oarrak artuz. Nere armategia orrela orniturik, obeki egin bear nuen nere lana egiten dedan baiño. Ala ere, liburu onek (bere euskerazko Bibliak, alegia) ola ikasitakoan aztaraarik asko gordeko al du, ez euskeraren kaltetan».

Biblia itzultzeko ongi omiturik zegoen, bai, Joanes P. Duvoisin Jauna, bere aldikorik iñor baldin bazan. Eta lan orri ekin baiño leenago, utzi egin zuen mugazaintza. Eta, gero, Bardoz-en etxe bat artu ta an jarri zuen bere lantegia. An egin zuen bere lanik geiena, Baionan bi egotalditan egiña ez beste guztia.

An izan zan Duvoisin sei urtez bere lanari lotua. Ez dago guztiz bakarrik. Liburuak ditu lagun, liburuak ugari. Leenbizi, Bibliiez omitu da; gero Bibli-itzulpenez, batez ere frantzez-itzulpenez; urrengo, Liburu Santuen azalpenezko liburuz. Onelakorik ere badu Renan gezurtuta lotsagarri utzitzeko aiña, bere eskutitz batean erakusten duen bezela. Guztia bearko zuen pasarte illun batzuk nolabait argitzeko.

Askotan frantzes-itzulpenak ere ez dio argi geiegirik ematen eta lanik naiko du bidea nola urratu billatzen. «Or konpon [dio berak bein] frantzes-itzultzaileek beren egitekoa nola burutu duten. Emen bear deguna auxe da beinik bein: zentsua ongi artu, pasarterik ulergaitzenak irakasleek nola ulertu dituzten jakin; eta ori jakindakoaan, aurreko itzak alik eta zeatzen itzuli. Gaizki egin badet, bide orri jarraikitzen saiatu naiz ni».

Bein luma eta bein aitzurra eskuan, lanean aurrera

Arian arian, atsegingarri aurkitu zuen bere lana, baiña ez nekerik gabea. Bein baiño geiagotan ezueriak jota, esku bata ibilli ezifiik gelditu zaio. Orrela illabete osoak galdu bearra izan zuen. Beste zenbait aldiz, or ikusten degu aintziñetako gudari idazlea gogora ekartzen digula; baiña gudari ori baiño paketsuagoa, bein luma ta bein aitzurra eskuan arturik. *Abbadie* jaunak bein osasuna zaintzeko argibide batzuk ematen zizkion, eguneroko ibillaldiak eta ola. Baiña aizkora ta aitzurrari eltzea osasungarriago aurkitzen du berak. Izerdirik geiago uxurierazten zion, eta orrela barruko urak eta indarrak neurri ta egon obean gordearazi.

Noizik bein idurikorturik ikusten degu. Bildurra sortzen zitzaion asitako lana ez ote zuen bukatu aal izango. Bere gorputzean, bere besoetan ezueriaren ondorenak ikusten asi zanean, bere bizia luzarorako ez zala etsirik zegoen. Bonaparte ere larritu zan, eta bere burua zaintzeko esaten zion, astiroago lan egiteko. Baiña berak, ain zuzen orrexengatik, aurrera eta al bait laisterren egin nai zuen. Eriak geldieraziko zuen berez ere, eta berak orrelako oporren bat, geldi egon bearren bat etorriko ez ote zitzaion beldurrez, esaten zuen: «Lan au laister egitea obe det». Askotan azaltzen dira bere larriak gai ontan: «Epeak eta egoarriak azkenburura eramango naute... Baiña gauza ez da, ez, laister egitea; zuk (Bonapartek) artu dituzun ardura eta egin dituzun zorrei lanaren balioak ere erantzun bearko dio... Baldin Jainkoak eta ezueriak erruki izaten banaute, aurrera egingo det nik... Nola nai ere, nere euskal-Biblia mesedegarri izango dalakoan nago, eta sekulako atsegiña izango det nik, bukatu dezadenean».

Zorion au ez zitzaion ukatu Duvoisin kapitainari, naiz eta bost urtetan egin uste zuena sei urtetan egin.

Bost emanaldi eta zatitan agertu zan bere euskerazko Biblia, 1859-n asita. Itzul-tzaillearen eskutizetatik jakin dezakegu noiz zer egin zuen. Esan degun urte ortan agertu zan leenbiziko zatia; 1860-n, Enegeen liburua bukatu ta aunera zijoan; 1861-n Esdras-en liburuetatik asi, salmoak bukatu eta Erran Zuhurrak itzultzeari eldu zion.

Orain arteko liburuak errazago ditu urrengoak baiño. Orain, Jakinduriaren liburuak buruauste geiago ematen die, ta leen egin zuen lanaren erdirik ez du egiten egunero; baiña *Eklesiastiko-libumra* iritxi danean pozez dago. Bibliaren erdia eginda dauka. Mendia iruditzen zaio bere lana, eta bein gaina artu dionean, gogo berria sortzen zaio aurrera jarraitzeko. Urrango urtean, 1862-koan, jakinduri-liburu guztiak atzean utzi ditu eta Profeten liburuetan sartua da; 1863-n, profetekin aurrera dijoa, eta Makabetarren liburuak itzuli ta Testamentu Berrian sarturik degu.

Testamentu Berrian sartu arte esan genezake Bonapartek bakarrean egin duela lan, euskaldun laguntzaillerik gabe. San Mateoren Ebanjelioa ez omen da itzultzen

zailla, baiña zailtasunik inoiz badu ere, Harriet jaunak, Haranederren argitaratzaileak, asko leuntzen dio bidea. Bestek ibillitako bidean barrena joatea beti da erosoago. Abbadie jaunak emanik, eskuetan du 1828-ko Protestanteen Testament Berria ere. Eta Bonaparteri pozik esaten dio: «Ez diozu gezurrik, bi itzulpen oiek (Duvoisin berarena eta Aita Uriarte-renak, noski) euskerari etorkizun ohea opako diotela diotunean».

Oneraino iritxi danean, asko ikasia dago gure itzultzailea. Biblia itzultzeko itza eman zuenean, euskera asko zekiala uste zuen. Orain ikusi du egunetik egunera asko ikasten ari dala. Zoko berriak argitzen zaizkio gure izkuntzaren barrenetan. Gaiñera, leengo beldurra galduak ditu, eta leengo lasterrak utziak. «Laisterrago egiteari eman izan natzaion guztietan, atzera egin dedala ikusi det. Gazteak edozer egin dezake; gaztea zumea ta zailla da...; aitzintxika ibiltzeko adiña joana dedala aitortu bearra det». Adiñak erakutsi zion esaera zaar batzuen egia: *Lan lasterra, lan alferra. Lehia gehiegia berantgarri*.

Urrengo urtean, 1864-n, azkena ematen dio bere lanari. Azkenengo zatia ez du izan egiteko errezena. Ala esaten zion Bonaparteri: «Euskeratzeko dedan zatia ez da, ez errezena. Epistolak lana emango didate; ala ere, arta bereziaz egin nai nituzke».

Esaterako, Erromarrentzako epistola bialtzen dionean, onela esaten dio: «Or dijoakizu, sorta batean, Erromarrentzako epistola. Ez da sorta aztuna; baifia neri lan aztuna eman dit egiaz». Eta, urriaren leenean, berri pozgarria: Testamentu Berria bukatua da.

Baiña Bonapartek geiago eskatzen du. Vulgatak, azkenean erantsirik dauzkan liburua ere euskeraratu bear dira: Manases-en otoiña, ta Esdrasen izenean dauden irugarren eta laugarren liburua. Ez dira inongo itzulpenetan aurkitzen; baiña Bonapartek euskeraz nai ditu. Eta azkenez, abenduaren 19-n, Bonaparteri idazten dio: «Pozik nago, zoriontsu naiz, Bibliaren azken-lerroak bialtzean. EXECISTI MONUMENTUM. Gogoangarri izango da, bai, egin dezun lana. Nik bakarrik ez, bestek ere egin zezaketen neri egokitu zaidan egitekoa; baiña zein bestek ar zezakean zure sailla, nork zure arta ta zuk egin dituzun eralgiak bere gain artu? Zuk jakintzari diozun maitasunari esker, euskaldun izkuntza zaarrera ere itzulirik aurkituko da emendik aurrera liburuen liburua, mendeen mendek gurgarritzat daukatena».

Urrengo urtean, otsaillean, azkenengo inprenta-utsak zuzendu, eta argitaraturik gelditzen da euskerazko leenengo Bibli osoa. Ona zer titulu daraman: BIBLE SAIN-DUA / edo Testament Zahar eta Berria / Duvoisin kapitainak latinezko Bulgatatik lehenbiziko aldiko Laphurdiko eskarara itzulia. Luis Luziano Bonaparte Printzeak argitara emana. Londresen.

Eta azkenean agiri ta aitormen auxe: Inprenta-lana 1859-n asi zan, martxoaren 9-n, azteazkenez, eta 1865-n, martxoaren 27-n, astelenez, bukatu. Guztiz, 251 ale atera dira.

Exegi monumentum!

Duvoisin-ek beretzat artu zitazkean Horati-ren itz ospetsu oiek; baiña berak, egoki aldaturik, Bonaparterentzat esan ditu. Zorionez zeuden biak, eta batuk besteari zorianak ematen. Bonapartek, gaiñera, *Légion d'honneur* delakoaren Gurutzea iritxi

zion gure Kapitainari, Bibliarekin egin zuen lanaren sari, Vinson jaunak merezigabekotzat bazeukan ere, eta bere langille zintzoari 50 ale eman zizkion, adiskide ta arpedunen artean zabal zitzen.

Frantzian, Irakaskintzako Ministre zanak 28 ale erosi zituen Biblioteka batzuei banatzeko; bat ere ez Euskalerrirako. Larrabure jaunaren eskabidea eldu zan Ministre beraren eskuetara, ale batzuk Euskalerriko Bibliotekaetarako eskatuz; baiña alperrik. Ez zioten goietan jaramonik egin. Asarre idatzi zuen berak: «Euskerazko Bibliak arrera ohea izan bear ote du, bada, Flandres-ko Lorraine-ko Bibliotekaetan, Baionan eta Paben baiño?». Alaxe zan, izan ere.

Duvoisin Jaunari berak artutako aleetatik, adiskideei ta emanda gero, 29 gelditzen zitzaizkion, eta Printzeak bear-ta, oni itzuli bearra izan zuen. Eskale asko zuen, nonbait, Printze jaunak. Baiña ez degu esango argitaraldi guztia agortu zanik ere. Urkijo jauna *RIEV* ateratzen asi zanean, ale batzuk aurkitzen ziran beintzat, ogei ta bostna pesetetan, salgai.

Kritika ta iritziak

Gure egunotan Lafitte jaunak eder ta goresgarritzat dauka Duvoisin Kapitainaren Bibli-itzulpena. Itzez aberatsa omen da. Neke andia artu omen du itzultzaileak latin-itzak euskal itzei egokitzen; aditzaren formarik bakanenak ba omen dakizki eta erabiltzen omen ditu. Baiña, damu gaitzez, latin-kutsu geiegi omen dauka. Orrela mintzatuz, Lafitte jaunak ez dio Duvoisinen lanari Duvoisinek berak aitortzen ez duen utsik ezartzen.

Askotan eman du onek bere lanak merezi zion iritzia. Bein baiño geiagotan aitortu du, Uriartek egin zuen bezala, Liburu Santuen itzultzea ez dala gauzarik egokiena euskeraren aberastasuna ta jatortasuna erakusteko. Gure izkuntzaren gaitasuna ta balioak ikusteko, *Telemako* edo olako libururen bat askoz obe zala esaten zuen. Bibliaren itzultzaileak alik eta zeatzen, alik eta aren testuari lotuen egin bear omen du bere lana. Liburu Santuetan, al dala, itzak berak aldatu bear omen dira izkuntza batetik bestera, eta ez aiek esan nai dutena, beste esaera batzuk artuta, nolabait eman.

Gaiñera, Bonapartek agindu duen itzulpena izkuntzalarientzat egiña da. Eta izkuntzalariek, testu bati urbilletik jarraiki ezik, nola ikusiko dute an izkuntza baterik besterako aldea?

Orregatik, Bonapartek emanik, arau batzuk naiko estuak gorde bear zituen Duvoisinek. Apez bati ona zer esaten zion: «Zuk nai zenituzke nere liburuan antziñako esaera zaarrak aurkitu. Ori debekatua daukat. Baita ere debekatuta daukat Lapurdin erabiltzen ez dan itzik erabiltzea. Ala ere iñoiz erabilli det olakorik ere, baitezpadakoa ta bearrezkoa zenean. Noizik bein debeku orri ez entzun egin bear izan diot, baiña oso gutxitan, eta kontu andiz». Bonapartek ez du nai (eta ontan arrazoi ematen dio Duvoisinek), Harriet-ek Haranederren Testamentu Berria ateratzean egin duen euskalkien naasterik.

Beste batzuk usteko dute, agian, itz berririk ere asmatu duela iñoiz. Olakoentzat dio: «Euskaldun batzuk, beren izkuntzaren mamia ta barneko itzuliak ezagutu gabe, oarkabean eta berez euskeraz mintzo direnek, asmatutzat artzen dituzte berek ez

dakizkien itz guztiak; alakotzat dauzkate, esaterako, euskeraren sustraietatik atera edo sortutako itzak, baldin beren amaren aotik ikasi ez badituzte». Eta olako itz-zerrenda aipatzen du: *Arrapakin, buluzkin*, adibidez.

Maxiorik eta esamesik izango duela badaki; baiña ez da beldurtzen. Badaki lan andi bati lotu zaiola, euskerarentzat mesedegarri izango dan lan andi bati, eta aurrera egingo du, iñoren beldurrik gabe. «Nere lanak, an edo emen, izan dezaken arrerak ez nau larritzen. Langille utsa besterik ez naiz ni... Eta langille naizelarik, ez det lanerako bestetako eskubiderik: lanerako, bai, eta bakarrik utzia ta kritikatu, ma-xiatua izateko».

Beste esames-iturri bat zuen beste alderdi batetik: bere Bibliak ez zekarren ez Elizaren baimenik, ez iñolako azalpen edo oarrrik. «Beldurti batzuk kezkatu-rik dauzkat, oarrrik gabekoa eta Erromako baimenik gabekoa dalako nere itzulpena; batzuk uste dute, fede onez ala ere, debekatu dutela nere Biblia irakurtzea. Baiña auzi au, itzez bederen, Apezpikuaren aurrera eramana izan da». Eta zer? Lacroix Apezpiku jaunak ez zuen aren aurka tutik atera, ez zuen debekurik aipatu.

Eta Erasme Lardapideri idazten zion: «Biblia au jakintzari laguntzeko asmotan itzulia da euskerara. Nere lana jakintsuentzat da, izkuntzak ikasten jo ta su ari diran ainbat jakintsuentzat. Orregatik ale gutxi ateratzen dira, 250 inguru, ez geiago...: jakintzaren onetan artzen da lan au».

Jakintzaren onetan, eta euskeraren ere bai, noski: «Biblia degu mundu osoan ezagutua dan liburu bakarra. Orregatik eman didate neri gure euskerara itzultzeko arazoa». Eta itzulpen ontatik euskerak on andia aterako duelako uste osoa du.

Bonaparte du berak eskar-emailerik beroena eta goreslerik zintzoena. Bere eskutitzetan maiz gogoratzen dio Printze jaunak Kapitainari onek darabilen euskeraren ederra ta apaiña, lotsaturik uzten duela. «Iritxi onegia dezu, (erantzuten dio bein) nere euskeraz; ain zuzen euskaldun asko gaizki esaka ditut, latīnaren morroi egiñik nabillela-ta. Euskera apaiña egiteko, maizago beariko nituke esaldi batzuk bata besteaganik berezi, naiz ta Vulgatak elkarri loturik ekarri, bere gramatika-legeak jarraikiz. Latin-kutsuak bakarrik ez, ebreo-kutsuak ere ezin izan ditut osoan utzi».

«Lotsaturik uzten nauzu [esaten dio beste bein]; neronek ere badakit obeki euskeraratu litekeala Biblia nik egin dedan baiño. Obeki egingo nuke ere, baldin urte batzuk geiago artuko banitu artako».

Nolanai ere, Liburu Santuei zien itzala eta begiramentuak ez zion uzten apainkerietan sartzen. Beldur zan testu santuaren lerroetatik aterarik, beste euskerazko esaera jatorragorik billatzearren, aien zentsua ere galduko ez ote zuen. Beldur zan Apokalipsis-liburuko zemaik bere gain eroriko ez ote diran: «Hitz diot liburu huntako profeziako hitzak aditzen dituen edozeini: Baldin nihork iratxikitzen badiote zerbait, berari Jainkoak iratxikiko diozkala libur huntan izkribatuak diren izurriak. Eta baldin norbaitek gutitzen badu libur huntako profeziaren hitzetarik, Jainkoak khenduko duela haren ikhustekoa bizitzeko liburutik eta hiri saindutik, eta liburu huntan izkribatuak direnetarik» (Apok. 22, 18-19).

Gaiñerakoan, esan degu len ere nolako mugak zeuzkan Bonapartek ezarririk. Lapurdiko euskera bizia erabilli bear zuen, eta ez Haraneder-Harriet-en Testamentu Berrikoa bezelakoa, euskalki batetik bestera saltoka ibilli gabe. Ez du onartzen berak ere olako naasterik, edo batasunik. Orain, euskaldunek duten politika-giroan eta

gizarte-egoeran, ez dago olako batasunik egiterik, ez olako asmorik onartzerik. «Baldin leenengo napar erregeek euskera artu balute legezko izkuntzatakako eta alde ortara eraman eta berotu balute euskaldunen arrotasuna, gauzak agian bestela legozke orain. Baiña idazle gutxi batzuk ori iritxi dezaketela ez dago ames egiterik».

* * *

Ez dakit geiegi luzatu ez ote naizen Duvoisinin lanari buruz ainbat xeetasun ematen. Zenbait argi emango dutelakoan nago, aren Bibliaren balioa neurtzeko. Aren euskerari buruz zuzenago mintzatzeko ere gogotan artzeakoak dirala uste det.

Gure erriari ez zaio eldu tamalez Duvoisinek egin zuen lan andi ortatik frutu gutxi baizik; baiña batere bage ez zan gelditu.

Duvoisin il zanean, Haristoi apezza egin zan aren paperen jabe. Apez onek argitaratu zuen, aren Bibliatik arturik, «Ebanjelioa Saindua eskuaraz» (1898, Paben). Duvoisineh lau ebanjelioak dira «behar diren baimen eta xehetasun guztiakin».

Jainkoaren itza eskaintzen zaio emen euskaldunari. «Murde Duvoisin gizon jakintsuari esker, emana zautzu zure Aiten eta Arbasoen hitzkuntza garbian». Duvoisinek emana da, baiña berak an eta emen zuzendurik, eta Haristoi jaunak argitasun eta oar batzuekin omiturik. Beronek ere egin dizkio iñoiz ikuturen batzuk aren testuari.

Ez zan gauza utsa, Euskalerrriak euskal-idazle ugari eta euskaltzale sutsu ark egindako lanetik gozo apurren bat txasta zezan (3).

Gaiñerako Itzulpenak

Uriartez eta Duvoisinez gaiñera, beste euskaldun asko artu zituen Bonaparte Printzeak bere lankidetako, batez ere Liburu Santuen batzuk euskalki bereziataraz itzultzeko. Bere lanak, batzuk argitaratuak daude; beste batzuk, argitaratu gabe. Naiz ta Bibli osoa itzuli zutenen aldean lan gutxi egin, aipamena merezi dute.

Bonaparteren jokabidea badakigu: testu jakin bat izkuntza ta izkelki askotara itzuli, izkuntza baten barruak obeki ezagutu eta izkelki batetik besterako aldea, edo bataren eta bestearen bereiztasunak edo ezberdintasunak obeki ikusteko. Olako lanak ez zituen euskeraren saillean bakarrik eragin, bai beste izkuntza askoren saillean ere, esaterako, Kataluña, Galizia ta Asturiatzko erderen saillean.

Euskerara geienik itzulerazi zituen liburuak auetxek dira: Testamentu Berritik, Mateoren Ebanjelioa eta Apokalipsis-liburua; eta Testamentu Zaarrean, Genesis, Jonnas-en liburua, Rut-ena, Canticum Canticorum, Iru aurrenkantua Babiloniako labeen, eta Miserere salmoa.

Latiñezko Vulgatatik egin bear zuten itzulpena; latiñik ez zekitenak, erdal-itzulpen ezagun eta jakin batetik: esaterako, frantzesek, Maistre de Sacy-renetik, eta Gaztelako erderaz, Aita Scio-ren edo Torres Amat-enetik.

(3) Duvoisin'en Bible Saindua berriz argitaratu zuen 1972 Bilboko La Gran Enciclopediak, L. O. Akosoloren itzaurrearekin.

Argitaratu eta argitara jabekoen artean zerrenda luzea egiten dute. Mateoren Ebanjelioa euskeraz eman zuten: bizkaieraz eta gipuzkeraz, Aita Uriartek; Napparroa Beerako euskeraz, Salaberri Ibarrolakoak (Maistre de Sacy-renetik itzulirik); Zuberoko euskeraz, Intxauspek. Baztango euskeraz, Bruno Etxenike jaunak; Erronkariko euskerara, Hualde Mayo apezak (R/ZsV-aldizkariak ezagutarazi zuen zati bat). Argitaratu gabe, bada gipuzkerazko Mateo bat, K. Otaegik Zegamako euskerara itzulia, eta Samper apezarena, Saraitsuko euskeraz, eta Loperena jaunarena beste bat.

Apokalipsis-liburua euskeratu zuten: bizkaieraz eta gipuzkeraz, Aita Uriartek berak, eta zuberoko euskeraz, Intxauspe kalonje izanak, eta Otaegik (argitara gabea), Zegamako euskeraz.

Testamentu Zaarretik, Jonas-en Liburua Baztango euskeran eta Garazikoan agertu zan, Etxenikek eta Casenavek itzulirik. Rut-en liburua euskeraturik daukate (Duvoisinez gaiñera), bestaldean Artxuk eta emengo aldean, Otaegik. Artxuk berak euskeraz jarririk utzi zituen *Genesis* eta *Salmoak*. Salomonen Kantuen Kantua, berriz, eta Iru aurrena, euskalkirik geienetara itzulia dago, eta argitaratua, gaiñera. Liburu txikiotatik alerik oso gutxi ateratzen zuen Bonapartek; ala ere geienak gure Biblioteka aundietan aurkitu litezke. Eta argitaratu gabe gelditu ziranak ere, berdin, jaun Printze orren alargunari Iruñeko, Bizkaiko ta Gipuzkoako Diputazioek erosirik. Gure Diputazioetan daude Biblia osoaren itzulpenak ere; Aita Uriarterena Donostian, eta Duvoisin-ena Bilbaon. Argitaratu gabe gelditu ziranetatik aipatu ditzagun bi (protestanteak, noski): Mateoren *Ebanjelio Santua*, 1850-n Garibai zalako batek itzulia, eta *Apostoluen Egiñak*, Oteizak euskeratua, biak gipuzkeraz.

Eta bukatu dezagun oraingo artikulu au. Asieran agindu degun gain-begiratu egin diogu Bonapartek eragin zuen itzulpen-lanari. Langille guztien artean bi izen nabarmentzen zaizkigu: Duvoisin eta Uriarte. Baiña oien ondoan beste izar txiki oiek ez daude argirik gabe.

Esan degunez, Euskalerrian gelditu da beren lana. Baiña beren lanetik zer iritxi da erriaren eskuetaraiño? Ez gauza andirik: Harenederrera dalako *Testament Berria* edo Jesu Kristoren Ebanjelio Saindua, eta Duvoisinen *Ebanjelioa Saindua eskuaraz*.

Lan izugarria egin zana; neke andia langille azkar aiek gaiñean artu zutena. Ez zan, noski, lan alperra izan; baiña urrengo menderarte, XX-garren mende ontararte itxoin bearko da Testamentu Berria eta Biblia osoa euskaldunen eskuetara eltzeko eran argitaratu arte.

MENDE ONTAKO GURE BIBLI-ITZULPENAK*

Amaiseigarren mendean asi eta mendez mende, gizaldiz gizaldi, iritxi gera poliki poliki gure egunetaraiño. Aspalditxo asi nuen lanaren osagarri, XX garren mendeko euskerazko bibli-itzulpenen berri ematea dagokit orain, gure egunetan edo gure egunei urbil sail ontan egindako lanari gainbegiratu egiñez bederen.

Joan dan mendetik ona, oldar berria izan dute Bibli-lanek mundu guztian. Goiz edo berandu, gure artean ere ez da bestela gertatu; guretarak ez dira, ala bearrik, ez guztiz mutu ez geldi egon. Bi aldetatik. Gure artera ere alde biotatik ikusten degu sartzen Bibliarako joera, eta alde bi oietatik izan ditugu, gei gutxi, Libum Santuak euskerara itzultzeko saioak.

Oraingoan ez degu, ez Joana Albret erregiñarik, ez Bonaparte printzerik. Oraingo langilleak ez dabilta goiko iñoren ederra egitearren. Erriaren onari begira daude eta ez dute beste saririk nai. Besterik ez dute billatzen, bakoitzak bere sailletik lan egiñez, emen lan egin duten liturgizaleek eta biblizaleek. Joera berri bikoitz au, bata eta bestea, bateratsu sortua da gure artean: orain, ain zuzen, berrogei ta amar urte, asi zan bere leen-fmtuak ematen, 1922 garren urtearen inguman. Asi gaitezen banan aztertzen.

Liturgiarako Itzulpenak

Liturgia degu, ala esateko, jainko-itzaren labea ta maia. Liturgiarako oretua eta errea da Jainko-itzaren ogia, eta an jaten emateko egiña. Libum Santuak ez dira idatzi irakurleen asti-betegarri, edo ikastunen jakin-miña asetzeko, ez liburutegietan gor-

* Jaunaien Deia (1972, 41.zenb.) 305-337.

derik eukitzeko, an irakurleen aukeran egoteko. Erri batentzat egiñak dira, Jainko-erriarentzat idatziak, Jainko-erriak batzarra zuenetan aren aurrean irakurriak, entzunak, argituak eta gogoz auznartuak izateko, alegia.

Erriaren arduradunek bear zituzten gorde, zaitu eta erriari irakurri eta azaldu. Olaxe, Lege Zaarrean eta Berrian. Inprenta sortu zan arte, gutxi izan zuten geia-gorako aukerarik, esaterako, kopiak eskuratu eta nork bere bakarrean irakurtzeko erreztasunik.

Onek ez du esan nai kristau-erria Liburu Santuetako egien eta egiñen ez-jakifian egon zanik orduan. Kristautegiak beti izan du kristautasunean eskolatua izateko aukera, nolabaiteko kristau-ikasbidea, ain zuzen Liburu Santuetan oiñarrtua. Ez zan liburuetako bidea, irakaslearen agotik entzulearen belarrietarakoa baizik, eta ez egun gutxi edo urte gutxi batzuetakoa, bai bizitza osokoa. Dana, elizetako batzarretan, edo liturgiaren barruan.

Euskal-erriarentzat bide bakar onek, egia esan, beste inguruetako erri geienentzat baiño luzaroago iraun du, luzaroegi esan genezake. Bein inprenta asmatu eta zabaldu zan ezker, beste erri batzuk erreztasun andiagok izan zituzten, bai orixe!, Jainkoaren itza iturrian bertan, bakoitzak bere izkuntzan, artu ta edateko. Ala ere, gurea ez zan egarri utsean gelditu. Liturgiari esker, elizan entzun eta ikasten zuenari esker, batik bat.

Bibli-itzulpenik edo Testamentu Zaar eta Berriko Istoriorik euskeraz zabaldu baiño leenagotik, gure erria ez zegoen Jainkoak gizona salbatzeko egiñen argirik gabe. Ori esan du Lafitte jaunak, eta ez arrazoirik gabe.

Irakurri, dio Lafittek, irakurri bitez kanta zaarrak. Noe, Salomon, Moises eta noren aipamenik ez dugu aietan entzuten? Ikusi pastoralak: tituluak berak naiko argi mintzo dira: *Jakob, Joseph, Moise, Josue, Sanson, Dabid, Job, Daniel* edo *Nabukodonosor* eta *Ester*, Testamentu Zaarreko batzuk aipatzeko. Testamentu Berriko batzuk ere ona: *Joan Bautista, Jaiotzea, Aur Prodigoa, Jaundone Petiri, Andrea, Estebe...*

Artu eskuetan euskeraz egin izan diran otoitz-liburuak edo otoitz-gaiezkoak: Liburu Santuetako esanez eta gertaerez beterik daude. Irakurri semolarien liburuak, eta gauza bera agertuko zaigu. Eman begiratu bat euskerazko omiliategiei. Onelako mordoia degu XIX garren mendea ezker. Gai ontan Astarloarenari eta Gerrikorenari aipamen berezia zor zaie. Gerririk Salbazioaren Istoria osoa itzuli du bere sermoetara, Jainko Egilleagandik asi eta Kristo zeruetaratu ta Eliza sortu zan arteraiño. Astarloak, bere berbaldien asierarako, zeatz samar euskaraturik eman zigun igande eta jaietako ebanjelioa.

Sermolariok berandu etorriak, oraintsukoak dirala? Egia da; baiña jokabide bat erakusten dute, edonola ere: aiek liburutan idatzirik utzi zutena beste askok leenago agoz eman zutela gezurrik gabe esan genezakela nik uste.

Mende berean, alegia, XIX garrenekoan, aipagarrienetakotzat daukat izenik eman ez zigun norbaiten liburua: *Meditazioneak urtheho ebanjelioen gainean* (1840).

Lafittek esanari jarraituz, ez ditugu aaztu bear, gaiñera, jaun orren iritiz gure erriarentzat Bibliaren ordain izan diran auek: Larregi-ren *Historia* (1775-77), Lardizabal-en *Kondaira* (1855, 1887, 1908), Etxeberri-ren (1874), Dithurbide-ren (1882) eta Diharasarri-ren *Istoria* direlakoak (1890). LardizabaJ orrenak (Bidasoaz onuzko

bakarra berau) iru argitaraldi ta erdi izan ditu: argitaraldi erdia (*Testamentu Berriko Kondaira*), oraintsu gure egunetan (1957) agertua.

Gure erria Liburu Santuen baiño orrelako liburuen zaleago izan da, berez. Atsegin geiago artu du, iñolaz ere, olako laburpenak irakurten Biblia bera irakurten baiño. Eta, nola nai ere, ez da egon Liburu Santuen argirik batere gabe. Baiña aitortu bearra dago oraintsuagoko aldietan aukera obeak sortu zaizkiola orretarako. Eta bai bear ere.

Nondik eta nola? Leenik, Liturgiak izan zuen piztualdia dala bide. Piztualdi orri esker, aukera ohea egokitu zaio gure erriari, ez bakarrik igandetan Berri Onaren atalen bat entzuteko, bai bakarrean irakurtzeko ere. Eta egoera berri au ez da orain oraingoa. Gutxi gora beera, orain dala berrogei ta amar urte izan zuen asiera. Bidasoaz onaindiko Euskalerrian, iru aldizkari asi ziran sail ontan bide berriak urratzen: *Jaungoiko Zale*, *Bizkaian*, *Zeruko Argia*, *Naparroan*, eta *Argia* asterokoa, Guipuzkoan.

Joera berri onen bide eta asmoak, nik uste, *Zeruko Argia* zaarrak adierazi zituen argi ta zeatzen. Aldizkari orren zuzendari ziran kaputxinoek argi ikusi zuten gure erriak ortan zeukan premia eta utsunea. Urte batzu geroago idatziak dira, baiña aldizkari ortan agertu ziran itzak aipatu nai ditut emen. Noren lumak idatzita ez dakit, baiña 1929-an, 130-garren zenbakian onelaxe azaltzen zituzten kaputxino aiek beren kezkek:

«Gure erria elizatik baztertzen ari zaigula edozeiñek dakus. Guziok, negarra begietan, aitortzen degu gero ta elizkoitasun gutxiago dagoela. Baiña zergatik ote da? Ez ote da elizako gauzak otz egiten zaizkiolako? Ez ote da elizkizunak zer esan nai duten eta Elizaren liturgia ezagutzen ez duelako?»

Ori bakarrik ez bada ere, Liturgiaren berri geixeagorekin eta elizkizunetan leku geixeago emanez gero, ez al genezake erria elizkizunetara obeki ta gogotikago ekarri erazi? Esatera nijoana ezin beintzat ukatu. Euskal erriak Liturgiaren berri gutxi du, edo ezer eztu. Onen berririk gabe erriak ezin maitatu du Elizaren jairik; jai oietan elizan egiten dana gauza illuna ta ez-adikorra da beretzat; jai oietako elizkizunak eta elizkizunetan egiten danak esan nai duena berak ezin igarri... Eta gauza jakiña da, buruan sartzen etzaigunak, edo ezagutzen ez degunak, ezin berotu duela biotza».

Euskalerriko kristauen gaitz au sendatzeko zer egin? Kaputxino aiek ez ziran gaitz ori agerian jarriaz asetu, ez negar utsetan gelditu. Sendabidea billatu zuten. Eta ona andik aurrera artu zuten jokabidea: «Gure erriari Liturgiaren berri eman nai genioke liburu txikitxo batzuetan. Nai diogu bere berria eman, puzketaka, ta atsegintsu. Lan ori egiteko, iru aita aspaldian gertutzen ari zaizkigu. Atzerrian gai onetaz argitara diran lanik oberenak bildurik, gaiak zaiñetik eta oso ondo ikasirik dauzkate. Lan mamitsu erraz eta samurrak ari zaizkigu gertutzen».

Esan ta egin. Andik luzaro gabe, liburu txikitxo batzuk atera zituzten argitara, gain-gaiñeko titulutzat *Erriarentzat Liturgia* zeukatela (onelaxe Liturgia, eta ez Liturgia).

Neri ez dagokit emen danak aipatzea, nere asmotako egokien diran auexek baizik: *Bezperak* eta *Urte guziko Igande ta Jaiegunetako Ebangelioak*, biak Bibliatikoz izulpenez osoturik.

Batak, Mezako egunerokoaz gaiñera, igandetako Bezperatako salmoak zekazkien, bakoitza bere argibide ta guzti, dana euskeraz; besteak, orduan Erromako mezaliburuak Igandetako zituen Ebangelio guztiak. Leenengoaren egillea, aita Arbelaitz zana; bestearena, Iraizozko Polikarpo aita.

Zeruko Argia aldizkaritik egindako lana aipatu det leenen, ez orraitio leenak ziralako. Leentxeagotik urratua zegoen bidea. *Argia* asterokoak eragiñik, euskeraz jarriak zetozten iganderoko Ebangelioak *Argi Donea* izeneko eliz-liburuan (1925). Bizkaieraz ere azaldu ziran andik laster. Are leenago emanak zeuden Aita Aranaz kaputxionaren *Nere laguna* omiliategian (1922-n asita), geroago Iruretagoeina jaunaren *Iganderoko Berri Ona* titulutzat daramaten bi tomoetan bezela. Mende ontan beste omili-libururik ere izan degu, Ortuzar apaizarena eta Izurrategi Elorriko parroko izanarena, bata 1902-koa eta bestea, 1934-koa; Baiña oiek Ebangelioaren mamia besterik ez zuten eman, ez testoa bera. Bizkaian *Jaungoiko-Zale* aldizkariak eman zituen urte batzuetan urte barruko Igandetako Ebangelioak. Gero *Ekin* asterokoan jarraitu zion lan berari, Ebangelioaz gaiñera omili mamitsua emanez euskeraz.

Emendik ageri danez, Epistola itzultzeari iñork ez zion ekin, geroagorarte. Narbaitz jaunak eman ote zuen nago leenbiziko aldiz urrats ori: 1948-an ateratzen du jaun onek bere *Elizako Liburu*a, baiña epistolen laburpentxoak besterik gabe; 1961-an agertu zan liburu bera osotuago, epistolen itzulpen osoarekin.

Baiña ontan Orixe izan genuen aurrelari. Onen *Urteko Meza-Bezperak* liburuan Erromako Meza liburuko epistola ta beste irakurgai guztiak daude euskeraturik (1950). Bizkaiko karmeldarrek ere egin zuten beren lantxoak: igande ta jai-egunetako epistolak, 70 fitxaten aterata. Eta, azkenez, Kerexeta eta Aita Onaindiaren izenean agertu zan mezaliburu osoa (1963), au ere irakurgai guztiekin

Liturgiaren ildoari jarraituz, berealaxe sortzen da Belokeko beneditarren fraidetxetik datorren oldarra. Aita Iratzeder olerkari pindartsuaren bertsozko lanak, salmoak itzuliz, ez du emen guk goretsi bearrik. Eta gogoratu besterik ez degu egingo salmo berak Baztarrika aitak gipuzkeraz eta Akesolok bizkaieraz jarri zituztela.

Sail berean, aipamentxoak merezi dutela uste det beste bik: Aita Zabala-Aranak eta Luis Egiak; leenbizikoa, *Aste Gurena* dalakoaren egillea, Irurren Santuko matuti eta bezperatako salmo ta irakurgai guztien Itzulpenarekin (1924), eta bestea, 1957-n *Aste Santu* Berriaren euskeratzailea.

Liturgiatik kanpo, Berri Onarekin zer-ikusia baitute, aipa ditzagun, azkenez, Kristoren bizitza labor batzuk, Arbelaitzek, Gorostiagak eta Lafitte jaunak egiñak, Lapurdiko, Bizkaiko eta Naparroako idazle bana aipatzearren; eta liburu sakonago eta luzeagoetatik, Zaitegi-ren Apostoluen Egiñak, eta Manzisidorren eta Martin Oiarzabalen Kristoren bizitzak. Azken onen liburua, *Yesukristo gure Yaun eta Yainkoaren Bizitza ta Berri Ona* (1935), luze ta sakon idatzia da, eta Bibli-irakasle batek, Aita Larrañaga jesuitak, ipiñi zion zegokion itzaurrea. Lafitte jaunak maisu-liburutzat dauka.

Oraintsuago, Testamentu Zaar eta Berri osoaren gaia artzen duten bi liburu eder etorri dira euskaldunen eskuetara: *Gazteen Biblia*, eta *Biblia guztioi esana* (1968). Biak erderatik itzuliak dira, baiña Bibliaren itzei estu samar jarraiturik. Biak, eder-

garriz ornituak eta azal apaiñez, begi ta gogo-betegarri dira. Esku-ikusi balio andiko au euskerak gure idazle trebe biri zor die: lenengoa Zugazti'tar Anizeto apaizari, eta bigarrena, Lekuona'tar Manuel euskaltzaiburuaren ardurari.

Eta onera ezkeror, ez degu aipamenik gabe utzi bearko beste euskal-idazle jator eta gartsu batek, Domingo Soubelet kalonjea zanak, mundu au utzi aurretxoan, eman zigun azken-liburua: *Jesus* izenekoa, Baionako apezpikuak sarreran dionez, Eban-gelioetako itzez dana josia, beste biak bezela. Orregatik bego emen batera iruron aipamena.

Bibliazaleen lana

Liturgiaren bidez egiña ez da gutxiestekoa. Ez zan gauza utsa. Jainko-itzaren puzketa batzuk eskaiñi zitzaizkion ortik gure erriari. Baiña liturgiaazale aietan ez zan ageri Biblia osoa euskeratzeko kezkarik ez Liburu Santuetako liburu bat osorik ere. Liturgiaren lagungarri egin zuten beren lana. Zerbait zan, ez gauza andirik, puzketa gutxi batzuk besterik ez ziran izan. Urteak leenago, joan den mendearen azkenetan, AranaGoirik ere bere Egutegian eman zituen Ebangelio-zati zenbait. Aren aipamentxo au aski bedi.

Liturgiatik zetorren oldarrarekin bateratsu sortu zan beste oien oldarra edo joera, alegia, Biblia osoa edo Bibliaren liburuen bat saillean euskeratzeko nekea artu zu-tenena.

Biblia osoa eman diguna oraiñartean bat bakarra degu: Aita Olabide, gasteiztarra, Iñazio Loiolakoaren semeetakoa. Baiña onen inguruan, aurretik eta ondotik, zenbat langille txikiago! Olabide degu oian ontako zugaitz nagusia. Baiña ez dago bakarrik: beste zugaitz asko ditu inguruan. Olabide mendi garai gorena degu, edo mendi-gaillurrera iritxi dan mendigoizale kementsu zorionekoa; besteak, beeragoko maldatan agertzen diran muñotxoak, edo bide-erdian gelditutako mendigoizale auspo gu-txiagokoak.

Orrela, itzulpen aundia eta itzulpen txikiak ditugu. Azken oeitatik asiko gera.

Itzulpen Txikiak

Orain dala berrogei eta amar urte, 1922-garreneko urte inguruan, iru jesuita asi ziran mendian gora: Aita Olabide, Aita Galdos eta artean jesuita zan Nikolas Ormae-txea, Orixe ez-izena ospetsu egingo zuena. Aita Olabide zanaren lana askenerako utzita, ikusi dezagun beste oiek egiña.

Aita Galdos (Galdos-tar Erromal) Eibarko semea zan, eta Bibli-irakasle; bear bada, Biblia euskeratzeari ekin zion leenbiziko Bibli-irakaslea. Jatorrizko izkuntzetatik itzuli zituen libum Santuetako zati batzuk. Nik ez det iñon ikusi baiña, 1922-n argitaratu bide zuen ebreotik euskeraturik Rut-en liburua, Bilbon, berea zuen eus-kalkian, bizkaieraz.

Gogotik eldu zion geroago salmo-liburua itzultzeari. Eta 1936-n, bi txorta atera zituen titulu onekin: *Dabiden abestiak*. Leenengo salmotik berrogeigarrenerañokoak

ditugu emen. Erroman agertuak dira, *Pontificia Universitá Gregoriana* dalakoaren irarkolan.

Salmo guztiak ateratzea zan, noski, euskeratzailearen asmoa. Baiña gogoan izan bearke da 1936-garren urtea zala; urte zorigaitzoko orrek euskal-ekintza askori ekarri zion indarrezko zoritxarra, zati baterako etena edo ixilaldia. Orregatik Galdosen lana ere, bearbada bukatua izan arren, osorik argitara gabe gelditu zan.

Jesuita onek, salmoak itzultzean, apaizentzat egin zuen lan, batez ere. Apaizek «beraieneliz-bizitzan, abestietan, otoietan, gogarteetan, ainbat eta onurarik aundienaz eresi oiek erabiltzeko» euskeratu zituen. Apaizek Dabiden eresietatik onurarik aterako badute baitezpadakoa dute «eresiok ongi, beren itz guztiak jakitea, eta batez ere, beren barru-mamia eta beren barru-mamiko *asmo, gogo, zaletasun* guztiak argi ta garbi ikasita eukitzea». Irakurri dezatela liburu au geldi ta astiro, eta «ia oartu gabe» «*Psalterium* osoa errez ulertuko dute, gure euskerazko idazti au latekerazkoari begira egiña dago-ta».

Alaxe da, izan ere. Eta gaiñera, liburu ontan latiñezko salmoak (*Psalterii Gallicaniforma correctior*) eta euskerazko itzulpena alkarren ondoan datoz, bata besteari begira, bata bestearen aurrez-aur, orrialde banatan, eskoian eta ezkerrean.

Auxe da, ain zuen, Galdosen itzulpenaren muga-estugarri txiki bat: latiñezko testoa ulertzen laguntzeko egiña da. Baiña, au ere esan bearra dago, gerkerazko eta ebreozkoak aurrean izan eta erabilli ditu. Latiñezkoetan «illuntasuna, argirik-eza, lauso-laiño edo beste olako garbirik ezen bat aurkitu dodan bakoitzean, gerkerara ta eberkerara eta baita oraingo izkuntza nagusietara ere begira egon naiz eta begira ibilli naiz zoli-zoli».

Ez da itzulpen utsa bakarrik. Orrez gaiñera, oar eta argibidez ongi ornitua dago, bai latinez eta bai euskeraz.

Leenago ere orren antzeko lanik erderaz egiña zan Aita Galdos. Eta leengo eta oraingo lan onegatik txalo ta zorion beroak artu zituen Santanderko Gotzai zan Egino zanak egindako eskutitz batean:

«Dabiden abestiak argitzearren zuk egindako lan ederrak azpalditik ezagutzen ditut. Belarmino deunak gai orretzaz idatzitako idazti aundia zuk argitu ta garbi berriztu zendun; *Verbum Domini* deitzen zaion aldizkari ospetsuan ere abesti oien mami estitsua bein baiño geiagotan eman diguzu. Eta orri gutxi iritxita, Dabiden idazti osoa bere izenez agertzen ziran 150 abestiekin, erderaz, eder ta ederki argitaratu dezu. Baiña zure arazoa bukatu gabe zegoen. Orain arte egindako lan txalogarri oien erpiñean, lore bikain baten antzera, Dabiden eres-txorta euskeralduta ipiñi nai izan dezu. Lanaren ederra! Jaunak berak buru ta biotzean sartu dizun asmoz egindako lana... Ori ondo! Zoria ta aintza zuri!...»

Lanaren ederra, bai, esango degu guk ere, beste askorenarekin batean loraldi eder baten zantzu ona zekarrena, 1936-ko ekaitzak dana ondatu ezpalu...

Galdosen ondoan, Orixe izango zanaren izena jarri degu. Gaztea zan orduan, gazterik asia ere zan euskal-alorrean ildo berriak urratzen. Euskaltzaindia sortu baifio lentxeago sortuberria zan aita jesuiten euskerazko aldizkaria: *Jesusen Biotzaren Deya*. Eta aren orrialdeetan azaldu zan laster Nikolas Ormaetxea, euskal-luma ongi zorrotzia

eskuetan. An argitaratuko lanik aundiarena luzeena itzulpen-lana du: Joanen Ebanjelioaren 16 kapitulu. Lau Ebanjelioak ateratzeko asmotan asi omen zan lanean, eta laurak euskeratu ere egin omen zituen, jesuiten artetik atera ta urterik asko geroago argitaratu bazituen ere. Aita Olabideri ere asko lagundu omen zion urte aietan *Itun Berria* itzultzen.

Leen aipatua utzi degu, bere biziaren azken aldera, Liturgiaren saillean egin zuen lan bikaiña. Baiña, orrez gaiñera, il orduko euskeraturik utzi zituen beste bi lan: *Jesukristo gure Jaunaren Berri Ona* (lau Ebanjelioak), eta *Salmutegia*. Ebanjelioak eliz-baimen eta guzti inprentarako gertu utzi zituen, eta geroago argitaratu ziran, Zugazti-Kerexetaren itzulpenarekin Testamentu Berri guztia osatzen zutela. Liburu au eta Salmutegia Lazkaoko beneditarren arduraz atera ziran argitara.

Ebanjelioak itzultzean, Mezalibururako artu zuen bidea eraman zuela dirudi: euskera ez mordolloegi ez garbiegi, «euskaldunik geienen buruan sartzeko modukoa».

Salmoetan, beroien olerki-tankera gogoan izan du, Elizak ere eskatzen duen bezala. Lekuona jaunak itzaurrean dionez, salmoak itzultzeko gure egunotan iñor gutxi Orixe baiño aukerakoagorik. Lapurdi aldean, Aita Iratzeder izan degu ontan maisu eta gidari; neurtitzik lotuenetan eman dizkigu onek bere salmoak. Orixek lasaia jardun du bereetan; baiña saiatu da, eta geienetan bai lortu ere, Dabiden eresiei bertso-oiartzuna ematen, «salmoen isuri gozoa ere euskal-ontzirik ederrenean euskaldunon euskuetaratzeko» (Lekuonak). Ola egin du, batez ere, koruan esateko edo kantatzeko eman nai izan dituelako. Orrexegaitik ere, itz-erorkera berdiña (puntu) edo berdintsua billatu du, al izan duen neurrian.

Itzulpen ontan, Pio XII-garrenak eragindako *Psalterium* edo latin-itzulpen berriari jarraitu dio. Baiña onezkerok ez daki beste berriago bat badala latinez, eliz-toitzetarako onartua?

Aita Polikarpo Iraizoz

Aita kaputxino au liturgizaleen artean lentxeago ikusi degu. Orain biblizaleen artean ekartzea dagokigu. Jo dezagun atzera, 1934-ko urteetara. Urte ortan agertua da liburu eder bat: «*Yesukristo gure Jaunaren Bizia*». Bi urte leenago egiña zegoen, eta eliz-baimenez ornitua; baiña 1934 arte ez dator argitara. Banago ez ote dan merezi duen baiño gutxiago ezagutua. Jesukristoren bizitza eman digu egilleak or, dana Ebanjelietako itzez, andik itzez itz aldatua. Itzultzailea euskal-idazle jatorra eta olerkari txukuna degu.

Bere asmo ta jokaera onelaxe azaltzen zigun sarrerako itzetan: «Lau Ebangelariak ez dizkigute beti berdin kontatzen Yesusen esan-egiñak; batzutan bai danak berdin, beste batzutan berriz batek alde batera, besteak bestera; batek geiago, besteak gutxiago; batek gertakari bat yakinarazten digula, besteak berriz ez. Guk auxe egin dugu, bada: lau gizon oiek beren liburuetan dakazkiten berri guziak beren itzekin, guk geren itzik sartu gabe, batera bildu ta gero ori euskeraz yarri euskaldunentzat. Gure lan au egiteko, beste izkuntzetan egindako liburu asko begien aurrean iduki ta aietaz baliatu gerala aitortzen dugu».

Argi dago, beraz, Aita Iraizoz kaputxinoaren lana «*Evangeliorum Concordia*» esaten zaien oietakoa dala. Antziñago ere egin omen zan olako saiarik euskeraz (Aita Añibarrok), eta orintsuago *Otxoluak* (Bernardo Garro zanak), baiña biak gelditu dira argirik ikusi gabe. Orainagoko egunetan Kerexetak egin zuen leenbiziko lana ere olakoxea izan zan.

Aita kaputxinoek *Zeruko Argia* zaaretik egin zuten lanik ederrenetakoa izan zan, benetan, Iraizoz aitarena. Salmo-itultzazilleen artean ere zor zaio aipamenik Aita oni. Kantuz emateko, liturgiarako, ainbat Dabiden eresi jario ederreko bertsoz euskeratuak ditu *Zeruko Argia* aldizkariko orrialdeetan.

Aita Areitio eta Zabala-Arana

Jesusen Biotzaren Deya zeritzan Jesuiten aldizkarian etenda gelditu zan Joanen Ebanjelioa, Orixe zanaren lana, 16-garren kapituluan, len esan degunez. Andik urte batzuetara, aita Areitio eldu zion Ebanjelioetako ariari, baiña beste era batera, alegia, Aita Iraizoz kaputxinoaren antzera: «*Jesukristoren bizitza lau Ebanjelioetatik artu ta baten euskeralduta*». An, 1927-tik 1931-ra bitartean azaldu zan aldizkari orren orrialdetan. Beraz, Aita Polikarporen aurrelari dala esan genezake aita Areitio, Jesusen Lagundikoa.

Aita Zabala-Arana ere bigarrenez aipatzen degu. Leen, beronen *Aste Gurena* dala-ta. *EdestiDeuna*, edo gure Bidasoaz aruzko anaiek esango luketen bezala, Istorio Saindua dalako liburu bat ere egin zuen. Baiña emen beste lan bat dala-ta aipatu nai genuke: orain dala 50 urte, *Euzko Deya* izeneko aldizkarian, Dabiden eresiak saillean ateratzen asi ziran, itz lauz, eta banakaren bat bertsoan. Iraizoz kaputxinoaren aurrelarizat joko ote genezake au ere?

Aita Arriandiaga

Gogorra gertatu zitzaion Elantxobeko seme jakintsu oni: umetan euskaldun utsa izana erdaldun uts biurtu, bere amarekin bein itzik egin eziñik gelditzeraiño. Begiratu utsez elkar agurtu bear omen zuten; eta semeak lotsari ori bertatik kendu ta garbitzeko erabakia artu omen zuen. Euskera berriz ikasi bearrez, euskera berria asmatu ez ote zuen diote.

Arriandiagak bere eskola sortu zuen euskal-idazleen artean, baiña bera ta beste jarraitzaille andirik gabekoa. Bere euskera ortan idatzi zituen Ebanjelioak eta Apostoluen Egiñak, edo *Goizparraik eta Beldubaik egiña*. Nik uste, ementxe eraman zuen urrutien bere eskola.

Len au 1936-erako egiña omen zeukan eta Gazteizera eliz-baimen eske bialdua. Urte artako iskanbillak sortu ziranean, erantzunik artu gabe omen zegoen egillea, eliz-baimenik eskura gabe. Gero, berriz egin bear izan omen zuen lana, ez 1936-koa baiño ohea, ez zeatzagoa. Itzulpena gerkerazko testoaren aurrean egiña da.

Arriandiaga il ondoren, 1959-an argitaratu zuten maisuaren adiskide ta ikasle batzuk. Darabillan euskera ez da, ez, batasunerako egokiena, noski. Ala ere, liburua

irakurri zuen edo ez zuen batek esana da «traducción formidable» dala. Egia esan, gutxien uste dan lekuan aurkitu daiteke pitxiren bat edo beste.

L. Leon Apezaren Ebanjelio Saindua

Bidasoaz eskui-aldeko euskaldunak, bien bitartean, ez zeuden lo. An ere ai-pagarria da astekari batek, *Euskualduna* izenekoak, egin zuen lana. Astekari ortan, Ebanjelioen itzulpena eta azalpenak ematen nabanriendu zan, besteak beste, Lafitte idazle ugari eta ain ezaguna. Baiña ori naiko ez zala, beste kezkarik ere azaldu zan gure andikaldeko anaien artean, alegia, Ebanjelioen itzulpen osoa ematekoa. Duvoisinen Ebanjelioak aspaldi zeuden agortuta, eta bazan argitaldi berrien baten edo itzulpen berrien baten bearra. Itzulpen berria, obe, orraitio. Duvoisinek egiña ona izanik ere, bere aldiko semea zan, nola nai ere. Urteak ez dijoaz alperrik. Leengoak egindako lana obetu liteke, eta obetu bearra dago, gaurkoago egin bearra, gaurko irakurleentzat edo entzuleentzat egokiagoa, atsegiñagoa.

Nork egingo, ta Leon apeza lotu zitzaion lanari. Leendik erakutsia zeukan olako lanetako gaitasuna. Apez onen Imitazioneak an eta emen arrera ona ta zabala izan zuen.

Leon apezaren *Jesukristo gure Jaunaren Ebanjelio Saindua* 1947-n agertua da. Itzultzaileak ez zion sarrerarik ipiñi, baiña Imitazionearen Aitzin-solasean esana esan zezakean emen ere: «Zaharrak berri, eskualdun maiteak. Liburu zahar bat berritu dugu guk ere: mami berarekin axal berri bat eman... Hunek ez du aitzineko bihi bati deus zorrik. Erran nahi dugu: ez diotegula deusik ebatsi ez maileatu. Lan huntan ari ginelarik, iduritu zaukun, orhe bera hartuz, zerbait pollitagarorik egin zitekeala».

Or agindua nola bete zuen, liburuak nolako arrakasta eta arrera izan zuen, esan dezala itz gutxitan Lafitte jaunak: «Gure giputz adiskideentzat, balinba, ulergaitz samarra bada ere, guretzat argia da, apaiña eta dotorea L. Léonen euskera, iturritik arako ur gozo garbia».

Kerexeta-Zugaztiren lanak

Goiko lerroetan eman degu Kerexetak Liturgian egindakoaren berri, eta orain ez degu leenak berritu bearrik. Leenxeago asia zan Testamentu Berriko itzulpen batzuk egiten. Aita Polikarpo Iraizozkoaren bidetik ibilliz, leenbizi *Barri Ona* atera zuen (1960), «lauebanjelioetatik itzez itz atera ta laurak alkartuta».

Gurpide, Bilboko gotzai jaunak, pozik eskaintzen zien liburu au bere eliztarrei: «Zorionez beterik gagoz bizkaierazko argitarapen au dala-ta. Abadeen eta prailleen aldetik bakarrik ez, baita eliztarren aldetik be abegi onaz arduraz artzekoa da. Ziur gagoz egillearen alegiñak eta gogo zuzena errez onartuko dabela eliztarrak. Eta izan dedilla idazti au Barri Onaren irakatsiak al bait ondoen eta artezen ezagutzeko biderik egokiena».

Ortarako, Kerexetak (berak aitortzen du) alegin biziak egin ditu euskerarik al bait errezena erabiltzen. Eta apalik dio: «Alan bere, badakit guztien gogoia beteko ez dodana, guztiok azibide bardiña ez dogu-ta, euskerari buruz batez bere».

Gotzaiak uste zuenez, Bizkaiak arrera ona egin zion, eta ori egindako lanen pozgarri eta lan berrien pizgarri izan zuen itzultzaileak. Orrela, urrengoz urrengo, *Apostoluen Egiñak* eman zituen (1961), *Apostoluen Egiñak eta Idazkiak* (1965). Onekin, Kerexetak osotutzat dauka Itun Berriaren bizkaierazko itzulpena. Baiña, benetan, geroxeago iritxi zan ortara, *Jesukristoren Barri Ona* Lau Ebanjelioak attra zituenean (1966), Jerusalemgo Bibliatik itzulita. Ageri danez, lan oiek itzulpenen itzulpen ditugu.

Orduan Anizeto Zugasti bildu zitzaion lagun, bizkaierazko itzulpenak gipuzkoerara aldatzeko. Eta laster degu Gipuzkerazko *Itun Berria* (1967), Ebanjelioak Orixek eta beste liburuak Zugazti-Kerexetak itzulita.

Azkenez, Kerexeta salmoak itzultzera biurtu zan (1), eta 1967.an atera zuen bere Salmutegia, eta Kerexetaren ildotik Zugastik bere Salmudia (1968).

Arantzazuko Prailleen lau Ebanjelioak

Orainartean aipatu ditugun itzulpen guztiak bakarka egiñak dira. Taldeka, alkarlanean egiñik ez degu ikusten Arantzazuko prailleen au agertu zan arte (1961-62): lau Ebanjelioak dira. Itzultzaileen buru ta zuzendari, Aita Mendizabal-tar Pemando; sarrerak, argibide ta oarrak, eta gainbegiratu kritikoa egin dituen, aita Goitia, irakaslea; eta laguntzaille bezela, praille-mordo ederra. Ez ditugu banan izendatzen.

Sarrera labor batean erakutsi digute egilleek beren asmoa: «Onako asmo auxe izan da libumtxo onen egilleen zuzendari: gure euskaldun errí maiteari Ebanjelioak euskeraz ematea, alik eta leialena gerkeratik itzuliaz, euskera atsegiñez irakurtzeko moduan. Oarrak ere baditu, testua sakonago ulertzen laguntzeko. Baiña batez ere Jainkoaren biotzaren taupadak entzunarazi nai izan dizkiogu gure euskaldun erriari, San Gregorio Aundiak esaten zuenez: «Jainkoaren biotza ezagutzen ikasiaz, betiko gauzaen egarria biziagotu dakigun».

Geien batean, atsegiñez irakurtzekoa da, eta sakelean noranai erameteko moduko liburu eskuarra atera dute.

Bi laiko zaar: Manuel Zelaia eta Toribio Etxebarria

Manuel Zelaia sendalari jauna luma-langille urduria azaldu zan bere zaarrea erderaz, eta euskeraz ere bai. Larogei ta bost urte zituen *Apokalipsis* euskerara itzuli zuenean (1964). Nonbait, joan dan mendean Lukas-en itzultzaille izan zan Oteiza sendalaria baiño gutxiago ez zuen izan nai, eta Testamentu Berriko azken-liburuari

(1) Azkenez sail onetan egin duen lana Biblia osoa euskeratu eta argitaratzea izan du, Kerexetaren izena Duvoison eta Olabide'ren izenen ondoan gelditu da.

eldu zion eta geroago erderazko liburu bat idatzi zuenean bezala, Donostiako *Caja de Ahorros Municipal* dalakoak argitaratu zion au ere.

Torres Amat-en erderazko itzulpenetik artua dago, eta aren erderazko testua aldamenean duela argitaratua.

Eta, orain, bukatu dezadan nere ibillaldi au, gure bibli-itultzaille txikien lanen barrena egin dedan ibillaldia, *ibiltari* aundi baten itzulpenak gogoratuaz.

Nor da *ibiltari* au? *Ibilitarixanak* liburuaren egilea. Nondik ez ote zan ibilli? Emengo 1936-ko aizeteak sakabanatuta erbesteko ogi garratza jaten agiriko mundu ontan bazter askotan ibillia da bera. Ibillia baita ere, barruko gosea ase bearrez, gizonaren gogo-barruko beste mundu berrietan barrena: literaturan, jakintzan, filosofian, gizartearen eta langilleen kezketan.

Eta barruko mundu ontan ibiltari, ainbat aldiz jo zuen Bibliako mundu erakar-korrera ere. Ainbat aldiz murgildu zan ortxe. Liburu santuak, astiro eta maiz irakurriak zeuzkan. *Vulgatako* latin-testotik irakurri ere. Andik atera zituen ainbat gai bertsogintzarako: *Adan eta Eban*, *Kain*, *Job-en probatzia*, *Sunango ederra*, *Jesus eta Same-riako emakumia*, *Marta eta Maria*, *Emausko bidian*, *Madalako ederra*...

Baditu lau edo bost salmo, Dabiden itzei estu lotu gabe, euskerara bestsotan itzuliak. Beste bertso asko Bibliako esanez josi ditu. Nola ez, liburu ori liburu guztien artean maiteena bazuen?

Dozena bat liburu badituraz berriz urtero
geruago ta maitiaguak ostera irakorri ezkeru.
Baiña bat —Biblia Sacra— nere bizi guztirakua,
milla urtian baneu be ezin agortutakua.

Baiña aurrerago ere joan zan: Bibliako zati edo liburu batzuk euskerara itzul-teraiño.

Olaxe eman zigun «Testamentu Zarreko iru andrekumea», Tamar, Rut eta Bes-sabee, emakume oiei buruzko zati batzuk euskeratuta. Olaxe daukagu bere *Tobias*, liburu onen amalau kapituluak bakoitza bere sarrera eta azpiko oar mamitsuekin. Amairugarren kapituluko Tobiasen eresia bertso biribil ederki onduetan itzuli zuen. Olaxe utzi zizkigun *Job* liburuaren zati batzuk ere. Leenengo bost kapitulu eta 42-garrena bukatuta utzi zituen. Zer gertatu ote zitzaion beste kapituluekin? Dana euskeratzeak «astiro jartzia eskatzen» omen zion, eta «beste aukera baten zain» utzi zuen lana, noiz bait amaia emateko ustetan. Besterik ez dakigu gaur.

Esan bearrik ez dago *Arratetiko*en, edo Eibartarren euskera jator gozatsuan idatzi zuela dana. Maisu zan ortan Eibarko seme ibiltaria. Eta Bibliaren saillean egin zuena ez genezakean aazturik utzi emen.

Aita Olabide (1969-1942): Itun zar eta berria

Gure Bibli-itultzailleen artean erraldoi, guztien gaiñetik burua gailen erakusten duela, ona, azkenez, Aita Olabide jesuitaren lana, Biblia osoaren itzulpena. Azkena ez dan arren, berriaz utzi degu askenerako.

Berdintsu egin genduen joan dan mendeko itzultzaileekin: leenbizi, itzultzaile txikien lana erakutsi eta, gero, aundiienen, Uriarte eta Duvoisinek egiñen berri eman. Oraingoan, ez degu oraindaiño lagunik Olabide aitari emateko. Gure mende ontan gaur arte bakarra degu lanbide ontan saiatu eta gaillurra jo duenik. Beste alderdiren batetik, nai duenak nai duena esango du, baiña iñork ez dio Gasteizko jesuita oni beste omen ori ukatuko.

Aurretik, *Itun Berria* itzuli eta argitaratu zuen, 1931-gn. urtean. Eta gero, bizien lagunartea utzi baiño leen, azkena emanik utzi zuen Testamentu Zaarra ere, urteak geroago (1958) agertuko zana.

Lan onek bere azkenengo ogei urteak eraman zizkion. Artean bazituen beste zenbait euskal-lan. Baiña bein Jainkoaren Itza ematen diguten liburuak itzultzen jarri zanean, ia besterik ez zuen egin.

Iñusturiak jota bezala artu omen zuen erabakia. Euskalerritari lotsari au kendu nai zion: Bibliaren itzulpen osorik, Elizaren baimendunik, ez izatea. Lotsari andia, izan ere, kristau eta katoliko garbitzat zegoen erriarentzat. Lotsari ori ikusita, Olabide ez zan illetak joten geldi egotekoa, ez lana besten gaiñera botatzekoa ere. Beste iñork ez zuela egiten? Berak, beintzat, al zuena egingo zuen batere nagirik gabe, artu bear zuen nekeak batere atzeratu ez bildurtu gabe. Kemena eta jakitea bear zituen ortako, eta kementsua zan eta jakitez ornitua Olabide. Ez zuen, gaiñera, itzulpenen itzulpenik egin nai; jatorrizko izkuntzetatik euskerara aldatu nai zuen euskaldunentzat Jainkoaren Itza. Argatik, Liburu Santuetako izkuntzen jabe egin zan, eta euskeraren jabe.

Olabide Euskal-Idazle

Ikusi dezagun nola egin zan Bibli osoaren itzultzaile au euskeraren jabe. Ontan Olabidek utsetik sortua dirudi; beste gure bibli-itzultzaillerik ez da, noski, berau baiño zori txarrekoagorik. Aita Arriandiaga izan liteke berarekin antzik geien duena.

Naiko jakiña da ontan jesuita oni gertatu zitzaiona, eta ez det nik esateko berri aundirik. Ala ere, zerbait esan bear ko det.

Olabide Gasteiz-en, Arabako uri nausian jaioa da, 1869 garren urtean. Beraz, uri erdaldundu batean egokitu zitzaion mundura etortea. Ala ere, ez zuen bere inguruan dana erdalduna. Euskaldunak zituen aita eta ama, Gipuzkoatik Arabara aldatuak. Eta seaska utziberritan, amaren besoetan bere leen-itzak euskeraz atera omen zituen. Ori bai: bost urte izan zitueneko, ordea, kaleko erdal-giroak ito omen zuen aur txikiaren euskera apurra.

Gero, ikastaroa datorkio, amabost urte zituelarik jesuita sartzea, berriz ere goragoko ikasketak Loiolan, Veruela, Tortosa, Oña eta Manresan. Buru azkarra erakusten du ikaskuntzarako; irakasle ere egiten du urte batzuez Valladoliden, Salamancan, Oñan, Gijonen, eta, azkenez, Galician. Beti erdallerrietan dabil.

Baiña au arrigarria! Euskalerriko uri erdaldundu baten galdu zuena, ain zuzen, Gaztelerrriaren biotz-biotzean aurkitu zuen: Salamancan. Antxe piztu zitzaion euskalzaletasunaren txingarra. Antxe asi zan, besteen irakasle zana, bere gurasoen izkuntza zaarra ikasten. Salamancan asi, Leonen jarraitu eta Pontebedran bukatu. Erdalarietan beti.

Ogei ta zazpi urte omen zituen euskerara biurtzeko gogo sortu zitzaionean. Nola? Eukerazko liburu bat gertatu omen zitzaion begien aurrean: Gregorio Arrue, euskal-idazle ugariak, itzulitako *Kristoren Imitazioa*. Irakurtzen asi, ta ez omen zuen dana arrotz aurkitu; aur txikitari jakindako zerbaiten oiartzuna ekarri omen zioten ango itz askok. Euskerazko Kempiz ori erderazko bat aurrean zuela irakurri, ta orixe izan omen zuen leenengoko euskal-eskola; gero, Kanpion eta Lardizabal. Batez ere, Lardizabalen *Testamentu Zar eta Berriko kondaira* artu omen zuen irakurtzeko eta aztertzeko. Geroxeago, Azkue andiaren Iztegia azaldu zanean, an murgildu zan dana buruz ikasteraiño.

Ori egiñez eta euskerazko libururik alik geien irakurriz, esan genezake ez zuela bide txarra autatu euskeraz jabetzeko. Erdalerrian bizi zan ezker, berak sortu zuen bere inguruan nolabaiteko Euskal-erria eta euskal-giroa. Ez da euskal-giro bizi bizia, baiña bai nolabaiteko euskal-giroa. Ez dezagun au aaztu. Orretzek, euskal-giro bizitan euskera ez ikasiak emango dio, nonbait, Olabide aitaren euskerari kutsu berezia, iñon sustraitua ez izatea, saio-euskeraren kutsu nabarmena. Saio-euskera? Baiña au gure egunotan pekatu dan ala ez, akatsa bezala egotzi bear zaion ala ez, utzi dezagun emen, eta jo dezagun aurrera.

Luzaro gabe azaldu zan Olabide euskeran bere maisutza erakutsi bearrez. Erdalerrian egon eta bizi arren, zoli diardu euskal-lanak egiten. Frutuak laster agertzen dira: *Loyola'tar Eneko Deunaren Gogoiñarkunak* (1914), *Giza-soña* (1936), *Kristoren Antz-bidea* (1917). Urrengo urtean, 1918-an Oñatiko batzarrean, sakon jardun du euskal-iztegiari buruz eta Euskaltzaindia sortzean, leenengo amabi euskaltzainetako izendatzen dute.

Ez zaigu alperrik etorriko bere iritzi batzuk jakitea euskerari eta euskal-iztegiari buruz. Gogo-iñarkunen sarreran auxe dio: «Ez dute euskaldun guziak urlertuko, euskeraz ikastunak diranak kenduta, euskeralben aunetan idoroko dituzuten itz oro. Ikasi gabe ezin jakin diteke. Bazter bakoitzean itz-eli urritxo bat erabiltzen da; ta bere ibarretik ala menditik bestera dijoanak bere itzik oituenak berritatz artzen dizkiotela dakus, eta, ostera, ango itz eta esakunik asko berri-zurrian entzun bear ditu. Idazleei dagokie iñungo itzak eta esakerak Euskal-erri guzietara barreiatzea, alik eta euskera osoa euskaldun guziena izan dedintzat. Aunela bakarrik, lizunez beteta dauden itzik asko garbitu ta soilduko dira; ta batez ere, aunela bakarrik orko ta ango euskeran, masti zarrean bezelaxe, dauden utsuneak beste aldeko euskal itzez ta esakeraz beteko dira, erderatik ezertxo ere ekarri gabe; dana etxean daukagu-ta, etxea aztertzen badakigu».

Etxeberri Sarakoak berdintsu itz egin zuen berreun urte leenago. Leena ta oraíña norbaitzuk uste duten baiño urbillago daude gure idazleetan.

Giza-soña atera zuenean ameslariago eta bere uste eta asmoetan sendoago ikusten degu: «Gure asabak euskera txokoratu eta sukalderatu dute, ikastolarako eta erausi yakintsuetarako erdera beti erabillirik». Orrela, Jainkoak emandako izkuntza «oroldiz estalita, erdoiz yanda, akatsez beteta, erabilgaitza ta elbarriz yota oñordekoei utzi digute. Ez da, beraz, arritzeko, yakingai askotaz idatzi nairik gure tartean ainbeste lagun egon arren, ipuin eta gogo-arazoetaz izan ezik, idatzi yakintsuren bat ere ezpaitu iñork egundaiño atera».

Orregatik atera du berak liburu ori: giza-soiñari dagozkion euskal-itzik geien bildu ta pillatzeko. Beste jakintza-gai askotan sartzeko asmotan zebillen. Bizkaiko Diputazioak, Eleizalderen bitartez, agindurik, izadi-jakintzari eta fisika ta kimikari buruzko eskola liburuak ere gertatu omen zituen. Negar egin omen zuen Elizalde jaunak lan ura ikusi zuenean, arrantzale ta baserritarren izkuntzan alako gaiak ain errez erabili zitezkelata. Orixe entzun zion Luis Agirre apaizak Olabide aitari berari. Lan oiek galduak ote dira?

Su ta gar ari zan Olabide olako lanetan, baiña ez bere mugak aitortu gabe. Bazekien lan orrek akatsak izango zituela, geiegiz edo gutxiegi, itz batzuk bazterturik utziz, beste utzi bearreko batzuk sartuz: «Baiña guztien begietara ezker, utsuneak eta geiegikeriak erraz agertuko dira, eta urliak zerbait iñausiz eta berendiak zerbait erantsi ta kopuratzen badu, yakingai bakoitzerako laingo ornia laster izango degu».

Emen ere ez dezakegu gaizki esan Gasteizko seme argi onen aurka, eta aren utsuneak eta geiegikeriak iñork zuzendu ez baditu, ez dezaigun errurik egotzi berari.

Lan oietan ziarduela, bat batean, elburu berri bat azaltzen da jesuita onen bizitzan; Biblia euskeraratu nai du. Leen esan degunez, lotsari bat kendu nai du Euskalerritik. Olabideren euskal-lanetan lotsari-kentze onek zer-ikusi andia izan du. Enekoren liburua argitaratzean bide ortatik zebillen; Santu euskaldun orren Gogo-iñar-kunak ezin euskaldunak euskeraz irakurri? Lotsa ta alke ori guretartetik ezabatze azartu naiz euskeralben au argitaratzera». *Giza-soiña*, euskera jakintza-sailetarako gai egin-naiak eragin dio. Lotsari batek minberaturik dator orain Biblia itzultzera.

Itun Berriaren sarreran esango du: «Dana dala ogendun, gure erri maitea beti bizi izan da Igande-mezatan eguneko Ebaingerian azaltzen zaionaz besterik ezagutzeke ta ezagutzeko biderik izateke. Yainkoaren itza iñork ere ez dio aren izkuntzaz yarri. Idazteuna irakurtzeko beste izkuntza lenik ikasi bearrez euskalduna aurkitu da beti, Yainkoaren idaztiak euskaldunentzat ez dirudite egiñak». Zer lotsari andiagorik?

Duvoisin eta Aita Uriarteren Biblia Bonaparterentzat egiñak izan zirala dio. Aita Villasanteren aserrea gora beera, Olabidek eskubide osoa du ori esateko, eta batere gezurrik gabe. Aita Olabidek ortaz esan dituen itzetan Duvoisin eta Uriarte ez dira gaizki gelditzen eta bai Villasantek esanetan baizen ongi.

Gaiñera, bada besterik ere: Iñazio deunaren eta aren Lagundi osoaren goragarri izango da lan eder au. Lagundiaren nagusiek badakite, eta aukera guztiak eman dizkiote beren mendekoari, beste egitekorik gabe, lana aurrera eramateko. Berrero gaude an 1922-gn. inguruko egunetan.

Norbaitek, bearbada, esan du onezkero luzeegi jardun degula sarrera-itx oietan, gaian zuzen sartu gabe; baiña ez det uste dana alperrik eta aritik kanporakoa izan danik. Itun Zaar eta Berria eman digunaren lana obeki eta zuzenago ulertzeko lagungarri izango dalakoan nago. Besterik gabe aztertu eta ikusi dezagun gure Bibli-itzultzaillerik andienak nola erantzun dion bere gaiñean artu zuen lan andi oni.

Itun berria (1931)

Bai, 1931-an agertu zan Itun Berria *Jesusen Biotzaren Deya* aldizkariaren ardurapean, Verdes-Atxirikaren irarkolan, Bilbon. Baiña itzultzailea bederatzi-amar

urte leenagotik zebillen lanean. Ezarian ezarian asi omen zán, asmo andi jakiñik gabe, Lukasen Ebangelioa euskeratzen. Gero Apostoluen Egiñak itzultzeko gogoia sortu omen zitzaion, Lukasen ariari jarraitzearen edo. Eta, askenez, Testamentu osoa euskeratzea erabaki zuen. Orduan eman zioten nausiek lan ortarako erreztasun osoa.

Orixek esan duenez, bukatuta zeukan Itun berri osoa 1924.gn. urtean. Ogei ta iruan badakigu Erromarrentzako epistolarekin ari zala. Askori eskatu zien iritzia epistola orren asiera nola itzuliko. Geroxeago, Oiarzabal apaizak eta Orixek ere eman zioten xeetasun batzutarako beren laguntasuna, geroago Testamentu Zaarra itzultzean emango zioten bezala. Eta oien esanari jaramon egiñik, bigarren eskualdi bat eman zion lan guztiari. Ageri danez, astiro samar zijoan lanean, edo Orazioren esana egin nai zuen, egindako lana puska batean gordeta euki. Ala ere, 1928-koa du sarrera, eta 1931-an ikusi zuen argia.

Egun gogoangarria! Leenbiziko aldiz ikusten zuten, euskaldunek, Testamentu Berri osoa katolikoentzat egiña. Gaiñera, jatorrizko izkuntzatik egindako itzulpenetan ere gure artean leenengoa genduen. Itzulpena Olabiderena zan, baiña oarrak eta argibideak emateko beste bik egin zuten lan: Aita Ogarak eta Aita Arin-ek. Oar gutxiegi du, batzuen iritziz; baiña kontuan izan dezagun egilleak oar batean esana: «Ez ditugu, ordea, lenbiziko argitaraldi ontan guziak ez osorik ere yarri izan nai, idatzi au berantegi ta lodiegi irten ez zedin».

Erabili dituen iturriak ere oar oietan izendatuak daude. Berak esan dezaigula: «Orain argitaratzen ditudan idaztiak Itun Berrikoak dira, eladeraz *Vogels-ek* dakar-tziñez euskerara itzulita. *Vulgata* ere, Hetzenauer-ek dakarrenaz, gogoan ta begitan beti izan dut. Eladeraz irakurtzen ez dan unetxo bat *Vulgata*k dakarrenean, taketar-tean edo azpiko oarretan emen ageriko da».

Noizbaten ere, goizegi ez bazen ere, euskaldun katolikoek bazuten beren Testa-mentu Berria! Baiña nolako arreta izan zuen? Esan bearrik ez dago geienek zorionez artu zutela; baiña laster egin zitzaion lekua kritikari, eta orduan bi alderdi agertu ziran.

Ona zer idatzi zuen *Zeruko Argia* illerokoaren orrialdetan Aita Polikarpo Iraizoz-koaren lumak: «Aurten agertu da euskaldun guziek berantesten giñuen liburua: Je-sukristo gure Jaunaren *Itun Berria*, Testamentu berria euskeraz. Olabide euskaltzain langilleak agertarazi du».

Eta bereala galdera auxe egiten zuen: «Liburu orrek betetzen ote du euskaldunen gogoia?» Eta Aita Kaputxinoak erantzun: «Azalari, kanpoaldeari begiratzuz, nik uste baietz; txukunki irarria dago, tituluak tinta gorritz, beste liburuetako aipamenak bel-tzez; orrialde bakoitza ere, marra gorritz inguratuta. Azpian oarkerak dakazki, Eleiz-legeak agintzen duenez; baiña oar oiek urri, eskas samar ez ote diran nago».

Aita Iraizoz onek badirudi ez duela Olabideren sarrerako oarra irakurri; an irakurriko zuen zergatik dan oar oien urritasun ori, lenxeago ikusi degunez. Eta berriro kritikoaren itzak: «Gaiñera, irar-utsen bat edo beste ere arkitu diogu. Tituluren bat eta oarpen bat ere bai bear eztuen lekuan, bere tokitik kanpo. Gaiñerakoan itxura ederreko liburua. Baiña izkuntzari begiratzuz ez dezakegu beste onenbeste esan. Ola-bide Aitaren euskerak ez gaitu asetzen, ez itzen joskerak».

Ona emen aita kaputxinoak liburu santuetan gaizki ikusten dituen itz-zerrenda bat: *Kirten*, *bonbonkada*, *zarrastel*, *kokolokeri* ta olako *vulgarismo* batzuk. Eta zergatik *ayola ayola* esan bearrean?

Eta itzen joskera? «Itzen joskerari gakiozkala berdintsu esan bearrean gaude: eztigi gogoia betetzen. Nere iruditu utsen bat ote zan beldurrez beste jaiotzazko euskaldun jator batzuei beren iritzia eskatu diet eta gauza bera esan didate. Liburu ortako euskal itz-joskera eztatort noski ongi Altube euskaltzain jaunak bere *Erderismos* liburuan dakazkien arauekin eta arau oiek eztatort berak asmatuak; euskaldun onak bere gisa ederki betetzen dituzten arauak dira». (*Zeruko Argia*, 1931, 155garren zenbakian).

Zeruko Argiaren orrialdeetako kritika au *Euzkadi* egunerokoak itzez itz jaso zuen, eta Orixe atera zan Olabide-ren alde kaputxinoaren kritikari, edo ark aipatutako akatsei erantzuten.

Miñez ikuste du Orixe kritikalaririk orrek Olabide aitaren alderdi onik ez ikustea. Zortzi urte ontan ezagutzen det, zion Orixe, Olabide aitaren lana. Aldi ontan itzultzaileak orraztu eta orraztu ekin dio lan orri. Euskeraz ez da egin ainbesteko nekerik eman duen lanik. Ortik bakarrik ere merezi omen zuen gorespenik. Baiña ez ote du alderdi onik? Irakurri bitza kritikalaririk orrek Paulo Apostoluaren epistolak: arrigarria da aien itzulpena. Ez; itxura ederra baiñio besterik badu *Itun Berria* liburuak. Zergatik ez ikusi? Gure artean kritikarako balio duenik gutxi omen degu. Gramatikakeririk merkeak aurrea artzen omen digu eta beste edertasunik ikusten utzi ez. Baiña Liburu Santuek noiz izan dute iguiñik *kirten* eta olako itzen alderako? Ez ote dago aietan are gordiñagorik, edo itxura nabarmenagorik?

Itz-joskerarik buruz, arrazoia ematen dio Aita kaputxinoari, ala ere, euskal-belarrientzat arrotz samar eta bitxi egiten dala aitortzen du. Bestela, goresgarritzat dauka *Itun Berria* orrekin Euskalerririk artu duen esku-erakutsia.

Beste batzuk ez zuten kritika-aldera jo, akats-billatzaileen kritikara beintzat. Eztabaidatan sartu gabe eta inkimakorik sortu gabe, Olabidaren alderdi onak ageriago jarri zituzten, batez ere, gizon bakar baten lana zanen aldetik. Olako lanak taldean, askoren artan egiten asiak zeuden munduan ordurako. Euskerazko au batek egin du, baiña talde oso baten indarrak zeuzkan gizon batek, orraitio. Era berean gogoratzen zuten auxe genuela leenbiziko aldiz jatorrizko izkuntzetatik itzultitako Testamentu Berria.

Andik iru urtegarrenean, kritikarik zorrotzena, azterketarik osoena *Kardaberaz* bazkunako apaiz berri batek egin zion: Luis Agirre, Lekuonaren eskolako izanak. Beronek irabazi zuen 1934n Gasteizen antolatu ziran lore-jokoetan bere lan onekin: «Aportación del Gasteiztarra Padre Olabide al idioma vasco».

Apaiz au Arantzazun aita Olabidarekin egun batzuk egiña zan. Orduan, non-zer-berri dabillan gaztearen jakin-miñaz, ainbat xeetasun atera zizkion jesuita gasteiztarririk beronen bizitzarik buruz. Nik emen jarri dituan batzuk Agirre apaizaren lanetik artuak daude.

Labur esateko, Agirrek ez dio gure itzultzailearik merituririk bat ere ukatzen. Baiña bai, iñork baiñio zorrotzago, akatsak atera ere: irar-utsak (berrogeiren bat),

gramatika-utsak esaeretan eta aditzean, aditz-forma sintetikoa geigi erabiltzea, euskal-belarrientzako itz-joskera traketsak edo biurriak. Olako xeetasunetan luze samar diardu; ala ere, azkenean, auxe da ematen duen erabakia: Olabideren itzulpena dala Testamentu Berriaren euskal-itzulpenetan zeatzena, begiratuena, kontu geiagoz egiña, ederrena.

Itun Zaar eta Berria (1958)

Agirre apaizak Olabide aita Arantzazun ikusi zuenean, amabost illabete zera-mazkian onek an frantzizkotarren gela batean, etengabeko lanean, Itun Zaarreko liburuen itzulpena aurrera eramaten. Bukaturik omen zeuzkan liburu aukerak: Pentateuko (Bibliako leenengo bost idaztiak), Josue, Erregeenak, Paralipomenon eta Esdrasenak, eta Job-en liburuan sartuta omen zebillen. Errepublikako agintariek Jesuitak banatu zituztenez geroztik, ez zeukan leengo erreztasunik ez aukerarik ortarako; batez ere, leen eskuartean zituen liburuen laguntzarik gabe zebillen. Baiña Olabidek bazuen kemenik eta adorerik, eragozpenik andienak garaitzeko.

Andik laster Gernikara jotzen du, an ostatuz bizi ta bere lanari ekiteko. An atzemango zuen 1936-ko gerrateak eta 1937-an Frantziara dioa *gerizaketa*, gure Mattin bertsolariak esango zukean bezala, eta ostatu-billa.

Antxe, Tolosa uriko jesuiten etxean bukatu zuen ogei urte leenago Loiolan asitako lan neketsua. Antxe, kalean auto batek jota, ortik urrengo egun batean il zanean, aldamenen zeukan beste biblialari eta euskal-itzultzaile bat: Aita Galdos eibartarra.

Kezka sortu zan askoren barruan zer izan ote zan aren lanaz, ez ote zan galdu. Zorionez, ez zan olako ezbearrik gertatu. Are gieago: kopia batzuk ere emanak zituen adiskide baten eskuetan: Orixen zanaren eskuetan. Orixek eta Martin Oiarzabal apaizak, Aita Olabideren adiskide miñak eta laguntzaileak biak, arremantetan jarraitu zuten onekin, irurak Frantzian zirala. Testamentu Berria itzultzerakoan bezala, Zaarrean ere beren laguntasuna eman nai zioten, eta iñoiz berarengana ere iritxi ziran olako asmoz. Lana argitaratzerakoan ere, naiko zuketen, noski, parte artu. Lagundiko nausiek, ordea, beren gain artu zuten egiteko ori, eta beren arteko bati eman zioten arazo guztia: Asiako bazterretan mixiolari zebillen aita bati, Frantsizko Etxeberria, euskal-olerkari ta idazle azkarrari.

Onok bildu omen zituen Olabide bere anaiaren paperak: itzulpena aztertu, osotu, zerbaitetan berritu ere bai. Dabiden salmoak, esaterako, Pio XU-garrenak eragindako latin-itzulpena aurrean izanik, tankera berria emanda daude.

Azpiko oarrak ere gero osotuak daude. Testamentu Berrikoak leenean gelditu ziran. Testamentu Zaarrekoak, batzuk, Olabidek berak utzi omen zituen gerturik; besteak, eta itzaurreak eta liburu bakoitzaren sarrerak, bestek egiñak omen dira. Nortzuk ziran ez digute esan. Baiña entzun degunez, aita Arriola izan da eskurik andiena or ezarri duena. Arriolak erdaraz idatzi (bera euskalduna dan arren, bear bada gipuzkeraz edo Olabideren euskeran ez ain trebea), eta Aita Etxeberriak euskeratu.

Olaxe, noizbaiten, 1958-garren urtean ikusi zuen inprentako argia gure Biblia osoaren itzulpenak, *Itun Zaar eta Berria* dalakoak, au ere Bilbon, *Jesusen Biotzaren* Deya-renean. Amasei urte igaroak ziran itzultzailea il zan ezkeru.

Ez zan, ez, nolaniko gertakaria! Gurpide, Bilboko gotzai zanak, berri on au ematen zien euskaldunei: «Barri alai bat zuei emon al izateak biotzean poz andi bat oarterazten dausku, Jesusen Lagundiko Olabide Abaren idazteunaren euskeralben oso au eskeiñi eta begi-aurrean ipintea... Egiz aundia da geure poz-alaitasuna Bilbon bertan eta geuron gotzraigoko egunetan, lenbizikoz, eleiz-baimenez eta bear diran oarrakaz, euskaraz idazteun osoa argitaratzea».

Pozgarri zan, benetan! Or zan, mami biurturik, aspaldietako amesa, or zen ainbeste euskaldun berantetsirik, luze-iritzirik zeuzkan liburuua. Zorion-itzik atera zan askoren ago eta lumetatik: zorionak Jesusen Lagundiarentzat, zorionak euskerarentzat, zorionak Euskalerriantzat.

Bazan goresmenik ere liburuarentzat eta itzultzailearentzat. Gasteizko aldizkari batek zionez, jakintsuentzat gogoangarri izango da liburu ori betiko; janari gozo erdi-jakintsuentzat, eta euskera sakonago ikasteko gogo-pizgarri; apaizentzat, berriz erriari bere maillan baiña euskera bikaiñagoan irakasteko lagungarri.

Beziran beste batzuk, Orixek esan zuenez, Kredoa eskatzen zitzaienean, Salbea kantatzen zutenak ere: alegia, Olabideri muzin egin bearrez, Duvoisinena aipatu ta goratzen zutenak.

Iritzi-miritzi garratsagorik ere irakurri genuen bein, Bilboko erdarazko eguneroko batean, baiña ez dago lerro oietara dana ekarri bearrik.

Nere iritzian osoena eta zentzuzkoena Piarres Lafittek egin zuen, *Herria* aste-karian emana eta gero bereiz argitaratua.

Lafitte jaunak alderdi guztietatik aztertu du liburuua; dana ikertu ta aztatu du: itzaurrea, liburu bakoitzaren sarrera, Olabideren itzulpena, zeaztasunaren aldetik eta euskeraren aldetik.

Sarrera batzuk onak aurkitu ditu: Pentateukoarena, eta, batez ere, olerkizko liburuena eta salmoena; igarleen liburuena eta gertaerazkoenak, berriz, motelago eta zabarrago. Ez du aaztu Salmoei beste eskualditxo bat eman zaiela, argitaratzekoan, latiñezko itzulpen berriari egokitzearren. Salmoen itzulpena Aita Galdos-ena baiño obetzat dauka, baiña akats bat aurkitzen dio inprenta-lanaren partetik; ahalpaldika sailkatua, banandua ez egotea, Brebiario berrietan oi dan bezala.

Testamentu Berrian utsune au aurkitu dio: ez duela Testamentu orretako liburu guztientzat erabateko sarrerarik. Beste dana (argibide, oar eta itzulpen), leenengo argitaraldikoa omen du. Testamentu Zaarreko oarrak laburregiak ez ote diran dio.

Euskerari dagokionez, irakurle arruntak itz illun eta ulertu eziñik geiegi aurkituko omen du. Olabidek erabiltzen dituen itzak ez omen dira, norbaitek ariñegi esan duen bezala, itz berri eta berak asmatuak; itzik geienak euskera jatorrezkoak ditu, baiña edozein euskalkitik artu eta naastuak. Edozein izkuntzatan ba omen da olako naasterik; baiña erriaren beraren naastetik sortua ez bada, ez omen dakar ondoren onik.

Geiegi dira aditz sintetikoan erabiltzen dituen aditzak ere, larogeiaren bat, bai. Lafittek ez ditu onartzen, eta eguneroko euskera darabillementzat gogorregizat dauka.

Ala ere, akatsak akats, osotara begiraturik, itzulpenari alderdi on asko aurkitzen dizkio: trinkoa omen da, zuzen eta itzulingerurik artu gabe emana, itzetan zeatza, eta esaerak moldatzean alako andikitasun-antza ba omen du. Erromako nagusiek esan omen zioten alik eta izkuntza garbi, eskolatu eta landuenean egiteko itzulpena. Irakurleek oituko omen ziran geroeneko.

Liburu au irakurtzeak nekea emango omen du eta kemena eskatu; baiña nekea ez da geldituko saririk gabe, irabazirik ere ekarriko omen du, euskera aberazteko ere.

Eskerrak zor dizkiogu Lagundiari. Lan ederra egin du; liburu eder baliotsua eskaiñi die Loiolako eta Xabierreko bi santu euskaldunen errikoiei.

Orra, gutxi gora geera, Lafitte Jaunaren iritzia, ain zentzu onez eta eztiki emana.

Guztiak ez izaki ore berdiñekoak, eta ez zuten beren iritzia ainbesteko eztitasunez eman. Oietako batzuk ere aipatu bearko ditugu. Eta leenbizi, Mitxelenaren iritzia ez dezakegu ekarri gabe utzi. Pekatu larria litzake.

Alde batetik, beiñola Aita Iraizoz bezala, Olabideren jorratzaille garratz azaldu zitzaigun; baiña, bestetik, neurri zuzenagoa erabilli nai du, eta ez itsuan joka ekin.

Leenik, *Credoa* esan bearrean *Salbea* kantatzen dutenentzat badu zerbait esateko: «Eztizkigu oraingo A. Olabideren *Itun Zaar eta Berriak* leengo Testamentu Zaar eta Berriak aantzarazi bear; leenago ere itzuliak zeudela jakitea ere ezta aski oraingo au gutxiesteko. Ezin berdín ditzakegu elkarrekin, gaiñera, erabat beintzat. Jatorrizko izkuntzetarik artua degu Olabiderena, ez latiñetik, eta Biblia gaietan egungo egunean arki ditekean jakitearen laguntzarekin itzulia».

Itzulpen berria egin duelako ez du, ez, Olabidek akarrik merezi. Ez dio Mitxelenak olakorik egotziko. Aldi batean atsegiñez irakurri du, noski. Baiña geroago, oiñaztuak jota ez bada ere, poliki poliki aldatu da. Arrezkero, «atzerri latzean ikusten dut ene burua Olabideratzean».

Orregatik, berriki aldatua edo berriki kristautua balitz bezala, Mitxelenak badirudi sutsuegi dabillala leen gurtu zituen jainko txikiak erretzen. Baña goazen arira.

Pekatuau au egozten dio Mitxelenak Olabide aitaren euskerari: saio-euskera experimentalaz izatea. Gure artean gertatu eta gertatzen danari begiraturik, nik ez nuke ori, berez, pekatu larritzat joko. Ez ote gabiltza beti danok euskera obe baten billa, euskera jatorrago bat edo batu bat nola egingo asmatzen? Au ere, noski, bearrezkoa da. Ortarako nondik norako bideak artu, nolako euskerara jo, or dago koska ta or dago aldea.

Ona, bada, Olabidengan, saio-euskera bidegabeko baten ezaugarri nabarmeneta-ko zent bait, Mitxelenaren iritziz:

1) Batzuk, ortografiaren aldetik ditu; esaterako, *Yainko*, *negarr*, *aztertu* (r gaillurdunaz auek), *aberén*, *ayola* idaztea... Uskeriak omen dira auek itzen aukeraren aldean.

2) Itzei dagokienez, Olabide ez da berrizale amorratua: «maiz aski zenbaiti berriak iduri lekizkiokenak ez dira berriak, zaarrak baizik». Ala, *iñartxia*, *azaga*, *yarauntsa*, *durdua*, *burbuñoka*, eta abar. Beste batzuk jatorrak diralakoan, edo euskera utsezkoak diralakoan sartu ditu (yeben, barano). Gero, «eunka dira liburu onetan, millaka ezpadira, itz berriak, zaarraren zaarrez aaztuak edo bazterren baten ezagunak

badira, euskal-literaturan iñoz sarrerarik izan ez tutenak» (*adei, akalde, alatz, antxintxika, asketsi, atuxa, dedu, gaizkatu, gentza, ludi, ukar, ukuzi...*). Olabidek ez ditu erabat baztertu, bearbada, *arima, bekatu, bataio* eta antzekoak, baiña ez omen dira liburu onetan erraz aurkitzen.

3) «Euskalkiak naastea ere saio-tankera orretatik datorkio liburu oni. Elkarren ondoan ageri dira, esaterako, *aalke, aantzi, arean, arrituenik ez duzu, asagotu, gaur* (ez egun), *iize, lako, neba, senide, (ez aurride), tuxuri eta txerren, yardetsi, zeia* eta nik dakit beste zenbat». Orrela, euskera biziaren kemena eta jatortasuna urtuta, galduta gelditzen da, argizagia urtan bezala.

4) Baiña, Olabideren izkera gipuzkera soila da, eta gipuzkera murrizta gaiñera: *apari (ez afari), mingain, ikutu, sartu zaitez, zituten, dulako, ordun, ua...*

5) Aditz sintetiko geiegi derabil: «emen ditu ikatz-illintirik bizienak irakurlearen buru-gaiñean».

Ala ere, «alde onak baditu Olabideren izkerak, alde onak ugari, txit onak eta onenetakoak». Esaterako, erabilli duen arreta eta zeaztasuna. «Alde orretatik *longe princeps* da Olabiderena Bibliaren euskal-itzulpenen artean». «Obe du ori aldamenean eduki Izkribu Santuak euskeraz aipatu bear dituenak».

Izkuntzari dagokionez ere, «dudarik gabe ezin utzizkoa eta miratu bearrekoa da aurrerantzean euskal-aberastasan zaar eta berrien bilduma jori au. Ederki ikasi zuen euskeraz Olabidek. Eta buruz, tajuz ta adorez, ez esku ariñez, nekearen nekez baiño, egiten dan lanari gertatu oi zaionez, arena ere iraunkorra izango da. Joera orretakoen artean beifñipein gaillen eta nagusi jasoko du burua».

Azkenez, batasunera ere jo zuen aita jesuita onek; «biotz biotzez nai zuen euskalkien batasuna». Ez omen zuen, ordea, bear zen lekua billatu. Nola nai ere, «maiz eduki barko dugu gogoan eta esku-artearen liburu au aurrerantzean».

Ageri danez, Mitxelenaren kritika ez da dana ostotsa ez dana lakarra; leguntasunak ere baditu. Bear bada, puntu batzuk ez ditu argi ta zeatzegi azaldu. Ez degu argi ikusten, esaterako, euskerak ondasunik batere ez badauka galtzeko, zergatik izan bear duen pekatu euskalki batek ez daukadana beste batean billatzeak. Eta leenengo pekatua euskera bizitik urrun ibiltzea baldin bada, zergatik esaten zaigu gero batasunbidea euskera zaarrean billatu bear degula, edo ta zergatik Olabide aitari pekatutzat egotzi gipuzkera duela bere euskeraren muiña, gipuzkera murrizta bada ere? Danean neurria bear da, iñolaz ere. Baifia neurri ori ez degu Mitxelenaren kritikan argieri ikusten. Olabideren euskeran ere ez, baiña beronen kritikatzaillearen itzetan ere ez.

Orain sail au bukatzeko, Mitxelenak, ostoska ari dan batean, esandako itzak jaso ditzagun: «Ba ote da Euskalerrri osoan eliz-gizonik Olabideren zenbait esaldi dauden daudenean prediku baten emango litukeanik? Onako au esate baterako: Entzun duzute esanik dagola: Ez izortu... »

Eta Orixe zenaren erantzuna? «Zein apaizi gogoak emanen dio liburu oriek dauden bezala arratzaldetik (kulpitutik) irakurtea? Ala ere gure apaizak aunitz baliotu dira ta baliatuko, jainkoa lagun, euskerazko Biblia ortaz».

Egia da au ere. Eta are geiago: Bibliaren itzulpen berriak egiterakoan, askok eta askok, emen eta emendik kanpo, aurrean euki dute eta gidari artu Olabide aitaren lana.

Orixe zanaren izena aipatu-berri degu. Ekarri dezagun onen iritzia ere erdira. Orixek, egia esan, jatorragoa, goxoagoa nai zuen Olabideren euskera. Gogortasun eta zailtasuntxorik baduela ez du ukatu inoiz ere. Itz-joskera asko bitxi samarrak aurkitzen zizkion Testamentu Berria agertu zuenean. Berak ere oarterazi omen zion leenagotik.

Ala ere, Testamentu Zaarraren itzulpena askoz jatorrago eta ixuri obekotzat zeukan. Ez ikasientzat zail samarra izatea baliteke. Olabide aipatu ezker, «euskera berria, berak asmatua» esaten omen dute askok; baiña ori gertatuko zaie ez ikasiei. «Norentzat ari zera idazten», galde egin omen zion bein jesuita batek, eta berak erantzun: «dakitenentzat. Beste errietan ez dira joaten irakurtzera izkuntza ikasteko, artarako liburueta ezik. Badakite, egiz, idazlearen izkuntza».

Arriturik dago Orixe nolako eragozpenak garaitu duten Olabidek liburu batzuk itzultzeko. «Or daukazu Lebitarren liburua, dana korapilloz betea. Errezago baita *zeina'ren* bidez euskerara biurtzea, Duvoisinek eta bezala. Eta Joben liburua? Arrigarri da! Zein euskera bizia, adierazmen aundikoa, xehe-meherik txikiena ere galtzen ez duna». Baiña, Paul donearen Epistolak, «ori da, oraiñarte, Olabidek eta beste inork euskeraz egin digun lanik izugarriena... Irakurri oi ditut Paul Gurenaren gutun oriek gazteleraz, prantsesez, latinez eta iatorriko izkuntzaz; baiñan illungune aunitz edireten ditut guzi orietan. Neri argitasunik aundiena Olabidek ematen dit».

Ala ere, Orixek baietza ematen die Mitxelenaren kritika batzuei, *Itun Zaar* eta *Berrian* salatu dituen akatsik geienei, eta auxe aitortzen dio Mitxelenari: «Zuk egozten dituzun gauza asko etziran aterako orrela, liburugai ori gure eskuetatik iragan baliza; zanaren azken-naia betetzen utzi balizaigu, oriek eta beste asko ere etziran agertuko. Emango al zaigu aukera noizbait gure orietara itzultzeko».

Itz oiek idatzi zituena or agindua bete gabe joan zan bizien artetik, eta ez zaigu ortaz argirik egin.

Jakiña da Aita Olabide Eleizalde'tar Koldobikaren eskutik azaldu zala euskal-idazleen alorrera. Bere leenengo liburuan eskerrak ematen dizkio orregatik: «nere lan zapatsu au gardosten ekin duzulako». Gero Biblia itzultzerakoan, Orixe eta Oiarzabal joan zitzaizkion aldamenara. Ala ere, Eleizalderen (orain euskera batuaren gidari egin nai duten onen) kutsu andia gelditzen zitzaion, batez ere aditz-sintetikoaren formetan. Orixek are euskera jator biziagora ekarri nai zuen berak ain andi ederresten zuen aita. Artarako lagundu zion, antza, azken-aldian. Baiña alperrik, dirudianez. Baiña gai ontan gauza argirik jakin gabe geldituko gara, nonbaitetik argibiderik etortzen ez bazaigu.

Baiña gogoratu dezagun Mitxelanak dioena: alegia, aita Olabide gero ta euskeraren jabeago zala, inor gutxik bezela ikasi zuela gure izkuntza, obetik obero, euskera ertsiago batetik zabalagora zijoala (Eleizaldenetik Orixeren aldera, noski). Eta ola eman zigun Biblia osoaren itzulpena, alderdi askotatik liburu ain eder eta goresgarria.

Irakurleak oraiño guri jarraitzeko astirik artu badu, parka beza nere lanaren astuna. Baiña zerbait geiago esan nai det, oraingo aldietan iritzia nola ain laster aldatzen diran argitzen diguna. Ez dira urte asko *Yakin* aldizkarian irakurri genuela auxe, apaizgai gazteen batzuk idatzita: «Itun Berria euskeraz badaukagun eskero, bertatik daudenez dauden aldatu bear degula ta ez nai duanak bere gogora... Bidezkoa

dirudigu ta zuzenagoa Olabideren euskeralpenetik artzea Itun Berriko itzak... Gabil-tzan batera Itun Berriko gaietan bederen».

Mitxelenaren galdera ostotsuari emateko, orra erantzun bat.

Gerora begira

Geroa begira? Bai, gaurko garaiaren orratzak gerora begira ditugu, etorkizuna markatzen dutela daude. Gure bibli-itzulpenak ere bai. Alperrik degu atzera begira gelditzea. Ez dago bein betiko itzulpenik.

Alako edo olako itzulpenen batek bizi luzea izango duela-ta, geroago etorkizun ohea edo arrera ohea izango duela-ta, igarlearena egiten bat baiño geiago aritu dira. Geroari begira lan egin omen zuen Olabidek ere. Amesak! Gero ta ariñago, lasterrago dabil mundua.

Ez gaitezke leen egindakoei begira txunditurik gelditu. Alperrik da Salbea eskatzen ekitea, Kredoaren orde. Gure Biblia zaarrak ongi daude beren lekuan eta bere garairako. Ez ditugu arbuia bear, iñolaz ere. Ongi egingo digu aiek ezagutzeak. Argitaraldi berriak ere ongi etorriak izan bitez. Laster izango omen ditugu, berriz argitarara emanik, Leizarraga eta Duvoisin. Eta zergatik ez Uriarte? Ez dira gaizki etorriko.

Baiña orain iñongo izkuntzatan ez dute leengo itzulpenekin bertan goxo egiten. Berriak sortzen dira egunero, biziagoak, gaurkotuagoak. Guk ere bidean ditugu, asieran aipatu ditugun bi indarrek eraginda: Liturgiakoak, eta Biblian jakintsu diranenak. Alde biotatik dator orain ere bultzada, oldar berria.

Bibliaren talde bat sortu da, Euskalerrri osokoa. Lanean diardu, taldean ari da. Joana da bakarka, bakoitza berekautarik ibiltzeko garaia.

Taldean diardute Liturgiako langilleek ere. Euskalerrri osoko langilleek osatzen dute liturgi-euskeratzaillenen taldea. Ia esan bearrik ez zegoen. Ezagunak dira egin dituen lan batzuk. Argitaratuak daude asko; beste batzuk, noiz aterako zai. Beste batzuk egiten, beti sortzen baitira itzulgai berriak.

Geien batean, arrera ona izan dutela esan liteke. Sari bat ere artua dute. Asiberritan ez zuten ainbeste etsai. Baiña, oraintsutan, gaizki-esale batzuk eta zearbegiratu batzuk agertu zaizkio Liturgiako lan oni. Batzuk ez-jakiñez; beste batzuk, ez-jakiñez eta beste zerbaitez, 1968-garren urtea ezker, batez ere.

Oientzat, gaizki-esale eta zear-begiratzailleentzat itz bat edo beste esan gabe ez det lan au amaitu nai. Ez daukat entzungo nautelako uste aundiegirik. Berriz ere leengo leloren bat entzungo edo irakurriko degu oraindik. Eta norbaitzuk aita santuaren esanak bezala artuko dituzte. Mende asko da, amabosten bat mende bai, norbaitek esan zuela: «Ez dago idazle ain ez jakiñik bere antzeko irakurlerik aurkituko ez duenik» (S. Jeronimo).

Liturgi-itzultzaillenen taldeak Elizaren aginduei erantzun nai die, Vaticano-ko II Kontzilioaren ondorengo agindu berriei, alegia.

Leenbizikotan, gotzai-barruti bakoitza bere bidetik abiatu zan gure artean. Orduan gauza gutxi zan itzuli bearra. Baimena zegoen, bein beiñeko, leen itzultitako

irakurgaiak erabiltzeko. Bizkaian Kerexeta-Onaindiaren izenean agertukotako meza-liburutik asi ziran. Gipuzkoan ez zuen gotzaiak baimenik eman Orixerena erabiltzeko eta berria egin izan bear izan zuten, eta bai egin ere. Baionakoek berdin egin zuten.

Goroxeago irakurgai eta otoitz berriak atera ziran; azkenez, Meza-liburu osoa ere berria. Orduan sortu zan Euskalerriko gotzai-barruti guztien arteko taldea, itzulpenak alik berdin eta bateratuenak egiteko. Geiagorik ez zigun eskatzen Elizak ere. Gure artean izan genduen bein Iruñian *Bugnini*, mundu guztirako Erroman ziar-duen Liturgi-saillako zuzendaria. Eta emengo jokabidea ontzat emen zuen: eguneroko otoitz eta erriaren erantzunak alik berdiñenak bear ziran, euskal-meza guztietan bateratsu erabiltzeko erakoak. Ortik aurrera, urtean bein edo esan bear ziran irakurgaie-tarako, askatasun zabalagoa dago. Beude ortik keskarik gabe, bai Mitxelena eta bai Aita Mokoroa.

Izkuntza bakoitzeko itzulpen bakarra egiteko agindua dago; baiña, batez ere, izkuntza zabalduenatarako (*praesertim*) emana da, eta ez dauka izkuntzaren batasuneko auziarekin zer ikusirik. Argitaraldien egokitasunari eta merketasunari begira egiña da. Izkuntzaren batasuna egintzat dauka, ez egitekotzat.

Ala ere, or degu gastelerazo itzulpen- batzordearekin gertatua. Madrilgoak eta Amerikakoak batera lan egiten asiak ziran, eta banandu egin dira. Ameriketako batzuk ez zuten on artzen Madrilgoen jokabidea. Emen ez daukagu Erroma baiño Erromarrago izan bearrik. Are gutxiago, beste sail askotan Erromari jaramon aundirik egiten ez dien batzuk esan dutela-ta.

Egiñala egiten da alik eta geien batasunera jotzen. Ori egoki da eta zuzen. Baiña batasun onek ez du zer ikusirik euskera batuaren auziarekin. Auzi au sortu baiño leenago asia da Liturgi-taldea esan dan bidetik ibiltzen, eta ez dauka bide ori aldatu bearrik. Euskera batu ori sortzeko dago, gaiñera. Askok egifia balego bezala jokatu badute, beste konturik da ori, eta beren gaiñ bego kontu ori garbitzea. Zer nai zuten? Beren aizea nora, bestiak ara ibiltzea? Batasun ori dala-ta ikusi ditugu zenbait atzera eta aurrera, urrats bat aurrera gaur eta biar beste bat atzera egiten. Beste guztiek ere dantza-saio oietan sartzea nai ote zuten?

Giputzen inperialismoa ere aipatu du norbaitek. Eta zergatik? *Det* esanerazten omen dietela-ta *dut* esaten dutenei. Baiña iñori ez zio eragozten, nai badu, *dut* esaten, Bizkaikoek *dot* esateko baimena duten bezala.

Beste norbaitzuk talde au Euskaltzaindiarekin muturka dabillalako zabaldu dute. Talde ortan bada euskaltzaiñik, beste miinluze ta berritsu batzuk aiña euskeraren ona eta Euskaltzaindia maite duenik. Euskaltzaindiak zer nai duen beste euskaltzain diralako batzuek aiña badakite.

Adibidez, ez dute aazturik Euskaltzaindiak bere jokabidearen gidaritzat artu zuen erabaki au: «Beti izango da kontuan batasunerako norma oriek estuegiak ez izatea, bein baiño geiagotan bi edo iru era emango dira, denboraren jardunez zuzenketak egiteko; eta, baita ere, denboraren buruan premiak bearturik, punturen batzuk aldatu bearra izango balitz ere».

Zer da or euskaldunak euskaldunekin, euskaltzaiñak euskaltzaiñekin muturka jarraztekorik ezer? Eta nongo akademitan ematen dute, berriz, akademikoak akademikoekin burruka jartzeko araurik?

Baiña bada besterik ere: Mitxelena jauna da euskera batua dalako orren maisu, tekniko eta gidari. Eta aaztu al dute maxiatzailleek jaun orrek Arantzazun euskera batu orri ari zala esana: «Liturgi-izkuntzan, oraindik ez iñolaz» euskera batu ori... «Azken azkenekoa, Liturgia».

Urteen joan-etorriak ekarriko ditu, noski, aldakuntzak eta berrikuntzak. Oraingo itzulpenak, bai euskerazkoak eta bai erderazkoak, ez dira betirakoak, bein-beiñekoa baizik, *ad interim*, *Erroman* esaten dutenez. Euskaldunen taldeak egindakoa ere obetu bearra etorriko da, leenago edo geroago. Baiña ez teknokraten, edo ameslari buru-beroen bidetik. Euskaldunik, euskaldunen erririk dan bitartean, ez al da arazo au petrikillo batzuen eskuetan geldituko (Barkatu, baiña petrikolloen au ez da nik asmatua, besteren batek besterentzat aurtikia baizik; baiña beretzat ere berdin esan ditekeela uste det).

Onekin esanda dago egin dan lana ez dala egin zitekeenik onena. Taldean egiña izateak alderdi onak eta txarrak ditu, eta bietako frutuak ematea gerta diteke. Zati batzuk, berriz, taldean egingabeak dira, leendik eginda zeudelako.

Taidearekin lan egiteko iñori ez zaio ukatu baimenik. Askori deitu zitzaion, bai laikoei ere. Eta egin danari buruzko iritzia eskatu ere bai. Askok erantzun du. Eta (au ere askok ez dute kontuan euki nai, dirudienez) taldea ez da bere baitarik, nai zuena barruan sarturik, sortu; aginpidea zuenak izandaturia eta osotua da. Eta ez da bere onerako ari, Euskalerriarentzat baizik. Euskalerriari ogia eman nai dio; ez arririk, gaurko Sisifo berri batek nai zukean bezala.

Errukarria izan zan antziñako ipuietako Sisifo zaarra: bein ta berriz kastiguz arri aztuna mendi gaifiera eraman bear zuen, bein ta berriz mendian beera amiltzen zitzaiona. Oraingo Sisifo berriak ez du ori neketzat artu, jolastzat baizik, eta erri guztia jarri nai du arri orri bultzaka, mendian gora arri ori indarka ta puzka eramaten, bere indarrak alperrik galtzen. Sisifo zaarra baiño zorigaiztokoagoa benetan! Ez ote du erriak arria baiño gauza bearragorik? Ez ote du erriak arria baiño ogia azkoz obe? Eta erriak olako arririk oilloak alea bezala joango balu, iñoiz dirudian bezala, askoz errukarriago.

Liturgi-batzordeak ez dio, ez, arririk eskaiñi nai gure erriari. Ezer ematekotan, ogia emango dio, agora eramateko ogirik gozoena egiñalean. Liturgian erriak ori bear du, ez arrotz eta gogor egingo zaionik ezer. Orretarako ez da, Liturgian, latina utzi ta erri-izkuntza sartu. Liturgia ez da atzeraka ta aurreraka saioka ibiltzeko lekua. Leengoari, euskarabizari jarraituz, etanolabaitekobatasunerajoaz, askidu oraingoz. Mitxelenak zioena: euskera batua dalako ori «Liturgian ez oraindik».

Zorionez, esker onik ere izan du ortan diarduen taldeak, eta atsegin degu emen aita Villasantek Maulen esana gogoratzea: «Mundu guztiak daki zer eta zenbat zor diogun euskaldun fededunak D. Manueli gure elizek ezagutu duten udaberria eta eraberritze huntan: Liturgia euskerara itzultze lanean, esan nahi dut... Gure eskerrona eta gure txaloak langile guzti hoiei, hango ta hemengo Euskalerrian lan huntan aritu diranei, eta bereziki denen buru izan den eta den D. Manuel Lekuonari».

Txaloak txalo eta esanak esan, zorionez udaberri ori aurrera dijoa, lora berritan dago. Esan nai det: gure bibli-itzulpenak aurrera dijoaz. Orañartekoen ondoren bidean

dira berriak. Baiña, artikulu ontan ikusi degunez, udaberri ori orain berrogeitamar urte asi zan loretzen, 1922-garren urtearen inguruan. Eta orduan asitako bidea bera darama.

Liturgiak, batetik, eta gure arteko bibli-jakintsuek bestetik, gero ta biguñago, gero ta atsegingarriago egin nai diote Jainko-itzaren ogia gure erriari. Ala izan bedi. Ola burutuko da XVI-garren mendean asitako lana (2).

(2) Euskerazko bibli-itzulpenen berri eman nai izan duen lan au argitaratu zanetik, itzulpen berriak sortu dirala gauza jakina da. Eta lenagoko itzulpen batzuk ere argitaraldi berriak izan dituzte: ala, Duvoisin *Bible Saindua*, artikulu auen egillearen itzaurrearekin; Aita Uriarte bizkaitarraren gipuzkerazko itzulpenaren zati bat Bonaparterentzat egin zuen itzulpen osokoa; Bruno Etxenike Baztandarrak Printze berarentzat euskarara itzultitako Mateoren ebanjelioa, Jonasen profetia, Kantuen Kantua, Rut-en liburua, eta Apokalipsis; eta Leizarragaren 1571ko Testamentu Berria, gaiñerako itzulpen-lan guztiekin.

Biblia osoaren euskeratzaileen artean gaur ez daude ez Duvoisin, ez Uriarte, ez Olabide bakarrik. Gaur Biblia osoaren bizkaierazko itzulpen andia daukagu, Jaime Kerexetaren ekiñari esker. Len euskeratuta eman zizkigun Itun Berriko liburu guztien ondoren, Biblia osoa eman izan digu, edizio txukun batean, Jerusalemgo Biblia dalakoari jarraituz egin eta aren oar eta argibidez orniturik.

Euskal-liturgiarako itzultzaile taldeak ere Testamentu Berri osoa, bear ziran oar eta argibideekin argitaratu du; berdin egin du beste talde ekumeniko batek. Lan ederra egiten ari dira bi fraide beneditar: aita Marzel Etchehandi, Beloketik, eta aita Agustin Apaolaza, Estibaliz-tik. Aita Etchehandi-k lan mardulak ateraten dizkigu, Testamentu Zaarreko iru leen-liburuak: Hasera, JalgitzaetaLebitikoa, bi tomotan, edotariko argibidez ornituak, eta Testamentu Berritik, berdin, Jondoni Pauloren Gutunak. Aita Apaolaza *Bibliarekin otoitzean* saillarekin abiatu da eta onek ere *Asiera* eta *Salmoak* eman dizkigu beren itzulpenarekin eta argibideen laguntzarekin. Euskerazko Bibli-lanak aurrera dijoaz.

IRAKURLEARI*

Duvoisin andiaren BIBLE SAINDUA du euskaldun irakurleak eskuetan, bigarren aldiz argitaraturik.

Orain amabost urte inguru, Olabide aitaren *Itun Zár eta Berria* agertzeko zela otsa zabaldu zenean, ez zuten guztiek berdin artu berri ori. Askorentzat berri pozgarria zen: baiña izan zen esan zuenik ere, Duvoisin onena ez ote zen argitaratzea obe. Au ziotenak barru estuegia zeukaten, bearbada. Zergatik, bata ala bestea? Zergatik ez, bata eta bestea? Olabide aitak eta Duvoisin kapitainak ez zeukaten bata besteri bidea eragotzi bearrik. Urte gutxiren buruan ona, azkenez, biak elkarrekin: leen, bere garaian, Olabide aita, eta orain, kapitaina. Biak izango dira euskaldun irakurleen aukeran emendik aurrera. Orra zeñen errez, barru zabalagoa denean, mendiak zelaitzen diren eta eziña zirudiena izanera ekartzen. Martin Retana jaunaren erabakiak egin du mirari ori.

Argitaldi berri onek ataria bear zuela-ta, itz batzuk eskatu dizkidate. Eta emen naiz, aal dudantxoan, eske orri erantzuten. Egoki eta bearrezko iruditzen zait, irakurle soil eta lagunabarrekoentzat bederen, zenbait argitasun ematea, liburu au zer dugun eta noiz-nola sortua den jakin dezaten.

Irakurleari eskuetaratu zaion liburu onek bi izen daramatza buru-buruan: Luis Luzien Bonaparte Printzearena, bata, eta J. Duvoisin kapitainarena, bestea. Bonaparte (1813-1891) argitaratzaille dugu; Joanez Duvoisin (1810-1891), euskeratzaille.

Bonaparte Printzearen lana

Gutxi esan dugu. Bonaparte argitaratzaille baiño geiago baitzen; itzulerazle, eta itzultzailleak egin lanaren saristatzaille ere bai. Printze au gabe, kapitainak ezpaitzuen

* In: J.DUVOISIN, *Bible saindua*, l.t. Bilbao 1972, IX-XIX.

lan au egiteko asmorik ere artuko. Printzeak eragin dio lan kapitainari; ark berotu eta bultzatu du ortara, eta ark lagundu dio asi zuen lana azkenera eramaten. Ez dugu xeetasun askotan sartu bearrik emen, baiña izugarria da Printze onek, bere saillean, egin zuen lana.

Napoleon Bonaparteren illoba onek badirudi politikarako joera eta agintaritzarako sena ekarri bear zuela; ala ere ez zion berak olako bideari eman. Gazterik nabarmendu zen jakintza utsaren bideetan, batez ere izkuntzalarien alorretan sarturik. Orretzek ekarri zuen euskeraren alorrera, euskera sakonago ikasi ta aztertzeke gai billa.

Bere asmoetarako, euskera bizia nai zuen, bere egunetakoa, tokian tokikoa. Berri samarra zen artu zuen bidea ordura arteko euskalariet erabilli zutenaren aldean. Beste batzuek testu zarretan aztertu eta ikasi nai izan zuten izkuntza, edozein izkuntza. Bonapartek naiago zituen testo berriak, biziak, garaian garaikoak, nonbaiteko izketa bizia jasotzeko egokienak. Jokabide au artu zuen beste izkuntza batzuetarako, eta bai euskerarentzako ere, izkuntza au ikastea gogoak eman zionean.

Bide ori arturik, euskaldun jator eta argitsuenen laguntza billatu zuen, berak nai zituen testoak euskerara itzultzeko. Olaxe aurkitzen dugu, Bonaparteren inguruan, euskaldun taldea, aren esanera lan egiten. Euskalki guztietakoak ziren. Errialde batetik besterako aldeakuntzak jasotzerarren, askori ematen zien testo berbera, bakoitzak bere euskerara itzuli zezan Printzearentzat. Asmo ortarako ez zuen testo egokiagorik aurkitu Bibliako Liburuak eta kristau-ikasbidetakoak baiño? Erdal-testo jakiñak zituen bearren, erderaren aurrean euskeraren ipi-apa eta itzulimitzuli guztiak obeki artzeko.

Ortik ditugu ainbat kristau-dotriña, ainbat Bibliako liburu edo zati euskeraz, ainbat euskalkitara itzulirik. Olaxe dugu Biblia osoaren euskal-itzulpena ere, bi euskalkitan, Uriarte aitarena gipuzkeraz, eta au, Duvoisin-ena, Lapurdiko euskeraz. Biblia osoa itzaulterakoan, bi euskalkitara itzuleraztea aski iruditu zitzaion, noski. Printze izkuntzazale euskaltzazale esku-zabalari.

Onekin, bigarren aldiz ikusten dugu sail ontan Mezenas andiki eta errege-odoleko baten eskua. Naparroako erregiña bati, Joana Albrit-i zor dio euskerak leenengoz azaldu zen Testamentu Berria, Leizarragak itzulirik 1571an argitara zena; eta, iru bat mende geroago, Biblia osoa itzultzea eta argitaratzea ez zen egin errege-odoleko baten laguntza eta eskurik gabe. Bai Uriartek eta bai Duvoisin-ek Bonaparte Printzeak zirikatu eta diruz lagundurik itzuli zuten Biblia osoa euskerara.

Egia esan, Bonapartek ontan eman duen laguntza ez da izan, antziñako Napar erregiñarena bezala, ez erligionaren maitez, ez Euskalerrriari on egiteko edo laguntzeko asmoz. Printzearen asmoak ez zuen erligionezko sustrairik; ez zebillan Euskalerrriari Jainkoaren itza zabaltzeko asmotan, euskera aztertu eta sakonago ezagutzeko gaien billa baizik. Orregatik, jakintza-asmo utsez zebillalako, eta testo ezagunak bear zituelako, liburu santuen itzulpenetan ez zuen onartzen Jainkoaren itzaz besterik, beste oarrik edo argibiderik gabe.

Izan, katolikoa zen, katoliko zintzoa; Duvoisin-ek, 1863an, Hiribarren apezari esaten zionez, Luzien Bonaparte Printzeak katoliko egiten eta aitortzen zuen bere burua edonon, agerian eta goraki aitortu ere; baiña, sail ontan, beste nonbatetik zijoan bera, izkuntzalarien bidetik. Eta bide ortatik jo zuenarentzat, Bibliako itz jakin ezagunak obe ziren beste iñoren argibidez eta esanez naasiak baiño. Oiek ez zituen

ezertako. Duvoisin-ek eta Uriartek alperrik zuten arengana joatea erabaki ortatik ateratzeko; ez ziren erantzunik ematen. Zergatik atera bear zuten bere asmoetarik, eta beste batzuetan sarrerazi?

Ontan, Protestanteek berak baiño estuago zen gure Printzea. Leizarragak, esaterako eta berdin 1825-1828ko itzultzaileek, kapitulu bakoitzean, irakurburutako, kapituluaren laburpena edo bilduma eman zuten. Duvoisin-ek ori bera egiteko baimena eskatu zion Printzeari, eta, asi ere, asi zen olaxe egiten, baiña ez zuen izan ola jarraitzeko baimenik. Kapitainaren esku-idatzietan, Bizkaiko Diputazioan, kapitulu-mordoak ikusi ditezke aipatu ditugun irakurburuekin; baiña gaiñetik marra batez ezabaturik daude. Bonapartek ez zuen nai ez bear Biblia bereko itzez besterik. Eta berak ordaintzen zuen itzultzaileen lana eta gaiñerakoa.

Esan denez, bi euskalki autatu zituen Bonapartek Biblia osoa euskera itzuleraztekoan. Liburu bat edo beste, aietako puskaren bat edo beste, euskaldi askotara itzulerazi zituen: Biblia osoa, Lapurdiko euskerara eta Gipuzkoakora baizik ez. In-txauspe kalonjeak Zuberoko euskerara itzultzeko eskaini zion bere burua; baiña berak ez zuen onartu eskaintza ori.

Duvoisin-en lana

Printzeak ez zuen autu txarra egin, gure kapitaina bere asmoetarako laguntzaile artu zuenean. Garai artan nekez arkitu zezakean langille porrokatuagorik, eta euskeraren jabeagorik. Duvoisinek erakutsia zeukan ortan bere maisutasuna. Garai artantxe atera zituen liburu batzuk dira lekuko: *Liburu Ederra* (1856), Iturriagarren *Diálogos* delakoa (1857), eta *Laborantzako Liburu*a (1858). Eta bertatik jartzen da, Printzearen esanera, Biblia osoa euskeratzen. Euskeraren jabe, euskalzale bero, langille sutsua, dana batean zen gure Ainhoarra. Bonapartek nor bear zuen oberik?

Nola eta noiztik egin da mugazaiñen kapitaina euskerazale eta euskeraren jabe? Berak aitorturik dakigu zerbait. Larresoro-ko Semenarion egin zituen urteetarik datorkio dena; Larresoron sortu zitzaion euskeraren alderako zaletasun beroa. An, 1828 inguruan, aziak omen ditu bere leenengoko saio eta azterketak euskeraren giltzen jabe egin bearrez. Eta orduan piztu zitzaion sua etzitzaion bere bizian itzali.

Ortarako, 1862an apez bati aitortzen zionez, «gure libururik ederrenak irakurriak ditut eta aietan irakurria paperetara aldatua. Frantzi-aldeko Euskalerrri osoan bizi izan naiz, denetan ikasiak paperera aldatuz. Nere armategia orrela omiturik, obeki egin bear nuen nere lana, egiten dudan baiño. Ala ere, liburu onek (Bibliaren itzulpen onek, alegia) orrela nik ikasien aztarnarik asko izango duela uste dut, ez euskeraren kaltetan».

Euskeraren aldetik ain jantzi eta ornitua zegoen onek, bere lana ziñezago egiteko, mugazaintza utzi zuen eta Bardotzen jarri zuen bere etxe-lantegia. Ementxe egin zuen lanik geiena, Baionan bi egotalditan egin zuena ez beste guztia.

Ez dago an bakarrik. Liburuak artu ditu beintzat lagun, liburuak ugari. Leenbizi Biblietz omitu da: latin-bibliak, erdal-bibliak, batez ere frantzes-bibliak. Gero, Libum Santuak argitzeko eta azaltzeko diran libumak ere multzoka bildu ditu bere lan-gela

artan. Berak esan zuenez, orrelako liburutan badu Renan gezurtatu eta ixilerazteko aña. Guztiak bearko zituen pasarterik illunenak argitzeko, edo argiago euskeratzeko.

Baifia frantzes-itzulpenek ere ez diote beti nai luken argirik emango, eta lan izango du bidea nola urratu billatzen. «Or konpon, dio bein, or konpon frantzes-itzultzaileek beren egitekoa nola burutu duten. Emen bear duguna auxe da beñik bein: Bibliaren esan-naia ongi artu, pasaterik illunenak irakasleek nola ulertu dituzten ikusi; eta, gero, aurrean ditugun itzak aalik eta argien eta zeatzen itzuli. Gaizki egin badut ere, bide ortatik ibiltzen saiatu naiz, beintzat.».

Sei urte eman zituen Duvoisinek olaxe bere lanari loturik. Arian arian, atsegiña artu dio lan orri; baiña, noiz edo bein, astun egiten zaio nekea. Gorputzaren ajeak ere azaldu zitzaizkion eta bein edo berritan gelditu zan, ezueriak jota, esku bata erabilli ezñik. Orrela, illabete osoak galdu bearra gertatu zaio iñoiz. Batzuetan antziñako gudari idazlearena gogoratzen digu; baiña gudari ura baiño paketsuago, gudari ark luma eta ezpata erabiltzen bai-zituen, gure idazle onek bein luma eta bein aitzurra darabil, bere nekeen aringarri. Abbadie Jaunak, bein, osasuna zaintzeko burubide batzku ematen zizkion: eguneroko ibillialdiak, eta ola. Baiña berak aitzur-lanean aritzea osasungarriago aurkitzen du. Aitzur eta aizkora-lanak izerdi geiago isurierazten omen zion eta, orrela, gorputzeko urak eta indarrak neurri eta egon obe ta berdiñagoan gordearazi.

Noizik bein idurikorturik ere ikusten dugu. Bildurak artzen zuen asia zeukan lana bukatzerik ez ote zuen izango. Bere gorputz-besoetan ezueriaren ondorenak ikusten asi zenean, etsi-etsian gelditu zen egun gutxitako bizia zeukala-ta. Bonaparte ere larritu zen, eta bere burua zaindu zezala agintzen zion, egin zezala lana astiroago, baraxeago. Berak, ordea, ain zuzen orrexegatik nai zuen ariñago lan egin. Eriak berez ere geldieraziko zuen; eta orrelako oporren bat, geldi egon bearren bat etorriko ez ote zitzaion beldurrez esaten dio Printzeari: «Lan au al bait lasterren egitea obe dut». Askotan azaltzen dira Duvoisineen kezkek aria ortaz. Nola nai ere, ez du aanzten lan lasterrak ez duela lan alperra gertatu bear. Ez du nolanaiko itzulpenik egin nai: Badaki «epeak eta egoarriak eramango dutela azken-burura... Bear duguna ez da laster egitea; Zuk (Bonapartek) artu dituzun ardurei eta egin dituzun zorrei lanaren balioak erantzun bearko die; baldin Jainkoa eta ezueria nitaz urrikitzen badira, aurrera egingo dut nik. Ala nai ola, nere euskal-bibliak onik egingo duelakoan nago, eta sekulako atsegiña izango dut, buka dezadanean».

Zorion au ez zitzaion ukatu euskal-idazle oni naiz eta bost urtetan egin uste zuena sei urtetan egin. Zorionez, kapitainak Printzeari bere lanaldian egindako kartak gorde zaizkigu eta geienak argitaraturik daude. An ikusten ditugu urte aietako pozak eta kezkek, itxaropenak eta beldurrak. An ikusten dugu, ispillu batean bezala, Duvoisin orren gizontasuna eta zintzotasun laiñoa. An ikusten ditugu euskal-biblia onen gorabeera eta atzera-aurrera guztiak.

Bost emanaldian agertu zen Bible Saindua, 1859an asita. Itzultzailearen eskutitzetatik jakin dezakegu noiz zer egin zuen.

Urrengo urtean, 1860-koan, Erregeen liburuak eta Paralipomenon bukatu eta aurrera dijoa; 1861-koan, Esdras, Tobias, Judit, Ester eta Job biali dizkio Printzeari inprentarako, eta salmoak bukatu eta *Erran Zuhurrak* itzultzeari eldu dio.

Liburu oiek itzultzen errazago aurkitu ditu urrengoak baiño. Jakinduriaren liburuak buruauste geiago ematen dio, eta len egunero egiten zuen lanaren erdirik ez du egiten; baiña *Eklesiastiko* liburura iritxi denean pozez dago. Bibliaren erdia eginda omen dauka. Mendi andia iruditzen zaio Biblia osoa, eta bein gaiña artu dionean, gogo berria sortzen zaio aurrera jarraitzeko. Urrengo urtean, jakinduri-liburu guztiak atzean utzi ditu eta Profetenetan sartua da. Leenengoak, Isaiasek, badu zailtasunik, eta berriz ere urratsa baraxtu bearra du. Baiña, 1863an profetekin aurrera dijoa, eta Makabearren liburuak itzuli eta ekainaren 15an gaztigazen dio Bonaparteri: «Gaur ezartzen diot luma Testamentu Berriari».

Testamentua Berrian sartu arte esan genezake Duvoisin-ek bakarrean egin izan bear duela lan, euskaldun laguntzaillerik gabe. San Mateoren Ebangelioa ez du aurkitzen itzultzen zailla; baiña iñoiz zailtasunik badu ere, asko leuntzen dio Haranederen Testamentu Berriak, Harriet jaunak argitaratuak (1855). Bestek ibilli bidean barrera joatea beti da erosoago. Abbadie jaunak emanik, eskuetan du 1828ko protestanteen *Testamentu Berria* ere. Eta Bonaparteri pozik esaten dio: «Ez diozu gezurrik, bi itzulpen oiek (Uriarte aitarena eta berea) euskerari etorkizun ohea eskaiñiko diotela esan duzenean».

Oneraiño iritxi denean, asko ikasia dago gure itzultzailea. Lan au egiteko itza eman zuenean, euskera asko zekiela uste zuen. Orain ikusi du egunerik egunera geiago dakiela. Zoko berriak argitzen zaizkio gure izkuntzaren barrenean. Gaiñera, leengo beldurrak galduak ditu eta leengo laster egin bearrak utziak. «Lasterrago egiteari eman izan natzaión guztietan atzera egin dutala ikusi dut. Gazteak zernai egin dezake; gastea zumea eta zailla da...; atxintxika ibiltzeko adiña joana dut; ala aitortu bear nik.» Ez al da, bada, egia *erran zuhurrak* esana: «Lehia gehiegia berantgarri?»

Itxas-gizonak astiragoa ematen ditu azken-arraunkadak portura elduz datorrenean. Olaxe, Duvosinek ere, ez du alperrikako leiarik artzen. Eta baraxe-baraxe, baiña beti aurrera dator bere lanaren azkenera. Azkengo sail au ez da izan, gero, errezena. Ala esaten zion berak Bonaparteri: «Euskeratzeko dutan zati au ez da, ez, errezena. Epistolak lanik emango didate; ala ere, arta bereziaz egin nai nituzke». Eta, Erromarrentzako epistola bialtzen dionean, esaten dio: «Or dijoakizu, sorta batean, Erromarrentzako epistola. Ez da sorta aztuna; baiña neri lan aztuna eman dit benetan». Eta urriaren leenean, berri pozgarria: «Testamentu Berria bukatua da; baiña ez didate pakerik uzten garbian aldatzeko».

Baiña, Bibliaz gaiñera, Bonapartek geiago eskatzen du, Vulgatak azkenean erantsirik dauzkan liburuak ere euskeraratu bear zaizkio: Manase-ren Otoitza eta Esdras-en izenean dauden irugarren eta laugarren Liburuak. Ez dira inongo itzulpenetan aurkitzen, baiña Bonapartek euskeraz nai ditu. Eta, azkenez, abenduaren 19an, Bonaparteri mezu pozgarria eltzen zaio: «Zorionez Bibliaren azken-lerroak bialtzen dizkizut. *Exegisti monumentum*, esango dizut. Gogoangarria, bai, egin duzun lana. Niri zegokidan lana bestek ere egin zezakean; baiña zutaz bestek, nork egin zezakean zure sailla, zure arta eta zuk egin dituzun eralgiak bere gain artu? Zuk jakintzari izan diozun maitasunari esker, euskaldunen izkuntza zaarrera ere itzulirik aurkituko da emendik aurrera liburuen liburuak, menderen mendek gurgarritzat daukatena»

Urrengo urtean, otsaillean, inprenta-utsak zuzendu eta martxoaren 27an dana bukaturik gelditzen da euskerazko leenengo Biblia osoa, il bereko 9an sei urte leenago argitaratzen asia.

Exegi **monumentum!**

Duvosin jaunak Bonaparterentzat esan ditu Horati-ren itz ospetsu oiek, baiña beretzat esateko egokiagoak zituen. Gogoangarria izango da egin duen lana; luze iraungo du itzultzailearen izenak. Bonapartek *Légion d'honneur* delakoaren Gumtzea eskatu zuen gure kapitainarentzat.

Itzultzaileak ongi irabaziak zituen omenak eta atsedena. Pozik geldi zitekean. Ala ere, mindura baten laiñoa zetorkion biotzera, berak aitortu zuenez: «Bostetan egona naiz oraingo ordu onen irrikan! Baiña gaur, poza bearrean, alako mindura nabaritzen dut, nolata, gatibu egon eta ateratzeko denak bere oiñaze-leku izanei azken begirada egitean bezala».

Guk ere azken-begiratu egin dezaiogun *Bible Saindu* oni. Bost emanaldi edo zatitan agertu zen: I (leenengoak), 272-gn orrialderaiñokoa artzen du; IIak, 273tik 544-koa; III, 545-816; IVak, 817-1088; V, 1089-1374. Guztiz, 251 ale izan ziren (bi ale bereziak).

Frantzian, Irakaskuntzako *Ministre* zenak 28 ale erosi zituen Biblioteka batzuei banatzeko; bat ere ez Euskalerrirako. Larrabure jaunak eskabidea egin zion Ministre orri, ale batzuk Euskalerriko Bibliotekaetarako eskatuz; baiña alperrik. Goietan e-tzioten jaramonik egin. Aserre eta mindurik idatzi zuen Duvoisinek: «Euskerazko Bibliak arrera ohea izan bear ote du, bada, Flandres-ko eta Lorraineko Bibliotekaetan, Baionan eta Paben baiño?».

Egia esan, Euskalerrria etzan gelditu Bible Sainduaren alerik gabe. Gure Diputazioetarako bialduak eta Duvoisin jaunak berak artutako geienak emen gelditu zirela uste dugu. Baiña zabalduak zabaldu, 251 aleko argitaraldi ori ez zen agortu. Urkijo jauna RIEV aldizkaria ateratzen asi zanean, zenbait ale aurketzen ziren, beintzat, ogei ta bostna pesetetan salgai.

Iritziak

Gure egunotan Lafitte jaunak eder eta goresgarritzat dauka Duvoisin kapitainaren lan au. Itzez aberatsa omen da. Neke andia artu omen du itzultzaileak latin-itzak euskal-itzei egokitzen; aditzaren formarik bakanenak ba omen dakizki eta erabiltzen omen ditu. Baiña, damu gaitzez, latin-kutsu geiegi omen dauka. Orrela mintzatzean, Lafitte jaunak ez dio ezartzen Duvoisin-en lanari Duvoisin-ek berak aitortzen ez duen utsik.

Askotan eman du onek bere lanak merezi zion iritzia. Bein baiño geiagotan aitortu du, Uriartek bezala, Libum Santuen itzultzea ez dela gauzarik egokiena euskeraren aberastasuna eta jatortasuna erakusteko. Euskeraren gaitasunak eta balioa

ikusteko, *Telemako* edo olako libururen bat askoz obe zela esaten zuen. Bibliaren itzulzaileak aalik eta zeatzen, aalik eta testoari lotuen egin bear omen du bere lana. Liburu Santuetan, aal dela, itzak berak aldatu bear omen dira izkuntzatik izkuntzara, eta ez itzek esan nai dutena, beste esaera batzuk artuta, nola-ala eman.

Gaiñera, Bonapartek agindu zuen itzulpena izkuntzalarientzat egiña da. Eta izkuntzaleriek, testu bati urbilletik jarraitu ezik, nola ikusiko dute izkuntza batetik besterako alde?

Orregatik, Bonapartek emanik, arau batzuk, naiko estuak, gorde bear zituen Duvoisin-ek. Apez bati ona zer esaten dion: «Zuk nai zenituzke nere liburuan antziñako esaera zaarrenak aurkitu. Ori debekatua daukat. Debekatua daukat, baita ere, Lapurdin erabiltzen ez den itzik erabiltzea. Baiña iñoiz erabilli dut olakorik ere, baitezpadakoa eta bearrezkoa zenean. Noizik bein debeku orri ez entzun egin bear izan diot, baiña oso gutxitan eta kontu andiz». Bonapartek ez du nai (eta emen arrazoi ematen dio Duvoisin-ek), Harriet-ek Haranederren *Testamentu Berria* ateratzean egin duen euskalkien naasterik.

Beste batzuk, agian, usteko dute itz berririk ere asmatu duela noizik bein. Olakoentzat dio: «Euskaldun batzuk, beren izkuntzaren mamia eta barneko itzuliak jakin gabe, oarkabean eta berenez beren euskeraz mintzo direnek, asmatutzat artzen dituzte berek ez dakizkiten itz guztiak; alakotzat dauzkate, esaterako, euskeraren sustraierarik atera eta sortutako itz asko, baldin beren amaren aotik ikasi ez badituzte». Eta olako itz-andana aipatzen du: *arrapakin*, *buluzkin*, adibidez. Itzok, eta ola sortutako asko euskerak bereak ditu.

Maxiorik eta esamesik izango duela badaki, baiña ez da orregatik beldurtzen. Euskerarentzat mesedegarri izango den lan bati lotua dago eta aurrera egingo du, iñoren beldurrik gabe: «Nere lanak, an edo emen, izan dezakean arrerak ez nau larritzen. Langille utsa, besterik ez naiz ni... Eta langille naizelarik, ez dut lanerako bestetako eskubiderik: lanerako, bai, eta bertan beera utzia eta kritikatu izateko».

Beste esames-iturri bat zuen beste alderli betetik: euskal-Bibli onek ez zekarren Elizaren baimenik, ez iñolazko argibide edo oarrrik. «Beldurti batzuk kezkatuik dauzkat, oarrrik gabekoa eta Erromako baimenik gabekoa delako nere itzulpena; batzuk uste dute (fede onez ala ere) debekatua dutela, ez dutela zillegi nere Biblia irakurtzea. Baiña auzi au, itzez bederen, Apezpiku jaunaren aurrera eramana izan da». Eta zer da erabakirik? Lacroix Apezpikuak ez zuen aren aurka tutik atera, ez zuen debekaturik aipatu.

Ortaz Erasme Lardapide-ri idazten zion: Biblia au jakintzari laguntzeko asmotan itzulia da euskerara. Nere lana jakintsuentzat da, izkuntzak ikasten jo ta su ari diren ainbat jakintsuentzat. Orregatik ale gutxi atera dira, 250 inguru, ez geiago... Jakintzaren onetan artu da lan au».

Jakintzaren onetan, eta euskeraren onik gabe ez, noski: «Biblia dugu mundu osoan ezagutua den liburu bakarra. Orregatik eman didate neri gure euskerara itzulzeko arazo». Eta itzulpen ontatik euskerak on andia aterako duelako uste osoa du.

Bonaparte du berak esker-emaillerik beroena eta goreslerik zintzoena. Bere eskutitzetan maiz gogoratzen dio Printze Jaunak kapitainari onek darabillen euskeraren

ederra eta apaiña, lotsaturik uzten duelarik. «Iritxi onegia duzu (erantzuten dio bein) nere euskeraz. Ain zuzen, euskaldun asko gaizki esaka ditut, latiñaren morroi egiñik nabillalakoan. Euskera apaiña egiteko, esaldi batzuk maizago beariko nituke bata besteaganik berezi, naiz eta Vulgatak elkarriz loturik ekarri, latiñaren gramatika-legeen arabera... Latin-kutsuak bakarrik ez, ebreo-kutsuak ere ezin izan ditut osoan utzi.»

«Lotsaturik uzten nauzu (esaten dio beste bein); neronek ere badakit obeki euskeratu daitekeala Biblia nik egin dudana baiño. Obeki egingo nuke neronek ere, baldin artako urte batzu geiago artzen banitu.»

Nola nai ere, Liburu Santuei zien itzal eta begiramenduak ez zion uzten apainkeritan sartzen. Beldur zen, testu santuaren lerroetarik atera eta beste euskerazko esaera jatorragorik billatzearen, ez ote zuen aien zentzua ere galduko. Beldur zen Apokalipsis-liburuko zemaia bere gain eroriko ez ote ziren: «Hitz diot liburu huntako profeziako hitzak aditzen dituen edozeini: Baldin nihork iratxikitzen badiote zerbait, berari Jainkoak iratxikiko diozkala liburu huntan izkribatuak diren izurriak. Eta baldin norbaitek gutitzen badu liburu huntako profeziaren hitzetarik, Jainkoak khenduko duela haren ikhustekoa bizitzeko liburitik eta hiri saindutik eta liburu huntan izkribatuak direnetatik» (Apok 22, 18-19).

Gaiñerakoan, esan dugu nolako mugak zeuzkan Bonapartek ezarriak. Lapurdiko euskera bizia erabili bear zuen, eta ez Haraneder-Harriet-en Testamentu Berrikoak bezalakoa, euskalki baterik bestera saltoka ibilli gabe. Berak ere ez du onartzen olako naaste edo batasunik. Orduan euskaldunek bizi zuten politika-giroan eta gizarte-egoeran ez zegoen olako batasunik egiterik, ez olako asmorik onartzerik: «Baldin leenengoko napar erregeek artu balute euskera legezko izkuntzatak eta alde ortara berotu eta eraman balute euskaldunen arrotasuna, gauzak agian bestela legezko orain, garuko egunetan. Baiña idazle bakar batzuk ori iritxi dezaketela, ezdago ames egiterik».

Orañartean ez dut uste Duvoisin-entzat, edo onen Bible Sainduarentzat kritikoa zorrotzagorik agertu denik bera baiño. Ortik, itzultzailearen aitopentari atera beariko dugu itzulpenaren balioa, baita dituen mugak ere. Ortik ikusi beariko dugu ea asi eta bukatzeraiño aurrerapenik egin duen, edo ezertan aldatu den ala ez, ezer berririk ikusi duen ala ez. Oraintsu atera da K. Bouda izkuntzalariaren artikulu bat Bible Saindu oni buruz. Testamentu Zaarreko inprenta-utsak eta itz batzuen erabilkeran aldakuntza batzuk aurkitu dizkio. Emendik aurrera olako azterketak egitea errazago izango da. Errezago izango da, baita ere, Bizkaiko Diputazioan dauden manuskriptoekin konparazioak egitea.

Oraingo argitaraldia

Olako erreztasanak emateko dator oraingo argitaraldi au. Izkuntzalarientzat ez, edozein euskaldun ikasle edo irakurlerentzat ere bai. Orain beteko dira Duvoisin-en amesak, bere itzulpena euskerarentzat mesedegarri izango zela uste zuenean. Orañartean Duvoisin-en *Bible Saindu* onenik gutxi iritxi da euskaldunen eskutaraño,

Haristoy apezak argitaratu Ebanjelio Saindua besterik ez (1898). Oraigoan mugazaiñen kapitainak Printzearentzat egin lana Euskalerriri itzultzen zaio. Berea izan bear zuen, eta Euskalerrri osoak berea beza.

BIBLIOGRAPHIA

Haristoy (P.): *Le capitaine Duvoisin et ses travaux*, Euskalerrria aldizkarian, 1895, leenengo tomoan.

Daranatz (J.B.): *Correspondance du Capitaine Duvoisin*, RIEV aldizkarian, XIX (1928).

Lafitte (P.): *Autour de la Bible traduite en Basaue*, Herria astekarian, 1959.

K. Bouda: *Bemerkungen zu Duvoisins labourdinischer Ubersetzung des Alten Testaments*, FONTES LIGUAE VASCONUM aldizkarian, n. 10 (1972).

L. Akesolo: *Katolikoan euskerazko Bibli-itzulpenak*, Jaunaren Deia aldizkarian, 35 zenbakian (1971).

Iratzeder (Aita Xabier Diharze), *Otoizlari* aldizkarian artikulu mordoan ateratzen ari da Duvoisin kapitainez.

BAKOITZARI, ETA IRAIZOZ AITARI, BERE*

Bakoitzari berea, Edo, nori berea, ori da zuzenbidea, esaera zaarrak dioenez.

Polikarpo Iraizozko aita kaputxinoari berea eman edo biurtu nai diot lerro oien bidez. Jaunaren Deia aldizkarian mende ontako gure bibli-itultzailleei buruz azaldu berri dan artikuluan ez det zeatzegi *idatzi* kaputxino orrek atera zuen «Yesukristo gure Yaunaren Bizia» izeneko liburuari buruz. Egia da 1932'n egiña duela itzaurrea; egia 1934'n atera zala argitara, liburu antzean. Baiña lan ori leenagorik egiña zuen egilleak, Beronek ona zer dion itzaurrean (eta ez aaztu 1932-ko Gabonillean ari dala ori idazten): «Orain dirala zortzi urte asi genuen lan au, eta geroztik illeroko orritxo batean puskeka argitaratuz *etorri* gera. Orain, ordea, guzia liburu batean argitarazten dugu».

Nik xeetasun au aaztu det, eta ortik etorri da nere okerra. Egia esan, Polikarpo aita ez zen bera ere argiegi or mintzo, lana egiten noiz asia zan bai, baiña ez dakar or argi noiz asia zan argitara ematen, ez zein illeroko orritxotan. Orain jakin det artean ez nenkiena. Nere errikidetzat jo dezakedan Yurre aita kaputxinoak atera nau nere ez-jakiñetik. Aita Polikarpok, izenik gabe, aipatu duen illeroko ori Irugarrengo Prantziskotarra da. Iraizozko Polikarpo 1924-n asi zan *antxe* «Kristoren Bizia» argitaratzen, Ebangelioetatik itzez itz euskeratuta.

Nere pekatua, ordea, ez da izan ez-jakite utsezkoa; ez-jakitea berez ez da, izan ere, pekatu. Areitio aita jesuitaren lan berdintsu baten berri ematean, au aita kaputxinoaren aurrelaritzat eman nuen. Emen da nere pekatua. Aita Areitio, 1927'n asita eman zuen bere «Kristoren bizia», *Jesusen Biotzaren Deya* aldizkarian, itzez itz Ebangelioetatik aterata au ere. Beraz, kaputxinoarena baiño geroagokoa da, geroago

* El Diario Vasco 40 (1973,] 1.850.zenb.) Suplemento dominical, 7.

azaldua, beintzat. Beraz, nik ez nuen esan bear Areitio aita Polikarporen aurrelaria izan zitekeanik. Polikarpo zan aurrelari. Bakoitzari berea.

Bakoitzari *berea*, Donostian Argia astekariaren eragitez agertu ziran iganderoko Ebangelioei buruz ere. Oien egillearen izena ez det nere lanean eman. Ez, ez nekiele-lako; Argi Donea otoizliburuan agertu ziran, eta onen egillea liburuaren azalean ageri da: Balzola-tar Prantzizko aba, ortarako sariketa batean saritua. Zein abitukoa genuen bera? Au ez nekien nik. Yurre aitak esan didanez, «Mariaren Biotzeko» semeetako omen zan (1). Eskerrik asko, Aita Yurre zintzoari eta eman dezaioگون berea Balzola aitari ere.

Xeetasuntxo oien geigarri, alperrikakoa ez dala uste det emen gure bibli-itzulpen batzuen sustatzaille ta bultz-eragille izan ziran aldizkarien berri puzka bat ematea. *Jaungoiko-Zale* zan zaarrena, 1912'n sortua, eta urrengo urtean, 1913, Irugarrengo Prantzizkotarra; 1917, *Jesusen Biotzaren Deya*; *Zeruko Argia*, 1919; *Argia*, 1921 (bigarren zenbakian Juan Zaragueta jaunaren idazkai bat zekarrela). Aita kaputxinoak zetozten aurrelari, bi illerokoeekin. Eta bietan azaldu zan, asiera-asieratik, orain agure gurgarri degun Intza aitaren luma langillea; bietan, geroxeago (gazteagoa baitzan), nabarmendu zan itz lauz eta bertsoz, beste euskal-idazle trebe bat: Iraizoz-ko aita Polikarpo, Yesukristo Gure Yaunaren Bizia liburuaren egillea. Lan au, liburu-tan-keraz, 1934-n emana du. Eta *Jaunaren Deia*, Lazkanoko beneditarren aldizkarian esan dedan bezela (2), ez ote da merezi duen baiño gutxiago ezagutua euskal-idazle jator eta olerkari txukun izan degun aita kaputxino onen liburu ori?

(1) Ik. 902. orr.

(2) Ik. 872-873. orr.

BAKOITZARI BERE*

Duenari duena zor zaio: nori berea. Eta orixe egitera, duenari duena aitortzera nator berriz ere gaur. Oraintsutan, Iraizoz-ko Polikarpo aitari berea eman nai izan nionean, Baltzola aitari ere zor zitzaiona eman bear niola uste izan nuen. Baiña bide erdian gelditu nintzan eta uts bat zuzendu naiez beste bat egin nuen, maiz gertatu oi dan bezala. «Argi Donea» liburuaren egille ori ez zan «Mariaren Biotzeko» semee-takoa izan, Maria Sortzez Garbiaren «Oblato» esaten zaienetakoa baizik.

Argi au ekarri digu andre batek Umietatik egindako karta batean. Atsegiñez irakurtzen omen du egunkari onen euskal-orria eta, orain ikusiko degunez, atsegiñez bakarrik ez, arreta aundiz ere bai. Ona nola zuzentzen duen oraintsuko nere latxoan egindako okerra: «Baltzola-tar Aita Prantzizko etzan «Mariaren Biotzeko» Aba, baizik eta garai artan emen Urnietan zutik zegoen lekai-me-etxe bateko aita maitia (maitia gure erri ontan esan nai dut), «Oblato de María Inmaculada».

Nik, nere aldetik, nere okerra aitortuaz gaiñera, beste aitorten bat egin bear det orain; Aita Yurre-ren alde. Ez beza iñork uste kaputxino onena dala nik egindako okerra. Ez zidan onek esan Baltzola aita Mariaren biotzekoen artekoa zanik. Ez nion ongi artu, oker aditu nion eta neuk oker jarri ark neri esana. Zalantzarik izan nuen, egia esan, oker ori idatzi nuenean. Baiña nolabait esan nai eta ala egiñ. Zorioneko pekatua, esan bearko emen. Zorioneko, okerra, bai, orain argi betera etortzeko aukera jarri digulako, Urnietako andre argitzaillari esker.

Eta nolako txukuntasun eta apaltasunez egin digun argi! Etzaigu, bada, barka-eske ari? «Barkatu ausardiagatik; baiña nola ezagutu bainuan, eta gaur ere eskuartian erabiltzen baidut «Argi Donea», gauza garbi jarri nai izan dut. Agur eta jaurrera!».

* El Diario Vasco 40 (1973, 11.886.zenb.) Suplemento documental, 11. Jaunaren Dia (1973, 42.zenb.) 90-91.

Ez dezu, andre, barka-bearrekorik ezer egin, ez da ori ausardia. Eskerrak zuri, mesede ederra egin diguzu argitasun ori emanez. Zuk Umietan ezagutu zenduen Baltzola aita orren aztarrenak obeki ateratzeko bidean jarri gaituzu. Duenari duentxo, ene andretxo. Eta nik ere berdin diozut: Agur eta jaurrera! Egiaren alde, nori berea ematen.

III

EUSKAL TESTODUN IDAZLANAK

DOS CARTAS DEL P. URIARTE, FUNDIDAS Y MUTILIDAS*

La publicación, en las páginas de este BOLETIN (año 1954, p. 231-302; 7957, p. 220-239, 330-348, 429-452; 1958, 397-443), de las cartas del P. Uriarte al Príncipe Bonaparte, fue un buen servicio que a los amantes de nuestras letras vascas prestó el P. Juan Ruiz de Larrínaga, quien supo ilustrarlas además con interesantes notas bio-bibliográficas que hacen subir de punto el valor y utilidad de su publicación.

La lectura de una copia manuscrita de dichas cartas, sacada de sus originales, que un amigo puso gentilmente a mi disposición, me ha permitido cotejar la copia con la transcripción del P. Larrínaga y comprobar algunos defectos y errores de lectura o de copia en que éste incurrió, confirmados luego ante un cotejo realizado a la vista de los originales que se conservan en el Archivo de la Diputación de Vizcaya.

El P. Larrínaga no se propuso, desde luego, ni prometió darnos el texto íntegro de las cartas de su hermano en religión P. Uriarte; sino que, además de omitir las expresiones de cortesía en los saludos o despedidas, saltó muchas veces frases que consideró redundantes o, por repetidas, innecesarias, sustituyéndolas por puntos suspensivos las más de las veces. La intención del Padre fue sin duda señalar con esos puntos suspensivos todas las palabras o frases omitidas, aunque no siempre lo hizo así. Vaya una muestra: en la carta 13 (la numeración es del P. Larrínaga), en la lista de términos no puros o de procedencia alienígena, a cuyo uso se propone no renunciar en sus trabajos el P. Uriarte, tras la palabra *catarrua*, se han omitido las siguientes: *carrua, parchia, tintia, grania, morterua, polvoría, cañonasua*.

Otras veces, la copia es fiel en cuanto al sentido; pero, consciente o inconscientemente, se introducen en la frase correcciones del tipo de las que podrá comprobar el que lea las dos cartas que luego se transcribirán y las compare con la versión que de ellas nos dio el P. Larrínaga. Una de ellas voy a señalar que, aunque de muy poca monta al parecer, ya que tal vez más que corrección es error de lectura, no deja de envolver cierta modificación de fondo. En la carta 128, carta que un José de Larrea escribe desde Llodio al P. Uriarte con fecha 3 de julio de 1862, donde el texto transcrito por el P. Larrínaga dice «parroquia de San Roman de Oquendojena», el autor de la carta había escrito: Parroquia de San Román u Oquendojena. La cosa cambia un poco, y es que, en Oquendo, San Román y Oquendojena son topónimos equivalentes, pero Oquendojena no se usa como complemento del nombre de la parroquia de San Román, como hace pensar el texto del P. Larrínaga. El Valle de Oquendo se compone, como dice el señor Larrea en la citada carta, de dos parroquias: la de Santa María de Unzá y la de San Román; los términos de esta última coinciden con los del barrio de Oquendojena (Oquendogyena), pero no se la denomina de Oquendojena sino, en todo caso, de Oquendo, que es como aparecen también en las estadísticas parroquiales de la diócesis de Vitoria.

Un desliz de alguna mayor consideración, que es el que motiva esta nota rectificativa, cometió el P. Larrínaga al copiar los originales del P. Uriarte, cuando de dos cartas de éste hizo una, por imbricación, por superposición de la una en la otra, desliz en que incurrió en la carta que en su serie aparece con el número 11, como de fecha 12 de abril de 1857. En ella se nos da, en realidad el texto parcial de dos cartas fechadas en Marquina, pero la una el 12 de abril de dicho año, y la otra el 27 del mismo mes. Desde la línea sexta de la primera se ha saltado a la tercera línea de la segunda. La alusión que en ambas se hace a la traducción vizcaína de los «Diálogos» de Iturriaga que el P. Uriarte realizaba para Bonaparte, ha provocada la distracción del P. Larrínaga.

He aquí el texto de la carta, tal como nos lo dio el P. Larrínaga en este mismo BOLETIN, año 1954, p. 242:

«Marquina, 12 de abril de 1857.

Adjunto remito a S. A. el manuscrito que nos dio en Zarauz mi tío, el P. Fr. Domingo de Uriarte, y que me pide en su apreciable carta, fecha 26 de Marzo. Aunque muy ocupado estos días con el cumplimiento de la Pascua, continúo en la traducción de los «Diálogos bascongados»; y en estos tres últimos días me he ocupado en revisarlos y corregirlos. Remitiré al Cónsul de San Sebastián, para que éste los dirija a S. A. No sé si S. A. podrá leer mi letra. Yo hubiera deseado tener tiempo para sacar una copia del Evangelio de San Mateo, y enviarle muy limpio a S. A. y lo mismo la traducción de los «Diálogos». „ „ „

Voy a emprender luego la traducción del «Apocalipsis»; pero temo mucho qué tal saldrá. La impresión de las «Visitas» está muy adelantada; pero siempre va con lentitud. Veremos qué correcta sale la impresión del Evangelio de San Mateo hecha en esa ciudad de Londres.»

Veamos ahora el texto restituido a su integridad de las dos cartas:

«Marquina, 12 de abril de 1857.

Señor Dn. Luis Luciano Bonaparte.

Adjunto remito á S. A. el manuscrito que nos dio en Zarauz mi tio el P. Fr. Domingo de Uriarte y que mepide en su apreciable cartafecha 26 de Marzo. Aunque mui ocupado estos dias con el cumplimiento de de la Pascua continúo en la traducción de los Dialogoss Guipuzcoanos, los mismos que espero remitir á S. A. dentro de unos cuantos dias, y de todos modos durante este mes, si algun accidente imprevisto no me lo im-pide. Veremos si para entonces se concluye la impre-sion de las Vi-sitas.

Paselo V. bien y mande cuanto guste á su atento seguro servidor
Q. S. M. B.

Fr. Jose Antonio de Uriarte.» (rubricado)

«Marquina, 27 de abril de 1857.

Señor Dn. Jose Luciano Bonaparte.

Segunprometíá S. A. en mi ultima carta, he con-cluido la traduccion de los Dialogos bascongados: y en estos tres ultimos dias me he ocupado en revisarlos y corregirlos. Remitire al Consul de San Sebastian, para que este los diriga áS.A.No lo se sipodra S.A. leer mi letra. Yo hubiera deseado tener tiempo para sacar una copia del Evangelio de San Mateo con la la traduccion de los Dialogos. Voi á emprender luego con la traduccion del Apocalipsis: pero, que tal saldra? Te-mo mucho. La im-presion de las Visitas esta mui ade-lantada, pero siempre va con lentitud. Veremos que correcta sale la impresión del Eyangelio de San Ma-teo hecha en esa ciudad de Londres.

Paselo bien S. A. y mande cuanto guste a su at." seg." servidor y capellan Q.S.M.B.

Fr. Jose Antonio de Uriarte.» (rubricado)

Se ha respetado la ortografía y puntuación del P. Uriarte. A la vista de ambos textos, el del original y el del P. Larrínaga, podrá además el lector formarse idea de la clase de retoques que este último se permitió hacer en el suyo.

BERTSOZKO ESTROPADAK*

(Santander alde batetik, Bizkaia bestetik)

Milla zortzireun eta irurogei ta batgarren urtean (1861), garagarrilaren ogeian, orain eunda iru urte, Españaiko erregin-erregeak eldu ziran Santanderrera. Jakiña: uri guztia jayetán ipiñi eben. Eguneró ez da etórtén norbere auzóra erregiñarik, eta an zan Santander osoa, uri ta probintzi, senar-emazte ain andi ta itzalgarriai ondo etorria emon eta urrengo egunetako egotaldia atsegingarri egiteko.

Egun areitako paperak ba-euken zer esanik: erregiña Santanderko ikuskizun ederrakin zoraturik egoala; egunean baño egunean murgill luzeagoak egiten zituala Sardineroke uretan; alango ta olango ur-soñekoakaz ikusi ebela; kaleko andra bati guztizko txeraz eta apalik berba egin eutsola. Tintarik aña koipe erabillén. Sekulan ikusi ete zan, ba, alango erregiñik, ain apalik eta otzanik? Bilboko agintariak be Santanderrera agertu ziran, euren agur onak emoten, eta egundoko pozaz etxeratu ziran, euron buru johanari erregiñak beren ondokoakin bazkaldu-azo eutsola-ta.

Egun pozgarri oneik, orraitio, euren ostetxo garratza ekarri eben. Erregiñaren omenez, illaren ogei ta bian, estropadak egin ziran, eta Castroko batel bik urten eben nausi. Castrotarren pozak ez eukan neurririk. Eurak zabaldu ebenez, Bizkai guztiko indarrak ausita itxi ei-zituezan. Bertsoetara bere jo eben. Bertsoen egileak: Ali **El-Mordaz** ezizenezko bat, eta Antonio García Gutiérrez; azkeneko onek Barbieri'n musikea ezarri eutson bere «Jota del regateo» izeneko bertsoai. Santanderren neurtu ei-ebezan euren indarrak Castro eta Bizkaiak. An ei-ziran Bermeo, Lekeitio ta «entre otros insignes luchadores, de Ondarroa los famosos bogadores»

* Zeruko Argia 27 (1964, 74.zenb.) 8; *Nonzebarri* izenpean, ik. x orr.

Irurac-bat, Bilboko egunerokoak, zabaldu zituen Castrotarren erronka oneik. Ta laster etorri zan Bizkaitarren erantzuna. Zelan izan zeitekean Castrotarrak iñoena, Santanderko estropadetara Bizkaiko batelik etzan agertu be eginda? Non zan egia? Ara: estropada areitarako Castroko batel bik emon eben izena; besterik etzan agertu. Ezer gitxi, jokoari berorik emoteko. Santandertarrak zer egiten dabe? Ba-ziran, an portuan, Bizkaiko ontzi bat edo bi, Bermeo, Lekeitio ta Ondarroako mariñelakin, porturik portu eroan-ekarrika ibilli oi diranetakoak: eurekana jo eben laguntza ezke, batel bat eta arraun bana opatuaz. Bada-ezpadako batel astun bat emon ei-eutsen; alan da guzti bere, burrukarako orduan eurak eldu ei-ziran lenengo biralekura, azkenengo txanpara orduko Castrotarrak aurea artu baeutsen bere.

Castrotarren erronkai Bermeok, Lekeitiok eta Ondarroak erantzun eutsen, eta **Ali** ta Garcia Gutierrez-en bertsoai Lekeitioko seme argi batek, Eusebio Maria Azkue, geroko R. M. Azkuen aita izango zanak:

Iru aupada egin dira
ta euren durundua
erri ta itxasoz dabil
beteten mundua.

Bizkaiko arraunlariak ez ei-ebezan egundo euren buruak Santanderkoen mendean ikusi. Lekeitiokoak, batez bere, lentxoagoko urte baten, kantauri - itxasaldeko arraunlari guztien gañetik gelditu ei-ziran nausi ta txapeldun. Etzan errez eurak azpiratzen:

Nun dago Lekeitio?
Nun dago Ondarroa?
Nun da Bermeotarren
kalako zantzoa?
Onek azpiratuta,
Garcia Gutierrez,
iñoz ikusi eztira
ta ezta ikusten errez.

Barriketa ta bertsoakaz barik, besoakaz arraunean erakutsi bear zan nortzuk ziran geyago. Orretarako gertu dagoz nainon ta noznai Bizkaikoak.

Ia bada Castroko
kaskabel-jotzaillak,
eztabe ezer balio
gedar ta baraillak.
Baldin nai badozue
onriagaz urten,
ezta euskalduna atzera
iñoz biurtuten.

Bizkaikoen ondorako, giputzak besterik ez.

Asko ta asko zagoze
abantari putzak;
baiña geugaz bardiñak
bakarrik giputzak.

Castroko bertsoak, Gutierrez orrek egiñak, Santa Ana ta San Pelayo aitatuten ebezan, santu oneiri deyez Castrotarren alde etortzeko. Eurentzako da onako zirikada au:

Ondarroan sortu zan
aize puzkadeak
eleizan artu al dituz
Castroko abadeak,
eskatuten Santa Ana
ta San Pelayori,
miñean emoteko
indarra Castrori.

Castrotarrak ez eben jaso nai izan Bizkaikoen aupadea. Utsean gelditu ziran euren arropuzkerariak.

Nun estaldu ete dira
Castroko batelak?
Osorik ete daukez
erramu ta belak?
Castrokoak nai eben
gelditu nagosi,
ta euren andikeria
koplakaz erosi.

Baiña Castron nunbaistan
dagoz gizon putzak,
min zorrozdunak baiña,
zaizkoak gorputzak;
aize biurtu dan lez
euren ots andia,
munduak ikusi dau
euri bako odeia.

Arrezkero, euridun ondeirik bere agertu da Bizkaiko itxas aldean. Eta Bermeo, Lekeitio ta Ondarroako arraunlariak bere ikusi dabe goruzko ta berazkorik.

LAU MISIO-KANTA ZAAR (1838)*

Onelako zorionik ez degu egunero izaten. Nik beintzat zoriontzat daukat neri gertatua, 1838ko misio baten berri ematen duten paper zaar batzuk aurkitzean.

Paper oiek jakingarri asko dakarte Azpeitia-ri buruz: an, XVgarren mendea ezkerre gertatutako ainbat gauzen berri, ango parroko apaizen araudia, parroko oiturak, nola ospatzen ziran urtebarruko elizkizunik aundienak, ango seroren bizi-bidea, Karlos V andik izan zan egunetako berri, eta abar. Alkar josirik, liburua osatzen dute, eta 1838ko misioari buruzko orriek bakarrik 50 orrialde, eta gaiñera, beste bi musika-orri, misioko kantekin. Emendik aurkitzen ditut, ain zuzen, jakin-garriago. Olako doiñu-paperik ez degu egunero eskuratzen. Orregatik, ez al dator egoki misio aren eta kanta aien berri zabaltzea? Nere lerro auk beste asmorik ez dakarte.

Misioa

Zarauz-tik Azpeiti-ra aldatuta, bi prantziskotar izan ziran misio-emaille edo (paperetan irakurtzen degunez) misionista: aita Etxebarría eta aita Olaran edo Olazaran (bietara ageri baita azkenengoaren izena). Ez dakit nik aita Olazaran ori nor zan esaten; baiña Etxeberría aita, iñolaz ere, Oiartzungo seme ezaguna degu, euskal-idazle ta misio-emaille argia. Bera omen zan bietatik zaarrena, eta misioaren zuzentzaile. Berak egin zuen leenengo eguneko egurra, eta an ematen zuten misioaren programa adierazi. Otsaillaren 3an an ziran biak eta urrengo egunean, igandez, asi eta 18an, astelenez, oi zan azken-elizkizunarekin, animen meza eta itzaldiarekin eman zioten azkena bi aste beteko lanari. Aita Etxebarría asi, ta biak txandaka egiten zuten itzaldia, batak gaur eta besteak biar.

* Aranzazu 54 (1974) 120-122.

Biak Zarauz-tik zetozten, itxi gabe zirauan prantziskotarren etxe bakarretik. Aita Etxebarriak ori ere gogoratu zuen umorez Azepeitarrei leenengo itzaldian: «Zer? Ez dirala misionistak? Bai, badira. Emen gera, beintzat oraindik, Zarauzkoak, zakurren muturreko beste oriei kasorik egin gabe. Ez egin oriei kasorik, ez. Zakurrei, bai, pozkeria batzuk; baiña beste oiei? Ezta, ezta... Goitar pikaro oriek ez dute gurekin zer nastu... Ete dago, ete dago eleiza onetan oriekin nasturik? Pu, pu!». Goitar pikaro oriek nortzuk ziren asmatzeko ez da burua ausi bearrik: kristinoak ziran, (ez kristauak, ain zuzen). Misiolariaren orrelako ateraldi zirtu zatzuk itzez itz jaso ditu paper aien egilleak, eta olakoak entzunik azepeitar askok farrarik naiko egin zuten eta gozaro. Sermolariak esan zuenez, «ez degu beti triste egon bear, eta goazen umorean, goazen aurrera». Gaiñerakoan, misioko urrengo egunetan, betiko bidetik ekin zioten misio-gaiari ariari. Naiz eta karlisten gerrateak su bizian jarraitu egun aietan, ez dago orren esateko aipamenik; aspalditik erriak jasaten zituen zori gaiztoko ordu negargarrien artean sartuta bizi arren, leenengo egunean baizik ez zuten, nola nai ere, gerraterik aipatu.

Misioaren berri-emailleak beste xeetasun au ere jaso du bere zirriborroetan: nola egiten zan misioaren asiera ta bukaera egunero. Agur Maria esaten zuten leenik; eta urrengo: «Alabaturia eta bedeinkaturia izan dedilla Aldareko Sakramentu Santua»... Eta onela jarraitu: «Espiritu Santuaren graziak izio ta argitu ditzala gure biotz eta enten-dimentuak ; Jesukristoren pakea izan dedilla gure etxe eta animetan orain eta beti». Eta erriak erantzuten zuen: Amen.

Itzaldia bukatutakoan, erreter jaunak bi eskuez gurutzea artzen zuen, eta azken-kanta emanaz, eguraldi ona baldin bazan, jenteak eliza ustutzen zuen; eta bein kalean, bein illerrian, erreter berak gurutzeaz bedeinkazioa ematen zion, onela: «Aita Eternuaren bedeinkazioa (gurutzea erriari begira zuela), Seme Dibinoaren bedeinkazioa (ezkerretara), Espiritu Santuaren bedeinkazioa (gurutzea erriari begira zuela), Seme Dibinoaren bedeinkazioa (eskuialdera) izan dedilla gure animetan orain ta beti (berri-erdira begira). Eta erriaren erantzuna: Amen. Guzti au, eguraldi txarra zanetan, elizabarruan egiten zan, kanpora gabe.

Misio-kantak

Neretzat, paper oietan gauzarik nabarmen eta jakingarriena misio-kantak dira, batez ere beren doiñuaz daudelako. Lau dira guztitara: bi, misioaren leen-egunetan, asiera eta bukaeran kantatzeko; beste biak, azken-egunetarako. Bertsorik geiago ere bazuten; baiña musikaren azpian bat edo bi besterik ez da aurkitzen.

1 5£fe —1.4-f- T^ME^pEE^=^E^MM

Je - sus ain pe-na- tu ta mar- ti- ri- zo - tu

I EE£ £•==? Tr-r 3PE ^ ^ U £=dlle=
ta de- za -gun, ar- ren guz - ti- ok pe- ka- tu - a. Go-rr-ro-..

2 m^=|'^~r-i-ri-f=p=±=f&3=t=t: =IT

Den- po- ra alle-ga - tu - rik gu- ga -tik il- tze - ko, da

P E1EE1EEEE^EE^=EJ=EJ, =r i-r 3 i Z[-~Z^E^=EEEEEE.
go ya presta- tu- rik bi - zi - a ema -te - ko. Ju- da-sek bai sal-

W j-^E=^FEE--=-r 1 r EEtE B E
du- rik. (0 gi -zon gal- du - a! Go-rr-ro-...

3 m __^_ 3=53= -i-í-í-r 4-n-..*=*=-p-i-^T -

E - gin ez- ke - ro pro po - ai tu

F^== -r -f -5^3-t: ?=£ i-- =£ }= }= =h
di - tu - gu kun - pli tu, i - zan be' - ar de - gu sen - do-

s |, ' ; (3 7 j | t j=gft S -i-^-

ak ta ez kontra-ra mu - gi - tu, ta ez kon-tra-ra mu - gi - tu.

4 ^^^ T^^^m^^^

Pé- ka-ta-ri gai-xo - a, ar-ren a - di-za - zor: Jau-
Zu- re gra-zia in- da - zu, Jaun e-rru- ki-tsu - a. Jau- ^"

\$Vz-l-y-l= =>±:=rj' EEE=EtEE=r^EEEE±E =^=

na-ga-na-ko as-mo - a ber- ta-tik ar - za - zu.
tzi e-ra-zi za-da zu, ar-ren-pe- ka - tu - a.

5 Musical notation on a staff with lyrics: A - ma do - lo - rez - ko Dir - ji - ña Ha - ri - a: bi-

k-^* -f-f-~z|d={s=±zC| .! >^ fi ir A' t**r-

otz a-mo- rez - ko - de - zu Zulf guz- ti'

Leen-egunetako kantikak**1. Asieran.**

Kantariak: Pekatari gaixoa,
arren, adi zazu:
Jaunaganako asmoa
bertatik ar zazu. (bi aldiz)

Erriak: Zure grazia indazu,
Jesus urrikaltsua;
utzi erazi zadazu,
arren, pekatua.
Utzi erazi zadazu,
arren pekatua.

2. Irteeran.

Ama dolorezkoa,
Birjiña Maria,
biotz amorezkoa
dezu zuk guztia (bis).

Erriak: Pena oriekgatik
gure Ama maitea,
arren orain gugatik
urrikal zaitea.

Kanta auetako bakoitzak beste bertso geiago ere bazuen, kantariek kantatzeko, erriak leengo erantzuna ematen zuela.

Azken-egunetakoak**Asieran.**

Jesus ain penatua
ta martirizatu:

gorrota dezagun, arren,
guztiok pekatua,

Erriak: Gorrota dezagun, arren,
guztiok pekatua.

Kantariak: Denbora allegaturik
gugatik iltzeko,
dago ya prestaturik
bizia emateko.
Judasek bai saldurik,
o gizon galdua!

Erriak: Gorrota dezagun, arren
 guztiok pekatua,
 gorrota dezagun, arren
 guztiok pekatua.

Irteeran.

Egin ezkeroko proposituak,
bear ditugu kunplitu;
izan bear degu sendoak
ta ez kontrara mugitu.

Kanta onek ere, asierakoak bezala, badu beste bertsorik; baiña guztiak doiñu berean kantatzekoak dira. Baiña misio artako berri eman eta kanta auek ere eskuz jarri zituenak ez du geiago bere paperera aldatu.

Kanta auen doiñua, **do** leenengo lerroan duela, aldaturik dago; emen Sol-bigarrenekoan dala aldatu da; ez zaio beste ikuturik egin. Orain gure galderak: bertsoek nor dute ontzaille, eta doiñuak nor asmatzaille? Prantziskotar sermolarien artean garai artan bazan eliz-kanta errikoirik egin zuenik: Bizkaian aita Zabala, bilbotarra, eta aita Salazar Zollotarra, eta Gipuzkoan, aita Etxeberria bera. Berau ote dute egille 1838ko misio-kantek ere? Etxebarria orren izena darama, Vinson-en **Bibliographie** dalakoan, kanta-sorta txiki batek, titulu onekin: **Misio ta misio ondoreko cantac** (Tolosan, 1845). Ez ote dira Azpeitikoak berak, gure musika-orriak ez dituen bertso guztiekin?

Eta doiñua, musika, zeñek egiña ote dute? Bertso batzuk ez dira, egia esan, gure artean geien erabilli oi diran neurri ta puntudunak. Doiñua nondikoa ote dute? Erdal-kantuen batetik artua ala ez? Aita Donosti zanak bere **Eres-sortan** 202garren dakarrena eta gure paperetako bigarrena doiñuz ia bat bera dira, eta ark badirudi kanta bereko beste bertso bat dala. Baiña beste iruren aide urkorik ez det nik aurkitu. Nondikoak ote dira, eta utzi al dute aztarrenik? Or uzten ditut nere galdera auek, ea musika-sailletan aituak diran gure gizonen zer erantzuten diguten.

EUZKADIA*

Eusebio Maria Azkue zanaren Poema (amaitu bakoa)

Askenengo KARMEL'en agindu nebenez (1), emen jarten dot, irakurlearen eskuetan, *Euzkadia*, Azkue aitaren euskal-poema gitxi aitatu eta gitxiago ezagutua. Semeak, bere aitaren bertsoz liburu bat osatu eta «Parnasorako bidea» atera ebanean, ez eban au ezagutzen, ez eban onen barririk.

«Parnasorako bidea» egunotan barriro lengo modu-moduan atera deuskuen ez-kero, Lekeitioko poeta onen euskal-lana geiago ezagutu nai daberen batek baiño geiagok *Euzkadia* argitaratzea ondo artuko dabelakoan nago.

Poema au zer dan, gitxi gora bera, esan neban lengoan: EUZKA, euskal-musaren poema. Tamalez, amaitu barik, osatu barik etorri jaku. Lenengo kantua besterik ez daukagu, eta Euzka orren jaiotzeraiño be ez gaitu eroaten. Bizkaiak (eta olerkariak emen, izen onen pean, Bizkaitik kanpoko euskaldun guztiak artu nai dituela esango neuke), ba-ei dau musa bat: eta «bere barria neuk lenengoz dakat». Eta bereala poemari ekiten deutso. Eta bekaizkeriak, alkarren leian ibilte okerrak mundura zelangoko kalteak ekarri oi dabezan adierazoten luze samar ekinda, Olinpoko eta Parnasoko Jaunen artean (Jaun eta Andra deitzen deutse Olinpotarrai, Greziako jainkotxo ziralakoai) Jaun onein artean, eta euren arteko asarre, gorroto eta burruketan sartzen gaitu. Alango baten arrokerizko aupada bat entzuten da an goietan eta batzuk eta besteak alkarri erasoteko prestaeratan asten dira. Azkuek Olinpotar eta Parnasotar barri askotxo asmatzen dituela esan bearrik ez dago, eta izen bitxitxoakaz, gaiñera. Ona bat: Pirafras, Vukano'ren semetzakoa, benetan Apolo eta Venus-en sasikumea.

* Karmel 1979-3, 25-42.

(I) Ik. 550-560. orr.

Alderdi bitan, bando bitan jartzen da Jaun-Andreen goialde guztia. Alderdi baten, Minerbak sutu eta batuta, Apolo lagun dabela, Pirafros, Vulkano bere sutegietako olagizonakaz, Bako eta abar ikusten ditugu. Su ta ke diardue edozetarako armak egiten gañean daben gerrarako. Eta atan-orretango bitartetxo baten argiunetxo bat egiten jaku, *Euzka'ren* aita-amak nortzuk izango direan antz emoteko: Pirafros, aita, eta Erato, Musarik maitagarriena, ama. Eta or amaitzen da lenengo kantua, gelditu jakun poema onen kantu bakarra. Egilleak zeinbat kantutarako gaia eukan gogoan, nondik nora jarraitu bear eban poemaren ariak, gatx izango da asmatzen. Olerkariaren buruan gelditu da dana.

Gure literatura ez dago, ez, poema barik. Hiribarren Lapurditarren *Eskualdunak*, Orixe andiaren *Euskaldunak*, Aita Mitxelena'ren *Arantzazu* ez dira gauza utsak. Ulibarri Okendoarrak be, euskaldunen bizimoduak gaitzat artuta, poema antzeko bat ariltzen ekin eutsan. Bakotxak izan ditu bere asmoa, bere ikuspegia eta moldea; bakotxak, bere zera eta kera.

EUZKADIA, besteen artean, bitxiena, bakanena dogula ez dago ukatzerik. Ezin izan bestela. Aitaren bitxikeri guztiak daukaz aldean. Pamasotarren eta Olinpotarren artean murgildurik, bere etxean lez bizi zanak non billatuko eban gaia Olimpotarren edo Parnasotarren mundu orretan, edo zero orretan baiño? Eneida'ren ikutua bein baiño geiagotan igarten jako. Asieran argi ikusten da ori. Ia itzez itz, Virgilioren *Ille ego qui auondam* bete betean gogoratzen deusku. Virgilioren burpilla emoten deutse konparaketazko esaldi batzuei be. Bertsoak berak ez ete deusku erakusten latíñezko *exametroen* taunkada eta astuntasun berbera, edo antzekoa?

EUZKADIA ónetako bertsoak, Azkue'ren eta Bizkaiko bertsolari askoren oiturea zan lez, puntuak biñan biñan daukezala datoz. Zortziko txikiaren neurrikoak dira, zortzi eta zazpi silabadunak, emen lerro baten doazan arren, bestela orri larregi beteko euskuezalako.

Azkuek emen be ezin izan dau itxi bere irribarre zurirako gogoa edo jokerea. Olinpotarrak, euren andimanditasunean, barregarritxo ipinten deuskuz. Eta ez dakigu zeri irribarre geiago egin, ala Olinpotarren izakera bitxiari, ala bertsolariaren irudimen edo asmamen bakantxo barrezaleari.

Baiña zetan diardut nik, zetan daragoiot neure eritxiak aurreratzten? Poema irakurtzeko gogorik dauanak, berak ikusiko ditu obeto, bai poema onen alan nai olango balioa, eta bai euskerea Pamason edo Pamasoa gure errian sartu gura izan eban olerkiaren neurria.

L. Akesolo

EUZKADIA

Beti euki dau ta dauko Bizkaiak Musa bat
eta bere barria neuk lenengoz dakat.

EUSKADIA

Nik, kantau dodazanak, jarrita erexpetan,
arpa bizkaitarragaz soinu guztietan
atsegin ta nekiak, lege eta ekanduak,
emoten deuskutzanak eta aldatu munduak:

Nik euki dodaz sarri ta askogaz ezbaiak,
baldin eta izan daben Musarik Bizkaiak
eta bizi izan bada geure artian iñox,
zelan bere soinian daukagun ain billox.

Baiña oraiñ ziurtu naz, botata barriak,
Parnasoko Nagosi Jaun maitagarriak,
Musa bat «geuk bakarrik» beti euki dogula,
geure libertadia jagoten deuskula:

«Musa, buruko miñak makaldu dabena
ta andikerien putzak noxbait il leiena;
emen jaio ta azi zan aretx ondo baten,
eta an irakatsi dau libre bizi izaten».

Lenengo kantua

Odeituten danian mendi baketsua,
aserratuta asten da jaurt egiten sua.
Soloetan sartuta, laño galarrenak
ugertuta isten dituz garirik onenak.

Udaberriko enbatak beragaz daroa
berenoa matsentzat, matsduira badoa,
eta ontzia lañoak itxas andietan
zatituten daroa ustebako atxetan.

Bardin geure biotza biartzunduten dau
enbidien lañoak, atrapetan badau;
beti ilten dituzala kontua atara lei
enbidiak munduan euneti berrogei.

Beste bat ikustia goituten nekia
da askoen biotzentzat gar-suzko lekia,
erre ta sikatuen deusena guztia,
barrura sartu artian odol egarria.

Enbidiak menpetu dituzan gizonak
bai nai zorionaren txuntxurrera igonak,
daukez biatzunagaz beterik erriak
eta arimako argia illunduta odaiak.

Bere berriak dituz enbidiak eun min
ta eurekaz dabil beti gatx egiten armin;
ez dau ezagututen lengoan damurik
eta dauko legien bildurra galdurik.

Guzurrez atsituta daukaz bere miñak,
erlien eztena lez zorrotz eta ariñak;
ez dau iñork esaten gatx bako guzurrik,
ez da ondo garbituten bere agoko adurrik.

Ondo daki enbidiak guzurren buztana
iñoz bere sustraitik ebaten ez dana;
guzur batek argira bein urteten badau,
laster il arren, zerbait atzetik isten dau.

Enbidia Olinpo'ra lengo denporetan
joaten zan Jaun da Andren biotzak erretan,
ta ainbeste bein baten exetu zituzan
ze, orduan zeruetan dana goibetu zan.

Apolo egon zanian munduan geu legez,
gizona lez bizi zan lenengotan nekez;
izan zan artzain ta askotan mediku,
beti bertsolaria ta aiztu ta musiku;

Baita botikario, letradu bere bai,
ta gonai oratua, lapia lez atxai;
danak neke gitxigaz ondo biziteko,
ze, Apolo ez zan astoa, gorputza eteteko.

Apolok erabillen amoria opaka,
baña Ninfa zoroak zirian banaka:
batek igasten eutsan begien aurreti,
beste batek agoan ezetza eukan beti.

Beti poz barriagaz aitzuta naibagak,
igaroten zituzan munduko atsakabak;
zan lez bertsolaria biotzan aritik,
guztia ikusten eban pozen alderditik.

Apolo Olinpon baiño bizi zan pozago,
lagun guztiak baiño zalako andiago;
Olinpo'n egia da zana jaun andia,
Olinpo'n baña Jobe zan Jaun nagosia.

Merkurio, Olinpo'tarren jaun mandatariak
emon eutsezan Jaunai Apolon barriak,
gozoak geienentzat, batzuentzat txarrak,
bada exetu zituzan enbidien garrak.

Onek erakutsi eben bekokiko illuna
ezin iruditu lei, ain zan motz ta astuna.
Vulkano gelditu zan, len zanez ganera,
ain ezaiña ze, ekarren barria ezpanera.

Jupiter danen aita, juez ta nagosia,
zeiñen irribarria da Jaunen gloria,
beragaz aituten zan, ispillu baten lez
irakurteko egia zer zan eta zer ez.

Apolo ez zan Parnaso'n Olinpo'n lez jauna,
ezbada erbestetu bat eta gizon launa;
baña orregatik bere zoriontasuna
zan erbestetuaren betiko laguna.

Au zan Apolo'k eukan kulpabako errua,
orduán bando bian eukana zerua.
Batek esaten eban ez zala errazoia
Apolo'k euki leian zorionen doia.

Vulkano'k eskatu eban botateko Etnara,
Pluton'ek Kanzerbero'n agin artetara;
Neptuno'k nai izan eban berari emotia,
ikasi eian zer zan neke igarotia.

Minerba jakituna joan zan orduan
berba egiten Aitari, mun eginta eskuan.
Esan eban Andra onek: «Neure Aita laztana,
aginduizu Merkurio gaur Apolo'gana».

«Esaten etorteko laster geure artera,
dabiltzezan ezbaiak ezereztutera».
Eta lotu zirian Jaunen garrasiak,
autsa lotuten dan lez ukututa euriak.

Baiña gudako Jaunak, Marte panparroiak,
irunsi ezin zituzan bakezko errazoiak
eta esan eban garratz min lokatuagaz,
begi biak sututa, txistuka surrakaz:

«Errutsua da Apolo munduratu zanik
eta ez dau errukirik biar Jaunak ganik,
ezpada gogortade bigunik bakoa,
Prometeo'k Kaukaso'n daukana lako».

«Goazen, Jaunak, mundura batera guztiok,
ta ikusiko gozuez neu ta Apolo biok
alkarregaz besaka edo geure armakaz,
lotu deiden artian kate gogorrakaz».

«Biotztsua da Apolo, berak esaten dau,
baña oraindiño aurrian iñox ikusi ez nau.
Goazen, bada, goituten zuek ikustera;
betor neure burdia ta goazen aurrera».

Makilla iru aginduna daukan Jaun bustiak
ta iru aoko txakurren jaube itzalgarriak,
irugarren eurekaz jaun errena zala,
eregi eben Olinpo'n baralla ez makala.

Jaun ta Andrak, barallia bizkortu zanian,
zirudien tigriak zezenen ganian;
alper ixilduteko joten zan trumoia,
zoro egiñik ebillen gortuta errazoia.

Aserratu zan Jobe, ta bere begiak
botaten zituezan suzko oñastarriak.
Bildurtu zan Olinpo ta arik berpertatik
lokatu zan mundua zimenduetatik.

Etna asi zan negarrez erreka suzkoak
ta itxasoa botaten erraietakoak;
mendi andiak igesi joiazan lurpera
eta izarrak amatau zirian batera.

Ibar eder asko urak ondatu zituzan
eta Kaspio lurraren ganera argitu zan.
Katai ta Libre bere banatu zirian
eta ara bat len zana bi zelan dirian.

Ikaratuta Etnako mallukari ixillak,
Jobe'k bear dituzan oñastarrigillak,
urten eben pilloan arrituta gora,
maillu bana bakotxak botata lepora.

Pirafros bere joian eurakaz batera,
zer eldu zan ikusten munduan ganera;
Pirafros, gazte ederra, Venus'en semia,
Vulkano'k maite ebana balitz lez beria.

Izan arren Vulkano Venus'en senarra,
 Vulkano zan ezaiña ta andria gangarra.
 Andra galantak sarri, sututa biotza,
 aitzurik eukiten dau bere senar motza.

Alan Venus bein baten egun oso bian
 egon zan senar barik Parnaso mendian,
 Apolo'n besoetan bertsoak kantetan,
 kexuak eregiak euren biotzetan.

Iru urte-lauren barru jaijo zan Pirafros,
 zeñen lenengo izena izan zan Keliagros;
 baña Vulkano'k, zan lez bekoki andikoa,
 beria siñistu eban berak azikoa.

Begibakotx guztiak aututa ago batez,
 Olinpo'ra joan zan Pirafros Jauna lez;
 begi batduna izanik itsuen errege,
 bikoa da batdunen izatia lege.

Eldu zan bialdua Jobe'ri itanduten
 baldin mundu guztia joian goibetuten.
 Jupiter, au entzunda, beraganatu zan
 ta mundua ia laster galduteko ekusan.

Bildurrari leku egin eutsan asarriak
 ta agaz lotu zituzan munduko goibiak:
 eta Jaun andiaren irribarriagaz
 guztia gelditu zan lengo bakiagaz.

Eolo'k bendabalak, Boreas ta Austroak,
 Ipar eta axerriak erruki bakoak
 sartu zituzan euren lengo narruetan
 ta alkarren ganeratu Eolia'ko axpetan.

Itxasoa agertu zan baretuta launa
 eta bere ganian poz Zafiro Jauna,
 eta Olimpo'n pozagaz, estalduta odaiak,
 inguratu zirian jaunez ta andraz maiak.

Mundurik urrun ta urrun, inguru guztian,
 eguzkiaren goiti ta izarren azpian
 euken Jaunak eta Andrak zorizko lekua
 ta Olinpo gizartian eritxon zerua.

An egoten zirian Jaunak atsaroten,
 an Jupiter egoan mundua jagoten;
 andi lurra ikusten zan urun-garaua lez,
 baña bere ganeko gizonik bat bere ez.

Munduko goraberek memento batian
agertuten zirian Jobe'n izatian,
eta ez eban gizonak artuten gogorik
Jaunaren izatian agertu bakorik.

Jaunak nai dabenian Olinpo'ti aldendu
eta beko mundurantz pausuak zuzendu,
Jobe'n majestadia begiratutia
zan bere eza edo baia Jaunari entzutia.

Lei arrizko mendi bat Olinpo'n erdian
dago ta txuntxurrian etxe bat neurrian;
milla eta laureun eta bost bider amalau
lurra baño ederrago da jauregi eder au.

Millaz daukoz barruan lotoki ta gelak,
ta urregorritzko uarkak ta mai ta ezkabelak:
kopak eta pitxarrak amatistazkoak,
ta goti dindilizka geldi izar mordoak.

Jauregi eder onetan beti zan eguna
ez eguzki beroak egiten deuskuna,
ezpada zoriagaz eder eztitua,
begien iñorraz Jobek argitua.

An egoten zirian Jaun ta Andrak batera,
an soñua entzuten zan joa berez bera;
an zoriak eukazan pozez ondaturik.
atsegiñen barruan jauntasuna arturik.

Ezin zan zorion au izatez gitxitu,
denporia ezin dan lez bein ez bein gelditu;
baña beti eukitiak zorion bardiña
zerbait urtuten eutsen Jaunai atsegiña.

Elduten jakenian atsegin gosia,
Hebe'k emoten deutse «nektar ta ambrosia»,
Jobe'k egiñak bere jakituriagaz,
zorien ta atsegiñen lurrun urtsuagaz.

Jarri zirianian Jaun Andrak maietan,
dantzan egiten eutsen pozak biotzetan.
Hebe'k emoten eutsan lenengo Jobe'ri,
bete baño len kopak Andra ez Jaun bateri.

Gagozan egunian, betiko moduan
Andra eta Jaunak pozik maien inguruan
batera asi zirian anbrosia edaten
ta utsitu zituezan kopak arin baten.

Baña kopa utsituak eukezan artian
atsegin andiagaz ezpañ bitartian,
«Discordia» bakiaren arerio latza
agertu zan Olinpo'n, eriola batsa.

Bota eban mai ganera papiro zatia,
Marte-ganantz eukela ziñuka begia:
bertso batzuk zirian Apolok egiñak,
Marte ta lagunentzat, piperra lez miñak.

Betaurreko ederrakaz armatuta surrak,
txistuagaz botata bere agoko adurrak,
Jobe'n aginduz bere sekretarioa
irakurten asi zan Jaunari papiroa:

«Marte ta Pluton panparroiak,
erkin artian erraldoiak,
eta Neptuno barriketan.
bildurra dabil ezkutetan:
Panparrerien ezkurra
da azal barruti bildurra».

«Erren bat dabe laugarrena,
lauren artian ezaiñena;
laugarren onen bekokiak
barreka daukaz Jaun guztiak:
zer ete dauko buruan
bere bekoki inguruan?»

Ez zan Vulkano ain arin Olinpoti jausi
Lemos'era, ister bata jakanian ausi;
ez dau ain gitxi irauten udako egunetan
oñastuen argiak zeruko odaietan;

Ez da ain arin urtuten edurra suagaz,
ez da sua amatetan ain arin uragaz,
eta moltso igartuak nai galtsu sikuak
ez dituz auts egiten ain arin gar-suak;

Zein exetu zirian lau Jaunen biotzak,
Marte eta Pluton'enak iñox bere ez otzak;
Vulkano gelditu zan agoa zabalik,
eta Neptuno egoan beti lez itzalik.

Bere begietatik Marte garrastuak
askatuten zituzan odai ta oñastuak,
eta noxik beñian tximista gorriak.
Odol exe biotzen suzko garrasiak.

Bere aginduz jatsi zan Belona mundura,
zaldi Pavor ta Terror egozan lekura,
burdiari alkarregaz biak buztartuten,
eskutua garbitu ta armak zorroztuten.

Ai ze itzalgarria zan Martek eukan plana!
Baña egingo eban Marte'k berak nai ebana?...
Jobe egoan Haduen librua irakurten
jakiteko ze askanek biar eban urten.

Artian igas eben ezer esan barik
lau Jaunak eta ez eben egin zaratarik.
Trinakrio'ra joiazan Ziklope batuten,
eta guda egiteko neurriak artuten.

Momo egoan barreka, beti egoten zan lez,
ezpanakaz bakarrik, biotzeti baña ez:
barre ziñularia, barre zitalena,
baketsua suturik iminten dabena.

Venus'ek zirudian arrizko andra ixilla,
josita bere saman naibagazko arilla;
Palas ta Jobe egozan libruan begira
eta askotan alkarrri berbaz belarrira.

Alan emon eutsezan Jobe'k mandatuak,
bete ledizan artez guztien Haduak;
eta gero librua gorde eban kolkoan,
ifiok igarri barik zer eukan gogoan.

Iris, Ninfa apaindua zazpi koloregaz,
jatsi zan Olinpo'ti txoria lez egaz
Minerban mandatuak munduan egiten
eta biar zaneke gauzak prest eukiten.

Parnaso'n agertu zan egaztara baten
Apolo'ri ta Musai zer egin esaten;
andi joan zan laster Delos urartera
senarrik nai ez eban andrian aurrera.

Iru atzeko andra garbi, «ta ez andra koldarra»,
bere amatati Apolo'n arraba bakarra,
igitu ta prestau zan Ninfa guztiakaz,
burdin-txapel ta eskutu ta arku ta fletxakaz.

Erdiak iminita berari begira,
banan ta besoz beso ta orpoak arira,
gudarizko egin eban banari zuzena,
buru zale Kalisto, gudari ederrena.

Beste berrogei Ninfak, nai goiti nai beti,
banaritu zirian pausu bat atzeti;
gero jira lauren bat eskumako aldera
egin eben guztiak bardin ta batera.

Eskutuak ta arkuak euren bizkarretan,
 eta fletxak loturik esker-alboetan,
 asi zirian Ninfak aupada bategaz,
 atak lez errezkadan, bein oñez bein egaz.

Aria galdu barik errezkada biak
 igaro zituezan itxaso ta erriak.
 Eldu zirianian Pamaso mendira,
 jira lauren bategaz egozan arira.

Orduan urten eutsen soñu gozo joten
 Musak etorrerian albistia emoten;
 eta euki barik berbaz gerora begira,
 eroan zituezan euren jauregira.

Bidian emon eutsan Dianak Erato'ri
 mandatua emoteko ziur Apolo'ri,
 ta atsagoten aitzakaz igon barik gora,
 joan zan Andra andiau egaz Olinpo'ra.

Bako Jauna bizi zan txabola eder baten
 berak eginta eukazan ardaoak edaten;
 jaun zorionekoa, zeñen arazua
 dan garbitu ta bete ta utsitu basua.

Irisek topau eban mozkor andiagaz
 aratik mai azpian loituta bitsagaz,
 baña Jobe'k emon ta aldian eroian
 zegaz imini Bako biztuta errazoian.

Utsitu eutsen samari agin bitarteti
 edari atara ebana Bako mozkorreti;
 mirarizko edari au izan zan antxiña
 Ida'ko bedarragaz Apolo'k egiña.

Iratzartu zan Bako, burua argituta,
 baña zer jazo jakan ez eban gomuta;
 laster ezereztu eban ardoan enbata,
 ago zabalik nagi batzuk aterata.

Iris'eri ulertu eutsan lenengo esanian
 ze gorabera izan zan Olimpo'n ganian,
 eta Minerba Andriak erabagi ebala
 bere laguntasuna gudan biar zala.

Aginduak esanta, laster alden du zan
 mandadari galantau, Bako itxita bertan,
 joateko Naxos'ko zugazti batera,
 andi biurteko lenbait len atzera.

An egoan Pan Jauna subil gane baten
bere bizar zuriak banaka ateraten.
ta aurrian Satiroak zutik itxaroten
nox asiko zan Jauna txilibitu joten.

Onetan agertu zan odaizko burdian
Iris mandataria landian erdian;
ta Pan baño besterik ezagutu ezarren,
guztiai esan eutsen ze mandatu ekarren:

«Neure entzulak, asi zan, Jaun dozuena Pan,
zurrik adituizue zer esaten dodan.
Olinpo'ra eldu dira munduko barriak,
ez jaun batzuentzako gozoak guztiak.

»Mercurio barritsuak esan deutse Jaunai
adituteko kontuz Apolo ta Musai,
bada amar nebarreben zoriona baño
ez dala andiagorik izan oraingaino.

»Au entzun dabenian Marte'k ta lagunak
erabagi dituez errazoi astunak,
eta Jobe Jaunaren baitasuna barik
Olinpo'ti igaz doaz Apolo il gurarik.

»Neptuno ta Vulkano, ta Marte ta Pluton
gudari billa dabiltz, nai txar izan nai on;
Etna'n batu dituez mallukari ezaiñak
ta itxaso ezi bakoan gizon erdi arraiñak.

«Ziklope begibakotx berreun bat inguru
batu dira, dabela Polifemo buru.
Euren armak dituez sutegi-malluak;
jantzia amantal bana, ta oñazpi narruak.

»Neptuno'k batu dituz berreun ta amar Triton,
zeintzun buru dirian Efialto, Othos ta Orion.
Triton guztiak daukez magurio andiak,
joteko arma denporan soñu itzalgarriak.

»Orren ganeti daukez azurrezko ezpatak,
gogortu dituzanak kresalen enbatak,
ezpata alan deritxon itxas arraiñenak,
batelen arerio beti ta andienak.

»Tritonak ezin dabe liorrez pausurik,
ez ta burdin-txapelik dauke, ez eskuturik;
eta dakizuelez, iñor burdian
ezin ibilli leite Parnaso'ko atxetan.

»Zikople, bizar barik, daukezenak garrak,
ta sutako txingarrak narrastuta oñ-arrak;
austen jakezarian euren berna azurrak,
ikusiko dabe atxak badira samurrak.

»Zuok, biotz sendoko Satiro maitiak,
atxak dozuezanak berezko bidiak,
zuek zare bakarrik Minerbak autuak;
zuen pentsuan dagoz gaur munduko Haduak.

»Bosteun Satiro zare, ta ez euki ardurarik
bosteun milla goituteko beste lagun barik,
eta orain goituteko dozuez lagunak
Ninfa ederrak eta asko, biotz samurdunak.

»Palas andia dator onai aginduten;
Palas'en izenak nor ez dau azkortuten?
Palas'ek aginduta nator zuek gana;
bere aginduz joan da Parnaso'ra Diana.

»Prestau zaite, Pan, laster guda onetarako,
itxaroten itxi dot zeure lagun Bako.
Exetuizu ondo sua zure biotzena
ta zoaz irabazten honra andiko izena!

»Satiro biotztsuak, itxizuez dantzak;
eta eskuratuizuez goitu bako lantzak;
izendauta Ninfa bat, amaituta guda au,
daukazue bakotxak, irabazten badau».

Berbaldia amaituta jazo zan ixilla
ta asi zirian danak euren armen billa;
armauta zirudien euren adarrakaz
bosteun ez eze, milla, ta arma gogorrakaz.

Eskutuak ta lantzak botata lepora,
asi zirian danak atxetati gora,
eta beti saltuka batetik bestera
eldu zirian Bako'n txabola ederrera.

Laster ardaoa asi zan Satiro goituten,
zeintzuk ez eutsen ezer alkarrei entzuten.
Bakotxa zan upa bat gaba eldu zaneke,
baña ez zan iñor gauza zutik egoteko.

Azpiratu zituzan neurri bako edanak
eta jausi zirian auspaz ta arat danak.
Ilta imiñi zituzan Bako'n edariak,
baña biztu zituzan lenengo eguzkiak.

Bako ta Pan egozan gela bakar baten
ipoin zoroak esan eta ardaoa edaten.
Azkenian eguzki barrian iñorrak
argitu zituezan euren buru sorrak.

Bosteun Satiro sendo menpian eukezan
eta bost pillo euneko egin zituezan.
Bako zan agintari, laguntzaillia Pan,
eta pillo bakotxak nagosi bat eukan.

Ebenian goxaldu Satiro guztiak,
ibilteko agindu eutsen euren nagosiak;
baña ibiltia zan lez saltuka ta atxik atx,
arira erreskadetan joaten euken gatx.

Pindo'n prestau zirian txabola nasaiak,
itxi barik aitzurik eskabel ta maiak.
Ara joan zirian Satiro malmutsak,
ta ez egozan lekura Ninfak eta Musak.

Ezita ez egozalez gudako lanetan,
ebiltzezan ikasten gox ta arratsaldetan.
Ez zan Ninfarik iñox elduten Pindo'ra,
baña bai Satiro bat noxbait Parnaso'ra.

Pirafros gelditu zan Olinpo ganian,
ta ez ekian zer egin orduko lanian;
edo mundura jatsi eldu zan bideti,
edo bertan gelditu bizi izaten beti.

Orduan eldu jakan Venus belarrira
esaten joateko Parnaso mendira
Apolo'ri eroaten ulezko erestuna,
gogoratuko eutsana gurasotasuna.

Eldu zan opaiagaz Apolo'n aurrera,
zeñek argi esan eutsan aita ebala bera;
baña ez jaken Pirafros gogoratu Musai,
ez ta Diana'ri bere, Erato onari bai.

Beste zortzi aitzak baño zan Erato obia,
ta oneri sartu jakan gogotan lobia:
bigun euki ez balituz Erato'k erraiak,
ezagutuko ez eban Musarik Bizkaiak.

Autatuta lekuak landa basoetan,
Vulkano ikatzgiñakaz asi zan Oeta'n,
txabola onak egiten alkarren urrian
eta amaitu zituzan amar egunian.

Amaikagarrenian begi bakardunak,
 ezker-leporatuta burdin-mallu astunak,
 pilloz eldu zirian eta txabolatu,
 bakotxari gatz batek ez leion oratu.

An egin zituezan sutegi barriak
 malluak egiteko ta ez ofiastarriak;
 baldin ez baleutse egin laster sutegirik,
 ez zan geldituko bat otzagaz bizirik.

Lenengo egin zirian pikatxoi-malluak;
 geroago atxur-mallu ta arito-buruak.
 Noxik beñian Marte'k asmu bat eroian,
 ilteko gizon asko guda bakotxian.

Iru agoko txakurra beragaz ebala,
 Oeta'ra agertu zan Pluton jaun itzala;
 emon eutsen txabolan, lotuta katian,
 imini eban jagola Kanzerbero atian.

Itxaso illargietan azten ez daneti
 joiazan Neptuno ta Tritonak atzeti,
 egunaz beti pozik ugar ta kantetan,
 atsaroteko gabaz atxen azpian.

Peneo ibaira artian osasun onagaz
 joan zirian ta arin ta bake andiagaz;
 an eukezan tokiak eginik munetan
 aurrez aur ibaiaren alderdi bietan.

Bein egoan Peneo'n eta bein Oetan
 Marte, eziten guztiak guda-jolasetan;
 alan azten zan bizkor guda-landaria,
 guztiz mingotsa eukana barruan garia.

ORIXEREN ESKUTITZAK

Orixek azken-urteetan Oiarzabal jaunari bialitako gutunak.

I*

Ez, ez. Ameriketara bidea artu izan duten euskaldunak ez dute beti beren erría utzi eta urrun artára jo, emen aspertu diralako edo etsimena artu izan dutelako. Ez dute guztiak aruntz iges egin dirubide errezagoaren pozez, andik indiano aberats egiñik etxera itzultzeko ametsez. Ez dira guztiak beren borondate edo apeta utsez atzerri urrun artaratu.

Asko, egia esan, alabearrak, ezinbestekak, bizibearrak eraman ditu. Baiña beste asko giza-ekaitz gogorren batek bearturik joan dira eta beren gogoaz bestera, Euskalerria biotzetan barna sarturik zeramatela.

Onelakoek ez dute bere jaioterria ukatu, ez aaztu, ezta beren euskalduntasuna ere. Onelakoek beti esan zezaketen: Nik, noan lekura, nerekin daramat euskera, nerekin Euskalerria eta euskalduntasuna. Ni non, an da nere erria. Ori gertatu da, batez ere, azkenengo urteotan. Ez det esango leenagoko aldietan ezer berdintsurik gertatu ez zanik. Iparragirrek eta Otañok ezetz esango digute. Baiña azken urteotan nork ez du aitortuko ori askoz geigori gertatu zaiela, iñozko geien agertu dela?

Izenak mordoka datozkigu gogora: Lontzi Ormaetxea, Toribio Etxeberria, Jakakortajarena, B. Larrakoetxea, B. Ametzaga, Irazusta, Eizagirre, Atutxa (Eltzegor), J. R. Zubillaga, S. Mitxelena, J. M. Mokoroa. Guztiok erbesteko ogia jaten zuten urteetan lan izugarri ederra egiñak dira euskal-literaturan. Erbestaratutako oien euskal-

* Orixek Oiarzabali, Karmel 1979-4, 47-67.

lanak ez ote du gure literaturan aipamen berezia merezi? Euskalerrri barruan bertan euskal-idazleen otsa ixildu zanean eta gure ortzeko izarra itzaldu, idazleok, zeuden lekuan, batez ere Amerika erdiko eta bekoan, beren otsez bazterrak inarrosi eta izar berri bat piztu zuten. Emen ixillik gelditutako aldizkariaren orde ere, an atzerri artan berriak sortu zituzten: erdera-euskerazkoak asko, baiña euskera utsezkoa ere bai bat.

Ain zuzen, berariz utzi det aipatu gabe euskera utsezko aldizkaria atera eta zabaltzen geien saiatu zan laukotea: Zaitegi, Orixe, Oiarzabal, Ibiñagabeitia. EUSKO-GOGOIA, aldizkariaren izena. Olako aldizkari bati ateratzen lagundu eta bizirik eusten etxean bertan ain zail gertatzen bada, atzerrian ori egiteko izango zituzten zailtasunak eta eragozpenak ez ditugu errez asmatuko. Gizon gogobero aiek, idazle adoretu aiek, ez zituen ezker ere atzeratu. Eta orretarako artu zituzten nekeen berri Jainkoak daki.

Laukote ontako gizonak, laurak, gaur galduak ditugu, illak dira. Azkenengo illa, ain zuzen, guztien sustatzaile izana, Zaitegi jauna. Izerdia, izerdiaren irabazia, ain zuzen, dirua, dana utzi zuen ekintza onetan, sariaren itxaropenik gabe, esker on andirik ikusi gabe, dana euskeraren eta Euskalerrriaren maitez. Zaitegi onen eta beronen inguruko lanak ez du illunpean gelditzerik merezi.

Illunpe au zerbait urratzeko, gai ontan argitasuntxoia egiten laguntzeko, KAR-MEL onen orrietara ekarri nai ditut karta batzuk, gutun batzuk, Orixe Oiarzabal jaunari urte aietan bialiak.

Laukotean, aipatu dan laukotean, bikote zaarrena eta kutunena egiten dute Orixe eta Oiarzabal apaizak. Adiskide miñak ziran aspalditik, Comillas-ko urteetatik asita gutxienez. Gero Bilbon alkarren lagun jarraitu zuten. Azken urteetan ere alkar-lanean jardunak dira Euskal-gramatika bat sortzen (O. eta O), Orixe il ondoren Donostian argitara emana (1963).

Oiarzabal jauna Begoñan il zan 1966gn. urtean eta il aurretik adiskide bati utzi zizkion emen irakurriko diran Orixeren eskutitzak. Idazle onen ezagutzarik askok ez izatea gerta diteken ezkerok, jakin beza irakurleak euskeraz idatzi dan Jesukristoren Bizitzarik sakon eta luzeena apaiz onek idatzia dala, Aita Villasantek aipamenik egin ez badio ere. Eta ez du, euskeraz idatzirik, liburu bakarra.

Orixeren eskutitzetan, ordea, ez zaigu bakarrik idazle bion arteko adiskidetasuna ageriko, bai beste gauza jakingarri asko ere. Emen ikusiko degu, leenbizi, olerkariaren idaz-lan askoren sorlekua: Kiton arrebarekin, Bolibiako zabaldiak aren gogoan utzitako aztarna, eta abar. Emen argituko zaizkigu urte aietako ainbat xeetasun: nola Peru utzita Guatemala eta Salvador aldera joan zan, Zaitegi jaunari EUZKO-GOGOIA ateratzen laguntzeko, nola egin zan irakasle eta etxalde andi bateko beizain. Emen ikusiko ditugu bat edo besteren aurka izan zituen borrokak, eta ez lumazkoak bakarrik, bein indiar baten eskuetan illik gelditzeko arriskutik irtetzeko besoen indarretara ere jo bear izan baitzuen. Emen ikusiko degu nola zijoazten eskuartearen zerabiltzan idaz-lan asko eta asko: Salmoak, Agustin donearen *Aitorkizunak*, eliz-otoitzetako imnoak, egiten ari zan lan nagusia (Argi-erri?), *Jainkoaren Billa*, *Euskaldunak* poemak izandako kritikak, Olabide-ren Biblia zala-ta, jesuitekin erabillitako auzia, ta abar.

Idazle baten lana aztertu eta neurtzeko, aren bizitzako goraberen jakitea lagun-garri zaigu. Orixe olerkari bezela, idazle bezela eta gizon bezela ezagutzeko, ez zaigu

gaizki etorriko karta auek erakusten diguten aren alderdia. Bide batez, eta tartean tartean, EUZKO-GOGOIA-ren inguruan euskal-idazle askok atzerrian euskeraren saillean zeramaten ekintzak argi berririk artuko du. Ala ustez ekartzen ditugu eskutitzok KARMEL onen orrietara.

Quitotik 1950'ngoko Garagarrilaren 9'gn.

Oiartzabal'dar Martin Jaunari. Rosariora.

Adiskide aundi: Onezkero ba dut nagjak ateratzeko edo nere berri emateko garaia. Zu or zaituket, noski. Gaur amabost iritxi nintzan onara, eta artean itz-aspertu ederrik egin dugu anai-arrebok. Emendik aurrera ez du baimenik nerekin jarduteko, astean bein baizik. Emen luzarago egotea alperrik da.

Ez ote dakizu gaurgero, Guatema'ra noala Zaitegi jaunarengana? Ni joaten ba nakio, ez omen du poto egin-bildurrik bere Errebistarekin. Agindu diot, bada, eta arako sarreraren begira nago. Datorren astean antolatu ba nendi, ara noake egaz. Ikusi al duzu EUZKO-GOGOIA dalako ori? Ba ditu lankideak, eta onak, jesuitak barne dirala. Ez dakit noiz itzuliko naizan Europa alde artara.

Bitartean nere *notak* eta liburu-gaiak an egon bearke dute etzanik, Ziburu'n, Orixe'n, Donosti'n. S. Agustin ere bai. Oraindio gazte nagola iduri zait, eta gero ere ba dukedala asti lan aiek biribiltzeko.

Noiz arte zaude or? Aldi bateko bai? Europan baño obeki, bearbada.

Ni baztarrak ikusiz etorri naiz legorrez Arekipa'raño. Bolivia'ko gainordoki aipatu ori, arrigarria da. Gero Bolivia'ko ta Peru'ko mugan, Titikaka aintzira: ontziz igaro genun. Arekipa'tik Lima'ra, Guaiakil'a ta Kito'ra, ega-ontziz etorri nintzan aberatsak bezala. Buenos Aires'tik Ecuador'eko mugaraño toki ederrak dira. Ecuador'eko mugan asten dira, ain zuzen, mendi apain eta basoak. Quito iri au erri-koskor polita da, karrikak magal eta zabal ditula. Otzik ez, berorik ez, «betiko udalena» esaten baitiote. Lau aroenik ere ez, eta egun argia seiretatik seiretara. Toki zoragarria bizi izateko. Guatemala ere olatsu omen da. Ango Europako negueri iges egin diegu. Baztar auetan bertakotu ezker, gero lanak angoetan oitzen!

Goraintzi asko senar-emazteari ta illoberri.

Memento

NIKOLA

Guregana Zuzenbidea:

6 A. Avenida Norte, n.º 11

GUATEMALA. C. A.

Guatemala'tik 1950'ngoko Gabonilaren 10'gn.

Adiskide aundi: lotsarik ez dudala esan bear zenidan. Len nagi ta orain nagiago. Zureak jaso genitun. S. Martin egunez ere oroitu nintzan. Egun batzutaz lenago ere

bai karta egiteko, baña ez-gurari ederretsi nion. Izan ere ainbesteraño zorazten nau Aldizkari onek! Irarkola dugu ezin-askatuzko korapilloa. Au genun asmo: urtearen azkenerako atzeraldia berdintzea iru zenbaki bikoitz atereaz. Itza ematen prantsesak baño areago dira emen, eta itza jaten ez diteke auek añañakorik. Esan diot Zaitegiri multikopistaz argitaratu bear genukela illean illekoa. Azkenean ori egin bear ko. Bera lanez leporaño beteta dago, «Instituto Americas» orrekin eta nik ezin dezaket zotzik egin arantz-onantza. Bizkor asi giñan, baña «arrancada de caballo andaluz, parada de burro manchego». Irarkola'rá kilometro osoa daukagu: yoan-etorri bi. Egunean lau bider egiten ditut oñez zenbait aldiz, bi aldiz gutxienik, iru aldiz askotan. «Bus» - ez asi giñan, baña diruz gaizki xamar gabilta iru illebeta auetan. Gizajoak ez du kemenik ukatzeko, eta eman dun dirua etzaio berriz etxeraten. España batek (ige-segiña ura ere, gu bezala) txarkeri aundi bat egin dio. Irten-bide polita daukagu. Ni Salvador'a yoan ba nendi (an egotera) argitara-gaiak poliki poliki kopiatu nezazke, ta emen multikopiaz atera ditezke. An sendi bat dugu oso adiskidea. Ara eraman nai naute, beraien landaetxe batera (Itsas-begi edo Miramar). Bakartasun artan asi ninteko nere lan andia egiten.

Ez dago gaixotegi txarra zuen etxe ori! Gaitza zer dan nik dakit ederki ainbeste ikusirik nagon ezkerro; baña osasuna ere bai, batez ere Amerika ontan. Asi *Bahía Blanca'úk* eta onaraño oso ederki ibili naiz. Buenos Aires'en bertakoek baño lo obeki egiten nun, beroa bero. Goi-miñik ere ez dut ezagutu Bolibia'n eta Quito'n. Arrebari, goi-miña egiten zaio noizean bein. Bestela ederki dago osasunez. Berrogei egunez bakarrik itzegiten utzi ziguten. Itz-aspertu ederrak egin genitun! Or Miren Itziar bizkorrena, beraz. Gorria ikusia da gaixoa Donibane aldi artan!

Labaien'ek esan didanez, Maritxu Barriola'k ni ara joatea nai omen du, Misal'a bizkaieraz ateratzeko. Atsegin dago ara yoaten, batez ere guda piztu ba'ledi! Iburgutxik naiz Manterolak egin dezaketela esan diot.

Zuk bial iguzu zerbait argitaratzeko. Iketaz baldin bada, nik ere egiteko daukat. Biok elkar artuko dugula iduri zait.

Poemaz iritxiak asi dira. Ibinagak eta Zaitegik bakarra dala diote eguzkiaren azpian, eta epopeiarik obenari ere kentzen diola zenbait gauzetan. Beste aldetik Monzon'ek au esan zidan: «el poema es hermoso pero le falta una cosa: le falta sencillamente poesía» (Itzez) Laffitek ust du ederki beazuna. Bere burua ederki kaxkartzen du; baita apaiz-yantzia ere. *Manaué d'unité organique, de chaleur... il n'aimepas la vie, contempteur du monde... aigri. ect., ect.* Nere gañetik jartzen ditu Txomin Agirre ta Lhande, bañan azkenean... denak baño geiago naizela dio. Bearren bearrenean uts egin omen dut. *C'est peu de chose.* Fagoaga'k oso asarre daudela esan dit orko nere adiskide guziak gizon kaxkar orren aurka. Nik ez dut batere lorik galdu, Jaunari esker.

«Humani Generis» irakurri al duzu? Arrazoi ematen dit gauza guzietan Mr. l'Abbé Lorre'kiko auzi artan. Ederki jotzen ditu sasi-jakintsu oiek!

Bizkor bizkor egin zaitezke guziok.

Memento.

NIKOLA

San Salvador'tik 18-XII-50.

Adiskide aundi: Eguberri ta Urteberri on, zuri ta etxeko guzieri, osasun oberekin. Jainkoak ala nai dezala.

II onen 12'garrean iritxi nintzan onara, Erregenak igaro arte. Emen narabilte arontz-onontza baztarrak erakutsiz, eta ez daukat idazteko gogo aundirik. Txolarte bat bederen artu bear detala bi lerro egiteko, ta ez dira asko geiago izango.

Or baño beroago egiten du emen; baño ez or bezain bero itsaskorra. Gauetz prexkatzen du poliki, ta lo ederki egin diteke.

Nerea jaso dukezu, berriki xamar egiña.

Agortu zait lapikoa.

Eguberri on, Urteberri on.

Memento.

NIKOLA

Zaragoza'tik 28-11-51.

Adiskide aundi: «Onezkero gure D. Martinek bialduko zidak lan sailen bat beltza euskal-aditzaren z'tearengaz» ari nintzan nere artean, eta... «ezertarako gurarik ez». Jainkoagatik! «*Primum vivere, deinde philosophari*».

Beraz, etxeok ere aibestean, txikiena ezik. Nik osasuna aparta Jainkoari esker. Lanaldi polita egiñik nago onara etorri ezker, bai Zaitegi'rentzat, bai neronen-tzat. Ipemua, Garbategia ta bataiagabeen Aurtegia bukatuak ditut. Bañan orain takatz egin bear. Arian, bear eta bear ari zaizkit, Ikastetxe Nagusian sail bat artzeko, latiña naiz pilosopia naiz Literatura. Lengo irakasle guziak aizatu dituzte ikasle tzar oiek. Urte bete opor egin dute. Orain auteskundeetan ari dira, Nagusi ta abar autatzeko. Irakasle batzuk itzuli nai omen. Ni berriz ezin ukatu nakie ain kutun naukaten jende aueri. Ez dakit askenean zer emango didaten. Latiña nuke gogokoen, gertuago bainaiz ortarako. Emengo irakasleak «edozetako neskame» bezala omen dira: «des bonnes á tout faire». Oso atzera daude buru-lanetan.

«Migración» ori aspergarri dala? Ondo ezagutzen nau etxe onek. Illabeteko dantza erabilli nun (terdi ere bai ongi beteak) egunik utsegin gabe joanez, eta zenbait aldiz egunean bi aldiz. Bearrik neukan urbil Avellaneda'tik. Emengo agiriak bereala antolatu dizkit Aita Egibarrek. Sei illabeteko lenbizi; gero... urtebeteko, edo ikusi egin bear emengo erria artzen komeni zaidan.

Biar asten zaigu urtean dan illabeterik beroena. Ez diot bildurrik, Jainkoari esker. Beti bero egin arren, orainarte, beintzat, ez dut sumatu gure aldi aietako sapa edo sargori astun ura. Emen burua beti garbi lanerako.

Fagoaga Isidor ez baño Bladi (Blas) diteke urgazle autatua. Zu bezalako apaiz gizon puska da, Erratzua'arra, Iruñako Apaizgai-etxean euskera irakasle.

Misal'arengaz berri onak ematen ditidate irakurri duten bakarrak. Argitara baño len Montzon'ek irauli zidan, eta, berak otoitzak aurtzarotik erderaz egin arren, eus-

kerazkoa barrenago sartzen zitzaiola esan zidan. Orobat Labaien'en emazteak: «Por fin hemos visto el Misal, preciosamente encuadrado en Valencia. Merece Vd. un gran premio, pues está perfecto y claro. Lo pienso usar, dado lo bien que entiendo, y que me dice muchó más que el español que tengo. Ha puesto Vd. mucho calor...»

Maritxu Barriolari au erantzun diot; bizkaieraz Ibargutxi'k ipiniko dula ederki, naiz Manterola'k. Nik ez daukadala betarik.

Mila goraintzi Agirrezabal jaunari. Eta Mendiola jaunari ere bai, oraindik or ba'da.

Memento.

NIKOLA

Finca Miramar. Zaragoza. El Salvador. C. A. 8-1-51.

Oiartzabal Martin Jaunari. Errosariora.

Adiskide aundi: Lengo ilaren 12'garrenean iritxi nintzan onara opor-aldirako ta oraindik emen arkitzen naiz. Zaitegi jauna etxera itzuli da emen geldi naitekela esanik. Emen bizi izateko agiriak antolatzen ari naiz. Emen nagola pake obean egingo dut nere ametsetako aspaldiko lana; E. GOGO'A'ri emendik berdin lagunduz.

Zuk *iketaz* egin duzuna Guatemala'ra bialdu ez ba-duzu, bial idazu onara. Nik zerbait eratziki dezaioket zureari, edota beste lan berri bat egin, nai duzun bezala. Elkar artuko dugula iduri zait. Len biok egindako lana, ez dakit Ziburu'n ala Bidaurrai'n utzia dutan. Zuk zerekin baldin ba duzu, ta artaz idatzi nai, ederki letorke E.G.'rako.

Toki zoragarria au lanerako. Bakartasuna, ixiltasuna, pakea. Landetxe au Muys-hondtarrena da. Senarra Flaming'darra, emaztea emengoa. Oso jende onak dira: Zaitegi'ren lenagoko adiskideak. Landa onetan 300 bat langille dituzte. Uztarik bein-ñenak akeita eta azukrea. Beitalde ederra. Mota guzietako igaliak. Emengo zugatz auek eman eta eman ari omen dira urte osoan. Ez dira amabost egun pikondo bat muskildu zutela; baña beste amabost orduko emango ditu jateko modukoak.

San Salvador'tik ordu erdi batera nago (autoz) eta itsas-egitik amar minutura. Nagusia eguneru dator seme batekin. Azukre-ola dute, ta uzta bukatu arte eguneru etorriko dira. Gero ere aski maiz. Beste landa bat dute emendik urruti gabe, 75 langillerekin. Igandero ara joaten gera eguna igarotzera.

Erri koxkor onek Zaragoza du izena. Jendea erdi-beltx oietakoa: oso goxoa. Emengo beroa, itzalean eramankorra da. Gauez prexkatzen du orainaldian poliki. Lo ederra egin diteke.

Eta or? Betiko bero astuna? Zertan da gaixo-etxe ori? Zu obeki al zaude? Erretzeari utzi al diozu?

Eguzkia jeixten asi da, ta txango bat egitera noa.

Gorantzi etxean.

Memento.

NIKOLA

Zaragoza'tik, 22-V-51.

Adiskide aundi: Bidari ontan bertan bialduko diot Zaitegi iaunari makiñaz ipinirik zure lantxo. Oso tara zurekin nago ta Ostolaza'rekin. Bi gauzatxo eratziko ditiot lan orri: amaseigarren mendean loannes Leizarraga'k *hire izena, hire eresuma* idatzi zula, *zure izena, zure eresuma* ordez; eta Azpeiti ta inguruetan *ba-natxik*, etorri *natxik* (naizak'en antzera) esan oi dala, ta beste nonbait *gizak, gatxik* edo *gaituk* ordez. Zure izena oso osorik eman dut. Agertu nai ez ba'duzu, garaiez zaude esateko.

Emen negua asi, bañan aski bero oraindik. Beti ere, lanik ez du galarazten. Aurtengo Garizuman olerki sail bat egin dut, Zaitegi iaunak zirikatatu naulako. Ogeitamar ba'ditut, eta liburutxoa atera nai luke oiekin. Oiek omen dira bersoak.

Uriburura ioaten naizenean, A. Egibar'i zuketaz goraintzi emango. Ez dakit kalearen izena ta zenbakarrena, bañan aski duzu «Colegio Externado de San José» ipintea. Bestela «Seminario de San José de la Montaña». Emendik bialduko diote, Jesulagunak baitaude. Baña «Colegio Extemado de San José» izen aundikoa da.

Egiozu euskeraz. Nagusiak ez du geldiaraziko zure gutuna, oso gure aietakoa ez ba da ere. Azpeitiarra da, Aranguren. Nik Xabier'en ezagutu nuna. Orain gurekin atsegiñago agertzen dira, bildurrez edo. A. Estefania zanaren paperetaz aspaldi galdegin zuten, gu Prantzian giñala, bañan autsak eta pipiak ianak zirala edo olako zerbait asmatu zuten. Ez al da lotsagarri?

Bialdu, bialdu esaten dituzun lan oietarik.

Onezkero Errosarion zaitugu. Zer diote Gaixo-etxe ortan? Goraintzi guzieri. Ni orain Poema gazteleraz ipintzen ari naiz, Zaitegi'k esanik. Ba omen du adiskide bat Ipar-Amerikarra ta ari emango omen dio inglesera biurtzeko, balio baldin ba'du. Ez letorke gaizki.

Gaurko egunerako, guzitarako oporra iragarria zuten gurean. Zer gertatuko ote da? Gaixoak barrenean daudenak! Iruñian gertatua gogorra omen. Zabaltzen baldin ba da, lanak izango dira. Emen bildurrez daude.

Patxik beti bezala komunisteri egozten die. Ez al gindun isastu marxo-separatista guziok? Nondik sortu zaizkio? Berak egin al ditu? Komunisten aurka bialdu omen zun lainkoak. Ba-dauka eskuak bete lan. Oinbeste odoloren ondotik ori atera du. Ta etorriko dana.

Ez daukat besterik esateko. Goraintzi berriz ere etxekoeri.

Memento.

NIKOLA

Zaragoza'tik, 14-VII-51.

Adiskide aundi: Onezkero Errosarion ote zaitugu? Ez lizake arritzeko. Ni ere or ibili nintzan ene agirien atzetik bi illabete urbil. Buenos Aires'en baldin ba'zaitugu, gaur bertan egiten diot Fagoagari. Zaitegi'ri nonbait ez nion garbi esan O- ta O ipintzeko, bañan esan nion onara etorri zan batean. Gaurgero n'raturik ez ba'lego, aldaraziko zula agindu zidan.

Orain auzitxo bat: Amezaga'tar Bingen ikusia dukezu Montevideo'n. Len karta bat egin zidan, Ele eder saileko irakasle Guraso (Dekano de la Facultad de Letras) dalakoak agindurik, nere poema euskeraraten asi zala. Zenbait zailgune billatzen zitula ta ia lagunduko nion. Itzulia neukala erantzun nion, eta *copia* bat bialdu nezaioykela.

Orain beste bat egin dit aun esanez: «Como la Universidad me dio el encargo de hacer la traducción, yo la haré como mejor Dios me dé a entender y con su ayuda. Nada se perderá con ello. Yo cumpliré mi encargo, a lo cual no ha de obstar el que para entonces o antes tenga usted lista su versión. Qué le parece?»

Zer erantzun dezaioket? Zertako bi itzulpen? Ez al da ori elkarren buruzki iardutea? Zuk erantzun arte ez diot bialduko copiarik. Eta, okerrera asi ezkeru, nere baimenik gabe itzuli al dezake? Universidade orrek ez al luke onartuko egillearen beraren itzulpena?

Zaitegi iauna Dagonillean etorriko zaigu oporraldira eta orduan eramango du, Ipar-Amerikar bati erakusteko. Gondra'k ingelesez oso ondo omen daki, eta onek lagundu omen dezaioke ingeles bati itzulkizun ortan. «Primero Dios», emen esan oi duten bezala.

«Bear duzun atsedena artu» esaten zenidan. Nai ta nai ez, oraintxe: oporraldi dut, lan geitxo egin eta. Berela berrituko naiz, ustez, Iainkoa lagun. Nere *notak* ere bidean dira, ta aiek iritxi arte ez dezaket lan gogorragorik asi.

Zubizarreta Azkoitiarra (Chucherías) Guatemala'ra etortzekotan dabila. Neri egin zidan eta Zaitegi'ren bidez arteak egiñak ditugu, bai Gobernuaren eta bai Gotzai baten aurrean. Onek (Jalapan Gotzaiak) eskabidea egin dezala erantzun du, eta onezkeru ari da.

Etzaitela ikaratu nere osasanaz. Etxeko andereak sendagilea berela ekarri zidan, zorabio pixka biotzetik ote zen, ta ez-bide. Au esan zidan itzez: «Tiene usted un organismo de cuarenta años; con esa pulsación y ese corazón, puede usted vivir perfectamente cien años». *Dios primero*, esan bearko.

Urrena arte, ta goraintzi etxekoeri.

Memento.

NIKOLA

Zaragoza Txikitik, 4-X-51.

Adiskide aundi: «Zer ari ote da gure D. Martin neri erantzun gabe?» Ontan ari nintzala, karta izugarri bat, etxean ez dakit zenbat zauritu zeundetela trenean gertatuarekin. Egite egunari begiraten diot, Iorraillaren zazpigarrena. Gibelean, berriz, beste egun bat: Orrillaren 27'garrena. Zaragoza aundian eta Zarautz'en bama ibili dala-ta bost illabete neregana orduko. Orain berriz beste karta bat' Uztailaren 24'garrenean egiña, bidean bi illabete egiñez.

Ubinam gentium sumus? Munduaren azken-mugan, noski. Or Buenos Aires'en ez dakite batere Geografi'rik. Avellaneda'ko gutun-etxean au galdegin nien: «Un timbre aéreo para el Ecuador». «El Ecuador... Y dónde cae eso?» berriru ere. Etzaitu arritu gertatu danarekin.

Onezkero anaia sendatua diteke bere gripe ortatik. Besteak ala-ola zautela. Gai-xo-etxe ori noiz biurtuko ote da Osasun-etxe?

Euskal-izkera Zaitegi'k ba'du Guatemalan. Ez bialdu. Nik ez daukat batere gogorik lan ortan asteko. Mokoroa'ren *aditza* laburki ipiñita bialtzea, bai. Burutik aul xamar nago oraindik. *Más vale burro vivo que Doctor muerto* egin bearko.

Amezaga'k ez du geiago txintakorik atera. Ñik ez diot bialdu kopiarik, eta berak ere ez dit bialdu lenengo zatiaren itzulpena. Bi kopia Zaitegi'k eraman zitidan Cincinnati'ko Unibersidadeko Irakasle batentzat. Izketan asia da arekin. Etxe orrek urrurik atera omen lezazke bai euskera ta bereiz erdera. Irabazia erdi bana eskatuko omen dio. Ez litzake makala.

Egunik geiena beiekin igarotzen dut. Bi ietzialditan eta iriñak ematean eta abar, ikullu aldean nabilla. Ni lardaskan asi nintzan ezker, iru alako esne ematen digute.

ARGI-ERRI aurrera deramat. Uste baño obeki atera zait edo ateratzen ari zait. Ortako ba-daukat indarrrik aski. Iainkoa lagun. Nere nota guztiak ez ba'da ere, geienak bialdu zizkidaten. Lenbizi euskeraz, baña gero erderaz ere atera nai nuke «El tratado con Dios», Markiegi ta Guridi apaiz ziranak ederki legokela ta gauza bearra zitekela esan baitzidaten. Ordurako euskeraz egiña neukan. Orain asko aldatu dut. Ez dira alperrik ioan oinbeste urte. Sekulan gauzarik argi ta garbi ipifii ba'dut, au iduri zait ipiñi dutala. Al diteken einen; berenez gauza zaillak baitira.

Zubizarreta'ren berririk ez dut aspaldi. Bi karta egin nition eskabide egin zezaiola Jalapa'ko Gotzaiari, eta ez dut erantzunik.

Ikusiko dut gauzak neretzat nola doazan; baiña emendik urte pare batera urbildu nai nuke, Belloc'a bederen. Ori esan nion lengoan etxeoandrearri ta «Lo vamos a sentir mucho» erantzun zidan. «Primero Dios» emen esan oi dan bezala.

Goraintzi etxekoeri ta

Memento.

NIKOLA

Zaragoza'tik, 5-XI-SI.

Oiarzabal'dar Martin iaunari. Errosariora.

Adiskide aundi: S. Martin eguna ba-datorrela aurtan ere. Bertorkizu urte askoz. Egun ortan bereiziki egingo diot otoitz santu aundi orri beraren beteko egin zaitzan.

Emen berriagorik ez, Bidarra'n esan ori danez. Osasunez obeki noala, buruarenez, alegia. Lanean baratxe baratxe ari naiz. Nere lan aundia koxka ta koxka laister bukatzeko eran daukat. Gaiñerako bazterlan oietan geldi aldia. Zaitegi iaunarekin lengotik ari naiz. Alare, nere izena geixko ageri da oraindik E. G.'n. Asi zaizkio Europa alde artatik lan ederrak etortzen. Gure aldizkariari esker on ematen diote aietan; baizik ere, garestitxo zaiela. Onezkero ez al dugu porrot egingo.

Ibinagabeitia'r Andima, Zaitegiren lagun ona, gaurgero Paristik irteten da Guatemala'ra. Laguntza ederra duke, eskolarako ere.

Fagoaga'ren berririk ez. Mexikura igaro ba'ledi, emendik bide egingo zula (ta emen takatx) agindu zidan.

Eta zuek? Gaixo-etxe ala osasun-etxe? Bietatik apurra, ez da ala? Atzerri au bi aldiz atzerri zaizue. Ezazute osasun. Iankoari ala nai dakiola.

Goraintzi deneri, batez ere txikienari. S. Martin eguna ondo igaro dezazutela.
Memento.

NIKOLA

Zaragoza'tik, 7-XI-52.

Oiarzabal'dar Martin iaunari. Errosariora.

Adiskide aundi: berandutxo oroitu naiz S. Martin berela datorrigula. Gaur illak zazpi, au emendik ateratzeko zortzi; bidean... zortzialdirako bederen iritxiko al zaizu. Uruguay'ra tiñel tiñel iristen dira, baña nik ez dakit zer dun Río de la Plata orrek. Dana dala egun ortan etzaitut beiñipein azturik utziko Jainkoaren aurrean.

Onezkero zu osasunez ederki, lanak... patxaran. Emen nagozu zuk zer bialdu begira. Ni ere zure neurrian asi naiz lanean. Oraindik ez ditut bukatu Dabid'en Eresiak, aurrera ba'doaz ere. Azkeneko amarrak palta. Eta gero 17 «Cantica Breviarii Romani». Oiek aurten bukatuko al ditut, baldin bait ere! Datorren urtean Iainkoak nai ba'du S. Agustin bukatu beariko. Emen beitegian eta lore-baratzan eta aurrekin, eguna errez igarotzen zait. Osasunez oso ederki. Eta zuek? Onezkero itzulipurdika ta ikotika gure txal auek bezala, zarrenetik gazteenera. Ala bedi. Negua —emengo negua— ioan zan, euri aundiak utzirik. Aurten bi metrotik gora. Udara poliki asi du —berotxo arren— ego-aize zakar batzukin aurrenetik, eta orain aizerik gabe. Nai dunak lana egin dezake, sargoririk gabe, ta lo egiteko giro dago. Or baño askoz obeki, nolanai ere.

Gure E. GOGOA gibelatzen asi da berriz ere langille urriz. Ez al da, beintzat atertuko. Oso ongi artzen dute gutarrak.

Besterik ezer ez. Egun ona igaro dezazula etxekoekin, eta urrena arte.
Memento.

NIKOLA

Finca Miramar. Zaragoza'tik, 6-1-53.

Oiarzabal'dar Martin iaunari. Errosariora.

Adiskide aundi: Agiri danez nerea ez duzu iaso S. Martiñetan egin nizuna; nik ere ez zure biak; bai irugarrena. Makiñaz ipintzen asia nintzen neronena E. G.'rako, zenbait aldakuntzarekin, eta zurearen begira nengon, biak elkartzeko. Bidean ditezke bi oiek eta ez al dira galduko. Emendik orrerako ta ortik onerako bidari oiek, oso oker dabilta beti. Uruguay'raño oso ederki, berriz.

Zaitegi iauna emen genuen lengo egunetan eta esan zidan zerbait bialdu zenidala. Etzaitela asi berriro kopiatzen. Noizbait iritxiko dira, Españi'ko Zaragoza'ra ioan ba'dira ere.

Emen ederki osasunez; orkorik ez didazu esaten; beraz, gaixo-etxe ori osasun-etxe biurtu diteke. Ala biz. Berandutxo ba'da ere urte au ez deila txarrago atera ioan dana baiño, eta ohea, Iainkoak nai ba'du.

Esan nizun lengoan S. Agustin'en *Confessiones* itzultzea bukatu nai nukela aurten.

Aita Egibar oso gaizki gibeletik. Ezin-iana ta lo-galdua. Ez dakit oraingotik aterako ote dan edota nola geldituko dan.

Besterik ez.

Memento.

NIKOLA

Zaragoza'tik, 3-II-53.

Adiskide aundi: Nonbait bidari oiek or okertzen dira, emen oso zuzen ez ba'dabil-tza ere. Zure bi galduak ez dira agertu oraindik. Mingarri da bigarren aldiz aldatu bear ori, baña beneditar iatorra baitzera, berriro lan ori egiteko gai zera zu. Eguberriko eskutitzarekin batean, ikus zer bialdu zenidan: 116'garrenetik 152 bukatu arte.

S. Agustiniñen azkeneko im liburuen bikia bialduko dizut. Oraindik asteko nago. Dabid'en Eresiak igorri nition M. Barriolari Eguberri. Oraindik bidean ditezke. Guatemalako Puerto Barrios'en bama Iru bat illabete luzetzen dute paketeak emendik ara ta andik onara. Bigarren kopia Zaitegi'k du. Bereala argitara nai omen ditute Garikoiz'tar orrek.

Aita Egibar obeki doan soiñua da. *Cuba'n* izan berria omen da emengo Presidente'ren emazteari lagun egiten. Oso bakan ioaten naiz Uriburura, ta ez dut ikusten.

Bero bero asi dut idazki au lerro ertsietan, baiñan agortu naiz. Bakanetan ere ba dute aski toki nere berriak.

Etxekoeri milla gorantzi.

Memento.

NIKOLA

Zaragoza'tik, 1953-II-15'gn.

Adiskide aundi: Atzo berandu iritxi ziran zure bi galduak: Azilaren 3'garrenekoa eta Gabonillaren 4'gnkoa. Oraindik ez al ziñan asiko birraldatzen! Zure osasun oreak pozten nau. Ni oso bikain, aiton gazte musugorri biurturik. «*El sonrosado*» esaten asi zaizkit. Orain zenbait illabete esan nizun sendagilleak esan zidana: *Qué bomba!* (biotzarengatik), *va Vd. a vivir un sinfin de años*. Jainkoak nai duna. Gogora dezakezu nere betiko lur-margo gañtezko ua. «Gana da» laphurtarrek diagotenez. Tensioa 13. Zure kilo-galtze ori duzu obenik osasunerako. Neri ere zilbota ederki serailtzen ari zait, gizen nagon arren (182 libera) Basi oiek mirarizko edo dira.

«Fonetika'z Altuberekin...» Zago ixilik, gizona! Nik guzi guzia zearo euskeraz idatzirik daukat oso errex, gure Euskal-izkerako. Eraskin bezala edo, ondarrean, beintzat, ioan bearko du. Bera ez da ausartzen gai ori euskeraz arrotzen. Pes po-

rrectus = oin magala, magal oiña; Torculus = zalkor, konkor, scandicus = gora-koska, gora-zurubi egiten duna; climacus = béra-koska, bé-zurubi. Zer derizkiuzu? Errege bideetan apalguneari (bache) magala esan oi diogu. Nere ustez, beñipein, batere euskeran saiatu danak errex uler dezake.

Asots, bai (cfr. ots, abarrots, arrabots) BN'k itzak.

Patxi Korta'renak ere pozten nau. Egunero nominatim et per faciem (facietim) oroitzen naiz artaz.

Nola diteke zuk «Pedro Eliza ikusia da» ez entzun ukaitea? Nonbait Azpeitiko erri-izkera antzi edo ongi ikasi ez. «Ni senper ikusia naiz, ixtiluak ikusia naiz, gorriak ikusita nago» ta abar Euskalerra osoan ezagun ezaguna dala derizkiot. *Ego* (is qui) *Ecclesiam vidit sum*. Dana dala zuk ikus nondik atera zaiteken.

Beraz laterandar iator orien artean? Gorantzi miñak A. Beobideri ta gaiñerako guzieri. «Bazkari bat egiña naiz (nago)» aien etxe ortan.

ARGI-ERRI oso nekez aterako da Aldizkariak darabiltzin oztopo oien gatik. Oso atsegin zaie batez ere *a las beatas*. Zaitetik osorik irakurria du, ta au esan zidan: «iñork iñoiz ez du olako gauza ederrik euskeraz idatzi, ez Orixe'k ere». *Laus Deo*.

Besterik... zer? A, bai, zuk bialdu-ala nerearekin bekalduz makinaz aldatuko dutala. Nik ere ukitutxo batzuk egin baitizkiot, esaterako, Olabide'ren *elatz* ele-atz *letra* ordez, eta abar. Ikus zer iritxi duten nerekin Krutvvig'ek eta A. Villasantek. Gure 350 irakurle oriek usu oituko dira.

Goraintzi etxeoeri ta Augustindarrereri ta Agirrezabal'i. Larrakoetxea lateran-darrak *Confessiones* itzuliak omen. Orren berri galdegiozu A. Beobideri.

Memento.

NIKOLA

Zaragoza'tik, 14-V-53

Adiskide aundi: Bi aldiz egin nion Zaitegi'ri zuk egin eskutitza iaso ote zun, zure aspaldiko lantxo batzueri buruz. Egon eta egon zuri erantzuna emateko ta aren berririk ez. Oso lanpetua dagola badakit, gure etxeoandreak esanik, an baitago bi illabete auetan. Atzo etortzeko zan eta ez da ageri. Bitartean zure bigarrena. Salta'n egonak on egin dizula? Ala obe. «Pedro Eliza ikusia da» ori ez dago araupean, nere ustez ere. Askoz politago «Pedro'k Eliza ikusia du» «Ni an nindagola iakin ba'zun» (si hubo sabido) gogor egiten zait. «Ke» aldaska ez da *berez bakarrez* baldiñ-aldaska; geroan edo «ezkero» koan ala gertatzen da. Guk oso gaizki esan oi dugu: «Onezkero etorriko zan». Bidarrai'n ederki: «Engoitk (gaurgero) etorria ditake», go edo fo'rekin berdintsu, diozun bezala. Ontan zurekin nago «ikusten duke», ortan ere «ezkerokoa» ageri da. Ez da oraĩnaldi garbia: «*lo estará viendo*» «Izan» aditzan «zitzazken» obeki (gaur iten-ena) «zitzaketen» bafio.

«Ekidin» aditzan utzagun dagon eran «zakiditate» ta abar «zazkidit» eta oietaz ez nago ain ziur. Aditz laburra ikasteko obe litzake bai beste aditz bat eredu ipintea zearo, baiñan «egon», -k gabe oietakoa baita—, «m'ekin ipini bear eta ez «e'ekin (nindagon, nindagoke). Ibilli ere ez da erreza, nabil apofoni orrengatik. Zuk ikus zein aukera. «Izan» lengora ipintzea (zearo beintzat) ez derizkiot. Oarkizun labur bat

obe. Ortan ez baikaude biok erara: *n(a)iza* zuk, *niza*, nik. Mokoroaren... ikusia = »el que ha visto« etzait ongi iduri; «el que tiene visto o vista» nonbait or. (Cfr. Peru Eliza ikusia da). Aren pasivo'rako «ha sido visto», bego.

Zuk bereiziko duzu sasi au.

«Euskal-izkera» etxeko andrearekin bialdua nun bereala Guatemala'ra, garbi baitzegon. Ango langilleek makinaz egiña eskatzen omen baitute, atzera berarekin bial zezaiola esan nion.

Patxi Korta'renak pozten nau. Ez ala Miren Maiteren osasunak. Gazterik asi zan gaixoa neketan. Zerurako balia dedila. Goraintzi niketz. Oroituko ote da Donibane Lohitzun'en ikusi nindula?

Esana dizut, noski, Otsaillaren 8'gn. egundoko kazkarrekoa artu nula basi-gelan erorita. Illabeteko zorabioak ukan nitun. Urrena artatik edo gripe tzar batek artu nindun. Lenbiziko bi egunetan belarrietako min aundia; irugarrenetik aurrera gorri aundia bietatik. Zutaz oroifurik egiñalak egin ditut izardiketan, Pasio ostegunetik orain arte. Gorrerik ez, ala esateko, baiñan oztopo bat eskuiñekoan, oraintxe arte. Atzo artu nun azkeneko lurriñaldia. Lanerako gogo aundirik ez oraindik. Bestela osasunez oso ederki. Ez gera osasunaren iabe.

«Trabuco» (Confessiones) utzi ote nizun? Emen ezin arkitu latiñez liburu txikian. Seminarioan Migne dute baiñan ezin ekarri. Itzulia Labaien'ek dauka Donostin. Ez dakit Trabuco ara bialdu ba'nun ere.

Milla goraintzi etxekoeri.

Memento

NIKOLA

Maritxu Barriola'ri oso atsegin izan zaio David'en itzulpena, baiñan Gotzaitegian eragozpenak omen Eliz-baimena ukaiteko. Egundaiño! Zerurako baimena ere Patxi'ri eskatu bearko ote zaio?

n*

Emen du irakurleak Orixe'ren beste eskutitz-sorta bat, aurrekoei jarraituz. Emen degu berriz ere idazle au, jo ta ke, eguneroko borroka latzean, bai eguneroko ogia irabaztekoan, eta bai euskal-arloan, liburuak idatzi eta argitaratzen.

Argitaratzekoan, orraitio, ez ditu beti berri pozgarrienak artuko. Donostiako Gotzaitegikoak uzkur aurkitzen ditu euskeratuta daukan Dabid'en Salmo-liburuari oniritzia eta baimena emateko. Maritxu Barriolak ezin zintxoago diardu euskal-liburuei bideak irikierazten. Azkenburuan, lortu omendu *Gotzaiaren Imprimatur* Salmoentzat, Zaitegi'ren *Bidalien Eginentzat* eta Eladi Larrañaga'ren *Kristoren Antz-bidearentzat*.

* *Orixe-ren eskutitzak* (Martin Oiarzabal apaizari), Karrael 1980-1, 33-39.

Ala idazten diote Orixeri. Egia ote zan? Zaitegi'ren eta Eladi Larrañaga'ren liburuak, biak izan zuten eliz-baimena eta bai ikusteko zoriona ere. Salmo-liburuarekin zer gerta da? Orixek ez zuen argitaraturik ikusiko; beste gotzai baten egunetan, 1967 garrenean, Bereziartua euskaldunarenean, plazaratuko zan gotzai onen *Imprimatur*'arekin.

Eskutiz auetako batean jakiñerazten zaigu Zaitegi zanaren patxara eta opor-urtea ere, alegia, Euzko-Gogoa atera gabe utzi zueneko urtea, 1953-koa. Eta Orixe bera Zaitegi adiskidearekin asarre xamar ikusten degu. Min artu du aldizkarian agertu diran olerki batzuegatik. Berak ez omen du *Euzko-Gogoa* ori irakurriko, olerki zantarrik on artzen badu. Literaturak ez omen du izan bear ez buruak arintzeko, ez gizona usteltzeko. Satsa sats, korotza korotz, gainxurrituta ere.

Zer da, berriz, Untzuetaren orrena? Franco'ren indarrak Bilbon sartuarenean Begoñako Andra Mari eleizako arduradun zegoen apaiza, ango Andre Mari bitxiak gordetzen jakin zuena, atzera gero Begoñara eramateko. Baiña, Francorcen mendeko agintariak, elizgizonak barne, ez zekiten egi garbirik esaten. Eta gogor eraso zien Untzuetak eta garratz salatu gezurkien jokabidea. Salakuntza au, jakiña, oso erregarri izan zan askorentzat eta ez ziran gelditu nonbait Erromaraño jo gabe. Erromako erantzuna eskutitzean azaltzen da: garratz esan baditu ere, egiak esan baditu, ez duela iñolako legerik ausi. Untzuetaren jauna egizale zuzena zan arren, kezkatia zalako edo, beldur zan nonbait Orixe, kikilduko ez ote zan eta atzera egingo ote zuen. Pozik ikusten du ez zala olakorik gertatu.

Lazgarria da emen ematen zaigun beste berri bat: estu eta larri iges egin zuela bein armaz ilda geldituzetik. Bizibidea ateratzeko, ikullu-lanetan sartu bearra izan eta, ango «negrito» batek arma izugarri batez eraso zion geiagoko gabe. Ordu artan Jainkoaren laguntza igarri igarrian izan zuela dio. Baiña bai berak ere Jainkoaren eskuari lagundu buruaz eta trebetasunaz. Lumaz borrokalarri gogorra zanak bazekizkian nonbait beste beso-borrokako lege batzuk ere. Jainkoak ez zuen nai izan euskal-poema andiaren aita ikullu illunean bere egunak ain lotsagarri amaitzerik. Zorionez!

Eta poema aipatu dedan ezkeror, eta aurreko eskutitz batean Lafittek esanari garratzasuna kentzeko, ona emen Lafitte onek, Orixe il-berritan zer zion: «Segur obra bakar hori aski laiteke norbaiten ospatzeko, eta eskuarak iraiten badu, gure ondokoek aipatuko dute lan honen aberastasuna» (Herria, 17-8-61).

L. A.

Zaragoza'tik 1953g.-VIII-5gn.

Adiskide aundi: lanik es egiteko diagodazu, ongi ez ba'nago. Oraintxe ongi nagola esan dezaket, baiña, zuk bezala gauzak patxaraz artuz, urte au opor-urte artzea erabaki nun. Zuen orko berriak ere ez dira txarrak eta pozten naiz.

Untzuetaren ori, Bidarrairen dioten bezala, «nigar egingarri da». Bildur izateko zan beti, eta, ara gertatu. Gogor mintzatu dalako Lauzurika'ri ta Colina'ri barkaskea besterik ez balitza, gaitzerdi litzake —aiek askoz gogorrago, lapurka ta abar, erabili duten arren— baiña beste aldera ioko ote du «integrista» gizagajo orrek? Guk

ba-dakigu, argitasunean idatzi dunak balio dula, ez itzalaldian idatzi dezakenak; arerioek, ordea, iskanbilla sortaraziko lukete, ta guretzat kalte, oraingo, beintzat. Gerorako ez du ondorio makurrik, eta gauden lasai. Bibao'ko Gotzaiak ez dula bere Eliz-barrutian ongi artzen? —Jainkoa du ebazle Ark ere, ederki diagozuna, ta gurekin baiño zorrotzago iokatuko da arekin. Nerekin ere ikasiko zenun gaugeru nola ari diran Donosti'ko Gotzategian: alegia, Dabid'en Eresien nere itzulpena ez dutela aztertu nai «nihil obstat» emateko, edo aitzaki maitzaki dabiltzala sei ilabete auetan. Lenbizi, Agintari aundi orien baimena bear omen (erri-agintariena). *Infandum! Relinquamus omne iudicium Filio*. Zaitegi'rekin orobat: *Bidalien egiñak* ere politika gaiztoa iotzen dute. Dabid'en Eresiak itzik itz euskeraz ematea euskal-politika ote da? *Verbum Dei non est alligatum* esan zigun Paul gurenak, baiñan Españian bai, gogor lotua eta estekatua dago. Noiz arte? —Ez betiko, betikoa Jainkoa baita; baiñan egunotan bizi geranontzat aski luze.

Aztu zaida len esatea: Untzuetak lasapide aundia luke Erroma'ko iritziarekin: «Las cartas son duras, pero perfectamente canónicas». Ez al dira milla bider gogorrago arerioenak eta «tremendamente anticanónicas, calumniosas e inhumanas?» Zuk edo adiskideren batek ori esanez idatziko balio, alper alperrik litzake orain; berea besterik entzuten ez dio buruak utziko. Otoitz egin bear ko ixil ixilik. Iainkoak osasuna ta pakea biur dakizkiola, gizaizaioari.

«Eraman» (480 ioka-itx) eta «ekarr» oso poliki daude. Zertako nai ote dute makinaz elaz-langille oiek? Aitzakia. Zaitegi oso atzera dabilla «Euzko-Gogoarekin». Bilbaotar batek agindu beroak egin zitien dirua aterazi arte, ta gero musu uts utzi.

Confesiones ez baiña *Confesiones* (latiñez) bear nuke. Zaude; D. Iñaki egunean arkitu genun Iesu-lagunaren liburutegi batean, eta emango didatela irudi zaida. Patxi Korta'renak ez nau arritzen, ez baita zuritzaille. A. Galdos izan balitza, bere burua erakutsi naiko zun Eibar'en.

Goraintzi etxekoeri eta egon bizkor guziok.

Memento

NIKOLA

Zaragoza'tik 1953-XI-10gn.

Adiskide aundi: Egun S. Martin bezpera, ta zure gutuna. Zortzigarrenerako iritxiko ote da au? —Ni ere irakurtzen irakasten ari naiz neskame baten alabari. Iru urte ikastolan, eta ez ditu bereziten b, d, p, q. —Ni osasunez oso ederki. Zearo zearo ez, baiña, ia zearo. Beste urtebete gorabéra, ezoeria garaituko dutala dirudit. Orixe'n ere ugaldeak lur asko eramane beiko orrekara. Bi sarobi edo ardiborda errotik eramane. Eriotzik ez alaere kristauarekin. Emen andiangoak izan dira an baiño. Oso gutxi egin du ere io ez gaitun. Zurrunbilloaren marruak entzun zituten gauetz atzarri zudenak. Iende gaiztoa gaude nonai ere ta ez da arrigarri.

Untzuetarenak poztzen nau. Ez al zun eta ez al du zerbait bestera idatziko.

Mirande ori txori bitxia da. Iudutar (heberkera mintzatzen bide du) komunista, nik ez dakit zenbat -ista. Ele ederzale oriek burua galtzen dute edozer ausarkeri ta

gordinkeri ontzat emanaz. Satsa gainzurituri ere, barnean beti ustel. Zaitegiri esana daukat ez dutala aurrera «Euzko-Gogoa» irakurriko. *Mosu-garaiz*, Iturriko *laztana*, *Ars amandi* ta olako oriek «nec nominentur in nobis». Olerki-gudu ortarako gauza bat igorri dute guziz nabarmena. García Lorca'ren *La Esposa infiel* antzera, emazte zintzoabaiñan *incidunt descriptio coitus valde vivida*. Gure adiskide E'tarN. apaizarena da. Burua galdu ote du? Eta Zaitegik len-saria eman ote ledikion? Oarkizun batean au ipintzen du egilleak: Ba-dakit Orixe'ri atsegin izango etzaiona. Irakurri diet Le-kuonari eta beste zenbait apaizi, eta «euskaldunok ez omen dugu beti gizagaixo agertu bear». Literatura orrek gizona asko buruarintzen du.

Donostiko Gotzaitegi ortan etzanik daude nere «Dabiden Eresiak». Gotzaiordeak agindu omen zion M. Barriolari «Imprimatur» emango ziotela, «no condicionado al permiso civil». Ia iru illabete igaro dira —diost andere orrek— eta ez ditut eskuratu (Irailaren 23gn.). Etsaiari emanak daude gizon oiek.

Lanean ari zerala. Gauza bat zuzendu bear duzu nik aditzan oarkizunetan oker ipiñia. Nik Axularrenean *daguidiçao* (dakidizaio) irakurri, *dakidikaio* ordez. Ez da arrigarri, atsalde-erdi batean irakurri bainun Monzon'en etxean, bururen buru.

Patxi Korta ez ote da bein edo bein onara etorriko? Probintzi bereko dira. Goraintzi etxeokeri.

NIKOLA

S. Martin eguna. Goizean oroitu naiz otoitzetan.

Zaragoza'tik 1953-XII-17gn.

Adiskide aundi: Zurea aski garaiez iritxi zan, eta bizirik arkitu nindun. Sortze Garbi egunean goizeko bostetan ikullu-mutil batek marrauzaz io nindun, eta ez kali (akabatu). Alfange aundi oietakoa zun. Bearrik neukan alboan makilla kozkor bat ona. Burua atzeman nai zidan alegiñetan, baiña nik itzuri ixkintxoka, bein, berritan, geiagotan, berari eraso gabe. Esia ausi ezin zula ikustearekin, gerrira keñatu nindun. Alako batean eskuiñeko erpurua ukitu zidan —ez bizkor— bigarren koskoan. Gogorrago iotzeko asmoz besoa zabaldu zularik, gorputzera sartu nintzaion, eta, aren besoaurreari giltza emanik, marrauza utzierazi nion. Biok elkarri eldurik giñegola, indar geixko egin arengandik bereizteko, ta, lurrera erori nintzan, aren marrauzarekin. Arek iges bere burua iskillu gabe ikusi zunean. Nonbait zeru osoa nere alde neukan une artan. Ez du arek lanik egiten etxe ontan «El Negro» deritzoten orrek, baiñan erronkaz ari omen, nere betiko egurastokira agertu ba'nadi, konponduko naula. Onik aurrera, makilla ez-baiña su-iskilloa eraman bearko lagun.

Emengo iendea odolzale da. Laterri ontan bi milloeg lagun baizik ez ditularik, urtean milla ta bosteun eriotze gertatzen dira kaliz. Lapurreta? Ortzak ostutzeko ere gai dira, ta ez gezur-ortzak gero. Lizunkeria? EUNETIK larogei sasikume. Zaragoza au erri ona da beste askoren aldean; iru urte auetan inor ez dute kali; baiña seigarren ortan, besteak, iduri. Illabeteko bataiatuen agiriak neronek iaso nitun bein eta amarretatik zortzi sasikume. Colon'ekin etorri ziran aiek oso izen txarra utzi zuten emen.

Lope de Vega'k, Quevedo'k eta Cervantes'ek ziaготena berbera diagote emen: «Las Indias son refugio y amparo de los desesperados de España, iglesia de los alzados, salvoconducto de los homicidas... Allá se van las mujeres libres» (Cervantes, El celoso extremeño).

Emen begiak ernai bizi bearra dago.

Salta'ra ioatea ederki egingo duzu igaz bezala. Zangoetako auleri ori lo galduarena ote? Zu ez izaki ni bezain loti beroarekin ere. Loak indartuko zinduke.

Ezoeri? Axular'ek ezueri = reuma. Azkue zanak (G.B.) ezurretik ez-baiña *ezo'*-tik zetorrela uste zun.

Osasun eta goraintzi etxeko guzieri.

Eguberri on!

Memento

NIKOLA

Zaragoza'tik 1954gn. Ilbeltzaren 16gn.

Adiskide aundi: Beraz gaitz orrekin zu ere. Gure nagusiari ere aurten egin diote ebaiketa ori. Ez da beste munduko gauza, orain norinai egiten baitiote; baiñan argaldu bear ori —biotza auldu gabe— etzaizu errez. Begira gero dieta oriekin! Or ba-duzu sendabide bikaiña argaltzeko, naiko aragi ianda: «mate pampero» garratza edan au-sarki. Nik or, Berraondo'n, goiz eguerdi ta arrats «asado a la criolla» iaten nun, eta ur ortatik edaten. Ezoeririk bat ere ez nun sumatu. Otoitz egingo dut bereziki zure osasunaren alde. Ni ederki.

GERNIKA, n.º 24 oraiñarte etzait iritxi Altuberen artikuluekin. Nonbait miñ eman diote nereak, gogor xamar erantzun baitu. Oraingo onek K.O. utziko dula iduri zait. Nik, ustez, aski goxo erantzun diot, baiñan egi bera da garratzena auzi ontan. Ez dakit —itsu ez ba'nago— *Polemikan* oin artikulua politik beññere egin ote dutan. Ortarako moteldu naizala iduri zaio A. Mokoroari. Zuk zer derizkiozu? Jemein'i erantzuna oso ongi artu zun; baiñan «Euskadi ala Euskalerrria» ez ain ongi. Orduan esan zidan *bajatzen* ari nintzala (moteltzen) polemikarako. Nik ez uste. Irakurritakoan berari bialdu nai ba'diozu (J. M. Mokoroa, Sacramento, 7. Madrid).

Goraintzi eta egon bizkor.

Memento

NIKOLA

Zaragoza'tik 1954-Ilbeltzaren 29gn.

Adiskide aundi: Gaur berri onakin natorzu. Lenik, Labaien'ek au diosta:

«Zure salmoeri buruz esan zidan (Maritxu Barriolak), *Imprimatur* iritxi dula, eta erabat Eladi Larrañaga'ren Imitazioarentzat. Markiegi'rena (G.B.) zoritxarrez

galdutzat jo bear da. Zaitegi'ri berri ona eman nion, alegia, «Bidalien Egiñak» aren lan ederraren «*Imprimatur*» eta baimena lortu genula azkenik».

Beste berri bat, zuretzat oso ona: atzo amaitu nitula S. Agustiñen Aitorkizunak. Orain itxedon egin bear, liburua itzuli bearra baitut. Aita Aranguren Azpeitiarrak utzi dit B.A.C.ren argitaraldia, baiñan aien Bibliotekako arauak oso zorrotzak dira. Ez da gutxi *ad mensem* ere, eta gaiñera libuma etxetik atera.

Orain liburua nonai kozkatzen dutalarik, oso zaila ta egiña dimdit euskeraz esateko, baiña nolabait ioan da. Iorratu bearra ba duke argitara baiño len. Egia esan, zenbait aldiz euskera ez da latiñera irixten, batez ere *activo-pasivo* ta *relativo* oien-gatik, baiña beste zenbait aldiz, eta geiagotan, nik uste, euskerak latiñari asko kentzen dio.

X, XI, XII, XIII'garren iardunetan gure apaizek zema zabalik ikusiko dute pilosopi-gaiak eta Iainkoazkoak adierazteko.

Berri auekin bizkortasun pixka bat sartu nai nizuke. Ez da ikaratzeko *prostataren* ori, gure adiñera ezkerro, guzien gaitza omen da, bada, ta Ipar-Amerikar sendagilleak diñotenez, ebaketa ori gizon guziera egin bear omen litzaieke.

Baiña biotz orrekin emai. *Mate amargo*, ez al zaizu agoan goxo? Ez al zaizu on? Lengoan esaten nizun, nere eskutitza bidean galdu ez bada.

Bialdu zure berriak, eta, al bait, onak. Iñoiz ba'da-ta, oraintxe nago zai.

Otoitz egin det bereiziki, eta zuk ere nitaz.

Etxekoeri goraintzi eta osasun

Memento

NIKOLA

III*

Edo Zaragoza'tik Lazkaora. Onezkero irakurleak badaki emen aitatzen dan Zaragoza au eztala Aragoikoa, Ameriketakoa baizik, eta Ameriketean El Salvador'ekoa. An utzi genuen Orixe okullu-lanetan eta luma-lanetan, bein lumaz idazten, eta bien okulluko tresnen bati eskua ezarrita. Bein ezpatari bein lumari eltzen zion Erzilla gudari eta olerkaria baiño askoz jatorrago, benetan. Ez al da egia?

Piskaka-piskaka etxera abiatzeko bideak irikitzen zaizkio. Baiña ez etxeko pake-giroan murgiltzeko, Jainkoaren eta euskeraren alde lan egiteko aukera obeen billa baizik. Lazkaoko Beneditarrek eta Maritxu Barriola ez daude geldi. Eztute pakerik izango, Orixe Euskalerrira ekarri eta idaz-lanari osoan lotuta jarri arte. Gauzak, itxuraz, ez dira gaizki atera. Orixe Lazkaoko Beneditarrenean artu dute, idazteko aukera osoan, eta diru-laguntza ere lasai xamar duela. Au ere argi geldi bedi, Zai-

* *Orixe-ren eskutitzak (III) Atzerririk Euskalerrira*, Karmel 1980-2, 51-61.

tegiren eskutitzean irakurtzen dana oker uler ez dedin. Lazkaoko ostatua ez du Orixek ordaintzen; bestek ordaintzen diote ango egona eta lana.

«Jainkoaren Billa» eta S. Agustiñen *Aitorkizunak* aurrera dijoaz. Gaiñera, *Breviarium Totum* euskeratzeko lana. Eta guzti au gutxi dala edo, Olabideren Biblia argitaratzeko lana ez dute, bada, gaiñean artu?

Orixek eta Oiartzabal jaunak eskubide zutela uste zuten Olabideren lana argitaztean esku artzeko, euskeratzerakoan ere lankide izan zirala-ta. Erromara ere jo zuten jesuiten Nagusiengana. Orduan berotu ziran, nonbait, jesuitok, Formosatik aita Etxeberria ekarrita, Olabideren lan ori argitaratzeko. Orixerentzat ortik pakea. Baiña bai naigabe piska ere.

Orixeren eskutitzen geigarri, oraingoan, beste iru-lau sartzen ditugu, Zaitegi zanarenak. Orrela «Euzko-Gogoa» aldizkariko *irukotea* beingo z batera daukagu emen, eta gai berdintsuei eragiten: Aita Olabideren Biblia, Bidalien Egiñak, O. ta O.-ren euskal-gramatika (Orixe ta Oiartzabalena, alegia, elkarrekin zekarten gramatika-lana, euskeraz «Euzko-Gogoa» argitaratzen asia, eta 1963n erderaz Donostian emana), eta beti ere lan-asmo berriak. Aurreko eskutitzetan esandakoen geigarri eta osagarri ez datoz gaizki, guk uste.

Azkenengoa, urtez, askotxo geroagokoa bada ere, aurrekoen gai-barruan dabil, eta Zaitegiren adiskide eta lan-biltzaillek atsegiñez irakurriko dutelakoan gaude. Olabide euskera ikastera eta lantzer a nola itzuli zan ez omen da argiegi azaltzen Zaitegik or aztertzen duen lanean (*Jaunaren Deian* euskerazko bibli-itzulpenez egindako lanean, alegia). Nik esango nuke Zaitegiren iritziak eta *Jaunaren Deian* azaldutakoak elkarrekin konpondu eziñik ez dutela. *Jaunaren Deia* ortan esanak ere Olabide aitari entzuketik ateratakoak dira. Luis Agirre apaizak, bere gaztetan, Arantzazun entzuketik, ain zuzen.

Emen Zaitegik esaten digunez, orraitio, Orixe ere aurkeztu zan Gasteizko lorejoko aietara (gerrate-aurretxoan), Olabideren omenezko lanen batekin. Eskutitz onek ematen digu berri jakingarri au. Baña Luis Agirrek, geroxeagoko eneespetxe-lagunak, irabazi.

L. A.

Zaragoza'tik 1954-III-19gn.

Adiskide aundi: Iarrai zakiola obekitze orri. Ez duzuke, agian, uiTaketa bearrik. Etxe ori ezaguna dut. Bein A. Beobide'k bazkaritara eraman nindun. Or doatzu Aitorkizunen amaia. Dudatxo batzuk ba-dauzkat, kopia liburutik gabe atera baitut eskuzko zirriborroetatik. X.,XI, XH'garren iardudunak, nere uestez, obekienik. XIII'garrena zailla da latinez ere, ta zail gelditzen da —besterik ezin— euskeraz ere. Iduripeko: *coelum, coelum coeli, terra, pisces, volatilia*, zerua, emengoEliza, Apostoluak, kristau zintzo ta abar. Beste Agustin bat bear du ari iarraitzeko. Laister bilduko ote naiz nere paperetara. Orain Maritxu Barriolak Donostian lan egiteko aukera ipinten dit, eguardean, atsaldean nere esku geldizent naizala. «Breviarium totum» nai luke. Kopia aterako omen ditidate. Gure etxeoandrea New Orleans'en da alaba zaitzen

gaixoetxean, eta gaur bertan galdetzen diot zer iduri zaion. Zuk ioateko diozu, noski. Labaien'ek ere bai. Ikusiko.

ZENBAIT ITZ

Eite = forma (eitegabe = informe).
 Antolagabe = incompositum.
 Mukulu, mokor = cuerpo (no precisamente organizado).
 Ortzantza = firmamento. (Uitzi'n, osantza).
 Mukuluki = corporal (de natura corporis).
 Gogaki = espiritual (de natura spiritus).
 Gogakoi = espiritual (persona).

Goraintzi augustindar on oieri
 Memento

NIKOLA

Zaragoza'tik 1954-IV-12gn.

Adiskide aundi: Datorren gabonillaren 12gn beteko ditut lau urte, I. L. onara etorririk, eta egun orí aukeratu dut etxera itzultzeko, gure etxekoandere onen bai-menarekin.

Nik nerez naiago nuke Lazkau'ko beneditarren gela bat, Elizatxora ta liburu-gelara eskubidearekin. Ayete'ra igaro al dira? Batere ez okerrago ordun.

Esan nizun «Breviarium totum» orren ori. Birlelo ta abar, itzak musikarekin uztartzen lagunduko lidateke. Non nindagoke an baiño obeki?

Oraingoz ez geiago. Onezkero etxera bildua uste zaitut Pazkoetarako.

Nere S. Agustin noizbait iritxiko al zaizu. «*Impresos*» antzean igorri nizun, eta zertifikatzerik ez dute emen ontzat artzen.

Duzula osasun eta Pazko on etxeko guziekin.

Memento

NIKOLA

Finca Miramar, Zaragoza, 3 de Septiembre de 1954. (Bigarren kopia. R.P. P. Leturia S. J. Roma.

Carísimo en Cristo P. Perico: De vuelta a Roma habrá Vd. hallado ahí mis dos respuestas a su consulta: una directa y otra por medio del P. Eusebio, sirviéndome él de asesor. Entretanto otra cosa me ha ocurrido de interés para los Jesuitas, para

nuestro pueblo y para nosotros sus dos amigos D. Martín Oiarzabal y yo. Nosotros dos somos, por decirlo así, los *herederos* o colaboradores en el Antiguo Testamento del P. Olabide, ya terminado de traducir, pero que necesita algunas correcciones, notas y prólogo, para lo cual suministraríamos nosotros material, de modo que entregaríamos la obra ya ultimada para la imprenta, salbo las notas que exige el Canon, de las cuales y del Prólogo se pudieran encargar ustedes.

Entre los años 1938-40 estuvimos dos temporadas en Toulouse donde él residía, corrigiendo y confrontando, y nadie como nosotros dos sabe las últimas tendencias del finado en las correcciones, algunas de las cuales se hallarán en papeles sueltos intercalados de nuestra letra, y otras nos autorizó hacer de palabra. Ultimamente, a cualquiera indicación lingüística que le hacíamos, «ale, ale» respondía; «póngalo así». Sería lástima que esa obra cayese en otras manos. Don Martín es el más acreedor en esto, pues a sus expensas fueron el viaje de los dos y la estancia en el Hotel, y él ponía el papel etc, para las cinco copias que le íbamos sacando. En Toulouse estarán, si no las han trasladado a Castilla, dos copias manuscritas de toda la Biblia, salvo algún cuaderno de la primera copia que guarda D. Martín, y dos o tres libros *in folio* de versiones hebraicas antiguas, una de ellas de un judío heterodoxo (no recuerdo si es Reina), que pertenece a D. Isaac López de Mendizabal. Debe de ser único ejemplar en nuestro País.

Es de considerar también que esta Biblia inédita y estos libros eran ya *res derelicta* y destruida, a no ser por lo que le diré: Estando el P. Olabide en Bilbao, tuvo noticia del bombardeo de Guernica, y «ay, mi Biblia!» exclamó. Don Doroteo Ciaurriz tomó inmediatamente su automóvil y pudo rescatar ese precioso material de entre las llamas, pues la casa estaba ardiendo por los cuatro costados.

Esto expuesto, ¿sería mucho pedir a la Compañía, que ese material fuese trasladado, mientras nosotros preparamos la edición, y con todas las garantías del caso, al Monasterio de Benedictinos de Lazcano, quedando allí en depósito únicamente el tiempo que nosotros lo necesitamos? También hay el medio de sacar fotocopia, pero no creo que haga falta si le merecemos suficiente solvencia. Necesitaríamos también los libros adjuntos para las referencias y notas.

A ver, pues, P. Perico, si activa Vd. este asunto cerca del P. General, de modo que para cuando nosotros podamos ir —ya le dije en mi anterior que yo me hospedaría allí desde a principios de 1955— encontremos allí manuscritos, copia y libros auxiliares adjuntos.

Un memento por su Affm. en C. J.

NIKOLA

Agur D. Martin: Ez al zaizu gaizki idurituko nere eskutitzori. Lazkau'n nere zai omen daude. Aita Nagusiak oso atsegin erantzun zidan. Nere ondoan asko ikasiko omen dute euskeraz.

Onezkero irakurri dituzu *Aitorkizunetako* iru iardunak; amaikagarrena errexta ta polita, besteak ez ain errexak. Latinez eta españeraz ere illun gelditzen dira. Nik, beintzat, ditudanak egin ditut.

Osasunez? —Betiko ezueri onekin, erri onek oso gaizki artu nau ortan, asieratik. Bestela, osasunez erabat ondo.

Urrena arte.

Memento

NIKOLA

Stromboli ontzitik (Balboa, Panamá) 4-XI-54.

Oiartzabal'dar Martin iaun apaizari. Errosario'ra

Adiskide aundi: Azken orduan, Guatemala'ra ioan-etorri, azken agur eta abar, ez nun astirik ukan irtetera nindoala gaitiratzeko. Ondo goaz Iainkoari esker. Panama'ko itxas-lepoa igaroteko baimena eskatu dugu; baiña biar goiza arte geldiarazi gaitute. Eguerdiko ordubatean iritxi gera onara. Emen bero gaitza, dakizunez. Ala ere gaur atsaldeon enbata, itxasoan zabal gaudela. Urrengo egona Curaçao'n egingo, ta andik zuzen Bilbaora. Len Bartzelonara zoan ustez ontzi au, baiñan orain bidea aldatu du. Neretzat obe. Bein Caribe itxasoan iragan ezker, otzak asiko. Bizkor noa Iaunari esker. Itxaso onek ez ote dit kenduko azkeneko ezueri kutsua? Gamu-odolak aztartu ditidate, eta zuringokirik ez (albúmina negativo) eta gozokia ere (glucosa negativo). Baiñan urea zerbait odolean. Vitamina'en bidez iarriko omen naiz ondo, kirioetatik omen baita nere gaitza. Gaiñera ura edan bear asko xamar. Gaiñerantzean osasuna erabat bikaiña, Iainkoak ala naita.

Orobat opa dizut zuri ere, eta elkarren berri ba-dukegu. Aita Leturiak oraindik ez dit erantzun.

Goraintzi deneri.

NIKOLA

Lazkau'tik 1955 Ibeltzaren 21gn.

Adiskide aundi: A. Leturia'k erantzun zion nere bigarrenari. Lenengoa ez omen zun iaso.

Castilla Oriental'go Provincial'ari ordun idazten ziola, ta (aita Leturia'ri) ederki iduri zitzaioa. Aita Azkona Asistenteak ere eskutitz ortan itz bi sartuko zitula «que era cosa razonable y de desearse», gure eskabidea. Baiña A. Olabide zena Castilla *Occidentarera* bialdu omen dute, A. Errandoneak esaten didanez; beraz ditekena da A. Leturiarena kuku gelditu izatea. A. Errandoneari ere oso ederki derizkio. Bereala idatzi zidan egiñalak egingo zitula. Provincial'a Ameriketara zala, ta idatziko ziola. Itz onak eman ditute beintzat. Bitartean, esan oidana, «beti ba-dugu guk Mezaren luzagarria». Zu etortzerako eskuzkoa onera karraiatuko ba'genu, emen asko lagun-duko liguteke kopiak ateratzen eta.

Emen bero bero asi dira lanerako bideak egiten. A. Mauro atzo Paris'a ioana da da *imprenta* polit bat erosteko asmoan (ONU'rena bezalakoa). Revista bat aterako omen genuke etxe ontan eta liburuak ere bai. Ederki nago emen. Gelan berogarria ipiñi didate.

S.Agustiñen Aitorkizuneri bigarren eskua (azkenekoa) ematen ari naiz. Ba dauka bearra. Xabarraldi asko xamar dauzka.

Beraz, bazatorrela zu ere. Asko pozten gera. Aita Agapito emen da. Nitaz arreta aundia artzen du. Ni polikixago; oiñazerik ez, esatekorik; loa nekez xamarra... Bes-tela, gizendu naiz eta itxura ederra daukat, sekulan baiño obea, ta osasuna ere bai. Pozten naiz zureak ere ongi izatearekin.

Goraintzai Agustin'dar oieri, eta

Memento

NIKOLA

GEIGARRIA: *Zaitegi Plazaola Jokiñ'en lau eskutitz.*

Guatemala'tik 1955gko. Epaillarren 27'garrean.
Oartzabal'dar Martin Apaiz iaunari. Argentinara.

Apaizkide ta adiskide on: Aspaldi ezker, zure berririk ez tut. Osasunez onik egongo al zera lanean eten gabe ari izateko. «Euskalduna» orko aldizkarian irakurri izan ditut zure azalkizun mamitsuak irakurlearen irakasgarri, Berri Ona azalduki.

Onezkero badakizu: «Orixe» on eta bizkorra Lazkau'n bizi da otoitz ta lan, Iaungoikoa ta euskera esku ta gogoan. Beneditarren etxean bizi da orrenbeste ordainduta. «Agustin gurenaren aitorkizunak» eta «Jaungoikoaren billa» idaztia antolatzan diardu. Bigarren idazti onen «Sarrera» ta lenengo atala laister emango ditugu gure aldizkarian.

Zu, adiskide, zertan ari zera? «Itun zarra» iruzkiñez emateko antolatzen ari zerala egia ote da? Alako zerbait «Orixe»'k esan zidalakoan nagokizu. Lan ori nola burutzen ari duzu? Arren bai arren azaldu idazu oren berri. Ni ere Itun zarrean murgiltzeko asmotan ari nauzu. Oraindik ezertxo ez dut egin, egia esan. Biok lan bera egin ez dezagun, zure erantzunaren zai nagokizu, nire lanari lotu bage.

Parantez'ko elertiarren edestia geurtz eman nai nizuke irarkolarako. Amaituxe dut; badu oraindak orraztu bearra.

Aurten Sopokel'en antzerkiak (H'garren idaztia) argitarazi nai nituke. Egunotan iarri omen dute salgai «Bidalien Egiñak»: obeki esan il onen azkenean, Labaien'ek idatzi didanez.

Oraingoz besterik ez. Agindu K'ren baitan adiskide duzun
Zaitegi eta Plazola'tar Jokin'i

P.S. Olabide'ren «Itun zarra» osorik al duzu? Z.

Guatemala'tik 1952 gko. Dagonillaren 9'garrena.**Oiartzabal'dar Martin Apaiz launari. Rosario'ra.**

Apaizkide ta euskaltzale laztana:

Egun bertan eskuetara zait zure gutun ederra. Eskerrik asko. Baita eskerrik asko, ortik gaztigatu baitidate arpide-saria ordaindu duzula gure aldizkariaren aldera.

«Euskal-izkera»z diozuna berorixe esan nion Orixe'ri, orain illabete El Salvador'ean. Bi aldaki ditu: bata aurrentzat, bestea ikasientzat; biotatik bat egin zezala aldizkarirako esan nion, oso ederki baitago. Egingo didalakoan nago. Ain zuzen ere, orain nere «Bidalien Egiñak» idaztiaren itzaurrea egiten ari zait, gero, Zarautz'en argitaratzeko: nere euskeraren aberastasuna dala-ta, arriturik dago Orixe.

Orixe'ri bein ta berriz esan diot zuk ere gure aldizkarian idatzi bear zenula ta idaz-lanak eskatzeko. Ez al didazu zerbait argitaragarri bidaliko? Poz-pozik argitaraziko nizuke idazle bizkortzat baitzaitut. Non duzu «Ianko ereslaria» ta abar, Estefania A. zanak euskeratuerazi zizuna? Agian besterik ba-duzu ondurik.

Idazle-mordo ederra dugu, noski, ta guzcion buru Orixe andia: egiñ-egiñean ere, Orixe orribiko eginda dago guztia Ameriketa'ko eguaroan ta inoiz bezin mardul idazten ari zaigu, osasuntsu ta bizkor.

Zure erantzunaren zai-zai nauzu.

Tori nire agurrik bizkorrena.

Agindu euskeraren onerako Iainkoagan,

Zaitegi eta Plazaola'tar Iokin'i.

Guatemala'tik 1952 garren Gabonillaren Iena.**Oiartzabal'dar Martin Apaiz yaunari. Argentina'ra.**

Adiskide ona: Azkenengoz igorri zenidan gutuna garaiz eskuetara zait. Eskerrik asko. Iaso ote duzu «Eusko-Gogo» 1952g. urteko 3-4g. banakoa? Beste zenbakia egunotan ekarriko didate irarkolakoek.

Illabete ontan, Gabonetan, Orixe'rekin egoteko asmotan nauzu, Iainkoak onez; garai ortan emango dit Orixe'k zure idaz-lana, nik uste, ta poz-pozik argitaraziko dizut.

Ain zuzen ere, nire paper zar artean zure «Ianko ereslaria» ta beste zerbait olerki arkitu ditut. On ba'deritzazu, aurrena gure aldizkarian emango dut, ipuin ederra baita ederki euskeratua.

«Bidalien Egiñak» idaztiari azken orraztua ematen ari nauzu, irarkolara bialtzeko. Itzaurrea Orixe'k idatzi dit. Nekez bada ere, aurrera goaz gure aldizkariakin, beaztopoak oro itzuriz. Iaungoikoaren aintzarik audienerako ta euskeraren onerako bitez gure alegiñak oro.

Tori nere euskal-agurrik kartsuena ta agindu euskeraren onerako Iesu'gan,

Zaitegi eta Plaza'tar Iokin'i

Arrasate'tik 1973gko. Urtarrillak 15.**L. Akesolo K-O agurgarriari. Markinara.**

Aita Agurgarria: Pozarren irakurri dizut askenengo *Jaunaren Deian* eman duzun idazlana: zeatz, zorrotz eta iakintsu zatoz, oi duzunez, mende ontako gure Bibli-itzulpenak gaitzat artuta. Zorionak biotz-biotzez.

Geure arteko lagun-iardunaldi ontan bidezko ote zait geigarririk edo zure lana irakurri-ala buruak eman didanik adieraztea? Baietz uste dut, nik neuk beintzat, gogo oneko gizon zeran ezkerro.

Oarrok edo diralazkoak zeure lanari iarraiki ezarri nai dizkitzut.

309g. orrian Orixeren *Urteko Meza bezperak* aipatzen duzu. Ez al deritzazu Orixek Olabideren Itun zahar eta Berria erabili zituenik liburu ortako epistolak eta berri onak ematerakoan? Bekaldera itzazu ta auxe ikusiko duzu: zerbait ikutu edo aldatu arren, bearrean Olabideren itzulpena dago. Orixek berak esan zidanez, Olabideri zor zion begiruneak ortaratu omen zuen.

Orrialde bertan «Zaitegi-ren Apostoluen Egiñak» aipatu besterik eztuzu egiten. Zeure-zeure iritzia iakiteko gosez utzi nauzu, liburu ori daña-ta. Or ezarri dizut orduan on-naiezko zenbait iritzi iaso nituen orritxoak.

Galdosen Dabiden abestietan ez al duzu Olabideren eraginik ikusi nolarebait? Gogoratzen naizenez, Etxeberriak eta neuk lagundu genion Galdosi lan ortan. Nik neuk bein baino geiagotan esan izan nion neure irakasle zanari: Olabidek onetara iarriko luke ta beralakoan iaso oi zuen nik esana. Dana dala, Galdosen beraren lana dugu.

312g. orrialdean Orixeren itzulpen-lana aipatzen duzu *Jesusen Biotzaren Deyan*: «an argitaratutako lanik aundierna itzulpen-lana du Joanen Ebangelioaren 16 kapitulu», diozu. Zer esan nai ote du lanik aundien orrek? Eztakit arean. Beste batzuen ustez oberik eman zuen Orixek. *J. B. Deyan, Txori galdua, Bidea, Argia, Egia, Artzaina naiz ni* aztira gutxiagokoak. Mokoroak bein esan zidanez, Orixek idatzi dituenik lanik ederrenak.

Benetan Ebangelioak laurak euskeratu ere egin ote zituen Orixek jesuiten arteko zaneakoan? *Dubitat Augustinus*. Ortaz lenengoetako *Euzko-Gogoetan* ari izan zanean, nik neuk enuen gauza garbirik atera al izan. Egia esateko, ezezkoan lotu nintzan. Geroago, bai, euskeratu zituen.

314g. orrialdean Areitio Durangoko semea aipatzen duzu. Auxe gaineratu nai nizuke: Asieran ez, baina Loiolan zuteneko aren itzulpenean Olabideren aztarnak ageri-agerian dira. Olabidek bere Itun Berria argitarazteke zuen oraindik, baina Olabidek berak berari utzita. Garai artako Areitio-ren bizkaiera osoagoturik ageri da. Olabideren eragitez, eskierrik nago.

Olabiderena: Euzko-Gogoak banako berezia eskeini zion Olabide zanari. Okerrean ezpanago, eztut uste Olabidek «Leon-en jarraitu eta bukatu» idatzi dezakezunik.

Aren euskerara biurkera errazegi ematen duzu. Berari entzunda auxe dakit. Kanpionek bere gramatikaren sarreran diona irakurri-ala, bere burutik ere euskaldun motz izatearen lotsaria kendu-naia sortu omen zitzaion. Gogoratzen naizenez, Madrídeko lege-etxean euskerarik ez iakitea arpegiz arpegi iaiki omen zion erdaldun

batek. «Ezetz orrelakorik iauki emendik 6 ilabetera», erantzun gure Kanpionek. Esan eta egin. Euskera ikasi ta Gramatika argitarazi egin zuen nafarrak ere. Ori izan zuen eragile gure Olabidek, berari entzunda gera, erekin batera iru urte aunditan Loiolan bizi izatea egokitu baitzitzaigun, Iainkoak onez.

Villasanteri bota diozun zitzada ederrik dago, eta zuzen, gizona.

Itun Berria berriz eta berriz itzuli zuen gure Olabidek, Guatemalako *E.G.-n* Orixek adierazi zuenez.

Itun Berria argitaratu-ala, aren aldeko iritzia Orixek eman ziolakoan nago, ez nago eskerrik, nere paperak Baionan dauzkat-eta. Baina orduko *Euzkadi* egunerokoa aztertu-bearra zenduke... Iraizoz'ena gertatu bezala dakartzu.

Gazteiz'ko norgeiagoko artara Orixek ere io zuen eta Agirrek irabazi. Agirreran lan ori nun aurkitu ote dezaket? Esaidazu mesedez.

Itun-zaar eta Berriarena. Guatemalako *£.G.-an*, Andimak eta biok Itun Zaarra, Olabiderena, ematen asiak ginan, adibidez, Abestirik Bikainena: nik sarrera, gero Olabideren itzulpena, ta Andimak aren iztegia, lotan baikenduen Olabideren itzulpena: garai berean Orixek idatzi zion Jesusen Lagundiko barruti-nagusiari, ortarako bere eskubidea erakutsiz. Erantzun ere etzioten egin, baina orduan artu zuten nagusiok argitarazteko erabakia, Etxeberria Formosatik Euskadiratuta.

Lafitteren eta Mitxelenaren iritzia ongi zeaztu dituzu eta inoren beldurrik gabe. Olabideren oi ez bezalako lana aztertuta gero, Mitxelenaren iritzia aurrean oilartuta ari zera zuzen eta bidez.

Erabat esan: artu nere zorionik beroenak biotz-biotzez, zure lan ederra dala-ta. Oraingo besterik ez. Goraintziak orkoei.

Jesukristogan apaizkide
Zaitegi eta Plazaola'tar Iokin.

IV*

Oraingo eskutitzok Orixe'k, Euskalerriratuta gero, Lazkao'tik eta Orexa'tik egiñak ditugu.

Etxeko aizeak ez zaizkio osasungarriegi egin eta, orregatik, osasunaren goraberak, atzera-aurrerak maiz etorriko zaizkio luma-ortzetara. Sendatzeko, besteak beste, Fitero'ko uretara eta klinikaren bateko egotaldietara jo bearko du. Eta bai beste sendagarri batera ere: umore onera. Euskaltzain egin dute, alegia, Olinpoko jaingo txikien antzera, ezin illezkoa -inmortal- oietakoa. Zertako bada, osasunez kezkatu eta bildurtu? Beraz, al danean al dan lan guztia egin eta aurrera.

Agustin donearen «Aitorikizunak» euskeratzea amaitu du eta argitara ematen ditu Donostia'ko Gotzaitegiko baimenaz.

* *Orixe-ren eskutitzak (IV) Lazkao-tik eta Orexa-tik*, Karmel 1980-3, 53-62.

Noizik bein Gramatikazko gaitxoren bat ere ikutuko du. Lenago ere esan genuenez, O. eta O'. (Orixe eta Oiartzabal'ek) biak elkarrekin gramatika berri bat antolatzen ari ziran, geroago agertuko zana, eta punto batzuk elkarrekin argitu bearra sortzen zitzairen aditz-formaren bat zala, itzen bat zala, eta ola. Gramatika ortatik kanpokoa dirudi euskal-sintaxiazko lan batek, beste izkuntza batzuetako sintaxiarekin bekaldeturik, konparaturik, egitekoa. Gizon bakarrarentzat lan astunegia dala-ta, Oiartzabal jaunaren laguntza eskatzen du, bien artean egiteko.

Bezperak (eta Konpletak ere bai) euskerara itzulita dauzka eta nonbaiteko errietan asi nai omen dute kantatzen. Lan au oso begikoa du Orixe'k; orrela oitura zar bati eutsi eta bizi berria eman nai dio, batez ere gure erri txiki euskaldunen onerako.

Izan ere, oitura zarra izan da gure eliz askotan Bezperak kantatzekoa. Errosarioaz eta dotriñaz (itzalditxoaz) batera, igande arratsaldetako elizkizuna osatzen izan du. Agirre Asteasukoaren itzaldietan argi ikusten degu. Ona nolako kontua eskatzen dion bein kristauari: «Begira izan ote dezun Meza Nagusi, Errosario eta Besperatik iges egiteko oitura lotsagarria? Badakit gauz oietako bakoitzak etzaituala beartzen bekatu larriaren azpian. Baña denbora berean ezin ukatu diteke kristau asko daudela jakin bear dituen gauzak ez dakizkienak... Zer izango da, bada, oez, jaietan iges egiten badue Meza Nagusi, Errosario, Bezpera, Dotrina eta obra onetatik?».

Errosarioa eta dotrina, jakiña, euskeraz izaten ziran, baiña Bezperak latinez, oraintsuarte. Eta au Euskalerrri osoan. Oitura au errezago egiteko, antziñako otoitz-liburu askok sartzen zituzten igandetako Bezperak eta abar, Baiona-aldeko euskerazko otoitz-liburuetan beintzat, eta Bidasoaz onuntzakoetan ere bai banaka batzuetan. Gizaldi ontako bi aipatu ditzazkegu, gutxienez: Marzelo Zelaieta eta Aita Elizondo'ren *Kristaua bere Pont-elizan* (1911), eta Beinzal-Labaien'go Felipe de Jesus Etxebarria'ren *Bisitak* (1926). Bezperak kantatu nai dituztenentzat latinezko Bezperakin daude. Eta entzun bakarrik nai zituztenentzat ere baziren beste euskal-liburu batzuk, salmo bakoitzaren orde otoitz batzuk egiteko aukera ematen zutenak. Aita Kardaberaz'en izenez ainbat aldiz argitaratua izan den *Eskuliburua*, esaterako.

Urrengo urratsa Bezperak latinez eta euskeraz ematea izan zan gure eliz-liburuetan. Aita Polikarpo Iraizoz, aurtan il danak, eman zuen urrats au, Iruñan, Neketako Ama Birjiñaren irarkolan latinezko eta euskerazko besperakin liburutxoa aterata. Aurrerakada galanta izan zan au, noski; baiña ez luzaroko. Orrela, Besperak latinez kantatu arren, euskera or latinearen argigarri ematen zala dirudi, euskeraz kantatzeko.

Laster sortuko da giro berriagoa, salmoak eta gaiñerako guztia euskeraz eman eta kantatzekoa. Orixe beraren Meza Bezperak agertuko dira aurrena, 1949n argitaratuak, baiña zenbait urte lenago egiñak. Emen ere latin-euskerazko giroan gaude oraindio. Urrengo urratsa eta aurrerakada euskera utsezko salmo eta kantuetarako izango da. Eta ontan Orixe etorri zaigu aurrelari, eta Iratzeder jarraitzaille. Orixe, salmoak punto edo rimadun bertsoz ematen dituela, eta Iratzeder bide estuagotik, rima eta neurri berdiñeko bertsoan. Orixe Lazkao'ko beneditarren ingurutik dabila, eta Iratzeder Beloke'ko Andre Maritik.

Eskutiz auetan ikusten ditugu Orixe'k ontan zerabilen lanaren zenbait gorabera: nola zijoan itzultzailearen lana, nola zabaldu zan erri batzuetara euskerazko bezpera aien berri, non kantatzen edo kantatu nai zituzten, nola zijoan gero inprentaz atera-

tzeko asmoa, patxara geiegiz itzultzailearen iritziz, ez berak nai bezin azkar. Lazkao'ko prailleak nolabait ere ez ziran guztitara eltzen, ez ziren nai bezin arin inprentatzeke gauza.

Emen dator bigarrenez Olabideren Bibliaren auzia ere. Ez da ageri Jesuiten nagusien erantzun argirik. Biblia ori argitaratzeko prestatzea beste egitekorik gabe Formosatik ekarri dute Aita Etxeberria. Berak eta Orixe'k elkar-ikuste bat ere izan dute. Eta guztiaren ondorioa zer da? Orixe eta Oiartzabal'entzat ez batere atsegiña. Biok Olabide'ri bialitako oarkizunen aztamarik ez omen zan agertu Olabide'ren Pabeko paperetan. Ez dago zer egiñik. Jesuitek berentzat nai omen dute *totum honorem*. Orixe'ren eta Oiartzabal'en auzia galdua da.

Erliziozko lanez landa, Orixe'ri beste lan bat ere agindu edo eskatu diote: euskal dantzez liburutxo bat egitea. Dantza Nagusitik asi da, eta aurrera jarraitu nai du. Zer geiago egin ote zuen? *Dantza Nagusia* dalako ori Omenaldi-liburuan agertua omen da.

Azkenez, beste elkar-lan bati ekitea eskatzen dio Oiartzabal adiskideari: «Baratza-iorra» dalakoa. Nonbait, kritika-lana da emen asmotan darabilena, baratz txiki baten barruan egitekoa: Euzko-Gogoa, *Egan* eta *Yakintza* aldizkarietan azaldu diran lan batzuk jorratzea, euskeraren aldetik eta moral-gizabidearen aldetik. Lan ontan odola beroegi jarriko ote zaion bildur da bera. Aitorpen polita. Eta Oiartzabal bezelako gizon bat, pake-girozko bat, gibel aundi eta beazun gutxiko bat artu nai du lagun, eztabaidan sartu ta bere onetik ez ateratzeko, odol-berokeriak neurri onera ekarri arazteko. Aitorpen au ere ez ote da bestea bezin polita eta jasotzekoa? Ez ote du bestek aña balio?

Degu = dugu, iauna = jauna eta olako bikuntzak Orixe'renak dira.

Oiartzabal'dar Martin iaun apaizari.

Adiskide aundi: Bizi naiz bai, baiña lanerako aski illik nago, zazpi illabetetan mikorik egingabe, esku zorioneko auengatik. Ezueriak gogor jotzen nau. Orain arindu zait poliki Fitero'n urak artu ezkerok... Bestela, osasunez oso ondo. Nai duzuna esango duzu, baiña foto oietan zartua agertzen naiz, eta oiek ez diote gezurrik. Oso galdurik nengoan aldi artan; larru-azal asko sobrante. Orain legundu zait aurpegia ta asko gaztetu naizela esaten didate. Ez da guzia gezurra.

Emen dauzkat mai gaiñean zure irurak erantzunik eman gabe.

Ni zurekin nago -KE ortan. «Para mí la idea de posible (no me gusta la palabra potencial), es más abstrusa y posterior a la de futuro». Baiña gaur ez da sori -KE orri gerokoaren adierazkizun soilla ematea. Mokoroak ez du aditu nai ere (belarriak ixten ditu) n-eza-ken = nuken (noizaldi berdinean): esan nezake = erran niro = esan nuke.

Unusquisque in sensu suo abundet.

Kopiatzeko lan nekagarri ori (Ganboarentzat) utzazu.

Itsu = ciego; *katsu* = miope (AN-lar).

Olabideren Biblia? Mundu guziko arrazoiak eta bat geiago eman ditidate itz ederrekin. Oraintxe nago *Castilla Occidental*'go Provincial'aren azken erantzunaren begira. Luzatzen du. Aita Landaburuk itzez esan zidanez Nagusi orrek au uste omen du: irarkolarako antolatu bear dunak, gu biokin izketaldi batzuk egitea naikoa dula.

Aixta txikurrun-txakun
mendan elurra;
asi baiño lenago
ba-nuen beldurra.

Noiz zator onontza? Ez duzu tutik esaten.
Aurkene sendotu dedilla.
Etxekoari goraintzi.
Memento

NIKOLA

P.S. Etorri bainintzan etorri, ez diot egin eskutitz bat ere Quito'ko arrebari.
(Ez noizko ez nondiko argitasunik gabeko eskutitza da Orix'e'ren au).

Lazkau'tik, 1956-22-11.

Oiartzabal'dar Martin apaiz iaunari. Buenos Aires'a.

Adiskide aundi: Lengo batean bialdu zidaten Jesuitek Aita Patxiko Etxeberria, A. Olabideren Itun zarra argitaratxekoxe Txina'tik deitu dutena. Esan omen die nagusieri, lan ori ez dala arentzat egiten dana, baiñan agintzen dunak ez du erregutzen. Gizagaizoak lenengo galde au egin zidan: ia zer texto erabili zun itzulkizuna egiteko. Kontuak atera!

Toulouse'tik «Manuscris du P. Olabide» beste ezer ez omen du ekarri Bilbao'ra. Gure oarkizunen papertxo aien zantzurik edo arrastorik ez omen da.

Zer egin genezaken galdetu zidan, eta besterik ezean —esan nion— kopia bat eman zegigutela guri, geuron oarkizunak ipintzeko. Artan geratu giñan.

Erroma'ra doa bi urteko. Ango euskalzaleek lagunduko omen diote.

Causa finita est.

Oso neketan ari naiz idazten, eta barkatu laburtasunari.

Memento

Ormaetxea'ar Nikola

Goraintzi A. Beobideri, or baldin ba'da, eta gaiñerako Lateran'dar oieri.

Lazkau'tik, 12-IV-56**Oiartzabal'dar Martin iaun apaizari. Errosario'ra**

Adiskide aundi: Ez egon kezketan nere osasuna dala-ta. Poliki iartzen asi naiz. Ez zan negu gorrarengatik. Bi illabete terdi oiean egin ditut oiñaze ta sukar. Berogarri ederra nedukan. Zer gertatu zait bada? Eguberriko amabostaldian zernai ian eta edan nezakela esan ziran sendagille batek. Ordun ongi nengoan. Baiña, neurria gorderik ere, gaitz egin zidan.

Lanean asi naiz. Ez dakit esan nizun, baiña Agustin gurenaren «Aitorkizunak» gotzaitegian da (Donostikoan) Eleiz-baimenaren eske. Urtearen askenerako atera nai luke Pio Montoya iaunak.

Bezperak ere egin nitun puntu edo rimarekin eta Eliz-baimena ba-dute —Aki-tza'ko Gotzaiarena—. Laister asiko dira abesten. Naparroako Oskotz'en lenbizi.

Orain beste lanak utzita Dantzarengaz liburutxo bat egiteko agintzen didate. Datorren igandean noa Bedaio'ra ango gizadantza ikustera, eta berela asi bearko. Iainkoak emango al dit osasuna, nere beste lanak egiteko.

Emen ez da berriagorik.

Goraintzi beroak Aita Agapito'k.

Memento

NIKOLA

Etxekoeri milla goraintzi eta asko pozten naizala aien osasun onaz.
Zure kartak illabete ta koska egin du bidean.

Orexa'tik, 10-IV-57.**Oiartzabal'dar Martin iaunari. Ernani'ra.**

Adiskide aundi: Lenbizi Pasko on Jainkoaren grazi ugariekin. Aspaldion ixilik gaude. Lengoan eman zitidaten Labaien'ek goraintziak zure kexi.

Ni askoz obeki nago. Illabete onen lenean ia oso etsirik egon nintzan, baiñan orain beste gizon bat naizela esan dezaket. Lanean asi naiz. «Dantza Nagusia» bukatu det. Labaien'ek arekin liburutxo bat atera nai du. Nere liburuaren beste atal bat egin det, eta aurrerako argitasuna ta kemena sumatzen ditut, Jainkoari esker.

Santa Kurutz egunean erriko pestaburu degu, ta nai baduzu etorri, mami puxka bat jango dugu.

Gure etxeokak milla goraintzi.

Memento

NIKOLA

Orexa'tik 9-VIII-57.**Oiartzabal'dar Martin apaiz iaunari. Ernani'ra.**

Adiskide aundi: Osasunez nola nagon? Onezkero ez dit axola aundirik ematen «ezin-eriozko» edo *inmortal* egin bainaute. Ixaak-ena neronek eskatu nien baldin-itz bezela.

Osasunez, bada, poliki antzean irugarren illabete ontan. Negurako ongi-xamar jarriko ote naizen itxaropena.

Bi jesuitek agertu bat egin zidaten igaro dan Maiatzaren 20'garrenean. Zertara? Itzez esango etorri zaitenean.

Aita Patxi Etxeberriak ez dit igorri oraiño kopiarik, eta ez dut itxaropen aundirik ere. Gure adiskide oiek berentzat nai dute *totum honorem*.

Saubion'go iztegitxoa... *neque si Spiritus Sanctus est...* ez neukan gogoan. *Emengo ficheroa* ere, Euskaltzaindirako egiña neukana, itzalia da. Oinbeste lan galdu!

Osasunez poliki zaudenak pozten nau. Lazkau'ko beneditarrekin zerbait egin ote daiteke? Iende gutxitxo. Erromatik aurten etortzekoa ba-dute bat, bizkor samarra. Aita Mokoroa'enyzc/zeroa or daukate gordea irurogei ta geiago papeletarekin. Ba-da lanean asteko aña.

Ez dakit zer ari diran nere Bezperakin. Eznaiz asko gauza idazteko ere, ta aspaldi ez dut ango berririk. Oskoz'ko apaiza ez zan oraintxe asi lenbizi eman bear zitulata. Eliz-baimena ba-du Akiza'tik. Puntuetan edo riman dago, ta musikarekin multikopian. Aita Patxi Aizpuruak atera zun, eta kopiak ark dauzka.

Besterik gabe, laister arte.

Etxekoek milla goraintzi.

Memento

NIKOLA

Orexa'tik, 57-XI-5'gn.**Oiartzabal'dar Martin iaun apaizari.**

Adiskide aundi: Zurea iasoa det. Ni karta au egiteko sei egunez aurretik asi naiz, zer gerta ere. Alegia, Asi-gripe orrek oiean dauzka gure etxean amabitatik amar. Ni oraindik ez nau atxitu, baña bildur naiz, eta orregatik, dagola karta au datorren larunbata arte. Orduan bat edo bat ba'diteke au Tolosara eramateko. Astelenerako iritxiko al zaizu.

Beraz Martin Guren aundiak Iainkoagandik ekarri detzaizula eskuak bete doai.

Ni gero ta polikiago. Maiatzaren 21 ezkeror ez dut ukan erorikorik edo eraso gogorrik. Urrilean bost kilo irabazi ditut. Egunero Elizara asi naiz. Oinbestean pozik.

Aita Ixidor Baztarrিকা emen nun lengoan, Bezperak dirala-ta. Eraman ditidate *Completak* ere, bai gipuzkeraz, bai bizkaieraz. Matximenta'n ematen dira Bezperak euskeraz. Beste errietatik ere eskea asi da. Argitara eman bearko lenbailen.

Nik asi dut liburuaren bigarren alderdia. Orain tarteko lan batean ari naiz: Euskal-tzaindian sarrerako itzaldia antolatzen, Gaia, «Leitza'ko mintzo-doiñua».

Nere burua arin xamar dago, ta emen bukatuko dut, gero izketaz iarraitzekotan. Etxekoak milla goraintzi.

Memento

NIKOLA

Orexa'tik, 1958-I-16'gn.

Oiartzabal'dar Martin apaiz iaunari. Ernani'ra.

Adiskide aundi: Zurea iaso ezkeru au gogoak eman dit: zu onara etorteko oker dagola, ta lokazti izugarriak daudela, ta ni or agertzea obe litzakela. Neretzat astelena da egunik oberena. Datorren ontan, 21'garrenean, astelena, noski, joango nitzazuke. Astelenetan amabostero etorten da «Atalloarra» Orexa'raño. Beraz, nik, orrara eguerdi aurrean iritxi, ta illuntzerako Tolosa'ra, aski nuke.

Lanerako gogoan omen zaude, Aita Ixidor'ek dionez. Ni ere bai, bada, ta lenago bezela asi naiz ziztu osoan, «Jainkoaren billa» ori aurten bukatzen ote dudana. Tarteko lan batzukin, iakiña.

Zuk zeure asmo ta burubideak ba'ditukezu, nondik asi, zer egin. Nik nere aldetik lenengo lan berria, onako azalkizun edo *thesi* au: izkuntza guziak batetik ote datozen, beraien itz-urrenari edo Syntaxiari begiratu ezkeru. Ustekizun edo hypothesi bezala, beintzat. Oarkizun batzuk ba-ditut Prantzian utziak, ez dira gauza aundia; baiña, zuk atzera egiten ez ba'duzu, bion artean osatuko genuke. Neretzat bakarrarentzat lan astuntxoa.

Nik zati auek aztertu nitun latinezkoak: Dial. II, *De Oratore* (osoa), *de vita et moribus Catilinae*, eta *De bello gallico* (zatiak). Griegoz Homer, Platon, Xenofon, Anakreon (zatiak). Ondorio au atera nun: Salustio 97% aldiz euskeraren itz-urrenara irixten dala, Kaiser 95% aldiz eta Kikeron 94% aldiz. Gaiñerako latitarrak ortik asko ieixten dira. Griegoek asko galdu zuten itz-urrena. Platon ez da irixten askotan 60'tara ere. Ezago Xenophon eta abar. Homer ere berriago da itz-urrenean Vergili baiño. *His positis*, eta iaponesa ta turkoa euskerarekin berdin dirala, ta gaiñera, izkuntzak, zenbat eta literatura zarragoa duten gurera geiago urbiltzen dirala, uste izateko da, len-lenbiziko izkuntzaren itzurrena gure auena dala.

Beste aztergai bat... «Baratza-iorra» izena dun kritika bat egin genezake biok, «Euzko Gogoia, Egan eta Yakintza» aurkintza ditugula. Bai siñeskizunean, bai ele-ederrean, gure gaztedia ezkerreara doa. Aro obeak etorriko dira, iainkoak onez. Iakiña O ta O'ren izenean. Zer iduritzen?

Ni gero ta obeto osasunez, iainkoari esker. Odolak berotzen ari zaizkida, ta zu bezelako galga baten bearra izango dut oraindik ere, geiegikorik ez esateko.

Or itz egingo luzeago.

Etxean guziak ongi. *Argi* gaixoak makurra ukan du: lenengo aurra Cesarea'ren bidez atera zioten, eta bereala il zan.

Guzien kexi goraintzi.

Memento

NIKOLA

Orexa'tik, 1958-IV-25'gn.

Oiartzabal'dar Martin iaun apaizari. Ernani'ra.

Adiskide aundi: Noizbait ere garai da bizi-zantzua emateko. Erramu biaramonean bildu nintzan etxera. Igaz bezala bezalaxe. Apirilaren len-asteen erorialdi aundi bat izan nun, geiago ezertarako ta iñorako gauza izango ez banintza bezala. Ezin-jana, gora-naia, zorabioa izan ditut lagun ia oraintxe arte. Oraindik ez naiz nere onetara etorri, baiña laister etorriko ote naizan. Odolaren aldia izan ote da?

Bearrik ere, lana mendean daukat, beste argialdi pare batean bukatzeko eran. Jainkoa lagun, oinbeste adiskideen otoitzak bultzatuta iritxiko al naiz azkeneraño.

Egualdiak ere gogorak egin ditu illaren lenengo egunetan: elurra, izotzak eta euriak. Orain eguzki ederra agertu du. Eguzki asko artzeko agindu zidan sendalariak, eta tisikuen biziera egiteko, au da, etzana. Txintxo entzungo diodala nago.

Ez dut asmorik bigarren tximist-erai txanda artzera ioateko. Ezueritik obetoxego noala iduri zaida.

Eta zu? Goizero olako zurubi-sailla igotzeko, Gurutze bide polita daukazu.

Aita Ixidor'i egin nion Lasartetik, eta ez dit erantzun. Ni Lazkau'ra ioan al izatea, gerta-ez gertako gauza zala esaten nion. Bezpera'en berririk ez dakit batere. Igaz Eguberrietarako argitara emateko asmoa zuten. Gauzak patxaraz artzen ditute.

Besterik gabe, milla goraintzi Eusebi ta Estefani lengusueri, eta zu nitaz.

Memento

NIKOLA

Orixek Oiartzabal jaunari bialitako azken eskutitzak dituzu emen, irakurle. Osa-suna martxoko eguraldia bezela dabilkio, bein eguzki, bein goibel. Eriotza ez du urruti. Bi urraketa, bi operazio ere egin dizkiote, bata bestearen ondoren. Noizik bein, osasuntsu eta sendo aurkitzen du bere burua, eta argi samar ikusten du etor-kizuna; baiña gaitz bat uxatu duela uste duenean, beste bat agertzen zaio, alde bateko edo besteko ajea.

* *Orixe-ren eskutitzak (V) Oiartzabal Jaunari*, Karmel 1980-4, 59-72.

Beste ezbear bat ere gertatu zaio: erriz-erri, etxez etxe ostatu billa ibilli bearra. Oresa utzi bearra izan du; ez omen du an, erdia baiño geiago berea duen etxean, ostatuz jarraitzerik; legeak ez omen zion babesik ematen eta kanpora joan bearco du. Zorionez, bere illoba batek, J. M. Aranalde apaiz meza eman berriak eskeiñiko dio bere etxea Araman. Eta oni jarraitu bearco dio, Arama'ra lenbiziko, eta Emanialdera, Zabalegi'ra gero. Illoba au izango du azken-egunen gozagarri, eta gaiñera euskalari on eta ikastuna aterako zaiolako uste ona du. Ain zuzen, eskutizkide duen Oartzabal apaiza Zabalegitik urbil bizi da, eta andik ara, alkarrekin jarduteko, eskutiztetzara jo bearrik ez dute izango. Aoz ao itz egiteko aukera izango dute, elkarrengana bildurik. Bein, orraitio, elkar ikusteari luzeiritzirik, kezka idatziko dio lagunari, ea gaixorik dagoen ala zerk atzeratu duen lagunaren etorrera.

Orrez gaiñera, betiko gaiak joko ditu eskutizetan. Batetik, adiskidetasuna erakusteko eskutitzak dira. Orixek ez dio bere buruari barkatu nai, San Martin egunik igaro bazaio, adiskideari bere zorionak eman eta otoitzak eskeiñi gabe. Eta mingarririk gertatu bazaie, esaterako Olabideren Bibliarekin gertatua, adiskidearekin ustuko du bere biotzeko samiña.

Bestetik, betiko gaia euskal-lanena dute. Bien arteko Gramatikaren goraberak. Bespera-kompletanak, Jainkoaren billa, Orixeren lan nagusia, eta abar. Azkenengo biok argitaratzeko Lazkaoko beneditarrak dabilztartean.

Baiña guk gaur beste lan bat aipatu nai genuke emen, Orixek Oartzabali iñoiz aipatu gabea, eta aurtan argitaratu berria: *Aita Benito Gurenaren Erregela*. Lazkaoko prailleentzat euskeratu zuen eta aurtan, Benito santuaren XVgarren mende-urren onetan argitaratua izan dan ezkerok, ez degu ixillik utzi nai, ezer esan gabe. Opari ederra beneditar euskaldunak beren Aitari eta Europako Zaindari dan Benito doneari egin diotena liburu onekin. Liburu eder mardula benetan, sarrera eta eraskin mamitsuz omiuta. Aurretik, Benitoren berri emateko, Aita Begiriztainedek euskeraturik, Gregorio Andiaeren Elkar-izketako liburu bat erantsi diote, eta ondoren, beneditarrek munduan zear eta Euskalerrian izan duten eta gaur duten zabalera aurkeztu digute. Eta erdian, 91garren orrialdetik 282garrenera, Benito Santuaren Erregela, Orixeren lana.

Azken-aldean auxe irakurten degu: «Benito Santuaren Erregela au Nikolas Ormaetxea «Orixek» euskeratua da. Lazkaoko Benditarren etxean egin zuen 1955. urtean bertako Aita Nagusi Alberto Begiriztainedek eskaturik, eta Aita Patxi Aizpurua idazmakina lanetarako lagun zuela, askotan gaixorik oean egon bearra izaten bait zuen eta oetik egiten itzulpen lana».

Orra itzotan Orixeren azken urtetako irudi bizia, askotan miñaren miñez gurutzeari josirik, baiña beti Jainkoarentzat eta euskerarentzat etengabeko lanean.

Azkenengo eskutitza, Oartzabal jaunari egiña, 1960ko Azarokoa du. Andik bederatzi bat illabete geroago Jaunak eraman zigun bizion artetik, betiko atsedenera. Oartzabal jauna Bilbora aldatu zan, Begoñako Apaiz zar Agurgarrien etxera. Emen ezagutu genduen, 1966n il zan arte. Goian begoz adiskide eta euskal-idazle andi biok.

Oraingo eskutitzon geigarritzat, beste iru eskutitz jartzen ditugu, Orixerena lenngo, baiña urte asko lenago egiña, 1949koa; beste biak, Zaitegi zanak, EUZKO-

GOGOA aldizkariaren zuzendari zanak, Olabideri egin nai zion omenaldirako Oiar-tzabali egiten zion eskariarekin. Besteen osagarri, ongi etorriko diralakoan gaude.

Besterik gabe, azkena ematen diogu Orixe zanaren eskutiz-mordo oni. Eta, ain zuzen, asieran aipatu genduen irukotea, Orixe-Zaitegi-Oiartzabal, batera ikusten de-gula.

L.A.

Orexa'tik 19S8-VII-3gn.

Oiartzabal'dar Martin iaun apaizari.

Adiskide aundi:

Beti erantzuteko eta erantzuteko, ta azkenean berriz atxitu nauzu. Ez, bada, osasunez okerrago nagolako. Ortik etorrta bi illabete kaxkarrak igaro nitun; baiñan arrezko obeki noa, polikitxoaz ere. Zangoetatik nagi ta eskuetatik baldar, bai; bestela, ordea, ez dute ezagutu nere bizi guzian gaur bezalako osasunik. Margo biziak, urdail ona, biotz obea, auspoak ere on; baizik ere, mintzoa daukat motel, erlasa edo marranta banu bezala.

Ulabete onen erditik ara Arantzazura deitua naiz, eta egunak noiz izendatuko ditidaten nago. Egun bereon egin diot Aita Nagusiari, ta zuri ezin esan noiz emango ditudan nere ikasalditxoak.

Ernai ibilli Lazkau-'rekin. Etxe zakurra da ua. Ni ez naiz ausartzen ioatera, asmoetan banintzan ere. Zaindu ezazu zeure burua.

«El lenguaje vasco» ortan egizu nai duzuna, ta nik ontzat emango. Zertanbait erara ez ba'gago, bata besteari errua erantsi dezaigun, eta kitto. Nik nere «Jainkoaren billa» bukaturik daukat; aldakiak ateratzen ari zaizkit, bai Lazkau'n, bai Tolosa'ko Sakramentinoetan.

Olabide'rena Andre Marietarako agertzekoa zan, ustez, baiñan irarkolan atzeratu egin dira. Ala ere, diozuna, Eguberri aldera argitan izango omen. Zer atsegiña! Zaitegi ere ari da E.G. banako bereizi bat A. Olabide zanaren gorazarretan ateratzen. Nere lana iasoa du, lengo astean idatzi zidanez.

Zaude bizkor. Goraintzi lengusueri, eta
Memento

NIKOLA

Arama'tik, 1958-IX-19'gn.

Oiartzabal'dar Martin apaiz iaunari. Ernani'ra.

Adiskide aundi:

Ematera noazun berritxo batek arrituko zaitu: atzoko egunez bota ninduten e-txetik. Etxearen balioa baiño geiago nerea ba'dute ere, nik ez dut agiririk, eta arrebak

bere itun-paperetan ez du nere aipurik egiten ni etxera biltzeko edo olakorik. Beraz, legez ni etxetik landa bialtzeko eskubidea dute.

Arama'ko Parroko dan nere illoba Joxe Mari Aranalde'k pozik artu nau bere etxean. «Bazan garaia!, esan zidan; asko pozten naiz. Zuk etzenun iende aien tartean egon bear ere».

Etxe polita du bere baratzarekin. Lenengo gaua lo baten egin det. Illoba onek ba-du griña ikas-lanerako, eta ikasle on bat atera nai nuke onengandik.

Emen nere *Completa*'k kantatzen ditute igandero, eta datorren igandean entzungo ditut, Jainkoak onez.

Labaien Iauna asia da neretzat diru-biltzeko asmoan, adiskideengandik. Iainkoak ez nau beifiere eskutik utzi, ta aurrera ere lagunduko naula iduri zaida.

Osasunez obeki zoazala entzun diot noribaiti. Ala obe!

Gauza au gertatu baiño len, nere illoba onek Aita Ixidor Baztarrika'ri esanik zedukan ekarriaziko nindula. Laister emen dut, *Bezperari* eta *Completeri* azken-begiratu bat emateko. Eliz-baimena ukan dute, ta luzaro gabe argitara emango ditute.

Gaurkoz besterik gabe, lengusueri goraintziekin.

Memento

NIKOLA

Aramatik, 1958'gngo Azaroaren 14'gn.

Oiartzabal'dar Martin apaiz iaunari. Ernani'ra.

Adiskide aundi: Oraingoan ez daukat aitzakirik: erdia baiño geiago nagitasunez gelditu nintzan zure egunean bi itz idatzi gabe. Motelaldia ere izan dut, sendagailuak erabat utzi nitulako; baiñan orain obeki nago Iainkoari esker.

Saindu guziak zortziurrena bai omen dute, eta ala bearuko. Iakiña, etzindudan aztu egun orretan Iaunaren aurrean. Ilabetez lenago kezkatzen asia nintzan Azaroa zalakoan eta gero txuri, eguna etorrita ere.

Zu osasunez polikiago zaudela entzun dut. Ala bedi. Orko iloba bat etorri zitzaidan eta goiz ikusi omen zindun Meza ematen.

Santa Teresa egunean Lazkau'ra izan nintzan itzalditxo bat emanez; baiña lengo igandean ez neukan kemenik Aita Mauro'ri atsegiñak ematera ioateko. Egun ortan iabetu zan nausigoaz.

Nere azken-liburugaiaren bigarren alderdia kopiatzen ari zaizkit. Berak argitara nai omen lukete Lazkau'koak, edo argitarazi. Argitara dedineko aldi bat izango da. Ez daukat ezer aundirik esatekorik, eta beste bat arte.

Goraintzi lengusueri.

Memento

[Izenperik gabe]

Arama'tik, 1959-I-24'gn.

Oartzabal'dar Martin apaiz iaunari. Ernani'ra.

Adiskide aundi: Bai poztu nintzala zure azkenekoa irakurtzean! «Segi ortan», Azpeitiarrak aintxintxilarieri esaten dien bezala. Agindu nion zure illobari telefonoz otoitz egingo nula areago, eta ori izango da ene «Segi ortan».

Ni oso ongi gelditu naiz. Klinikari mirari bat egin dídabela iduri zait. Beñere ez dut olako osasunik ukan, Jainkoari esker. Bi egun osoz ondo aztertu ninduten, eta etzidaten arkitu ezer: ez zuringorik, ez azukrerik; urea ere tamañaz. Beraz, biaramonagoan etzanguran. Bi urreketak baten egin zizkidaten, eta bereala sendatu nintzan. Batez ere urdailletik oso ongi nago. Ezueri au ezin sendatuzkoa. Orain beste Decortin H asmatu dute, ta ontan etsi ezker, orain oraindik Jainkoak urte batzuk emango ote dizkidan nago.

Berri bat zabaltzen asi da: «Orixe bizitzera Ernani'ra omen dijola». Lekuona'k ala esan zion Labaien'i. Zer da guzia? Oraindik ez da seguru, ta esaten iardutea ez da komeni; baiña gure illoba au deitu du Añonga'ko Parroko iaunak, or Lasarte'ko Hipo'en eta Ernani'ren tartean nekazari eskola ipiñi bear dutela landa aundi batean. Landetxe ortara eraman nai dutela. Beraz elkarrengandik bertago giñake. Gauden, beintzat, eta Jainkoak nai duna dedila.

Besterik ezer gabe, goraintzi lengusueri, eta

Memento

NIKOLA

Arama'tik, 30-111-59.

Oartzabal'dar Martin apaiz iaunari. Ernani'ra.

Adiskide aundi:

Pazko on lenik eta osasun onak iarrai dezaizula. Zurearen begira nindagon, agindu baitzenidan bestea, Deba'tik etorreran. Onezkero Ernani'n zaitut eta ez nuke berandutu nai geiago. Gaur Tolosan'n bota nai nuke eskutiz au zertifikaturik zure lanarekin. Oso poliki dago. Arramaxka batzuk egin nizkion arkatzez. Ioan-etorririk audienekoa au da, edo olako ioka-itz bizkorretan dago: «Ark emen ba'ginduzka, guk ere ba'zinduzkakegu». Bigarren *ba* ori nai ta nai-ezkoa da; «izan ere» dana, edo *el hecho*, adierazten baitu.

Baitaratu al zera nola asi diran Aita Villasante, Altube ta Euskaltzaindia gure aurka? *Mi atalaya Montañera*'k oso muskildua eman du nere erantzuna. Arrazoi bizkorrenak bakanduz. Adibidez: «Sendi no es nada, pues ni el vasco lo entiende ni lo emplea ni lo ha empleado jamás». Nere erantzuna: «Todos los días lo están usando Radio Segura, que no hace alarde de purismo». Eta abar. Bialdu dut beste lantxo bat Olabide'ren alde, ta ez diet barkatuko. Emeki, emeki, baiñan arrazoiekin.

Eta Olabide'rekin zer egin digute jesuitek? Dabid'en eresiak aldatu, eta, eta, eta. Gauden ixilik.

Ni ondo osasunez, Iainkoari esker. Berriz ere Pazko on, eta goraintzi lengusueri.

Memento

NIKOLA

Arama'tik, 59-VII-3'gn.

Oiartzabal'dar Martin apaiz iaunari. Ernani'ra.

Adískide aundi: Onezkero Deba'tik etorria zerala-ta zureari erantzutera noa.

Donibane Lohitzun'en amabi egun eginda, erixko etorri nintzan. Orain obeki nago.

Donibane'ra ioan-etorri beren etxeko beribilean egiñerazi didate adiskide batzuk. Orrela ederki ibilli naiz, adiskide zarrekin berriketa batzuk egiñez.

«Olabide bai» deritzon artikulu bat igorri dut EGAN'era. Zer uste ote dute gazte inguma oriek?

Zurekiko auzi ori, naiago nuke gerora igorri. Udazkenerako orrara ioan be'nendi (atzo etxe artan bazkaldua da illoba apaiza), obe lizaidake bertatik bertara, txango labur batzuk egiñez, bultzietan ibiliz baiño.

Tarteko lantxo batzuk ari ditut. KARMELE-era ere igorri nendun artikulu bat, Euskaltzaindiak emaniko arau aren aurka! (Pamili, sendi, eta abar).

Besterik gabe, goraintzi lengusueri, eta

Memento

NIKOLA

Arama'tik, 1959-XI-9'gn.

Oiartzabal'dar Martin apaiz iaunari. Ernani'ra.

Adiskide aundi: Zurea iasoa. Bi illabete ta geiago auetan oia ezin ustuz nago erabat. Oraingo ontan ziatikak gogor io nau, ta ez nau utzi nai.

Etzi Sanmartin, eta au nolabait bialtzeko era egorriko al da. Iainkoak bete zaitzala bere doai onez, batez ere egun ortan.

Emendik Zabalegi'ra noiz aldatuko geran, ez nik uste bezain laister. Illabete ontan, diotenez. Lekuona iauna (Iuan Mari) Erroma'ra doanetik, aren ordeaz bear baitute gure illoba au Apaiz Laguntzaile, aurtengo urte ontan. Datorren urtean Zabalegi'ko kapillau.

Ez nago *trempu* onean luzeago idazteko, ta barkatu. Oieko txokora berriz ere.

Igaro ezazula, bada, egun on bat lengusuen artean, eta ikusi arte.

Nere illoba auek ere goraintzi eta eskumuñak.

Memento

NIKOLA

Zabalegi'tik, 1960'go Azaroaren 9'gn.**Oiartzabaí'dar Martin apaiz iaunari. Ernani'ra.**

Adiskide aundi: Oraintxe bai, esan bearko «aspaldiko». Begira begira egon niza noiz ote zakidan agertuko, esan bezala, bañan etzator nik eta zuk nai bezain laister. Gaixorik al zagoz? Ez dizut opa olakorik; baizik ere, oraiñ aurrean zeneukan osasuna, beintzat, eta biar S. Martin eguna dan ezker, zeruko ta lurreko ondasunez bete zaitzala gure Iainkoak.

Ni oso ongi, esku-zangoetatik ezik. Lanean gogor ari niza.

Ba-dut itxaropide laister etorriko zakidala. Bitartean, eman egun on eta osagarri on, eta lengusuari goraintzi.

Memento

NIKOLA

Atzean utzia, 1949-koa beste bat.**Donibane Lohitzun'dik, 10-111-49.**

Adiskide aundi: Emen nago Belgika'tik noiz deituko nauten, pasaportea ukana baitut.

Atzo erenegunetan Axular'ren *Gero'ú* axal-begiratu bat eman diot, gure nagusi onak emanda. Itokarrean ari izanik ere (zazpi bat orduz), gauza asko auteman ditut gure aditza-lana sendotzen dutenak, eta geroko utzi bear, edo besterentzat, obeki esan. Gauzarik politena au arkitu dut: ekidin (equidin), aditz-izen berbera, beste jokatitz batzuekin:

«Okasinoak ere lehen bezala presentatzen eta gerthatzen: gogoa urri, aldatzen errax, eta emazteak ere, behin gerthatuz gero, ez falta ekidin» (372): «También las ocasiones se presentan y ocurren como anteriormente: la voluntad es escasa, fácil de tornarse, y mujeres, una vez llegado el caso, tampoco faltan». Ots, emazteak ere, behin (okasioa) gertatuz gero, ez dira falta.

Bost aldiz irakurri (behin ere ez irakurri) egin nun 3'garren argitaldian, Intxauspe jaunak bi lerro jan egiten baititu. Ez ulertu, nonbait. Non ibilli ote dira gure euskalzaleak, batez ere lenengo argitaldia berekin dutenak?

Daduka, Dadukakio, Diaduko

Zer ukan ez ezen, *nori* ere ba-dakar Axular'ek:

Dadukaio (119), dadukio

diaduko (488-9) amorio baitiaduko

Diadukon (354) aita batek semeari... amorioa

diadukon (384) gizonak emazteari... amorioa

diadukonik (384), daukakionik
 ziadukon (487) amorio baitziadukon
 Dakidikaio (260, 375, 465, 551).
 dakidizaion (147)
 dakidikaiona (189)
 zekidizaion (526) zekidion, zizaion
 Lekidicaio (37)
 lekidizaiola (265)
 lekidikedala (388) lizaikedala
 lekidikeion (453) lekidioken
 lekidizketzu (508) lizaizezu
 Lizen (461) liren (rhotacismus) = que fuesen
 lizen (519) behar lizen-liren. Orriald. azken-lerroan.

Bazeneza (109) ta ez *bazineza*, gaurko lapurtarrek bezala. Lafitte jaunak nere bertso batean jorraia sartu zun: «Bachenabarre Bidari'n nuzu nitaz bazineza galde».

EKIN, ITEN'etan ez genun *nori* dagokionik, Uitzin erabiltzen da, noizaldi guzietan: gerta *diteoke*, *liteoke*, *ziteoken*. Bestela era ba'diteke: dadioke, ledioke, zedioken. Axular'ek KE gabe erabilli oi du *izan'ekin* eta *ekidin'ekin*: etorri dakidizaion = que le pueda venir (147). Dakidikaiona = diteokena (189), lekidikaioia (265). KE'rekin ere bai, lekidikezu = erran diteoke (269). Gatzaitza (329), gatzaijala (117) = gatzaiola, gatzaiola, gatio, gatioia. Azkeneko —za ori *nori* dagokiona da.

Ezan orde *aidin* maiz derabilla:

dadikegun (166) = dezakegun

daidi (198) = dezake

daidizuño (209) eta passim.

Edin eta *ezan* nasten ditu bein edo bein:

Neskatxa eska zedin guzia (258), neskatxak eska zezan ordez.

Adin eta *ekidin* ere bai:

geneidike (25): genkidike.

Nintzake (68) gaizki, *nindezake* ordez (ark ni).

Ginitzake (69) gaizki *gindezake* ordez (lurrak gu).

Zakitza (153, 156, eta abar): zakitza denborari; probetxa zakitza. Aski kólola dabil *ekidin'ekin* eta *ekin'ekin*. Guk ez daukagu nasterik, adijabe -K dutenen eta ez dutenen aditzekin.

Gara etorkizunean edo geroaldian: garate, garateke (271, bi aldiz).

Zara etorkizuean eta geroaldian: dirate, dirateke (272).

Dira etorkizuean eta geroaldian: dirakeien (584), diratekeien (285).

Beraz, —TE, —TEKE, —TEKETE, iru aldetara.

Beu = beza (277) Begira beu.

Euzu = uzu, eukazu (440, 449, 597).

Euzue bakea (313).

Balio du astiroago aztertzea. Nai dunak egin beza.

Noiz zoaz etxera?

GEIGARRI: Zaitegik Oartzabal apaizari.**Miarrizetik 1958'gko. Urrillaren 30'gnean.****Oartzabal'dar Martin apaiz iaunari. Ernani'ra.**

Adiskide eta apaizkide on ori:

Olabide zanaren goratarrez antolatzen ari naizen banarako zure lantxo eskuetara zitzaidan. Eskarrik asko. Zerbaki mardula ta ederra aterako zaidalakoan nago. Dana irarkolan dago. Alare, idazle batzuen lanak oraindik eztitut iaso. Elduko dira. nik uste.

Bitartean zuk etxera onez egiten zenidan eskeintza pozarren artuko nizuke: Olabide zanaren argazkia, alegia. Beraz, bidal ezaidazu, otoi, ta klitxea aterata gero, berriro igorriko nizuke.

Ain zuzen, astebete-edo da, Olabide'ren «Itun Zar eta Berria» eskuratu nuna. Irarkolatik atera zuten bigarren alea bidali zidaten Bilbo'tik: azala iarruzkoa, oyaluzkoa ta kartoizko, ots, iru muetako idazti ederrak aterako dituzte. Gabonetarako-edo iarri uste dute salgai, ienago ez ba'da.

Nere uste kaxkarrean, bear bezela, zabal eta eda ba'ledi, euskerari indar berria emango lioke, batez ere, apaiz, apaiz-gai, lekaide ta ikasien artean. Egunotan, beraz, Indazteunaren orri artean murgildurik ari natzaizu; badut zer irakurri, badut zer txastatu.

Azkenengo iekia, ots, gure aldizkariaren azkenengo banakoa igorria dizut: bertan, Shakespeare'n «Lear Errege», Larrakoetxea'tar Bedita'k, Salta'n dagonak euskeraratua eman dizut: lenago, euskal-idazleak berak euskeraratutako «Macbeth» eman nun: ta emen dauzkat beste bi, «Ekatxa» ta «Juli Kaisar», alegia. «Romeo and Juliette»'ri azkenengo orraztaldia ematen ori omen da, bestalde.

Oraingoz besterik ez. Tori nire euskal-agurrik kartsuena.

Guzion aleginez euskera iraunerazi, edertu ta zabaldu dezagun.

Iesu-baitan agindu euskeraren onerako, adiskide ta apaizkide duzun.

ZAITEGI eta PLAZAOLA'tar JOKI'i

Miarritze'tik 1958'gko. Orrillaren 23'gnean.**Oartzabal'dar Martin apaiz iaunari. Ernani'ra.**

Idazle laztan ori:

Olabide zanaren omenez EUZKO-GOGOIA'ren banako bereizi bat antola nai nizuke, ark euskeratu zitun «Itun Zar-Berriak» argitaratzea dala-ta. Aurten Andre-maritan-edo salgai iarriko dute aren Itun Zarra. Olabide euskal-idazle azkarrak aspaldidanik zukean irabazia onelako goratarre andia, nire ustez. E.G.'ren banako bereizi ortarako lanik igorriko ba'zenida, pozarren artuko nizuke. Or duzu gai-ze-

rrenda, non zer aukera izan dezazun. Lanak bialtzeko epea irailaren azkenean bukatzen da. Otoiz zein gai aukera duzun aditzera emaidazu len-bai-len.

Aldez aurretik eskarrik asko zure lanaren aldera.

Tori nire euskal-agurrik kartsuena.

Guzion aleginez euskera iraunerazi, edertu ta zabaldu dezagun.

Agindu euskeraren onerako adiskide duzun.

ZAITEGI eta PLAZAOLA'tar JOKIÑ-i

OLABIDE'ren goratzarrez «EUZKO-GOGOA»ren **Banako berezia**

1. *** Olabide'ren bizitzarteko berri.
2. Olabide soñez eta gogoz.
3. *** Olabide'ren mazmarroa.
4. Olabide euskal-idazle.
5. Olabide ta «Eneko deunaren gogo-iñarkunak».
6. Olabide ta «Giza-soiña».
7. Olabide ta «Kristo'ren antz-bidea».
8. Olabide'ren aurretiko «Kristo'ren Imitazioak».
9. Olabide ta «Itun Berria».
10. Olabide ta «Itun Zarra».
11. Olabide'ren aurretiko «Itun'Zar-Berriak».
12. Olabide ta Euskaltzaindia.
13. Olabide ta Azkue.
14. Olabide ta Eleizalde.
15. Olabide ta Eguzkitza.
16. Olabide ta Altube.
17. Olabide ta «Orixe».
18. Olabide'ren iztegia.
19. Olabide'ren adizkiak.
20. Olabide'ren ioskera.
21. Olabide'ren asmoak etorkizuneko euskerari buruz.
22. Olabide'ren asmoak euskal-itz berriei buruz.
23. Olabide euskaldun berri.
24. *** Olabide'ren Iesu-lagundiko idazlea ta aurretiko Iesu-lagun euskal-idazleak.
25. Itun Berriko Idaztun ebaten azterketa.
26. Itun Zarreko idaztune baten azterketa.
27. Olabide ta Eleiz-itzaldiak.
28. Olabide'k apaizei ekarritako laguntza.
29. Olabide ta Eliz-Ikaskuntza.
30. Olabide ta Arantzazu.
31. Olabide ta gizon ikasiak.

33. Olabide ta euskalariak.
34. Olabide ta Gazteiz.
35. Olabide ta Araba
37. Olabide ta Gipuzkoa.
38. Olabide ta Naparroa.
39. Olabide ta Lapurdi
40. Olabide ta Zuberoa.
41. Olabide ta Euskalerrria
42. Olabide ta Euskeraren batasuna.
43. Olabide ta euskal-ikaskuntzak.
44. Olabide ta euskal-ikasketak euskeraz.
45. Olabide'ren zenbait ateraldi ta izkirimiri
46. Idazleak berak bere kabuz asmatu ta ondu lezakena Olabide'ren goratzarrez.

duna aukeratuta dago.

Azpi oarra.

Gai-zerrenda galanta aurkeztu zuen Zaitegi jaunak Aita Olabide zanari *Euzko-Gogoa* aldizkarian egin nai zion omenaldirako. Amasei izan ziran beren eskupeko-txoarekin, bere idazlantxo edo lantxoarekin agertu ziranak: Zaitegi bera, Oiartzabal, Orixe, Aita Plazido Mugika, Aita Altuna, Lekuona, Altube, Ibartutxi, Formosa'tik Aita Etxeberria, Larrakoetxea (Salta'tik), P. Lafitte, Urrestarazu, Arantzibia (Kerexeta), Etxaniz (Nemesi) Abalegi eta Ibiltari (Aita Etxeberria bera, nonbait). Guztion lanekin ale mardula atera zan *Euzko-Gogoa* orren 1958'ko azken-zenbakia, 5-6 zenbakiei zegokiona, ia 300 orrialdetakoa.

Eta, beste gabe, emen ematen diogu azkena Orixe'k Oiartzabal apaiz jaunari egindako eskutitz-mordo oni (eta azkeneko geigarriari).

L. A.

D. L. URKIZU

Errosarioko bertsoen egillea, durangarra, alkatea

Durango uriari argitasun barria etorri jako oraintsu: uri onetako seme entsutetsu batena ei da iñoz euskeraz idatzi dan prosazko zatirik zaar eta luzeena. Oraintsurarte or egon da lo, antxiñako paper zarren artean galduta, arik eta aleman batek illunpetik atera ta argitara ekarri dauan arte. Antziñako gauzen eta gizonen barri billa dabiltzan jakitun eta aztertzaile bati, Bataillon frantzesari omenaldizko liburu bat eskiñi nai izan deutsoe, eta an agertu dau aleman orrek euskerazko testo zar ori, 1537koa, Etxepareren liburu ospetsua baiño zortzi urte lenago idatzia. Mexikoko lenengo Gotzain izan zan Aita Zumarraga frantsizkotarrarena da, bere senide bati Mexikotik euskeraz egin eutsan karta baten datorrena. Durangoko semea dogu Zumarraga Gotzaiña, eta an Durangon umetan ikasi eban euskerea daukagu or, XVgarren gizaldiko euskera zarra, bizi bizirik. Ez da gauza utsa. Tovar idazle eta irakasle andiak emon dau gure artean alemanak aurkitutako karta orren barri eta laster emongo ei deusku guri be euskerazko puska zar ori irakurtzeko erea. Orain artean, esaera labur bat edo beste, puska txikiak, besterik ez dogu euki euskera zarrekorik. Emendik aurrera zeozer osoagorik ezagutzeko aukerea izango ei dogu. Eta Bizkaiko euskera zarrean.

Egia esan, praideen artetik, edo eleizgizonen artetik, idazle bat agertzea ez da ain gauza andia ez arritzekoa. Eta zeinbat olango paper zar ez ete dago or bazterretan galduta?

Arritzekoagoa dana zera da: eleizgizon ez diranen artetik euskal-idazleak agertzea, kristiñau utsak diranen artetik euskal-idazleak urtetea. Durangok badau olangorik be, kristiñau uts izan arren, euskera landu eta euskeraz idatzi ebanik. Bat ekarri nai dogu gaur KARMEL aldizkari onen irakurleen aurrera: Diego Lorenzo Urkizu edo

* Karmel 1981-1, 61-71; «L. A.» izenpean.

Urkiza. Liburutxo bi atera zituen: bata erderaz, eta bestea euskeraz. Uribarriko ama Birjiñari egiñiko Bederatziurrena da erderazkoa, eta bertan Urkizuk, euskaldunena ez dan izkuntzan idatzi dauala-ta, euskaldunai parka-eskeka dago, eta parkamen ori irabaztearren, euskerazko bertso batzuk sartzen ditu azkenengo orrialdeetan, zortzikotan egiñak, Uribarriko Amari kantetako.

Bigarren liburutxoa euskera utsezkoa dau: «Liburu/Birjina Santisimien/Errosario Santuena». Iruñan argitaratua da, 1737garren urtean, 87 orrialdedun liburutxoa. Nork idatzia? «Durangoko Uriko Deboto batek» egiña dala diño. Tabirako Errosarioko Amari egiten deusan eskintzan «Zeruko da lureko Erregina andiaren/... esklaborik txikarrena» egiten dau bere burua eta bere izena be salatu dau: D. L. U. Izurtzako seme dogun Berriotxoa Anaiak, ango inguruetako bazter eta gizonen aztertzaile zoliak, or argi ikusi dau beste erderazko liburua atera ebanaren izena: Diego Lorenzo Urkizu. Gauza au naiko argi dagoala uste dot. Baiña nok jakin dau, Urkizu orren eta bere liburu orren barririk?

Beste durangar batek, Ramon Etxezarreta jaunak, orain eun urte, ondo gordeta eukan bere liburuen artean Urkizuren ori be; baiña gero, atzerritar euskalzaleen eskuetara joan zan eta gaur Ipar-amerikan Chicago-ko Biblioteka nausian ei dauke. Munduan ez da gaur beste lorratzik aurkitzen. Berriotxoa Anaiak Chicagotik fotokopia bat lortu eban, eta nik andik beste bat atera neuretzat. Adiskide batzuei itxita, bata eta bestea galdu ziran. Zorionez beste kopia bat etorri da nire eskuetara, eta nire eskuetatik beste ikasle eta euskalzale batzuen eskuetara. Eta gaur, KARMEL onen irakurleentzat ekarri nai dot liburuaren zatirik, nire eretxiz, jakingarriena, bertsozkoa.

Liburuak iru zati daukazala esan geinke: lenengoak Errosarioa zer dan, eta misterio bakotxean zer gogoratu eta zer ikasi bear dogun azaltzen deusku; bigarrenak, Errosarioan esaten diran otoitzak, asierako damu-otoitzetik asita, misterio bakotxaren eskintza, eta abar; misterioak, barriz, irudiz apaindurik datoz. Irugarren zatia da bertsozkoa, misterio bakotxean kantetako bertsoak osotzen dabena.

Urriñetik igarten jako lenengo zati biak erderazko liburuen bategik euskerara aldatuak dituela. Aldi atan, antza, olango liburutxoak, Errosario zelan ondoen errezau irakastekoak, askotxo zabaldu ziran. Nire eskuetara be eldu da bat, Gasteizen egiña bera, eta misterio bakotxa eskintzeko otoitza bietan, Durangoko euskerazkoan eta Gasteizko erderazkoan, ari bardin-bardiñetik doa. Bardin jazoten da Kardaberaz Aitak geroago bizkaitarrentzat atara eban liburutxokoagaz be. Guztiak iturri bereko eskintz-otoitzak dira. Kardaberaz aitarena euskera garbiagoan dago, baiña otoitz berberak dira bata eta bestea. Lenengo zati biak idazkeran, Durangoko «Deboto» onek erderazko liburuen bat aurrean izan ebala argi dago. Baiña irugarren zatia, bertsozkoa, durangarrak bere-berea dau, euskal-usain utsezkoa da, eta ez iñongo erderatik artua. Eta orregaitik, ain zuzen, guretzat jakingarriagoa, irakurgarriagoa.

Beste zertxo baten be ikusten dogu, orraitio, gure durangarra erderazko liburuen baten atzetik dabillala: bere izentzat «deboto bat» dala ipintean. Gasteizko erderazkoak be bardin dakar: «Sácalo a luz un devoto». Are geiago; Bizkaian bertan argitaratu zan beste liburutxo bat asmo bardiñaz, Errosarioa errezetan irakasteko. Durangarrena baiño geroagoko da: 1780-koa. Bermeon, Frantziskotarren Irugarren Ordenakoendako

atera eban au be, nork eta «Deboto» batek. Guztiak bide batetik dabiltz, izen edo izan-orde berbera daroe.

Errosario-bertsoak ateraten be ez dogu Durangoko Andramarizale au bakarria izan bere gizaldian. Añibarro Aitaren *Eskuliburuan* irakurten dogunez beste batzuk be zabaldu ziran. Liburu orretan irakurten ditugu, 1808-ko argitalditik asi ta beste guztietan, lenengotik urrengoetara Añibarro beraren ikututxo batzuekaz. Añibarrok autortzen dauanez, bertso orrek kantetako oiturea erri askotan zabaldua ei egoan. Noztik asita? Bermeoko Debotoaren liburuia ez dot nik ezautzen; baiña nire susmoa da Añibarrok bere libuman sartu dituenak Bermeokoak dirala, Frantziskotarren Im-garren Ordenakoak zabaldua. Durangarrenak baiño zori ohea izan dabe. Euskalki guztietara aldatuta, Lapurdikora be bai, Euskalerrri guztira eldu dira, euren musika ta guzti.

Baiña Durangokoak ez ziran gelditu bape zabaldu barik. Urkizu «Deboto» orren libuma ez da osorik bariro argitaratu, baiña aren bertsoak bai. Non? Bartolome Olaetxearen Dotriña zarraren argitaldi baten baiño geiagotan. Alan, beintzat, 1814 eta 1864-ko argitaldietan. Utsen bat edo beste badauke. Uskeritxoren bat be aldatu dautse fonetikaren aldetik: fedian, barrija, azija, eta olan. Bestela, 1737-koak, Urkizurenak berberak dira.

Jakingarria da Urkizuk bere bertsoai ipiñi deuten berbaurretxoa: «Onerik aurrera kendu daiezan kanta loi da desonestak, ifintzen dira berso edo koplá ederrak, zeintzuk kantauko dituez debozino da medítazinoiagaz, Errosarioa kantetan danean, nai osterantzeko okasino guztietan...»

Olaetxearen Dotriñan beste onetara dator: «Ama Birjina Errosariokoaren kanta eder au emoten da emen, mutiltxubak eskolarik etxera datozanian, ganaduben zain soluan dagozانيا, eta aen billa basuan dabilzانيا kantau daijen. Uxala beste kanta loi asko arima galtzaigarriak onan kendu al baleitez. Alan izan deilla bada, arren, bai.»

Bertsook zortziko nausitan dagoz. Zortziko nausiaren neurria, gaur, erabilie-netakoa da bertsolarien agotan. Lenago ez zan, antza, olan. Zortziko orren neurriak ez dau, beintzat, euskal-idazle zarren bertsoetan lorratz andirik itxi. Nik lorratzxo bat aurkitu uste izan neban Etxepare zarraren bertsoetan: «Bertzek bertzerik gogoan eta / nik Andredona Maria». Baiña bestek... besterik uste dabela esan bearko, ez dagoela or zortziko nausiaren lorratzik. Geroago (noz?) or daukagu Egun Bereko Alargarena: «Goizian goizik jeiki ninduzun, / eskondu nintzan / goizian». Emere-tzigarren gizaldian Eleizara sartuta dago neurri ori: «Damut dot, Jauna,/biotz guztirik / Zu naigabetu / izana»...

Urkizuk neurri orretan egin zituen bereak (Urribarriko Andra Mariari egifiak be bai, antza, «octavas» esaten deuten ezker). Neurri oni durangarrak aparteko legea deusala esan geinke, eta naiko ondo darabil geien baten. Noizik bein ez dau ondo jagoten bostgarren silabaren ondoko etena, baiña oso gitxitan da.

Gure literatura urrian ez dogu aitzu bearko Durangoko idazle begiko au. Oraintsu agertu da plazara Bizkaiko beste idazle zar bat, Gemika-aldekoa doguna: Gandara, Gabon-kantatxo batzuk egin zituela-ta. Urkizu a baiño lenagokoa dogu.

Emen ditu irakurleak aren amabost Zortzikoak, Errosarioko amabost misterioai dagokiezanak. Oraingo ortografiara aldatu ditugu. Urkizuk badau bere ortografian bitxikeritxo bat: *andi-ia*, *izerdiia*, *ikaragarrria*, eta olan idazten dau. Emen bigarren *i* orren ordeztu jarri deusagu: *andiya*, *izerdiya* eta olan. Olaetxearen Dotrinany ezarri eutsen lez: *andija* eta abar. *Eta* beti *da* egiten dau, eta olan itxi dogu, 1737-ko liburuan lez.

Durangoko idazle oni gure literaturatxoan lekutxo zor jako, eta beste idazle zar askoren artean ez dauka zertan lotsaturik, ez kanpoko azalez, ez barruko mamiz. Irakurlea nire eretxikoa izango dalakoan nago.

Eta orain irakurleari azken-berbatxoa: Orain urte ta erdi inguru, 1979n, KAR-MEL onen irugarren zenbakian emon genduan Eusebio Maria Azkue idazlearen *Euzkadia*, artean argitaratu bakoa (1). Asi-asierako bertsoetan uts andi bat ekarren. Urrengo baten zuzentzeko agindu genduan, baiña alperrik; ez euskuen jaramonik egin. Oraingo onetan ia zori ohea daukagun. Ona emen zelan irakurri bear diran lenengo lerro biak: «Beti euki dau ta dauko Bizkaiak Musa bat / eta bere barria neuk lenengoz dakat».

L.A

ERROSARIOKO MISTERIOAK BERTSOTAN

Jartzaillea: D. L. URKIZU (1737)

(Pozeko misterioak)

Bitarteko bertsoa (estribilloa)

Rosarioko Larrosa eder
 Birjina da Ama bakarra,
 bost misterio gozoz betiak
 gatoz gaur kontenpletara.

(1) Ik. 918-932. orr.

I

Zeure penia, Ama maitea,
 izan zan guztiz andiya,
 zeure Semiari eriyonian
 odolezko izerdiya.
 Bere ganean nola artu eban
 pisu ain ikaragarriya,
 bere Odolak agerretan dau
 ariman daukan larriya. *Rosarioko...*

II

Nola ez zinian, Ama bakarra,
 egongo penaz betia,
 ikusi ezkeru azotadurik
 Jesusen gorputz guztia.
 Orra nun doian erruki baga
 odolezko Iturriya,
 nunbaita orain amaituko al dau
 bere betiko egarriya. *Rosarioko...*

III

Pena gogorrez ingiratuba
 daukazu biotz zeuria
 nola daguan arantza-artian
 Jesusen buru guztia.
 Bere Erreñua emengoa eztana
 orain dago agiriya,
 ez zan oraindo mundura etorri
 Koroe orren barriya. *Rosarioko...*

IV

Ai, Ama triste Dolorosia,
 zeure peniaren aziya!
 Kurutz orretan zeure Semiak
 emon biar dau biziya.
 Arbola batek ekarri beban
 ain kalte negargarriya,
 Arbola orrek irabazi dau
 galduta eguan graziya. *Rosarioko...*

V

Jesusen esku da oin sagradubak
 josirik zeuk ikustea,
 Ama Maitea, izan zan zeure
 peniaren azkan tristea.
 Eklisadurik geratu dira
 eguzkiya da irargiya,
 Ezta milagro, illundu bada
 zeru guztien argiya. *Rosarioko...*

Akabuban esango dabe guztiak:

Lirio ederra, zeu izan zaite
 ainbat penaren artian
 errezau dabenen anparua
 orain da denpora guztian.

(Aintzazko misterioak)

Rosarioko larrosa eder
 Birjina da Ama bakarra,
 bost misterio gloriosuak
 gataz gaur kontenpletara

I

Amudiyoak aurkitu ez eban
munduan beste lorarik
emon nai eban frutu ederra
konserbetako garbirik.
Ain alegria ditzaz betia
Zeuri jagotzun bakarrik:
zeure erraietan zeuk ikustea
Jesus maitea sorturik.

Erantzungo dabe guztiak:
Rosarioko Larrosa eder...

II

Isabel zeure lenkusinia
dago mirariz beterik
bere Jaun da jaubearen ama
bisita emoten joanik.
Saltoka dabil bere semia
oraingo jaio bagarik,
zeure ditxa da gozo andiya
adietan emon gurarik. *Rosarioko...*

III

Zein andiya zan zeure gozoa
munduan inok eztaki,
abereak bere sentietan dabe
zentzun bageak izanik.
Aingeru asko dira etorri
alkarren leyan zeruti,
jaiotza onen barri alegriak
zabaletarren munduti. *Rosarioko...*

IV

Tenplura zuaz, Ama maitea,
kontentuz guztiz beterik,
ezin zinayo Jaungoikoari
presente andiyagorik.
Simeon santuak bere ditxea
ezin ondo sinisturik,
ikusi ezkeru Jesus maitea
eztauko il-arren penarik. *Rosarioko...*

V

Nok esan leike zeure gozoa,
zeure Semia ikusirik
legeko jakindunen artean
bera guztien nagusi.
Bera Aitaren agindubari
asaiera ori emonik,
nai dau orrelan adietan emon
zetara jakun etorri. *Rosarioko...*

Esango dabe guztiak akabuban:

Lirio ederra, zeu izan zaite
ainbat gozoren artian
errezau dabenen anparua
orain da denpora guztian.

(Atsekabezko misterioak)

Rosarioko larrosa eder
Birjina da Ama bakarra,
bost misterio dolorosak
gatoz gaur kontenpletara.

I

Ai, zein andiya zan zeure poza
pena guztiak itxirik,
zeure Semiak urte(n) ebanian
betiko ilen arterik.
Zeu ikustera dator lelengo
gloriaz guztiz beterik,
ondo ekiyan zeu zengozana
geiyen ikusi gurarik. *Rosarioko...*

II

Zeure Semiak igoebanian
zerura mundu onetarik,
gozoz beterik geretan zara
bakartasuna azturik.
Orregaiti ez zara egongo
zeure Semia bagarik,
ain asko gura dirian biotzak
eztagoz inoiz bakarrik. *Rosarioko...*

III

Espiritu Santu Jauna dator
guztia amudioz beterik,
nola ez zaitu gozoz beteko
bere Esposia izanik.
Orra zein laster kunplietan daben
bere berbia zerurik,
zeure semiak egon gaitean
fedean guztiz firmerik. *Rosarioko...*

IV

Kontentu andiyaz zuaz Zerura
mundu tristia itxirik,
begira datoz Aingeru ederrak
mirari askoz beterik.
Ezin egon da zeure arimia
bere gorputza bagarik,
zeruko tesoru ain andiya
eztau nai emon lurrari. *Rosarioko...*

V

Zeure gloriak koronetako
daukazuz enpeñadurik
Trinidadeko iru Personak
eternidade baterik.
Zeure ditxaren kausa guztia
bekatariak izanik,
nok eztau orrelan lograduko
bere ditxia zeugaiñik. *Rosarioko...*

Akabuban guztiak esango dabe:

Lirio ederra, zeu izan zaite,
anbat glorien artean
errezau dabenen anparua
orain da denpora guztian.

VIVO SIN VIVIR EN MI

(Zuberoko Euskeraz) *

Azkenengo KARMEL irakurri dauanak badaki Teresaren kanta batek, euskerazko bertsotan jarrita, arrera zabala izan dauala Euskalerrian eta gure eleiz-kantutegian sartuta gelditu izan dala, euskal-musikaz jantzita. KARMEL aldizkari onek *Vivo sin vivir en mí* erdal-bertsoen euskerazko itzulpen biren barri emon eban an: biak, antza danez, XVIIIgarren gizaldikoak; bata, Larregi idazlearena, lapurdieraz, eta bestea, Zuberoko euskeraz. Larregirena osorik emon jakon irakurleari eta era bitara, Larregik berak euskeratu eban lez, eta napparren batek egindako ikututxoekin Aita Donostiak argitaratu euskun lez. Zuberorazko itzulpen osoa ezagutzeko ez jakon irakurleari aukerarik emon.

Oraingoan, itzulpen osoa ezagutu nai leuken bati atsegin emotearren, eta beste batzuen atsegingarri izango dalako ustean, emen ikusiko ditugu amairu bertsoak osorik.

Bertsoak, bai Larregik euskeratuak, eta bai besteak, askotan urten dabe argitara ainbeste bidar argitaratuak izan diran *Kantika Izpiritualak* izeneko liburuetan, eta *Othoitze eta Kantika Espiritualak* izenpekoetan. Ia beti onelangoxe titulua izan daben: «Santa Teresaren sendimenduak (edo bozkariozko eskerrak), komunione ondoan».

Zuberoko euskerazko itzulpenak, orraitio, eztau Lapurdikoaren antz andirik ageri. Ez bertsoen neurritz bakarrik, mamiz be bertso naiko ezbardiñak dira. Nondik dator ezbardintasun au? Lenengo ta bein, ulergarri danez, itzultzaille bakotxak euskalbertsotarako esku eta ganora obea edo txarragoa eukitetik, atarako trebeago edo ez ain trebe izatetik. Eta gero, itzultzaille bakotxak aurrean euki dabezan erderazko testo ezbardiñetatik. Zein testo euki dau bakotxak aurrean?

* Karmel 1982-1, 85-89.

Ezta au ganorabako itaunik. Azkue zanak Teresaren bertso onei musikea ezarri utschenean aurrean euki eban bertsoaren bat, esaterako, nekez aurkitzen da oraingo argitaraldietan. Zer jazo da? Teresaren izenean dabilzan bertso asko ez dirala Teresarenak edo ez dirala beti bardin agertu. Bertso askok, eskuz esku ibilliz, kopiaz kopia, ikutu eta aldaketa asko izan dabez, batetik; eta bestetik, esku barriak be sartzen dira, lengo bertso ezagunai, geigarri edo luzagarritzat, beste batzuk ezarten. Olan, Santa Teresarenak diralakoan, ez tiranak be artu eta badiralakotzat argitaratu izan dira. Aldi baten, nonbait, «Vivo sin vivir» ori, eta «ezin-illez ilbear» ori, gai kutun eta maitagarri egin ziran askorentzat eta asko alegindu ziran gai bera bertsoz jantzi eta azaltzen. Gai oni beroni ekin eutsan Joan Kurutzekoak berak be.

Ezta, bada, arritzekoa, baldin batzuen eta besteen bertsoakaz naste apur bat sortu bada, eta Teresarenakaz beste bertso batzuk nastau eta zabaldu badira.

Zuberoerazko itzulpen onetara gatzela, alan be, auxe esan bear da argi eta garbi: lenengoz Teresaren izenean argitaratu ziranai, Diego Yepes ospetsuak Teresa ilbarritan atera eban Avilako andre deunaren Bizitzan jaso eta ezaguerazo zituenai, bertsoz bertso, zeatz jarraitzen deutzela.

Othoitze eta Kantika Espiritualak liburuan bada beste kanta bat, Teresak ilteko orduan izandako *sendimentiak* ixuri eta adierazo nai dituana. Baiña ez tira Teresaren bertsoak, Teresaren sentimentuak bertsoan jarriak baiño.

Orain, zuberorazko bertsook emen jartzean, itz bat edo beste argitu nai deutzaguz irakurleari, errazago ulertzen leguntzeko.

Itz batzuen azalpena. *Zelia*, zerua; *ardura*, sarri, askotan; *ala beita luze*, zein luzea dan; *gaiza debeiagarria*, gauza nekagarria; *eguruki*, *egurukite*, itxaron, itxarote; *bortizki*, oso, txit; *debeiatu*, aspertu, nekatu; *irus*, zoriontsu; *galtatu*, galdatu, eskatu; *korpitz*, gorputz; *zekuru*, sekula, bizia; *koraje*, adore, kemen; *heriua*, eriotza; *sesitu*, artu, arrapatu; *balius*, baliotsu; *iseia*, saiatu, alegindu; *azken oren*, azken ordua; *hanitz perexatia*, guztiz, oso maitatua, estimatua; *pakhu*, sari, ordain; *kitatu*, itxi, utzi; *ez diferi*, ez luzatu; *hasperenez*, *zispuruz*; *plazerfalsiez*, atsegin guzurrezkoz; *emendatu*, geitu, geiagotu; *lotsaturik*, bildurturik; *y'a/fo'*, urten, atera; *urhentzen*, amaitzen, bukatzen; *halaber*, era berean; *kristia*, kristaua; *khatina*, katea; *soz naoela*, begira nagoela; *tronpagarri*, engañoagarri, guzurrezko...

Aita Akesolo

EZIN HILEZ HILTZEN

Jinkuak hazten nai, harez niz bizitzen;
badii harek zelian bizitze ederra,
zuiñ beitiit galtatzen ardiira,
ezin akabatzez dolorez niz hiltzen.

- 1) Jinkua osoki juntatzen dela niri
seinditzen dit nitan haren huntarziina
libre niz eta ez hura,
bere borontatez ene da zerbutxari.
Jinkua kaptibo! Nur ezta izitzen?
Hori da hori miragarri!
Ezin akabatzez olorez niz hiltzen.

- 2) Beldiir niz orano heben nizatekian,
ala beita liize ene egoitza!
Gaiza da debeiagarria!
Ene arima da heben presontegian,
hiltze balius bat dit egiiriikiten,
eta egiiriikite hortan
ezin akabatzez dolorez niz hiltzen.

- 3) Eztiit bizitzia gozatzen plazereki.
Zii gabe, Jinkua, ezta bizitzerik,
ez deus ere baliusik.
Jesus, Jaun eztia, maite zitiit bortizki;
bena niizii hanitz heben debeiatzen
eta bizitzen doloruski;
ezin akabatzez dolorez niz hiltzen.

- 4) Ene esperantza ezarri dit hiltzian;
hark behar nai egin sekiilakotz irus,
eta bergisan glorius.
Beraz, heriua, zoiñ behait aspaldian
miindii triste huntan nigarrez galtatzen,
Ah! honki nezak korpitzian,
ezin akabatzez dolorez niz hiltzen.

- 5) Zekiiru huntako amurio erhua!
Beste amurio korajez, sinhestez
bethe den batek, plazerez
dereit edukiten sesiturik gogua,
eta seriuski nahi eraziten
behar nukian heriua.
Ezin akabatzez dolorez niz hiltzen.

- 6) Paradiisian da bizitze baliusa,
iseia gaiten haren ukhaitera;
heben bizia hiltze da.
Beraz, othoi, ene azken oren irusa,
lehia adi, ezi hanitz niik langitzen,
noiz diiket phaku gloriusa?
Ezin akabatzez dolorez niz hiltzen.
- 7) Bizitze presenta hanitz pherexatia,
bizi bada nitan Jinkua, ni hartan.
Hire kitatziaz bertan
aise baizi eniik, ene hiltze maitia,
noiz naizu zelian glorius eginen?
Ez diferi ene gloria;
ezin akabatzez dolorez niz hiltzen.
- 8) Zeren beiniz, Jauna, hain hurriin zureganik,
dolore handitan nago hasperenez.
Miindiiko plazer falsiez
eztut nahi egin behin ere konturik;
ene bekatiak zeitatz emendatzen;
hartakotz nago lotsaturik.
Ezin akabatzez dolorez niz hiltzen.
- 9) Arraiñak huretik jalki den bezain sarri,
urhentzen tü phenak, halaber bizia,
balius zaio hiltzia.
Bena phenareki bizi den kristiari
bethi zaio kharats bizia gertatzen.
Soz nagoela zeliari,
ezin akabatzez dolorez niz hiltzen.
- 10) Zure altaretan xerkatzen zutut, Jauna,
ene doloria nahiz moderatu;
bena haietan nurk ziiitii
begiez ikhusten? Haur da, haur, ene phena,
zeren ezpeitziiitiiit orano ikhusten.
Lehia adi, azken orena!;
ezin akabatzez dolorez niz hiltzen.

- 11) Noiz ere beitzútút poseditzen úruski,
 beldiir niizú, Jauna, fitez gal zitzadan
 mundu trunpagarri huntan.
 Hil onduan ziiitit kontentamentureki
 lotseria gabe bethi gozaturen.
 Hil gitian beraz eztiki;
 ezin akabatzez dolorez niz hiltzen.
- 12) Zii nahi ziiitiket ikhusi zelietan;
 fini zazii, othoi, ene agonia;
 noiz duket hiltzia?
 Debeiatzen nuzu khatiña zar hoietan;
 sobera nizie pena eraziten.
 Heriua dizut goguan;
 ezin akabatzez dolorez niz hiltzen.
- 13) Bena ez, kolera behar deziit ematu
 miindii huntan hanitz dolore sofritzez,
 eta hasperen egitez
 Behar ditit nihaurk ene faltak piinitii.
 Ah! iirgaitz nezazu deseñen konplitzen,
 ziitzaz nizan bethi laguntu.
 Ezin akabatzez dolorez niz hiltzen.

AMASEIGARREN MENDEKO EUSKERAZKO «MISERERE» BAT*

Antziñako euskal-texto berririk agertzen denean, ongi etorri zabala izaten du euskalzale eta euskalarien artean. Legezkoa da. Damurik, ez da olakorik geiegi gertatzen. Orainsu ezaguerazi digute amaseigarren mendeko euskarazko gutun bat, Mexicon gotzain izandako Zumarraga durangarrarena, eta berri orrek ez ditu gure bazterrak gutxi arrotu.

Gaur, mende beraren azken-aldeko euskal-puska berri bat, edo beintzat gure artean ez-ezaguna dakargu plazara: «Miserere mei» salmoa, euskal-bertsotan. Gerorxeago ikusiko dugunez, ez zan guztiz ezagutugabea. Erdal-liburu batean, orain eun eta iru urte (1879), ikusi zuen argia, nolabaiteko argia. Baiña gure artean nork jakin zuen aren berri? Gure bibliografi eta antologiarik ugarienetan iñolazko aipamenik gabe gelditu da. Karmelo Etxegarai gazteak, bere gaztetan erdal-liburu orretan irakurri bazuen ere, bere kolkorako gorde zuen euskal-bertso auen oroitza. Ala, euskaldunontzat argitara ez balitz bezala iraun du gaur arte. Aramaioar batek, Antonio Unzueta karmeldar prailleak, Madrilgo Biblioteca Nacional delakotik berriz atera duen arte.

Sei bat illabete da Madrildik telefono-deia artu nuela. Unzueta adiskideak andik galdera au egiten zidan: «Aizu, amaseigarren mendeko euskarazko Miserere-rik ezagutzen al da?» Nik ezetz. Gerorxeagokorik bai, baiña amaseigarren mendekorik ez genuela ezagutzen. Eta nik ere galde: «Baiña, amaseigarren mendekoa ote da gero?» Eta Unzuetak erantzun: «Bai, itxura guztiek diotenez; Felipe Ilgarrenaren egunetako paper artean dago». Nere gogoia beingoan Naparroaldera joan zait. Undiano, Arnotegiko ermitau olerkariaren pusken bat ez ote da? Aita Unzueta zatitxo

* Karmel 1982-2/3/4, 37-47.

bat irakurtzen asi zait. Eta biok aitor bera egin dugu: Bizkaiko euskeraren antza baduela, baiña, Bizkaikoa ez bada ere, ez dela andik urrutiegikoa.

Unzuetak adiskideak laster egin nau berak atera duen kopiaren, eta gero xero-kopiaren jabe. Eta biok arriturik gaude, nola ez duten texto au euskaldunek leenago ezagutu. Zergatik arritu? Garibai ain ezagunaren euskal-esaeren manuskritoarekin batean aurkitzen dalako Miserere au ere, arekin manuskrito-sorta berean. Zenbat euskaldun esku ez ote da ibilli sorta orretan? Sorta osoak 374 orri osatzen omen ditu, eta Miserere onenak bi orrialde baizik ez; gaiñera, egillearen izenik ere ez du. Orre-gatik edo askoren begiak ez zaizkio oartu.

Oarkabezko pekatu onetan ez zen, orraitio, erori, joan den mendean, erdal idazle bat: Fernando de la Vera e Isla. Erdal-poeta onek 1879gn. onako liburu au atera zuen: *Traducción en verso del Salmo L de David I Miserere mei Deus I y noticia de varias versiones poéticas que de dicho salmo se han hecho en lengua castellana I y de sus autores* (Madrid).

Madrilgo seme onek, liburu orren azken aldean, euskalduna eta euskalzaleak izan ditu gogoan eta erderazkoa ez den *Miserere* au, euskarazkoa au, eskaintzen die atseginsari. Orduko euskal-giroaren jakitun dago, eta euskalzale eta euskeralari askoren atsegingarri izango dalakoan egin du ori. Ala dio berak: «Como muchas personas, que ocupan en el mundo sabio un lugar conspicuo y distinguidísimo, y entre ellas alguna, que es doblemente Príncipe por el nacimiento y por la ciencia, se consagran con tan cariñosa predilección y con tan halagueño resultado al estudio de la Lengua Vascongada, creo que han de agradecerme mis lectores vascófilos, que les dé íntegra la traducción en dicha lengua del salmo Miserere, que se encuentra al folio 245 del M.S. existente en la Biblioteca Nacional con la signatura G. 139». Eta azpian oartxo au jarri du: «En dicho manuscrito están también, al folio 260, los refranes en Vascuence compuestos por Esteban de Garibai y Zamalloa».

Erdal olerkari onek ezin zezakean eiza au euskaldun eiztarien eskuetan errazago ipiñi. Baiña gure arteko eiztariak lo gelditu ziren. Ez Prinze Bonapartek, ez beste iñork ez du eskertu ain borondate on ori. Guk dakigula, K. Etxegarai bakarrik izan du, euskaldunen artean, Vera madrildarrak egin zigun mesedearen berri.

Ain zuzen, Aita Unzuetak berak aurkitu du K. Etxegarai gaztearen karta bat, guri bai Vera orren liburua bera ezaguerazi diguna, eta bai auzi onen giltza eman diguna. Non aurkitu du karta ori? Barbieri musikari ospetsuaren paper artean.

Gauza jakiña da Barbieri musikariak bere *Cancionero musical de los siglos XV y XVI* ateratzeko egin zituen azter-lanetan, euskerazko bertso batzuk ere aurkitu zituela, eta ez ulertzen errazak, aurkitu ere. Batek onela du asiera: «Jançu Janto dego Garcigorreta». Zer esan nai zuten itz oiek? Beste askogana bezala, K. Etxegarai gana jo zuen Barbierik argi eske. Eta onek ari eman zion erantzuneko kartan, Vera olerkariaren liburua eta liburu onetan datorren euskerazko «Miserere» aipatzen ditu.

Onela diotsa Barbieriri: «Escribía cada autor a la medida de su capricho, de ahí que hasta ciertos autores de alguna ilustración literaria, como indudablemente debió ser el traductor del salmo Miserere, que manuscrito existe en la Biblioteca Nacional y publica el Sr. Fernando de la Vega e Isla en su interesante libro sobre versiones poéticas, hechas en español, del indicado salmo, escriban las voces bascongadas en

una forma tan rara, que a la vuelta de un par de siglos hace difícil una buena interpretación, si no se puede recurrir a un estudio comparativo con otros trabajos de análoga índole, que permitan estudiar la historia de las vicisitudes por que haya pasado el lenguaje escrito».

Etxegarai jaunak egin digun aitorra euskerazko Miserere onen gora beeran ezin egokiago etorri zaigu. Berak esaten digu Vera erdalduinak argitara eman zuen textoa utsez betea dagoela, ezin ulertua dela. Utsez betea da, izan ere. Baiña dituen utsak ez dira guztiak manuskritoarenak. Uts orientatik, Etxegarai jaunak ez zuen texto ori aintzat artu, muzin egin zion. Orrek esan nai du ez zuela manuskritoa bera irakurri, eta irakurtzeko gogoia ere joan egin zitzaioela. Edo ta, utsen utsaz, irakurtzeko gogorik ez zitzaioela berotu.

Jo dezagun, bada, orain manuskritoak ematen digun textora. Ez da egillearena. kopiatzailleren batena baizik. Ez dugu aurkitzen utsik gabe, baifia ez dira, ez, euskaldun irakurle zuur batek ez igartzekoak ere. Ona texto ori, neke andi gabe irakurri dezakegunez. Erderaz, onako titulu au darama: La traducción del salmo Miserere mei en Lengua bascongada. Gaurko ortografiara aldaturik ematen dugu.

Miserere mei deus

*Jauna miserikordia eduki niaz,
asko dezun ezkeru, miserikordiaz.
Borra ezazu, Jauna, maldade enea,
zerren piedadez zeran betea.*

Amplius lava me

*Jauna, garbiago egin nazazu,
bekatu mutastoa kendu egidazu.
Badazagut, Jauna, nere kulpea,
ene kontra dago bekatu enea.*

Tibi soli pecavi

*Bakarrika zindudan zeur ofenditu,
zeure aurrean egin neban bekatu,
zeure i(t)z santuetan justu irten zenzan,
jusga zinzaenak benzutu zinzan.*

Ecce enim in iniquitatibus

*Konzebitu ninzan maldadeetan,
konzebitu ninduan amak kulpaetan;
beti zenduan, Jauna, egia amatu
sekretoak neuri manifestatu.*

Asperges me domine

*Busti nazanean zure graziak
kenduko dirauk kulpa guztiak;
zuri nazanean munduan erurrik
eztet ez izango neure parerik.*

Auditui meo dabis

*Bein izango deu guziz andia
ene belarriak, Jauna, alegria;
orduan ene ezur humillatuak
egongo dirade konsolatuak.*

Averte faciem tuam

*Aparta ezazu zeure bistatik
ene bekatuak presenziatik;
arren, ene kulpa gusti gustiak
borra biza, Jauna, zure graziak.*

Cor mundum crea in me

*Ene bio(t)za, Jauna, garbi ezazu,
ene entrañetan renoba ezazu
espiritu malizia bagea,
zeure ondasunen deseazalea.*

Ne projicias me

*Ez kendu, Jauna, begiok niganik,
kendu ez zaitela presenziatik.
Ez, Jauna, apartatu bio(t)z enetik
espiritu santua entrañetatik.*

Rede mihi

*Zeure Semearen Aita eternoa,
biurtu egidazu konsolazioa,
fortalezki naza(zu), Jauna, bio(t)zean,
espiritu santuaren karidadean.*

Docebo iniquos

*Maestro egingo naiz bekatarien
berri irakasteko zure bideen;
ekarriko ditut bide onera
bekatariak, Jauna, zure legera.*

Libera me de sanguinibus

*Ene osasunako Jauna zera zu,
bekatuetatik libra nazazu,
ene minak, Jauna, alaba zaizan,
zure justizia ensalza dazan.*

Domine labia mea aperies

*Irekiko dezu ene aoa
alaba zaizadan, Jaun zerukoa;
zure alabanzaen beti esaten
egongo naiz zein andiak diraden.*

Quoniam si voluises

*Jauna, nai bazendu ofrenda andirik,
ofrenda eder asko ofrezi(t)zerik,
egingo nituan kulpaen ordean
eztezu ofrendarik borondatean.*

Sacrificium Deo

*Zurezat ofrenda verdaderoa
da anima debana kontrizioa;
bio(t)za nai dezu humillatua,
bio(t)z osoa eta bio(t)z santua.*

Benigne fac domine

*Arren, zera(n) enezat piadosoa,
izan zaita, Jauna, eta mansoa,
zeruko murallaok egin litezen,
asientu u(t)sok beta ditezen.*

Tunc acceptabis

*Jerusalen santua dakuskumean,
zeure altura igo dazagunean,
orduan naiko dezu ofrenda andia,
orduan txaalala eta aaria.*

Tunc imponent

*Zure altura santuaren ganean
zeruan, Jauna, zure aurrean
emango ditugu txaaltxo gazteak,
txaaltxo gazte malizia bageak.*

Gloria Patri

*Biz gloria Aitearekin semearentzat,
Biz gloria espiritu santuarentzat,
nola leenean orain eta beti,
sekula gustian gloria izan bidi. Amen.*

Orra textoa, orra manuskritoan irakurri dezakeguna. Saia gaitezen orain sortzen zaizkigun galdera batzuei erantzuten. Korapillo bat edo beste askatzen

1) Eta lendabiziko galdera, textoari berari dagokiona: Ez al dago, eman dugun eran, aski ongi? Zer da or argi ez dagoenik? Zer, naspillaturik? Ezer gutxi. Itz bat bakarra aurkitu dugu ez-ezaguna: *Mutastoa*, Latiñezko «a peccato meo munda me» itzultzerakoan sartu du itzultzaileak: «Bekatu mutastoa kendu egidazu». Zer esan nai duen gutxi gora bera antz ematen zaio: orbana, zikiña, erdoia edo olako zerbait. Baiña gaurkoz ez dugu korapillo au askatzeko argibiderik.

2) Manuskritoak utsik, gaizki idatzitako itzik badu. Baiña K. Etxegarai zanak Biblioteca Nacionalean dagoen manuskrito bera irakurri izan balu eta ez bakarrik Vera erdaldunak argitaratutako textoa, ez zuen or oztoporik aurkituko. Zeintsuk dira manuskritoak dituen utsak? Letraren bat edo beste oker irakurtzetik sortuak, noski. Esana dugunez, manuskritoak kopiatzailleren batek egiña dirudi, eta utsik geienak kopiatzaileak egiñak dira. Nonbait itzultzaillaren letra batzuk ez zituen ongi berezi ez irakurri. Ori gertatu zaio, esaterako, G eta Q letraekin bein baiño geiagotan; ala bein *quendu* idatzi ondoren, urrangoan *quendu* dio. Biak, bata nai bestea, jator daude noski; baiña guk emen bardindu egin ditugu. Ona, nola nastu dituen letra biok bein Vera jaunak: «Bitatu mutastoa (bekatu mutastoa) guendu equidaçu».

Bost edo sei aldiz naspilla sortu du manuskritoak *N* eta *M* letraekin ere: *Bakarrica sindudam, concebitu nincam, maldadeetam, concebitu ninduum, bensutu cincam, eguingo nituam*. Esan bearrik ez, utsok ez zituela Verak zuzendu. / letraren gaiñean doan puntua askotan lekuz aldatua dago, urrutiegi jarrita. Ala *Eguingo* bear zen lekuan, *egunigo* irakurtzen da. Beste letra bi, *e* eta *c*, ongi ez bereizteak, gaizki irakurtzeak ere, eman du uts bat edo beste egiteko bidea. Ala, Vera olerkariak «queiz»

irakurri zuen lekuan, jatorrago irakurri zezakean «guciz»: guciz andia. Ola, guzi eta guzti elkarren ondoan nasturik agertzen dirala? Ez du orrek ezer esan nai. Idazle askok erabili dituzte bi itzok orrela. Arin, Ordiziako Dotriñaren egilleak, bein baiño geiagotan sartu ditu alkarren ondoan orrialde berean. Orrela, letra bat edo beste tokiz aldatzetik sortutako utsa dalata, manuskritoko *erruric* guk *erurric* jarri dugu. Elurra, edurra eta erurra itz ezagunak eta leku askotan erabiliak dira. Baiña *errura* elurra esateko? Or ere letra baten atzera-aurrerako dantza izan dalakoan gaude. Aitor dezagun, azkenez, itz bat silaba batez luzatu dugula eta taket artean jarri: «Fortaleci naçaçu, Jauna, bioceam», eta ez «fortaleci naça». Texto-inguruak ala ezkatzen due-lakoan gaude, eta kopiatzaillearen utsen bat da, iñolaz ere.

Eta esan bearrik ote dago? Irakurlea bera oartu da, aurki, manuskrito onen kopiatzailleak edo Miserere onen euskeratzaillleak berak ez dakiela gaur egiten dugun eran, Z eta Tz, S eta Ts bereizten. Silabaren asieran C erabiltzen du beti, eta azkenean, Zeta: bioz, bioça. Guk olakoetan T bat sartu dugu taket artean. Bardin egin dugu *Ts* bear zen lekuan: U(t)sok.

3) Irugarren galdera. Nongoa da Misere onen euskera? Egillearen izenik ez iñolazko aipamenik ez dugun ezkerro, Vera argitaratzaillleak esan zuenez, «versión anónima» dugun ezkerro, nongo euskera duen aztertzeke eskubidea gelditzen zaigu, beintzat. Nongo euskera da emengoa? Gipuzkoakotzat, eta Gipuzkoan Goierrikotzat jo dezakegu, oker andirik egiteko bildur gabe.

Arestian aipatu dugu Arin, Ordiziako Dotriñaren egillea, Miserere au baiño eun bat urte geroagokoa. Eta emengo euskerari Dotriña orretako euskeraren ia antz osozkoa aurkitzen diogu. Batez ere, aditz-jokoetan. Batzuk Bizkaiko aditz-formen kidekoak: Kendu egidazu, egin neban, deban (deuan, dauan), deu (dau, du), apartadu. Guztiok aurkitzen dira Ordiziako Dotriña orretan. Badu beste aditz joko bat Iparraldeko euskeren kutsua duena: *diraust* (kenduko *diraust* kulpa gustiak), kenduko dizkit, esan nai du. Gaur forma auek galduak ote dira? Ez ote zaizkigu arrotz samar egiten? Ala ere, Ordiziako Dotriñak maiz erabiltzen ditu: Ematen dirautza indar andiak (ematen dizkio indar andiak), irakasten *diraustazula* (barkatu dizkidazula) ofensa guztiak, eta abar. Ordiziako Dotriñako euskeraren bidetik dabil beste izkera askotan: bage, (ez gabe), *irten* eta *igo* aditzak egille egiñak, eta abar. Eta aipamen berezia egin nai dut beste gramatika lege batena, bi itzetan aurkitzen dana (aita, aitea, kulpa, kulpea). *Aita eternoa* batetik, eta *Biz gloria Aitearekin semearentzat* bestetik; *ene kulpea* batetik, eta *ene kulpa gusti gustiak* bestetik. Itz baten bi erabilkera daude or. Ain zuzen, Arinen Dotriñan aurkitzen ez diranak, baiña bai Goierriko bazter askotan, eta aruntzago, Naparroan ere bai, Sakana-aldean gutxienez. Bizkaian beti ezagutu ditugu, asi antziñako kantaetatik eta gaur arte. Baiña Bizkaitik kanpo ere bizi indartsua dute, leku askotxotan. Azkue Burunda aldeko kantaetan olako formarik argitaratu du ango bazterretan bildurik. Ona bat edo beste: Etxe ontako nagusi jaunak poltsea txin-txarriduna. Edo beste au: San Pedro zeruetako giltzaren jabea, Goizean mezea eta arratsean saldea». Edota: Estudiante Baliarangoa, noiz eman bear dok mezea? (ikus Azkue, *Cancionero Vasco*, 1.115, 1.056, 974).

Ariñen Dotriñan antzekorik jasotzen ez badugu ere, Ataun aldean, esaterako, olako formak gaur ere bizi-bizirik daude. Ataungo Arratibel beneditarraren *Kontu*

Zaarrak lekuko. Neska, neskea, soka, sokea, eta abar erruz aurkituko ditu irakurleak or.

Amaseigarren mendeko *Miserere* onetako kulpea eta Aitea ez daude, ez, euskera jatorrean oinarrri gabe, ain zuzen, Gipuzkoako Goierri eta inguruetan. Ortik ere *Miserere* onen euskera ez da ipiñi dizkiogun mugetatik urruntzen.

4) Eta ez daude euskeran oinarrri sendo gabe beste *Miserere* orretako izkera batzuk ere: esaterako, *Kulpaen*, *alabanzaen*, *kulpaetan*. Orain maizago entzun oi ditugu *Kulpen*, *alabanzen*, *kulpetan* eta ola, baiña ez da ola bazter guztietan, eta ez da ola izan beti. Toki-izenetan baditugu bardintsuak: Landaeta, Landeta. Olaeta, Oleta, eta abar. *Ene* itza nai izenaren aurretik, nai atzetik, erabiltzea ere ez da ain bakana, gure idazleak bezala: bein bekatu enea, eta beste bein ene belarriak, eta ola. Gure literaturak gutxitan jaso duena da, noski, *Zeur* (zu, zeu esateko). *Zure* ta *zeure*, bata eta bestea noiz nola erabili, argitu naia sortu da azken aldian. Gure idazleari lege jakiñik ez zaiola oartzen esango nuke nik.

5) Azkenez, kasu nabarmengarri bat aipa dezagun, bertso auetan ikusten duguna: «Zure alabanzaen beti esaten egongo naiz, zein andiak diraden». Gaur gure artean beste onela esango genuke: Zure alabanzak esaten. Baiña badirudi gaur Iparraldean tinko gordetzen dan lege ori, aditz-izenarekin norenkia erabiltzea, lenago zabalduago zegoela. Aipatu dugun bertso ori lekuko.

Bego emen gure azterketa-saiotxo. Irakurle ikasiak aurrerago jo dezake beste alderdi batzuetatik euskal-literaturako puska oni begiratzen. Eta lortuko al du beronek antziñako literatura-saillean dagokion tokia, bere egunetako beste lagunekin batean, Iruñeko Amenduz eta olakoekin batean.

Eta esker beroak Ameriketara joan berria dugun Aita Antonio aramaioarrari, *Miserere* au aurkituaz eta ezagueraziz egin digun mesedearen alde.

SANTA TERESEAREN LAUDORIOA

(Lapurdikoko euskaraz)*

Teresa-urtea dogu aurtengoa. Eta urte onek ekarrita, emen dogu euskarazko texto zaartxo bat, ain zuzen aurtan mundu osoak goratu dauan eta Aita Santua bera gure errirako ekarri dauan Santa andi onen gorantzan, orain berreundaka urte egindako sermoia: *Santa Teresaren laudorioa*. Lapurdiko euskaraz dago eta KARMEL aldizkari onen orrietara dakargu.

Aldizkari onek, Teresa urtea dala-ta, leen lapurdierazko textorik ekarri dau. Baiña texto ezagunak, Euskalerrian zabalduak izan diranak. Gaurkoa orain arte paper zaar artean gorderik egona da, manuskritotan gelditu eta etorri jakuna. Nozkoa? Paperak berak diño: 1769.koa. Olantxe dator azalean. Azkenean beste urterik be badakar, kopia barrien batena, antza. Kopia bitan dago, eta letra bitan, egon be. Kopia bata, osoa; besteak zerbait gitxiago dakar. Osoak amar orrialde ditu, eta besteak, letra txigiagoz idatziak, zazpi.

Nor dau egille? Ezin guk erantzunik emon. *Larregi-rena* ete dan etorri jakun guri burura, irakurri aurretik; baña irakurri ondoren, ortografi berdiñik ez darabillega ikusi genduan. Irakurleak laster ikusiko dau sermoi onetan sarri datorrela *S* Zetaren orde; -z atzizkia beti *S* egiten dau. Ikusi lenengoko lerroetan: batzues, bates. Aditzetan be barditsu: *daiteskenes*, *aituste*, *galarastea*. Itz batzuetan *S* bikotxa darabil: ossoa, ussai, eta abar. Behin bakarrik ikusiko dau irakurleak *bihotzaz* eta *guziaz*. Baiña itz biok beste esku batek zuzenduta dagoz. Leenago onela egoana: «amodioak sessitu zituen haren bihotza eta haren arimako puxantza guziak», beste onetara jarri dau beste esku batek: «amodioa jabetu da haren bihotzaz eta haren arimako puxantza guziak» (obe, *guziez* jarri baleu).

* Karmel 1982-2/3/4, 121-133; «L. A.» izenpean.

Lapurdiko euskaran nekez agertzen diran formak be baditu: buruba, estimuba, burreb (burreu), eta abar. Onelango bereizgarriak or itxita, ortografia gaurkotzen alegindu gara.

Sermoi onen aurkitzaille edo gordetzailleak Belokeko beneditarrak dira. Eta, Estibalzkoekin batera, Lazkaoko prailletara Ama Teresaren urtea ospatzera etorri diranean, Lazkaon itxi dabe xerokopia bat atseginsari, eta egun andiaren oroigarri. Lazkaokotik kopiaturua da gurea. Berau ulertu nai dauanak frantzes apur bat jakin bearko dau; baiña emen doa, Lapurdiko euskarak Ama Teresari bere urte santu onetan egiten deutsan oparizat.

L. A.

*«Sancti per fidem vicerunt regna.
Fedearen bides sailduiek ardietsi dituste erresumak»*
Hebr. 33

Ez da gizonaren salbamenduarenzat mundua baño etsai ikaragarriagorik. Lilluraztzen ditu gure begiak distiadura tronpur bates; xarmatzen ditu gure beharriak solhas artifizios batzues, eta gure sensu guziak, hekien enganatzeko gehienik gai izan ahal daiteskenes; gastatzen du gure ispiritua bere maksimes; korronpitzten du gure bihotza bere atsegiñes; promesak eta dixiduak enplegatzen ditu. Ezin bere buruba maitaras badezake, ensaiatzen da bederen beldurrarrasterat, eta nahis batean nahis bertzean, ez du billatzen gure galarastea baizen.

Zer defenza oposa ahal dakiokete alde guzietarik gure kontra etxatzen dituen tretuei? Batere bertzerik fedearen defenza baizen. Hargatik ere, dio apostoluak berak, fedearen bidez sailduiek garaitu dute obra onen egitetik gibelatzen gaituen errespetu humanoa, eta beldurtasun laxoa. Kasurik ez dute egin izatu subas eta brasa bizies, bestiarik izigarrienes, heriotzerik kruelenas. Fedearen bides Abrahamek itho zituen bere baitan naturalezaren sentimendurik justuenak eta samurrenak; Moisek mesprezatu zituen Ejiptoko tresorak; fedearen bides hanbat arima sailduiek guziak entreprenitu, guziak sakrifikatu, guziak sofritu dituste. Egund Elizak Theresaren presunan proposatzen daroku Birjina miragarri bat berthutesko eta prodijiosko bilduma bat izatu dena.

- Bi zathi: 1) Saildu guzien artean distingaturua izatu da Jainkoari ekharri dioen amodio kharsuas.
2) Saildu guzien artean distingaturua izatu da bere humiltasunas eta obedienzias. Ave Maria.

I

Jondoni Pauloren arabera, Birjinek abantail bat badute emaste eskonduen gañean, zeren hauk bere engaiamenduak obligatuak baitire hartu duten esposaren gogara egiterat, eta munduko gauzei aplikatzerat, bertzeek, ispiritus eta gorphutzes saildu di-

relarik, bakharrik Jinkoaren gogara egiterat baizen pensatzen ez duten denboran. Holakoa izatu zen Theresaren zortha dohatsua. Aithortu behar darotzuet bere lehenbiziko urthetan ez zuela jakin izatu grazia preziatu haren, merezi zuen bezala, preza-tzen eta menaiatzen. Infirmirate baten efetu bates erori zen zenbait infidelitatetan; konserbatu zituen zenbait inklinazione, kriminelak ez izan arren, Jinko jeloskor baten deklifikatasuna kolpatzen, eta harenzat izan behar zuen amodioa trabatzen zutenak: ordean haren konbersione osoaren mement dohatsua arribatu zenean, eta Jinkoak haren lokharriak hautsirik biolentzia arrai eta esti baten medios bortxatu zuenean hari zor zioen amodioaren kaltetan okupatzen zuten ataxamendu guzien sakrifikatzerat, hain osoki Jesusen amodioa jabetu zen haren bihotzaz eta haren arimako puxantza guziaz, non ezin konzebi baitzezaken amodio khartsuagorik, borthitzagorik, lehiatuagorik. Bere gogoan, bere mihian, bere bihotzean Jesukristo baizen ez izateko zuen arthak, bere eginbide guzien bethetzeko zuen leialtasunak, bethi ere zer ere perfetenik ezagutuko baitzuen eta haren komplitzeko egin zuen botu extraordinarioak, erretzen eta iretsten zuen Jainkoaren etxearenzako zeloak, erranaras ahal ziozoken S. Paulorekin batean, Jesukristo zela haren bizia; etzela hura gehiago bizi, baiñan bai Jesukristo haren baitan. Vivo jam non ego. Vivit bero in me Christus.

Ez dezazuela guziarekin uste izan Theresaren amodioa ez dela neurritua izatu delizioes, gozotasunes eta konsolazione ispirituales baizen. Ez ditu bethi liliak eta arrosak kausitu bere Esposari jarraiki zaionean. Jesukristo eta gurutzeak elkarganik ezin separatuak dire; gurutzeak gabe ez dio nihori bere buruba ematen. Sofrikariak dire haren samurtasunaren markarik señalatuena, eta haren karesarik handienak. Ala Theresa fagoratu, distingutu eta pribiliatu izatu baita bildotsaren Esposen artean. Bere pasionean horditua izatu zen; asunziosko eta khiretstasunesko kalits hartarik izatu du bere parte ona. Zebok juja zazue zein efektuskoak, zein puxantak izan ziren bihotz gaste hunen gañean graziak egin zituen lehenbiziko inpresioneak, ekharri zutenas geros zazpi urthetan martirioaren billatzerat, eta bere biziaren sakrifikatzerat, doi-doi bizitzen hasten zen denbora batetan. O mirakullu orduarterañoakoan ezagutua etzena! Hasten du bere korsua saindurik handienek fiñatzen duten pontu beretik; karitatearen efortik ezin dohakenas geros maite denarenzat bere bizia ematea baño urrunago. Haur bat da, oraño gure fede saindua hitzes ezin kofesa dezakena; eta bere odolas sigillatu nahi du. Afruntatzen ditu tiranoak, eta konbatatzerat doa, Jesukristoren intresen sustenguarenzat. Khar dibino hartas guzia berotuba, errea, inpazientziarik handiena du martiren khoroarean merezitzeko. Deliberatzen du mairuetarat pasatzea, barbaro hetas imolatua izateko. Hortako bere aitaren etxetik itzultzen (itzurtzen) da. O ene Jinkoaren probidenzia! Gisa hortan premetituko othe duzu, bada, burreb (burreu) baten espatak galaras dietzagun haur mirakulusko horrek ematen daroskigun esparanzak? Ez; ahaide batek errenkontratzen eta dohatsuki gelditzen eta eramaten du, nigarretan mañatua eta zeren bere desira ezin konpli dezaken ezin konsolatu.

Zer nahi zinduen egin Theresa? Zenbait odol xortaren gustus eta zenbait mementetako suplizio baten medios nahi zinduen beras erosi zerua? Ez; Jesukristok ez darotzu bere buruba eman nahi sofrikari labur batzuen saritzat. Bertze Paul bati bezala erakutsiko daroskitzu haren loriaientzat preparatu daroskitzun nekhe handiak. Laidos eta sofrikaris sasiatua, asea izanen zare. Frogatuko duzu zer diren asta zorrotzak,

arrudak, estirak eta gizonen kruelitatearen iminzioe diferentak, debruen biolenzia. Zure amodio antzedunak zure burubaren tormentatzeko asmaraziko daroskitzun guziak ez dire haren beso pizuairen parreko izanen; eta naturaleza hanbat ikharatzen eta laxoak hala gogourriarasten ditusten gauza hek guziak, estitasun batzuk baizen ez dire izanen, Jinkoak aldaratzen daroskitzun frogekin konparatuko ditutzunean.

Arrazonekin S. Bernatek penitentzia deitzen du martirio suerte bat armen bides sofritzen denak baño sensuak gutiago latzen dituen; ordean bere iraupena dela kausa, gutiago penagarria ez dena. Eta egias, martirioas gure burubei ideajustu bat formatzen badiotegu, kausituko dugu penitentiaren ekserzizio nekhagarriekin konbenitzen dela. Martir batek bere biziari errenonziatzen badio Jesukristoren jinkotasunari lekhukotasun errendatzeko, penitent batek estitasun guziei, inklinazionerik naturalenei errenonziatzen diote, haren bizitze gurutzefikatuari lekhukotasun errendatzeko. Martir batek jeneroski mesprezatzen badu bere gorphutza, penitent batek hura gaiski tratatzen du. Martir bat biktima bat bada, esku arrotzes imolatua, penitentak ez du bere bizia entretenitzen, egun guzies hiltzeko baizen. Hitz bates, konparazione huni bere hedadura guziaren emateko, Jinkoak bi moldes frogatu du martiren pazientzia: batetik hekien fedea paganoen kontradikzioei eta trufei, bertzetik, hekien gorphutzak tiranoen kruelitateari abandonatu diotzotenean.

Egundano medizeniaren gaitakeriak saindurik ez du hala atakutu, nola Theresa. Gaixtagaiñak etziren bakharrak haren ohoreari aspertzen zitzaizkotenak; bebot-zat pasatzen zirenek berek tratatzen zuten hipokrita, emasteki ambizios eta inkiet bat bezala. Askenas goiti predikatokietarik erraten ziotzoten injurioak; errerepresentatzen zuten bafores eta malenkonias ispiritua flakutua zuen presuna bat bezala; aphezek errefusatzen zioten komunionea. Uste zuten poseditua zela. Mintzo ziren haren eskonjurtazeas, dixidatzen zuten Inkisizioeas, preso ere eman nahi zuten. Nolakoa uste duzue ordean zirela Theresaren dispozizioeak debruak haren kontra armatzen zituen mihi pozoatu hekien tretu miñen erdian? Ah, nihois ere etzuen izatu kalma eta trunkilitate gehiago, boskario eta kontentamendu gehiago. Errepresentatzen zioen bere buruari bere Espos dibinoa. Judues blasfematua, trompatzaillebat, bonaxeretako gizon bat, debruas poseditu bat bezala tratatua. Bere bekhatu iraganek inspiratzen zioten humiltasun handiak sinhetsarasten zioen oraino hanitz menaiatzen eta urrikal-mendu sobrarekin tratatzen zutela.

Debruak errabian, desesperatua neskatxa bates garaitua izateas, Jinkoari galdetu zioen, lehenago Job bat bezala, hura bere gorphutzean zehatzeko libertatea, eta ardietsi zuen. Behar liteke ezagutu zer furias etsai hura animatua den heren erresumaren destruitzeko traillaatzen direnen kontra, konprenitzeko zenbat gaitzes aflijitu zuen biktima inozent hau. Tratamendu kruelak, gorphutzean zauri izigarriak, eskrupulak, tristeziak, izialdurak, gabasko fantasmak, tentazionerik furiosenak, guziak usaian emanak izatu ziren ispiritu gaixto hartas; eta froga horiek asko izatu ez baliré bezala, Jinko bera harekin bat egin zen, eta aplikatu zen manera ezin explikatuskoo batez haren tormentatzen. *Mirabiliter me crucias.*

Ikusten duzue mintzatzen natzaizuela bizitze ispiritual batetan kausi eta froga ahal daitesken agortasunes eta tribulaziones. Nihork ez ditu hek frogatu Theresak bezala. Jinkoa etzitziaon agertzen bere justizias eta saindutasunas bestitua baizen, karesarik gabe, begitarte arraiik gabe baizen. Maitatu behar da, martirio horren

kruekitatearen konprenitzeko... Hama zazpi urthe oso pasatu zituen froga garrats horien erdian, behin ere haren konstanzia flakatua, haren konfidentzia gutitua izan gabe. Nihoiz kontrarat etzuen izatu indar gehiago, kuraia gehiago. Pena eta desolazione horien erdian sustengatzen zen bere fedeas. Esparanzatzen zuen esparanzaren kontra; amulsuki musu ematen zioen bere furian lehertu bezala zuela iduri zuen esku ikaragarriari. Ez, ez; nihoiz ere bere Esposari etzitzaioen ataxatu haren dohañen eta fagorien gatik, deboziones gogo urritzen diren arima sensual hek bezala, gozotasunes eta konsolaziones sustengatuak ez diren pontutik. Theresak ez du bakharrrik nahi Jesus eta Jesus gurutzefiktua baizen; preferentzia ematen diote haren itzei, arantziei, keldarrari, boskario, gozotasun eta konsolazione ispiritual guzien gañetik; Kalbarioko ahidura eta estresei, Taborgo extasia eta delizioen gañetik.

Ixillik egon ahal othe naiteke haren eritasun kruek eta kontinualen gañean? Haren gorphutz guzian etzen parterik Jesukristoren mortifikazionean sigilatua etzenik eta pazienziaren tribut bat pagatzen etzioenik. Batean iduritzen zitzaioen bihotza burdinasko orraze zorrotzes larrutzen ziotela; subak bere hertzeak ihartzen ziotzola; buruba oinhazien puntarik zorrotzenez sillatua zuela. Zain guziak erretiraturik haillko bat bezala korapillatua zuen bere gorphutza; etzakien zer zen lo egitea. Ez da posible konprenitzea nola oraño barures ahitua zen gorphutz flako eta delikatu hark buru egin ahal ziozoketen hanbat gaitz suertei. Horien erdian Theresak benedikatzen du Jainkoa, eskerrak bihurtzen diotza. Lehenago Jobek Jinko hari galdeiten zioen zenbait ephe eta erlaxa bere gaitzen plenitzeko, eta bere nigarretan konsolazione baten kausitzeko; eta gure sailduak ez du errezibitzen zenbait konsolazione eta zenbait entrabala bere burubaren tormentatzeko eta zauria zauria gañean emendatzeko baizen.

Bihotzak eskas egiten darot ikusten dudanean burdin punta zorrotzes armaturia den zilizio bates bestitua. Ez da hartas billusten, bere gorphutz eriaren gañerat izifrina kolpesko babazuza baten deskargatzeko baizen, hauzinen eta elhorrien gañean itzulikatzeke baizen. Ez; gizonik mañosenek eta gurienek ez dituste atsegiñak hanbat lehiarekin billatu, ez dire hetan hanbat hirritsekin pulunpatu, nola gure sailduak erakutsi baitu gurutzienzat eta mortifikazionienzat; gurutzea da haren zentroa, haren errepausulekhua, haren desira guzien objeta. Hartas landan bertze non nahi, estatu biolent eta situazione gogor eta nekharri batetan da. Martirio suerte bat sofritzen du deus ere sofritzeko kausitzen ez duenean.

Zerekin konparatuko dugu estatu bortxatu eta doloragarri hortarat eroria den arima hau? Erranen dugu, izerdis eta odoles estalia, ihistaris segitua, egartsurik handienas penatua, ithurriotz baten ondoan dabillan orein baten pare dela? Edo karrikola bero batetan zeruak errefusatzen diotzan zenbait ihintz edo uri xorten errezibitzeko inutilki milla tokitarik idekitzen eta arraillatzen den lur idor baten pare dela? Horiek guziek ez darokute Theresaren bihotzean pasatzen denas ideia justu bat emanen. Edo sofrí edo hil, erraten du. *Pati aut mori*. Nois, bada, Jauna, erraten dio amultsuki bere Jinkoari, nois erakutsiko darotazu zure bisaia? Nois artean gerizatuko zaisko zure zerbitzariari; eta zer egin behar dut zure ganik absent izateas dudan enhaduraren estitzeko?

Guziarekin arimen Jinkoari irabasteko eta konkestatzeko zuen egartsuak erranarasten zioen: Ah, Jauna! Konbeni bada biskitartean zure loriarentzat oraño mundu huntan egon nadin, hartarat konsentitzen dut, zurekin juntatua izateko dudan lehiaren

despit. Etzuen gozorik, bera erretzen zuen su sakratu hark bihotz guziak erretzen ez bazituen. Bekhatorien konbersioea, Elizarekin heretikoen batasuna, Satanen erresumaren destruzioea, eta Jesukristorenaren emendazioea ziren haren botu eta desira guzieren objektuak. Ezin konsola zaiteken harengatik absent izateas, hanitzen salbamenduas baizen. Ala inbidia ekhartzen baitzioen predikarien zortheari! Penas baizen etzuen sofritzen ez ziozoten permeti infidelen herrietarat Ebanjelioaren predikatzerat gatea, eta bere othoitzes, nigarres eta botues landan misione ispiritual hartan ez trabaiillatzea. Ematen diote Karmesko ordenaren erreformatzeko kargua. Zer boskariorekin okasione preziatu hartan ez du señalatzen bere zeloa! Eta etzaiote abandonatzen empresa hari iratxakiak diren nekhe ete trabaiillu guziei?

Jinkoaren protekzioeas armatua, haren probidenzias landan bertze funtsik izan gabe, fundatzen ditu hogoi eta hamabi komentutarañoakoan, zeñiak hanbat eliza izatu baitziren, apostoluek berek formatu zitustenak baño are perfetagoak, komentu hetan botuz engaiatzen zirenas geros konseilluen pratikatzerat, eta bizitze ispiritualean zer ere baita perfetenik, eta erlaxarik gabe hekien entreprenitzerat. Theresak komentu hek guziak altxatu zituen bere izerdien, nekhen, nombre gabeko persekuzionen, gosearen, egartsuaren, billustasunaren, gaubeillen, sasoñen eta denboren injurio diferentent gustus. Guziak ordean esti zitzaiskon, Jesukristori zenbait arima irabas ahal baziokan mendeko korrupzionetik erretirarasten zituelarik. Usteko zuen bere Esposaren alderat kriminel eta infidel izanen zela, khar gutiago izatu balu hari arimen konkestatzeko, debruak hekien galarasteko zuen baño.

Horra zer deitzen den maitatzea ez hitzes, ez gogos, bañan egiaski eta zin-zines. Gisa hortan bethetzen dire Jesukristoren Espos baten eginbideak, eta hari markatzen zaio bere amodioa. Zer konfusione guretzat hain epel eta otzak izateas haren intresentzat! Gure karitateak merezi othe du bada kharitatearen izena? Helas! Haizerik mendrenak hauts dezaken seska flako baten pare da. Kontradikzioeak, kalomniak, injurioak eta laidorik kruelenak ez dire gai izatu Theresaren kharitatearen iraungitzeko; eta tentazionerik ariñenek, hitz bakhar batek asko aldís gurea ithotzen du. Theresak atrebenzia saindu batekin desafia zezaken mundua, bere peril guziekin etzuela Jesukristoren ganik separatuko; guk ordean, erreflexione egin nahi badugu gure flakeziaren, inklinazione korronepituen, langiaduraren, gure huts hussuen, biziarentzat eta hango aisia eta komoditatienzat dugun ataxamenduaren gañean, erran ahal othe dezakegu: «nork separatuko gaitu Jesukristoren amodiotik?». Segi zagan Theresaren laudorioa. Nolakoak izatu dire haren humiltasuna eta obediencia? Bi hitzes akhabatzen dut.

II

Gure burubes egiten dugun estimuba, eta gure nahien konplitzeko dugun inklinazionea dire berthutearen pratikatzekeo trabarik handienak, eta bizitze ispiritual guziaren gañerat banatzen den korrupzioearen bi surtza dohakabeak. Errelijioeak hei oposatzen diotzoten bi erremedio soberanoak dire humiltasuna eta obediencia. Bi berthute horien laguntzarekin Theresa satifikatu zen: 1) bere humiltsasunak begiratu

zuen bizitze extraordinario baten korsuan, Jinkoak mais arima superbiosak abandonatzen dituen enganio eta ilusione doloragarrietarik; 2) Bere obedienciak gardatu zuen amodio propialak gure nahien egiteko inspiratzen darokun pendura eta inklinazionetik.

1) Theresaren humiltasunas jua dezakegu errezibitu dituen fagorietarik, eta haren fagories haren humiltasunaren gañean; bata izatu da bertzearen neurria. Humiltasunak haren baitan erregelatzen zituen hitzak, manerak, begiratzeak, bozaren tonua. Orgilluak eta humiltasunak igoalki gizonen baitan bere burubak erakusten dituste. Theresaren baitan lehenbiziko begikolpean ikusten zen, batetik bertzerako diferentzia. Orgillua fiertasunes bethea da, Theresa estitasunes. Orgilluak maite du eklata, Teheresak ilhunbeak. Orgillua mintzo da autoritaterekin, Theresa modestiarekin. Orgillua bantatzen da, Theresa akusatzen. Orgilluak bere defaultak gerizazen ditu, Theresak publikatzen. Orgilluak bere obra ones parada bat egiten du, Theresa beries ez da mintzo penarekin eta obedienciaz baizen. «Permetitzen darotzuet, erraten zioten bere konfesiorei, ene bekhatu guzien publikatzea, hartas othoitzten ere zaituet; bañan denbora berean nahi dut ixiltasunik handiena garda dezazuen errezibitzen ditudan grazien gañean».

Humiltasuna prosperitatean eta atsekabetan. Egundaño ez da ikusi hark jasan dituen bezalako persekuzionerik; eta denbora berean nihor hetarik hala ateratu denik. Bera suprenitua Jinkoak haren bides obratzen zituen mirakullues: «zure obrak dire guziak, Jauna, zioen; nere partetik deus ere ez da egin ditudan hutsak baizen». Seguratu merezi zituela pixten ziotzoten persekuzioneak, «nik, erraten zioten bere aizpa lagunei, nik zuen ganerat jautsarasten ditut malhur hauk guziak; ni ez baninduzue, trunkil zindeskete».

Humiltasuna zeruko konsolazionien eta agortasunen erdian. Sinhetsiko othe duzue behin ispirituko tribulazione batzuen erdian zeruko hinzaren xorta baten galdeitea, krima bat bezala bere burubari erreportxatu zioela? Sinhetsiko othe duzue bere othoitz eta meditazionetan hain haltoa zuen arima hark, bere buruba indigno zaukala haren egiteko, eta liburu ispiritualean irakurtzeko; eta egiaski urthe oso bates, nahis bata nahis bertzea bere burubari interditu ziotzala? Humiltasuna zeruak akordatzen ziotzan talendu eta dohain naturaletan. Zer dolore eta erregret etzuen erakusten bere gasteasunean hetas egin zuen abusionearentzat! Estonatua zen nola entzun ahal zezaketen bere arabera ez ispiriturik ez juiamendurik ez zuen neskatxa simple bat. Humiltasuna bere dohain sumaturalen, mirakulluen, profezien, extasiaren erdian. «Helas! zioen, horiek guziak ez dire ene flakezien froga batzuek baizen. Ez da gutiagorik behar huts handietarik ene begiratze».

Nolako etzen haren enbrasua, obedienciak, bere humiltasunaren despit, obligatzen zuenean hekien eskribatzerat, edo ustegabeko graziaren operazione batek publikoan traditzen zuenean.

Humiltasuna bere hutsetan. Zenbat etziren suprenituak haren azpiko serorak, hutsik hariñenezat bere amaren bere oñetan ikhusteas barkhamendu eskatzen bere eskandales, eta hek ekshortatzen etzetatela segi hain serora gaixto baten eksenplua. Humiltasuna errezibitzen eta ematen zituen korrekzionetan. Errespeturik handienarekin enzuten ditu ainzindariak, bere igoalek, bere aspikoe ematen diotzoten abisuak, pratikatzen ditu ordenatzen diotzoten penitenciak. Komunioneas pribatzen badute, humiltasunari eta obedienciari sakrifikatzen diotza bere amodioaren lehiak. «Ala ene

konfesorari obligazioe baitiot, erraten du, zeren Jinkoaren intresak sustengatzen baititu ni bezalako presuna indigno batenganat ethortzerat usten ez duenean». Humiltasuna karguetan. Bortxa behar zaio egin hekien harrarasteko; bethiere baxoenak hautatzen zituen. Humiltasuna errendatzen zituen zerbitzuetan; sehiek etzuten egiten apalagorik. Suprenituak ziren hark gabas egiten zituen lanak egunas ikhustetas. Humiltasuna, fiñean, injurioetan. Kalomniarik beltzenak mais attackatzen zuen haren berthute haltoa. «Horra, zioen, injurioak erraten zioskotenean, horra neretzat musikaririk ederrena: laudatzen ditut erraten ditusten guziak; oraño gutiegi baizen ez dute erraten; zer ez dezakete erran ongi ezagutzen banindute?».

2) Theresaren humiltasunari iratzak diozguna haren obediencia. Ez da ekibokazioa izatu. Herro herro izatu zituen hamalau edo hamabortz konfesor, zeñetarik bakhotxak bere idien arabera urratzen eta desegiten baitzuen ainzinekoak egin zuena. Batak manatzen dio bere errebelazioen iskribatzea, bertzeak bere paperen erretzea. Batak tratatzen du saindu bat bezala, bertzeak inbezil bat bezala. Batak egortzen du fundazioe berrien egiterat, bertzeak debekatzen dio bere komentutik ilkhitzea. Batak interditzan, bertzeak ordenatzen dio meditazioearen praktika. Batak laudatzen, bertzeak kondenatzen ditu haren austeritateak. Hanitzek nahi dute errentak errezibi detzan, hanitzek amonias bizi dadin. Urreak bezala hanitz aldis behar zuen suban emana izan, purifikatua izateko. Ilhunbe eta kontradikzioe horien erdian, obediencia baliatzen zaio gidatzen eta flanbetzat. Bethi obedient eta dozil, iskribatuko eta urratuko ditu; mintzatuko da eta ixillik egonen da, ainzinat goanen da eta geldituko da; bere konfesoraren nahien arabera guziak entreprenituko eta abandonatuko ditu. Mundu superbiosari erhokeria bat zaio obedienciazko misterio hori; horra biskitardean bide segura; harekin guziak progotxosak, merezimenduskoak dire; hartas landan guziak inutilak, guziak suspektak dire.

Obediencia bat hanbatenas arraragoa, zeren pietateak berak haren inklinazioeekin akort zelarik, pretextak kausierasten baitziotzan ez obeditzeko; hala nola Jinkoaren loria, haren borondatea, zeña markatzen baitzuten egiten zituen mirakulluek. Theresak obeditzen du luzamandurik gabe, eksaminarik gabe, erresistenziarik gabe, boskariorekin. Bere zeloak ekharri zuen konfesorat hartzerat gehienik kontra zituena, eta hei obeditzeko botu arraro bezain gaitz baten egiterat.

Huna ordean obedienciazko eksenplu bat, menturas bakharra ezin esplikatua. Obedienciazko prinzipio bates Jinkoari berari kontra egiten zioen. Haren konfesorik uste dute haren bisioneak etzirela illusione batzu baizen; obligatzen dute othoitzaren uzterat, gurutzearen señalear Jesukristo kasatzerat; haren kontra bere Pasioneko laido guzien erreberritza Jesukristoren eta haren ministroaren alderat ez jakinas nola gobema, batari edo bertzeari galduko othe dio errespetua? Zer martirio suerte pietatea eta debozioea sakrifikatzeranokoan doana! Tirano batek ontasunak eramaten ditueanean, uzten ditu bederen graziaren estitasunak; gorputza larrutzen badu, deus ezin dezake bihotzaren gainean. Zeruko fagoriek hemen behar othe dute izan sakrifizioaren material? Zer konbata ez da pasatzen Theresaren bihotzean! Batetik graziak bereganatzen, bertzetik defendak arrastatzen du. «Ah, erraten zuen, badakit Jinkoa mintzo zaitala; ordean tronpatzen ahal naiteke ene idietan; ezin ordean errebela naiteke obeditzen dudanean».

Horra nolakoak izatu diren Theresaren berthuteak: Jinkoarenzat zuen amodioa, haren humiltasuna eta obediencia. Berthute horiek praktikatu ditu gradurik gorenean eta zirkonstaziarik merezimenduskoenean. Hek imita zatzigun, eta ardietsiko dugu hekien errekonpensa den zeruko dohatsutasuna. Amen.

Irakurtzaille-kopiatzaille

L.A

LIZARDI GAZTEAREN OLERKI

SORTA

I *

Orain dala bost sei urte gure argialetxe batek Lizardi idazlearen idazlan billa jarri ninduen. Olerki eta osterontzeko guztiak nai zituen gure idazle eta olerkari andiaren lan guztiak argitaratzeko asmoz. Argialetxeari aaztu egin zitzaion nonbait emandako agindua edo erakutsitako asmoa aldatu egin zuen, eta paper artean gelditu zan nik pillatutako lana, eta orrekin Zarautzko semearen olerki gutxi ezagutuen bilduma.

Gaur KARMEL onen orrietara ekarri nai dut Lizardik, besten ezizen batzuen pean 1917tik 1920ra argitaratu zuen olerki mordotxoa. Lizardizale askotxo agertzen zaigu ari omenaldiak eta egiteko prest. Nik ez dakit norañokoa dan zaletasun ori. Gaur arte ez dio, beintzat, ain maite duten olerkari orrek bizian zear zabaldu zituen lan guztiak billatzeko nekerik arrezazi. Orraitio Antonio Maria Labaien jaunak iturri bat erakutsi zien; non billatu salatu zien. Eta *Euzko-Deya* Bilboko aldizkarian 1917n argiraturako olerki bat ere eskuetaratu zien: *Jaun errukitsua* izenekoa. Ain zuzen erderatik euskerara itzulitako lana zan bera, eta ez Lizardiren olerkirik jatorrenetakoa. Sonettoa da, eta Lizardik bere neketxoa artu zuen olerki orri euskeraz erderazko soneto tankera ematen. Soneto ori *Euzko-Deya-n* agertu aurretik, aldizkari berean bazituen Lizardik argitaratuta iru olerki, eta geroago mordo ederra. Guztiz, 18 olerki, bai.

Euzko-Deya, bilboko Euzkeltzale Bazkuna-ren bultzada ta eragitez 1916n agertu zan plazara. Ez zaio esker onik egin. Praille ta elizgizonak sortutako aldizkariak kendu ezker, *Euzko Deya* ori dala uste det euskera utsezko lenengo aldizkaria. Orregaitik ere, aipamen geiago eta esker ohea merezi duelakoan nago euskaldunen aldetit. Garai artako euskal-idazle argi askok ez zioten muziñik egin. Aren orrietako lankide ikusten ditugu orduko eta geroagoko ainbat izen eta ez-izen: Kirikiño, Elei-

* *Lizardi gaztearen olerki mordoa*, Karmel 1987-1, 6-15.

zalde, Aizkibel'dar Bingen, Arrugain, Elzo-Azpiazu, Sagarzazu, Tene, Larreko, Zinkunegi eta abar. Abar onen barruan, geroko Lizardi, eta orduko Zarautz'ar Sabin eta Samaiko Zulo, edo Jose Maria Agirre Egaña, Zarautz-ko semea.

Aldizkariak 1916tik 1923garrena arte irauñ zuen bizirik, 1920 maiatzetik 1921 garrena arteko ixilunea izan zuela. Edozein gaiezko lanak ateratzen zituen. Eta zenbaki bakoitzean, bi edo iru olerki ta bertsozko lan.

Lizardik olerki-saillan egindako bidea eta bide orretan egindako aurrerakadak ikusi eta jakiteko *Euzko-Deya-n* atera zituen olerkiak ezagutzea ez da gaizki etorriko. Aldizkari orretan 1917n asi zan idazten Zarautztar gaztea. Urte orretako jorraitaren amaseikoa du *Nere lenengo maite-ibilketa*. Aldizkariaren 28garren zenbakian dator. Gero amasei geiago aterako ditu: Euzko Mendiya (29garren zenbakian), Zelai urdiña (33), Jaun errukitsuba (41), Nere maitiak ditu (53), Maitasunaren illetea (63), Maiteder (66), Maite izane-ri (70), Aztu, biotz orrek (72), Oia (73), Izarkitako sua (78), Gaiztuen itzala (79), Euzkera (80), Idazkiya (81), Gastiaren otoitza (82), Amona (83), Otoitza (87), Igesi (88). Itz-lauzko batzuk ere baditu, baiña gutxiago.

Aldizkari osoa idazle ezizendunetz beterik dago. Gero Lizardi ezizena artuko zuenak *Zarautz'ar Sabin* eta *Samaiko Zulo* erabiltzen ditu. Norbaitzuk *Mendi-Lauta* ere Lizardiren ezizentzat eman dute; baiña uste ori okerra dala ikusteko *Euzko-Deyan* bertan daukagu argibidea. Zenbaki berean bein baiño geiagotan ageri dira bata eta bestea. Biak itz-lauz eta bertsoz idatzi zuten, eta biak Zarautztik bertatik. Eta bein Mendilautak Zarautztar Sabin zirikatatu du, ea zergaitik ixildu dan, ea zergaitik ez duen txori kantari jarraitzen, zergatik ez duen olerki geiago ateratzen. Eta Sabin-ek bertso jostari arin eta bizitan erantzungo dio. Bertso oietan eman digu Lizardik bere adiskide eta errikidearen izena: Txomin, Jon Bilbao jaunaren bibliografiari arrazoia emanez. Domingo Arruti jarri du Jon Bilbaok Mendilautaren izentzat. Egia ala dala dirudi. Ala ere gauzak illun uzteko, Bibliografia berean Mendilauta orren bi lan, *Euzkera* aldizkarian argitaratuak, Lizardirenak diralakotzat eman dizkigu. Okerrak edozein liburutan ager daitezke. Eta liburu luze andietan, areago.

Lizardiren lanak bein eta berriz eman dira argitara; baiña lenengo aldian, gaztezarroan, argitaratu zituen olerkietatik, guk dakigula, bi baizik ez. Bata len aipatu degu: *Jaun errukitsuboi*, erderatik itzulitako sonetoa, bi itzulpenetan emana, *Euzko-Deyak* 1917 emandakoa, eta geroago beste ikutu batzuk egiña. Olerki onetan Lizardi Euzkeltzale Bazkuna-ren eskolako egiña ageri zaigu, aldizkariaren idazkera eta ortografia artuta. Gaur bitxi egiten zaigu gure olerkaria Euzkeltzale Bazkunakoen lege ta arau batzuen mende ikustea. Beste lege batzuk giputzen ago eta idazkeran oso sartuak zeuden orduan: aldiya, bereziya, zubek, suba ta ola idaztea.

Beste olerki bat, *Euzko-Deyan* emana eta Lizardiren lenengo liburuan agertua eta orain ere agertzen dana, *Oiari* egiña da eta izenburutzat goian onako itzok ditu: *Ondo apaldu ondoko berriketak*. Ikutu txiki batzuk egin dizkio gero itz batzuetan: Esaterako *asmatu* eta *lasatu* jarri len sumatu eta lasaitu zana. Bertso lerrorik aldatuena au du: *Asun miñez beterik*, leen *jostarratzez josirik* zeukana. Nonbait gogorregi egin zitzaion oia jostorratzez jostea. Bertso auetan, gaiñera, Bizkaiko kutsurik ere aurkitzen

diogu Lizardiri: *-kaz atzizkia, be, dagiket adizkia, dezaket-en ordez. Azkenengo au geroke ere erabili zuen, gipuzkoako leku askotan bezala.*

Amabost olerki geiegitxo dira gurea bezalako aldizkari batean guztiak batera emateko Jakiña, kanpoan geldituko dira bai *Oia* eta bai Jaun errukitsua, lendik eza-gunak diralako. Egilleak berak *Biotz-begietan* liburuan atera zuen *Oia*, eta bestea ere azkenengo edizioetan sartuta aurkitzen degu. Orain artean Lizardik *Euzko-Deyan* argitaratutako olerkirik ez zuela geroago argitaratu esan dutenek gezurti egiten ditu *Oia* olerki orrek. Nonnai bezala, gure artean ere ezjakin ausartarik bada.

Gaurkoz, berriz esateko, ez ditugu beste guztiak emango, baiña bai mordotxo bat, besteak urrengo zenbakietarako utzirik. Guztiak daramate egillearen ezizena: *Zarautz'ar Sabin* edo *Samaiko zulo*.

ZELAI URDIÑA

Errazti'tar Joseba'ri

Mendi-goitxu batian,
 izerdiz, itzalpe-billaka ibillita gero,
 aize otzantzaren musu osasungarriya arpegiyan
 exerita nago.
 [Nere begi-aurrian
 dagerren edertasuna! jJainkoa'ren almena...!
 jMugageko zelai bare gelgarri urdin berdiña!
 jltxaso zabala...!
 Emendik ikusita
 legorra bezin gelditun ta egokor dirudizu:
 ta, margo argitsuagaz, legorreko ibayai be
 antz-emateyezu.
 Zelai amaige urdiña:
 ^Zeuk ere bai ete-dituzu nekazariyak?...
 Bai-dakust zure gain laua ixontzitzuz beteta...
 jBerok bai txitxarrak!
 jJostallu irrigarriyak,
 itxas amaigabian iltzez josita letxe!...
 Goiaz alkar jotzen dun ibar ameskarriyan,
 ^Zerbait ba-al zarete?
 j Gure txikitasuna!...»
 ikuskizun ori dala-ta oldoztillun diyot...
 Ta nik, neure buruba goitxu ontan dakustalako.
 Ala ba-deritxot,
 Goi-goikuaren aurrian
 gizonak, naiz goyenak be, ^zertzuk ete gera...?

Argiya, iltzen, urre-il-janzkiz, sarkalderantz bai-dua...
Berako garaiya.

Kai-ondotik nuala,
bateltxo bat dator zapiya zabal-zabalik...
Berton datorren itxastar bizkar-sendo bakarrak
au diyo abesturik:
«Ni naiz, ni naiz
zelai urdin, zure nekazaria!...
Ni naiz, ni naiz
Jaun-Goikua'ri eskerrik dagiyotena;
zelai urdiñaren emaitz ugariyak
maiteki eskuratu dizkitenari...
Ni naiz, ni naiz
zabal urdin auetan nekazari...
Amaika nekien saritzat, nere
emazte ta seme-alabatxok eztira
izango gose...

Ni naiz, ni naiz
zelai urdiñeko nekazariya!...
Goiko-jaun onari esker eta aintza!»

Oi, ni naizen zorua!...
zure kaltez oldozka abaro atsegiñan
nengoenaren aldian, neke larriz zenbiltzanoi
aundiyagua ziñan...!
aundiyagua bai, ziñez,
Jaun-Goikua'ren begiyetan, neu geruago egonik,
itxas-zelai urdiñeko nekazari kementsu
bildur-gabeko ori...

Samaiko Zulo

NERE MAITIAK DITU-edo «AXARIGA DANTZAN»...

Nere maitiak ditu
 begiyak olergi...
 Negua biyotzan, begiyetan udaberri...
 Euzkadi'ko zelai ta
 basuen argiyak
 margoztu ei-dizkio berari begiyak...
 Nere maitiak ditu
 me-miak ezpañak
 euzkeraz mintzatzeko bakarrik egiñak.
 Etzadazute eskatu,
 aren ortzen berri,
 ezpai-dizkit ozkirri-bidez erakutsi.
 Nere maitiak ditu
 beste lau maitale,
 ta ni baiño geiyago edozein du maite!

Zenbat maite zaitudan
 iñoiz esan dizut?
 Kanpandoia ximela baño nayago zaut...!
 Bañan, zuk neretzako
 eztezunezkero
 beazuna ta ozpin garratz-miña baño,
 nere malkuak-arren
 ezpai-nazu maite...
 negarra-biarrian ein dezadan parre!

Nere maitiak ditu
 begiak olergi...
 Bigun ba'litzaizkit, bizia udaberri!

MAITEIZANE'RI

Nere gogoko lore bakarra,
 nere gabeko izarra...
 Samin-eztiya zeran oroya
 nere parre bai negarra...

Nik zu bakarrik maite-izan zaitut
maitetasun bereziyaz:
norbere aurren ama-gaiyari
zor-zaion gurtze garbiyaz...

Nere biziko lorategiyan
itzali da... udaberriya.
Gaba da: illunaz, urretxindorrak
dabez azken-abestiya...

Agur betiko, nik maite-izana...
Bemozu Jauna'k zoriya!
Espafiak «Maiteizane» deritzu,
biyotzak, baño..., Maitia...!

Zarautz'ar Sabin

AZTU, BIYOTZ ORREK!..

Biyotz, oroi zar batek ago naigabetuta,
eztiz ta beazunez nastutako oroia...
Maitetasun etsi bat bere gezi zorrotza
eugan sarturik ziok, biyotz maitagarriya...

Oroikun zar eztiyok zauri senda-gabiak
ditut, ta i aiz, biyotza, zauridun zorua...
I aiz bere zauriyak azkazalaz urratzen
atsegiñik uste -dun gaxua lakua.

Bizitz-bide-ertzan lore bigun bat arki-uban...
lorau ezin, ordia, ebaki izan-uban!...
Arrezkero, negarka, sarriyegi begiyak
biyur-dituk, loria berrikusi-naiyan!...

Bizitz-bidian, baño, eztagikek atzerantz...
Lore guri-maitia eten eztezakek!...
Arren, biyotz, bidian atzerantz ez begiztu,
biderik zori-onez ibilli nai ba-dek!...

Autsi, biyotz, kemenez, lotzen auan estuntza,
lore bai arantzeko estuntza zail ori!...
Indargeturik aukan oroi samiña aztu zak!...
Egaziya aiz: egaka, goyan galdu adi!...

Entzun: bai-dek iretzat beste maitagarririk,
ta beroni zor-diyok eure su guziya...
Aberriya!... Berak dun maitetasun-yorana
ta alperrik dariyoken odol-egarriya!!!

19-Epailla - 15g.

GASTIAREN OTOITZA

Jauna, nere otoitzak,
arren, entzun itzazu...
Gogo neketubari
eman, arren, gentza...
Osertz-illuna autsita
gaban izar bat jarri...
Eguzki-izpiz argitu
nere etorkizuna!

Ongi nekiyen, Jauna,
umetan ikasita,
zuk dezula bakarrik
pozkidaren giltza:
Iñoiz aztuta ibilli
ba-naiz, azketsi, Jauna;
gaur bai-nator, eztiya
billatzen Zu'gana...

Zaurituta, gaxorik,
gasterik nekatuta,
listor -eztiz aseta
samifiez gogua,
zeure eztiya nai-det,
ezti goitar-gozua,
ludiko loriena
ez bezelakua...

Nere udaberriyaren
egunik gozuenak
ega zaizkit, usteta
betiko nitula...
Eta, ametsak etenda,
zimelduta loriak,
arkitu det gogua
goizegi zartuta...

Bizitzako bidia
arantzekua dala
igertzen asten geran
bide unian nago...
Atzian..., lore etenak
estalita bidia;
Aurrez..., goya beltzago
negu-gaba baño...

Ta illunpian ^nora da
bidiaren txurizka?...
Arren, zein da ta, Jauna
nun *nere bidial*...
Osertz-illuna autsita
gaban izar bat jarri
zazu... Ta, arren, argitu
nere etorkizuna!...

Zarautz'ar Sabin

AMONA

Amonatxo bat bakarra daukat
iñoiz ez lukena il biar...
itzaltzen, baña, bai-dakust eta
barrenak dagidat negar...

Antzin-Orain-arteko zubiya,
ai, zenbatzutan zu-bidez
egun urrunen, egun obien
usaiya aitu dek, yoranez!

Orri oridun idazti zarra
zera, ta zugan billobak
ai, zenbait ipui billatu ditun
eztitasunez betiak!

jAu neke latza! ^Zergatik-ete
biyotzak dagidak negar?
^Amonatxo bat bakarra daukat...,
ene! jtaberak... il biar!...

Zarautz'ar Sabin

GAIZTUEN ITZALA

Eguzkiyaren
 goriyari igestiarren
 baso-basuan
 bidazti ona bein baten
 babespetu zan.
 Zetzala, txori bat duar,
 adarrik-adar,
 ixil-urduri
 kabira-yoranez, noski,
 arra bai'takar...

— «Ez gaitzik uste...»
 (legun diyotsa
 gizonak errukituta)
 «Uake, maite
 kabira, bildurrikabe»
 — «^Nun dan ikasi
 ta gero lapurtutzeko...?»
 — «jEzetz, ba, txori!...»
 — «Ua, ba, ta urrun, nik ori
 ziñistatzeko...»

Gizonak, zutitzen zala,
 leundo diyó:

— *Baten gaitzia
 edonun aski, galtzeko
 eunen izena!...»*

Zarautz'ar Sabin

Eusko-Deya-ren 78garren zenbakian berean zetozten Lizardiren olerki bat (*izar-kitako suba*) eta Mendilautaren lantxoia (*Ixildu da txori abeslariya*, Zarautz'ar Sabiñi zuzendua. *Idazkiya* da Sabinen erantzuna. Emen eta *Oia* izaneko olerkian olerkariak bere olermenaren alderdi berri bat erakutsi digu: umore oneko alderdi jostari bizia.

IDAZKIYA

«MENDI-LAUTARI»
Zarautz'en

Ai «Mendi-Lauta»
 aizkide ona
 ta adar jotzalle
 bikaña...
 Bai-nitxekiyan
 asto nitzala:
 txori nitzanik
 ez baña...!

Ta uste orretan
 bizi-izan-arren
 eniyan poza
 makala,
 gogoratzian
 astuak ere
 zerbaiterako
 dirala...

Gaur, bat-batian,
 ille zakartzat
 nitxeuzkan luma
 bigunak
 arropuztuta
 jarri zizkidak
 ire zuritze
 legunak.

Baiña, gauz batek,
 Txomin neria,
 gustiz samindu
 natxiok...
Alkondara-utsik
 leyoratzia,
 Txomin, egoki
 etxiok!...

Su-kanpayarren
 ba'litz e... tira!...
 eztiyat ezer
 esaten...
 Bañan asto bat
 ari dalako
 entzun-aldi bat
 ematen?...

Alde batetik,
 aize gaiztua...
 Bestetik, aujaz...
 jause bai...!
 atso goiztarrik
 auzuan ba-dek
 berritsukeri-
 -gairik-zai...

Ez, Txomin txiki...
 Alkondara utza
 gustizko jantzi
 motza dek
 ta i bezelako
 zaldun benari...
 etzegokiyok
 orrettek!

Zer?... Txorkatillak
 ukutzeraño
 bai-dala ire oi-
 -atorra?...

Ortaz, Pilipa'k
 berriz e, jaitan,
 erreko al-dik
 txokorra!

Baiña, jolasak
 alde batera,
 ezin derraiketik
 onela...
 Ala ik oitura
 txar ori laga...,
 ala ni ixildu
 bestela!...

Zergatik nagon
 galdetzen didak
 ain luzaruan
 ixillik...
 nere lagunoi
 adirazteka
 bizirik naizen
 ala illik?

Txoriya ba'nitz
 esango nitek
 kayolpetuta
 nagola,
 lanaren neke
 nagigarria
 dalarik nere
 kayola...

Ta kayolpeko
 txori lotubak
 eztik abesten
 egundo
 azkiak ainbat
 sarritan... ezta
 basuan bezin
 bigundo!

Txoria ba'nitz
 esango nitek
 zelai kutun bat
 neukala,
 ta antxe bakarrik
 abestutziak
 pozik ematen
 zidala...

Bein, ekaitz batek,
 ego-ekaitzak,
 zelai orixe
 jo zian,
 ta ango txoriyak
 igesi ziyen
 urrun, egada
 biziyan...

Bañan, zelayan
 aize zakarrak
 baretu diran
 garayan,
 berriz txoriyok
 pozaren-pozez
 batzartu dituk
 zelayan...

Esan-biarrik
 eztiyat, noski,
 nungo zelaya
 dan ori...
 EUSKO-DEYA dek.
 Naiko bidertan
 izan aiz bertan
 eori...

Agur... Bai-niak,
 onenbestez ba
 jardun al-diyat
 naikua...
 Ta nere otsik
 entzutiarren,
 ez geio iriki
 leyua.

Zarautz'ar Sabin

Eta onenbestez, gaurkoz aski bedi. Gaiñerako olerkiak, J.L., urrengo zenbakietan aterako ditugu. KARMEL onen irakurleek pozik irakurriko dituztelakoan gaude, Lizardiren euskal-lana obeki ezagutzearren.

L. Akesolo

II

KARMEL aldizkari onen aurreko zenbakian atera genituen Lizardik bere gaztetan Bilboko EUZKO-DEYA aldizkarian argitaratu zituen zortzi olerki. Guztitara emezortzi olerki argitaratu zituen olerkari ospetsuak aldizkari artan. Olerkigintzan Zarauzko seme argiak emandako lenengo emaitzak dira, gaur gutxi ezagutuak ala

* *Lizardi zanaren beste lau olerki*, Karmel 1987-2, 25-32.

ere. Gaur beste lau geiago dakazkigu gure aldizkari onen orrietara. Lauron artean dator Lizardizale guztiak ezaguna dutena, OIA-ri egindakoa. Ez genduen emen ateratzeko asmorik, baiña olerki orrek izan zuen leenengo idazkera ezagutu nai dutenentzat emen ezagueraztea erabaki dugu.

Irakurleak ikusi dezakenez, era askotako bertsoak egiten zituen bere gaztaroan ere: liriko, irrizko, ipuiezko eta abar. Bertso-neurriz ere, naiko ugaria agertzen zaigu.

OIA izendunaz gaiñera, emen dituzu, irakurle, *Maiteder* (ipuiezkoa, aselea). *Euzko Mendiya* (liriko abertzalea), eta Aste Santuko otoiz laburra, kristau siñismenak eta aberri-miñak eragiña.

L. Akesolo

EUZKO-MENDIYA

Len arranuak bizi ziraden
Zure arkaitz gogor-artetan,
Gau eta egunez, begi zoliaz,
Euzko-Aberriya-zainketan...

Arrotz-gudozte-burni-diztira
Urrun-ibarran sortzian,
Euzkel-erriko gaztigu-deya
Arrano-oyuba oi omen-zan.

Ta agure, gaste, eme ta ume,
Ots ori entzunik, batian,
Zure arkaitzetan, Aberriyarren,
Garai-eziñak ei-ziran...!

Gaur, zure aitzetan, arrano-oyubak
Ixildu ziran osoro...
Bele zitalak, zure gain-jabe,
Ega ta krazka dagi arro...

Berdin arrotzak, bele-iduriyan,
Gure gain dabiltz txit-ernai,
Euzkel-erriya ilotz ustela
Noiz biurtuko danik zai!

Euzko-belarriyak gortu dira...
Mendi-arranua aldendu zan...
Banakaturik gabiltz euzkuak,
Batuta egon-biarrian...!

Mendi-ixurkiko errekatxuak
 Tamal orren berri eztaki;
 Ta, lore-janzkiz, jayo-berriya,
 Berontz dijua, lasterki...

Mendi-garaiko zuaizpe-gerizak
 Estalzen duen iturri bat,
 Euzkera garbiz abes-dagiña,
 Du errekatxuak amatzat...

Ta, ala duala, lorai musuka,
 Emen igeska ta or jolasti,
 Amagandikan ikasitako
 Euzko-ots gozuak dabezki...

Baño, bat-batez, zelaira elduta,
 Bertan lotu da, geldurik,
 Berak ulertzen ez ditun itzak
 Euzko-ezpañetan entzunik...

— «Ai!..., al ba'nuke ezina dana.
 Gorantz igesi al ba'nuke...!
 Nere ur garbiyak al ba-nituke
 Maite-iturriyan berriz gorde...!»

Ta, orixe esanda, goiko lañuaz
 Bere ur argiya geriztu du...
 Ta, ixil-ixilik, ikaraz dua,
 Zorion-oroyaz negartsu...

Uritik ziar sartu da gero,
 Ortik loituta aldendu da...
 Ta atsedeen-guraz, azkenik, dario
 Itxasuan bere malkotza.

Itxasuak, berriz, uintzar aztunaz,
 Zigorka diardu, izugarki,
 Asabeakaz aitzuta dagon
 Erri errukigarriyari...

Euzko-mendiyan, ori ikusita,
 Olerkariyak negar-dagi...
 Baño, bat-batez, biyotz-ikaraz,
 Jeiki da, arrano-otsa entzunik!

— Euzkadi dezu zure Aberriya:
 Ezna zaite ba, Euzkel-erri...
 Ta elkaturikan, igaz bezala
 Ekin zayozu arrotzari!

Zutik mendiyen, ero-poz-garraz
 Olerkariyak be ots-egin du!...
 Oyartzun-otsak, gain gustiyetan,
 Erantzun diyo, argi-sutsu...

Ta, beko ibarra begiyaz jorik,
 Orko zarata ulertzen du...
 Lotan zegoen Euzkel-erriyak
 Bere logurea astindu du!

ONGI APALDU-ONDOKO **BERRIKETAK**

OIA

Neke-sendalariya,
buru-argitzallia,
lanaren sariya...
Amestegi guriya
naigabien azkaya,
nagiya nausiya...

Bitez agur neriak
—apalonduo beintzat—
guziyak zureztat;
ta aitagure bat ere
bijua, zu sumatu
zindubanarentzat.

Baño..., lasaitu nadin
orain, aitagureka
abitu baño len,
jaun zintzo orren baimenaz,
erruz datorkizkidan
neurtitzok esaten...

Apaldu det oparo...
Betazalak, arrenka,
eskatzen zaudate...
Aurrian, zu, zabalik,
elurra ainbat zuriya,
begiyak zakuste!...

Sartu ditzadan, lenen,
estalkiyok, aspitik,
dagokiyen neurritz,
oiñik erten eztaidan
gaberdiyan, oi-dunez,
lotsagabekeriz.

Apalatxo!... Bijua
oñetakuak gora,
abia jo-arte!...
Nere pozaren berri
auzo goi ta bekuak
ikasi bezate!...

Txamarra kendu: bota
galtzak ere: ez atsedan!...
Orrenbeste neke!...
Burutsubago ziran,
ziñez, gure guraso
Adan eta Ebe...

Noizpait...! Gerturik nago...!
Aitaren egin-eta
jo dezadan murgil...
Bat, bi, iru, lau... jaguro!
negu-gabaren otzak
ez nazan bertan il!...

Barrenen naiz ba, jaunak,
maindire leun-artian
bilduta, buru-oin...
Sartzerako otzikarau,
baño, bigundu-arte,
arren, pixkat itxoin.

Oraintxe ba, muturra
zerbait atera daiket,
berriketa-jarra!...
Zu goraltzen, oe ori,
logurak autsi-arte
eztet ixildu-nai...!

A nolako kertenak
gabaz kalerik-kale
ibiltzen diranak...!
Arkiko al-dituzte
jostorratzez josirik
iñoiz beren oiak...!

Atan aizia dabil
aserre... Noski!... Berak
oirik ezpaitauka!...
Leyuan txingor-otsa
da neri lua, nunbait,
galerazi-bila...

Lan gaitza, gaitzik ba-da!
Atako giro txarra
lotatako onena...;
seaska utzi genduban
aur polit-azitxuon
«Lo-Lo» biguñena...

Biyar?... Gogapen txarrok
urrun!... Egun banari
gau bat darraikiyo,
egiñaz atsartzeko,
ez eginkizunarren
kezkatzeko, baño...

Ta..., irakurle maitia,
laburrerako oraintxe
berriketan nazu...
Begiyaq itxi zaizkit...
burutzarrau moteldu...
asnasa bakandu...

Gauzok orla dirala
utzi dezaket Aita-
-guria biyarko...
Atan, euriya..., otza...
aize-zotin luziak...
Agur... Da... gi... dan looo.

...Ames-dagit, oyanan
il naula, irriparriaz,
maitagarri batek...;
ta, illetia, gozaro,
abesten didatela
berreun-milla lorek...

...Ames dagit nautela
tximirritak eortzi
abaraska baten;...
ta, illobiya, lasairo
ta ixilka, ari naizela.
parra-parra jaten...

...Ames. Baña ^Zer dantzut?
irakurle gustiyok
zurrungaka lorik!...
Nere neurritzok orrein
lo-erazle bizkorrak
uste ez nun ziranik.

Beraz, gabon, mutillak...
Baño...! j...nere burubau
ezin lei burutu!...
Oe-sumatzalliaren
aldez agindutako
Aitaguria aztu!...

Gizajo ori, ordia,
otzan, onutsa, noski,
zanez, goyan dago...
nere Aitagurien
biarrik, beraz, eztu,
agiyan, izango...

Zarautz'ar Sabin

MAITEDER**ASELIA**

Maiteder,
 Maiteder...!
 A zan eguzkiya!
 A zan ederrenetan ederra!
 Izar nagusiya...
 Iñularraz aurrena agertzen dana lakua...!

Etziñan,
 Maiteder,
 Euzko-neskatillik
 eder-bakalduntza lapurtuko!
 Euzkadi'ko izanik
 ederrena, berriz, bai-intzanan ludi guziko...

Etziñan,
 Aitzarre'k
 Lotazilla'n biltzen
 ire arpegiyaren elurra...
 Eztin erakusten
 eguzkiyak, goizian, ire illien urria...

Ortziak
 bekaitzik
 izan al-ba'liken,
 etziñan bere urdiña agertuko,
 ez aitortziarren
 ire begiyena zala gustiz ederrago...

Oyanan
 txoriyen
 txiru-lira baño
 ire marrubizko ezpañetan
 zoragarriyago
 euzkerazko mintzaketa bigunak itunan...

Auxe zan
 Maiteder,
 Iñoiz, irakurle,
 Aitzarre-mendiyan bidekari,
 ekaitzaren menbe
 arki ba-dek ire buruba, auzotik urruti:

ta ikazkin-
-txabolan,
(zato mardulari,
azaleko buztiya aztu-nayan,
zurrut bat... ala bi
kenduta) abitu ba-atzayok ari berriketan,

naparren
izkera
garden eresdunaz,
Maiteder'en asele mingatza
entzunik aiz, aujaz,
atako euri-ots naigabetsubaz nastuta...

Maiteder
bizi zan
antzin-antziñian
gutziz zoriyontsuba zalarik,
bere biyotzian
ezpai-zeukan Maiteder'ek maitasun-kezkarik.

Beñola
mutil bi,
Urden eta Garden,
egun bai ama bateko señaik,
neska zerdenaren
ederrak biyurtu zitun bere maitaliak...

Anayok
alkarri
ixildu ziyoten
biyotzeko berri, maitasunez...
Neskak bai-zekiyen...
jEmekirik sortarazi dun suba igerri ez...!

Maitasun-
-zalantza!...
Maitakari biyak
berdinian ziran maitagarri...
Ezin ba, biyotzak
maitasun-auziyau zuzenbidez erabaki...

«Berama
zoriyak...!»
Ta aitz goren batetik
zabalari buruba damayo,
oyubau jaurtirik:
«Artuko nabanak izango nau beretzako!»

Besuak
zabalik,
maitale bizkiyak
basauntzaren ariñak daramaz...
Une lazkarriyak!
Zeñek eutsiko-ote erorki kutuna, laztanaz...?

Maiteder
Aize zabalian
ujauzi biyur da. Bizkiyak aitz
aitz nagusipian...!
Maitetasun-azken gorri...! Zori errukigaitz!

Betiko
negarka
dirau Maiteder'ek...
Bidazkari, bere zillarrezko
negarra ikusi dek,
erruz jariyoten bizkiyai mun-egiteko...?

Ta anayok,
(maiteki,
goldiyo biyurtu
zitzayoten amak laztanduta)
urrundik begiztu
dituk, maitiaren negarra artzen asetzeka...?

Besuak
zabalik,
belaunikatuta,
dirauz beti; ta artzayak diyote
oraindik dutela
maiterik Maiteder, alkar gorrotatugabe.

Zarautz'ar Sabin

OTOITZA

Gurutzian
zakusagu
Jauna, geronek ilda...
gure eskubak
irain dute
Goiku' aren Semia!...
Garbi gera:
Betorkigu,
Jauna, zure laztana...
alperrik il
etziñan-ta
Besuak zabalita!...
Ta gerekin
aberri au,
gure Euzkadi kutuna,
zai-zazu gaur,
jun gaitian
biyar Goi-Aberrira!...

Zarautz'ar Sabin

III *

Urte ontako leen-zenbakian asi zan KARMEL Lizardik bere gaztetan argitara emandako leen-olerkiak ateratzen. Igo zenbakian atera ziran zortzi olerki; bigarre-nean, 4; eta orain emen dijoaz bost azkenak. Guztitara amazpi egiten dute. Orrela, *Jaun errukitsuoi* Lizardi-ren olerki-ren olerki-bildumatan argitaratua izanik emen argitara gabe gelditu dan ezkerero, olerkariak EUZKO-DEYA-n argitaratuak 18 dira.

Lizardik (J.M. Agirre zanak) Bilboko Euzkaltzale-Bazkunak atera zuen aldizkari orretan kaleratu zituen bere lenengo euskal-lanak, bertsozkoak eta itz-lauzkoak. Eta ez-izen bi erabilli zituen: Samaiko Zulo eta Zarautzar Sabin. Lenengo olerkia eta lenengo lana aldizkari orren 28garren zenbakian eman zuena du: *Nere lenengo maite-ibilketeta*, orain emen irakurleak ikusiko duen lenengoa, ain zuzen.

Maite-olerkiak dira beste iru: *Maitasunaren illetea*, *Igesi* eta *Izarkitako sua*. Bigarrena, EUZKERA izenduna, Poema luzeago baten zatia, ain zuzen, sarrera dala agiri da. Aldizkariaren 78garren zenbakian dator, azpian jarraitzeko oarra duela. Baiña ez zuen jarraitzerik izan.

* *Lizardi-ren gaztetako olerkiak (Azkena)*, Karmel 1987-4, 57-64.

Lizardik euskal-bertsogintzan lasai samar jokatzen du. Puntuen zeatzasanari ez dio asko begirutzen. Bertsoen neurriari ere ez. *Igesi* izeneko olerkian zortziko nau-siaren neurria darabil. *Nere lenengo maite-ibilketan*, 5-5-5-5- neurria; *Izarkitako suan*, 4 4 4-6koa; *Euzkera* izenekoan, 7-7, 7-6, 7-7-, 7-6-koa, eta *Maitasunaren illetean*, neurri zeatzik ez zaio ikusten.

EUZKO-DEYA eskuratzeko aukerarik ez duenarentzat olerkiok ezagutzeko erea jarri nai izan dio gure aldizkari onek.

L. Akesolo

NERE LENENGO MAITE-IBILKETA

;Ura aro alaya	Jaramon-ezik,
Ta ajolikabe	Darrait aurrera,
Amabost urte	Jakiz beteta
Nitun garaya!	Mayen artetik;
Gizondu guraz,	Ur gozua emen..
Bururatu zat	An erroskillaa...
Andregaitxo bat	Ni, ordia, ben-ben.
Billatutia.	Andregai-billa!
Uritik bertan	Arkituko ez nun
Oi-zan, urteko,	Etsi-zoriyan,
Erromeri bat	Neska bat dakust
Ezin alaigo...	Zuaitz-itzalpian...
Juan naiz, bada, apain,	Gelditu nintzan
Ta ernai begiya,	Eta aztertu nun:
Edozein neska	Matrail gorridun
Zoratzeko lain.	Neska ederra zan...
Alako pozkun	Ura aukerako
Osagarririk!...	Emaztia nitzat...!
Baño nik bai-nun,	^Beste alako bat
Bai, zer-egiñik!	Al nun idoro?...!
Lagun-dei-otsa.	Nere biyotzan
Nun-naitik dantzut:	(Bat-batez, noski)
Batzubek: «jagur!»	Su-gar bat, ezti,
Bestek: «^nora ua?»	Piztu zitzaidan.

Mingaña ikaraz
Ta arpegiyan lotsa,
Geldi, geldizka,
Urreratu naz.

— «Matrail gorridun
Neska motz ori:
Nere autik entzun
Itz laburtxo bi».
— «A zein loretxo
Bota didazun...!
Lotsarik ez dun
Murtil-koskortxo...!»
— «Zelai-lilitxo
Lirain apaña...
Gotzon-antzedun
Maitgarriya...!»

— «Beraz, nerekin,
Dantzara zatoz?...»

— Auxe den mutil
Parregarriya...!»
— «Estutxo nabil
Andregai-billa...»
— «Ez ba, larritu,
Maitati ori, arren;
Billa bai-dezu
Andregaya emen:
Algara zegin
Ori esatian;
Ni pozez, bañan,
Negon, ta atsegin.

— «Izerdiz zagoz,
Pizka bat itxoin...»

Ta parre zegin
Nere mintzatzez...,
Ta, noizian-bein,
Zai ba'lego lez,

Atzeko aldera
Begiratzen zun.

— «Urrezko illedun
zoragarriya,
Nere loretxo,
Nere kuttuna...!
— (jAuxen da lana!
Ez-ote etorriko?...»)

— «Entzun, bada entzun,
Nere bildotsa...»
— «Ederki ai zera:
Jardun, bai, jardun»
— «Tuntuna asi da:
Dantzara guazen...»

Ta, alako baten,
Urruti-antzian:
— «Mantoni, atoz ia,
Dantza gaitezen,
Tuntun-jo-aldiya
Buka baño len!...»

Begiratu zun
 Deya dantzunantz,
 Ta esan dit: «Agur!
 Dantzatzer a nua»
 — «^Nor da ori baño?
 (Galde diyot nik)
 — «Nor neu-bijotzeko
 Jabia baizik!
 Dantzaz nekatu
 Ta egarri izan da:
 Juan danian, zu
 Azaldu zera».
 «Ta ain benaz esan...
 Gezurti alen bai!
 Zugan andregai
 Billa-nubela?...»

— «Ori bai, noski!
Zeuria ez, baño;
 Mutiltzar sendo
 Orrena baizik...!
 Agur ba, gaste,
 Ta esker ugari...»
 — «Iñakaz neri?
 Etzaitut maite!!!»
 Ta algara zegin
 Ori entzutian
 Ta arin baño arin
 Juan ziran dantzan!...
 Ona emen, bada,
 Nere lenengo
 Zorigabeko
 Maite-ibilketa.

Samaiko-Zulo

MAITASUNAREN ILLETEA

Maitetasun gaxua
 Iñoiz nik neskatxa bati
 eskeñitako bakarra...!
 Jayo-berriyari
 amaren bularra;
 bidekatubari,
 nekez iltzer zala aurkitutako
 abaraska bera baño
 gozuago izan ziñidan ametsa...
 II ziñan, gaxua!
 II, bai... Baño illotza
 —obitzat biyotza—
 nigan dirau oraindik,
 lurrintsu-ustelgaitza...
 Nere maitetasun-illotz gaxua...
 Iñoiz-bein oroikun maitetsu baten indarrak,
 —noizpait Josu'ren deyak bezela-
 obi-arriya jaso oi-dik...
 Ordun dariyok ik,
 bularraren zabalian, atson zoragarriya...!
 Ordun ikusten aut nere maitasun-illotza,
 garbi eder ustelgaitza...!
 Betiko orrela ba'nego,
 ene-enetxuba...!
 Ezpa'liz iñoiz obiya itxiko...!

Bart, maite-izan nubena
det, ametsetan, ikusi...
ta amets onek obi-arriya
jaso dit...

Geldi! geldi!, neure burubau!
eztedin geyago jausi!,
ildako maitasunaren oroyaz
obe bai-deritzot buruboni...!

Betiko orrela ba'nego,
ene-enetxuba...!
Ezpa'litz iñoiz obiya itxiko...!

Aguro, ordia,
jausiko da arriya, ta illun itunak,
egunoroko illunak,
nigan bere ego itzalgorrak zabalduko ditu...

Nere maitetasun-ilotz gaxua...;
al-ba'induket nik berbiztu!!

Zarautz'ar Sabin

IZARKITAKO' SUBA

Neskatxa bat
maite nuban,
ederrago
Orril-goiza baño...
Maite nuban...
Berak... jiñoiz!
bai-nun uste
ote-nindun maite!...
Ala uste nun...
Bai-ziteken
egiya izan...
Bai-ziteken..., bañan!
Ezpai-geziz
biyotza bein
arkitu nun
odolez, zauridun...

Ezpai-geziz...
Uste-izan nun
ez nindula
maite, len bezela!..
Ez nindula
maite!... Jauna...
Zuri ordun
maitasun au nizun
eskeñi... Bai...
Ongi naroi...
Itz abekaz,
negarrez ta gabaz:
— Arren ito
biyotzian,
maite ezpa-nau,
maitetasun-gar au!.

(1) Izarki = suba autsez estali. Auspeko sua.

Zenbait bider
berbiztu zait
maite-gar a
itotzat neukala!...
Zenbait bider!...
Biyotzaren
oroimena...
i besteko zalla!...
Ai, oroipen
deunatzai lez
mun goguak
ein oi-dizutenak!...

Auts otz-pian,
igertzeka,
bai-ziraudan
txingarrak, bularran...
Ta, maiz, zubek,
oroipenok.
autsa astintzen
aurkitu zinduzten...
Ta, inoiz, iltzat
jo nun subak,
ustegabe,
berriz nindun erre...!

Zarautz'ar Sabin

EUZKERA

Sarkundia

Gizatza jayotako gabaren goiz-aldian,
ames-itxaso-ziar egazti zuriyan,
soinge nabaitu nuban burubau, jakin-ezik
nundik ertena nintzan, ez nora niñuan.

Egun-urratziaren argiskak ikututa,
noizpait igerrri nuban urmnen legorra;
ta, arrigarri-susmuak bultzata, aruntz zuzendu
nuban ames-itxasoko ontzi zorakorra...

Izan ere lur aren itzalak, goitik bera,
zillar-une garbi bat, argiz, zerakustan,
bat-batez sutu zana, diztir lillurakorraz,
aurrez-aurre eguzkiyak muga autsi zunian.

^Zer zan?... ^Aujaz, urrungo atsegindegi baten
emeder-soinbiango aintzindariya: ala
Sarkaldetik arrorik eguzki Sorkaldarra
goitu-leyaz zetorren eguzki berriya?

^Ez ote-zan, agiyaz, nik nekusen unia
Urtzi'ren begizkuna zetzan lur-unia:
ala burestunetik eten zitziakiyoken
izarrik sortutako tximist egokorra?

^Zerek zelai urdiñan itxasoxti gaxua
maite-begi-argiyak ainbat zeraroran?...
Itxon... Nere ontziyak, nere egazti zuriya,
yoran esigaitzaren lasterrak zeraman...

Zarautz'ar Sabin

IGESI(2)

Beñola, uxo bat, nere amesen
goi urdiñetik jetxita,
otzan-otzanik geldi zitzaidan
zabaldu niyon eskuban.

jAren ederra...! Biyotz-biyotzez
maite izan nuben bertatik...
•|Ai, nere pozaren poza berak
izan ba'nindu maite ni...!

Baña, bat-batez, atsedenduta,
zabaldu zitun eguak,
eta amesezko zabalaz-ziar
arin ostendu zitzaidan...

Nere amesen urtza, arrezkero,
urdingetuta goibel da,
ta nerau beti geldi-geldirik
urtza-mugari begira...

jUxo txuriya!... Berriz atorkit,
arren ames-goya urratzen...!
jAi, lur aztun au ezin-utziya...!
;Ai, ba'neki nik egatzen...!

Zarautz'ar Sabin.

IV

KONDAIRA ETA BIOGRAFI-ARTIKULU ETA OARRAK

KRISTIÑAU-IKASBIDE-EGUNAZORNOTZA'N*

Ementxe KARMENGO ARGIA'ren orriotan iragarrita egoan lez, joan dan illean zazpian Kristiñau Ikasbide-Eguna egin zan Zornotza-uri onetan. Jai andi, begiko ta atsegiña bera.

Bederatziak inguruan eldu ziran azterketara etozan umeak, euren irakasle ta abade jaunak buru ebezala. Gustiz 1.500 ume inguru, eta euren joan-etorri eta poz otsakaz Zornotza uri eder onetan alaitasuna ta bizia zabaldu eben. Erriko eleiza nausira zuzendu ziran lenengo-lenengo, antxe eleizkizun andi ta eder bat ospatzeko. Amarretan zan eleizkizun ori, eta ordu orretan Zornotzako eleiza zabal eta nasaia betebeterik agertzen jakun, kanpotik etorriko umez batez be. Umeok eurok ziran abeslari; goitik, korutik Mungikoak, eta betik beste ume guziak erantzun. «Cum jubilo» mezea gozaro ta eztiitsu entzunazo euskuen. Gisasola jaunak, oraintsu abade egin dan Zea-nuri'ko seme gazte-argiak izan eban itzaldia, sutsu ta egoki-egokia bera.

Eleizkizuna amaituta gero, Karmeldarrok uri onetan dogun Ikastetxera kaleak betean abiau zan ume-pillo guztia. Emen ziran azterketak, sariak irabazteko. Ikastetxeko pelotalekuan guztien aurrean, taldeka, erri bakotxeko umeak talde bana egiten ebela, itanduten eutsen; eta bai ume areik egoki erantzun eta erantzunak argiago azaldu be! Euren irakasle ta abade jaunak ondo be ondo gertauta ekarri ebezan, eta euren erantzun zeatz eta egokiakaz, eta azalpen sakonakaz arrituta itxi ebezan entzule guztiak bein bafio sarriago. Eurak eta euren irakasleak, ain ederto gertau ta irakatsi eutsenak, zelan egoki litzaken lez goratu?

Arratsaldeko iruretan asten zan sari-banatzeko aurreko jaialdia. Lenengo, agurtza. Urrengo, umeen itzaldi, alkar izketa eta abar. An giñanon aurrez-aurre jarrita, kristiñau-ikasbideak zer erakusten dauskun, gizonai ta erriei zer onura ekarten dautsen

* Karmengo Argia 5 (1935) 184-186; *Axmutil* izenpean, ik. 17. orr.

eta abar ederto eta izlari edo predikadore trebeen ganoraz azaldu euskuen. Abestiak be ba-zirean, Bolibar eta Abadiñoakoak abestuta. Ordu bi inguruan ez-titan euki ginduezan euren itzaldi, abesti ta enparauak adi-adi entzuten. Onen urrengo, Zornotza bertoko gorulari ta ezpatadantzari batzuk agertu ziran, txistu ta guzti, ta guztien atsegiñez dantzaldi luze ta politak egin ebezan an batu ziran umetxoen omenez.

Noz edo noz eldu zan sarien ordua be, umeak ain irrisu ikusi gura ebena. Guztientzat egon zan zer-edo-zer, baña iñor be bape barik gelditu ezpazan be, Abadiño, Meñaka ta Bolibar'koak izan ziran zoriontsuenak; bakotxak eun bana peseta.

Guztia amaitzeko, Manterola jaunak, «Jaungoiko-Zale» bazkunako lendakari argiak egin eban itz. Bazkunaren izenean jaia ospatzeko lagundu ta sorosi eben guztiai eskerrak emonda, (karmeldarrentzat be esker-itzak izan ziran) euren asmo ta gogoak azaldu ta ango abade jaunai euren egikizunean jarraitu ta Eleizearen alde eta euskeldun umeen alde irme ta zintzo egiteko itz beroak zuzendu eutsezan. Beste gauza askoren artean, datorren urtean, gotzai (obispo) jauna be lagun dabela, beste jai andiago bat ospatzeko asmoa dabela entzun geuntson.

iEderto! «Jaungoiko-Zale»kook langille-eredu bikañak doguz. Eta lan orren zituak, lan orren frutu batzuk Garilla'ren zazpian ikusi genduzan. Eta batzuk lan orreri jaramon andirik egiten ezpadautse be, beste batzuk Jaungoikoz ardura apur bat artu ta jarraibide ori eurentzat artu dabela ba-dakigu. Gipuzkoan be Bazkun onen antzeko bat sortzeko asmoz dabilzan abade argi ta zintzo batzuk Donosti'tik etorrita agurtu genduzan egun atantxe. Asmo ori al bait ariñen egitera eroango al dabe Eleizaren, Euskalerraren eta, batez be, euskeldun umetxoen onerako.

TERESA DEUNAREN ERIOTZA*

Eriotzea gauza lazgarrietan lazgarriena dala esan eban antxiñako jakitun batek. Izan be, buruari erruki larregi eta bizi oni zaletasun andia dautsoenai iltea gauzarik bildugarrienetarikoa jake. Baña deunai ez. Deunak eztabe euren zoriona lurreko atsegin pozgarriekaz bat egiten eta ezin dabe munduko ezertan onik eta pozik aurkitu. Jaungoikoa'rentzat egiñak dirala-ta; Jaungoikoa'ganatu arte eztabe iñon zorionik. Alakoxeak dira deunak eta alakoxea zan gure Ama Teresa deuna be.

Nork begiratu dautso eriotzeari beronek baño begi argiagoz? Nork opa izan dau iltea beronek baño joran biziagoz eta leiatsuagoz? Jaungoikoa'gaz bat egin gurezko maitasunez garretan eukan biotza. Txiki-txikitan, zazpi urte zituala, moro-errira joan gura izan eban, eta etxetik urten be egin zan, zerura betiko joateko, antxe moroak il egien. Jaungoikoa'ganako leia ori geroago ta biziago, bizia luzetuago ta miñagoa egiten jakon. Luze-erexita bizi zan bizitza oni. Bizi au laburra dala diñoe or, esaten eutsan Jauna'ri. Laburra da, bai, amairik eztaukan bizia beronegaz irabazteko; baño luzea bai luzea zure aurrean egon gurez miñetan dagozanentzako. Miñ onek olerkari be egin eban. Jaungoiko-miña, lur au itxi-gurea nork abestu dau berak baño gartsuago ta miñago?

Au biziaren luzea,
erbeste onen gogorra,
espetxe ontan, kateakaz lez,
esturik egon-bearra!
Noz ilgo nazan begira
nire oñaze gorria!
Luze erexita, ez il-bearrak
kendu bear daust bizia.

* Karmengo Argia 5 (1935) 241-244; *Basabil* izenpean, ik. 82. orr.

Jaungoikoa'gana noz joango, ez ilteak il bear ebalat! Noz entzungo ete zituen Jauna'k bere maitale zintzo ta gartsuaren oyu samiñok?

Etorri jakon nozbaitakoan ordu ain bioztu ori. Irurogei ta zazpi urte zituen. Azkenengo lekaimetxea (komentua) Burgos'en amaituta, Alba de Tormes deritxon urira, bere alaba maiteen artera, oso nekaturik joan zan: bere azkenengo ibiltaldia. Azkenengo gatxak jota eldu zan. Orratio bere gatx ori ta bere miñ andiak aintzat artu barik, bein jagi ta bein oeratu, sendotxo-antzean zortzi egun egin zituen ondiño. Mikel deunaren egunez txarrago jarri zan. Urrengo egun batez eleizakoak eskatu zituen. Ta gure Jauna azkenengoz berari eroatean, aren poza ta zoriona! Une orixe noz etorriko, etzan bizi izan, ba, beti? Arpegia be argi-argitan jarri jakon, bape tximurrik barik. Indar barriak artu zituen, eta egun batzuk aurrerago zirkiñik egiteko etzana, oraingoan Jauna'ri abegi egiteko tente ta zut jarri zan. A zan poza Teresa'rena ta a bere betiko maiteari ain ezti ta maite-ixurizko itzak esan-bearra! «Ene Jaun eta Jaungoikoa —esaten eutsan—; eldu da ain biotzez leiatutako unea, zorionean biok alkar ikusteko ordu zorionekoa. Zorionez erbeste onetatik alde egiteko ordua etorri jat. Goazen, Jauna, Zeure aurrera, Zeu arpegiz-arpegi ikustera». Pozaren-pozez bein eta barriro gañerutzen eban: «Zorionez, Jauna, Eleiza Ama Deuna'ren alaba naz; Eleiza Ama'ren alaba ilten naz».

Iñoz bere arimea pekatu astunez loitu bako deun andi onek ez eban bere ainbeste ta ainbeste irabazi onetan bape itxaropenik ipinten. Pekataritzat autortzen eban burua, eta Jauna'ri biotzez parka eskaturik, ba-zirautson: «Zeure irabaziakaitik zerua izateko ustea dot, Jauna, zeure irabaziakaitik». Eta apaltasunik andienaz sarritan esaten zituen Dabid'en eresietatik artutako itzok: «Damuz dagoan biotza opari atsegiña jatzu, Jauna; biotz garbatu ta apala ez egizu bertan bera itxi. Enagizu Zure begietatik aldendu».

Lurreko gomutarik be ez eban nai. Alba'n bertan ala Avila'n bere gorpuari lurra emotea, zein gurago ete eban itandu eutson autorrentzuleak: Ordu aretan ori be itandu bear zeruan baño gogorik ez eukanari? Guztiz apalik eta mindurik erantzun eutson: «Neurerik zer daukot, ba, nik? Berton eztaustazue lur apur bat emongo?».

Il-aurreko gabaz, urrilaren irugarrenean, min anditan igaro eban gaualdi guztia, eta len aitaturiko otoitzak esaten etzan gelditu. Urrengo goxean, zazpiretan, gurutzea esku bien artean artuta, alde batera etzunda geratu zan. Argi-argitan eban arpegia, suzko garretan bai-leukan. Zer jazoten zan bere gogoaren barruan? Lurreko itzakaz azaldu ezin leiken zerbait, noski. Geroago Eleizeak zori ondunen artean ipiñi dauan lekaima batek, egun atan Jesukristo gure Jauna ikusten ei-eban milaka zerutarrez batera, Teresa zainduten. Beste batek zerutar-aldra andi bat ikusi ei-eban pozik eta algaraz Teresa'ren gelara etorten. Bizitzan Teresa'ri berari eriotz-orduan lagun egingo eutsela agindu eutsen amar mila martiriek ziran noski. Eta egin-egiñean be, zerutar orreik gela atara eltzean, gabeko bederatzirek inguruan, Teresa'ren gogoak zerura egan egin eban. Olantxe il zan gure Ama andi au, Pantzeska Deuna'ren egunez, urrilak lau egun zituala, 1582'garren urtean.

Bizitzan beti Jauna'ren maitasunez garretan bizi ta maitasuna orren indarrez il zan orrek gure biotzak maitasun beragaz sutuko al ditu!

AMA TERESA OTOIZLARIEN IRAKASLE*

Lareun urte dira Teresa Ama deunak bere lenengoko moja-etxea eregi ebanik ona. Agoztuaren 24'n izan zan, 1562'garren urtean. Egundoko amorrua sortu zan urrengo egunetan emakume aren asmoak eta etxetxoia ondatu bearrez. Bakea egin zanean, egun zoriontsuak etorri ziran Ama Teresa'rentzat; 1562'tik 1566'garrenerarteko urteak bere biziko zoríonekoentzat euki zituan berak beti be: urte zoriontsuak bere biotzarentzat, bere biziko amesa egi biurtu al izan ebalako, bere bizia, munduko istilluetatik urrin, Jaunari eskintzea; urte zorionekoak bere moja-txoentzat be, euren Ama ebenaren irakatsiak bake osoan jaso ta ikasi al izan zituelako.

Liburu onetan daukaguz gaur otoizlarien Ama ta Irakasle andi onek etxe aretan orduan emon zituan irakaspenak. Bere arimearen zuzendari batek agindurik egiña da liburu au. Euskaldun odolekoa zan zuzendari ori, ta bere burua naiñon euskaldun jatorrikotzat erakusten ebana: Aita Bañez Artazubiaga, Arrasate'tarra jatorriz; bere izenari «Mondragonensis» erasten eutson beti. Ama Teresa'k berak autortzen dauanez, ondasun andiak ixuri ei zituan Jaunak etxe aretako mojatxoeren gogo-biotzetan; baiña, batez be, goi-argizko aberastasun andiak eukazan ixurita Jaun orrek ango Ama nagusiaren gogoan. Argi areik etziran alperrik galtzekoak bere gogo-zuzendariaren eretxiz. Orregaitik, eta emakumeak emakumeai irakasteko gizeonezkoak baiño ego-kiagoak dirala-ta, Aita Artazubiaga orrek eta mojatxoak zirikatuturik, Ama Teresa'k lanari eldu eutson, bere egitekoak izten eutsezan astiorduetan lumeari eragiñaz. Orra liburu onen sortzea, 1563'garren urtean gitxi gorabera.

Gerora, birritan ezarri eutson eskua bere egilleak, aldaketa batzuk egiñez. Bi-garren eskualdikoa, Valladolid'en gordetan dana, emoten dogu emen euskeraz. «Ca-

* **In: Santa Teresa, *On-bidea* (Camino de perfección), Bilbao 1963, 27-38.**

mino de Perfección» ezarri eutson izena. Noizik bein «liburutxoa» ta «Aita Gurea» izenez be izentetan eban. Azkenengo izen au egoki etorkion, Jaunak berak irakatsiriko otoitz ori azalduetz arlo luzeak ditualako.

Ama Teresa'ren lumatik urteniko liburuetatik irakatsiz ederrenetarikoa ta ulerzteko errezenetarikoa dogu berau. Moja karmeldarrak, ostera, euren bizimodua ikas-teko esku liburu lez dabe.

Ikusi daiguzan bere guna ta sailak. Lau sail ditu: sarreratxo bat, asteko; otoitz-biderako bearrezko diran egiteko ta oiñarri batzuk dakaz, gero; otoitza zer ta zetarikoa dan adierazoten dausku, urrengo; eta, *Aita Gurect* azalduaz batera, otoitz-bideko gorabera, mailla ta beste jakingarri beiñenak emoten dauskuz, azkenez.

Sarrerako iru arlo edo kapituluetan bere komentuko mojakaz diardu; euren bizimoduaren elburu ta asmoak gogoratzen dautsez. Zetarako artu dabe bizimodu ori? Euren burua, beste ezetako ardura barik, Jainkoari eskintzeko. Zelan eta zeren bidez? Etenbako otoitaz, eta gaiñerako neke ta laztasunen bidez. Zer asmoz, eta zetara jotzeko? Jainkoaren adiskide miñ izan eta Eleiza Amaren alde euren egiñalak egiteko. Sua darie emen emakume gartsu onen itzai, bere alaben biotzak sutu gurez. Ez ei dituez lo egotekoak orduko egunak. Europa osoa sutan dago; Kristo'ren arerioak su ta gar diardue bere Eleizea puskatu bearrez, Kristo'ren artaldea deslai ipinten. Kristiñau izeneko asko arerioen artera igaro dira. Alemani'tik eta Frantzi'tik ba-etorren albiste negargarririk. Ikuskizun ain mingarrien aurean zer zan Teresa'ren ardurea, zer zan bere alabatxoen egitekoa? Jaunaren adiskideago izan, Aren borondatea alik zeatzen bete, euren moja-bizimoduko laztasunak gogo guztiaz artu. Kristiñak galduen kalteak zelanbait osatzeko, otoi ta otoi egin bear; asmo orretan, gorputzaren aukerak aitzurik, euren bizia oparitzat eskiñiko dabe. Orretara, Eleizearen laguntzaille izango dira. Emakume izanik, beste ezetarako gauza eypadira be, euren alegintxo egin barik eztira geldituko, eleizgizon eta prailleak, Eleizearen alde diarduenak, Jainkoaren egia zabaltzen frutu ugariagorik atera daien.

Kristo'renak izateko, siñiste osoa eskatzen dautse Ama Teresa'k Kristo'ren itz eta agintzetan. Beraganik itxaron bear dabe dana, geroaren ardura barik, zer janaren gomutea be gogotik kendurik. Orregaitik, errenta barik, etorri barik egin nai izan dau bere komentutxoa. «Jarri zeuon begiak zeuon Maiteari adi, ta Berak zuzenduko dautsue jana, biziteko bear dozuena», esango dautse bere alabai.

«Jainkoari adi bizi», labur esanda, ezta besterik Ama Teresa'k liburu onetan bere alabai irakatsi gura dautsena. Otoitzaren bidez lortu bearra dabe asmo ori; baiña otoitz utsa ezta guztia bide onetan; otoitzak berea dau oiñarri onen gaiñean jarririk egon bearra. Jainkoagaz otoitzean alkartasun onean jarduteko, gure barrua atarako gertau bearra daukagu. Auxe izango da gure otoitz-irakasle andi onek laugarren jardunean asi ta amaseigarrenera irakatsiko dauskuna. Arlo onetako argibide ta irakaspentak bein-beiñekotzat, bear-bearrezkotzat daukoz berak, otoitz-bizitza eroateko; eurak barik ez dago lege oneko otoitz-bidean sartzerik.

Bere bizitzako liburuan emoniko irakaspent bat argitu ta zeaztu, eztau besterik Ama Teresa'k emen egiten. Ez eban esan, ba, liburu atan otoitza ez dala besterik maite gaituan Jainkoagaz maitez eta adiskide-legean jardutea baiñi? Orra otoitz-

bizitzearen guna; adiskidetasunezko artu-emona ta alkartasuna da, gu maite gaituan Jainkoagaz maitez eta adiskide-antzean, Jainko Aitagaz seme-antzean itz egitea. Badakigu, baiña, onek esan nai dauan guztia? Adiskidetasunik eztago alkarren ide, alkarren antzeko diranen artean izan ezik. Beraz, Jainkoaren adiskide izateko, Aran antzeko izan bearko dogu, edo beintzat, Aren antzeko izaten alegindu bearrean gagoz. Ori barik, eztaukagu Jainkoagaz barru-barruko artu-emonik izaterik, Aregaz adiskide-legerik eukiterik.

Otoitz-bidean ondo ibilteko, Jainkoaren antz apurtzua arrazoko dauskuen edergarri batzuk ezarri bearko dautzoguz geure arimeari. Lenen-lenengo edergarria: Jainkoaren grazia, barruko garbitasuna, pekatu astunik ez eukitea; ori gauza jakiña da. Orrez gaiñera, beste ira gauza gogoratzen dautsez Teresa deunak bere alabai: alkarren arteko maitasun zindoa, biotza eizen zalekeri barik eukitea, ta apaltasuna. Amabi jardun edo kapitulutan diardu, ama ta irakasle antzean, otoitz-bidearen oiñarritako, argitasun eder eta egokirik emoten bere alabatxoai, moja-etxeko bizitzan izan leiezan ereti batzuetarako, batez be. Oiñarri oneik emon bear dautsoe gogoari Jainkoaren ondoko giroa. Edergarri orreik aldean dituala, gogo gertuago dago Jainkoagazko adiskidetasunerako, Jainkoaren amasea urragotik artzeko, ta biotza askatuago izango dau goruntz egiteko, Jainkoaren argi ta maitasunean murgildurik, ointxeganik asita, zelanbait zeru—bizitza eroateko. Oiñarri orren gaiñean, ezin obeto ibilliko dira otoitza ta arimearen bizi guztia, gogo bide orretan gora, geroago ta Jaunaren adiskideago ta kutunago egiten dala.

Ezta, barriz, edozelangoa Ama Teresa'k otoizlariari eragin gura dautson goruzkoa. Lenengotarik asita, gorengo gaillurrak erakusten dautsoz; bideko nekeari jaramonik egin barik, gogo beroz ta adoretu aurrera egiteko poza sartu nai leuskio, goiko iturri bizian edateko egarri gorria sortu.

Egia esan, bide au ezta neke bakoa, batez be asikeran; baiña Jauna bera dogu bidelagun. Lan egin eta izerdia bota bearko da; baiña, ara an, azkenean, iturri bizia, zeruko ur asegarriz gaiñezka. Ur orrek egarri guztiak kendu ta asetzen ditu; munduko su guztiak amatau ta arimearen loi ta uger guztiak garbitzen ditu. Bera da naikoa bideko nekerik gogorrenak ordaindurik izteko. A zori ona ta atsegiña, ur jainkozko ori aoa betean edatera eldu diranena!

Uraren irudi au txitean pitean dator liburu onen erdiingurutik aurrera; oso atsegingarri izan yakon bere bizi guztian AmaTeresa'ri. Txikitarik asita, ondo gogoan sarturik eukan arako Samaria'ko andrearen iduria, Kristo'ri ur-eske: «Emoidazu ur orretatik edaten». Zer adierazo nai dausku libura onetan ur orregaz? Geien baten, otoitzik bikaiñena, Jainkoaren adiskiderik miñenen otoitza, guk geure alegiñez lortu ezin geinkena, Jainkoak berak bere kutunei emon oi dautsena, atsegin eta ondasunik andienak beragaz lagun dakazela. Orduan, ur bizia da, iturritik bertatik arakoa. Beste batzuetan ezta orren goitik datorrena, ez ain garbi; ur egona, iturri-bazterretako zulo-txoetan batua ta olakoa. Orduan beragoko mailletako otoitzari dagokio, beronek ekarten dauskuzan zelanbaiteko atsegin eta ondasunakaz.

Teresa deunak ez leuke gura iturri bizi orretara barik iñor gelditzerik, eta ara bidean jarri nai gendukez guztiok, Jaunagazko adiskidetasun oso ta betera bidean.

Guzttoi eskintzen ei dausku Jaunak zorion ori; beintzat, orain ezpada, gero zeruan. Eta guztiok egin bear ei dogu alegin, ointxe asita, gorengo zorion ori izateko. Baldin emoten ez ba'yaku, ez bedi izan geure erruz, guk geure alak guztiak egin ez doguzalako. Baldin Jaunak ukatu ba'dagigu, gure alegiñen eta borondate onaren saria ta ordaiña gero zeruan eta batera emoteko izango da. Edozelan be, bape ur barik, geure egarria zelanbait asetu barik ez gara geldituko. Jo daigun beti bidean gora, jo daigun gogo osoaz, ataza guztiaz; eztaigun otoitz-bídea inoz itxi. Orra guztion eginbidea, ta batez be, moja karmeldarrena.

Ama Teresa'ren aldietan ba-zan otoitz-bideari ondo ez eritxoetik; andrazkoen otoitz-zaletasuna, batez be, etzan guztien begikoa. Bizi-bizirik aitatzen ditu gure otoitz-irakasle onek olako gaizki-esaleen esames batzuk. Andrazkoak otoitz egiten? Oba ei eben goruetan egin. *Aita Gurea* esatea ez ete eben naiko? Amaikatxo sartu ei ziran olango asmukerietan, eta zer? Euren ondamendia etorri ei yaken ortik. Suak artzen eban gure Teresa olango barriketak entzutean. Otoitza inorentzat galgarri? Ori inuenak eurak artu bear ziran galgarri ta ondamendia berberatzat. Otoitza, Teresa'rentzat, ondasun guztien iturri da. Jakiñen gaiñean diño ori; ondo ekian berak bere buruan ikusita. Bere alabatxoak, gaiñera, olango esames eta barriketai ez eutsen ezetako jaramonik egin bear; beti ta eten barik otoitzari ekitea lege eben. *Aita Gurea* esatea naiko dala? Bai, orraitio, bear dan lez esan ezkeru. Baiña ao utsezko otoitzik eztago; edozelan be, benetako otoitza izateko, gogoaren laguntasuna bear dau beti; alan esango dau otoizlarien Ama onek bein ta barriro.

Eta emen dogu bera otoitza zelangoa eta zenbat eratakoa izan leiteken zeaztu ta irakasten. Gain-begiratu bat egin deioegun amaseigarren jardunean asita emoten dauskuzan irakatsi oneei.

Lenengo aitatzen dauskun otoitz-modua *gogoetazkoa* (meditaziñozkoa) da. Otoitz-era au eralten eztau luzero jardun nai. Libururik geienak zeatz eta meatz azaltzen ei dabe, otoitz-gaiak be egunerik egun bananduta emoten dituela. Ederra ta gogoari mesede andiak ekartekoa ei da. Gure biziaren laburra, munduko atsegiñen ustela, Jainkoari dautsozun zor andia ta olako egiak gogoan artu ta erabiltea ondo baiño obeto yatorku, munduari ta pekatuari iges egin eta geure gogo-biotzak Jaunagana zuzendurik jarteko. Orretara, Jainkoagaz atzeturik dabilena Jainkoagazko adiskidetasunera biurtu ta atan irauteko bide egokia da. Teresa deunak otoitz onetan diarduenentzat, orraitino, arriskutxo bat salatu gura dau. Askok okerreko bidea artzen ei dabe, iya gogoeta utsean geldituz. Burua bizkor eta zorrotzegia dauken askori jazoten ei yake oker ori; beti buruaz lan ta lan, orretan ei dauke gogo guztia, otoitz-gaitzat artutako egietan sakondu gurarik auznar eta auznar, beste ardura barik. Ama Teresa'k ain jator eta polito diñoan lez, domekarik ez jairik artu barik dabiltz; Jaunari maitezko begitu bat egiteko astirik be ez dabe artzen. Oker andia da au; Jauna eztabil gure gogamenen billa, gure maitasuna billatzen dau, Berari gure biotza zabaldu deiozun gura dau. Ori da otoitza, beste ezer baiño lenago. Gogoetazko lanari leku larregi emoten dautsoenak egi au aiztuten dabe sarri.

Gaiñera, barriz, danak eztauke gogo-lan orretarako erreztasun bardiñik. Gogo gauza baten luzero eukiteko asko ezтира gauza. Orregaitik, otoitzik egin ezifia daukela-

ta, egoten dira. Oker dagoz. Ez beitez larritu. Teresa'k irakatsiko dautse zelan jokatu. Euren antzekoa ei zan bera be aldi baten. Eta, zelan atondu? Jauna berbera lagun artuta; Jauna bere ondo-ondoan eukala gogoratzen ebal. «Egizue kontu —diñotse olangoai—, egizue kontu Kristo'gaz zagozela, Kristo zeuon aurre-aurrean dozuela. Eta buruari beste nekerik ezarri barik, ekiozue Beragaz berbaz, asazkatu zaitezze Beragaz, zeuon maitasuntxoia opatu edo zeuon bear-izanak agertzen dautsozuezala.» Itzik atera bearrik be eztago beti, begiratu utsa da naikoa. Naiz atsegiñean naiz atsekabean egon, egin leiteke ori. Pozaldietan, gogoratu daigun gure Jauna, biztu zaneko argitasunean. A edertasuna!, a jauntasuna!, a poza ta atsegiña! Atsekabe edo neke-orduetan, begitu deiogun Getsemani'ko ortura bidean. Aren larria!, aren atsekabea! Gogoratu daigun arrizko abeari lotuta, dana min eta zauri; edo iruditu daigun adiskide guztiak bertan-bera itxita, Kalbario'an gora, kurutzea soiñean, arnas estu baten. Ama Teresa'k dirausku begirakun orrek ez dauskuzala Jaunak ordain barik itxiko. Olantxe, irakasle onek irakasten dauskun otoitza beti biotzari berez-berez dariona da.

Oindiño be, norbaitzuen biotzak legorraren legorraz, eztira bear bada maitezko begikun orretarako gauza izango. Zer egin? Liburu on bat artu ta astiro astiro irakurri beie. Etxake txarto etorriko, euren gogoa apurka apurka Jaunaren gauzetara oitu ta egin daiten. Olantxe egiten eban Teresa'k berak, buruak gogarte luzerik arloan egiteko laguntzen ez eutson arteetan. Orrelan auznartuz ta astiro egindako irakurraldia gogoetazko otoitzaren ordezko izan leiteke.

Eta gero, or dago edozeiñen eskumendean *aozko otoitza*. Jaunak berak irakatsia da; baiña, jakiña, ez dedilla ao utsezkoa izan. Agoak diñozan itzetan gogoa ta biotza ditugula egin bear dogu beti. Bestela, a zelako soiñu gogaikarria, zelako lelo aspergarria Jaunaren belarrietarako! Bear dan moduan egin ezker, otoitzik bikaiñenari ez dautso ezer zor. Eztago, esaterako, *Aita Gurea* baiño otoitz ederragorik. Egin-egiñean be, auxe da Teresa'k bere liburu onen azkenengo saillean erakutsi gura daukuna. Aita gurea! Itz oneitan bakarretan, zelangoa sakontasuna! Orduetarako otoitz-gaia emon leigu. Jainkoa gura Aita, eta gu Aren seme! Ba al da egi pozgarriagorik, biotza zabaltzekoagorik? Gure otoitzaren asi-asikerarik Jainkoagana itz orreikaz joteko eskubidea daukagu. Ta ori Jaunak berak esanda, obeto esateko, Jaunak berak aginduta. Orra Jainkoak berak irakatsita gure otoitzak biotz-biotzezko jardun eta alkar-izketeak izan bear daua. Gure Jainko-semetasuna sakondu ta barrukoagotu egin bear dau, gero ta Jainkoaren semeago egin eta agertu bear gaitu. «Aita Gurea»-k, ondo auznartu ezker, janaririk naikoa eskiñi leio edozein arimari Jainko-bideko maillarik gorenentan be. Au erakusteko idatzi dau Ama Teresa'k bere liburu azkenengo saila, Jaunaren otoitza azalduaz. Otoitz onetan aurkitzen ditu berak otoitz-bideko ta onbideko mailla guztiak, bekoetatik asita gorengoetaraiño.

Gogoetazko otoitzaz gaiñera, beste iru izentetan ditu, bata bestea baiño bikaiñagoak: *gogo-barrukoa*, *atsedenezkoa* ta *alkartasunezkoa*. Iru otoitz-modu oneik ari-meak Jainkoagazko artu-emonetan egiten dituan aurrerakadai erantzuten dautse: ari-meak Jainkoaren adiskidetasunean barrurago, beroago, ta bere otoitza bikaiñago, barrukoago. Aitatu daiguzan, laburturik, Ama Teresa'k irakatsi batzuk.

Gogo-barruko otoitza.

«Aita gurea, zeruetan zagozana», itz onek emoten dautsoe Teresa'ri aria, otoitzera au azaltzen asteko. Gure gogoia, gure barrua, zer da besterik zeru txiki bat baiño? Or dago, zeruan lez, Jainkoa jaun ta jabe. Beraz, eztaukagu iñora urten bearrik Jainkoagaz itz egiteko, ez Bera gurtzeko. Geure barruan sartu, besterik eztozu bear. Atara oituten danak irabazi andiak izango ditu; erreztasun andia lortuko dau otoitz-bizitzarako. Errezetan asi orduko igarriko dau bere zentzun eta almenak, erleak erlategira lez, barrura yatorkozala; apurka apurka, jauntasun andi bat nabaitzen dau; kanpoko gauzak ez dautsoe zirkiñik eragiten, ikusi be eztitu nai; begiak be berez-berez gelditzen yakoz itxirik, barruko Jaunari adi egoteko. Zori onekoa oitura au lortu dauana! Ama Teresa'k autortzen dau, oitura au artu arte, ez ebalá berak jakin otoitz egitearen poza zer zanik.

Aurreko otoitz-moduan Jauna ondoan ikusten eban otoitz-egileak; emen bere barruan ikusten dau, ta antxe billatzen dau beti. Jesukristo'ren pasiñoa ta eriotzea gogoratzeko be, eztauko irudimena nekatu bearrik Pilato'enera edo Kalbario'ra joaten; bere barruan iruditu ta gogoratu daike dana. Bere barruan dau Jauna, ez egote uts eta otzez, maitasunezko egotez baiño. Eta arimeak barruko lagun ori geroago ta obeto ezagutzen eta geiago maitatzen ikasten dau. Otoitz au lortzen, geure alegiñak lagundu leigüe. Asikera nekerik be emoten dau gogoaren indarrak barrura adi eukiteak; baiña, ekiñez-ekiñez, geroago ta errazago egingo yaku, ta goi-ixurizko otoitzerako gaiago egingo gaitu.

Atsedenezko otoitza.

«Aita Gurea»-ren lenengo eskari biei dagokiona da berau: «Santifikadu bedi zure izena, betorkigu zure erreñua». Arimearen zeru txikian zerutarren kanta-otsak entzuten asi dira; arimea zerutarren zeregiñetan dabil. Zertan diardue oneik? Jauna goratu ta maitatzen. Orixe berori da emen adimenaren egitekoa: Jauna maitatu ta goratu, eztarabil beste gogorik ez pozik. Eztabil, baiña, bere alegin utsez; emendik asita grazi barri ta berarizkoak laguntzen dautso. Jauna ta biak alkar-lanean diardue, Jauna aurre-esku dala. Orregaitik arimeak neke gitxiago dau emen, jaunaren eragiña igerri-igerrian asmetan dau. Ortik bere atsedena ta poza; ortik bere maitasunak eta goramenezko kantak zeruko usain geiago izatea. Egia da ez tala goiko bidean Jainkoaren grazi barik ezer egiterik; baiña emendik antxiñakoa aparteko esku-emotea, aparteko laguntasuna izango da. Ori da Teresa'rentzat emen Jaunaren erreñua, agintaritza gugana etortea.

Otoitz onek arimearen barruan egiten dauan bakea ta atsedena ez dira, atan be, guztizkoak. Borondatea, gogoaren barru-barrua Jaunagaz dago beti, beti bere Jabeagaz bat egiñik; baiña adimena ta irudimena sarri dabiltz kanpotik, ara ta ona. Oindiño osozko alkartasunik ezta egin Jauna ta bien artean. Ba-ditu onek arimearentzat arrisku batzuk. Sarritan, onaiño eldu diranak, alan diño Teresa'k, artegasuntxoan jarten dira, barruan asmetan daben atsegiña ez galtzeko ardurez. Zirkiñik be egin gura ez-ta dabiltz, arnasarik artzeko be bildur dira, euren zoriona galtzeko bildurrez. Alperreko alegiña eta ardurak; kaltea besterik ez dautsoe gogoari egingo. Begoz —esango dautse Teresa'k—, bake-bakean, geldi ta ixilik. Ez beitez asi, gaiñera, zer dan edo zer eztan aztertu naiez, gogoia nastau baiño ez dabe egingo-ta. Begoz olako ardura

barik Jaunari adi, maitasunezko gomutaz. Itxi beioe Jaunari bere lanaegiten, gogoaren jabe oso egin dedin arteiño. Ta Beronek nai daianean, asirik dagoan alkartasuna geitu ta sakonduz, urrango mailak joko dabez.

Alkartasunezko otoitza.

Olan deritxo Ama Teresa'k bere liburu onetan erakusten daukun gorengo mailako otoitzari. Goi onetan Jainkoa ta arimea oso-osoa alkar artuta dagoz; borondatea ez-eze, gogoaren beste indar guztiak be bere Egille ta Aitagana zuzendurik bizi dira. «Aita Gurea»-ren irugarren eskaria: «Egin bedi zure borondatea», bete-betean dakusgu otoizlariaren izate guztian egi bihurturik. Arimeak ez darabil beste gogorik Jainkoa maitatu ta Aren naia egitea baiño. Zetan erakutsiko dau au, geienik? Zein da, batez be, arimearentzako Jaunaren borondatea? Ona Teresa'ren erantzuna: «Ez uste gero emengo atseginiñik, aberastasunik, andikeririk eta olango lurreko beste ondasunik opa dauksuenik. Maiteegi zaitue olako zirtzilkeririk eskiñi ta opa izateko.» Ez, olako ustelkeririk ez dauksu opa, ez; bere Seme Iaztanari opa izan eutsona opa dauksu guri be: zer?, ta nekeak, oiñazeak, iraiñak: kurutzea. Kurutze barik eztago goiko iturri bizira eltzerik, Jaunaren gogoko izaterik. Jainkobideetan dabilzan guztiak ezтира goi onetaraiño eltzen; ez dabe guztiak zorion ori, batez be gitxik dakielako euren borondatea osoan Jaunaren eskuetan izten, gitxik dakielako eza, nekeak eta kurutzea maitatzen.

Teresa deunak ez ditu liburu onetan goi onetara eldu diranai egiten yakezan mesede guztiak aitatzen. Berak be, liburu au egikeran, oindiño ikusi ta sakondu barik eukazan otoitz-era onen samurtasun eta bikaintasun guztiak. Alkartasun onetan be ba-dira maillak; geroago ta ageriago, barrukoago, sendoago ta iraunkorrago egiñez doala jakitea, naikoa bekigu emen, Ama Teresa'k geroago erakutsi euskunez.

Mailarik gorenera elduta be, emengo aldia egiten dogun bitartean, beti gara makalak, beti dogu indarrak barriztau bearra. Dana izan dau gogoan Jaunak «Aita Gurea» irakatsi euskunean. Otoitz bikain onen azkenengo eskarietan, zer eskintzen dauksu? Berbera emoten yaku Eukaristian, gure janari ta sendogarri izateko. Gero, lagun urkoa eztago sekula aitzu bear. Gogo barruan sartuta otoian egoteak eztau esan nai iñondik iñora geure anai-arrebakaz aitzurik bizi bear dogunik. Geure gogoko izan nai izan ez, guztiekanako maitasuna ta ondo-gurea erakutsi bear doguz beti. Gaiñera, arriskuz inguraturik gagozan ezkerro, beti dogu zur ibilli bearra. Santuenak be, iñoz arrotu barik, arrisku orretan jausi ez daitezkan eskatu bearra dauke. Ori da «Aita Gurea»-ren azkenengo eskariak gogorazoten dauksuena.

Onelan, Ama Teresa'ren liburu onen azkena bere asikereaz bat dator. Asikeran, Jaunagana urreratzeko, maitasuna ta apaltasuna oiñarriztat jarri bear genduzala iñoskun; orain, goietara eldutakoan, maitasuna ta apaltasuna eskatzen dauksuz: maitasuna ta apaltasuna oiñarri, ta maitasuna ta apaltasuna gaillur-arri. Gaillurreko birtute oneik, jakiña lengoak baiño bikaiñagoak dira; Jainko-ikituaren usaiña darie. Iturri garbiagorik datoz. Arimeak eztau alperrik goien-barrenok alkartzen dituan bidea egin: one-rako bidea, otoitz-bidea. Otzoitzari zor dautsoz arimeak bere ondasun eta irabazi guztiak. Otoitzagaz ondoan izan dau beti bere bide-laguna, Jainkoa bera gero ta obeto ezagutua, gero ta biotzetikago maitatua. Otoitza izan dau neke guztien aringarri,

egarri guztiak asetu ta okerreko su guztiak il dautsozan ura. Lenengotan ur pitin bat izan da, ur—negar bat; edo, geien baten, ur egona, istil-ura, nekez billatu ta aurkitua; geroago, ugariagoa ta garbiagoa izan dau, Jainkoak berak bere iturri bizirik emona.

Ur onek, beste egarri guztiak kendu arren, berak be sortzen dau bat, orraitio: Jaunaren beraren egarria. Ta egarri au zeru-egarri biurtzen yako arimeari, noizik bein. Gure izatearen argaltasuna ikusita, eztau luzarago egon gura Jauna pekatuaz galtzeko arriskurik dagoan lekuan; zerua nai dau, Jaunaren adiskidetasuna iñoz galtzeko bildurrik eztan lekua. Ta biotz-biotzetik urtetan dautso «Aita Gure»-ko azkenengo eskariak: «Gatxetik jagon gaizuz»; ainbesteko gatxen bildurra dagoan bizi onetatik atera naizu.

Ona, andi-andika, Ama Teresa'ren liburu eder onen guna ta mamiña. Bere alabatxoentzako egin eban orain lareun urte. Baiña nozik bein kristiñau guztiakaz diardu: kristiñau guztiei zuzentzen yake Jesus'en deia: «Egarri dana, betor nigana.» Guztiok ei daukagu iturri bizitik edateko aukerea. Eta iturri ortarako bidea ba-dakigu, Ama Teresa'k, otoizlarien Ama onek esanda, zein dan: otoitza. Ori da Jauna aurkitu, ezagutu, maitatu, adiskide egin eta gozatzeko bidea, emen eta zeruan. Alan izango al da liburu au irakurriko daben euskaldunentzat.

AMA TERESA TA EUSKALDUNAK*

Aurten dira laureun urte, Avilako Teresa il zala, urriaren 4n, santutasunezko usain on eta izen onean. Irurogei ta zazpi urte zituen.

Berrogei urte geroago, Aita Santuak, 1622n, santuen maillan jartzen du eta Eliza osoan santutzat gurtua izateko eskubidea ematen dio, bi euskaldunekin batera, Loio-lako Iñazio eta Xabierko Frantziskorekin. Teresa euskaldunekin! Ez zitzaion ori lenengoz gertatzen. Ama Teresa eta euskaldunak askoz lenagotik zebiltzan alkarturik, elkar ongi artzen zutela. Euskaldun askotxok ezagutu eta maite izan zuten bera, munduon bizi zala; eta berak beste ainbeste euskaldun ezagutu eta maite izan zituen. Laguntzaille onak izan zituen bere asmorik onenetarako: komentu berrigintzan, animaren illunetan argi egille, bere mojaetxe eta praille-etxeak mojagei eta praillegei jainkozalez betetzeko, eta ola. Eta azkenez, munduko neke ta lanak utzi bearra etorri zitzaionean, euskaldunen artean Teresaren jarraitzaille zintzorik asko agertuko da eta aren ekintzari jarraituz, Euskalerria aren izeneko komentuz bete eta aren gorputza ez bada, aren gogo eta anima bertakotu egingo dute.

Munduan Teresazalerik bada, iñon ere ez Euskalerrian baiño geiago. Teresa gaur munduan bizi bada, iñon ere ez gure errian aiña. Beroaldi batean irtendako aoberokeririk ez degu esaten. Avilako emakume andi au gaur Eliza osoaren, mundu guztiarena da. Egia. Baiña zaletasun orretan Euskalerria ez da gelditu beste iñongo erririk baiño atzerago ez epelago. Emakume deun au gaur mundu guztian bizi da, maite dutenen eta bere oroitzta eta irakatsiak maite dituztenen artean; baiña, bearbada, iñon ere ez gure artean baiño biziago. Auxe da idazlan onetan adierazi eta argi jarri nai nukena. Ea lan onen bukaeran, irakurlearen gogora eta burura siñiste au naiko sakon eta tinko gelditzea lortzen dedan.

* Karmel 1982-2/3/4, 85-109.

Eta, sail luze onetan sartu baiño len, Ama Teresak euskaldunekin nolako arremen zabal atsegintsuak izan zituen ikusteko, aogozagarri bezala, aurreratu dezadan zerbait, euskaldunek Gaztelako alaba oni nolako egun pozgarriak eman zizkioten adieraziko diguna. Ekarri ditzagun gogora, esaterako, aren bizitzako azken egun batzuk, Burgosko mojaetxea sortu zuenetakoak. Neguko egun otz beltzak ziran, berez ere aren goputz zaar beti gexoti izan zanarentzat gogorregiak. Eta gogorrangoak eta beltzagoak, ango Gotzaiak jartzen zizkion eragozpen eta oztopoengatik. Egun beltz eta otz aietan, nor du ia pozgarri bakarra? Andre euskaldun bat, Katalina Tolosa. Teresak berak aitortzen du, Jainkoaz kanpo, andre euskaldun orri zor izan ziola Burgosko etxea, bere bizitzako azkenengoa, aurrera ateratzea. Urte bat edo beste lenago, Orduñako neska bat etorri zaio aurrera, Valladoliden, Madalena Salazar Arbieto, bere burua eta ondasunak eskeintzera, moja izateko eta mojategi bat Orduñan sortzeko. Ama Teresarentzat benetan eskeintza atsegiña. Ez zuen eskeintza ori osoan on artu. Zerbaitesk esaten zion ez zeukala Orduñara joaterik mojategi ori egitera. Baiña Orduñar orrekin, kronikak dionez, beste iñorekin egin ez zuena egin zuen: gazte euskaldun ori, geiagoko gabe, beste azterkarik gabe, bere mojatako artu. Lenengoko begiradan igarri zion, noski, bere mojategiatarako gai ona zuela. Teresak bere gogoko aurkitu zituen euskaldunak beti. Aren eta euskaldunen artean nekez sortuko zan alkar ongi ulertu eta ongi artu eziñik. Guretarrak eurrez eta non-nai, gutxien usteko genuen lekuan agertzen zaizkio esku-emaille eta biotz oneko laguntzaille, bein animaren zuzentzaille, bein diru-laguntza eskeintzen, edo mojaetxe berriak eraikitzeko aukerak ematen. Onelako euskaldun laguntzailleak Teresaren ibillaldi askotan aurkitzen ditugu, Avilan asi eta azkenengo mojaetxea, Karmeldegia, Burgosen sortu zuen arte.

Beraz idazlan onen elbuma auxe izango da, Ama Teresarekin eta lagun agertu zitzaizkion euskaldunekin, erriz erri, bidez bide ibillaldi bat egitea.

Ibilladitxo bat, lenbizi, bera bizi izan zan urteetako joan-etorrietan; eta beste ibilladitxo bat, Euskalerrian zear, gizaldiz gizaldi, emen aren izenean sortu eta ain ugari izan diran prailletxe eta seroretxeetan,aren itzala eta aztama biziak billatzen, arenganako euskaldunen joera eta zaletasun beroa aurkitzen.

I

EUSKALDUNAK TERESAREN EGUNETAN

Avilan

Asi dezagun ibillaldi au Avilatik, Jesusen Teresa izango zan emakume oni izena eraan zion uritik. Gaztela Zaarreko uri au, Zaldunen Avila deitu au, arrizko gerriko edo esi izugarritz inguratuko au, nork esango zuen euskaldunentzat ain irikia izango zanik Teresaren egunetan? Agerian da bere arrizko esi ori ez zeukala guretarreri ara sartzan galerazteko edo eragozteko. Teresaren aldian euskaldunak ongi sartuak zeuden bertan. Eta bat baiño geiago bertako agintari aurkitzen ditugu. Agintari urian eta agintari Elizan.

Teresaren gaztetan Euskalerriko bi seme dira Avilako Gotzai: Rodrigo Mercado de Zuazola, Oiñatiko semea, Oiñatiko Unibertsitatearen sortzailea dalako gure artean ain ezaguna eta ospetsua; 1530tik 1548ra, da ango gotzai. Bigarrena Arabarra da, gazteiztarraiatotzez, Diegode AlavaEskibel, 1548tik 1558ra, ango Gotzaitzan egona. Bion artean, Teresaren gaztezaroz guztia betetzen dute, ain zuzen mojaetxeak sortzeko asmotan asi zan urteetaraiño. Gotzai auek ez dute Teresaren bizitzan aztarren ezagunik utzi. Baiña mendea bukatu baiño len irugarren euskaldun bat da ango gotzaitegiaren jabe: Lorenzo Otadui Abendaño, oiñatiarra au ere. Au, Avilako gotzai izan aurretik, Ama Teresaren egunik zoriontzuenetako batez, beronek sortutako praille-mojei nortasun eta pake osoa eman zitzaien eguneko ospakizunetan parte artutakoa, Alkalan, ango Unibertsitatean irakasle zala, eta Gotzai izan zan egunetan (1599-1612), Teresa santuen maillan jartzeko auzian aitormenik ederrenetakoa egiña degu aren alde.

Erri-gizonen artean beste iru euskaldun agertzen dira gitxienez Uriko agintari: Juan Bautista Lejalde Maillera, eibartarra, Juan Otxoa de Agirre, oiñatiarra, eta Pedro de Agirre. Irurok Teresaren alde itz egin eta testigantza emango zuten, Elizak aren bizitzaz argitasunak eskatu zizkienean.

Avila, agirian da, ez zegoen euskaldunik gabe, eta guretarrak izen onaren jabe ziran, an agintari edo erriko kargudunen artean egoteko. Izendatu ditugunez gaiñera, uri artan bazan noski beste euskaldunik, bai apaizen eta bai erri-gizonen artean. Frantziskotarren nagusi ere euskaldun bat aurkitzen degu, Martin Agirre, Teresak lenengo moja-etxe berria sortu zuenean, orduan aren alde atera ez bazan ere.

Domingo Bañez

Avilan bertan asi ziran Teresaren ibillaldiak, moja-etxe berriak, karmeldegi berriak sortzeko. Lenengo irteera, ordurarte bizi izan dan komentutik, La Encamación izenetik, etxe berrira, San Jose izenekora. Orduan sartuko da Teresaren bizitzan praille gazte bat: Domingo Bañez de Mondragon (edo Artazubiaga).

Izen au aipatzea, garai artako teologirik ospetsuenetakoa izatera iritxiko zan praillea izendatu degu, Teresaren anima oso sakon aztertu eta ezagutuko zuena, Inkisizioaren aurrean aren alde burua agertu eta aren irakatsiak ontzat eta fedearn argitan jatortzat emango zituen. Bañez gizon egizalea zan oso, eta argatik Teresarentzat maitagarriago. Teresak egi-bidean ibilli nai zuen beti eta egia erakusten zioten teologo eta elizgizonak zituen maiteen. Jainkoak jarri zion teologo au bere bidean, bearrik geien zuen orduan, San Joseko karmeldegia sortuberri berritan. Teresak zerabilzkian asmo jainkozkoentzat une larria ordukoa. Bere ames guztiak erreka jotzeko arriskuan zeuden. Aita Santuaren baimenaz, baiña erriaren ixillik egindako etxetxo berria Avila osoak itxi eta deuseztu erazi nai dio. Orixe eskatzen dute guztiak ao batez eta oiuka. Baña azken batean, erri-batzar artan, orjaikitzen da Domingo Bañez, praille gaztea, eta Avilara etorri berria, eta «kontuz, Avilarrak», esaten du «Gauzak ola bero-berotan ez dira egin bear eta ez erabaki. Nola nai ere, Elizaren eskua ibilli da emen eta azken-erabakia Elizaren eskuetan geroko uztea obe». Aita Bañezen itzaldiak baretu zuen mojaetxetxo berriaren gaiñera zetorren ekaitz bildurgarria.

Artean ez zuen praille orrek Ama Teresa ezagutzen. Gauzak otzean eta zuzentasunez egitearren atera zan Batzar artan eginberri zan komentutxoa ez itxi eta ez botatzearen alde. Gerorxeago egin zuen Moja aren ezagutza. Laster ikusi zituen Jaunak anima artan ixurritako argi eta graziak eta aren miresle eta zuzentzaille biurtu zan, edo-ta, Teresak artako artu zuen, eta bizi guztian esker on zintzoa erakutsiko zion.

Nongoa degu Aita Bañez?

Irakurleak onezkero galdera au egin du: «Baiña euskalduna al da gero Domingo Bañez». Nongotarra degu praille au? Galdera bera egiten zion bein Teresak berak Valladolid-ko moja bati: «¿Cuál es su tierra?» Ez zegoen, nonbait, oso garbi aren jatorria. Nongoa da Bañez? Valladolid, Medina del Campo, Balmaseda, Mena a la Mondragon, zein du bere jatorria?

Egunotan ere irakurtzen da gai ontan egia ez danik, Mondragoikoa zuela aita eta abar. Ala ere, argia aspalditxotik egiña dago. Noiztik ona? Teresa bizi zan egunetatik ona. Orduan Arraseteko seme batek egin zuen argia: Garibai, genealogigaietan ain ikasia degunak. Eta gure egunotan Aita Beltrán de Heredia, domingotarrak, Arabako semeak. Laburtu dezagun auek esan digutena.

Artazubiagatarrek Arrasate aldean gogor gudukatu zuten amabosgarren mendean, orduko aide nagusien buruketan sarturik. Mondragoi erretzean ere esku artu zuten. Baiña Artazubiaga batek erretze ori baiña lenagotik erbesterako bidea artu, eta andik alde egin du, eta Balmaseda aldera jo. Balmaseda-Mena-aldean jarri dute etxe-bizitza, merkatari bizitza. Auzoak mondraigoitarrek (mondragoneses) esaten die. Urteak joan, urteak etorri, Artazubiagatar auetako batek, gure Domingoren aita izango danak, Tomasa Paldón andretako arturik, Gaztela-aldera jo du, Valladolid-era. Merkatari bizitza daramate. An sortu zaie Domingo. An ere ez dute luzaro iraungo. Medina del Campora aldatzen dira, Domingo aurtxo zala. Merkatari bizi diranei ez ote zaie ori askotan gertatzen? Leku batean ezin egona, erririk erri aldatu bearra, iñon bertakotu eziña. Arrasateko Artazubiagatarrok bein Gaztelaratu ezker, abizen ori erdaldunentzat zail samarra egiten zalako edo, Mondragon artzen dute abizentzat. Bañez de Mondragon, ez Bañez de Artazubiaga. Orra misterio askoren argibidea. Orra zergatik egiten duten askok gure Domingo Mondragoiko seme, edo Menako, edo Balmasedako, edo Valladoliko eta Medina del Campoko. Orra zergatik Domingok berak argitaratu zituen liburuetan bere abizena Bañes Mondragonensis jartzen duen. Iaiotzez Valladolid-en jaioa degu, eta aurtxo zala Medina del Campora aldatua. Baiña izatez, nongoa da?

Bere gogoan mondraigoitar jarraitzen du, bere etxeok jarraitu duten bezela. Artazubiagatarrok ez Balmasedan, ez Menan, ez Valladoliden, ez Medinan egin dute egoitza iraunkorrik. Beti beren jatorrizko errira begira bizi izan dira, Mondragoira. An dute jatorria, an dute gogoan, an biotza. Angotzat dauzkate bizi izan diran auzoetan. An dituzte aideak, aiekin kartaz arremantetan jarraitzen dute. Aita Domingok euskera ere badakiela erakutsi du, neurri batean beintzat. Eta, azkenez, bere burua euskaldun egin du. Ola ulertzen degu bete teologiazko liburu batean esan duena: bere latiniari

euskal-izkuntzaren kutsua dariola. Are geiago, Logikazko liburu batean, euskerak bi aditz-modu ezagutzen dituela esan digu, izateari eta egiteari dagozkionak (bear bada, euskal-aditzaz emandako leen-argitasuna). Euskerak beste aditz guztiak bi aditz-modu aiekin sortuak omen ditu. Bere euskalduntasuna argi aitortzen du beste bein, aipatutako liburua eskeiñiaz, Antonio Idiakez Tolosarrari «euskaldun geran guztion omen-garri berdingabea» dala esaten dionean.

Auzi au ez al dago argi? Domingo Bañez onek ez du paramenik izan ez Valladolid-en, ez Medinan. Ez du bere burua gaztelar ikusten. Ez du an sustrairik artu. Bere gogoz, bere biotzez, eta bere etxeko gogo-giroz euskaldun degu. Valladolid-en jaiotze utsak ez dizkio bere sustraiak, Gipuzkoan zituenak, atera. Bere gogoan ez du iñoiz aaztu ori. Euskaldun da odolez eta gogoz. Beraz eskubide osoz esan dezakegu Teresaren ekintza, karmeldarren erlijio berria aurrerabidean ordu gogoangarri batean jarri zuena, Teresaren anima-zuzendari argi ain estimatua izandakoa, Domingo Bañez, euskalduna dala. Jatorri utsez ez, bere borondatez eta gogoz ere bai.

Aita Araoz

Laster jarraituko diogu Ama Teresari Avilako uritik kanpora euskaldun askoren laguntzarekin komentu berrigintzari ekiten; baiña leenago ez dezagun aazturik utzi beste euskaldun bat, Iñazio Loiolakoaren semea, Bañez-ek baiño leenago lagundu ziona: Aita Antonio Araoz, bergarra. Teresak berak eman digu onen berri. Bere animaren zuzendari izan ziranen eta argi-emaille izan zituenen artean beste iñor baiño leenago aipatzen du berau. Animako arazoetan kezka eta illunik andienak erabilli zituen egunetan, Araoz onengana ere jo zuen argi billa. Ez digu ortaz argitasun andi andirik eman, baiña nolana ere, ez du aipatu gabe utzi, bere biotzetiko esker onaren ezaugarri.

ERRIZ ERRI

Avilako karmeldegi berria egin eta bost urte geroago, emakume bamezale baizen ibiltari onen ibillaldi luzea asten da, amabost urteko ibillaldia, erriz erri, ara eta ona, karmeldegi berriak sortzen. Zerk atera du Avilatik? Bere gogoz pozik jarraituko zuen ango etxexoko pakelekuan, bere alabatxo zintzoekin batean Jaunaren atsegiñezko bizitza eramaten. Baiña Erroman munduko karmeldar guztien buru egiten duena Avilan izan da. Avilako Karmeldigitxo berria ikusi eta ezin ohea iduritu zaio. Ez ote litezke beste antzeko mojaetxe batzuk geiago sortu? Eta bertatik ematen dio baimena, eta baimena bakarrik ez, agindua ere bai, olakoxe etxeak alik eta geien sortu bear dituela. Egokierarik agertzen zaionean, edo etxe berrien bat egiteko eskeintzarik duenean, Teresak ez du atzera egiterik, ezetzik ematerik izango. Eta orra bertatik Medina del Campos-eko karmeldegi berriaren ordua. Emen ere Aita Bañez-en eskua egoki etorri zaio. Egoki eta garaiz. Bazijoan Medinara bidean, moja batzuk lagun arturik, an eskeiñi zitzaizen etxe berriaren jabe egitera, eta berri txarrak datozkio

Medinatik: ez zeukatela an sartzerik, auzoko praille batzuk aurka zeuzkatela, ezetzean zeudela'erriko agintariak ere. Prailleena neronek konponduko det, esan dio Bañezek, eta ala egin du. Beste praille batek bigunduko du erriko agintarien ezezkoa. Ez da berau edozein. Gaztelan moja-praille guztientzat agintari eta arduradun jarria dago, komentuetako bizimodua berritu eta obera bidean jartzeko. Erriko batzarrean izan da, eta Ama Teresaren aurka itzik gogor eta itxusienak entzun diranean norbaiten aotik, praille orrek bertan gezurtatu eta ixildu du gaizki esalea, eta Medinako agintariak amor eman dute. Teresa bere moja lagunekin eragozpenik gabe sartu daiteke Medinako etxe berrian. Nor zan praille ori? Garai artako agiritan Pedro Fernández ematen diote izena. Baifia abizena osoago entzun dezagunean, urbilekoago egingo zaigu, noski: Pedro Fernández de Rekalde. Errioxako semea, euskaldun euskalduna ez bada ere, gure auzokoa.

Alba de Tormes

Bata bestearen ondoren datozkio karmeldegi berriak eraikitzeo deiak Amari. Eta lekuan lekuan agertzen zaizkio euskaldun laguntzailleak ekintza orretan. Goazen Alba urira, andik amabost urte barru bere illobi izango duen karmeldegira. Albako mojaetxearen fundatzaile eta eragilletzat Teresa Lariz izenez ezagutzen degun emakumea dago. Ama Teresak berak eman digu beronen berri, naiko luze eta zabal eman ere. Odol garbiko gurasoen alaba omen zan Teresa Lariz ori. Ondasunik geiegi gabekoa, baiña jatorriz aitonen alaba «de padres nobles, muy hijos de algo y de limpia sangre». Au entzunaz beste gabe, ez ote diogu euskalduna zala antz ematen? Francisco Velazquez zeritzan batekin ezkondua da, baiña seme-alabarik ez datorkie. Onek mingotzen dio emakume ari bere bizia. Alperrik zituen bere otoitz guztiak, ondorengoren baten eske. Eta bein, otoitzean dagoela zerutik bezela datozkion itzok entzuten ditu: «Bestelako seme-alabak izango dituzu zuk». Mojaetxe bat sortu bearko zuela sartu zaio buruan, zeruak orixe esaten ziola. Nolako moja-etxea, baiña, nolako jantzierakoa? Aita Frantziskotar batek Teresaren karmeldegien berri eman dio. Eta orra erabakia artu. Ama Teresarekin itz egin eta 1571garren urtean, urtarrilaren 25n, egiña zuten mojaetxe berria. Fundatzailea: Teresa Lariz, eta patroia, Simon Galarza.

Nortzuk ziran, edo nongoak ziran? Urte gutxi batzuen buruan, Alba de Tormesko eliza berri orrek lau illobi gordeko ditu: leenengoa, ederrena eta gurgarriena, Santa Teresarena. Teresa Lariz-ek eta onen senarrak, eta Galarzak ere illobi bana dute. Eta zer diote azkenengo onen, Simon Galarzaren illobian jarri ziran itzak, gaur ere irakurtzen diranak? Odol garbiko eta aitonen semea dala, Leniz edo Leintzakoa dala, Bizkaian Elorrioko aitonsemen izendegian ageri danez. Orain ulertzen degu nondik zetorren Teresa Lariz orren odolgarbitasuna: orduan bizkaitar eta giputz guztiei aitortzen zitzaiena baizik ez da. Ama Teresak ez du Fantzisko Velazquez-en odolgarbitasunik aipatu, Teresan Larizek zeukana bai. Au ta Simon Galarza aideak ziran elkarrekin. Biak odolgarbidunak. Elorrioko paperetan dago onen ageria. Bai Lariz-tarrak eta bai Galarzatarrak an daude. Elorrioko Izendegi ori gure egunotan argitara eraan dute, eta an dator, etorri ere, bien jatorria. Albako karmeldegiaeren fundatzailea

eta patroia biak euskaldunak dira. Teresa Lariz onen aide bat ere mojatako artuko zuen Ama Teresak, Burgosen nagusi jarriko zuena: Tomasina Bautista. Gasteizko Ileenengo nagusi ere bera izan zan, eta Euskalerrian zabal bizi dan abizena darama: Perea. Alba de Tormesen argi dago euskaldunak utzitako aztarna; erdaldun askok orain ixilpean uzten badute ere, ango illobiek argi itz egiten dute. Ango karmeldegia euskaldunek edo euskaldunen laguntzaz sortua da.

Caravaca

Goazen aurrera eta jo dezagun orain Andaluzia aldera. An Caravacatik mojaetxe baten eske daude. Nor da deitzaillea? Andre alargun bat: Katalina Otalora. Iru neska dauzka bere etxean artuta, moja-bizitza egin nai dutela-ta. Iruron izenean idatzi dio Ama Teresari. Albiste pozgarriagorik ezin zezakean artu. Erantzun bearco die. Iru gazte etxean sartuta, eta ez zirala andik aterako, berentzat komentu bat egiñ arte. Eta zituzten ondasunak artarako uzten zituztela. Katalina Otalorak ipiñiko omen zuen gaiñerako bear zan guztia. Lau andreon borondatea eta eskeintza ez zan aintzat ez artzekoa. Teresak berak joan nai luke bertara, baiña ezin joana gertatu zaio, eta ordezekoak biali bear izan ditu, gauzak bide onean jartzeko. Bost moja bialtzen ditu gaiñera, an zeuden iruren zuzendari eta irakasle egiñik, Karmeldegian eraman bearco duten bizimodua mojagei aiek ikasi dezaten. Ara bialitako moja aietan, bat euskalduna da, Arbizu abizenez, Iruñeko alaba. Komentu artako paper zaarrek diotenez, Katalina Otalora da mojaetxe onen fundatzailea etxean euki zituen iru gazteekin batera. Irurak jarri dute mojaetxe batek bizibidean jartzeko bear duen guztia. Otalorak, etxea eta gaiñerako geiena.

Eta emen leenego galdera bera: Nor da Katalina ori? Nongo alaba da? Otalora abizena euskalduna dala esan bearrik ba al dago? Katalina ori euskalduna zan, noski. Ortaz, Garibai, genealogi-gaietan ain zeatz eta jakintsuak, nai aña argitasun eman digu. Otalora auek Arrasate aldean, Leniz edo Leintza ibarrean sortuak ditugu. An da, Aozaratz auzoan, Otaratarren jatorria. Caravacako Katalina Aozaratzakoa da, Santxo Lopez Otalora zanaren alaba. Eta Santxo au nor degu? Ez da, ez, nortasunik gabeko gizona. Salamancan lege-gizon egin ondoren, urte luzez Karlos Vren aldamenean ibillia da, Sevillan Epaikari Nagusi izana, eta azkenez Erregeren Kontseilluko izendatua. Karlos Vn beldurrik gabe eta lasai on arzen omen zituen lege-gizon onen iritzi eta epaiak. Bere Kontseilluak gauza larririk erabaki bear zuenean, askotan galdetzen omen zuen ea Otalora batzarrean zan ala ez. Baiezkoan, «esku onetan degu arazoa» esaten omen zuen. Valladolid-ko Epaitegi Nagusia eman nai izan omen zion azkenean, baiña Otalorak, bere azken urteak pake osoan eman nai zitueta-ta, barkatzeko baiña, ezezkoa eman zion Enperadorearen eskeintzari, Aozaraza itzuli eta il arte emen bere burua gordetzeko.

Caravacako Katalina gizon andi onen alaba da. Aita Sevilla aldean zala jaioa, errege-kontseilluko gizon batekin, Alonso Muñoz zeritzanarekin ezkondua. Caravacako komentua eraikitzerakoan, alargun zegoen, eta komentuaren fundatzaile izateko aña ondasunen jabe. Ikusten degunez, Ama Teresaren laguntzaille egin ziran euskaldun askok Arrasate aldean dute jatorria.

Sevilla

Goazen orain, urteetan atzerakajoanez, Sevillaraño, Caravacakoabaiño leenago eraikia dan ango komenturekin zer gertatzen dan ikustera. Emen ere, sustraiak Euskalerrian dauzkan gizon bat aurkituko degu: Kristobal Rojas, bertako gotzai. Ama Teresa Andaluziako uri andi artara bere betiko asmotan joan zanean, usteak ustel atera zitzaizkion benetan. Gauzak egiñak zeudela edo beintzat erraz aurkituko zituela, baiña bestetara gertatu. Esan zioten bezelako erreztasunik ez zuen aurkitu. Gotzaiak berak ere ez zion bat ere arrera atsegiñik egin. Gogor artu zuen. Ez zuen onartu nai etorpiderik gabeko, errenta gabeko mojaetxerik. Orrela, errenta gabe, mojak ezinbizian geldituko omen ziran. Ala uste zuen, beste askok an eta beste lekutan bezela. Luzaro egon bear izan zuen Teresak olaxe, ezer lortu gabe, gotzaiaren baimena eskuratu ezifiik.

Ala ere, komentu berria aurrera aterako zan, Teresaren anai Lorentzo, Ameriketatik Sevillara etorri barri zanari esker. Onek ekarriko zituen errenta osotzeko edo estaltzeko bear ziran diruak. Orduan emongo zuen Gotzaiak bere baimena, bai komentu berria irikitzeko eguna osperik andienaz ospatzeko agindu ere. Eta azkenengo orduan Gotzaiak beste iñon ez bezelako omena egin zion Ama Teresari. Onek komentuko ateetan bedeinkapena eskatu zion Gotzaiari, eta bai eman ere gotzaiak. Baiña, bereala, Gotzai bera belaunikatu zan Ama Teresaren aurrean bedeinkapen eske, eta belauniko jarraitu zuen, ez zan zutitu, Teresaren bedeinkapena artu arte.

Baiña euskalduna ote degu Gotzai au? Rojas ez da noski, euskal abizena. Baiña Alzaga bai, Alzaga edo Alzega garai artan gizon andiak eman zituen abizen ospetsua da, gaiñera. Eta dakitenak badakite Sevillako Gotzai izan zan ori, Ondarribian jaioa zala, Ondarritarra zuela ama, Alzaga edo Alzega abizenez. Are geiago: Ondarribian azia zala, euskaldunen artean. Beraz euskalduna zala eskubide osoaz esan dezakegu.

Beste euskaldun batzuk Teresarekin

Teresaren ibillaldiak etenik gabekoak izan ziranik ez dezagun uste. Batez ere, 1576iik 1580ra lau urteko etena eta oporra ezarri zioten bere komentu berrigintzako lanetan. Ordurarte sortuak dituen bai gizezkoen eta bai emakumezkoen karmeldegientzat ekaitz zakarra sortu da; bere ekintza guztia bera bota bear diotela dirudi. Ekaitz au igaro arte, gauzak paketu arte, geldi egon bearko zuen, berak aukeratutako komentu batean sartuta. Lau urteko geldi egon bearra, atsedena.

Guk ere emen atsedentxo bat, geldi alditxo bat artuko degu, Teresaren inguruan ibilli diran beste euskaldun batzuegana gure begiak zuzentzeko.

Egun auetarako, moja euskaldun modoxka dago karmeldegi berrietan. Bat, napparra, Caravacan aurkitu degu. Beste batzuk Gaztelako karmeldegietan daude. Auetako bat, Bizkaiko alaba delako bat Ama Teresak Burgosera eramango du, gero ikusiko degunez, ango karmeldegia sortzerakoan. Prailletara ere sartu da euskaldunik. Bat, kronika zarrak Bizkaiko seme egiten duena, izatez arabarra, Burgosko egunetan lagun izango du Amak. Beste mordo bat Napparaoatik elduko zaio.

Baiña karmeldar ez dan beste euskaldunik badabilkio inguruan. Orra bat, Diego Estella, frantziskotarra, sermolari eta idazle bikaiña. Salamankako karmeldegia iriki zan eguneko ospakizunetan, berau izan zan sermolari. Berau ez ote zan izan Alban Teresa Lariz andreari Karmeldegi berrien berri eman ziona?

Orañiarre aipatutako gotzaiez gaiñera, beste batek ere merezi du aipamena: Martin Axpe-Sierra, Bizkaitarra, Zeanuriko semea. Gazterik izan zan Palenziako Unibertsitatean irakasle eta Burgosen kanonigo. Felipe bigarrenak bein sermoi bat entzun omen zion, eta aren itzen ederrez zoraturik, esan omen zuen: «^Sierra? ¡Qué hermosa sierra, si estuviera nevada!» Alegia, burua zuritu gabea, gazteegia zala, gotzai izateko. Baiña iritxi zitzaion adiña eta gotzaitako ordua. Palentziako gotzai egin zuten. Eta dakiguna auxe da: Palentzian irakasle edo Burgosen kanonigo zala, edo bietan, Ama Teresa ezagutu zuela eta aren animaren zuzendaritza artu ere bai. Ama Teresa santuen maillara jasotzeko Erromara eskaria egin zutenetakoa da, eta eskari artan ona, besteak beste zer aitortzen zuen: «Yo, como quien la trató familiarmente y fue su confesor alguna vez, puedo certificar a Vuestra Santidad que nunca la comuniqué que no quedase con admiración de su fe grandísima y deseos de que la Iglesia Católica se propagase... Su humildad y despego de las cosas de este mundo, su trato con Dios tan familiar con altísima contemplación, su prudencia en la comunicación y edificación del prójimo era rara». Axpe Sierra au Teresaren anima barru-barrutik ezagutu eta Jainkobidetan zuzendu zuten euskaldun elizgizonen artean jarri bearko degu, beronen berri gutxi entzuten bada ere.

Bada beste euskaldun bat, Ama Teresaren bizitzetan apamenik izaten ez duena eta esan degun atsedendaldian bi ikustaldi egin zizkiona. Arrasateko seme ospetsua da: Esteban Garibai. Artxiborik artxibo gauza zaar eta illen aztamak billatzen zebillen gizon argi oni, bein santa bizi bat ikusteko eta arekin itz-aspertu bat egiteko gogoia etorri zitzaion. Eta Toledon izan zuen aukera ori, 1577ko Pasko astean. Txartel bat eskuetan, ixil-ixillik urreratu zan Teresarengana. Txartela Aita Yepes jeronimotarrari, Teresaren konfessore izanari, eskatuta lortu zuen. Zer eraman du Garibai Teresarengana? Ura ikusi-nai utsak ez, noski. Ola izan balitz, ez zion moja jainkozaleak ikusgura ori onartuko. Eta gutxiago bigarren aldiz. Garibaik ez digu gertaldi ortaz xeetasun andirik eman. Baiña naiko degu bere aitormen au: «Con él (el billete del Padre Yepes) la hablé en su casa de las descaldas al tomo de las carretas, que después se trasladó a la parroquia de Santa Leocadia, y me consolé mucho con ella esta vez y en otra, y ella se alegró de haberla yo visitado».Gutxi al da? Teresa ikusteak eta arekin itz egiteak barruko poz andia utzi du arrasatetarraren biotzean, santa andi aren itzari zerion barne-pakezko ixuria, nonbait.

Berriz ibiltari euskaldunekin

Bein ekaitza bukatu danean, Teresaren geldi egonbearra ere bukatu da. Erromak arrazoa eta eskubide osoak eman dizkio aren ekintza osoari, eta bideak zabal ditu aurrera egiteko. Nekepean egon danarentzat jai egunak datoz. Olako jai batean, Alkalan ospatuko dan jai egunik audienean, an da euskaldun bat parte artzen, leen

aipatu degun Lorentzo Otadui, geroago Avilako gotzai izango dana, orduan Alkalako Unibertsitatean teologi-irakasle. An izan diran itzaldi eta teologi-saioretan parte artu du.

Ama Teresak orain berriz asi bearko du ibiltari. Bere bizitzako azkenengo ateraldiak izango ditu. Nekaturik eta zaaturik badago ere, al duela, ezin egon eskatzen zaizkion komentu berriak aurrera atera gabe. Oraingoak Villanueva de la Jara, Palentzia, Soria eta Burgoserako ibillaldiak dira. Azkenengo bideak, euskaldunekin, Euskalerrira bidean, ain zuzen. Urteak aurrera eta indarrak atzera dijoazkio. Ez da ibillaldi luzerik egiteko gauza. Euskalerriraiño etortzerik ez du izango. Baiña Sorian eta Burgosen gure erria bidera atera zaiola esan genezake. Sorian, Naparroa, eta Burgosen, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako aldea. Goazen gu ere berarekin eta lagun dituen euskaldunekin.

Soria

Sorian adiskide min bat du Gotzai, Toledon ezagutu zuen kanonigo bat, animako arazoetan argi andia egin ziona: Alonso Velázquez. Orain Osman dago obispo. Eta Sorian, gotzai orren mendeko urian Naparroako alaba bat bizi da, eta ez normai ere bera: Beatriz Beamonte Navarra, jatorriz Naparroako erregeen odolekoa. Alargun dago eta seme-alabarik gabe, eta bere etxea eta ondasunak moja-etxe bat egiteko eskeintzen ditu. Gotzaiak esaten dio nori eskeiñi: Ama Teresari eta onen mojei. Alik eta lasterren nai du mojategi ori egin.

Ama Teresa jakiñaren gaiñean ipiñi dute eta onek ezin ezetzik ez luzapiderik eman ez gotzai maiteari, ez andre nazar orren eskariari. Laster ditu atetan, Palentzian, iru gurdi dotore, zaldi eta zaldi-zain apaiñekin, gotzaiak eta Beatriz naparrak bialita. Lau eguneko bidaldia dute Palentziatik Soriarra, patxararik ederrenean egindako bidaldia. Bere bizian ez omen du Teresak olako bidaldirik, ain eroso eta ain ongi lagundurik, egin; Sorian ongi etorri zabalena izan du gotzaiaren eta Beatrizen aldetik. Eta gero arazoa beingoan konpontzen dute. Bi emakumeok elkarrekin ongi erraz konpontzekoak dira. Beatrizek ez ditu bere etxea eta ondasunak bakarrik mojentzat uzten; bere odoleko mojagei bat ere bai, Leonor Ayanz, Frantzisko Xabierren aide egiten zana. Sorian jarraitzen du Teresak bi illabete eta erdi, Beatrizen etxea moja-etxetako egokitzeko lanetan. Soria munduko azkena egiten zitzaiole-ta, onela itz egiten omen zien mojatxoei: «Ea, ene alabatxoak: munduko azkeneariño etorri zerate, eta ez dezute orain atzera egiterik; ekin aurrera, Jainkoaren bidetan».

Munduko azkena? Bai ta zera ere! Andik oso urruti gabe asten da Naparroa, eta andik bi urtera an izango dira, Iruñen bertan, Teresaren alabak, Sorian nagusi utzitakoa, Katalina de Kristo, buru zutela.

Sorian dala, datorkio, Bizkaian, Orduñan, bere karmeldegi bat ipintzeko eskea ere. Baiña azken-egunak gaiñean dituela ikusirik, onela idatziko dio bere alabaetako bati: «Orduñara ezingo naizela joan uste det». Ala ere, biderdiraiño, bai, joango da. Burgoseraiño. Eta zergatik? Andik Bizkaiko alaba batek egin dion eskeari ezetzik ez ematearren.

Burgos-en

Uri onetara, Burgosera bai joango ez joango, ez du zalantzarik eta kezkarik gutxi erabili, orraitio. Burgosko gotzai Kristobal Vela da, Avilako semea, Teresaren beraren senitartekoa. Baietz esan dioten arren, naiko ote du benetan bere eliz-barrutian mojaetxe berririk artu? Eta Uriko agintarien baimenik, lortuko ote da? Avilan beiñola gertatua bera ez ote zaio an ere gertatuko? Gaiñera negua da, Burgosen aparteko otzak eta gogortasuna izaten dituen. Eta Teresaren osasunak nola erantzungo ote du? Izango ote du arako bidean jartzeko kemenik? Ori, alde batetik. Baiña bestetik, Bizkaiko andre orrek berri onak bialtzen dizkio. Leen Teresaren karmeldegietan lau alaba dauzkan emakumea da, eta orain Burgosen karmeldegi berri bat sortzeko itxaropen amesgarriak pizten dator. Nola andre orri bere amesa egi biurtzeko poza ukatu? Eta onela dio: «Sólo por esa bendita Catalina de Tolosa, que tanto ha puesto, cuando he leído sus cartas, quisiera darle contento».

Jaunak, otoitzean, beldurrak uxatxeko itzak belarrirratzen dizkio: «Zeren beldur zera? Egiatzko beroa Neu nauzu». Ala, azkenez, nagusien baimen eta on-iritziarekin, bidean jartzen da, karmeldegi berrirako moja-mordoa lagun duela. Bat, len esan degunez, Bizkaiko alaba. Lagun ditu bi praille ere: Jeronimo Gracián, Aita Probinziala, eta bestea, Pedro de la Purificación, kroniketan «vizcaíno» deitua. Arabarra, Argantzuko semea (Puebla de Arganzón). Emengoa izateak ez zion eragozpenik ematen, arabar eta euskalduna deitua izateko, gaurko egunetan bezela.

Bere bizitzako azken-urtea du, 1582garrenekoa, eta neguaren biotza da, urtarillaren azkenaldea. Palentziatik Burgosera bi eguneko bidaldia dute. Bideak, euriteak eta elurteak lokaztuak. Ibaiak, gaiñez egiñik, bideak eta alorrak estaltzen. Zubi batzuk urpean estalirik.

Soriako bidaldiaren aldean, oso bestelakoa gertatu zaie oraingoa. Noizik bein, amak bere alabak adoretzeko, itz azkargarriak esan bearko dizkie: «Ea, alabatxoak, ez beldurtu; zer dezute naiago, Jainkoaren maitez martiri iltzea baiño?» Edo beste bein, zubi estali baten aurrean: «Neu joango naiz aurrena; eta ni galdua banaiz, zuek ez aurrera egin». Azken, batean, iritxi diranean, ba dute soiñekoak txukatu eta legortu bearra, eta atsedenaldi baten premia. Bear zuten guztia zeukan Katalinak prestatu bere etxean: su ederra, aparti beroa eta lotarako guztia: «Tenía gran lumbre para enchugar el agua. Descansamos aquella noche con mucho regalo que nos hizo aquella mujer».

Burgosko naigabeak

Urrengo egunean, nekeak eta naigabeak elkarren gaiñean datozkie. Eta naigaberik mingarriena gutxien usteko zuten aldetik dator, gotzaiaren aldetik. Uriak ongi-otorri zabal pozezkoa egin die moja etorri-berriei. Baifia Ama Teresa, baimen-ageri eske Gotzaiarengana joan danean, ura asarrezko arrera egin zaiona! «Nik ez dizut baimenik eman —entzuten du gotzaiaren aotik—; itz egingo genuela baizik ez nizun esaten. Zu etortzea, bai, nai nuen, baiña ez ola moja lagunekin. Obe dezute ekarri zaituzten bidetik atzera itzuli». «Bai, argiak zeuden bideak—esango zuen amak bere

barrurako—, atzera itzultzeko». Alperrik izango dira adiskide andienen erreguak, uriko agintarien eskeak. Alperrik Alvaro Mendozaren, Avilakoa gertatu zanean ango gotzai zanaren eskariak. Ez zuen amor emango, arik eta, gutxienez, etxe berri bat billatu arte, eta bizitzeko errentaduna, gaiñera; Katalinaren etxeak, gotzai arentzat, ez zuen mojentzako balio. Urte batzuk leenago, etxe artan izan zuten jesuitek beren bizilekua, kapilla eta guzti. Ama Teresaren mojentzat ez zegoan inõlazko erreztasunik. Meza entzutera auzoko elizetara joan bearko zuten.

Illabete igarotzen dute, egoera ortan, Katalinaren etxean, jai eta igandetan meztakoa baizik kaleratu gabe, aren eskutik edo ark emandakotik jaten zutela. Katalinaren eskuzabalak arriturik dauka Ama Teresa: «Hízolo tan bien Catalina de Tolosa, que era tan regalada, y con tanta voluntad nos dio de comer, como si fuera la madre de todas».

Gertatzen zaienaz errukiturik, adiskide batzuk asmatu dute egoera ori arintzeko modua. Uriko gaixoetxean antolatzen diete mojei berentzako zokotxoak. An, beintzat, inõra irten gabe, izango dute egunero meza entzuteko aukera. Nekeak neke eta naigabeak naigabe, Ama Teresak eta Catalinak ez dute barruko pakea galtzen. Bata eta bestea zoli dabilta gotzaiaren eskakizunei erantzuteko modu billa: etxe berri bat billatu eta naiko errenta ipiñi: orra dana. Etxerik billatzea, ordea, ez da gauza erraza. Illabeteko joan-etorriak bear izan dituzte. Noizbait, gutxien uste zuten lekuan aurkitu dute bat, oso egokia, guzien gogobetekoa. Errenta-arazoa Katalinak berak konpondu du bere ondasunetatik. Orain gotzaiak ez du izango zeri eldu baimena ukatzeko. Ala dirudi. Baiña oraindik illabete luzatuko du ematea. Iru illabeteko nekea Teresarentzat eta Katalinarentzat.

Egun aietan askotan gelditu dira Teresaren begiak bere ongilleari, Katalinari begira. Arriturik ikusten du aren kristautasuna, aren biotz andia eta egoarria, aren adorea ta kemena. «Santa viuda» dala esaten du, ao betean. Ainbeste eragozpen ikusirik, andia zan emakumearen naigabea, baiña ez zuen garratzasunik bat ere erakutsiko... Ez zuen inõrentzat itz gaiztorik. Jendearen esames eta gaizki esanengatik ez zuen miñik artzen. «Bazirudien Jainkoak erakusten ziola nola moldatu batzuen atsegiña egiteko eta besteen gaizki egiñak onez eramateko, eta adorea ematen ziola, dana egoarriz artzeko». Odolgarbikoa ere bazan: «No le faltaba mucha limpieza en el (linaje) suyo, que es muy hija de algo». Aitonon alaba, odolgarbikoa, andikitarra, baiña andikiagoa bere animan, bere barruan.

Bein eta berriz gogoratzen eta goersten ditu, Teresak bere laguntzaillearen biotz zabala ta barruko pakea: «Oh, lo que pasó en esto Catalina no se puede decir. Todo lo llevaba con una paciencia que me espantaba». Orregatik ere, Teresaren pozak ez du neurrik, gotzaiaren baimena lortu danean, baiña beragatik baiño geiago Catalina orrengatik, onen naigabeak amaitu diralako. Egun batzuk lenago, Katalinaren naigabea ikusita, «ver lo que ella pasaba me daba harta pena». Gero, naigabeen azkena etorri danean, «el alegría de la buena Catalina y de las hermanas era tan grande, que a mí me hacía devoción».

Iriki zan, bada, komentu berri ori, eta andik egun gutxi barru, Katalinaren alaba batek artzen zuen bertan Karmengo mojen soiñekoa. Gotzai jaunak, aurreko egunetan

ainbeste ezezko eta min eman zienak berak eman zion. Elizkizun artan guztiak ikusi al izan zuten gotzai ori (Ama Teresak eta Catalinak ere bai) eman zizkien naigabe eta ordu gaizto guztiengatik negarrez eta parka eske.

Burgosko gorabera guztiok amaitzeko, entzun ditzagun orain Ama Teresa beraren itzok: «Jainkoaz landa, etxe au egitea Catalinari zor zaio». Ola idazten zion berak Burgostik, Sevilla-ra, ango karmeldegiko Ama Nagusiari: «Después de Dios, por ella se ha hecho esta casa» (14-VII-1582).

Katalina, euskaldun

Katalinaren euskalduntasuna Teresak berak adierazi digu bere «Fundaciones» liburuan, ain zuzen aintxe Burgosen bukatu zuen liburu ortan: «Una santa viuda, Catalina de Tolosa, natural de Vizcaya..., de grandes limosnas y caridad, de buen entendimiento y valor». Gauza au argi dago. Nik ez dakit zergatik orain Burgostar batzuk gauza argi au ixiltzen saiatu diran. Euskalduntasun ori ez dago ukatzerik. Egun aietan andre ori Sebastian Muntzaraz zanaren alarguna zan. Biak euskaldunak, Burgosen merkatari bizi izan ziranak, merkataritzan beren dirutxoak egiten. Euskaldunak ziran. Baiña nongoak? Au ez dago ain argi. «Natural de Vizcaya» ez zan garai artan Bizkaikoa zala esatea. Baifia bai euskalduna zala. Katalinaren alaba batek urteak geroago, «natural de Vizcaya en Guipúzcoa» egiten du bere ama. Garai artako nastea daukagu emen. Bear bada, senarra Bizkaiko semea zan eta emaztea, Gipuzkoako alaba. Biak euskaldunak, nolanai ere.

Baiña emen esan degunaz ez da bukatzen Teresak Katalinari zor izan dion guztia. Ordurako lau alaba emanak zeuzkan Teresaren karmeldegietarako. Bostgarrena Burgosen bertan. Bi seme ere karmeldar izateko eman zituen. Eta, azkenez, seme-alaba guztiak eman ondoren, bera sartu zan moja, Teresaren mojetakoa. Abitua jantzi zuenean, seme bata izan zuen emaille eta elizkizuneko izlari. Santa Teresak zerutik guztizko atsegiñez ikusi bearko zuen, bai orixe, andre euskaldun onen azkenengo emaitza.

II

EUSKALERRIAN ZEAR TERESAREKIN

Beste ibillalditxo bat egin bear degu orain. Avilako andre andiari Euskalerrian zear lagunduko diogu, gure artera etortzen, emen ibilli ta gelditzen. Bere bizian guretarrak Teresagana jo zuten, Teresari bide-lagun egin zitzaizkion. Bein Jaunaren betiko etxean sartzeko bizien mundutik betiko zoriondunen artera joan danean bera dator gugana. Nola? Emen sortu zaizkion seme-alabetan, emen eraiki diran eta iraun dirauten karmeldegietan. Fray Luis de León entzutetsuak bein esana datorkigu gogora: «Nik ez nuen Ama Teresa lurrean bizi zala ezagutzerik izan; baiña zerura aldatu zan ezkeroztik, berak utzitako bi ispillutan ikusten det: bere alabetan, eta bera liburutetan».

Euskalerrian ere olaxe ikusten degu: berari jarraituz, emen dituen seme-alabetan, batez ere. Anima bikain eta santuen zoria orixe da: alde egin dutenean, urbillago gelditzen zaizkigu, gure artean sartuago. Gerotik gerora ezagunago ditugu. Ama Teresak munduan lortu ez zuena, geroko bizian lortu du: Euskalerrian barru-barruraino sartzea. Luzaro gabe Euskalerria aren karmeldegiz betetzen da, andrezko eta gizonetzko karmeldegiz.

Teresa gure emakumezkoen karmeldegietan

Ikusi dezagun labur eta gain-gañeko begirada batez bederen. Alabak, mojak etorri izan dira aurren. Soriatik eta Burgostik abiatuta. Teresaren beraren eskutik datoztela esan daiteke. Soriatik Naparroako Erreñura, Iruñera datoz; Burgostik, Gasteizera. Teresak Sorian bi urte lenago nagusi utzi duena bera dator Iruñera nagusi: Catalina de Cristo. Tomasina Bautista (Perea, Albako fundatzaile dan Teresa Larizen senitartekoa), dator Gazteizko karmeldegia eraiki eta bertako nagusi izateko, Ama Teresa ilda bost edo seigarren urtean. Teresaren gizaldian bertan sortuak dira karmeldegi biok. Urrengo mendean, XVIIkoan, emen ditugu Gipuzkoan sartuta (gero ikusiko degunez, obe legoke «sortuta» esatea) 1614, Teresa zoriondunen maillan ipiñi zuten urte berean. Mende berean, 1663garren urtean Donostian sartzen dira, eta emezortzigarrenean Korellan eta Lesakan (1722, 1767).

Emeretzigarren mendeak loraldi berria dakar karmeldegientzat. Teresaren anima eta itzalpea gure bazter geiagotara zabaltzen da. Orra karmeldegi berriak Baionan (1863), Murgian (1889), Markinan (1890), Begoñan (1896), oraintsu Getxora aldatuan, Azkoitin (1899), eta Salvatierran (1897) (Agurain, Frantziatik aldatua eta oraintsu utzia).

Gure mende ontan, XXkoan, loraldi au aurrera joan da: Betoño (1905), Zarautz (1906), Etxabakoitz (Iruñeko bigarrena, 1910), Zaldibar (1925), Durango (1945), Donamaria (1945), Orduña (1946), Ondarrabia (1951), Gasteiz (1952), Meñaka (1957). Ez da gaur munduan, lurrez lur, gure erria baiño karmeldegiz beteagorik.

Gipuzkoako batek aipamen berezia merezi duela uste degu: Zumaiakoak. Gipuzkoan sortutakoetan leena da, ain zuen, Zer du apartekorik? Ez dala beste guziak sortu diran bezela sortutakoa. Beste mojaetxe guztiak, beste nonbaitetik mojak ekarrita, sortuak izan dira. Orrela, guztiak nolabait, Avilako San Josekoan dute sustraia. Zumaiakoak, ez. Emengoa, bertan sartu, bertan mojjantzi etaberton azitako mojjekin sortu eta beteiz izan da, beste iñork kanpotik ekarri gabea, Ama Teresak zerutik zuzen sortu balu bezala. Onen antzekorik besterik ez dago munduan.

Teresa gure gizonezkoen karmeldegietan

Eta Teresa gure artean bizi da emen eraiki diran gizonezkoen karmeldegietan ere. Aren bizian euskaldunen mordotxoa joan zan Gaztelerrietara; karmeldar berriztuen soñekoa jatzeko. Baiña bertoko prailleekin bertan prailletxeak sortzea Ama ilda

gerokoa da. Eta leen sarrera Naparroatik egiten dute, Iruñetik. Iruñeko komentua 1587koa da, beraz, Teresa ilberritakoa. Euskalerritik zetozen praillegei berriak artu eta azteko asmoz egiña. Mende berean eraikitakoak dira Korellako eta Tudelako etxea (1595, 1597).

Urrengo mendean Bizkaiko ta Gipuzkoako prailletxe batzuen aldia da. Bilbon sartzen saiatu ziran, 1618n; baiña emengo etxeak ez zuen iñoiz nortasun osorik iritxi; bidezkoen ostatu-maillan gelditu zan beti, iru-lau praillekin. Urrengoa, Gipuzkoan Lazkaokoa degu, 1641 egiña. Mendearen azkenerako, 1691gn, Markiñakoa sortua da.

Aipamen berezia zor zaio Lazkaokoari. Ona labor esanik zer gertatu zan. Lazkaoko Maria Antonio Okendo Almirante ospetsuarekin ezkondata bizi da, eta urteetan ez dute seme-alabarik. Maria kezka eta naigabe orrekin dabil, eta Santa berri anditzat dagoen Teresaren entzutea izan du, eta beronengana jo du otoitzean bere naigabea. Lazter bi seme-alaba datozkio: Teresa eta Antonio. Teresa 19 urterekin il da, baiña ez bere borondatea, azken-naia adierazi gabe. Bere izeneko Santaren izenpean Lazkaon praille karmeldarren etxe bat eraikitzea nai du. Andik bi urte gabe, egiña zegoen komentua: 1641n. Emeretzi urte leenago, Santuen maillara jasoa izan zan Ama Teresa, eta munduan Santa onen izena artu zuten prailletxetan leenengotakotzat artu genezake Lazkaokoa... Euskalerriko prailletxetan ango eliza Teresaren argirik geien dariona dala esan bearko degu ango aldare eta idurietan ikusten danez: Gaiñera, badirudi egin zutenak gogoan izan zitela beiñola Jaunak Teresari esana: alegia, esku batean Andre Maria, eta bestean Jose donea izango zituztela zaitzaille. Olaxe dago emen: elizan sartzen geranean, alde batean Karmengo Ama eta bestean Jose donea dauzkagu, aldare banatan jarrita.

Goazen aurrera. Emezortzigarren mendean, or sortzen dira Bizkaian Larrea, Sestao eta Balmasedako prailletxeak (1713, 1718, 1727). Eta Naparroan, Villafrancakoa (1723). Emeretzigarren mendean, ondamendia dator, alde batetik, eta piztualdi berria, bestetik: gobemuak komentu guztiak itxi eta prailleak bota egiten ditu, baiña iñoiz ez bezelako indarrez sortzen dira gero. Sestaokoa, Balmasedakoa, Lazkaokoa, Tudelakoa eta Bilbokoa ezik, beste guztiak datoz leengo prailleen eskuetara. Eta berriak galdu diranak baiño geiago dira: Begoña (1880), Gazteiz (1890), Donostia (1910), Altzo (1917), Amorebieta (1933), Eibar (1935). Eta Astigarrako eta Iruñeko bigarren Karmeldegi orain berriki sortuak.

Gogoan artzekoa da Lazkaoko karmeldegiaekin gertatua. Berriz ere aipamen berezia zor zaio Lazkaori. Karmeldarrek emendik nai izan zuten beren lengo komentuak eskuratzen asi. Lazkaoko seme karmeldar baten eskuz asi ere. Nor zan berau? Aita Manuel Elozegi Albizu, antxe bere jaioterrian Karmengo Amaren soiñekoa artua, 1839n Frantziara igesi joana 22 urte zituela, eta Frantzian Agen-go nagusi izana. Ate asko jo zituen bere asmoa lortzeko. Baiña ez zuen lortu. Ez zuen iritxi komentuaren patroï eta jabe egiten zuen jaunari, Valmedianoko Markesari, amor emanaraztea. Eta Markiña aldera zuzendu zituen bere alegiñak eta Bizkaiko uri onetan asi zan komentu zaarren berreskuratzea. Markesak, urteak geroago, amor emango zuen Bidasoaz andik etorritako beneditarren alde eta an jarraitzen du Ama Teresak bere eliz-atariko iruditik Lazkaotarrak bedeinkatzen eta Benito donearen semeen eliz-

otoitz eta kantuak entzuten. Azken urteotan beneditarrek oso berriztu eta txukundu dute Avilako Santa andiaren izeneko eliza eta prailletxea.

Alaba berriak

Baiña Teresa ez da bizi gure artean aipatutako praille-mojetan bakarrik. Santa Jainkozko onek arnasa emanik, or sortu dira ainbat famili eta erlijio-talde emakumezko: Karidadekoak, Teresaren Kompañiakoak, Teresianak, Karmeldar mixiolari eta Teresaren Aizpak. Gure artean bada guztietakorik. Gure erriak badu aien berririk eta askotan ikusten ditu: gexoetxeetan, ikastetxeetan eta mixioetara joanak; gorputz eta animen onetan lan eta lan, guztien serbitzari, Marta eta Maria, otoitza eta maitasun-ekintza bat egiñez, Teresaren irakatsiei jarraituz, aren ikurripetan, bera eredu eta irakasle dutela.

Zer esan nai du onek? Teresa gure artean sartu-sartua degula, bizi-bizirik daukagula.

Teresa errian

Eta moja-prailen etxetan bakarrik ez da bizi, errian ere bai.

Teresaren berri eman zuten leenengoko liburu zaarrenetan, Aita Riberak eta Yepesek idatzitakoetan, irakurtzen degu, esaterako, nola zabaldu zan Bizkaiko erri batzuetan moja santa onen izena eta ospea, ilberri-ilberfitan. Jesuita batek ekarri omen zituen aren erliki batzuk Durangoaldera. Erlikiok mirari andiak egin omen zituzten Mañarin eta Durangon gorputz-animetan, batez ere buruko gaitzduetan. Laster zabaltzen da inguruko auzoetan mirarien entzutea. Eta erliki geiago ta geiago bialti bear dituzte, Teresaren gorputza gordetzen duen mojaetxetik, Alba de Tormestik

Bizkaian Teresari artu zitzaion eraspen eta zaletasuna norañokoa zan antz emateko, argibide garbia degu Bizkaiko Batzarrak Gernikan 1676ko bagillaren (ekainaren) 20n artutako erabakia: Albako karmeldegiko ama nagusiari bosteun dukat bialtzea an Teresaren gorpuzkien aurrean beti pizturik egon bearke zuen argi bat ordaintzeko, Santa Teresak Jainkoari Bizkaiko Jaurerriaren onerako, eta bizkaitar guztien osasunerako, erregu egin zezaion.

Erraz ulertzekoa da urrengo mendeetan, karmeldar seme-alabak emen ugarituz, Teresarenganako joera eta zaletasuna beroago egingo zala. Batez ere, Bizkaian Markiña eta Larreatik eta Gipuzkoan Lazkaotik zabaldua. Lazkaok jai egiten zuen Teresaren eguna. Eta Larreak are geiago esango nuke. Larreakoa gure egunotaraiño ezagutu degu. Ara biltzen ziran inguruetako apaiz asko beren eliztarrekin. Larreakoa ikusita, askotan entzun izan diegu Gaztela aldeko eta Avila bertako giroa ezagutzen zutenei, Larreakoa bezelako jaialdirik ez zutela ezagutu, ez gurea bezelako berotasunik ikusi, Teresari jai egiteko.

Bear bada, gaur, gauzak aldatu egin dira eta otzago daude. Baiña beste gertakizun bat ikusi al izan degu, Santa andi onen anima eta barrua urbillago jarri diguna: beronen liburu batzuk euskerara itzulita. Leenago bagenituen bizitza labur batzuk euskeraz. Gaur berak idatzitako libururik mamitsuenak dauzkagu geure izkuntzan: *Camino de Perfección* eta *Las Moradas (Onbidea eta Egoitzak)*. Ez ote dago argi Santa Teresa ez dala emen batere arrotz, gure arteko eta barruko egiña degula? Gure artean (berriz esando det), lurrez lur, beste iñon baiño etxe eta jarraitzaille geiago izan ditu.

Euskaldunekin kanpora ibiltari

Are geiago: gure Teresa, euskaldunak lagun, ibiltari ikusi dezakegu bere bizian bezela, erriz erri osterara ere. Ibiltari Frantzialdera. Gure artean Gobernuak emengo komentuak itxi eta prailleak atzerrira bidean ipiñi zituenean, askok Frantziara iges egin zuten eta ango Karmeldegiak, Frantziako iraultza ezkerro illik zeudenak, berpiztu egin zituzten eta berriz Teresaren itzalpean jarri. Ibiltari Gaztela aldera eta arago. Markiñan asitako lenengo etxeen berreskuratzea Gaztelan zear Valencia eta Andaluziaraiño eraman zuten. Teresaren azia Portugal eta Ameriketaraiño, Asiako India-raiño eta Afrikako biotzeraiño zabaldu dute. Orrela, Ama Teresak euskaldunen bitartez eta euskaldunak lagun, ibiltari jarraitu du karmeldegi berriak, aren izenez, eta aren erakutsien usai onez bazterrak lurrindu eta girotzen.

Nik uste, ez degula ezer asmatu ez gaintxuritu. Esan ditugunak ez dira itz utsa, esan utsa; gauzak izan ere ala dira. Ama Teresa, Avilako Teresa gaur mundu guztiarena, Eliza osoarena da, egia. Euskalerrarena ez da beste iñorena baiño gutxiago. Alde askotatik begiratuta, gure artean ez ote dago beste iñon baiño sustraituago? Ez ote du emen beste iñon baiño biziago jarraitzen?

DURUELO*

1568'garren urtean Urrila'ren lenengo egunetan lekaide (praille) gazte bat yoyan Avila'ko erri txiki baterantza. Duruelo zan erritxoaren izena. Lekaide gaztea be nor zan ba-dakitu: karmeldar oñutsak geure aita nausitzat dogun Deun andia, Gurutzeko Jon Deuna. Berak eta beste karmeldar zartxo batek, asmo andi bat erabillen: Teresak karmeldar lekaimeakaz (mojakaz) egin ebena lekaideakaz edo prailleakaz egin; karmeldarren bizibidea latzagoa egin, edo obeto esateko, bizibide orreri azkeno urteetan ezarri ta sartu yakozan biguntasuna eta erreztasunak lengo laztasun eta estutasunera biurtu, karmeldarren bizierea leneratu. Ordurarte baño latzago, ildura ta nekegarri geyagoz, txiroago ta bakarrago bizi gura eben, eta bizibide ori asteko, axe Duruelo'ko basetxe txiki ta txatxarra baño egokiagorik ez eben zuzendu. Eta etxe orreri lekaidetxetayua emoteko-ta, Jon Gurutzekoa yoan zan aurretik.

Bertaratu zaneko, lurrean auzpez jarri ta pozik bai pozik eskerrak egin eutsozan Jaunari. Gurutzea ta ildurak (penitentziak) gura ebazan bere biotz adoretzuak, eta bere gogo ori opatuteko, antxe eskintzen eutson Jaunak erarik egokiena. Biamonean, mezea esanda gero, Teresa Deunak beren-beregi yosiriko yantzi-barri bedeinkatua soñean ipiñi, ta karmeldarren antziñako lege ta bizibidea oso-osoan, zeatz eta bape biguntasunik barik betefako agindua egin eban. Antxe bakar-bakarrik bizi izan zan antziñako basamortuetako deunen laztasun eta bizitza egiñaz laguna etorri yakonarte. Laguna etorri azkenean beste mezarik bako anai bategaz eta Abenduko lenengo domekaz, Azila'ren 28'garrenean bizibide barria bete-beteen azi eben.

Ango txirotasuna ta dana-bearra, ango laztasuna arritzekoak ziran, eta lazter asi ziran inguru guztiak deuntasun-usañez betetzen. Dana zan an txiroa, apala ta bape zer-ikusirik bakoa. Lenago kortea zana euken eleizatatzat eta lenago kamara edo sabaia

* Karmengo Argia 5 (1935) 272-273.

zana korutako. Yantokian ez euken beste mairik ol bat baño, ez beste edontzirik kubi edo kalabaza-azala baño. Koruak erdian bakarrik eukan zutunik egoteko beste goi; bertara sartzeko ta mezea entzuteko burua asko makurtu bear eben, sarreran eta aurrean, eleizara begiratzeko lekuan oso apal eta makurra zalako. Eleizaren albo bietan, eleizara begiratzeko leyo banagaz, gelatxo bi eukezan, oso txiki ta apalak eta euretan be makurtuta edo etzunda ezik ezin zutunik egon. Oeak bedar igarrezkoak ebezan, eta burukotzat, barriz, arri andi bi.

Eleiza, koru ta geleen apaingarri, zurezko gurutzak eta illen buru-azurrak baño eziran ageri. Etxea orren txiro ta apala zala yakiñezkero, ango biziera latza ta ango lekaideak artu bearko zituezan neke ta ildurak asmatzen ezta gatx. Etxe zulatu areri edonondik sartzen yakon axea, euria ta edurra be, ta nai ta nai ez asko jasan bear bertako lekaideak otzez eta ezotasunez.

Gaberdian otoyetara (errezueta) jagita, ez eben geyago lorik egiten; gogartean eta otoyetan emoten eben goxerarteñoiko gaualdi guztia, ta sarri askotan telatu-zuloetatik sartzen yaken edurraz bete ta zuri-zuri agertzen ziran urrengo goxean; baño biotzean sutan euken Jaungoiko-maitasunaren beroaz ez eben igarri be egiten.

Otoyakaz eta ildurakaz (penitentziakaz) barruak orren bero eginda gero, sarri urteten eben alboko errietara Jaungoikoaren itza zabaltzen eta ango gizon ezjakiñei kistar-ikasbidea irakasten. Itzakaz baño egiteakaz geyago irakasten eben orraitio. Naiz euria naiz edurra zala bidaldi luzeak egiten ebezan guztiz ortozik, ta goxean etxetik baraurik urtenda, illuntzerantzean barausi barik etorten ziran etxera. Jaungoiko-maitasunaren suaz ez eben ez otzik ez goserik asmatzen.

Orra Duruelo'n lenengo etxean egiten zan bizitza. Ordurezkerok asi dira karmeldarrak, euren ikasle ta aita Jon Gurutzekoa dabela, munduan zear zabaltzen. Zenbat karmeldarren etxe ez ete dira egin arrezkerok, eta etxe orretatik Jon Gurutzekoa ta Teresa Deunaren semeak zenbat leku ez ete dabez deuntasun-usañez bete eta Jaungoikoaren legeko irakatsiz argitu?

EN TORNO A UNA FECHA CENTENARIA*

Cuando en 1251 S. Simón Stock, General de los Carmelitas, fue favorecido con la visión de la Virgen y con el regalo del Santo Escapulario, terminaba felizmente una etapa de la historia carmelitana que apenas hacía tres lustros se había iniciado. Fueron tres lustros, fueron quince años de tanteos y de pruebas, quince años de angustias y de zozobras, en medio de las cuales las palabras de la Virgen traían augurios de definitiva bonanza.

Remontémonos a los años próximos al 1235. El peligro musulmán amenazaba al Carmelo y a sus pacíficos moradores. Ante la desunión de los príncipes cristianos y la defección y rebeldía del Emperador Federico II, la suerte de la Cristiandad en la Tierra Santa parecía estar echada. El Carmelo, como más tarde se encargaron de confirmarlo los hechos, seguiría la suerte de las armas de los cruzados. Ante el avance victorioso de las huestes de Mahoma y la perspectiva de un fatal desenlace a mano de ellas, nos dice el cronista Guillermo de Sanvico «muchos religiosos del Carmelo comenzaron a turbarse; atemorizados por las frecuentes incursiones de los infieles, de los que sufrían sobre todo los monasterios más apartados, quisieran muchos abandonar la Tierra Santa y volver a ser posible a sus países de origen en Europa, con la intención y deseos de levantar allá monasterios de su religión, donde con más seguridad pudieran servir a Dios y a su Madre la Virgen Santísima». Hay naturalmente entre ellos muchos que se resisten a la idea de tener que abandonar la Tierra Santa, y más que todo el Monte Carmelo, la cuna de la Orden. Para resolver la cuestión hay Capítulo en el mismo Monte Carmelo. Y el Prior, Fr. Bertoldo II, pesadas las razones en pro y en contra, y «advertido en sueños por Cristo y su Madre Santísima», aprueba la idea y autoriza las primeras emigraciones.

* El Carmen 21 (1951) 182-184.

Los religiosos que parten siguen diversos rumbos, según el país de su origen. Los unos originarios de Chipre, saltan a esa isla; otros, naturales de Sicilia, navegan rumbo a sus puertos; otros más, oriundos de Francia, llegan a sus costas y desembarcan en Marsella. Dos o tres años más tarde sale otra expedición: son carmelitas ingleses, que con la bendición del Prior del Monte Carmelo y a petición de dos caballeros ingleses, Juan de Vescy y Richard Grey, que han luchado contra el mahometano en Palestina, parten para las islas Británicas. Ninguno de los monjes llegados a Europa ha renunciado a la más cara ilusión que han traído: la de propagar la orden de Santa María del Monte Carmelo. Los chipriotas se establecen en Frontana, Famagusta y Nicosia. Los que arribaron a Sicilia fundan en Mesina. Los franceses llegados a Marsella levantan el eremitorio de Aygalades, a una legua de aquel puerto, y fundan también en Valenciennes. Estas fundaciones no son sino como cabezas de playa para ulteriores avances. Los sicilianos invaden la península italiana. Los franceses progresan a lo largo y ancho de su territorio, y penetran en Bélgica. En Inglaterra, donde dirigen la obra de las fundaciones los mismos Superiores Generales, Alano y Simón Stock, que han establecido allí su sede, surgen los conventos de Aylesford, Hulne, Cambridge, Londres, Oxford... Antes de diez años las Islas Británicas serían el centro de gravitación de toda la Orden.

La empresa no pudo haber comenzado bajo mejores auspicios, cuando he aquí que se levanta la contradicción y la prueba, que es el sello de las grandes obras de la Providencia divina. Fue una contradicción terrible y tenaz, que esgrimía las armas más terribles, las leyes mismas de la Iglesia, y que partía del elemento más sagrado, los obispos y rectores de iglesias. (¿Qué novedad era ésta que se iba introduciendo en la Iglesia con la aparición de estos religiosos fugitivos de Palestina? ¿No caían de lleno sobre ellos las prohibiciones del Concilio IV de Letrán, de reciente celebración, que prohibía la introducción de nuevas reglas monásticas y la institución de nuevas órdenes religiosas?)

San Simón Stock, recientemente nombrado General de la Orden, afrontó con tino la nueva situación. Acude al Sumo Pontífice. Inocencio IV dirige al pueblo cristiano unas sentidas cartas apostólicas, exhortándole a recibir con benevolencia y hospitalidad a los nuevos religiosos que huyen de la amenaza musulmana en Oriente, concediendo indulgencias a los que los amparen y socorran. Con iguales recomendaciones escribe a los obispos y rectores de iglesias. El Santo General obtiene también una nueva aprobación de su regla. ¿Callará con esto la oposición? De ninguna manera. Ni las llamadas pontificias a la hospitalidad, ni la aprobación de la regla con las nuevas modificaciones tenían para los enemigos del Carmelo un alcance y significado que asegurase la subsistencia de la Orden en la Iglesia; daban a los religiosos derecho a la limosna de la hospitalidad, mas no a recibir novicios o reclutar nuevas vocaciones, ni a ejercer ningún apostolado sobre el pueblo cristiano.

La cuestión era de vida o de muerte. Estaba en litigio la existencia misma de la Orden. Era por los años de 1250 al 51. «Los hermanos, dice el citado cronista Sanvico, en la imposibilidad de hallar favor ante las autoridades eclesiásticas en tal trance, acudieron humildemente a la Virgen María, su Patrona, para que los librase del peligro en que les ponía el infierno, ella que los había conducido a estos países».

Por su parte San Simón Stock hacía día y noche a la misma Virgen la conocida oración: «Flor del Carmelo, viña en flor, esplendor del cielo, Virgen singular; madre piadosa, pero virginal, a tus carmelitas da privilegios, estrella del mar».

Toda la Orden ha comprendido la gravedad del momento. ^Se habrían equivocado los que aún no hacía quince años habían ingenuamente creído salvar la Orden, emigrando a Europa, considerando que ello redundaría en gloria del Señor y de su Madre, la Reina del Carmelo? ^Fue pura ilusión la visión en que la Virgen animaba al Prior del Monte Carmelo, Bertoldo, a dar el paso, considerado como la única solución salvadora? ^Se iría al traste la obra de quince años con tanta ilusión emprendida? «Carmelitis da privilegia», repetía San Simón Stock. «Cese, Madre, esta nuestra angustia, acalla esta persecución. Ellos invocan la ley. Haz que se legalice definitivamente nuestra situación; no permitas que tu Orden perezca».

La Virgen trajo su respuesta un 15 de julio de 1251. Simón debía enviar una comisión de sus religiosos al Romano Pontífice. La Virgen le aseguraba que serían bien acogidos y que tendrían éxito en sus gestiones. En efecto, Inocencio IV firmaría en Perusa al poco tiempo, el 15 de enero de 1252, una Bula, intimando a los Obispos y Arzobispos que no permitieran se molestara de ningún modo a los Carmelitas. Y añadiría la Virgen al Santo General: «El privilegio que me pides, y que yo te doy para ti y para todos los Carmelitas, hele aquí: es el Escapulario de la Orden. El que con él muera vestido no padecerá el fuego del infierno».

La Virgen ha ido mucho más lejos que los deseos de S. Simón: las peticiones de éste no apuntaban tan alto. Y es que tal vez se pueda decir que la Virgen intervino en este caso al estilo que la Santa Madre Teresa de Jesús atribuye a San José: «Si va algo torcida la petición, él la enderezará para más bien mío». Tal vez no iba bien dirigida la petición de Simón. Quería y pedía verse libre de una situación molesta y angustiada, pedía el cese de una persecución, cuando ésta podía quizás ser beneficiosa y ayudar al mayor esplendor de la Orden. La Virgen no le concede de momento esta petición. La paz, la tranquilidad llegará por sus pasos contados. La Virgen lo asegura. Mientras esa paz no llegue y se haga esperar, dichoso el religioso que en medio de todas las tribulaciones y pruebas que puedan afligir a su Orden, fiando en las palabras de La Virgen, permanece en la orden de María y muere con su santa librea. San Simón pedía la vida de la Orden, la subsistencia de su amado instituto en este mundo; pero sobrevivir en este mundo o tener posteridad no es para la Reina del cielo cosa que valga la pena. La Virgen endereza también esta petición del Santo. Y sin negar esa supervivencia terrena, le promete y asegura otra supervivencia superior en la patria eterna. El Escapulario es el vehículo de esas promesas de la Virgen, que con él ha llegado al límite de sus posibilidades. Con ser la omnipotencia suplicante, no podía conseguir más. Con ser la dispensadora de todas las gracias, no podía conceder más.

Ese día 16 de julio de 1251 marca una nueva y triunfal etapa en la historia carmelitana. Ese día hace su aparición un nuevo Carmelo espiritual, en contraposición al otro Carmelo, más material, más vinculado a la tierra, el de aquellos religiosos que por los años, de 1235 al 38 creían que abandonada la Tierra Santa y dejando el Monte Carmelo, su Orden no tendría razón de ser ni de existir. El nuevo Carmelo

es más espiritual, más desligado de la tierra, el de los valientes que en 1238 se lanzaron con ilusión a la aventura de trasladar su Carmelo de Palestina al otro lado de los mares y plantarlo en Europa; y al que la Virgen, su Patrona, como muestra de aprobación y de amor, tras de garantizarle el porvenir en esta tierra, enriquece con las mayores y más insospechadas prerrogativas, vinculadas en su Santo Escapulario. A ese Carmelo subieron nuestros religiosos después de penosa ascensión de quince años; para al fin, tras los dolores y amarguras, tras los sudores y fatigas de la subida, llegan a vislumbrar en ese año de 1251 cercana ya la cima ansiada, y en ella a su Madre y Patrona, la Reina del Carmelo, extendiendo sobre ellos su Santo Escapulario, vehículo de promesas de vida eterna, y convidándoles con él al Monte santo de la gloria.

Hoy, a setecientos años de distancia, recordemos y saludemos con amor y gratitud esa fecha, en que la Virgen, nuestra Madre, tuvo semejante dignación con nosotros sus hijos y cofrades.

ANTONIA DE OLAETA,
MUJER DEL LICENCIADO
ANDRES DE POZA*

Han transcurrido cerca de tres años desde que, con ocasión de presentar a los lectores de este BOLETIN el libro *Antigua Lengua de las Españas*, del Licenciado Poza (ediciones Minotauro, Madrid, 1959), el Sr. Fausto Arocena proponía a los investigadores un punto de investigación capaz de aportar un dato más a las exiguas noticias que poseemos acerca de la vida del Licenciado orduñés. El tema de investigación lo planteaba la existencia, en la biblioteca de la Diputación de Guipúzcoa, de la copia de un memorial, procedente de Simancas, en el que una Antonia de Olaeta, viuda del Licenciado Poza, alegando servicios prestados, y no retribuidos, de su finado marido en Flandes y como Corregidor de Illescas, reclama el pago de dichos servicios.

En presencia de este documento surge la pregunta: ¿quién es esa Antonia de Olaeta y quién ese Licenciado? ¿Se identifica éste con el autor de la *Antigua Lengua de las Españas*? El Sr. Arocena creía que sí: «La circunstancia del apellido, decía, la licenciatura, la residencia en Flandes, y hasta el apellido vasco de la mujer, parecen abonarlo.» La clave para convertir esta probabilidad en certeza podía dárnosla, venía a decir también el Sr. Arocena, la averiguación del segundo apellido del célebre jesuita P. Juan Bautista Poza, hijo del dicho Licenciado; y, como cosa más clara y factible, como me decía en conversación sostenida con él en la biblioteca de la Diputación de Guipúzcoa a fines del verano pasado, el hallar la partida de bautismo

* Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País 17 (1961) 432-434; «L. de A.» izenpean.

del P. Poza. ^Por qué no hace, me dijo, un intento por hallar esa partida en los archivos de Bilbao?

No eché en saco roto esta insinuación del Archivero de la Diputación de Guipúzcoa, y el resultado ha sido el hallazgo del documento confirmatorio de las sospechas del Sr. Arocena. No tuve necesidad de realizar muchas pesquisas, porque afortunadamente la partida deseada apareció en el primer archivo que visité: en la parroquia de San Antón.

En efecto, en el libro núm. I de Bautizados y Casados de esta parroquia de Bilbao (1581-1596), en la página 104 (el libro está paginado) se registra la partida de Juan Bautista Poza en estos términos:

«En la Iglesia de los san Juanes A tres días del mes de Julio / del dicho Año [1588] yo el dicho Cura baptize a Juan baptista / hijo del licendo. poza abogado y de doña Antonia / de olaeta su muger fueron sus Padrinos baltasar de Leçama y doña maria de vilbao viuda de don Ju de Gamboa difunto».—(Firma): El licendo. Ugarte.

Una nueva partida del mes de setiembre del año siguiente de 1589 no incurre en el olvido de no consignar el nombre de pila del Licenciado.

«En treze del dicho mes y año baptizó la partera / a Pedro hijo del Licendo. Andres de poza y de su / muger Antonia de olaeta. Fueron padrinos / del exor-sismo y cathesimo El doctor vergara / y Ana de larrauri muger del doctor Gronda.» Firma el mismo licenciado Ugarte. (*Ibid.*, p. 121).

Hubiéramos deseado hallar en estas partidas mayor número de datos, que nos hubieran revelado no sólo los nombres de los padres, sino también los de los abuelos, como lo hacen las partidas parroquiales de ahora: pero los consignados bastan a demostrar la identidad de la Antonia de Olaeta del documetno revelado por el Sr. Arocena con la esposa y viuda del Licenciado Andrés de Poza.

Por los demás, y ya fuera del punto que tratábamos de esclarecer, diremos que la inserción en este libro primero de Bautizados y Casados de la parroquia de San Antón de partidas de bautismos administrados en otras parroquias, concretamente en la de Santiago y en la de los Santos Juanes, es bastante frecuente. Y como detalle complementario curioso, añadiremos que el nombre de Juan Bautista Poza ha sido objeto de una distinción honrosa en el libro de actas parroquial. En el índice, por orden alfabético de nombres de bautizados, el nombre de Juan Bautista Poza es el único señalado con una cruz. Y al margen de la misma partida se consigna esta nota: «Jú baptista. Fue de la Compa. de Jesus muy docto, y escrivio de la Concepcion de N. Sra. del arte de bien morir».

Sabido es que los escritos immaculistas, a que alude la nota esta, particularmente el *Elucidarium Deiparae* acarrearón al P. Poza serios disgustos y conflictos, de los que da una idea el escritor G. Garriga en un artículo publicado en el *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*, número 20. El *Elucidarium*, que al año de

publicado tenía ya una segunda edición hecha en Lyon, fue denunciado a la Congregación del Índice e incluido entre los libros prohibidos. A Unamuno, el último bilbaíno que ha ido al Índice con dos de sus obras, le había precedido en más de trescientos años un padre jesuita, Juan Bautista Poza. Ambos han coincidido en muchos puntos: ambos parecen haber nacido para la lucha, ambos fueron algún tanto gemelos hasta por cierta preocupación común ante la muerte, y ambos fueron hijos espirituales de la parroquia de los Santos Juanes, ya que también Unamuno recibió las aguas bautismales en esta parroquia el mismo día que naciera, el 29 de setiembre de 1864, y no el 27 de setiembre ni el 29 de diciembre, como leemos en *El drama religioso de Unamuno*, de Hernán Benítez, y en *Unamuno*, del P. González Caminero.

A PROPOSITO DE BARRENDINDA*

Barrendinda es el nombre antiguo de una calle de Artajona en Navarra que el P. Recondo, en su estudio sobre la lengua vemaquila de San Francisco Javier, ha dado a conocer, extrayéndolo de un documento del Archivo Municipal de Artajona, del año 1512 (BRSVAP, 1961, p. 137).

A. Irigaray, en unas notas al artículo del P. Recondo («Príncipe de Viana», n. 82-83, p. 101), interpreta Barrendinda como sinónimo de Barrencalle. Al igual que los nombres de *Zacuninda*, *Urraninda* o *Unaninda*, denominaciones de calles de Pamplona que él exhumó, y como el actual nombre de Lindachiquia (l'Indachiquia), Barrendinda, dice Irigaray, es un «dato que nos ilustra sobre la forma de apelación vascona de las calles en las villas y ciudades de Navarra».

Irigaray no se ha parado a considerar sino el segundo elemento de Barrendinda: inda. Pero, y ^el primer elemento: Barrendi? Parece cosa clara que Barrendi, lo mismo que su correlativo Goyendi no son sino otros apelativos, o nombres comunes de determinadas posiciones urbanas: Goyendi, la parte superior, el extremo alto de una población, el barrio de suso; y Barrendi, la parte inferior, el extremo bajo, el barrio de yuso. Tal es el sentido que estas palabras tienen en una aldea que yo creo conocer bastante bien, en Vizcaya.

Oa u Oba, esa aldea arratiana que el calígrafo Pedro de Madariaga, hijo sin duda de allí mismo, la describía situada al pie de Axmutil (nombre éste que, al decir de mi padre, parece ya haber quedado relegado a los libros del Registro de la Propiedad, de Durango), y que responde al de un picacho que las peñas denominadas, en algunos mapas, de Santa Lucía tienen hacia su punto más elevado mirando hacia Oba y Arratia), se divide en dos barrios, a los que los naturales dan los nombres de Goyendi y Barrendi, como si dijéramos, barrio alto y barrio bajo.

* Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País 18 (1962) 433-435.

La descripción topográfica de Artajona nos habla también de un barrio alto y de otro bajo, llamado por el Diccionario Geográfico-Histórico *el arrabal*. Barrendinda era indudablemente el nombre de una calle situada en el extremo inferior de ese arrabal.

Una situación más parecida a la de Oba parece haberse dado en Mondragón. Según Garibay (en sus *Memorias*, p. 108-109), esta villa tenía tres arrabales: el arrabal de abajo, el de Zarugalde y el de Gazteluondo, que el antes citado Diccionario Geográfico-Histórico de la Academia de la Historia llama el arrabal de arriba. Está claro que estas denominaciones de arrabal de arriba o de abajo no son las que les daban los mondragonenses en su lengua propia y natural. Garibay no da los nombres vascos con que eran designados esos barrios, sin duda, por considerarlos nombres genéricos y no propios. Esto no ha de extrañar en él, cuando vemos que el nombre propio y natural de una de las calles de la misma villa, Arozcale, nos lo da en su traducción castellana, calle de la Herrería o de los herreros, aunque con la indicación de que su nombre vasco es Arozcale.

En las mismas Memorias de Garibay encontramos un Goyendi (escrito Goxendi que, como el posterior Gogendi, no hace falta decir que son equivalentes), como apellido, al lado de Gazteluondo, que bien han podido ser nombres del mismo arrabal alto, uno más propio y otro más genérico. Da la casualidad de que al nombrar al primer Goxendi, Garibay nos dice de él que era «morador en el Arrabal». Al hablar así, ¿no habría querido decir que se trataba del arrabal que llevaba el mismo nombre que el apellido? No aseguraré que la deducción sea del todo correcta, porque en otro pasaje se nos habla de unas casas del mismo Goxendi, en el arrabal de abajo, aunque tampoco se nos dice que en ellas morase dicho señor. De todos modos, no es imposible que un apellido Goxendi, originario del barrio de arriba, de Gazteluondo, se haya propagado al otro arrabal contrario.

Barrendi, como apellido, existe en el País Vasco-Francés. Lo he visto hace muy pocos días, escrito Barhendi, en la firma de un artículo de una revista de finales del siglo pasado.

Vemos, en conclusión, que Goyendi y Barrendi, ya como palabras para designar determinada situación de una población, ya como apellidos, ya como topónimo, se extienden en un área que abarca el pueblo vasco entero.

IURRE, ILARIO SOLOETA'REN OMENEZ*

Arratia'tik, Bizkai'ko bazter menditsu ta gorde orretatik, omenaldi baten otsak zabaldu dira Bizkai guztira. Iurre'n, Arratia erdi-erdian dagoan errian sortu da omenaldi ori egiteko asmo ta sua; andik dator bultzadea.

Erri onek lendik be erakutsirik dauko ba-dakiala bere gizon argi ta ongilleai zor deutesen aintza ta goramena emoten: antxiña be ezjala, Iruarrizaga anaiai; geroago, Sagarminaga eleizgizon andiari; ointsu, Zubizarreta, osagille ospetsuari. An dauko, ointsu egiñik, osagille jakitun eta lanen lanez gazterik il zan onek bere gomutagarrizko irudia.

Oingo omenaldi au eleizgizon agurgarri ta maitagarri batentzako da: D. Ilario Soloeta zanarentzako.

Jayotzez etzan bera Iurreko semea; baña biotzez eta egitez dana zan Iurrekoa, Iurretar guztiak baño Iurretarrago. Iurren emon eban bere bizirik geyena; Iurretarren-tzat izan ziran bere biziko kezka, ardua, izerdi-nekeak. Eta Iurren dagoz bere azurrak, erriko illerrian, ango eleiztxoan eurentzat tokitxoa egiñik. Etzan Iurrekoa semez; baña Iurrek azkenengo urteotan izan dituen beste seme ospetsu orreiri berak zabaldu eutsezan Elexako atea, berak egin zituen Jainkoaren seme barri, bere begipean azi ziran eta berari zor deutse ainbat argi, ainbat aurrerabide eta laguntza.

Baltzolan, Dima'ko mendiarteko auzunean jayoa zan. Baltzolako kobaldeko inguruak maite dituen mendizaleak iñoz ikusi dabe, aurki, an basoartean ostenduta elexa txukun bat, eta elexearen ondoan, Lurdesko arpearen antzerako bat. D. Ilario onek egiñak edo eragiñak dira, bere jayotzako auzo ta auzotarrai eutsen maitasunaren ezaugarri. Baña Iurretarren-tzat izan zan iya bere bizi guztia.

* Zeruko Argia 27 (1964, 88. zenb.) 4; *Nonzebarri* izenpean, ik. 138. orr.

Berrogeta amazazpi urte egin zituen erri onetan, 57 urte eldu-eldu, umo-umoak. Milla zortzireun eta berrogeta amazazpian jayoa zan; 1889-an eldu zan Iurrera eta 1946-garrenean il. Lenengoko amabost urtez parrokoaren laguntzalle lez egon zan; gero, 1904-an asita, bera parroko jaun, bera erriko arima guztien arduradun.

Amaika aldakuntza ikusi ditu Iurrek bere aldian; bere urteetan egiña da Arratia'ko tranbi-bidea; baserrien emoyak obeto saltzeko aukera ohea sortu zan orduan, baita Bilbo-aldeko lantegietarako joakera erazagoa be. Berak ikusi dau ango baserriar askoren Bilbo-aldeetarako joerea gero ta geyago azten. Aixé barriak jo eben munduan, baita Arratian be. D. Ilario etzan lo egon eta ez eban negar utsik egin. Jaunak emonik, ba-eukan argirik naiko bear-izanak ikusteko, baita kemen eta adorerik egokien zana egiteko. Iurrek azken urte oneitan aurrerantzarik egin badau, asko zor deutso abade argi ta gogatsu oneri.

Etzan beti lenari begira illeta jotzen egoten diranetakoa; abade au gogoz ta biotzez beti izan zan gazte eta gazteai aurrerapideak emotekoa. Gazterik sartu zan Iurren; gaztetasunak emon oi dituen asmo barri ta adore gartsuaz eldu eutson bere arloari; gazte-denporako asmo barri ta su orrek lagundu eutsoen zartzaroko urteetartate.

Urte gitxiren buruan agertu zirean Iurren abade sutso aren garra ta argiak; ez elexan bakarrik, bai erri osoan be. Erriko elexa nausia barriztau, ederrago ta andiago egitea izan zan bere lenengo ardurea. Abade lez, maite eban Jaungoikoaren etxearen edertasuna, eta Jangoikoaren semeak be batzarleku nasaiago bat eskatzen eben.

Mutiko ta neskatoentzat izan zan urrengo ardurea. Kristiñau zintzo izateko ta mundu barriari arpegi emoteko oinbide obean jarri nai zituen. Asmo argi onegaz ikastetxe bi eragin zituen eurentzat; mutillentzat bata, eta neskatoentzat bestea, batean marianistak eta bestean moja karmeldarrak (karidadekoak) jarten zituela irakasle. Bizibearrak ogi-billa darabil mundua, sarri beste ardura barik; baña «gizona ezta ogi utsaz bizi». Ondo ekian au gure abadeak; ortik bera ardurea, ikastetxe orreik ipinteko. Aukera andiak ekarri ebezan eurok bai Iurrentzat, bai beste Arratia'ko errientzat.

Zarren bear-izanari be ez eutsen ez-ikusirik egin. Eurai eziñaldian laguntzeko, gaixo-etxe bat bere eregi eban, mojatxoan ardurapean.

Lan eder oneik goi-goyetan ipiñi eben D. Ilario'ren izena; Erromaraño eldu zan bere ospea, ta Aita Santuak goramenezko saria emen eutson, *monseñor-útulua*. 1924-garren urtean. Ogei urtean Iurreko erriari itxura barria jarri eutson.

Erriak eztau bera aitzu; orregaitik, omenaldi au gertetako batzordea sortu ta lanean asi daneko, gogotik eta esker onik beroenaz erantzun dabe danak. Batzordeak uste eban baño lenago batu da bear zan dirua. Iurretarrak arro egozan euren parroko jaun maiteagaz: abade santua, elexan egunean egunean Gurutzetako bideak egiten ikusten ebena, sermolari etorri oneko ta sutsua, arimen onari ta erri guztiaren etorkizunari begituten beste iñor ez langoa, danai entzun eta bakotxari bear eban argibidea emoten ekiana, bear-izanik eukanari laguntzeko esku-zabala. Guztiak eutsoen itzal andia, guztiak eben maite. Ez eban areriorik; orregaitik politika-aixeak nastu ta gure zeru-aldea lorrindu zan egunetan be, iñok ez eutson eskurik ezarri abade agurgarri ta maitagarri oni.

Laster jai andiak izango dira. Erri guztia, erriko seme guztiak, bertan direanak eta urrin direanak, an izango dira, gorputzez ezpada biotzez, euren parroko jaun maitagarri zanari deutsoen maitasuna ta esker ona erakusten.

Eta egun orretan (oindiño eztabe ixendatu) an agertuko da danen aurrean, Lucarini ertilari ospetsuak egindako imdi maitagarrian, Ilario zana berbera berbiztuta balitz lez, Iurreko seme guztiak bendeinkatzen.

A ZAN ABADEA!*

Zeru goi orretako izarrak gabero emoten deuskuen argi ederra ez da gaur bertan dariena. Gure gabetan ikusten dogun izar-argia milloikadak urte lenago emon ebena dogu. Urteak eta urteak bear argi orrek gure begietaraño eltzen.

Gizon on eta on-egilleai darien argia be, izar-argi orren antzekoa da sarri: urte askoren epea bear, gure begiak joteko, gure begiokaz obeto ikusteko. Urteak joanago, ta argi ori gure begietatik urrago; edo, beintzat, guri len baño dizditsuago agertzen yaku.

Amazortzi urte da gizon on bat il zala, gure artetik joan yakula: Ilario Soloeta Amorrortu, abade Jaungoikozale ta arimazale, onegille biotz ain oneko ta langille sutsua. Eta ba-dirudi oraintxe dogula egundoko urren, oraintxe datorrela bere argia gure begietara iñozko dizditsuen.

Ilda amazortzi urte geroago, izarra balitz lez, orra bera gure aurrean egundoko argien; orra bere gomutea orren bizirik askoren gogoetan, eta bere alderako esker ona ainbesten biotzetan.

Nor izan zan bera? Ondo daki bere barri Iurre-ko erriak: berrogeta amazazpi urtez Iurretarrak euren artean izan eben euren arimen arduradun.

Ezagun eben Arratia osoan: amaika bider ikusi eben ango eleiza txiki ta andietan, erriko edo auzoen bateko jaiak zirala-ta, arako sermoi luze, mamitsu ta biotz-biotzetikoak egiten. Ezagun eben, bai, ango abade jaunak, eta zor anditan egozan bere alde; orregaitik, 1924-garren urtean, danak alkarregaz egozan baten, bapateko omenaldi bero zintzoa egin eutso en berari.

Ezagun eben Bizkai-ko ta Euskalerriko leku askotan: Begoñan, Urkiolan, Lo-yolan eta ainbat lekutan ikusi eben bere irudi maitagarria, sua eriola, leku santu

* Jesusen Biotzaren Deya (1964) 205-210; *Axmutil* izenpean, ik. 17. orr.

orreiten batutako euskaldun fededunai Jaungoikoaren itza adierazoten, berari erion suaz danen biotzak sututen.

Erromaraño be eldu zan D. Ilarioren izena, bere argia: 1924-garren urtean, ordurako arimen alde egin zituen ainbeste lanen sari, an Arratia-ko bazter baten apalik gordeta egoan abade oni Aita Santuak goramenezko ixentapen bat emon eutson: bere «Camarero secreto», Aita Santuaren ondo-ondokoen arteko egin eban.

Bizi luzea izan zan berea: Diman, Baltzola-ko auzunetxoan, 1858-an, urtarri-llaren amalauan jayo, ta 1946-an, abenduaren amabostean Iurren il. Larogeta zortzi urte luze; geyenak, berrogeta amazpi, erri baten, Iurren emonak.

Urte luzeak, baña bai ondo orniduak, ondo beteak be. Larogeta zortzi urte, bere ondoan ondasuna zabaltzen, maitasuna artu ta emoten: abade batek asmau ta opatu ala guztia ortxe dago. Maitasuna bere biotzak emon alean zabaldu eban abade maitagarri onek. Maitasunez erantzun eutsoen bizian bere elextarrak eta euren aita ona oindiño aitzu eziñik, maitasun andiagoa erakutsi gura deutsoe aurten, ilda amazortzi urte igarota gero; bere irudi maitagarria, geroko gizaldiak be aitzu ez dayen, burriñez eginda, Iurre-ko Andra Mari-elexearen ondotoxoan, guztien ikusgarri, jarri gura dabe.

Ilario Soloeta antxiñatxo il zan; baña bere gomutea bizi-bizirik, maite-maiterik dago, Jaungoikoaren egiaz eta ainbeste on egiñez bete zituenen gogo-biotzetan. D. Ilario il zan; baña or dira bizi-bizirik bere aldian egin zituan lanak, eta lan areik geroko itxi ebezan emoiak.

Bere Jaungoikozaletasuna aitatu bearrik ez dago: ordu luzeak emoten zituan elextan, altaretako Jaunaren aurrean, Zeruko Amaren begipean; egunero ikusten eben Gurutzetako bideak egiten. Ortik etorren bere indarra, Jaungoikozaletasunetik etorren bere arimazaletasuna, arimei on egiteko sua. Onik asko egin eutsen bere bizi luzean ainbat eta ainbat arimei, autortegian eta kanpoan, etxerik etxe. Esangairik naiko emongo leuke D. Ilarion lan onek, Iurretar bakotzak emen zor deutsona esango baleu. Ixilleko bear ori ez da sarri askotan kanpora agertzen.

Baña or dira, abade agurgarri onek asmao emonda, egiñiko ainbat lan, Iurretarren biotzetan beti esker on eske egongo direanak. Milla zortzireun eta larogeta bedera-tzigarren (1889) urtean bialdu eben bera erri orretara, artean urtetxo batzuk Baranbion eginda gero. Iurren, amagost urtez parrokoaren laguntzalle izan zan; gero, 1904-an asita, il arte guztian, bera parroko, bera erriko arima guztien artzaiñ eta arduradun nagusi. Buru argia erakutsi eban erriko bear-izanak ikusteko, eta gogo gartsua, bear-izan orrei buru emoteko. Gogorik beroenaz eta zurtasunik argienaz eldu eutson bere egitekoari.

Andra Mari-etxea, erriko elexta nausia barriztau ta anditu bear zan aurrengo. Bai; Jaungoikoak etxe apañoa bear eban, eta Jaungoikoaren semeak euren batzarlekutat toki zabalago ta nasaiagoa bear eben. Diru urriak ez eban atzeratuko; apurka-apurka Jaunak berak joko zituen emolleen biotzak. Ordaindu-bearrik agertu ala, an izango zan eskupekotxo. Jaungoikoa lagun eta Jaunak jotako biotzai esker, aurrera joan zirean lanak, zorionezko azkena emon arte.

Jaunaren egonleku ta etxe dira arimak be. Abade dana, arimazain dana euren alderako da zordunen. Arimenganako lan au ez da arriak landuz egiten. Gogoak landu bearra dago emen; ezjakiñen buruetan Jaungoikoaren argia biztu bear da. Abadeak

zeruko ogi eske daukoz bere ardurapeko arimak. D. Ilariok ondo bai ondo ekian domeketako itzaldietan, goiz ta arratsalde, zeruko goi ori elextar guztieri emoten. Etorri ugari ta ederra emon eutson Jaunak zeregin orretarako.

Baña bere lan au naiko etzala, ikastetxe bi sortu zituan errian, neskentzako ta mutilentzako bana; bata marianisten ardurapean, eta mojatxo batzuenen bestea. Amaika neska-mutillek, bai errikoak eta bai erriz kanpokoak, aurkitu eben eskola orreitan gerorako bidea urratuteko aukerea. Gogoan eukan D. Ilariok gazteen eskuetan egoala errien etorkizuna; ba-ekian etorkizun ori zelan argitu. Amaikatxo gaztek zor izan deutso abade zur onen ardureari Elexarako deya entzutea, edo geroari bildur barik arpegi emoten ikastea. Amaikatxok badaukie orregaitik bera euren biziko ongillerik andienetakotzat, euren bide-erakusletzat. Esker onik beroenaz gogoratzen dabe gaur.

Gaztedia ain maite baeban, ez eukan orraitio zartzarora aizturik. Danentzako eukan bere biotzak lekua.

Zarrentzako eukan ardura onek beste gauza eder bat eragin eutson: zartzaroko urteak bear-izanik andienetan egozanai gozoago egiteko, gaixo-etxe bat eragitea. Mojatxoak ipiñi zituan emen be erriko zar gaixo edo gaixotiak zaintzeko.

Lan oneitatiek bat egitea naiko zan gizon bat ongilletzat artzeko. Baña guzti orreik batek egin dituanen zor andiagoa euki bear gizon orren aldera. Orra D. Ilarion anditasuna.

Lan orreik sariztu nai izan ebazan Aita Santuak, abade apal oni **monseñor** izena emon eutsonean. Lan orreik, batez be, sariztu ta ordaindu gura ditu aurtan Iurreko erriak, eta Arratia osoak, euren ongille andi oni omenaldi bero bat egiñez.

Omenaldi ori aitatu ezkerro, ago batez entzuten da esaten: «Bai, D. Ilario zanarentzat edozer; ori ta geyago zor yako ari. A genduan abadea! A zan ona!»

Ori diñoenak, eurak eztakiela, Jesukristogaitik beñola esaten ebena berbera diño; «Ona zabaldu ta ereñez igaro zan gure artetik. Bedeinkatua jaunaren ordezeko etorria».

MIGUEL UNAMUNO TA MIGEL DEUNA*

Iraillaren 29'an, Jaundone Mikelen egunez jayoa zan Unamuno, Bilbo'ko seme ospetsua: eta egun berean bateatu ta kristiñau egiña. Eguneko santuaren izena ipiñi eutsoen bere bizian ain burrukalari ta kezkatu agertuko zan, istillu ain andiak sortuko zituan ume jayobarriari.

Egun aretan, nok igarriko eutson umetxo ari zer izango zan geroago, bein azi ta gizondu ezkeru? Izenez, aingeru burrukalari baten izena eroango dau, eta burrukalari, auzkalari agertuko da benetan bere bizi guztian zear. Ori bai, gogoaren barrutietan izango dau bere burrukea; itzak izango ditu izkillu. II nai ez ta il bearrekoa izan, geroko bizitza siñestu bai ta ezin siñestu: ortik datorkioz kezka eta buruaustekorik andienak. Auzi gogor zetatsua erabillan bere barruan. Gai orreitan argirik egin eziñak bakerik artu eziña sortzen eutsan gogoan. Burua ebilkion batetik, biotza yoakon bestetik. Biotzak entzun nai ez buruari, buruak artu nai ez biotzak zirautsana. Unamuno osoak ezin euki orretara bake-unerik; ez ta nai bere berak edozelan baketu. Ortxe eukan jarrita bere arrotasuna. Orretan erakutsi ta nabarmendu nai eban bere nortasuna. Bere buruari entzunik, beste ezelan ez eban nai aurkitu bere bidea. Mikel izenak «nor Jainkoa añakorik» esan nai badau, Unamunoren izenak «nor ni añakorik» esan nai dauala esan geinke.

Baña siñismena galdu eban ezkeru, ortik barruan egin yakon utsunea ezin izan eban ezegaz bete. Arrezkeru zati bi eginda, baketu-ezin gorriak erreta ibilliko da; zauri bizitan biziko da. Barruko zauri onek odoletan iraungo dautso bere azkenengo egunetararte. Or ditugu bere idaz-lanak erakusle.

Bilbotar ospetsu onen gomutagarri, asteroko onetako orrietara ekarri nai ditut Unamonoren bertso batzuk, idazle onen zauri miñ ori egokien eta itxaropentsuen

* Zeruko Argia 28 (1965, 35.zenb.) 3; *Basabil* izenpean, ik. 82. orr.

erakusten dabenak. Euskeraz eragin al izango deutsalagu gure izkuntzaren arerio gorri lez sarri agertu zan bilbotar oni.

Lenengo bertsoak izan beitez Enbajelioko itz batzuk sortuazo eutsozanak. «Umeen antzeko egiten ezipazare, Zeruko erreñuan sartzerik ez dozue», irakurri dau bein. Itz orreik, ain zuzen be, Migel deunaren egunean mezatan irakurten dira. Kristoren itz orreik auznartuz, ona zelango bertsoak urten dautsoen Unamonori:

Egizu, Aita, nitzat atea andiago,
ortik sartzea daukat gatx baño gatxago;
umentzat da; ni barriz, ai, aundia nago;
bestela, egin naizu nerau txikiago.
Biurtu naizu, arren, neure umezarora,
ames utsean bizi oi nintzanekora.

Eskerrak Zeuri, Aita; ointxe naz oartzen
nire gizontasuna badoala igartzen.
Seme uts nintzan adin larrosazko baten,
eizu aldi artara itzulia naiten.

Neure semeen seme orain biurtuta,
aita izateko, barriz, gaiak agortuta,
neure sabelean dot zelanbait nabaitzen
birjin-amatasuna jatala jaritzen.

Bigarren bertso-sailla: bere biziko azkenengo San Migeletan, 1936'an egiñiko amalaukoa (sonetoa) izango da. Egun orretan 72 urte ditu. Unamunok begiraldi bat egiten dautso bere bizi osoari. Jayotzatik asita, or dago bertso orreitan Unamunoren aurtzaroa, Migel goi-aingeruaren itzalpean; or dago umetan erantsi eutsoen siñismena. Gero, siñismen au galdutakoan, aingeru orrek alde egin eutsan; baña, zartzaroan barriro yatorko ondora, umetako siñismena bizitu ta zerurako poza ta itxaropena, betiko zorinerako eskua eskiñi ta luzatzen dautsola. Ona emen soneto ori:

Aingeru bat, yayotzan albistari izana,
lagun neban nik neure bizi zaurituan;
bizira nintzaneko, nigan ziarduan
fede-aria iruten, estali, bakana.

Bere ixil-txokora zan gero iges joana,
ta ni itxi nindun neure aurtasun galduan.
Barriro dot lo-kantak kantari inguruan,
seaskako oiartzunak zabalduz nigana.

Abots au, banaroa betiko korura;
ames au, neure Jainko Amesgillenera;
zer-izango au, neure azken-elburura;
txanpon au, banaroa goiko altxorrera.
Aingeru argi ori, maitati ongura,
betorkit sortzezko zorra garbitzera.

Bertso oneitan Unamunoren barruko burrukak eta siñestu-eziñak amaituta, ausita agertzen yakuzala esango geunke. Jayo zanean, bere bizitzaren mandatari lez, Migel deuna dator barriro Unamunoren eriotza aurretik, geroko bizitzaren mandatari lez, betiko zorionerako ateak zabaldu naiez gizon kezkatu orri.

Iru illabete geroago il zan Unamuno. Adiskide guztiak itxita, bere biziko egunik baltzenak izan zituen azkenengo egunak. San Migel eguneko argiak, bere soneto orretan ain egoki azaldu dauskun argi orrek ez ete eutson poztasun piskatxo bat eroan biotzera? Aingeru onek, jayotzan asitako lana aurrera eroanez, ez ete eutson lagundu, ez ete eutson bidera urten Jainkoagana, betiko korura, betiko ondasuntegira laguntzeko?

ZIRILO ARZUBIAGA «JAUNGOIKO-ZALE» TA «EKIN»-EN BIOTZ IZAN ZANA*

Ixil-ixillik joan jaku, bere 92-garren urtean, Begoñako Santa Klarako kapellau-etxean, bizion artetik urtenda, Zirilo Arzubiaga Abade jaun agurgarria, euskal-arloetako langille gogatsu ta ezin aspertua. Ixil-ixillik eroan dauskue bere gorpua Bilbo-ko illerrira, ill onen 14-garrenean. Goizean il, arratsaldean lurra emon.

Egun orretan kanpora-bearrik izan genduenok, illuntzean etxera giñanean, ezin genduan siñestu, ezin genduen ulertu zergaitik egin bear izan ziran gauzak ain arin, alako arrapaladan. Oso gitxik izan eben il zala jakiteko erarik. Bere adiskide ta zordun askorentzat mingarri izan zan lagun maitagarri ta langille gartsu ari azken-agurra emon eziña.

Illetako mezan, gorpuaren aurrean, Begoñako parroko jaunak, Julian Landa-zabal-ek, erderaz, baña itz bero egokiakaz azaldu eutsen an ziran lagun apurrai zelakoa izan genduen abade Jaungoikozale au: bere abadetasunean, zintzo ta oso-osokoa, ta bere euskalduntasunez, euskera bitarte, euskaldunen artean Kristoren apostolu ta kristiñautasunaren zabaltzalle adoretzu, nekatu eziñekoa. Egun orretan baño omen oberik emongo al dautsoe oindiño Bizkaiko euskalzale ta abadeak.

Ez daigun, baña, emen alperreko illetarik jo. Obe izango dogu galdu dogun lagun-onen nortasuna ta lanak gogoratzea, bere gomutari ta bizi gareanon ikasbi-derako.

Otxandiotarra zan jayotzez: 1874-an jayo, ta 1889-an abade egiña. Arrese Beitiak, bere meza barri egunez bertso luze, etorri ugarikoak zuzendu eutsozan, urte atan *Euskalzalek* argitaratuak.

* Zemko Argia [29] (1966, 179.zenb.) 1; *Amuxalde* izenpean, ik. 202. orr.

Lenengo aldiz ikusi zaitut nik gaur altaran
ze eskubide andia dozun agertuten:
lenengo aldiz, «Jauna zuekaz izan bedi» gaur
meza-entzulai begiraturik dei egiten.
Ta eurak leial: «Zure espirituz izan bekigu»,
berealaxe zelan eutsuen erantzuten.
Lenengo aldiz emon deuskuzu benedeziñoa,
Jaungoiko andi itzaltsuaren izenean...
Lenengo aldiz baita eskiñi bake dontsua
zorianakaz lurrean bizi gu gaitean.
Urte askotan egin daizula beste ainbeste
lotatik zoli goiz guztietan iagitean.

Bertsolariak opatu eutsan bizi luzea euki dau, euki bere, orduko abade meza emonbarri, begi urdin zorrotzdun arek. Bizi luzea, benetan, Arresek zirautsanez «Jesusen mastietako langillea» izango zan abade arena. Bizi luzea, ta «euskaldunei euskeraz» Jaunaren itza emoteko egikizunetan, lan ederrez betea, gañera.

Zirilo Arzubiaga zanaren bizi ta nortasuna, batez bere, «Jaungoiko-Zale» izeneko bazkun eta aldizkariagaz bat eginda dago. An, 1912 inguruan, Bizkaiko abade batzuk, Kardaberaz agurgarriaren esaera mami biurtu gurarik, alkartasun bat sortu eben. Jaungoikoaren naya da, nonbait, euskaldunen artean Jaungoikoaren berbea euskeraz adieraztea. Olantxe ta orretarakoxe sortu zan «Jaungoiko-Zale» bazkun ori, ta izen bereko aldizkaria. Eta esan bearrik eztago: Arzubiaga izango zan alkartasun eta aldizkari orren biotza. Bera, aldizkariaren artezkari; bera, Zornotzan euken etxetik, ainbat euskal-orritxo ta liburuen argitaratzalle. Gorengoen izenak aitatzeko, bere ardurapean agertuko ziran Eguzkiza, Manterola ta Ibartutxi jaunen ainbat lan sakon eta argi. «Jaungoiko-Zale» aldizkari lez ixildu zanean, EKIN-en bidez, asteroko bihurturik, ekingo eutsen lengo arloari, 1932-tik 1936-garrenearte.

«Jaungoiko-Zale»-koak gertatzen zituezan umeen dotriña sariketak ezin leitekez aitzu. Erririk erri, olako egunak atontzea zan Zirilok gogatsuen egiten eban lana. Olako ume-jaialdi baten, umeen artean, dana poz ezitan aurkitu zan Arratiako erri baten, 1936-ko garillaren emeretzian. Goiz atan, Lemonatik aurrera joyala, bazterrak txapel okerrez oi baño beteago ikusi zituenean, ez eban bere biotz onak sutan asirik zan gerrate luze odoltsuaren usaiñik asmatu.

Gerratea amaitu ondoren, urte batzuk Inghaterran eginda gero, emen izan genduen barriro lengo lanari gogo barri ta beroagoaz eldu ta egin bearrez. Zarata andi barik, ixiltxorik, ori bai; baña txiri txiri, jo ta jo, ekin bai ekin, bere elburura beti. Ez eben atzeratuko ez urteen aztunak, ez nekearen gogaikarriak, ez askoren ez-jaramon eta erantzunik ezak. Lenengo ta bein, bere ustez orduan egitekorik bearrezkoenari eldu eutson: Gazteizko Elizbarrutiko Kristau-ikasbidea barriro argitaratu ta zabaltzeari. Abadeakana jo, Obispo Jaunagana jo, Begoñako klaratarren kapellau izentaurik, monja onein kapellau-etxetik, aurrera eroan zituen bere asmoak. Antxe jarri eban bere lantegi barria: «Ediciones religiosas» izenaz.

Gero, bere asmo andi guztiai buru emon eziñean, or emon deusku beñik beñ, Ibargutxiren lan andia osoturik, bost tomotan kristau-ikasbide osoa euskeraz azaldurik. Amaika buruko min eta atsekabe izan eban bere joan-etorri oneitan. Baña, nekeak neke ta miñak min, ikustekoa zan larogei urtetik gorako agure makur begizolia, Zabalbiden bera, bere oiñ errenaz, titirri tatarra, inprentarik inprenta, liburutegirik liburutegi, ezek nekatu eziñik, bere liburuak atera ta zabaltzen.

Ondo merezia izan dau betiko atsedena, ondo merezia dau gure omen eta esker ona. Euskaltzaindiak urgazle, laguntzalle izendaturik eukan. Bere lantegiko orman itxi dau eskegirik izentapen ori gogoratzen dauan agiria.

Goyan bego abade euskaldun zindo Jaungoikozale au. Bera galdu dogula-ta, ez dot esango negar egiteko ordua danik. Guztiok gara emendik alde egin bearrekoak. Baña betoz ordezkoak. Sortuko al dira Zirilo Arzubiaga zanaren maitasun eta kemenez aren arloari jarraitzeko beste asko. Or dauke eredu bikaña.

PEDRO DE MADARIAGA, CALIGRAFO Y VASCOFILO*

Cuatrocientos años van transcurridos desde que en las prensas de Valencia salió a la luz, el año 1565, la obra de un célebre calígrafo vizcaíno, Pedro de Madariaga, que se conoce con el título de *Honra de Escñbanos*. Su autor llevaba a la sazón tres años desempeñando la cátedra, por él fundada, de caligrafía y ortografía en la Universidad de aquella capital levantina, y tenía veintiocho años de edad, si hemos de creer a la inscripción que puso al pie de su retrato que iba al frente del libro: «Aetatis suae anno XXVIII».

Ya esta obra fue dada a conocer entre nosotros por Julio de Urquijo, al dedicarle a su autor una nota en la RIEV, XIII (1922), transcribiendo íntegro, por su particular interés para los vascólogos, el último capítulo de aquel libro, que trata «De los inventores de las letras, y Orthografia en lengua vizcayna, y quan elegante y antiguo es este lenguaje».

Al renovar ahora su memoria, en el cuarto centenario de la aparición del libro, que en 1777 mereció una segunda edición, preparada al parecer por Francisco Javier de Santiago Palomares, otro ilustre calígrafo que hizo época y fue particularmente conocido en nuestro País por haber prestado sus servicios y colaboración a la obra educadora de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País, quisiéramos acertar a añadir algo a las escasas noticias que por Julio de Urquijo han podido circular entre nosotros sobre el autor y sobre el testimonio que nos legó acerca de su nativa lengua vizcaína.

* Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País 22 (1966) 37-50.

Vizcaíno y arratiano

No son, en realidad, abundantes las noticias que de este personaje nos han llegado, y aún podemos añadir que todas ellas son autobiográficas, es decir, espigadas y entresacadas de su *Honra de Escribanos*. En nuestro siglo se ocupó de él, y lo hizo con la extensión que sin duda se merecía, Emilio Cotarelo y Nori en su *Diccionario Biográfico de Calígrafos Españoles* (Madrid, 1913-1916), pero tampoco pudo utilizar como fuente de información sobre su vida sino los escasos datos autobiográficos que el autor nos da dispersos en su única obra, pues de otra que, «a Dios plaziendo» prometía en ella sobre ortografía latina, no hay indicios de que la diera a la imprenta nunca. A ellos nos hemos de ceñir forzosamente nosotros en este artículo. Y, con ellos en la mano, veamos, en primer lugar, de precisar la naturaleza o la patria de este célebre tratadista y profesor de caligrafía y de ortografía en la Universidad de Valencia hace cuatrocientos años.

Un soneto que va al final del libro en elogio del autor, obra de un tal Melchor Pradas canta su vizcainía y su condición de arratiano:

Arratia, de hoy más tu suerte canta
Proezas, gran renombre, inmortal gloria,
Porque este en ti nacido al mundo espanta.
Vizcaya de Escribanos triunfos haga,
Pues tiene estos varones por memoria:
A Iciar y al autor Madariaga.

El propio autor se había encargado en su obra de pregonar a los cuatro vientos su vizcainía. Pedro de Madariaga Vizcaíno se ha apellidado ya en la portada, y, como tal sin duda, en la dedicatoria a Felipe II, entre los títulos que al rey otorga, a los de Rey de las Españas y de las Indias no deja de añadir el de Señor de Vizcaya. Ya dentro de la obra, tampoco deja ocasión, si a mano viene, para insertar algún elogio de Vizcaya o de los vizcaínos, sobre todo como cuna y escuela de buenos escribanos. Aduzcamos alguno. En los diálogos de la primera parte, pone en boca de uno de los interlocutores, levantino, estas palabras: «Yo soy muy afectado a buenos escribanos, sino que por estos reinos no tenemos tan buen aparejo como allá en vuestra Vizcaya». Ponderando en otro diálogo la honra y cierto desahogo económico que puede proporcionar la profesión de escribano, se hace decir a un vicaíno: «Maestro de escribir hay en Vizcaya que trae naves por mar», es decir, que llegó a ser un gran naviero.

En los diálogos de su obra interviene como interlocutor un tal Gamboa, del que expresamente se recuerda su condición de vizcaíno, pero junto a él la mayoría de los demás dialogantes llevan apellidos que están pregonando su procedencia vizcaína o vasca: Oñez, Guevara, Ayala, Alegría, Lariz, Vergara, Balzola, Urquizu, Ibarra, apellidos estos tres últimos que responden a otros tantos topónimos del valle que le vio nacer: Arratia. Otro topónimo arratiano más se encuentra en su obra, y es el de Eguiraun, nombre de un caserío que Madariaga contempló sin duda muchas veces

en su infancia desde su casa natal, y está localizado en Dima, camino del barrio de Balzola, célebre por su cueva.

Natural de Oba, en Dima

A los diez años de publicada la obra, en 1867, vino a dar con ella Vinson en una librería de Bayona, cuando Uevaba cinco meses escasos estudiando el vascuence,

y fue para él una revelación. Encontró tan interesante, sobre todo su introducción, que la leyó pluma en mano y la fue traduciendo al francés, y ya en su ancianidad, en 1922, quiso dárnosla a conocer en las páginas de la *Revista Internacional*. No sabemos por qué quedó truncada su publicación después de la primera entrega; pero no estará de más recoger algunos de los juicios que Vinson emitía allí (RIEV., 1922, p. 560), acerca de la obra de Mahn: «No conocía yo esta obra, de la que nadie me había hablado y que en ninguna parte la veía mencionada... Topé en ella con 80 páginas de textos variados, muy bien seleccionados, precedidos de una introducción que me pareció bastante interesante, que luego me vi pluma en mano leyéndola y traduciéndola frase por frase. No sabía yo entonces retroceder ante los trabajos más difíciles, largos y fastidiosos. Es la traducción que hoy juzgo de utilidad publicarla. Porque, sobre todo en España, hay algunas personas que creen y dicen que el estudio científico del vascuence ha sido empresa no iniciada sino por los alemanes a lo más hace treinta y cinco o cuarenta años. Es una equivocación garrafal. Además, los alemanes a que se alude son de la escuela moderna de los neogramáticos, formada al otro lado del Rin después del 1870; desdeñosos con los trabajos de los predecesores, desconocedores del verdadero carácter de la lingüística, que es una ciencia puramente natural, confunden los hechos y los accidentes de la evolución y con error evidente de método concluyen demasiadas veces de lo simple a lo compuesto. El doctor Mahn pertenecía a la escuela positiva de Bopp y Schleicher».

Pese a este conato de Vinson de hacer justicia a los méritos de Mahn en el campo de vasculogía, el nombre del autor de *Denkmaeler* yace en el olvido entre nosotros, debido en parte al escaso número de ejemplares que de su obra tiró. El P. Villasante, que cierra su *Historia de la Literatura Vasca*, con una larga lista de vascófilos extranjeros, no lo menciona. Mahn bien merecía haber encabezado aquella lista, antes de los Stempf, Schuchardt, etc... En la misma preterición se ha incurrido en las páginas de esta misma *Enciclopedia* en un artículo dedicado a los vascófilos extranjeros. Sirvan estas pobres líneas para reparar algún tanto esa injusticia.

Por lo demás, téngase en cuenta que *Denkmaeler* no representa toda la obra vasquista de Mahn. Como se ha podido ver por las precedentes líneas, antes de esta obra había emprendido su autor otra de más envergadura, que esperaba verla publicada. Y él mismo nos informa en la introducción a *Denkmaeler* de un trabajo suyo sobre los vascos y publicado en un Diccionario alemán, dirigido por Bluntschli y Brater.

Es más: cuando el año 1886, un año antes de su muerte, apareció la revista *Euskara*, de Berlín, el doctor Mahn fue de los que ofrecieron su colaboración en ella. (Entraría en sus propósitos dar a conocer aquí los trabajos sobre el vascuence a los que alude en su introducción? En todo caso, no sería nada inverosímil yacieran todavía en algún archivo público o privado, en espera de que alguien los rescatara del olvido.

BASERRIA EZ DAIGUN ZATITU EZ BANANDU*

Euskaldunok, oraintsu arte, baserrian bizi izan gara, ia danok. Solo, mendi, abere ta abar, antxe eukan bere etxaguntza. Aitzuloak itxi ta baserritar egin zanetik, antxe irabazi eban jateko ta jazteko bear ebana.

Orain, naizta zar-sundaz eta ixil-mixillez beterikoa izan, ez dautsagu geure basoaldeko bizitegiari ainbeste txera egiten: uts-utsik be, errez itxi oi dogu bertan beara, zarkin antzean.

Alan eta guzti be, gure baserriak naiko aberatsak dira, mendiak zugatz baltzez, piñuz sartuta ba'daukiez batez be. Eta gaur, ango lana, gordiña dala-ta, begiko izan ez arren, ango ondasunak eder yakez andik doazanai. Ortik, istillu biziak sortzen dira sarri, baserritik doazanen eta an geratzen diranen artean.

BASERRIA (8) aldizkaritik artu dogun lan onek, argiro darakusgu auzi orren alderdi bat.

Bizkai'ko legez, baserria osorik doa belaunik belaun gurasogandik semeagana. Alan izan da oraiñarte: aitak etxerako semea jaube-ordeko izentau, ta berarentzat da etxalde osoa bere lur, baso ta abereakaz. Baserrian jarraitu bear dauan semearentzat laguntza emotea baiño ezta ori, bizimodu onik izango badau.

Baserriko etxaldeak, izan be, familia bakarrari bizimodua emoteko beste dauko, gitxi gorabera. Ointsurarteko aldietan, baserrian batera bizi oi zirean seme-alaba guztiak, baserriko zeregiñetan eskua ezarri ta lagunduaz, arik eta semeak soldautzara urten edo alabak josten ikasteari edo neskame izateari eldu arte.

Askoz be egotaldi laburragoa egiten dabe orain baserriko seme-alabak, danak etxe baten, gurasoen etxean. Bai semeak, bai alabak oso gazterik asten dira zeozer ikasten, lan-eskoletan nai beste nonbaiten, bai dendetan, bai beste ola edo lantegien

* Karmel 1968-1 (Aurrera), 67-68; «L.A.» izenpean.

baten sartzeko. Eta astirik ez daukelako edo txikiegiak diralako, etxeko bearrai jaramonik gitxi egiten dautse.

Lengo gaztediak luzaroago ekiten eutsan baserriko bearretan, ta oingoa baiño langilleagoa, zoliagoa ta ezker obekoa agertzen zan ortxe. Etxetik alde eginda beste bizimodu bat artu aurretik, lengo gaztea gurasoen agindupean eta pentzudan bizi oi zan, eta pozik ekiten eutsan gurasoi laguntzen, eurok bearlekuen bat edo bizimoduen bat zuzenduten eutsen arte.

Gaur ikastaldi luzeak egiten dira, lenengo liburuetan eta gero lantegietan: gastu andiko ikastaldiak gurasoentzako eta semeentzako, etxean gelditzekoarentzat izan ezik. Eta gurasorik geienak, ba-dakigu, pozik eta biotzik zabalenez artzen dabe neke ori.

Nondik dator, ba, oingo gazteak Bizkai'ko legearen arerio agertzea, etxeko seme bakotxari baserriaren zati bana emotea gurago dabela? Beste kanpoerrietako legeai obeto eritxita, zergaitik dagoz eurentzako be baserriaren lur-zati baten edo baso-zati baten edo bei batzuen eske? Ez ete da ori familia geiena eskeko bidean jarteko modua, gaurko ogi-koskor baten orde z biarko gosea ekartea, batez be, etxean geldituko danarentzat, urira doanak aukera obeak eukiko ditu-ta?

Urian gelditzen danak, dendetan edo beste lantegietan sartu diranak, euki be, bear-leku erosoagoak daukiez, legezko segurantza obeak geroko; eta eztabe ondo egiten, doillar jokatzan dabe euren gurasoak estu artuaz, legez eta zentzunez kontrako bide barriak sartu daitezaz. Gizaldi ta gizaldietako zentzunak ezarria da Bizkai'ko legea: baserri bakotxa famili bakar batek erabilli dau balaunez belautan, gurasokandik semeetara. Aitak seme bateri isten dautso etxalde osoa, gaurko jabeak urrengoari. Eta olan jarraituaz, gaurkoak gaurkoari lez, urrengoak urrengoari aukera bardiña emongo dautso, baserriko ondasuntxoetatik seme-alabai naiko eskola ta aurrerapide emoteko, euren gogoko bizimodua aurkitu ta etorkizun ohea euki daien. Gaurko semeak eurentzat nai dabena, orixe bera.

Etxeko andrai aparteko deia egin gura deutsegu: ez zaitezze itsutu urian bizi dozuezan seme-alabak butanozko sukaldea edo ontziak garbitzeko barria, edo lurrunezko lapikoa ekarri dautzuela-ta. Buruginkeriz, eurentzat koipea ateratearren egingo dautzuez olango erregalu ta eskupekoak. Erregaluak eskea ekarri leie ostean; eta ezтира aintzat artzekoak, etxeko semeak eguneroko ekiñaz erakusten daben zintzotasunaren aldean; onen nekeen ondoan, zer-ikusi gitxikoak dira.

Baserritarrak bere seme-alabak eskolatu ta aurrerabidean jarteko artzen dauan neke ta ardurea, ori bai dala ederra ta ondo gogotan artzekoa. Eskola ori emotea, iñoz ez gitxitu ez galdu egiten dan kapitala da, gurasoak semeari itxi leion ondasunik seguru ta ederrena. Eta orrez gaiñera, bizimodua asteko diru-puskarik emon ezkeru, zer geiago eskatu leio iñok gurasoari? Ez al dau al dauana emon? Baserriak zer geiago egin lei bere semeen alde?

BELOKE-KO AMAK ELIZA BERRIA*

Euskalerrria, mugaz andiko ta emendikoa, Andre Mariaren oinetan ikusi degu joan dan ill onetan. Arantzazu-ko Amaren izenez emen eta Beloke-ko Amaren izenez an, egundoko jendetzak bildu ditu bere aurrean.

Arantzazu-n, bosteun urte Andre Mariaren alderako jaiera ta joera asi zala. Beloke-n, 94 urte aita beneditarrak an sartu ta Andre Mariaren izenpean jarri zirala.

Arantzazu-n, oraintsu eraikitako eliza berriaren eskeintze berezia ospatu dute. Beloke-n ere, eraiki berri duten elizaren konsekratzea, eskeintze berdiña.

Osperik naiko etorri zaigu Arantzazu-tik aurten, ango bostgarren eun urtea dalata. Durundi gutxiago eldu da Beloke-tik, gure artera beinik bein. Baña merezi du aipamenik; ez genuke ixilik utzi bear an gertatua.

Agorraren lenbiziko eguna izan zan Beloke-ko egun aundia. Ango fraideek bukatua zeukaten azkenez beren eliza berria. Eta egun orretan irikitzen zuten. Iriki, bedeinkatu ta sagaratu.

Aita beneditarren Abatetxe orrek 94 urte ditu: 1875-an eraikia da ango fraideetegia, Euskalerrrian gaindi errri zebiltzen apaiz gartsu batzuen eragiñez sortua. Hazparne-ko misionestei gogoak eman zien Euskalerrriarentzat on izan zitekela beneditarren fraidetegi bat bere erdian izatea. Eta olako bat sortzea asmatu zuten. Asmatu ta egin. Poliki poliki, arrandirik gabe egin zan dana. Eta Hazpameko mixiolari aien usteak ez ziran ustel gertatu. Euskalerrrian otoi-leku bat sortu nai zuten, eta ala da Beloke. Otoi-leku orrek Euskalerrriaren argi izan bear zuen eta ala izan da bera. Otoileku, bai, ta orrez gainera, gure kultura ta izkuntza piztu ta argitzeko lantegi ta sutegi, aita beneditarrek non-nai egin duten bezela, non-nai izan baitira ostatu eman dien errien kulturaren eusle ta begiratzaile.

* Zeruko Argia [321 (1969, 344.zenb.) 12; *Nunzeberri* izenpean, ik. 138. orr.

Aita Joanategi len, eta orain Aita Iratzeder, Gatzitegi ta abar, izen utsa baino geitxoago dira gure literatura ta kultura-sailetan. Eta Beloke-tik kimu berri bat ere aldatu da mugaz onaindi'ko alderdira, sail eta asmo berari lotu zaiona, lan berean ari dana: Lazkano-ko fraidetegia.

II onen asieran gertatuak esaten digu aurrera dijoala Euskalerriko beneditarren Abatetxe au eta urrats berriak eman dituela bere bizian oraingo mundu ta bide berrietan barrera. Lengo bide apala, itxura gutxikoa utzi gabe, eliza berri txukuna egin dute, tankera berrikoa, egokiagoa, lagun geiagori aterbe emateko lengoa baiño aundi ta zabalagoa.

Lau egunez izan dira bertan elizkizun bereziak, il onen lenengoan asita. Lenengo egunean, eliza berriaren bedeinkatzea ta konsekratzea, Baiona-ko apezpikua bedinkatzaile.

Bigarren egunean, kanpoko apaiz eta Belokeko eskolara ibillien eguna. Illaren lauan, moja-seroren txanda. Eta urrengo egunean, irailaren 7-an, aurreko egunetan joan-eziñik izan zuten adiskideena. Egun onetan, Donostia-tik joanda, an izan ziran 50 lagun ere. Baziran 18 apaiz meza ematen. Eta mezaren barruan, bi euskalkanta berri eman ziran, xoraturik entzutekoak: bata, Kristo-ri eta Elizari egiña, eta bestea, Andre Mariari zuzendua. Bien doña Urteaga musikariak asmatu ta atera berria, eta bertsoak, Aita Iratzederrenak. Batak eta besteak egoki adierazten zuten ango elizkizun eta jaien mami gutzia.

Bigarrenaren aipamen berezia egin nai det emen. Beloke-ko Amak izen berria artu du kantu onetan: **Ongi etorri zabalaren Ama**. Irudi orrek ez du, noski, balio aundirik, arteari dagokionez. Baiña ezin ukatu maitagarrizko zerbait badariola bere aurpegi atsegin eta beso zabaletatik. Balio gutxikoa dalako edo, ez dute eliza berrira aldatu. Tankera berriko beste bat egingo omen dute, lengoaren goxotasuna eta biotz-besoan zabalera berdiña erakusten duela, beti **Ongi etorri zabalaren Ama** agertu dedin. Olakoxea da, izan ere, oraingoa: bere besoak gugana edaturik, ongi etoririk zabalena opa ta eskeintzen digula dirudi. Eta ola ikusi du kantu onen asmatzaileak. Bertsoak ongi asmatuak eta ongi onduak daude. Oso egoki ematen digute Belokeko Amak bere iruditik esaten diguna. Bai ta ango fraideen bizia ta pake-giroa ere, beren Amarenaren erreinu bezela.

Bihotz-besoak zabaldurik
zaude begira.
Goiko bakea gain huntarik
ixur mundu guzira.
Ongi etorri zabalaren
Ama Belokekoa,
bakez egarri heldu diren
gazten bozkarioa.

Gaztetako ametsez beterik, bake-egarriak eramanda, Ama orren magalpean fraidetu izan dira ainbat gazte. Eta ez da arritzekoa, berenez eta ustegabeaz bezelaxe, Amaren bake-giroa ta biotz zabala itsatsi bezaie aren semeai. Kantu ori entzutean,

ainbat oroitzapen zetozkidan burura neri, ainbat gauza, ainbat gertaera, bai entzunak eta bai neronek ikusiak ere. Belokeko Amak besoak zabalik dauzka, noski; baña ango fraideen besoetan ikusten ditut nik, bereziki. Ango fraideen besoak biurtu dira ango Amaren beso. Eta Andre Mariak bere fraideen bitartez erakusten du bere biotz-zabala. Semen besoak zabalik daude beti, ta noizik bein estutu ere egiten dira, aterbe-billa datorrena besarkatzeko ta ongi etorririk zabalena emanez bake-lekua eskeintzeko Jainkoak daki zenbat eta zenbat biotz autsi ta gorputz unaturi.

Azken-urteotako gerrateak badakite olako zerbaiten berri. Aterbe-billa zetorrena zer koloretakoa zan begiratu gabe, Beloke-ko fraideek biotz-besoak zabalik izan dituzte nor-nairentzat. Amaren eskolakoak agertu dira. Edo, berdin dana, Kristoren eskolakoak. Eta kantuak adierazten duenez, eskola orretan iraun nai dute eta eskola bera zabaldu nai dute munduan:

Ditzagun onhar, Kristo baitan,
gutaz bertzelakoak,
egin gaitzan bat mundu huntan
denak jaun Zerukoak.

Pake-giroa dario non-naitik Beloke-ri. Ango bazterrak berak ere ez dute inolazko laztasunik. Ango muño legun, landa belartsu, soro ta ardantza ubel-gorriskak, anogo dana pake-auznarrean bezela dago. Urrun da andik irietako iskanbilla.

Pake-giroa dario, batez ere, ango Ama birjiñari. Pakezko arrera eskintzen die deneri, bere besoak luzaturik. Eta Amaren eskolan ikasita, ango fraideek ere ez dute besterik gogoan eta beren kantuzko otoitzean pakean ta benetako anaitasuna opa zuten mundu guziarentzat:

Ez dadin izan nahasmendu,
gerla edo galerna,
zuk, othoi, Ama, munduz mundu
eman anaitasuna:
Ongi etorri zabalaren
Ama Belokekoa,
bakez egarri dabiltzanen
argi eta gozoa.

Goxo ta kementsu zetorren kantuauren doña bearrietara, goxoago aren mamia biotzera. Olako giro batean atsegin da arnas artzea. Eliza berria ikustera, gorputza ikustera joan eta arima arkitzen genuen. Beloke bizi duen arima.

Merezi zuen aipamenik il onen asieran Beloken gertatuak: ango Amak eliza berria du. Laster izango da eun urtea fraide beneditarrak aren magalpean biziten asi ziran ezkeru. Urte ori ospetsuago ospatuko al dute. Eta jarraituko al dute beti oi duten griñaz Euskalerrian gaindi beren frutuak eta barne-giroa zabaltzen.

EUNURTE-JAIAK BELOKE'N*

ORAIN EUN LTRTE sortu zan Beloke'ko fraidetxea, an, Labastida-Hasparne ondoko muiño paketsu eta ederrean. Gaintxo artan argi berri bat piztu zan orduan, bere argi-izpiak Euskalerrian barna mundu guztira edatuko zituen. Ordurezker, leku ura paketsu eta ederra baldin bazan len, ederrago eta paketsuago biurtu zan gero. Orduan, 1875'garren urtean, landatutako zuaitzak landare berriak eman ditu; orduko argi berriak eun urtez iraun du bere zirrintak zabaltzen.

Euskaldun suar eta idazle bikaiñei zor zitzairen fraidetxe berriaren asiera. Arbeldibe eta Joannategi badira norbait euskal-literaturan. Euskaldun bero eta idazle trebe bikaiñik bada fraidetxe artan gaurko egunetan ere. Ango nagusi abataren izena aipatzea aski bedi.

Orain eun urteko gizon aiek otoitz-leku bat nai zuten Euskalerrriaren biotzean, eta aien asmoak ez dira utsean gelditu. Eun urte geroago, otoitz-leku eta otoitz-eskola da Beloke. «Otoitz-lari» aldizkariak ez du beste asmorik: otoitz-mezua bialdu euskaldunei, kristau-bizitzaren berri eraman euskaldunen gogoetara. «Ezkila» argitaldaria, berriz, zer ez du egin, azken urte auetan, eta zer ez du egiten orain, Euskalerrrian zear elizetako kantak berritu eta aberasteko?

Egoki zan eta zuzen eungarren urte au esker onezko biotzez guztiok ospatzea. Eta ala asmatu eta ala egin da 1975'gko. urte Santu ontako buruilarren (iraillaren) lenbiziko igandean, illaren zazpian. Zortzi egun lenagotik prestatu eta berotu zan giroa. Aurreko igandean asita, aste osoan izan ziran elizkizun eta itzaldi bereziak, gertaera andiaren muiña alde guztietatik aztertu eta ausnartzeko. Eta illaren lenengo igandean, euskaldunen egun aundia, eta arratsaldeko lauretan elkar-meza nagusia: eliz-barrua eta zoko guztiak bete anima, otoitz eta kanta: fraideen koru zabala eta aldare-aurre guztia bete apaiz meza-emaille, eta guzieren buru bi abatak, lengoa eta

* Goiz-Argi 16 (1975, 261.zenb.) 3; *Berrikari* izenpean, ik. 86. orr.

berria, Inda eta Iratzeder, eta bion erdian Etxegarai jaun agurgarria, Marseilla'ko gotzaia, artxapezpikua. Zenbat meza-emaille ote ziran an guztitara? Une artan inõrk ez zeukan *zenbat gara-ka*. aritzeko gogorik. Andik atera eta gero izan zan norbaitzuen kontuak atera bearra. «Meza ederra!», entzun nion Parisen «senatur» dan jaun argi bati. Bidasoaz Bilbo alderako apaiz batzuei entzuten zitzaien: «Noiz ikasi bear ote dugu guk olako elizkizunak egiten? Noiz sartuko ote ditugu olako kantuak, eta olako kantaera gure elizetan?» Bai korua eta bai erria, fraide eta apaiz, gizon eta andre, gazte eta adiñeko, ezin egokiago ari ziran, animaren beroa zekartela beren ezarrietara. Eder eta sarkor egin zitzaiGUN Aita Lertxundi'ren «Sinisten dut» berria, koruak eta erriak aldizka emana. Gero artxapezpikuaren, Etxegarai jaunaren mintzaldia! Aitortu bear dut: Europa'ko gotzaien artean gaillen agertu dan gotzai jaun au gure izkuntzan ain trebeki mintzaten entzuteak arrotasun piska bat eman zigula. Euskalerritik kanpo urteetan izan arren, ez du aztu euskera, ez; ez du gaizki «xaramelatzen elea», ez. Euskera batuaren kezkarik gabe, bere *eñe* eta guzti, ederki jakin zuen gure kristaubiotzak eta euskaldun-biotzak ukitzen; ongi lortu zuen, an Begoña'ko, Arantzazu'ko, Estibaliz'ko eta Orreaga'ko Amaren magalpean aziak Beloke'ko Amaren aurrean elkartzen, gogo eta biotz. Eta azkenean, Iratzeder Abataren esker onezko itzak. Esker onezko itzak, bai, ango fraideekin bat egitera joan giñan guztioi: eskerrak Jainkoari, eun urtez Beloke'ko fraideentzat eta ango fraideen bitartez mundura ixuri dituen on eta mesede guztiengatik: Beloke'n, Oklahoma, Argentina, Afrika eta Lazkano'n, Lazkano'ko fradetxea Beloke'tik aldatutako landarea baita. Iratzeder aitaren mintzaldiak bukaera betea ezarri zion ango elizkizun ederrari, eta, era batera, eun urte ontako jai osoari.

Eta *galdera bat edo beste* gelditu zan gure gogoan dilindan: orain eun urte irureundik gora apaizek lagundu omen zieten ara zijoazten fraide berriei, Labastide-Hazparnean zear, Beloke'rako bidean. Aurten ez dira bildu, noski, orrenbeste. Egia da. Baiña bestetik, aurten Euskalerrri osoagoa izan dala esango genuke Beloke'n. Euskalerrri alde guztietatikoak zeuden an: Iruña, Donostia, Bilbao'ko apaizak; Loiola, Estibalitz, Arantzazu, Lazkano, Amorebieta, Markiña'ko fraiderik ikusi genuen. Eta apaizez beste, Euskalerrria aspaldi biotzean daramaten gizon asko ere bai: Labeguerie, Iruxo, Onaindia, Umami eta abar. Aurtengo Belokeko eguna euskaldunagoa izan da, noski, orain eun urtekoa baiño.

Euskaldunagoa, Eliza berriko Andre Maria ere, «ongi etorri zabalaren Ama». Lengoa, fraideek berekin Parise aldetik ekarria zan, nonbait: oraingoa, Euskalerritik, Naparroa'tik eramana. Abata berriak ez du ara eta ona gutxi egin, bazterrik gutxi arakatu, Andre Mariaren irudi zaar eta egokiena billatzen. «Begotarte goxo, besoak zabalik» bear zituen izan. Lengoa bezala. Eta orra Naparroan aurkitu, mendez mende ainbeste euskaldunen agurrak artua. An dugu orain, begiak goxo, besoak zabal zabal eta utsik altzoa ere, bere Seme maitearen lekuan guri guztioi leku egin naiez bezala. Bere misterioa eta lillura badu Beloke'ko Amaren irudiak. Badu euskalduntasuna ere orain. Amaika euskaldun biotz-lerturi egin dio atsegin betezko arreta «ongi etorri zabalaren Ama» orrek! Amaika euskaldunek aurkitu du egun oso gaitzetan pakea eta poza, an fraideen aterpean, Beloke'ko Amaren begiradapean!

Eunurte berrian sartu da Beloke. Mende berri onek, eunurte berriak zer etorkizun, zer azken izango ote du? Jainkoak du erantzuna. Jainkoak eta Jainkoaren deiari erantzungo dioten euskaldun biotzek. Iratzeder aita Abataren mendean, esku onetan dago ango ontziaren lema. Olerkari eta euskal-idazle gartsu onek ez du itxaropenik galtzen eta ona zerk pizten duen bere itxaropena, oraintsu esan duenez: «Jainkoak maite du Euskalerrria, ez du inork Jainkoak aña maite. Maita dezagun guk ere Jainkoagan».

Lema orrekin, Euskalerrriaren onerako, aurrera egin dezala opa diogu Beloke'ko fraidexeari. Jainko-bilari eta euskaldun egin dedilla gero eta geiago. Bide ortatik jo aurrera. Beti aintzina! Urrengo eunurtea arte! Gure erriak badu olako otoitz eta pakeleku baten bearra.

GURE PATROI AUNDIA*

Gure Patroi aundia zein dan esan bearrik eztago Gipuzkoan: Iñazio, Loiolako seme argia degu. Gure Patroia, ez bakarrik Gipuzkoan; bai, Bizkaian ere. Eta gureago izan dedin, santu au esango genduke iru Probintziek artu dutela patroi, zaindari.

Gipuzkoak zaindari du. Gipuzkoako semeak ala erabaki zuten, santu au aldararako bidean jarri zan ezkerotik. Orain ez dezakegu asmatu nolako eraso egin zuen gertakizun onek gipuzkoarren biotzetan: «Arabarrak beren erriko semea omen dute zaindari, Prudentzio donea; guk ere laister izan bear degu gurea».

Esan eta egin. Loiolar ospetsua Elizan zoriondunen lerroan jarri zuen ezker, 1609-n, Azpeitiarrak artu zuten aurrea, egoki zan bezela: urrengo urterako Patroi egiña zeukaten beren erritarrek.

Andik amar urtera Gipuzkoa osoak artzen du erabaki berdiña: 1620-n Zumaiako Batzarrean Gipuzkoako Zaindari artu dute Iñazio, santuen lerroan jarria izan baiño bi urte lenago. Gipuzkoarren gogo beroak ez zuen luzapiderik nai. Batez ere, aide nagusietako askok berebiziko pozaldia zuten, noski, beren arteko bat santu ta zaindarizat izateaz. Geroxeago, 1622-n Tolosan du Gipuzkoak batzar nagusia. Iñazio santuen maillara jaso berri dago. Eta Batzarrak erabakiok artu ditu: Santu berriak Gipuzkoako eliza bakoitzean aldare bat izango du, eta erriko etxe bakoitzean irudi bat; Aita Santuari eskatzen zaio santuaren zaindaritza berriz ontzat eman dezala: Loiolako etxea Iñazio doneak sortutako Lagundiaren eskuetan jarriko da eta santutegi egingo; Gipuzkoak Loiolako santuaren Lagundikoak semetzat artzen ditu.

Apaizak ez dute gelditu nai beste iñor baiño atzerago. Iñazio donearen zaindaritza berezia nai dute. Eta, 1624-n, uztaillaren 22-n izan duten batzarrean, santu berria zaindarizat artzeko itza ematen dute eta artara beartzen dira.

* El Diario Vasco [38] (1971, 10.314.zenb.) 9.

Or datoz geroago bizkaitarrak. Amaren aldetik Iñaziok Bizkaiko odola omen zekarren. Ondarroa ta Lekeitiokoa. Eta beren senipartea nai dute. Ez ote dezakete nolabait bizkaitartzat eta beren zaindaritzat artu Loiolako seme santua? Baietz erabaki dute, eta 1680-n, Gernikako batzarrean, azillaren 5-n, Bizkaiko zaindari izendatzen dute. Aita Santuak (Inozentzio XI garrenak) 1682-n, on egiten du izendapen ori.

Eta Arabarrak? Ango odolik ere ba du santu euskaldunak. Ango Gebaratarrekin aidetasuna badu. Baiña, Araban, beste santu zaarrago batek artu zion aurrea; Prudentzio dute zaindari, eta eztago ari lagun berririk ematerik. Orraitio, joan dan mendean, Obispadu berria sortu ta Arabar, Giputz eta Bizkaitarrentzat Gotzaia Gasteizen jarri zanean, guztien gogoia bete zan; Prudentzio ta Iñazio, bi santuak jam' zituzten Elizbarruti berriaren patroï eta zaindari.

Ola euskaldun geiago artu ditu Iñaziok bere babespean. Aren Zaindaritza zabalago egin da. Arrezkero gure Patroi Aundia gureago eta patroïago degu. Ez al da ala?

TXAPELGILLEEN ZOROA

«Edozein kristau onek gertuago egon bear du urkoaren esana ontzat emateko txartzat baiño. Eta ontzat eman eziñik balu, galde bezaio besteari nola ulertzen duen; eta onek oker ulertzea balitz, maitez erakutsi bezaio non dan okerra; eta ori aski ez balitz, egiñalak egin bitza zuzen artu dezan, eta, ola salba dedin». (S. Iñaziok esana).

Alkar-izketarako urrezko araua emen Aita Iñaziok eman ziguna. Bera nolako gizon atsegiñ, etorkor, biotz-zabal eta gogo-zabal zan antz emateko, argi geiago degu or iztun eder baten erausietan baiño. Urruti azaltzen zaigu or bere gaztetako ames eta arrokerietatik. Orduan laster elduko zion ezpatari eztabaidarik edo beste istillurik bukatzeko. Orain bere burua ezten eta garaitzen ikasia ta oitua dago. Alkar obe artzeko bideak ikasiak ditu, bere lagunei, bere jarraitzailleei ere irakasteko.

Aita Iñazioren itzok etorri zitzaizkidan neri burura, asko ez dala ainbeste esames sortu duen Euskal-literaturari buruzko liburua irakurri nuenean, eta, bertan, 15 garren orrialdean, badaezpadako lerro batzuk ikusi. Gauza naastuagorik eta lorrñagorik itz gutxiagotan nekez esan diteke: Inkisizioa, liburuentzako zensura, ez dakit nolako aszetika berria, Trentoko Konzilioa, indarbidea, «intolerantzia», apaiz humanisten persekuzioa, eta Jesusen Konpañia, dana zaku batean sarturik daukugu an. Zer literatura izan zitekean, indar zapaltzaille aiek guztiak gure errian ain gogor sartu ezkeru? An, 1542-an Inkisizioa sortu, andik bi urtera Trentoko zer ori; eta, zoritxar guztien geigarri, Jesusen Konpañia, Loiolakoaren semeak: zer bear zan besterik Euskal-herria lur jota uzteko, gure alorra literaturaren frutuatarako errerik gelditzeko?

* El Diario Vasco [39] (1972, 10622.zenb.) 9.

Peru ta Mariaren edo onen eta gaiztoen ipuietan ez dira gertakariak errezago ateratzen, edo korapillo geiago ez dute: batetik, onak, aingerutxo bedeinkatuak; bestetik, gaiztoak, deabru utsak, beren adar eta sarde suzkoekin.

Iñazio ain Jainko-gizonak, alkar-izketa baketsurako ain gertatuak, ain saiatu ta sakatuak, nola, sortu du olako mundurik? Ipui ori asmatu duenak erantzun bear luke. Baiña ala egingo ez duen ekeru, egin dezagun zer bait, txurikiñezko etxe ori bera botatzen.

Nola asmatu du Inkisizioarena? Erromako Inkisizioak noiz izan du gure artean indarrrik? Eta zertarako berriztua izan zan bera? Ez, iñolaz ere, apaiz humanisten atzetik, aien eizan ibiltzeko. Humanisten aldia joana zan ordurako, edo azkenetan zegoen. Rabelais, esaterako, aien artean sartu ote genezake? Ez zion bada Inkisizioak eskurik ezarri. Apaiz humanista ote genuen Etxepare? Or degu, bada, Inkisizio ori sortu (?) zelakotik iru urtera bere liburua, euskerazko asikiñak, argitaratzen. Inkisizioak ez Trentoko Batzarrak ez zuten agatik ikerarik egin, ez Jesusen Konpañiak ere. Eta beste Etxeparerik azaldu ez bazan, errua ez da ez Trentorena, ez Jesusen Lagundiarena. Aren aldia ere joana zan noski, bere giro guztiarekin. Trentori egotzi bearko ote diogu errua, Shakespeare, esaterako, ez Inkisizioaren ez Jesusen Konpañiaren bildurrik ez zeukan lekuan bizi zalarik, Etxepareren giroko idazlea izan ez dalako? Eta gure artean Cervantesik sortu ez bada, edo Ronsard edo Tassorik, nok eskatu bear dio konturik, Erromari, edo Iñazioren semeai? Noiztik ona galerazi dute aiek gure artean beste iñon egin ez dutena? Noiztik ona izan dute gure artean beste errietan baiño indar eta sustrai geiago?

Beste ipui bat: gure erriaren oituretako ez dakit nolako estutasuna ta illuntasuna, Trentok eta jesuitek sartu oraen digute. Gure erriak moral estua duela, barruko alaitasunik gabekoa dala? Zer izango ote zan, Calvinistek garaitu balute? Leizarraga Beraskoizkoa nekez iruditu genezake iñoren aurrean dantzan, S. Iñazio iñoiz ikusi zuten bezela. Beste ipui bat: jesuiten moral estua ta «intolerantzia». Ain zuzen, Trentokoarekin eta Erromarekin zer ikusi oso gutxi zuten askok, Jansenistek esaterako, lasaiegizat eta mauka zabaltzat jo zituzten. Eta etsairik amorratuenak non izan dituzte, nortzuen artean? Agintari erri-zapaltzailleenen artean, noski. Amaseigarren mendean bertan, iraultzailleen izena irabazi zuten, beren arteko batek jauntxo erri-zapaltzailleak iltzea zillegi zala esan zuela-ta.

Baiña zertan bide ontatik aurrerago jo? Gure erriarentzat ez da iñolaz ere kaltegarri izan ez S. Iñazioren ez aren semeen argia eta alkar-izketarako giroa. Eta ez zan gure erria ain dantzari ta alai izango, beste giro batek artu balu.

Besterik esan duenak txapelgillearen erokerian erori ez ote dan antza ba du: neurri bateko txapela egin eta gero edozein buru aren barruan sartu nai, artan sartzera leiatu: aurre-eskema bat egin eta aren barruan sartu nai aurrera datorren edozein gai, arira etorri nai etorri ez. Olako buru batean ez dago, ez, alkarrizketarako lekurik.

Eta idazle ospetsu ta aldarte oneko batek esan zuenez, erokeri txarragorik, sendatu-eziñagorik, ez omen dago. Gure Patroi aundiak, bere alkarrizketarako arauarekin, aldenduko al digu zoritxar ori, eta bakoitzari, oraingo ta leengoegi, berea ematen irakatsi.

GURE PATROI AUNDIA ETA MARKUSE*

Gure Patroi aundiaren egun-inguruan, berez dijoa gure gogoia arengana, eta gure luma artaz zerbait idaztera. Oraingoan, gaurko egunetako izen ospetsu batekin batera jarri degu aren izena: Markusekin. Zertara dator au? Gizon bi auek zer ikusteko dute elkarrekin?

Leenbizi, zerbait argitu dezagun. Markuse au, emen aipatzen deguna, ezta orain-tsu istillu aundiak sortu zituena (Herbert); onen anaien bat edo baizik, Ludwig izenez. Biak Berlin'en jaioak dira; Ludwig, Herbert baiño zaaragoa; biak Alemania'tik Goi-Ameriketara iges egiñak; biak izan dira ango ikastetxe Nausietan irakasle; biak, erlijioabeak, edo erlijioa ukatuak. Zein erlijioabeago ez dakigu. Gaurko Markuse au, emen aitatu nai degun au, sikologi-gaietan nabarmendu da, batez ere gizon nabari ospetsuenen anima-giroak aztertzen.

Ola urbildu zan Loiolako santuarengana. Urteak dira Iñazioaren bizia ikasi eta idatzi zuela. Eta Santua il zaneko laureungarren urtean berriz argitaratu zuen artaz egindako liburua.

Or degu gure Patroi aundiaren bizia, eta aren nortasuna, siñiste gabeko baten begietan. Idaztankera txukun eta bizia du; gaia, berriz, munduko gizon baten begiz ikusia, eta ola azaldua. Markuse'k ez du idatzi nai izan santu baten bizia, gizon batena baizik. Jainkoaren graziak gizon orren barruan ezer egin zuenik ez du aipatu ere egin, ez jakin nai ere olakorik. Ez du Iñazio bat ere maite. Ala ere, Loiolako gizonaren aurrean gizon aundi baten aurrean dala garbi aitortuko du. Munduak arekin gizon ongille eta mesedegarria artu omen du, gaurko munduak ere eredutzat artzekoa. Fededunen eta fedegabekoen belarriek entzun dezaten argi eta garbi dio ori.

* El Diario Vasco 40 (1973, 11.998.zenb.) Suplemento dominical, 7.

Non aurkitzen dio gure santu oni bere eredutasuna? Ona non. Gizonak, Jainkorik siñetsi ezin duenean, zeruko izarrak goietan illundu zaizkionean, zer bear du? Ez kokildu, itxaropenik ez galdu, aurrera egin mundu obe ta zuzenagoa sortzen, ortan kemen guziaz leiatu. Etsipen beltzak artu gabe, ekintzari eldu bear dio, gizarte berria sortu arte. Fedeak emandako indar eta garrak galdu dituen ezkerero, barneko indar guztiak bildu bearra dauka, etsipenetan erori gabe, alik eta ustetsu eta itxaropentsuen aurrera begiratzeko. Ortarako eskola sortu duena, eta borondate sendoa erakutsi eta erakatsi duena, ezta sekula zaar egingo, eztago joana, gaur-gaurkoa da. Are geiago, etorkizuna berea du, gaur ta biarkoa da.

Orixe izan zan, ain zuzen, Loiolakoa. Bai, Markuse'k tamalez eztu Iñazio oso osoan onartzen; baiña ala ere, etorkizuna duen gizon aundizat dauka, gizon eragille eta aurrelarizat gure Patroi aundia. Zergatik, batik bat? Loiolakoaren erakatsi eder batzuk gatik: «Na duenarentzat, borondatea duenarentzat ezta gauza zaillik eta ezin egiñik. Kristauak eztu egon bear geldi mirariren baten zai; Jainkoak mendean jarri dizkion indar eta eskuarte guztiez baliatu bear du, aiek erabiltzen leiatu bear da. Otoitz egin, bai, dana Jaunaren eskuetatik artu bear balitz bezala; baiña lan egin, nekatu, dana norberandik atera bear balitz bezala». Edozein garaitako eskola ezin ohea, gaurko munduarentzat biotz-jasogarri bikaiña!

Gaurkoagoa da, Markuse'ren iritziz, gure Santua, Lutero, Kalvino eta Jansenio baiño. Lutero'ren goiak eta beak jo bearra, tipili tapala utsa, txantxan-soiñu utsa omen da. Iñazioren eragiñaren eta otsaren ondoan. Zergatik? Iñazio onerako indar-biltzaille eta talde-sortzaille aundia izan dalako, mundu osora ona zabaltzeko giza-biltzaille. Aspaldietako ames zarra zan gizonen artean zuzentasuna eta duintasuna nausi jartzeko amesa. Loiola ez zan amesetan gelditu, otoitz utsean ere ez; bere eta besten indarrak ortarako lanean, ekin gogorrean jarri ditu.

Bere itzal eta guzti. Itzal oiek, Markuse'k bere siñisterik ez izatetik begiratuta empirismo-eskola ez Alemaniako arrazoi-zaleena), bera izan da kristautasuna alper egotetik, beti leenean egotetik atera duena, erakatsi orrekin. Bera izan da, eta ez Napoleon, European giza-biltzaille eta elburu batera eramaille aundiena. Bero mintzatu da Berlin'go seme au Loiolako santuaz. Santutasunik ez dio aitortu; gizatutasunik, bai. Bere itzal eta guzti, gizon aundia, gizarteak ongille izan duena, eta ala aitortu eta ereduzat artu bear lukena.

Bere itzal eta guzti. Itzal oiek, Marukuse'k bere siñisterik ez izatetik begiratuta aurkituko dizkio. Baiña arengan baiño geiago aren jarraitzailengan ikusten ditu. Jarraitzailleek askotan ez dute Loiola'ren onerako elkartea ark nai zituen bideetatik zuzen eramanean, bear bada. Jarraitzailleen itzalek, bearbada, izen ona kendu diote askoren burutan. Baiña Loiola ez degu utzi bear izena galdu diotenen eskuetan; ez dezatela aren duin ez diranek aren izen argia loitu.

Eta nik esango nuke emen: ez dezagun «gure Patroi aundia» beren neurri txikira ekarri nai luketen mende, inkisizioa, intolerantzi eta eztakit zer beste itz lelo artuta, aren izena ezaindu nai luketen idazle merke batzuen mende, nai ta oien erasi ergelak lotan dagoen Akademiren baten on-iritzia eramanean.

Pio Baroja'k berak bere argi-une edo lotsa-une batean, bein akademiko egin zutenean, auxe aitortu zuen: «El mundo culto no tiene hoy... sobre Ignacio de Loyola,

punto neurálgico, la impresión que tenía hace doscientos años. El mundo ha querido comprender y ha comprendido». Baroja ere «mundo culto» ortan sartu gabe bizi izan zan luzaro, eta ergelkeririk naiko zabaldu zuen ortaz bere liburuetan. Azken bateko itz oiek izan bitez leenagoko pekatuen barkagarri.

Gure idazle merketxo batzuk ere ongi egingo dute, garaiz ikasi, «mundo culto» ortan sartu eta «gure Patroia» bere aunditasunean utziaz. Siñistegabekoa eta alemana izan arren, Markuse'k egin duen bezala.

YUGOSLABIA ANDRE MARIAREN OINETAN*

Askok nekez siñistuko dute, baiña egia da. Kristau-erria Andre Mariaren omenez jairik aundienak egiten ari izan dan bitartean, omenaldirik beroenak gutxi usteko genduen erri batek egin dizkio zeruko Erregin orri. Andre Mariarentzat, ageri danez, eztago bumizko esirik ez muga itxirik. Nola izan arentzat iñolazko mugarik? Jainko gizon egiñaren Ama danez, muga guztiez gaiñekoa ez ote degu? Ez ote da edozein lekutan lekukoa, bertakoa?

Yugoslavia izan da erri ori. Andik datozkigu berri onak. Jakiña da komunistak daudela an agintari. Tito ospetsuaren mendeko erria degu. Egunik asko ezta, larogei urtekin oraindio gordin xamar dirudien politiko ta agintaria, Yugoslabiak berriz ere buruzagi autatu duela, bere bizi guztiko autatu ere. Eta Titok, munduan diran agintari alguztidunetakoa dan onek, baimen guztiak eman ditu. Zertarako? An bere agindupeko errian, Andre Mariaren omenezko bi batzar aundi egiteko. III ontan izan da. Bi batzar izan dira Yugoslabian Andre Mariaren omenez: bata, mundu guztitik bildutako teologo jakintsuena; eta kristau-erri osoarena, bestea.

Mundu guztitik etorrta, bildu dira an, Zagreb deritzan urian, ainbat teologo eta jakintsu. An izan dira Europa-barmko obispo jaunik entzutetsunak; an, katoliko ez diran teologo mordo bat ere. Zertarako bildu dira? Guztiak elkarrekin Andre Mariaren nortasuna, Aren aunditasunak aztertzeke; Andre Maria gizonentzat eta Jainkoaren aurrean zer ta nor degun siñismenaren argitan elkarri argitu ta erakusteko. II onen 6-tik 11-ra izan da jakintsu oien batzarra.

Gero, 12-tik 15-ra, millaka ta millaka bildu dira, mundu guztitik, baiña batez ere Yugoslavia bertatik, Andre Mariaren maitaleak, andik eta emendik erromes. Marija Bistrika deritzan santutegian izan dute batzarlekua. An auspeztu dira beren Erregin eta Amaren aurrean, beren siñismena ta maitasuna agertzeke.

* El Diario Vasco [38] (1971, 10.332.zenb.) 9.

Aita Santuak bere ordezkaria bialdu du: Yugoslabiako semea bera. Seper Kar-denal jauna, Erroman Aita Santuaren aldamenean kargurik aundienetako duena. Beronek egin du ango batzar eta jaialdietan buru. Eta, askorentzat siñisten zaillago izango dana, ikusi da an besterik ere: Zagreb uriko agintariak erriko etxean batzarkideei arrera egin eta ongietorria ematen.

Andre Maria zerura igo zaneko jaiaren inguruan, ezin ukatu kristau-biotzak iñon ez dirala Mariarenganako beroago agertu aurten Zagreb-inguruetan baiño. Eta guretzat jakingarri dala uste det euskaldunik ere izan dala an. Baten izena ez degu aipatu gabe utzi nai. Batzarreko teologo ta izlarien arteko izan da bera; Ismael Bengoetxea, Bizkaiko semea. Sevillan bizi da aspalditxotik.

Eta an, Sevillan, Andre Mariaren izeneko aldizkari baten zuzendari da, *Myriam* izeneko aldizkariaren zuzendari. Aldizkari onek Andre Mariaz beste gairik ez du erabiltzen. Ain zuzen, Yugoslabiako jai oien iragargarri bezela, oraintsu atera du zenbaki bat, komunisten errietatik berririk onenak emanaz Andre Mariari buruz.

Berak jakinerazi digu komunisten mendeko eririk aundienetan eskuz esku eta etxez dabillega Andre Mariaren irudia. Nola? Irudi orrekin agintariak aterazi dituzten karta-selloetan. Eta nolako sellu polit ederrak, gero! Lengoak lengo, azken urteotan bakarrik, Ungriak, Txekoslobakiak, Rumaniak eta Rusiak berak ere ainbat olako sellu eder begibetgarri atera eta errian zabaldu dituzte. Guztien artean geien atera duena, Yugoslavia; 1970-ra, 15 sellu atera ditu Andre Mariaren irudien batekin. Katolikoak dirala-ta dauden errietan non ikusi dezakegu ainbeste?

Ikuskizun ederra, eta ikaskizun ohea, noski bumi-esitik aruntz gertatu dana, emen katoliko asko Mariaren izena aipatzen edo Arantzazun aren oiñetan auspeztutzen lotsa diranean. Gure artean mingain lotsatiak ixiltzen diranean, badimdi ez duela Mariak gezur gertatzen utzinai berak beiñola esan au: Gizaldi guztiek emendik aurrera zoriontsu esango didate.

JULIO URKIJO: EUSKALDUN BERRI TA KARLISTA BERRI*

Joan dijoan urte onekin Urkijo zanaren urteurrena ere badijoakigu, euskalari aundi ori jaio zan ezkeroko eungarren urteurrena. Merezi zuen aiñako omenaldirik egin ote zaio? Zerbait egin da, egia esan. Omenaldirik egokiena, nik uste, berak sortu ta atera zuen aldizkaria, RIEV delakoa, berriz argitaratzea.

Urte onen bukaeran gogoratu dezagun bere izena. Gogoratu dezagun norbaitek gogoratu duena: euskaldun berria zala. Eta (beste iñork nik dakitala aipatu ez duena) gogoratu dezagun karlista berri izan zala ere.

Euskaldun berria genduan Urkijo jauna. Naiz ta Deustuan jaioa izan. Leengo Deustua ez zan oraingo Deustu, etorkiñez eta kanpotarrez betea. Orain eun urteko Deustua euskalduna zan. Onak ez du esan nai, artaldeetan bezela, an zurien artean beltzik ez zanik. Eta Urkijori orixe gertatu, noski: zurien artean beltz izatea. Orduan ta geroago, beste askori gertatua. Baiña ain askori ez bezela Urkijori bere aitonen baratzera itzultzea ere gertatu zitzaion, euskaldun egitea. Ez zan izan bakarra, ez. Bere egunetakoa zuen, esaterako, Kanpion jauna. Biak izan ditugu euskaldun berri, euskal-odola daramaten askorentzat eredu bikain. Biak iritxi ziran Euskaltzain izateraiño. Egia esan, ez zuten, ez batak ez besteak, euskera asko landu: Urkijok gutxiago Kanpionek baiño. Ala ere, Urkijo ez da euskeraz ezer idatzi gabea, Aita Villasantek (esan bearrik ez zuen arren) bestela esan badu ere. Euskal-Esnalea aldizkariak 1910-an atera zuen egutegian, artikulotxo mamitsua idatzi zuen, beintzat, XVII mendean euskaldun erdal-idazleak poliki jorratu zituenaren itzak aipatuz. Gezurra da, beste norbaitek esan duena ere: alegia, Euskaltzaindian, Urkijo ta olakoen baten ederra egitearren, erdera utsean ari izaten zirala. Euskaltzaindian irakurten zan, bai, erderaz

* El Diario Vasco [38] (1971, 10.444.zenb.) 9.

egindako lanik; baiña bai euskerazkorik ere. Euskeraz irakurten ziran batzarretako agiriak, eta euskeraz beste ainbat lan. Eta oraingo EUSKERA aldizkariak ala Urkijoren egunetakoak ote dauka erdal-lan geiago?

Karlista berri zan, gaiñera, Urkijo jauna. Zeiñek esan du bera «de una linajuda familia de abolengo carlista» zala? Aren anaien artean, ezagunak izan dira bi: bata, alderdirik gabeko politikaduna, eta bestea, ain zuzen Don Karlosen aurkako erregetarren alderdikoa. Karlista, Julio besterik ez. Karlista izatea ez zuen etorkizkoa, gurasoetarik etorri ta artua, bere aukerako gauza baizik. Bera etorri zan karlisten banderapera. Orixe autortu zuen bein, 1904'n Bilbon egin zuen itzaldi batean: bera (ta Pradera jauna ere bai), biak zirala karlisten lerroetara beren gogoz, beren kabutarik etorriak. Urkijotar bati bein auxe aipatu nionean, irriparez artu zuen delako «abolengo carlista» asmatu zuenaren esana. Urkijotarrak karlista txapelgorrietatik baiño urbillago egon omen ziran aien aurkako beltzetatik.

Euskaldun berriak eta karlista berriak, biak bat egin zuten Urkijo jaunarengan. Bear bada, orrekin euskaldunen ama-lurra edo lur ama aurkitu zuen. Ez digu, bada, norbaitek karlista-kutsuren bat aurkitu euskaldun guztioi? Odolean daramaguna omen da. Eta gutxien uste duenak, ez gutxiago. Alperrik omen da ezetz esatea. Eta karlistatasun ori nai duenak, bear bada, Alzateko jaunen bati arrera ona egiten dio, karlista baiño karlistago izan naiez. Edota, ez dakit nik noizko sorginzuloen batera dijoa mendeetan bama atzeraka. Orrela, karlista uts gelditzen dana baiño bide berrietatik urbillago ez da gelditzen; bai, zaarzaleago, atzerazaleago, eta aurrerabideen etsaiago. Ez ote da ori urrutiegi ta ezbideetara joatea?

Urkijo zanak zentzu obeko bidea artu zuen. Euskaldunen etorkizunerako ego-kiagoa ere bai, noski.

ERMU'TIK PETRALANDA'RA*

IJIJI! AKER-DANTZARA

Egunotan, ia batera, eldu jataz eskuetara euskerazko aldizkari bi. Batak, AGUR onexek, Monako'n izan dan euskal-illeta baten barri ekarren. Euskaldun bat il da an, Bizkarguenaga aita praillea. Praille onen eriotzak ez ei dau min eta atsekabe txikia sortu. Monako aldean negarrik izan ei da. Dima'ko seme ori ain ei zan ongillea, monakotarra ta beste kanpotar askori laguntzen eta mesede egiten ainbeste neke ta lan erabillia, bekoki askotik odei illun asko uxatzen zituan irribarre gozatsuz ain ezaguna. Ango iguruko eguneroko papelen batek be alan autortu ei dau. Kanpotar urriñeko bati olango autormena egiteko, praille orrek norbait edo zerbait izan bear. Praille ta gizon lez, eta gizon euskaldun lez, ezagutua ta aintzat artua zan, dirudianez.

Baiña orra or non datorren beste aldizkari ori. (Bakezko izena daukan arren, ez dogu oraingoan aitatuko, bere izen txarragorako izan ez daiten). Orra or non datorren praille il orren inguruan, zer esango dot nik?: akerdantza antzeko bat egiten. Ez bedi iñor arritu. Oraintsu esan dau bertsolari batek:

Euskalerriko baratzan,
zazpi aker dantzan.

Zazpiotakoa da, antza, Dima dala-ta, zarraparratxoa atara gura izan dauana. Dima'ko Irukoiztar batek —Algorta'n prailletxea daukenetako batek— liburua ar-

* Agur 3 (1972, 57.zenb.) 8; *Ugarios-ko txoria* izenpean: «Anaitasuna»n agertutako artikulo bat salatuz Ugarios. Dimako auzoko fraide baten lana jorratu ebalako, artu eban L. Akesolok izenorde au.

gitaratu ei dau, bere erriko praille, abade ta mojen barri emonez. Ori dala-ta, gure dantzari onek ez dautso parkatuten iñori: ez Bilbo'ko Goizaiñari —liburu ori ontzat artu daualako— ez Dima'ko praille, abade ta mojai —ez beste iñongori, Koipekeririk ez eskatu gure akerdantzari oni.

Liburu baten barri emoteko, bai modu ona ta gizabidezkoa berorrena! Egia esateko, eginda gagoz modu orretako eretxiak irakurten, liburu barriren bat iragarten dabenean, aldizkari orretan; baiña, oraingoan, lengo markak zapaldu ez ete dabezan nago. Berba gitxiagotan, txandalkeri ta lotsabakokeri geiago ezin edo nekez sartu leiz.

Lenengo lenengo, egilleari kontuak eskatzen asten jako, ia zergaitik ez dauan argitu zerk eraginda sortu zan Dima'n, gizaldi onen asieran, praille-mojatako edo abadetako joerea, ainbeste umek bide ori artzea, edo orduko «giro sozio-ekonomikoa». Ez dau ikusi be egin, Aita Olabarr'i'k —au ei da egillea— ez dauala euki ain urrin eta atzera joateko asmorik. Orain bizi diran praille-abade ta mojakaz diardu. Eta oneik ez dira, ain zuzen be, gizaldi onen asieran «pillaka joanak». Eta gure akerdantza atara dauan onek nondik daki orduko «giroa», orduko ainbeste ume «pillaka» joate ori? Nondik daki onek noz izan dan Dima'n —ez beste iñon— olango jokerarik andiena, orduan, ala lenago, ala geroago?

«Eztakigu zergaitik ixiltzen dauan...» Zentzunezko asierea, bera be ixillik gelditzeko izan ba'litz; baiña ba-dakigu: auntzak —akerrak zetan esan be ez— mendirako jokerea artzen dauanean, zoaze ari atzera eragiten. Gure dantzaria, bai, zera ixildu!

Jakin ez, baiña bereak eta itzalak esan bear. Dima'ko ume areik ez ei eben pillaka euren bidea artu «fede utsez». Gauza andien bat esan dauala-ta dago, baiña ortxe be ez daki zer diñoan. Izan be, fede utsak eraginda ez da ifior abade ez praille egiten. Fedeaz gaiñera beste zerbait bear dala edozeiñek daki. Bestela fededun guztiak artu bearko leukie bide bardiña. Gure ez-jakin jakitun onentzat, Dima'ko umeak, areixek bear eben fede utsa orretarako, gizaldi onen asierakoak beintzat. Ez-jakiñak zenbat txaldankeri erasoten dauazan!

Eta egingo ete dautsagu berari itauntxo bat? «Txotxo jakitun, beste erri batzuetan zer jazo zan ba-dakizu? ez ete egoan iñon «giro sozio-ekonomiko» bardiñik, orduan edo zana zanean? Zergaitik ez eban, ba, fmtu bardiñik, joera aren antzekorik emon?

Ez da errez asmatzekoa, zetatik dauan gure ermutar orrek Dima'koentzat ain latz eta garratz agertu bear ori. Or ikusten da baztarren baten idatzita: «Ermua, la villa cordial». Aker-dantzagille onek, esango neuke nik, ez dautsala bere auzoko uriari asko lagundu nai izan izen orri eusten. Ez ete dabil besteren baten agotik, besteren batek eraginda? Aita Olabarr'i'ren libuma irakurteko astirik be artu ete dau, baiña? Nik ez dot uste. Besteren bat dabil or bitarteko.

An Diman'n, ba-da Petralanda ingumtik ibilten dan kanpotar bat, ermutarragaz batera dantzan egiteko aukerakoa. Ipuñak difioenez, Petralanda'n sorgin-batzarrak egiten ei ziran, akerra buru ebela. Ermua ta Petralanda bitartean dabil, antza, oingo aker-dantza au. Bata bestearen soiñuan dabil dantzan. Laguna artuta obeto dator dantzea.

Ijiji eta ajaja!
 Goazen, lagunak, dantzara.
 Ajaja eta ujuju!
 Aker-dantzari gara gu.

Baiña, ixo, entzun dantzaldi orretan zer diñoen. Orain datorrena ez da lengoa baiño akerkeri txikiagoa. Zer, ba? Dima'ko praille-abade ta mojak ez ei dabe «giza-baloren alde» ezer egin; eta, euskal-balorentzat, gitxiago. Ori da anaitasunez berba egitea, gauzak artez esatea!

Zertzuk ete dira, baiña, ermutar onentzat «giza-baloreak»? Sozio-ekonomiaz gaiñeko balorerik ez ete dau onartzen? Edo ta, zinean edo moda-aldizkarietan agertzen diran emakumeak ete dira bakarrik beronentzat aintzagarri? Alan be, nik amaren semetzat daukat. Eta ez ete dau aregan giza-balorerik ikusi? Eta ama-lanetan, ixillean, dabiltzan mojatxo askok, dimatarrak izan arren, ez ete dabe ezer egin gizonen alde, munduaren alde? «Sufritu ta sufritu besterik» ez dabela egiten, masokista ganorabako eginda?

Emen be erakusten dau gure aker-dantzariak Olabarri'ren liburua ez dauala irakurri. «Sufritu ta sufritu» kontu ori ez dau an aurkitu. Bein biotzak burua galdu erazo ezkerro, zer ez dautso erasoko? *Villa Cordia* Veko onen amarentzat olango erdirik ifiok esan ba'leu...

Aita Olabarri'k erantzuntxo bat emonda dauko bere liburuan olango akerkeriai, irakurri nai dabenentzat. Bestela, zergaitik dauko Dima'ko seme batek, Ameriketara joan zan mixiolari batek, ango uri baten, plazarik andienean momunmentu bat, oroi-tarri bat, kanpotarra izan arren? Eta zergaitik izan ditu gure egunotan, Dima'ko irukoiztar batek, Madagaskar'en gobemuak emonda, omenaldi andi bat eta ospezko kurutzea? Aita Arriortua'k sua botaten ei eban Madagaskar'en «giza-baloreen alde». Su ta gar ekin ei eutsan bein Dima'n bertan be, bere erritarren artean, «sozio-ekonomiaz» gaiñera, beste balioko gauza batzuk aldatzen ikusita. Aita Olabarri'ren liburuan dator Monako'n il dan Bizkarguenaga orren aitamena be. Eta zer diñoie Monako'ko negarrak?: Giza-balorerik ikusi dabela praille orren bizitzan! Eta zenbat olako, ixillean izan arren, edo guk jakin ezarren. Baiña ez-jakiteak ez dausku ukatuteko eskubiderik emoten, gitxiago zaunkaka edo txautxauka asteko, gure ermutarrak egiten dauan lez.

Eta euskal-baloreak? Euskal-baloreak kanpoan dira ezagunen. Nok zabaldua? Kanpora joan diran ainbat praille ta abadek zabaldua, batez be. Dima'ko praille txotxolo orreik lez.

Ugarios'tik berago dago Dima'n Emaldi, auzo txikia; eta ango seme batek, bere bizirik geiena Ameriketara emon arren, ez ditu giza-baloreak ez euskal-baloreak ukatu. Mutilla da bera euskeraz idazten, eta «giza-balore eta euskal-balore» orrein alde dauko poema osoa euskeraz atarata, gure aker-dantzariaren apatx-otsai jaramonik egin barik, gure txakurtxoaren txautxau guztiai ez entzun eginda. Eta ez daigun beste Dima'tik kanpokorik aitatu, ez Aita Yurre, ez Larrakoetxea'tarren izenik. Emen gelditzen diranak, dimatarrak naiz Dima'tik kanpokoak, batez beste, egiten ete dabe areik aiña?

Ba-diardute, bai, batek baiño geiagok, gure egunotan gure moja ta prailleen aurka, txautxau utsean. (Txakurto izateko gauza ez danak, tototxoak lez, txau-txau baiño geiago ezin egin). Amaika lelo-soiñu entzuten da. Gure ermutarrak eta antzekoak ez dabe irakurri, antza, Patxi Zabaleta'k, aker dantzariarena asmau dabenak, diñotsena: ez dala naikoa, eslogan batzuk edo lelo-soiñu batzuk ikasita, papaoen moduan botaten ibiltea, arira etorri naiz etorri ez. Orrek ez dausku bururik jantziko, ez ezer ganoraz ikasten erakutsiko, ezta «sozio-ekonomian» azterketarik egiten be.

Edozein aizetara dabilzanak, edozein berba edo lelo siñiskaitzat artzen dabenak, ezin izan gizon ez euskaldun ganorazko edo euskal-baloreen eusle. Berbarik andi ta ederrenakaz ezingo dabe euren barruko utsa estaldu. «Konprometituak, orreik? Noztik ona eta zertarako?» Atzo ala, gaur ola, biar nola? Nok artuko ditu benetan? Orra Anbre'neko semea, atzo, edozein dimatar ume kokolo lez, Eleizarako bidea artuta, Eleizeari emona; gaur, «sozio-ekonomia» obeko lagun bateri; biar, nori edo zeri? Nor da bera jesuitekaz ez dala fiatzen esateko? Nor, iñori konturik eskatzeko? Nortzuk ete dabiltz «alienatuago», besterenduago, iñorenduago, besteri buruak salduta?

Solozabal jaunaren itauna datorkit lumara: Itxartuko ete gara, esnatuko ete gara? Eslogan utsak, lelo-soiñu utsak burua ustuten eta nortasuna kentzen dauskuen bitartean, ez. Olan ez jako erriari aurrekadarik eragingo, ez giza-balorerik emongo. Akerdantzaren bat, bai, atarako dogu ortik; baiña gauza andiagorik, ez. Ez dogu, ez, Madagaskar'en iñoren omenaldirik lortuko, ez Arequipa'n monumento andirik irabazi, ez Monako'n iñori maitasunezko negarrik eragin. Gure ermutarra bere senetik atara daben praille edo abadeen batzuk egin daben lez. Zergaitik? gizon, «giza-baloreen» zabaltzaille ta euskaldun jator izan diralako, aurki.

Guk, geure etxean, beste ainbeste gitxienez egiten ez ba'dogu, ez arei errurik bota. Geurea da errua.

EZPATA-LEGEA, ALA MAITASUN-LEGEA?*

Kristok izandako tentaldiak ez ziran basamortuan bukatu. Bizi osoan jarraitu zioten. Tentatzaileak, berriz, ez zituen beti deabruak izan. Ezur ta aragizko gizona zan Pedro apostolua eta ez diogu iraiñik egiten bein baiño sarriago etsai tentatzailearena egin ziola Jesusi esanez. Ez zion, bada Jesusek berak Satanasez izena eman bein? Satanasez bera balitz bezela, Mesias Salbatzailearen egikizuna galerazi nai zion bere Maisu Jaunari.

Orra Jesusek izandako tentaldi guztien muiña: Jainkoaren Semea baldin bazera... Ola asten du etsaiak basamortuko tentaldi bakoitza. Pedorenak ere muin berekoak dira: Bere Maisua Jainkoaren Semea baldin bada, Mesias bada, Sabaltzailea bada, nondik nora iraiñiak, nondik nora jentillen eskuetan erortzea, nondik nora Gurutzean lotsarizko eriotzea? Irugarren egunean piztu bearra dala esaten bazaio ere, ez da olakorik Pedoren buruan sartzen: «Utikan, Jauna; zuri ez zaizu olakorik gertatuko». Pedro asmo onez ari da, obe-bearrez. Bai orixe. Etsaiaren jostaillu danik ez du ikusten. Jesusek garrazki esan bear dio, «Atzera, Satanasez ori; zure gogoetak ez dira Jainkoarenak, gizonenak baizik». Ezin du asmatu Gurutzearen bidez salbatu bear duela Kristok mundua. Maiteegi du bere Jauna iñolazko lotsaritan ikusteko. Alperrik dira Maisuari ainbat aldiz entzunak. Al duena egingo du Jaunaren maitasun-asmoak eragozten.

Jesusi azken-egunak etorri zitzaizkionean ere, Pedro leenean dago. Bero berorik esaten dio Ari: «Zugatik il bear badet ere, nik ez zaitut ukatuko». Edozertarako gertu dago, bere Maisu maitea etsaiaren mende ikusi baiño len. Eta ez da bera itz utsetan gelditzekoa. Esan ta egin. Getsemaniko baratetik atera ta an aurrean etsaiak, ezpata ta guzti, ikusi ditueneko, Jesusi eskuak ezartzera etortzen, Pedrok ez du zalantzarik bat ere: ezpatari eldu ta an da bera itsumustuan joka.

* El Diario Vasco (39) (1972, 10.521.zenb.) 9.

Baiña an du berealakoan Jesusen erantzuna ere: «Itzuli ezazu ezpata ori bere lekura, ezpataka ari diranak ezpataz galduko baitira. Ala zer uste dezu? Aitari otoitz egingo banio, ez lizkidakela bialiko berealaxe amabi milla aingeru baiño geiago? Baiña nola beteko dira orduan ala gertatu beana dala dioten Liburu Santuetako esanak? Aitak eskaintzen didan ontzikoa ez ote det edan bear?»

Apostoluak ez ziran onelako itzak artean entzun gabekoak, ez. Baiña illunpetako agintariaren ordu ortan, berak ere Jaunaren tentatzaille biurtu diranean, berriz aditu bearra daukate. Kristok dakanen salbazioa ez da giza-indarrez irixtekoa. Jainkoaren auziak ez du gizonen auziekin ikustekorik. Auek ezpataz edo indarrez garbitzen dira geienetan. Baiña ezpataren indana itsua da. Arriak ez omen du begirik; ezpatak ere ez. Ez daki zuzena ala gaiztoa jotzen duen. Gaiñera, aurpegiak aurpegia austen duen bezela, indarrak indarra autsi oi du.

Gaur garaille dana biar galtzaille gerta daiteke. Gizaldien gupillak amaika indar berri ikusi du, bata bestearen gain, lengoak zapaltzen eta austen. Ezpataz il zutenak amaika aldiz ezpatak il ditu. Indarrak emandako garaitzak eta agintaritzak noiz arte iraun dezakete? Beste indar andiagoen batek nai duen arte.

Indar-auzia balitz Kristorena, nai aña aingeru izango luke aldamenean, etsairik indartsuenak menderatzeko. Baiña Jainkoak noiz erabilli du indarneurketarik gizonekin? Ez du bere auzirik indarraren mende utzi egundaiño. Are geiago. Testamentu Zaarreko liburuek ere zorigaiztotzat jotzen dute bere uste ona ta etorkizuna armetan, zaldizko ta oiñezkoen indarretan jartzen duen gizona. Indarra tentagarri da gizonentzat, ez Jainkoarentzat.

Indarraz, aga ta ezpatekin etorri dira etsaiak Kristoren billa. Gurutzean josi dute ta il. Baiña Gurutzea da ain zuzen Kristoren garaitza. Jainkoaren garaitza. Maitasunaren garaitza dalako Kristo bera du lege. Eta «Jainkoa maitasuna da», Joan apostoluek esan zuenez. Maitasunak ez du iñor zapaltzen. Maitasunak ez du iñor iltzen; bere burua ematen du guztien bizitzarako.

Zoritxarrez, gizonok gizon geran bitartean, sarri izango ditugu gizonen gogoetak. Jainkoarenak baiño sarriago. Ez al degu garaituko tentaldi ori, Kristok garaitu zuen bezela?

URTEURREN OSPETSUA: AMA KANDIDA MARIARENA*

Kandida Maria, Jesusen Alabak deitzen zaien mojen Sortzaillea, Andoaingo alaba, aurten ez du bere erriak aaztu, ez berak sortutako Elkarteko mojek ere.

Itz gutxitan eman ditzagun emakume aundi onen bizitzarako argibide irtenenak: 1845gn urtean Andoainen jaio; zazpi-urte zituela, gurasoekin batera, Tolosara igaro; 1862-tik 1871-ra, Burgosen eta Valladoliden neskame; 1871-72 garrenera, «Jesusen Alabak» diralako mojen sortzaille; 1912n, ainbat mojategi ta ikastetxe sortu ondoren, Tolosan Euskalerrari azken-agurra samintasunez eginda geroxeago, Salamanca'n il, 67 urte inguru zituela.

Eungarren urtea degu aurten, moja-elkarte berria sortu zuela. Urte artan Zipitria gaztearen bizian goitik beraiñoko aldakuntza gertatu da. Jainkoari ta lagun urkoari eskaintzen dio bere bizia osoro, beste askoren buru ta gidari biurtzen dala. Zer asmoz? Zertako? Moja ta ikasle izateko, ikastetxeak sortu ta beartsuenei eskola emateko. Geroztik, Joana Josepa zana Ama Kandida Maria egiten da, Jesusen Kandida Maria. Bizi berriak izen berria dakar, izaera berriak deitura berria.

Gauza nabarmengarria nola egiten dan neska gazte aren bizitzan ainbesteko aldakuntza ori. Iñork ez zezakean ez asmatu ez siñestu. Neskame ixil eta ezjakiña nola goizetik gabera irakasle biurtu, eta moja irakasleen Ama, ain zuzen? Bere erdalgaiztoz gaztelarren irrigarri zan emakumetxoa, euskalduna bera, nola dakuste bere jakinduriatz gaineko asmo berrietan? Nola bereganatzen eta mendean artzen ditu bera baiño iztun ederrago eta eskolatuago diran ainbat lagun? Txanponik gabeko neskame gazteak nondik nora, gaur ta biar, mojategi ta eskola berriak sortu? Ezagutzen zutenak eta ez zutenak arriturik zeuden. Aiek ezin zuten siñestu ikusten zutena.

* El Diario Vasco [391 (1972, 10.566.zenb.) 9.

Ezagutzen ez zutenek, bera ikustean, askotan esaten zuten: Nor da ta zer du andre onek? Nolabaiteko jauntasuna, aundikitasuna zerion arpegitik ere; Avilako Teresa berri baten antza artzen zioten. Nortasuna bear zan olako arrimena sortzeko. Nondik zetorkion nortasun ori? Neskame apal ixillaren itxurapean, anima aundiaren jabe zan, noski. Baiña ez zuen dana berezkoa. Jainkoarengan billatu ta geitutakoa zuen bere jakinduri berria, bere nortasun berria. Orrela, euskaldun bezela, itzez urria izan arren, motxa izan arren, egitez luze ta ugaria atera zan. Bere erdal gaiztoa gora bera, laster egiten zan goikoen eta bekoen jabe. Berdiñ egifia zirudian naiz errege-artekoekin naiz jende xearekin jarduteko.

Jainkoaren eskua zebillen or. Jainkoak munduko apalenak autatzen ditu aundiaren lotsagarri. Euskaldun ezjakin bat autatu du oraingoan jakintsuenak lotsarazteko. Zer darabille jakintsuek mundua berritu naiez, aldatu ta obetu naiez, etorkizun obeagoa sortu bearrez? Jakintza utsak ez dio gizarteari zoriona ekarriko.

Ama Kandidak ez zekien bere egunetako jakintsu ta politikoen ames andien berririk, dana berritu bear duen iraultzaren, erreboluzioaren billa. Jakin bearrik ere ez. Begiak erne eukitzea naiko zuen mundua gaizki zegoela ikusteko. Ebanjelioak esango dio zer egin bear duen. Ez negar egin, ez asarre-oyuka asi, ez etsi ere; bai, bere saillean alegintxo egin, lanari eskuak ezarri. Etorkizun ohea gertatzeko saillik egokienetakoa aukeratu du: geroko emakumeak, etxeoandreak kulturaren jabe egitea, aien gogo-biotzetan «Oraingo bizitzarako ta gerokorako poza» piztea. Emakumeari egoki datorkion egikizuna, benetan.

Kandida Amari ez zitzaion gure egunetako neska bati entzun diogunik gertatu: «ez eme, ez emakume ez ama izan ezifia». Orren illun ote dago, bada, gure ingurua ta aurea? Ez; irriparra ezpañetan, Kristoren gurutzea ta maitasuna biotzean, Zipitria gaztea zanak ez zuen orrenbesteko etsipenera joko. Emakume ta ama azalduko da. Gogoz besarkatuko zuen bizitzako nekea, alai ta kementsu elduko zion bere maitasunezko lanari lagun urkoaren alde. Eta berak sortutako moja-elkarteak gogo berdintuz aurrera darama ark asitako sailla.

Eun urte dira, eta Ama Kandidak bizirik dirau bere alaben bizi ta oroimenean; bizirik dirau oiek eskolatu ta eskolatzen dituzten ainbeste aur eta gazteen biotzetan. Sekulako jaiak ditu bere omenez, batez ere bere Gipuzkoan. Omenaldirik txikiena ez litzake Ama orren euskerazko bizitza irakurri ta zabaltzea. Omenaldi bikoitza litzake orixe; Amarentzat eta liburua idatzi duen alabarentzat.

Eta emen galdera bat; Nor da alaba ori? Ez du bere izenik eman, ez du bere burua erakutsi nai izan. Egia ote da lentxeago entzun dedana, alegia, oraintsu illa degula eta Iñazia Munita zeritzala? Dana dala, ongi etorri Jesusen alaba bat euskalidazleen artera, Ama Kandidaren urteurren ontan.

EUSKALDUNAK ETA GASKOIÑAK, BAT?*

Bilbao-Behobia-rako autobidea aurrera dijoa eta, bien bitartean etorkizuna obetu bearrez kezkatzen diranak ez daude geldi. Irakurri berri degu auxe: Bilboko «Cámara de Comercio, Industria y Navegación» dalakoak liburu aundia atera duela Euskalerrinari eta Akitaniari buruz, edo garbiago esateko, Euskalerriko eta Akitaniako ekonomiarri eta biak alkar artu bearrari buruz.

Ez zaigu argitasun eta xeetasun aundirik eman; baiña, dirudienez, Euskalerrria bi erditan daukaten muga batzuk kentzeko bidean daude, luzaro gabe. Munduan dabilzan aize berriak ortarajotzen omen dute. Leengo erri-mugez gaiñetik, urbilleñek urbillenekin alkartu bear dutela dirudi, auzoek auzoekin konpondu, alkarren utsuneak bete, alkar lagundu eta osotu. Itxaron dezagun joera berri onek noraiño garamatzan, ea izkuntza eta odol beraren indarrak oraiñarte lortu ez duena ekonomiak eragiten duen, ea biotzak ezin izan duena urdaillak egiten duen, ea bizi-aukera erosoagoa sortu bearrak Euskalerrriaren bi alderdiak elkarren ganago urbiltzen dituen. Aize berriak ortara bultzaka omen datoz.

Euskalerrriaren zori oberako izango dan ala ez, emen ez degu igarlearena egin nai. Geroak ezango du. Beldur izatekoa da, bai ekonomizale utsen bidetik berez ez zaigula zorion osozkorik etorriko, Bilboko ekonomizale oien liburua ere (nik ez det irakurri eta oker banengo naiago nuke) ez det uste gure erriaren alderako kezka garbiegirik agertzen danik, ez eta gure erritasuna zaintzeko ardura andirik. Euskalerrriaren beraren egalak ez ote dituzte motxegi edo luzeegi ikusten? Beroientzat, emen mugaz emendiko Euskalerrria eta bestaldean Akitania daudela dirudi. Mugaz andiko Euskalerrriaren nortasunik aitortzen ez dutelakoa ematen dute, labur esateko, ango euskaldunak eta gaskoiñak bat egiten dituztela.

* El Diario Vasco [39] (1972, 10.601. zenb.) 9.

Zer? Gaskoiñak eta euskaldunak, bat? Guztiak ezingo diote baietzaz erantzun galdera oni. Egia da: gaskoiñak Euskalerrriaren izenetik dute beren izena. Egia da antziñatean askotan ikusten ditugula ango eta emengo Euskalerrrian sarturik eta bertako egiñik. Eta euskaldunek eta berek ez zuten beti gaizki elkar artu. Ortik bat izatera, ordea, aldega. Ortaz iritzi guztiak ez datoz bat.

Sakonera jo gabe, gai osoa argitzeko asmorik ez almenik gabe, ona emen gai ontaz iru iritzi.

Ez da denbora luzerik, nere adiskide bizkaitar bat Zuberu aldetik izan zala. Zuberotar batekin ziarduela bein, aurretik igarotzen ikusi zitaen bi neska gazte parra parra frantzes egiten. Neskek entzuteko moduan, esaten dio orduan zuberotarrak: «Oiek gaskoiñak; euskaldunak gire gu». Orra zuberotar batzuen iritzia, bizi bizi azaldurik. Lotsagarri zan neska aientzat gaskoiñak zirala entzutea.

Beste iritzi bat orain: gure egunotan bada euskal-gaietan asko ikasia eta jakintsua dan gizon bat: R. Lafon jauna. Akitaniarra izanik ere, euskalduntzat jotzen du bere burua, ez dauka, ez lotsagarritzat, ez urbiltzekorik ere, bere burua euskaldun aitortzea. Antziña batean, akitaniarrak euskaldun izanak omen dira. Eta Lafon jauna, orain ere bai.

Batak bai eta besteak ez, erabateko iritziak ditugu biok. Ez da ain erabatekoa, eta bai xeetasunik eta piperrik geiago duena, irugarren aipatu nai degun iritzia: Duvoisin kapitan eta euskal-idazle azkarrarena. Onelaxe adierazten zizkion bein euskaldunen eta gaskoinen arteko artu emanak Bonaparte Printzeari:

«Gogora dezagun leenbizi biarnesek ez dutela gaskointzat artuak izaterik nai. Aienak baiño geiagotzat dauzkate beren buruak. Ala ere Frantziako beste iñor baiño maiteago dituzte. Orain ogei eta amar urte inguru (1862'an idatzia da au), erriak ez zuen egiten zaldi-gurdizko joan-etorririk. Gure arteko kintoe, soldaugaiek, esaterako, oiñez egin bear zuten erritik Pabe-raiño bidea. Lapurditarrek Beenaparrak batzen zituzten bidean. Etxe utziaren miña ardo-zurrutadetan ito bear eta, ardoak gero eztabaida eta liskarrik sortzen zuen. Zuberon egiten ziran elkarren adiskide, zuberotarren aurka asteko. Baiña, bein Biamo-ra ezker, zuberotarrak ere anai zituzten. Biarno'tik aurrerakoan, euskaldunak eta biarnesek elkar arturik, joka aurrean eraman bear zuten bidean aurkitzen zuten guztia. Gaskoiñek ez zuten aien laguntzarik, bere mendeko egin ezik; ez zuten anai izenik merezi. Olaxe, borrokaz borroka, eltzen ziran gure mutillak, geroko gudari ausartak, beren gudaletxera, erreximendura. Amai-ka olakorik izan da gero gure artean mugazain, eta berei gai ontan amai-ka izkirimiri eta gertaldi parragarri entzuna naiz».

Duvoisin mugazaiñaren itz oietan gauza bitxi asko dego. Euskaldunen gogoetan ez omen zen argitzen euskaldun ziralakoa, atzerrira arte. Anartean ez ziran elkarrentzat euskaldun, manex, zuberotar eta olako baizik. Biamo'ra arte, zirika ta pikoka ekin bear elkarri. An esnatzen zan beren barruan euskalduntasuna. Biamo'tik kanpora gero. Biamotarrak ere anaitzat artzen zituzten. Baiña, gaskoiñak, iñola ere ez. Mendeko izatekotan baizik ez zituzten artzen lagun.

Biar edo etzi, ekonomi berriak sortu nai duen batasun ontan, nor noren anai izango ote da, nor noren mendeko? Akitaniak ez ote du itoko Euskalerrria, edo ta gaskoiñak euskalduna azpian artuko?

GIZONA GIZONARENTZAT, ZER?*

Zer ikusi ote zuten erromarrek gizonagan onelako esaera au asmatzeko: «Gizona gizonarentzat, otso»? Gauza gozoegirik ez, noski. Esaera zakarra, gogorra, bame—giro negargarri baten ezaugarria, edozein gizonentzat. Etzan orren zakarra izan euskaldunen biotza. Erromar argitsuen aldean basatiak izan arren, gizakoiagoak agertzen dira, beste esaera bigunagoa sortu zuten ezkerok: «Atzerri, otsoerri». Nola nai ere, ez du emen otso edozein gizonak edozein gizon: euskaldunak euskalduna ez, inolaz ere. Esaera batetik bestera aldetxoa dago: Otsoak ere (eta ona beste euskal-esaera bat) otsokirik ez omen du jaten.

Zeiñek erakutsi dio munduari begiak eta biotza gorago jasoten, mailla guztiak berdintzen, esi guztiak kendu eta gizon guztiak anai egiten, ez otso ta ez etsai?

Gaiñean degu Ostegun-Santua: «Ona nere agindu berria: maita ezazue alkar, neronek ere maite zaituztedan bezela». Gaiñean degu Ostiral Santua: «Aita barkaiezu: ezpaitakite zer egiten duten». Orra maitasunik andienaren ageririk aundiena, gizona Jainkoak maite duela erakusten duena, gizona gizonaren anai egiñaz batera.

Ez, gizonak gizonarentzat ez du izan bear otso; gizonak gizona ez du izan bear ez atze-erriko, ez otso-erriko. Gizonen artean ez da bear olako mailla edo esi gaiztorik. Gizonak gizonarentzat etxeko, adiskide, anai izan bear du. Kristoren legea ori da. Noiz izango da gizonen lege? Nola egingo da gizarteko lege?

Oraintsu irakurrita'ko gertakari bat datorkit gogora, orain 30 urteko gerrate ikaragarrian Rusia'ko seme bati alemanekin gertatua. Rusiako seme orrek maite zuen bere erria. Are geiago: komunisten giroan azia izanik, ez zuen ango komunista-leegekin asarrerik. Alemaniak Rusiari eraso zionean, gazte ura ere zintzo joan zan aberriaren alde egitera, eta leenengo sualdietan kapitan-izarrak irabazi zituen. Egun

batzuetarako etxeraldia izan duenean, etxekoen adiskide batek, liburuzale batek, Jesukristoren Testamentu Berria utzi dio.

Liburu ori irakurri ala, Kristo arkitu du. Barne guztia bete eta argitu dion argia ikusi du. Sakon-sakoneraiñoko dardaraz aldaturik, gizon berri egiñik gelditu da, bizi berri bati eltzeko gertu baiño gertuago. Eta berriz gudalekura itzuli danean, rusiarrak Polonian eta Alemanian barrena, su ta ke, aurrera dijoaztela, al duen guztia egiten du besteen alde, batez ere neska ta emakume gazteen alde, gerrateetan oi diran lotsagarrikerietatik urruntzen.

Bein, gerrate ori azkenetan dala, erritxo baten inguruan alemanak eta rusitarrak gogor dabilta, toki ori bein artu eta bein galdu. Rusiarrak nausi diran une batez, izardun gazteak, bi neska, gudari lotsagabe batzuen atzaparretatik ateratzeko aukera izan du. Arraltsaldean alemanak egin dira erritxoaren jabe eta rusiar gaztea aien eskuetan da. Nazitar aietako kapitan batek ez du bat ere goxo artu. Masailleko galanta eman dio esanez: «Ar zak, gure andreak zapaltzen zabilzaten gorri urde oietako orrek»! Gogorra izan da masaillekoa eta rusiar gaixoari betaurrekoak lurrera bota dizkio.

Une berean or agertzen da erriko etxekoandre bat esaten: «Orrexek, gizon orretxek salbatu ditu nere bi alabak gaur goizean». Ori entzutean, an bertan zegoen koronel aleman batek, bere kapitanak rusiarrari egin dion iraiña ikararik gabe ikusi duen arren, barru-barruko lotsa somatu du. Ixil-ixilik makurtu da, etsai ez-ezagunaren betaurrekoak jaso ditu, eta itzalik aundienaz eman dizkio jabeari, agur apal bat egiten diola.

Orra nola aurki dezaken, orra nola aurkitu duen gizonak gizona. Bat-batean, koronelak ez du kapitan etsairik ez otsorik aurrean. Aurrean duen etsai dalakoaren arpegiak alemanarentzat itxura oso berria artu du, ez etsaiarena, ez otsoarena. Arpegi ez-ezagun orrek izen berri bat eta izan berri bat du: «gizona». Gizona, au da, nere idea, nere anaia! Edo zeatzago esateko, bear bada, beste orren gizontasunak, berak barruan gorderik, ia galdurik zeraman gizonaren irudia ikusi erazi dio, eta giza-irudi orrekin batera, are barrurago zeraman Jainkoaren irudia bera ere aurkierazi.

Ez al du, bada Jainkoak bere irudia gizonaren barnean ezarri? Ez al da, bada, gizonaren irudipean Jainkoaren irudia bera estaltzen? Ez al du, bada Kristok, Ostiral Santuz maitasun-legea ain bizirik erakutsi zigun Maisu ta Jainkoak berak esan: Lagun urkoari, gizonari egiten diozutena neri egin didazute?

ANDRE MARIAREN ILLARI AGUR*

Maitza joana degu. II onek aurten ez digu bere alderdi au gezur egin; lore-illa, Andre Mariaren illa izatea, alegia. Batera edo bestera, andik eta ortik ekarri digu Mariaren izena.

Gure inguruan Araba'k ekarri dizkigu leenengo oiartzunak. An, maiatzeko leen - egunetan, urtero dute Estibaliz'ko Amaren jai berezi bat, Araba'ko zaindaria koroetu zuten eguna gogoratzen diena. Aurten ospe andiagoz jaitu dute. Santutegi ori berriztatu berria da, eta illaren seian izan da elizaren sagaratzea. Gaiñera, beneditarrak dira Santutegiaren zaintzaille. Eta ain zuzen aurten dira 50 urte an sartu ziralara, eta Andre Maria koroetu zala ere bai. Egoki zan bada eta zuzen, dana aundikiroago eta ospetsuago egitea. Ez dute zertan lotsatu an egin dutenaz.

Zergatik asi gauzak lorrintzen eta xeblebrekeriak asmatzen, Donostia'ko euskal-astekarian norbaitek egin duen bezela? Zergaitik gaur aipatu bear oraiñarte ikusi eztan «Marialatriaren» baten arriskurik? Non da Ama goregi, eta Kristo bazterturik? Nik beti ikusi det Estibalizko Ama bere Semea aurrean duela, guztioi Kristo erakusten eta eskaintzen, biak batera. Goregi Ama? Andre Maria iñork ez du gorago jarriko bere Semeak jarri duen baiño. Zergaitik gero, Taizé aipatu eta Estibaliz'ekin aurrez aurre jarri? Taize'ko gizonak (eta ekumenikoek) gauza ederrik esan dute Andre Mariaren gorasarrez. Ziur nago ez dutela izango aiek Amunsaren xebleberitxoentzat esker aundirik ez txalorik izango.

Atzerriko txirrindulari ospetsu batek ere jarri du, bai, Andre Mariaren izena entzuteko erarik. Merckx dalako txirrindularia det gogoan, Españaiko «Vuelta» irabazi duen gizona. Bizkai'tik igaro zanean, ez zuen joan nai izan Begoña'ko Andre Mariari agurrik eta otoiitik egin gabe. Azkenez, Donostian, guztien gaiñetik garaille

* El Diario Vasco 40 (1973, 11. 939. zenb.) Suplemento dominical, 9.

atera zanean, garailleen soñeko oria, «maillot oria» Andre Mariarentzat eman zuen eta Dorleta'ko Amarentzat utzi. Ez du lotsarik izan, ez, bere siñistea eta Andra Mariaganako maitasuna guzien aurrean aitortu eta erakusteko.

Gipuzkoako gazte askok ere ez. Leen aipatutako astekarian bertan irakurri degu (ez da an ere dana xeblekeria). Gipuzkoa'ko gazteriak urtero egiten du aspaldian gauazko ibillera bat Itziar'era an Andre Mariak duen santutegira. Eta olaxe, Donostiatic aterata, bidean biltzen zaizkienekin batera, ara izan dira aurten ere. Bidez bidez, oiñez, gauaren ixilean eta biotzen pake-giroan, ara joan dira, otoiz eta kanta, nora eta zertara zijoazten ongi zekitela. Ez dezala iñork uste izan beste nonbaiteko Akelarretarako bakarrik duela gaurko gaztediak gogoan.

Ibilladiak ibillaldi, Fatima'ko Amaren irudiak Madrill'en sartzerik izan ez duela sortu dan zalaparta ez da izan txikiena. Zenbait urte ezkerero, oitura berria sortu da bazterretan: Andre Mariaren santutegietara erromes joaterik ez dutenentzat, ango Amaren irudia ekartzen dute erromes, erriz erri. Naparrak olako oitura izan dute Aralar'ko Aingeruarekin. Orixe gertatu da Fatima'ko Amaren irudiarekin. Aurten, irudi ori Madrill'en leenengoz izan zaneke 25'garren urtean, ez du izan Madrill'en sartzerik. Beste eliz-barruti batzuetan, bai; Madrill'en ez omen dago ortarako girorik, anaitasun-girorik naiko, maiatzaren leenean ikusi zan bezela. Fatima'ko irudi ori artu duen beste elizbarruti bateko gotzaiak ere aitortu duenez «ez gaude Fatima'ko mezuari, Andre Mariaren deiari, bear genuen erantzunik emateko gaiean; gure bizi - giroak, kristaubizitzarik ezak, gure pekatuek, ezetz diote». Madril'go eliz-agintariak ori izan dute gogoan. Eta, batik bat, ez dute nai izan Andre Maria bere semeen banatzaille agertzerik, ez beste iñorentzat txalo - biltzaille. Egokiago eta obetzat izan dute, eta naiago lukete, parroki bakoitzen elizkizun bereziak, itzaldiak, katekesialdiak antolatzea, Mariaren nortasuna azaldu eta arenganako jaiera argitzeko. Egin ote dute ezer?

Madrill'en ez dakit, baiña Ingalterra'n bai. Orra Londres'tik datorkigun otsa. Ingalterra'n Birmingham'en, lau egunetako billerak izan dituzte Andre Mariaren omenez. Mundu guztitik, 13 errialdetatik bildu dira an, Andre Maria nor degun eta nolako omena zor diogun ikasteko, dana Ebangelioaren argitan. Ekumeniko-alkarte batek antolatua izan da batzarra, eta katoliko, anglikano, eta beste eliza batzuetakoak izan dira an parte - artzaille. Zer egin dute? Elkarrekin otoitz egin, elkarrekin liburu santuak aztertu Maria nola maitatu ta goratu bear degun ikasteko. Sekretarioak aitortu zuenez, Mariak an ziran guztien biotzak gorago jaso zituen, Kristogandik, Espiritu Santuagandik eta elkargandik urbillago jarri, elkarren anaiago eta adiskideago egin. Ekumenismoak ere ez du ematen, nonbait, «xeblekereri» batzuetarako gogorik. Nondik, eta Ingalterra'tik datorkigu argi au. Neri Kristoren itzak datozkit gogora: «Zergalariek eta emagalduek aurea artuko dizuete zeruko erreñuan».

AEZKOA-KO EGUBERRIAK JARRAITZEN OTE DUTE?*

Sanchez Carrion jaunaren liburuak (Naparrako euskeraren egoerari buruz) eta joan diran Eguberriek berriz eraman naute, irudimenaren egaletan, Aezkoa-ra. Orain 30 urte, urtarrilez, izan nintzan an lenengoko aldiz. Ez ditut errez aaztuko ara eldu nintzaneko eguna ez an egin nuen egotaldia. Elurraren erruz, bi egun egin nituen Iruñatik arako bidean. Bigarren egunean kamioi batek Oroz-Betelun utzi ninduen gau illunduan, aurrerago biderik ezin egiñez. Kamioiko gizonak zorotzat jo ninduten andik aurrera oiñez abiatu nintzanean. Sei kilometro nituen andik Aribere-ra: gaua, berriz, illun, eta elurra lodi, belauetaraiñokoa. Baifia ez nengoen ni beste egunik bidean galtzeko, eta aurrera nijoa gabaren illunak eta bideko elurrak urratuz. Zugaitzen artetik aizeak sekulako irrintziak egiten zizkidan. An, goien batean, bidekurutzea omen nuen eta eskui-aldera artu bear, kamioikoek esan zidatenez. Alperrikako oarra! Nola igarriko nion bidekurutzeari? Lurra zuri zegoen dana, dana berdin. Azkenez, etxe-argi batzuk ikusi ditudanean, ez nago lasai. Ez ote det okerreko bideren bat artu? Alaxe da. Garralda-n nago. Euskalerrian naizela antz eman diot, orratio, lenengo ateko gizonaren esanetik: «Mucho camino perder no ha hecho Vd». Eta or naiz atzera lengo bideak austen. Oraingoan ere ez diot bidekurutzeari igarri; baiña, oarkabean izan arren, bide zuzena artu det, eta bera ta bera, sei kilometroak zortzi egiten zaizkidala, laster naiz Ariben. Gaueko amarrak inguru dira. Ostaturik egon bear nuen etxean, apalondoan zeuden Londresko parte entzuten (orduko debekuei bildur andirik gabe). Ikaraturik egin didate ongi-etorria: «dagoen eguraldiaz, ordu ontan, Oroz-Betelu-tik ona oiñez zatoz, eta otsoen beldurrik gabe?» Otsoak ere bai? Nik ordea, bidaldi artan, otsoak gutxien nituen gogoan: Ibañetarako bidean nintzala-ta, Karломagno ta aren arma-gizonak, bai, beste ezer baiño geiago; eta gaztearen sasoiak bideko nekeari ez zion geiegi eritzi.

* Goiz-Argi 14 (1973, 158.zenb.)3-4; Príncipe de Viana (Vascuence), 8 (1973, 93-94.zenb.) 6.

Olaxe izan zan Naparroako errialde artan nere lenengo sarrera, eta elurtearen erruz berriz ere, 22 eguneariño luzatu zan lau-bost egunetako izan bear zuen egotaldia. Eguberri-ondoko egunak ziran, eta orrela izan nuen, Aezkoa ezagutuaz batera, ango Eguberri-kantak ezagutzeko aukera. Egun aiek gogoratuaz, onelako galderak egiten izan dizkiot joan diran Eguberrietan nere buruari: Nola ote degu Aezkoako euskera? Aurten kantatu ote da aspaldiko Eguberri-kantarik?

Orain 30 urte, bazan an oso euskaldun zan erri bat: Aria. Eskolamaisua izan ezik beste guztiak euskaldunak ziran an, eta euskeraz mintzatzen ziran. Aribere, beste orren ondo-ondoan egon arren, Aezkoa guztian erdaldunena. Zergatik eta nola? Lenbizi, mugazaiñen, karabineroen bizileku izana zalako luzaro; gero, bazan an kanpotik, erribera-aldeetik etorritakorik ez gutxi: dendari, salerosle, eta abar. Aezkoako uriburu bezela zan Aribere. Famili bakar bat zan kalean euskalduna. Etxerik geienetan adifñekoe bakarrrik zuten euskera, Apaiza bizi zan etxean alaba gazteena ez beste guztiak euskaldunak ziran. Ango semeak, aurreko urteren batean, sari bat jaso zuen, Iruñeko Euskeraren Adiskideak edo emanda, euskaldun irauten zuelako. Apaiza bera, Erríbera-aldekoa, euskalzalea zan, eta Ernani-aldean zerbait ikasia ere bai. Apaizak, eta Ariako maisuak, ez zuten, ez, euskerarentzat iguiñik. Erriko sendalari zaarrak ere ez. Au ere euskalduna zan, baiña ez bertakoa.

Euskerarentzat giro ito xamarra zegoen arren urte aietan, ala ere, euskal-oitura zaar batek jarraitzen zuen bizi bizirik, ez Arian bakarrik, bai Ariben eta Garraldan ere: Eguberriak etxez etxe kantatzeko oiturak, alegia. Iru erriotako Eguberriak bildu nituen nik. Egia esan, beste biltzaille andi batzuen ondoren nentorren. Aurretik ibilliak ziran Azkue eta Aita Donosti (au, beintzat, aita Intzaren bitartez).

Azkue zanaren oroipena bizi bizirik aurkitu nuen Ariben, eta geroago ezagutu nuen Albaurrepean. Aribetarrek ez zeukaten aazturik ez Azkue ez ari ango kantarik eta ipuiñik geien erakutsi zion andrea. Bizi al da?, galdetu zidan Abaurrepeako sakristau zaarrak, eta sekulako poza artu zuen baietz erantzun nionean. Ez zeukan euskera iñori saltzeko. Erderaz egin zidan ongietorria; baiña ez zuen erdera-tantorik atera, euskalduna nintzala esan nion ezkerero.

Baiña ez dezagun uste ez Donosti aita ez Azkuek dana aztertu zutenik. Dana aztertzea ez da ez baten ez biren lana, askorena baizik. Eta nik jaso nituen Eguberriak ez datoz gaizki beste biltzaille andi aiek bildutakoen osagarritako. Orregatik puska bat edo beste jarri nai det emen, muskarik gabe. Soñua Azkuek Abaurrepean bildu zituenen antzekoa dute, nota bat edo beste ezik.

Lenbizi, zer dira Eguberriak, edo Eguberri-kantak? Atez ate gabon-gauetz erriko aurrek kantatzen dituzten kantak dira, gaberditik aurrera. Azkenengo bertsoak esango digu zer orduntantsu bukatzen diran, goizaldeko laurak inguruan, gaberdiko mezaren ondoren asita. Bi parte dituzte: lenbizikoa, Kristoren jaiotza eta aren inguruan gertatuak gogoratzeko, andre Maria, aingeruak, artzaiak, erregeak; eta bigarrena, etxe bakoitzeko jaunaren omenez kantatzekoa bertsozkoa. Azkenengo oiei koplá esaten zaie.

Aezkoako eta inguruetakoa Eguberri-kantak badirudi noizbaiten iturri bera izan dutela; baiña bertsoak bata bestearekin naastu egin dira, eta erri batetik bestera ez

dago aldaketa txikia. Askotan bertso baten puskak beste batenarekin naastu egin dituztela argi dago. Naaste orrengatik bertsoen neurria ere oso kilikolo dabil, bein baiño geiagotan.

Arian eta Ariben onela zuten asiera:

Gaur dugu gaba gau ona (gabona),
jaio beizen Jaun ona.
Eguberri, Eguberri,
gaur dela Eguberria.
Guzien Jauna jaio beita (da eta),
dugun alegeria (edo badiogun alegeria).

Beste erri batzuetan, leenengo lerro biak utzita, irugarrenetik asten dira. Andik aurrera, erri bakoitzak bere bidea darama; baiña, laburrago edo luzeago, leenengo edo geroago, onelako bertso pare au kantatzen dute:

Eguberri gabean,
gabaren gaberdikoan,
mutiko eder bat jaio beizen
Beleneko bidean;
Beleneko bidean eta
ganbela illun batean.
Zerentzun beizen, jaio beizen
Jainko onaren Semea.

Amari zaio (beizaio, zazkio) Maria,
beti birjinik erdia,
eta Jesus Semea
zeruan izen emana,
zeruan izen emana eta
lurrean eskribitua.
(Nola ere baitu izen andia,
iola ere ezin ekendua).

Azken bi oiek (taketartekoak) Aribeko kantarenak dira. Zer esan nai du *zerentzun baizen* orrek? Olaxe dago erririk geienetako kantetan; baiña iñolaz ere erriaren aitu edo oker artuen bat dago or. Nonbaiten ikusi det beste onetara dutela: *Zeren jin beizen, jaio beizen*. Eta ola bear duela dirudi.

Atzerago edo aurrerago, Garraldan, Arian eta Ariben, iru erriotan bertso au aurkitu nuen:

Eriden dut eriden
guzien Jauna Belenen,
gazen guziok Belenera
Jaunaren adoratzer.

Erregen etorrerak ezbardintasunik andienak ditu erri batetik bestera. Ona Arian eman zidatena:

Antxe goitirik atera zuen
izar eder bat jentillik.
Garretzek zuzen giatu ditu
irur erregek Belena.
Irirak junto sartu ditu
Jerusalenen barrena.

Antxe goitirik ori beste erri batzuetan *aragoitik*, *aruagatik* edo *aragatik* da. Kanta oiek olaxe beren aria aldatuxe daukate erriz erri Aezkoan asi ta Saraitsuraiño. Aldaketa guztiak eskuratu bearko litezke, ainbeste bertsoen naastea zuzentzeko.

Bigarren parteak eskea dakar, kantatu diran bertsoen saria:

Kantatu dugu ederki
ezon gizazien obeki.
Parabizuan sar zaitezela
zek zauren konpañorrekin,
zek zauren konpañorrekin eta
gu ere gauren onekin,
zazpi tortxa argirekin,
amabi aingirurekin,
Jesus dela gurekin eta
alaber mundu guziarekin.

Ezon eta ezagun bat dira an; baiña *entzun gizazien* ere ematen dute erri batzuetan. Kantua bukatu eta erantzunik ez duten, edo iñor atera ez den etxeetan, ez dute bertso zakarrik, Gaboneko pake-giroa ez austearren, noski. Orra bertsoa:

Etxe gonek irur leo,
irurak ertsirik.
Etxe gontan ez ote da
gutaz oroitzen denik?

Azkuet olako-mordo ederra bildu zuen Orbaizetan, *San Martiñen ataria*, tituluarekin argitara zituenak (Euskera 1927, 248). Arian beste ainbeste bildu nituen nik, baiña titulutzat *koplak* zuten besterik gabe. Guztiek apaizari kantatzekoak dirudite. Ariakoek beti diote: *Orra bada, abadia-aria jaun noble ori*, edo antzera; Orbaizetakoek, *Orra bada, Bikario jaun ori* (ikus dezagun ez dutela beti *gori*, *gorrek*, *gan* esaten edo idazten; noizik bein *ori*, *orrek* eta *an* ere bai). Emen, Aribekoek zeukaten bezala, utsunea jarriko det, utsune-puntuak besterik ez. Azkuet bilduak aurrean dauzkanak batetik besterako aldea ikusten errez izango du.

Elizan eder liburu,
 mirua deila inguru.
 Orra bada... Jaun noble ori
 barabisuan ainguru.
 Elizan on da ligazi (liñazi, lio-azi, esan nai du)
 dirutto gonez erosi.
 Orra bada...
 Aita ta amorren aurra azi,
 alaxetto du amak fantasi,
 bai eta ere kortesi (luzeegi xamarra).
 Abadiaria oin-arina,
 alaxetto du adina.
 Barabisuan sartu ditu
 zazpi mila arima.
 Mantu beltza lurreraino,
 gabardinatoa eriraino.
 Orra bada... orren parerik ezta
 emendik Salamankaraino,
 emendik Salamankaraino eta
 Salamankatik oneraino.
 Sugea dae (doa, dijoa) bularrez,
 bere bizi bearrez.
 Orra bada... jaun noble orrek
 bularartea zilarrez,
 bularartea zilarrez eta
 begiak urre-galenez,
 (begiak urre galonez eta
 biloa laztan- belarrez) Taketarteko au, Aribekoa.

Koplarik naiko dala uste det, baiña bi geiago sartuko ditut, aita Donostik eta Azkuek eman zituzten beste biren argigarri. Azkuek onela eman zigun berak bildutako kopla baten asiera:

Elizarian iturri,
 urre-biruz derati (??).

Bi kako oriekin zer esan nai zuen Azkue zanak? Edo ez zekiela zer zitatean *derati* ori, edo ez zegoela ziur orrela eman ziotenik. Ariakoan argi dago:

Elizarian iturri,
 urre-biruz diraki.
 Orra bada... jaun noble ori
 ortantxe da ikuzi.
 Ortan busti, ortan txuka,
 serafinatoa iduri.

Aita Donostik ere (Gure Herria 1930, 448) mugaz bestaldeko nonbaiten bilduta bertso au eman zigun:

Balbarixko!
Urrunian da San Frantzisko.
Etxe hortako zaharto hori
Jesukristen beharriko.

Eta Arian onela kantatzen zuten:

Baratzean palmarisko,
Iruñen da San Frantzisko.
Orra bada... Jaun noble ori
Jesukristen ayaldeko.

Zer da ayaldeko?, galde egin nion Ariako sakristuaren andreari. Eta ona erantzuna: Meza irur apezek erraiten dutenean erraiten dugu ayaldekoekin izan dela. Beraz, ayaldeko ori *ministro* bezela da. Eta andre au aipatu dedan ezkerro, gogora datorkit lenbiziko agurrean esan zidana, alegia (ur onak artua nintzala). Nik: zergatik diozu ori? Eta berak: Zu bezain altu diranengatik erraiten dugu: Ur onak eman dazkote goni.

Arian, Ariben eta Garraldan Eguberri oien azkena onela kantatzen zuten:

Baratzean belar on,
gabak eman du laur oron.
Gu bagaza emendik eta
Jaunak diziela gabon.

Eta orain nik lengo galdera: Kantatzen ote dira len bezela? Arian, beintzat, orduan, iñon bezain indartsu zegoen euskera. Orain 30 urte ez zegoen arako bide zabalik. Aribetik berbertain egon arren; geroxeago egin zuten. Geroago ere izan nintzan bein; maisu orde, maistra zuten. Berak esan zidan: Emen aurretarañoko guztiak euskaldun dituzu; itz egiezu aur oiei eta ikusiko dezu. Berdin ote da orain-daiño? Sanchez Carrion jaunaren liburutik ez det erantzun argirik atera. Berdin baietz dioela esango nuke. Eta Eguberri-kantak joan ote dira bein da betiko? Oraindo urte giro txarra zegoen euskerarendako. Ala ere, Ariben bertan ez zuten kalez kale euskeraz kantatzeko beldurrik. Gero, orain zer ote da? Beude, beintzat, or orain 30 urte bildu nituen Eguberri-puska oiek orduko aetzen gogo beroaren lekuko (1).

(1) Aetza = Aezkoako, aezkoarra; *giputza*, Gipuzkoakoa bezala.

NO HAY NINGUN CARMELITA DETENIDO*

En el número 901 de «Vida Nueva» hemos leído una información, que habla de siete sacerdotes y cuatro carmelitas detenidos a la salida del seminario de Bilbao en una redada de la policía. Han sido ustedes víctimas de una información deformación, de las que están acostumbrados a darnos algunas agencias, que a veces no sabemos a qué amo sirven; ciertamente, no al Padre de la Verdad. Dicha información, habida de «fuentes no oficiales», giraba en torno a un registro llevado a cabo por fuerzas de la Guardia Civil en nuestro convento de Marquina, con el consiguiente hallazgo de kilos de «propaganda», hace más de dos meses. No se especificaba la clase de propaganda, aunque bien se dejaba entrever que no debía de ser buena.

Pues bien, *por lo que a los carmelitas se refiere, me permito rectificar en estas líneas su información y la de los medios informativos que causaron su error.

Adelanto la afirmación de que, en torno a los hechos del día 2 de agosto (al registro me refiero), hasta ahora no hay ningún carmelita detenido, ni aquí ni en el Seminario, y que a ninguno de nosotros se le ha notificado hallarse a disposición de ningún juez o sujeto a proceso alguno.

Luego, esas «fuentes no oficiales» han hablado de folletos de carácter supuestamente subversivo. Y, en primer lugar, los folletos no existen. Hay, o ha habido un folleto, único hasta ahora; pero es falso que contenga lecturas subversivas de ningún género ni de sentido político alguno siquiera. Después de dos meses de haber sido recogido, no se ha podido concretar ninguna acusación de tal especie. Se trata de un folleto destinado a niños en edad escolar y redactado en su máxima parte por niños de 8 a 10 años, con el objeto de que les sirva de estímulo y entrenamiento en el uso escrito de la lengua materna. En su portada se indica que sale bajo la respon-

* Vida Nueva (1973, 905. zenb.), 3.

sabilidad de una asociación cultural y recreativa de Marquina, a la que el convento tiene cedido el uso de unos locales para escuela de párvulos, con acceso independiente, asociación en cuya junta directiva figura un padre carmelita. La máquina Rex-Rotary secuestrada es asimismo propiedad de la asociación.

La información ha hablado de una sala-estudio en el convento, a la que se dice tener acceso el público. Nadie conoce en Marquina la existencia de tal sala-estudio, ni de cosa que se le parezca. El convento tiene, sí, una biblioteca, situada en la clausura conventual, en el punto precisamente más alejado de sus accesos, para uso de la comunidad conventual. Y de esta biblioteca y de la celda del padre bibliotecario se sacó casi todo el material que suma esos «8,4 kilos de propaganda», que dice esa información no oficial.

^Y, qué vienen a ser esos kilos de propaganda? En ellos entran libros, folletos, revistas y hojas de diversa índole y de fechas varias, que corren desde 1916 a 1973: libros de ningún carácter propagandístico ni político, como *Garoa*, conocidísima novela del presbítero Domingo Aguirre, que en su primera edición data de 1907; números de la veterana revista *Gure Herria*, y colecciones de cantos populares y litúrgicos, viejos y nuevos. Otra partida es de libros referentes a la guerra civil, de tendencia varia, que datan de 1938 en adelante; y algunos hay de tema sociológico e histórico, lanzados por editoras nacionales, como *Síntesis delpensamiento de Marx*, de Lefebure, y *Consejo Sumarísimo en Burgos*, con la historia del consabido proceso, escrito en línea con la tesis del fiscal y del Juez que actuó en el proceso. Bastantes más libros y revistas hubieran ido a sumar kilos, a no ser por la intervención del Capitán de la Guardia Civil, presente en algún momento en el examen del material secuestrado, por su mejor saber y criterio. Hasta algún libro de poesía religiosa de 1667 y un poema de 1853 hubieran ido al montón de secuestrados con la explicación de que, en última instancia, el Juez tenía la palabra decisiva.

Ya con muchísimo menos peso, entran en la cuenta de kilos, papeles conteniendo correspondencia familiar o simples ejercicios literarios o comunicaciones de régimen intemo de los religiosos (hasta cinco pasaportes que a lo largo de sus años de misionero en India y Sudamérica fue renovando el padre bibliotecario); y, por último, hojas o folletos de propaganda varia que clandestinamente y por correo se han ido recibiendo en estos 15 años últimos, y archivados como documentos históricos, en ejemplares únicos, documentos del carácter de los que se recibieron en muchos conventos el año 1965, enviados por el Ministerio de Información y Turismo, para nuestra información y gobierno.

De eso que se dice propaganda, nada. Por cosas más claras y graves fue absuelto un procesado hace poco, según se leía en la prensa del día 2 de septiembre pasado.

A su discreción encomiendo esta rectificación o información, que no lleva la misma carga de sensacionalismo que la otra que han ofrecido esos medios informativos que han bebido en esas otras «fuentes no oficiales», pero que refleja mejor la verdad de lo ocurrido.

GURE XABIER DONEARI PARISEN TXALO*

Eztaikit emen esan nai dedana askorentzat zaarkeria izango ez ote dan, edo, norbaitek gaurko egunetarako ez ain egokitizat joko ez ote duen. Gaur, batzuek ala uste dute, gaurko egunetakoa izan nai duenak « ezkertiar neutral, demokrata aurrelari» izatera jokatu bear duela.

Edo Chileko edo Chinako politika nola konpondu erakusten saiatu, edo eguzkiaren indarrak nola baliatu gaitzekin ames egitera jo. Gero, or konpon etxea konpontzeko gai ezpatera, edo geure auzoko egoera konpontzen edo obetzen bat ere ezpadakigu. Gauden egunotan leenera begiratzea, orain 400 urteko gizonetaz aritzea, esaterako, gure Xabierren gauzak gogoratzea, zaarkeria ezpada, ez ote da gutxieñez alperrikako berriketa? Baiña lasaitu bedi, nere irakurlea. Nik emen esango dedana ez da antziña zaarrean gertatutakorik izango, oraintsukoa baizik, eta Chinako edo eguzkiko kontuak baifio askoz ziurrago jakitekoa.

Oraintsu izan da: Parisko eliza batean txaloak jo dizkiote Xabier doneari. Etzuten noski santu au ongiegi ezagutzen; izena, bai; aren gogoa, aren biotza, ez ain ongi. Eta berek etzekitela, aren itz batzuk entzutean, barneari eutsi eziñik, esku-zartaka asi dira. Gure artean Paristar oiek baiño sakonago eta barnetikago ezagutzen ote degu geure errikidea? Nola? Arenik edo artaz ezer irakurri gabe?

Arira datorkidala uste det oraintsu «astekari demokrata neutral» batean irakurria. Irakurle batek galde au egiten zuen: ea aita Mendiburu oiartuar ospetsuak (barkatu beste zaarkeri au ere) Xabier doneaz idatzitako libururik ote zuen. Eskuetan izan omen du Mendiburuen izeneko olako liburu bat, eta arriturik gelditu; ezin izan du siñistu. Euskal-literaturazko liburuak ez omen dakarte aren aipamenik iñon. Egia ote da berak ikusi duena? Nik eztaikit astekari orretan erantzunik izango duen ala ez. Bear bada, zaillegi egingo zaie Chinatik edo eguzkitik gure aldera etortzen. Orregatik, neronek erantzun nai nioke, nere lerrook irakurtzeko zorionik edo txarrik badu.

* El Diario Vasco 41 (1974, 12.155.zenb.) Suplemento dominical, 9.

Bai; Mendiburuk idatzi zuen, bai, Xabier doneaz liburutxo bat. Bizi zala atera zuen bederatziturrenaz gaiñera, Indiako apostuluaren omenetan bederatzi egunetako iragurgai edo irakurraldi luzeak utzi zituen, argitara gabe. Auek dira aita Jorge Agirrek 1922-n argitaratuak, leenbizi zati batzuk *Jesusen Biotzaren Deya-n*, eta gero, osorik liburu batean, 132 orrialdetan. Gaurko egunetan zazpireun pezetan salgei ikusi ditugun liburu batzuk baiño orririk eta mamirik askozaz geiago izan arren, oraindik edo oraintsurarte beintzat oso merke saltzen izan dute. Neronek dakidana diot, oraingo galdegillearen antzeko batentzat sei ale erosi baintuen Aita Iñazoren eta Xabierren bederatziturrenak ere.

Baiña orain nork irakurtzen du olako paper zaarrik ez oraintsuagoko, 1922'ko zaarkeririk? Zorionak ematen dizkiot gure astekari demokrataren irakurle galde egilleari. Ez da beste asko bezelakoa. Emen du nere erantzuna. Baiña ez nuke ezer jokatu ez degula berriz olako galde egille arriturik izango. Arestian irakurri det jakintsu baten esana: Leena gogoan eztuena, aazturik daukana, maiz eroriko dala leengo ezjakin edo okerretan. Gure artean olako arriskurik geiago degula esango nuke.

Biur nadin asitako arira. Bear bada, luzaroege jo det aritik kanpo. Baiña ez guztiz kanpo ere, egunotan baita Xabierren bederatziturrena, Xabierrena izaten diran erromestaldiekin. Eta goazen Parisko txaloetara. Ezta oitura, ezta askotan gertatzen eliz-barruetan iñori txalorik jotetik. Izlaririk beroenari ere ez. Ebangelioetan ere bada gauzaederrik, ukigarririk, gogo-biotzei sakon-sakonetik eragitekorik. Baiña belarriak aietara oituegiak daude, eta sorgor gelditzen da entzulea. Gaiñera badaki Jainkoaren itza dala entzuten duena. Zer du arritzekorik Jainkoak esana ederra eta arrigarria baldin bada? Parisko eliza artan gizon baten itzak entzun zituzten. Itz bizi-biziak berri-berriak; entzuleek txaloaldi beroaz artu zuten irakurri zitzaiena. Arrituago gelditu ziran, entzun zutena 400 urte leenagoko Parisko ikasle batek idatzia izan zala: 400 urte leenago Chinako lurretan il zan apostolu andi, Frantzisko Xabierrena, euskaldun onek kartaz idatzitako bi zati. Gaurko-gaurkoak ziran, gizon aundi baten biotzetik irtenak ziralako.

Bien bitartean gu, bear bada, or ibilliko gera leena aaztutzen, geure gizonak arbuatzen, eta batek badaki nondik datozen erdal-otsei ongi etorri egiten. Parisen Chinatik etorritako argi berri bat piztu da. Baiña ez da izan oraingo Chinar batek piztua, orain laureun urteko euskaldun santu batek baizik. Ez ote degu or zer ikasi?

BERRIZ ERE , GURE XABIER DONEARI BURUZ *

Banuen beldurra. Gure astekari NEUTRAL DEMOKRATAREN irakurle galde-egillea erantzunik gabe gelditu da. Bi edo iru izan ditu, baiña bat ere ez ona, bear bezelakoa. Eguzkian bizi danari neke egiten nazio gure be oietako berri jakite eta ematen lurreraño jeixtea.

Banuen beldurra, galde egille orrek etzuela nere erantzuna irakurtzeko betarik edo aukerarik izango. Emen ere igarle gertatu naiz. Astekari aurrelari eta aurrera begirale ortan argiak daude atzera begira jarri-ta lengo zaarkerien berri jakin eta emateko. Saiatu dira, ala ere. Baiña eragiñago eta morokilla naastuago atera zaie.

Barkagarri da, orraitio, Txinatik, Formosa-tik artu duten erantzuna. Andik zer argi emango zuten? Baiña besteak? Non gelditu ote da Lizartza aita kaputxinoaren argia? Etxean ez ote dakite etxekoen berri geiago? Ez, gizona ez: Sorarrainek ez zezakean *San Frantzisko Donearen bederatzurrunerako irakurraldiak* liburuaren berri eman. Aita Jorge Agirrek bazekien zer egiten eta zer esaten zuen liburu ori lenbiziko aldiz argitaratu zuenean. Jo dezun bidetik oker zabilta, J. S. M.; 1922-garrenearte argitaratu gabea baita liburua. Aita Agirre orrek Mendiburu-ren esku-idatzi batetik aldatu eta argitaratu zuen. Eztu, ez, beste lenagoko bederatzurruna, bederatzurrunean egin litezken IRAKURGAIK baizik. Ori, bai; Aita Jorgek berak ezarri zion azkenean geigarritxo bat otoi tx bat edo bestekin, bederatzurruna egiteko.

Argirik geiago nai al da? Entzun dezaigun Mendiburu aitari berari, sarrerako itzetan: «Euskaldunen anitz erritan ta itxe askotan egiten da S. Frantzisko Xabierren bederatzurruna. Jesusen Konpañiko elizetan egiten denean, egiten dutenei egunoro ematen zaie S. Frantzisko Xabierren zerbait berri. Ta beste elizetan ta itxetan egiten dutenei ere eman dakien, egiñak dira urrengo irakurraldi guziek, eta egiñak, egun bakoitzerako berea. Irakur ditezke, bederatzurruna baiño len, edo egin ondoan. Irakur

* El Diario Vasco 41 (1974, 12.173.zenb.) Suplemento dominical, 9.

ta adi ditezen, lanik galtzen ez dela, bederatzurrun au egin diteke, elkarri ditxezkon yai-igandez».

Argi al dago? Ezta bederatzurruna, artarako irakurraldiak baizik. Banuen beldurra basamortuko sermolari edo predikari gertatuko ez ote nintzan. Ala gertatu da. Basamortuan itz egin ote det, ala entzun nai eztuten gorren artean? Basamortuan itz egin zuen, nonbait, Aita Jorgek ere, onako au esan zuenean: «Zabarkeri negargarria! Ezer gutxi egin degun euskaldunok euskeraz, orain arte beintzat, naparrik ospetsuenaren izena ta egintzak argitaratuaz, beraganako zaletasuna zabaltzen. Oker au zuzendu naiaz, argitaratu ditugu illunpean zeuden irakurraldi auek». Egunotan ale bat eraan diot nere adiskide bati, ea aren «predikuak» gorren belarrietaraiño irixteko indarrik duen, nereak izan ez duen ezkeru.

BAROJA ETA LISIEUX-KO TERESA DONEA*

(Bi Urteurrenen ondoren)

Bata gure artean azken-mende ontan izan dan nobelagillerik aundiena degulakoa. Bestea, aita Santu baten esanez, azken-mende ontako andre santurik aundiena. Barojak eta Teresatxo doneak ez dute bat-ere elkarren antzik, ez dirudite elkarren ondorako ere. Bost egunen aldeaz munduratuak izan dira, biak Eguberri aldian: Baroja, «Aur Errugabeen» egunez, eta bestea, andik laster, baiña urrengo urteko urtarrillaren 2-n. Orregatik bien eunurtea urte banatan gertatu da, bata 1972, eta bestea 1973-n, ortik ere elkarrekin banandu eziña balute bezela.

Barojak bestearen berri entzuteko aukeraizan zuen, noski, baiñaez zuen erakutsi, beste idazle aundi batzuk erakutsi zuten bezela: esaterako, Bergson jakintsuak eta Bernanos nobelagilleak. Ala ere, Aramaioko seme eme batek, Antonio Unzueta, bien izenak elkarren ondoratzeko bidea aurkitu du, bien eunurtea oroitzuz idatzitako lantxo batean. Baroja eta Teresa, biek utzi diguten oroitzapen batek egiten ditu elkarren lagun.

Baroja ikasle gazteak osalaritza egiten zuela, 1887-n Teresatxo moja sartu gabeko neskatoa da; 14 urtetik 15-ra bidean daude bata eta bestea eta biek izan dute Parisko gaizkille baten berri, Pranzini izeneko batena. Gero, bien lumak jasoko dute gizon zorigaiztoko orrek izan zuen azkena, iltzeko epaia eta eriotza. Bakoitzak bere begiz ikusi du, jakifia, eta or ain zuzen batak eta besteak duten gogo-tankera erakutsi.

Memorias izeneko liburuetan, bein ta berriz gogoratu eta aipatu du Barojak Pranzini orrena, beste askorena bezela. Garai artako Madrilgo albistarietan irakurririk zekien. Eta nola sartu du bere liburuetan, nolako gogo-tankeraz? Kontalari bezela,

* El Diario Vasco 41 (1974, 12.101.zenb.) Suplemento dominical, 9.

eta ez bestela. Kontagaitzat artu du: beste ajolarik gabe. Olako gertaeren irakurle gogatsua zan orduan Baroja. Munduko bizieraren alderdi bat argitzen zion orrek geroko nobelagillearen begiluzeari. Pranzinik (eta antzeko gizonek) garai bereko nobelagille batzuetan irakurria gogoratzen dio, Montepin-en nobeletan irakurria batez ere. Or ezagutu nai du Parisko gautxori eta badaezpadako emakumeen bizi eta gaizkille-mundua. Eta zer esan digu Pranzini ortaz? Iru emakume it omen zituela, eta orregatik iltzeko epaia merezi. Eriotzerako eraman bear zuten eguneko bezpera gabaz, kartzela-zaiñak gelako atetan edo, onelako bertsoren bat utzi omen zion lapitzaz idatzirik: «Ene Pranzini, Pranzini, errukarria zera zu; aurrerantzean, makarroj janik izango ez dezu». Izugarriagorik ere esango digu; Baroja Parisen izan zan batez gaskoin arlote batek liburu bat erakutsi omen zion, estalgarritzat Pranzini orren larrua zuena.

Orixe da Baroja emen: kontalari utsa eta otza, Gaizkillearen barruan ez da bat ere sartzen; aren zorigaitzak ez dio bat ere miñik eman. Azaleko gertakarien berri—emaille besterik ez da. Kontagai bat besterik ez da gure nobelagillearentzat Pranziniri gertatua.

Ez zan berdin izan Teresa mojavai gaztearentzat. Pranzini orren auzia uztaillaren 9'n asi eta 13-n bukatu omen zan. Iltzeko epaia eraan zioten. Orduan jakin du neska gazteak. Eta zer egiten du? Bere gain artu du gaizkillearen zoria. II bear badu, Jainkoaren adiskide ilko al da! Ez zan ageri itxaropen andirik. Pekatariak bere gogorean il bear duela dirudi. Baiña Teresa zemai egiteko gertu dago *Bere pekataria* Jainkoagana ekartzeko: «Banekien nerez ez nintzala ezer; eta Jesukristoren irabazi neurrigabeak eta Elizaren ondasunak eskeintzen nizkion Jainkoari». Lotsa da bere ixilpekoa iñori azaltzen. Bere aizpa Zelina artu zuen bakarrik lagun. «Etzuen gaizki artu nik esana, ezta urrik ere; *Nere pekataria* Jaunaganatzen laguntzaille artu nenzala eskatu zidan; bai nik pozik artu ere. Nerekin nai nituen orduan izaki guztiak, arentzat grazi-eske. Jaunari esaten nion banekiela Pranzini gaizkilleari barkatuko ziola. Nik ala uste nuela, ez aitortu ez damuzko ezaugarririk emango ez bazuen ere. Ain zan aundia Jesusen erruki mugagabea nuen ustea! Baiña... pekatari arengandik, damu-ezaugarritxo bat gutxienez ezkatzen niola».

Eta zer gertatu zan? «La Croix» egunkarian irakurri du Teresatxok. Aitak galera zia zuen egunkariak irakurtzea. Baiña «ez nuen uste Pranzini ortaz zekartena irakurtzeaz aitaren agindua austen nuenik. II zuteneko biaramonean nere eskuetara etorri da «La Croix» egunkaria. Eta... zer dakust? A! Nere malkoek salatzen zuten nere biotz-ikutua, eta burua gorde bear izan nuen. Pranzini ez zan aitortu: urkamendira igo eta laster zorigaitzoko zulo artan sartu bear zuen burua; baiña ustekabea bat-bateko argialdi baten eragiñez, atzera biurtu da, apaizak eskuetan zuen Gurutzea artu du, eta Gurutzekoaren zauri santuei iru aldiz mun egiten die. Gero aren anima errukizko epaia artzera joan zan, onako au esan zuenaren epaia: «Damutzen dan pekatari batengatik poz andiagoa izango da zeruan, damutu bearrik ez duten 99 zintzogatik baiña».

Barojak ez zigun apaitu ere egin Pranziniren azken une au. Ez zuen jakin, edo ez zuen jakigarrintzat euki. Jakingarriago ote da berak jakin erazi diguna?

Moja santuaren luman, berriz, ez ote zaigu gaizkillea bera, maitagarriago agertzen, bere buruaren jabeago, eta bere zorigaitzaren eta eriotzearen be, aren garaizaille?

NAPARROAKO «MEZETAK»

Aspaldi da neretako bitxia zan itz bat entzun nuela: **Mezetas**. Iruña zaarreko seme bati entzun nion bein ta berriz solasaldi berean. Ez nuen nekerik izan zer esan nai zuen antz ematen. Iruñatik urbilleko erritxo bateko jaiak, bestaburuak aipatzen zizkidan itz orrekin. Ontaz iñolako argitasunik eskatzea ez zitzaidan burura etorri. Mezarekin zer ikusia izan zezakeala antz eman niola ere gogoratzen det. Orduan aski zan ori neretako.

Arrezkero, bat baiño geiago saiatu da «mezeta» diralako oien berri ematen. Naparroako iru idazle, bai, gutxienez: Iñazio Baleztena (Urkixo-ren omenaldi-liburuan), Florenzio Idoate (Rincones de la Historia de Navarra) eta J. M. Iribarren (Vocabulario Navarro). Gorosabel-ek ere itz bera erabili zuen Gipuzkoako erri-jaiak izendatzeko. Beraz, «mezetak» (izenez eta izanez), izan dira Naparroatik kanpo ere. Aditzea izan dedanez, Gipuzkoak Naparraorekin muga duen erriren baten ere itz orren kutsuren bat gelditzen omen da oraindaiño.

Naparroan, beintzat, gauza argi dago. Erreiñu zaar ontako agirietan antziñatik agertzen da, ez bakarrik izen ori, baita izenaren azpian estaltzen dan oitura, eta oiturak ekarri zituen amaika istilluren berri ere. Bestaburuak, mezetak, egunetan irauten zuten inguruetako errietatik jentea erruz ekartzen zutela, ez guztiak erriko santu zaindariaren omenetan. Aitzaki utsa omen zan, asko ta askorentzat, eguneko santua. Santuarekikoa, nolana ere, egiña zegoen ordu beteko mezarekin. Andik gorako orduak nola bete? Jolasa eta dantza; jana eta edana, etzan besterik. Etzan dana bukatzen pakerik onean. Orrela jaiak zor eta lorren iturri, etxe askoren ondamenti eta errietako pakearen galgarri gertatuko zirala esan bearrik eztago. Erreiñuko arduradunak, agintariak nola etziran kezkatuko? Naparroako batzar nagusiraiño iritxi zan kezka eta erabaki zorrotza etorri zan goitik: jai-egun aietako geiegikeriak

* El Diario Vasco 41 (1974, 12.131.zenb.) Suplemento domincal, 9.

zearo eragozte. Orduko mezeta-zale askorentzat itz gozorik etzuten: «Acostumbran los pueblos reunirse para ciertas fiestas que llaman MECETAS y no es para otro objeto que para comer, beber y destruir las haciendas». Aurrerantzean, ez olakorik!

Trentoko Eliz-batzarraren aurretik gertatzen zan ori. Au ere gogotan artzekoa dala uste det. Parra-gura ematen du gure arteko itzontzi merke eta ez ain merke diranen temak: dantzadebeku edo jai-debekurik iñoiz bada Trentori egozten diote errua. Oientzat Trento erri-txinelen bat izan da gure erriaren oituretan. Trentok aparteko eragiñik? Ez ote dago askozaz argiago, Calvino'ren eta beretarren lazkeriak beste erri batzuetan izan duen indarra, Trentoko legeak gure artean baiño?

Amaseigarren mendean, bertan Trentokoa baiño leenagotik eta Trentoko erabakirik aintzat artu gabe, ikusten ditugu emen erriagintariak erri-oiturak zaitu eta garbitzeko bidea artzen eta legeak ematen; erria zapaltzeko asmorik gabe, ala ere, eta erriaren onetan, ain zuzen. Ori bai; debekuak debeku, ez ziran gauzak nai zan bidera ekarri. Oiturak ez dira lege utsez berritu eta aldatzen, eta mendez mende ageriko dira Napar agintariak egiñalak egiten erriko oiturak osasun obeko girotan sartu naiez. Olaxe, XVII eta XVIII garren mendetan Naparroak nolabait bere burujabetasuna izan zuen artean. Gerogoako txinel-gobemuak ez dute leen aiña itz eta lege bear, errietako jaiak eta bizia neurri egoki eta pake-itxurazko batean joan-arazteko. Mende berri, bizi berri.

Ez, orraitio, dana ain berri ere. Or dirau, beintzat, izen zaar batek. Or ditugu nola edo ala, aintziña bateko MEZETAK, XVI garren mendetik ona agirietan ezagutzen ditugun erri-jaiak. Ezta guztiz galdu ez aien izena ez izana.

Eta orain askoren galdera: nondik degu itz au? Geienentzat MEZA itzaren sustraia dago or. Meza asko esan nai omen du. Erri-jaietara kanpoko apaiz asko bildurik, mezarik asko izateko aukera omen zegoen. Beste batzuentzat, onako esaeraren bat izan daiteke itz orren jatorria «Mezetara noa, mezetatik nator, mezetan izan naiz». Esaera jatorra ola danik ez det nik uste, baiña bai: Mezatan, mezatara, mezetatik edo mezararik, mugagabeko deklinabidea esaten dioten legearen arabera. Ola irakurtzen degu idazle jatorretan. Ola Mendiburuk: «Ezin bestez egon behar da mezatan... ezipaiñezko orazioak esaten». Ola Añibarrok: «Jesukristoren iaioztan itzal obeaz egozan astoa ta idia gu Mezatan baiño... Agatik urten daroagu mezararik leen baiño otzago eta gaiztoago». Ola Agirre Asteasukoak: «Antziñako kristatuak etziran kontentatzen Mezatara nola nai etortzearekin». Mezan, mezara, mezatik ere, egia esan, irakurriko degu, eta ez beti gaizki idatzia, esaterako, mezan ditugun edo mezatik atera gentzaken ondasunez mintzo zaizkigunean. MEZETAN eta mezetara ere ez daude gaizki, onelako esaeretan: «Arratsaldeko mezetan edo mezetara gizonik geiago izaten da goizekoetara baiño».

Ortik ote dator Naparren MEZETA diralakoen jatorria? Nik ez det ez baietzik ez ezetzik esango. Baiña ez ote gentzake beste bide batetik ere jo? MEZETA diralako jai oiek badirudi mezarekin baiño jolasekin zer ikusi geiago dutela. Olako jaialdiek, tokian tokian, izen bereziak izan oi dituzte. Or degu, erdal-erri batzuetako feria izena. Baiña urrutiagoko erri batzuetan badegu Messe eta Kermesse ere. Olako jatorriren bat ez ote du gure naparren itzak?

SAN MARTINEN OSPEA*

San Martin gotzaiatz norbaitek esan du bera degula «santurik maitatuena Europan, zapaldu guztien babes, zapaltzaille guztien bildurgarri». Eta ez da gutxi esatea. Eta santu onek maitale asko baldin badu, zerbaitegatik izan da. Erriak begi ona du geien batez eta nork maite duen antz ematen badaki, eta maitasunari maitasunaz erantzuten ere bai.

Gure erria ere Europako erri azaldu da San Martinekin. Santu onek izen ona eta ospe ederra izan duela Euskalerrian, agerian dago. Aren izenezko elizez beterik dago Euskalerria; oso ezaguna da aren irudia emen, naiz zaldiz, gudari jantzirik bere kaparen erdia eskale bati ematen, naiz gotzai-soiñekoz, eliz-artzaien makilla eskuan. Arenganako maitasuna eta aren ospea or gelditu dira gure erriaren ipui eta siñiskera batzuetan mamiturik.

Gure nekazarien eta ola-gizonen ipuietan San Martini zor zaizkio zenbait teknikazko aurrerapen: arto ereitea, zerra asmatzea, adibidez. Zuurra agertzen da bera eta jende xearen premietan ardura artzen zekiena. Bazekien, nonbait, an-or—emengo jakinduria eta aurrerapenak biltzen eta beretakotzat gordetzen, gero bear zan errietara zabaltzeko. Deabruaren naiz bestelakoen amarruei igarten eta uts eragiten ere bazekien. Dana jaso du gure erriak eta ipui eta siñiskera politetan mamiturik utzi. Nork eztu egunotan entzun «Eztok amairu»? San Martinen jakinduriaren eta zuurtasunaren ale bat degu or.

* El Diario Vasco 41 (1974, 12.337.zenb.) Suplemento dominical, 11.

Nondik dator kio olako ospea santuari? Zerbait bada ziur aski dakiguna: Martin santuak lan etengabekoa eta ederra egin zuela Kristoren Berri Ona zabaltzen erri xeari, batez ere, nekazariei. Erri-mixiolari izan zan bera. Erriz erri ibilli oi zan, ez bakarrik, berak sortutako eta zabalduetako praillekin batera baizik. Praille aien oitura, berriz, jakiña da: Kristoren irakaspenekin batera nekazaritzako aurrerapenak ere zabal-tzen zituzten. Eta erriak, ezta bat ere arritzekoa, guzti aiei zor diona, bati, San Martini, aien sortzailleari ezarri ba dio. Ez ote da ala?

Santu au ipuietan bakarrik ez, erri-teatroan ere sartua daukagu Euskalerrian. Edo beintzat, Zuberoan. Errialde txiki au ez tegu San Martinen maitaleetan txikiena. Ba omen daude an santuaren izeneko 16 eliza. An teatroan ere ospatu dute, berek dakiten bezala. Ango pastoral batek San Martinen izena darama: santuaren izena eta santuaren bizitza.

Bear bada, gure erriak eztu ikusi eta ikasi santuaren maitagarritasunaz besterik. Non da gure artean San Martin zapaltzaille guztien bildugarri egiten duen alderdia? Eta alderdi au ere badu, orraitio, gauden egunotan gogotikago entzungo litekena.

Izan ere, borroka latza erabili zuen bere azken-urteetan, eta bildugarri egin zan erregearentzat eta gotzai askorentzat. Treveris-tik agintzen zuen Maximo, Erromako kaiserraren auzitegian, Prisziliano, Avilako gotzai izendatua, epaitua izan zan eta eriotzera emana. Fede-auzi bat erregeren auzitegira eraman eta an erabaki? Nola zitekean ori? Egia esan, ez tirudi Prisziliano ori siñismenaren goraberan epaitua izan zanik; sorginkerien goraberan epaitu bide zuten. Berak ere erregegana jo zuen babes-billa, gauzak okertu bazitzaizkion ere. Baiña San Martinen iritzian, auzi artan etzan gelditu argi ez garbi gotzai batzuen jokabidea, Prisziliano zorigaiztokoa erregeren aurrean salatu zutenean. Aren odolean bazuten, itxuraz, beren errua. Eta ori lotsagarri zan, pekatu larria zan Elizarentzat eta Kristauerriarentzat. Jo orra eta jo ara, gogor egin zuen San Martinek erregearen aurrean eta gogorrago gotzai aien aurka. Elizarekiko alkartasuna ukatu egingo die, eztu aien naikide izan nai ez aldarean ez beste iñon ere. Priszilianoren eriotzea eztu galerazi al izan; baiña egiñalak egingo ditu gero aren lagunuen odolik geiago ixuri etzedin. Izan zan beste gotzairik ere gogor ots egin zuenik, Milango Ambrosio aundia tartean zala. Baiña Martin baiño bildurgarriago etzan beste bat azaldu.

Gorabera eta istilu auek ere, len ospetsua zana ospetsuago egin zuten Kristauen aurrean, goietan zeuden askorentzat ikaragarri eta erri xearrentzat len baiño maitagarriago.

Ospetsu izan zan bere bizian eta il ondoren ospe berak lagundu zion mendez mende bere illobiaren inguruan. Bizian jarraitu zion erriak maitasunez jarraitu zuen gero aren illobira. Otoitzetxe bat, elizatxo bat eraiki zuten bertan. Antxe gorde zan gizaldietan santuaren kapatxoa (bere maitasunaren eta biotz-zabalaren ezaugarri bi-zia). Arako joerak ildo sakona utzi du Liturgian bertan ere: itz berri bat sortu du. Eliza txikiei capella (capilla, chapelle, kapera) esatea ortik omen dator. Santuaren illobiko elizatxoan gordetzen zan kapatxoak elizari berari eman zion izena, eta gero aren antzeko eliza txiki guztiei. Txiki eta aundi, errege eta beragoko, osteka zijoazten erromez santuaren illobi artara. San Martinen omenez erromesaldi oietan kantatzeko asmatua da *Iste confessor* eliz-kanta, geroago beste santu askoren egunetan kantatua

izan dana, eta gaur berriro San Martin onentzat utzia. Bertso safikoetan neurtua, euskeraz onelatsu jarri dezakegu orren asiera:

Mundu guztiko erriek biotzez
ospatzen duten santu aundi ura
pozez igoa degu gaur zeruko
eserlekura.

Mundu guztiko erriek ospatzen dutena! Mundu guztiko erri diralako auek Europa guztiko erriak dirala argi dago. Eta erri oien artean Euskalerrria ez da inñolaz ere azken gelditu Europako santurik maiteen ori maitatzen eta ospatzen.

CARMELITAS*

£1 Carmelo antiguo.

La orden del Carmen aparece en el País Vasco en la segunda mitad del s. XIII. La primera fundación, la *á&Bayona*, data del año 1264. Se establecieron extramuros de la ciudad, en el barrio de Tarrides. Demolido el convento por necesidades de defensa de la ciudad (1510), entraron en el interior, construyéndolo hacia el año 1512 entre el Port-Neuf y el Port-du-Verger, en la calle que llevaría su nombre: *Rue de Carmes*. Subsistió hasta la Revolución Francesa, después de la cual pasó a ser templo protestante, centro de reuniones cívicas, acabando por ser demolido. Todos los frailes, menos uno, optaron por la vida seglar.

El año 1277, durante la minoría de edad de la reina D.^a Juana de Nav., fundan en *Sangiiesa*. Autoriza la fundación el regente, Felipe III de Francia, en escrito que dirige a su gobernador en Navarra, Eustaquio de Beaumarchais. Otro convento, también de fundación real, surge a mediados del s. XIV en cumplimiento de una disposición testamentaria del rey Felipe III de Navarra, muerto el año 1343. Es el de *Pamplona*. Se levantó extramuros de la ciudad; pero en el reinado de Carlos II se trasladan al interior de la población, hacia el año 1370, dando nombre a la calle del Carmen. Este convento y el de Sangiiesa pasaron en poco tiempo por varias situaciones: agregados a la provincia de Aquitania, declarados luego independientes, fueron definitivamente incorporados a Aragón. Bayona perteneció a la provincia de Aquitania y a Vasconia. El Carmen antiguo tuvo otra casa más en *Tudela*, fundada en 1591. Los tres conventos navarros sobrevivieron hasta la exclaustración de 1835.

* In: *Diccionario Enciclopédico Vasco*, 6.t. (san Sebastián 1975) 341-343.

El Carmelo Reformado Teresiano.

La reforma carmelitana de Santa Teresa y de San Juan de la Cruz se implantó y arraigó fuertemente en el País Vasco en sus dos ramas de frailes y monjas. Las primeras en entrar fueron las religiosas. San Teresa tenía oferta de una fundación en Orduña, que no pudo atender. Pero ella misma inició los trámites para fundar en *Pamplona*, proyecto que se realiza al año de su muerte: en 1583. Las carmelitas entraron también en *Vitoria*, el año 1589; pero en 1651 se trasladan a Logroño. Y la serie de fundaciones del Carmelo Teresiano femenino sigue: *Zumaya* (1614), *San Sebastián* (1663), *Corella* (1722), *Lesaca*, (1767).

Los religiosos inician su establecimiento en el País Vasco por *Pamplona* (1587). Siguen con *Corella* (1595), *Tudela* (1597), *Lazcano* (1644), *Marauina* (169i), *Larrea* (Amorebieta-Echano, 1713), *Desierto de la Isla* (Sestao, 1719), *Valmaseda* (1732), *Villafranca de Navarra*. (1734). En *Bilbao* estuvieron en posesión de unas casas desde 1618, y en parte ocuparon en 1667, pero a título precario por la oposición de las autoridades locales; sólo a raíz de 1692 fueron autorizados a vivir allí a título de hospicio tres religiosos y así permaneció esta casa hasta la exclaustación del s. XIX. En Anglet, Laburdi, se intentó un establecimiento en 1663. Con los conventos vascos y algunos más de las provincias limítrofes, se constituyó en 1706 la provincia denominada de San Joaquín de Navarra. Su casa madre fue el convento de Pamplona, que desde su fundación había sido casa-noviciado para las vocaciones del País y con maestros de novicios vascos. Construido extramuros de la ciudad en el barrio de la Magdalena, se habían trasladado al emplazamiento actual en 1640. Erigida la nueva Provincia, Pamplona fue colegio para teólogos, en que se puso cátedra incluso de Mística y de Sagrada Escritura, cosa no frecuente en aquellos tiempos en los centros de formación religiosa; y el noviciado pasó a Corella o Tudela, por un lado, y a Lazcano por otro. La reforma se introdujo en el convento de Bayona el 13 de septiembre de 1656. De 1835 a 1839, en virtud de los decretos de exclaustación, quedaron suprimidos todos los conventos masculinos por un período de treinta años. Algunos no se recuperarían ya jamás. Así, los conventos de Sangüesa, Pamplona (el convento del Carmen Antiguo), los de Tudela, y el de Bilbao, Sestao, Valmaseda y Lazcano, este último convertido actualmente en Abadía benedictina.

La restauración

Por obra de religiosos exclaustados o emigrados a Francia se inicia con la recuperación del convento de *Marauina* en 1868. Siguen los de *Larrea* (1876), *Corella* (1892), *Villafranca* (1893) y *Pamplona* (1895), que desde el año 1837 está ocupado por las religiosas carmelitas, forzadas a salir de su convento de junto a la Plaza del Castillo por apremios militares. A la vez se levantan nuevas casas: *B/oa*-Begoña (1880), *Vitoria* (1890), *San Sebastián* (1910), *Alzo* (1917), *Amorebieta* (1933), *Eibar* (1935).

Las religiosas conservan todas sus fundaciones (la de *Pamplona*, trasladada a nuevo emplazamiento, cerca de la catedral) y erigen nuevos conventos: *Bayona*

(1863), *Murguía* (1888), *Marauina* (1891), *Bilbao* (1896) —con traslado de las religiosas a Santuchu en 1930 y de nuevo a Guecho (1966)—, *Azcoitia* (1899), *Echavacoiz* (Pamplona, 1910), *Zaldivar* (1925), *Durango* (1942), *Orduña* (1946), *Donamaría* (1945), *Fuenterrabía* (1951) y *Vitoria* (1952). Hay otra serie de fundaciones llevadas a cabo por carmelitas francesas que, obligadas a emigrar ante la persecución de algunos gobiernos, buscan refugio en el País Vasco: *Salvatierra* (1897, recientemente abandonada), *Betoño-Vitoria* (1905) y *Zarauz* (1906). Actualmente se nutren de vocaciones nativas, y Betoño ha llegado a fundar una comunidad más en *Meñaca* (Vizcaya, 1957).

No se daría una visión cabal de la presencia carmelitana en el País si no se hiciera constar la existencia en él y actuación de las religiosas carmelitas de vida activa en centros sanitarios, colegios y escuelas. Existen en todas nuestras provincias.

El Carmelo vasco en el mundo.

Fuera de su País, los carmelitas vascos han sido el alma de la restauración de la Orden en España, Portugal e India, y la han implantado en todo el centro y sur de América; han mantenido y mantienen territorios de misión en India, Colombia y Malawi. Entre las figuras misioneras cabe señalar al P. Juan Vicente Cengotita-Bengoia, misionero y escritor vasco; Zacarías de Santa Teresa Salterain, autor de notables obras en inglés sobre hinduismo; Aureliano del Ssmo. Sacramento Landeta, gran apóstol entre el clero indio; los obispos Mons. Bernardo de Arginzóniz, Buenaventura de Arana, Ambrosio de Abásolo, Luis de Irizar y Miguel Angel de Le-cumberri; el arzobispo de Santiago de Cuba, Mons. Valentín de Zubizarreta y el Administrador Apostólico de Kuwait, Victor San Miguel, sociólogo acreditado en el Oriente, y los que fueron Prefectos apostólicos de Urabá (Colombia), Fr. José Joaquín de Arteaga y Severino de Santa Teresa Aguirrebeitia, misioneros y hombres de pluma ambos.

Figuras destacadas.

Entre los teólogos que ha dado el Carmelo Teresiano vasco cabe citar al P. Pablo de la Concepción Jiménez Jaso, perseguido por la Monarquía Borbónica y muerto en las mazmorras de Granada en 1734; al resumidor de su obra teológica, P. José de la Madre de Dios Ezpeleta; al P. Antonio de San José, comentarista de Santa Teresa y autor de una obra de Moral, que estuvo algún tiempo de texto en centros de formación eclesiástica y universitarios; al P. Juan de la Cruz, Profesor de Mística y de Sagrada Escritura en Pamplona y autor de unos comentarios al Génesis; y más cerca de nuestros días, al arzobispo ya nombrado, F. Valentín de Zubizarreta y al P. Joaquín de San Simón Stock Olabarrieta, que desde el año 1893 hasta 1926 fue consultor de diversas congregaciones romanas (una de las consultas versó sobre nombres vascos en la administración del bautismo) y fue miembro de la Comisión

codificadora del Derecho Canónico y, luego de la Comisión pontificia para su interpretación.

No han faltado cultivadores de la lengua vasca: el P. José de Jesús María Araquistain, autor de una historia de Ntra. Sra. de Iciar, de un suplemento al diccionario de Larramendi y de varias canciones; el P. Joaquín de Santa Bárbara, autor de una obra de apicultura bilingüe y el P. Bartolomé de Santa Teresa, predicador y escritor. En nuestros tiempos es notable el impulso dado por los carmelitas al cultivo de la lengua vascuense, como lo acreditan sus revistas «Karmengo Argia», «Karmel» y «Olerti».

También el Carmelo antiguo tuvo notables figuras: el teólogo Fr. Raimundo de Lumbier, Fr. José María de Larumbe y el lego Miguel de Hualde, roncalés, escritor de temas astronómicos e históricos.

El Carmelo vasco reformado ha dado a su propia Orden cinco Superiores Generales: Fr. Esteban de San José Arteta y el ya citado P. Pablo de la Concepción lo fueron de la antigua Congregación de España-Portugal, el primero desde 1765 al 71 como General, y de 1763 al 65 y del 1775 al 76 como Vicario General; y el segundo, desde 1724 al 30. Uno de los emigrados de la excomunión, Fr. Domingo de San José, que había sido capellán del ejército carlista, llegó a ser Superior General de la Congregación de Italia y Padre conciliar en el Vaticano I. El fue quien al tiempo de la restauración del convento de Marquina dio los primeros pasos para la fusión de ambas Congregaciones. Realizada ésta, la Orden ha tenido dos Superiores Generales más en la persona de dos vascos, vizcaínos: el P. Ezequiel Bilbao, que lo fue de 1906 a 1913, y el P. Miguel Ángel Bádiz, actual General.

SANTUARIO Y CONVENTO CARMELITANO DE LARREA*

Se fundó a principios del siglo XVIII dentro de la Merindad de Zomoza, en Vizcaya, en la anteiglesia de Echano, población hoy agregada a Amorebieta con la denominación Amorebieta-Echano hallándose a poca distancia de su núcleo central junto a la carretera que de él parte para Garaitondo.

Aunque el convento, como tal, data del primer cuarto de siglo XVIII, el santuario se remonta a una fecha de datación anterior, cuando los señores de Larrea edificaron frente a la Casa-Torre o Palacio de su apellido una ermita a mediados del siglo XVII, y la dedicaron a su santo Patrono San Juan Bautista, dotándola de dos capellanías a su servicio en beneficio de los feligreses de la barriada que, por la distancia de su iglesia parroquial de Echano y por lo áspero del camino quedaban en la imposibilidad de acudir a los oficios religiosos, sobre todo en épocas de lluvias o temporales.

Prescindiendo de leyendas más o menos fantásticas y nada fundadas históricamente, ya en el siglo XVII nos encontramos con unos señores de Larrea bien históricos, dueños de dos solares de su apellido, entroncados entre sí, ambos de idéntica arquitectura, situado uno en Echano (Vizcaya), y el otro en Argómaniz, en la llanada de Alava, y que brillaron como grandes personajes y hombres de consejo en tomo a los reyes Felipe IV y Carlos II. Uno fue Juan Bautista de Larrea, catedrático algún tiempo en Salamanca, gran autoridad en materias jurídicas y económicas, y que estuvo más tarde al servicio de Felipe IV, como abogado del Real Fisco, Oidor del Consejo Real de Hacienda y magistrado del Consejo Supremo de Castilla. Escribió en latín varios tratados, sobre materias de su especialidad, entre los que merecen especial mención sus comentarios a los Fueros de Vizcaya. Al morir en 1645, hereda

* In: *Diccionario Enciclopédico Vasco* 23.t. (San Sebastián 1987), 302-305.

el mayorazgo de Larrea su hijo Juan, secretario que fue del mismo rey, y fundador patrono de la ermita de San Juan Bautista de Larrea, hecha construir por él entre 1647 al 1650. Al morir sin sucesión, le hereda en la posesión del solar de Echano y sus pertenencias su sobrino y homónimo Juan de Larrea y Henayo, favorecido en la Corte con no menos prebendas que su tío, llegando a ser Secretario de Estado de Carlos II.

Éste sería el que, hallando hacia el año 1695 en estado ruinoso la ermita erigida por su antecesor, acordará derribarla para levantar en su lugar un templo mayor y más suntuoso, más en armonía con la elegancia y el estilo renacentista de su propio palacio. La nueva obra estaba terminada para el año 1704. Es la actual iglesia del Carmen de Larrea. Don Juan de Larrea y su esposa Teresa de Mudarra la han dotado y han añadido dos capellanías más a las dos puestas por el primer fundador. Pero, al fin, juzgan más conveniente para un mejor servicio de la iglesia ponerla en manos de una Orden religiosa y deciden ofrecerla a los Padres Carmelitas Descalzos. Así empieza la presencia carmelitana en Larrea. Corría el año 1711. Los fundadores han comunicado su proyecto al P. Francisco de San Buenaventura, del Carmen de Marquina y expuesto sus condiciones. El P. Francisco informa al Capítulo Provincial que se celebra por entonces y aprueba el proyecto y propuesta de los fundadores, y todo pasa a la aprobación del Consejo General por mayo de 1712 y a 27 del mismo mes y año se firman las escrituras entre los señores de Larrea y la Orden Carmelitana que entra en posesión de la iglesia el tres de febrero de 1713.

Con esta fecha se ha constituido allí la primera minicomunidad de carmelitas, acomodándose corao mejor pueden en unas celdas provisionales. Tres años duran las obras más imprescindibles de la obra del convento adosado a la estructura de la iglesia, y en junio de 1716 los religiosos pueden ocupar unas habitaciones más holgadas y apropiadas. Entre tanto han surgido los obstáculos habituales entonces para esta clase de fundaciones: la oposición tenaz de los cabildos tanto eclesiástico y secular y de alguna otra Orden religiosa que se considera perjudicada en sus derechos, con recursos ante el Señorío y ante el Reino. El Señorío había dado ya en 1677 en las Juntas de Guernica su licencia general para fundaciones de Carmelitas, antes de la fundación del convento de Marquina. El Obispo de Calahorra dio también su consentimiento el 4 de agosto de 1719, y más tarde hubo de conminar con penas canónicas a los impugnadores de la fundación. Fue apagándose la oposición, tanto del clero como del pueblo de Echano, y el 7 de enero de 1724, lacomunidad religiosa, reforzada ya con nuevos miembros pudo iniciar una nueva etapa relativamente pacífica de observancia regular en el convento y de atención espiritual a los fieles de la iglesia. Es el momento de que pasen a la iglesia y al convento las alhajas (imágenes de talla, cuadros, ornamentos, cálices, etc), que los fundadores, ya difuntos, habían incluido en su donación en número considerable. Entre ellos destaca una grande y artística Custodia, regalo que fue de Carlos II al fundador D. Juan de Larrea. Pero queda mucha obra por hacer hasta dejar el convento acabado a satisfacción de todos. El hecho de ser la casa una construcción adosada a un templo anteriormente existente creaba problemas de adaptación que tardarían en resolverse satisfactoriamente. A veces parecía peligrar la continuidad misma de los religiosos en el lugar ante cierta sorda resistencia a su presencia que aún persistía en algunos grupos. La fundación

no quedó muy asegurada hasta la celebración de un convenio firmado entre los cabildos eclesiásticos y secular de Echano y Amorebieta, por un lado, y la comunidad de frailes por otro, el 8 de mayo de 1754. En adelante podía desarrollarse pacíficamente la vida de los frailes, tanto de puertas adentro como de puertas afuera. Una proyección hacia el exterior, de apostolado por los pueblos, entraba en el proyecto de la fundación. El P. Superior de Larrea, en memorial presentado en 1719 a la Diputación General del Señorío, en respuesta a los impugnadores de la fundación, decía: «El Ilmo. Señor Obispo de Calahorra se ha servido conceder su licencia a mi sagrada religión para que pueda erigir y fundar convento en el referido Hospicio y su capilla a fin de la mayor enseñanza, educación y pasto espiritual de los naturales de aquel territorio, hijos de V.S. Ilma.». Fue obligación asumida por los religiosos en la escritura de fundación la de enseñar la doctrina cristiana en las misas de todos los domingos y fiestas. La cuaresma sería de más intensa predicación de la palabra de Dios. Predicadores cuaresmales y de Misiones se extendieron a los pueblos a la redonda. Larrea fue así bien pronto centro de irradiación espiritual hacia los pueblos y centro de atracción de los pueblos hacia su Santuario.

Un pleito entablado contra los bailes en la plaza entre el Palacio y el Santuario en la década del 1720 al 1730 nos da fe de ello. Habían comenzado a celebrarse romerías en dicha plaza, amenizadas con bailes al son de txistu y tamboril, alboka y otros instrumentos. Se quejó el dueño del Palacio y vino la prohibición de tales bailes por la autoridad civil el año 1727. Para reforzar la prohibición, se recurrió hasta la Nunciatura, a fin de que prohibiera a los religiosos el que ni directa ni indirectamente se hicieran cómplices en la organización de tales bailes o en la contratación de los músicos. Prohibiciones de bailes hubo más de una aquellos años en pueblos de Vizcaya, pero caso como éste de implicaciones supuestas o reales de religiosos en organizarlos, tal vez sea éste el único. Y aun se volvió a insistir el año 1749 en la prohibición y en las sospechas sobre los religiosos, porque al parecer la prohibición había comenzado a no ser respetada.

Las crónicas del Santurio hablan muchas veces de que se llevaba allí al vida regular de los Colegios, y aun algún tiempo hubo de ser Colegio de Teología Moral para los estudiantes religiosos que se preparaban para el sacerdocio. No se registran hechos de especial relieve en él hasta que la vida de la comunidad sufrió dos interrupciones: una, con la invasión napoleónica de 1808 a 1813, y otra más larga, la de la exclaustración que siguió a la primera guerra civil carlista, en cumplimiento de decretos emanados del Gobierno Central liberal en años anteriores, que aquí no se hicieron efectivos hasta el final de la guerra. La situación de Larrea tuvo entonces una solución singular. Cuando el Gobierno procedía a la venta en pública subasta del convento y de sus bienes, D. Diego Félix de Olaeta y Larrea, dueño a la sazón del Palacio de Larrea, reclamó e hizo valer sus derechos de patrono y dueño de la iglesia y del convento, derechos que le fueron reconocidos judicialmente en 1846, y desde entonces mantuvo allí una comunidad de Padres carmelitas. Ellos continuaron el servicio religioso del Santuario, y aparecerán registrados en las estadísticas de los Obispos de Calahorra y Vitoria en años posteriores. Esta situación dura treinta años desde el año 1846 al 1876, en que se restablece plenamente la vida carmelitana

y comienza una nueva etapa en la vida del Santuario. Ocho años antes había tenido lugar la recuperación del convento de Marquina, que volvía a ser ocupado por los Padres que retornaban de la emigración en Francia. Ahora le llega el turno al de Larrea, que desde dos años antes sirvió de refugio a la imagen de la Virgen de Begoña, allí trasladada para evitar el peligro de que fuera destruida en el asedio de las fuerzas carlistas a la villa de Bilbao.

En esta nueva etapa, Larrea va a tener un nuevo destino por muchos años. Será casa Noviciado, de formación de nuevos religiosos para los conventos que se restauran o se fundan de nuevo en el propio país, en España, América e India. De sus nuevas formaciones han salido tres superiores Generales en Roma, cinco obispos por tierras de Cuba y de la India, y tres religiosos con fama de santidad que tienen en curso muy adelantado su proceso de Beatificación y Canonización. Pero la formación de los novicios no es, naturalmente, la actividad absorbente. La actividad pastoral y de predicación por todos los pueblos euskaldunes de Vizcaya es, sin duda, más intensa que en la época anterior. Los religiosos realizan también labor docente, cuando a principios de este siglo XX se crea una Preceptoría en los locales del convento para la primera formación humanística de aspirantes tanto al clero secular como regular. El año 1914 se produce un hecho nuevo; los dueños de Larrea han vendido a los padres su histórico Palacio, y en él se establece un Seminario Carmelitano para la formación de jóvenes aspirantes al hábito de la Orden (a la vez que una escuela primaria para niños del barrio y de los entornos), que dura hasta el año 1933, en que se inaugura una nueva casa, un nuevo Seminario, con vida independiente de Larrea, en el centro de Amorebieta.

Dos años antes Larrea se había convertido en centro de una actividad nueva, la literaria. El Capítulo Provincial de la Provincia titulada de San Joaquín de Navarra, a cuya jurisdicción ha pertenecido desde siempre *LaiTea*, acordó fundar una revista euskérica para desarrollar el apostolado de la pluma y llevarlo al seno de las familias de habla euskérica. Así nace **Karmengo Argia**, que tras la interrupción que siguió a la guerra civil de 1936, resurgió en forma de *Egutegia* en 1950 y de **Karmel** más tarde y que sigue publicándose en nuestros días. En torno a ella, y bajo la iniciativa incansable del P. Santiago de Onaindia se ha desarrollado asimismo la publicación de obras euskéricas, de carácter cultural y religioso mayormente, como **Olerti**, publicación periódica de poesía vasca.

Del antiguo Palacio de los Larrea, destruido en su interior por la guerra y demolidos en mala hora sus muros, no queda sino el escudo de los Larrea Echano, colocado en una de las entradas a la plaza que mira a la fachada de la iglesia. El convento, notablemente ampliado, ha dejado de ser casa Noviciado, ahora trasladado al convento de Calahorra, también de la jurisdicción de la Provincia de San Joaquín de Navarra. La iglesia, convertida en iglesia parroquial, servida por los frailes, sigue siendo de la advocación del Precursor del Señor, San Juan Bautista, cuya imagen corona el retablo del altar mayor. Pero su fiesta, desde que en el siglo pasado dejó de ser solemnidad de precepto, no atrae ya casi a nadie y ha perdido su esplendor. La que allí reina es la Virgen en su advocación del Carmen y el año 1968 mereció los honores de su Coronación Canónica por manos de D. Pablo Gúrpide, obispo de Bilbao, Delegado Pontificio para el acto. Larrea es actualmente Santuario Mariano

de pleno derecho. En el convento, si dejó de ser noviciado, funciona hoy una casa de espiritualidad (Gogartetxea) para retiros, ejercicios espirituales, convivencias, días de descanso, etc, con un cuadro de padres que llevan su dirección y una comunidad de religiosas para los servicios de hospitalidad.

Así Larrea hoy, con la dedicación pastoral y parroquial de sus religiosos, con su *Gogartetxea*, con la difusión de la revista *Karmel* y sus publicaciones euskéricas, sigue fiel a los fines que sus primeros moradores se fijaron en 1719: el de contribuir «a la mejor enseñanza, educación y pasto espiritual de los naturales» de Vizcaya y aun del País Vasco.

MENDEAK KRISTO'RI BEGIRA*

Gauetik goizera urte berrian sartuak gera. Urte bete zarrago da gure mundua. Zimurdura bat geiago du, 1976'gn urtekoa. Geiago dituela badakigu. Mundu onek ere, emakume beti gazte agertu naiak bezela, adiña estaltzen, urteak gordetzen ikasi ote du, bada? Bai, zera! Baiña urteen konturik ez ematea gerta dakioko. Orixe gertatu zaio, ain zuzen, munduari, edo orixe gertatu zaio gizonari. oraintsu samar arte ez baitugu ikasi aren urte iraganak zenbatzen.

Laster samar ikasi zuen gizonak, bai, egunen joan etorria asteka edo illabeteka kontatzen. Begien aurrean zeuzkan eguzkia eta illargia, beren betiko itzul-inguruekin, egunak eta aldiak bereizten. Illargiaren ilgorak eta ilberak egiten zuten illabetea. Ularen barnean ere ez zitzaion gauza zailla beste aldi-bitarte batzuk bereiztea, asierakoa, tartekoa eta azkenekoa, gutxienez. Erri guztietan ez da oitura berdiñik izango; an amar egunka kontatuko dute astea, zazpiñaka emen eta gutxiagoka aruntzago. Baiña, astez asteko egun-kontaera or da zabal non-nai. Eta, baldin gaurko mundurik geienak zazpiñaka eguneko astea badu, juduen eta kristauen oiturari jarraitzetik da-torkio.

Amabi illabetez eguzkiak aroz aro egiten duen itzuliak urtea sortuko du. Asteko egunen kontua eta urtebarruko illen kontua eramatea gauza erraza zuen gizonak. Baiña urteak nola zenbatu? Nondik edo noiztik asita? Asiera ezagutzen zaion zerbaiti buruz, bakarrik, egin zitekean ori. Ez da izan gizonik, munduari asiera ezagutu dionik. Ezin, beraz, aren urteen kopurua, ez orren konturik eraman. Jaiotza edo asiera izan duten gauzen urte-kontua, bai, eraman diteke: ala, gurasoek, beren seme-alabena, edo agintari edo errege aundiek beren agintaldiko urteena, edo erri batek bera sortu zanetik edo adin eder batera eldu zanetik aurrerakoena.

* El Diario Vasco 43 (1976, 12.691.zenb.) Suplemento dominical, 7.

Orrelaxe atera izan da zenbat urtez bizi dan urlia, edo zenbat urtez agindu zuen alako erregen batek edo olako erreinu batek zenbat urtezko gora-aldia izan zuen. Orrelaxe kontatu zituzten erromarrek beren uria sortu zanetiko urteak. Olatsu Mao-marrek, beren erlijioa sortu zanez geroztiokoak.

Olaxe sortua da, Kristo jaio zanetik onako urte-kontarea ere, gaur ia mundu guztiak artua duena. Ortik diogu gaur 1976'gn urtean gaudela. Ez da berau, mundu zar onen benetakoa adiña, baiña, bai, Kristo jaioaz batera sortzen asi zan mundu berriarena.

Kontaera onekin munduaren iraupena bi alditan banatzen degu. Kristoz aurreko urteak atzeraka kontatzen ditugu eta Kristogaiñako datoz; Kristoz gerokoak, aurreraka doaz, mundu berri obe bat egitea elburu eta jomuga dutela. Orrela, Kristo gertatzen da mende guztien eta gizabizitzaren ardatz. Mende berri bat sortzen da Kristorekin. Kristauk bete betean aitortzen du:

Jesus, munduko argia!
 Jesus, ziñezko egia!
 Jesus, betiko bizia!

Baiña siñisgabeek ere, nola edo ala, oldez edo moldez, borondatez edo ez, 1976'gn urtean gaudela esatean edo idaztean, aitormen berdintsua egiten diote Kristori. Orain 1976 urte (zenbaketa au ez da oso zeatza, gutxi gora berakoa da), AUR BATEN JAIOTZA gertatu zan, ez iñongo errege-jauregitan, Belen'go estalpe batean baizik. Baiña *aur au* erregerik ongilleena izango zan munduarentzat. Berak Berri Onik opagarriena zekarren: PAKEA GIZONENTZAT elkarren artean eta Jaungoikoarekin. Erregeen aundikeri-usairik bat ere ez zuen aur orrek erreinurik aundiena sortuko zuen, gizon eta erri guztiei opa zaien erreinua, Jainkoak maitatu eta salbatuena. Une artan giza berri bat sortzan zan, Jainkoaren erria asten zan zabaltzen. Iñor gutxi oartuko zitzaion gertaera aundi orri. Ain ixillik, ain apalik zetorren.

Batez ere, nork usteko zuen, geroko mendeek une ori egingo zutela mende guztien ardatz eta andik asiko zutela urte-kontaera berri bat? Kristauk berek ere ez, luzaroko urteetan. Bosteun urte joango ziran, Dionisio Txiki zelako bati, ori egitea bururatu zitzaioneko. Gaur ez al dezakegu esan, mundu guztiak artu duela eta ontzat eman aren burutapena eta joera?

Iñoiz asmo berri okerragokorik ere azaldu da munduan. Urte-kontaera ori kentzeko alegiñak ere egin izan dira. Frantzia'ko iraultzaileen egunetan, dana berri egin bearrez, dana irauli nai izan zuten; egutegia ere bai, urte, aste eta illen izen berriak asmatuz. Berrikeri onek ez zuen bizi luzerik izan, ez zuen lortu Kristori urteen jabetza kentzerik. Karlisten lenengo gerratean ere ez ote zan olako saioren bat egin? Larra erdal idazle ospetsua gogor artu omen zuten bein Gasteiz'en, paperen bat oizko egun eta urtean izenpetu zuelako. «Ez al dezu ikasi oraindiño», (esan omen zioten garrazki), mende berrien lenengo urtean gaudela?» Eta nork ez daki, oraintsuagoko saio txiki baten berri? Liburuak ere arkitzen dira ainbatgarren garai-urtean (año Triunfal) idatzita.

Iñork ere ez du Kristok bezelako eskubiderik urteen eta mendeen jabe izateko. Orain ere ba da menden berriak izen berriz bataiatzeko amesik egiten duenik, edo Treveris'era, edo izarretera edo olako edo alako aurrerapenen batera begiak itzuliko dituenik. Orainartekoak bezela, amets aukerak zorotan gelditu dira... Eta gizonaren aurrerapen geienak ez ote dira gertatzen aurren suarekiko jolas?

Benetako gizatasuna, benetako anaitasuna, benetako aurrerapena Belen'en Kristoren jaiotzan entzun zan BERRI ONETIK sortuko da. Munduak ere ala uste duela ba dirudi. Gaurko gaztedian ere, uste gabeko jarraitzailleak atera zaizkio Kristori. Bego, beraz, Kristorentzat menderen mendetan, urteen jabe izatea. Bego Kristorentzat asi berri degun urte au ere, 1976'garrena.

GAZETALARITZARAKO GORDINTXO GAUDE*

Euskal-aldizkari eta astekariak dotore samar agertzen asi zaizkigu aurten. Zein baiño zein ederrago azaldu-naiak jo dituela dirudi. Miss berriren bat atera bear daneko zeingeiagoka edo leiaketa gogoratzen digu. Azalera begiratzuz, bai, apaiñago datoz. Mamiaren aldetik, ez dugu baietz biribillik emango.

Bere burua beste guzien gaiñetik nabarmendu nai izan duena irakurtzea besterik ez duzute. Gora jo du kukurrukua. Euskal-gazetalaritzaren urtetzat oiukatuz dator aurtengo urtea. Baiña nik aitortu bearra dut lerro batzuen irakurtzeak min eman didala, ez didala beintzat atsegin aundirik eman.

Gazetelariak usna ona bear du gertaberriak jaso eta autatzeko; gero buru argia eta zentzuduna bear du, gertakari eta beste gaien inguruan, iruzkin argigarri eta egokiak egin al ditzan gezurrik gabe eta alderdikeri guziak gaindituz. Ori, gutxienez. Ez bata ez bestea ez dugu ikusi zenbait artikulutan. Ona, urtarrillaren lauean agertuak, ale bat edo beste.

Nik ez dut nere burua jokatuco praille batek or nunbaiten esan omen duenaren alde, alegia, **euskaldun fededun** gure egunotan ere egia dala. Baiña, egia izan naiz ez izan, esaera ori aintzat arteak ez du ikustekorik, nola nai ere, nazional-katolizismoa delakoarekin. Euskaldun guziak fededun balira ere, orrek ez luke esan naiko nazional-katolikoak diranik, ez nazional-katolizismoa lege egin naiko luketenik. Bi gauza izango dira beti katoliko fededun izatea, eta nazional-katolizismo delako ori ezartzea. Are geiago esango dut: euskaldun asko fedegabekotzat baldin badaude ere, Jainko-ukatzaille badira ere, ez dira geiagorik gabe fedegabeko; nolabaiteko fededun izan daitezke. Onelako fededunik, ain zuzen, ba omen da gaur euskaldunen artean. Guztiak ala izan nai dutela esango nuke nik. Euskerari etorkizun ohea opa diote,

* El Diario Vasco 43 (1976, 12.727.zenb.) Suplemento dominical, 9; *Asnuma* izenpean. *Amunsa* izenpean argitaratutako artikuluko bateri erantzuteko erabili izan dau L. Akesolok *Asnuma* ez-izena.

euskera salbatu naiezko kezkaz eta itxaropenez ari omen dira lanean. Nolabaiteko fededun diralako nai dute euskaldun izan eta euskaldun iraun. Beraz, euskaldun fededun dira, praille orrek esan duelakoari arrazoi emanez. Emen nazional-katolizismoa aipatzea gazetariaren ateraldi arintxoia besterik ez da izan, bere burua argituagoa egiten zuelakoan edo.

Beste ale bat, astekari berean bildua: Bizkaian eliz-orri berri bat arteratzen asi dirala-ta, Amunsa idazlea kontu-artzaielle zorrotz egiñik dator; ea zergaitik orri ori, zertarako **Eliza Bizkaian** ori? Eta zergatik atera bear dute Gotzaitigitik?

Guziei atsegin ematerik ez dago, argi danez. Ezer egiten bada, egiten dalako, eta egiten ez bada, egiten ez dalako, ez dira batzuk erraz ixilduko, beti izango da erausien bat, gaizki esan bearren bat. Gazetari bati jokabide garbiagoa eskatu bear zaio. Amunsa orrek Bizkaiko orri orren berri soillik eman balu, zer nolako asmo eta elburuz datorren, bertan idatzi nai duenari nolako eskubideak ematen dizkion eta abar azaldu balu, orduan gazetari jator azalduko zan. Baiña lekutara jo du! Iñoren eskubideak ukatzera. Nork ez ditu ezagutu, or zear, ainbat orri, parroki batek edo ballarak ateratakoak? Oraintsu ikusi dut bat, Baztan-aldekoa, euskeraz eta erderaz. Gure gaztalaritxoari nola eman dio buruak, eskubide bera eliz-barruti bati ukatzea? Nolabait antz ematen diot. Naiago luke berak, noski, Euskalerrri osoan eliz-orri bat bakarra balitz, baiña, baldintzak berak jarrita, **bere gogoko Bunkerren** baten mende eta esku. Bestela, ez. **Nerontxu** izan naikorik bada bazterretan, demokraziaren edo nik ez dakit zeren izenean!

Aipatutako eliz-orri ortan, utsen bat bederen salatu balu ere (esaterako, Eguzkitza zanari egindako omenaldia, egiña izan ondoren, egitekotzat zekarrela), orduan gazetari batek salatzeo eskubidea duen zerbait aterako zuen. Baiña, emen, bazuen bere etxetik atera gabe zer salatu. Eta ona irugarren alea, euskal-gaztalaritzaren urtea aizatzen zuen astekariarentzat ez ain txikia.

Guziok nai dugu gaurko izan, gaurko munduan bizi, gaurko arazoak aizatu eta argitzen eta erabakitzen lagundu. Bizkaiko erri bateko, Gipuzkoako muga-aldeko berri-emalleak orixe nai zuen egin, bere inguruko premiak eta utsuneak salatu: bat, telefono automatikorik-eza. Noiz egin eta biali ote zuen bere salakuntza ori? Artikulutxoa beintzat urtarrillaren lauean zetorren. Irritxo batez irakurri nuen. Ogei egun lenago ez nuen, bada, neronek erri artara deitu bearra izan, eta telefono automatikoz itz egin? Ogi berri bezala, noizko talo gogortua eskaintzen zien astekariak irakurleei?

Amesa, ez da ames txarra euskal-egunkaria sortzeko amesa. Batez ere, erdal—erritan bertan, eziñez, ainbat egunkari iltzen ikusten diran garaian. Ameslari batzuk, beintzat, argi dago, ames ori mamitzeko gordintxo daudela, gordiñegi. Lenago, besteak beste, Bunker batzuk jo eta autsi bearko dira, ta betaurreko batzuk begietatik kendu, buruak argiango, begiak erneago eta biotzak zabalago ditezen. Eta ez arinki eta ergelki lan egin.

Bestela, euskaldun irakurleak maizegi aurkituko ditu opil gogortu edo urdinduak ogi-orde, Urte Berri inguruko astekari ortan bezela.

GAZETALARI GORDINTXOA BERRIZ ERE*

Berriz ere salatari nator. Gazetalari gordintxoek gordinkeriak salatzen. Sermolari bati entzundako itzekin asiko naiz: alegia, astoak eta paperak gaiñean ezartzen zaiena eramaten dutela. Eta paperari (egunkariari, aldizkariari) bear ez danik asko ezartzen zaio gaiñean, maizegitan. Irakurlearen errukarria, baldin gazetalariaren joko lorriñari igartzen edo antz ematen ez badaki!

Olako alerik ikusteko ez dugu Euskalerritik urruti joan bearrik. Egunotan eldu da nere eskuetara euskal-aldizkari bat. Diotenez, Asistarraren Irugarrengo Ordenaren babespean dator. Asi naiz irakurtzen, eta ura ur zikin zaparrada norbaitzuen gaiñera zetorrena! Irakurleak eskuetan duen egunkari onentzat ere bazetorren berea. Baiña utzi dezagun pakean Armendariz delako ori, *okerka aritzea* ezin sendatuzko gaitz zaarra duela baiturudi.

Goazen beste batengana. Au ere joka dator. Nori ekin dio? Leenik, Vaticano'ri. Zer dala-ta, baiña? Aita Santuaren izenean edo, sexu-etikari buruz an azaldu dan ageri bat dala-ta. Gazetalariak dioskunez, zenbait errialdetan gaizki artua eta zorrotz kritikatu izan da. Frantzia'ko teologo batzuek akatsik aurkitu omen diote. Kritikarik zorrotzena, erderaz, Miret Magdalena'k egin omen dio. Euskalerrian ez omen da taxuzko kritikarik egin zaionik ikusi. (Norbaitek iñoren agoz egin diona taxuzkotzat ez daukanean gaitz erdi!). Eta gazetalari orren iritzia: Vaticano'k atera duen ageri orrek gaurko jakintza-aurrerapenen batzuk (zeintzuk eta zertan ez digu esaten), ez omen ditu aintzat; nork egingo dio jaramonik bat ere?

Beraz gure kritikoarentzat, Erroma'tik kristau bizitzarako argibiderik eman nai badigute, auxe da gure egiteko bakarra, nonbait ere: leenbizi, iñolazko jaramonik ez egin.

* El Diario Vasco 43 (1976, 12.775.zenb.) Suplemento dominical, 9; *Asnuma* izenpean, ik, 1167. orr.

Beraz, utzi munduari, nai badu, lizunkerian murgiltzen, utzi kristauari munduko lizunkeriei amor ematen, utzi lizunkeriarren merkatariei beren irabaziak nai aña gizen-tzen. Agidanez, gaurko jakintza-aurrerapenari egokien erantzuten dion jokabidea ori genuke.

Gazetalari orrek Erroma'ko ageria bera irakurri ote du? Auznartu ote du? Ezetz esango nuke. Ez duela ortarako astirik artu, bai, ordea, egin zaizkion kritika zorrotzen batzuk irakurtzeko. Eta besterik ez. Aren alde azaldu diran iritzi eta txostenen berri edo ez du jakin, edo ixildu egin ditu. Kritikak edo zaunkak izango zirala uste izatekoa zan. Baiña besterik ere izan da, eta irakurleak eskubidea zuen jakiteko, edo beintzat ageriaren berri zeatzagorik artzeko. Batzuk ots egin eta besteak ixildu, ori ote zan gazetalari baten egitekoa? Ori al zan, Asis'koaren izen-babespean Ebanjelioari eta Erroma'ri emateko erantzuna? Orrela jakingo du obeki eta argiberritan sexuaren esan nai sakona? Argiak gaude.

Aldizkari berean eta idazle berak emanik, bada beste eztenkada bat ere, Argaia eta Setien gotzai jaunen aurkakoa. Zergaitik, eta Euskalerrian bi gizon il dituztelako. Gotzai oiek beren gaitzespena, onartu eziña erakutsi dutelako. Gazetalaria aupadaka jartzen zaie. Anekdotak, izkirimiriak utzi eta serio-sago jokatu bear omen dute; gauzak, auziak, ikuspegi zabalago batetik begiratu, eta jokabide zabalago eta sustraizkoago batzuk artu.

Orra, bada: gure gotzaiok oraiñarte egin duten guzia izkirimiria izan da. Iñon bada gotzairik, gure egoera argitzen eta gure gaitzen sustraiak billatzen eta senda-bideak erakusten saiatu danik, gureok izan dira. Ez dute, bada, bazterretan istillu txikirik atera. Ez dute oraingoa jokera ori, aspaldikoa baizik. Aspaldikoa eta agerikoa, eta ez azpiz-azpi zabaldutako orrien batzuetan agertu izan dana, agerikoa eta aurpegiz aurpegi agertutakoa baizik.

Berri-billa Madril aldera jotzen duen gazetalari orrek ez du nonbait irakurri orain, oso oraintsu, ango aldizkariaren batzuk gure gotzaien jokabidea eredutzat edo ereduzkotzat eman digutela. Bear bada, gure gazetalari onentzat dana da gauza utsa, Miret Magdalena'k esana ez bada. Baiña jakin nai duenak badaki etsairik amorra-tuenak nondik sortu zaizkien gotzaioi.

Orain artean uste genuen kalonje jakiñen baten aldetik zetozkiela eraso bakarrak, edo azpitiko orrien batzuetatik. Orain badakigu beste eraso-iturri bat; gutxien usteko genduen lekutik datozkie zaunkak eta arrikadak.

Eta arrikadarik errezenak, aspaldi ontan, eliz-gizonei ematen zaizkiela esan bearrik ez dago. Asi Erroma'tik eta gure arteraiño. Gauzarik errezena eta arriskurik gutxienetako da Erroma'ri edo Vaticano'ri edo ta gotzaieti erasotzea. Gazetalarientzat jokabide eroso, baiña bai gizontasun gutxikoa eta zirtzilla ere.

Bide oetatik euskal-gazetalaritzak ez du mailla askorik igoko, ez eldutasun aundirik iritxiko. Eltzeka, lengo gordiñean geldituko da. Ez dezagun papera astotzat artu. Ez du gainean edozer artu nai. Irakurleari ere lotsa geixago zor zaio. Ez du edozer irakurri nai, norbaitsuen gogokoa balitz ere.

LEKUAN LEKUKO EGIA*

Lengo euskaldunen «arrotasuntxo» aazturik daukagula dirudi. Euskaldunen nortasuna eta gure lege zaarretako bardintasuna dirala ta ez dirala, joan dan mendetik ona ez da bazterretan zalapartarik gutxi atera.

Euskalerriko legeek, Bizkaiko Foruak, esaterako, gizonaren nortasuna, gizon bakoitzaren eskubideak beste iñongo legek ez bezala aitortzen omen zuten. Inghlaterra'koa baiño leenagokoa omen da gure demokrazia.

Aspertu aiñean esan izan da, liberalismoa jaio baiño askoz leenagotik izan zala emen erria, errigizona, nagusi; askatasuna eta bardintasuna ez zituela gure artera Frantzia'ko iraulketak ekarri. Demokrazi-eredurik ez omen genuen atzerrietan billatu bearrik.

Olako iritziak zabaltzen, elizgizonak ez ziran azken. Emen eta Paris'en. Aita Jazinto, Paris'ko izlaria, lekuko. Zer gertatu ote da gauetik goizera, zergaitik orain kanpora jo bear eredu on guztien billa, demokrazi-billa?

Ez dut ez dan gauzarik salatzen. Gure «Eliz-Barrutietako Sozial-idazkaritzat» zabaldu duen orri batean auxe irakurri dugu: «Erdi-Aroko feudal-gizarteak legearen aurreko **gizonen ezberdintasuna** zuen oiñarri. Eskubide bereziak zituzten talde batzuen zen lege gizartean agintzea, ez guztiena. Legez erriak ez zuen iñolazko parte artzerik.

Berdintasunik gabeko **elitezko** sistima ortan, burgesen garaitzak «egin zuen leenengo pitzatua».

«Liberalen burgeskeriak iñor gutxi batzuen aldeko legeak kendu egin zituen eta legearen aurrean guztiak berdin egin».

* EIDiario Vasco43 (1976, 12.796.zenb.) Suplemento dominical; *Asnuma* izenpean: ik. 1167. orr.

Geroxeago, XVI'gn mendeko teologo eta lege-gizon batzuen irakaspenak oroi-tarazten dizkigu orri orrek. Gizon bakoitzaren eskubideak, aiek erakutsi omen zituzten leenbiziko aldiz, sistema egiñik. «Zoritxarrez, irakaspen oriek geroztiko estadien erankundeetaraiño ez ziran sartu, ez lege biurtu» liberalen itzulaztua etorri arte.

Norako eta norentzat idatzi ote dira lerro oriek? Euskalerrirako eta euskaldunen-tzat egiñak diran arren, euskal-legeen kondaira kontuan artu gabe idatziak dirala ukatzerik ez dago.

Euskalerrian ez da agertzen talde agintzaille berezirik. Guipuzkoa'ko Batzar Nagusietan eta Gernika'ko Batzarretan, guztien artean erabakitzen ziran erri-arazoak. Zein ziran an batzarkide erritarrak edo erriak autatuak baizik? Erri bakoitzean ere elizaurretan eta auzoak parte artuz ez ote ziran, geienetan, erriko gorabeerak eztabaidatzen eta erabakiak artzen guztiaren onerako?

Euskalerrian ez da, ez, atzo goizekoa, erriak, auzo guztiak, bere arazoetan parte artzea. Amaseigarren mendeko teologo aiek ez zuten dena berek asmatu. Nonbaiteko erri-giroaren agertzaille ere ba ziran. Euskalerrriak olakoxe giroa ezagutu zuen.

Olako egunak ezagutu zituen erri oni itz egiterakoan, beronen maixu egin nai dutenek ez lukete ori aaztu bear. Eliz-gizonek gutxiago. Lekuan lekuko Eliza aotan darabiltenok ikasi bezate leenbizi beren erria ezagutzen.

Lekuan lekuko Eliza egitea, Afrika'rako ta urrutiko errietarako bakarrik ez da. Edozein eskolatan ikasitako edozein jakitatek ere ez du edozein lekutako balio. Erri bakoitzak badu bere anima, bere egia. Liberalek ere badute gure erriaren lege zaarretan zer ikasi. Treveris'koaren edo Txina'koaren azterbideak ez dira egokien eta jatorrenak gure erriaren leena aztertu eta argitzeko. Egiak ez du askotan egi-sistema batzuekin ikusteko aundirik. Gure erriarentzat ere esana da: ezagutu ezazu zere burua.

Ezagutu dezagun geure erria, erri onen egia. Eta... egia izango dugu salbatzaille.

NAPARROA ETA TREBIÑO

(Antziñako eretxi bi) *

Naparroa Euskadi dan ala ez, Trebiño Araba ala Burgos dan, zarraparra txikiak ez dira sortu azken aldiotan. Trebiñotarren eretxia eta guraria naiko argirik agertu izan dira; Arabartzat dagoz eta arabar izan nai dabe. Naparroako aizeak nastuago dabiltz. «Laurak bat» egitea eta batera jokatzea aspaldiko jokabidea eta guraria dira. Baiña tartean politika, edo obeto esanda, politikeria sartzen danean, orduan dira kontuak eta nasteak.

Naparroa eta Gipuzkoa

Politikeri orrek nastu eta lorrindu bako aldi baten murgildu gaitez, euskalduntasunak Gipuzkoa'n eta Naparroa'n zelango anaitasun-giroa sortu eban ikusteko.

Orain irureundaka urte jazoriko gauzak dira, Errenteriko kaputxinoak zirala-ta jazoak, izan be.

Orduan, euskalduntasun batek alkartuta ikusiko ditugu, bai Gipuzkoako agintariak, bai Naparroakoak. Eretxi eta sentiera berekoak dira kaputxinoak, bai giputzak eta bai naparrak, eta eurokaz batera, alde bateko eta besteko agintariak autorpen sutsu au egiten dabe: biak, giputzak eta naparrak, izkuntzaz, oituraz eta jatorrizko izatez, anaiak dirala, alkarturik bizitzea berezkoa dabela.

Barruti bat

Ona nondik eta nora sortu zan auzi txiki au. Kaputxinoen prailletxea agertu barritxoa zan kristiñau-errian. Prailleok Errenderi'ra eldu ziranean, 1612gn urtea da.

* Zer (1980, 33.zenb.) 5-6.

Sei urte lenagotik dagoz Iruña zarrean. Laster izango da praille-etxe barri mordoa: Tudela, Zintruenigo, Los Arcos, Peralta, Biana. Guztiak, Barruti baten, Aragoakoaren mende. Kaputxinook Cataluña aldetik etorri dira. Cataluña'ko euren praille-barrutia egin dabe: aragoarrak, Cataluña itxita, eurena. Eta ona orain, naparren aldia. Eurak euretara, euren nagusien menpean jartea lortu nai dabe, eta bai lortu be.

Errenderiko prailletxeagaz zer jazoko da? Aragoa'koakaz, ala Gaztela'koakaz bat eginda gelditu bearko ete dau? Naparrakaz gelditu da.

Alkartasuna, euskalduntasuna

Emen agertzen da orduan giputz-naparren anaitasuna, alkartasuna. Euskalduntasuna dabe lokarri.

Batasuna lortzeko, praile ta erri-gizon, batzuk eta besteak jo dabe gora. Ez giputzak, ez naparrak ez dabe nai, Errenderiko etxea Aragoakoen ez Gaztelakoen mende gelditzerik.

Naparrak eta giputzak ez dabe banandu nai, praille-barruti bat egin nai dabe.

Eta alde bietatik errazoi bardifiak entzuten dira: batzuk eta besteak, izkuntzaz, oituraz bat dirala, alkarren auzoko dirala, euskaldunak dirala.

Beotibar'ko burrukea

Errenderiarrak itz egiten eban gogorren. Baten batek ez eban zurrumurrua zabaldu giputzak naiago ebela gaztelarren menpean egon, naparrenean baiño? Errenderiarrak ez dira mutu gelditu:

«Emen, erantzungo dabe, inguru guztia euskalduna da: Lezo, Oiartzun, Alza, Irun, Ondarrabi, dana euskalduna, eta emen euskaldunak, napar edo giputzak, bear ditugu. Aragoarrak eta gaztelarrak ona sartzea alemanak sartzea lez izango litzake».

Une atan ez da ageri ez giputzengan ez naparrengan Beotibar'ko «pelea» ospetsuaren gomutarik, ez giputzak iñoz «gaztelarren etxean» sartu ziralakorik.

Une atan, erriaren agotik eta biotzetik, bai giputzen eta naparrenetik, euskalduntasunak itz eta ots egin eban.

Politika -usaiñekorik ezer gomutatzeokan, auxe besterik ez dabe gogoratuko: Giputzak eleizaz Iruñe'ko eleiz-barrutikoak dirala, eta Iruñe'ko «Capitán General» zanaren agintepean egoala Gipuzkoa osoa. Berez, politikaz be, batzuk eta besteak ez egozan ain urrin.

Errenderiko prailletxea Naparroa'ko praille-barrutian gelditu zan. Euskalduntasunak irabazi eban auzia. XVIIgn. gizaldian jazo zan ori, 1664-1665 bitartean.

Trebiño Euskalerra

Goazen orain Araba aldera, Santa Teresaren egunetara, Errenderiko kaputxinoen goraberak jazo baiño larogei bat urte lenagora.

Avila'ko moja andia Euskalerrira urreratzen asita dago. Gure artean moja-etxeen bat edo beste eregiteko asmorik be ba-darabil. Orduña'n eta Gasteiz'en. Asmook uts egin eben.

Burgos'eraño eldu zan, baiña andik aurrerago ez eban egingo. Burgos'en, orraitio, euskaldun bi izan ditu laguntzaille oso eskuzabaleko: biak andra-gizonak, Tolosa-Muntzaraztarrak.

Eta beste irugarren bat beragaz ekarri dau, iñoz konfesore euki dauana, berrogeta bat urteko praille karmeldarra.

Nor da berau, eta nongoa da?

Praille euskalduna

Praille au aitatzen dabenean, aldi atako paper zarrak sarritan aitatzen dabe beraren jatorria; euskalduna dala («vizcaino» dala), esaten dabe.

Itz orregaz orduko erdaldunak badakigu zer esan nai eben. Ez eben esan gura Bizkai'ko semea zanik, bai euskalduna zala. Izan eitekean bizkaitarra, baiña bai arabarra, giputza naiz naparra be. Nongoa zan Santa Teresa'ren lagun ori, Pedro izeneko praille ori?

Trebiñotarra

Praille orrek, praille-sartukeran, bere ezaupidea emon ebanean, bere jaioterria izentau ebanean, Puebla de Arganzon erriaren izena emon eban. Ori naikoa zan. Geiagokoen bearrik ez euken, gaiñerakoa ba-ekien izen-artzailleak, praile barriari «vizcaino» esateko.

Prailleak berak be ez eban ori ukatu ez orduan, ez geroago. Santa Teresa'gaz batera Burgos'tik ebillen egunetan ez jakon burura etorri Burgos'tarra zanik; ez eban ezelango susmorik artu, Burgos'tarrak bere errikideak zituanik. Ez ekian orrenbeste. Ez jakin orretatik atarateko be, ez eukan orduan UCDeko politikakorik Burgos-en.

Trebiñotar eta euskaldun

Aldi atako erdaldunen luman «vizcaino» itz orregaz Euskalerriko seme utsa ez eben, nonbait, aitatzen; orrez gaiñera, izkuntzaz euskalduna zana, euskeraz egiten ebana be bai.

Orrelangoa, zan, gure Trebiñotarra be.

Erdaldun jatorrak lasterantz artu eutsoen trebiñotar aren euskalduntasunari, aren baba-zorro usaiñari eta orregaitik izentau eben orrela.

Eta gure Pedro praille au (Kintanilla Domaika abizenez), euskaldun jatorra izatea ez dogu arritzekotzat jo bear. Gizaldi atan, Gasteiz ingurua oso euskalduna zan, eta Arganzon ez dago Gasteiz'tik urrin. Eta umetan azitako umeak prailleen soiñeko-

eske Pastrana-ra joan zanean, ba-eroian, antza, umetako babazorro usaintxoren bat, eta gaztelarrak bai laster igarri be, «vizcaino» zala, au da, euskalduna.

Gaurko egunotan bizi izan ba'litz, gauza jakintzat emon geinke Araba'ren alde jokatu eba, Trebiño'ko eta Arganzon'go alkateak oraintzen egin daben lez, Burgos'tarren bildur barik. Eta auzi au orduan sortu izan ba'litz, Burgos'tarrak eurak be gaurko gogo txarrik ez eben erakutsiko, nik, uste, bakotxari berea emoteko: Araba'ri Arabarrena.

JOSE DOMINGO UGARTETXEA MUSIKALARIA

(Goian bego) *

Aurten izan dira berrogei urte. Sevilla'n Aste Santuko Kofradietako batek sari ugariak iragarri zituan, Kofradi orren ez dakit zenbakarren urtea zala-ta. Sail askotan banandutako sariak. Ba-ziran literatura-saillekoak, istori-saillekoaketaabar. Musika-saillekoa be bai bat, latíñez Jesusen buru zaurituari kantua: *Salve, caput cruentatum*. Kofradiaren sariketa orrek ez eban esateko erantzunik artu. Musika-saillerako bi agertu ziran, biak saritu eta aipatuak: Modesto Arana, Berriz'ko semea, gero Bilbo'ko «Sociedad Coral» danaren zuzendari izango zana, abade gaztea; eta Jose Domingo Ugartetxea, karmeldar praille adiñekoa, markíñarra.

Berezkoa zanez, espetxeko abade prailleak goragoraka artu eben espetxe-lagunen sari irabaztea. Eta ez abade-prailleak bakarrik, euren espetxe-lagun eben Besteiro ospetsuak be bai. Aste Santuan, Bariku Santuz, izan zan kantu saritua, lau abotsetara, entzuteko aukerea, arratsaldeko elizkizun baten. An zan kapillan Besteiro be, bere lagun kantu ori entzutearren.

Modesto Arana, gazte saritua, urte mordo da il zala; Jose Domingo, barriz, oraintxe joan jaku, joan dan garillaren 18'an, bere jaioterri maitea eban Markiñan, erriko jaien barruan.

Beronen barri emotean, beioa aurretik orain berrogei urteko gomutapen au. Nok usteko eban orduan ain zartzaro ederrera elduko zanik im urte lenago militarren eskuz ilteko etetean egon zan praille au? Izan be, Zornotza'ra lenen sartu ziran militarrek praille mordo ilteko agindua ekarren. Bat il eben: AitaErroman. Baiña Jose Domingo eta beste praille bi, Jaungoikoz, bizirik eroan ebezan Durango'ko komandantearen

aurrera. «Zer? Bizirik dakazuez?», militarren asanezko itauna. Orain ez dakie zer egin. Prailleai iñon ziranak esanda gero, gero ta artegago, alango baten badiñotse eurai: «Ba-dozue gero ezagunik, zuon alde erantzun daikenik-edo?». Eta Jose Domingok: «Nik, Gasteizen, Jil Yuste jenerala». Iru prailleak orduantxe iges egin eutsen eriotzeari. Baiña ez espetxerik espetxe ibilteari.

Baiña nor genduan praille au? Irakurleak igarri dau onezkero musikalaria baten aurrean garela. Musikalaria izan da ume-umetatik. Markiña'n jaioa 1888'an, orain 92 urte. Txiki-txikitatik jo eban musikara. Mutikotxu zala asi zan organu joten. Bein organistearen utsunea bete izan bear eban erriko jai-egun baten. Artogatxo bera, lenengoko plazaratze orrek zelan urtengo eta eutsan arduraz. Osaba batek, adore emoteko, badiñotso: «Ez estutu, mutil. Ondo jo, txarto jo, joa jo. Ez bildurtu». Bildurak bildur, ez ei eutsan organista-lanak txarto urten.

Pakotxu'ren anai bik (Frantzisko eban bataio-izena), abadetzarako bidea artuta euken; berak praille karmeldarretarakoa artuko dau. Abadetarik bata be gero praille karmeldar sartuko zan. Pakotxu, prailletan izen barria artuta, Jose Domingo biartu da, eta prailletzan girorik ederrena aurkitu dau musikarako, eleiz-musikea Pio X'aren bidetik barriztau gura eber prailleen giroa. Erreztasun guztizkoak emon deutsoez musika-ikastea aurrera eroateko. Inguruko maisurik onenak ipiñi deutsoez: Balentin Larrea, Beobide, Birgala... Gregoriano deritxon musikan maisuago egiteko, Solesmes'era izango da.

Laster asten da musikagiñen, ikasitako eskola ona eta bere trebetasuna erakusten. Kantu barriak eleiz-kantak, erri-kantak, latíñezko, euskerazko naiz erderazkoak, alkarren ondoan datoz. Diskotan be atera deutsoe bat edo beste, Bilboko «Coral» zana kantari. «Vesperale Romanum» atera dauanean (1924), Monserrat'eko benediatarrak, arriturik, eleiz-musikari andi aurrelaritzat izentau dabe, Gregorianisten artean benetan maisu. Sail onetan jarraiturik, geroago beste «Vesperale» bat geiago, eta baita «Matutinale», eta «Graduale» aterako ditu. Leku askotatik datorkioz musika-eske: Sortu barri dan «Txistulari» aldizkaritik, eleiz-soñuak edo organu musikea batzen diarduanen aldetik, Euskalerriko musikariak Asis'ko Frantzisko doneari egin gura eutsoen omenaldirako eta abar.

Gazteiz'en eta Iruñan emon ditu urterik onenak, Nagusi edo nagusi ordeko, kalmeldar ikasle gazteen arduradun, organista gazteen maisu eta koruko zuzendari. Gasteiz'ko Eleizbarratian musika-batzordeko izan zan, baita, euskerazko liburuai eleiz-baimena emoteko azterlari. Gasteiz'en, España guztitik batuta, ospatu zan Eleiz-musika Batzar Nagusia (1928) eratu eta aurrera eroaten lan andia egitea egokitu jakon.

Osperik zabalena, bear ba'da 1926'an, Bolibar'en, Bizkaian, Ameriketarrak euren Askatzailleari egin eutsoen omenaldirako ereserkiak, imnoak, emon eutson. Euskerazko eta erderazko bertsoan egifia dago, baiña Ipar-Amerikan ingles bertsoak ezarri eta Amerika'ko imno nausien artean zabaldu eben Jose Domingoren musikalan au.

Zornotza'n, Larrea'ko bakelekuan dogu 1936'garren urtean, ango praille gazteen maisu etabertako bigarren nagusi. Orduantxe dago lenengoz euskal-giro garbiko

bazter euskaldun baten, praille egin dan ezkerero. Baiña bakelekua zoritxar-leku biurtu jako dakigun gerratea ekarri ebenen zitalkeriz. Urtea baifio lenago, militarrek aurrera datozela, etxeari jabe egitearren, ondo bearrez, bertan gelditu da. Len esan danez, Gasteiz'en zala militar andi baten ezaupidea egin izanak atera eban militarren eskuz lotsagarriri ilda gelditzetik. Iru urte dabil gero espetxerik espetxe: Gasteiz, Begoña, Nanclares, Dueñas eta Sevilla ondoko Carmona'raíño. Espetxean ez eutsan itxi musika-lanari, bein kopia lanetan, bein kantu barriak asmetan edo zarrak atonduten, eta ango praille-abade kantarien zuzendari... Gitxien uste eban lekutik etorkizan musika-eskeak, Oviedo'tik, Lamiako'tik eta abar. Espetxean ezarri eutsan itzaurrea bere musika-liburu bati.

Espetxeak ez eban gure musikalariak garrastu ez lurra jota itxi. Espetxeko ordu latzetan beretzat musikea gozagarririk onena. Espetxetik urten dauanean, 1940'n, erbestealdia ezarri deutsoe, Santander aldean. Eta emen Santander'ko musikalariak eta musikea ezagutzeko aukerea izango dau, eta ango kantu batzuk be argitaratuko ditu, berak abotsetara atonduta. Andik asiko da bere kantuak txortaka argitara emoten. Erbesterik Euskalerriratzean, lengo lanari ekingo deutso karmeldarren ikastetxeetan, Begoña'n, Gasteiz'en, Erroma'n, eta Zomotza-Larrean, 1967'an bere jaioterrira (Markiña'ra) ekarri eben arte.

Erromatik etorri barritan, orain ogetaka urte, ondoez kezkarri bat agertu jakon. Osagilleak edegi eutsoen barrua, eta ez egoan zer egiñik. Bizari alik luzaroen irau-nerazo besterik ez. Eta ez dautsoe gitxi iraunerazo be! Andik urte gitxi barru, Kataluña'n aurkitzen da Jose Domingo. Meza barri bat atera dau moja batzuentzat, eta bera ikusi nai dabe meza orren zuzendari. Meza-aurretxoan badago organuan jarrita, eta abade bat urreratu jako. Mezaren partituran Jose Domingo izena ikusi dau eta ba-diñotso berari: «Jose Domingo? Nire osaba Viñaspre musikalari zanaren adiskide andia! Gixajoa, lengo urte baten il ei da». Eta Jose Domingok, barreari eutsi eziñik: «Egia diñozu, Viñaspre ori ta ni adiskide andiak giñan, izan be». Viñaspre'ren lloba orrek iltzat eukana aurrean eukan bizi bizirik.

Eta Jose Domingo'k aurretik botako zituen iltzat euken edo laster iltekozat euken asko. Baña ez eban il nai, orraitio, bere aspaldiko ames bat egi biurtu arte. *Stabat Mater* bat, orkesta ta guztikoa, atera arte. Alan egingo dau. *Stabat Mater* ori 1961'e an entzun zan lenengoz, Markiña-Xemeingo eleizan, Gemika'ko Abesbatza kantari eta Bilbo'ko orkesta, Verkos maixuagaz, laguntzaille.

Azkenengo lana, azkenengo kukurrukua? Atakotzat eukan berak. Baiña baita zera be! Berak uste baiño geiago luzatu eutsan Jaunak bizia. Eta ez narraseko bizi be gero! Larogeta zortzi amar urte zituela be, askok esaten eben Markiña'n, bera kalean zear ikusita: «Daukazan urteakaz, orrek dauka jaikia! Nok esango leuke orren zarra danik?». Eta jakifia, musika barik ezin bera bizi. Askok esaten eben musikeak bizi ebala, musikeak iraunerazoten eutsala beti gazte. Azken-urteotakoak ditu ainbat musika-lan barri: *Suite Vasca* (pianoz eta bioliñez), Agate deunaren abesti-txorta (9 guztiz), Pasiñoko abestiak (7), Salbea, Ondarruri, Berrituri eta Markiñari ereserkiak, Biribilketa (kantuz eta txistuz), eta abar.

Abar onetan sartu bearko da Goikoetxearen Mezea, orkestaz omidua, argitaratzea be. Alegria, Santander'ko musikalariak meza orri orkesta-laguntza ezin ohea ezarri

eutsala-ta, Araba'ko Diputazioari axe argitarazo arte ez eban onik izan. Eta emen agertu zan praille zar onen gazte sasoia. Alegria beraren baimena bear-ta, ara non joakun aregana, Santander'era, eguraldirik euritsueneko batez, egunean berean atzera Markiñartzeko asmotan. Eta baimenagaz Markiñara zanean, Alegria adiskideagaz errukiturik etorren: «Gixajoa, oso aguretuta aurkitu dot». Berak zituen urteen gomutarik be ez.

Jose Domingo'k musika-lanik askotxo egin dau bere bizian, banaka argitaratukoak, txortaka emonak, organurako, txistuz joteko, kantetako, berak asmauak eta konponduak. Eleiz-kantak santu askorentzat emon zituen. Geienakaz tomo lodi bat atera eban, espetxetik urtenda gero. Bardin egin eban euskalkantuekaz. Argitaratu bakoak asko gelditu jakoz, gure errietako kantari taldeai itxita. Mezak be bost bat itxi deuskuz: euskal-meza bat, eta lau latiñezko, Andra Maria'rentzakoa bat, eta iru gabon-meza abotsetara. Eurotariko bat, iru abotsetakoa, berrogetamar urtez jarraian abestu izan da Azpeitin, igaz berrogetamargarrenez: Jose Domingo bera entzule ebela.

Gure markiñar oni zartzaro andira eltzen diran askori jazo oi jakoena jazo jako: luzaroegi bizi izanaz, bere ideko lagunik inguruan ez ikustea. Non dira gaur bizian bidelagun izan zituen ainbeste musikolari adiskide? *Stabat Mater* emon eban egunetan il izan ba'litz, lagun geiagok lagunduko eutsoen illobira, eta ots andiagoa aterako eban inguruan.

Alan be, illetako mezan, an ikusi genduzan gaur oso ospetsu diran musikolari bi: Azkue organujolea, Europa'n eta Amerikan ospe andia lortu dauana, koruan organua joteko Donostiatik etorria. Eta Bilbo'tik etorrita, an zan Anton Larrauri, gaurko musikarieren artean gorengo maillakoa, Aita Jose Domingo zanari asko ikasia.

An zan Markiña'ko kantari-taldea, koruan kantari euren erriko semeari azken agurra egiten. Eta ezin aitatu barik itxi Markiñako Ansola anai txistulariak. Guztion otoiitzak lagun, goian bego Jose Domingo (beretarren Pako) Ugartetxea Urkieta praille musikalaria.

AITA JOSE DOMINGO UGARTETXEA URKIETA

(1888-1980)

(Goian bego) *

Egun gitxi dala, Anton Larrauri, munduan zear oso entzuna egin dan bilbotar musikalariai, euskaldunon pekatutxo bat salatu dau: Oraintsu galdu dogun musikalaria baten alderako esker txarra. Aurten il jakun Jose Domingo Ugartetxea markiniarraren aitamenik ezegitea izan da pekatua.

Larrauri musikalariairen salakuntzak ez dau dana egia, ez gaitu guztiok bardin joten. Bizkaiko aldizkari apal batek, ZER aldizkariak, ez dauka pekatu orretan errurik. Artikulu naiko luzea eskiñi deutso Markiñako musikalariai. Pekatua beioa beste egunkari nai aldizkarien gaiñera, «informazioko» ei diran aldizkarien gaiñera, euskaldun onen diru-laguntza artzeko eskubide bakarra daukenen lepora. Gure artean gaur jazoko eztanik! Batetik, len lotsagarri zana, kalera eskale urtetea nor bere eskubide bakartzat artu nai, eta, bestetik, eskubide bakardunok, «informazioko» aldizkariok ixildua, besteak, ezelango eskubide bakoak ekarri bear!

Esker txarreko pekatutxo ori, orraitio, urrengo egun baten, Bilboko egunkari batek, DEIA-k, zelanbait, garbitu eban. Ez zan alperrikoa izan Larraurik egindako salakuntza.

Gure KARMEL au ez dakit gure agiri-emoille batzuk informaziokotzat eukiko daben. Edozelan be, ez dau esker txarreko pekatu orretan jausi nai eta emen dator, gaur, aita Jose Domingo zanagaz daukagun zorra, karmeldarren eta Euskalerriaren zorra garbitzera. -

* Karmel 1980-4, 47-58.

Jose Domingo Ugartetxea Urkieta (bateoan Frantzisko Maria, edo bere senideentzat Pako zana), Markiñarra izan dogu, Markiñan, 1888-IX-23n jaioa. Beraz, adin eder betera eldurik il da, 1980-VIII-18, 92 urte egin aurretxoan. Urteak ondo eroan dituen gizona izan dogu. Iñok ez dau tatarrez, narrazka, ezin ibillirik ikusi. Guztien arrigarri izan da orretan. Markiñar askok, kalean zear bera ikusita, ia ezin eben siñistu: «Orrek dauka jaikia, esaten eben; Gaiñean orrenbeste urte daukazanik nok esango leuke?». Azkenengo urtean agertu jakon moteltasun edo astuntasun apur bat; bestela, aren ibilteko jasa, aren jaikia, markiñarrak pelota-jokoko itz batez esaten ebenez, ez zan larogetamar urteko agurearena. Beti agiri zan gogatsu, beti antxiñako jazoerak eralteko prest, eta geien baten, musika-lanetan murgilduta.

Ume-umetarik ipiñi eben musika ikasten. Mutikotan ikasi eban organua jotzen. Eta bein, berak uste ez eban jai-egun baten organista egin bearra jazo jakon. Erriko jaiak, organistarik agertu ez eta berak jo bear aren orde. Ez egoan mutilla barruan estukuratxo barik. Eta ondo gogoan gelditu jakon orduan osaba batek esan eutsana: «Ez estutu, mutil. Ondo jo, txarto jo, joa jo. Jo bildur barik». Amaika barre egiñak gara osabearen adorezko berbak aitatzen euskuzanean. Itz egoki zentsunezkoak, benetan.

Gaiñera, mutikotan, Merzedeko mojen meza-mutil eta Xemeingo kantaritaldekoa izan zan. Kantarien artean bat, bera baiño zarragoa, 96 urte zituela oraintsu il zana, gero Bizkaiko politikan entzutekoa egin zana: Murga txiki. Murga onek, praille joaterakoan egin eutsan agurra be e zeukan aiztuta: «Zer? Baoakigu, Pako, munduko arrokeriak eta uskeriak itxita?»

Praille joateko ordu ori 1903n etorri jakon. Amabost urte ditu. Urrango urtean Karmengo soiñekoa jantzi eta 1905n profesia eginda daukagu. Orduan aldatzen dau bateoko izena; lengo Pako Jose Domingo biurtu da. Beste anai bi eukazan abadetzarako bidea artuta. Euratariko bata, zarrena, Jose Mateo, karmeldarren artera sartuko zan, abadetzea artuta egun gitxi barru.

Musikalari gaztea bere giroan

Karmeldarren artean girorik ederrena aurkitu eban musikarako. Batzorde batek ziarduan, atarako izentautu, Erromatik etorritako musikea barriztetako arau eta aginduak beteten eta beteazoten. Aurreko gizaldiko teatro-usaiñak kanpora bota bear ziran eleizetatik, korurako Solesmesko doiñuak ezarri, eleiz-musika guztia Pio amargarrenak emondako arauetatik garbitu. Bide onetan sartuta ebiltzazan prailleak, esan beirrik ez, pozik artu ebela Jose Domingo gaztea, eta musika lantzen aurrera egiteko aukerarik onenak emon eutsoezala. Ikastorako urteetan inguruan ziran maixurik onenak ipiñi eutsezan: Balentin Larrea, giputza Iruñan; Birgala, arabarra Gasteiz'en, eta Beobide giputza, Burgos'en. Geroago, gregoriano deritxon musikan maixuago egiteko, eta prailleentzat kantu-liburu barri bat gertetako, Solesmes'era bialduko dabe, beneditarren artera. Esan geinke Jose Domingo izan dala karmeldarren artean eleiz-musikea jatorrago eta garbiago egiten lan geien egin dauana. Eta bere maixutza karmeldarren etxeetatik kanpora be eldu dala. Batez be, Gasteiz'en Eleiz-Barruti osorako Musika-Batzordeko egin ebenean.

Musikagintzan

Gazterik asi zan musika egiten, erri-musika eta eleiz-musika sortzen. Zarrenetako bat, guk dakigula, 1914koa dau. Avilako Teresa jaio zeneko laureungarren urtea ospatzen zan. Eta alde guztietatik peregrinaziño edo erromes-talde andiak doaz Avila, Alba de Tormes eta Salamanca aldera. Lenengo joan zana Bilbotik joana da. Aita Jose Domingok eurentzat ataratako ereserkia daroe: «oh, Teresa, los vascos te aclaman...» Salamancan sekulako arrera ona egin eutsen, eleiz-agintari, erri-agintari eta Ikastetxe Nakusiko irakasleak aurretik zirala. An zan Unamuno bilbotarra, Jose Domingoren soiñu-otsean etozan bere erritarrai ondo etorria emoten.

Etxeko eleizkizunak edonoz emoten deutsoe kanta barrien bat aterateko aukera. Gero, Markiñako prailletxea prailleak barriro eskuratu ebeneko 50 urtea, bere aitamen eriotza eta abar. Ordukoak ditu ainbat illeta-kanta latiniñezko: Venite exultemus (Cadena Eletaren illetatan Burgos-en abestua), Memento mei, Job-en irakurgai osoa eta abar. Ordukoa dau euskerazko «Nor il da?», Bilboko Coral zanak, Guridi zuzendari ebalá, diskoan ateratakoa.

Gaztetako urterik loratsuenak Gasteiz'en daroaz, ango praille ikasleen ardura-dun, eta musika-zuzendari. Gasteiz-ko Eleiz-barrutian, esan danez, Musika-Batzordeko izan zan, eta berari jazo jakon 1928ko Musika-batzar andia gertetan ainbat lan eta neke artea. Euskerazko liburuai eleiz-baimena emoteko aztertzailleetako be izentau eben. Ain zuzen, oraintxe egin dabe Agurgarri 1926n il zan Domingo Iturrate, Irukoiztarra, eta aren euskarazko bizitza, Eulojio Gorostiaga abadeak idatziari Jose Domingok emon eutsan on-eretzia.

Gasteizko urteak Jose Domingorentzat urterik emokorrenetakoak izan ziran musikarako. An asi zan gregorianten artean izen andia emon deutsoen lanak ateraten: Lenengoa, *Vesperale Romanum*. Olango musika-libururik ez zan agertzen gure inguruetan; Italian, Alemanian, edo Belgika-aldean bakarrik sortzen ziran, eta emengo organistek areen liburuetan jo bear. Monserrat'eko beneditarrak pozik eta arriturik agurtu eben liburua eta beronen egillea musikalari andi eta aurreratutzat jo. Geroago olango beste lau aterako zituen: *Organum comitans*, *Vesperale Carmelitanum*, *Matutinale* eta *Graduale*.

Gazteiz'en atera eban bere lenengo *Gabon-Meza* edo *Missa Pastoralis* be. Goangarria da meza onegaz euskalerrri baten jazoá: Azpeitin, urrengo urtean asi ziran meza ori gabonetan abesten (1929) eta arezkero eten barik abestu dabe joan dan urterarte, berrogetamarurtezjarraian. Etaigaz, egillea bizi zala-ta, Aita Jose Domingo Azpeitira eroan eben, entzule izateko.

Artu eban izenaz, non-naitik etorkozan musika-eskeak, Euskalerrriko musikariak Asis'ko Santuari egin gura izan eutsen omenaldi-libururako, Gaspar Pintado jesuitak Jesusen Biotzari eskiñi eutsan kanta-libururako, *Txistulari* aldizkarian argitaratzeko eta abar.

Amerikarrak Bizkaiko Bolibar errian Ameriketako Askatzailleari egin eutsoen omenaldiak itxasoz andik bere izena zabaltzeko aukerea emon eutsoen gaiñera. Iru praille karmeldarrek egin eutsoen Bolibar'ri egun atarako ereserkia: praille gazte bik,

orduan Markiñan ziranak, bertsoak, batek erderaz eta besteak euskeraz (oraindik bizi dira) eta Jose Domingok soñua. Laster ingles itzak ezarrita, Amerika guztian zabaldu zana.

Gazteizko urteak 1930n amaitu jakozan; Iruñako Nagusi egin dabe eta ara aldatzen da. Kantari-talde ederra dau eta bere munduan bizi da. Andik, iru urtera, Gasteiz'en dago ostera be, oraingoan Nagusi. Eta 1936n Bizkaian da, Zomotzan, Larrako praillegai gaztetxoan arduradun eta bigarren Nagusi. Larrako bazter orrek bake-leku dirudi, baiña Jose Domingoren bizian larrienak izango ziran angoak. Gerrate negar-garrizkoko urte larriak!

Gabonetarako beste *Gabon-meza* bat atera dau, gerrate ostean argitaratuko dau-na, bost bibolindun taldeagaz batera abestekoa. Urrengo urtean, 1937ko urte negar-garrian, Bariku Santuz, Pasiñoko itzaldia euki dau Etxanon, umetarik dakian kantu batetik gaia artuz, Basterretxea lekeitiarraren kantu ezagunetik: *Jesukristori kendu ezkerro, pekatuakin bizitza*.

Ez dagigun aitzu beste lantxo bat, Jose Domingok Larrako bakean egiñikoa: Gasteiz'ekin ez egoan artu-emonik, eta ez etorren andik urte barrirako epaktarik, eta berak atera eta zabaldu eban bat Bizkaiko eleizetarako. 1937ko lau-bost illabetetarako.

Egunik baltzenak gaiñean ziran. Militarrek aurrera ta aurrera datoz. Bariku Santuz, «Jesukristori kendu ezkerro/pekatuakin bizitza» kantatzean, Jose Domingori eta beste praille batzuei ez eutsen gogoak emongo eurari bizia kentzeko asmotan etozala gero ta urrago eukezan militarrek. Maiatzeren 19n, an ziran eurok Etxano, Amorebieta, Larrean. Karmeldarrak etxe bi daukez bertan. Biotako Nagusi ta arduradunak, etxeari jabe egin gurez, ez dabe alde egin. Lenengo arrapau ebena, Aita Erroman, Arnorebietako Nagusia, geiagoko barik il eben ta gorpua bertan bera itxi. Gero, gorriai ezarri eutsen, irratiz, eriotz ori. Zori bardiña, eriotzean, izan bear eben Jose Domingok eta Aita Errapel'ek, Larrako praille arduradun lez. Agindu ori ekarren militarren nagusiak. Baiña Jaungoikoz, andik gertau zan Begofiako Parroko Astigarraga jaunari esker edo, praille biak bizirik agertu ziran Durangon, alde atako indarren komandantearen aurrera. Komandantea, zer egin ez ekiala, asarre, bizirik ikusten dituanean. «Nok erantzun lei zuon alde? Garratz itanduten deutse komandanteak. Non dozue iñor zuen alde ezer egin leikenik?». Jose Domingok argialdi bat euki dau. Gasteiz'en bizi zala, urtero eukiten eben militarrek eleizkizunen bat karmeldarren eleizan. Orduan egiñiko ezagun bat badau euren artean. Gil Yuste jenerala. Gasteizen zan orduan. Komandanteak beste barik eskuak garbitzen ditu eta prailleak Gasteiz'era bialtzeko agindu. Zorioneko argialdia! Gil Yuste ez eban Gasteiz'en praillearen alde arpegirik aterako, ez praillek aren laguntzariak eskatuko, baiña beñik bein bizirik urten dabe.

Espetxerik espetxe, baiña musikagintza itxi barik

Laster da Jose Domingo, beste praille eta abade mordoa lagun dauala, erririk erri, espetxerik espetxe, iru urte eta geiagotako itzalpeko bizia egiten. Zortzi urteko zigorra emon eutsoen. Zergaitik? Ori orduko guda-epailleen ixilpekoa da. Nok eskatu

areri legezko arrazoirik? Praille zurrago batek esaten eban bein: «Militarrok dakarren amorruez, lenengo maillako errudun dalakorik aurkitzen ez badabe, urrengoak eta urrengoak, erru-itxurarik bape ez dabenak garbituko ditue». Aita Jose Domingok ez eban izan ezetan nabarmentzeko aukerarik, politikakontuak, Burgos'en zala, naiz Gasteiz'en, Iruña naiz Larrean zala, zer egin eban besterik bere praille-bizitza, bere koruko kantua eta musika-lana baiño? Baiña militar itsutu arentzat, edozer zan naikoa, euskal-musikea lantzea, esaterako, eriotzea nai zortzi-amabi urteko espetxea emoteko. Edozer zan «auxilio a la rebelión» edo «adhesión a la rebelión».

Eten andia izan zan Jose Domingorentzat espetxeko bizitzea, baiña musika-lanarentzat ez eban etenik izan. Betiko bizitzari ekingo eutsan alegiñez espetxean be: otoitz egiteari, gogo-bizitzeko liburuak irakurteari, eta musikeari. Ango abade-praillak abestalde ona osotzen eben, eta Jose Domingo izan eben zuzendari. Musikagillearentzat ez egoan an aukera andirik; olangoari asko laguntzen deutso ondoan piano edo antzeko bat eukiteak; piano orde gelako espetxe-laguna artuko eban askotan, ari kantaerazota kantuak zelango otsa egiten eban antz emoteko.

Eta an ekingo eutsan kantu zarrak kopiatzen, edo barriak asmatzen, eta kanpotik etorkozan eskeai erantzuten. Euskalerritik, erdal-erritik eta Ameriketatik etorkozan eske bat baiño geiago.

Erdeldunak, espetxean egoala jakin arren, ez euken antza, militarrek uste eben lango iguingarrizat. Alan, Oviedo'tik etorri jakozan eske batzuk. Kanta-pillo bat ereskidetzeko eta angos gaztedi batentzat ereserki bat egiteko. Bizkaiko Lamiakotik angos ostikolarientzat ereserki eskatzen eutsoen. Cuba'tik etorri jakon eskaririk andiena. Cubatarren zaindiri dan Cobre'ko Andra Maria (Nuestra Señora de la Caridad del Cobre) koroatzea zala-ta, Eukaristi'Batzar andia egiten eben, eta jai aretan kantetako ereserki andi bat nai eben, bertso oso loratsutan egiña. Olan bigarrenez artu eban Jose Domingoren musikeak Ameriketarako bidea. Espetxeko egunak ondo bete zituen gure musikariak. Olantxe Begoñan eta olantxe gero, urtez urte, Nanklares'en, Dueñas'en eta Carmona'n.

Olantxe, Carmona'ko abade-praillentzat egun pozgarriaetorri zan bein. Sevillako Kofradietako batek, ez dakit zeinbakarren urtea ebelata, sariketa bat iragarri eban, sail askotan banandua, eta musikasailleko saria Carmona'ko espetxeko bik irabazi: Modesto Arana, gero Bilboko Coral'aren zuzendari izango zan abade gazteak, lenengoa, eta Jose Domingok, bigarrena. Modesto Aranak lendik eginga eukan Garizumako soñua ezarri eutsan sariketarako aurkeztu ebazan latiñezko bertsoai, eta Jose Domingok barriaatera eban. Gaiñera, beste saririkez zan emon, musika-saillekoa besterik ez. Besteirok, espetxeko lagunak, beste guztiakaz batera ospatu eban sari ori. Bariku Santuz, espetxeko abestaldeak kapillatxoan abestu nai izan ebanean, an zan bera, beste iñoz ez-ta, bere espetxe-lagunen saria ospatzen, Kristoren buru odol-duari egindako kantua entzuten: *Salve, Caput cruentatum*.

Espetxetik erbestera

Franco'ren gobernua kezka dago espetxeak beteegi daukazalako. Arazo ori zelanbait arindu edo konpondu egin nai dau. Errunduntzakoak epaitzerakoan lekuan

lekuan neurri bardiñik erabilli ez zalako atxakiaz, baktxaren auzia barriro ikustea erabagi dau (Salakuntza guztiak egitzat emonda, ori bai), espetxe-urteak gitxitu egingo ditu, eta sei urterik bera betetako daukenak, etxera. Praille-abadeakaz, alan be, jokabide gogorragoa erabilli eben. Ezeuken euren erri-aldeetara joaterik. Espetxerik kanpora, baña Euskalerritik kanpora be bai. Aita Jose Domingori bere nausiak Santader'ko praille-etxea izentau eutsoen bizilekutzat.

Espetxetik sartu zaneko barru-giroaz urten dau, ezelango gorrotorik eta garrazkeririk barik. Orain musika-laneterako era obeak ditu. Carmonan ez eukan ez jarlekurik ez maitxo bat be, eta al eban eran atondu bear. Santander'ko folkloreko ondusunetan murgiltzeko erea be badau, eta ango kantarientzat iru-lau gauzatxo be ereskidetuko ditu, Santader'ko eta Galiziako soiñu-puska batzuk artuta. Bat edo beste gero euskerazko itzak ezarrita argitaratuko dau.

Baiña lanik andiena lendik eginda daukan musikera argitaratzeak emoten deutso. Eta eurotan espetxeko egunak ez ditu aitzurik itxi. Lenengo argitaratu eban liburu bati, gregorianozko organu-laguntzadunetakoari, Carmonan egoaneko egunetan ipiñi deutso itzaurrea. Eta urrengo bati, Andra Mariari egindako 23 abestizko txorta bati, Carmona'ko karmeldarren nagusiaren izena ezarri eutsoen asi-asieran, an egon zanean egindako mesedeen esker onez. Jose Domingok ez dau lotsa espetxean egona. Azkenengo Jiburu ori, gaiñera, beste alde batetik be ba-da euskaldunentzat aitatzekoa; 1941'n argitaratua da, eta 23 kantuetatik, latiñaren letania eta beste latin utsezkoen bat izan ezik, besteak latiñaren edo erderaren ondoan, euskerazkoa be ba-daroe, geienetan praille espetxe-lagunak egiña. Gerrate-oste atan nor asi ete zan lenago liburuetan euskereari leku emoten?

Espetxetik urtenda iru urtegarreanean, Nagusiak Begoñako praille -etxera bialtzea erabagi eben. Ez jakon errez egin Euskalerrira etortea. Nor ete ebillan praille onen aurka, espetxeko legenarraz etorrela-ta, erri-agintariakgana jota, Euskalerrian gelditzeko bideak galerazoten? Urtebete inguru joan zan, Begoñan bizilekua lortu eban arte.

Begoñan betiko lanari ekin utsala esateaz ez dogu dana esango. Ez da izango etxe barrukoa bakarrik egiten dauan lana. Etxetik kanpo be agertuko da Jose Domingoren izena. Begoñara etorri barritan itzaldi gogoangarria emon dau San Nikolas parrokian. Gaia, «Valor pedagógico del canto Gregoriano en la Catequesis», 8-XI-1944. Azkue andiari ilbarritan egin izan yakon omenaldian, Bilboko Ateneoan, beste itzaldi bat: «Azkue y su Cancionero», 13-XII-1951. Beste itzaldi bat Abandoko Eleizeak daukan Antzokian egiña: «El Maestro Eslava, compositor y tratadista», 8-XI-1953, Bilboko Orkestak jotako musika-puskakin. Itzaldi onen aitamen ona egin dabe Eslavaz arrezkero idatzi daben musikalarriak.

Andik gerotxoago, 1954n, Erroman dogu, Karmeldar guztien Nagusiak ango Ikastetxe Nagusira deituta. Latiñezko liburutxo bitan itxi ditu an urte biez emondako irakatsiak. Gaiñera, latiñezko kanta-mordoa itxi dau, ango eleizkizun batzuetarako aterata.

Erroma itxi ta Gasteiz'en, bere aspaldiko Gasteiz'en daukagu berriro. Gatz bildugarri batek jo dau, baiña osagillearen eretxian (Gimon zarra, senide dauana

berau), luzaro iraunerazoteko moduko gatxa ei da. Eta ez gitxi iraunerazo be. Ogetalau urte geiago. Askoren artean, il zalako berria zabaldu zan. Alan, andik lau bat urtera Tarragonan jazo jakona gauza bitxia da benetan. Meza nagusi baten organuan dagoela, abade bat urreratu jako; meza kantatzen zan musika papelean Jose Domingoren izena irakum dau eta badiñotso berari: «Jose Domingo! Nire osaba zanaren adiskide andia! Gixajoa lengo urte baten il da!» Eta Jose Domingo: «Nor zan zure osaba ori?» Besteak «Viñaspre». Jose Domingok barriro: «Izan be, Viñaspre musikalaria adiskide andia izan neban nik Gasteiz'en. Benetan adiskide andia!» Abade gazteak bizi bizirik eukan aurrean berak iltzat eukana.

Alan be, luzaro nai labur bizi, ez eban berak il nai bere biziko ames bat egi biurtu arte: *Stabat Mater* bat, bere barrua ustuteko bat egin arte. Ba eukazan bi, lendik egiñak, etxeko kantari-taldeak emoteko erako bi. Apaiñago bat, beteago bat, bost abotsetarakoa, orkesta ta guztikoa egin nai eban. Eta alan egin be. Markiña-Xemeingo eleiza ederrean emon zan lenengoz, 1961n, eta txalo beroak entzun zituen eta eretxirik goragarrienak artu kritikarien aldetik. Bere ustezko zor andi bat garbitu eban *Stabat Mater* orregaz. Baiña ez eban iñondik iñora azkenengo txioa izango. Andik gerotxoago Larrean, Zornotzan izango dogu, eta 1967'tik aurrera, Aita Emiliano zanak itxitako utsunea betetako, bere jaioterrian, Markiñan. Eta ezin berak barruko eragiñari eutsi, ezin bera inguruko eskeai erantzun barik egon, beti musika-papelen gaiñean egon bear, edo zarrak konpontzen edo barriak asmatzen, eta txortaka argitaratzeko dirua zuzentzen.

Beste musika-liburu batzuen argitaratzaille lez egin eban lana be ez dogu aitzu bearko. Karmeldarren *Ritual* liburu barriena, kantu ta guztikoa, berak atondu eta gertatua dogu. Cardoso, Portugal'ko karmeldar polifonista andiaren lan bat edo beste berak prestau eban inprentarako, eta bere eragitez argitaratu da bi edo iru aldiz. Azkue zanaren kanta ez ezagunen bat berak, egillearen baimenaz, zerbait atondu eta argitaratu eban. Eta iñondiko alegiñak egin zituan Goikoetxea aramaioarraren Meza ospetsua, Santander'ko Alegria musikariak jarritako orkesta-laguntzaz argitaratzea lortzeko, berak egindako itzaurretzoaz. Tamalez, berak eukan beste ames bat lortu barik joan da: Goikoetxearen Meza ori, olan orkestatua, entzutea.

José Domingo musika-lanak

Jose Domingo musikari maixua izan da soiñu barriak asmatzen. Berak asmatutakoak asko ta asko ditu. Baiña, geinen eretxiz, maixuagoa da soiñuak, berak asmatutakoak naiz zarrak atontzen, ereskidetzen. Orretarako aparteko eskua ta trebetasuna eukala autortzen dabe geienak. «Ai, Parisko aize batzuk artu balitu!», esaten ei eban aita Donostia zanak. Aita au, Gazteiz'era agertzen zanean, nekez gelditzen ei zan karmeldarren eleizara sartu barik, Jose Domingo eskolatutako korua entzuteko. Eta 1928n, Gasteizko Musikabatzar Nagusia izan zanean, karmeldarren korua nai izan eban bere itzaldiko kantuetarako. Arantzazuko eleizan aspalditxotik urtero entzun izan da Jose Domingok ereskidetutako *Arantzazuko Ama Birjiña*.

Orañarteko lerroetan aitatu dira Jose Domingoren musika-lan asko. *Vesperale*, *Matutinale*, *Graduale* eta olako musika-liburuak izen andia emon eutsoen gregorianisten artean. An, 1914n asita, urtero urtero ekin eutsan, an or emen, aldizkarietan edo argitaldarietan, kantu barriak, Andra Mariaren edo beste santu batzuen omenez ateraten. Txortaka be argitaratuko ditu, Pragako Ume Jesusenak eta abar. Gerrate ondoren, Karmengo eleizetan kantetako geienakaz liburu mardula atera eban.

Emon daigun, andi-andika geienen barri. Eleiz-kantuak ia urte barru guztirako daukaz. 1) Gabon-liturgiarako, latiñez eta euskeraz, mordotxoa, zabalduena euskerazko: «Aintza ta aintza zeruetan»; 2) Garizuma eta Aste Santurako, erri-kantak eta latiñezkoak, Miserere, Lamentatio eta olakoak, ugari; 3) Pazkoetarakoa, Aleluia eta Regina Coeli, bi, iru ta lau abotsetara, bost edo sei; 4) Eukaristi-liturgiarako, lau Tantum ergo, eta beste latiñezko batzuk; 5) Ama Birjiñarenak, len aitutako ogeta irueri beste amabi bat geitu bear jakez, gitxieñez; 6) Illetetarako len aitatu diranez gaiñera beste mordo; 7) Mezak. Iru Gabon-meza, eta Andra Mariaren mezetarako beste bat latiñez. Eta euskerazkoak bi 1970 eta 1976n egiñak eta argitaratuak; 8) Oraingo liturgia barrirako, ainbat zabaldu ditu, bai euskeraz eta bai erderaz; 9) Ainbat erri eta monjetxetarako kantu asko, latiñez eta bestela.

Euskerazko argitaldi bereziak: Euskerea Jose Domingoren kanturik geienetan aurkitzen da. Eta esan dogu, gerraostean, bera izan zala bearbada, euskerari leku emoten lenengo asi zana. Eginu Treku, Santander'ko Gotzaiñaren eleiz-baimenaz izan zan, eta bere nagusiarenagaz. Gaiñera, Bolibar Askatzailleari egindako ereserkia eta iru Gabon-mezak be euskal-soiñuen inguruan eginda dagoz. Baiña emen euskera utsezko diran kantuak aitatu nai doguz.

1) Amalau euskal-abesti (Catorce canciones vascas) Iru, lau, bost eta sei abotsetara. Euron artean dator, antxiñatxo, Bilboko Coral-ak diskoan aterako *Nor il da?*

2) Agate deunaren abesti-txorta, bederatzi eratar. Iru, lau, bost, sei eta geiago abotsetara. Bat espetxean abestu zan lenengoz.

3) Iru euskal-abesti (Tríptico de canciones populares vascas). Mujika Gotzaiñari, Gasteizko Apaizgaitegiko Schola Cantorum sortu zaneke 50garren urtean. *Egunto batez, Lili bat ikusi dut, Bolon bat eta bolon bi.*

4) Suite Vasca, piano eta bi biolinentzat.

5) *Bateletan. Agur Ondarru.* Zubikarai Agustiñen itzak.

6) Berritu erriari ereserkia.

7) Berrituko biribilketa.

8) Markiñako erriari ereserkia.

9) Salbea, Agur Erregiña. Erriarentzat eta lau abotsetara.

10) Agur Maria. Mañariko erara eta lau abotsetara.

11) Gurutzebidea. Erri-kantua, ereskidetuta.

12) Kanta-mordo argitaratu bakoa, ara ona, abestaldeari ta bananduak: *Zikiro beltza, Aldapeko, Nere maitia lo ta lo, Ixil-ixilik dago, Maritxuri*, eta abar.

13) *Elkormendi*, txistuz joteko.

Txistuz jotekoak geiago itxi ditu, an or bananduta.

Eta *Txistulari-aldizkariak* be argitaratu eutsan txistu-lanik, euron arten Markiñako *Biribilketa*, bat.

Jose Domingori euskal-musikalrien artean bere lekutxoaz zor jakoa. Eta gure musika-aztertzaileak ez deuse ukatu. Arana Martijak bere liburu bitan aitutzen dau markiñar eta euskaldun zintzo onen izena. Larraurik errazoiak salatu dau gure egunkari eta aldizkariaren ixiltasuna. ZER aldizkariak be salatu eban, eta bere sustraia aurkitu gura eutsan Jose Domingoren zoritzar orri: bizi luzeegitxoaz izana. Ain adin andira eldu dana askok eukiten dabe iltzat, aspaldi joantzat. Baiña ez eben danak aitzu. Illeta-mezan, an ikusi genduzan gaurko musikalari aindi bi. Azkue organu-jotzaile ospetsua, eta Anton Larrauri, musikalari barrietan munduan zear ainbeste nabarmendu dana. Begoñan, Santutxun ezagutu eban Jose Domingo, eta beronegandik ainbat musika-argi artu. Ondo egin dau, eta esker oneko agertu da, Jose Domingoren alde urten dauanean.

KARMEL onek emen dakar, gaur, galdu barri dogun anai eta musikalarien gomuta ona, eta lerrook izango al dira beste batzuen esnagarri.

**BIZKAIKO SEME BAT ALTARETARA BIDEAN.
DOMINGO ITURRATE ZUBERO, IRUKOIZTARRA.
GURE EGUNOTAKOA DA (1901-1927)***

Arin bai arin doa gauza aurrera. Laster Bizkaiko seme bat geiago izango dogu altaretan: Domingo Iturrate Zubero, Irukoiztar gaztea zana, Dimako semea. Ain zuzen, urte bi eta askoz geiago ez dira, Aita Santuak Jaungoikoaren Serbitzari maillara jaso ebala, eta santutasun bidean bikain izan diranen antzeko egin euskula. Eta aurten, uda aldirantza, Zoriondunen maillan jarriko deusku.

Praille euskaldun gazte onegaz ikusiko doguna gitxitan jazoten dana da: beronen anai, lloba, senide, urko, eta ezagun askotxo bizi dirala, zoriondunen koroia buruan, altaretan ikustea. Geure-geure egunetakoa dogu, gizaldi onetan jaio ta illa. Eta santutasuna ez deuto emon, beste askori lez, bere bizia borerreruen eskuetan siñismenaren alde unetxo baten emon izanak, ez. Bizi laburra izan badau be, kanpo errietan ekintza andietan ibilli ez bada be, bere eguneroko egikeretan baiño bizi izan ez bada be, eguneroko bizitza orretan emon dau bere jaungoikozko bizitzaren argitasunik naikoa, eta il orduko asi zan bazterretan, bera ezagutu eben lekuetan, santuen artean bera jarri bear zalako zurrumurrua eta eragiña sortzen.

Bai, ilbarri ilbarritatik etorri da eragiña au. Urte bi igaro baiño len zabal dabil bere bizitza liburu bitan, bata erderazkoa eta bestea euskerazkoa.

Mixioetara joateko asmoak erabilli zituen mutikotarik. Asmo orretarako barik, Irukoiztarren nagusiak euren gazteen eskolatzaille eta arima-zuzendari izateko nai eben; baiña Jaungoikoaren asmoak beste nonbaitetik beste nobaiterantza ebilzan. Bere zerurako nai eban, antza, eta Beregana eroan euskun.

* Karmel 1983-1, 17-23, izenpen barrik

Baiña ez guretzat eredu izateko argi-izpi batzuk emon barik. Argi ederrak, orraitio. Santu izatea ez da txantxetako gauzea, gero! Santu izateko noraiñoko maillak jo bear diran, Kannel onen orrietara dakargun Erromako Eragabiak erakutsiko deusku: Kristiñautasunean eta gizontasunean, bietan, gorengo mailletara eldu bear da, eta jaungoikozko onoiemenak, eta gizona gizonago egiten daben onoiemenak neurri andi baten lortu bear dira. Santutasuna ez da umekeririk. Santutasunak gizon eldu eta sendo egiten gaitu. Santu izatea ez da zorakeririk. Santu izateak danetan zur eta neurri oneko egiten gaitu. Orixe esango deusku Erromako Erabagiak. Erabagi onetan ez jaku emoten argitasun zeatzik. Argitasunok eurak erabilli dabezan agiritan dagoz, eta laster liburu barriak emongo deuskuez. Baiña Erabagi orrek diñoskunaren mamia zein dan badakigu: Domingo Iturrate Zubero gaztea, kristiñau zanez eta gizon zanez, neurri bikain eta betera eldu zala.

Karmel aldizkari onen irakurleentzat jakingarri izango dalakoan, ez dogu esan barik itxi nai zertxo bat. Domingo gaztea Erromatik onantza etorri zanean, argitara urten barri ebillen liburu bat emen, gure artean, Aita Pi kanneldarrak euskeraturako Kempis, Kristoren Antz-bidea. Eta Aita Domingo, liburu ori bere bide-zorrotxoan ebalatzen, joan ei zan Belmontera, andik laster ilgo zaneko praille-etxera, bitartetan irakurteko.

Eta geiagoko barik, emen doa Santuen Arazoetarako Erroman Eleizeak daukan Batzordeak, 1980ko urrillaren amaian artutako erabagia. Itaun bati egindako erantzun antzean dator eta Erabagi ori artzeko erabilli diran bide guztiak aitatzen ditu. Jakin nai dabena auxe da «ia argi dagoan kasu onetan (Aita Domingo onen kasuan) eta nai diran asmoetarako, neurri bikaiñean izan dirala Jaungoikoagazko onoiemenok, siñismena, itxaropena eta Jaungoikoaganako eta lagun urkoaganako maitasuna, eta bardin sustraizko onoiemenok, zurtasuna, zuzentasuna, neurrizkotasuna eta sendotasuna, euron ondokoakaz batera».

Ona, orain itzez itz, Erromako Batzorde orren erantzuna.

«Irutasun guztiz Deunaren berarizko gurtzaille izatea Irutasun gurgarri eta betiko orren izena daroan Ordenak, sortu zanetik, bere ezaugarritzat euki dauala, eta gerora, gizaldiz gizaldi, etenbako etorrian, geituz joan dala, gauza jakiña da (Ikusi Irukoiztarren legearauak, 4 z.). Orregaitik, Ordena onetan sartzen diranak eskeintza barri apartekoaz emoten deutsoe euren burua Irutasunari, eurak diralako, bestetariko prailleen artean, Jaungoikoak autatuak, Irutasun guztiz Deunaren izen miragarria munduan zear zabaltzeko. (Ikusi Sortzez Garbiaren Joan Bautista Santuaren Liburuak, VI, 4).

Emen labur agertu dan Irukoiztarraren irudi au Ordenako Lege-arauetan onantxe dago argiago jarrita: «Irukoiztarrari dei egiten jake Kristoren eta Eleizearen misterioa bizitzeko, eta Irutasun guztiz Deunaren bizian egunean baiño egunean parte andiagoa artzeko, artu daben graziaren neurrian Jaungoikoaren borondatea osoan eta ezauera osoaz egiñez, Kristoren antzera, Kristok, Espiritu Santuak eragiñik, Aitaren borondatea gauza guztietan billatu eta egin eban lez» (Legeak, 35 garren z.).

Bizi-lege eta arauok beretzat emontzat eta berak alan egitekotzat artu zituen Sakramentu guztiz Santuaren Domingo Jaungoikoaren Serbitzariak, azken aldiotan Irukoiztarren Ordenaren apaingarri eta edergarri izan dan onek.

Jaio, 1901-ko maiatzaren 11n jaio zan Euskalerriko Dima errian (Bizkaian), orduan Gasteizkoa eta orain Bilbokoia dan Eleizbarrutian, Jaungoikoak abadetzarako eta prailletzarako deitutako ainbat gazte sortu dituan mintegi ugarian. Gurasoak, Simon Iturrate eta Marta Zubero, etxalde alasoko baten jaubeak, baiña fede zintzoz eta ekandu onez aberatsago ziranak, umea jaio ta urrengo egunean bateatuteko ardurea artu eben, izena Domingo ipinten eutsoela. Amaika seme-alaben guraso izan ziran: Domingo auxe, lenengoa. Txikitarik Jaunaren bidean ondo azi eben, eta berak erakutsirik ederrenak emon zituen, oso esaneko, lotsa oneko, gaiztasunik bako eta on egin gurako izanik, lagun en izpillu izateraiño. Umeen olgetak ez zituen ain gogoko; eskolabitarteko asti-orduak abadeai mez-erasoten eta beste eleizkizunetan laguntzen emoten zituen. Poz-eztitan egoten zan eleizgizonai lagun egiteko erarik ebanean. Baketsua zan izatez; agintzen jakona egiten zoli bai zolia; ikustekoa zan, barriz, eleizkizunetan ebillenean eukan modu ona.

Lenengoko ikaste-urteak erriko eskola bitan egin zituen, eta uda-aldian, beste maixu batzuen etxe-eskolan be bai. Orduan oi zanez, amargarren urtean urreratu zan Eukaristi-maira, eta arik urte bigarreanean artu eban Sendotzako sakramentua. Jaungoikoak bere arlorako egiten eutsan deiari baietz esanez, Domingo, 1914-ko Iraillaren 30n, Irukoiztarrak Algortan eukan praillegeitegian sartu zan. Gexoak artuta, gurasoenera biurtu bearra dauko, baiña gerotxoago praillegeitegian da ostera, eta bai nagusiak uste baiña askoz aurrerago eldu be. Izan be, danerako zolitasunez, apaltasunez, legeak bete-gurez, arimako gauzetarako garrez, eta jakitun urtetako gogo onez omidurik, ez zituen aurrerakada txikiak egin, bere lagun en eta beste praillen on-erretxirik ederrena irabazteraiño.

Praille-soiñekoa jazteko aintzat artu ebanean, 1917ko Abenduaren amaikan, asiera emon eutsan Praillegeien azikuntzako urteari, La Bien Aparecida-ko komentuan, Santander-ko elizbarrutiko Marron errian, bateoan artutako izenagaz beragaz. Urte orretan, argi bai argi erakutsi eban bere bizikera utsik bakoa, praille-legeak betetako zeaztasuna, bere moduzkotasan eta apaltasuna, eta besteentzat eredutzat ipinten eben. Antxe bertan egin eban 1918ko Abenduaren 14n profesa txikia. Gero 1919n, Erromara bialduta, Aita Santuaren izeneko Gregoriana Ikastetxe Nagusian Filosofi eta Teologi-ikasketak, biak *cum laude* (aitamen onez), amaitu zituen, eta 1926n irakasle-titulua atera. Bien bitartean, lenago, 1922ko Urrillaren 23n, profesa nagusia eginda eukan.

Erroman ikasten ekin eutsan aldian, arritzekoa izan zan ikaslearen barruko apaltasuna, etenbako otoitzean ekitea, aingeruzkoa erakusten eban gorputzeko modu eta lotsa ona. Otoitzat, deboziñozko egitadakaz, aragia eziaz eta praille-bizitzea zintzo eroanaz eusten eutsan barruko garrari. Beti zan gogaldi bardiñekoa, guztientzat txeratsu eta atsegiña; anaien premiña edo bear-izanetan an zan bera laguntzeko prest; bein baiña geiagotan nagusiak neurria ezarri bear izan eutsoen eukan barruko garrari, ain zan beretzat bakarrik latza eta erruki bakoa. Ikasleen begirari edo zelatari izan zanezko lau urtetan ondo baiña obeto erakutsi eban bere zurtasuna, maitasuna eta zentzun onezko jokabidea. Jaungoikoaren Amarentzat seme-biotza izan eban beti eta ez eukan neurririk Irutasun Deuna gurtzeko. Sakramentu Santuaren alderako deboziñoa be

agiri-agirian ikusten jakon. Santu egin gurearen egingurez, beti Jaungoikoaren aurrean onentzat eukana egitera beartu eban bere burua.

Alango baten, 1925ko Abuztuaren 9n lortu eban berak ain gartsu opa izan ebana, Kristoren abade egitea.

Arimak salbatzen laguntzea eta Irutasun txit Deunaren aintza zabaltzea ain gogoko zituela, Jaungoikoaren Serbitzari onek nagusiai baimena eskatu eutsen mixiñoerrietara joateko, lendik eurak olango berbea emona eutsela-ta. Baña, 1926, Ccr-doban izandako Probitzi-batzarrak ikasleen arduradun izentau eban, eta filosofo eta teologoan irakasle egin. Karguok, orraitio, ezin izan zituen iñoz artu; osasun onekoa ez izanik, lanen lanak erasota, bularreko gatx gogor osatu-eziñak jota, Española biurtu bearrean aurkitu zan, urte bereko iraillaren asieran: lenengo, Algorta-ko komentura, gero Madrid-ekora, eta, azkenez, Cuenca-ko Eleizbarrutiko Belmonte-kora. Emen, arik iru illabetegarrenean, eleizakoak artuta, praille anaien eskulaguntzaz eta maitasunez inguraturik, Jaunaren grazian il zan, 1927ko Apirillaren 7n, 26 urte bete barik, baña urte luzeetako irabaziz beterik.

Munduan kristiñau-bizitzaren eta Irukoiztarren artean praille-bizitzaren eredu bikain izan zan au, bizi zala, ingurukoak santutzat euki eben. Ilda gero, egunetik egunera andiagoa egin zan santu-izen ori eta zerutiko mirariakaz ba-zirudian Jaungoikoak be baietza emoten eutsala. Au ikusirik, Jaungoikoaren Serbitzari oni santu-maillako omenak emoteko legebideari asierea emon jakon. Orretarako auzia, Gotzaiñen agindupean, Gaistez-ko Gotzaitegian (1928-1931), Cuenca-koan (1931) eta, eskabidea gora eginda, Erromako Bikarioaren aurrean (1932-1936) garbituta gero, Pio XII garrenaren baietzaz, arazoa Aita Santuaren aurrera eroan zan, 1958-ko Maiatzaren 29n. Gero, urtarrillaren 3n, Jaungoikoaren Serbitzari oni agiriko santu-gurtzarik emon ez jakolako Agiria aterata, legez asi ziran, Aita Santuaren agindupean, santutzakoaren onomen bakotxari eginbearreko auzibideak, Bilbo-ko Gotzaitegian (1959-61), eta Cuenca-koan (1956-1961). Auzi guzti onei legezko indarra eta siñisgarritasuna 1964ko Martxoaren 21n izenpetutako Erabagiak emon eutsen.

Olantxe, legez eginbearreko guztiak eginda gero, Sakramentu guztiz Santuaren Domingo onek Jaungoikoagazko onomenak, beste sustraizko onomenak eta euron ondokoak izan ete zituen eztabaidara jo zan, lenengo, 1980ko Zezeillaren 19n, Atarako Kargudunak eta Santuen Arazoetarako Kongregaziñoaren eretxi-emoilleak egin-dako beren beregiko Batzarrean; urrenngo, barriz, urte bereko Bagillaren 10n, Kardenalen Batzar Osozkoan; emen, Aloisio Chiapi Kardenal jaun agurgarriak, Arazo onen txosten-egille zanez, onako ezbai au aurkeztu eban argitzeko: *«Ia argi dagoan kasu onetan eta nai dan asmotarako neurri bikaiñean izan dirala Jaungoikoagazko eta lagun urkoaganako Maitasuna, eta bardin sustraizko onomenok, Zurtasuna, Zuzentasuna, Neurrikotasuna, eta Sendotasuna, euron ondokoakaz batera»*. Batzarrean ziran Kardenal agurgarriak, txostena entzunda, baietz erantzun eben.

Urrenngo, Kongregaziñoako Buru dan Konrado Bafile Kardenalak gauza guztion barri emonda, aurtengo Bagillaren 19n, Joan Paulo Ilgarrenak Jaungoikoaren Serbitzari onen goraberako Erabagia edo Dekretoa prestetako agindu eban, olan Kardenal Jaunek ebatzia ontzat emenez.

Alan egin danean, bean izenpetzen dauan Kardenalari, eta Aloisio Chiapi arazo onetan txosten-egille dan Kardenalari, eta legeak agintzen dauan guztiai Batzarrerako deia eginda, neu Gotzai Sekretario nintzala, eta guztiok aurrean giñala, Aita Santuak bein betiko ebatzia emon eban: «*Argi dago, bai, Sakramentu Santuaren Domingo, Jaungoikoaren Serbitzariak, emen nai dan asmotarako, neurri bikaiñean izan dituala Jaungoikoagazko onoiemenok, Siñismena, Itxaropena eta bai Jaungoikoaganako eta bai lagun urkoaganako Maitasuna, eta bardin sustraizko diran onoiemenok, Zurta-suna, Zuzentasuna, Neurrizkotasuna, eta Sendotasuna, euron ondokoakaz batera*».

Eta Erabagi au iragarri eta Santuen Arazoetarako-Kongregaziño Santuaren agi-rietan idazteko agindu eban.

Erroman, urriko 11-n 1980gno urtean.

Pedro Palazzini Kardenal, Buru danak.

L.S.

Jose Casoria, Foronantiana izeneko Gongotzaiñ Sekretarioak».

DOMINGO ITURRATE

Zoriondun Barria *

Domingo Iturrate Zubero, Dimako semea, Zoriondunen maillara jasota daukagu. Izen au, KARMELEN onen irakurleentzat, ez da ez-ezaguna. Aurtengo zenbaki baten emon zan beronen barri. Aurtengo udan Aita Santuak Zoriondun egingo ebala aurreratu gendun orduan. Aita Santuaren ara ta orrako joan-etorriak dirala-ta, gauzea apur bat atzeratu egin da. Uda goienez izan da: urriaren ogetamarrean. Beste santugei bigaz batera artu dau Domingok ospe andi ori: bata, Jakobe Cusmano (1838-1888), italiarra, eta bestea, Valakiako Jeremias, Rumaniarra, fraide kaputxinoa (1556-1625).

Irurotatik, gugandik urren doguna, geure gizaldian jαιο ta illa (1901-1927), Domingo Iturrate. Irurotatik beronek igon dau altaretara lasterren, eperik laburrenean. Oraindio, anai-arreba bi bizi ditu. Iru urte baiño ez dira joan, beronen bizitza Eleizeak santuen maillakotzat autortu ebala. Eta gaur, ona non dogun altaretara jasota. Eta bear bada, ospe au lenago izango eban, bitartean jazo diran gerrateak eta Eleizearen beraren gorabera askok atzerakuntza apur bat ekarri ezpalebe. Atzerakuntzak aurretik kendu diranean, Domingoren altaretarako gorakadea arin bai arin etorri da. Eta ospe anditan etorri be. Uste gendun baiño ospe andiagotan.

Gogoratu daigun Balentin Berriotxo Zoriondun egiteko Bizkaian sortu zan eragiera ta guztien arteko bultz egin bearra. Urte batzuk lenagotik, goikoak eta bekoak, agintari eta menpeko, eske ta eske eragoien, goiak jo eta beak jo, Bizkaiko semeen guraria lortzeko. Domingok ez dau izan olango bultzakadarik, ez ezelango eskerik. Ixil-ixillik igon dau gora. Bizi zala, ixil-ixillik, iñoren nabarmengarri izan barik, eroan gura izan eban bere Jaungoikoagazko eta lagun urkoagazko bizitzea. Ilda gero,

* Karmel 1983-3/4, 19-27.

ixil-ixillik, zarata andi barik ibilli da. Apalen goratzaille dan Jaungoikoaren eragiñari esker Eleizeak mundu guztiko kristiñauoi eredu eta jarraibidetzat ipiñi deusku. Eta azkenengo orduan, Balentin Berriotxoagaz jazo zan antzera, gure erriaren beroa eta Euskalerriko agintarien omenak be irabazi ditu.

Izan be, noz alkartu ete dira Erroman Domingo Iturrate Zoriondun egin zaneke egunean baiño euskaldun geiago? Eta noz entzun ete da Erromako kale eta eleizetan egun orreitan baiño euskera geiago? Dana izan da Zoriondun barri onen, Domingo Iturrate ain ixillaren miraria.

Erromako egun orreitako bero apur bat ekarri nai geunke gure KARMEL onen orrietara.

Edozein bidek eroaten ei dau Erromarra. Aurtengo udagoienean, Urriaren 30n Erroman alkartu ziran euskaldunak ez eben guztiak bide bat eta bera eroan: batzuk trenez eta autoz, beste batzuk egazkiñez. Batzuk, lenago urtenda, besteak geroago. Batzuk, aldra anditan; beste batzuk banan, edo aldra txikiagoetan. Batzuk Agentziak ipiñitako autoetan, beste batzuk euren kontura. Geienak, Irukoitzarrak eratutako autoz edo egazkiñez. Baiña ikusi gendun Prantziatik urtendako talderik be. Esaereak ez diño guzurrik: edozein bide zan ona egun atan S. Pietro plazan aurkitzeko. Eta askok ez eben ez iñondik ez iñora urten bearrik. Erroman bertan dago euskaldunik asko: monja, fraide edo abade, ikasle edo irakasle. Eta ez eben utsik egin egun orretan.

Egun orrek, egun andi guztiak lez, bere bezpera eukan. Eta programak iñoanez, 29ko arratsaldeko bostetan, an ziran asko lenengo elizkizunerako. Urte Santua da, eta Urte Santuko parkamena irabazteko, an zan aparteko elizkizuna: Ate Santutik sartzea, eta barruko otoitzak eta Eukaristia. An dira gure erromesak, bide batetik edo bestetik etorriak, oraingoan benetan erromes, Erromarako bidea artu daben ezkerok. San Pedro Basilika andi ikusgarri atan orduan ospatu dan mezan, Madagascarko gotzain misiolari bat, Vollaro Jauna, Irukoiztarra, izan da erdiko meza-emoille, beste gotzain batzuk eta abade ta fraide mordo andia alboan dituela. Abade ta fraideen artean, euskaldunik asko, Bilboko Gotzaiña, Larrea Jauna buru dabela. Eskari batzuk euskeraz be egin dira; eta Larrea Jaunak euskerazko itzalditxoia be bai.

Urrengo egunean, goizeko zazpiretan gelditzen da zabalik S. Pietro plaza zabal ikaragarria. Guraiña lo egin barik dagozan arren, gure erromesak orduz eldu dira, euren txartelak eskuan, plazako sarreretara. Andrazkoentzat bada neketxo bat: askok eskuetan daroezan bolsatxoak zabaldu egin bearko dabez, ia armarik edo dakarren... Errukarritxoak! Orain urte bi Aita Santuari jazorikoa ezkerok, kontuzago dabiltz ango gauzak. Gure erromesentzako jarlekuak aurre-aldean dira. Batetik eta bestetik etorriak ez dagoz alkarregandik urrin, eta urriñagotik edo urragotik alkar ikusi orduko, ezau-bidea emonaz, eskuaz agurka diardue. Emen gara guztiok, azken baten! Dimatik etorriak oial andi bat daroe zabal zabalik eta oialean idatzita: «Euzkadi Domingo Iturrateren alde». Eta alboetan ikurrin biri diardue gora goraka eragiten.

Igarri barik eldu dira bederatzi ta erdiak: Mezea asteko ordua. Egiñ egiñean be, orra non agertzen dan orduantxe, kurutzeduna aurretik, astiro, plazara begira atonduta

dagoan altazarantza, eleiz-mutillizko ta eleiz-gizonezgo errezkada luzea. Guztien atzetik, Aita Santua, Joan Paulo Bigarrena, meza-lagun izango dituan gotzaiñ eta abadeak, guztiz zazpi, aurretxoan dituala. Plaza guztiak txaloka agurtu dau eta berak guztiok agurtu gaitu, alde guztietara eskuaz kurutzeak egiñaz.

Eta asi da mezea. Latiñez. Kantuak, latiñez eta gregorianoz. Bertako koru ospetsua kantari, eta erria, erantzule. Kiriek amaitu diranean, iru gotzaiñek, Palermokoak, Bilbokoak eta Napolikoak, bakotxak bere eskaria zuzendu deutsoe Aita Santuari. Bilbokoak, Larrea jaunak, Domingo Iturrateren alderako eskaria egin dau. Domingoren bizitza labor zeaztu ta eralgi ondoren, santugei onen auzia noz asi ta zelan burutu dan gogoratu dau. Eta dana legez eta ondo dagoan ezkerro, Domingo Iturrate Zubero Zoriondunen maillan jarri dagiala eskatu deutso Aita Santuari. Eta eske oni erantzunez, plaza guztia zutunik dagoala, Aita Santuak, bere jarlekuan jarririk, astiro astiro, abots garbi ta ederrez, bere baietza ta baimena emon dau, emendik aurrera oraiñartean Jaungoikoaren Serbitzari deitua izan dana Zoriondunen izenaz deitzeko eta beronen urteroko jai-egun jorraillaren zazpian egiteko. Berber-tatik, ordurarte estaldurik egozan iru santugeion irudiak agirian ipiñi dabez, Domingorena Basauriko Sarriugarte margolariak egiña, albo banatan Dimako San Pedro Eleizea eta Iturratetarren etxea dituela. Une pozgarria izan da plazako erromesentzat, guztiak txalo baten ipiñi dituen. Dimostarrak ezin dabe euren poza ta arrotasuntxo barruan gorde; eta mezea asi ezkerro, gorderik euki dituen ikurriñai aldi baten lau aizetara eragin deutse.

Itzaren liturgia amaitu danean, Aita Santuak, bere itzaldian, iru Zoriondun barriak Kristo Eroslearen frutu ta lora edertzat eta Kristau-bizitzaren eredutzat aurkeztu ditu, eta bakotxak bere erara eta neurrian Jaungoikoaren deiari eta maitasunari erantzuteko jarraibidetzat. Euskaldunentzat euskeraz amaitu dau eta Domingo Kristoganak zintzotasunean jarraibidetzat artzeko esan deusku.

Kredoaren kantuan plaza guztia izan da kantari. Gero, mezako opariak eskeintzea dator: lenengo, mezako ardao ta ogiarena; urrengo, Zoriondun barrien errialde bako-txetik ekarri dabezan opariak Aita Santuari aurkeztea. Errialde bakotxak egin dau alegin bere soñekorik jatorrenak erakusten eta oparirik egokienak aurkezten, eta eskeiñ-aldi bako-txean txalo beroak entzun ditue. Andik aurrera, mezea betiko antzean joan da, eta Jaunartzerakoan, eleiz-gizonezko erreskada ikusgarria zabaldu da plaza zabaleko bazter guztietara. Lenengo txandakoak naiko ez dirala, bigarren batek etorri bear izan dau. Jaunartze luzea izan da benetan.

Mezea amaitutakoan, Aita Santua, oi dauan lez, lenengoko ezarleketakoai eta gaixoai eskua emoten aurrerratu da. Eta, amabiak ogei gitxiago diran arren, bere oiturari jarraituaz, eguerdiko Agur Mariak erreza dau, plazako guztiakaz batera, eta beste itzalditxo bat egin, Andra Mariak gure salbamen eta erospeneko misterioan, Kristoren Nekaldian artu eban partea azaltzeko.

Meza onetan Aita Santuak aiboan euki dituen zazpi meza-lagunetatik iru euskaldunak izan dira: Larrea, Bilboko Gotzaiña; aita Gamarra, Irukoitzar guztien Na-gusia, eta Aita Iñazio Iturrate, Zoriondun barriaren anaia. Domingo Iturrate Zorion-

dunaren anai-arreba bi an izan direana, Erromako egunkariak gauza bakan eta oso aitagarrizat ekarri dabe.

Erri-gizonen aldetik, agintari ta andikien ezarlekuak artuta, an ziran Xabier Caño, Garaikoetxea Lendakariaren ordezeko joana, Anton Aurre, Bizkaiko Batzar-gizonen buru dana, eta Dimako alkatea, Leon Gorospe, irurak frakez jantzita legea danez.

Plazea ustuz joan dan bitartean, dimostarrakaz etorri dan txistulari batek, Boni ospetsuak, Erroman dagoan beste bat lagun artuta, txistu-soñuari ekin deutso, eta laster, asko, zar eta gazte, andra ta gizon, dantzan ipiñi ditu, aurea euken San Pedroen betondoari bildur andi barik. Ez dau San Pedrok an txistu-soiñurik asko antzun ez euskal-dantzarik asko ikusi... Eta erromesak, dantza dantzari eta txistu-otsean galdu dira andik Erromako kaleetan sartuta. Plazea ustu danean, an gelditu da, plazara begira, Basilika andiaren aurre-aldean, Domingo Zorionduna bere irudian, eta an egongo da gaberarte, ara joiazan begiluze ta otoizlarien ikusgarri.

Urrengo egunean, Urriaren azkenengoan, beste elizkizun bat dabe Domingoren izenean joan diran euskaldunak: esker-meza. Arratsaldeko bostetan da, Irukoiztar fraideak Erroman dauken eleiza baten, S. Krisogono Basilikan. Esker-meza au ez da emon Aita Domingo bizi izan zan komentu berean, komentu onek eleiza txikitxo daukalako, antza. Mezea Domingo Iturrate Zoriondunarena izan da, emendik aurrera apirillaren zazpian esan al izango dana. Meza-emoille nagusi, Ciappi Kardenala, Zoriondunaren auzian txosten-egille izan dana. Albo banatan, Larrea eta Vollaro gotzain jaunak, eta meza-lagun, altara-inguru guztia bete abade ta fraide. Italierazko kantuetarako, ango bertako abeslari gazteak, kantari: euskerazkoetarako, euskaldun erromesak, eta Erroman bertan bizi diran asko. Zoriondun barriaren mezako otoitzak, Domingoren Kristiñau-bizitzako iru ardatz gogoratzen deuskuz. Irutasun Deuna, Eukaristi-misterioa, eta mixiolari izateko, Jaungoikoaren erreñua zabaltzeko gogo: «Jaungoiko Aita, on guztien iturria zara zu, eta Domingo Iturrate abadeari Irutasun Deunaren eta Eukaristiko misterioaren ondasun gordeak erakutsi deusazuz; egizu, arren, aren laguntzaz, erri guztiak, zeure altarearen inguruan batuta, zeu Jaungoiko bakar eta egiazkotzat ezagutu eta maitatu zagiezala».

Ciappi Kardenalak, italieraz, sermoi luzea egin dau. Eta bera ixildu daneko, Larrea gotzain jauna aurreratu da, beste sermoi bat egiteko, euskeraz eta erderaz. Egun orretan ez egoan entzuleentzat sermoi luzeegirik. Euskaldunak erri-otoitzean euren eskaria egin dabe, eta eurentzat izan da eskeintzako kantua: «Artu, Aita Zerukoa». Jaunartzerakoan, beste bi: *Ogi zerutik*, eta *Ona bildots ezta*. Baiña meza onetan, aitagarriena, eta Erromarrentzat bitxiena, urrengoa izan da. Abade bat aurreratu da, italieraz, euskaldunen apartekotasun bat, bertsolariena, zer dan azaltzeko. Eta bertsolari bat agertu da Domingo Zoriondunari bere bertsoko omenaldia egiten: Balentin Enbeitia. Ain zuzen, Erromara joateko biderik okerrera eroan dauana: Bilbotik, Gasteizera, Gasteizki taxi bat artuta Madrillera eroan eben; Madrildik Siziliara, eta azkenez, Siziliatik Erromara. Baiña dana egun berean. Ez dabe, ba, bide guztiak Erromara eroaten?

Eta Mezako azken-otoitza egin danean, or dator Enbeitaren bertsoa, Kepa Enbeitak, Balentinen aitak, erabilli oi eban doiñuan, bertsolariari bertsoa nai bestean luzatzeko erea emoten deusan doiñu dotore samurrean:

Agur, lenengo, Aita Santua,
 Agur eleiza kistarra,
 ate zabalik hartu gaituan
 aberri italiarra.
 Aita Domingon omenez dogu
 eratu gaurko batzarra,
 euskal fedea bizirik dala
 argi dirauskun «lizarra».
 Baiña mirabe, nekez bizi da
 gure Euskalerra zarra,
 Justizi eta nortasun eske
 urratu dau deadarra.
 Aita Domingo: zure bitartez
 betor Jaunaren indarra.
 Amaitu hainbat herri ta gizon
 erru bakoan negarra,
 hil gorrotoaren garra,
 biztu maitasun «izarra»,
 mundu hau dedin herri ta gizon
 askeen sendi bakarra:
 hau da Euskadik nire bertsoan
 gaur dakartzuen izparra.

Bertsoa amaituaz batera, txaloak asi dira bazter guztietatik. Eta beroenak, bearbada, bertako kantari taldekoen eskuetatik. Doinuari eta kantariak ipiñi dauan bizitasunari eder eritxi deutsoe, urrean. Dana amaituta dagoalakoan, Kardenala badoa azken agurra egitera. baiña orra non bertsolariak barriro eltzen deutson bere kantuari:

Zuen txaloak nire biotza
 maitasun sutan dau gartu;
 erantzun barik geratutea
 ontzat ezin neike hartu.
 Euskaldun danon partez nai neuke
 Aita Santua agurtu,
 Erromatarren arrera ona,
 anai antzean eskartu.
 Anai-arrebak, egun onegaz
 egin gaitezcan ohartu.

Euskalerriko mendi gainean
 izar barri bat da sortu.
 Aita Domingon jokabidean
 geuria daigun errotu,
 berak zituzan itxaropenak
 euskal fedean indartu,
 herria jaso, loturak kendu,
 maitasun baten alkartu,
 Euskalerriko anai-arrebok,
 bakea nai dabe lortu.

Bigarren bertso au botatakoan, Ciappi Kardenala bera be txalo-jotzaillen artean sartu da, eta meza-emoilleetako batek besarkada estua emon deutso bertsolariari. Meza ostein, sakristian sartuta, zorion andiak eta besarkada barriak izan dira Enbeitarentzat.

San Krisogonoko elizkizun onegaz Erromako egunak amaitutzat dagoz. Asko asi dira alkarri agur esaten: «Urrerogarte, Domingo Santuen maillara jasoko daben

egunerarte edo». Guztiak dagoz itxaropentsu. Baiña beste batzuentzat, orraitio, ez da azkenengo agurrerako ordua etorri. Euskaldunentzat euskera utsezko meza bat nai dabe. Loiolako Santu andiaren gorpuzkiak dagozan eleizea izentau dabe orretarako, eta atarako baimena lortu be bai. Eta ordurako Italian gora edo berantza asko banandu ba ziran be, Arimen egunean, an agertu dira, jesuiten *Gesú* eleizan zortzi-amar bat abade edo fraide, meza emoteko, eta gure erromesetatik eta Erroman bertan bizi diran mojetatik eleiza erdia betetako aña lagun. Lorentzo Zugatzaga, Erroman ikasle da-goana, erdiko meza-emoille eta aita Sakramentino bat zuzendari, eta organuan beste bat. Entzun da an euskal kantu eta bertsorik. Eta azkenean, guztien artean, txinpartak atera jakoz («txispaz armaturik»), gure Iñazio Patroi Andiaren martxa ospetsuari.

Urrengo egunetan, talde bakotzak bere bidea artuko eban, etxerako artzeko eguna etorri arte. Alan be, nozik bein batzuk edo bestek alkar aurkitzen eben. *Gregoriana* inguruan erdi galduta ebillen bati, alakoren baten, «Eup, galduta abil, ala?» Kale bazter batetik. Eta: «Erdi galduta. Amabi apostoluen Basilikaren billa. Domingo Iturrate gazteak ortxe artu eban abadetzea». —«Ba ez daukak urrin; ortxe etxe orren ostean». Beste bein, andrazko batzuk agertu dira urduri. Eta: «Au be guretarikoen bat da, urrean». —«Bai, antza». —Eta: «Kale onetan denda andi ederren bat ei dago. Non ete da?». —Eta: «Ara, emengo denden barri zuk beste dakit nik». Gitxi batzuk, San Carlino, Lau Iturrieta kaleko irukoiztarren komentura be urreratuko dira. Auxe da Domingok Erroman egin zituen urteetan bizi izan zaneke etxea. Antxe dauko Domingok bere lenengo meza ixilla emon ebaneko altaraxoa. Eta an eragoioen arrizko oroitari bat, gomutari bat ipinteko asmotan, Ciceron-en latinkadaz omidurik, Irukoiztar guztien izenean Joan Paulo Bigarrenari eskerrak emoteko, antxe bizi izan zan fraide gazteari Zoriondunen ospea emon deusolako.

Egun areitan Dimako erria, eta euskaldunen izena goi ebizen Erroman, Domingo Iturrate Zoriondun barria zala-ta. Ango egunak euren luzagarria izan dabe gero, emen Euskalerrian: Algortan, lenengo, Fraide Irukoiztar izaten asi zaneke errian, orain bere gorpuzkiak dituen eleizan, Azillaren 6n; eta urrengo, Diman, jaio zaneke errian, Azillaren 20n.

Dimakoa ez da omenaldirik txikiena izan, ez. Bizkaiko Eleizea an zala esan geinke: Larrea gotzaiña guztien buru; Abade ta fraide talde ederra, berrogetamar inguru; mojazko pillo galanta, Dima bertako alabak. An zan Bizkaiko erria, bertako eta beste erri askotako seme-alabetan. An ziran Bizkaiko eta Euskadiko agintari nagusiak: Garaikoetxea Lendakaria; Xabier Caño, Erroman Lendakari orde egon zana; an, Aurre Jauna, Erroman izanikoa au be; Patxi Zurikarai, aldundikoa; eta an Arratia guztiko alkate jaunak, eta abar. An Erroman abestu eban bertsolaria, barriro beste bertsolari lagun bigaz, bertako semea goratzen.

Domingo Zoriondunaren ospea gora ta gora doa. Gazetalarien laguntza andi barik; baiña gora ta gora. Apalen goratzaille dan Jaungoikoak alan nai dauala dirudi. Erroman askok agerturiko itxaropena laster bai laster egi pozgarri biurtuko dalako ustea dago. Emendik lau bost urte barri?

ZORIONDUN BARRIA:

**Maria Baouardy, Karmeldarra:
(1846-1878)***

Domingo Iturrate, Dimako semea, altaretara jaso ta amabostgarren egunean, 1983ko azillaren 13n, joan dan gizaldiko mojatxo bati emon eutson Aita Santuak omen bardiña: Maria (edo Miriam) Baouardy moja karmeldarrari. Barriro bete zan domeka orretan Vaticanoko plaza ikusgarria alde guztietatik etorritako kristiñauz. Nondiko kristiñauak ez ete ziran an? Italiar eta erromarrak, esan bearrak ez. Moltzo anditan agertzen dira domekero Aita Santuaren aurrera. Urtea Urte Santua dala-ta, barriz, egunero doaz ango San Pedro eleizara, Ate Santua deritxonetik barrura sartuta, penitentzizko ikustaldia egiten.

Baiña, oraingoan beste talde batzuentzat da aurrerengo lekua. Israeldik, Jordaniatik, Siritatik etorritako kristiñauak, an dira euren jazkera aparteko ta nabarmenaz nondik etorriak diran argi esaten. Eurena dabe, euren errialdean jaio ta illa, Zoriondun barria. Taldetxo bat Indiatik etorria da. Mangalorera aldatuta, an profesa egindako mojatxoa izan zalako, eurena dalakotzat daukenari euren omenalditxoa egiteko asmoz etorri dira. Beste talde bat, neskameak, etxe-serbitzariak osatzen dabe. Neskatotan, ogei urte egiñ arte, neskame ibillia izan zan Miriam, eta euren artekotzat omendu gura dabe.

Aita Santuak aparteko eguna artu gura izan dau mojatxo onentzat. Aita Domingo Irukoiztarrak, esaterako, beste Zoriondun lagun bigaz batera izan eban bere egun andi ori. Gaurkoak berea dau egun osoa. Zergaitik ori? «Arabiar loratxo» au Jesu-kristoren errialdekoa dalako, eta Erromako Eleizeak Sortaldeko kristiñau bati lenengoz

* Karmel 1984-1/2, 85-101.

omen au egiten deutsalako. Lenengoz dakar altaretara Sortaldeko kristiñau bat. Antxiñako aldietakoak, asko bai asko dira santutzat artuta altaretan gurtzen doguzanak, Andra Maria gandik eta apostoluetatik asita. Baiña aspaldiotan Eleizeak orretarako legebide barriak ipiñi dituen ezkerok, ez dau Sortaldekorik santu edo zoriondun autor-tzeko aukerarik izan. Lenengoa, gaurkoa, arabiarren odolekoa, Nazarete ondoan jaio eta Belenen il zana, Maria Baouardy, moja karmeldarra. Joan Paulo Aita Santuarentzat pozgarri izan da aukera au izatea, eta ez gitxiago Jesusen erritarrentzat eta arabiarren arteko kristiñauentzat, aurki.

Karmengo Amaren alabetakoa izan dan ezkerok, Zoriondun barri onen barri emotea ez da bape ez jagokona KARMEL aldizkari oni. Eta euskaldunak gareanez, arabiako loretxo onen bizitzan euskaldun batek baiño geiagok euren lorratza itxi ebela jakitea jakingarri egingo jakula uste dot.

Bizitza, labur esanda

Ez zan luzea izan Maria Baouardy onen bizia, ogetamabi urtekoa. Aitatu daiguzan punturik urtenenak. Abellin, Nazaret ondoko erritxoan jaioa da. 1846ko urri-llaren bostean im urteko dala, umezurtz gelditu, eta umezaroa neketan eroan dau. Neskato egin daneko, Kristori eskiñi deutso bere biotza, eta eskintza orri leial erantzutearren, odola ixuri bearra jazo jako. Arrezkerok, neskame bizi izan da ugazaba kristiñauen etxean, Alejandriatik Jemsalenera, Jerusalemik Beimt-era, eta emendik Marseillara. Olantxe, ogei urte egin arte. Marseillan moja sartu nai, eta moja-etxe bitan jo dau atea. Gauza arrigarriegizkoak ikusten jakozala-ta, barruko mojetarako egokiagoa dala-ta, kanpoan itxi dabe moja-etxe bietan. Orduan Pabeko karmeldar mojetara zuzendu dabe. Emen, nobizia dala, Mangalore-n karmeldegik bat sortu nai daben moja-talde bateko lagun egin dabe, eta 1871-n antxe, Indian, Mangalore orretan egingo dau profesak. Ez dau an be luzero egoterik. Urrango urtean, 1872-n Pabera bialtzen dabe atzera; eta andik im urte bami barriro be itxasontzian da, Belen-era, bere errialdera joteko, eta bertan Karmeldegik bat sortzeko. Im urte egiten ditu Belenen eta bertan ilgo da 1878n, 32 urte dituala, etxeko langille batzuek iturriko ura eroakeran laprastada bat eginga, ortik sortu jakon gatxetik.

Orra, labur esanda, mojatxo onen bizitzea. Baiña bizi labur orretan santutasunezko erakutsi eta argibide andiak emon ditu. Beti apal eta guztien mendeko egon da, baiña apalen goratzaille dan Jaungoikoak neurri barik ixuri ditu bere argi eta doaiak arima orren gaiñera, eta doaiok, batetik Maria Baouardy-ren arimea aberastu, garbitu, sendotu eta santutu egingo badabe, bestetik bildurra ta kezkea sortuko dabe ingurukoaren artean, eta berari be kumtze nekagarri biurtuko jakoz.

Eskolarik ez, baiña espiritu santuak argitua

Guraso barik eta eskola barik azia izan zan Maria Baouardy. Baiña Espiritu Santua izan eban maisu eta argi emoille beti. Jaungoikoaren laguntza ta indarra argi ikusten dira Zoriondun barri onen bizi guztian. Ume-umetarik asita. Eta bai berak

bear be. Amar anai-arreben ostean amaikagarrena izan da. Zoritxarreko gurasoak izan ditu. Lenengo amar seme-alabak ia jaio barritan il jakez. Amaikagarrena il ez dakien, fedebiziko kristiñauak dira-ta, Andra Maria gana jo dabe, eta alabea bada Maria ipiñiko deutsoe izena, eta semea bada, Paulo. Biak izango ditue, alabea ta semea, Maria ta Paulo. Baiña, alabeak iru urte ditueneko gurasoak il egin dira. Orra, Maria ta Paulo umezurtz. Maria osaba batek artzen dau, eta laster beragaz Ejitora eroan, Alejandria urira. Emen aziko da umea kaskondutxo egin arte. Osaba ori gurasorde dau, eta beronek zuzendu gura dau neskatoaren etorkizuna. Sortaldean oitura ebenez, berak ezkon-laguna aurkitu, eta al bait ariñen ezkondu gura leuke. Baiña neskatoak ez dau ezkon-lagunik nai. Kristori eskiñita daukaz bere bizitza ta birjintasuna, ez dago atzerarik egiteko. Ikaratuta gelditu da osabea. Alaba orde ain apal eta esaneakoak ori egin bear berari? Sartalde atan gurasoak ez dagoz olangorik ikusten oituta. An neska gazteak gurasoen esanera egotea besterik ez dauko. Osabeak gotzaiaganaiño joko dau alaba-orde orren gogoa aldatzeko. Baiña alperrik dana. Mariarentzat Jaungoikoaren deiari erantzutea beiñago da Obispoaren esana egitea baiño. Osabeak be ez dau naita nai ez bere asmoetara ekarri. Baiña andik aurrera ezin dautso lengo maitasunik erakutsi, gorrotoa artu deutso etaetxeko neskame guztien azpiko jartzen dau. Ez da Mariarentzat egoera atsegiña, eta, bein, bere erabagia artu dau: osabearen etxea itxi eta Paulo bere nebea artu daben osaba-izekoakana joatea, adiskide daben musulman baten laguntzaz.

Ez deutso ondo urten musulmanagana joate orrek. Bereala asi jako, neskatoari atsegin izango jakolakoan, kristiñauen aurka txakurrenak esaten: «Gizon gaiztoa ire osaba ori, kristiñau txakur ori, alango ori!» Neskatoak ezin dau gogoz entzun olangorik. Berotu jako musulmana eta bere ezpateaz, zimitarraz, zemaika asi jako. Zemaika bakarrik ez; jo be egin dau. Bere bizi guztian gelditu jakon Mariari orduan musulmanak saman egin eutsan ebagiaren markea. Odola eriola konortea galdu eban neskatoak, baiña orduantxe sumau eban argien lenengoz Jaungoikoaren eskua bere gaiñean, eta olantxe sumauko dau beti adorea, poza ta argia emoten, bizitzako unerik larrietan.

Musulmanagaz alde egiteko asmo orrek uts eginda, Alejandrian gelditu bear izan dau neskame, beste kristiñau baten etxean. Eta neskame-bizitza ori eroateko doa gero Jerusalenera, eta Jerusalendik Beirutera, eta gero, Beiruten bertan euki eban ugazabak eroanda, Marseillara. Olantxe doaz Mariaren gatzetako urteak amalau urte ebazanetik ogei urte egin arteraiño.

Guztien arrigarri da neskamearen bizitza. Apala, esanekoa, langillea, bere egin-bearrak betetan zeatza eta zolia. Maitagarriago egiten dau bere aingeru-itxurak. Aren begikune argia ezelango azpikeririk bako umetxo batena da. Zerutarra geiago dirudi mundukoa baiño. Alan be, ez dau iñon eskolarik artu. Ez deutsoe orretarako aukerarik emon. Bere jakituri guztia eleizan entzundakoa dau, dotriñan eta eleizako itzaldi eta oitizetan ikasia. Eta Jaungoikoak goitik emona. Neskame dala asi da, nozik bein, oitizean konorte barik gelditzen, ezkutuko indar batek artuta lez, inguruan daukan ezegaz konturatu barik. Santu andien konorte-galtzeak, oitizean zurturik gelditzeak ete dira? Beintzat olango aldietan arrigarritzko oititz ederrak urtetan deutse agotik.

Gauza arrigarriagoak agertuko jakoz laster eta ez dau orregaitik inguman kezka txikirik sortuko.

Moja karmeldar

Marseillan bide barri bat artuko dau Mariaren bizitzak. Mojategi baten sartzeko gogoia egin jako. Bere arimearentzat amas-leku egokiago baten billa asi da. Mojategi bitan deitu dau. Maitagarri egiten jake «arabiartxo» aingema. Guztiz ona, apala eta lanerako zolia dirudi. Baiña, konorte bako aldikada batzuk izaten dituala-ta, kezkea sortzen jake. Bildur dira noizik bein ikusten jakozan gauza arrigarritzko orrek parte onekoak ez ete dituen. Barruko mojategien baten sartzeko ohea dala-ta, kalean itxi dabe. Nora joko dau? Bairuko mojategi batera, Frantzia barrenean dan Pabeko karmeldegira.

Pabenjantzi dau andik aurrera il arte eroango dauan moja karmeldarren soiñekoa. Baiña ez bumausterik emon barik. Mariak doan leku guztietan sortzen dau, bere aingeru-arpegia ikusita, maitasuna batetik, eta jazoten jakozan gauza nabarmenak, arrigarriak ikusita, kezka ta bildurra, bestetik. Ez ete da arazo au beingoan argituko? Ez da goizetik gabe erabagiteko auzia. Baiña orretan saiatuko da Baionako gotzaitegia, arazo ori aztertzeke batzordea jarrita. Gauzak aztertzeke bidean doazen bitartean, profesa egin aurretik, Pabeko nobiziari beste erri-aldakuntza bat jatorko. Moja-mordo bat da Pabetik Indiara joateko, Mangalore-ra, mixio-erri atan Karmeldegi bat sortzen. Euren artean daroe «arabiar mojatxo». Paben komko mojatako artu dabe bera. Komko errezu ta kantua ganoraz egiteko, eskolea bearko dau, eta ori be emon deutsoe. Baiña Mangaloren mojageiak berak bere buma beste egiteko batzuetarako egokiagotzat daukala-ta, moja legae arterako gelditu da. Bere borondatez eta eskariz. Mangaloren egin ditu nobizi urteak, eta bertan profesa be, Jesus Kumtzekeoren Maria izentzat artuta. Mojatxo ona da, serbitzaria, apala. Aingerua dimdi. Maitagarri egiten jake moja-lagunai. Baiña aren estasiak, konorte-galtzeak, arri eginda gelditzeak, lege onezkoa ete dira gero? Ez ete dauke deabrukerien bat? Bada ezpada be, ez ete dabe mojatxo ori Europara bialtzea onena izango? Pozik dagoz moja lagunak lagun ain ona, ain txeratsua eta maitagarria euren artean eukiteaz. Baiña bada ezpada... mi-raritzko ainbat gauza arrigarri daukazan ori urriñago ta obe. Eta Pabera, lengo lekura bialduko dabe. Lekurik egokienera.

Ango eleizeak, Baionako gotzaiñak atarako batzorde bat ipiñita, ez dau, bada mojatxo onen gauzak Jaungoikozkoak ala deabmkerizkoak diran argitzeke ardurea artu?

Maria Pabera biurtu daneko, Baionako batzorde orri bumauste barriak agertu jakoz. Mojatxoak aldikada txarra igaro dau. Orain ez dira bakarrik estasiak, konorte-galtzeak, etorkizuneko gauzak iragarreak. Aldikadatxo baten egun baltz ikaragarritzkoak izan ditu. Deabruak artuta dagoala dirudi benetan. Baionako batzordeak dana aztertu bearko dau, bear dan beste teologo eta gizon jakitun laguntzaille artuta. Azkenengo erabagia Mariaren aldekoa izan da. Ez dago aren bizitzan deabrukeririk ez dago Jaungoikoaren eskutik etorrikoa izan ez leiteken jazoerarik, aren arimeari

garbiketaldi gogor bat emoteko, antza danez. Arrezkero, Baionako gotzaiña, Lacroix jauna, Pabeko mojatxoaren miresle gelditu da.

Belenen, il arte

Indiatik Pabera etorrita, iru urte egin ditu Mariak bertan. Urrengo erri aldakuntzea bere borondatez egingo dau. Jaungoikoak ipiñi deutso gogoan karmeldegi bat sortu bear dala Belenen. Eta berak be ara joan bearco ei dau. Au mojatxo apal, ixil eta besteen esanera egoteko oiturea daukanaren azartasuna! Lentxoago Indian egin dana, zergaitik ez Jesukristo jaio zan lekuan? Baionako obispoari agertu deutso asmo ori, Jaunaren beraren borondatea dalako ori. Obispoak berak izan bear ei dau arazo orren bultzatzaille ta eragille. Obispoak berak idatzi bearco ei deutso Aita Santuari bear diran baimenak eskatzeko.

Baimen guztiak lortuta, 1875n, an da Belenerako bidean moja-mordotxoa, Maria «arabiartxoa», Jesusen errialdekoa lagun dabela. Orain arte, bestek erabilli dabe Maria erbestez erbeste: bestek eroanda egin izan dau ainbeste ostera. Orain bera da eragille; berak eroanda doaz guztiak, moja ta eleiz gizon. Baiña ez doa iñongo erbestera, beretarren errialdera baiño. Salbatzaillearen errialdera. Ara doazen moja guztien artean bera da azkenengo ta gazteena; ez dau ezelengo aginpiderik, ez da ezer; baiña guztiak bere esanera doaz. Berak esan dau karmeldegi ori non egin bear dan be. «Ez Belenen uribarruan, uriak aurrez aur daukan tontortxo baten baiño». Jaunak esango ei dau non. Ara eltzean uso-aldra bat ikusiko ei dabe, eta uso orreik geldituko diran lekuan. Alan esan deutso Jaunak. Eta geiago be badiño: «Eztot nik mojaetxe ori amaituta ikusiko. Lenago ilgo naz, lenago alde egingo dot zerurantz».

Belenen bere erritarren artean dago, etxe barria egiten dan bitartean biziteko artu daben bein-beiñeko etxe baten. Eta arabetarren izkuntza dakien bakarra dan ezker, ezelango aginpiderik ez badau be, bera dabil karmeldegi barriarentzako lekua erosteko artu-emonetan, eta bera dabil etxegintzara datozen langilleakaz berbetan, eta askotan onei euren lanetan laguntzen.

Amaitu barik dagoan arren, urrengo urtean egingo eben moja-etxe barriar sartzea, azillaren 21n. Jerusalengo Patriarkaren laguntza osoa dauke. Patriarka ori Karmeldegi barriaren aurkakoa izan da oso, baiña Maria ikusi eta ezagutu ebaneko bestera aldatu eban gogo. Aren aingeruzko begikunak ain egin eutsan eraso indartsua! Batez be mojatxo orrek otoz otoan esan eutsanean, lenengo egunean: «Ene, nik aspalditik ezagutzen zaitut zu, Indian nengoala, neure laguntzaille izango ziñalakotzat erakutsi zindustanean».

Belendik oindio beste egazkadatxo bat egingo dau, il aurretxoan. Bere borondate eta eragitez au be. Nora? Nazaret-era, bere jaioterri aldera. Jerusalengo Patriarka danagaz itz egin dau. An be ez ei da Karmeldegi bat txarto etorriko. Patriarka orrek be ez dautso txarto eritxi eta baimen guztiak lortu deutsez, iru moja joan daitez an ara, Maria tartean dala. Bidaldi orrek emongo deutso bere erria, Abellin, ikusteko erea be, aspalditik lenengoz eta azkenengoz. Nazaretoko karmeldegia urteak geroago

eregiko da, baifia gure Maria dau eragilletzat, beronena izan zalako etxe ori eragiteko lenengo asmoa.

Belenekoa be, berak iragarrita eukanez, ez dau dana amaiturik ikusiko. Eta ementxe ilgo da, 1878ko agustuaren 26n, etxegiñen eragoyoen langilleai iturriko ura eroaten joiala laprastada eginda, besoa ausi eta ortik sortu jakon gatxetik, pasmotik. Lau egun egin zituen geixorik. Azkenengo orduan an zituen laguntzaille etxeko kapellau, eta fraile konfesorea, eta, azkenez, Jerusalemgo Patriarka jauna, azkenengo sakramentua, geixoena, oleaziñoa emoteko.

Olantxe joan zen lurreko bizien artetik, 32 urte zituela, gaur Zoriondunen artean daukagun mojatxo au, «Arabiar Loretxo» au, bere tolesbako izakereaz, bere apaltasunaz, bere on egingureaz, guztien begiko eta maitagarri izan zana. Arritzekoa da: ikusten jakozan gauza arrigarriak zirala ta, bildurrez, bada ezpada, kalean itxi eben mojak be, andik gerotxoago damututa gelditu ziran, parka eskeka, arima ain onari abegi ohea egin ez eutsoelako. Ori jazo zan Marseillako mojakaz, lenengo artu eta gero kanpoan itxi ebenakaz. Eta bardin, Indiako karmeldegikoakaz. Pozik andiena erakutsi eben gero guztiak, Baionako gotzaitetik batzordeak Mariaren aldeko epaia emon ebanean. Kezkak sortzeko arazoa zan, eta ez errez erabagitekoea. Zoriondun egiteko be, ortik etorri da eragozpenik andiena. Eta aparteko batzordeak ipiñi ditu Erromak, teologo eta sikoloak osatutako batzordeak, dana zeatzago aztertzeke. Teologo ta sikologook be aldeko erabagia emon dabe.

Etorkizuna iragarreak

Etorkizuneko eta urruneko gauzak ikusi ta iragarreko aparteko argiak izan zituen. Eta esan leike, lenengo lenengo, bere bizitzako joan-etorri ta goraberak iragarri zituela. Neskame bizi izan zan urteetan, bein, amabost urte zituela, Jerusalemen Kristoren illobira joian baten, gazte bat egin ei jakon lagun. Berba ta berba, alkarri ezaupidea emoten asi dira. Biak sartu dira eleizan, otoitz luzea egiten. Eta andik urtekeran, gazte orrek ba ei diñotso: «Gauzatxo bat esan bear deusut: zu egunen baten Frantziara joango zara; an moja egin, eta Indiara bialduko zaitue. An ikusiko dogu alkar. Atzera Frantziarako bidea artuko dozu, eta azkenez, onako, Jerusalem alderako». Nor zan gazte ori? Tobiasen bizian lez, zeruko mandataria, aurki. Eta Indian barriro etorri jakon gazte barri-emoille ori. «Zoaz Pabera, dinotso: baiña luzero barik, Gabonak Jesus jaio zan errian egingo dozuz».

Egiatzko biurtu zan Belengo karmeldegia sortzera joiazanean esan ebana be: ez ebalá amaituta ikusiko, eta ez zituela bertan iru urterik gora egingo.

Bere burua «ezerez utsa» egiten eban arren, eta bere estasiak- eta lozorrotzat eukazan arren, besteri jazoteko ziran gauzen argirik izaten ebanean, ez ekian bere barruan ixillik gordetan. Iru aldiz joan ziran Pabetik Erromara, 1868 inguruan, argibideak: Vaticanotik ur egoan alango kuartelean minak eukezala ipiñita. Erromak ez eutsen jaramonik egin: «Zer ete daki mojatxo ameslari zoro orrek emengo barri?» Baiña Mariak egia iñoan. Minak eztanda egin ebanean eta ainbat il, orduan konturatu

ziran Erroman. Eta urrengo baten Pabetik beste minen batzuen abisua etorri jakenean, jaramon geiago egin eutsoen, zorionez.

Mangaloreko karmeldarren nausiak 45 urte baiño ez zituen, eta ez dakigu siñiste andirik emongo eutsan Mariari, urrengo urtean ilgo zala iragarri eutsanean. Baiña Mariak esandako epean il zan. Nazaretera bidean jazo jakonak be aintzat artzekoa dala dirudi. Emaustik igarokeran, lagunartetik urtenda, an dakuse bera nonbaiterantza arin arin joaten. Atzetik jarraitu deutsoe, eta gelditu danean, ara zer diñoan: «Ementxe da Kristok ikasle biak aurkitu eta eurakaz apaldu ebaneko lekua». Egia ala ez? Arkeologoak esan beie. Eta zerbait esan dabe. Leku atan azpia jo ta sakontzen geroagogarren baten lan egiten ebenak, antxiña bateko eleiza baten ondakiñak aurkitu ebezan, beintzat.

Arrigarrietan arrigarria bera ilda urrengo urtean Belenen ikusi eben jazoeratxo au be. Karmeldegia barri bat egiteko leku billa Nazaretera joan ziranean, Karmel mendiraiñoako osterea egin eben, ango Karmengo Amaren Eleizea ta fraidetegia ikusteko. Eta etxearen eta inguruko etxaldearen zaindari on batzuk ikusi zituen: txakur eder andi batzuk. Alangoxe txakur bat, baleuke Belenen! Lortu dau bat. Zaindari ona benetan. Ez egoan urreratzerik txakur orren baimen barik. Baiña berak jakin dau Pabeko andra bat, Belengo mojen laguntzaille eta ongille izandako bat etorriko zana. Bera ez da orduan biziko. Bera an ez dala ez deiola txakur orrek andra ongille orri ezer txarrik egin. Txakurragana joan eta badinotso: «Lulu (Lulu zan txakurraren izena), Lulu, ez gero Dartigaux andreari arrera txarrik egin! Okerrik iñori be ez; baiña andra ori datorrenean, beragana joan ta auzpez jarriko zaiako, eta oinetan mun egingo deutzazu. Aitu ondo gero». Eta zer jaso da? Urrerango urtean agertu da Dartigaux andrea Belenen. Eta atetara agertu daneko, an joako Lulu txakur andia ariñeketa baten, eta aurrean auzpez jarri ta sekulako pozkeriak egin deutsoz karmeldarren ongillari. Barreari eutsi eziñik, pozik ikusi dabe or mojatxo ilbarriaren eskua, ilda gero olantxe agintzen.

Maria, olerkari

Maria ez zan eskolara ibilli. Iru urte zituela umezurtz gelditu zanean, osabeak aterpea ta jana, oiña ta soiña emon eutsozan, baiña eskolarik ez. Entzunez ikasi eban ekiana, Jaungoikoaren berbea mezan ta katekesian entzunetik eta Jaungoikoak ixurritako argitasunetatik. Umetan, ez irakurten ez idazten ez eban ikasi, Pabeko karmeldegian koruko mojatako ona zala-ta zerbait ikasi eban arte. Indiaro eroan ebenean, orraitio naiago izan eban korua itxi eta lega izateko gelditu, esan dogunez. Alan be, bere otoitzetan, estisialdietan urtetan deutsoen otoitzetan, zeruko argiz beteriko jakituria, Espiritu Santuak ixuritakoedo, agertzendau. Ez zan alperrikbere bizi guztian izan Espiritu Santuaren gurtzaille beroa.

Baionako eleiz-arduradunak, mojatxoaren arima-barrua obeto ezagutu ta aztertzeko eginbearra artu ebanean, estisialdietan, entzuten jakozan itz eta otoitzak entzun ala jaso eta idazteko agindua emon eutsen aren moja-lagunai.

Eta orixe egin zan urte batzuetan Paben eta Mangaloren eta geroago. Olan daukaguz Mariaren barruko ainbat biozkada eta bere barrutik eriozan ainbat txinparta. Olan daukaguz ainbat otoitz labur eta bero, Jaungoikoaren aurrean arimearen ezereza eta pekataritasuna autortzeko, Espiritu Santuaren argiak eta laguntza eskatzeko, Jaungoikoaren maitagarritasuna eta gizonon ezereza adierazoteko, Jaungoikoak munduan zear ixuri eta landatu dituen edergarriak goratu ta eder esteko.

Ona puska batzuk: «Jauna, zure aldean utsa naz ni, autsa, errautsa, arraren parekotxo, ezereza». Guztien aurrean autortzen eban bere eretxi au: «ezerez utsa» zala bera. Baiña ezerez utsa dala be, ez deutso bildurrik deabruari: «Neu naz neure deaburrik andiena. Neure buruaz ostean, ez deustat bildurrik beste iñori. Oi, ene Jaungoikoa, zaindu nagizu neuganik, neu naz neure areriorik txarrena. Ene Jauna, badakutzu nire utsa, nire makaltasuna, nire dongakeria. Eskerrak Zuri Jauna, zer nazan autortzeko eta jakiteko grazia egiten deustazulako. Mirariak egitea baiño naiago eta obe dot grazi ori. Ez niri, Jauna, aparteko doerik emon, naikoa dot siñismen utsa. Siñismen utsaz ez dago arrokeririk. Beste doairik bakoa, ez-jakiña izatea grazi andiagotzat daukat».

Espiritu Santuari onela otoitz egiten deutso: «Bake iturri zaitugu, arimen argi zaitugu; zatoz eta egidazu argi; gose naz, izan zakidaz Zeu janari; egarri naz, asetu naizu; ez-eukia naz, zatoz nigana eta aberastu nagizu». Eta beste onetara: «Zuk erakusten deuskuzu Jesus zer eta nor dogun. Zatoz nigana, Zu zara nire atsegiña; zatoz, Zu zaitut pozgarri; Zu zaitut neure bake, Zu neure indar, Zu neure argi. Zatoz eta argi egidazu neure egarria kentzeko iturria aurkitu al dagidan. Naiko dot zure tantatxo bat, Jesus nor dodan ikasteko. Beronek esan deusku ez-jakiñai agertzen zaiakezala... Ez-jakiñik ez-jakiñena neu nozu. Beste ikasbiderik, beste jakiterik ez deustut eskatzen: neure barruan Jesus ezagutzeko argia ta jakituria gordetea».

Gaur munduan zear zabalduta dabil berari entzundako otoitz au be: «Espiritu Santu orrek, argitu nagizu. Jaungoikoaren maitasun-sua zarean orrek, erre nagizu. Andra Mari, neure ama ori, egon zakidaz adi. Jagon nagizu; Jesusegaz batera, be-deinkatu nagizu. Gatz guztietatik, guzur-ames guztietatik, arrisku guztietatik alden du nagizu».

Belenen zala, 1875n, onako otoitz sutsu au entzun eutsoen: «Ez geiago, Jauna, ez geiago; naikoa da zoritxarrrik. Geldi bedi zure eskua. Bigundu bekizu, bai, bigundu zeure biotza! Ikusi ondamendi au. Bigundu bekizu biotza! Entzun guztien antsi ta negarrak. Gure oi u oni ez gorrarena egin! Badakit Jauna, biotzak diñotsula ez joteko, baiña zure zulentasunak geiago egiten ete deustun nago. Naikoa da, Jauna, erruki zakiguz! Ezin biotz-beragoa zara, baiña zure zuzen izan bearra inperua baiño gogorragoa. Baiña ez eiguzu guri esan zeure zulentasunaren legean, zeure errukiak agintzen deustunez baiño, santurik bakarra, zuzenik bakarra zeu zarean ezkerro. Naiago dot nik, eta naiago dabe nire anai-arrebak zure errukiaren aurrera agertu. Gure zulentasunik-ezak ez dau zure zuzetasunaren aurrera agertzerik. Zure zulentasunaren legean epaitu bear baninduzu, non legoke niretzat eta nire anaientzat inperu naiko sakonik? Jauna, zure zulentasunaren aurrerako ez dago beste iñor zuzen danik Zeu

baño. Zuzena zarean ezker, ene Jaungoiko ori, erruki zakiguz guri zeure errukiaren andiz. Erruki zakiez nire anaien oiuai!»

Baiña ez uste Mariaren agotik beti sofiu bateko otoitz eta berbak urteten dabenik, beti bere ezereza autortzeko, pekatuen parkamena edo arriskueterako laguntza eskatzeko otoitzak egiten dituenik. Ez; soñu alaiagorik eta pozezkoagorik be badau. Izadiaren aurrean birloraturik, Jaungoikoak bertan ixuri eta zabaldu dituen edergarrien aurrean, kanta kantari ekiten be badaki. Udaberriko gau baten, illargi ederraren argi zuritan, leiotik zerualdera eta inguruko landa-zelaietara begira aurkitu eben, goiko ta beko edergarriak ikustean, bere biotzeko poz eta gurariak ixurtzen: «Orra, lotan dago mundu guztia. Jaungoikoaz aitzuta, Egillearen gomuta barik. Eta ona, izadi guztia Jaungoikoari gora ta goraka: izadi guztia, izar, zeru, zuaitz, landara, Jaungoikoa goratzen, eta gizona lotan. Jaungoikoaren onegiñak jakin eta eskerrak emoten egonbearleukena, lotan! Goazen, goazen mundura eta atera daigun lozorro orretatik».

Olantxe ustuten eban Mariak bere barrua bere estiasaldi askotan. Estasiok ez zituen beti berbazkoak izaten. Eta Baionako gotzaitegikoen aginduz moja-lagunak jaso eta idatzirik eldu jakuz ainbat olango otoitz eta biozkada. Olangoxe puzkaz eginda sorta loditxoa argitaratu zan 1922n. Arabiar mojatxo onen izena idazle eta kritiko askoren agotan ibilli da arrezker. Sortaldekoen irudimena eta antxiñako profeten eta salmisten olerkari-antza aurkitu deutsoe eskola bako onen, iñoz ezer idatzi bako mojatxo onen biotz-ixuri orrei. Eta errazoa emon deutsoe mojatxoak berak bein egindako autormenari: «Noizik bein neure biotzean txoritxo bat asmetan neban kantari». Txoritxo ori zein zan ez da gauza nekeza asmatzen. Berak ain benetan, lagun etorteko dei egiten eutsana. Pentekoste-egunean apostoluak ain adoretu eta berbaldun egin zituena: Espiritu Santua, arimen argia. Espiritu orrek laguntza emon eutsan utsik ez egiteko. Teologoak ez deutsoe aurkitu Jaungoikoaren berbaz bat ez datorren okerrik, eta literatura arloko maisuak berezko olerkarizat artu dabe, iturritik arako uraren, udabarriko loratxo barrien gozoa eta urten-barritasuna aurkitu dautse Mariaren loratxo orrei. Txoriak bere txintak lez jaurtiten ebazan Mariak bere otioztaldietako biozkadak.

Eta alantxe jazoten jakola dirudi. Txoritxoak ez daki zer egiten dauan bere txinta-soñuak jaurtiten dituanean. Olangoxea ei zan Maria be askotan bere estiasaldietan. Bera konturatu barik urteten ei eutsen berbak. Aldi ori joandakoan ez ei eban ezer gogoratzen. Alan be, olango estiasaldiak, Jaungoikoak eragiñak badira, ez dira alperrik jazoten, mistikoak diñoskuenez. Arimearen barrua garbitu eta sendotzeko izaten ei dira: arimearen barruko indarrak arteztu, baketu eta tentu obéan jartzeko, arima ori Jaungoikoaren graziak artzeko geiago egiña eta gertuago egon daiten. Jaungoikoa egiten zan orduan Mariaren barruko jabe. Une orretan Jaungoikoaren mende jarraitzen eban bete betean. Itxura baten, orduan lozorro baten mende egon arren, Jaungoikoaren eskuetan eta Jaungoikoaren esanera dago. Jaungoikoaren esanera eta bere nagusien esanera. Arritzeko gauzea zan: mojategiko ama nausiak agindu orduko zelan etorten zan bere senera. Lotsa-lotsaturik etorri be. Lotan egon zalakoan, parka eske antzean. Berak ez eutsen olango estiasaldiai garrantzirik emoten. Baiña Jaungoikoak be bere eskutik eukan eta bere argipean, ezer esaten ebanean sentzunezko ez zan gauzarik

esan ez egian, gauza eder eta onurazkoak baiño. Eta ez ori bakarrik: literatura arloan ondo aitua diran asko arriturik gelditu dira Mariaren itzak dauken lirika indarraz. Eta ago betean olerkarizat autortu dabe. Beronen miresle izan diran idazle ospetsu batzuk aitatzea naikoa izan bedi: Julien Green, M. Barrés, J. Maritain eta Francis Jammes. Azkenengo onek eske beroa zuzendu eutsan Aita Santuari, arabiar loretxu au altaretara jasoa izan zedin. Jammes au ta beste irurak be ez dira edozein gero literatura kontuan!

Maria ama nagusiaren esanera egote ori, barriz, ilda gero, bere gorpuan ikusi zan argien eta arrigarrien. Asi dira mojak gorpua ilkutxan sartzen eta gorpuak kutxatik kanpora ateraten zituen besoak beti. Barruan sartu eta kanpora bertatik. Olantxe beti. Onetan burura etorri jake bizian nagusiaren esana esan orduko egiten ebala. Ama nagusiak bere izenean eta aginpidez besoak geldi eukiteko agindu deutso. Esan eta egin. Andik aurrera besoak geldi euki zituen kutxa-barruan. Uda gero be, Mariak bere izena apal eta esanekoa ez dau ukatu. Ez da antxiña bateko ipuiñik. la gaurko egunetako egia baiño. Moja lagun guztiak lekuko.

Zoriondun barri au eta euskaldunak

Maria Baouardy oso arabiarra da, Nazaret ondoko sutaugille baten alabea. Baouardy itz orrek sutaugille esan gure ei dau; jaiegunetako suziriak egiten zituena ei eban aita, Gorka Baouardy. Baiña alaba onek ara-ona andiak erabilli zituen bere bizi labur guztian eta Euskalerritik urrin barik dagoan erri bateraiño etorri jakun, Paberaíño. Ez zan Euskalerrian bertan sartu, baiña bai euskaldun batzukaz artu-emonean bizi. Euskalerritik eldu jakon bere arimako arazoetan argia eta bakea. Baionako eleizbarrutikoa da Pabe, eta Baionako eleiz gizonen gaiñera etorri zan aren arimako arazoetan argia eta bakea egiteko ardurea.

Askot izan ziran Baionako batzordeak Mariaren bizitzan argitu bearrekoak: es-tasiak eta konorte-galtzeak; olango aldietan esaten zituen otoitz eta berbak; deabruaren mendean egoala zirudianeko aldia; etorkizunen iragarketak; oiñ-esku, bular eta buruan agertzen jakozan zauriak. Azkenengo au ez dogu aitatu oraintxarte. Askotan agertzen jakozan zauriak; eguenetan aunditu gorrizka bat agertu, barikuetan odoldu eta legortu eta joan. Ez eban bere izenaren geigarritzat bere asmo barik Jesus Kurutzekoa autatu. Jesukristoren zaurien maitale andia zan. Baionako batzordeak dana aztertu bear izan eban eta ez beingoan, ez dana ondo sakondu barik. Batzordearen erabagiak argi bai argi dagoz mojatxoaren alde, eta Baionako moja karmeldarren etxean dauke Zoriondun barri onen bizitza bat, eskuz idatzita, oindio argitara bakoa. Paben, santu euskaldun baten semeetako bat, Betharramdar bat, izan eban laguntzaillerik eta argitzaillerik leialena. Beronek idatzi eban bere konfesiñoko alaba eban orren bizitzarik zabalduenetako bat. Euskaldun jatorrizko onei, esker onez, Belengo karmeldegia egiterakoan, berak be Kristoren errialdean sartzeko atepak zabaldu eutsezan, 1875tik 1877ra.

Baiña, zeatzago esateko, betoz izenak, euskaldun laguntzaille batzuen izenak. Lacroix izan zan Mariaren bizi guztian Baionako gotzaiñ. Eta esan bearrik ez, berau izan zala Pabeko mojetxoren gauzak ondo aztertzeo ardurarik aundiena artu ebana. Eta Mariaren alde agertu zana be bai. Beronek lagundu eutsan Belenerako bideak atontzen be, Aita Santuari Belengo karmeldegia sortzeo baimena eskatuz. Ez zan euskalduna, euskaldunen eleiz artzaiña bai baiña.

Orregatik, izen au itxirik, goazen euskaldun garbiagoen izen batzuk ateraten: Bordaxar, Elizeiri eta Intxauspe kalonjea. Euskaldunoi, bear bada, azkenengo au egingo jaku ezagunen. Lacroix gotzaiñaren sekretario dabil urte areitan. Baiña era batera, Baionako moja karmeldarren kapellau be bada, eta Karmelgo Amaren Ordenaren eta monja ta praille karmeldarren maitetzaille andia dala bere euskerazko liburutan erakutsi dau. Beraz ez da iñor arrituko Baionako Gotzaitegipeko karmeldegien alde ta onerako egiñala egiteko prest egongo zana. Gaiñera, esan daigun beste berritxo bat, oso gitxik jakingo dabena; Intxauspe kalonjea Karmengo Iruugarren Ordenari bere izena emonda egoan, Jesus Kurutzekoaren Elias izen barriaz. Olantxe irakurten dogu Lazkaoko seme zan karmeldar bati bere *Le Verbe Basque* liburu lodi ederra eskintzeo idatzi eutsozan itzen azpian. Berak, eta beste biak, Elizeirik eta Bordaxarrek pozik eskiñi eutsoen euren laguntza Pabeko mojatxoari Paben, eta bere beste asmoak, Belengo mojatagia sortzeo ta aurrera eroaten. Euskaldunok euron oiñarritxoa ipiñi eben Zoriondun berriaren santutasuna argitzen. Eta argi dago euskaldunen artean dogula Zoriondun onen goraberak jakiteko eta aztertzeo artxiborik osoenetakoa.

Baionako moja karmeldarrak, biotzez, 1983ko azillaren 13n, Erroman egon zirean, aurki. An egon ziran guztiekaz gogoz bat eginda. Pabetik, Indiako Mangaloretik eta Palestinatikjoan ziran erromesakaz batera. An batu ziran neskame taldeakaz batera, euren bizimodua munduan eroan eban onen omenez.

Jesusen errialdeko erromesak euki zituen geien gogoan Aita Santuak be Maria Baouardy Zoriondun autortzeo beronentzat aparteko eguna izentau ebanean. Nazaret ondoan erne eta garatutako lorea izan da Maria. Ango Karmeldegien sortzaille. Bertan zabaldu dau bere eskua, bere erritarrai mesede egiteko. Ango umetxo bati egiña izan da Zoriondunen mailla au sortzeo bidea zabaldu deutsan miraria. Iru urteko umetxo bati egindako osakuntzea izan da. Izena ondo bertakoa dau: Khazneh Jubran Abboud. Jaio dan ezkerro, gatx tamalgarria izan dau: ibilli eziña, bere oin eta besoai eragin eziña. Bizkar azurretiko gatxa. Etxekoak euki gitxikoak dira, eta ez dakie zer egin: medikutan asteko ez dauke eskuarterik. Bai, ostera, siñismena. Eta Maria au bitarteko artuta Jaungoikoagana jo dabe laguntza eske eta bederatiurren bat asi. Zazpigarren egunean umearen oe aurrean otoitzean dagozala, ara non umea, oiñen gañean ez egoten ez ibilten ikasi bakoa, guztien aurrean oetik jagi ta ibilten asi jaken, eta osaturik gelditu bere bizi guztiko.

Aita Santuak beste asmo bat be euki dau egunen orretan: Kristo jaio zaneke errialdeetan bakea eta anai-giroa sortzea. Mundu guztian bear da bakea eta bakegiro ori. Baiña, nai dan ori lortzeo Espiritu Santuaren arnas barria eta Zoriondun barri onen bizitzako apaltasuna eta asmo zindo garbiak bearko dira, alde bateko nai besteko gizonen biotzetan.

RAFAELAIBARRA ZORIONDUN BARRIA (1843-1900)*

Urte baten barruan Aita Santuak birritako aldiz zuzendu deuskuz euskaldunoi berba gitxi batzuk euskeraz. Lenengoko aldiz igaz, 1983ko urriaren 30n, Domingo Iturrate Zubero, Bizkaiko semea, altaretan gurtzeko baimena ta erea emon euskunean; eta bigarrenez, amaika illabete geroago, aurtengo irailaren 30n, Bizkaiko alaba bat Zoriondunen maillara jaso dauanean. Batean eta bestean, Vaticanoko plaza zabal itzalean Aita Santuaren agotik urtenda, euskerazko berba batzuk entzun dira, eta bietan gauza bera esateko: «Jarraitu egizuez Zoriondun barria^{en} ikasbideak».

Oraingoan Rafaela Ibarra Aranbarri deritxonaren bizitzea ipiñi deusku eredutzat. Eta ezta, ez, berau edozelango eredia, gero! Santurik geienak antxiña bateko urriñean ikusten oituta gagoz. Martiri izan ezpadira, eta olan euren burua borerreruen eskuetan itxita unetxo baten illak ezpadira, geienak eleizgizon, moja edo fraile izanak doguz. Rafaela au ez; etxeko andra izan da, ezkondua, ainbeste seme-alaben ama, bere etxean eta auzoan bizi izana, eta ia geure egunetakoa. Ezkonduak, ezkongaiak eta alargunak eredutzat artu leikeena. Santu izatea kristiñau guztioi eskatzen jakun egitekoa dala oso gitxiren bizitzak diñosku andra onen bizitzak baiño argiago. Aita Santuaren euskerazko berbak zeri eztagokaia eztaoz. Eredue eder jarraigarrria daukagu guztiok Zoriondun barri onen bizitzan. Gaurko egunetako eredia, gaiñera. Ez gaitu antziña bateko munduan murgiltzen; gaurko eta betiko arazoai kristiñauari jagokon erantzuna emoten irakasten deuskuna da.

Santutzat euken aren ingurukoak bere bizian. II zanean, aren illeten barri zeatta emon eben Bilboko egunkariak, eta Donostian ateraten eben *Euskal Erria* aldizkariak aitamen ederra egin eutson. Eriotz arek lutuz eta atsekabez illundu eban Bilbo ingurua.

* Karmel 1984-3/4. 69-84.

Bilbo aldeko industringintzari aurrerakadarik kementsuena eman eutsan gizonaren, Gabriel Maria Ibarren alabea zan, eta Ibaratarren laguntzailerik zintzoena egin zan katalan baten, Jose Vilallonga zanaren emazte eta, azkenez, alarguna. Ibarra eta Vilallonga, biak, Bilbon eta inguruan sortu ziran era askotako ekintzarik andienen egille edo eragille edo laguntzaille agertzen jakuz XIXgarren gizaldiko bigarren alderantza: Barakaldoko Labe Andien sortzaille, Deustuko Ikastetxe Nausiaren babesle, geixoentzako eta ama barrientzako Hospital barriaren eta Ama-etxearen (Matemidad), Asilo eta beste antzeko etxe eta ekintzen eragille.

Eta gizonok euren arazoetan jo ta ke dabilzan bitartean, ola nausietako burdin-otsen eta burdin meatokietako burdiñen kirrinkarren artean, emakumetxo bat dabil, irribarre gozoa ezpanetan, eta bakezko eta maitezko begirada samurraren argia begietan, gizonaren ekintza guztiai eusten, batetik, eta guztiai, on egiteko bide barriak asmetan, bestetik. An dabil Rafaela, beartsu guztien ama eginda, batez be, laguntza-bear anditan eta edotariko arriskueta dagozan nesken jagole, babesle, aingeru zaintzaille biurtuta. Eztaroa alperrik bere izena, aingeru izena. Eta bere neke ta lanak naiko eztituala, bere on-ekintzetarako laguntzailleak billatzen eta bereganatzen ditu, eta or itxiko ditu bere ondorengotzat, berak asitako ekintzari jarraitzeko.

Nondik atera ditu, baiña, andra onek indarrak ainbeste lan egiteko, bere asmo on eta ekintzetan irauteko? Kristiñau-bizitza benetan artetik. Jainkoaganako maitasunak eta lagun urkoaganakoak jota dabil. Sifisimenak argitu eta otoitzak berotuta diardu, eta arimen eta gorputzen ona billatzen dau. Bilboko erreka inguruko giro atan, ezta dana irabaziak irabazi pillatu gurea, ez lurreko ondasunak ugaritu bear utsa; beste ondasun oberik eta gogoarentzako ondasunik billatu eta zabaldu gura dauanik be bada. Eta orra bat orretan bere burua gorde gura eztauana edo ezin dauana: Rafaela andra gaztea, apurka-apurka guztien agotan santu izena irabazten doana.

Gizarterako eta ezkontzarako azia

Baiña artu dagigun aria asiera-asieratik, eta jarraitu deiogun bere biziko ara-ona eta aldi nausietan.

Bilbon jaioa da, 1843ko urtarrillaren 16n. Gurasoak: Gabriel Maria Ibarra, arestian aitatu doguna, eta Rosario Aranbarri. Aita Bilboko aberaskumeetako zala be esanda dago. Andiki samarra. Andikitasun ori, orraitio, bere buru argi ekintza-asmazailleari eta lanaren lanari geiago deutso aurretikoen odolari baiño.

Bilboko zazpi kaleetan emon dau Rafaelak umezaroa, bein kale batean bein bestean. Bertan egin ditu lenengo ikasketak. Frantses-eskola be artua dau. Erestun eta guztiko eskolea, ain zuzen; baiña emen, andra bat zuzendari eukan eskola orretan, euskera egin dauanari barik Bilboko erdera egiten dauanari ipinten ei deutsoe erestuna. Ikusten danez, ezta beti euskaldunen aurka erabili izan zigorrezko erastun-oitura ori. Beste eskolaldi bat Baionan artu dau 1855 urte inguruan. Bilbotar askok dauke orduan Baiona aldera-ko joera, seme-alabak frantses izkuntzaren jabeago egiteko ara bialduta. Baionan be andra bat dau eskola-emoille edo eskolaren zuzendari. Mojatakoa ez zan

arren, mojategi askotan ez ei zan eroango etxe atan baiño legepe lotuagorik, ez Kristiñau-bizitza zeatzagorik ikasiko. Eskola atan ez ziran neskak ispilluari txitean pitean begira biziteko ezten. Ezta mojatako be, gizarterako eta etxeke andra onak izateko baiño.

Rafaelari laster etorri jako bizimodua artzeko erea. Ezkontzako bizimodua artzen dau. Nogaz? Aspalditxoan Ibaratarrak etxekotzat artuta euken katalanagaz, euren burdingintzarako laguntzaille burutsu eta asko ikasia eban Jose Vilallongagaz. Vilallongak Rafaela ume-umetarik bere begien aurrean azten ikusi dau. Bien artean ogetabat urteren alde dauke: Rafaelak, amazortzi urte; eta Josek, ogeta emeretzi. Ezkondu, 1861n egin'dira, eta ogeta amazazpi urtez, bikote zorionsua egin dabe, 1898n senarra il eta emaztea alargun gelditu dan arte. Zazpi seme-alaba ekarri dabez mundura, baiña bi umetan il jakez. Senar-emazte ondo alkartuak izan dira beti: alkarren lagun kutun izan dira atsekabetan nai pozaldietan, eta alkarren lagun, ez eukientzat nai beste edozetarako dirurik banandu bear edo nai ebenean. Bere bizian zear, amaikatxo diru-mordo atera ei eutsazan emazteak senarrari, berbatxo gozo bat esanda beste barik, beartsuen eskuetarako nai beste premiña batzuetarako!

Senarrak, azken baterako, ez bakarrik maitasuna, benetako itzala eta begirunea ei eutsan Rafaelari. Emaztearen santutasunak guztiz menderatuta ei eukan. Rafaelak, barriz, ez ekian bere senarraren laguntasun barik egoten. Jaungoikoagaz bakarrean egotaldiak egiten oitua egon arren, azkenengo urteetan eurentan be, senarrak urriñen batera egun luzetako joan bearrik eukanean, ikustekoa da zelango urrin-miña ta utsunea erakusten deutsan emazteak kartaz senarrari, bera ondoan barik onik ez eukala-ta! Jose geixorik eukanetan, ostera, nekez aldenduko zan bera aren oe-ondotik, bera geixozain bakar eginda.

Rafaelaren amatasuna be argi bai argi agertuko da bere seme-alaben kristiñau-eziketa aurrera eroaten, edo ta euretarikoren bat geixorik eukanetan. Azkenengo semeak, 1880n izan ebanak, zenbat buruauste eta joan etorri ez eutsazan ekarri, osagillerik osagille, Parisera, Bordelera eta abar. Eta amatasun zoli au ez dau bere seme-alabentzat bakarrik erakutsi. Bere illobentzat be bai. Rosarioa aiztea 1875n il jakon, bost seme-alaba umezurtz, ama barik, itxita. Bost umezurtzok noren eskuetan jarriko dira? Guztiak ago batez esan dabe: Izekotxok artuko ditu. Eta bai maitasunik zindoenaz artu eta azi be. Euretariko bat Julio Urkijo dogu, gerotxoago euskalarietan andienetako izango dana. Eta azken baten, alargun gelditu danean eta moja izateko erea sortu, ezingo dau mojatako gogoia bete. Zergaitik? Errana il jakolako, bere seme Marianok andrea galdu daualako. Onen seme-alaben ardurea, bere billobatxoen ardurea, berak artuko dau andik aurrera. Jaungoikoak nai dauan arte. Bere ama-magalean guztientzat dau lekua. Eta ama-biotza erakutsiko dau bere etxez kanpoko askorentzat, batez be, ama barik edo etxekeon bero barik aurkitu zituen neska gazteentzat, lotsarizko geixoak jota egozantentzat, edo bizimodu onik barik burua nora bota ez ekiela ikusten zituententzat. Bein santutasun bidetan, gogo ta biotz, bete betean sartu zan ezker bere errukizko eta maitasunezko egiñenetan argi-izpi ederrenak ixuriko zituen Rafaelaren amatasunak, laster ikusiko dogunez.

Santutasun bidea

Rafaelak Bilbon eroango dau bere biziko aldirik andiena: zazpi kaleetan lenengo, 25 urte egin arte. Ogeta bostgarren urtean, Ibaratarrak Deustuan, La Caba izeneko lekuan (Lakaba?), eregitako etxera aldatuko dira. Arrezkero an dau oizko egotetxea. Egotaldi labur gitxi batzuk egingo ditu, andik kanpo be. Esaterako, karlistak Bilbo inguruan artu eta Deustuko etxearen jabe egin jakezenez, zazpi kaleetara biurtu dira, eta andik be, azkenez, Santander aldera jo dabe. Egotaldi laburragoren bat egingo dau Madrillen, Parisen (bere geixoen bat edo etxekeen batena dala-ta), eta Barcelonan. Bestela, eztau bere txokotik alde egiten.

Emen galdu ditu bere etxekorik kutunenak: bere ume txiki bi, eta bere aizta bi (bata Urkijo Ibaratarren ama). Osasun billa joan zan baten, bere aurrean il jakon ama, antxe bertan, bapatean, Orleansko geltokian, 1883garren urtean. Eriotz guztiok eraso sakona egin deutsoe bere biotzean, eta gogoeta sakonak eragin bere buruari. Olan ikusi dau bere burua ritauntzen: «Zerurako jaiok bagara, zergaitik bizi bear geure aberri atarantza saiatu bear dogula aiztuta?»

Rafaela beti alegindu zan kristiñau onak bear dauan lez biziten. Bere barruak eta artu eban azierak ez eutsan besterik agintzen. Dantzarako zaletasunik ez eban iñoiz agertu, bein edo bein joan zan arren; teatroko ikuskizunetarako be ez, berez neska alaia zan arren. Etxeko bearrak, seme-alaben ardurak eroaten eutsen astirik naikoa, beste asti-emongarririk billatu barik. Joera onekoa zan elizkizun eta sakramentuetara. Eta borondate onekoa eta eskuzabala, inguruko premiña eta eskabidei begiratzeko eta ondo erantzuteko. Baiña kristiñau-bizitza benetanago artzea eta oiñari sedoagoetan jasotea erabagiko dau bein: 1876n izan zan, karlisten gerratea amaitu eta atzera, bereakaz batera, Deustura biurtu danean.

Urte orretako Karmen egunean, arima-zaindari bat artu eta aren eskuetan jarri dau bere bizitza. Arrezkero eguneroko egitarau zeatza ezarriko deutso bere buruari: eguneroko meza entzutea, astean beingo pekatuen autortza eta Jauna artzea (au laster eguneroko biurtuko dana), goiz eta arratseko otoitz ordua, egunero jainkozaletasuneko liburuak irakurtea, eta abar. Ama Birjiñearen Errosarioa beti esaten izan dau etxeko neskameakaz batera.

Otoiz-bidean Iñazio Deunaren Gogo-jardunetako arauen jarraitzaile zintzoa egin da. Bezpera-gauean urrengo goizerako otoitz-gaiak gertau, eta kontu zeatza eskatzen deutso bere buruari, otoitz-ordua zelan emon dauan eta zelango erabagi ta asmoak atera dituan andik. Santutasunera joteko bide ona daroa. Otoitza jainkozko jakituri bikaiñaren iturri dau. Andik ikasiko dau Jainkoaren borondatea eta maitasuna ezagutzen. An auznartuko dau Jainkoaren Seme Salbatzaileari zor deustan guztia, eta auznartze orretatik Kristoren bideari, nekeak neke, zintzo jarraitzeko indarrak ateraten ditu. Asko eskatzen deusku Jainkoak. Geiago da guk Jainkoari zor deustaguna. Eztogu iñoz zor orri erantzuteko naikoa egingo. Olango gogoetak ateraten ditu Rafaelak bere otoitzaldietatik, Kristoren misterioak sakonago eta maitezago auznartzetik. Entzuten dituen edo egiten dituen gogoeta batzuk untzez josita lez geldizen jakoz barruan: «Ezingo gara iñoz nekatu gure pekatuak merezi daben beste; ezingo gara iñoz nekatu,

gure arimen Eroslea nekatu zan beste; ezingo gara inoiz nekatu Jainko zuzenak eskatzen deuskun beste».

Gero, santuen bizitzak eta kristiñau-bizitzako maisuen liburuak irakurteak jakitunago eta argituago egiten dabe santutasunerako bideetan. Eta laster bigarren jaiotza esan geinkena jazo jako: Jaingoikoganako bigarren biurraldia. Iñazio Loiolakoari santuen bizitzak irakurtzean jazo jakonaren antzekoa. Barcelonan izan zan baten, 1878n, izan da. Salesko Franziskoren *Philotea* liburua irakurten dagoala jazo jako. Berak autortu deusku: une atan bapateko argitasun bizi andia egin ei jakon barruan, eta bertati asi ei zan bere burua oso-osoan onbideari emoten. Arik aurrera, eztau ezek artutako bidean atzeratuko, ez dau izango epeltasunik edo loka ta alderoka ibilterik.

Lagun urkoaren onerako lanetan

Otoitzak, Jainkoak, lagun urkoagana daroa. Otoitz-bizitza ezta norbere barruan murgilduta, zokondo baten burua gordeta bizitzeko. Otoizlariak eztau Jainkoa bereztako bakarrik gure izan bear, ez Jainkoaren ondasunak beretzako bakarrik gorde bear. Jainkoa, maitasuna bera dan Jainkoa, maitasunaren bitartez, eta batez be, maitasunak eragiñiko on egitearen bitartez, lagun urkoari eroaten alegiñak egin bear ditu. Otoitz berekoaia, besteakana zabaltzan ez dakiana, ezta otoitz garbia, ezta jatorra. Otoitzik bako, edo Jainkoagan sustraitu bako onegintza be, askotan agertuko da itxurazkoa eta ustela. Rafaelak bere barruan jaun ta jabe osotzat daroan Jainkoa, Jainko onen maitasuna ta errukia, inguruan ikusten dituan ainbat zorigaiztoko lagun urkoai eroan nai deutse: geixoai, ez eukiai, lanik aurkitu eziñik dabilten edo lanbidea galdu daben langille'e'i, lotsa galdu edo galtzeko arriskuan dagozan neskai.

Bere ama-biotzak maiteen dituanak neska gazteak dira. Euren egoera larri arriskutsuak emoten deutsoe errukirik andiena. Bilbo aldeko industrigintzak eta langintza ugariak lagun barri asko dakar ingurura. Neskak be asko bai asko datoz, sarritan edo geienetan nok jaube egin ez nok zaindu eztaukela. Eta asko merkatari zikiñ lizunen atzaparretara datoz. Atzapar zikiñotatik, askok, lotsarizko geixoak jota, geixoetxetako gelarik baztertuenera bota bear dabe euren burua. Olango zoritxardunakaz aurduratzen eta eurak bide obero ekarten, urte luzeetan badarabil Rafaelak buruausterik eta diru-eralterik! Lenengotan, atarako sortuak diran moja-talde batzuekaz batera ibilli da. Ardura au aspalditxotik erabilli dau. Olango mojak Bilbora ekarten eta eurentzat moja-etxeak eregiten asko lagundu izan dau, bere diruaz eta bere etxekoenaz. Or dagoz Ama Sakramentoren alabak *Adoratrices* izenekoak. Or dago Neskameentzako sortutako moja-elkartea. Juana Bizenta Lopez Bikuña da euron sortzaillea, gaur santuen maillan altaretan doguna Rafaela bera baiño gazteagoa, eta laster ezagutu eta adiskide egingo dauana, Naparroako alabea. Olango moja-etxetan neska asko sartu ditu Rafaelak eta bere eskupeko ederrez lagundu, baiña eztau bakarrik ibilli eta lan egin gura. Beste emakume on asko asmo on beretan sartu ditu eta eurekaz alkartasunean dabil. Guztien artean alkarte bat sortu dabe, Rafaela buru ta idazkari dabela. Eta egunero dabil berau ara ta ona, batera eta bestera, bere zaldiburditxoan sartuta. Orduan ez egoan beste ibilmodu oberik. Asteko egun guztiak daukaz izen-

tatuta, edo Hospitalera, edo kartzelara, edo Asilora, edo Maternidadera, edo beartsuen edo geixoen etxeetara joateko, non zer premiña aurkituko, non nori zetan lagunduko, edo poztasunen bat emongo.

Guzti au gitxi dala, La Cabako bere etxea zabalik dauko, etorri nai daben guztien premiñen barri entzuteko eta berak al dauan neurrian laguntzeko. Etxe barruan artzen eban etorren guztia, askotan etxea bete lagun. Baiña ori etxeokoi nekagarri egiten jakela-ta, atari aldera aldatu bear izan dau jentea artzeko lekua, burdi-leku ondoko salatxo batera. Iñoiz, egun berean, berrogeiraño etorri ei jakozen. Nortzuk ziran? Edozetariko premiñadunak: lan-billa, diru-billa, gomendio-eske eta olan. Guztientzat eukan abegi ona, eta zelanbaiteko erantzun egokia. Gero, senarrak beretzat isten eutsan diru guztia orretarako eban: beartsuai emoteko.

Zer dau andra orrek?

Rafaelaren irudia eta aren joan-etorriak oso ezagunak egin ziran Bilbon. Beti txeratsu, beti maitagarri, beti bere irribarretxo gozoa ezpanetan, iñoren zer-esanen bildur barik, beti apalik, bakezko arpegikerea ebala eta bape apainkeri bako jantzi, askotan marastutxoak, soñean. Jainkoaren borondatea egiten ebala jakin ezker, ez zan ezer ari atzera eragitekorik, ez miñik emotekorik. Amaikatxo jentemodu erre gogaitu eta zitali arpegi emon bearra jazoko jako, barriz! Jazoera batzuk emongo deuskue ondoen emakume sendo onen barruko andiaren neurria. Jakiña, zorigaiztoko nesken merkatari lizunak ezin eutsoen begi onik egin. Bat edo beste euren atzaparretatik atera ebala-ta, iñoiz kaleak zear jarraitu eutsoen, andra ta gizon, zarataka ta añenka. Baiña, ba ekien berak, olangoai arpegiz arpegi erantzuten eta ikara andi barik esaten be: «Zuok ez zarie neska onen jaube, eztozue onen gañean ezelango eskubiderik. Dana dala, ni ez noa iñor gogorrean eroaten. Bera da bere buruaren jaube. Esan dagiala berak. Ia, zuk nogaz joan gura dozu, onekaz ala nigaz?» Neskeak Rafaelagaz joan gura eta Rafaelak eroango dau, eta berak ipiñiko dau bizimodu garbia eroateko bidean.

Neska guztiak ez ziran ezpal on bardiñekoak, orraitio. Bein, olango bategana urreratu da Rafaela. Eta lenengoko erantzuntzat zer artu dau? Arpegi arpegian zaplada gogorra. Rafaelak, zirkiñik egin barik, eztau bere arpegiera gozoa aldatu. Orduan eta samurrago eta maitezago berba egin dautso. Eta neskea, lotsatuta, damututa, Rafaelarena egiñik gelditu da.

Beste beñ, beste andra batzuk ezin baketu daben gizon bat da. Eleizgizonen batek irain gogorregien bat egin deutsalata, beti aurkitu dabe txori gorria dariola, birao utsean. Urriñetako egunkarietaraiño zabaldu bear ei dau abadeak egin dautson zitalkeria. Eta, azken baten aldean ei daroa iraintzailleari bizia kentzeko zera be. Rafaelak ez ete dau baketuko? Eta lortu dabe aregana bialtzea. Rafaelagana eldu daneko, betiko zaparradea dator gizonaren agotik. Luze bai luze diardu birao baten bere asarrea ustuten. Rafaela ezta bape ikaratu. Bake-baketan entzun deutso dana, arik eta bere barrua guztiz ustu dauan arte. Zetako ikaratu? Entzun dituan biraoak, gizon arenak ete dira, ala deabruak berak erasoak? Gizona ixildu danean, Rafaela

asi jakon bigun bigun eta gozo gozo itz egiten, gizonaren barruko moropilloa askatzeko etxekoen barri eta bere bizitzako barri eskatzen, eta olan. Ia iru orduko berbaldia euki dabe biak alkarregaz, eta azkenerako gizona bake-baketan gelditu da, eleizgizonaganako amorrua eta asmo txar guztiak itxita, Rafaelaren ontasunak irabazita. Eta dana parkatuta eta aitzuta gelditzen dalako berbea emon deutso andra onari. Eta onek, agur egitean, eskupeko ederra opatu deusanean, «ez, diñotso gizonak, limosnatzat emon gura badeustazu, artuko deustut; baiña, neure berbeari eutsiko dodalako ziurgarrizat bada, iñondik iñora be ez». Andik aurrera Rafaelak gizon orregan lagun eta maitale andi bat dauko. Eta ona Rafaelak atera dauan eritxia: «Gizon ori ez zan gaiztoa, bere barruan onalde askoko gizona zan: baiña jakin egin bear guk, euren barruko giltza joten, barruko ondasunak kanpora atarateko laguntzen».

Rafaela, geixo-etxean sartu ta urten lotsarizko gatzak jotako nesken billa ebillenean, geixo askok esaten ei eben: «Baiña zer dau emakume onek, bere betiko irribarretxoagaz, bere jazkera illun maraztutxoagaz, guztion biotzak irabazi eta atzean eroateko?» Maitasunik eta errukirik samurrena deutse, izan be, pekatu loiezko bizitzak geixotutako neska zorigaiztokoai. Orduan Atxurin zan geixoetxean aparteko sailla euken olango geixoentzat. An izango zan bera euren oe-ondoan, ia egunero. Bein osatuta urten orduan, salbabidean jarri nai zituen. Lenengo barruleku baten sartu eta bearlekuen bat ikasita, eurak euretara bizimodu garbi jasekoa eroateko bidean jarriko ditu. Ama-biotzaz berba egingo eutsan bakotxari: «Ene alabatxoa, ikusten dozu zer irabazi dozun, zelango saria emon deustun zugaz merkataritza egin dauanak: deabruak eta deabruaren lagunak. Ikusten dozu zelango egoera errukarrira ekarri zaituen. Orain bertan bera itxi zaitue. Orañ iñok ez zaitu maite. Emendik aurrera neu izango nozu laguntzaille. Zeuk nai badozu, neu izango nozu ama».

Euren ongillearen arpegiera gozo eta irribarretxoduna guztiak atsegiñez ikusi arren, ez ziran guztiak aren esanera gelditzen. Berak be ez eban iñor beartu gura. «Zeuk nai ezpadozu, ez naiatzu geiago etorriko eta kitto». Baiña urrengo egunean oe-ondora ezpadator, geixoak ez dau onik. Edo ta ez ikusi egिñez beste geixo bategana badoa, geixoa bera larrituko da: «Zer, ez zatoz gaur nigana? Zergaitik ez deustazu gaur «ene alabatxoa» esaten? -«Zeuk gura ez nozulako. Zeuk amatzat artu gura ez nozulako». Olantxe, apurka apurka bein muker egonak Rafaelaren eskuetan jarten dira gero ta geiago.

Berez joakon begia kalean deslai ebiltzen neskatoakana. «E, zu, Luisita, nondik nora zabiltz» Eta neskatoak: «Ni ez naz Luisita, Maritxu baiño». -«A, Maritxu, ni Rafaela Ibarra naz, neskatoak ain maite dituana. Etorriko ziñatekez domekan neure etxera, La Cabara? Zeozer izango da zuretzat». Olantxe bereganatzen zituen neskato bat baiño geiago, eta eskolatze bidean ipiñi. Aldikada baten eguneko paperak saltzen ebiltzen neskatoakaz erabilli eban naikoa lan. Errukarren ikusten zituen, txakur andia emoteko orde, gizon lizun batzuk pesetakoa emonda, errez eurenganantzen eta pekaturatzen zituelako. Etxea ta eskolea ipiñi eban olangoak azi ta ezteko. Askotxok uts emongo eutsoen, baña bat edo bati on egin ezker, ez eban guztiai on eziñaren damurik. Baiña uts emon eutsenak, alde egin eutsenak be «ama ta amaka» agurtzen eben kalean aurkitzen ebenean, eskupekoren bat artzeko pozean bazan be.

Nori itxi berak sortutako ikastetxea ta erakundea?

Rafaelak bere asmoak zituen neska gazteentzat on egin gura orretan. Bitariko elburua zan berak gogoan erabillana: arriskuan egozan neskatoak, gurasoen babesik ez eukenak, munduo arriskuetaik kanpo gorde, eta neska aziagoentzat egotetxeak ta ikastetxeak ipiñi, lanen bat ikasi ta munduan bizimodu ona eroateko gertau arte. Asmo orretan ipiñi eban lenengo Emani kalean, eta gero Santa Maria kalean olango etxe-eskola bat, eta dana be gitxi zala-ta, azkenez Zabalbide kalean ikastetxe ta egotetxe barri zabal ederra. Noren eskuetan itxi etxe barri ori eta erakunde guztia? Berak ezagutzen zituen eta ainbeste lagundu eutsen alkarteetara joko dau. Alan, Bizenta Lopez Bikuña naparraren alabetara (Servicio Doméstico), Ama Sacramento edo Mikaela Mariaren alabetara (Adoratrices). Batak eta besteak erantzun eutsoen Rafaelaren asmoak ez zirala euren alkarteen asmoetan sartzen. Begoñako Refugiokoak be, bardin.

Argitasun billa batera ta bestera jo, eta bere zuzendari ta onularien erantzuna argi ta garbi etorri jakon: «Zeuk izan bear dozu zeure erakundearen buru ta zuzendari». Jainkoaren borondatea zala-ta, guztiz apalik eta bere biotz adoretzuaz, atara jarri zan bera. Berak artuko dau Emani kaleko eta Santa Mariako etxeen zuzendaritza. Berak artuko dau Zabalbideko Etxea eragiteko ardurea. Berak egingo zituen etxe aretarako arau ta legeak. Moja-alkarte barri baten oiñarriak jarririk itxi ditu. Izen egokia ipiñi deutso erakundeari: Aingeru Zaindarien. Neska kristiñauen arriskurik andieneko adiñean euren aingeru zaintzaille izan gura izan dau, eta Angeru Zaindarien erakundea itxiko dau bere ondorengo izateko, bere lanari ekiteko. Baiña bere amesik andiena mamitu barik ilgo da. Eztau izan Zabalbideko etxe ederrean bere lagunakaz batera sartu ta euren lana barrutik zuzentzeko zorionik. Bideak ez jakozan erreztu. Besterik egoan Jainkoaren asmoetan. Senarra galduta alargun, eskontzako lotura barik gelditu dan arren, bere seme-alaben eta billoben ardurak bere etxeari lotuta dauke munduan oindiño. Bera amatzat dauken Zabalbideko alabak eta neskakaz arduratu, guztiai zuzenbideak emon, dana bere Deustuko etxeko eginbearrak itxi barik egin bearko dau.

Azkenengo borondatetzat Kristok bereai emondako agindua bera emongo deutse bere alabai: maitasun agindua. Maitasuna alkarren artean, eta maitasuna euren ardurapean daukezan neskato eta neskai. Euren ardurapeko nesken aldera erabilteko maitasun ori sendotu gura leuke geien bere alaben biotzetan. Amaren egitekoa bete bear dabe, neska areek etxeko amaren utsunerik asmau ez dagien, eta egiteko ori ondo egiteko, ama-biotza bear dabe, berba gozo legun bigunak erabilli bear dabez; iñoiz be ez gogortaderik.

Berari, iñorentzat iñoz arpegiera gozo baketsua aldatu ez dauanari, ez deutso biotzak besterik agintzen. Eta olantxe maitasunaz jokatu dau beti. Bardin egin bear dabe bere ondorengotzat isten dituen alabak, etxean artuta daukezan nesken aingeru zaintzaillea eta benetako ama izateko. Rafaelak berak egin dituen beste gauza on asko ezingo dabez egin. Ezingo dabe, esaterako, La Cabatik berak egin dauan lan guztia egin: an ainbeste nekedenen premiñak entzun eta ainbeste diru-laguntza zabaldu, andik egunez nai gabaz jakiñiko geixoen etxeetara joan eta iñoz gau osoan

geixoari lagundu, eta abar. Lan orretan eztau ondorengorik izango. Baiña beste aingeruen egitekoan, or dagoz Zabalbiderako lagun artu dituenak, bere egiteko kunitunaren jarraitzaile izateko. Bere neska maiteak ez ditu esku txarretan itxi.

Zabalbideko Ikastetxe orretara 1899ko Gabonetan egin dau azkenengo agerraldia. Eta egun areitan azkenengo gatxa azaldu jako: gibelesko biziena, bekokian tximurrik erakutsi barik betiko irribarretxoaz eroandako gatxa. Baiña Zabalbideko etxeak azkenengoz kezkatxo bat ekarri deutso. Berak uste baiño neska geiago artu bear izan ditu bertan, euneraño. Eta itxi dituen diruakaz eztago guztien eguneroko janaritako beste. Berari eukazan ondasun guztiak agortu jakoz. Nora joko, eta Bilboko andra ongille kutun batengana jo dau kartaz: Kasilda Iturrizar, Epalzaren alargunagana. Laster munduari agur esateko ordua elduko jakon ezkerro, zerutik al dauan bestean eskertuko ei deutso. Iturrizar andra alargunaren baietzagaz kezka guztiak joan jakoz eta bake baketan ilgo da 1900ko zezeillaren 23. Baiña itxuraz osasun onean egoan andra ongillea bezperan il da. Urrengo egunean Bilbok illeta bi, bere kaleetan iñoz ikusi izan direan ikusgarrienetakoak ikusiko ditu: goizean, Iturrizar, Epalzaren alargunarena, eta arrastian, Rafaela Ibarra Vilallongaren alargunarena.

Eztoguz Bilboko andra ongille biok alperrik batera aitatu. Kasilda Iturrizar Rafaela baiño aberatsagoa zan, aurki; eta Rafaelak baiño diru geiago zabaldutakoa be bai, alde guztietara eta ekintza guztietarako. Zetan da bata bestea baiño geiago? Non da bien arteko aldea? Bat onetantxe esango neuke nik: Rafaelak eukan guztia emonaz gaiñera, bere biotza emon ebala, ingurukoen gatx ta premiñak ur-urretik ikusi eta bizi zan zituela, Kristoren maitasun eta errukiaren ikutuaz igurtzi zituela zorigaitzokoen zauriak, biotzetik biotzerakoa izan zala andra onen txiroakanako eta geixoakanako ekintza guztia. Ondo konturatu zan orduko Bilbo: santatzat eukan eta santa izena emon eutsan il zan egunetik aurrera. Eta ez bakarrik Bilbok, Bilbotik urriñeko askok be bai. Ez bakarrik Eleizearen seme zintzoak, arerioak be bai.

Urriñetik eldutako eretxi bi aitatuko doguz emen. Lenengoa, Madinabeitia, osalariarena. Azkenengo geixoan osalari fedebako orren eskuetan ipiñi eben geixoa, semeak Madrilerana eroanda. Eraso andia egin eutson Madinabeitiari geixoaren bakeak, eroapen eta zendotasunak. Eta arena lango federik ez ei dau iñoz ikusi. Eta autortu bearrean aurkitzen da guztiak, alde eukazanak eta ez eukazanak, arrimenaz eta begirunerik andienaz aitutzen ebela Rafaelaren izena.

Ilda egun gitxi barru dator Salamancatik beste autorpen bat: Aita Cámara, ango gotzaiñarena. Kasilda Iturrizar zanaren eskuzabal eta diru-zabalketak gogoratzean, ezin dau aitatu barik itxi gure Rafaelaren izena. Eta zer diño? Askok bai askok bere bizian santatzat aitatu ebela, aren arpegiko bake ta gozotasunean berak beti ikusi ebala arima santu baten erraiñua ta dizdiza, eta siñiste osoa dau, andra orren otoitz-bizitza ta on egin bearrezko ekiña ikusita, bere egunetako andrarik on eta onegilletaketakoa ezagutu dauala (Salamancako «Basflica Teresiana» aldizkarian idatzia, Rafaela il eta urrengo egunetan).

Gaur Eleizearen autormen eder argiagoa daukagu. Milla bederatzireun eta ogeta bederatzian asita, santu izan dan ala ez erabagiteko auziak aurrera eroanda Rafaela Ibarra Aranbarri altaretan gurtzeko bideak zabaldu deuskuz. Bizkaiko alaba au zo-

riondunen maillan ipiñi deusku eta Aita Santuaren euskerazko berbak ezin egokiago datoz: «Jarraitu egizuez Beata barriaren ikasbideak».

Andra onen santutasuna edozein kristiñaueri jagokona da, edozein bizimodutan lortu leikena. Jaungoikoagazko alkartasuna eta lagun urkoagazko alkartasuna, besterik ez dau eskatzen. Orixe neurri on baten lortu bear. Rafaelak Jaungoikoagazkoari lenengo lekua e.mon deutso bere bizian, bein Jaungoikoarena osoan izatea erabagi eban ezkeru. Otoitzean billatu eta gero ta geiago aurkitu dau Jaungoikoa, eta otoitzetik atera dau onegintza guztietan sartzeko indarra ta adorea. Bai etxekoandreamen egitekoetan, eta bai gizartearen onerako ekintzetan. Otoitzak minberago eta begi argiagokoa egin dau ingurukoen egoera ikusi ta sentitzeko: txiroen ezinbizia, geixoen errukarria, neska gazteen arriskuak. Urrin joan barik, aurean dauko zeri ekin, nori zetan lagundu, begiak argi erabilli ta ikusi nai izan ezkeru. Errezena da, gitarratxoa artuta, Vietnango gerrea madarikatzen astea, edo «Bera au» edo «Bera bestea!» zarataka kalera urtetea.

Ezta naikoa ta ezta gatxa, erria gora ta erria bera, txiroen alde urten bear dala-ta, testigantza emon bear dogula-ta, berba utsean ekitea. Rafaelak jakin dau gauza bearrezkoagorik egiten. Otoitzetik kalera be urten dau eta aurkitu dau an zer egin: langillen premiñak ikusi, askorentzat lana billatu, beste askoren eskuetan eskupeko lodiak itxi, geixoakana joan eta euren miñak arintzen eskuzabalez eta ama-biotzaz lagundu, nesken duintasuna zaintzearen eurentzat ikastetxeak eta egotetxeak ipiñi. Nesken alderako ekintza au, neska deslai eta laguntzarik bakoena eskolatu eta gizarterako gai egiteko sortu dauan erakundea, gaur munduan zear zabaldu dago eta Rafaelaren ekintza aurrera doa. Orra zoriondun barri onek egiñiko lana, ixillik eta apalik, zarata barik emon dauan testigantza, gure munduak berbaz oparo emon oi dauana eta egitez emoten ez dakiena.

Domingo Iturrate zoriondunen maillaratzeko egun andian, fraile gazte onen irudia Vaticanoko ormetan agirian ipiñi eben egunetan, Italiako gaztelari batzuk, mundu-gizonen neurri ta irispede utsak erabilliz, Bizkaiko seme arek gaurko munduarentzat zer esanik gitxitxo eukala bota eben. Oraingo Zoriondunagaitik ezin izan dabe olangorik esan. Zoriondun barri onen bizitzak badau zer esanik gaurko munduarentzat. Erakundeak nok eta noz aldatuko begira egon barik, mundu barri ohea sortzen ekiñaz santutu izan da. Eta mundu guztira zabaldu dau bere eragiña.

Aita Santuak euskaldunoi euskeraz esana ondo dago. Baiña kristiñau-erri gutiarentzat eta mundu osoarentzat oso arira eta erara dator. Mundu guztiak dau Zoriondun barri onegan zer ikasi eta zeri jarraitu. Rafaelaren jokabideari jarraituz aurkituko dau munduak ondoen gizarte obe zoriontsuagoa sortzeko bidea.

L'ABBÉ PIERRE*

Ebanjelioaren ezagutzarik dutenek badakite zer dan eta non dan Emaus: Jerusalendik oso urruti gabe dagoen Palestinako errixoa bat dala. Badakite noski an bein gertatua ere. Jesus gurutzean il ondorengo egun batez, ain zuzen Jesusen bi jarraitzailei ez-ezagun bat bide-lagun egin zitzaien, eta arrats berandua zala-ta, aparia eta gaberako ostatua eskiñi zioten beren bide-lagunari, beren borondate ona onartzeko arren bai arren eskatuz. Jesus bera zan bide-lagun egin zitzaien ori.

Eztakit Lukas Ebanjelariak jakin arazi digun gertaera onek bururatu zion ala ez Abbé Pierre degunari beronek sortutako erruki-ekintza batzuei *Emaus* izena ezartea: *Emauz Alkarte*, *Emausko Lagunak*, *Emausko Zarpil-biltzaileak*, eta ola.

Alkarteok edo taldeok sortu, orretarako sortu zituen lenbizikotan: non bizi etzuten txiro eta baztertuei aterpea, ostatua billatu eta emateko. Fedeak esaten zion, nonbait, bidebaterretan edo kalegorrian bertan bera eta deslari aurkitzen zituen aiei aterpea billatu eta ematea, kristauak bidelagun duen Kristo ez-ezaguna ostatuz artzea dala.

Nor da Abbé Pierre?

Nor degu, baiña, Pierre apaiza degun au eta zer dira izatera ekarri dituen Alkarte, lagun eta taldeok?

Frantzian, Lyon-en sortu omen da bera orain 73 urte, 1912n. Benetako kristau izena Henry Groués omen du. Abbé Pierre ez-izenez ezagutzen dute orain mundu guztian.

Emeretzi urte zituela, kaputxinoen artean sartu izan omen da fraide izateko asmotan; baiña fraide-asmoak laster utzi eta apaiz egingo da eta Grenoble uriko parroki

* Saski-naski (1985, 26.zenb.) 8-16.

bateko erretoretza emango diote. Onetan, Europako edo mundu guziko gerrate andia dator. Alemanek, luzaro gabe, azpian artu dute Frantzia. Egoera beltz lotsagarri onetan, frantzesen artean al duenak al duena egiten du atzerritar zapaltzailleen aurka, aiei azpi-jana egiten beintzat. Abbé Pierre gaztea ere aien aurkako ixil-ekintzetan sartua ibilli da.

Garaitza etorri eta pakea egin daneko, su ta ke diardute frantzesek gerrateak ekarritako kalte ta triskantzak osatzen. Egoera, pixkanaka, lenera dator, Baiña...

Gizonen ekintzetan noiznai gertatzen da *baiñaren* bat. Begien aurrean ditugun arren, sarri gelditzen dira zokoren batzuk ongi ikusi gabe, edo ta zuzengabeko egoera batzuk garbiketa zeatz eta zuzenagoren baten eske.

Abbé Pierre onek begi zorrotz argiak ditu iñor gutxik jaramonik egiten dien ezin-biziak eta egoera errukarriak ikusteko. Berak iñoiz aitortua da Jainkoak aparteko begi zorrotza eman diola jenderik beartsuenak eta premiarik estuenak non dauden usnatu eta igartzeko.

1954ko deia

Ala, 1949an asia da bera lanean eta bere lanetako lagunak biltzen. Urte gutxiren buruan, Abbé Pierre entzute andiko gizona egiñik daukagu. Diputadu ere atera dute Parisen. 1954ean, eta neguaren biotzean Parise dardaraz jarriko duen oiua jaurtikiko du.

Zer gertatu da? Negua aspalditik gogorrenetakoia izan dala. Eta ara: Parisko kale bazter batean, adiñeko emakume bat agertu da, otzak illik. Eta gaiñera papertxo bat aurkitu diote eskuetan: bizi dan etxeko ostatua ustu bear duelako abisua. Aurtxo bat ere aurkitu dute, otzak gogorturik illa. Non eta bere etxekoekin batean, gaberako aterpetzat artuta zeukaten autobus zar baten bumizko puska artean. Paristarrentzat olako ikuskizunik ikusi bearra ez ote da lotsagarri baiño lotsagarriago? Apaizaren deiak bazterrak iñarrosi ditu: «Adiskideok, lagunok: atozte eta lagundu egiguzute. Gaur gabean bertan, Parisen, bi millatik gora dituzute kalegorrian, lo egiteko aterpe gabe, agora eramateko ogirik gabe, otzak gogortzen, otzez iltzen. Entzun, entzun; eta ona zer egin bear dugun».

«Emausko Lagunek»

Dei orri ez zaio gorrarena egin. Eta orra Abbé Pierre-ren ekintzak indar berriak eta bultzada berria artu. Premian daudenentzat non bizi, non lo egin, non aterpea aurkitu, izango da lenengo egitekoa. Orretara jo dute apaiz onen eta bere lagunen alegiñak. Eztabe jo asko eta gaiñezka dutenen ateetara. Ezta ori apaiz onen jokabidea. Laguntzailleak kalean bertan billatzen ditu: baztertuen artean, arlote, eskale eta espetetik irtenberrien artean. Orraitio, etorriko zaio besterik ere, «besteak zoriontsu egin

gabe berek zoriontsu izatez lotsa direnetakorik ere». Ez ditu olakoak atzera botako. Besteekin batean, alkarte berean sartu beariko dute, eta alkarrekin bizi eta lan egin. Eta or dijoaz guztiak, alkarturik, etxez etxe eta kalez kalez, «Emausko zatar-bitzaille» egiñik, egunero zerbait ekartzten: zatar, egunkari-paper, etxeetako jazki eta ontzi edo tresna zar, eta abar.

Nola nai eta alare bizi diranen ondakiñekin miraria egiten du: ondakin aiek urre biurteza. Urre orrekin, olaxe ateratako diruarekin, laster 8000 aterpe eraikiko ditu. Olaxe kalegorrian bizi ziran ainbeste txiro, gizarteak bazterturik zeuzkanak, beren etxetxoan jabe egingo dira. Olaxe, lenago bizimodurik ez zuten askok, Emausko taldeko egiñik, lana eta bizi-poza aurkitu dute eta, era batera, are zoriontsuago egin dira, beste askoren biotzetara zoriona eramanez.

«Emaustarran» entzutea laster zabalduko da Frantzian zear munduko bazter guztietaraino. Batez ere Ameriketan. Entzutearen ondoren, izena zabalduaz batera, esan bearrik ez, Alkartea bera, taldeak berak dijoaztela. Frantzian bertan ba omen dira berrogetamarretik gora talde edo alkarte. Atzerrietan beste ainbeste ba omen dira. Amerika guztian sartuta omen daude. Talde bakoitza, batez beste, 85 lagun inguruk osaten omen dute, baiña badira lagun geiago dutenak ere. Brasilgo batek, esaterako, 800 lagun omen ditu.

Emaustarren lana

Gaur, talde auek ez dabilta guztiak lan berean: talde bakoitzak aztertzen du lekuan lekuko egoera eta zein arazori ekingo dion. Gaur, arazorik aundienak drogak, lanik-ezak eta gaizkintzarako joera dira. Taldeak egoera aztertu eta jokabide egokienak erabaki bear ditu. Eta gero maitasunez, bere burua osoan lagun urkoaren alde eskiñiaz lan egin. Orixe eskatzen dio bakoitzari Abbé Pierrek.

Emausko alkarteetara sartzten danak badaki zertara datorren: bere lanaz batera, bere burua eskintzera, Emate onetan lortuko du Emaustar bakoitzak bere lanean poza ta atsegiña aurkitzea. Poz au eskiñita irabazi ditu Abbé Pierrek bere ekintzetarako bat baiño geiago.

Iñoiz etorri zaio biziak aspertu eta osoan etsita dagonik. Bein bere buruaz beste egiteko, bere burua iltzeko prest zegoen bat aurkeztu zaio. Bere aita il zuen bat zeukan aurrean: espetxean urteak egin ondoren barkamena lortu eta kaleratua. Noraezean dago. Bizitzak ez dio iñolako pozik opatzen. Apaizak eztaki gizon zorigaiztoko orrekin zer egin. Eta, azkenez ba-diotsa: «Benetan zorigaiztokoia zera eta nik ez tut zuri ematekorik ezertxo ere. Baiña zuk, bai, zuk egin dezakegu zerbait neretzat. Eskale natorkizu». Eta zer eskatzen dio? Bere lagunartera etortzea, bere elkartean premian daudenai laguntzera sartzea. Gizon zorigabeko ark besteai laguntzen eta besteen zoriona egiten aurkitu zuen beretzat zoriona eta bizi-poza. Andik ainbat urtegarrenean, alkartean lan egin ondoren, gizon ori azkenetan zegoela, bere nagusi zuen apaiz oni autormen au egin omen zion: «Zuk orduan dirua edo beste laguntzarik eman bazenit, ni neure iltzeko erabakira itzuliko nintzan; nik bizitzen jarraitzeko arrazoiak bear nituen, eta zuk, ain zuzen, orixe eman zenidan; orixe aurkitu nuen nik zure Alkarteko lanean».

Zoriontsu izateko biderik egokiena

Askotan gazteak, droga zaleak, beren burua nora bota eztakitela daude. Inguruko gizarte-giroa iguin dute; bizia ere gorrotatzeraíño egoeran bizi dira. Eta Abbé Pierrek orixe eskintzen die: egiteko eder zoriongarri baten sartzeko aukera, besteak zoriontsu egiñez norbera zoriontsu izateko modua.

Norbera zoriontsu izateko ez omen dago eskola egokiagorik. Besteen serbitzari izateak laguntzen omen du norbere barruko korapilloak askatzen, norbere ezin egonak lasaitzen eta barruko illunak argitzen. Besteen zoriona egiñez baizik ez omen gara zoriontsu egingo. Norbere zoriona baizik billatzen ez duenak, infernua aurkitzen omen du barruan. Eta gero infernu ortatik irteko edarietara eta drogara joko dute, beren buruen kalterako. Ori da or zear dabilzan «hippi» askoren okerreko bidea.

Abbé Pierreren zat bada lege obeko «hippirik», ala ere. Bere alkarteetan ikusi ditu. An ikasi dute zorionbidea. Antxe ikasi dute eztagoela nork bere bizia besteen alde ematea baiño gauza ederragorik eta pozgarriagorik. Zenbat eta besteei emanago, gerok egiten gareala aberatsago eta zoriontsuago.

Esku onetan

Abbé Pierrek urteak eraman ditu olako egiak eta olako jokabidea bere ekintzetan diardutenen gogo-biotzean tinkatzen. Oraindik ortan jarraitzen du. Gaur, lanaren lanak, izan dituen geixoaldiak eta urteen astunak jota, makuluaren laguntzaz darama len ain arin eta tente zerabillen gorputza. Laster «opor andiak», betikoak artu bearko dituela entzuten zaio noizik bein.

Ala ere, bien bitartean, oraindik or jarraitzen du bera aitatzat duten Emausko talde eta laguntzaille guztien buru eta zuzendari munduan zear.

Eta ez du bere Alkarteok, aita galduaz, betiko ondatuko ez ete diran bildurrik. Esku onetan uzten omen du bere lana; jarraitzaillerik naikoa omen du.

Batez ere, bere ekintza arlo zabalagoetara luzatu dutenean, non zer egin agertuko omen zaie.

Munduak bide okerra darama

Maitasunezko lana, erruki-ekintza egin du eta ori egitea maite izan du beste ezeren gaiñetik apaiz onek. Eta maitasunak ondasunak zabaltzera, ematera bultzatzen du, ez norberarentzat pillatzera. Eta gaurko mundua ondasunak pillatzera, nola geiago irabazi eta nola ta zertan geiago irabazi eta nola ta zertan geiago eralkitera dabil. Orretara egiña dago. Erririk aberatsenen bizi-mailla lortu nairik gabiltzan bitartean, munduak ezta zorionik eta pakerik izango.

Daukanak eztaukanari laguntzen ikasten eztegun bitartean, eztegu pakerik izango; oker joango dira gauzak. Goikoai eta bekoai egi garratzak argi esateko, Abbé Pierrek ez du bildurrik.

Erri aberatsak ez omen dute eskubiderik erri txikiekin egiten dutena egiteko: erri txiki zapalduen ondasunez aberastu, aien lepotik berentzat bizimodu erosoena jarri, eta aiei lagundu ez, aiei errukirik izan ez. Mundua gaizki omen dioa, lenengo, bigarren, irugarren edo ta laugarren mundua agotan darabilzkgigun artean.

Gaurko aurrerapenekin, mundua txiki egin da, alkarren ondoanago gaude, alkarren auzoago gera. Arrazoi geiago daukagu, iñoiz baiño, mundu bakar bat izateko, alkarri besoak luzatu ta, bata bestearen premia eta nekeak jaso eta arintzeko. Munduak erakunde berria bear du, guztiak alkartasunean ipiñi bear lituzkena, gaiñezka dutenak (askotan besteen lepotik) gosea besterik ez dutenei oparo ematera jarriko dituenak. Teknikazko aurrerapenak, mundu guztira zabaldu ezik, gizonen arteko bardintasuna eta anaitasuna austeko baizik eztira izango.

Mundu-errien maillan gauzok ain beltz baldin badaude, erri bakoitzaren barruan eztaude bat ere zuri. Eztakigu alkar ulertzen, alkar ongi artzen, alkarren anai izaten. Berak oraintsu ikusitako gertaera batekin argitu digu au.

New-York-era eldu eta poliziari paperak erakutsi eta bere ezaupidea eman diotanean, polizi orrek galdetu dio zein kaletara dijoan ostatuz. Eta kalearen izena eman orduko, polizi-gizona ikaratu da, eta esan dio:

—Nola zoaz orra? Arrisku andiko lekua dezu.

—Ba, nik antxe ditut nere adiskideak.

Taxista artu du, eta taxistak:

—Tira, pozik eramango zaitut. Oraindik ezta gau berandu. Gaua baiño lentxoago irixiko gera. Bestela, eztezu taxistarik aurkituko ara eramango zaitunik.

Eta an, New York urian «Emausko Lagunak» duten etxera eldu daneko, ongi etorri egin dioteneko, auxe entzun bear du:

—Ara, etxearen gorenean prestatu dizugu zeure gelatxoa. Komunak ere aldamentxoan dituzu. Baiña kontu: komuna ere azkeneko orduan etorritakoan batzuk artuta aurkitzen badituzu. Baliteke norbaitzuk bertan lotan aurkitzea.

Eta egia zan; etxe osoa aurkitu zuen beterik, maillatan bertan ere bai.

Munduko uririk aberatsenean olaxe aurkitu zuen mundua banandurik, alkarren bildurrez, alkarren ezaupiderik gabe. Alkarrekin bizi, baiña alkartasunik gabeko egoera negargarria!

Jainkoa maitasuna da

Ala ere Abbé Pierrek ez du itxaropena galduko. Siñiste bizia du gure mundu au oberoa dioala. Bera ta bere Alkartea orregatik dabilta gogo beroz lanean. Jainkoarekin alkar-lanean diardute, Jainkoaren laguntzaille egiñik, gizon guztiak izan bear duten eta diran bezela. Egi au askok, berek eztakitela bizi dute.

Jainkoa maitasuna bera dala era askotara ikusi eta adiarazi du gure apaiz onek. Onen iritziz, Jainkoa ezta ezagutzen maitasunean baizik. Liburuetan Jainkoaren nolabaiteko ezagutza eta teoriak ikasi daitezke; baiña aren benetako ezagutza maitasunean eta maitasun-ekintzetan lortzen da.

Onela erantzun zion bein Jainkoa zer dan galde egin zion bati:

—Ez zaitzu gogoratzen joan den egunekoa? Gogoz eta gogor lan egin zenduan. Otza zan. Emakume zaartxo errukarri bat etxetik bota eta kale gorrian utzi zuten. Etxetxo bat, ostatu bat zuzendu zenion. Arratsean etxera etorri ziñan, neka-neka egiñik, ezer irabazi gabe. Gogoan det orduan zer esan zenidan: «Gaurko lanak barrua bete atsegiñez utzi nau». Ez ezazu aztu orduko atsegiña, zerorrek aitortu zenduena, orduko zure atsegin ulergaitz ori. Nondik zetorkizun? Beste norbaiten naigabea arindu eta gutxitu zenduelako. Une artan goiko jakinduria jabetu zan zutaz. Maitatzeak dakarren barruko atsegiña Espirituaren doia da. Beste iñoiz baiño obeto nabaitu zenduen orduan Jainkoaren ikutua. Ez ezazu iñoiz aztu une ori».

Jainkoazko libururik ederrena

Abbé Pierre Jainkoazko libururik asko irakurria da: teologoenak eta mistiko andienak. Baiña argirik geien maitasunetik etorri zaio. Besteen onegiteak eta bereak asko erakutsi diote.

Ara nola adiarazi dion gazetalari bati:

—Bein Vietnam-en nintzan moja-etxe batean ostatuz. Auzoko emakume txiro batzuk aterpea aurkitua zuten bertan. Alako emakume batek badiotsa mojatxo gazte bati: «Etzera aberatsa, etxe au ere eztezue oso polita. Nola zaude beti ain alai eta irripartsu? Zer dezu. ola egoteko?» Unetxo bateko ixillaldiaren ondoren, ona moja-txoak erantzuna: «Ara, erraz ulertuko dezu: Norbait maite det eta Norbait orrek ni ere maite nauela badakit».

Abbé Pierre mojatxo orren iritzikoa da. Siñiste orrekin Jainkoaren maitasunean aurkitzen du bere zoriona eta maitasun ori auspez gurtzera berez dijoa.

—Zer esan nai dezu gurtze orrekin? —galdetzen dio gazetalariak.

—Zer dan? —erantzun dio berak. Ezagutu ezin dudanaren aurrean nagoela jakitea eta artaz jabetzea; baiña ulertu al dedan guztia jakiñaz, bere izatea maitasuna duela baitakit. Maite nauela, jakiñik, bera gurtzen egotea besterik eztaikit nik. Nork, eta Jainkoak maite nau.

Jainkoari buruzko uste okerra

Jainkoaren izatea oker ulertzen omen du gizonak askotan, alguztikun eta menperatzailetzat artzen duela. Uste ori oso okerra da. Orregatik, asko, zorigaitzik gertatzen zaienean, kontu eske joaten dira Jainkoagana. Alguztidun menperatzailea balitz, orduan bai joan litezke Arengana kontu eske: «Zergatik ez didazu zorigaitz au aldendu?» Baiña ez, Jainkoa maitasuna da, maitasun alguztiduna.

Maitasun orrek gizonari askatasuna ere eman dio, eta eztu askatasun ori zapaldu nai. Mundu au ere eztu alik eta onena egin. Arian arian onetik obero egitekoa egin du, eta orretan gizonari bere aukera eta eskua eman dio. Gizonak alguztidun izan nai luke, nai duen guztia beingoan egiteko, okertzat dituen gauza guztiak beingoan zuzentzeko, labur esanda, bera menperatzaile izateko: Jainkoak astiroago zuzendu nai ditu gauzak, eta begirune osozkoa dio gizonaren askatasunari.

Eta, ain zuzen, munduan ezbear eta ondamendirik andienak gertatzen diranean, orduan agertzen da ain maite gaituen Jainkoaren eskua argien; orduan ikusten da ain argi Jainkoak bere maitasunetik gizonen biotzetara ixuri duan maitasuna, guztiak alkarturik zorigaizdunei erakusten dieten maitasunean eta lagundu bearrean.

Olako gertaera askoren lekuko izan da Emausko lagunena sortzaillea. Orduan ateratzen du Jainkoak gizonen barruan artean lozorroan bezala zegoan maitasuna lagunurkoaren atsekabetan parte artzeko barruko indarra. Maitasunak guztiok alkarrekin lotzen gaitu, Jainkoa guri, gu Jainkoari, eta guztiok alkarri. Tamalez, maitasuna oso motel eta illik dago maizegitan gizonen biotzetan.

Maitasun ori kanpora ateratzen laguntzeko sortu ditu Abbé Pierre onek bere ekintzak, bere Emausko lagunak eta «Zarpil-biltzailleak». Biotz askotan illik edo lotan aurkitu duen maitasuna pizten edo berpizten jakin du. Biziaz asperturik zeuden askori bizipoza biotzeratu die. Bizirik jarraitzeko zergaitirik ikusten etzuten askori zorionerako bidea erakutsi die, eta besteak, lagun urkoak zoriontsu egiten irakatsi. Gizartearentzat lan ederra, eredugarria, egin du.

«Jaioko dira berriak»

Abbé Pierrek bere lanerako artu duen sailla saill apala eta nekagarria izan da. Agintarien laguntzarik gabe egindakoa, gaiñera. Agintariek egitasmo andietan murgiltzen dira. Lege eta aginduen bidez konpondu nai izaten dituzte arazoak. Baiña legeak eztute begirik ez biotzik. Begi zorrotzak eta biotz bero errukitsuak bear dira miseri asko ikusteko eta osabidean jartzeko. Eta orra apaiz onek autatu duen lekua, berak eta bere jarraitzailleek ederki betetzen eta beteko duten utsunea.

Gaur, bere adiñaren gailurretik begiraturik, Abbé Pierrek munduan zear zabaldu ikusten du bere oraiñarteko ekintza eta itxaropentsu dago. Lagun zarrak joanak badira, berriak etorri zaizkio eta berriagoak etorriko zaizkiolako ustea du. Ez dio bildurrik bere ekintzaren etorkizunari. «Opor andiak» gaiñean ikusten baditu ere, lagun berriok aurrera jarraituko dute beren lanean, oporrik artu gabe, eta gogatsu.

Olako apostoluak, Abbé Pierre bezelakoak, bear ditu gure gizarteak, egille eta eragilleak, benetako aurrera-bidean sartuko bada eta bururik aterako badu.

EUROPA SEASKAZ USTUTEN*

Seaska utsak, ume bakoak, ugarituz doaz Europan. Gero ta jaiotza gitxiago datoz mundura. Jaio barrien gitxitzeak, gaur artu dauan indar eta neurrian jarraitzekotan, Europak orain dituen bizi lagunetatik irurena galdu bear dau. Zarrak ugaritu eta gazteak urritu, orixe jazoko jako.

Ilten diranen utsuneak betetako, emakume bakotxeko, 2.1 ume barri bear ei dira. Europako erririk geienak neurri orren azpitik dabiltz: Sartaldeko Alemania 1.30n dabil; Dinamarca 1.33n; Italia goratxoago, baiña neurri ohea daroa, emakume bakotxeko 1.81 jaio barri emoten dituela batez beste. Irlanda bakarrik dabil neurritz gaiñetik: emakume bakotxeko 2.8 jaiotza.

Ia erririk geienetan berantza dator jaio barrien kontua. Emakumeak seingintza neurtzen ikasi ala, jaiotza gitxiago dator. Seme-alabadun izatea gauza opagarritzat dago. Ori bai. Gurasoentzat poz-iturri ei da lenengo umetxoa agertzea, ardurak eta nekeak ekarriko baditu be. Baiña ez daitezala asko etorri etxe batera.

Frantzian bi naikotzat daukez; Alemanian eta Dinamarcen, geienak bat baiño geiago ez dabe nai. Ume bik ondoezak eta okerrak ekarten ei deutsoz amari: lotu egiten dau, lan-leku bat artu eta eguneroko irabazia etxeratzeako askatasun barik.

Gobernu batzuk alegiñak egiten dabez okerrak zuzentzeko, seme-alabadunai diru-laguntzak eskintzeko; baiña ez dabe obekuntza andirik lortu.

Alemanian, alde bietan, sartaldekotan eta sortaldekotan, 1974n bardintsu ebiltzazan arazo onetan: emakume bakotxeko, 1.5 jaio barri. Sortaldekoak beerakada ori gelditzeko, legezko aukera on batzuk ipiñi zituezan amen alde: 26 asteko oporrak ordainduta, doako seaska-etxeak, etxe-bizitzetan erreztasun andiak familientzako. Andik bost urtera, 1979n, sortaldeorretanjaiotzakapurbatgoraegineben: 1.89raiño. Dinamarcen ostera, gobemuaren laguntzarik artu be ez dabe nai. Askatasun osoa gurago, nai dauanak nai dauana egiteko.

* Saski-naski (1985, 27.zenb.) 8-16.

Irlanda, txapeldun

Jaiotza kontuan Irlanda da European txapeldun; emakume bakoetako 2.8, batez beste. Dublinera bazoaz, arrituta isten zaitu ango ikuskizunak: ainbeste neskamutil kaleak eta jolaslekuak betean. Ordu batzuk sein txikiak dira. An ikusiko dozuz ainbeste ama, sein txikerrena burditxoan, eta beste bat eskutik elduta daroela, eta askotan urrengo baten itxaropenean dagoala.

Eskola orduak amaitzean, barriz, alde guztietatik agiriko jatzuz neskamutilak pillaka, urduri eta zaratatsu, uri guztia gaztetxoena balitz lez. Eta ori, Dublin jaiotza gutxi samarrekoa dala. Erri txikiak asko be umetsuagoak dira. Kontuan artu: 25 urtetik berakoak euneko 53 ei dira.

Nondik dator irlandaren umetsutasun ori? Orain ogei urte, Eskozia, Irlanda, Gales eta Ingalterra neurri bardin antzekoan ebiltzan: Irlandan, milla bizilaguneko 22 jaio barri; beste iruretan, millako 19.3. Andik amabost urtera alde andiango egoan Irlandatik besteenera: Irlandak berak berakadaxoa egingo dau, 21.5raiño jatsita. Baiña beste irurak 13raiñoko berakadea egingo eben.

Nondik gorabera ori? Zergaitik ez zan Irlanda ain bera jatsi? Batetik euren katolikotasunagaitik. Bestetik seingaltzea debekatua daukelako. Gaiñera, oso e-txezaleak dira eta familiak euren artean indarrean dirau, eta ez dabe ondo ikusten amak lan-billa etxetik kanpora urteterik.

Baiña, erlejiñoak, katolikotasunak dau orretan indarririk andiena. Gizaldiz gizaldi ondo sustraituta dauken erlejiño orrek laguntzen deutse lengo bidean jarraitzeko, umea Jaungoikoak emoniko ondasun kutuntzat maite izateko. Onak ez dau esan nai an be aldakuntzarik izan ez danik. An be munduan zearreko joera barriak sartzen asi dira. Bi edo iru seme-alabadun etxea naikotzat eta eredutzat artzen asita dagoz. Ango emakumeak be etxean umeak azi ta kanpoan lan egitera oituaz doaz. Jaiotza gitxiago izateko joera artzen asita dagoz.

Italian zer barri?

Ain katolikotzat dagoan erri onetan oso nabarmena da jaiotzen berakoa eta urritasuna. Seme-alabak izateari ez deutsoe iguiñik izango. Ez orixe! Baiña noz eta zenbat ekarri? Or dago untzea. Gaztetan ez beintzat umeen nekerik artu. Geroagoa etorriko al dira, ogeitamar urte eginda gero. Bien bitartean, senar-emazteak, bikoteak, euren bizimodua eroango dabe, aizea buruan eta ibilli munduan, osterak egin, mundu barriak ikusi, dirua aurreratu. Beste amesik ez da egiten luzarotxoan. Italiar barririk ez datorrela? Nori zer ardura deutso orrek? Lanik-ebak buruauste andiangoak dakaz seiñik ezak baiño. Katolikoan taldeetan dagozan askoren artean be olakoxe usteak dabiltz. Italiako bazter batzuetan jaiotzen batez bestekoa European beerengoa da, eta sein-galtzeetan eurak doaz aurren. Be-aldeko errietan lenago belaun andiko familiak ziran; baiña, an be, gaur ikaragarriro ei doaz berantza.

Askotan Iparraldera Milan eta Turinera jotzen dabe lan billa. Eta ango etxe estu ta barru txikikoetan ez dago 7-8 ume sartzerik. Etxe egokia ta zabala lortzeko seiñak

sekulako okerrak sortzen ditu, eta ezin au familia urritzeta, laburtzea, txikiago egitea dakarren zera da.

Lenago famili bakotzak bi ta iru belaunaldi artzen zituen barruan etxe baten: guraso, seme-alaba eta aitaita-amamak. Gaur belaunaldi batekoak dira geienak: ez dago aitaita amamarik umeak zaindu eta azteko. Kanpoan lan egin gura dauan amarentzat ez da oker txikia ori.

Seme-alabak azteko lagungarri gobernua emoten dauan diruak, barriz, alan da esaerea, umearen lenengo zapatatxuak erosteko baiño ez ei dau emoten. Gaiñera, emen be, ez dabe askok gobemua onako arazoten sartzen ikusi nai.

Labur esateko, Italiako emakumeak seme-alabak maite dituez, baiña ekarri berandu baiño ez. Ezkontzeari, senar-emazte lez bizitzeari ez deutsoe uko egingo, baiña umeak geroko itxita. Eta izatekotan, gitxi. Illen utsuneak betetako aiña be ez. Orre-gaitik, azkenengo urteotan, 1982-83koan, il-jaioen kontua illen alde joan da: 600.000 jaijo, eta 800.000 il.

Abiada orretan, laster, lanerako gai dan baten lepotik joango da zar-saritu baten jana.

Alemanian, etorkizuna baltz

Alemanian ez da etorkizun argirik ageri seme-alaba askodun senar-emazteentzat. Orra senar-emazte bi. Urte batzuk badaroez ezkontuta. Senarrak 35 urte ditu; emakumeak, 32. Sein bat ekartea erabagi dabe. Semerik ekarten asi baiño lenago etxe-imiñi ona nai izan dabe lortu, naikoa irabazi non eta nondik bizi eukiteko, eta alkarganako maitasuna sendotu. Orain betor umea, lenengoa. Pozetan dagoz euren biotzeko kutuna noz mundura agertuko, erregetxu bat bere jauregitxoan lez artzeko. Alemaniako bikoteak ez dabe seme-alaba askorik ekarri nai, baiña etorri datozenai abegi ona emon gura deutse. Seme-alaba asko izateari baiño geiago begiratuko deutsoe ondo azteari. Ango emakumeak gerota beranduago jarten dira lenengo umea ekartera. Alan astirik be ez dauke asko ekarteko. Senar emazte biok, ezkontzerakoan, seme-alaba bi ekarteko prest egozan. Baiña lenengoa izan orduan, «bego» esan dabe. Amar gurasoetatik bederatzik bardin esaten dabe: «Bakar au be naikoa ez ete dogu?» Geienen jokabidea orixe da. Zer dala-ta? Etxe txikitxo dogu-ta... Umeak gareztiegi urtetan dabe-ta... Umeak ez ei dira errenta. Ez dira irabazgarri. Eta bategaz geldituko dira.

Gobemua umeak azten laguntzeko zerbait emoten dauala? Emen be esaera da: «bai, gozotxo batzuk erosteko aiña, besterik ez da». Aurzaindegiak be badirala? Badala an lanean jarraitu gura daben amen umeentzat lekuri? Baiña umea olango lekuetara bialtzen dauan amak izen txarra ei dau, ama gaiztotzat ei dago. Erriagintarian aldera idurikortu egin dira alemanak. Gaiñera agintariak famili-barmetako arazoetan sartzeari bildurra deutsoe aleman askok. Hitler-en aldiko zorakeriak gogoratuta, orduko ames zoroak eta kalteak barriztetako izango ez ete diran. Agintari eta politikoko batzuk mesedegarritzat euki dabe jaiotzen urritasuna, bizilagunen geiegia arintzeko eta lanik-ezaren arazoa konpontzeko buruauste gitxiago izango dabela-ta. Gaur olako usteak usteltzat dagoz eta ez dira asko zabaltzen. Gaur kezka larri baten oiua dabil

batetik bestera: Alemania, daroan bidetik, ondamendira doala; senar-emazteak euren burugintza utsari begira biziten oitu dirala, euren eroso bizi-bearren bearrak galduta; alemanak umeen arerio biurtu dirala; laster, odol barria ustuta, zarrak izango dirala geien, onek dakazan ezbear guztiekin batean. Emendik urte asko barik, Alemaniak etorkizun baltza ei dau aurrean.

Dinamarkan?

Dinamarkako famili-giroa ez da bape etorkizun obekoa. Gauzarik bitxienak jazoten ei dira an. Esaterako, urteetan alkarregaz bizi izan diran andra-gizon bik semea izan ei dabe, eta arrezkero ez dabe bake onezko egunik.

Lege-gizon batek alkarregaz ezkontzeko esan deutse, olan euren alkartasuna gogortu egingo dalakoan. «Inñondik inñora be ez ezkondu», esan dau andreak. «Gero banantzen bagara, bizi-alarguntzen bagara, diño berak, gizonarena izango da semea eroateko eskubidea». Dinamarka bitxia! An askotan ezkontzara doaz, ain zuzen, gero lege-baldintza obetan banandu al izateko, ezkontzea austeko. Familia apurtu eta ankaz gora ipinteak ez deutse min andirik emoten. Familiak, berez, ez dau eurentzat garrantzi andirik. Familiako bakotxa lenago da familia osoa baiño. Emakumearen eskubideak doaz aurretik. Gero, umearenak. Ortik aurrera, bakotxa nai dauana egiteko eskubidedun da, sikologo batek esan dauanez.

Eta gobernua ez dedilla, arren, barruti orretan sartu. Orain iru urte, 1982n, 35000 ezkontza erroldetu ziran, eta 14000 banandu. Eta ezkonduetz beste, alkarregaz ezkondu barik bizi diranak gero ta geiago ei dira... Ezkontzaz kanpoko jaiotzak 1970n euneko 11 izan baziran, 1981n euneko 38.8ra igon ei eben. Bestetik jaiio barrien kontuak berakada andia egin dau. Sartaldeko Alemaniaren urrengo, (emakume bako-tzeko 1.30), Dinamarka da Europar berengo maillan dagoana. Alemania txapeldun, baiña Dinamarka orpoz orpo dau atzean.

Famili-barruko gorabera au ikusita, zer da dinamarkarren erantzuna? Lenengo erantzuna, auxe: «Nai dauanak nai dauana egiteko eskubidea dauala». Berez berezko gauzatat dauke. Berezkotzat artzen dabe gazteak, eta zarrak ez dira larregi arritzen; atara egiñez doaz. Alkartasun on baten pean bizitzea ez ei da beiñena. Alkarri lotsa izan, batak bestearen gurariak bete, besteagan siñiste ona euki eta ez nork bere usteak besteari ezarri, ori ei da bearrena. Ezkontza-kontuan edo maitasun kontuan, au da Dinamarkan zabaldu dan oitura edo legea. Alkar maite izan ezkeru, alkarrekin jarraitu; eta gauzak ondo eztoazenean, bakotzak bere bidea artu eta banandu. Eta kito!

Alan be, aldakuntza au oraintsukoa da. Eta nondik sortu da? Askok uste dabe erlijijñoak egin dauan berakadatik datorrela. An protestanteak dira geienak; baiña erlijijñoan asko otzitu dirala aitortzen dabe eurak be. Gero, Dinamarka izan da li-zunkerizko liburuak sartu eta saltzeko eskubide osoa lenengo emon dauan erria. Ezkontza austea eta banantzea lenengo eskatzen dabenak emakumeak izaten dira, etxeko lanak gizonak eta andreak erdibana egitea nai dabelako. Kanpoan euren lana artuta dauken ezkeru, etxera etorrita ez dabe nai bigarren lan ori euren lepotik joatea.

Gizonak etxean maia prest nai badau beti, andreak naiago dau etxe orretatik alde egin. Eta bardin, gizonak danean buru egin gura badau be.

Norbaitek dinamarkarren jokabidea argitzeko argibide au emon dau. Eurentzat arazoa ez ei da aragizko griñatik datorrena. Euren oiturretan sartu dan legea, beste au ei da: ez dala aserretu bear. Asarrekuntzak, kanpora! Eztabaidarik edo alkar aituz eziñik sortzen daneko, agur, or konpon esan eta kanpora. Seme-alabai be bataz ez deutse asarrerik eta agirika gogorrik egin bear, bestearen nekagarri ez izatearren.

Dinamarkarrak ez dabe nai eurai iñok konturik eskatzerik ia zergatik banandu diran. Orraitio, an be asi dira gauzak ez doazela ondo igartzten eta kezkatzen. Batez be, bakarrik gelditzen diran emakumeen zoritxarra ikusita, eta umeai egiten jaken kalteagaitik.

Familiantzako erri-laguntzarik oso gitxi dauken ezkerok, seme-alabadun emakume bakarrak oso nekezko baldintzapean bizi dira ekonomi aldetik eta giza-nortasunarenetik. Guraso bananduen umeai gatx egiten jake eskolan aurreratzen eta pozik aurkitzen. Mutillak, batez be, mukerragoak eta asarrekorragoak biurtzen dira besteak baiño. Askok uste dau umeak ez dabela miñik ez beste erasorik artzen, gurasoak eztabaida eta burruka barik banandu diranean...

Baiña ez da ori egia. Umeak uste dan baiño geiago ikusten dau. Laster igarten dau an zerbait ausi dala eta ulertu eziñik gelditzen, esaterako, zergaitik datorren aita orain amak dauan lagunagana, adiskide antzean. Nor zer dauan ezta kiala gelditzen da umea, bere bizi guztiko jota, bere barrua nastauta.

Arazo onetan Dinamarkaren etorkizuna zer izango dan asmatzen ez da errez. Dinamarkar askok gauzak ohera egingo dabela uste dabe: kalteak ikusi dituen semeak eztabela naiko eurak izaniko zori-txarrik gero ekarriko dituezan semeentzat, zentzuna etorriko dala ango gizartera, eta apurka apurka giro ohera sortuko dala. Izan be, gurasorik aldatu ez daben familiak ugarituz ei doaz Dinamarkan, batez be, familirik zindoan eta apalenen eta gitxiaren dauken artean. Txiro ta apalenen eskutik etorriko ei da osasuna.

Frantzian?

Frantsesak ekanduetan zabar eta lasaitzat dagozan arren, umekontuan, Europako beste errien artean neurri ona daroe. Umezaleagoak dira. Oraindio antxiña ez zala, 1964n, milla bizilaguneko 18,1 jaio barri etozan. Andik amar urtera, 15 baiño ez. Belaunaldi barriak berakorik ez egiteko, 14,9 jaio barri bear badira, neurri onean dabiltz frantsesak, baiña an be berakadea etorri da. Gauzak aldatzen asi dira.

Lenagoko frantses emakumeen amesa gazterik eskontzea ei zan. Gure erri-kantu batean amesa bera:

«Ama ezkondu,
Ama ezkondu
gaztea naizen artean».

Gazterik ezkondu eta gazterik ama biurtu. Gazteko seme-alabak zorion-iturri onenak ei dira. Gaur ez dira gauzak bardin ikusten.

Gaztetako amak orain? Esaerea danez, Erramu domeka Pazko aurretik egin dabenak, izatekotan be. Seiña ekarri ta gero ezkonduak. Urte gitxiren barruan, olango amak euneko 20tik 40rañño igon eben. Orain berantza egin ei dabe; baiña ez giroa obetu dalako, botiken eta antzugarrien erruz baiño. Paris aldean lautatik bat ei zan olan jaioa; Paristik kanpo, bostetik bat.

Orain gitxiago, esan danagaitik.

Dana dala, ezkonduak nai olan alan alkartuak, goizago edo beranduago, familia sortzera ei doaz. Asmo au ez dabe aztu nai. Geienen eritxia ei da guraso izateak asko laguntzen dauala norbere nortasuna sendotzeko. Umetxo bat izan arte ez ei dau norberak bere umetasuna osoan isten. Arrezkero ez ei dago ume lez jokatzetik. Arrezkero, ezkon-lagunaren aurrean eta umearen aurrean, umekeriak itxi eta biziari zentzunez eta benetan artuta ekiten ei jako eta bai ekin bear be.

Lenengo seiña etorri da. Eta urrengoa? Frantzesak, ezkondu aurreko asmoetan, bi ta iru seme izateko prest egoten ei dira. Gero datoz ezbaiak eta buruaustek: «Eta gauzak dagozan moduan dagozala, bat onekin geldituko bagiña!» Bigarrena etorri danean, baltzago ikusiko da etorkizuna. Orduan buruaustek edonondik, batez be, lana ta irabazia gatxago euki daben gurasoentzat. Eurak orretan ikusiriko estukurarik ez dabe nai euren seme-alabentzat andi egingo diraneko. Olan, asmoak asmo, iru seme-alaba dunik gitxiago izango da frantzesen artean. Eta irutik goragokorik gitxiago. Ondo etorri zabala egingo jake datozenai. Bat be ez dauke saltzeko. Guztiak bardin, biotzez onartuak izango dira. Guztiak dira etxeko pozgarri.

Frantzesen umezaletasun au dala-ta, ez da an famili-bizitza ainbestean ondatu. European beste erri askotan bestean ez dira an seaskak ustü. Frantzesen umezaletasunaz eta gobernuaren laguntzaz, Frantziak buru egiten jakin dau bizilagunez urrituta, gitxituta, maillaz bera jatsita gelditzeko arriskuari. Noz arte?

Europa zarra zarragotzen

Europa zarra zarragora doa. Ez dakar adar barririk galtzen dituanak ordeaztuteko. Europa zarrak burua argi dau oindio. Aurrerakuntza guztietan aurreren doazen buruak, teknika barrien asmalariak, geienak Europak sortzen ditu eta munduan zear zabaltzen ditu mundu guztiaren onerako. Baiña Europari bere bizi sustraietan arjoa sartu jako, eta bizi indarrak jaten deutzaz. Irugarren munduak sekulako bizi-indarra dakarren artean, irugarren munduko bizilagunak gero ta geiago datozten artean, Europakoak urrituz eta galduz doaz.

Nondik dator europarren berakada au? Alderdi askotatik. Gatx orren jatorria eriotzen, jaiotzen, ezkontzen, ezkontza austeen eta erriz erri aldatzen diranen goraberatetik dator neurri anditan.

Norbere erria itxi ta atzerrietarako bidea artzeko oitura asko bai asko zabaldu da, lanbilla, aukera obeen billa. Ezkontzako bizimodua gero ta gitxiagok artzen dabe. Emendik berandu barik, ezkondu bakoak euneko berrogeiraiño joko ei dabe. Ezkontzak gitxitu eta gaiñera errez ausi eta ezkontza austeok be ez dira seme-alaben geigarri.

Egia da gaur luzaroago bizitzeko itxaropena, bizia luzetuaz batera, geitu egin dala, leku guztietan bardin ez dan arren. Frantzian, esaterako, 1950-1980 bitartean, zazpi urtez luzatu da bizi-itxaropena; batez beste, 65 urtetik 72ra. Orain larogei urte, eun jaio-barrietatik 15 ilten ei ziran astea egin baiño len; 1950n, bost inguru; gaur euneko bat baiño ez. Baiña, bestetik, 20-35 urteko gizonen eriotzak gora doaz, andrazkoenak baiño geiago, batez be, bideetako ezbearren erruz.

Jaiotzen urritasunak dakar berakadarik andiena. Oraindik oraintsu emakume bakotzak 2.5 edo 3 ume baekarren, gaur iñoz baiño berago dabil jaiobarrien kopurua. Sortaldeko Alemanian 1.4; Finlandian, Suizan eta Holanda aldeetan, 1.5, Irlanda, Islandia eta Grezia kendu ezker, European ez dogu erririk illen utsunak betetako eta belaunaldiak barriztetako bear beste bizi barririk dakarrenik. Emakume bakotxeko 2.1 seme alaba bear orretarako; Frantzia nekez eltzen da ainbestera, besteak ortik bera. Frantzian, Alemanian, Ingalaterran, Holanda aldeetan, Suezian eta Canadian, 1950n, emakume bakotxeko iru jaiotza, edo ez asko gitxiago, etozan mundura; 1980n bitik bera ebiltzan, batez beste.

Gatx au Sartaldeko industri-erri guztiai eldu jake munduan. Goi-Amerikan eta Canadian 1950n asi eta Sartaldeko erri aurreratuenetara zabaldu da (baita Japon, Australia eta Zelandara be). Eta ez uste, senar-emazteak, bikoteak, umeai aparteko iguñik deuselako etorri dala gatx ori, ez. Abegi ona egiten jako lenengo umeari. Bigarrenagaz sartzen dira ezbaiak eta atzerakuntzak. Eta irugarrenik dakarran senar-emazteak oso gitxitu diran ezker, eta ortik gorakoak gitxiago, ez dago illen utsunak beteterik eta ez jako ikusten obekuntzarik gaixo oni. Eta gaur, jaiotzen kaltegarri sortu diran botikak eta gobernuak bidean datozen umeak galtzeko emon dituezan lege-erreztasunak zabaldu diranean, gitxiago. Eta gobemu batzuk, pozik, olan oporean dagoanik eta lanbakorik gitxiago daukela-ta. Beste batzuk, joera ori gelditzeko senar-emazteai diru-laguntzak ipiñiarren, ez dabe lortzen gatxari osabidea ipinterik.

Olan nora doa Europa? Gero eta zarrago izatera, eta gero ta txartoago egotera. Indarrean datozen irugarren munduko mendean jausteko arriskuan.

Irugarren mundukoak gaiña artu leikielako.

Europa zarra zarrago egitera doa. Artu dauan bidean jarraitu ezker, besterik ez dau lortuko; ogei urtetik berakoak gitxitu eta 60tik gorakoak gero ta ugariagotu, beste lanerako gai diranen nekagarri. Ikusi Frantziak aurrean daukan ikuspegia: 1950n 20 urtez berakoak euneko 30 ei ziran; 2000garren urtean euneko 20 izango ei ditu; 1950n 60 urtetik gorakoak eunetik 16 ei zituen; 2000garren urteko, euneko 19 izango ei ditu.

Bide orretatik, Europak ez dau bere etorkizuna bapere argi.

Seasken ustualdiak Europaren geroa larri bai larri jarten dau!

VICTOR HUGO

Bere urteurrenean*

Aurten izan dira eun urte frantzez idazle entzute andikoa, Victor Hugo, il zala. Aren eriotzak dardara baten jarri eben orduan Frantzia guztia. Egundoko jentetza eldu zan aren illetetara. Urteen joanak moteldu egin oi dau joandako gizonen eta jazoeren gomutea. Frantziak, orraitio, ez dau aitzu idázle bikain au, berengo maillako erritarren babesle gartsu, askatasunaren eta aurrerapenen aldeko burrukalari gogorra izana. Frantziak bakarrik ez. Mundu guztiak ospatu dau bera, literatura guztietako idazlerik gorenengoetakoa dalakotzat.

Victor Hugo Euskalerrria'n

Euskaldunok geure eskupekotxoia eroan gendun ilbarritan izan zituen omenetara. Arturo Champion'ek, bere nortasuna aztertuz, idazlan beroa eskiñi eutsan. Gure artean askotan gogoratu dira berak euskaldunekin izan zituen artu-emon batzuk. Birritan izan genduen Euskalerrrian: 1811-12 inguruan bein, bere aitagaz edo aitaren ondoan egoteko emendik zear Madrid'erantza igaro zanean (eta Madril'dik etxerakoan), eta 1843n, ogei bat eguneko osteratxoia Donosti, Pasai eta Iruñe'tik zear egin ebanean. Ordutik aurrera ezagututa, ainbat euskal-izen agertuko ditu gero bere idazlanetan. Euskera apur bat be ikasi ebala dirudi. Pasai'ko portu-aldeaz itxi euskun barririk geien. Portu-alde orren marrazki bat bere egin eban. Ango mariñel eta arrantzaleak eta ango andre batel-zaiñak bizi-bizirik dakusguz berak idatzitako liburu baten. Ango bazter eta ikuspegiak, gomuta maitagarria itxi dabe idazlearen gogoan eta oi dauanez,

* Saski-naski (1985, 28.zenb.) 16-25.

noziki bein barregarri-alderdia ez dau aitzuten. Esaterako, ango gaztelua «ezin konta ala ardik (kukusok) eta gudari gitxi batzuk zainduta» ei egoan. Gaiñerakoan, esker-tzeko eta atsegingarri egin jakuz ara ta onako ibilleretan aurkitzen dituen artzain eta baserriarrekin euskeraz egiteko darabiltzan alegiñak.

Victor Hugo urtez urte (1802-1885)

Victor Hugo onek Euskalerrria'n itxiriko lorratz txiki ori alde batera itxita, sartu gaitezen, beronen bizitzan.

Besanzon'en, Frantzia'ko urian, jaioa da 1802n, gurasoen iru semeetatik azkena. Aita, Frantzia-ko iraultza andian, asi-asieratik ibillia dau, Napoleon'ek gero jeneral izateraiño jaso eta La Vendée, Italia eta España'n amaika eriotza eta zapalketa egiñikoa. Aitari jarraituz eta amagaz batera, baterik bestera ibilli bearko dau semeak, bein Frantzia'n, eta bein Italia'n eta España'n. Madril'era ekarri ebenean, 1811-12n, Colegio de Nobles deritxon Ikastetxean sartu dabe. Ara baino len, eskolan urreraturik ebillen mutikoa, latin eta greko erreztxo irakurri eta ulertzen dituela. Ikastetxe atan, lenengo egunetarik, berengo maillako lagunak itxita, gorengoetan sartu bear izan dabe. Eztau luzea Madril'go egotaldia. Urrango urteetan Frantzia'n jarraitzen dau barriri ikasten. Bertatik asi da olerkigintzan nabarmentzen, eta sekulako amesak egiten ditu. Eskolako paper baten auxe idatzi ei dau: «Ni, Chateaubriand añakoa izango naz, edo ez naz ezer izango».

Amazapi urte baiño ez dituela, Paris'ko Akademiko jaunak arriturik itxi ditu euren olerki-sariketa batera bialdu dituen bertsoekin. Urte berean lore-joko batzuetan lenengo saria jaso dau eta, bere anaiagaz batera, idazleentzako dan aldizkari bat sortu dau; baiña ez dau urte erdi baiño iraungo.

Ogeigarren urtea (1822) ezkontz-urtea dau. Adela Fouchier artu dau emazte, eta lenengo olefki-liburua argitaratu: ezkonsari egokia emaztearentzat, maitasunezko bertsoz egiña. Klasikoen bidetatik dabil ondiño olerkaria. Bide beretik jarraituko dau urrango olerki-liburuetan. Baiña orra non datorren urrangoa: «Odes et Ballades», soiñu barria dakarrena. Bide barrietan sartu da Hugo, bere barruko izakerea eta irakiten daukan borborra ustuteko obeto jatorkozan bide barrietan.

Erromantikoen bide berak eroango dau laster antzerkietara. *Cromwell* idatzi dau lenengo, baina *Hernani* izango da zatariarik eta zer-esanik geien sortuko dauana. Lengo klasikoen antzertilegeak goitibera urratzera dator. Goiti-berako iraultza dakar teatrorra, eta onek, antzerki klasikoi alango aupadea botate onek, okerrik ekarriko deutso gure idazle gazteari. Paris'ko Akademian jarri ditu begiak, baiña ez dau beingoan lortuko ames ori. Klasikozaleak ez dabe maite eta aurka daukoz. Ogeta amalau urte baiño ez dituela asi da gorakada ori egin nairik; baiña besteren batek kenduko deutso iru biderretaraiño Akademikoen alkian jarrea. Laugarrenean, 1841n zabalduko jakoz ango atea. Ogeta emeretzi urte ditu eta idazle gazte ain ugariarentzat ez da sari makala izan Paris'ko illeziñen artean bere burua ikustea. Ori naiko ez dala, 1846n Frantzia'ko «Par» deritxen Batzarreko egin dabe, eta erriak eskatu eta aukeraturik, Frantzia'ko lege-batzarreko diputadu. Erregetarrean artekotzat dago, baiña

erritarren arteko geiago da bera. Arrano izan gura dau, guztien gaiñetik egan ibilteko, iñoren menpeko ez izateko. Erriak eskatu ezker, erriaren esanera jarten da aren onetan al dauana egiteko gertu. Olakoxea da Victor Hugo bere politikan.

Bien bitartean, lirikazko olerkigintzari ez deutso uko egin. Beste olerki-sail batzuk atera ditu. Teatro-lanetan dabilhela, orraitio, kurubioa sartu jako bularpean. Andra barri baten ezagutza egin dau, Julieta Druot, bere antzerkiak jokatzin ibilli jakon andra gaztea. Adela'gaz ezkondu zanean, emazteak beteten eutson barrua eta bera eban bere zorion eta zeru guztia. Emendik aurrera, beste ori ezingo dau bere ondotik kendu, geienetan urrintxotik jarraitzen eutson arren be.

Politika aldetik etorriko jako bere bizitzako oker eta ezbearrik aundiena. Ona zelan. Luis Napoleon Bonaparte'k, Frantzia'ko agintaritzza artuta, 1850n asi dauan politika-bidea iñondik iñora ezin dau ondo ikusi ez onartu, eta Frantzia'tik alde egin bearko dau. Emeretzi urteko erbestealdia jausi jako gaiñera. Lenengo, Belgika'n; baiña berak Napoleon Txiki esaten deutson erregearen aurka bertso amorratuak atera dituanen (politikaren gauzak), Belgika artega jarten da auzoko dauan Frantzia'ren zer-esanez, eta andik beste nonbaitera alde egiteko diñotso erbestetuari. Inlaterra'ra joko dau aterpe billa: lenengo Jersey'n, eta gero Guemesey'n, Frantzia'ren aurrez aur dagoan ugartean. Emen jarraitu dauan urte luzeetan, begiak zur euki ditu munduan zear zer jazoten dan begira, askatasunaren zaindari egiñik, eta zuzenentzat daukezan politika-bideen alde ateraten dau beti burua. Emen idatziko ditu bere olerki-saillik elduenak, eta bere nobelarik irakurgarriena: *Doakabeak*.

Luis Napoleon'ek, beste askori lez, amnistia eskiñiko deutso, eta aberrira itzultzeo aukerea. Baina bera ez dago burua makurtzeko. «Ni askatasunagaz batera joango naz neure errira; askatasuna lortu arte, aberrira itzultzen neu izango naz azken». Orra Hugo'ren erantzuna amnisti-eskintzari. Ordu ori etorri jakonean, ez dau zorion beterik izango. Egi garratz au ikasi bearra jazo jako: «Mingarri da aberria itxi bearra; baiña, iñoz, aberrira itzultzea mingarriago jazo leiteke». Alemanen mende jausita ikusiko dau Frantzia.

Azkenengo urteak bere betiko irakatsiak zabaltzen emongo ditu. Diputaduen Batarretxetik nai senadorenetatik, eskintzen jakon leku guztietatik, Hugo'ren itzak erriko baztertu eta ezeukien alde, amnistiaren alde eta indarkeri guztien aurka dira eta munduari aurrera eragiteko biderik egokienak erakusteko. Erbestealdiko egunak ezker, beretarren artean, seme-alaba eta billoben inguruan, aiton eginda dabil, eta bere aberrian frantzes guztientzat aiton egiñik agertzen da, eta Frantzia'k berak be aitontasun ori autortu eutsala dirudi. Ondo erakutsi eban orixe, 1885n il zanean, ain moltzokada andietan aren illetetara agertu zanean. Erri xeak bere adiskide eta babesle leial eta guzurbakotzat eukanari omenik ospetsuena egin gura izan eutson.

Victor Hugo, idazle

Victor Hugo Frantzia'ko eta are munduko idazleen artean gorengo mailletan dago. Len esan dan lez, leengo saioetan klasikoen bideak urratu zituen, bere-berea

eban orkoia aurkitu eban arte. Etorria itoten eutsoen legeak bazterrera botata, erromantikoen bideetan sartuta, frantzesen izkuntzari soiñu barriak aterako eutsazan, bai olerkietan, bai nobelagintzan eta antzerkietan. Teatorako or datoz bata bestearen ondorik «Cromwel», «Hernani», «Ruy Blas», «Marie Tudor», «Lucrece Borgia» eta abar. Nobelan, «N-D. de Paris».

Askok ez deutsoe parkatuko klasiko agurgarrien legeak austea, eta edozelango noriak nastean sartzea, andiki eta txikiki, gizon eta gizatxar, itzalgarri naiz barreragari, danak batera. Baiña Hugo'k uste dau gizartean danetarik dagoala, eta danetarikoak erakutsi bear ei ditu literaturak eta bizia dana dan legez emon.

Bide barritik aurrera jarraitzen dau olerkigintzan: «Orientales», «Les voix intérieures», «Chants du Crépuscule», «Rayons et Ombres» ...Gaiak betikoak: maitasuna, emakumea, umeak, aberria, erregea. Baiña Hugo'k betiko gaiei alderdi barriak aurkitu eta irudi barri disditsuz jazten daki. Eta gero izkuntzak oiartzun barriak, iñoz entzun bakoak dakaz Hugo'ren bertsoetan.

Gaiotatik, betiko gaiotatik urtenda, bere barrukotasunetatik gizadi guztiaren kezka eta arazoak kantetara joko dau. Guemesey'ko erbestealdian adiñean eta olerkigintzan, bietan elduago egin da. Leopoldine bere alaba maitea il jako, ia ezkonbarritan. Beroni eskiñiko deutso bere olerki-sortarik ederrena, eta alde guztietatik osotuena. Bertsozko opari bioz-samurgarriena alabeari eskiñi deusana, baiña era batera, bai biziaren jabe eta itxaropenaren iturri dan Jaungoikoaren esku maitekorrari.

Emen oindiño olerkaria bere biziaren inguruan dabil, bere biotza urretik eta min-miñean ikutu daben lagun maiteak eta jasoerak kantatzen. Guemesey'ko itxasertzeko etxen gaiñean jarrita, laster, urriñago zabalduko ditu begiak. An itxasoko olatu asarre urduriak aurrean dituela, gizaldien olatu eta uiñetara joako irudimena, eta gizaldien Poema andia asmatu dau: «La Légende des Siécles». Or gizona eta gizadi guztia erakutsi nai izan deusku, Adan'ganik asi ta bere egunetaraiño, gizona bere griña txar eta on guztian artean, nekezka bada nekezka, apurka apurka eta maillaz mailla, argirik argi beti gorago eta aurrerago egiten. Eta or emon deusku, bertsozko soiñekorik disdiratsuenetan, Jaungoikoa gizadiaren aurrerantzako alegiñ guztiai bultz eragiten.

Victor Hugo, kristiñau?

Gizon au ezelango talde eta alderditan sartzen ez da errez. Ez politikan ez, ez erlejino-kontuan.

Politikan luzaro erregetartzat egon zala dirudi. Geroagoan, Luis Napoleon'ek asitako politika-bideak iguindurik, errepublikanu egin zan, bero bai bero egin be. Iraultzazaleak ez zituen maite; gorrotoz eta indarkeriaz ziarduenak, gitxiago. Biziaren aldeko zan, eta eriotz-epairik emotea izugarritzko pekatutzat eukan. Gogor egin eban liburuetan eta itzaldietan, ez-eukien eta goseak illen alde. Bere ustez, agintariak gizarteko maillak bardintzera eta guztien arteko anaitasuna sortzera jo bear leukee, eta munduko ondasunak obeto banatzea lortu. Ori ei da Ebanjelioa. Jaungoikoaren siñismena eta geroko bizitzea siñistea, eta Ebanjelioko irakatsiak onartzea bear-bearezkoak ei ditu gizarteak, aurrera bidean jartzeko. Hugo'ren bertsoak sarritan, Jaun-

goikoari zuzendutako otoitz bero eta itxaropentsuz beterik dagoz. Guraso fedebakoak edo fedea ukatutakoak izan zituen arren, Hugo'ek ez dau, antza, gurasoen bidetik jarraitu. Chateaubriand'en liburuak irakurteak biurtu ei eban kristiñautasunaren aldera.

Bestaldetik, politikan ez da bapere klerikal agertu. Eleiz-gizonen politikarik ez dau ikusi nai. Gure Patroi Andia ez dau bere gogoko, eta iñoz ezin dau aren aitamen gozorik egin. Aita Santuaz, orraitio, lotsa ta itzal andiaz itz egin dau bein baiño geiagotan Paris'ko parlamentuan, katolikoak nai daben irakaskuntza-legeen aurka egingo ba dau be. Eleiz-gizon politikoentzat berba gogorak izan zituen bein Lege-batzarrean: «Nik ezin zaituet Eleizeagaz bat zarielakotzat ikusi. Niretzat aretxa eta migurea ez dira bat. Zuok Eleizearen migurea, gatxa zarie... Ez egizue Eleizea zeuon amatzat aitatu, zeuon neskame eta menpeko egiten dozuela... Batez be, ez egizue zeuon buruak Eleizeagaz bat egin. Ez zarie konturatzen zeinbesteko iraiña egiten deusazuen?».

Eta, azkenean, azkenengo egunetako erabagiakaz arri ta zur egiñik itxi dau Frantzia: ez ei dau beretzat illete arranditsurik, ez eleiz-illetarik nai. Otoitzak bai, eskatzen ditu, baiña ez ezelango erlejiñoenak, gizonen biotzetikoak baiño ez. Ez da, ez, zentzun andiko erabagia. Erlejiñodunak ez ete dira, ba, gizonak izaten, ez ete dauke biotzik? Askok ez dabe erabagi orregaz mira andirik egin. Azkenengo urteetan Hugo burutik egiñik, eroturik ei egoan.

Izatez, ez da izan kristiñau. Geroago argi gelditu dan gauzea da bateatu bakoa izan zala. Ain izan zituen gurasoak fedea ukatutakoak, eta bateatu barik itxi ei eben. Eleizaz ezkondua zan, baiña atzerrian bateatu zala-ta, aita guzurrezko agiri bat lortu ei eutson. Konfessore baten bearra eukala-ta, adiskide batzuk Lamenaus ospetsuagana bialdu be egin eben. Berak be ez eban jakin, antza, bateatu bakoa zanik. Orregaitik, ez dago gaizki idazle batek esana: Ez zan kristiñau izan, baiña bai katekumeno, eta katekumeno ona, ebanjelioko irakatsiak ondo bereganatu zituena, gaiñera. Batez be, gizon guztien benetako anaitasuna, Jaungoikoaren aurrean txiro eta baztertuak daukezan eta gizonen aurrean euki bear dabezan eskubideen bardintasuna, ez eukien eta goseak illen alderako maitasuna eta olango irakatsiak alde guztietatik darioz Victor Hugo'ri bere bertsozko nai osteango idaz-lanetan.

Victor Hugo eta euskaldunak

Victor Hugo ez da akats bakoa, ez erlejiño-gauzetan, ez politikan. Napoleon Txiki, bera erbestean euki ebana, bere bertsoakaz ezin berago ipiñi badau, Napoleon andiari ez deutso gorrotorik, benetan anditzat dauko, eta onen erri-zapalketak berezko jazoeratzat daukaz, eta Frantzia'ren aintzagarrizat. Frantzes askoren «grandeur» dalakoak, andizurenkeriak jota egoan.

Euskaldunei dagokiela esan dituen gauza batzuk bitxi samar aurkitzen ditugu. Donostia'tik Pasai'ra bitartean ez dau erderarik entzun, oso gitxi baiño. An euskerea ikusi dau nagusi. Bidasoa'z alde batera bestera dagozan erriak ez ei dira ez Frantzia ez España. Euskaldun jai, euskaldun azi, euskaldun bizi eta ilten ei dira. Ia geroko

Arrese Beitia'ren berbakaz esana. Euskerak egiten ei dau euskaldunen batasuna. Euskera euren aberria dabe, ia erlijio bat. «Euskeraz egiozu euskaldun bati eta arrezkero zu ez zara arentzat edozein gizon; andik aurrera anai zaitu. Euskerak egiten dau euskaldunen batasuna».

Euskaldunak euren aintziñatiko askatasuna eta eskubideak gogor zaindu nai ei ditue. Olako erria, ain askatasun-zalea, Frantziak eskintzen deusazan eskubideak onez artu bear leuezala dirudi. Alan be, ez da ori jazoten. Zergaitik? Askatasun zarrak bildurra izaten deuselako askatasun barriai. Euskalerrriak orra zer erakutsi dauan, Hugo'ren eretxiz.

Olango eretxiak dituenak, nok esango leuke Euskalerrria'ren alde oso-osoan ez dagoanik? Autorpen guzti orrek eginda gero, guzurra dirudian epaia au emongo dau; «Euskaldunen batasuna illez doa, berantza doa. Estadu andiak estadu txikiak irunsi bearrekoak dira. Ori da edestiaren eta izadiaren legea».

Guzurra dirudi olango epaia Hugo'ren agotan. Beti zapalduen alde jo ta su jokatu dauan onek erri txikien zapalketa ez dau gaizki ikusten. Gizonak gizonik iltea ezin onartu dauan onek, berezko legetzat dauko erri andiak erri txikiak irunsi eta iltea. Napoleonkeria? Bai, eta itzalezkoa, izan be. Ez gaitez anritu: gizonik andienak be, Victor Hugo onek be, euren illun-uneak izaten dituezala munduak aspalditik dakiena da.

IRUTASUN DEUNAREN ISABEL ZORIONDUNA (1880-1906)*

Joan dan Azaroko 25n, Kristo Erregearen domekan, eleizkizunik andienetakoa ospatu zan Erroman, Pedro Deunaren eliza andi bai andian: Joan Paulo Ilgarrenak Zoriondun iru barri egiten zituen: Jose Manyanet (1833-1901), Daniel Brottier (1876-1936), eta Elisabeth Catez, Irutasun Deunaren goitizenez ezagunagoa dana. Manyanet Cataluñako semea da, abade izana eta Famili Deunaren izeneko Seme eta Alaba mixiolarien sortzaillea: beronen eraginez emon eutsan Gaudi ospetsuak asiorea Barcelonako Sendi Deunaren eleiza ain izen andikoari.

Brottier frantzesia da, Espiritu Santuaren izeneko Anaiartekoa, Senegalen Mixiolari eta Europako gerrate andian (1914-1918), gudarien kapellau izana, eta gero, Parisen, umezurtzen aldeko Ekintza baten sortzaillea. Frantzesia da Isabel Catez be; iruren artean bizirik laburrena ta ixillena eroan dau: lenengo ogei urteak amaren ondoan emongo zituen, eta andik aurrerakoak, 26 urte bete zituen arte, Karmeldegi bateko ixilpean.

Irurok, Aita Santuak Kristo Erregeren Mezan esan ebanez, Kristoren erreinuko langille zintzo izanak, Kristoren erreinuari euren gogo-biotzetan begi ona egiñez eta aparteko lekua emonez, Kristorenak zirala argi eta garbi erakutsi eben, eta gaur, iñok iñoz kenduko ez deutesen betiko erreinuan sartuta autortzen eta agurtzen ditu Eleizeak. Irurok, baktotxa bere arloan, eta bere erara. Santu bi biak bardiñak diranik ez da aurkitzen. Zeruan izar baktotxak bere argia emoten dauan lez, Santuen artean be bardin jazoten da: baktotxak bere argi-erraiñuak zabaltzen ditu. Baktotxak bere neurrian eta bere erara. Batzuk kanpo aldera geiago erakusten dabela, beste batzuk ia barruko aldera baiño ez, eta guztiak kristiñau-bizitzaren eredu eta aberasgarri.

* Karmel 1985-1, 58-70.

KARMEL aldizkariak, aurreko zenbakian, kanpo aldera ain argi diztiratsu ederra ixuri eban Rafaela Ibarra aurkeztu ondorik (1), gaur beste bat ekarri nai dau aldizkari onen orrietara, len aitatu diraneetatik azkenengoa: Isabel Catez, edo Irutasun Deunaren Isabel, bere egunetan eta azkenengo urteetan Karmeldegi bateko orma-artean gorderik bizi izan zan arren, gaur bere izena munduan zear ospe anditan darabillena.

Aita Santuak, Kristo Erregeren egunean eta urrengoan, labur baiña naiko zeatz azaldu eban zetan dagon mojatxo gazte onen santutasuna, eta zelango ikasbide eta argibideak emon deuskuzan barru barruko kristiñautasuna biziten ikasteko.

Joan Paulo Ilgarrenak egun areitan esandako berben aritik, ekingo deusagu Zoriondun barri onen zelanbaiteko irudia emoten aldizkari onen irakurleari.

Joan Paulo Aita Santuaren berbak: «Isabel onegan sortzezko doaiez ondo ornituriko arima bat daukagu; buru argiko eta sentimen bizi fiñekoa da, piano-jotzaille punterengoa, adiskideen artean maitagarria, eta beretarren alderako oso txeratsua izana».

Berba oneitan Isabel Zoriondunaren alderdi bat erakutsi deusku Aita Santuak, Isabellek bere etxean eta lagunartean erakutsi eban alderdia.

Aziera: etxean, eskolan eta lagunartean

Isabel militar baten alabea izan da, Avor eritxon militarren egonlekuan jaioa, 1880gn. urtean, Bourges uritik urrin barik. Ama, barriz, Frantzian be-aldekoa dau. Frantzisko Catez eta Maria Rolland, aitaren eta amaren izenak. Senar-emazteon lenengo alabea da. Andik iru urtera aizta bat sortu jako, Margarita edo Guita izenez. Dijon-era aldatu dira gerotxoago. Ama alargun eta aizta biak aita barik gelditu dira 1887n. Amaren eskuetan gelditu da etxeko eta etxekoen gorabera guztia... Isabellek emon deutso zeregiñik geien: oso berekoi eta seta txarrekoa egin jako. Bein batek esan ebanez, Isabellek aingerutxoa nai deabrukumea urtetako moduko izakerea ei ekarren, eta larregitan agertzen ei jakon deabrukumearen antza. Zortzi urte egin zituen arte ez ei jakon bere seta txarra zuzendu. Arrezkero, beti agertuko ei da borondate sendokoa, beti bere buruaren eta egiteen jabe, baiña setakeririk barik, beti lagun ona, beti atsegiña, eta besteen gogora makurtzeko zentzun onekoa.

Amak andereño bi zuzendu deutsoz eskola emoteko. Orrez gaiñera, Dijon-go musika-eskolan, kontserbatorioan sartu dau, musika eta pianoa ikasi dagian, eta Isabellek ortxe egiten ditu aurrerakadarik andienak. Eskola urte guztietan, batez be azkenengoan, amabost urte dituela, saririk andienak atera ditu, beste guztien ganetik. Zaletasan andia dauko pianorako, zaletasuna eta atarako gaitasuna. Etxean, senide eta lagunen artean, askotan egingo dau guztien atsegiña. Ez dago batzarrik berak bere pianoko jotaldiakaz alaituko ez dauanik. Karmeldegian sartu aurreko urteetan, olantxe jarraituko dau, iñoiz ukatu barik, eta muziñik egin barik, ingumkoen gogoia

(1) Ik. 1212-1221. orr.

egiten. Barruan daroan edermiñak be ez deutso besterik agintzen, dagoan lekuan dagoala. Musikaririk andienen soiñuak entzun erazo ditu an or emen. Bein Tarbes-en, udaldiko oporretan dagoala, uriko musika-denda guztiak arakatu bear izan ditu soiñu barrien billa, entzuleai gauza barriak eskiñi gura eutsezala-ta, baiña ez ei eban, tamalez, berak jo bakorik edo ezagutu bakorik aurkitu. Ain egoten ei zan bera lagunai atsegin egiteko prest eta gogo oneko.

Isabel-en edermiña ez ei zan agertzen musika-kontuan bakarrik. Izadiko edertasunak ikusinaian, mendi, baso, itxaso, urzelai eta beste ikusgarri asko ikusi gurean be bai. Bein Jura aldera (Suizako muga aldeetara), bein Lurdes aldera joango da, bere etxeoakaz batera udaldiko opor egunetan. Ain ikuspegi ederren aurrean, lilluraturik gelditzen da. Tarbes-en dagoala, bere adiskide bati idatzi deutso Auñemendi aldeko tontor zuriai begira: «Mendiok zoratu egiten nabe». Jura aldeko mendiai, eta Auñemendi aldeko atxai begira ez zan aspertzen. Eta sarritan, ikuspegi ain ederrari begira, munduko uskeriaren gaiñetik Egillearen ederra eta anditasuna susmatzera joako gogo. Ikuskizun eder areik barruan sortzen eutsoen dardareaz, Jaungoikoagana biotza jasotera eroaten eban. Lurreko ikusgarrien edermiñak Jaungoikoa ikusteko miña sortzen eutsoen.

Atsegin zituen mendietako ibillaldiak. Amabost urte zituala, piano eskolak amaitu barritan, Jura aldean egindako amabostaldian, zazpi ibillaldi egin zituen ango mendietan gora, baktxean mendi-leku barrietara, eta ibillaldi areitan ikusitakoen berri emonez, guztien txostena itxi eban eskuz idatzita. Benetako mendigoizalea agertzen jaku olan Isabel neska gaztea, bere barruan daroan ederzaletasunak mendigoizale eginda.

Ederzaletasunari oben egiten jakin eban onek bardin jakin eban adiskidetasunari berea emoten be. Aita Santuak eztau au be aitatu barik itxi. Lagunen atsegingarri izaten ondo ekian, len be ikusi dogunez. Guztien gogo irabazita eukan bere izakera txeratsu eta maitekorraz. Biotza Jaungoikoari eskiñi ta emona eukan arren, ba ekian ordu batzuetan besteen erara jarten, besteen jostaldi batzuetan parte artzen, dantzaldietan be bai. Amazortzi urte egin dituen egunean Tarbes-en da, eta ona, zer idatzi deutson adiskide dauan neska bati: «Emengo gure egotaldia dana jolasa eta jolasa izan da, dantza, soiñu, mendietarako txango eta abar, bata bestearen ondoan».

Amari, bere seta txarra zortzi urte zituala itxi dauan ezker, ez deutso ezer miñik emotekorik egin; moja joan gureari ekin besterik ez. Amak ezin dau olangorik entzun. Alabeak, barriz, ori bere arazotzat dauko, eta, bere ustez, moja joanaz ez dau ama gitxiago maiteko. Azkenean, konponketa bat egingo dabe: Isabel moja joango da, baiña ez bere buruaren jabe izateko adiñera eldu arte.

Eta etxean bizi zala egiñiko adiskideak, moja sartutakoan, ez ditu aitzurik itxiko. Eurakaz kartazko artu emonetan iraungo dau. Eta ikustekoa da zelango berba txeratsu eta maitekorrak erabilten dituan guztientzat. Ondo agiri dau, gorputzez Karmeldegiko orma-ostean bizi bada, biotza lengo lengoa dauala, eta guztien alderako maitasun sutuago eta garbiagokoa. Eta Karmeldegian eztau aurkitu kartazko artu emonetan jarraitzeko eragozpenik. Irureundik gora karta gorde dira berak batari edo besteari

bialdutakoak, Jaungoikoaganako maitasuna ez da inondik inora lagun aurkoaganako maitasunaren itogarri. Ito barik, biztu eta garbitu egiten dau. Orra Joan Paulo Hgarenak berba gitxian argitu deuskun Isabel Zorionduaren alderdia.

Jainkoaren alaba: Irutasunaren egonletfu

Urrengo berbetan Zoriondu onen santutasunak daukan barruragoko alderdia erakusten aleginduko da.

Aita Santuaren berbak: (Isabelek) «Jainkoaren doiari, bateoko graziari eta Jau-naren adiskidetasunari ezelango ezetzik barik zabaldu deutse barrua; Eukaristian da-goan Kristori arrigarrizko ondo etorria egin dautso; oso gitxik lez ulertu dau Jaunak gizon guztiai opa deutesen alkartasuna... Jainkoaren aintzaren goratzaille egin da, bere barrurik barrukoeneraiño. Aitak, Semeak eta Espiritu Santuak bera euren egonleku eginda daukela jakiñik».

Itz orreitan daukagu azalduta gure Isabel onen alderdirik barrukoen eta ezagu-nena. Orrexek egin dau bera ospetsu eta kristiñau bizitzaren argitzaille ta irakasle. Eztau gauza barririk irakatsi, ez; baiña kristiñau bizitzaren legeak eta guna gitxik lez ulertzen jakin dau. Ulertzen eta bizi izaten.

Arritzekoa da benetan, Aita Santuak urrengo egunean autortu ebanez, zelan gazte onek, munduan bizi zala, ezagutu zituan Jainkoaren eta arimen artuemonetako bideak ain zeatz eta ain argiro. Jainkoak arima bakotxari eta guztiai deutesen maitasuna, Irutasun osoak, Aitak, Semeak eta Espiritu Santuak arima bakotxaren barrua ostatutzat artzea, eta artu emon ain barrukoen gozoa ta atsegiña, ume umetatik asi zan jakiten eta nabaitzen, gure Jauna lenengoz artu aurretixotik gitxienez. Lentxoago ikusi dogu zelango aldakuntza egin zan aren izakeran Jainkoagazko artu emon orre in darrez: len aserrekorra, eskurakatxa, esanak egiteko kazkarra zana, gero apal, iztan eta esaneko egin zan, borrontate sendoa eta gogortasuna gauza onetarako eta Jainkoaren deiari erantzuteko bakarrik gordeta.

Pozgarria izan zan beretzat Elisabeth izenak, zer esan gura dauan entzutea. Bein, Dijon-go moja karmelderretara joan zan baten, bertako ama nagusiak azaldu eutsan: «Badakizu zure izenak zer esan gura dauan? Jaungoikoaren etxea». Benetakoa izan nai ez izan azalpen ori, Isabel-en gogoan ondo sarturik gelditu zan siñiste au, bera Jaungoikoaren egonlekua zala, Jaungoikoa eroiala barruan ostatuz. Alan, Jauna lenengoz artu eban goizean barausteko ordua eldu zanean, berak ez dau ezelango goserik asmetan. «Ni ez naz gose, naikoa ase nago», diño berak. Eta Jauna artu dauan egun orretan bakarrik ez; beste aldi batzuetan be bardin entzuten jakon esaten: «Jaungoikoa dot barru guztia betetan». Laster egingo da arima barruko gauzetan ikasiago eta jakitunago. Ez da ibilliko ameskerietan, Ebanjelioko egi argitan baiño.

Gero ta argiago ezagutuko ditu egiok eta bere barruan ikusten eta nabaitzen dau egi ain pozgarrien gozoa, Jaungoikoa bere barruan aurkitzearen poza, eta barruko Jaun orri adi egoten aleginduko da. Ondo ikasi eta ausnartu dau arako Jaunak esana: «Iñok maite banau, nire Aitak be maiteko dau, eta beragana etorriko gara ta beragan

artuko dogu ostatu». Aitak, Semeak eta Espiritu Santuak, irurak artzen dabe egonleku-tzat Jaungoikoaren seme-alaba zintzo ta jator diranen barrua.

Isabel onek gazte gaztetarik ikasi dau Irutasun Deunagaz egoten eta Irutasunagaz artu emon gozoak eukiten. Santurik andienak jo izan dabe orretara. Santutasunaren azkenengo maillatzat dago ori egitea santu askoren bizitzan: Teresa deunagan, gure Patroi andi Ināziogan eta beste askogan ikusten danez. Isabel Zoriondunaren bidea ortik asi da eta ortik aurrera jo eta or amaitu. «Elburua Irutasuna da, eta bidea, Kristo», olantxe idatzi dau berak. Eta Irutasunean murgiltzera egiten dau Isabelek, baiña emen, munduan bidezko dala asita; gerotxoago Domingo Iturrate Zoriondunak egingo dauan lez. Santu askok santutasunaren gorengo maillak jota gero egin ebena Isabelek lenengo maillatik asita egin dau.

Eta barrero esan bearko da, ez deuskula orretan irakatsi barririk emon. Eban-jelioan bertan oiñarrituriko, edo obeto esateko, argi ta garbi irakatsiriko gauzak dira. Bateatu ezkerro jatorko kristiñauari Jaungoikoagaz artu emonik estuenetan sartzeko eskubidea. Kristiñautu danaren barrua Jaungoikoak bere atsegiñezko egonleku edo ostatutzat artu dau. Eta Jaungoikoa, Jaungoiko Irukoitza, eztago zatitzerik. Aita, Semea eta Espiritu Santua, iruron izenean egin da Jaungoikoaren seme, eta irurak bakotxak bere lana egin nai dabe, an jarraitu nai dabe arimearen maitezko erantzunaren zain.

Kristiñauak beti jakin dau au. Kristok esana eta irakatsia da. Gero Paulo eta Joan apostoluak orrexen goraberan argitasun barriak emon deuskuez. Gabon inguruan olango egi atsegingarrietan murgildurik ibilli gara. Aitak Semea bialdu deusku guztion Salbatzaille izateko, guztioi Jaungoikoaren bakea eta maitasuna eskintzeko. Semea gure anai eta antzeko egin da, gu bere anai eta antzeko era arrigarriagoan egiteko. Aitak bere Semearen irudia ikusten dau bateatuaz garbitu dan bakotxagan. Espiritu Santuaren lana bateoaz batera asi da, gure biotzetan seme-biotza ipinten eta, seme gaituanez, Aitagana joatera eragiten.

Kristiñaua dana Irutasunean murgilduta bizi da *Aitearen* egiten, eta *Aintza Aitari* esaten ikasi dauaneko. Eta egiok gogoratzeko, mezaren asieran meza emoillean agotik arako agur zarra entzuten dogu, Paulo apostoluaren berbakaz opa deuskula: «Jesukristo gure Jaunaren grazia, eta Jainko Aitaren maitasuna eta Espiritu Santuaren batasuna». Guztia da bateotik jatorkun grazia, Isabelek ain gazterik ikasi eta bere barruan nabaitu ebana, ain zuzen. Aita Santuak ondo esan dau Zoriondun barri onek bateoko graziari oso osoan erantzuten jakin dauala. Baiña kristiñaurik geienetan zer jasoten da? Egi gozo pozgarri oneik ez dabela sustrai sakonik botaten gure gogo-biotzetan eta erantzun motela emoten deutsegula, eztoquila Jainko-semeen andikitasuna dan lez aintzat artzen.

Isabelek, oso gitxik lez ezagutu eban Jainkoaren maitasuna alde batetik, eta Jainkoaren seme-alaben andikitasuna bestetik. Or aurkitu eban *lurreko* zerua, arimaren *barruko zerua*, lurrean asi eta zeruan amaitzen dana. Ortik aurrera egin eban, Jaungoikoa eta Jaungoikoaren asmoa obeto ezagutuz. Eta argirik argi aurrera egiñez, azken baten, or aurkitu eban bere lurreko eta zeruko egiteko nagusia: Jaungoikoaren *aintzaren goratzaille* eta kantari izatea. Paulo apostoluaren esan batetik atera eban

au. Apostolu onek Efesoko kristiñauai egin eutsen Epistolari (Ef., 1, 12-13) diñoanez, Jaungoiko Aitak Kristogan aukeratu gaitu Jaungoikoaren «aintzaren gorespen izateko», Jaungoikoaren aintzagarri eta aren aintzaren kantari izateko. Orixe izango da azkenengo urtean Isabelen lema eta egiteko guztia: emen lurrean, Aita, Semea eta Espiritu Santuari ostatu atsegiña eskiñiaz, irurak goratzen ekitea, gero zeruan egiteko berean jarraitzeko, Irutasunaren barruan betiko murgildurik.

Kristoren Kurutzea eroaten

Baiña berak idatzia da: Irutasuna izan bear dogula elburu, baiña bidea Kristo dala, Kristo kurutzeratua. Isabelek be Kristoren Kurutzea betebetan besarkatzen ikasi bearko dau. Eta alderdi au be ez dau Aita Santuak aitatu barik itxi.

Aita Santuaren berbak:

«Isabelek oiñazea be ezagutu dau, gorputzeko eta arimako oiñazea. Kristo Kurutzeakoagaz bat egiñik, oso osoan eskintzen dau bere burua, bere gorputza Kristoren nekaldiaren osagarri, betegarri egiteko (ik. Kol. 1, 14), Jaungoikoak maite dauala, eta bera be Jaungoikoa maitatzeko gai dala beti ziur jakiñik. Bere bizi zaurituaren eskeintza bake-baketan egin dau».

Isabel beti izan da goizalea. Mendigoizalea zan munduan. Goizalea, goietara egazkadak egiten zalea da bere arimako bizitzan be. Pozik ebillan otoitzaldietan, Tabor mendiko atsegiñetan sartuta lez Kurutzearen garraztasuna aiztuteko arriskua eukan, bear bada. Eta Kurutzea bain baiño geiagotan agertu jakon. Santuen bizitzan ezta beti eguraldi argia izaten. Ifioz illunaldiak be izaten ditue. Euren zintzotasuna olan agertzen da egiazkoa dan ala ez. Barruko illunaldiak, Jaungoikoaren gauzetarako gozotasunik bakoak izan zituen Isabelek be. Illuntasun guztiak gora bera, aurrera egiten eban, beti zintzo, beti kementsu.

Karmeldegian etzan sartu an beti Tabor mendiko bake eta atsegiñak izango zitulakoan, berak ain gogoko eban otoitz-aldietan murgilduta. Abade batek, monja joateko gogoa kendu edo otzitudearren, bein Karmeldegiko orma-bairuetan be gauza mingarririk, kurutzerik aurkituko dauala esan deutso, moja sartu aurretxoan. Eta bai berak arin erantzun be: «Aurretiaz nago kumtzeko itxaso orretan sartzeko prest. Bai, kurutzerik aurkituko dodala-ta nago. Orretakoxe noa Karmeldegira: Egunen baten, Jauna kurutzeak bialtzen atzerakor izango baneu, aiztu egin nauala usteko neuke eta orixe izango litzake niretzat mingarriena».

Eta Jaungoikoak ez deutso kurutzea ukatu. Karmeldegian bake osoa aurkitu dau. Moja guztientzat maitagarri egin da. Batez be, ama nagusiarentzat. Karta askotan agertzen dau bere arrimena; mojak ondoegi esaten eutsoela ta, lotsatu egiten da bera, moja-lagun guztientzat nekagarri zalako bere ustez, eta ainbesteko maitasunik merezi eztauala-ta. Kurutzea, kumtze ikaragarria, geixo bildurgarri eta oso mingarri bat izan da.

Apurka apurka etorri jako eta bein baiño sarriago azkenetan itxi dau. Orduan ulertu dau berak, zelan geixo asko, miñaren miñaz, euren buruak amaitzeraiño eldu

leitekezan. Berak eztau bere bakea galdu. Kurutzeko Kristori begiratzek eusten deutso, eta bere barruko Irutasun deuna dau pozgarri. Sarritan jatorko gogora Kristoren agindua, irurak arima maitaleen barruan egonlekua egingo ebenekoa. Orrek emoten deutso dana baketan erodateko adorea eta bere bake ori etxeko moja eta senideen eta ezagunen biotzera eroan gura leuke. Urte ta erdi iraun deutsan kurutze onek Kurutzean il zan Jaunagaz eta irutasun deunagaz batago eta zerurako elduago egiten dau.

Eta barriro be, Aita Santuaren berbak:

«Otoizlari andi onek, bere bakartasunean guztiz ostendu barik, jakingo dau bere barruko jainkozko bizitzan irabazi dituen aberastasunen barri bere moja-lagunai eta ingurukoai emoten. Beronen mezua profeten indarraz zabalduz doa gaur».

Kristau-bizitzaren irakasle

Orma artean, iñora barik eta itxurazko gauzarik egin barik il dan mojatxo gazte onek askok usteko dabe alperriko bizia egin dauala, uts emon dauala, ia zer egin dauan iñori ezer esatekorik. Beronegaz batera Zoriondun egin izan diran biak, Manyanet eta Bottier orrek, gizarteak esker onez artu dituan ekintzak sortu dabez. Gizartearen ongille andiak izan dira. Isabel onek zer egin dau, gizartean edo Eleizan eragiñik izan dauanik?

Egia esan, agiriko ekintza andirik ez txirikik eztau itxi, baiña ezta ezer egin bakoa. Isabelen eragiña ixilpekkoa izan da, arimen barrura joan dana. Bere bizian onik asko egin eban eta argirik asko zbaldu arima askoren barruan, eta ilda gero, geiago ta geiago. Eta, bear bada, Isabelek beste biak baiño ezagutzaille ta goratzaille geiago ditu munduan kristiñauen artean.

Ez dago santutasunik bere argi-izpiak ingurura zabalduko ez dituanik. Espiritu Santuak ez ditu bere argi ta ondasunak emoten galtzairupean gordeta eukiteko. Zelan edo alan, besteak gana, lagun urkoak gana zabalzeko dira. Santutasunak Eliza osoarentzat zabalitzen ditu bere argi-izpiak eta usain ona. Isabelen argiak Eleiza osora zabaldu dira eta zabalitzen jarraituko dabela uste izatekoa da, arima askoren poz eta onerako.

Aita Santuak esan dauanez, profeten indarraz zabaldu dira mojatxo onen irakatsiak. Profetak Jaungoikoak bialduak izaten dira. Jaungoikoaren izenean itz egiten dabe. Isabelek badirudi atarako aparteko deia entzun ebal. Il-aurretxoan, olango zerbait esan eutsan bere moja lagun bati: «Nire egitekoa zeruan auxe izango dala uste dot; arimak euren barruan sartzera ekarte, orretarako eragin gozo maitekorraz euren barruko zurruburuetatik urteten, eta Jaungoikoagaz alkartzen eta olan barruko ixiltasun andi baten irauten lagunduz, ixiltasun orretan Jaungoikoak erea izan dagian euren barruan bere irudia ezarten eta eurak Jaungoikoaren antzekoago egiten».

Isabelek ez dakigu egiteko ori zerutik iñoz iñorekin zuzenean egin dauanik, baiña bai, zearretara edo, berak itzi zituen idatzietatik. Ez eban asko idatzi. Geienak oni edo besteari egiñiko kartak ditu. Moja sartu zanetik, beti izan zan lumeari ekiten

zaletxo, batez be kartaz. Lenago bere egunkari bat edo beste bi idatzi ebazan. Moja sartuta gero, esanda dago karta asko bialdu zituela andik kanporantza. Baiña orrez ganera, idazlan laburtxo bi egin zituen: bata, *Lurrean Zerua* izenekoa, bere aizta ezkonduarentzat idatzia, eta bestea Karmeldegiko Ama Nagusiak eragin eutsana: azkenengo urtean, 1906n udaldian egin zituen gogo jardunen laburpena, amasei kapitulu txikitari. Or itxi deusku berak Jaungoikogazko artu emonetan eroian bidea, zelan Irutasunaren barruan bizi. Zelan Jaungoikoaren aintzagarri edo Jaungoikoaren aintzaren goresle izan. Ospe andia emon deutso Irutasun Deunari egin eutsan otoitz labur batek be.

Or ustu dau eta or itxi deusku bere arimearen barrua, bere Jaungoikoaganako bidea. Eta arritzekoa da, eta arrimen au erakutsi dau Aita Santuak be, teologi-eskola bakoa izanik, zelango egokitasun eta zeaztasunaz emon deusku teologirik sakone-naren guna, eta Kristoren Ebanjelioko eta Apostoluen idazkietako mamia.

Non eta zelan ikasi dau idazlanetan agertzen dauan jainkozko jakituaria? Jaungoikoaren itza entzun, irakurri eta gogoan erabillita auznartuz lenengo. Ori egiteko asko lagundu deutsoe Avilako Teresaren eta Joan Kurutzekoaren liburuak irakurteak, batez be azkenengo onek. Asko ikasi dau Karmeldegira itzaldi batzuk egiten joaten ziran fraile domekar batzukandik. Paulo Apostoluaren berba asko eta Joan Kurutzekoaren esan mamintsuenak, geien esaten eutsoenak, koaderno txikietan erabilten ditu, bere eskuz idatzita. Asko ikasi dau liburuetan, eta askozaz geiago otoitzean, Jaungoikoagazko alkar-izketa eta autu gozoetan. Baiña berak ez eban ikusten bere Jaungoikoaganako bidea, abade, fraile edo mojentzat bakarrik zalakotzat, edozein kristiñau eta edozein bizimodutakoentzat baiño. Maitasun bera eta ondasun bardiñak opa deusaz Jaungoikoak edozeini. Mundu guztiak daukoz Jaungoikoagaz alkartasunik andienean biziteko eskubideak eta atarako atek zabalik.

Isabelen irakatsiok, zabaldu ziraneke, abegi onena izan eban kristiñau erri guztian. Teologo eta mistikazale askok ekin eutsen eurak aztertu eta azaltzen: Philipon, Von Balthasar eta abar. Isabelen liburutxoak laster egin ziran arima otoitz-zaleen janari. Orain, Eleizeak zoriondunen maillan jarri dauanean, Erromako on-eritxi zabalagoa artu dabe eta eztira gutxiago zabalduko. Aldizkari askok Isabelen izena eta Isabelen irakatsiak gora goratan darabillez.

Aita Santuak esaniko beste berba batzukaz amaitu nai dot artikulu au. Gaurko mundu noraezean dabillan oni, Jaungoikoa aurkitu eziñik edo bear dan lez ulertu eziñik dabillan oni, Isabelek eredu ederra emoten ei deutso Jaungoikoaren berbea bear dan lez entzun eta auznartzen ikasteko, bizitza au zetarako dogun ulertu eta Jaungoikoaren aintzarako eta gizonen onerako diran egitekoetan sartzeko.

Euskalerrian oraintsu agertu da gure filosofo andi baten, X. Zubiriren azkenengo liburua, *Gizona eta Jaungoikoa*. Liburu orretan, filosofiaren argitan Jaungoikoa nor eta zer dogun azaldu nai dau Zubiri filosofoak eta, besteak beste, auxe atera dau: Jaungoikoa dabela gizonak eta izaki guztiak azpi-azpitik eusten deusden oiñarria.

Ia-ia, Paulo Apostoluak Areopagoen aitatu zituen Atenasko olerkari jentil baten esana bera: «Beragan dogu bizitzea, ibiltea eta izatea».

Isabel Zoriondunak ori eta askoz geiago aurkitu dau otoitzean: Jaungoikoa maitasuna dogula, geure barruko lagun barru-barrukoena dogula, bere aintzaren kantari izateko egin gaituala, oraingo eta geroko bizi betikoan. Andia benetan moja onek ekarri deuskun barri ona, egiok kristiñauen gogo-biotzetan sartzeko mojatxo onek egin dauana. Eleizeak Jaungoiko Aitari eskertu deutso bere alaba maitearen bizi eta argiakaz egin deutsan mesede andia.

ILLETA ANDIAK DONIBANE LOHITZUNEN TXOMIN ONAINDIA IL DA*

Illeta-ots samiñak izan dira Donibanen apirilleko lenengo egunetan. Txomin Onaindia, Donibanen berrogetabost urtez gogor eta gogoz lan egina eta bertakoak ain maite eben abadea il da. Doninbandarren biotzak sekulako eraso artu dabe. Ez zan bera donibandarra, baiña bai osoan bertakotu eta gaurko donibandar geienak bertan ezagutu izan dabena. Donibane bigarren jaioterria ebala eta donibandarrak euren artekotzat eukela esanaz, egia besterik ez dogu esango. Donibane eta Txomin alkarregaz bat egiñik bizi izan dira 45 urtez.

Orrenbesteko urte mordo ederra alkarregaz egiñak izan ezkerro, eta alkartasunik ederrenean egin be, ez da arritzekoa Txominen eriotzeak Donibane osoa biotz-biotzean jo ta astindu badau. Ustez uste bako eriotzea, ez-bearrekoa, izan da ganera. Baionako seroretxe batera bere abade-egikizunak betetera kotxean joiala, kamioi batek atzetik jo dau eta bera, kotxea suak artuta, erreta illik gelditu da, ezelango laguntzarik artzeko aukera barik. Olantxe, agurrik be egin barik joan jake donibandarrei, larogeta bost urte zituela azkenengo ordurarte euren onetan ain gartsu lanean ikusi izan daben «apez» euskaldun maite eta maitagarria, «bestaldeko» euskaldunen artetik guztien arimazain izateko antziñatxo agertu jakena.

Jaiotzez Bizkaiko semea zan Txomin Onaindia Zuluaga, Markiñan 1901n jaioa. Beste anai bi izan ditu abade. Bata, Zelestino, Elgoibarren abade zala, militarrek sartuaz batera, 38 urteko adin ederrean il ebena; bestea, Alberto (Aita Olaso), munduan zear entzute andia izan dauan kanonigo ezaguna. Bera, Txomin, Arratiako Abadegei-etxean egoan irakasle 1936ko gerrate negargarria sortu zanean. Bere anai zar abadearen azken baltza jakiñik, Txominek ez dau berak zori ohea izango daualako uste andirik, eta bere etxeoakaz batera mugaz andiko Euskalerrian billatu dau ba-

* Karmel 1985-2, 56-66.

beslekua. Edozelan be, abade eta euskaldun bizi gura dau. Batez be, abade lanetan ekitea ez leuke itxi gura. Ez deutso bere biotzak besterik eskatzen, eta bere amak orixe eskatzen ei eutsan Jainkoari bere semearentzat: abade izan eta abade-lanetan jarraitzea.

Txominek autortuta jakin dogu au. Orain dala urte bi, abadegintzarako diaman-tezko eztaiak ospatzen zituen: irurogei urte abade egin zala. Eta eztaï orretako omenaldian orixe esan ei eban Donibanen: «Ama kristiñau bati dagokionez, nire amak ezin ginduzen ikusi seme abadeok alperrik abade-lanik egin barik eta arren bai arren egiten eutsan otoitz Jainkoari niretzat abade-lanen baten eske. Bere semeak Eleizaren-tzat ezer egin barik ikusterik ez eban iñondik iñora nai. Eta orra non joakon Mateo Mujika, erbestean egon arren Gasteizko Gotzain jarraitzen ebanari, onelako eske au, orduan Donibanen erretor egoanak bialdua: Abade bat, atzerrietara iges eginda ebil-tzan abadeetako bat, nai dau Donibanerako. Zertarako? Geien baten Donibane-Ziburu aldean iges joanik egozan euskaldunen arduradun ipinteko; baiña orretarako bakarrik ez, bertako fededunen arimazain izateko be bai, bertako abade askok armetara deituak izan ziran eskero, errian bertan be abade-bearra sortu zalako».

Olantxe etorri jakon Txomini, artean bere amaren ondoan Azkain aldean ebi-llanari, Donibanera joateko deia. Arrezkero Donibaneko abade laguntzaille eginda dago eta ez dau geiago andik urtengo. An jarraitu dau eriotzako ordua etorri jakon arte, donibandar asko baiña donibandarrago eginda. Donibanek ez dau ezagutu Txo-minek beste urtez an abade iraun dauanik: 45 urtez. Guztien maitagarri egiñik iraun dau, barriz. Olan ain luzaro leku batean, abade-lagunen eta kristiñau guztien gogoko izanik irauteak asko diño Txominen alde.

Txominek egun zoriontsu asko izan ditu Donibanen eta ango erriak biotz biotzetik lagundu deutso Txomini bere biziko egunik pozgarrienetan: esaterako, abadetzarako ifu eztaï-egunetan, zidarrezko, urrezko eta diaman-tezkoetan. Beste omenaldirik be izan dauana badakigu. Neuk be gogoan daukat bat, Donibaneko eiztariak egin eu-tsoena. Zer zala-ta? Goizeko mezea, euskerazko mezea, berak emoten eutsela oge-tabostgarren urtea zala-ta. Omenaldi orretarako Aita Iratzederrek, Donibaneko seme eta olerkari ospetsuak, egun ari egokiozan bertsoak atera eutsazan, bere doiñu ta guzti.

Omenaldirik ederrena eta beteena, ezbai barik, il ondoan egin deutsoena izan da. Egiak, aiko maiko barik, artez esateko ordua eldu jako Donibaneko kristiñau-elkarteari eta Irigoin apez jaunaren agotik autormen ezin ederragoa egin deutso Txo-minek an egin izan dauan lan guztiari. Gorpuaren aurrean, olan omenduaren aurpegia gorritzeko bñldur barik esaniko egiak izan dira. Bi edo iru bider, gitxienez, berba egin dau Donibaneko erretor jaunak. Euretán ikusiko dogu ango eleizgizonen eta erritarren esker ona biotz-biotzetik urteten. Oiartzun beñbera izan eben alkatearen itzak eta Xanpunen bertsoak illeta egunean.

Aste Santuan zan Txominen ezbearra eta eriotzea, asteartez. Eguen Santuz izan da lenengo illeta-elizkizuna, meza bakoa. Egun orretan, Eleizako legez, eztago il-mezarik esaterik. Eguneko mezeaz besterik ezta esaten, baiña meزابako elizkizuna egin lei illen alde, bere irakurgai, itzaldi eta otoitzekin. Eta Donibaneko abade par-

rroko jaunak or ustuko zituen bere eta erriaren sentierak ezin egokiago, ustu be. Itzaldi guztia esker onezko itzaldia egingo dau, eta dan dana gorpuaren aurrean illari berari, bere eta guztien izenean esanda:

«Don Txomin Onaindia, Kristoren apeza, eriotzako ordurarte Kristoren zerbitzari izana:

Nik gaur esker onezko kantua jaso nai deusat Jainkoari, zuk Donibaneko eleiz onetan 45 urtez ain zintzo eroan eta ain zeure buruaz aitzurik bete dozun abade-bizitza gaitik, lenago Markinan zeure jaioterrian eta Bizkaiko Seminario txikian egin zenduzan abade-urteak aitzu barik.

Eskerrak, bai, emoten deusadaz Jainkoari, neure izenean be, Don Txomin, emen alkarregaz egin al izan dogun ia ogetamar urteko lanagaitik anaitasunik edereanean, ezelango alkar artu eziñik barik, alkar ulertu ta aintzat artuz, batuk bestearen eginkizun, urte eta karismari izandako begirune osoaz.

Eskerrak, bai, Jainkoari, Eguen Santu onetan, Kristok abadetzeta eta Eukaristia sortu zitueneko Jaiegun onetan, zeure abade-bizitza luze orregaitik. Asko ez tala, ementxe ospatu izan dozuz zeure abadetzako diamantezko eztaiak, zuri ain gomuta pozgarria itxi eutsun egun pozgarri atan. Zuretzat abade-eginkizunen gaillurra, batetik, Eukaristia onuratsua egiteko, eta bestetik, kristiñau-bizitzan aurrera eragiteko lagungarri dana.

Eskerrak, bai, Jainkoari, zure konfesategiko lan-orduak gaitik. Ondo eskertu izan dabe gure kristiñauak or egin dozun lana. Amaika arimeri eroan izan deutsezu or poza, itxaropena, kristiñau-bizitza ohea egiteko bultzadak, iñor estu artu barik, Kristorena lango errukiaz, bildurrak uxatu eta bizi-poza emotekoa zan gogo alaitsuaz.

Eskerrak, bai, Jainkoari, zuk gure artean betiko Bizitzaren alde emon izan dozun ez bai bako testigantzagaitik, teologo batzuen zorrozkerieri jaramon gitxi egiñez, Zeruko Erreiñurako biztutea zelán izan leiken ulertzeko.

Eskerrak, bai, Jainkoari gure umeen 40 belaunaldiri emon izan deutsezuzan dotrinakaitik. Ezin konta ala izan dira, eta dotriña argi zeatzak, argibide xarmagarri orniduak, ez tita entzutekoak; emen berton dagozan kristiñau askok, ezin aitzurik, ondo gogoan gordeko ditue zure dotriñeko irakatsiak, batzuk bizitzara errez eroatekoak, beste batzuk, ez ain errez egitekoak.

Eskerrak, bai, Jainkoari, gure arteko geixo eta zarrei ainbeste ikustaldi egiñagaitik eta ainbeste bidar Gure Jauna eroanagaitik, bizitzearen azken aldiaren balioa aintzat artzen erakusten zeuntsela.

Eskerrak, Jainkoari, bai, 1936ko anai-gerrate zorigaiztoko noraezean, Jainkoak egin eutsun deiari erantzun zeuntsalako Donibaneko kristiñau-alkarte onen zerbitzari jarteko, eta emen gure artera babes-billa etorritakoen talde txikiagori be, eragozpen askoren erdian, poza, adorea ta laguntza emon izan zeuntselako.

Eskerrak, bai, Jainkoari, Don Txomin, GAIN-GAINETIK LAGUNDU BAITUZU ZURE ANAI IHES HUNAT ETORRIAK ETA HOLA DESHERRITUAK, ETA DENEN BIHOTZETAN ATXIKI ETA BEGIRATU BAITUZU EUSKAL-HERRIAREN AMODIOA ETA ASKATASUNAREN XEDEA, ETA GUK ERE, ZURE ONDOAN IKUSI BAITUGU NOLAKO ESKUAL-HERRIA NAHI ZINUEN ALTXARAZI.

Eskerrak Jainkoari, eleizarako bidea itxita, erlijioan zabartu edo ta fedebakotu zireanakaz zure biotzak alan agindurik izan dozuzun adiskidetasunezko artu-emo-nakaitik.

Azkenez, eskerrak Jainkoari Jainkoaren goiko erreñutik zuk gure alde egingo dozun otoitz eta bitartekotasunagaitik; zeure obilekutako ez dozu zuk gure illerrian joan-etorri aindieneko kale-ertza autatu, andik igaroko diranak, zure alde otoitz egin dagien; zeuk eurai zeure laguntza emongo deutsezulako uste ona dabe».

Esker onezko itzaldi biotz ausigarri orretan Donibaneko erretor jaunak punturik ez dau ikutu barik itxi, berak eta erriak eta beste euskaldun askok Don Txomini eutsan zorra adierazoteko.

Illeta-mezea Pasko aztean izango zan, Pasko domeka ondoko asteartean. Eta egun ori iragarteko, parrokiako eleiz-orriak barriro dakar illaren oroimen samur au: «Aste Santu au eta aurtengo Pazko au jazoera gogor mingarri batek markaturik itxi deusku: gure Txomin abadearen zorigaiztoko eriotzeak. Joan dan domekan nok usteko eban ez ebalabarak pazko egun au gugaz batera emen ospatuko? Eguen Santua be, Euskaristiaren eta abadetzaren jai, gugaz batera, ez ebalabarak egingo, abadeok beti egiten genduan lez, alkarregaz bazkalduta, Aste Santuko azkenengo nekeak eroateko indar barriak artuz? Erramu-domekan, goizeko seiterdian konfesategian genduan bera; zazpiretan euskerazko mezea emon, (bere begietako lausoa gora bera Ebanjelioa luze osoa irakurrita), beste meza guztietan Gure Jauna emon, eta arratsaldean be bera genduan buru, bere kapa ta guzti, Kurutzetakoak egiten.

Astelenean eta asteartean bera zan etxerik etxe geixoi eta adiñekoai Gure Jauna eroaten. Asteartean, eguerdiosteko ordu bietan bere kotxea artuta bajoian Baionara St. Etienne Klinikako mojen autortzak entzutera eta autopistan sartu daneko, bertan jazo jako ain zorigogorreko ezbearra. Bertan gelditu da illik, suak erreta. Orra abade adiskide kutun au gure artetik kendu eta illobira eroan deuskun ezbear mingarria, gure parrokiarren zerbitzari 45 urtez egonda gero. Jainkoaren borondatea izan dalakoa daukagu. Jainkoak kontuan izan dauala dirudi abade kementsu onen gogo sutsuena: azkenengo indarrak agortu arte, Jaunaren eta Eleizearen alde lan egitea. Alde onetatik Jainkoak bere gogo ori betetea emon deusala esan bear: lanera bidean il da, bero beroan, bere eleiz-lana atzerritik etorritako moja batzuentzat egitera doala. Guretzat emon al guztia emon dauan serbitzari oni «Serbitzari on eta leialari» agindutako saria emon deiola Jaunak, eta zeruko erreñutik guri eta gure kristiñau-alkarteari gero ta Kristorenago izaten lagundu deigula».

Illeta-meza apirillaren bederatzian da, Pazko asteartean. Egun ori izentau dabe, illaren senideen gogo kontuan arturik, batez be, mugaz emendikoen onerako, ara joatea errazago egin ekien.

Arratsaldeko seiretan, mezea asterakoan, goi ta be, beterik dago uri atako eleiza andi zabala. Altaran, erdiko meza emoille, Baionako apezpiku Jauna, eskoialdean Garaigordobil, mixioetako gotzain izana, eta ezker aldean, Karmelo Etxenagusia, Bilboko eleiz-barrutiko Bikario Nagusia. Onein inguruan, altara aurre guztia bete abade, goian eta bean, alkar-mezan parte artzaille... Zenbat? Larogetik gora bai. Otoitz, kantu eta abar euskeraz da dana. Altara nausitik ur, eskoialdean, Erriko abestalea, kantu nausiak, abots askotakoak, emoteko. Meza entzule bakotzak bere orritxo dau eskuetan, erriaren kantak abesteko.

Eta mezan, an izan zirean guztientzat gauzarik gogoangarriena Mezako itzaldia, ango erretor jaunaren itzaldia izan zala esan bearrik eztago. Eta KARMEL aldizkari onen irakurleak gogoz irakurriko dabelakoan, emen emon nai dogu, itzez itz, izlariaren agotik urten eban lez, izlariaren beraren euskeran, len esandako gauza asko barriro esan bear baditu be. Ona emen itzaldi osoa:

«Aurride maiteak: Aurthen, Aste Saindua eta Pazko pesta, girixtino pestetan handienaren ospatzeko, ukan dugu Donibane Lohitzunen, molde berezi batez Txomin Onaindia gure Jaun apezaren laguntza hunkigarria. Hasi da gure laguntzen, usaian bezala, Jainkoaren partez bekatuen barkamendua jeneroski emanaz, bere kofesiotegian, oren eta orenak iraganez girixtinoen zerbitzuko. Gero, Erramuz, goizeko meza eskuaraz zelebratu du, Pasioneke Ebanjelio luzea irakurtuz, bixta laburtzen ari izanik ere... Komunione Saindua eman du igande hortako Meza guzietan, eta arratsean, Kurutzearen bideko otoitzak egin ditugu elgarrekin, Don Txomin buru, kapa bioleta soinean. Sankristian solas egiten ginuen: Huna, Aste Saindua hasia, eta ederki hasia! Agian girixtinoek nahiko dute Aste Saindua hau kartsuki iragan!

Ez ginakien orduan Don Txominek eginen zeukula Aste Sainduko predikuetan saminena, berak heriotzea jasanez molde ikaragarri batean eta Donibandar ta adiskide guzien bihotza ezarriz hunkidura-zimiko sakor handi baten erdian. Herri guzia harritua, herri guzia inarrosia, herri guzia biziki barna hunkitua! Eta deneri Don Txominek, bihotz-ixiltasunean, erraiten zaukun: «Aste Saindu huntako zen ene orena, Jainkoak bazakien orena. Ene xedea zen, ez bakarrik Baionan seroren konfesatzea, bainan gero fite Donibanerat itzultzea, girixtinoen artean izaiteko Aste Sainduko zeremonia guzietan. Jainkoaren nahia bertzelakoa zen: nik heriotzearen pairatzea ixtripu latzgarri batez, Jesus Jaunarekin pasatzea mundu huntarik besterat, eta zuek eni pentsatuz eta ene mintzalditaz oroitzuz barnagoki sinestea, esperantza ukaitea, heriotzeko orenean pasatzen girela Jainkoaren betiereko bizirat, Pazko goizean hil hobitik ateratu eta, Jesus sartu den Piztuaren bizian».

Aurride maiteak: Horra Don Txominen Aste Sainduko azken predikua. Atxik dezagun luzaz gure gogo-bihotzetan prediku balios hori!

Ehorzketako Meza huntan, Jainkoari dugu eskaintzen Don Txomin apezaren bizi osoa, eta bereziki bizi hortan izan diren gauza ederrak eta goresgarriak. Horiek guziak Jainkoak har ditzala eta horier guzier eman Jainkoak bakarrik, bere amodiorekin, bere poderearekin emaiten ahal duen saria, eta bururapen ospatsua ta dohatsua! Zoin izan dire Don Txominen bizian gauza on eder ta goresgarriak?

Izan da osoki *apeza*, izan da osoki *euskalduna*.

Osoki apeza!

Hemen zelebratu ditugun gain-gainetik ohoeski familiarekin, apezpikuarekin, apez adizkidekin eta herri guziarekin, Don Txominen, lehenik, urrezko eta diaman-tezko Jubilua! Hamabi urte Bizkaiko zerbitzuan izan-eta, Azkainerat etorri zen, eta Azkainetik, hiru urteren buruan, Donibane Lohizunerat, Belevue jaun erretoreak dei egin ziolarik. Hori zen, gerlako bide illunen artean, Jainkoaren nahia Don Txominen-tzat: apez laguntzaile izaitea Donibane Lohitzunen, bertze bikario guziekin. Zenbat

denboraz? Jainkoak bakarrik bazakien: berrogei-ta bortz urtez. Ez da bertze apezik hainbertze urte egon denik Donibandarren zerbitzuan!

Hortakoz, zuen artean, zonbat etzirezte bataiatuak izan hunen eskuetarik! Zonbategi ez duzue katixima segitu, konfirmazionea prestatu, eta fedearen erroak barna landatu, apez hunen lanaren medioz! Zonbat etzirezte hola ezkontza girixtino baten egiterat heldu, eta familia fededun baten altxatzerat bermatu! Zonbat eri ta xahar ez ditu bizitatu, kontsolatu! Zunbati kuraia eman, Komunione Saindua ekarriz!

Gehiago, azken oren artio, bere apeztasunean lanean arizan da. Ba, mirets dezagun apeztasun horren iraupen baitezpadakoa! Ez baita aski egun batez, apezpikuaren eskuetarik apeztasunaren ukaitea. Behar baita ere, apeztasunean iraun, eta iraun luzaz, Jainkoaren nahia bada bizitze luze baten ukaitea osasun onarekin, Ezkontzan bezala funtsean! Don Txominek puntu hortan eman dauku etsenplu ederra: Apez izaiteko agintza untsalaz betiko dela, *Sacerdos in aeternum*, eta hala dituela apezak ezkonduak laguntzen beren agintzeri betikotz fidel eguiten: hola dituela ere apezak girixtino guziak laguntzen fede iraunkor baten atxikitzen!

Osoki Apeza eta osoki Euskalduna!

Euskaldungoaren gatik pairatu ditu beren herritik iheslarien pena guziak. Iheslarien gurutzea jasan du fede bizi batekin, iheslariak sustatuz, lagunduz. Bere bihotzeko ixiltasunean kurutze ori Jainkoari eskaintzen zuen, Don Alberto, kalonjea, bere anaiarekin eta hirugarren anaia apez tirokatua izan zenaren orhoitzapenarekin, eta familia guziarekin.

Gurutze hori jasaiten zuen bere Euskal-herria berriz libro eta askatasunean ikusteko. Zorion hori ukan du; baifian orai desiratzen zuen bere Euskal-Herria bizi zadin elgarren amodioan eta bakean. Sendimendu-egintza eder horiek presenta ditzagun Jainkoari, Jainkoak sarizta ditzan».

Irigoin jaun erretorak ez dau illaren gaiñera orbelik ez lora utsik bota. Apez euskaldunaren irudi betea emon deusku.

Erretoraren itzaldia amaituta, erri-otoitza egitorduan, meza emaleen arteko apez batek, Idiart jaunak onakoxe txorta bat egin dau bertsoan guztien eskariarekin:

Bizkaian dago Markina;
Zu handik huna jina.
Txomin, gaur zer dolumina!
Oi zer oroitzapena!
Jada Gernikan sua izana,
orain zu suak jana...
Zoaz lasai, apez laguna,
Jaun Goikoaren gana!

Gure Jauna emoterakoan, OGI ZERUTIK barri bat entzun da, Txomin zanaren gogorik bizi gartsuenetakoa erriak bere egin gura baleu lez:

Ogi Zerutik ekarriak
 egin gaizala bat guziak.
 Jainko Semea gutan baita,

Jainkoa dugu denok Aita,
 gerla bideak utzi eta,
 dugun bihotzez elkar maita...

Meza ederra. II meza gogoangarria benetan. Baiña ez zan or amaitu dana. Mezaren ostean, Baionako apezpikuaren, Donibaneko alkate jaunaren eta Xanpun bertsolariaren txanda etorri da. Baionako apezpikuak mezako otoitzak polito baten esan zituen. Erdalduna izan arren euskeran aurrerakada andiak egin dituela dirudi. Baiña meza osteko itzaldia frantzesez egin euskun. Txomin zanari bere omenalditxoak egin barik ez eban gelditu nai izan. Aren agotik *Txomin'iz&na*. ainbat bider aitatzea oso atsegina eta bitxi egin jakun.

Alkateak itzaldi bi, biak naiko luzeak egin zituen, frantzesez eta euskeraz. Erri guztiaren izenean, biotz-biotzetiko eskar ona Txomin zanak Donibaneko ainbeste belaualdira egindako onagaitik ondo agirian ipiñi eban, eta argi bai argi autortu.

Xanpun bertsolariak, *Lurrarenpian* kantuaeren doiñuan bost bertsoan, bost aapalditan, agur sentikorra egin eutsan Txomin abade euskaldunari. Bertso eder eta biotzondo andikoak izan ziran. Emen argitaratzea merezi eben. Tamalez ez gendun kopiarik lortu. Bertso areitan, erriko erretor eta alkate jaunari jarraituz, ondo argi itxi eban bertsolariak Donibandarrak Txomini zor eutsoen on gutzia.

Elizkizun guztiak, meza ta itzaldi, ia ordu bi iraun eban arren, igarri barik joan jakun ordua. Iñor aspertu zanik ez dot uste. Ain ederra egin jakun dana. Euskalerrri guztitikoak giñan bertan. Andikoak esan bearrrik ez. Mugaz emendik, Napparroa, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaitik joanik ikusi gendun. Eta guztiok, geure gogoetan Txomin maitearen irudi eder osoagoa genduala itzuli giñan andik.

Len, aren adiskide alderdia ezagutzen genduan, bakotxak bere ikuspegitik ikusita: aren abegi zabal, txeratsu, alai, bizia. Orain, Donibandarren begiz ikusita, aren abadetasuna eta gizatasuna, aren nortasun osoagoa, barruagotik dogula-ta gagoz. *Osoki apeza eta osoki euskalduna* zala, apez izate orrek eta euskaldun izate orrek bereak dituen alderdirik onenak barruan direala, obeto dakigu. Txomin Onaindia Zuluaga lango gizonekin, Euskalerrriak ez dau iñongo aldetan lotsaz agertzerik izango. Don Txomin lango gizonak edozein lekutan euskaldunen ospe ta izen ona garbiago zaintzen lagunduko dabe. Don Txominek Bidasoaz andiko ta emendiko euskaldunen alkar ezagutzea eta anaitasuna mamitsuago eta anaikorrigo egiten ez dau gitxi lagundu. Don Txominek maitagarri egitea lortu dau ango inguruetan bere jaioterriaren izena, Markina eta Bizkaiaren izena.

Donibane Lohitzuneko erriak, bere erretor jaunaren agotik, esan eutsana esango deusagu geuk be: Eskerrik asko, Don Txomin. Eta Liturgiako kantu bat euskeraratu, otoitz onekin amaitzen dogu:

Jauna, Txomin izanaren
 alde deusugu eskatzen:
 GOYAN BEGO beti Zuri
 esker-kantuak kantatzen.

GARATE ANAIA, JESUSEN LAGUNDIKOA (1857-1929) ALTARETARA*

Patxi Garate, azkoitiarra semez, 32 urteko gizona, ezkontzaz Azpeitiara joana, Erromarako bidean doa 1852ko neguaren biotzean. Zertan, Erromara? Aita Santuaren baimen baten eske. Lau seme-alaba txikirekin alargun gelditu da eta ama-ordekoa bear da etxean. Etxekoak esan deutsoe zein artu. Baiña senide urkoa dau-ta, bere koñata gaztea dau-ta, Aita Santuaren baimena bear aregaz ezkontzeko.

Jakiña: eztau orretarako Erromara joan bearrik. Baiña Patxi Garateri gogoak emon deutso bertara joan bear dauala, ez bakarrik baimena aterateko; ezkontzea bera be Erroman egin gura leuke. Garbitasun guztiak ondo ta zeatz aterata eroan bear zituen Patxik nai eban guztia lortzeko. Laguntzaille onak aurkitu zituela dirudi, bai Loiolan eta bai Erroman. Dana egingo dau 17 egunen barruan: Erromara eldu (Donibane Lohitzuneraiño oiñez eta andik aurrera trenez), Aita Santuaren baimen eta askatasun guztiak lortu Aita Santuaren ordezeko kardenalak izenpetuta, ezkontzea egin eta Azpeitiara biurtu. Ezkontzea Erromako Agustin deunaren eleizan izan zan, baiña ezkon-laguna barik, bitartekoz, ezkongaiaren baietza Tomasa Belderrain Erroman bizi zanak emonda. Olantxe gelditu ziran senar-emazte egiñik Patxi Garate, lau-seme alabadun alarguna, eta Mari Batista Aranguren, Patxiren lenengo emaztearen aiztea, 22 urteko neska gaztea.

Ezkontza onek egitekorik naikitxo emon eutsen eta zirriborro asko egiñerazo Erromako eleizgizonai, Aita Santuagandik asi ta berengoetaraiño. Baiña dana zarata andi barik eta ixilpean egin zala esan geinke. Nok esango eban orduan, egunen baten, gaur, ezkontza atatik jaiotako seme batek Erromako Aita Santuaren inguru guztia dardaraz ipiñi bear ebana?

* Karmel 1985-3, 79-91.

Orra lerro oneik irakurlearen eskuetara orduko, mundu guztiak ikusiko dauana, urriaren 6n, Joan Paulo Aita Santuak, oraintsu euskaldun bi altaretara jaso dituenak berak, Frantzisko Garate, Jesusen Lagundikoa, Deustuko atezain entzutetsua, Zoriondunen maillako egin dagianean.

Loiolako Izar Barria

Garate Anaia Loiolak Jesusen Lagundiari eta Eleiza oscari emoten deutsan santutasunezko bigarren izarra da. Lenengoa, esan bearrik ez, Gure Patroi Andia da, Iñazio deuna, benetan andia gizontasunez eta santutasunez. Arerio eta adiskide, guztiak egiten dabe andi. Jesusen Lagundia sortuaz, bizirik dirau munduan, mundua beteko ekintzak aurrera eroaten. Jauregiko semea da, Gipuzkoa zarreko zaldunen maillakoa. Izar argia. Jauregiaren aurrean, baserriak eztauka lotsatu bearrik. Gitxiago kristiñauen artean. Eta or dator gaur izar andi orri lagun egiten, Garate Anaia, Errekarte baserriko semea. Eleizan izar argi eginda, jauregiko seme eta zaldun izanari argitasun geiago emoten.

Jauregia eta baserria Loiolan eztagoz txarto bata bestearen ondoan. Jauregiko arro itxurari eta arro usaiñari eztaorkio txarto alboko baserriaren apal itxura eta usaiña. Biak bat egin dabe, munduko arrokeriak eta uskeriak itxita, Jaungoikoaren maitasunean eta Kristoren apaltasunean.

Bizian bidea egiten

Baiña goazen Patxi Garate eta Mari Batista Aranguren senar-emazte egin barrien etxera. Guraso bedekatu areik ez ekien ezkontzako legeai uko egiten. Lengo ezkontzako lau seme alabez gaiñera, beste zazpi ekarri zituezan mundura, eta bizimodua aterateko bidean ipiñi. Alaba bi angerutan galdu jakezan. Beste guztiak baxotxak bere bidea artu eben, iruk Jesuita, eta besteak etxean edo kanpoan.

Garate anaia izango zana bigarren semea izan eben. 1857ko zezeillaren iruan jaioa. Urrengo egunean bateatu eben eta iru izen ipiñi: Blas Franzisko Maria, eguneko santuarena lenengoa, eta beste biak aita amenak. Praisku edo Patxi izenaz gelditu zan etxekoen artean. Jaio barriak Olazko Amaren aurrera eroatea oiturea zan Azpeitian. Oitura ori bete barik ez eban itxi, aurki, Praiskuren amak. Etxe atan etxeko eskolea zan lenengoa, gurasoak etxean emona. Orretan zintzoak ziran gurasoak. Eta Loiolako etxearan eta eleizaren babesean ez eben an giro txarra, ez erreztasunik gutxi umeak eskolatu eta kristiñau on azteko, orduko gobernuak jesuitak darda gaiñean erabilteko egin oi zituezan alegiñak gora bera.

Errekarten gurasoen burubide onaz, bazan etxeko bearrai nok erantzun: soloak landu, beiak eta ardiak zaindu, sagardogintzan eta ardazketan ekin eta danerako zan an beso-indarra eta lanerako garra. Eta, gaur bat eta biar beste bat, or urrengo eban baten batek nonbaitera lanbideren bat ikasten edo erdera ikasteko asmotan morroi.

Orixe jazo jakon Praiskuri, amalau urte zituela, 1871 Orduñako Jesuiten Ikastetxera joanda; etzan joan Jesuita sartzeko asmotan, bide batez erdera eta eskola geitxoago ikasteko baiño. Eskolatik kanpo morroi-lan batzuk egin bear zituen: etxebarruko lanetan, atezain eta geixo zaiñaren laguntzaille eta ordezko. Orduñan iru urte egin dituaneko, jesuita izateko gogoia sartu jako Anai Laguntzaillearen artean, eta orduan nagusiak Frantziara bialdu dabe, Poiannen jesuitak artuta euken etxera, España aldetik igeska edo erbestera botata joiazan ainbat jesuiten babeslekura.

Orduñatik Poiannera bidean, Errekartetik igaro eta guraso ta etxeko guztiai agur egiteko aukerea ta poza izango dau. Gero aitak lagunduko deutso Poainnera arte. Etziran egun onak, 1874koak, karlisten bigarren gerratea sutan dala, etxetik urriñera ibilteko. Errekartetik goizean goiz, egunsentia baiño lenago urtenda, or doaz ondoen deritxen bidetik, mendiz mendi, egun guztia bidean egiñik, oiñez, Donibane Lohitzunera jo arte. Urrengo egunean Donibanen treña artu eta Akiseraiño burdin bidez, eta emendik zaldizko burdian 17 kilometroko bidea Poainnera. Aita-semeak emen alkarri agur egin deutesenean eztakie azkenengo agurra izango dabenik. Urrengo urtean ilgo jako aita eta berak bere bizi guztian eztau Errekarten geiago sartzerik izango.

Garate Anaiak 17 urte ditu Poianneko nobizio egin eta Jesusen Lagundiko Anai Laguntzaille izaten asi danean. Arrezkero, bere bizia Jesusen Lagundikoen babespean eta Jaungoikoaren eskuetan jarri dau.

Bere agiriko bizitza nondik nora ibillia izan dan badakigu: amalau urte egiñ arte, Errekarten, bere guraso ta etxekoen artean; iru urte, Orduñan, zerbait ikasten eta etxeko bearretan; iru-lau urte, Poiannen (emen jesuiten artean ospetsu egingo ziran euskaldun asko ezagutuko ditu: Mendibe, Urraburu, Muruzabal, Zameza, Astrain, Vinuesa anaiak, Ibero eta abar); amar urte, Galiziako La Guardian, gexo-zain, eta azkenik, 41 urte, Bilbon Deustuko atezain, 1929n il arte.

Jesuiten bizimodua artu dauan ezkerro, beti eta leku guztietan bere arimearen ederra, Jaungoikoak ixuri deutzazan graziezko ondasunak argi betean erakutsiko ditu, bere eginbearrak zintzo eta maitasun andiz betetan, bere buruaz aitzuta geixoen ondoan ordu luzeak igaroten, eta atera datozen guztiai beti irribarre gozoz eta txeratsuz abegirik argiena egiten. Beti otoitzean, Jaunagaz eta Andra Mariagaz biotzetiko autuetan, beti lanean anaien eta lagun urkoen alde, iñori iñoz ezelango erremuskadarik egin edo betozkorik ipiñi barik, iñogaz berba alperrik egin barik, eskekoei eta txiroai zelan geiago emongo asmau ezin dauala. Garate anaia berrogeta bi urtez ikusita, Deustuko atepak badaki aren abegi gozoz eta ak zabalduriko eskupekoen barri. Sekula guzurtau bako eroapen alaia, berea!

Ate atan ainbat ikasle-mutillak ondo ezagutu eben aren egoarria, aren maitasuna, guztien alamenak bake-baketan eroateko, sekula bere onetik ez urtetako. Mutillak dira eurak, ikasleak, áskotan edozeiñi gogait eragiteko, baita edozeiñen akatsak ikusi ta ezizenak ipinteko. Euren atezaiñarekin zer egiñik ez euken. Ez eutsen aurkitzen Garate Anaiari nondik eldu, eta ezizen-jartzailleak etziran oker ibilli arako ez-izena jarri eutsenean: *Hermano Finuras*. Garate Anaia beti gogaldi batean, beti otzan eta atsegin eta bere irribarretxoá galdu barik aurkitzen ebela adierazoten dauan ez-izena.

Beste batzuk, begi zoliagodunak, barrurago begituten ebenak, agiriko egoarri eta abegi maitekor orren iturriari obeto igarriko eutsoen. «Au anai santua!» esango eben.

Ortxe, santutasunean egoan atezain ospetsuaren jardunbide guztiaren sustraia nonbait be. Santutasuna ori noz eta zelan lortu eban, orixe da bearbada, igarri edo ikusi ezingo doguna. Santutasunean maillaz mailla igoten ikusi gura geunke, baiña lenengotarik goiko mailletan ikusten dogu bera. Dana batean lortu izan baleu lez. Bere gara betera eldu baiño len santutasunak bere asierea dau; gero, aurrerakuntzea, gero ta santuago agertzea; eta azkenez, santua bere eldutasunera, bere gorenera eltzen da, mailla baxotxean gora, gelditu barik, aurrera ta aurera egiten dauala, gero ta santuago, gero ta Jaungoikoagaz batago biurtuz. Garate Anaiari ez deusago len-gerorik ikusten. Nekez igarriko dogu noz asi zan bera gorantza egiten eta noz eldu zan bere santutasun betera. Bere jesuiten arteko bizi guztian, Jaungoikoari emona, Jaungoikoaz beteta ikusten dogu bere bairua. Beti Jaungoikozko gizon eginda agertu izan jaken bera urretik ezagutu eben guztiai.

Garate anaiaren santutasuna

Garate Anaia Anai Laguntzaille esaten deutesnetako jesuita izan da, ez abade izateko sartzen diranetakoa. Beraz, ez eban filosofiarik ez teologiarik ikasi ez beste ikasketa andirik egin. Ezta apostolutzako lan andietan sartu. Etxeko lanetarako erabilli eben nagusiak beti.

Lenengotan, geixo-zaintzarako. Amabost-amasei urteko zala, Orduñan, geixo ardurea emon eutsen iñoz. Laster igarri eutsoen orretarako eukan biotz ona ta eskua. Agiriago erakutsiko dau orixe bera, Galizian La Guardiako etxean geixozain egitean. Iru ikastetxe egozan bertan jesuiten eskuetan: batxillerra ikastekoa, goi-maillako ikasketak egiten zituenena, eta abadetako ikasten ebenena. Ikasle asko, eta geixo zaiñarentzat naikoa lan. Eta geixozaintzaz gaiñera, sakristautza be berari ezarri eutsoen laster. Bíak gazte arentzat, bearlekurik maitagarrienak. Altarako Jesusen eta lagun urkoaren alderako maitasuna, biak ondo alkartzen ikasteko era ederra eukan.

La Guardian ikasten lau urtez egon zan batek, gero gazetalari izango zanak, Marin del Campo izenekoak, autorederra itxi euskun: Lau urteetan geixoaiki gogorrik izan ei zituen. Anjo lurak, antza, ez eban ondo artzen. Lau urteetan Garate izan eban geixo zain. Ikustekoa izaten ei zan geixo zaiña, ain bizkor eta ain arin, maillak gora ta maillak bera, askotan bi edo iru bandeja eskuetan, ontzi, kopa ta salda-katilluz eta abarrez beterik, geixoen gelarik gela, tresnen bat edo beste jauasi ta apurtzeko bildurrik barik. Plazetako esku-jokari edo inkaminari batek ez ei zituen ainbeste ontzi ain txairo eta ain seguru eroango. Geixo-zaiñaren ainbeste lan eta ardura ikusita, ikastetxe atatik alde egitean, Garategana agur esaten joan zanean, gazetalari arek negarrari emon ei eutsan, ainbesteko maitasun agiriak eskertu eziñik. Beste iñok ez ei eutson bere bizi guztian alako negar gozorik eragin.

Bein ikastaroa asi-barritan, mutikotxo bati sukar baltzak (tifus-ak) eldu ei eutson. Geixoaiki guztian Garate Anaia an izan ei eban gauetan alboan, aurki baten jarrita,

mutiko geixoaren aingeru jagole egiñik. Geixoen ardureak makaldu egiten eben geixozaiña bera. Eta La Guardiako lana kaltegarri egin ez ekion, andik atera eta Bilbora, Deustuko Ikastetxe Nagusi sortubarrian atezain egiteko bialdu eben. Ba ekien gauza guztiak ondo egiten zituena zala Garate Anaia, eta egiteko barria be alik eta zeatzen beteko ebala.

Ordurako santu izena artzen asita egoan. Eguneroko gauzak ondo egiten dituenaren santutasuna ei da jesuita onena. Jesuita baten eginbearrak egunero zintzo betetan dituenaren santutasuna. Baiña egin bearrak ondo betete utsa ezta santutasuna. Santutasuna ezta lege batzuetatik edo arau batzuetatik neurtzen, Jaungoikoagazko eta Kristogazko batasunetik eta artu-emon bizi ta beroetatik baiño. Santutasuna ezta norbere borondatearen frutua be. Jaungoiko biziaren iturritik dator. Gizonaren borondatea errez makaltzen eta iltzen da, Jaungoikoaren indar biziak eusten ezpadeutso.

Deustuko atezaiñiak atezain izandako beste jesuita santu bat artu ei eban eredu. Jesuita ori Mallorcan il zan amazpigarren mendearen asieran, eta Leon amairugarrenak santuen maillara jasoa da. Oni jarraituz egin zan santu Garate atezaiña? Baiña emen be esan bearko da santutasuna ez jakola iñori sartzen kanpo eruedetatik, norbere arimea edertzeko ekarrita. Gaiñera, ba ete dago santutasun-eredurik beste bati dagokionik? Santutasuna goiko iturritik dator ez alboko eruedetatik. Ba ekian zeozer Joan Kurutzeko deunak eta etzan santuak eredutzat artzeko zale, Kristo bera baiño.

Alan be, Maillorcan illiko Alonso Rodríguez santu orrek baditu esaera batzuk, Garate Anaiaren barruko ispillu egoki izan leitekezanak, alderdi batzuetatik. Onek irakurri zituenik ez dakigu baiña, bere bizian ondo bete zituenak dira urrengo esaerok:

«Guztientzat apala izan zaite, berba onekoa, gozoa, otzana, baketsua, errukitsu».

«Guztiai lagunduko deutsezu euren atsekabe eta nekeetan; zeure buruarentzat izan gogorra. Guztiai bigun eta txeratsu esango deutsezu, zeure buruari gogor».

«Gauzarik kaxkarrenak zeuretzat artuko dozuz, eta onenak zeure anaientzat».

«Arpegi alaiak erakutsi eiezu guztiai; zeure buruari, barriz, betondoa astundu».

«Lagun urkoak ontzat eukizuz, zeure burua, ostera, gaiztotzat».

Berba oneik daroen azatzetik joana da Deustuko atezaiñaren bizitzea.

Bere burua ostendu eta ukatu gurea bizi guztian ikusi jakon; lanik neketsuenak eta gauzarik txarrenak beretzat artzea be bai. Jantokian, esaterako, maian saskian eskintzen eutsezan sagarrak txatxarrenak edo itxurabakoena. Bere burua etxean azkenegotzat eukanari ori berezkoa egiten jakon, gaiñera. Berea zan Deustun gelarik estuena eta argibakoena. Etxeko beste anaien batek kanpora urtenda ordu batzuetako oporra artu nai edo bear ba eban, prest egongo zan Garate anaia aren utsunea betetako. Aita Jesuitaren bat, bere apostolu-lanen batetik, itzaldiak kanpoan egitetik edo urritetik berandu samar etortzekoa bazan, atezaiña an egongo zan bere atsedenez eta loaz aitzuta, etorteko zanari azkenego ordurarte etxoten, eta berak arduraz prestatu ari bera eskintzen. Deustuko ikasle batek baiño geiagok ba ekien euren atezaiñaren olako arduren eta txukuntasunen barri. Guztien aurrean oso apala, otzana eta berba gozokoa zan beti. Besteai laguntzeko, guztiai on egiteko egoan bera, bere buruaren

nekez bazan be. Deustuko atera joten eben eskekoak ba ekien nogana joten eben. An aurkitzen eben bera, bere otzarea beterik, euren gosea arintzeko. Eta bear-izan andienean egozantzat, aragi ta guztiko ogi-bitartekoak aterako zituen.

Ikastetxeko ikasle señoiritotxoak bardin erabillen agotan Deustuko atezaiñaren biotz ona, guztiai ondo egiten eta ondo esaten eukan poza, ta santutasuna. Eta barrio esan bearko dogu Anai Garaten portaera ori, jokabide ori etzala kanpotik ezarritako arau eta eredu batzuei jarraitzea. Gaur edozein lantegi edo ekintzatan daukazuz kanpokoekin edo bezeroekin artu-emonetako beren beregi gertauta kargudun batzuk. Lantegiaren arpegi ona edo eder-aldea erakusteko dagoz, lantegiaren erosleak geitzeko jarrita. Garate Anaia eztabil iñoren eder-eritxia irabaztearren. Barruragotik dator onen jokabidea. Jaungoikoagaz dituen artu-emon bami-barrukoetatik datorkio dana.

Garate anaiaren otoiz-bizitza

Jesuita dana, ezer bada, otoitz-gizona da. Gure Patroi Andiak ezer irakatsi badau, otoitz egiten irakatsi dau. Garate Anaiak ez eban ikasketa andirik egin, ez eban teologiarik ikasi, baiña bai otoitz egiten eta otoitz bizitza eroaten. Ori bai ikasi eban, ikasi eta egin. Eta otoitz egitea ez da ikasitako otoitz batzuk esatea ez geure buruari gogoeta batzuk edo beste eragitea. Jaungoikoagan eta Jaungoikoagaz murgiltzea, eta Kristoren argitan eta Kristogazko bizian murgildurik bizitza da. Olakoxe bizitzea eroian lenengo ta bein, gure Garatek.

Deustuko atezaiñaren orduak etzirean atetan egotekoak bakarrik. Otoitz-ordu luzeak zituen goizean goizik asita; otoitz-orduak goizean, otoiz-orduak gabaz, eta otoitzean jarraitzen ekian, goiz eta arratsalde, egun guztian.

Gabaz urrengo eguneko otoitz puntuak gertau, eta goizean otoitzaz asiko eban eguna. Gero bere eguneroko meza entzun, eta beste meza-emoille batzuei meza erasotea goizeko egitekorik maitagarrienetakoa dau. Eukaristiak sendotzen eutsan gogoa egun barriko egin bearretarako.

Eta bein atetan jarri eta etxeko gorabera eta sartu-urtenak asi orduan, atezain onek erarik eta bitarterik aurkituko dau noizik bein alboko kapillatxoan sartu eta altara aurrean Jesusi agertutxo batzuk egiteko, edota atari ondoko Andra Mariaren irudiaren aurrean Zeruko Amari agur batzuk bialtzeko. Eta atezain onen irudia ezaguna zan: nekez itxiko eban Errosarioa bere eskutik. Beti edo geienetan. Jesus eta Maria lagun zituela, lagun biok gogotik eta biotzetik iñoz kendu barik joango jakon ateko lana.

Zer? Errezalari utsa eta zan, ba, bera? Itaun au sortu leiteke, bear bada, askoren agotan. Aita Gurea eta Agur Maria esan ta esan ekitea gogaikarritzat euki leie askok. Etzan olako eretxikoa Balentin Berriotxo bere Amari onako bertsook bialdu eutsazanean.

Errosario sendoa eskuan,
Aita Gurea eta Abe Mariak aguan,
Pentsamentu santuak goguan:
Zer gauza ederragorik munduan?

Aita Gurea, Kristok bereai irakatsiriko otoitza: *Agur Maria*, munduak entzun dauan albisterik pozgarriena ekarri euskun zeruko mandatariak Mariari Jaungoikoaren izenean esandako berbakaz txorta bat eginiko otoitza: eurok dauke gogoia orduetan beteta eukiteko beste gai. Antxiña bateko padarrak, basamortuetako gizon santuak otoitz laburragoa esan ta esan asetzen eben euren biotza eta argiz betetan euren gogoia, eta Jaungoikoaren errukia eskatzen: *Jesus, Dabiden Semea, erruki nigaz*. Eta etziran aspertzen. Etzan aspertzen gure Garate be *Agur Maria* eta *Aita Gurea* ainbat bider esaten. Maite dauanarentzat ezta berba aspergarririk, askotan esan arren.

Eta gero, Errosarioa ezta errezu utsa, agozko otoitz utsa. Gogozko otoitz eder betea egiteko gai guztiak ditu. Kristoren misteriorik andienetan eta Jaungoikoaren Amarenetan murgiltzen gaitu. Misterio orreik auznartzen zituen eta euretan murgildurik bizi zan Deustuko atezaiña egunero, goiz eta arrasti. Eta ez bera bakarrik. Etxeko morroiren bat edo atezain lagun etorten jakonean, olakoari be bardin irakasten ei eutson, biak batera Errosarioari ekinda.

Ateko lanak ez eban Garate Anaia bere otoitzetik aldentzen. Deustukoa lako ateko sartu-urtena ezta otoitz egiteko lagungarri on ona. Olako lekuan arrisku andiak dagoz bategaz edo besteagaz txutxu ta putxu barriketan ekiteko, non zebarrri eginda, iñon direanak eta eztireanak batu ta banatzen jarduteko, adiskideak egin eta eurekaz barriketan orduak galtzeko. Garate Anaiari ez eutsoen ezagutu aparteko adiskidetasunik iñogaz. Aregaz ez eukan iñok alperreko berbetan astia galtzerik. Guztiei atsegiñez, maitekor eta txeraz erantzun eta jaramon egingo eutsen. Ortik gora, ezerez geiago. Bardiñ izan ei zan bera geixo-zaintzako urteetan bere geixoentzat egin bear zana eta geiago egiteko zoli eta arduratsu, baiña euretako bati be lotuegi ete ebillan antzik emon barik. Bere barruan eukan adiskiderik onenagana, aldean eroian berbeta lagun obeagana, Jaungoikoari begira eukan gogoia, Jaungoikoari emonda biotza. Olan ez eban otoitz-giroa iñoz galtzen, ez geixoen gelan ez Deustuko atetako barbaro eta ate-otsen artean.

Urtean bein urteten ei eban Deustuko Ikastetxetik Bilboko etxe batera. Aste Santuan, ain zuzen. Eta zetako? Eguen Santuko eleizkizunerako Gure Jaunaren altarako apaingarri ipinteko, oial eder eta ontzi batzuk eskatu eta eroateko. Eguen Santuko altarea apaintze ori beretzat artuta eukan.

Olantxe, otoitzak girotuta, indartuta, bere buru-biotzaren eta zirkin guztien jabe da Garate Anaia eta santutasunean aurrera ta aurrera egin izan dau. Itxuraz beti abiada bardinean joan dalako, etxako igarriko aurrerakuntzarik. Gure Zori ondun Barri onen bizitzak, beti baketsu, beti urez gaiñezka baiña ibilli dabillenenik igarten etxakon ibai zabala dirudi. Edo, Ebanjelioko irudi bat artzeko, zerutik darion ur bizizko ibaia daroa barruan.

Ur bizizko iturria poll-poll

Jesusen Ebanjeliolan agindua gogoratu bear dogu emen: «Egarri dana betor Nigana, eta edan begi. Nigan siñisten dauanari (liburu santuak diñoenez): ur biziak ibaika urtengo deutsoe bere erraietatik».

Machado olerkariaren ames utsa ezta izan gure Errekarteko semearena. Berak esaten jakin ezarren, edo bera konturatu edo konturatu ez, Joanen Ebanjelioan Jesusek aginduriko ura izan dau borbor edo poll-poll bere barruan. Ur bizi orrek kendu deutso mundu onetako poz-atsegiñen gosea. Ur bizi orrek, ortu landu eta ondo garastatuan lez, sortu ditu bere arimearen ortuan ain biziro ageri zituen onoimenezko lorak: apaltasuna eta inguruko guztiai on egin gurea, guztien serbitzari izateko gogo alai. Ur bizi orrek emon deutso Jaungoikoaren eta Andra Mariaren lagunartearen gozamen. Orrexek euki dau bere arimea beti apatz eta gozatsu: orrexek iraunerazo deutso beti gazte, eta Jaungoikoaren otseintzan nekatu barik, egunero ur bizizko ibai orren asetasunez indar barriak artzen zituela. Olantxe irau dau guztiai bere maitasuna eta irribarretxo eskintzen, beti bardin gartzetan, garediko urteetan, eta olantxe bere azkenengo ordurarte.

Bere buruaz guztiz aitzuta ibilteak inguruan bizi zireanak nai baiño lenago eroan euskun bera mundutik. Beste batzuetan be errez joan jakola-ta, bi edo iru egunetz indar artzen itxi eutsan gatx bati, edo ondoez bati. Munduko osagaiak etorri orduko, etzan izan zer-egitiñik. AndraMariaren Jaiotz-eguneko arratsaldeazan. Berak eskatuta, Eleizakoak artuta gero, urrengo egunean, Arantzazuko Amaren jai-egunean, Ikastetxe atako geienai ezer jazoten ete jakon jakiteko astirik be emon barik, apal-apalik, bizi izan zan moduan, joan jaken euren atezaiña berrogeta bat urtez izandako Garate Anaia, 1929ko iraillaren bederatzian, goizeko zazpirak inguruan. Bilbon bertatik zabaldu zan ustebako albista: «Deustuko atezain santua il da».

Erriak askotan eztauko begi txarra. Santutasunari igarten badaiki. Erriak esana Jaungoikoak esana ei da sarri. Orain iru lau urte, bigarren Joan Paulo Aita Santuak jesuitai egiñiko berbaldi baten, Lagundiko ainbat santu aitatu eta goratu ostean, onela iñotsen gitxi gora bera: «Atsegiñez gogoratzen deustuet zelako pozaz izenpetu neban joan dan zezeillaren 11n Frantzizko Garate zuen Anai Laguntzaille, ain apal eta maitagarria izan zanaren onoimenak kristiñau bikaiñenen maillakoak izan zirala autor-tzeko erabagia».

Aurten, urriaren 6n, lerrook argitaratu baiño len, bear bada, gure Aita Santuak Frantzizko Garate Zoriondunen maillan jarriko dau eta altaretan gurtua izan daitela baimena ta eskubidea emongo dau.

Loiolak izar barria emoten deutso, bai, Jesusen Lagundiari eta kristiñau-erri osoari. Loiolako Santu Andiak, ango zaldun-etxeko semeak, an bertan, Errekarten jaioriko baserritarra izango dau lagun, ia mailla berera jasota.

TITO BRANDSMA, DACHAU'KO MARTIRI (1881-1942)*

Barriro be zoriondun barri baten izena dator gure aldizkari onen orrietara. Eta gaurkoan aparteko zioz. Oraingo au prentsaren martiritzat dagoalako, iñoren jaun-txokeriri jaramonik egin barik egiaren alde jokutzen daben egunkari eta aldizkariari eustearren bere bizia eskiñi eban bat dalako.

Gaurko gizarteak ez dauke bere aurrerakintzakaz arroegi egoterik. Dachau edo Auschwitz, edo Gulag edo beste zigorlekuek, edo Hiroshima eta beste triskantzelekuek sortzen dituen bitartean, geiago dauka zetzaz lotsatu eta negar egin, zetzaz arrotu eta poztu baiño. Arlo askotan aurrera doa gizona, izadiko indarren legeak aurkitu eta menderatzen eta olako arloetan; baiña bere barru txarrerako indarrak ezi ta menderatzen, gorrotorako griñak ezten ez dau oindio asko ikasi. Dachau eta aitatu direan zigor-lekuen izenak, lekuko. Gizonen gizartxakeria erakusteko, gizonak gizona zapaltzeko asmau dituan era lotsagarrienen izen bildugarriak dira.

Zorionez, leku orreik ez dabe bakarrik gizonaren alderdi illuna erakusten. Borreru anker zital eginda dabiltzanaren artean be, gizonaren benetako anditasuna erakusten daben beste batzuk agertzen dira. Gizon andi agertu zan olango leku baten Maximiliano Kolbe, seme-alaba askotxoren aita zan baten ordez ilteko, bere bizia eskiñi ebana. Orain santuen maillan, gizonik bikaiñenen maillan daukagu. Olakoxe dogu gaur TITO BRANDSMA, Holandako seme argia, judeguen babesle izatearren, Elizearren eskubideak eta egunkarien askatasuna zaintzearren, Dachau'n nazitarrak il ebana.

Gure artean ez dot uste martiri onen izena asko zabaldu danik. Ezezaguna edo gitxi ezaguna da. Holandan, ostera, santutzat eta euren erritar bikain erraldoitzat

* Karmel 1985-4, 67-77.

dauke, eta ango errietako plaza, kale eta erakunde askok *Brandsma* ren izena daroe. Eta, azkenez, Elizeak Holandarrak emoniko santu izena, martiri izena ontzat emon dau. Gaurkotasunaren atxakiaz, gure aldizkari onek ez du beronen izena baztertu nai.

Holanda'ko seme, praille karmeldar

Tito Brandsma ez da edozein. Nortasuna andiko gizona da. Holandan jaioa, 1881garrenean, Anno Sjoerd izenez bateatua. Gurasoak baserritarrak ditu. Eurak pozik artu dabe mutikoaren jaiotza, artean alabak (bi) izan dituezalako. Berau lenengo mutilla; gero beste mutil bat eta neska bat izango dabez.

Anno makaltxoa da baserriko lanetan ekiteko. Lanik errezenetan darabille, beiak zaintzen, lanerako tresnak prest eukiten eta olan. Baiña eskolan buru argia dakar. Osaba bat praille mixiolari dau, eta mutikoari be laster egin jako prailletzarako gogoa. Non, eta karmeldar zarren artean. Prailletzan be ikasteko buru argia erakutsi dau, eta luma-lanetarako zaletasuna. Ikasle lagunen artean aldizkaritxo bat sortu dau, eta bera da geien idazten dauana, naiz bertsoan, naiz ostein. Ogei urte dituela, liburu bat be argitaratu deutsoe, Teresa Deunaren *Lorategia*, moja santa onen esaera autatuakaz eginiko sorta ederra. Holandako ikasketak amaitu dituanean, meza emon eta gerotxoago Erromara bialdu dabe, an ikasketak jarraitzeko. Erromatik Filofosian Doktor agiria dakarrela itzuliko da Holandara. Esan daigun, praille egin danean, bateoko izena aldatu egin dauala, eta bere aitaren izena artu: Tito. Tito Brandsma izango da arrezkero.

Irakasle, sermolari, idazle

Erromatik Holandara itzuli danean, 1910 inguruan, filosofo eta teologoek ikastetxera bialdu dabe. Prailien arteko irakaskuntza barriztau bearrean dagoala-ta, nagusiak Tito gazteari esarri deutsoe orretarako arau ta egitarauak aurkezteko ardurea. Baiña etxe-barruko irakasle-lana ez da Tito gaztearentzat naikoa. Sermolari lez, laster zabaldu da praille gaztearen izena.

Ez da bera sermolari apain dotoretakoa; baiña bai mamitsua eta beroa, barrubarrutik darion berbaduna. Entzuleak maite dabe olango berbetea, eta nonaitik jatorkoz sermoi-eske: errietako jaietarako, gazte taldeai itz egiteko, mojai gogojardunak emoteko, eta abar. Berbatuta egon dan sermolari batek joan-eziña daukanean, nora joan? Tito gazteagana, eta au beti dauke prest, eta ondo bai ondo beteko dau edozeiñen utsunea.

Erririk erri olan dabillenean, alaitasuna zabaltzen dau bazter guztietan, eta edozein langilleari laguntzeko prest egoten da. Esku-burdiari bultz egin bear bada be bai. «Baiña au ez da zuk egiteko lana, praillea» esango deutso langilleak, eta berak: «Bota deiogun neure maletatxoa ganera, eta ikusiko dogu ze ederto doan dana».

Idazteko zaletasuna ez dauka galduta. Prailleen arteko aldizkari batzuk sortu ditu, eta bera dabe edo zuzendari, edo idazle jarraituena. Prailienak ez direan aldizkarietatik be askotan jatorkoz artikulu edo olerki eske. Beti izan da eta izango da

geixotia, eta inok ez daki nondik ateraten dauan astirik edo indarrik ainbeste lanari eta ainbeste eskeri erantzuteko. Ainbeste idazlanen artean 1918-1919 lan eder bat argitaratu dau: Teresa deunaren liburuak Holandako izkuntzara itzulita.

Nimegako irakasle eta Rector Magnificus

Aita Titok bein baiño geiagotan erakutsi eban urriñetako errien batera mixiolari joateko gogo: 1922n. Berak euki eban Holandan Mixio-Batzar andi bat eratzeke ardurea, eta ainbat itzaldi egin eban bertan. Baiña ez jakon Mixiotarako biderik zabaldu. Holandak bertarako bear eban eta bertan lotuago geldituko da Nimegako Ikastetxe Nagusia sortu zanean, 1923n, ango irakasle egingo daben ezkerero. An irakatsi bear dituan gaiak: Filosofiaren eta Mistikaren kondaira, edestia. Oso maite zituan gaiak dira. Mistikak Jaungoikoagana eta Jaungoikoaren adiskiderik andienetan murgiltzera daroa, eta Filosofoen bitartez be, ikasleak Jaungoikoagana, izate guztien sorlekura eroaten ei daki.

Mistikoetan aparteko ardurea ipinten ei eban Holandako mistikoak azaltzen. Ango mistiko ezagunak eta ez ezagunak, guztiak azaldu bear zituen, eta euren mistika-lanak argitaratu barik eukezanean liburuak argitaratzen lan andia egingo dau. Eta bardin arduratuko da beste inñondiko mistikoen liburuak Holandako izkuntzara itzuli eta argitaratzen. Eta ez antziñakoak bakarrik, gaurkoak be bai. Eta olan argitaraturiko liburu askori berak sarrera mamitsu sakonak ipiñiko deutsez.

Nimegako Ikastetxe sortu barri ori aurrerabidean jartzen esku andia izango dau Aita Tito Brandsmak, esaterako, bertako arauak idazten, Ikastetxeak argitaratu nai zituen liburu-saillak ateratzeko argibideak emoten, eta abar. Ondo saritu eban Ikastetxeak berak Tito Brandsmaren lana, 1923n bertako *Rector Magnificus* izentau ebeanean. Ikasle askok ordurako santutzat euken. Kurutzearen mistika askotan azaltzen ei eban, eta mistika ori berak bizi be egiten ebala igarten ei jakon. Aita Titok azaltzen eban mistika ori ez ei zan liburutuan ikasitako utsa, berak bizi edo bizi nai ebana baiño. Tito aitarentzat ez ei dago mistika kristiñaurik kurutze bakorik. Kristo eta kristiñauaren bizitza kurutzean billatu bear ei dira.

Holandatik Titoren izena eta argiak kanpoko erri askotara zabalduko dira. Alemanian, Frantzian, Italian, Españan, Irlandan eta Goi-Amerikan ibillia da bera: Batzuetan teologoen eta Mixio-batzarretan parte artzen, beste batzuetan iker-lanen bat edo mistika gaiez itzaldia egiten, eta olan Alemanen eskuetan jausi baiño len, amabi bat liburu argitaratu ditu, artikulua eundaka idatzi, itzaldia an or emen askoz geiago emon, mistiko zar eta barrien ainbat libururi itzaurre sakonak eginda.

Praille txiki arriskugarri ori!

Nazitar zapaltzaillek Holandan eroan eben jokabidea jakiña da: euren gogoko agintariak ipiñi, euren nazitarkeriak zabaldu, gorputz eta gogoen jabe egin nai. Eurak nai ebana zan egia; ortik aurrerakoa, ondatu bear zan guzurra. Holandarrak ez dabez euren buruak makurtu nai, inñondik inñora. Baiña eurok beartu gurez, nazitarrak agindu

zorrotza emon dabe. Ango egunkari eta aldizkariak nazitanak ontzat emon eta bialdutako barriak baiño ez dabez argitaratu bearco. Holandako gotzaiñek euren ordezkariari, Tito Brandsmari emon deutsoe euren erabagiari barri eta euren argibideak katolikoan aldizkari eta egunkariari zabaltzeko zeregifia: ezezkoan egon bear dabe, nazitarren aginduari jaramonik egin ez. Batera ta bestera dabil Aita Brandsma, Gotzaiñen agindua betetan, arriskurik andienean eta bape bildur barik.

«Ostendu zaite, ostendu zaite», entzuten dau Brandsmak askoren agotik. «Bai», diñotsoe gotzaiñak be: «Guri baiño lenago elduko deusue zuri». Baiña praille txikia ez da ikarutzen. «Neu ibilli beste batzuk adoretzen eta kalera ateraten, eta neu ostendu? Ez orixe. Arerioai arpegi emoten dakien kristiñauak bear dira gaur».

Eta bein, or eldu jakoz polizi-mutillak, goizeko laurak inguruan. Praille-etxeke gelatxoa dana arakatu deutsoe, eta badaroe praille-soiñeko barik, otoitz-liburua, beste liburu bat, idazteko papel zuria eta... tabakorri apur bat bakarrik ateraten itxita. Asi jako Kalbarioan gorako bidea, sei-zazpi illabeteko bidea, ezpetxerik espetxe, 1942 urtarrillaren asi ta uztailaren 26ra arte.

Lenengo egotaldia Sheveningengo espetxean, bakarreko gela estu baten. Batera eta bestera iñon gelditu eziñik beti ibilli dan praillearentzat egiña ez dirudi, baiña bakartade ori oso gogozko egin jako berari. Brandsma aitaren arimea mistiko batena izan da beti. Orain dau or bere barru mistikoa azazketako erea. Gela estu atan, Kristo Kurutzekoaren irudi bat ipiñi dau orman, eta arexen aurrean egoki azaldu ditu bere barruko sentierak, bertsotan. Bertsook laster zabalduko dira Holandan zear eta etxe, eskola, geixotegi eta espetxe askotan esango dira. Biñan-biñan borobilduriko bertsoak dira:

Nigana maitez begira zaitut or, Jauna.
 Zure begikun maitekor orren biguna!
 Maite-irakiña sartzen deust niri muñetaraifio.
 Ez da adiskide leialagorik Zu baiño.
 Ontzi mingotsa edan bearra dot gaur gauean.
 Baiña artara noa ni neu poz betean.
 Gurutze bide auxe dot maite nik, ez besterik.
 Jaunaganako ez daukat bide oberik.
 Neke ta miñak zori gaiztoko ez nabe egiten.
 On ez dodanik eurotan ez dot aurkitzen.
 Bai, oster, bai, irabazirik geiago,
 Zugaz egiten nabela, Jauna, batago.
 Itxi eidazu Zeugaz bakarrik egoten.
 Naiz ez etorri niri iñor pozik emoten,
 Otz-giro utsa naiz izan gela onetan,
 Bakar egote au pozgarri dot benetan.
 Orma-arteon, Zeu lagun, Jesus, ezitan nago.
 Non emen baiño Zuganik egon urrago?
 Jarraitu nigaz emen egoten, Jesus eztia.
 Lagun bazaitut, neugaz dot nik on guztia.

Etzekoai bere gelako eta bakartadeko poz ori adierazoten deutsenean, Kempis-en kapitulu bat jatorko gogora. Kempis orren mistikeria salatzen ei dabe askok: baiña gela barruko gozotasuna adierazten dauanean, gauza eder jatorrak ei diñoz. Sheveningen-ko egotaldia ondo etorri jako bere biziko asmo bat burutzeko: Santa Teresaren bitzita bat idaztea. Baiña dana amaitu barik itxi dau, 273garren folioan.

An egin deutso poliziak lenengo itaunketa. Azkenean txosten bat idazteko eskatu deutsoe, berak eta Eleizeak Holandan erabili daben jokabidea azaltzeko. Txosten orretan azkenengo berbak onexek ditu: «Jaungoikoak bedeinkatu dagiala Holanda; Jaungoikoak bedeinkatu dagiala Alemania». Baiña nazitarrak Berlindik emon daben epaia auxe izan da: Eurak Holandarrak alkartzeko egin dituezan alegiñai azpi-jokoa egiten ibilli dala Gotzaiñakaz batean.

Eta Sheveningen-etik epaillaren 12n Amersfoort-era daroe. Berak etzekoai beti lez labur idazten deutse: «Banoa danera egiñez. Gelako bakartadea amaitu jat. Emen aizea artzeko eta anaiarteko bizi-modua daukat. Ondo doa dana».

Egia esateko, gauzak ez joakozan askoz obeto. Lagunak baditu, beste askoren zoritxarrak ikusteko erea be bai. Al dauana egingo dau geixo batzuei laguntzen, eta itxaropena galdurik dagozanai poz apur bat eroaten. Bariku Santu egunean itzaldi bat egin dautse lagunai kajoi baten ganetik. Kristo Kurutzekoa gogoratu dautse eta kristitiñauak zelan bere nekeak Kristorenakaz bat egin bear dituen azaldu. Pazko egunean, beste itzalditxo bat. Itzaldi orrek dirala-ta, zaintzailleak jakin dabenean, zigortuen artera bialdu dabe. Baiña ez luzaroko.

Andik egun gitxira, apirillaren 26n, Pazko aste barruan, barriro Sheveningen-era, an epaikari dagozanen itaunketa barriari erantzuteko. Oraingoan kontu luzeagoak eskatzen deutsoez: Nimegako Unibertsitate atan zer irakatsi ta egin dauan, eskoletan eta egunkarietan zer erabili dauan, eta zergaitik eta zelan ibilli dan judeguak estaltzen eta arein umeak eskoletan artzen. Danari zuzen eta ikara barik erantzun deutsoenean, epaikariak, erruki artu baleutso lez, azkenengo itauna egiten deutso: «Eta zuk, kalera zigor barik bialduko bazindugu, zer egingo zeunke?» Eta berak: «Nik, betikoa. Negargarri geldituko giñakez, egia esatea Gotzaiñentzat bakarrik itxiko bagendu. Nik Eleizearen serbitzari jarraituko dot beti». Nazitarren epaia oraingoz: «Dachaura joan bear dau».

Baiña lenengo, Cleves-era egun batzuetarako. Ondiño Holandako mugan, bere-tarren artean dago. Eta adiskide batzuk alegiñak egin nai dabez epaituaren alde. Espetxeko kapellauak be bai. Epaikariari eske bat egin bear ei leuskio, erruki eskea. Baiña dana alperrik. Ez dago errukirik, praille arriskugarriegia ei da praille txiki ori. Eta bagillaren (ekainaren) erdi aldean, an doa bere kalbarioaren gorenera, Dachaura. Zergaitik esan ete dautse epaikariak ara Titogaz doazenai: «Dachau ez dozue leku txarra. An dana dozue duan. Guztiak alkarri laguntzeko leku egokia da».

Cleves-tik urtekeran Aita Tito Brandsma dana aldatuta dago. Ez dirudi lengoa. Aparteko poza dario alde guztietatik. Gure Jauna artu dauanean etorri jako poz ori. Eta iribarre gozoaz agur egin dautse Cleves-en itxi dituanai. Dachauko zigorlekuan ez da bera iñor, zenbaki uts bat: 30492 garrena, soineko irrigarri baten barruan estalduta. Lagun ezagun asko aurkitu ditu bertan, benetako alkar-maitasuna erakusten

dabenak batzuk, beste batzuk argalaren argalaz itxurarik ez daukenak, il-aifñik, burua galtzeko zorian dagozanak. Berak lagun bati esan deutsanez, «orain len itzez emon-dako irakatsiak egitez erakusteko ordua dogu». Alan be, berak, uztaillaren 12 etxekoai idatzi deutsenean, betiko lelo darabil: «Ni ondo nago, Jaungoikoa lagun banoa emengo goerara egiñez».

Jakiña: etxekoek ez dabe jakingo presoak zelango tratua dauken ango borrhueren aldetik. Ez dabe jakingo, bein betaurrekoak jausi jakozalako, jo ta jo eiota itxi dabela. Ez dabe jakingo egun euritsu baten, basatza baten jausita jagiteko indar barik ia leituta gelditu zala ta geixotegira eroan bear izan dabela; ez dabe jakingo anka biak zauri zauri eginik daukazala. Ezetako gauza izan dan bitartean, pozik andiena zera izan dau: zaintzaillen ixillik, Gure Jauna eroan al izatea, berak artu eta besteai emoteko.

Neke guztien artean, alan da guzti be, Brandsma aitak ez dau bere irribarre gozotxoak galtzen. Orain dau bere bertsoko au esateko era: «Non emen baiño zukan egon urrago?» Ur dau Jauna. Uztaillaren 26n, zaintzaillen ixillik, lagun batek azken-sakramentutzat Gure Jauna eroan deutso. Arratsaldean bertako borrhueruak zanetara ziztada ilgarri bat emonda, illik itxi dabe eta gorpua ango sulabetan erre. Alan iragarri eutsen etxekoai.

Gizonen gaiztakeria nekez eldu leiteke Dachau orretan eta orren antzeko lekuan joan dan baiño urriñago. Gizonak gizona zapaltzeko nekez asmauko da asmakizun ankerrago eta lotsagarriagorik. Gaiztakeri orren ondoan atsegin jaku Brandsma baten duintasuna, eta anditasuna, bere irribarre gozotxoan ageri ebana, ikustea.

Holandak bere ispillu garbitzat ikusi dau bere seme onen bizia eta joka-bide guztia, bere erriaren askatasunari eusten azkenengo ordurarte iraun ebalako. Ainbat eratara eta ainbat lekutan egin dautso bere omenaldia.

Elizeak, gizonen eskubideen alde, judeguen alde eta Eleizearen eskubideen alde bizia emoteraiño joan zalako, autormenik ederrena egin deutso: fedearen aldeko martirien artean ezarri. Gure aldizkari au ez da lotsa, ez, egunkarien askatasunagaitik il zan ori geure gomutamentxoak eskintzen, eta beste guztiak, Holandarrak, kristi-ñauak, katoliko diranak eta ezdiranak, protestanteak, eta gainerakoak egin deutsoezan omenaldiak geureak egin nai ditugu.

FRANÇOIS MAURIAC

Orain eun urte jaiotako idazlea. Nobel-sariduna eta euskaldunen adiskide izana

Batzuk joan eta besteak etorri, eten bako joan etorrian dabil gizaldien gurpilla. Joan doazenen illetak eta etorri datozenak dakarren poza bata bestearen atzean datoz. Baiña, azken baten, gizaldien joanak ospakunde alai biurtzen ditu bai joan ziranak itxitako samiña eta bai etorri ziran jaiobarriak ekarritako pozaldia, bein mundura etorri zan umea ospetsu eta gizartearen aintzagarri egin danean.

Orra Frantzia'n oraintsu ikusi dana joan dan urtean. Ango seme ospetsu biren eun-urtea ospatu dabe: Victor Hugo idazle andia il zan ezkeroko eunurtea, bata, eta nobelagille eta Nobel-sari egingo zan F. Mauriac jaio zan ezkerokoa, bestea.

Mauriac'en eun-urteak ez dau, orraitio, Hugo'renak aña ots eta durundu atera. Errez ulertzekoa da. Jaiotzak ez dau gero izango dan gizonaren neurririk emoten. Jaiobarria agintzari utsa da. Gero zer izango dan ez dau erakusten. Jaiotzatik eta il arte, bizian zear emango dau bere neurri betea. Orduan ikusiko da zer merezi dauan. Mauriac idazleak emonda dauka bere betea. Baiña oraintsu joan jakun, eta oraindik illa baiño bizien artekoago dirudi. Geure gizaldikoa da, eta alkarrekin bizitzeak berez dakarren lez, adiskiderik asko izan dau, baiña bai areriorik edo ain maitagarri izan ez jakonik be. Ortik errez ulertzekoa da askoren oztasuna Mauriac'en omenaldieta-rako. Oztasun au nabarbenagoa izan da agintarien aldetik.

Omenaldiak

Baiña literatura-sailleko gizonak, eta erriak, eta batez be, bere jaioterri aldekoak, Bordele ingurukoak ez dabe eunurte au ixillik eta otz joaten itxi; eta ez dabe atsegiñez entzun Mitterrand lendakariak egin izan deutsan badaezpadako gorespena, «gure probintzi-errietako idazlerik andiena» dala edo olako zerbait esan dauanean. Olan itz egitean, Mitterrand'ek Mauriac'en literatur-balioak mugatu nai izan dituela ez ete dirudi? Orregaitik edo, frantzes askok, ainbat gartsuago jokatu dabe euren idazle andiari omenaldiak egiten.

Era guztietako omenaldiak egin deutsoez. Omenaldiak irratiz eta tele-ikuskiñez, omenaldiak antzokietan, egunkarietan, omenaldiak aren bizitza eta idazlanak aztertzeko eratu izan diran jardunaldi luzeetan, eta argital-etxeak be ez dira ez nagi ez otz ibilli idazlearen liburuen argitaraldi barriak plazaratzen.

Bere idazlanen ederrez Frantziako Akademiako kide izatea eta Nobel-saria irabaztea lortu ebanak ez eban gitxiago merezi. Mauriak ez da Paris'tik berako frantzes errien kantari eta erakusle bakarrik. Bere nobeletan gaurko gizonen griña eta kezketan sakon sartzen eta idaz tankerarik bizi ta ederrenez azaltzen jakin dau.

Idatzi dituen nobelen balioa ez da. Frantzia txikian, ango edo orko esparruetara mugatzen; mundu zabala betekoa da.

Ez dau berak bere jaioterria ukatu. Bere nobeletako jazoerak bere erri inguruetan jazorikotzat sartu ditu. Baiña txokokeririk barik idatzi dau. Idazle andi izateko ez dago norbere erritik urten bearrik. Bear bada, norbere errian sustraituenak emon dabez literaturan emoirik ederrenak eta jatorrenak. Mauriac idazleak, bere errian sustraituta, andik jaurti dautso mundu osoari eta edonongo gizonari bere nobeletan itxi deuskun askatasunerako, alkar-ulertzerako eta itxaropenerako deia.

Frantzia guztia da Mauriac idazleagaz zordun, ete zordunen Bordele aldea. Eta Frantzia'ko mugen gaintetik, mudu guztia. Eta laster ikusiko dogunez, euskaldunok ez gagoz berarizko zor barik beronen aldera.

Idazle bikain eta ugaria

Idazle onek danetik idatzi dau: olerki, antzerki, nobela luze, ipuin labur, kritikan lan eta saio, gomuta-liburu, gogoeta-liburu, egunkarietako idazlan eta abar. Danean nabarmendu da. Danean jokatu izan dau, zintzo eta gartsu, giza-duintasunaren alde, agintekerien aurka, arimen barruan kurubikalturik aurkitu oi diran lorrinkeriak argitzen, gizon-emakumerik gaiztoenetan erdi itorik egon oi diran ontasun-apurrak eta onerako eta maitasun zindorako indarrak agirira ateraten.

Olerki-liburu bategaz plazaratu zan lenengoz gaztetan. Eta gero itz-lauz, prosaz idazten jarraituko eban arren, ez eban nai olerkari izena berari iñok ukatu egion. Olerkarien beroaz idatzi ei eban beti. Bere nobeletako norkien griña, barruko auzi eta kanpoko burrukak eralgi dituenean, olerkizko argitasuna eta dardarea ixurtzen

alegindu da ango norki eta bazterren gaiñera. Olerki-doiñua dario Mauriac'en nobelen prosari.

Baiña guztiak autortu bearko dabe, olerkiak barik, nobelak eta prosazko lanak emon deutsoela ospea idazle oni. Frantzia'ko Akademian sartzea eta Nobelsaria irabaztea be nobelagintzak emon eutson. Batez be, 1920'tik 1940'ra atera zituen nobelak gorengo lekua emon eutsoen Frantzia'ko idazle andienen artean. Askorentzat Proust'en urrenago, bera ei dogu frantzes izkuntzaren lantzaillerik andiena. Esan dan aldi orretakoak ditu bere nobelarik entzute andikoenak: «Noeud de vipéres», «Thérèse Desquey-roux» eta abar. Lenengo ori euskerara «Uxola»k itzulita daukagu. Nobelangintzan azkenengo urterarte jarraituko eban. Orduan, 1970'an emon eban azkenengoa: «Beiñolako gazte lorekoa».

Mauriac'en nobelagintza berezia

Idazle onen nobelangintzaren bereizgarri bat len aitatu dogu: nobelak bere jaioterriaren ispillu dirala. Nobela-gaia, an diarduen norkien azi-orraziak bere lurraldeetako bazterretan eta ango gizon-emakumeen bizitzan arilduta emon ditu.

Guk, bear bada, nobela baten gertalekutzat Yankilandiarra edo beste atzerrien batera billa joanaz, usteko dogu gure nobelatxoa ohea eta balioa andikoagoa, mundu zabalekoagoa egingo dogula. Bordele'ko seme au ez zan eritxi orretakoa. Onen nobelak, alan be, ez dituez mundu guztiko gizon-emakumeen kezkek gitxiago jaso eta argitzen, eta ez dabe literatur-baliorik galtzen.

Eta olan bere jaioterriaren aldera erakusten dauan oneraspén eta biotz-lotura onek, lenengotan, bere erritarren oker-ulerturik sortu eutsan idazle gazteari. Erritar usteltzat artu eben, euren txatxarkeri eta pekatu andienen salatzaile baiño ez ebelakotzat. Ez eben ulertu erriko seme onen nobelagintzaren nondik norakoa. Ulertu barik egozan Mauriac'en nobeletan pekatuak eta pekatariak leku andia daukela, baiña ez asmo txarrez, ez irakurleak pekatuzko ur loietan murgiltzearren, ez iñongo erriko pekatuak salatzearen, oso bestelako asmoz baiño.

Mauriac kristiñau agertu zan beti, eta katoliko zintzo eta leial. Katolikotasuna beti autortu eta erakutsi izan dau itzez eta egitez. Eta kristiñautasuna alik garbiena nai dau kristiñauen artean, eguneroko bizitzan pekatuagaz eta pekatuakotako griña guztiekaz etenbako bumikan zintzo eta garbi erakutsi bear dana. Pekatua eta griña txarren arteko burruka ori, agiriago edo gordeago, gitxien uste dabenen biotz bamietan ikusten dau gure nobelagilleak, ez bakarrik kristiñauen biotzetan. Jainkoak bere maitasunaren eta graziaren azia erein dau giza-biotz guztietan, eta azi orren indarra askotan eta era askotara agertuko da gainera, edo kanpora.

Idazleak ez dauka pekatua or dagoala ukatzerik, bere aztuntasun eta iguingarritasun guztiaz eta idazleak ez dauka egiazko egoera ori estaltzerik. Bestela egiñaz jatortasuna eta siñsgarritasuna galduko leuke. Mauriac idazleak dana dan lez azaldu nai dau. Giza-biotzen barruko baltzkeria guztiak agirira aterako ditu, illunpe baltz orretatik bertatik be graziaren eta egiazko maitasunaren argi izpiak sortzen erakusteko. Mauriac onen nobelak pekatua eta graziaren arteko bumikak dira. Idazlearen

eritxiz, burruka ori argitzen eta azaltzen erakutsi bear dau nobelagilleak bere antze eta esku trebea. Eta esku trebe ori autortu eutsala dirudi Estokolmo'ko epai-maiak Nobel-saria emon eutsanean. Mauriac'ek arimen burrukak, onerako eta txarrerako indar eta joerak, itxurazko apainketa barik eta sermolarien agirika eta eraso barik, baiña jator eta garbi azaldu eta begien aurrean ipinten ditu.

Nobelagillearen legetzat dauka berak ori. Bere erritarrak ez bekioz asarratu. Eurentarra daben idazle onek ez dau loirik bota gura izan euren izen onaren gaiñera. Gizarte garbiagoa eta kristiñauagoa nai dabenak ez beitez artegatu. Mauriac'en asmoa ez da arimak loitu eta zikintzea, Jainkoa-ren grazia edozeiñen ariman sortu eta loratu daitekela erakustea baiño. Askok autortu ei eutsoen idazleari beronen nobelak irakurteak egin izan eutsen mesedea, begiak argitu eta biotza garbitzen lagundu eutsela-ta.

Gazetalari, zuzentasunaren alde burrukan

Gazetalaritzan sartuta, nobela-gintzan arimen zokoen argitzaille ta korapilloen askatzaille izan zanak, gizarteko nasteak argitu eta politikako arazoak argitzera be jo eban. Gizon bakotxaren barrura begiratzea itxi barik, mundu zabalera zuzenduko dau bere begirada zorrotza eta munduko politikan, errien arteko arazoetan eta baketu eziñeko egoeretan ikusiko dituan jokabide ustel okerrak salatu eta zuzentzen ekingo deutso. Gizonen gogo-barruko burrukak euren oiartzuna dauke sarri gizarte-maillan eta errien politikan.

Zerk eroan dau saio barri onetan sartzera? Bere kristiñau-gogoak, alde guztietan zuzentasuna eta elkarmaitasuna nausi ikusteko egarriak. Salakuntzak egiteko, eta deadarrak botatzeko, oker-bideak zuzentzen bere egiñalean egiteko, tresnarik egokientzat Paris'ko egunkariak artzen ditu, «L'Express» edo «Le Figaro», aldizka, egunkarien zuzendariak abegi ona egiten deutsoen arabera. Italia eta Abisinia'ren arteko gerratea asi zan ezkerro, 1934'tik aurrera, faszista guztien eta agintekeri guztien jorrazzaille egiñik ikusten dogu bera. Kanpoko nai barruko bidegabekeri guztien aurka beti, Hitler nai Mussolini naiz Franco'ren jokabideak salatzen, eta bardin Frantzia'k bere muga-bairuetan nai kanpoan, Argelia'n erabillezan zuzenbako jokabideak bide zuzenagora ekarten. Beti aurkitzen eban bere eztenkadak nora ta nori zuzendu. Urtez urte, tomo barriak osatuz, argitaratzen zituen bere *Bloc-Notes* eritxen idazlanak, sua ta txingarra erioela geienetan. Baiña ez ebillen beti eztenka. Noz edo bein urtengo eban politiko ta politikabidea batzuen alde be. Esaterako Mendes France zanaren politikaren alde, edo ta De Gaulle'k sortu nai izan zituen barruko bake bideen alde.

Euskaldunen adiskide eta laguntzaille

Zuzenbidearen aldeko ekintza onetan euskaldunentzat gogoangarriena eta esker-tzekoena 1936'tik aurrera artu eban jokabidea da. Euskaldunen alde atera eban bere

burua. Gure erriaren eta emendik atzerrietara jo bearren aurkitu ziranen lagun eta laguntzaille egin izan jakun orduan. Beragaz batera, egia esan, beste gizon argi batzuk be urten eben euskaldunen alde: Verdier kardenala, Maritain filosofoa, Mathieu gotzain euskalduna eta abar. Mauriac nobela-idazle eta gazetalaria sutsu eta zintzoenetakoa agertu zan gure aldeko burrukalarien artean.

Zergaitik euskaldunen alde? Indarkeriak, agintekeriak, diktaduren jokabide eta politikak bape gogoko ez zituelako, kristiñautasunaren ukatzailetzat eta katolikoen latsagarritzat eukazalako. Beste batzuk Franco'ren alde egiten eben bitartean, gerrate atan euskaldunak artu eben bideari txarto eristen eutsoela. Olakoekin eztabaida gogorak izan bearko zituen. Ondo ekian zer zan Franco'ri miñik geien emoten eutsan salakuntza. «Esaiozue Franco'ri —alan esan eutsan bein Alberto Onaindia abadeari—, esasiozue ez dala liberala; nasai geldituko da. Esaiozue ez dala demokrata, barre egingo deutsue. Esaiozue ez dala sozialista; pozik itxiko dozue. Baiña esaiozue ez dala kristiñau, ez dala bere agintea kristiñau eta katoliko batena; eta orrek bere onetik aterako dau, miñenean joko dau».

Ba-ekian euskaldunen eskubideak armen indarrez zapalduak izan zirala. Ba-ekian, batez be, eta bere begiez ekusan, euskaldun asko ebiltzala atzerririk atzerri erbesteko ogi urria jaten eta kurutze aztuna erabilela lepoan. Eta kristiñau-maitasunak eta giza-eskubideen alde jokatu bearrak esaten eutsan, nortzui eskua luzatu eta lagundu. Kristo'k esana erabillan gogoan: «Jainkoaren erreñua eta erreñu orren zuzenbidea-billatu egizue, lenengo ta bein». Eta euskaldunen aldera artu eban jokabidean jarraituko eban. Ez eban bide orretatik alde egingo bere bizi guztian. II aurretxoan be, 1970'garrenen urtean bere *Bloc-Notes* baten gogoan zituen Agirre lendakaria, francotarrak eriotzera eroaniko abadeak eta Gemika erretzean illak.

Mauriac gazetariaren idazlanak or geldituko dira eta or iraungo dabe zelango adiskide leiala izan genduan mundu guztiari gogora ekarten, eta gure esker onezko erantzuna eskatzen.

GUSTAVE DORÉ'REN MARRAZKI-LANA*

Joan dan XIXgarren mendearen erditik gora, marrazki edergintzan iñor nabarmendu eta ospetsu egin izan bada, ospetsuenetakoa Gustave Doré izan dala esan bearrik ez dago, eta gaur be lan orretan izenik artu dabenen artean lenengo maillakotzat dagoala esan bear.

Eun urte ta geiago da il zala. Adin naiko gordiñean joan zan bizien artetik, lan ederrik egiteko adiñean oraindik. Baiña il barik, bizi bizirik dirau edergintzan diarduenen artean. Bein eta berriro datoz argitara berak apainduriko edergaridun liburuak, irakurleen begi eta gogoen gozagarri. Euskaldunok or dogu, geure egunotan argitaraturik, Biblia osoa, Duvoisin kapitanak euskerara itzulitakoa, Gustave Doré onek Biblia apaintzeko egin zituen irudiekin. Eta egunotan agertu da salgei gure liburu-dendetan Cervantes-en Quijote ospetsua erderaz marraskigille beraren irudiz ornidu ta apaindurik.

Autodidakta

Ez zan Doré bera idazle; baiña amaikatxo idazle andiren liburu ederrik beronen edergarizko jantziz irakurgariago egin dituan gizona izan da benetan. Eta au egiten jaku arrigarriena: ain ertilari andi urteteko ez ebalá izan ez maisurik ez aparteko eskolarik. Autodidakta dogu bera, aín lan eder atsegin-garria egiten bere kautarik ikasia. Ertilari jaió zala esan geinke.

Estrasburgo urian, 1833'n etorri zan mundura. Ume-umetarik, lau-bost urte zituela agertu jakon marra ta koloreekin lan edo jolas egiteko zaletasuna eta gaitasuna. Amak bigarren maillako eskola baten sartuko dau, Karlomagno izeneko eskolan. Ez

* Saski-naski (1986, 31.zenb.) 51-57.

dau beste eskolarik ikusiko. Eta ez da bertan ikasle ona be agertu. Ez dirudi buru oneko ikaslea zanik. Bein latifiezko puska bat (Klito Alejandro Andiaren laguntzaille baten eriotzea ekarrena) frantzesera itzuli bear, eta berak, gai ori itzultzea alde batera itxita, marrazkiz eginda eroan deutso maisuari Klito orren eriotzea. Berba bat be ez dau eskola-mutillak idatzi; baiña, irakasleak, marrazkiaren ederrez arriturik, berari emon deutso lenengo saria.

Gazte-gaztetandik lanean

Amalau-amabost urte dituala, amak Parisera daroa eta an, bertatik, lanean jarri dabe. Ain zuzen, marrazkigintzan. Philipon deritxon batek barregarritzko astekari bat ateraten dau eta antxe artu dau mutilla, astero astero barre eragiteko marrazkien bat asmau eta atera dagian. Ortik frantzesak laster egingo dabe euren artista barri baten ezaupidea. Gustave Doré dan artistaren gorakadea asita dago. Non ikasi dau? Iru-dimenak darabil marrazkilari onen eskua. Eta gero, Louvreko Museoa eta Parisko teatroetako komediak eta jaialdiak ikusteak aberastuko deutsoe irudimena.

Laster, liburu ospetsuenak edergarritz ornidu eta jazteari ekingo deutso; 1954'n Rabelais zarraren «Gargantua ta Pantagruel» eta Balzac barriaren «Barregarritzko Ipuñak» irudiz apainduko ditu. Baiña gai sakonago eta serioagodun liburuak artu eta erabiltzeko gaitasun bardiña dauka. Mutilla da bera edozein gairi alderdi barriak eta gixien ustekoak aurkitu eta irakurlearen begietara ekarten.

Lurraldeak marrazkietan jasoten

Liburuak eskiñiriko gaiak naiko ez dituala, ibiltari egingo da eta an or emengo lurraldeak eta ikuspegiak jasoko ditu bere marrazkietan. Atsegin dau lurralde barriak, erri, gizaki eta jazkera berriak marraztutea. Baiña ori bai: dana bere irudimenaren errotan irazita, aldatuta. Doré-k lurraldeak eurak baiño areek bere barruari egin deutsoen zirrara edo eraso geiago emon gura deusku. Ez dau fotografo utsa izan nai. Ikusi dauana kanpoko begiekaz baiño bere barruko begiekaz gurago dau ikusi edo beintzat besteen begiai erakutsi.

Teofilo Gautier lagun artuta, 1855n Españara egin dau lenengo urtenaldia. Urren-go baten, Ingalaterrara. Inglesen artean abegirik onena izango dau. An emon eban aldikadarik luzeena, eta ango lurra, ango oiturak, ango bizimodua, angotarren biziko nekeak eta abar marrazki bizi biotz-urragarritan itxi euskuzan.

128 liburu apaingarritz jantziak

Lanik andiena, orraitio, liburuen apaingarritzko marrazkiak egiten burutu ebana dau. Guztitara 128 liburu apaindu ei zituen: Euron artean, Rabelais antziñakoaren *Gargantua*, Balzac-en *Ipuñak*, Sue nobelagillearen *Judu Erratua* aitagarrienak dira frantzes idazleen artean. Eta Frantziatik kanpokoen artean, or dagoz Dante-ren *Divina*

Comedia, Ariostoren *Orlando Eroa*, *Munchaussengo Jaunaren Ibillerak*, *El Quijote* eta abar. Eta Liburuen Liburua dan *Biblia* osoa.

Doré-n marrazkiak artu eben ospez liburu askoren argitaraldi barriak egin oi ziran, arexen marrazkien edergarritz jantzita ateratearren. Eta bein berak apainduriko liburu bat beste izkuntzen batera itzultzen zanean, bardin jazoko zan. Doré-n apaingarriak bearko zituen. Alan Çuijoteren itzulpenak ainbat izkuntzetan aterako ziran Doré orren irudiekin.

Ez daigun aitzu, gero, marrazki-lan au ez zala Doré onen lan bakarra. Giza-irudigintza be landu eban. Arriz eta zurez egiñiko giza-irudiak itxi eutsazan Frantziari. Bazan norbait langintza onetan be. Berari agindu eutsan Frantziak Dumas idazleari eregi nai eutsoen orotarria. Sail batean nai bestean langille gogorra izan zan bera, iñoz nekatu ezifiekoa. Orduko idazle eta kulturadunen artean adiskide andiak egin zituen.

Biotzeko min bat

Alan be, biotzeko samin bat ebalu joan zan illobira: ez eutsoela margolari, pintore andi baten maillarik autortzen.

Margolari ona izateko, oiñarri bat bear ei eban, atarako eskolea. Eta ikusi dogunez, ez eban olako eskolarik izan. Marrazki edergintzan maixutasuna autortzen deutsoe. Orretan berak sortu eban bere eskolea. Mundu guztia eukan bere marrazkiez arriturik. Beste iñok nekez asmatuko eban gauza egokiagorik, bitxiagorik, naiz barre eragitekoetan, naiz bestelakoetan. Eta ez ziran umeentzat egiñiko marrazkiak, gero!

Bere lanen irabaziak zorionsu biziteko aukera, bai, emon eutsoen. Diruaren aldetik ez eukan geroaren kezkarik. Idazleak eta musikalaria (Victor Hugo, Teophilo Gautier, Laborde, Dumas, Rossini eta abarrek) adiskidetasun miña eskini eutsoen; baiña margolariak, pintoreak, ez ainbeste.

Ama-zulo

Eta gero beste zer bat: andre on baten laguntasunik be ez eban lortu. Eta ez aukerarik izan ez ebalako. Baiña ama-zulo egiñik bizi izan zan beti. Amaren gonapean bizi izan zan umetan eta amaren babespean gizondu zanean. Amak eroan eban Parisera eta an ertilarrien eskuetan itxi. Eta ama izango eban lagun eta etxeko arduradun azken aurreko urtera arte. Bera il baño urte bete lenago il jakon ama. Eta amak siniste bete eukan bere semeagan. Doré bere amarentzat ez zan bakarrik marrazki edergintzan lenengoa; beste lan-sailletan be ez zan beste iñoren urrengo.

Bi eritxi aipagarri

Baiña amaren eretxiaz osteangorik ekarri eta aitatu bearko da emen. Doré-k apainduriko prantzez Bibliak 1886'n ikusi eban argia. Eta Tours-ko apezpikuak ona

zer esan eban itzaurrean: «Oraingo argitaldi au ainbat eta ainbat irudi apaingarriz orniduta dator. Ertilari ospetsunetako batek egiñak dira. Eurotan egilleak gauza bi egokiro alkartzen jakin dau: aomenik andienetako ertilari baten diztira eta erlijio gaitentzat izan bear dan sentierarik garbiena». Amar bat urteren buruan norainoko ospea lortu eban Doré-k or dago argi esanda. Guztiz, 230 marrazki eder ezarri eutsazan Bibliari.

Beste eritxi bat Austriatik etorriko jaku, Sigmund Freud osalari gazteak Doré il zaneko urte berean emona. Andregaiari idatziriko karta baten esaten eutsanez, Doré-k apainduriko ediziño batetik irakurten inarduan Cervantesen Quijote Mantxakoa, umorezko nobelen artean eredutzat daukan liburua. «Ordu bi emon ditut gaur Quijote irakurten eta atsegin utsetan joan jataz ordu biok», idazten eutsan emaztegaiari. «Eta gero areik dira, areik, Doré-k tartean ezarten deutzazan marrazkiak, marrazkigilleak bere irudimenaren txorrotari atea zabalik isten deutzanean! Gitxien uste dan berbatik ateraten dau aria, gauzarik bitxienak asmetako. Esaterako, ardandegiko andrearen berba batzuen aritik, zaldun zoro kaskar bat sei erraldoiri ezpatakada batez gorputzak erdi bi egiten erakusten deuskunean, beko aldeak tente geldituaz, goialdeak lurrean bilin-bolaka doazen bitartean. Taiu bako asmakizun eroa dirudi, baiña bai bere bizikoa be, beñolaka zaldun ibiltarien erokeriak buruetatik kentzen lagutzeko. Marrazkian egokia egiten dau sortaldeko errien oitura eta bazterrak be oso ederto marrazten dituenean; eta ango etxegintzaren anditasuna eta atzerri-itxura egoki irudituta dagoz. Polito daki mendi ta atxarte illun bildurgarritzkoen laztasuna nabarmen jarten. Bere biziko irudiak asmatzen ditu, pasarteren batek barregarritzko jazoeren bat dakarrenean. Esaterako, zomorrodun batzuk Quijote sorgindu eta kaiola baten sartu dabenean. Irudiok barrearen barrez eztanda egitekoak dira».

Ortik atera, diño Freud-ek azken baten, zelangoak izango diran *Orlando Eroa* eta *Biblia* apaintzeko asmauko zituen irudiak. Liburuok Doré-n asmamena biztuteko berariz egiñak ei dirudie.

II ondoren bizi-bizirik

Doré adin gordiñean joan jakun bizien artetik, 1883-n, berrogetamar urtekin. lanaren lanak erasota. Ama il eta aren laguntasuna galdu barritan agertu jakozan azkenengo gatxaren zantzuak. Frantzesen artean utsune samiña itxita joan zan. Eta ez Frantzian bakarrik; inglesen artean be bai. Maite eban berak Inglaté*rra. Ango bazterrak eta ango oiturak aparteko maitasunez jaso zituen. Eta inglesak Londresen bere lanen erakustoki edo Museo ederrena eskiñi deutsoe. Eta kultura arloetako munduak ez dau oindiño aaztu. Gaurko gizarteak be munduko literaturan ospetsuen diran liburu asko Doré-k egindako marrazkiekin ikusi nai ditu. Aren edergarritzko irudidun liburuak bein eta barriro datoz argitara.

Olan Gustave Doré-k marrazki edergintzako langilleen artean, bein lortu eban maisutza edo, obeto esateko, erregetza, noz nai daroa bere eskuetara. Oraintsu erdaldunentzat Quijote argitara danean, eta euskaldunen artean, Duvosinen Bibliaren argitaraldi barriaz, eskuetaratu dauan lez.

KATALINA ERAUSO, MONJA ALFEREZ DONOSTIARRA*

Donostiarra da. Miguel Erauso eta Maria Galarraga-ren alabea. Zezeillaren ama-
rrean, 1592n jaioa.

Donostia'ko moja-etxe batetik umetan iges egiña.

Gizonezkoen jantzitan Ameriketara joana.

An, armadunen jantzitan ainbeste guda-eraso eta odolezko burruka eginikoa.

Emakumea zala garbi agertuta, Ameriketatik 1624 aberrira biurtu eta Felipe
IIIgarrenak Alferetzat onartu eta biziko zan urteetarako bizi-saria artu ebana.

Urte Santua zala-ta, Erroma'ra joan eta Urbano VIII Aitasantuaganik gizon-
jantzitan jarraitzeko baimena artu ebana.

Bigarrenez Ameriketarako bidea 1630n artu, eta Mexiko'n mandazaintzatik,
jantzi ta oialezko gaien eroanekarrian bizia, arik eta 1650n il zan arte.

Odol biziko emakumea Katalina Erauso, zirt eta zartekoa, erronkaria, eta itzetik
ortzera ezpatea atera ta aurrean jarten jakona odoletan itxi edo beste mundura bial-
tzekoa.

Emakume onek siñistu eziñeko gizonkeriak egin zituen bere bizian. Ipuinnetako
emakumea, irudimen andiko ipuinlari batek asmatua dirudi, eta iñoz alangotzat euki
izan dabe. Baiña España'ko erregeak ez eben iñor ipuinnetako edo amesetakorik erriko
diruaz saristetan, azur eta aragitan bizi zanen bat baiño. Katalina Erauso, Monja
Alferes onen biziko joan-etorri eta egitadak ondo oñarrituta dagoz artxiboetako agiri
eta eskuzko idazkietan.

* Saski-naski (1986, 32.zenb.) 43-57.

Donostia'tik Sanlucar de Barrameda'ra (1592-1604?)

Lau urte zituen Katalintxo'k bere gurasoak Donostia'ko moja-etxe baten sartu ebenean, Donostia Zarreko dominikatarrenean. An azi ta eskolatu nai eben euren alabatxoa, beste bi antxe sartu eta azi zituezan lez. Bertan eukan senide urko bat moja eginda. An aziko zan Katalina, anditxo egin arte. Orduan berak erabagiko eban zein bide artu, moja ala etxeoandre izatekoa.

Katalina'ren erabagia ez zan ez baterako ez besterakoa izango. Ez dau naiko, ez moja-etxean jarraitu, ez gurasoen etxera biurtu eta etxeoandre egin, munduan zear bere gogoaren aizeak eroanik ibiltea baiño. Laster erakutsiko dau, bere asmoak aurrera eroateko, bera zala naikoa.

Bein, amaika urte ingum zituela, edo berak autortu ebanez, amabost inguru, koruan dagoz mojak gabeko errezuak kantetan asteko. Egun atan Katalintxo'ren moja senidea dago nagusi ordeko eta errezu-liburua gelan itxi dau, aitzurik edo. Gelako giltzak lobatxoari itxi eta gelara bialdu dau liburuaren billa. Katalintxo'k gauza bat ikusi dau nausi ordekoaren gelan: etxeo giltzak, untze batetik eskegita. Liburua izekoari koruan emon, eta andik laster ondoezen bat daukalakoa egin dau. «Bai, zoaz oera, eta egin lo», diñotso izekoak. Baiña gau atan Katalintxo'k ez dau lorik egingo. Etxeko giltzak, izekoaren gelan agirian ikusi dauan diru-apur bat, jostorratza ta aria artu, eta laster kanpoan da, moja-etxetik kanpo, non ostendu ez dakiala, nora egin ez dakiala. Gurasoenera iñondik iñora be ez. Iru bat egun egin ditu gaztañape baten, jostorratza ta ariaz bere moja-jantziak gizonezkoen jantzi egiten. Eta leengo neskatoa, itxuraz mutil egiñik gelditu da, or zear bidez bide joanda bere bizimodua aterateko prest. Moja-etxeo ama nausi ordekoaren gelan artu dauan diruaz egun batzuetan ez dau geiago bearko.

Bidez bide joan ta joan, Gasteiz'era iño eldu da. An bizi dau amaren lengusiña bat irakasle andi bategaz ezkondata. Euren etxean artu dabe etxe-mutiltzat. Berak ezagunak ditu, eta ez dabe ezagutu, eta berak be ez ezaupiderik emon. Iru illabete daroaz etxe atan eta ugazabak gauza bat igarri deutso: mutiko dalako orrek polito dakiala latin irakurten. Buru oneko mutikoa dala-ta, eskolaren baten sartuta ikusi gura leuke, geiago ikasteko. Ez eta bai, asarretu be egin dira ugazaba ta neskatoa. Orduan Katalintxo'k bigarren igesa asmauko dau: ugazabari diru apur bat kendu, Gaztela aldera doan mandazain bat billatu, eta beragaz Valladolid'era. Gaztelako uri onetan laster aurkitu dau bizimodua. Joan Idiakez jauna bizi da bertan, Felipe II-garrenaren sekretario izana, eta Felipe III-garrenarena dana; ain zuzen, Donostia'ko dominikatarren moja-etxea egin ebanaren semea, eta Katalintxo'ren gurasoen ezaguna eta adiskidea. Eta bein, ate-joka norbait, eta nor da? ta Katalintxo'ren aita. Ez dau aitak alabea ezagutu. Joan Idiakez orri, alabea galdu dau ala-ta, bere atsekabea eta ardurak ustutera dator. Katalintxo'k belarria ate ondoan ipiñita, dana entzun deutse. Eta irugarrenez, igesa artzea erabagi dau. Nora? Bilbo'aldera, len lez mandazain batek eroanda.

Bilbo'n asiko dira Katalintxo'ren lenengo burrukak. Ez dau iñok *Monja* Alferez onen lepotik barrerik egingo, erantzunik bertan artu barik. Mutiko batzuk inguratu

jakoz bein, mutil jantzita egon arren, neska-itxura andiagoa eukala ikusita edo, adarra joten. Eurakgana joan, eta mutil bati zauritu anditxoia egin deutso. Txinelak eldu deutsoe berari, eta illabeteko espetxea emon. Espetxea itxi dauanean, beste olako ezbearren bat jazo ez dakion, Bilbo'tik urten eta Naparroa alderako bidea da oraingoan artu dauana. Nora, ta Lizarra'ra, Estella'ra. Estella'n egingo dau, beste iñon baiño baketsuago, egotaldirik luzeena oraiñ artekoetan, Arellano'tar andikien etxean etxe-mutil. Baiña emen be ez luzaroegei. Urriñagoen baterako amesetan dabil. Eta iñok ezagutuko ez daualakoan, oraingoan Donostia'ra bertara doa, an Pasaiko portutik itxasoko bideak artzeko. Ez dabe ezagutu, ez bere amak bein mojen eleizan mezatan alkar ikusi dabenean, ez mojak eurak beragaz berba egin gura izan dabenean. Agur andi bat egin eutsoben eta geiagoko barik urten eban andik, ontzirako garbitasunak aterateko. Eta Pasai'ko portuan itxasoratu, eta itxas-bazterrik itxas-bazter, Sevilla-aldera joko dau.

Ameriketara ontzimutil

Itxasoak bizi barri baten sartu dau Katalina Erauso, eta izen barri bat daroa. Orain arte ibilli dan lekuetan be ez-izenen bat emon bear izan dau. Oraiñ, itxasora-tzean, Frantzisko Loiola da. Itxasoz doa Andaluziara, baiña ez bertan gelditzeko, orduan ainbesteren ames-leku zan Ameriketako lurreratarako ontzia artzeko baiño. Iñok ez daki, berak be ez, nondik norako aizeak daroan. Arritzekoa da zelan dabillen bera, guztien ixillik, guraso ta anai-arreben ez-jakiñean, iñori bere benetako nortasuna erakutsi barik. Nor zan agertu izan ba'leu, agur aren Ameriketarako amesak! Ez eban Ameriketara joaterik izango. Baiña mutil-jantzita ikusirik, nok igarriko eutsan, nok usteko eban mutil-itxurazko gaztetxoaren azpian neska bat estaltzen zala? Bada-ezpadako mutiltzat dago, baiña benetako mutiltzat beiñik bein. Zek eraginda eroan dau Katalinak bizimodu ori Donostian asita, zergaitik dau ainbesteko ataza, bere emakumetasuna estaltzen, eta gizon agertzen? Mundua ikusi bearra ei eukan berak, eta munduz mundu bere kontura eta bakarrik ibilteko, emakume izan eta agertzea eragozgarri ikaragarria zan. Ez gurasoak ez gizarteak ez eutsoen olango bizimodurik egiten itxiko.

Beste emakumerik be izan da munduan gizon-jantzitan ibilli izan danik. Batzuk izen andia lortu dabe. Gure egunotan be jazo da emakume bat Gaztela aldean kinto sartu eta emakumea zala agertu zana; baiña bere etxean azia, lagunartean ezagutua, eta aita-amaganako maitasuna ukatu bakoia. Katalina Erauso oso bestelakoa da. Berak ez deusku autortu eta beste iñok ez deusku emon oraindiño Katalina'ren barruko ezkutuetan sartzeko giltzik. Azken baten, geiago eziñez, emakume dala autortuko dau; ortik aurrera, ezer ez geiago. Ba ete ekian berak bere barruko eragiñen barri?

Sanlucar'ko portuan, Ameriketara joateko abian aurkitu dau ontzidi bat; kapitan doa olako ontzi baten Migel Etxarreta, euskalduna. Onak lagunduko deutso Katalina'ri bere ontzian doazenen artean izena emoten: Franzisko Loiola izena. Orduan errezago egiten ziran noranai joateko paperak gaur baiño. Beste kapitan bat, Katalina'ren osabea zan bat be, bajoian ontzi areitan: Esteban Egiño. Ez deutso Katalina'k oni ez

beste iñori bere benetako izena ez nortasuna autortuko. Osaba onek, nor dauan jakin barik, bere ontzian artu dau ontzi-mutil izateko. Eta an doa Katalina bere ames-errietara: Urrutira! Bai, Indietara!

Ameriketetan: Indietan

Venezuela aldean, Punta Araya'n jo dabe Ameriketako legorra. Neke andiko bidaldia izan da arañokoa, batez be olango nekeetara oitu bakoa dan Katalina neskearentzat. Ontzi-mutillaren egitekoa itxi eta Egiño osabeak laguntzailletzat artu dau bere llobea, edozetarako egiña dirudi-ta, paperak baltzitu eta kontuak eroateko be bai. Osabearen lana bere ontzia zidarrez eta balio andiko ainbat gauzez bete eta atzera Sevilla'ra ekartekoa da. Indietako Kartagena'tik eta Panama alderaiño dabil zeregin orretan, laster etxerako bidea artzekotan. Baiña Katalina orretarako joan ete da, ba, Indietara? Bai, zera! Berak an gelditu gura leuke, ango lurretan barrurago sartuta bazter eta jentemodu geiago ikusteko. Bai, doala osabea, nai ba'dau. Bera an geldituko da. Eta osabea bere ontzikadeaz etxerantza abietako egunaren bezpera gabez, Katalina'k bosteun ogeiko ostu deutsoz, eta, jagoleen baimenaz, nagusiaren agindu bat egin bear dauala-ta, kanpora doa. Eta ez dabe geiago ikusiko. Eta osabearen ontzia itxasoko urriñean galdu danean, beste kapitan euskaldun baten esanera gelditu da. Bein baiño geiagotan egin dauan marro eta lapurreta onek ondo urten deutso.

Kapitan barriak, Joan Ibarra izenekoak, bere zor-artzekoen garbitasunak eroateko artu dau. Kontuak garbi eskatzen ditu, baiña, langilleakaz dituen zorren ordaintzaille edo garbitzaille txar eta zekena da. Katalina'k, osabeari osturiko diruak garbitu baiño lenago, bertan beera itxi dau, eta beste ugazaba bat billatu. Oraingoa be euskalduna da, abizenak diñoanez: Joan Urkiza. Gizon atsegiña eta eskuzabala. Ari, oial eta soiñekotan ebillan merkatari. Katalina ara ta ona darabil bere ondoan, eta askotan aldendu bearren bat dauanean, Katalina'k zintzo ta garbi egiten deutso agintzen deutsan guztia. Eguneko aloger on samarra ipiñi deutso gaiñera. Urkiza'ren agin-dupeko dan egunetan asiko da Katalina lenengoz ezpatea garrian dauala ibilten. Eta Pedro Oribe darabil izentzat. Orduan izango dau lenengo estukuratxoa, ugazaba orrek berak ezaguna dauan andra bategaz ezkondata ikusi gura leukela esan deutsanean. Emakumea beste emakume bategaz ezkondu? Ja, ja, ja! Zelan jarriko da emakume dala agirian ipinteko arriskuan? Iñondik iñora be ez dau Urkiza'k Katalina'ganik ori lortuko.

An izan dau Ameriketako lenengo burrukea be. Teatroan egoala, aurrean jarri jakon gizon batek ikustea galazoten eutsala-ta sorturiko aserre batekin. Urrengo egunetan gizon ori, Reyes abizenekoa bera, Katalina'k eukan denda aurretik arro ta erronkari ibilten jakon. Katalina'ren odola berotzeko zer bear zan geiago? Aizto andi bat bizargilla bati zorrotuazo eta ezpatea garrian dauala, Reyes ori lagun bategaz ara ona ebillen baten, Katalina'k dei egin deutso. «Zer da?» erantzun deutso Reyes orrek. Eta Katalina'k aitzokada bat botata, erantzun deutso: «Onantxe ebaten da arpegia». Lagunak urten dau Reyes'en alde, baiña Katalina'k ezpatakada batez jo ta bera bota dau. Eta alboko eleizan sartu da. Eleizan sartzeak ez deutso balioa izan. Urkiza andik

urrin egoan orduan, eta Katalina'k Ameriketako lenengo espetxea ikusi bear izango dau, Urkiza'ren eta gotzaiñaren laguntzaz kalera urtengo dauan arte.

Baiña, bada ezpada, lan-lekua aldatu deutso Urkiza'k: andik Trujillo'ra bialduta. Baiña Reyes arek ez deutso parkatuko. Katalina'k barri txarra entzun dau; Trujillo'n dala bere arerioa lagun bi alboan dituela. Arin arin joan da Katalina bere adiskide Franzisko Zerain'gana. Eta biak doaz beste irurak gana. Burrukea sortu eta an doa Reyes'en lagun bat lurrera, Katalina'ren ezpatakada bat artuta. An da laster alkatea beste txinel bigaz bakeak egiten. Katalina espeterantza daroala, alkateak nongoa dan itaundu deutso. Euskalduna dala jakin dau, bera be, Ordoño Agirre, alan dan lez. Espetxera bidean doazela, alkateak euskeraz badiñotso: «Eskubitorrak askatu egingo deutsudaz eta sartu zaitte arin arin aurreko eleizan». Baiña ez Urkiza'k ez Agirre'k ez dabe lortu Katalina, eriotza bat egin dauan ezkerero, auzitara barik askatzerik. Eta igeskada bat asmatzen dabe. Urkiza'k ondo saritu deutso egin deutsan lana, eta Lima'ra doa Katalina, eleizatik eta agintarien eskutik iges eginda.

Lima'n sartu da Urkiza'k Diego Lasarte'rentzat eskuetara emon deutsan gomendiozko karta bategaz. Lasarte onegaz bederatziz illabete egingo ditu. Baiña ugazaba barri oni azkenean bildurra sartu jako bere andrea edo alabaren bat ostuko ete eutsan ezkontzeko, eta polito polito beste nonbaitera joan eta bizimodu barri bat zuzendu dagiala esan deutso.

Zer egingo, eta orduantxe Chile'rako gudari-talde barriak sortzeko deia zabaldu da. Aukera ederra Katalina'rentzat bere odol beroari eta burruka-naiari urtenbidea emoteko. Chile'ra gudari joateko izena emon dau. Ori ikusita, damutu da Lasarte, eta alperrik ekin deutso bertan gelditzeko ta gelditzeko. «Or zear ibilli eta mundua ikusi», naiago dau berak.

Alferez egiña

Chile'n, Concepcion portuan joko dabe legorra Lima'tik joan diran gudariak. Katalina'ren bizitzan dana da ez-ustea. Gitxien uste dauanagaz aurkitzen da askotan. Migel Erauso, Katalina'ren nebeak ekarri deutse gudariak legorrera urteteko gobernadorearen baimena. Izena entzun dauaneko jaubetu da bere nebea dauala, bera urte biko zanean Donostia'tik alde egiña. Gudarien artean donostiar bat etorrela jakitean, poz andia artu dau Migel Erauso kapitanak. Bere guraso ta etxekoen barri jakin gurez, itaun luzeak egin deutsoz etorri barriari, ia zelan dagozan urlia ta urlia, eta bere Katalina mojatxoa. Ez dau erantzun garbirik artuko. Gero bere erriarrentzat zeozer egin nai dau. Ango gudalekua arrisku andikoa ta oso txarra ei da eta gobernadoreari eskatuko deutso Katalina, orain Alonso Díaz Ramírez de Guzman izenenpean ezagutzen zana, Migel beraren laguntzailletzat emoteko.

Katalina iru urtez geldituko da an bere nebearen etxean, bere nortasunaren ezaupiderik emon barik. Eta azkenez, emakume baten goraberan asarretuko dira biak. Bien ezaguna zan emakumea. Biak alkarregaz joaten asi ziran aren etxera. Baiña Katalina bakarrik joaten asi danean, Migel'ek ezin izango dau ori ondo ikusi, eta bein, etxe atetik urteten ikustean, espataka eraso deutso. Burrukeak gogor jarraitu

dau, beste kapitan batek baketu dituen arte. Gero nebeak arrebearen alde urten eban arren, gobemadoreak ez eutsan parkatu Katalina'ri eta Katalina'k guda-lekura, Paicabi'ra joan bearke dau, ango indioen bildurrez beti armak eskuetan zirala egon bearreko lekura.

Orain dago Katalina berak amesturiko leku egokienean. Itsu-itsurik doa bera arrisku andienetako lekuetara. Valdivia uriaren inguruko erasoetan egingo da ospetsuen, batez be arerioen eskuetatik bandera bat kendu ebanean. Jo ta su sartu zan bera arein artean; españarrak kenduriko bandera eroiela iges joiazanean, atzean joakiez Katalina ta beste batzuk, eta Katalina'k banderea eroiana lurrean luze itxita, banderea kendu eta bere eskuetan zaldi ganean dakarrela, arerio asko zaldiaren ankapetan zapalduz, garaille andien antzera biurtuko da bere lagunen artera. Egitada ori laster zabalduko zan itxaso batetik bestera. Egun orretan Katalina'k Alferex izentatua izatea irabazi eban.

Katalina itsu-itsuan sartzen zan arriskutan oso sarri, ez bakarrik gudalekuetan arerioen aurrean, bere gudari lagunen aurka be bai. Zarraparrea sortzen zaneko, ez bat eta ez bi, laster elduko eutsan ezpateari eta eukan izkilluari. Bein, Migel bere nebeak aterako dau olango ilteko arizku batetik, andik alde egin eta eleiza baten arin sartzeko euskeraz esanda. Illabeteko egotaldia egin bearke dau eleizan, arik eta ingurua zaintzen ebenak alde egin eben arte.

Txarrena eta Katalina'rentzat mingarriena bere nebeagaz jazo jakona da, ain zuzen beste bein eriotza bat eginda, eleizearen babesera iges egiñik egoan batez. Joan de Silva alfereza etorri jako laguntza eske gau atan zaldun bategaz buruz buruko burrukea daukala-ta, baktokak laguntzaille bat artuta. Berak ez ei dau laguntzailerik aurkitu al izan. Gaua eldu danean, eleizatik urtenda, an doa Katalina burruka-lekura. Burrukea asi ta laster, burrukalari biak jausi dira zaurituta. Katalina'k eta bestearen lagunak ekin deutsoe orain, eta alako baten, jausi da bestearen lagun ori, oiuka diñoala: «A! Zitala! II nok oraintxe». Abotsean igarri dau zauritua nor dan: Migel Erauso bere nebea berbera. Arin arin frailletara joan, fraille bat ekarri nebeari ilten laguntzeko, eta eleizara ariñiketa baten. Urrengo egunean, atsekaberik andienean, eleizako korutik nebearen illeta-mezea, eta gorpua obiratzeko elizkizun guztia ikusi ditu.

Katalina'k gero eleiza aretatik urten eta igesa artu bearke dau, Ponce de León'ek zuzendu deutzazan zaldi ta armakaz. Nora? Tukuman aldera, oso urriñera. Bidaldi luzea Katalina'rentzat, neke ta gose andiak ikusi bearrekoa. Bidean doala, betiko gauza bitxiak jazo jakoz: etxe baten ostatu ona aurkitu, bertan egunak egin, etxeko andreak bere alabea ezkontzeko eskiñi, soiñeko barri ederrak emon, eta ezkondu bearreko egun aurretxoan, guztien ixillik, zaldiraigon, eta... eroan al dauan guztiagaz, anka andik, lorratzik itxi barik.

Ez doa bakarrik. Lagun bat badau alboan. Eta Potosi'ra bidean, lapurrak urten deutsoe bidera. Iru dira. Bi lurrean ankaz gora itxi, besteari iges egiñerazo, eta aurrera. Potosi urian, matxinada bat sortu dau Alonso Ibañez dalako batek. Katalina'k aren aurka dagozan gudaritaldeari lagundu deutso, beste euskaldun batzuekin batera. Baiña El Dorado'rako gudari eskea dago, eta Katalina alfereza eurakaz doa. Bidean aurkitu

dituzan indioen indarrakaz burruka gogorrak izan dabez eta triskantza andiak egin eta indio asko il. El Dorado'n ez dabe urrerik aurkitu, edo agintarientzat bakarrik gordeta dauke. An egon eziña etorri jako, eta urrengo ibiltaldietan benetako eperdikara egiñik ikusiko dogu, iñon gelditu eziñik, iñongo ostatu-emoille edo ugazabaren e-txeetan luzaro iraun eziñik: El Dorado'tík Centiango'ra, Centiango'tik Charcas probintziako La Plata'ra, La Plata'tik Charcas bertara, ugazaba bati edo besteri sal-erosketan laguntzen, beti be an or emen burrukak sortzen, gero espetxealdien bat leporatzeko. Eleizaren bateko babesera jota, geldituko da askotan epaikarien eskuetatik iges egiteko, beste batzuetan euskaldun prestuen baten laguntzaz, edo bai euskaldunen odolgarbitasunezko eskubideetara joaz. Bein Cochabamba'n urkamendira igonda eukela, samea estutzeko kordela ipiñi eziñik, postaz etorren zaldun baten etorrereaz gelditu zan eriotzara barik. Errubakoa zalako auzi-erabagia ekarren, aurreragoko auzitegi batek emona.

Urrengo ostera eta jazoerak Cuzko eta Lima bitartekoak ditu. Kuzko'n, Luis Godoi korrejidorearen eriotzea ezarri eutsoen berari. Bost illabeteko espetxea izango dau, aarik eta errubakoa dala argitu daben arte. Lima'n holandesen aurka itxasora urten daben indarrakaz joan da. Katigu jausi eta holandesak barruan eukiko dabe 26 egunez. Kuzko'ra biurtu eta burruka baten, Cid Barri esaten eutsoen bat illik itxi dau eta berak zauri andiak artuta, bizkaitar bik alde urten deutsoen arren, lau illabete egingo ditu frantziskotar baten gelan osatu arte.

Monja alfereza

Kuzko'ra biurtuta, Cid Barri orren adiskide batzuk Katalina'ri jarraituta, eskuak ezarri nai izan deutsoez. Eztabe lortuko, baiña. Guamangara doa gero Kuzko'tik, eta betiko zoritxarra, betiko joko-etxeetara sartu bearra! Korrejidorea be bertan da, Katalina'ri begira-begira! «Preso zara», diñotso Katalina'ri. Eta onek erantzuna: «Bai, pozik». Eta ezpateari eldu, iru zulodun pistola bat erakutsi, eta an doa zuzen kalera, eta adiskide egin barri dauan baten etxera. Euskalduna da adiskidea. Bada ezpada lekuak ustu eta anka egin bearko dau andik. Gau illunean urten dau adiskidearen etxetik, eta orra txinel bi aurrean. Sekulako zarraparrea sortu dabe. Korrejidorea be an da laster, Katalina'ren burua eskatzen. Emen be bizkaitarra eta beste erritar batzuk ikusi ditu bere alde. Danbada andiak dira alde batetik eta bestetik. Gotzain jauna agertu da azkenean bakeak egiten. Gotzai jaunak, besotik elduta, bere etxera daroa Katalina alfereza.

Eta emen, gotzain orren etxean agertuko dau urrengo egunean bere benetako nortasuna: «Ni emakumea naz, Donostia'n jaioa; lau urte nituela, moja-etxe baten sartua, andik iges egin gizon jantzitan, eta Indietara etorria. Emen merkataritzan eta soldautzan ibillia naz, gerran eta beste ainbeste burrukatan izana, ainbeste zauritu eta illik be bazterretan itxia, orain emen zure aurrean auzpez nozun arte». Ia ezin eban siñistu Gotzaiñak. Bere bizian ez eban iñoz olangorik entzun.

Egia jakin nai ba eban, Katalina'k esan eutsan orduan Gotzaiñari, emagin batzuk ekarri eta ikusi egiela. Emagiñek emakume eta birjiña aurkitu eben gizon usteko

alfereza, jaiobarritan baizen garbi ta ikutu bakoa. Agustin de Carvajal eban izena Katalina'ri egia atera eutsan gotzaiñ arek, eta Joan Bautista Arteaga aren sekretarioak. Urte berean il zan gotzaia eta Lima'ko gotzaiñ Nagusiagoraren aginduz Lima'ra eroango dabe Katalina, sei abade, lau praille eta sei armadun lagun zituela. Beingoan zabaldu zan Monja Alferez zalakoaren izena, eta sekulako arrerea egin eutsoen; kaleak betean batu ziran limatarrak, gaueko orduetan izan zan arren moja ospetsuaren etorrerea.

An, San Bemardo'ren komendadoreak deritzen moja-etxean sartuta, urte bi ta erdi egingo ditu, profesa egin bako moja zalako albistea Donostia'tik eldu zan arte. Orduan elduko jako aberrirako bidea artzeko ordua. Lenengo Guamanga'n ostaturu euki eben Santa Clara'ko mojai agur egitera joan eta, Cartagena'n, Tomas Lauspuru jeneralaren agindupeko ontzi baten sartu da eta 1624ko azaroaren lenengo egunean, Domu Santu egunean, Cadiz'en dogu Donostiar ospetsua.

Erregearen eta Aita Santuaren baimena gizon-soiñekotan ibilteko

Gizonezkoen jantzitan etorri da Ameriketatik. Erregeak Ameriketan egin dauan gudari-lan andiagatik bizi dan guztiko sari ederra emongo deutso eta gizon jantzitan ibilteko baimena eta Alferez titulua.

Ez deuskue esan jaioterrira, Donostia'ra, etorri zanik. Naparroa'raiño eldu zan beintzat emendik Frantzia'ra igaro ta Erroma'ra joateko asmotan, 1625 urtea Urte Santua zalako. Baiña atzera etorri bearko dau, espiatzat artuta Piamonte'n aurrera egiterik izan ez daualako. Atzera etorri eta orduan egiten ditu Erregeagazko garbitasunak. Atan orretan, Erromara joatea atzeratu egin jako. Erroma'ra bidean, Kataluñatik zear doala, lapurrak urtenda, ez deutsoe emon ezetako astirik. Bera ta bere bide-lagunak ezer be barik itxi dabez: ez dirurik, ez armarik, ez zaldirik. Zelanbait gorputza estaldurik, erregea Barzelona'n dala jakin dau, eta erregeak zuzendu deutso bidean izan dauan okerra, eta Erroma'ra jarraitzeko diru-laguntza emon.

Aita Santuak Erroma'n Katalina'ren aotik entzun dau Monja Alferez dalakoaren bizi guzia: nor eta zer izan dan. Eta gizonezko jantzitan ibilteko baimena emon deutso. Eta kardenalen batzuk baimena itxusi ikusi dabenean, Aita Santuak, orduan Urbano VIIIgarrenak, erantzun dau: «Ekarridazue beste au lako monja Alferez bat, eta bardin emongo deusat nik». Illabete ta erdiko egotaldia izan da Erromakoa, eta ia ez da gelditu ango andirik bere etxeko maira deitu ez dautsanik. San Pedro eguneko jaiak ikusi ditu eta andik sei egunera Napoles'era bidean da.

Napoles'en amaitzen da Katalina beraren izenpean agertu zan Monja Alferez onen barri emoten dauan liburua. Eta azkenengo lerroetan bere seta aserrekor eta erronkariaren erakutsi on bat daukagu. Morrosko bi eta neska bi ikusi ditu, bere lepotik barre egin gurez. Eurak begiratu eta Katalina'k begiratu, neskeetako batek badiñotso: «Katalina andrea, nora da zure bidea». Eta berak erantzun: «Zeuok gana noa, eun belarrondo emoteko, eta emotea galerazo nai dauanari, eun aitzokada». Besteak ixillik alde egin eben andik. Olakoxea zan Katalina, beingoan berotu ta irakiten jartekoa. Katalinagaz, txantxetarik gitxi.

Orainartekoak Katalina Erauso'k berea dalako libuman emoniko barriak dira, eta ez deuske bizi guztia emoten. Askok ipuintzat eta asmatutzat artu nai izan dabe dana edo geiena. Baiña erregearen aurrean Katalina alferezaren neke ta lanak saritu bai ala ez jakiteko eroan zan auziak argi diño Katalina'rena ez dala iñongo ipuin-idazlek asmatua. Beragaz Ameriketara ibilliriko kapitan eta lagun askok on egin eben Katalina'ren libuman esana. Izen eta zeaztasun larregi dagoz liburu orretan bere begiz ikusi ez dituen batek asmetako. Or agertzen diran ainbat lekutako kapitan, alkate, korrejidore, abade, praille, gotzain eta abar egiazkoak izan dira.

Bear bada, Katalina ez dabil ziurregi bere umetako barri emoterakoan. Jaio, 1585ean jaio zala diño, eta moja-artetik 15 urte zituenan iges egin ebala. Baiña bataioko agiritik 1592n jaiotzat daukenai, gero 1603n Ameriketara bidean jarri zala diñoenean, ez deusoe kontuak ondo urtetan Katalina'k esanagaz bat etorteko: bederrazi bat urte, mojetatik iges egitean, eta amaika, Ameriketarakoan. Gazteegi olango bidaldi bat artzeko.

Baiña beste batzuen eritxiz, 1607n Donostia'n zala beste agiri batzuk ei diñoen ezkerre, Katalina'k emoniko urte-kontuak eta besteen urte-kontuak konpondu eziñik ez dago, batera joko leukie: amabost urte zituela, moja-etxetik iges egin ebanean, eta profesia egiteko eguna gaiñean ebala.

Ostera be, Ameriketara: Mexico'ra. Eriotza

Ez jaku argitzen zer egin eban eta nondik nora ibilli zan 1626n Erroma'tik etorri eta ostera 1630n Ameriketara alde egin eban arte, oraingoan Mexico'ra.

Ameriketarako prestaketakegiten, 1630garren urtean Sevilla'tik zala, ango egunkari batek onela dirausku «Gaur, egunez, garagarrillaren lauan, Monja Alfezra eleiza nagusian izan da». Indietara joiazanen orduko zerrenda baten, onako au irakurten ei da: «Garagarrillaren 21 n, Migel Etxezarreta jeneralaren agindupean Nueva España'ra doazen ontzietako baten sartzeko txartela emon jako Katalina Erauso alferezari, erregearen baimen-agiriaz Peru'tik etorrita egoanari».

Migel Etxezarreta edo Etxarreta ori, lenengoz Ameriketaratzean Katalina ontzi-mutil eroan ebana bera da. Orain jeneral da orduan kapitan zana. Oraingoan Veracruz, Mexico'ko urira doaz. Katalina'ren Mexico'ko barri gitxi eldu jaku. Ango lurretan mixiolari ibilliriko praille kaputxino batek, Nikomedes Renteria zanak esanda, auxe dakigu, 1645n sarritxotan ikusi ebala Monja Alfez zan ori. Baltz batzuk lagunduta, mando-talde bategaz ibiltzen ei zan, oial eta jantziak ara ta ona eroan-ekarten, gizonzkoen jantzitan, ezpatea eta aiotza aldean zituela.

Orraitio, Mexico'n be ez zan egon erronkazo gixonkerien bat egin barik. Veracruz'tik Mexico urira joian baten, damatxo baten gurasoak euren alaba ori ipiñi ei eban Katalina'ren eskuetan, Mexico'raiño eroan egian, gizon jantzita joan arren emakumea zala jakiñik. Katalina'ri oso maitagarri egin ei jakon damatxo ori, eta sartu-urten asko egiten ei zituen aren etxera. Damatxoa ezkondu zanean, senarrak ez ei eban ondo ikusten bere emazteagana ainbeste bidar joaten. Eta bein andik geiago ez agertzeko esan ei eutsan gure Donostiarrari. Oso minberatu eta asarratu da Katalina

eta karta gogorra bialdu deutso gizonari: odol garbiko eta izen oneko emakume bati ez jakola olango itxuskeririk egiten, eta abar. Gaiñera, entzun dauanez, gizon orrek Katalina il egin bear ei dau. Eta Katalina'k: «Bizarrik badaukazu eta ori egiteko gauza bazara, biar San Diego ostean naukazu etxoten, ordu batetatik seirak arte». Lagun batzuk jarri ei ziran bitarteko, eta gauzea ez zan aurrera joan. Are geiago: andik egun gitxi barru, gizon ori gaiztagin batzuen artean estu ta larri ikusi dauanean, Katalina joan jako estualdi atatik ateraten, eta eskerrik askorik be ez eban entzun nai izan.

Mexico'ko aldi guztian Monja Alferez onek ez ei eban eguneroko mezarara utsik egin, eta moja profesen koruko errezuak egunero egiten ei zituen; 1650n santuen eriotzaz il ei zan, bein oialez eta jantziz mandokadea eroiala, ilteko geixo batek artuta. Illeta eder ospetsuak izan ei zituen.

Oso bitxi eta nabarmena benetan antziñako donostiar onen bizia. Beste Monja Alferez'ik nekez sortuko da munduan.

AITA DONOSTIAREN OMENEZ *

Euskalerrriak musikalaria bikain izan ziran biren jaiotzako eun urtegarrena ospatzen dau aurten: Jesus Guridi eta Aita Donosti izan ziranen eun urtegarrena. Bion izenak gora ta gora dabiltz eta alan ibilliko dira aurten an or emen egingo jakiezan ainbat omenaldietan, eta ainbat idazlek egunkarietan eta aldizkarietan eskiñiko deutezan goragarrizko idazlanetan. Ni ez naz asiko Guridiren izena ez aren lana goratzen; nire lumatxoa baiño goratzaille oberik eta aituagorik izango dauala uste dot. Baiña Aita Donostiren omenetan ez neuke ixillik gelditu gura. Euskal-musika eta euskal-folklorearen mundu zabalean ezaguerazo eta zabaltzen oso gitxik lango lana egin dauala autortu bearrean gagoz. Zorionekotzat euki bear dogu bera jaiotzeko urtea. Zori obekotzat gure erri-musikak maitemindu eta lilluratu ebaneko ordua, andik aurrera gure eresiak, gure erri-kantak billatzen, jasotzen eta soiñeko zoragarriz jantzirik Euskalerrriari eta munduari eskintzen jarduteko.

Ume umetarik musikalaria

Bateoan Jose Gonzalo izena ipiñi eutsoen. Umetxoa munduratu zanean euskal-musika ez zan, orraitio, bapere ezagutu bakoia, ez. Iztueta-ren Dantzak eta Santesteban-en eta olako batzuen kanta-liburuak alde batera itxita, joan dan gizaldiaren azkenerako bazan gure eresi ta soiñuen iturri garbiago eta jatorragoetara jo ebanik. Eurotarik bi: Karrikaburu (Villehelio andrea), eta Sallaberry. Biak zuberotarrak. Onein urrengo, Frantziako musikalaria bat, euskalduna ez zana, agertuko da, euskal-eresiai ain eder eritxita Euskalerrira etorri, eta Parisko gobernuaren agindu eta laguntzaz, euskaldunen erri-musika batzen eta ezaguerazoten lan ederra egingo ebana: Charles Bordes.

* Karmel 1986-2, 23-35.

Olan asiriko lanak jarraitzailleak eta gallur-emoilleak bear zituen, eta orra non datozen Azkue andia, eta onek berotuta, Jose Gonzalo Zulaika Arregi, laster Aita Donosti izenaz ezagutuago egingo dana.

Biok, Aita Donostik eta Azkue zanak ikaragarritzko lana egingo dabe arlo onetan. Ia il aiñik eta betiko aitzurik gelditzeko egoan gure musika eta bion artean argitara atera eta bizi barria emon deutsoe. Azkuek bein esana egia baiño ez da: «Berrogetamar urte geiagoz lan au egin barik itxi bagendu, gau illuna bai illuna egingo zan arlo onetan, artean argitara urteniko iru-lau dozenatxo euskal-kantaz beste izarrrik bako gau illuna... Adiskide kutun dodan eta arlo onetan langille zolia dan Donostik eta biok bi milla ta laureun erri-kanta baiño geiago aurkeztu genduzan batzaldi batera; bai, bi milla ta laurendik gora, beste ainbeste euron antzeko kontuan sartu barik.. Zeinbat ez ete ziran aurkitu al izango, lan au eun urte lenago egin izan balitz?»

Beren beregi aitatu dodaz izen biok, Azkue eta Aita Donosti, bata besteari lotuta dagozalako. Aita Donostiri, amabost-amasei urte zituala, Azkuek euskal-musikaz egindako itzaldi batek zabaldu eutsazan begiak euskal-musikaren mundura, ta orrek ipiñi eban gero artuko eban bidean.

Jarraitu deiogun bide orretan. Donostiako seme onegan ume-umetarik sortu zan musikarako griña, bere gurasoen eragiñez. Aurrerakada andiak egiñak zituen, amar urte zituela Lekarotzera, ainbeste euskaldunek maite izan daben kaputxinoen ikastetxera bialdu ebeneko, ez solfaketan bakarrik, musika tresna bat baiño geiago joten be bai. Lekarotzen musika-gaietan aurrera egiteko erreztasun guztiak izango ditu; maisu ona emon deutsoe: Ismael Etxezarra, Bilboko S. Bizente eleizan organista izango zana. Batxillerra amaitutakoan, kaputxinoen soiñekoa artzen dau. Ikaste-urteetan, ikasiaz batera, soiñu barriak, orkesta ta guztikoak, aterako ditu, ikasleen jai-egunak alaitzeko nai eleizan abesteko, eta 1908n meza emon barritan, an bertan ipiñi dabe irakasle. Amar urtez an jarraituko dau, 1908tik 1918ra, literatura eta ikasteko guztiak irakasten (matematika izan ezik), eta esan bearrik ez, berak txikitarik barru-barruan daroan musikea irakasten eta egiten.

Laster asi da Lekarotzetik aita Donostiaren izena zabaltzen orduko musika-aldizkarietan; kanta barriak, organuz jotekoak eta abar bialtzen ditu. Baztan aldeko errietan, eta andik Sara aldera igarota, arrobi eder ugaria aurkitzen dau, erri-kanta ta soiñu barriak billatzeko. Eta emen asi da Aita Donostiaren euskal-folklore eta euskal-musikazko lan bardinbakoa.

Meza barria emon aurreko urteetan bere sortzezko musika-sena ta etxeko maisuak izan ditu gidari; orain atzerrietarako urten aldiak egiñez, aize barrien eta jakite barrien billa doa: Silos-ko beneditarren artera, gregoriorena deritxon musika ikasten, gero-txoago Solesmes-era joango dan lez; edo Barcelonara, musika-eskola barrietan sakonagoko ikasketak egiten. Bide batez, musikolari andienakaz artu emonetan sartu da, Felipe Pedrell, Granados pianistearekin, eta abar. Eta ez bakarrik, musikalariekin, literaturako maisu andi batzuekin be bai. *Preludios Vascos* izenburuz pianoz joteko lau sortak atera dituanean, atzerrietaraño joan da Aita Donosti-ren ospea. Gerotxoago seaska abestiak atera dituanean, Ramón Jiménez olerkari ospetsuaren arrimena ezin da andiagoo, gure amen umeak ganako maitasuna ain soiñu txukuñez eta ain bertso apal itxurako apañez adierazota ikusirik.

Aita Donostiren izena gora ta gora

Euskal-folklore arloan, gure lau Aldundiak, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoa ta Nafarroakoak, era ezin ohea eskiñi deutsoe artean egiñik daukan folklore-lana plazara aterateko. Gure Aldundiok, 1912-n, saria eskiñi eben urte orretan, euskal-kanten sortarik ederrena eta ugarienarentzat. Iru bat urteko epea emoten eben lana aurkezteko. Aita Donostik Baztan inguruan, Gipuzkoako erri batzuetan eta Sara aldean batuta eukazanak bialdu ditu. Lenengo saria lenagotxotik Euskalerrri osoan lan orretan ibillia zanak, Azkue abadeak, eroango dau; bigarrena Aita Donostik. Bataren eta bestearen kanta-sortak Bizkaiko Aldundiaren diru-laguntzaz argitaratuta zabalduko dira. Biak erakusten eutsen zeñiek bere esker on beroa Lau Aldundiai, batez bere Bizkaikoari.

Aita Donostik, arrezkeru, izen andia artuko dau euskal-musikaren arloan, eta andiagotuz joango da. Bata bestearen ondoan ateraten ditu euskal-eresi sorta barriak: seaska-abestiak, eleiz-abesti sortak eta abar. Aldizkarietan, *Euskalerrriaren Alde* eta olakoetan noznai agertzen da Aita Donostiren izenpean erri-oituren bat, edo kanta zarren bat bere inguruko barri jakingarriakaz batera. Erdal-aldizkari batzuk be musika gaietarako bera dabe kritikalari artuta. Kaputxino onen kritika-lanak musika-arloa ondo ezagutzen dauanarenak dira, txukun idatzita datoz, eta abegi ona dabe.

Nonaitik eltzen jakoz itzaldiren bat egiten joateko eskea. Aita Donosti-ren itzaldiak, gero, kantu egokien laguntza dakarre, kantuen zuzendari bera dabela. Lenengoa Bilbon emona dau, 1916garren urtean, Ramon de la Sota jaunaren diru-laguntzaz geroxeago oso apain argitaratua, itzaldiaren barruan emondako kantu guztien musika ta guzti. *Euskal-Esnaleak* aginduko eutsan beste itzaldi bat, 1919-n, euskeraz emona eta argitaratua au be. Eleiz-aretoak eta teatroak bete egiten dira, Aita Donostik agertu bear dauanetan, zuriz, baltzez eta gorriz bete be.

Guztiak ez dabe ondo ikusten praille bizarduna teatroz teatro ibiltzen; Eleiz agintariak arduraz jarri dira. Alan okerrik be sortuko jako. Bein Gasteizen agindu deutsoe itzaldi eta kanta-jardunaldi bat. Baten batzuk Gotzai Jaunaganaiño joan dira, jardunaldi ori galazoteko. Gotzaiak praillearen Nagusien eskuetan itxi dau arazoa. Eta onek, bada ezpada, ez joateko eskatu deutso. Baiña gazteiztarrai emoniko berbea, zetan gelditzen zan? Prailleak O. Apraiz jaunaren eskuetan itxi dau bere itzaldia. Apraiz jaunak praillea ez agertzea entzuleai azaldu deutse, itzaldia irakurri dau, eta gazteiztarrak ez dira gelditu programako jardunaldi barik.

Beste leku askotan ez dau olango okerrik izango. Eibarren izan eban agertaldirik ospetsuenetakoa. Eibarrek gorri-izentxoia euki dau aspalditik. Ango musikariak be bai. Eleizan edo eleiz-jaietan ez ei eben nai izaten parte artzerik. Baina Aita Donostiaren itzaldian bai, an ziran guztiak bat egiñik, kulturaren alde, praille baten eskutik etorria izan arren. Eta lenengo kantua asteko prailleak batutea artu ta eskua gora jaso dauanean, umore oneko entzule batek gogor bota dau bere oiua. «Buen... tiempo!» Bai, alan zan. Kaputxinoak eskua gora dauala eguraldi ona iragarten dau barometro batzuetan. Eta Aita Donosti kaputxinoak eguraldirik ederrena eroan eban Eibarrera egun atan, politika bateko ta bestekoak, eleizgizonen aldekoak eta aurka-koak, guztiak euskal-musikaren inguruan anai baketsu eginez. Donostiko egunkaririk

gorrienak be oneritxizko txaloak jo eutsazan kaputxinoak Eibarren emondako itzaldi eta kantaldiari.

Baionan, Arjentinan eta Parisen

Aita Donostik mundu guztira zabaldu dau euskal-musikaren ospea. Ipar-Amerikaraiño. Ipar-Amerikan bertan argitaratu dabe kaputxinoak euskaldun baten agotik entzun eta jasoriko kanta bat, *Oiñazez* izenaz zabaldu dauana. Mundu guztiko errikanten artekoederrenetakotzat argitaratu dabe. Baiona aldeanosoezagun egiñikdabil, Sara aldean kanta billa ezagutu daben ezkeru. *Gure Herria* aldizkaria ateraten asi dira an, 1921-n; euskal-musikari bere txokoa eskintzen deutsan aldizkaria, ain zuzen. Euskal-musikazko lan ederrak ateraten ditu Aita Donostik aldizkari orretan, eta 1927tik aurrera, bera egingo da an argitaratzen diran euskal-kanten arduradun, eta or irauten dau 1939n aldizkaria zati luzerako ixildu dan arte, euskal-kanta barri ez ezagunak ateraten, euren bertso guztiakaz bein doiñu ta berbak uts utsean emonaz, bein iru-lau abotsetara, edo piano laguntzaz. Baiona inguruan etxeko eginda dabil Aita Donostia. Ondo ezagutzen eben an, eta ondo ezagutzen dau ango Gotzain jaunak, eta, 1923-n mesede bat eskatu deutso. Gotzai orrek Ustaritzeko Seminario txikia eregiteko asmoa darabil, eta orretarako Arjentinan bizi diran euskaldunen diru-laguntza lortu nai leuke. Ara bialdu nai dau *Gure Herria* aldizkariaren zuzendaria, Aita Donosti lagun dauala. Iñor ez mandatari oberik Arjentinara bialtzeko, eta ango euskaldunen biotzak eta sakelak irabazteko, egin nai dauan Seminarioaren alde. Sei illabeteko egotaldia, edo, obeto esanda, itzaldi ta kantuzko ibilaldia egingo dau an zear euskaldunen artean. Gotzain jaunaren asmoak oso osoan bete dira, eta praillea Lekarotzeko txokora biurtu danean, bertara joako Gotzain jauna bere esker ona emoten, eta ango prailleentzat eskupekotxoa isten.

Lentxoagotik zituen artu-emonak Parisko musikalariekin; 1920-n joan da lenen-goz Frantziako uri nausi orretara. Uri andi orrek edotariko argiak zabaltzen ditu mundu guztira. Aita Donostia be ara doa argi barri billa, ango maisu andien artean bere musikarako gaitasunak geitzeko. Beti izan ditu oso gogoko Frantziako idazle ta musikolari batzuk, eta bai idazleen artean eta bai musikaliaren artean adiskide onak egin ditu. Bat Henry Ghéon, katolikoen antzertiari anasa barria sartu gurarik dabilana. Idazle onek lau drama idatziko ditu, Aita Donostik musikaz jantzi egiozan: Zezilia donearen iru mirariena, S. Frantziskoren bizitza, Greccio-ren Noela, eta laugarrena, Graal-en billatzaillena. S. Frantziskoren bizitza Champs Elysées teatroan jo ta jokatu zan, 1926'n santuaren eriotzako zazpigarren eun-urtea ospatzeko, eta kritikoak gorengo maillan ipiñi eben musikaliaren izena munduko musikali andien artean.

Frantzialdetik egotaldi luzea egin bearra jazo jakon Aita Donostiari 1936tik aurrera. Zergaitik erraz ulertzekoa da. Beste askorentzat lez, Lekarotzeko kaputxino askorentzat egun baltzak sortu ziran urte orretan emen sortu zan gerrateaz. Orduan abade gazte eta gero eleizgizon andi egin zan bati entzunda dakit, berak eta beste batzuk nekez lortu ebela andik zear ebillan koronel bati Lekarotzeko bederatzi kapu-

txino plaza erdi baten ilteko asmoa bumtik kentzea. Zorionez, asmo ori ez zan egitera eldu. Aita Donostik, Salamanca aldean egunen batzuk egin ondorik, mugatik arantza igarotea lortuko eban. Eta an jarraituko dau bere betiko lanari ekiten, praille bizitzari eta musikolari-bizitzari. Emengo arma-otsetatik urrinduta, bestelako aukerea eskiñi deutso Frantziak bere lanetarako, Parisen ikastaldi barriak egiteko eta abarrerako. Ango Tolosan lenengo, gero Parisen, alemanak sartu arte, barriri Tolosan, Mont-de-Marsan-en urrengo, eta azkenez Baionan izango dau bere bizilekua; eta emen jarraitzen dau, emen daragoio artxiboak arakatzen, euskerazko bertsoak kopiatzen, edo erririk erri, artzain eta nekazarien estarriai darizkien kanta ez ezagun barrien billa, edo ta bere barrutik ateraten dituen eleiz-kanta barriak sortzen. Biarrizko San Karlos eleizan organista be egingo dabe eta antxe sortuko dau *Sine Nomine* kantari taldea; eta len aitatu dan Ghéon idazleagaz batera sortu eban «Greccioreen Noela» jokutzen ikusteko erea be izango dau.

Lekarotzetik zear Barcelona

Atzera bere Lekarotzera biurtzeko atea 1943n zabaldu jakoz. Eta ia ara eldu dan orduko Higini Angles, Kataluñako musika-ikertzaille andiaren deia jatorko. Musikalari ospetsu onek lankide nai dau kaputxino euskalduna berak an sortutako *Instituto Español de Musicologia-n*. Aita Donostik aspalditik ezagutzen dau Cataluña, maite dau ango literatura eta musika eta maiteago eskintzen deutsoen lana, musikagintzakoa. Amar urte egingo ditu Barcelonan, 1944tik 1954ra. Edonongo musikaren ederra ta jatortasuna ulertzen eta somatzen dakiana da bera: antxiñakoa nai oraingoa, katalanena nai euskaldunena, moroena nai kristiñauena, eta guztietako ereduak artzen daki berak daukan aparteko minberatasunaz jantzirik gozagariago eginda emoteko. Eta Barcelonan bertan be aurkitu dau euskaldunik, euskal-kanta edo soiñu berrien bat emon deusnik.

Lekarotzera, bere txoko maitera, dator 1954-n, eta azkenengo urte biak emen emoten ditu, arik eta ustez uste bako geixo batek eroan euskun arte. Azkenengo egunetan, azkenengo geixoan be, nekez itxiko eban bere betiko lana, inprentako utsak zuzentzen, itzaldia gertatzen eta abar egiten. Azkenengo urtean azkenengo itzaldia Bilbon emona izango dau, lenengoa 1916 Bilbon izan eban musikalari andi onek.

Praille eta muskalari

Aita Donostia beti ikusten dogu bere praille bizitzari eta musikari, batez be euskal musikari emonda. Praintziskotar jatorra izan da beti. Bere Ordenako nagusiak badimdi galduko ete eben bildur izan zirala aldi baten, ara ta ona, teatroko andragizonen artean ebillala ikusita, edo erabillan lana euren gogokoa ez zalako. Baiña bear bada, prailletxean gelditzen ziranak ez ziran asko Aita Donostia baiño prailleago, Asisko santu kantariaren semeago. Berak autortuta dakigu bere burua, lenengo ta bein, prailletzat eukala, musikalaritzat urrengo. Praille-bizitzak emoten utsan nor-tasuna, bere bumaren jabetasuna. Azkenengo egunetan Aita Iratzeder beneditarrari

onelako autormena egin eutsan: «Praille-bizitzak barrutik azkeago, geure buruen jabeago egin bear gaitu; bestela, zetako praille egin?» Eta ez daigun uste gero teatroetan eta mundutarren artean bakarrik agertzen dala bera. Sarri ikusten dogu euren Irugarren Ordenako batzarretan parte artzen, edo ta beste eleiz-batzar askotan, esaterako, Gasteizen izan zan 1928ko Eleiz-Musikaren Batzar Andian. An ezagutu gendun geuk be, ikasle gazte giñala eta bere batutapean abestu. Orduan jakin gendun, domekaz Gasteizen egoten zanetan, ez zala gelditzen gure eleizako Meza Nagusira barik, gregoriorena deritxon musika entzutearren.

Gero Asisko Santuaren arimak euskal-kantuaren arima obeto ulertu eta sentitzera eroan ebala esango neuke nik. Eta onetan beste iñok baiño lan ederragoa eta fiñagoa egin dauala esan geinke. Eta bere bizi guztian iraun dau bardin lan berean. Praille izan ezpalitz, egingo ete eban ainbeste?

Azkue abadeak lan ederra egin eban bere gaztetan, eta gure Aldundien lenengo saria eroan eban. Aita Donosti gaztetxoa zan orduan; baiña eten barik ekin eutsan jo ta ke asitako lanari. Arlo au artu eban bere kutuntzat, eta, azkenean, lan obea, bikaiñagoa emon euskun. Eta gaur or daukaguz, Aita Riezuk argitaratzeko prestaurik, 12 tomo eder Aita Donostiren musikalanez orniduta. Eta orkesta-lan askotxo gelditzen dira tomo orreitan sartu barik.

Kaleratzen asita dagoz gero musikaliaren idaz-lanak. Aita Donosti luma oneko idazlea zan, literatura asko ekiana, asko irakurri ta asko ikasia, musikeak ateraten eutsazan bami-eraikerak lumaz iragarten ekiana. Frantziako eta Kataluñako idazle batzuk zituen maiteen eta eredugarri artuta. Ezagutu eben olerkari askok benetako okerkarizat euken. Arimaz olerkarizat, lumaz olerkirik idatzi ez eban arren. Itzontzikeri bako idazkerea da gure kaputxino onena; baiña zeatza, txukuna, jaso, aztergai artu dauan eresiaren balioak ondo ikusi ta erakusten dakianarena. Idatzi dituen itzaldi, artikulu, folklore-lan eta kritika-lanak eta txotena orixe erakusten deuskue: idazluma erabiltzen ez dala edozelangoa gure musikalaria.

Bost tomo kaleratu dira gitxienez Aita Donostiaren idazlanakaz eta amar tomo izateraiño elduko dirala entzunda daukagu. Eta oraindiño atara bakoa, musikari ta euskalzale asko bai asko luze-eritxirik daukazana zera da: Donostik batutako euskalkanta guztien sorta osoa. Lenengo euskal-eres-sorta, 1915-n saritua, 1922-n agertu zan plazara lenengoz, ez dakigu zek atzeratuta. Merkeago ipintearren salgei, antza, okertxo bat ekarren: eresi bakotxaren bertso guztiak ez zituen sartu, bertso bat edo bi baiño ez: gañerakoak kutxan gordeta gelditu ziran. Urte atarik aurrera, zeinbat kanta geiago ez ete ditu entzun eta batu erriaren agotik? Guztiak argitaratuko dira oraingoan, Aita Riezu kaputxinoari esker, euren bertso guztiakaz. Eta badakigu Aita Riezuk Aita Polikarpo Iraizoz zanaren esku jakintsua izan dauala, euskal-textoak argitzeko. Ez da eskupeko txikia izango oraingo argitaraldia, ez bakarrik musikarientzat, bai gure erri-literatura aztertu eta obeto ezagutu nai dabeneztat be.

Azkue eta Aita Donostiaren manuskritoetan altxor ederra, ondasun andiak daukaguz gordeta. Azkuek be esan eban bein berak ainbat bertso eta ipuin-sati zituela argitaratu barik eta ba zala euretan gure erri-literatura aztertzeo gairik, iñok artu nai balitu, eta olako lanik egin nai ebanaren eskuetan itxi nai zituen. Dei orri erantzun

bearrean, gure arteko ganora andi bako aztertzaile batzuk or ibilli jakuz betiko leloari ekiten, alako ta olako itzen bat aldatu ebala, beste soifuren bat ez ebala ondo artu eta uskeriak zabaltzen, arrazoi andi barik gañera. Oraintsu asi jaku bat, Arana Martija jauna, Azkue Bibliotekaren arduraduna, ganora askoz obetoko azter-lana egiten, zorionez. Aita Donostiaren kantutegi barria orain agertzeko dan lez osotua, olako lanak egiteko oso garrantzi andikoa izango da.

Aita Donostik gaillurra emon deutso XIXgarren gizaldian azken aldera plazara-tzen asi zan euskal-musikari. Atzean gelditu dira Iztuetaren, Santestebanen, Sallaberryren eta urrengoen lanak. Orduko musikalaria asko ez ziran eldu erri-musikaren iturri garbienetara, ez eben erriko ur garbietatik edan; benetako erri-musika ez eben ezagutzen. Zortzikoak ziran askorentzat gure erri-musika bakarra. Aita Donostik berak 1919ko itzaldian esan ebanez «azkenengo eun urtealdi oketan izan dira Euskalerrian musika-lari, bertso-lari agitz ezagutuak euskal-kanta aunitz asmatu dituztenak. Euskal-kantu auek zabaldu ziran gogorki emen, gure aberrian, baita ere atzerrian. Ibiltzen bazerate or kanpuan, eta gure eresi gaiaz kanpotarrekin mintzo ari bazerate, berealaxe zuen belarriak beteko dira entzuteaz olako ta alako zortzikoak gure musika oso-osoa direla. Gure bene-benetako kantak ote dira euskal edo erdal zortziko oiek? Ez, Jaunak».

Zortzikoa, zortzikoa!: ori ei zan musikalaririk geienentzat gure euskal-eresia. Eta zortzikoak be jatorrenak izan balira!... gatx erdi! Eritxi ta aogozo obekoa agertu zan umetarik gure geroago aita Donosti izango zana, eta Asisko Frantzisko andiaren soifnekoa jantzi eban ezker, erri zearen maitatzailleagoa egin eban eta euskal-eresien arrobi onena ta ugariena izan dan Naparroako Baztango giroak erabagiko eban Donostiako semearen azkenengo joerea. Gure kaputxinoa Euskalerriko «oiar-otsak» osoan menderatuko dabe, eta euskal-kantuen ederrak eta Aita Donostik barruan daroan eder-senak bat egingo dabe.

Parisen ondo igarri eutsoen arnasa andiagoko musika-lanak egiteko gai zala, eta egin be egingo ditu ango atzerritarrai atsegin emotearren: baiña berak, Oriko txoriak lez, Orira naiago, eta euskal-musika landu naiago. Atzerrietako musikari ez deutso muziñik egingo, landu be egin dau, gañera; baiña kutunena eta landuena Euskalerriko musikea izango dau. Beste iñor baiño sakonago sartu da euskal-musikaren ariman. Beste iñok baiño argiago ipiñi ditu gure musikaren iturriak be. Asko ez ei dira gure erriak berak sortuak, baiña bai gure erriak beretu ta bizibarrituak, beintzat. Eta ori ez da gauza utsa. Gure erriak jaiotza barria emon deutse, eta ori be gure erriak dauan autu onaren eta zentzun onaren ezaugarri ei da. Aita Donostik, guztietan, Euskalerrian bertan naiz kanpoerrietan sorturiko kantu orreitan, gure erriaren arimearen oiartzuna entzuten jakin dau.

Euskal-musikalariaiek eredu bardin bakoa dabe Aita Donosti.

Orain gure artean sartu dan joera barria sartu baiño lenago bizien artetik alde egitea jazo jakon berari. Gaur bazterrak betean dabiltz musikalaritzat dagozan asko, iñon musika zaratatsu eta burrundaratsurik bada, alangoxeak plazaratu bearrez, erriari lengo arimea kendu eta barri bat, ezin-egonago bat, garraztuago bat ezarten. Euskal kanta jatorrai be sarritan neurri ta eraikera barri ergelagoak ezarri nai dautsezala. Eta entzuleak, neska-mutil eta adiñekoagoak, txalo jotzaille uts biurtzen dira, ez dakie

bestarik egiten: baiña len baiño aspertuago artzen dabe gero etxerako bidea. Zer esango ete leuke Aita Donostik gaur bizi balitz?

Aita Donostiarentzat euskal-kantua ez zan zaratatsua, ez mokorrai eragitekoa, oraingoa geienetan dan lez. Dantzak kendu ezker, euskaldunen doiñuek, kantaria bere buruaren jabe dala, patxada onean eta geldiro samar emotekoak ei dira. Dantzak ariñagoak izan leitekez, baiña oiñai eragitekoak, ez mokorrai. Gaurko kantarien doiñuak Aita Donostik batu zituenetatik urrintxo diralakoan nago. Erriak, neska-mutil eta adiñekoagoak, txaloka artzen dituela? Baiña entzule askok zer ez dabe txaloka artzen? Erderaz olango entzuleentzat «aplauditorio» itza asmau dau norbaitek.

Aurten, AitaDonostikberejaiotzakoeunurtegarrenadauala-ta, omenaldirik izango dau teatro ta antzeko lekuetan. Baiño egingo jakon omenaldirik onena bere kantutegia osoan argitaratzea izango dau, Aita Riezu Aita Polikarpo zanaren laguntzaz gertauta daukana. Laster agertuko al da eta gure kantarien eta euskalzale guztien eskuetara eldu. Eta egiazko egingo al da, Iparraldeko kantari batek, Labegerie zanak Donostiako seme argia ilbarritan bertsotan agerturiko gogo:

Jaungoikoari denek batian dezagun otoitz egin,
Aita Donostik euskal-lurretan erein hazia sort dadin,
kantari eta txistulariak oraino ere diten jin,
hek galduz geroz, Euskal-Herria hil baititake heiekin.

MARTIN AZPILKUETA

«Doctor Navarrus» eritxona (1486-1585)

Erroman, 1585ko bagillaren ogetan batean, il zan Martin Azpilkueta, Doctor Navarrus izenaz kristiñau-erria guztian oso ezaguna zan jakitun andia. Larogeta amalau urte zituen. Gorpuzti egunaren zortzian zan. Goizean egun atan egin oi zan elizinguruan, urtero lez, ez eban gelditu nai izan gure Jauna urre diztirazko ontzi barruan bere eskuetan eroan barik, zarraren zarrez oiñak erdi alderoka ebilkiozan baiña. Etxera danean, zorabioak buruan eta bota-larriak asmau ditu. Azkenengo ordua etorri jakola igarrita, eleizakoak emon deutsoez. Gero, berak eskatuta, Joanen Ebanjelioko Pasiñoa irakurri dakiola gura izan dau. Arako Jesusek Anas-i esandako berbetara eldu dira: «Nik mundu guztiaren aurrean itz egin dot beti eta ez dot iñoren ixillik erakutsi ezer». Eta berak gelditzeko agindu eta berba orreik astiro astiro barriro esanda, ixillik gelditu da betiko. Aurten izan dira lareun urte ori jazo zanetik.

Ogei urte eroiazan Erroman, eta jakitunen artean ain ezagun bazan bere jakituri az ez zan ez-ezagun goiko ta bekoen artean bere santutasunaz eta eskuzabalaz. Erromak gitxitan ezagutu ei eban gizaldi atan arena lango illetarik, ainbeste lagun gorpu baten aurrean ain biotz beroz otoitz egiten.

Idatzi zituen liburuak, ainbeste bidar argitaratuak mundu guztira zabaldu eban gizon jakitun eta lege-zuzenen maisu andi zan onen izena. Eta mundu guztiak autor-tzen eban jakitunaren jatorria. Euskal-abizena, Azpilkueta, ezin ondo ikasi eta agotan ezin ondo artuz, *Doctor Navarrus* esaten eutsoen eta kitu. Naparroako semea zan, ain zuzen, Frantzisko Xabier santua andiaren senidea. Napartar garbi garbia dogu,

gaiñera, gaur be euskaldun irauten dauan Baztan aldean sustraiak zituena: Baztango Azpilkuetatik etorren aitaren aldetik eta Jauregizar etxetik, amarenetik.

Ume-umetatik eleizgizon eta eleizarako ikasten (1492-1515)

Baztandik naparroan zear asko zabaldu ziran bai Azpilkuetarrak eta bai Jauregizartarrak. Martin Azpilkueta eta Maria Jauregizar Barasoainen alkartuko ziran ezkontzaz eta gure Martin onen gurasoak izango dira. Martin Barasoainen etorri jaken mundura 1492ko Abenduaren 13, Santa Luzia egunean. Barasoingo etxea andiki etxea zan, Naparroako errege-biderik andienari eutsala egoana, errege eta beste andiki askori bidez joiazala ostatu emona, urte areitan eta geroagokoetan.

Azpilkueta jaunaren etxea orduko armaz, arkabuz, ezpata, erredola eta abarrez ondo beterik egoan. Aldi gogor eta latzak ziran areik. Burruka ta gerra-otsak noiz-nai entzuten ziran orduan. Martin umetxoak, kozkortzen asi zaneke, gerrarako armarik asko ikusiko dau bere begien aurrean etxe aretan; baña berari gerrarako barik, beste bizimodu baterako gogoia sartuko jako barruan. Txiki-txikitarik eleiz-gizon egingo da. Sendotzako sakramentua artu eban egunean berean egin eban Iruñeko Gotzaiñak eleizgizon, buruko koroidun. Orain siñistu be ezin giñei, baiña Trentoko Kontzilio aurreko oiturretan ez zan ori ezin egiña. Eta orrek koroidunari eskubidea emoten eutsan eleizkarguen bat artu eta bere irabaziak jasoteko. Nagusi egin zanean, Martiñek ez eban ori ondo ikusi, baiña umetan ez eutsan eskubide orri muziñik egingo. Beraz, latin ikasten asi zan eta bai eleiz-gizonen latiñezko otoitzak egiten be, bederatzi urte zituaneke.

Gramatika etxean ikasi dau, baiña urrengo ikasketak egiteko, or bialtzen dabe Gaztelako lurraldeetan sartu eta Alkalaraiño, Filosofia eta Teologia ikasteko, amar urtedun mutilla. Ikasketok amaitu eta amazortzi urte zituala, beste erbesteraldi bat, 1510n Frantziako Tolosara joateko, an eleiz-legeak eta giza-legeak ikastera. Emen egingo da gizon. Berak bein idatzi ebanez, Naparroan ikasi eban gramatika, Gaztela Barriak eskolatu eban (filosofia eta teologia irakatsi) eta Galiak (Frantziak) gizon egin (gizonen arteko artu-emonetako legeetan jakitun egin).

Frantziako Tolosan artuko dau abadegintza eta lenengo Mezea ospatu, baiña ixilllean, etxeoetatik aita eta anai bi besterik lagun ez dituela. Alan nai izan dau berak. Naparroa ez zan bizi orduan jai andirik egiteko giroan. Alkalako urteetan ikasi dau berak zezenketa eta jai zaratatsuai iguin artzen. Eta zetako errikorik iñor beartu meza barrietan eginbearrekotzat egozan opari eta eskupekoak egiten? Bonbonkeririk ez dau nai bere bizitzan. Senideen batzuk asarratuko baziran be, zarata bako meza barria ospatu dau berak Tolosan bertan.

Ori bai, ikasten jarduteko griña itzalezkoekarren. Orduan orain baiño luzeagoak ziran eta ikasteko asti geiago izatearren, eleiz-otoitzetako ordu batzuk isteko baimena eskatu dau bein. Ez dautsoe emon, eta berak laster autortuko dau bere okerra. Batez be Olivako abataren karta bat artu dauanean, egi galantak esanez; guztiz siñistuta geldituko da, otoitzari bere orduak emoteak barru-giro ohea sortzen dauala gero ikastekoak obeto eta argiako ikusi ta ulertzeko.

Irakasle

Tolosan «gizon egin» zaneko asi da bere ia bizi guztiko irakasle-lanetan. Lenengo, Tolosatik urrin barik, Cahors-en, gero Tolosan bertan, Eleiz-legeak eta giza-legeak irakasten. Zelango ospea atera eban Tolosako Eskola nausian arritzekoa da. Ez da bera frantzesa, ez dau beste askok lez, Paris-en ikasi; Paris ez dau inoiz ikusi be egin. Alan be, Paris-eraiño eldu da Azpilkueta irakaslearen ospea, eta Paris-ko parlamentuko izateko deia etorri jakon andik irakasle ain gazteari. Ez dau kargu ori artu nai izan, beretarren artera etorteko asmotan ebillalako. Eta 1523 inguruan Naparroara dator, etorri be. Eta bidez datorrela, Orreagako abatak eskatuta, Orreagan gelditu da ango kanonigoen bizimodua egiteko. Bertan egin dau urte bete, eta kanonigo arein bizi-modua eroateko profesia egin. Bertako kanonigoen jokabidea, batez be abatarena, diru-kontuan ez dau ondo ikusi, txarto eritxi deutso eta okerrak zuzentzeko arauak emon deutsez, guztien atsegingarrirako.

Abataren baimena artuta, Salamankara doa orain. An atzerritarrik irakasle nausi izateko artzeko oiturarik ez daukela-ta, laguntzailletzat artu dabe. Emoten dituen irakatsiai eder eritxita, Azpilkuetaren maisu-gela gero ta ikasle gaztez beteago egiten jako. Agiriko jardunaldi batzuetan ospe andia ateraten izan dau. Bein olango jardunaldi baten Karlos V entzule izan dau eta zer da berak an azaltzen dauan gaia? «Erreiñua ez da erregearena, giza-alkartearena baiño; erregearen aginpidea berezko eskubidez giza-alkartearena da, eta ez erregearena, eta giza-alkarteak ez dau esku-biderik aginpide orren jabetza beste inoren eskuetan osoan izteko». Entzuleen artean bazan artega egoanik entzuten; baiña olango egunetan erakusten eban Azpilkuetak egiazen alde egiteko bildurbakoa zala bera. Baiña Salamankan legea lege zan, eta ez eutsoen emoten Naparroako semeari, atzerritarrari, bere neurriko irakasle-aurkirik. Arik eta bere irakasle-titulua bertan lortu arte. Urte batzuk itxaron bearko dau Azpilkuetak, 1532-ra arte. Lenengo, azterketa-modurik egin barik, batxiller izatera jasoko dabe. Azkenengo azterketa azaroaren 10 izango dau. Bere irakasle-jarduna egin ondoren, oi zan ospez Irakasle txanoa eta ereztuna ipiñi deutsoez eta bertako Irakasle-titulua emon. Guztitara, amairu-amalau bat urtez irakatsi eban bertan, 1538n Coimbrarako deia etorri jakon arte.

Izan be, Coimbrako Unibertsitatea sortu-barria dala-ta, Portugaleko Erregeak Ikastetxe andi ari izena ta omena emoteko, Martin Azpilkueta nai leuke arako. Salamankako maisuek ez deutsoe euren artetik urtetako baimenik emon gura. Len bertan artzeko muker egon ziranak, orain ez deutsoe itxi nai alde egiten. Karlos V-ren karta ta agindu bik edo iruk makurtu erazo dautse burua; baiña epe laburreko, bi edo iru urteko baiño ez. Baiña, ez bi ez iru, amasei urte egingo ditu Portugalen.

Otoizlari eta eskuzabal

Azpilkuetak eskolan eta liburutetan erakusten eban jakituria andia zan, guztiak autortzen ebena; baiña baita be guztiak ikusten ebena zan gizon ona, abade santu eta otoitz-zalea zala, eta eskuzabala. Otoitz-zaletasuna umetatik etorkion, amaren be-

launetan ikasita. Amak irakatsi eutsan gabaz, oerakoan, loak artu arte, otoitz eta otoitz egiten jarduteko oitura. Bederatzi urte egin orduko, asi zan eleiz-gizonen eleiz-otoitzak egiten. Otoitzak zelan egin bere liburu baten irakatsiko eutsen berak abadeai. Berak irakatsien egille zan lenengo. Goizean goiz jagita, laurak inguruan asten zituen bere eguneroko otoitzaldi luzeak, mezearen aurretik. Eta egubartean sarri biurtuko zan otoitzera; bere irakatsietan edozein gaik emoten eutson otoitz egiteko gaia.

Otoitz-bizitza au ba ekian bere burua ukatzeaz, txiro bizitzeaz eta eskuzabal izateaz alkartzen. Kaleko eskekoak ba ekien eskuzabalaren barri. Goizetan, etxetik eleixarako urtekeran, esaterako, alkarren gainka aurkitzen ziran aren atetan, eguneko eskupekoaren zain. Iñoiz, bakotxak lenengo izan bearrez, lurrera bota eta azpian zapaldu be egin ei eben, eta bera, irribarretxoa ezpanetan ebal, lurretik jagi eta kalean aurrera.

On egiteak, premiñakoai emoteak, bere neurri ta legeak badituela be ba ekian. Norbere etxekoetatik asita. Bere lobai ezkontzako, nai praide-mojatako bizimodua aurkitu eutsen. Bere errian eta Erroman be geixoetxeak sortu zituen. Azpilkuetaren-tzat, eleizgizonari kontu zorrotza ezkatuko ei jako ia eleizeari zor deutzazan irabaziak zelan eralten dituen. Onetan besteentzat zorrotza zanak zorrotz jokutzen eban bere buruagaz.

II zanean, ez eutsoen berari esateko dirurik ez ondasunik aurkitu.

Frantzisko Xabierregaz Indiara?

Portugalen dala, ango erregeak eskatu eta Iñazio Loiolakoak emonda, Lisboatik dabil Xabier Indiarako mixiolari joateko asmotan. Xabierkoa eta Barasoingoa alkarren senide dira. Bear bada, euren bizi guztian ez dabe alkar ikusi, baiña bata bestearen ezaupide eta entzute barik ez dagoz. Martiñek Frantziskori «gure senide eta adiskide ezin miñagoa» deitzen deutso, bere liburu baten. Bere lloba kutun ori Lisboara datorren ezkerro, bera ikusi barik zelan egon? Bien artean kartak izan dira. Martiñek, Xabier ikusi ez eze, urte bat edo bian beragaz euki gura leuke; gero, biak joango leitekez eta Indian mixio-lanetan ekin. Martin ez zan bizi bere arteko iñor barik; ara eroanda eukazan beste lloba batzuk be. Eurotako biri Portugalen moja izateko dirua be emon eutsen. Pariskoa baletor, guztien artean sekulako etxe-giro beroa jarriko jaken Portugalen. Martinen amesak ames geldituko dira. Gauzak ez dira eurak gura eben lez etorri, eta ez dabe alkar ikusteko zorionik be izango osaba-llobak. Urteak geroago Martiñek ona zer itxi euskun idatzita: «Neuk be Indian amaitu bear neban neure biziko aldía, Frantziskok bertan bera itxi ez banindu, berak Indian artu nai ta artu uste zituen nekeak artzeko zar eta indarbakoa nengoala-ta. Alkar ikustea zerurako itxi bearko genduela idatzi eustan». Martiñen bideak irakaskintzarakoak zirala uste izan eban Xabier mixiolari andiak.

Eskola urteak amaitu orduan

Irakaskintza itxi eta opor-urteak etorri jakozanean, bakar-etxe baten sartuta bere idaz-lanak zuzendu eta argitaratzen emon nai zituen urte bi edo iru. Olango lanetan,

Salamankan etxe baten ostendurik egin eban urte bete iñora urten barik. Baiña leku gordeago baten billa, Frantziara joatea emon eutsan gogoak. Bidean doala, Naparroako mugetan, anka bat iru lau lekutan ausita, bere jaiotetxera biurtu bearko dau. Olantxe jakin zan erabilli zituen asmoen barri.

Ez egoan gizon onentzat nai eban besteko bake-lekurik izaterik. Edonondik etorkiozan, barriz, auzien bat argitu eta ebazteko eskeak. Erregearen etxetik be bai. Iñoiz, gotzaitegien bat, Portugalen nai Galizian, eskintzeko be bai. Eskintza oni ezetza emoteko, anka ausia dau atxakirik politena. Jaungoikoaren auzitegira agertzeko urrago ei egoan bera, bere ustez, olango gotzai-lanik artzeko baiño.

Erregeak Felipe II garrenak sarri joten eban Azpilkuetagana argi eske, naiz eleizgizonen arazoetan naiz politika-gaietan. Gizon jakitun eta zurtzat eta gaiñera, oso egizale eta arteztat eukan bere Doctor Navarro au. Baiña Felipe II garrenaren jokabidea sarri izango zan arakoa esaera zarrak diñoana: Erregeak nora, legeak ara. Baiña Naparroako Maisu andiaren oneritxirik ez eban izango beti berea egiteko. Ori ikusita, Felipek bere politikazko indar guztiak erabilliko zituen Azpilkueta galtzeko edo bidetik kentzeko.

Felipe II, Karrantza eta Azpilkueta

Felipe II garrenak eta Inkisiziñoako nausiak auzi gogorra sortu eta aurrera eroan eben Naparroako seme eta Toledoko Arzobispo zanaren aurka: fedean uts egindakotzat, Luteroren jarraitzalletzat salatu eben. Amorru bizia erabillen batzuk Bartolome gogor joteko. Bai eta ez, Karrantzak berak eta Felipek, biak izendatu eben Azpilkueta Karrantzaren alde egiteko. Azpilkuetak laster ikusi eban batzuen gorrotoa eta Karrantzaren errurik eza. Erromara eroan eta Erregearen azpiko auzitegietatik atera egin bear zan auzia. Orixe dala onena esan deutso Feliperi berari. Erregearen erantzuna, guztien ixillik, iñok jakin ez egian, Azpilkueta barruan sartzea izan da, izentau jakon etxetik urtetako baimen barik.

Azken baten, auzia Erromara eroatea erabagi danean, ara joango da Azpilkueta be. Baiña Españatik Erregeak eta Erregearen aldekoak ikaragarritzko gerrea egingo dabe bataren eta bestearen aurka. Ez egoan Erroman Aita Santurik Bartolome Karrantzaren aurka epaia emonda mundutik joan gura ebanik. Baiña beste aldekoak gero ta tematsuago eusten eutsoen eurenari. Urteak joan ziran eta iru Aita Santu (Pio V, Gregorio XIII eta Sixto V garrena) azkenez zelanbaiteko parkamena emon eutseneko, eta Bartolome santu izenaz il zan.

Bien bitartean Pio V garrenak Sacra Penitentiaria-ko batzarkide egin dau gure Irakasle andia. Batzarkide lez iraungo dau onek urrengo Aita Santu guztien egunetan, il zan arte guztian; geixoz edo zelanbait Martin Azpilkueta batzarretan ez zanean, bururik bako batzarra izaten ei eben beste batzar lagunak euren batzarra.

Eta Felipek Erromaraiño jo eban iñoz Azpilkuetaren argi eske bere auzietan. Baiña bai beste batzuk be. Asarrerik andiena eroan ei eban Felipek Kataluñatik Erromara joan jakon batzorde bati, amarrenen goraberako auzi baten, Azpilkuetak katalanen alde emon ebal bere eritxia.

Aita Santuak 1570n Azpilkueta kardenal egiteko asmoa erabillan. Jakin ebeneko Erregearen aldetik egiñalako gerrea asi zan, izendapen ori galerazoteko. Orixe bear eben orain, euren arerioa kardenal egiñik ikusi! Aita Santu egingo ete eben bildurra be sartu jaken. Iñondik al ebezan salakuntzak zabaltzen asi ziran Erroman, España aldean lendik zabal ebilzanak, orraitio. Dana zan arerientzat zillegi, Azpilkuetaren izen garbia baltzituteko.

Bera ez zan gelditu salakuntza onei erantzun barik. Bere izen ona zaindu bearra dauko Azpilkuetarentzat edozeiñek, eta elizgizonek ia geiago. Eta erantzunak Felipe II garrenari berari joan jakozan eta azkenez, Albuquerqueko Dukeari, Naparroan errege ordeko izan eta Millan-en gobemadore egoanari.

Beti napar eta euskaldun

Duke oni 1580 bialdu eutsan Epistola Apologetica-tik ezagutu geinke argi Azpilkuetaren arerioen azpi-jokoa. Bere aurka zabaltzen inarduen salakuntzari erantzuteko idatzi dau: judegua ete zan, Naparroako azkenengo erregeen aldekoa zala, Naparroako erreñu ori eurentzakotzat eukiteko Españako erregeak Azpilkuetaren eritxiz eskubiderik ez eukela, frantzea eta frantzesen adiskidea zala, eta abar. Olan-goak ziran salakuntzat.

Erantzunean argi ta garbi autortzen dau berak eta pozik gaiñera, bera naparra ta euskalduna dala. «Navarrus et Cantaber» diño berak. Eta argi dago zer esan gura eban; *cantaber* eta *bizcaino* euskaldun esateko erabilten eben orduko erdal-idazleak be. Azpilkueta eta Jauregizar etxeetatik sortua ei da, odolez judeguen kutsadurarik bakoa, euren erregeai eta kristiñau siñismenari beti leial iraun dabenetakoa. Garbi autortzen dau eta goragarritzat dauka beretarrak Naparroako erregen alde izan eben jokabidea; Jaungoikoaren aurrean eginda euken ziñari leial iraun eben ola. Beste batzuk euren arrazoen bategatik bestela jokatu ba eben, ez ditu berak gogor joko. Fernando erregeak be Azpilkuetatarren jokabidea zuzen eta goragarritzat emon ei eban.

Naparroako erreñuaren jabetza ori dala-ta berak ez dau txitik atera, baiña liburu baten esana gaizki ulertuta, eurak euretara asmau ei dabe batzuk. Beretzat gauza bat da erreñu bat berea dauan erregeari kentzea, eta beste bat kendutako erreñua atzera bere jaubeari biurtzea; kalte andiangoak sortuko badira biurtzetik, ez ei dauka kentzailleak erreñua atzera biurtzerik, arriskua dagoen bitartean. Martin Azpilkuetak arrisku ori dagoala uste dau: oker andiangoak sortuko zirala orduko erregegaiaren edo errege izan naiaren eskuetan jausiko balitz erreñua.

Felipe II garrenari dagokionez, berak borondate oneko eta siñismen garbikotzat dauko. Eta Naparroako erreñua ez eze, Toledokoa eta Gaztela guztia emoteko prest legokela, bere arimearen kaltegarri balitz ez emotea. Nor egongo da, baiña, Felipe II garrenari naiz beste erregeri erreñua biurtu ezik, bere arimea galduko dauala siñistu eragitekorik? Susmo au be etorri jako Azpilkuetari gogora.

Frantzian egindako ikastaldi eta irakastaldia be garbi autortzen deutso Duke jaunari. Eta pozgarri dau ango urteak eta Parisko Parlamentuan sartzeko egin entsoen

eskaria gogoratzea. Frantzes izkuntza eta frantzesak maite ditu, kristiñauak bear dauan lez. Bera ez da iñoz be, lagun urkoa beste alderditarren edo beste aberri batekoa dala-ta, gorroto izaten deutesenen artekoa. Orretan argi ta garbi egiten eban berba Tolosan zanean: ez gaztelarrak, frantzesik ez frantzesak gaztelarrik gorroto izan bear eben. Tosolara Españarrak, euskaldunak, britaniarrak eta beste leku askotako erri-tarrak joaten ziran ikasten. Eta maite-lege ori irakasten eutsen guztiai.

Nazio arteko bakezale eta bakezko politikaren zale agertzen jaku or. Gerrateai eta arma-otsai eutsen bildurra erraietaraiño sartuta eukan. Gaurko bakezale kosmo-polita izan nai daben askoren aurrelari dala esango leuke baten batek.

Maisu andi onek Erromatik zabaldu zituen argibideok gorabera, Felipe Ilgarrenak eutsan ikusi eziña ez zan aztu. Urrengo urteetan be bardiñ egingo eban al eban guztia, Azpilkuetak Kardenal urten ez egian. Ori, iñondik iñora be ez. Zer itxaron eikean berak Katalanekin eukan auzi baten katalanen alde eritxia emon ebanagandik?

Eta Azpilkuetak an daroaz, Erroman, bere biziko azkenengo urteak Aita Santuaren agindupeko lanetan, eta irabazten zituen lan-sariak eta libumetatik ateraten zituen irabazitxoak goizetan atean aurkitzen zituen eskekoen artean eta kalean zear aurkitzen zituen txiroen artean banantzen eta geixotegiak eusteko eralten, orain lau-reun urte il zan arte.

Aita Santuak aginduta, illetarik ederrenak egin jakozan. Azkenengo urteetan, Napar biren illetak, Bartolome Karranzarena eta Martin Azpilkuetarena, izan ei ziran ospetsuenetakoak Erroman. Martin Azpilkueta onen izena *Flos Sanctorum* baten sartuta aurkitu izan zan andik luzaro barik.

Portugaldarren Antonio Paduakoaren eleizan emon eutsoen lurra. Eta illarri batek illaren ospegarririk andienak gogoratzen ditu:

Emen datza beatua Martin Azpilkueta Naparra.
 Eleiz-lege eta giza-legeetan jakitun andia,
 Pio V, Gregorio XIII eta Sixto V garrenak ain maite izana,
 alde guztietako errientzat ain maitagarria,
 gure gaxotegiaren ongillea,
 bere jakituriaren agergarri
 ainbat liburu argitaratua.

OLERKI-ZALE, MUSIKALARI ETA ERO:
ROBERT SCHUMANN (1810-1856)*

«Poeta, soiñulari eta zoroarena, guztiok daukagu apur bana»: olan diño erdal-esaera ezagun batek. Neurritxo baten guztiona ei da gatx ori. Geienoi asko ez jaku igarriko. Beste batzuk, ostera, gatx irukotx orrek ondo jota ageriko jakuz, lenago edo geroago, geiago edo gitxiago. Pentsalari askori, irudimen biziagoko eta biotzondo gartsuko ertilangille ez gitxiri, batez be jaiotzetik geixoti diranai, euren buruko indarra neke larregi ezarriaz edo, gorputzeko indarrak gitxitu egiten jakez sarri eta geixoagotu egiten dira.

Burutsuegi izatea ez da beti ona. Buru argitsuenai jazo leikioe osasuna eta burua bera be galtzea, euskaldun askok esaten dogunez, burutik eginda gelditzea. Pentsalari eta artista bati baiño geiagori jazo izan jaken gatxa da.

Ospe andiko gizona, artista andia izan zan Robert Schumann. Era batera eta neurri andian, olerki-zale, idazle, musikalari izan zan eta bere egunak zoro-etxe baten amaituko zituan.

Musikalari erromantikoen artean izar andi agertzen da bera. Schubert, Mendelssohn, Chopin, Liszt, Berlioz eta beste batzuen aldikoa da. Euron artean aiatu geinke euskaldunok Joan Krisostomo Arriaga, bilbotarra, adiñik ederrenean, Parisen ogei urte bete barik musika-irakasle zala eriotzeak eroana. Bilbotar au Schumann-en gazte urteetakoa da, eta bularreko gatxak eroan eban biziñ artetik, musika-gintzan aurkezten jakon etorkizun dizditsua ames utsean itxita. Bularreko gatxa, ederra nabaritzezeko eta soiñutan naiz bertsoan adierazo eta gauzatzeko minberagoak eta senti-beragoak diran gazteak jotzen dituen gatxa ez ete dan esan geinke. Gatx ori eta gatx orrek jotakoaren eder-miña askotan aurkitzen ditugu batera.

* Saski-naski (1987, 33 zenb.) 40-47.

Schumann-i bizia laburtu eutsan gatxa ez zan orrelakoa izan. Buruan sorturiko gatxa izan zan oni egunak laburtu eutsazana. Eta bear bada odolean ekarren. Bai, bear bada odolean ekarren irudimen biziko izatea. Irudimen biziko eta irudikor be bai. Bera baiño lau urte zarragoko arrebak bere burua illik amaitu ebazan bere biziko egunak, ogei urte zituala. Robert Schumann-en irudimen biziaolerki irakurteak eta Mozart-en soiñuak entzunak itxi eben olerki-zale eta musikazale guztizko eginda.

Arrezkero (zortzi-bederatzi urte zituela jazo jakon ori) berak ez dau onik musika ikasteko baimena emongo deutsoen arte. Orduan asiko dira bere bizian bere gogoak egiteko aurkituko dituan lenengo eragozpenak. Eragozpenak, lenengo ta bein, musika ikasten asteko. Eragozpenak, gero, piano jotzaille andi egiteko. Eragozpenak luzaroen, amar urte luzez, berak maite dauan andregaiagaz ezkontzeko. Bere bizian sortu jakozan okerrok Schumann-en buruan kalte andia egingo eben, erasan andia itxiko eben, eta ez aren buruko osasun oberako. Burutik egitera eroango eben.

Musika ikasle

Aldi atako beste musikarari askoren zorionik ez eban Schumman-ek izan. Beste batzuk ume-umetarik asi ziran musikea lantzen. Jaiosz batera sartu ziran ia euren musika-munduan. Schumann-i ez jakon agertu ain goizik musikarako griña. Schumann-en etxean ez egoan musikarako ain giro berorik. Aita liburu-denda baten jabea dau. Ikasteko aukerarik emongo eutsen seme-alabai. Baiña musikarako? Aitaren eretxian, bazan gauza beñiagorik ikasteko, gizon bati etorpidetara ohea erraztuteko.

Atan orretan, amasei urte dituala galdu dau aita. Amaren menpean dago orain semearen etorkizuna. Eta amak lege-gizon egin gura dau. Heidelberg-era joan bearke dau legeak ikasten. Heidelberg-en ango Ikastetxe nagusian dagoala, an izan da Paganini, biolin jotzen deabrukeriak egiten dituen musikalaria. Len baiño biztuago egin jako musika ikasi bearra. Arrezkero, kartak eta kartak joakoz amari, berak musikarari izan bear dauala-ta, beste bizi-modurik beretzat ezin asmatu dauala-ta, arren bai arren, musika ikasten itxi degiola. Olantxe, ekin eta ekin, burrukaren burrukaz, bere asmoetara dakar ama.

Leipzig-en Friedrich Wieck artu dau irakasle, piano jotzen eta musika egiten ikasteko: 18 urte ditu. Andik bi urtera asi da musika-lanak egiten. Beste maisu bategaz amaituko ditu musikagintza ikasketak, an bertako orkestra-maixuagaz. Orain prest dago bere biziari ekiteko: piano entzutaldiak emonez, musika-lan barriak sortuz eta abar.

Lenengo ezbear eta naigabeak

Lengo naigabeak naiko ez dituala, orain, bizi barri onetan, musikarariaren bizian, bere trebetasunak erakusten asi orduko, ez jako, ba, ezbear andi bat sortu? Bai; piano entzutaldiak emoteko egin dituan amesak laster, lasterregi joakoz aizetara: ogei, ogeta bat urte dituala, bizi barri orren asi-asieran.

Liszt-ek pianoan egiten zituen sorginkeriak egin nai leukez eta aren atzamarjoko ariña euki. Beatz nagia loturik eta geldidaukala, berak asmauriko zurezko maratil

bataz beste atzamarrai tiraka, atzamarrok luzatu gurez ibilli da, eta, azkenean, zer irabazi dau? Eskuiko eskua pianoa joteko gauza ez dala gelditzea. Pianorik geiago patxadaz joteko modurik ez dau izango arrezkero. Agur egin bear izan deutse betiko pianoz entzutaldirik emoteko amesai. Sekulako ezbearra atan ainbeste ameseta egin eban gaztearentzat.

Bigarren naigabea, luzaroan irauten deusana: amar urtez berak maite eban ezkongaiagaz ezkondu eziñik egon bearra. Bai, amar urte luze atzeratu bear izan dau bere biotzeko andregaiagaz ezkontzeko ordua. Amar urteko burrukea izan dau, zelan amaituko dan ez dakiala, bein itxaropentsu, bein uste guztiak galduta, egun zoriontsua noz etorriko ete jakon, edo iñoz etorriko jakon jakin eziñik. Itxaropenetik dana galdutzat eukiteraiñoko burruka eta ezin egon onek Schumann gaztearen gogoan eraso andiak egin ditu. Bere biziari azkena emoteko ezbai larrian ipiñi dau iñoz.

Eta nondik etorkion ezbear au? Nor zan bere ezkontza-asmoai aurka egiten eutsena? Ain zuzen, musika irakasle izan ebana bera: F. Wieck, bere emaztegiaren aita. Onen alabea, Klara Wieck zan Schumann-en biotzeko andregai. Biak alkar maite eben. Biak egozan prest bien bizitzak alkartzeko. Baiña Klararen aitak, Schumann'en maixu izanak, ezezkoa emoten eutsen biai. Ain minbera zan gure artistarentzat zein naigabegarri egingo zan bere egoera ori, bere nai ta eziñezko burruka ori, ez da errez asmatzen. Mingarri zan Klararentzat, baiña mingarriago senargaiarentzat, bere izakera minbera eta sentikorrari gatx andiagoa egitekoa.

Ezkongai biak artista bikaiñak dira: Klara, piano-jotzaille bana-banakoa; Schumann, musikagintzan gorengo maillakoa. Bikote ederra, biak alkarturik egingo leu-keena. Baiña Klararen aita biguntzerik ez dago. Egoera orretan egun goibel, astun, illunik asko dago Schumann'en bizitzan, ia bizi azpuru eta burutik eragitekoak. Alan be, dana bertan bera istera bultzatzeko ordurik be ez dau izango, eta noizean bein izango dituen itxaropen-orduetan, musika-lanetan ekitea izango dau bere barruko miñen gozagarri bakarra. Eta orduko burrukea, orduko ordu pozgarri eta ordu mingotzen arteko aldikadak bere kantuetara ustuko ditu sarritan. Amar urteko baketu eziñ ori amaitu jakoneko, abesti-sorta andi bi amaituta zituen: «Olerkariaren maitasunak», eta «Andreaganako maitasuna eta bizia».

Ezkongai biak, bata ez bestea, ez ziran umeak. Eta azkenez, Klararen aitaren gogoaz bestera, 1840 ezkontzaz alkatu ziran biak. Andik aurrerako lau urteak Schumann'ek bere biotzaren bakerako eta musika-lanerako urterik egokienak izango ditu. Emaztea, barriz, piano jotzaille bikaiña eta piano-jotaldi andien emoilie egiñik dagoan ezkerro, berak sorturiko musika-lanen zabaltzaille eta ezaguerazle ezin ohea izango dau. Schumann'en bizitzako bakealdi au, orratio, ez da oso luzarokoa izango. Aldean daroa guztiz jota itxiko dauan arra, azkena ekarriko deusana gatxaren sorburua.

Schumann'en musika-lana

Schumann, musika-munduan goizegi sartu ez bazan be, bein sartu zanean, langille andi agertu zan musikagintzan. Erromantikoen giroan sartuta, aize barriak eta

ots barriak zabaldu zituen arlo guztietan. Edotariko musika-lanen sortzaille da: baditu pianoz jotekoak, orkestarakoak, sinfoniak, abesbatzak abestekoak, opera antzekoak. Goethe-ren «*Faust*» eta «*Brabanteko Jenobeba*» opera-antzeko musikaz jantzi zituen.

Alan be, musikolari erromantikoen artean osperik andiena bear bada bere Lieder (erésiak) diralakoak jaso dabe. Abesti laburrak dira (beste luzeago batzuen aldean), abeslari batek abestekoak. Munduko olerkari askoren bertsoak, olan, kantagai biurtu ditu. Onelako eresiak sortu ta ondu zituenen artean, Schumann'enak onenatarikotzat eta atsegingarrietakotzat dagoz. Kritiko baten eretxiz, Schubert'en eresiak baiño Schumann'enak samurragoak dira, Mendelssohn'enak baiño barrutikoagoak, Brahms-enak baiño sarkorrangoak eta Wolf'enak baiño zoragarriagoak.

Olerkariak oso gogoko ditu, eta euren bertsorik ederrenak musika-jantziz apaintzen gogotik alegindu da. Schiller, Goethe, Heine, Chamisso, Byron eta beste olerkari andien bertsoak kantagai egin zituen. Eta au dau lan onetan nabarmengarri: olerkiaren aapaldi bakoitxarentzat musika barria asmetan ebala.

Musikolari onen lanetan, ez da aitzu bear, gaiñera, kritikalarik lez eta irakasle lez egin ebana. Ogetalau urte zituela, 1834, musika-aldizkari bat sortu eban, batez be gazteak giro barri batera ekarteko. Eta aldi atako beste musika-aldizkari askotan agertu ziran Schumann'en kritika lanak. Erruki andi barik joten ei zituen musikalaririk andienak be, bere ustez jorraldia merezi ebenean.

Mendelssohn'ek deituta, 1843n, Leipzig-ko Konserbatorioan artu eben, piano irakasle egiteko. Eta 1850 Dússeldorf'eko musika-jaialdien eta abesbatzaren zuzendari egin eben, ordurako gatzak naikoa jota egoan arren.

Eroetxean il

Schumann-darrak, len be aitatu danez, odolean ei ekarren burura egiten eutsen gaxen bat. Aitak, liburu-dendari bera, beti izan ei eban ondoezen bat, askotan bizi-pozik barik, gogoia ilda, isten ebana. Alaba bat, ogei urtekoa. Robert'ek 16 urte zituela il ei jakon, aita bera il aurretxoan. Buruko makalaldi baten ondorik, sukar txar batek artuta, bein, guztien ezustean, oetik jagi, kalera urten eta bere burua errekarra botata il ei zan Schumann-darren neska gazte ori. Arreba orren zoritxarrak eta aitaren eriotzak gerotxoago erasan gogorra itxi dabe Robert'en gogoan. Gero, musika ikasteko baimenik ez emonak gozakaitxu eta garrastu baiño ez dau egin seme gaztearen barrua.

Leipzig'en lege ikasteari ekin deusanean, noizik bein, ordu larriak, biziiaz asper-tzeraiñoakoak, izan ditu. Suiza eta Italiatik ostera bat egiteak ekarri dau lengo senera, itxura baten.

Bein, musikolari egin danean, eskua pianoa joteko gauza ez ebala gelditzea gaztearen amesak aurrera eroateko eragozpen andiegia izan da. Gero, Klararen eskua irabazteko edo aren aitaren ezetza austeko eroan bear izan dauan alperreko burrukeak, amar urtez luzatuak, ez deutso bere barruko tentunari mesederik bape egin. Iñoz egonda ezbaian be, bere arrebearen bidea artu bearra izango ez ete dauan, bere buruari leiotik bera edo itxiko ete deutsan.

Klaragaz ezkontzeak lau urterako barealdia ekarri deutso. Baiña 1844n bere andregaz Rusiatik osterata bat egin dauanean, andik etxeratzean ordurarteñoeko barealdia joan jako. Zer jazo da? Lenago inoz jazo jakona: barruko gatxak gorputzak salatzen eutsazala, gorputzeko gatx biurtzen jakozala. Eta oraingoan, bere andrea dau bere gatxen iturri. Klarak, bere emazte kutunak, sekulako txaloak jaso ditu Rusiatik izan diranean, sekulako ospea ateratu dau an zear emon dituen piano-jokaldiekin. Rusiako Zar andiak be zorionak emonez agurtu dau. Eta bera alboratuta gelditu da. Bere aspaldiko ezbear guztiak, itxaropen galduak, ustel urteniko usteak, guztiak barriztau jakoz gogoan, eta bere gorputzean azaldu jakoz: zorabioak, miñak an or emen, lorik egin eziñá, amezgaiztoak. Bere barruko gatxen salatari guzurtau eziñekoa dau gorputza.

Osalaria ez dakie zer egin. Erriz aldatzea, beste osabiderik ez deutsoe agintzen. Dresde'ra eskiñi deutsoen Orkestra zuzentzeko kargua artu dauan arren, laster itxi egin bear izan dau. Belarrietako durunduak, idurikortasunak, begitanziñoak iaburutik eragin bear deutsoe. Alan be, argi-aldi batzuetan, musika-lan ederrak egiteko gauza da. Ordurik tamalgarrienetan emaztea dau lagunik onena, pozgarri bakarra. Baiña azkenentarrantza doala naikoa argi ageri dau.

Bere kirioen eta buruaren jabe ez dala dagoan baten, emaztearentzat txartel bat idatzita itxi dau. Onela diñotso: Klara maitea, neure ereztuna Rin ibaiko uretara bota bear dot. Zeuk be bardin egizu; olan, gure ereztunak alkarren ondoan geldituko dira. Eta etxetik urten eta an doa ibaianeko zubiraiño, eta andik uretara bota dau bere ereztuna eta ereztunagaz bere burua. Orraitiok, arrantzale batzuk bizirik ateratu dabe uretatik. Urtea, 1854koa da. Andik laster zoroetxe bateko ostatuan da. Eta zoroetxean emoten ditu azkenengo urte biak 1856ko uztaillaren 28n il arte.

Klara emazteak ez eban lortu bere senarraren gogo-biotzera bake osorik eroaterik, ez aren bizia geiago luzatzerik. Klara alargunari egokitu jakon, senarraren bizia luzatzea ez bazan, bai beintzat aren musikari bizia luzatzea.

Senarrak lortu ez ebana emazteak lortu eban: piano jotzaille bikain izatea. Piano jotzen, Rusiako Zar andiaren eskutik bakarrik ez, beste leku askotan txalo andiak irabazia zan berau. Eta senarrak emon eutsazan sei seme-alaba maitez aziaz gañera, asko egin eban European zear bere senarraren soiñu-otsik atsegingarri eta gozoenak zabaltzen eta ezaguerazoten.

Gaur be, Schumann'en izenak musikalarien artean ospe anditan dirau. Askotan geixoa, zortasuna, eta ederra sortu eta ederraren dirdaiak sentierazoteko gaitasuna, alkarregaz bizi izan dira, eta alkarregaz dabiltz.

DIEGO GUTIERREZ GOMEZ'ek
«Historia y Vida» aldizkariaren 158 zenbakian
emoniko gaiegaz eratu.

NOSTRADAMUS

Gizon ospetsuen artean ospetsu: osalari, uringin eta geroaren igarle.

Nostradamus izenak antziña bateko egunetara garoaz. Gizadia izadiaren indarrak ezagutzen aurrerakada andirik egin bakoa zaneko egunetara; medikuntza, aztikeria, sorginkeria eta gure etorkizuna izarretan ikusinaia askotan batera bizi ziraneko aldi-tara. Ori dana ikasteko etzan orduan eskola andietara ikasten joan bearrik, gaiñera. Guzti ori etxeko eskolan ikasten zan, edo ta belaunez belaun, gurasoetarik semeetara etorren trebetasuna edo gaitasuna eben bat edo batzuk.

Nostradamus medikuntzan, izarretan geroa igarri eta iragarten, eta ainbeste urin, gantzu, usaingari eta osasungai asmatzen izenik entzute andienekoa dogu. Amasei-garren mendeko gizona, Frantziako Saint-Remy urian 1503n jaio eta Salon-en 1566 il eta obiratua.

Beronen deitura bitxitxo egiten jaku. Ez eban bere jatorrizkoa. Judeuetarikoa zan bera. Abraham Salomon izan eban aitita, judeu izateagatik bere ondasunak agin-tarien batek kenduko ete eutsazan bildurrez, kristiñau barri egiña. Zintzotasunez kristiñau egin zalako ezaugarritzat, antza, Salomon abizena itxi eta Notredame artuko dau beretzat eta bere ondorengo gizona zkoentzat, eta andrazkoentzat Saint-Remy, azkenengo au eurak bizi ziran erriaren izenetik.

Bera, gure Mitxel Nostradamus, jaio zanean, Mitxel Notredame izan zan, baiña gizondu zanean, frantzes izenari latin-itxura emotearren, orduan askok egiten eben lez, Nostradamus biurtuko dau. Beretarrak Notredame deituraz jarraituko badabe be, bera Nostradamus izango da andik aurrera. Eta Nostradamus izenez ezagutuko dau geroak.

* Saski-naski (1987, 35.zenb.) 35-43.

Nostradamus etxeko eskolan eta eskola nausietan

Etxeko eskolea izan ei eban gizon ospetsu onek lenengo artu ebana. Berak bein baiño geiagotan autortua da au. Isakar leiñukoak ei ziran bere etxekoak. Eta beti izan ei ziran ondo aituak eta asko-jakiñiak matematikatan, izarren goraberatan eta bedarren jakintzan. Isakar-en leiñutik ei etorkion berak gero erakutsi eban jakituririk geiena edo dana, bere aitita ta aitaganik etxean ikasia. Ez eukan kanpora joan bearrik. Etxean eukan eskolarik onena. Matematikan eta izadiaren indarretan jakitun egiteko, etxean ei zituen ainbat liburu eta ume umetarik asi ei zan ikasten eta ikasiak egiteetara eroaten.

Egia esan, liburu orreek ez ei ditu beste iñok ikusi. Isakar-en leiñukoak be eztakigu Nostradamus onek ezarten eutsen aparteko jakituria eta trebetasunik izan eben ala ez, eta Berak egiñiko autormenak be eztau, bear bada, siñismen andirik merezi. Alan nai olan dala, gazte-gaztetarik asi ei zan gatzak uxatu ta aldentzeko trebetasuna erakusten eta gerorako iragarketak egiten, izarrak ikusteko tresnakin.

Etxeko eskolatik erriko eskolara joango da laster, Saint-Remy-n bertan. An ekin-go deutsa lenengo ikasketak egiten; an eta Avignonon gero. Eta andik Montpellierera. Etxeko eskolea maite dauan arren, erri-eskolak ezitu bapere iguin. Bere aita be erri-karguduna dau, eta semearen etorkizunari bideak zabalik ipini gura deutzaz. Baiña emen Nostradamus-en ikasketai etenaldia datorkie. Zer dala-ta? An eta inguruetan gaitxetea, izurritea sortu zalako. Ikaragarritzko izurritea, atzean ekazan eriotze eta ondamendiak lagun zituela. Eta orra Nostradamus gaztearentzat, bere ogetabi urtegarreanean, sekulako erea sendagaigintzan bere trebetasuna erakutsi eta erriaren onetan ipinteko. Batera eta bestera dabil. Ara ta ona dei egiten deutsoe. Montpellier-en, Agen-en, eta Tolosan zear Bordelera iñño eldu da alde batetik, eta bestetik Marsellera iñño. Erriak eta agintariak txaloka eta zelan eskertu eztakiela artzen dabe. Izurriteak bere triskantzak egingo zituen, baiña Nostradamus-en urin, gantzu eta usaingarriak atzera eragitea, aren kutsadura geiago ez zabaltzea lortzen eben. Jaungoikoak daki zerez egiñak ziran eurak. Edozelan be ez ei ziran naskagarriak, bai ostera ago oneko ta gozoak, eta asko bai askori geixoa uxatzea ekarri eutsen, eta euren asmatzailleari irabazpide ederra eta ospe andia bai andia. Isakar-en leiñuko zalako judeu oni, ederto urratu eutsoen, izarretan ikusia ezpaeban be, etorkizun oberako bidea.

Eztaigun, orraitio, zaio txarrik egin. Ezebillen bera bere katanarrua betetearren, Jaungoikoari eta Jaungoikoak izadian ipiñitako osasun-indarren ezagutzari zor eutsana gizonen onetan ipintea besterik ez eban nai. Siñismen onegaz jardun ebalta dirudi beti.

Izurrietako lana amaitu ebanean, barrero dogu gertu Montpellier-eko ikasketak jarraitzeko. Oraingoan, ango medikuntza-eskola nagusi ain ospetsua zan aretan. Etxean ikasiriko medikuntzaz egin dau izurrite aretan egin dauan lana. Noz eta 1529n sartu da ango mediku andien eskolan eta 1533 doktor-agiridun egingo da. Andik aurrera leku geiagotatik izango ditu deiak, gaitzeteren bat sortzen danean. Olan Nostradamus-en izena gero ta entzutetsuago egiñez doa, ez bakarrik Frantzia barrenean, bai Italian be.

Gantzugintzan, usaingarrigintzan eta gozogin

Botikagintzaz gaiñera edo batera, beste gintza batzuetan maisutasun bardiña erakutsi eban gure gizon onek. Batez be, andrazkoentzat, iñon diran urin, gantzu eta usaingarriak asmau eta sortu zituen. Orduko emakumeak urari katuak besteko iguiñ antzekoa ei eutsoen. Soñeko garbitasunari baiño geiago usain txarrik, atsik ez botateari jaramon geiago egiten ei eutsoen. Garbi izan baiño usain oneko izan naiago. Nostradamus-en labeak ez eutsen zer erosi gitxi eskiñiko sail onetan eta beste batzuetan: usain onena botateko usaingarriak, arpegiko azala leuntzeko nai zurbiltzeko uriñak, ullea gorritu nai zurriztekoak eta abar. Are geiago: andre nai gizonentzako maite-edari, amagai nai aitagai egitekoak, gizonak Herkules biurtzekoak eta abar. Esan bearrik ez, jarraikuntzarik andiena arlo onetan emakumeen artetik etorkion. Zoraturik ei ebilzan eurak Nostradamus-en orio, usaingari eta maite-edarien billa. Eta ez gitxien, Frantziako Erregiña, Catalina Medicis. Erregiña oni amagai izateko bein eradan eutsan edaria, antziña atako batek idatzi ebanez, onelako gaiekin egiña ei zan: artxoaren gamua, erbi-odola, ogigaztaiaren ezkerreko ankea ozpin ganatzenean beratuta, auntz-adarra auts biurtu eta pekorotzaz eta asto-ezneaz naste! Olakoxe edaria arturik eldu ei zan Erregiña ori amar seme-alaben ama izatera, amar bat urtez seme-alaba barik ezkondu ta bizi ta gero. Zabaltzen diran barri edo guzur guztiak ez tira siñistekoak. Erregiña orrena askorentzat ezta izango sifiistekoa, semeak munduratzen asita amar urte geroago Nostradamus ezagutu ebala-ta. Alan izan nai ez izan, gauza jakiña da antziñako sorgin-medikuak eta oraingoak aitatu diran antzeko gaiekaz egiten zituezala urin eta gantzugai asko.

Nostradamus-en beste lanteri bat gozogintzea da. Bera izan ei da, egundo lenngo, gozoen eztigarrietzat azukerea erabiltea aitatu ebana. Artean ezta erabilten ei zanjatekoen gozagarri. Nostradamus-ek zerirakatsi asko asmau eban lanterionetan, eta gaur artefio eldu ei dira bere liburuetan gozogintzarako eta usaingarriak egiteko idatzirik itxi zituen argibide ta egikera asko.

Bein ikasketak amaitu zituen ezker, Provenzako Salon errian jani eban bere bizilekua. Eta erriak eta erri-agintariak ba ekien nora jo, bazterak izurriteren batek jotzen zituanean. Batez be, Frantzia barrenan, eta Italia goienean. Noz edo bein, Pariserañoko agertu batzuk be egin zituen Katalina Enegiñak deituta. Enegiña onek siñiskera andi itsua ei eukan izanen goraberatan eta uningilleen jakiturian. Enegiñaren babesa etxakon txarto etorri anisku batzuetatik alde egiteko.

Aspaldi atan sorgiñen bizimodutzat jotzen zan Nostradamus-en antzeko gizonen bizimodua. Erriko agintariak eta Inkisiziñokoak laster ezarten eutsen eskua auzipera eroateko. Gure gizonak osaba onak aurkitu zituen. Eurok eskiñi eutsoen babesa eta etxakon txanik jazo. Azkenean, 1555tik aunera Enegiña izan eban babeslerik andiena.

Gaiñera, bera alegindu zan argitaratu zituen liburuetan bere siñismena eta jainkozaletasuna autortzen eta bere asmoen seriotasuna agirian ipinten. Esaterako, aitagai edo amagai egiteko botikak ez ei zituen iñok artu bear, ezkondua izan ezik. Bestela egitea, bere jakituriari iraiñik ezaiñena egitea izango ei zan. Berak Jaungoikoaren

aparteko grazitzat eta argitasuntzat eukan izurríteak uxatzeko eta geroa igarteko jakituria. Bere maisu bakartzat Jaungoikoa eta izadia autortzen zituen.

Geroaren igarle eta iragarle

Orraitio, bere ondoko gizaldietan izenik andiena bere iragarketak emon deutsoe. Munduan zer jazoko zan aldez aurretik iragarriaz, liburu sendoa idatzi eban, bertsotan idatzia bera. Izarren goraberak aztertuz, andik ateraten ei eban etorkizuneko jazoeren ezaupide ori. Gaualdi luzeak emoten ei zituen izarrei begira, bere iru oindun jarlekuan jarririk, orduko beste izar-jakitun askoren antzera. Eta geroago asmauko zan teleskopio barik. Berak siñiste osoa eukan, an izarretan dagoala zelanbait idatzita munduko jazoera nausien, munduko erreñu eta gizon andien etorkizuna. Eta bere izar azterketen ondoriotzat, «Vraies Centuries» («Egiazko eun urteak») liburua itxi euskun.

Baiña izarretan aztertu bako iragarketa asko egin ei zituen bere bizian gizonen bat ikusiaz batera, edo norbaiten itaunari erantzunez.

Bein, txarri-zain ibilli eta frantziskotarren soñekoa jantziriko gizon bat aurkitu dau aurrez aur: Felice Paretto izeneko. Aurrean jarri eta belaunikatu egin jako. Ikusleak, arriturik, agoaz baiño begiakaz geiago, zer esan nai dauan itaunka dagoz. Eta Nostradamus-ek badiñotse: «Aita Santuari zor jakon agurra egin deusatz». Andik urte batzuetara, frantziskotar fraide ori Aita Santu egin eben, 1585n, Sixto bostgarrenaren izenaz.

Beste bein, Provenza-ko gobernadore jauna, bere adiskidea, jatorko. Parisera joateko da eta Erregek abegi ona egingo ete deusatz itandu deuts. Igarlearen erantzuna: «Larregi edango dozu». Eta Pariserakoan, Liondik zear doala, ibaia igarroteko ontzia artu dauanean, uretara jausita, bertan ito da, «larregi edanda».

Frantziako Errege Enrike Ilgarrenari jolas-burruka baten ilgo zala iragarri ei eutsan, eta alantxe il be. Espafia ta Frantziaren arteko bakeak ospatzeko jaialdian Montgomery-ren aurka lantza bat ausi nai ebala-ta, bekaiñetan artu eban zauri batetik il zan. Iragarketa au ez ei dago oso argi. Beste igarle batek, Guaric izenekoak egiña ei da, beste batzuen eretxiz, eta Enrike Ilgarren orrek errege izateko usterik ez eukanean egiña gaiñera, baiña Nostradamus-en bertsotetan eriotze ori iragarteko dirudien bertsok ei etozen, eta ori izan zan naikoa iragarketa ori Nostradamusi ezarteko, onen ospaeren andiagorri.

Baiña gure gizonari igarle ospe andiena emongo eutsana, beronen igarketa liburu sailla da. Igarle andi onentzat etzan naikoa bere egunetako gizonen etorkizuna igarri eta iragartea. Munduan zear eta gizaldietan zear non zer jazoko zan ikusteko gai zala uste eban, dana izarretan ikusita. Izarretan ikusia gero bertsotan jarri eban, launakako bertsotan. Guztiz 4680 bertso. Eurotan itxi dau ondorengoentzat munduan zer jazoko dan 3797garren urterarte. Ezta bera ameslari makala. «Egiazko igarketak» ipiñi deutse izena. Luzaroan, argitara emoteko lotsaz eta bildurrez gorde ditu bere etxean, baiña azkenez argitara emotea erabagi dau. Noz eta 1554n aterako ditu lenengoak, eta urrengo urteetan gaiñerakoak. Eta or dagoz arrezkero ulertu nai dabentzat amaika

buruausgarri emoten. Nostradamus-en egunetakoak etorkizuna zulatzeko ez eben argi andirik aterako eta geroko irakurle eta azterketariak or jardun izan dabe iragarketa-bertso areik diñoena al dauanak al dauanari ezarri bearrez. Berak autortu eban bertso areik illunak zirala, nekez ulertzekoak. Berak olakotzat euki ezkeru, gerokoak zer egingo dabe? Illunak izanez gaiñera, eztago euretan ezelango zeaztasunik, ez noz jazotekoak edo non jazotekoak diranik.

Alan be, egin izan da alegiñik Nostradamus-en bertsoetako iragarketa batzuk alango ta olango gerratean, edo alango edo olango gizonen baten bizitzan bete izan dirala adierazo gurez. Batzuk 1700tik aurrera Españaiko erregetza norentzat izango sortu zan gerratea an ikusi dabe. Beste batzuk Luis XVIgarrenaren eriotza, Napoleonen agintea, ta gure gizaldiko jazoera asko be bai: Rusiako iraultza, Inglesen munduan zearreko nagusitza lueza, Europako gerrate biak, Yankien gorakadea. Eta abar. Europako gerrate bien ostean, bakeak egin eta aurrerantzean etzala gerraterik izango be bai. Tamalez, ez da ikusten oindiño bake-iragarketa au egiazko biurtuko dan antzik ez itxurarik. Oraindik bada aztertzailerik Nostradamusen bizitza ta lanak aztergai artuta dabillanik. Batzuk aren bizitza artuko dabe aztergai; beste batzuk, aren iragarketak non ta zelan bete diran; beste urrengo batzuk, aren iragarketako izkuntza argitzen, orduko astrologoak eta igarlariak erabiltzen eben izkuntzaren billa. Eztabe argi andirik atera. Nostradamus bera mundura etorriko balitz, berak be aterako ete leuke zer esan edo zer iragarri nai eban bere bertso illun lorriñetan?

Bear bada, Nostradamus-en miresle asko okerreko bidetik dabiltz, aren iragarketa-liburuak aztertu bearrez, egilearen libururik balio andikoena dalako ustean. Baiña beste libururik be idatzi eta argitaratu eban. Izurriteak aldentzeko, gozogintza irakasteko, urin, gantzuki eta usaingarriak egiteko asmauak ez ete dira mesedegarriagoak izan bere egunetakoentzat eta gerokoentzat? Zorigaitzak etorriko jakoz munduari, arein etorrerea igarten iñok burua ausi barik be. Zorigatxak aurretiaz jakitea baiño bearrao dau gizaldiak, eurak zelan uxatu jakitea. Eta ori da igarle onen igarketa orreitan ikasten ezтана.

Nostradamus-en iragarketai dagokonez, ez ete datoz guztiz arira aldi artako olerkari batek esana edo idatzia? Itzez itz itzulita izen orrek latiñez *Geureak emoten ditugu* diño, eta ona olerkari orrek E. Jodelet-ek idatzia, gutxi gora bera euskerazko bertsotan jarrita:

Geuretik emon oi dogu,
guzur ta abarra emanik,
bestei ziri sartzea
geure geurea izanik.
Alan eztogu *emoten*
geure geurea ezтанik.

NESTOR LUJAN-
'ek, «Historia y Vida»
aldizkarian, 1968'an
emoniko gaiekaz eta
eratua.

HUSSERL-EN FILOSOFIATIK SANTUTASUNERA: EDITH STEIN*

Edith Stein buru pentsalarien artean anditzat eta gure gizaldiko emakumerik argienetarikotzat dago. Odolez judeutarra da; erlejiñoz be bai umetan. Gazte gazte-txorik Jaungoikoa ukatu eta erlijiñoa bertanbera itxiko dau. Bein, filosofi-irakasle eta idazle dala, Avilako Teresaren bizitzea, Teresak berak idatzia, eskuetan artu dau, irakurten asi eta ezin izan dau bera eskuetatik itxi, dana amaituarte. Amaitu dauanean, ordurarte egia non dan zelan aurkitu aztertzen buru belarri ibilli izan danak, «egia auxe da, egia emen da» esan dau bere barruan. Bertatik bateoa eskatu eta or daukagu laster Jaungoikoaganatuta, len ukatu ebana sinistuta, Jaungoikoaren eta Eleizaren alaba eginda.

Andik aurrera Alemaniako katolikoek serbitzari gartsu egiñik emon ditu amabi bat urte: irakasten, itzaldiak egiten, emakumeen eta filosofoen batzarretan parte artzen, filosofi-lanak idazten eta abarretan, Hitler-ek olango lanak judeu diranentzat galerazo dituen arte. Orduan moja karmeldarretan sartu da, baiña Hitlertarren amomiak Holandaraiño jarraituko deutso; 1942n, Auschwitz-eko sulabeetan aurkituko dau azkena, ango sulabe areetan erreta.

Jakitunen artean filosofi-maillan izen andia dauan emakume oni, gaur, Karmel aldizkari au irakurleen eskuetara baiño lenago, Eleizeak autormen andiagoa egingo deutso, altaretara eta zoriondunen maillara jasota.

* Karmel 1987-2, 6-24.

Ume-umetarik ikastun andia

Judeuak ziran Edith Stein-en gurasoak, judeuen oitura eta erlejiñoari zintzo eusten eutsoenak. Bizibearrak Lublinitz aldetik Breslau-ra aldatu zituen, 1890garren urtean. Gaur, Edith jaio zaneke uria, Breslau, Poloniaren muga-barruan dago. Edith Steinen senideak alemanak dira izkuntzaz. Europako gerratearen ostean, Steindarrak Alemaniako ala Poloniako izan nai eben erabagi bear zanean, Alemaniaren alde egin eben euren aukerea.

Antxiñako emakume judeutarrak lez, Steindarrak Jaungoikoaren esku-erakutsi anditzat eukela dirudi belaun andia izatea, seme-alaba asko munduratzea. Aitaitak 15 seme-alaba azi ei zituen. Edithen gurasoak, 11 seme-alaba. Lau umetxotan galduta, gelditu jakezan zazprietatik Edith izan eben azkenengoa. Baiña gazte onek egingo ditu Breslauko Steindarrak ospetsuen. Berak urtengo dau anai-arreba guztien artean buruz argiena eta ikaslanetarako egiñagoa.

Steindarrak, judeuak bai, baiña ez ziran aberatsak. Aitak erabillan saldu-erositik bizi dira: basoak erosi, mukurrak egin, bere legorpera ekarri, olak egin, zurak landu eta saldu. Baso erosi bat ikusten dagoala, il da bera, Edithen urte bi egin baiño lenago. Ama alargun gelditu dan arren, kikilduta gelditu barik, berak artu dau olgintzaren ardurea eta bere zazpi seme-alabak aurrera ataratea.

Edith txikia da amari atsegiñik andiena emoten dautsana. Eskolak ikasteko eztago Breslau guztian bere alabatxoa langorik. Eskola-mailla guztietan urtenena dator. Sei-zazpi urte dituala, atsegin dau irakurtea eta Schiller eta beste olerkari askoren bertsoak buruz ikasten ditu. Amasei urtegaz Eskola andian sartu da. Maixu batek eretxi au emon dau, eskolan aurreratuena zein dan itandu deutosean: «Lenengoa, Edith; bigarren, iñor be ez; irugarren, naikoa urrintxo, beste guztiak». Alan be, olango lorak entzun arren, ezta bapere arrotzen. Orduxerik ikasi dau olango berbai jaramonik egin barik iguiñ artzen. Beti jarraituko dau eskola-lagunen iguin bako lagun eginda, euren jolasetan, naiz mendietara txangorik egiten danean, naiz eskolan ikastekoak ikasteko argitasunik eskatzen deutosean, eta beste askotan, atzeratuen irakasle bihurturik.

Ikastaro sakonagoak Breslau, Gotingan eta Freiburg'on

Breslauk bere Ikastetxe Nagusia, bere Unibersitatea dau. An sartu da 191 In, Unibertsitate maillako ikasketak egiteko Alemanen literatura zar eta barritan, Germanistikan, sikologian eta Filosofian. Izkuntzetan, inglesa, frantzeza, latin eta gerkoen izkuntza zarra ikasi ditu, izkuntz orreitan edozer irakurri, ulertu eta itzulpenak egiteko bestean. Eta eskola-lanak egiten diarduan baten, Unibertsitate atako liburutegian egun areitako filosofo barri baten izena eta liburu ospetsunetako bat be aurkitu ditu. Filosofo barri ori Edmund Husserl da, Gotingan irakasle dagoana. Breslau itxi eta Gotingara aldatzeko eskaria egin dau. Breslauko ikasturteren bat amaitzen dabenean, ikasleak jaitxo bat egiteko oiturea dauke alkarri egiñiko kanta ta guzti. Edith Steini onako bertsoak bota deutoez:

Neska geienen amess zer da?
 «Mosutxoak», ez besterik;
 Gure Edithen amesa non da?
 Bere Husserl'gan bakarrik.
 Laster Gotingan euki bear dau
 aurrez aur bizi bizirik.

(Alemanez Husserl izenak «Buseerl» egaz [busserl = «mosutxoia emotea»] bertso eginda).

Husserl orduan filosofi-eskola barri baten sortzaillea zan: fenomenologi barri batena. Aren eskolan sartu nai dau Edithék. Husserl-ek aurrean euki dauaneko, ia bere lanik irakurrita daukan itandu deutso eta arriturik gelditu da Edithen erantzunaz: Husserl-en Logika ikerketak, bigarren tomo lodiraño irakurri dituala. «Ori irakurteko gauza izan bazara, esan deutso berari, etzara zu edonor, ez zara ikastun makala».

Gotingako ikastaldia asi ta bertatik, Europako gerratea sortu da. Eta Edithék, filosofi-ikastea itxita, geixo zaintzako ikastaldi bat eginda gero, an joan bear dau egoaldeko gudalekuetatik urrun barik sortu daben guda-geixotegi batera. Sei bat illabeteko geixozain lan neketsua gudalekutik joiazen zaurituak eta edotariko geixoak zaintzen, beste geixozain eta mediku gazte askoren artean. Geixotegia, egoaldeko gudalekuen aldera egoana, itxi egin eben, Rusiako gudarosteak atzera egin ebanean; baiña eskola ona izan zan Edithentzat geixotegia, gizonak eta gizonen nekeak urragoitik ezagutzeko era ederra emon eutsuelako. Filosofi-ikasketako ez eban gutiz kaltegarri izan. Bere gauzen artean eroan zituen ara Homero eta Husserl-en azkenengo liburu bat, tarteetan irakurri eta ikasteko. Husserl-en liburu orregaz irabazi eban mediku gazteen adiskidetasuna be. Artean ez eutsoen ondo begituten, medikuntza ikasten ziarduenen bat ete zalakoan eta euren lan-lekua kenduko ete eutselakoan. Filosofoen munduan bizi zala ikusi ebanean, adiskide egin ei jakozan. Filosofi-ikasle bategaz ez euken euren bizitzan areriorik. Ez joiazan bide beretik.

Gotinga-ra biurtuta, laster aterako dau irakasteko baimena (lizentiatuta). Eta Doktor agiria aterateko lanari ekin gura deutso. Husserli tesia egiteko gaia eskatu deutzanean, arritu egin da maixua. «Ain arin nai dozu egin lan ori? Iru bat urte bear izaten dira orretarako». Auxe izan da Maixuaren erantzuna. Baiña, alan nai olan be, gaia emon egingo deutso: *Einführung* dalakoa. Zer ete da ori?

Husserletzat «gauzak» or dagoz, aurrean dagoz, ez dira gure asmakizunak, filosofo batzuk esan dabenez, ez dira norbere buruak sortuak, gure buruak irudimenean arein irudia taiutzen badau be. Gauzen «gauzatasuna» erakutsi nai dau Husserlen fenomenologiak ta bardin beste nor guztien egiazko ezagutzera joan gura dau. Zelan sortzen da gure gogoan besteen egiazko ezaupidea, eta zeinbesteraño dator ezagutza ori egiazkoaz bat? Besteen gogoaren barri, alkarren gogoen barri zelan lortzen dan aztertu eta argitzera eldu nai leuke. Arazo au argi ta zeatz zeatzu barik dauko Husserlek, eta orixe da Edith Steini ezarri deutzan azter-lana, *Einführung* dalakoa, beste filosofo baten, Theodor Lips-en itz orrek gogoratu deutzan gaia, ain zuzen. Lips-en lanak ondo aztertuta gero, azterketa ori egiteko eskatu deutso bere

neska ikasleari. Ez da lan erreza. Sagar garratzari ezarri bear izan deutsoz agiñak Edithek; baiña ez dau atzera egin. Gogoan izan ditu bere amari bein baiño geiagotan entzuniko esanak: Jaingoikoak laguntzen dauala bein erabagi on bat artu danean, eta nai izatea al izatea dala. Eta Husserlek uste izan dauan baiño lenago burutu dau bere tesia. Mekanografa batek makiñaz jota, iru tomotan, aurkeztu eutsan bere maisuari. *Summa cum laude* gorengo maillako ondo eritxiaz emon deutsoe Edith Steini Doktor agiria.

Filosofi irakasle

Husserl poza ta arrotasuna eriola egoan bere ikasleagaz. Ara zelango tesi-lana egin dauan Edithek, esaten ei eutsen beste irakasleei. Eta laster argitaratu eban lan ori bere Fenomenologi Azterketazko Aldizkarian, 1917ko zenbaki baten, osorik ez bazan be. Izan be, Edithek ikuspegi askotatik argitu nai izan eban bere gaia, gogorik gogorako ezaguera ori, nor bakotxetik besteerako ulerkera on, gizarteko artu-emonetara, etikara eta estetikara eta olako arloetara bere azterketa eroanez. Bide batez, gizonaren nor izatea, nortasuna, zetan datzan argitzera be jo eban. Tesiaren zati au argitara barik gelditu zan.

Bertatik, ordurarte Husserlek ikasle euki eban Doktor barria laguntzailletzat artu dau, Unibertsitatean bertan. Bere fenomenologia Edithek baiño obeto ulertzen eta azaltzen zituanik ez ei egoan iñor. Edithen eskuetan itxi zituen bere eskuzko idazlanak be, argitaratzeko atondu eta sailkatu egiazan. Ainbesterañoko siñistea eukan bere laguntzailleagan. Edithen eskuetatik argiago ulertzeko eran urtetan ei eben askotan. Ortik salakuntza susterbako bat egin izan jako iñoz Edithi: maisuaren irakatsiak aldetzerañoko ausardia ez ete eban artu iñoz. Salakuntza onek ez ei dau susterrik. Husserlek berak ikusi barik ez ei ziran argitaratzen. Alan be, laguntzailleak, idazkera argi ta zeatzagoa eukita, zerbait argiago ipini ba deutso Husserli, onentzat eta irakurleentzat, ainbat obe.

Beste fenomenologo baten idazlanak be Edithen eskuetatik urten eben argitara: Adolf Reinach zanarenak. Gottingan aurkitu eban, Husserlen laguntzaille. Bera ta bere emaztea adiskide min egin zituen. Judeuak biak, Edith bera lez. Alarguna katolika egin zan urteak geroago. Adolf gerratean il zan, protestanteen artean bateoa artuta gero. Alargunak Edithen eskuetan itxi zituen aren filosofi-idazlanak eta Edithek inprentara bialdu, zerbait geituta. Beste senar-emazte adiskide andi izan zituenak Konrad Martius senar-emazteak dira. Etxekotzat artuta euken bera, eta adiskide jarraitu eben, Edith katolika eginda gero be, eurak protestante izan arren. Eta au arrigarria: Konrad Martius andreak egin eutsan amabitxi Eleiza Katolikoan bateatu zanean, Eleizaren baimena lortuta. Andre au filosofi-irakasle eta idazle ugaria izan zan. Beronek argitaratuko zituen il aurretxoan (1960n) Edithek berari bialduriko 17 karta. Max Scheler-en irakastaldien entzule izana zan Edith Gottingan eta aren argibide batzuk eta Dilthey-renak be artu zituen bere tesia idazteko. Freiburggo egunetan beste filosofo askorekin, batez be fenomenologoekin, artu emon onean bizi zan, gelditu

jakuzan karta gitxi batzuetatik agiri dauanez. Karmen Castro, gure Xabier Zubiri andiaren alargunak esan deuskunez, Husserlen ondoan ezagutu eban onek Edith laguntzaillea.

Filosofi-mundu orretan mugilduta, ez eban orraitio Jaungoikoaganako biderik aurkitu. Judeuen erlejiñoan otzituta, judeu izanda kristiñau egiñiko filosofo askoren artean bizi arren (Husserl bera be eta Reinach eta, Konrad Martius bardhiñak zirean orretan), Edith Esteini ez jakon Kristoganako eta Jaungoikoaganako bultzadarik filosofiatik etorri. Beste bide batetik etorri jakon argia, Freiburgon filosofiazko lanetan sei bat urte eginda gero.

Alde barria Edithen bizian, kristiñau eta katoliko eginda

Conrad Martius-tarren etxean jazo jako goitik berako aldakuntza osoa, adiskide andi dituen fenomelogo eta protestanteen etxean. Askotan eukiten dabe bera ostatuz. Eta bein, eurak kanporalditxo bat dauken egun batez, bera itxi dabe etxean bakarrik. Or dozu gure liburutegia eta or dozu zetan asti emon, esan deutsoe. Berak filosofoen liburuak ondo arakatuta daukezan ezkeru, osteango liburu bat artu dau eskuetan: Santa Teresaren Bizitza, Teresak berak idatzia. Asi da irakurten eta ezin izan dau eskuetatik itxi azkeneraiño, dana irakurri arte. Eta amaitu dauanean bere barrurako esan dau: «Egia auxe da. Ementxe dago egia».

Urrango egunean, Eleiza katolikoaren siñiskaiak ikasteko liburu bat eta meza-liburu bat eskatu dau, eta andik laster meza-oste baten parroko jaunagana joan da Sakristira bateo-eske. «Baiña lenengo ikasi eta azterketa bat egin bear jatzu ia bateoan zer artzen dozun jakiteko» diñotso parroko jaunak, «Aztertu naikezu», diñotso berak abadeari. Gabon aurrettoa da, eta Edithen urtebarri egunean artuko dau bateoa eta olantxe Eleiza Amaren magalpera dator. Jaungoikoaren graziak eragiñiko aldakuntzea izan da.

Oso gazterik eukan bere gurasoen erlijiñoa itxita. Ama oso kezkatu ekan orixe zala-ta. Sinagogan ez bazan, etxean ospatzen eben etxe atan barikutik zaparaturako bitartea. Aspaldian ikusten eban bere alaba txiki kutunena olango ospakizunetarako otz baiño otzago. Eskolan Edithen ez eban artuko erlijiño gauzetarako eze-lango laguntasunik. Alemaniako eskoletan judeuentzat ez egoan erlijiño-eskolarik artu bearrik. Alan be, alemanen literatura zarreko ikaskizunetan, an ikusten eban Wulfila antziña antziña bateko Ebanjelioetako *Aita Gurea*. Oso eder eritxi eutsan, baiña besterik ez. Filosofoen artean begien aurrean ikusten zituen ainbat gizon jakitun, pentsalari andiak eta siñismendunak. Esaterako, Max Scheler Gottingan ezagutu ebana. Ori ikusiak aintzat artzekotzat egiten eutsan olako pentsalariak eukazan erlejiñoa, beste edozein pentsakera lez.

Beste argialdi txikien bat etorri jakon iñoz inguruan ikusikoetatik. Reinach il zanean, alargunari bere atsekabea zelango berbaz adierazo asmau eziñik egoala, alargunak berak itxi eban mutu bere kristiñau fedez eta siñismenaz. Orduan be

kristiñautasunari eder iritxi eutsan. Beste bein, bere lagun bategaz turista antzean katolikoan eleiza baten sartu danean, merkatutik etorri ta an sartzan ikusi dau andra bat, bere otzaratxoa itxi, belaunikatu eta bakarrean otoitz egiten. Ez protestanteen eleizetan ez judeuen sinagogetan ikusi dau iñor bakarreko otoitzik egiten, ez areitara bake billa joaten. Argialdixook gora bera, berak gogor iraun dau, eta Jaungoikoa ukatuta ezelango erlijioño barik bizi izan da. Jaungoikorik bako utsa dan baten bizitza eroan dau.

Bere adiskideen etxean Santa Teresaren bizitza irakurrita jazo jakon aldakuntza etorri arte, Teresaren bitartez, Jaungoikoaren argialdia etorri jakon arte. Bateoan Teresa artuko dau izen barrizat. Eta Conrad Martius andreak egin dautso amabitxi. Au protestantea dan arren, Eleizeak emon egin deutso bear zan baimena.

«Emen dot egia» esan dau Edithek. Eta Jaungoiko gana eldu danean, egiaren iturrira bertara eldu da. Egiaren billa ibilli da orain arte. Bere maixuagan eta Max Scheler-en agotik askotan entzun izan dau egiari ez jakola aterik itxi bear, ate guztiak zabaldu bear jakozala, aurre-eritxi barik jokatu bear dala egiaren aurrean; egia ez dauala gure buruak asmatzen; gure adimenari or aurrean agertzen jakola, ez dauala norberak egiten eta guztion laguntzaz billatu bear dogula. Orain zerbait geiago ikusi ta ikasi dau: beste guztien ganetik, edo ostein, badala norbait diran guztiai eusten, egi guztiak argitzen. Eta norbait ori aurkitu dau, Norbait orregaz, *Egia*, egi guztien ganetikoa, Santa Teresak, filosofi barik, billa ta billa ibillita, egizale eta egi-billatzaile ain zintzoa zanak aurkitu eban Egia. Iñongo egirik illuntzen ez itzaltzen ez dauana.

Orrela, Edith Steinen filosofi-mundua zabaldu egin da. Ikuspegi barriak aurkitu ditu. Eta andik aurrera egi-iturri bai eskatuko deutse argia. Folosofian tresna onak aurkitu ditu bateko eta besteko egi-mundua aztertu eta argitzeko.

Barriri irakasle

Freiburgoko Unibertsitateari agur esanda, irakasle-lana ez dau bertanbera itxi. Bear bada, Teresaren moja-arte baten bertatik sartzea zan buruan erabillen gogorik biziena; baiña ain kristiñau egin barritan ez egiakan ori erraz lortu. Irakasle jarraituko dau bere jakitea katolikoan alde ipiñita. Espiran moja domekarrak euken lizeoan aurkitu dau lekua: Mojakin bizi, bertan ikasi, otoitz egin eta Lizeoan irakatsi. Zer irakasten dau? Aleman izkuntza, alemanen literatura eta kultura, batez be.

Baiña len Freiburgon artu eban ospea, filosofian ain jakituna dalakoa ez dauke askok aitzuta eta beragana doaz argi eske, laguntza eske, fenomenologia obeto ulertzeko eta olan. Gaiñera, bai bere eskolako ikasleai eta moja domekatarrari eurai beste ikastaldi batzuk emoten daki. Euren «Andereñoa» askok amatzat dauke. Gero opor-egunetan Breslau-ra, amagana. Amak badau alabearen maitasunaren bear izanik, batez be katolika egiñaz emon deustan miña arintzeko. Alabeak badaki min andia artu dauala amak len Jaungoiko bako egin jakona orain katolikoan arteko egiñaz. Miñik gitxiago amari emotearren, goizean goizetik jagita egiten ditu eleizakoak eta etxeokak jagi orduko an da amaren odoan berari laguntzen.

Filosofi-gaietan Edithen balioa ezagutzen dabenak Espiran laster ipiñi dabe Aki-noko Santo Tomasen teologia eta filosofia ikasten. Batez-be egiaren ikerketari buruzko azterketak aztertzea eskatzen deutsoe, Husserlen fenomenologiaz zelango bardintasun edo ezbardintasanak daukezan ikusteko. Alan egin dau Husserlen omenaldirako beronen eskolakoak gertetan diarduen libururako bialdu dauan azter-lanagaz. Ori ez dau naikoa. Beste liburu bat, Santo Tomasena, ain zuzen, egiaren azterketakoa, alemanera itzuli eta azaltzera beartu dabe. Tomo bitan argitara agertuko da. Beste filosofi-lan batzuk Husserlen aldizkarian argitara emoten ditu.

Artu-emon andia darabil Beuron-go beneditarrekin. An dau bere arimaren zuzentzaillea eta an emoten ditu urtero gabon-egunak eta Aste santua, ango liturgian parte artuz. Liturgi-zaletasunaren eragiñez, liburu bi atera ditu, besteak beste: *Gaboneko misterioa* eta *Eleizaren Otoitza*. Jaungoiko gizon egiñaren misterioa ondo gogoan daroa, eta liturgi-otoitzetan guztiz murgilduta dabil. Olango lan asko orduko aldizkarietan argitaratuko ditu lenengo eta gero banazean agertuko dira. Gero ta ospetsuago egin da Edith Steinen izena. Filosofo ta teologoen batzarretarako deiak artzen ditu leku askotatik. Olango batzar nagusi baten Parisen izan da, orduko pentsalari andienen artean, bere agotik fenomenologiaren barri entzuteko. Bardin beste bein Salzburgoko batzar baten; entzuleak arrituta isten ditu bere agerkeria apal eta itxurakeririk bape bakoaz, eta gero bere berben argitasunaz.

Deirik geien Alemaniako emakume katoliken aldetik jatorko. Alemani zabalean ibilli da emakumeak, etxean bakarrik ez, munduan, gizartean eta Eleizan dituen egitekoak azaltzen. Przywara, jesuita eta pentsalari andiaren eritxiz, Edith izan da emakumeen alde eta emakumeen arimea azaltzen gure gizaldian aurreren ibilli dana.

Askok eskatzen eutsoen Espirako zokoa itxi eta goragoko Ikastetxean baten sartu bear ebala. Breslauko Unibertsitatean sartzea lortu ez, ta azkenez, Munster-eko Pedagogi-Ikastetxean emon deutsoe irakasle izateko aukerea. Gazteen zuzendari irakasle eta bizitzan zartzeko askoren zuzendari eginik, andik jarraituko bere argiak inguruan zabaltzen, Hitler-ek judeu diran guztiak kargu andietatik kentzea erabagiko dauan arte. Bien bitartean idatzi dauan filosofi-lanik andi ta sakonena asita dauko. Gai asko batu dau, lana aurrera ta aurrera daroa; baiña, beste eskualdi bat emonda, obeto landuta, moja sartu zan arte ez dau amaituko. An emongo deutso azken-eskua bere liburu sendoari, «*Izate iragokorra eta betikoa*» aztertzeke idatzi ebanari.

Moja kartneldar eta idazle

Hitler-ek judeuen aurka asi dituen erasoakaz Edithek ez dauka agirian ezer egiterik. Ordurarte eleizgizonen aldetik ez dau besterik entzun irakas-lanetan ebala bere egitekorik egokiena eta bearrezkoena katolíkoen onerako. Orain bere aspaldiko amesa betetako ordua eldu jako; Santa Teresaren alaben artean Karmeldegi baten sartzea, eta bere barruko bizitzeaz arduratzea, beste zeregin barik. Koloniako Karmeldegian artu dabe.

Lenago, amari agur egitera joan da. Agur egitera bakarrik ez. Amak urteetan aurrera doa-ta atsedena artzeke ordua dau, eta bere lantegia, olagintzakoa, saldu eta

beste esku batzuetan isteko bideak egin deutzoz. Eta Breslaun itxi dau, Errosa alabea lagun dauala. Koloniatik astero, bariku guztietan, amarentzat ain egun santua dan egun orretan, karta bat egingo deutsalara agindu deuto. Eta Koloniara doa betiko agur eginda. Egun andia Edithentzat 1934ko jorraiaren amabostekoa: Karmengo Amaren soñekoa jantzi dauaneko eguna. An ditu zorionak emoten ainbeste lagun: adiskide, Unibertsitateetako irakasle eta katolikoan alkarteetako ainbeste emakume. Husserlek joan eziña adierazoaz bere zorionak kartaz bialdu deutzoz.

Eroan dauan moja-dotea: bost kutxa andi, liburuz beterik, besterik ez. Urrengo urtean, jorraiaren 21n, Profesa. Eta andik iru urtera, 1938ko jorraiaren egun berean, betiko profesa andia. Urrengo urtean, judeuentzat arrisku gorriko egunak sortu direalata Hitlertarren ixillik Edith Holandara, Echt-eko Karmeldegira aldatzea lortu dabe. Laster elduko da ara be Hitlertarren dana zapaldu bearra, batez be, judeuai deuten amorma eta arein aurkako esku gogorra. Eta 1942ko abuztuaren 2n, Edith eta Errosa bere aiztea, judeu katoliko askogaz batera eroan dabez, Auschwitzten erre eta ilteko.

Edithen azkenengo Poloniara joan-etorriok labur gogoratuta, emon dagigun Karmeldegian egin zituen idazlanen barri.

Karmeldegiko babeslekua otoiitz-bizitzaren maitez artu dauan arren, ez dabe ango nagusiak luma-laneko ain trebea dan aren eskua alperrik galtzen itxi nai. Bere eskuetan ipiñi dabe bertako Karmeldegiaaren sorrera eta ordurateiñoko bizitza idatzi eta bertan bizi izan ziran moja ospe andikoenen bizitza bat edo beste idaztea. Baiña lan sako-nagorik be egiñ eraso deutoe. Askok dakie eskuartean erabilli izan dauan filosofilan andi baten barri. Egin dauan filosofilanik sakonena eta luzeena da, len aitatu doguna: *Izate iragokorra eta betikoa*. Moja sartu aurretik beste izen bat emon eutsan, gitxi gorabera *Egiña* eta *Egitekoa* esan gura dauana. Aristotelesen filosofiatik asita, Santo Tomasena zear, Kant eta azkenengo filosofi-eskoletariño itzalezko azterketa egin dau lan orretan izanaren eta izatearen inguruan, Husserl eta Heidegger-en filosofiaraiño. Or daukagu Edithen, Jaungoikoaren ukatzaille izatetik Egia aurkitzeraiño egin dauan bidea. Or batu ditu filosofoen alde baterako ta besterako eretxiak. Edith alde guztietako filosofoen artean bere etxean lez dabil. Beretzat filosofoak, benetako filosofoak, guztiak dira alkarren senide. Gizonak izatea eta ez-izatea, edo oraindiño izan bakoa, batean ei ditu, nondikoa eta norakoa, lena eta geroa, igaroa eta betikoa. Azkenengo orrialdeetan Heidegger-en eretxiak aztertu eta zuzentzera jo dau. Heidegger Freiburgoko egunetan ezagutu eban, ara fenomenologia ikasteko joan jakenean eta gero be alkarregaz askotan itz egiñak dira. Heidegger-en filosofiak azken baltzera daroa gizona. Arentzat gizona munduan izatera jaurtita dago, eriotza eta ezerezan amaitzeko. Bere buruaren ikuspegi utsetik dabil elako egin dau ori. Ez dau itandu gura izan Nork eta Zetarako jaurtia dan mundura gizona. Beste batzuen ikuspegiak be gogoan izan bear leukez, eta ikusi beste askoren aldetik argi oberik ez ete jatorkon. Or aurkituko leuke mistikoen aldetik datorren argia. Mistikoak badaki izatera nok jaurtia dan eta zetarako: maitasunak jaurtia da betiko zorionsu izateko Jaungoikogan. Izateak berez ez dau aldiaren barruan mugatua izaterik, ez amaitzerik. Aukera okerra egiten dabe alde baltz eta illunera begira jarrita, beste argirik ikusten ez dabenak.

Liburu au 1936rako amaituta egoan. Baiña argitaratzeko alegiñak ez eben ezer lortu Hitlertarrak judeuai eutsen amormagaitik.

Azkenengo idazlana Holandan Echt-eko moja-lagunak eskatuta idatziko eban. An beste lantxo batzuk be idatzi ditu, eta bat, Holandako izkuntza ikasita, ango izkuntzan idatzia. Ara aldatu eta urrengo urtean, 1940n, ango mojai asmo ederra etorri jake burura: andik urte gitxi barm, 1942n, Joan Kurutzeko santuaren jaiotzako laugarren eun-urtea dala-ta, Edith-ek santuaren mistika eta bizitza aztertuaz lan polita egikeala. Andik urte bira Joan Kurutzekoak izango dituen jaialdietarako omenaldirik ederrenetakoa izango litzake.

Edith-ek egiteko ori pozik artu dau. Otoitza askosaz be gitxiago galarazoko deutsan lana da. Eta or dogu barrero lumeari eragiten. Lenengo illabetetako nekea: lanaren nondik norakoa zeaztu, iturriak billatu eta argibideak aurkitu. Gero, dana irabiau eta auznartu ondoren, lanari taiua emon eta aurrera eroan. Beste amar bat illabeteko lana. Lanok egitea ez jako izan mojen bizitzako egitekoen aringarri. Ez; mojen etxeko orduak, korurako eta otoitzerakoak, guztiak zeatz betetan ditu. Ori beti izan dau bere legea. Moja-bizitzak isten deutzazan bitartexoetan ekiten deutso idazten. Eta askotan loari orduak kenduta, beranduago oeratu eta goizago jagita.

Gure fenomenologak begiratu zorrotz, sakon eta bizia egin deutso Joan Kurutzekoari, bere irakatsietan, mistikaren aldetik eta literaturaren aldetik, eta santuaren bizia bere irakatsiekaz eta Kristoren Kurutzeaz bat egiñik erakutsi deusku «Kurutzearen Jakintza» izenaz idatzi dauan liburu sendo orretan. Lenengo tesia idatzi ebanean asita, giza-nortasuna, nor bere betera eltzeko bidea artertzeko joera andia izan dau Edith-ek; giza nortasunaren muiña erakusteko lan bat baiño geiago egin ditu. Orretara jotan izan dau idatzi dituen emakume santa batzuen bizitzetan be. Joan Kurutzekoak aztertzekoan bardin egin dau. Aren barruko nortasuna agirian ipintera egin dau.

Bear bada ez eban bere asmo guztia osotu. Bear bada, ba eukan zerbait geiago esateko. Baiña Hitler-en poliziak ez eutsan geiagorako astirik emon. Eta gero mojen gogoia be ez zan bete. Liburua, eurak gura ebenez, ez zan 1942n agertu, Joan Kurutzekoaren omenaldirako, 1950n baiño, 1942koa baiño giro ohea sortu zanean.

Judeua ta filosofi-irakasle izatetik santu izatera

Gaur lerrook irakurlearen eskuetara eta begirapera orduko, *Zoriondunen* maillara jasota ipiñiko dau Eleizeak judeu eta filosofi-irakasle izaniko andre au. Non? Kolonian, moja sartu zaneke uri andian. Eta moja sartu zanean artu zituen izenakaz.

Fenomenologiatik, Jaungoiko bako bizitza itxita, santutasunerako bidea egin dau. Baiña fenomenologia itxi barik. Moja sartua gero be, Husserl-en filosofia berak gizaldi onetako filosofitzat dauka, eta luzarorako filosofia izango dalako ustea dau. Egia esan, fenomenologiak adar bat baiño geiago ditu. Fenomelogoen artean badira kristiñau eta katoliko direanak, eta badira ez direanak be. Edith-ek berak be gaztetako bere Jaungoikobako fenomenologiatik aurrerakada andia egin eban Jaungoiko ta guttiko fenomenologiara. Orregatik ez eban galdu Husserlek beragazko eukan ondo eritxia. Are geiago; Husserlek bere ikasle ta laguntzaille izana, katolikoen arteko egin zanean, filosofo katolikorik andienetakotzat eukan bein autortu ebenez. Eta bere egunen azken

aldera, karta baten, onako autorpena egin eban orduan moja egoanaren alde: «Gizonaren bidea Jaungoikoaganako bidea da, ez besterik. Ni neu teologiaren bidetik barik ibilli naz neure eburua eltzen. Zelanbait esateko, Jaungoiko barik joan gura izan dot Jaungoikoagana. Nire jakintzazko egibideetatik alde batera itxi gura izan dot Jaungoikoa, Jaungoikoa zuk lez ezagutu ez dabenai Aganako bidea urratzeko, federako bide ziurra Eleizakoa dala jakinik... Jokabide onek bere arriskua daukana badakit. Eta neuk be arrisku ori izan neikean, neure biotz barrutik Jaungoikoagaz lotuta bizi eta biotz-biotzez kristiñau izan ezpanintz».

Bere fenomenologia ta guzti, Erromak izantautako teologo bik Edith Steinen idazlan guztiak, argitaratuak eta argitarabakoak, banan banan ondo aztertu ondoan, ez dabe areitan aurkitu Eleizaren irakatsien aurkako irakatsirik (Donostiako teologo batek, orraitio, orain dala ogeta zortzi urte, «Kurutzearen Jakintza» liburuan bakarrik ogeta bi fedearen aurkako esaera aurkitu eta salatu eutsazan), eta idazlan askotan, idazlearen santutasunezko argiak Alemanian zear zabaltzen ikusi dabe, eleizearen zerbitzari egiñik.

Ez filosofi-zale ez judeu izateaz ez zan lotsatuko. Kristifiau izateak lotsatu barik, poztu eta arrotu egiten eban. Onela iñotson bein karta baten adiskide bati: «Zuk ezin ziñake iruditu be egin zer dan niretzat Jaungoikoaren erri aukeratukoa ta Kristoren erritarra izatea, kristiñau izatea, ez bakarrik gogoz, bai odolez be». Hitler-en politikabideari laster igarri eutsan, nondik nora joango zan, eta bere judeu erritarren alde eskiñi eban azkenean bere bizia.

Teresa judeutar bi izango doguz emendik aurrera zerutarren artean. Ain zuzen, gure egunotan argi gelditu da Teresa, Avilako santa aundia, judeutarren odolekoa zala. Aitarenen aldetiko aita judeua izan ebala odolez eta erlijioz. Gaur beste judeu odoleko au, judeu garbi au jatorko ondora. Karmen Castro, Xabier Zubiriren alar-gunak esanik ez dogu esango, ia zergaitik ez dauan egingo Erromak Edith Stein Eleizako irakasle, Avilako Teresa egin izan dauan lez. Larregi da Karmen Castrok eskatu dauana. Baiña Avilako judeu odoleko zan Eleiz-irakaslearen ondoan ez dator txarto eta ez da lotsatuko Breslauko beste au, Filosofian *Doktor* eta *Irakasle* izatetik, asi eta Jaungoikoagana eta santutasunera eldu dana. XIXgarren gizaldiko filosofiaren argiez gaiñera, santutasunezko argiak emon dituena.

ORAIN 50 URTEKO GERRATE-NEKEAK KARMELDARRON GOGOAN *

Anai-burrukea biztu da

Oñatin eta Arantzazun, 1936ko bagillaren 30tik urrengo illaren bostera arte, aste osoko Andra Mari-batzarra ospatu zan Gasteizko Eleiz-barrutiaren eragitez. Batzarraren barri emotean, Gasteizko *Boletin-ak* Mateo Mujikaren gotzaialdiko ospakizunik andiena izan zala autortu eban. An izan ei ziran alkarturik, ez bakarrik arabarrak, giputzak eta Bizkaiko semeak: Naparroatik be ainbat lekutatik talde galantak eldu ei ziran Batzarrera. Alan an ikusi ei zan, egiazko egiñik, Laurak-Bat-en lemak adierazoten dauan batasun eder opagarria. Gure lau lurraldeetakoak millaka ta millaka alkartu ei ziran an, bakotxaren politika alde batera itxita, guztiak anaitasunik ederrenean, Ama baten babespean.

Etzan ames txarra; baiña tamalez ez eban luzaro iraungo. Nok usteko eban, andik amabost egun joan orduko, ain osozko aldakuntza ikusiko zanik: anai-arteke gerraterik amorratu eta odoltsuena! Ondo gogoan daukagu: uztaillaren 17 (barikua zan) abade bat etorren, irlandarra abizenez eta euskalduna, Bizkaiko Zornotzako Karmeldarren Ikastetxera. Ain zuzen, Barakaldoko talde batekin Arantzazura erromes joanda, etxerakoan, Zomotzako Ikastetxe orretan sartu-urtena egitea emon eutsan gogoak, berak ara bialduta Barakaldoko seme bat ikastetxe atan eukalako. Kezkaz etorren, bidean entzuniko albiste txar bat az: Afrikatik zurrumurru txarrak etozala, militarrek gobemuaren aurka jagi ete zirean. Zoritxarrez, urrengo egunean zurrur-

* Kamel 1987-3, 38-63.

murrua egia zala ikusten genduan. Militarrek ez egozan bakarrik; Naparroako Reketeen eta an or emengo falanjeen laguntza be ba-euken. Calvo Sotelo zanaren eriotzea zan atxakia; baiña naiko lenagotik erabagita euken dana. Molak Iruña aldetik bialduta, laster dira ainbat gizon armadun Gipuzkoako mugetan. Gazteizen be militarrek ziran nausi eta Bizkaiko mugai zemaika datoz. Agur, ba, Arantzazuko amesa. *AgurLaurak bat* giñalakoon alkartasuna.

Oñatin, Andra Mari batzar aretan entzun zan abestiak Luis Jauregi abadearen euskal-bertsook zituen:

Anai-burruka gaistoaz
odoldu zan gure erria;
Zuk, Andra Mari samurra
pakean zenduan jarri.
Berriro orain gorrotoaz
gure erriak sutu dira.
Ama, goi-pake dirdira
gure lurrera ekarri.

Oraingoan, baiña, gorrotoaren sua etzan beingoan itzungiko. Laurak bat izatekoa alderdi banatan jarri da: Naparroa eta Araba, alde batera; Bizkaia eta Gipuzkoa, bestera. Biak, bata bestearen aurrez aur, arerio amorratuen antzera, eta alderdi bietan, gazteria, iñorentzat gorrotorik izaten ikasi bakoia, burruka itsu orretan sartzera derrigortuta, alkar ilten beartuta! Orixe da gerrate guztietan gazteen zorigaiztoa, eta anai-gerrateetan zorigaztokoagoa. Orain 50 urteko gerrate orretan be oso gitxi joango zirean euren gogoz, edo aurrekoari gorroto eutsoelako. Artara iñok beartuta, bai. Orixe entzun deutsagu gero Naparroako seme askori, geienen eritxian borondatezko burrukatzailetzat egozan arren.

Euskaldunak bakarrik aurrez aur ziranetan, noz edo bein alde bateko eta beste koe artean jazo be egin zan alkartze bat edo beste, eta bertsolarien arteko jardunaldien bat be bai. Onelako alkartze bat, Alberto Onaindiak eralgi deuskuna, biotz ikutua egitekoa da. Markiña aldean izan zan, Bizkaiko eta Gipuzkoako mugetan. Markiñako seme orri berari an gudalekuan meza emoteko eskatu deutsoe: trintxera-trintxeran izango da, meza emoillean trintxeren gañetik burua agiri dauala, beste aldekoak ikusteko moduan: kanta ta guztiko mezea. Dana joan da ederto, kantuen eta otaitzen soiñua eta zurrumurrua besterik entzuten ez dala. Mez-erdikoan, mez-emoillean ostia gora jasotean, tiro-ots bildurgarria entzun da beste aldetik. Guztiak ikaraz eta zer izan ete dan itaunka lez dagoz euren buruari. Ardao-ontzia, kaliza, jasotean bardin. Meza ostean, Bizkaikoen aldetik beste aldekoai itaun au egin jake: Zer izan da mez-erdikoan atara dozuen tiro-ots ori? Beste aldekoen erantzuna: Zer izango zan ba? Mezerdiko txilin otsa. Geu be zuokaz meza entzuten eta kantari egon gara. Olantxe jo nai izan dogu mezako txilin ots ori.

Gazteria ez da gerrazale berez. Gerrea sortzen danean, iñoren aginduz doa armen atzean. Gitxi batzuen izaten da euren gogoz eta jakiñaren gañean gerrara joatea.

Gerrate bikotxa

Gure arteko gerrate ori bikotxa izan zala badakigu: guda-lekuetan eta arma ilgarridunez egiñikoa, bata; eta bestea, berbaz eta lumaz, paperetan eztabaidaka egin zana, alde bateko nai bestekoen errazoi ta zioak emonez, zuzentasuna nortzuen alde egoan azaltzen aleginduz, batak bestearen gatx egiñak salatuz. Beroegi egozan orduan askoren buruak gauzak ondo, zeatz eta berokeri eta alderdikeri barik ikusteko. Gaur, berrogetamar urte joan diranean, dana argiago ikusi eta epaitzeko gogoak argitua-goxe eta baretuago dagoz. Errazoirik ba ete euken militarrek gobernuaren aurka jagi eta jarteko? Zeinbesteko triskantzak ekarriko ebezan igarri balebe, eurak be artu eben bidea artuko ete eben eta iru urteko eten bako gerra aretara joko ete eben? Naiko argi dagoala dirudi, kalera urten ebenean, egun gitxi batzuetako gorabera izango ebelakoan egozala; gero, erlijio andi bakoak izan arren, erlijioa nastau eta sartu nai izan eben euren alderako arrazoi eta indartzat. Ori, militarren aldetik. Eta bestetik militarren aurka eta gobernuaren alde urten eta nausi ziran lekuetan, askok eta askok, guda lekuetan barik, eta gudalekueetatik urriñetan, beste ezertan baiño euren areriotzat eukezan guztieí erasoten geiago ekin eutsen, abade, prañlle ta errubako asko ilten eta olan bazterrak euren usteko arerioz garbitzen. Eta ori eurak euretara, iñori konturik emon barik, lege guztien ganetik eta azpitik.

Olan azkorentzat erlejiñodunen eta erlijio bakoan arteko burrukearen antza emoten jakon gerrateari. Guzurra ta abarra ebillen alde guztietan giroa nastau eta gero ta lorriñago ipinten. Atzerrietan, orraitio, gauzak goragotik ikusteko buruak otzago ta irakin barik eukezalako, ezezko biribilla emoten eutsoen militarrek ekarriko gerra ari kurutze-guda deitu gureari. Ezin eben ondo ikusi eleizgizon eta gotzain askoren jodabidea euren burua armadunen babespean ipiñiaz; eurena eben egiteko ederrena aitzu egiten ei eben, guztien arteko bake-egille eta adiskidetzaille izan bear ebela osoan aitzuta. Urte erdi inguruko epe laburrean eundaka odol-eriotze izan ziralata, gero iru urteko gerratea eta millaka ta millaka gizon-ilte bape ardura barik egingo ziran otz-otzik, eta asko bai asko, guda-oñetan barik, andik urrin atzeko errietan gorrotoz egiñak. Kurutze-gudea ainbeste zuzentasun izpirik bako odol-ixurtze ekarririko gerrate zitala? Ez eukan ezelango itxurarik. Ori ez zan kristiñauen berbetea, ori maomatarren izkuntza zan. Maomatarren lagun artean etozan etorri be gerrazale areik.

Ain zuzen, Vazquez de Mella politikoa karlista eta izlari ospetsuaren liburu bat etorri zan egun areitan nire eskuetara, politikoa orrek 1892 inguruan bere alderdikide bategaz erabilli eban eztabaidazko artikuludun liburua. Vazquez de Mella ez zan an bape gerrazale agertzen, eta kurutze-gerraren zale, gutxiago. Kurutze-gerra izateko, gerreak bear-bearrezkoa eban, besteak beste, onako baldintza au: kristiñau-erri osoak, Aita Santua buru dauala, arazoa ondo azertu ondoren, on-eritxia emonda gerokoa izatea, eta ez teologo batzuen ez nonbaiteko obispo batzuen on-eritxi eta baimenaz egiña, Aita Santuaren eta Eleiza osoaren baimenaz egiña baiño, egitekotan.

Orain berrogetamar urte gerrea sortu ebenak ez asieran euken olango baimenik ez oneritxik, ez sortu ta gero artu eben gotzain batzuen bedeinkapenak emon eutsen

eskubiderik gerrea on eta zuzentzat eukiteko, eta gitxiago kurutze-gudatzat eta gerra santutzat agertzeko. Orixe izan zan, askoren eritxian, gerrate aretan gotzain batzuk euki eben jokabiderik ezaiñena: militarrai eta alderdi bati euren buruak saltzea, arein morroi eginik arein babespean euren buruak jartea, euren kristiñau askatasuna galduaz.

Gaur orduko askoren jokabidea ezin garbituzkotzat autortuta dago. Gotzain eta abadeak alkaturik, 1971n, autormen apal au egin eben: «Apalik autor dogu eta parka eske gagoz, alde atan anai-arteke gerrateak alderdi banatan euken gure errian ez gendualako jakin guztien artean alkarregazko bakeak egiteko serbitzari izaten».

Orduan munduan zear zabaldu ziran eritxi bat edo beste aitatu nai doguz emen. Euskaldunen aldetik, Orixe idazleak egin eutsazan salaketarik gogorrenak orduko gerrateari. Guzurra, gorrotoa, eriotzea eta biraoa aurretik ebela etorri ziran armadunak, ekatx ikaragarri baten antzean, Napparroatik Gipuzko alderajausteko. Guzurra, guzur baltza, lenengo, euren aurrean komunistak eta komunisten laguntzailleak baiño besterik ikusten ez ebela. Guzur zuria, urrengo, beingoan irabaziko ebela uste ebenak, ogei bat egun joanda, beingo bateko azken onik ikusi ez ebenean: Zetako zoazie zuok, euskaldunok, gorriakaz bat egiñik, gugaz etorri barik?

Kristoren kurutzea agoan eta paparrean, baiña biotzean infernutarren gorrotoa ekarren. Infernua maitasunik bako lekua baldin bada, infernua bera ekarren areik bizien artera euren amorru, gorroto eta odol-ixurketaz. Eta infemuko berbetea be bai, biraoa. Orixe preso artu ebenean, birao urtika agertu ei jakozan atetara. Biraoka eroan eben Iruñiera, an San Kristobalgo zuloetan sartzeko. Gorri zalako batek, iltera eroaien batek, abadea eskatu, eta reketek zalakoak birao andi bat botata, erantzun gixajoari: «Abade eske i? Oa infernura bertatik». Tolosako emakumeak belarriak itxi bearrean aurkitzen ei ziran, kurutzeaz etozen ao-zikiñen biraozko berbetea entzunda. Elgoibarren, mojatxo geixozain batek gogor eraso bear izan eutsen olango biraokari batzuei, euren berbeta zantarra entzun eziñik: «Gorriak emen izan diran bitartean, eztogu birao bat entzun, eta zuok zatoze orain pekatu ori zeuon agotik kendu eziñik?»

Biraorik andiagotzat dauka Orixe gorrotozko jokabidea, Kristoren kurutzearen ikurrinpean ekarte eta Jesusen izenpean estaldu gurea. Ez ete zan ori biraorik andiena, Espiritu Santuaren aurkako pekatua? Alan esan eutsan bere Quitoko arrabeari: «Gogoan al daukan Ebanjelioak esana? Jainkoak egiñak deabruari egozte Espiritu Santuaren kontra dala bekatu, eta ez ditekela barkatu mundu ontan ez bestean? Eta deabruak egiñak Jainkoari egozte zer bekatu ote da?»

Kristiñau-gogo sendo zindoa eukan Orixe olango gerra bati kurutze-gerra esatea ontzat emoteko. San Kristobal ganeko illunpea bein itxita, azken baten, Frantziara iges egitea lortu ebanean, an askoren agotan ebillen guzurra ezin eban onez entzun. Emengo militarrek eraginiko eriotzak eralten entzunda, Frantziako abade batek ola-koak gerrako kontuak dirala esan eutsan Orixeri. Eta Orixe bai bertatik erantzun be: «Kontuz; Napparroan gorriak ez dabe gerrarik egin, ez dabe tiro bat bota; eta euretariko ainbat il dabez an. An zer jazo dan tutik ez dakizuela ixillik egotea obe dozue» (Orixe, Çuiton arreberekin»).

Atzerrietan emengo gerrateari egiñiko salaketak ez dabiltz Orixek egiñikoetatik oso urrin. Atzerrietan ezin eben ulertu ez ontzat emon gerrate ari kurutze gerra esatea. Atzerrietan ikuspegi ohea euken, gauzak obeto ikusteko eta berokeririk gitxiago bakotxari berea emoteko.

Ezagunak dira mundu guztian orduan Frantzian Maritain, Mauriac, Bernanos eta beste batzuk egiñiko salaketak eta emondako errazoiak. Ogeigarren gizaldian ez dago eskubiderik anai arteko alango gerra odoltsu bati «Guerra santa» «Cruzada» deitzeko, Francoren aldekoak egiten eben lez. Bernanos'ek Mallorcan ikusi eta salatu zituen eriotzak eta gizatxarkeriak ez ziran iñongo gizalegek, eta gitxiago kristiñau-legeak ontzat emotekoak, iñondik iñora be. Eta beste leku askotan, Badajozen antzekoak jazo zirean. Guda-lekuetan iñoz preso artuetaik bat be ez zan bizirik itxi. Soldaduak eurak autortuta jakin dira olango sarraskiak eta eriotzak. Arerioentzako bape erruki barik eroan zan askotan orduko burrukea. Zer izan zan Naparroakoa? Nongo ta zelango legeen izenean bialdu ebezan illen artera, ainbat ZiT eta gazte, eurak ezer egin barik, gorriak zirala-ta beste barik? Ori egiten ebenak, zelango zuzenbidea ezartera etozen, eurak besteen eskubideari eta bizitzari ain begiramen gitxi eukita?

Salamanca aldekoak ez ziran ixillik egon; ez ebezan, jakiña, gauzak bardin ikusten. Cruzada santa, iñoz izan danik santu eta garbiena zan militarrek sortua. Franco Jaungoikoak bialdutako gizona, Salbatzaillea. Musolini bera, «bigarren Constantino». Atzerriko kritikatzailleak, Españaren anditasuna ezin ikusi ebenak. Erdal-iztegiko itzik gordin eta zakarrenak jaurtiten ebezan eurentzat. Lotsaria emoten dau orduko idazlan asko irakurteak. Oraintsu, eleiz gizon sentzundun eta kritiko burutsua dan batek idatzi dauanez, «Maritain-ek orduan idatzi zituen arrazoiak gaur be iturritik arako ur garbia emoten dabe Salamancatik eta idatzi zirean txepelkerien aldean». Maritain-ek iñoanez, «anai arteko gerrea ez da sekula kurutze-guda izango, batzuen eta besteen arteko pekatua baiño».

Guzurra ta abarra salatu jaken Francoren adiskideai. Ukatu egiten ebezan oneik, euren aldekoen izugarrikeriak, edo ta, ohea ez dana, ixildu eta estaldu. Goma kardenalaren Karta-txostena, munduan zear zabaltzeko egiña, pekatu orretan jausi zan. Esaten ebana ez zan dana egia. Guzurra zan Francoren agindupean ez zala iñor iltera epaitua izan, epaiketa zeatza egin barik, gauzea ondo eta legebidez aztertuta gero. Gorrien gorrikeriak gorriegi, geiturik, ipinten zituen. Esaterako, abade illak sei millatik gora ziralakoa, lau milla baiño asko geiago ez izanik. Kristiñau laikoak illak 300 milla zirala, olan atzeritarren errukia irabazi eta arein gogoak militarren alde ipinteko. Baiña ez zan egia. *Un millón de muertos* nobela bati tituloa ipinteko, titulo gogorra gañera, ez dago txarto! baiña ez egia esateko. II benetan, gudalekuetan eta errietan illak barruan sartuta, ez ei ziran il 300 milla baiño; baiña propagandarako ez zan pillo txarra orrenbeste il eta martiriena, baiña guzurra.

Atzerrietan ez eben ukatzen ainbeste illen artean, asko bear bada, martiri il ziranik. Baiña Inglaterrako dominikoen aldizkari batek ona zer idatzi eban orduan: «Edozein katolikok errukiz eta tamalez ikusi bear ditu katoliko askok an gorrien

menpean artu dabezan eraso eta nekeak. Alan be ez da gauza zuzena eta bai kristiñautasunagaz bat ez datorrena, ori dala-ta, militarren alde jarri bear dala... Martiriak be badireala? Baiña erlijioa zikintzeko jokabidea da, sakrilejioa da, martirien odola anaiak alkar iltera berotzeko eta gerrea sortu dabeneztat erritarren laguntza eskatzeko erabiltea».

J. Bergamin olerkaria katolikoa ei zan, eta ona egun areitan idatzi ebana: «Katolikoa non dago ondoen, norbera Kristogaitik urkamendira eroan daikeenen artean, ala Kristoren izenean besteak ilten dabiltzanen artean?». Eta Mauriac katoliko beroak Claudel idazleari bein erantzuna: «Barcelonako asesino zitelenak ez dabe egin onako pekatu larririk: Kristo bera euren zitalkerien errudun eta laguntzaille egin gura izatea». Agirian dago olango idazleak Kristiñau-gogaiera garbiagoa eukela guda-giroan buru-belarri sartuta egozanak baiño.

Mujika Gotzaiña bere onetik atera ebana Goma Kardenala-ren kartan esaten zan onako au zan: «Militarrak zuzentasuna ondo eta legebidez eroiela». Ori ez da egia, idatzi eutsan Mateo Mujikak Aita Santuari. Nik kristiñau zindo askotxoren eta eredutzat ipinteko abadeen zerrenda luzea daukat. Ezelango epaiketa barik eta lege-itxurazko auzibide barik il dituez». Eta zer da Olaetxea Iruñeko gotzain zanaren arako deadarra: «Ez geiago odolik, ez geiago iñor ilterik, auzia zeatz garbian aztertuta legez bear dabena erabagi bakorik, beintzat».

Propaganda utserako guzurak be balio izaten dau, eta Vidal y Barraquer, Tarragonako gotzain eta Kardenal jaunak ba ekian nondik nora ebillen Toledokoari onako au idatzi eutsanean: «Zure karta ori, zuk idazten dozun edozer lez, txukun idatzita dago; propagandarako oso egoki deritzat, baina ez gotzaiñak, zuk gura dozun lez, izenpetzeko. Gañera, oso kontu eta arrisku andikoa da eleiz-agintariak eleizaz kanpoko agintarien eragiñez eta esanera itz egitea». Are geiago: Tarragonakoaren ustez, eta bai Pacelli kardenalaren ustez, karta orrek gorrien amorrua amorratuago baiño ez eban egingo eleizgizonen aurka.

Benetan zergaitik parka eskatu asko dago orduko eleizgizon askoren jokabidean. Gaur orduan idatzi ziran gauza asko irakurteak lotsea emoten dautso kristinau zintzo askori. Eretxi bardina aterako dau edozeiñek oraintsu agertu diran liburu batzuk irakurri nai baditu. Ona iru liburu argigarri: Juan Maria Laboaren, *Iglesia e Intolerancia: La guerra civil*, 1986; *La Iglesia del sigloXX en España, Portugal y América*, Jedin alemanaren Geigarria, Xgarren tomoa, Herder. Barcelona, 1987; Paul Vignaux, *Manuel de Irujo, Ministre dans la Guerre d'Espagne*, Beauchesne. París 1986.

Karmeldar euskaldunak nekepean

Gerrate aretako giro lorrin orretan karmeldar euskaldunak ikusi ebezan larri eta neke gogorren batzuk ezaguerazo nai doguz emen. Eta lenengo ta bein, KARMEL

onen ama edo amama izan zan *Karmego Argia* aldizkariaren eriotzea. Lengo urte baten esan genduan zeozer. 1936ko abuztukoa izan zan azkenengo zenbakia (1). Gerreak zati bi egin euskun gure erria. Aldi atan gauza eziña zan aldizkaria arpidedun guztiei bialtzea. Eta aldizkaria bera ateratzea be ez bape erreza, batez be idazlerik geienak guda lekuetarako deia ganean eukelako. Egun obeen zain etenda geldituko zan *Karmego Argia* aren urteerea. Zori obea edo adore obea izan eban giro atan beste euskal-aldizkari batek: *Jesusen Biyotzaren Deya*, jesuitak argitaratzen ebenak. Urrengo 1937ko jorrailara arte bizirik iraun eban. Zelan banandu eta zabalduko eben ez dakigu. Bear bada atera eta etxean gorde eta asko geiago egiteko ez eben modurik izango. *Karmego Argiak* ez eban jarraitu, ez lengo agintariekin, eta urrengoekin jarraitzeko itxaropenik ez. Militarrentzat KARMEGO ARGIA, titulua bera, epaikari batek esan ebanez, eta argizat eukanez, «separatista» ez zan, ba?

Karmego Argia-ko idazle jarraituenetako bat (aita Doroteo) 1946n beste aldizkaritxo bat asi zan plazaratzen. Artikuluen bat edo beste euskeraz idazten asi zaneke, laster etorri jakon ixiltzeko agindua, bein eta bigarrenez etorri be. Euskerearentzat ez goan plazara agertzeko eskubiderik.

Praille-éixean nekeak

Naparroako San Joakin Probintzia da Karmeldar euskaldunok barruan artzen gaituan barrutia, eta gure Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa ez eze, Errioxa eta Santanderko etxe batzuk barruan artzen ditu.

Naparroa lenengo egunetik militarren azpian gelditu zanez eta bertan burrukarik izan ez zanez, ango karmeldarren etxeak lengo antzean jarraitu eben.

Arabian karmeldar prailien etxe bat bakarra dago: Gasteizkoa. Eta bera kartzelatzat, espetxetzat artu eben, zati galanta beintzat, eleizea eta beste zati bat eleiztarrentzat eta praillentzat itxirik. Prailleak ziran bertako kapellau, espetxeratuentzat. Batzuk sartu-urten edo artu emon geitxoago euki eben barrukoekin. Alan, Aita Sabino Leringo semearen eta Nartziso azkoitiarraren eskutik espetxetik urtenda eldu izan jakuz Lauaxeta zanaren azkenengo olerki batzuk, euskeraz eta erderaz.

Gipuzkoako Karmel-etxeetan zarraparra geitxoago izan eben. Tolosa aldean, Altzoko prailleak Reketeak ango aldetik ain laster Gipuzkoan sartzen asi ziran ezkerro, laster asi ziran tiro-otsak entzuten eta badaezpadako arriskuari iges egitearren, eta leku baketsuagoren billa, alde egin eben andik. Praille bi edo iru baiño geiago ez ziran egoten bertan, baserri-antzeko etxe aretan.

Donostiako karmeldarren etxeak ikusi eben estualdirik andiena. Amara aldea ez egoan gaur lez etxez jantzita, eta andik ur samar Loiolako gudal-etxekeo militarrek prailleen etxetik tiro-otsen bat izan ete zan atxakiaz, eta militarrek an sartuta gogor egikiela-ta, tellatutik bera anarkista talde bat sartu jaken prailleai etxera. Etxea arakatu eta ezer bildurgarririk aurkitu ez ebenean, bada ezpada etxea ustu eta alde egiteko

(1) Ik. 30-36. orr.

agindu eutsen etxekoai. Prailleak alan egin eben, eta batzuk auzoko adiskide batzuen etxeetan ostatu artu eta beste batzuk Bizkai aldera jo.

Iraillean, Bizkaiko mugetan gelditu zan gudalekua. Eibar ganeko Arrate militarren mendean geldituta Eibar bere armaola ta guzti ustu egin zan eta Bizkaialdera aldatu. Orduan karmeldarrak be, bertan euken etxea ustu egin eben. Markiñako praille-etxeari, kanoien tiro-barruan gelditu zanean (eta bein aurre-aurrean jo eban Malax aldetiko obus batek), zoritxar berbera etorri jakon: ustu bearra. Nora? Praille gazetxo mordoia egoan bertan, naparrak eta Euskalerrri guztikoak, eta inguruko praille batzuen jaiotetxeetan billatu jaken ostatua. Beste batzuk Zornotzako eta Begoñako praille-etxeetara jo eben.

Zornotzako praillen Ikastetxea, udan mutil ikasleak euren etxeetara bialduta, usturik gelditu zana, gudalekuetatik etorten asi ziran zaurituentzat eritegi biurtu zan, prailleak euren alderdia eta zaurituen kapellautza eukela. Larreako etxea, praille soiñekoa artu barrien gazteentzako zana, zati bat gudalekuetara joateko egozan gudariantzako artu eben, eta alan bizimodu bikotxeko egin: zati bat prailleentzat, eta beste bat, gudariantzat, eta eleizea kanpoko ta barruko eleiztarrentzat. Zornotza aldean, beste praille etxe bat aitatu geinke, irugarrena: Etxanoko parroko jaunak eskiñi eban bere etxea. An sartu ziran ostatuz beste praille-etxeetatik etorririko asko. Biotzez be biotzez eskertzeko mesedea egin eutsen prailleai Timoteo parroko jauna zanak.

Santander aldean Euskalerrriko karmeldarren Probintziak, Naparroko san Joakin izenekoak, iru etxe zituen: Santander-en bertan, Hoz de Anero-n (Bakartegia), eta Toranzo ibarrean Iruz-en. Beste etxe bat be bazan eta bada Karmeldarrena, baiño Burgosko barrutikoa, Reinosa-n. Gero baziran beste barrutietako praille batzuk be, ikastera edo irakastera, edo itzaldien batzuk egitera Santanderrera joanak. Batzuk eta besteak ango praille-etxeak itxita, Bilborantza jo eben babes-billa, edo emendik Frantziara itxasoz igaroteko aukera eta ontzi billa. Alan erraztu jaken Frantziako bidea Naparroako, Burgosko eta Castellako karmeldar batzuei, gero euren etxeetara joateko. Aitamena merezi dau batek, Aita Krisogono izenekoak. Gaztea zan, pentsalari eta idazle azkarra, urte gitxitan entzute andiko egin zana. Avilara eldu zanean, irratia eskiñi eutsoen, Bilbo aldeko giroaren aurka berba eragin gurez; baifia berak azak emon eutsezan, Bilbokoan aurka zer esanik ez eukala-ta.

Beste lau praillek ez eben izan orrenbesteko zorionik. Santander-en gelditu ziran bi, Aita Atanasio Aginagalde, errezildarra, eta birritan Probintzial izana. Santander-en gelditu zan, an Ameriketarako ontzia artu eta Ameriketako praille euskaldunen etxeak ikusi eta ango barri emoteko ardurea emon jakolako. Gabonetan eldu zan aren karta bat Bilbora, Begoñako Karmelora. Andik egun gitxi barru 1936ko urte berean, Gabonzar inguruan Santanderko Chekaren batekoak eroan eta Cabo Mayor-en il eta andik itxasora bota ebelako ustea dago. Beste bat, Ruperto anaia, Andueza abizenez, naparra, Garrotzeko semea. Ostatuz egoan etxean aurkitu ebenean eta nor zan itandu, «karmeldarren sakristaua», berak. Artu ta eroan eben, eta ez zan aren barririk jakin geiago. Cabo Mayorretarako bidea, nonbait, 39 urteko praille napar onen azkenengoa be.

Beste bik lortu eben Santander aldetik urtetea. Mañariarrak biak: Melkiades Basagoitia, eta Simeon Erzilla. Biak gizon elduak, 49 eta 48 urtekoak. Euren errira

eltzea lortu eben eta an egon ziran erriarentzat mezak emoten eta abade-lanak egiten 1937ko apirilaren 18ra arte. Domeka eguna zan. Gudalekutik urregi egozala-ta, etxea ustu eta alde egiteko esaten ei eutsen adiskide batzuk. Baiña eurak etxean naiago. Domeka orretan gaberdian Perezagua batalloiko miliziano batzuk itaun batzuei erantzuteko Bilbora eroan bear ebezala-ta, urrengo egunean ilda agertu ziran biak Gallarta eta Santurtzi bitartean, billutsik eta paparrean Karmengo Amaren kutuna ebela.

Eta Begoñako Karmelo izenez ezagutua dan praille-etxea? Inguruko karmel-darren etxerik andiena zan bera, eta eleizarik luze-zabalena eukana. Teologoen ikaste-txe izan zan ia beti. Urte atan bazirean 34 teologi-ikasle, eta guztiak gudaritzarako adiñekoak. Laster geldituko zan ia praillez ustuta, gazteok or zear gudalekuetara zabalduko ziranean. Laster ezarri outsoen begia Begoñako Karmelori, zeregin baterako edo besterako. Lenengo zeregiña Gipuzkoatik iges etorritakoai ostatu emoteko izango zan. Gero gudarien egotetxe izateko, baiña Gipuzkoatik etorriak bertan jarraitzen ebela. Azkenengoz, espetxe izateko artu eben. Espetxetako gelditu zan azaroaren 14tik aurrera.

Beraz bazituen etxe onek iru bizimodua: zati baten, Gipuzkoatik iges egiñak; beste baten, presoak; eta irugarren baten, prailleak eta eleizea, etozen eleiztar guztientzat. Eta guztien jana gertateko arazoa prailleen sukaldariaren eta bere laguntzaillen ganera etorren. Praille ikasleetako bat presoen bulegoaren arduradun, donostiarra bera, Eusko-Ikaskuntzako langeletan oitua, eta praille sartu baiño len, Euskal-antzertiaren Katalogo ederra argitaratu ebana: Jose Arana, edo Basilio anaia, prailletzan. Ez zan kintopekoa; baiña meza emon bakoa zan, eta, jakiña, sakristirako eske asko artzen zituen presoen meza ta elizkizunetarako, abadeen bat be presoen artean bazan-eta.

Karmeloko iru bizimoduen ibillia bake onean joian, 1937ko urtarrila laugarrena arte. Egun orretan, eguerdi ostean, militarren egazkifiak gogor jo eben bonba-urtika Bilbo aldea. Alde egin ebenean, gizon eta emakume aldra andiak urten eben kalera espetxeetan egozanan buru eske. Larrinagako espetxea, Angeles Custodios-koa, eta Karmeloko alkarrengandik naiko ur dagoz, eta lenengo bietan naiko triskantza eta eriotza egingo eben, baiña Karmelokoan ez eben barruraino sartzerik izan, baiña naiko gogor egin bear izan jakien erasotzailleai, Eusko-jaurllaritzatik indar barriak etorri arte; alan be, lau edo bosteraino eldu ziran illak, atari inguruan gertau ziranetatik. Ez ziran ordu atsegiñak izan, bertan egun atan egozan ogei bat prailleentzat. Baiña oso ta bizirik urten eben guztiak, Jainkoari esker.

Andik aurrerako egunak bare samar joan ziran bai Karmeloko prailleentzat, bai Larrea eta Zornotzakoentzat, udabarrian sartu arte. Bake aldi orretan, lau teologo gaztek Frantziara joatea lortu eben, an ordenak artzeko, eta beste mordo batzuk lagun egin jakiezan, gero Frantziatik Ameriketako praille-etxetara aldatzeko.

Esan daigun, urrengo udaldiak, 1937koan, militarrek jaubetu eta agintari jarri ziranean be, Begoñako Karmelok espetxe jarraitu ebala (1941ko azkenaldirarte), eta Zornotzako Ikastetxeak gerran zaurituentzako eritegi izatea itxita, emakumeen espetxe egiñak jarraitu ebala 1948ra arte. Amaika urte geroagora arte ez eben agintari barriak Zornotzako etxea jarein.

Militarren eraso barria eta neke barriak prailleentzat

Neke barriak sortuko dira, bai, bigarren eta azkenengo erasoagaz batera. Eta emen guzurtauko da Francok Goma Kardenalari emon ei eutsan berbea: ez zala euren artean beste abade edo praille ilterik izango.

Eta lenengoa lez, bitarikoa izango da oraingo eraso be: armazkoa eta lumazkoa. Lumazko eraso eta etorri zan aurretik. Axatzaille zitalak agertu ziran Donostiako egunkarrietan. Loxintzari koipetsu agintarientzat, eta zital eta lotsabako aurrekoarentzat. Zitalena, Sierra Bustamante. Zomotzako praille-abadeen aurka jarri dau bere begikuna. Prailleak eta abadeak, biak batera jo nai ditu eta bere lumari darion zitalaz zikindu eta il. Baiña zer ekian Sierra Bustamante orrek ango barririk?

Zomotzan bazan *Jaungoiko-Zale* izeneko erakunde bat, Bizkaiko abade euskaldunen artekoa, kristiñau ikasbidea euskaldunai euskeraz irakastea lematzat eukana; 1931ra arte 191 In asita, Jaungoiko-Zale aldizkaria atera eban eta 1931tik aurrera *Ekin* asterokoa. Erakunde orren egitekoa: kristiñau-ikasbidea euskeraz zabaltzea, kristiñau-ikasbide egunak eta sariketak errietan eratzea, kristiñau-bizitza biztu eta argitzezko liburuak ateratea, eta abar. Ekintza guzti orren eragille, bere Zomotzako etxetik, Zirilo Arzubiaga abadea. Bertan eukan Jaungoiko-Zale Bazkunak bere inprentatxoa. An ibiltan zan zoli bai zoli abade otxandiar ori. Ain zuzen, militarrek euren gerratea asi eben egunean, D. Zirilo Arratian kristiñau-ikasbide eguna ospatzen ebillen.

Zomotzan karmeldarrok geure aldizkaritxo bat ateraten gendun, *Karmengo Argia* izenekoa, *Jaungoiko-Zale-ren* irarkolan ateraten zana. Aldizkari onen egitekoa: kristiñau-bizitza eta kristiñau-otoitza irakastea, Karmengo Amaren oneraspena zabaltzea, karmeldarren santuen ezaupidea, karmeldar euskaldunen eskuetan egozan atzerrietako mixiñoen barri emotea eta abar.

Guzurrik esateko bildur barik esango geunke Sierra Bustamantek ez zituela ez *Jaungoiko-Zale* ez *Karmengo Argia* ez *Ekin* ezagutzen eta ez zituela iñoz irakurri, ulertzeko be gauza ez zalako. Ez eukan alan ezer esatekorik ez karmeldarren aurka ez abade Bazkunaren aldizkariaren aurka. Baiña besterik ezean, zaunka egingo dau. Or nonbaiten, Euskalerritik urrin baten, *Elixir Carmelitano* egin eta zabaltzen zala badaki, eta D. Zirilo eta Zornotzako Karmeldarrak Elixir ori zabaltzen ipiñiko ditu. Eta zer da Elixir ori? Sierra Bustamanteren ustez, edaririk zitalena euskaldunei eradan eta Españaren aurkako gorrotoa sortzeko. D. Zirilo beretzat ez da besterik: «uno de los ejemplares más dañinos de la fauna jelkide», «cojo y enrevesado», gaiñera. Olakoxea zan orduko gazetalari geienen berbete gozoa. Ori idatzi zaneko, eleizgizon bat edo besteren eriotzea erabagita egoan militarren aldetik non edo an; baiña erabagita.

Aita Erroman il eta beste praille batzuen larriak

Aita Erroman Zaldibar-ko semea zan eta urte asko egin zituen Larrean eta Zomotzan mutiko praillegeien arduradun: mutikoentzat eguneroko meza emoten, euren goizeko eta arratsaldeko otoitzak zuzentzen, eurai jolas aldietan laguntzen. Ez

Larreako ikastetxean ez Amorebietakoan ez zan kanpoko eleiztarrentzat kapillarik ez eleizarik. Aita Erromanek ez eban iñoz urten errietara sermoegiñen; aren itzalditxoak mutikoai otoiiz egiten irakastekoak eta olakoak ziran.

Azkenengo urtean, 1936koak Naparroako San Joakin Probintziako Batzarrak Zornotzako Ikastetxeko nagusi egin eban, eta an jarraitzen eban, 1937ko maiatzaren 18ra arte. Egun orretan bera bakarrik dago an, besteak, gazteak, kapellau joanak direalako, eta besteak, adin andiagokoak, Frantziarako bidea artu ebelako. Egun orretarako geixoz eta zaurituz ustuta gelditu da Ikastetxea, eta erria tiro biren artean. Berak ez dau alde egin, etxeari jaube egiteko. Eta illuntzerakoan lagunen billa igon dau Etxanoko parroko jaunarenera, an dagozen beste praille batuzen artera.

Urrengo egunean, Rekete talde bat etorri jako eurekaz eroan bear dabela-ta. Itxura baten, Larreako praille-etxera daroe; baiña etxearen ortuko orma ondora eldu diranean, zer diñotsoe? Ilteko agindua daukela. Eta geiagoko barik, il egin dabe eta bertan itxi gorpua. Lurrik be emon barik! Komandante Lastra zanaren, urrengo egun baten kotxeak bazterra jota il zanaren agindua ei zan. Eta aginduaren egillea, Gipuzkoako Rekete taldea, Luis Intxaurrendieta abade kapillaua buru ebela. Egun batzuk geroago, an aurkitu eben beste rekete lagun batzuk gorpua eta zuloa egin eta bertan emon eutsoen lurra.

Eriotz onek iltzaillen lorratzik ez isteko asmo baltzaz egiña dirudi. Tiro galdu batek illa, gorriak illa ete zan? Ez, zuriak, Francoren agindupeko gorriak il dabe. Baiña reketeen batalloi artekoak, euren artean Jose Artetxe idazle entsutetsuak eta Iñazio Aramaiok, Aita Erromanen mendeko Larrean amaika urte lenago izanak, ondo ekien noren eskuz eta noren aginduz izan zan eriotza lotsagarri ori.

Guzur andiagoa bota eutsoen karmeldarren Probintzialari, militarren aurrera kontu eske agertu zanean: «Es que era el jefe de la Cheka de Amorebieta!» Praillea illaz gaiñera, guzur ergel itxura bako bi: Zornotzan Chekaren bat bazala asmau eta aita Erromani Cheka aretako buru zala egotzi. Barru loi zitala bear, olako eriotzak egin eta olako guzurak asmatzeko! Non da Francoren eta aren menpekoen zuzenbidea, eta epaiketa zeatz eta zorrotzik barik ezelango zigorrik ez emotea? Goma Kardenalaren idazkietan eta Francoren guzurrezko berbetan, antza.

Orraitio, ez dira ango karmeldarren nekeak or amaitu. Aita Erroman illik gorpua bertan bera itxita, urrengo egunean, beste rekete aldra bat joan da Larreako praille etxeraño. Iru praille aurkitu dituez an: Aita Rafael, bertako nagusia, Aita Jose Domingo, bertako praillegai soiñekodunen arduraduna eta aita Abelino, bertako semea, ia irurogei urtekoa. Beste guztiak alde egin dabenean, irurok bertan gelditu dira. Reketeák, beste barik, eurai jarraitzeko esan deutse. Nora daroez?

Zornotzako Ikastetxearen ondoan bizi da Bernardo Astigarraga, Begoñako Andra Mari eleizako parroko jauna, zarrez edo bildurrez Begoñan ordezkoa itxita gerrate-egunak Zornotzan egin dituana. Askotan izan da Ikastetxe aretan meza emoten. Iru prailleak armadun taldearen erdian ikusi ditueneko, estukuraz esan deutse reketai: «Zer daroazue praille orreikaz? Arren bai arren, ez egizue gero ez-egitekorik egin». Reketeak, edo rekete diralakoak, giputzak dira, mutil onak. Aita Erroman il dabenak

be bai. Nagusien esanera dabilta. Ez da eurena errua. Baña Astigarraga abadearen berbakaz kezkatuta, bada ezpada be, im prailleak bizirik eroan dabez Durangora, ango komandante egiten dauanaren aurrera. Komandanteak bere artegatasuna erakutsi dau, berekautan esaten baleu lez: «Bizirik dakazuez nigana?». Prailleak zakar artu ditu, baiña itaunketa bat egiten asi jake. Aita Rafael semolari izan da, Gipuzkoan eta Bizkaian erri askotako pulpitueta ezaguna. Eta komandanteak: Eta zer gai erabili dozu zure zermoetan? Eta prailleak erantzun deusanean, «bai, —diñotso prailleari—, beti uskeriak eta pekatutxoak astintzen, ete ezer ez, pekatuik andienaren aurka, Españaren aurkako pekatua jo ta astintzeko». Azken baten, ez daki zer erabagi, eta itaun au zuzendu deutse, bere barruko lorra arintzeko lez: «Baiña badaukazue iñor zuen alde erantzutekorik?». Eta Jose Domingori bertatik etorri jako bumra izen bat. «Bai, Jordana jenerala». Jose Domingo aita Larrearra etorri barria da; urterik luzeenak Gasteizen eginak ditu. Eta Gasteizen karmeldarren eleizan egiten eben militarrek eleizkizunik asko. Ortik aren militarrazko ezaupidea. Eta Jomada orren izena ez zan egun areitan txarra babestzat artzeko. Francoren lenengo urteetan gorengo karguetan ebillan. Jeneral orren izenak atera zituen prailleak ilteko arriskutik eta Durangoko komandantea bere eskuturatik. Onek Gasteizera bialduko ditu im prailleak, an espetxerik espetxe erabili ta Begoñako Karmelora aldatu arte.

Eta barrero gure itauna: Noren eskuetan egoan orduan armadunen artean zuzena egitea eta areriotzat egozanez bizia bera? Mateo Mujikak Goma Kardenalak baiño obeto ezagutzen eban egoera, obeto ekian zer jazoten zan alde batean eta bestean. Errazoia eukan Kardenalaren txostenari puntu onetan «ezta egia, ezta egia» erantzun eutsanean. Berak eleizgizon eta laiko askotxo ezagutzen zituen, militarrek ezetarikoko epaiketa barik bizia kendurikoak.

KARMEL aldizkari onetan aitamena merezi dau beste karmeldar gazte batek: Norberto Morales, Corellako semea da. Begoñako Karmeloko teologi ikasleetakoa. Guda lekuetan ibilli da kintopekoa dalako. Militarren azkenengo erasoan Otxandio aldean militarren eskuetan jausi da, eta beste lagun batzuk autortu ebenez, bizirik. Rekete talde batek artu dau Gasteizera preso eroateko; baiña ez Gasteizen ez beste iñor ezta aren aztarrenik aurkitu. Bejoakio gure esker onezko aitamena, Corellako semea izan arren, euskera ikasi eta iñoz *Karmengo Argian* artikulu bat edo beste idatzi ebalako. Beste idazle gazte bat galdu genduan gerrate aretan, militarren artean. Gasteizen ikasle zala gudarako deituta urriñeko gudaleku baten, beste aldekoen bala batek il da: J. Gerrikaetxebarria. Bertsoz eta prosaz idazle azkarra etorren eta erakutsi txarrak ez zituen emon *Karmengo Argiaren* orrietan. G.B.

Beste praille bat eta abade bat, ilteko zigorpean

Franco-ren indarrak Bilbo artu ebenean, Karmeloko espetxea utsik gelditu zan. An ordurartean preso egonak, Eusko-Jaurlaritzaren erabagiz, Begoñatik gora 1937 bagillaren (ekainaren) 18ko gauean Santo Domingoko tontorrera eroan ebezan, eurentarren eskuetan isteko, bizirik eta osorik. Urrengo gabean reketeen batalloi batek bete eban presoak itxitako utsunea Karmelon. Baiña sekulako triskantzea egin eben

lengo presoak an itxiriko gauza guztiekaz. Ez eben maleta bat itxi euren baionetakaz zabaldu edo zulatu barik eta barruko gauza baliotsuenak eroan barik.

Andik egun gitxi barru Karmelo preso barriz betetan asi zan: lenengo, abadez eta praillez, eta gero osteango gizonez. Oraingoan epaiketa-itxurea emon gura deutse, bai, eleizgizonen eta guztien aurkako auziai. Eleizgizonen epaiketen barri emonez liburuak dagoz egiñik. Guztitariko zigorrak leporatu jakezan: gorengoetatik beren-goetarakoak: ilteko epaiak, 30 urte, 20, 16, 12, 10, 8, 6 ta biraiñokoak; batzuetan fiskalak eskaturiko maillakoak, beste batzuetan gorago ta beragokoak. Eta beste zigorrak emoten ez eutsenai, Euskalerritik kanpoko erbestaraldia. Aita Martin, *Karmengo Argia-ren* lenengo zuzendari izana, Cadiz-eraino bialdu eben. Beste batzuetzat Santanderren geunkazan etxeak izango ziran babesleku.

Urteetarako espetxea ezarri eutsenak or ibilli ziran ortik ara, Nanklares, Dueñas eta Sevillako Carmonaraiño, euren zigorrak bete arte, edo auziak barrero ikusteko legea emonda, ia guztiai 6 urteko zigorra itxi eutsenean, baldintzazko askatasunean, baiña erbesteetara urtengo eben arte.

Gauzak jakifiegiaik dira. Orregaitik, emen eriotzarako epai biak bakarrik aitatu eta argitu nai geunkez. Aita Leon Aranguren-ena bata, eta Frantzisko Errazti, abadearena bestea. Aita Leon, gerrateak Larreako praille etxean aurkitu ebana, gudarien kapellau eta borondatzeko kapellau izana. Frantzisko Errazti, barriz, Barakaldoko eleiza baten arduradun izatea beste pekaturik bakoa.

Barregurea emoten eban epaiketa areitan entzuten zan betiko leloak; batean *adhesión a la rebelión*, bestean *auxilio a la rebelión* egozten eutsen geienai. Besteak ziran beti errudun, besteak guerrea ekarri ebenak eta militarrena zuzenbidea. Eta gero euren propagandak ixildu barik eragoion: odol-errurik ez daukanari ez jakon ezer egingo. Baiña arein zuzenbidetik nor ez zan odol errudun?

Zein pekatu zan Aita Leon orrena? Bein gudalekuen batera joateko ziran gudari batzuei mezea emon eta Gure Jauna azkenengoz lez artzeko berotu zituelakoa. Olan, balen aurrean bildur gitxiago eukiko ei eben. Errazti Jaunarena: ia militarren egazkiñak ikusita zer esaten eban bere barruan, edo bear bada, agotik kanpora, epaikariak ori itanduta, emon eban erantzun au: «hojalá se caiga el último», irribarrez esanda. «Y qué iba a decir?»

Pekatu larriegiak ziran orreik abade bati eta praille bati bizia parkatzeko. Beraz, Aita Leoni fiskalak eriotzea eskatu eta eriotzea emon eutson, eta Erraztiri 30 urteko espetxea eskatu eta eriotzea emon. Eta ez auzi-maiak bakarrik, Francok berak be bai. Non zan, ba, berak Kardenal Gomari emon ei eutsan itza? Eriotz-zigorrak Francok berak izenpetu bear zituen, eta praillea ta abadea, biak ilteko epaia ikera barik izenpetu eban militar zuzenzale erruki bakoari egokionez. Bein Francok izenpetu ezker, urrango egunean bete bear ei zan zigorra. Zurrumurrua Begoñako Karmeloko aita nagusiagana, aita Teodorogana eldu zan. Eta or asi da aita onen estukurea, ara jo eta ona jo, Iruñako Olaetxea gotzaiagana eta Goma Kardenalagana, eta biak Francogana, arren, orrenbesteko ez-egitekorik ez egiteko. Zer esango ete eben atzerrian oindiño abadeak be ilten jarraitzen ba eben? Eta epaia beñik bein ez zan bete,

atzeratuta gelditu zan. Eta bada ezpada, iges egiteko erraztasunik ez emotearren edo, biak beste abadeen artetik banandu egin zituezan arik eta andik urte bigarreanean, 1939n, Italiarren ekitez edo, eriotzaren parkamena etorri jaken arte. Orra zetan gelditu zan bere burua biziaren eta eriotzaren jabe egiñik eukan gizonaren berbea eta zuzentasuna.

LOTSEA EMOTEN DAU gaur olango epai eta jokabideak gogoratzeak, eta ori dana zuzenbidean jarteko jagi ziran gizonak eginda, eta dana Jaungoikoaren izenean, Jaungoikoaren izenaren ezaingarri.

Eurak Madrilgo Gobemuari ez zala kalearen jabe arpegira botaten, guda lekue-tatik kanpoko eriotzak eta triskantzak eragozten ez ekiela-ta, gizonaren bizia edozeiñ gizatxarren eskuetan isten ebela-ta. Eta noren eskuetan egon zan Naparroan eurak il ebezanen bizia, Gipuzkoan il ebezan abade eta laikoen bizia? Noren eskuetan Aita Erromanen bizia? Eta gudalekue-tan garbitu ebezanen bizia, etsaiak armak itxita gero? Neuk be entzunda daukat neure ezagun andi bati eurak Aragoi aldeko gudaleku baten egin ebena. Gorriak gogor eutsi eutsoen mendi tontor bati. An jarraitu eben tiro-gairik barik gelditu ziran arte. Militarrek tontor aren jabe egin ziranean, ez ei eben «gorri» bat be itxi bizirik.

Eurak be bein autortu eben ez zirala eurentarrak eskupean eukiteko gauza, Mujika gotzaiñari jazoak orixe diñosku. Aita Santuak gotzain orri Gazteizko gotzain jarraitzen isteko eskatu eutsenean, Francoren gobemuak ezezkoak emoteko ona zelako arrazoia atera eban: «Goztzein ori Gasteizera badator ez gara gauza izango orren bizia zaintzeko». Gotzain baten bizia zaintzeko izan ez, eta noren bizia egoan seguru olangoen eskuetan?

Lotsea dator gaur aurpegira Kardenal Gomaren itsutasuna edo itsukeria ikusita. Zelan eukazan, itxura baten, begiak ain zur eta argi, berak aurrean ez eukezan gorrien gorrikeriak ikusi balitu lez eta guzur ta guzti munduaren aurrean salatze-ko, eta zelan jarraitzen eban ain itsu berak aurrean eukana ez ikusteko? Non egoan Iruñeko gotzaiñaren «no más sangre, no más sangre» oiuari ez entzunarena egin edo ez sinisteko?

Abadeen eriotzak, egia esan, tamalez ikusi zituen, orraitio; baiña neurri bardiñean abade areik iltzailleen aurrean jarri zituen zioa. Lotsagarria eta tamalgarria benetan Goma kardenalaren jokabidea.

Kardenal onen bizian, Toledoko Gotzain egin eben ezker, kanporako propaganda egin bear andia ikusten da. Alan egin eban 1934n Buenos Aires-ko Mundu guztiko Eukaristi batzarrean; bardin egingo eban 1939 Budapest-ekoan. Eta Tarragonako gotzaiñak, Vidal y Barraquer zanak, polito esan eutsan Españako gotzaiñai izenpetu erazo nai eutsen Karta-txostena Francotarren propagandarako egokia zala, baina gotzaiñak izenpetze-ko ez.

Mujikak eta Vidal Barraquer-ek ez eben karta ori izenpetu. Eta poza artu genduan Cuban Gotzain anditzat egoan euskaldun batek Gomaren kartari ez eutsala erantzunik be emon. Ez berak, ez beste Cubako gotzaiñak. Balentin Zubizarreta izan zan, Markin-Etxebarriko semea, karmeldarra. Gerratea asi zanetik, etenbako artu-emonean egon zan kartaz Begoñako karmeldarrekin, Bilbon ateratzen zituelako bere teolo-

giazko lanak, inprentarako eta utsak zuzentzeko. Propaganda usaiña artu eutsan, dirudianez, Españatik bialdu eutsoen karta ari, eta ez eban erantzun be egin.

Karmeldar euskaldunen aurkako Francoren erasoia Indiaraiño eldu zan. An euki dabe oraintsurarte emengo karmeldarrak Mixio bat eta ango Seminariorik andienaren ardurea. Ango irakasle batek edo bestek, emengo gauzak argitzeko asmotan, Inglaterrako eta ingeles izkuntzako aldizkarietan idatzi eben artikulu bat edo beste. Ez ziran, jakiña, francotarren gogokoak izan. Eta militarren gobemuak darda gañean ipiñiko ditu or zearreko bere embajadorak, ia Indiako praille areik ixiltzea edo ixildu erazotea lortzen eben.

Eta beste eraso bat: gerratea amaitu eta andik iru urtekoa. Markiñan iru urterik iru urteko Naparroako San Joakin probintziko praille-batzarra da, eta Bilboko Gobemadoreak karta bialdu deutse batzarrekoai nortzuk nagusi izentau bear ez dabezan esateko eta Francori menpetasun-agiria bialdu bear dautsoela agintzeko. Batzar arek gai onetan zelango eztabaida izan zan txitik ez aterateko ziña egin eben guztien artean erabagita. Baiña egiak bere eskubideak eta jakinbideak daukaz, eta beste nonbaitetik jakin da arazo au, eta Francotarren erasoia au.

Guzurak anak labur dituela diño esaera batek. Baiña buru guztietan ez jako bardin jazoten. Ia urtea da KARMEL orrietan olako guzur bat buru batzuetan ondo sustraitua, salatu genduela: francotarrak alako edo olako abade mordoia il ebela, baiña armaturik aurrera agertu jakezalako. Guzur utsa! Gerratean kapellau ibilli ziranai be ez eutsen olango salaketarik egin (2).

Agoa betean esango deuskue gizon sinisgarritzat dagozanak militarren arteko kapellauak ez ebela armarik erabiltzen. Beste guzur bat. Kapellau bat baiño geiago ikusiak gara euren pistola ta guzti arrotxo ibilten. Gure kapellauai ezeutsen olangorik ikusi. Aita Erroman, Aita Leon Aranguren eta Frantzisko Errazti abadea ez ebezan iñok armadun ikusi. Gitxiagogaitik eroan ebezan eurok edo eroan gura izan ebezan eriotzera.

Francok iñoz abaderik edo eleizgizonik ez ilteko berbea emon ba eban, berba ori jan egin eban, Leon eta Errazti ilteko epaia izenpetu ebanean.

Len aitatu dogun *Historia de la Iglesia*, Xgarren tomoak, arlo andia emoten deutso Huidobro jesuita zanari, Madrilgo gudalekuetan egin eban lanagaitik, eta badirudi jesuita ori izan zala kapellau guztien eredu, guztiak aren bidea jarraitu balebe lez. Siñisgatx egingo jako uste ori bati baiño geiagori. Eta olango liburuetan ezta agertuko Aita Patxi pasiotarrak gudalekuetan eta gero preso langilleen artean egiñiko lanaren aitamenik. Ori be egia begi bakarraz ikusteko erea da. Eta ez egiatzkoa, guzurtia baiño.

Oindiño itsutasuna nausi ta lodi dabil buru batzuetan. Iñoren aldea, besteen ona ikusi eziña gogorra da. Olan gogoak eta biotzak bananduta, alkarrengandik urrinduta ibilliko dira.

(2) Ik. 1475-1476. orr.

Gogoa egiari itxi, biotzak maitasunari eta alkartasunari zabaldu ez, eta olan ez dira beteko ez *Laurak Bat-en*, ez *Zazpiak bat-en* amesak, Arantzazu-Oiñatiko Andra Mari batzarrak egiñiko amesak. Lengo gorrotoak edo barriak sortuko dira. Orregaitik Kristiñau batentzat Arantzazuko kantu aren bertsoa otoitz bero eginik barriztau bearra:

Anai-burruka gaiztoaz
ez bei sutu gure erria:
Zuk, Andra Mari samurra,
pakean egizu jarri...
Ama, goi-bake dirdira
gure lurrera ekarri.

RAFAEL SANZIO MARGOLARI BARDINAKOA (1483-1520)

Rafael Sanzio Urbinotarra, bizi izan zanik ona, iñoiz ezagutu izan dan margolaririk andiena dalakotzat dago. Gazterik il zan: 37 urte bete barritan eroan eban eriotzak bizien artetik; baiña ez, lenago, bere eder-miñaren eta ezin agortuzko as-mamenaren ezaugarri, margo-lan ikusgarriak itxi barik.

Ezin goragoko maillea autortu eutsan mundu guztiak bere bizian eta gaur be autortzen deutso. Bere aldian, ainbeste ertilari punterengo gaillendu ziran egun areitan gorengo maillako margolaritzat euki eben, eta aintzakotzat euki dabe urrengo belau-naldietan, gure egunotara arte. Ez ei da iñoz ezagutu margolaritzaren legeen jabeago izan dan eder-lantzaillerik, ez alde orretatik goresmen ago betezkoagorik artu izan dauanik.

Bera il ondorentxoan, Sabba de Castiglione idazleak esango ebanez, «egia esateko, Rafael margolari uts-uts osoena da» (1555). Eun urte geroago, Felibien fran-zesak, eder-kontuan eritxi-emoillerik munduan izan danik jakitunetakoa izanak, ona zer autortuko eban bein: «Rafael izan da izaditik geien ikasi dauan ikaslea eta ederra begietaratzeko Platonen legeak beteten ondoen jakin dauana» Urrengo gizaldian, XVIIIkoan Walpole inglesak, zer diño? «Osozko artista izateko bear diran doe guztiak aurkitzen dirala Rafael onegan». XIX mendean, Renoir margolariak, Rafael onen «Aulkiko Andra Mari», ikusita, ona zer idatzi dauan karta baten: «An ikusi dauala margoztuta asmau al leiteken margolanik akatsik bakoena, garbiena, bakunena, ezin arrigarrigo eta bizi-antzekoagoa».

Onelako autormenak, aldi guztietakoak, pillaka ekarri geinkez. Guztiak ago batez autortzen dabe Rafaellek margolaritza bere azur eta mami egiñik eukan gizona

* Saski-naski (1988, 37.zenb.) 6-14.

izan dala. Eta, ori gaur be bai, dana azpikoz gora ipiñi bearrezko egon eziñean ain zarraparratsu dabillen gure aldi onetan be bai. Gure egunotan be, ikasitxoan dan gizonaren irudimenean, Andra Mariak Rafaelek margoturiko Andra Marien baten arpegiera izango dau: filosofo pentsalari batek Rafaelek «Atenasko Eskola»n atera zituen gizon bizartsu eta itzal andikoen antza: Aita Santu baten irudiak Rafaelek alako jauntasun eta nausitasuna dariela margotu zituen Aita Santuen agurgarritasuna. Margolaritzan, naikoa gazterik il zan margolari onek asmau zituen irudiakaz bat egiñik gelditu da arpegiera duin, polit, gozo, ederren irudia.

Rafaelen ikasturteak eta lenengo lan-lekuak

Urbino, Italia erdiko uria, auxe da Rafael jaio zanekoa. An jaioa da 1483ko martiaren 28n Bariku Santu egunean. Margolaria dau Aita: Joan Santi. Apur bat aldatuta, ortik jatorko Rafaelen izenari Sanzio goitizena. Aita dau lenengo maisu. Ez luzaroko. Bederatzi urte dituela galdu dau aita. Eta urrango eskolea Perusian izango dau, italieraz Peruggio esaten deutoen urian. Eta an, ain zuzen Peruggino (Perusiarra) izenaz ezagutua dan margolaria (Pietro Vannuci) artuko dau maisu. Lenengo margotu dauan oiala (Andra Mariaren Ezkontza-berbakoa), bere maisuaren antzera egiña dau. Baiña laister maisua atzean itxiko dau. Margolari-eskola guztietatik ikasiko dau zer-bait barri, baiña ez da bera iñongo eskolari lotuko. Bere eder-sena izango dau beti bide-erakusle eta maisu. Mutikotatik dakar bere senak agintzen deusnan joera barria, irudi argi, gozo, baketsuak eta ikuspegi zabaletan sartuak margotzera daroana. A-tsegiñez ikustekoak, gogo-giro baketsua sortzekoak izango dira egingo dituen margolanak.

Urrango eskola eta lan-lekuak Siena eta Florenzia izango ditu. Aukera onak dagoz uri orreitan edozein ikaskuntzarako. Margolarientzat be bai. Italiako Pizkundeak Medici-tarren babespean aurrerakada aundiak egin ditu. Maisu andiak sortu izan dira uri orreen inguruan eta an bizi dira eta an diardue lanean eta irakasten. Rafael gazteak eskola eta lan-metodo barriak ikasteko aukera guztia dau an.

Erroman

XV gizaldiaren azken aldera, Florenziatik Erroma aldera aldatu da. Pizkundeko gizonentzako laguntza iturrira, Medici-tarren babespetik Erromako Aita Santuen babespera doa. Artean, Florenzia izan da Pizkunde-inguruan sorturiko jakitun, idazle, margolarien edertasuna era guztietara, itzez nai irudiz, adierazteko lanetan iñarduen gizon andien uriburu nausi. Mendearen azkenerako, Florenziak burutza ori galdu egin dau. Zer jaso da? An, Savonarolak, Dominikarren soñekoa daroan frailleak, bere buruberozko sermoi eta ekintzakaz, ezin-bizia sortu dauala urian eta Medici-tarrak be alde egin dabela andik Erromara; Italiako beste Pizkunde-gizon askok be Erromara joko dabe Aita Santuaren babespera. Orduan Erroma, kristiñau-erriaren buru dan ango Gotzaiñaren uri izanaz gaiñera, danetariko ertilarien uriburu biurtuko da, batez

be, arkitektoen eta pintzel-langilleen lantegi nausi. Jazoera onek ekazan alde on eta alde gaiztoa beragaz ekazala.

Alde batetik antxiñako jauregi eta etxe zar andien ondoan, an eregiko dira jauregi eta eleiza ikusgarrienak; bestetik, an da kristiñau-bizitza garbizko loraldi ederraren ondoan, emagalduen pekatuzko merkatu baltz eta loaia. Eta, bada an lanik edo lanlekurik etxegintzan eta eleizagintzan, eta gero, jauregiak eta eleizak egin ondoan, bazan irudigilleentzat arein barruak, eleiza eta jauregienak, jazten eta apaintzen. Ori egiteko ertilarientzat berebiziko lan-leku zan Erroma. Erromarako bidea artu eban Migel Anjelek 1496'an. Erroma izango da Rafael gazteagoa, Urbinon aldikadaxoa eginda, bere margo-lanakaz entzutea irabazita, Julio Ilaren Aita Santu aldian. Batez be, onek Vaticanon lan egiteko deitu eutsanetik aurrera. Andik gerórako urteak Erroman emongo ditu.

Vaticanoko Areto andiak margo-lanez jazteko agindua artu dau, eta Aita Santuak, margolariaren lanaren ederraz arriturik, lenago besteren batek egiñiko lana kendu erazo eta barria egin erazo deutso zati batzuetan. Gaiak asmatzeko ezin agortuzko irudimenaren, puntu utsik egiten ez dakianaren jabe da. Irudi maitagarriak, argiak, atsegiñak urtetan dabe aren pintzeletik. Erromarrak ago batez gorensten dabe aren lana. Oso eder eta begiko egiten jake guztiai.

Vaticanoko aretoetan, Signaturakoa deritxon aretoan margotu dau jakitunak eta aitua geien miresten dabena. An, Platonen irakatsietan Ederrari dagokiozan iru legeak eta argibideak irudirik egokienez jantzita ipiñi ditu: Egia, Ona eta Ederra alkarri besarka. Egia (Jainkoaganikoa, teologoena), *Eukaristiazko Eztabaida* deritxon margolanean; filosofoena, adimenak aurkitua, *Atenasko Eskola* deritxonean; *Ona*, *Zuzentasuna*, jainkozko onoimenak eta giza-bizitzaren oiñari diran laurak margotuz, batetik, eta bestetik, eleiz-legearen eta uri-legearen irudietan; eta *Ederra*, Parnasoko musai eta olerkari andiai eskiñi deutsezan irudietan.

Aldi berean, alde askotatik artzen ditu lan-eskeak, an or emengo eliza ta jauregiak edertzeko. Medici-tarrak, jakiña, ez dabe gelditu nai modako margolariaren lanik euki barik, euren jauregien apaingarri. Berak egin ala baiño lan eske geiago jatorko, eta beragaz lanean dabillen taldearen esku itxi bearko ditu asi dituan lan askotxori azkenengo eskualdia emotea. Esaterako, Julio Ilak agindu eutsan lana, Vaticanoko Aretoak apaintzea, zati bat bere ikasleen eskuak amaitu deutsoe. Gaia berak asmauko dau, egin bear zana berak marrazu eta tajutu, eta gero bere taldekoai emon, azken-eskualdia ezarri eioen. Orixe jazo jakon bere azkenengo margo-oialari, Kristoren *Antzaldatzea* margoztuteko egin ebanari. Ez eban dana berak amaitu. Eta *Antzaldatze* ori Rafaelen lanik ederrentzakotzat dago. Poussin frantzesak esan ebanez, Rafaelen lan orretan margolaritzak ezin goragoko maillara igon dau.

Julio Ilaren urrengo, Leon Xak artu eban Aita Santutza. Medicitarra da, Medicitarren artetik urteniko lenengo Aita Santua. Medici-tarren alde onak eta txarrak zituena; ertilari andiai laguntzeko esku zabalekoa, batetik, eta bestetik zorren kontua eroaten kontu gitxikoa. Batez be, irudigille eta margolariari oparo lagunduko eutsen, zorretan buru belarri gelditzerañio. Olakoxea zan Leon Aita Santu au. Ez da dana guzurrak Papinik bein esana: Aita Santu onena dala Luterok Eleizan sortu eban ekatz

andiaren errua. Erroman San Pedro Vaticanoko Basilika ain andi egin bearrak diru bearra ekarri eban, eta diru-bear orrek limosna baten orde parkamenak emotea. Ortik etorri zan Luterok Erromaren aurka bota eban garrasia. Ez da bape arrazoi bakoa Papiniren ateraldia. Leon Xaren diru-bear eta diru-esketik biztu zan Europako katolikoek batasuna erreko eban suaren lenengo txingarra. Ez da erru bakarra, ez arrazoi bakarra, baiña bai bat.

Rafaelek, Aita Santu barriaren egunetan, lengo lanari jarraitzeaz gaiñera, lan barriak artuko ditu. Bramante, Vaticanoko Basilika eregitoko lana bere gain eukana il danean, Rafaeli ezarri deutsoe ardura ori. Gero, San Damascena eritxon etxearte aldera, Logiak eritxen bigarren oiñeko orma ta goiak berak apainduko zituen, gaiak Bibliatik artuta. Orma-margozki eta estuko lan orrei Rafaelen Biblia esaten jake. Beste eleiz eta jauregi batzuetako egitamuak be Erroman eta Florenzian Rafaeli zor jakoz.

Artikulu baten ez dago margolari onen lanen zerrenda guzia emoterik. *Bolsenako Meza, Iru Graziena* eta len aitatuak entsutetsuenak ditu. Osperik andienetakoa, jakiña da, Andra Mariaren irudiak emon dautsoela. Guztiz, berrogetamar Andra Mari iruditaratu zituen. Guztiak daroe Urbinoko seme onen pintzelaren aztarrena: goxotasuna, eder-jarioa, argia. Ospetsuentzat aitatuak: *San Sixtoren Andra Mari, Aulkikoa, Follignokoa*, umetxo bik (Jesus eta Joan, antza) txori bat eskuetan daukenekoa. Beste iñok ez ei dau jakin Andra Maria ain bakun, ain gozo eta ain arpegiera maitagarritzko aurkezten. Giza-irudietan be berarizko eskua eta trebetasuna erakutsi dau arpegiera eta zirrimara egokienak emoten; bakotxaren nortasuna eta barruko gogo-giroa igarri eta begitarteratzen azti-begia daukala esan daiteke.

Rafaelen gizontasuna

Rafaelen erti-lana egillearen barruko barri emoten deuskun ispillu dala esan bearrak ez. Eder-miñak barru-barruan jo dauan gizona da, eta eder-lanetarako doai bereziz jantzia, atarako jarioa. Sortzez etorri jakona, gero, Platonen eder-legeak ikasiz, sakondu eta zabaldu egin dau, ederra onagaz eta zuzentasunagaz bat egiñik dagoala ikasita. Erti-eskola onek Rafael gizon bakezale, argi, alai eta maitagarri egin dau, eta bere barruko baketasuna eta gozotasuna bere lanetara daroaz. Rafaelen lanak argia, bizia, alaitasuna, maitagarritasuna dariela dagoz, eta dana neurri onean bananduta.

Ain artista andia eta ain maitagarria izanik, arritzekoa dirudi zergaitik iraun eban ezkongai. Batzuk diñuenez, kardenal izateko usteak eroan eban bera ezkondu barik gelditzera. Leon Xak asmo ori ei eukan: Rafaelek egin eutsazan lanen saritzat, kardenalen soiñekoa jaztera jasotea Urbinoko margolari au. Orregaitik beste kardenal batek emaztegitzat bere llobea emon gura izan ei eutsanean, Rafaelek iru urteko epea, luzapidea, eskatu ei eutsan, ia bitartean kardenalgori ori etorten jakon ikusi arte. Epea bete jakonean eta kardenal izatea lortu ez, emondako berbea ez jatearren, baietza emon ei eutsan kardenalaren opaketa ari. Baiña ezkontzeko berba ori ez ei eban bete,

atzeratu egiten ei eban ezkontzea, baiña ez emaztegaiagaz lizunkerietan murgildu barik. Lizunkeri orreitan eta euretatik etorri ei jakon Rafaeli azkenengo geixoa eta eriotzea. Kardenalak aurkitu eutsan emaztegaiaren eta gazteagotan eredutzat, modelotzat erabilli eban andra gaztearen aitamena be egiten da margolari onen bizitzan. Fornarina izenez ezagutua da modelo zalako au. Baiña gauza ziuurrik ez ei dago. Ez emaztegaiaren ez Fornarinaren aztarrenik ez ei da gelditu. Esames utsak dirala diñoanik bada edestilarien artean.

Rafael, gizon zanez, gizonon utsik bakoa ez zala izan, uste izatekoa da. Baiña ain gazterik iltearen errua ez dago lizunkeriari egotzi bearrik. Bere bizi laburrean egin eban lanarena izan daiteke. Bere lanak askotan besteen eskuetan itxi bearra jazo jakola len ikusi dogu. Gero, artista askoren bizitzan jazo dana, bularreko gatzak artua izan zala uste izatekoa ei da. Eta alan, Bariku Santuz Urbinon jaio zana, beste Bariku Santu batez il zan 1520ko jorraillaren seian. Erromak illeta andiak egin eutsazan ain maite eban eder-lantzaille andi oni.

Ona emen orain esan dogunaren geigarri, eta amaitzeko, Papini italiar idazleak, margolari onen bizia eta lana mundutik barik goragotik ikusita, bere *Giudizio Universale* liburuan emon eban epaia, andi-andika eta laburturik bada be. Papinik Rafaelen agotan ipiñi dau onako autormena:

«Nire aldiko gizonak eta gerokoak, niganako ondo gurearen ondo guraz, munduan gizonak oi dituen pekatuak bakotzat euki nabe. Baiña ni, neure bizi ain labor eta zoriontsuari begi garbiz begiratuta, autortu bearrean nago neure arimea ez nebala orbanik barik zaindu eta ez nebala griña gaiztoai iges egitea lortu. Birjiñaren eta santuen irudia pintatzen bizi izan dan bati dagokon baiño geiago sartu izan nintzala maitekeriazko atsegiñetan». Au esanda gero, gain-gaiñetiko autormen au eginda gero, pekatutzako batzuk banan autortzen ditu, zintzotasun eta apaltasun andienaz autortu be: bere lana, geien batez, Jaungoikoaren eta Aren etxearen edergarritzko gauzetan erabilli eban arren, bere barruko atsegifia, munduaren ederra, besteen gaiñeko ospea ta irabazia billatzearren egin ebala geiago; Kristoren Amaren irudi asko margoztu zituela, baiña aren poz eta atsebageak, aren santutasuna, gogoan artu barik, edozein itxura ederreko balitz lez, koloreai bere pintzeletan zelan argi-illunkera egoki eta zeatzagoa atera, orretan aleginduta; labor esateko, Jaungoikoarren baiño geiago, bere barrua azazketako, orretan nabaitzen eban atsegiñagaitik egin ei eban bere margo-lana. Gizaldiz gizaldi margolari gaillen eta ia jainkozkotzat euki ei dabe; baiña bere lana, Jaungoikoak izakietan ixuri dituen argi-izpi arrigarri eta distitsuen aldean, erraiñu oso motel eta illuna dala aitortzen dau. Alan be, Kristo il zaneko egunez jaioa eta illa dala gogoraturik, Kristogana zuzentzen ditu begiak, bere itxaropen guztia Kristogan ipiñita.

Papiniren epai au, edo Papinik Rafaelen agotan ipiñi dauan autormena, ez dira mundutarren begiz gauzak ikusita egiñak. Jaungoikoaren ikuspegitik egiñak dira. Eta ez deutsoe, iñondik iñora, baliorik kentzen gizonen epai-maikoak emon izan daben epai ain ago batezkoari: Rafael Sanzio Urbinotarra margolarien artean margolariena izan dala, eta orretan ezin goragoko gaillurra jo dauala.

BURDINEZKO ZOMORRODUN GIZONA*

Burdiñezko zomorroz burua estalita, giltzape gogorrean euki eben Frantzi'ako gizon bat Luis amalaugarrena zan erregearen egunetan. Zomorropean bizi bearrezko zigorra ezarri eutsan erregeak, eta zomorropean bizi bear izan eban 1703n il zan arte. Arpegia estaltzen eutsan zomorro ori ez zala burdiñezkoa izan esaten dabe gauzea zeatzago dakienak, oial leun baltzezkoa baiño; alan be, burdiñezko zomorrodun gizon-tzat ezagutua da bera munduan.

Zaintzen ebanak ez eban aren ezaupiderik iñori emoteko, ez nor zan iñori esateko baimenik. Ori edozelan egitea zigorrik gogorrenpean debekauta eukan. Eta zomorrodun orrek berak ez eukan iñogaz berba egiteko, ez iñoren ikustaldirik artzeko eta olan iñongo adiskide edo senidegaz barrua ustuteko eskubiderik. Gogor debekauta eukan iñoz iñoz be zomorroa kentzea, arpegia erakustea. Ez eban iñok jakin bear nor zan.

Olangoxe egoeratan iraun bear izan eban il zan arteko espetxe aldi guztian. Zenbat urtez? Batzuk diñoenez, 24 urtez; beste batzuen eretxiz, 34 urtez. Gitxienez, 1679n espetxean zala gauza jakiña ei da. Baiña barruan noz sartu eben jakin ez.

Gaur siñistu eziñekoa egiten jaku olango zigorperik. Ez zan, ez, makala gizon orren iraupena eta egonarria, benetan Job santuarenaren maillakoa bai, zorigaiztoko egoera orretan irauteko, iñoz etsi barik, bere buruaz beste egiteko alegiñik egin gurea erakutsi barik, gure egunotan askok egiten daben lez. Ezta gose-oporrik be. Gaur nekez iruditu geinke olango zigorpea iñori ezarri leitekionik.

Arritzekoa, ezin ulertuzkoa da gizon bat olango egoera gogorrean eukitea. Eta ia arriagarriago egiten jaku, gero, gogorkeri orri bere laztasuna kentzeko edo, itxura obea emoteko edo, gizon errukarri orri aukera guztian biziteko erreztasanak emoten

* Sasaki-naski (1988, 38.zenb.) 31-39.

eutsoezala, janean, etzanean, eta orma-arte atako garbi-ikuzian. Emen, lurrean, alik eta inpernu luzeena igaro erazo nai ete eutsoen?

Misterio utsa da gizon orregaz jazo zana. Zer zan gizon orregazko jarduera eta jokabideaz estaldu nai zana? Erregearen arerioa edo aren aurka ezegiteko ikaragarriren bat egiña? Gizon baten bizitzeari begirune eta itzal andirik ez eutsoen aldi areitan, goiko agintariak, erregeak nai ebena egiteko eskubidea artzen eben aldi areitan, zetatik erabilli bear zan gizon orregaz ainbeste ixilpe eta ainbeste kontu? Bizien artetik kendu bein, eta kito; eginda egoan dana. Edota, erregeak maite ebalako, bere etzekoen bat ebalako, ez dau il nai izan, bizia parkatu deutso, eta ez dau nai espetxean daukanik iñok jakin dagian? Alegiñak alegin egin izan dira zomorrodun gizonari jazoa argitzeko. Gaur arte amaika araketa egin da buruausteko au argitzen, baiña argirik gitxi egin da. Frantziako errege Eguzki arek, Luis amalaugarrenak, gorputzez txiki izan eta egitez andi naiko erregeak ondo jakin eban, bai, bere pekatu ori edo pekatutzako ori ixilpean gordeten, iñok aren lorratzik atera ez egian.

Zomorrodun gizon ori izan zanik be, benetakoa izan zanik be, ez eban munduak beingoan, goizetik gabera jakin. Iñok ez daki gizon orren izenik. Iru presondegitan bizi izana ei da. Noz asita? Noz lenengoz giltzapean sartuta? 1679n barruan zala argitu deuskue; baiña noz asita, ez. Urte orretan Pignerol'go gazteluan ei genduan. Andik urte batzuk geroago Probentza aldeko Sainte Margarite'ra aldatu ei eben, eta azkenez, 1698n, Parisera, Bastilla gaztelu ospetsura. Emen il ei zan 1703ko azillaren 19n. Urrengo egunean emon eutsoen lurra gorpuari. Eriotzagiriak Marchioli izenpean obiratu dabe; baiña illaren benetako nortasuna estaltzeko asmauriko ez-izena ei da. Argitasunok, bera espetxeratzeko agindu eban erregea, Luis amalaugarrena, il da gerokoak ei ditu.

Zomorrodun gizonaren lenengo barriak

Gizon oni dagokiozan barriak 1733tik asi ziran mundura zabaltzen, batez be Voltaire idazlearen luma zurikeribakoak aizetaratu zituenean, baiña urte askotxo lenago emon eban emakume batek espetxean ain egoera lotsagarrian il zanaren lenengo aitamena. Ain zuzen, emakume au Parisen Erregetxean bertan bizi zana zan, dana jakiteko lekurik egokienean, eta erregearen beraren artekoa, koñata, garbiago esateko. Luis Amalaugarrenaren anai Felipe zanaren bigarren emaztea, Babierako Karlota Isabel, Orleansko dukesa, nonzebarri eta batu-banatzaille andia berau. Emakume barritsu onek, erregearen inguruko zurrumuruak batzeko usain onekoa bazan, ez eban iñok zirikatu bearrik izaten gero, Alemaniako bere senide eta adiskideai an jazoten zanaren barri emoteko.

Karta bialtzaille bildurgarria zanez, ona zer esaten eutsan bein, bere aleman gozatsuan, Hannoverko Sofia izekoari: «Gizon batek urte asko egin izan ditu Bastillako presondegian; zomorroz burua estalduta bizi izan da an eta alantxe il be. Alboan izan ditu zaintzaille armadun bi, zomorroa kentzera egingo ebaneko bertan ilteko prest. Jan eta lo, eta dana, zomorroa kendu barik egin bear eban. Oso otoitz-

gizona izan da; orduak emoten zituen irakurten. Iñoz be ezan jakin nor zanik. Osterantzean, ez eutsoen txarto esaten, zer gura eta axe emoten ei eutsoen. Gure Jauna be zomorroa kendu barik artzen ei eban».

Egun batzuk geroago barrio idatziko eutsan izeko orri, zomorropo gizon ori Inglaterako Lord bat izan zalakoa esateko, ango errege Gillermo ilteko asmoetan Berwick-eko dukeagaz alkartuta ibilli ei zana. Dukea barritsu onen eskutitzok 1711koak dira; beraz inguruan jazoten zan dana jakingurako emakume onek be ez eban ezer jakin, espetxeko zomorrodun ori il eta zortzi urte igaro arte. Ortik atera espetxeko orren zaintzailleak zelango kontua izan bearko eben dana ixilpean eukiteko.

Voltaire ospetsuak be, Bastillako barruak ikusi eta areitan birritan egona zanez, zomorrodun gizonaren barri entzun eta jakiteko erea izan eban, antza, baiña zer zelan izan zaneko zeetasunetan sartzen danean, asko bere burutik ateraten ditu: erregearen semea zalakoa, berak gura barik andikien bat, beste bat zala oker usteta, il ebala, ta orregaitik espetxeratua zala, eta illeta-soiñuak jotzen orduak emoten zituelakoa, bere irudimenak asmauak dira.

Nor zan, baiña, gizon au?

Burdiñezko zomorrodun gizona zalakoaren gai onek askoren lumari emon deutsoe lana eta zer aztertu eta arakatu: olerkari, antzerkigille, nobela idazle eta edestilariak. Olerkarien artean, orra Alfred de Vigny, eta Leconte; antzerkigilleetatik, orra, besteak beste, Victor Hugo, (1839), Dumas (1861), M. Rostand (1924). Nobelagilleak geiago dira; eta lenagotik asiak: Mohuy (1753), Guénard (1821), Dumas (1840-50); Letoumeur (1949), Leynadir (1974), eta gure mende onetan Ladoucette (1910), Beméde (1930), eta Duna (1929). Edestilariak, berezkoa danez, askok ekin deutsoe gai au argitzen, baiña sarritan esan bearra dago ez deutsoela asmamenari leku gitxiago emon euren azter-lanetan beste sortzeko literaturaren lantzailleak baiño.

Edestilarien artean agiritan oiñarrituen idatzi dauana G. Mongrédien dogu, oraintsu idatzitako liburu baten (*Le Masque de Fer*, 1952). Ona idazle onek argitaratu dituen agiri arrigarrienak:

Lenengoa (erregearen agiritetikiko liburuen arduradunarena). Santa Margarita ugarteko Gazteluan zaintzaille nagusi edo gobernadore izan dan Saint-Marsek Bastillako gobemadoretza artu dauala esatean, au diño: «Gaur eldu da, beragaz batera eta bere zalpurdian, aspalditik kartzelan dagoen bat, beti zomorroaz estalduta euki bear dauana, iñoz be bere izenik emon barik». Du Junca dau izena erregearen agiritetikiko txostenak idazten dituen orrek. Eta berberak idatzi dau, zomorropoan egon bearreko gizon ori 1703 azillaren 19n il danean: «Egun bere onetan, 1703ko azillaren emeretzian, arako gizon ezezaguna, beti oial leun baltzez estalduta arpegia eukana... atzo meztatik urtekeran alditxartuta gelditu zana, gaur gaueko amarretan il da, geixo luzerik igaro barik». Urrengo egunean obiratua izan zala diño gero. Eta geroago idatzita, antza, Marchioli izenez obiratu ebela idatzi dau.

Beste agiri bat, Parrokiko libumetakoa da, Paulo donearen parrokikoa: «Azillaren 19n, Marchioli, 45 urte ingurukoa Bastillan illa da».

Auxe besterik ez diñoskue agirietako paperak. Ez da asko, baiña or dogu zeatz dakigun guztia: nor eukan zaintzaille, bai Santa Margaritan, eta bai Bastillan (eta berori, Saint-Mars zaintzaille nagusi Pignerokoan be); gaiñera, espetxeko gizon andi bati dagokionez, Saint-Mars orrek berak daroa bere zalpurdian kartzela batetik bestera. Agiri orregaitik dakigu presoaren zomorroa ez zala burdiñezkoa, oial baltzezkoa baiño. Or daukagu noz eta zelan il zan. Orretan Parrokiko agiria eta erregearen agirikoa bat datoz.

Ez da gauza utsa paperok argitzen dauskuena. Badakigu orain ez dala dana guzurra Orleansko dukesa barritsuak Alemania alderantza zabaldu ebana. Ez da kaleko esamesetatik sortu eta asmaua zomorrodun gizona iñoz iñon bizi izan zalakoa. Egiazkoa da gizon ori, eta benetakoa arpegia estaltzen eutsan zomorroa. Baiña ez jaku emon ezelangoa argitasunik nor zan jakiteko.

Aldi aretako giza-jazoeren aztertzaillak ez dira orregaz asetu, eta alegiñik egin barik ez dira gelditu, nor izan zeitekean jakitea lortu naiez.

Pignerolgo gazteluan erregeak giltzapean eukiriko bost gizonetatik bat gure zomorroduna izan zan, andik gero Santa Margaritara eta Santa Margaritatik 1698n Bastillara eroana izango dana. Saint-Mars izan zan gaztelu eta presondegion zaintzaille nagusi edo gobemari. Eta onek Parisera bialtzen zituen txostenetan edan dabe gai au aztertu daben idazle batzuk gizon onen lagun izan ziranen barri.

Euretariko batzuk gizaldia amaitu baiño len, zomorroduna Bastillara joan baiño len illik agertzen dira. Beste batzuk kaleko askatasunera urtenda, urteak geroago, zartzaro ederrean il ziran.

Bat aurkitu dabe, orraitio, zomorroduna izan zeitelako itxura geien aurkitzen deutsoena. Antonio Mathioli dau izena, eta Marchioli da Bastillan ilda Paulo donearen parrokian obiratu eben gizonaren izena edo abizena. Ez ete da izen bat bera, illaren nortasuna estaltzearen apur bat aldatuta?

Baiña goazen Mathioli ori nor zan ikustera. Izenak berak diñoskunez italiarra da, lege-gizona. Mantuako dukearen sekretaritzua eukia. Frantziako erregeak Mantuarragaz erabillen arazo baten saldukeria egin eutsan Frantziakoari, eta onek ez eutsan parkatu; eskua ezarri, baitu eta Frantziara eroan eban indarrez, eta Pignerolgo gazteluan sartu. Iñok ez eban jakin bear non zan ez zer jazo jakon italiar ari. Luis amalaugarrenak olan agindu eban arren, Europa guztia ei egoan jakitun. Italiak indarrez aterata eta kartzelan eukelakoa Europako errege-erregietan ei ekien. Frantziako erregeak ez eukan ori estaldu bearrik. Gaiñera, Mathioli onen izena eta abizena be ezagunak dira: beste onena, barriz, ez eban iñok ezagutu ez izentau bear. Mathioli beraren izena 1693garren urtea ezkerro, ez ei da Saint-Mars espetxeko gobemariaren Pariserako txostenetan agertzen, ordura artean agertzen zan lez; beraz, urte ori baiño lenago ildakotzat emon leiteke; Mathiolik, 1691n, amaika urte eroiazan Pignerol'en; besteak, zomorrodunak, Paristik Saint-Mars zanari idatzí eutsoen karta baten esaten eutsoen lez, ogei urte ba eroiezan Pignerolgo gazteluan; izenik emon barik, «ogei urteotan zaintzen dozun gizon ori», olantxe aitatu eutsoen bera. Batez be, Europa guztiak Mathioliren izena eta kartzelako egoera ba ekien lez, ez eukan Frantziako erregek onen izenik ez arpegirik estaltzea ain gogor agindu bearrik.

Beste Pignerolgo espetxe-laguntzat dagoen bat Eustache Dauger da. Gaztelu atara bialdu ebenean, agindu gogorak emon eutsezan espetxe-zaiñai. Ondo bai ondo zaindu bear eben eta ez eutsoen iñogaz barbarik egiten itxi bear; ateak ondo itxita giltzape gogorrean eukiteko agintzen jaken. Gizon bildurgarria eta beti begipean euki bearrekoa zan, antza. Bestetik, be-maillako gizona edo zan, eta ez zan erabilli bear beragaz txukuntasun andirik, ez aparteko gasturik egin. Ez da esaten zelango pekaturik egin eban giltzaper a bialtzeko. Bestalde batetik, ez eben beti ain bakartasun andian euki. Kartzelan oiturea zanez, barruko andiki bati morroi eta laguntzaille emonda egin eban aldi luze bat, eta iñoz be ez da esaten zomorroz estalduta ebillenik.

Ondo nekezko lana egin jake atan alegindu diran aztertzaile eta jakin gurakoi zomorrodun preso oni bere arpegiko estalkia kendu eta benetako arpegia ikustea, nor izan dan ateratea. Benetan zomorrokeko eta arpegi bako gizon egiten jake. Alegiñak alegin egin arren, ez dira gauza izan oraindiño nor zan aterateko; zomorrodun bizi eta zomorrodun il zan ori, zomorrodun gelditu jake: bai, orixe!

Aurrera, gizon zomorrodunaren billa

Ez dabe bide batetik jo gizon zomorrodun orren billa ibilli izan diran guztiak. Ez dabe guztiak Pignerolgo gazteluan egoniko gizon jakiñen artean billatu gizon ori. Frantziako iraultza andikoan, bultza bultzaka sartu ziran iraultzaille armadunak, an azpiko zulo illun baten gizon aren azurrak aurkitu zituezalakoa zabaldu ei eben. Suzien argitan an arrapaladan sartuta, ikaragarritzko ikuskizuna aurkitu ei ebemgizon ospetsuaren azur utsak, burdiñezko zomorrerik barik, baiña katez eta burdiñez ondo inguraturik. Bertso ta kantuz ospatu ei eben aurkitze ori. Iraultzaille areik mozkorraldi baten ikusi edo iruditzeko ez da asko. Edozelan be, euren suzi ta argi guztiak gora bera, ezin ikusi izan ebena zera da: nor zan 1703'an il eta urrengo egunean Paulo donearen parrokan obiratu ebena. Ori argitzen ekin deutsoen guztiak porrot biribilla egin dabe gaur arte. Baiña orretan alegindu diranen batzuk, beste izen ospetsu batzuen alde agertu izan dabe euren eritxia.

Zomorrodun gizontzat artuak izan diran beste batzuk

Parisko errege-etxeko prinzesa barritsuak esana, Ingalterrako erregea ilteko az-pijokotan ibilli zalakoarena, ia iñok ez dau siñisgarri aurkitu. Olako inglesik izan danik be iñok ez dauka ziurtzat.

Gizarte-mailla gorenetao bat izan bear zala-ta, batzuk Luis XIVgarrenaren anai bat ikusi nai dabe gizon orretan, baiña Luis amalaugarrenaren aitarena ez zana, beraz ezkontz ausle baten semea amaren aldetik, Luis amalaugarrena baiño lenago jaioa. Eretxi au gaizki esaleen esames utsa dala dirudi. Luis amalaugarrena bere gurasoen ezkontzatik ogeitaka urte geroago jaioa dala gauza jakiña da. Bitarte orretan beste amak beste semerik izan ebala siñisteko ez dago itxurarik. Orregaitik, beste batzuk Luis amalaugarrenaren beraren anai bikotxa egin nai dabe. Emen be bardin jazoten da: ez dagoala anai bikotxaren ezelango lorratzik. Olangoa izan balitz, gaiñera, anai

bikotx orrek irurogeta bost bat urte izan bear zituean 1703n, eta ez berrogeta bost inguru, gizon zomorrodunaz agiriak diñoenez.

Probentzako idazle azkar batek gauza ziurtzat emon gura izan dau Erregearen anaien bat izan zalako eretxia, azterketa zorrotz bat egin ondoren. Idazle argi onentzat Erregearen anaien bat baiño ezin izan Eustache Daugier izenaz ezagutzen dana, eta beraz, zomorropoko gizona. Morroi maillakotzat emon gura izan deuskue. Morroi baiño ez dan batentzat zigor gogorregia zan zomorrodun gizonari geiagoko barik emoteko. Zergaitik, gaifiera, preso onen arpegia ifiok ikusterik ez gura izatea? Nondik nora gizon orren arpegia ifiok ikusi ez egian orrebeste ardura? Orduan Frantzian arpegi ezagunik bazan, norena zan erregearena baiño? Erregearen arpegia ebillen diru guztietan eta ainbeste paperetan, ez besterenik. Preso orren arpegia ikustean, zetan egoan arriskurik? Idazle orrentzat erantzuna argi dago. Presoaren arpegia ikusita, erregearen antza ari artuta, erregearen seniderik urrekoetzat artuko eban edozeiñek. Eta ori estaltzeko etorren aren arpegia estaltzea, ifiok ezagutu ez egian. Bear bada, lenengotan erregearen antz-antzekoa zana, Daugier edo Augier izenez ezagutua izan zan, eta Daugiertzat artua, bere benetako nortasuna ezaltzeko; baiña ikusiaren ikusiz, benetako gizona ez ete zan agertuko? Arrisku ori aldendu bearra egoan, eta orra zomorroa, egiaren estalgarri. Idazle orrek, Marcel Pagnol izeneko orrek, gauza bat aitzu dau: Luis Amalagarrenak olango anairik euki ebanik orain artean ifiok ez dauala lorratzik aurkitu.

Beste gizon zomorroduntzako bat dalakoa egin nai izan dabe, errege-etxeko mediku izan Pardoux Gobinet'en suina. Mediku onek egin ei eban Luis Amalagarenaren aitaren autopsia. Autopsia orretatik argi ateraten ei zan errege orren aita, Luis amairugarrena, semerik izateko gai ez zalakoa. Mediku orren suinak, Morelhie jaunak, gero, autopsiaren barri zabaldu egin ei eban. Luis amalagaurrenak laster atera dau ondorioa: gizon orrek ni sasikume egin gura nau. Eta zelango zigorra emongo deutso lotsabako ari? Betiko giltzapean sartu eta zomorropean egotea ezarri, arpegi bako lotsabakoa zalako. Baiña au be ez da egia. Erregearen aitaren autopsia, aren gorpua barruko azterketa, argi gelditu da ez ebalu Pardoux medikuak egin, beste mediku batek baiño, eta Morelhie ori, barriz, 1680n illa dala, berez etorririko geixoz. Olan dana guzurtzat gelditu da.

Ez-jakiñean gara

Eta azkenez, ez-jakiñean gareala aitortu bearrean gagoz. Gauza bat ikusten dogu auzi onetan argi ta garbi: zomorrodun gizon orren misterioak misterio jarraitzen dauala, ez dogula gaur arte zulatu, ezin dogula argitu. Orain artean, argitu naian nekatu diran guztiak egin dabena txorokillezko etxeak egitea besterik ez dala; egin orduko etorri jakez lurrera, bea jo dabe. Marcel Pagnol idazlearen eretxia, itxuraz ain argi agertu nai izan dauana be, utsera joan da.

Eta zetako ekin errege baten giza-bide txar eta usteleko jokabide ori argitzen? Jokabide txatxar eta zitala izan dala, bere burua anditzat, ia Jaungoikotzat, eukan baten gizatxarkeria izan dala argi dago. Baiña guk, gure egunotako gizonok, badau-

kagu eskubiderik antxiñako zitalkeriak salatzen ibilteko, eta geure buruak areinak baiño andiago eta obeago, gizonen eskubideen alderako zindoagotzat eukiteko?

Zigorpe errukigarri, lotsagarria, zomorropean ainbeste urtez euki eben gizon arena. Iñok ez eban ikusi bear aren arpegia; iñok ez eban jakin bear non eta zelan euken. Gure egunotan ez gizon bat, millakak izan dira aren antzeko egoera negargarria edo negargarriagoa bizi izan dabenak. Iñok ez eban jakin bear non eta zelan egozan. Iñok ez eban jakin bear euren izenik. Izenaren orde, zenbaki bat besterik ez zan eurentzat. Zomorrerik ez eben bear euren nortasuna osoan galduta biziteko eta iñok negarrik egin barik edo illetarik ospatu barik obiratuak izateko. Gure munduak badaki olako ainbeste gizatxarkerien barri. GULAG batek edo ainbat lekutako ixilpean baitu eta ixilpean ondatu dituezan eundakak eta millakak guztion begien aurrean ipinten deuskuez jokabiderik lotsagarrienak. Burdiñezko zomonodun asko izan dau gure gizarteak. Eta asko ta asko dabiltz munduan euren arpegietan zomorro bat ipiñita lez inguruan jazoten dana ikusten ez dabela, edo ikusi nai ez dabela. Gure gizarteak badau zeri negar egin, zer salau eta zer zuzendu, eta ez gitxi be. Zoritxarrez, larregi!

INKATARREN AGINTE-ERRIA

Mundu bi, alkarren ezaupidean

Laster izango dira bosteun urte: amabosgarren mendearen azken aldera txunditurik jakin eban Europako mundu zarrak bazala beste mundu bat, eurak arteño ezagutu bakoa. Kristobal Colon'ek, bere itxasgizonak lagun, lurralde barri luze-zabalak aurkitu ei zituen. Mundu zar orrek jakin ba ekian aspalditik lurra borobilla zala, alde baterantza nai besterantza igarota alkar aurkitzekoa. Baiña, ordurarte ez zan ausartu iñor, itxaso bildurgarrian sartu eta aurrera egiñez lur borobil orri neurria artzen.

Colon bera be bide erdian gelditu zan, lurrari ingurua egin barik. Indian aurkitzen zala uste eban berak. Urteak garrenera arte ez eban uste oker orretik urtengo. Indiara eltzeko beste itxaso bildurgarri bat gelditzen jakon igaroteko. Alan be, India edo Indiak esango jake luzaroan aurkitu zituen lurrai, mundu barriari. Mundu barria zan gero? Izen au be ez egoan egoki asmauta. Mundu zarra zan benetan mundu barria zalako ori, millaka urtez eta millaka gizaldiz iraunik ia azkenetan egoan mundua gaiñera.

Arrigarria! Zati bitan bananduta iraun eban gure munduak ainbeste gizalditan, eta zati biak ez eben alkar ezagutzen; ez batekoak ez batekoak ez ekien alkarren barririk, ez besteak bizi ziranik. Itxaso andiegiak eukezan bien artean alkarregaz artu-emonik eta ezaupiderik eukiteko.

Eta ezan gero bapere txikia europear batzuk aurkitu barrizat euken mundua, eta apurka apurka, europearren begi arrituen aurrean zer ez dau erakusten: lurak ezin neurtu alakoak, edotariko bedar eta landarrez, zugatz eta igaliz, aberez eta egartziz

ezin aberatsagoak, eta lekuan lekuan gizonak, eurok sorturiko ainbat erri, erreñu eta giza-kultura erakusten ebela bakotxa bere nortasunaz eta aberastasunaz. Ori bai; europakoak baiño atzeratuago dagoz kulturez eta jakitez. Ez dakie idaztea zer dan; ez dabe ezagutzen gupilla, munduan ainbesteko aurrerapidea ekarri dauana. Baiña leku bakotxean euren giza-kulturaren aztarrenak agiri dabez. Lurralde ain andi ta zabaletan, iru giza-kultura andi ezagutzen ziran Kristobal Colonen egunetan: Aztekatarrrena, Mexiko aldean, goian; Maiarrena, erdiko Amerikan, eta Ego-amerikdn Inkatarrena.

Mundu biok oraiñarte ez dabe alkar ezagutzerik izan, oaiña ez dira alkarregaz senikerarik bakoak. Amerikarrak ez dabe lur areitan euren jatorria. Asia aldetik ara joanen ondorengoak, dira. Nondik ara igaroak? Siberia aldetik, Bering izeneko itxaso estutik. Noz? Millaka gizaldi lenago, gizonen gomutan aztarrenik itxi ez daben gizaldietan, munduan urteen kontua eroaten asi baiño askoz antziñagokoetan.

Siberiako bazterrak atzean itxita, aldra txikitari sartu ziran, antza, Ameriketako lurretan, eta ugarituz ugarituz, beti bizileku obeen billa, Amerika guztia goienik barren bete eben, an eta emen erriak eta erreñuak sortuz. Olan sorturiko erreñuetan Ego-Amerikako Inkatarrena dogu ospetsuenetarikoa, eta bear bada, Amerika guztian sortu izan zan andi ta zabalena; eta sortu zituen gizarte-lege eta erakunde batzuei begitu ezker, aurreratua izanikotzat dago.

Inkatarren aginte-erriaren sorrera

Ego Amerikako beerengo lurretaraño eldua da gizona Kristo jaio baiño millaka urte leenagotik. Inkatarrek edestian sartu baiño leen edesti-aurre luzea izan eben, beste erri askok izan eben lez. Lenengoz ara eldu ziranak talde txikitari asi eben euren bizimodua. Non zer oberik aurkituko joiazan senideak senideekin, ezagunak ezagunekin alkar bizitza egiñez. Gizaldiak joan, gizaldiak etorri, senitarteka sorturiko alkarteak, alkarren laguntza bearrak ekarrira, alkarte zabalagoak egitea jazo jaken. Alkar-lana billatzeko joera an berea izan dau gizonak beti. Alkar-lana, batzuk, eta besteak bake-giroan alkarri laguntzeko, eta alkar-lana bake-giro ori lorrindu gura leuken beste talderik edo erririk agertuko balitz, arerioari jarkiteko. Orra gerrate askoren sustraia eta aginte-erri andien jatorria. Irabazleak, menderatzaileak azpian artzen dau menderatua eta lengo erri-mugak zabaldu egiten ditu.

Inkatarren sorlekua gaurko Peruko lurren mugabarruan dago. Millaka urte luzetan senikerazko alkarte txikietan joan zan euren bizia. Euren edesti aurreko urteak urte illunak dira. Orduko aztarrenik oso gitxi gelditu jaku. Arkeologo eta paleontologoak, antziñetako bizimodu eta jazoerak aztertzen diarduenak, oraindiño ez deuskue argi andirik egin.

Inkatarren Aginte-erria, bere jauntxo ta errege ziralakoekin, Kristo jaio ondoko HOOgarren urte inguruetan etorria da argi apur bat egitera. Peru barruko Titikaka izeneko itxasoan sortua da, bere uri nagusia **Cuzco** dauala. Sorrera orren urteak be naikoa illunpean gelditzen jakuz. Idazkera bakoak ziranez, eurak ez eben jakin barri

zeatzik eta argirik emoten. Ez euken literaturarik, agoz ago eta belaunez belaun ikasi eta gordetako eresiak eta ipuiñak besterik. Eta ipuin eta eresiok be XVIgarren gizalditik aurrera liburutan argitaratuak. Eta eurok gora beera, laiñopean gelditzen da inkatarren antziñatea. Ipuiñez edertuta, baiña lañopean.

Inka itza bera euren agintariak izenteetako itza ei da, agintari edo buruzagi esan gura ei dau; baiña itz au berau erabilten da Aginte-erriko menpekoak izentetako be. Euren jatorria argitzeko ipuiñak diñoanez, Manko Kapak izan ei zan euren lenengo Jauna. «Kapak» itzak Jauna esan gura ei dau. Jaun ori zerutiko gizona ei zan, Eguzkiaren semea. Bein Eguzkik urrezko makilla bat emon ei eutson eta onela esan: «Zoaz, jo beti aurrera ta aurrera, arik eta lur gizen batera eldu arte. Emon deutsudan makilla au lurrera jaurtirik, lurrean ondoraiño sartzen bada, axe dozu zeuretzako dan lur gizona, emoirik onenekoa. Lotu zaite bertan, egin antxe uri bat, seme-alabak ekarri, eta Aginte-erri bat egin». Cuzcon sartu jakon makillea lurrean ondo-ondoraiño.

Polita da ipuiña eta ederto adierazten dau Amerikako edozein lekutara joan eta an lotu ziranen jokabidea. Amerika goienetik asita olan joan ziran aurrera ta aurrera, euren gogoko lurra aurkitu arte. Inkatarren errege edo jauntxoak artu eben goitik berako aginte osozkoa adierazteko be ipuin ezin egokiagoa da. Zer ba? Eguzkiaren semeak, Jainkoaren semeak ziran eurak, eta ez gitxiago.

Aginte-erri onen zabalera

Inkatarren erria eta inkatarren Aginte-erria ez dira bat. Erria berez txikia zala esan bear dogu. Cuzco eta Titikaka inguruan sortu eta odol bereko eta izkuntza bereko bizilagunez osotua. Ameriketako beste asaba-erri asko lez. Olantxe, asaba-erri, leiñu-erri zala joan ziran, urrean, erri orren edesti aurreko ainbat gizaldi. Noz sartzen dira edestian? Amaseigarren gizaldian espainarren menpera etorri ziranean. Orduko inkatarren gomutea ez ei zan eltzen Kristo jaio ondoko 1 100garren urte ingurua baiño atzerago. Orduan sortua ei da Cuzco, euren uri nagusia be. Ordukoa ei da Manko Kapak, uri aren sortzailea. Eta Cuzco inguruetara mugaturik ei egoan inkatarren aginte-barrutia. Baiña espainarrak ameriketako bazterrak arakatu eta euren agintepean menperatzen agertu ziraneko, oso urriñetako lurraldeetaraiño luzatzen ei zan Inkatarren agintea. Beste erri asko eukezan euren menpean sartuta: gorantza, Perutik Colombiako mugetaraiño; alboetara, Boliviako eta Argentinako mugabarruetaraiño, eta berantza, Chileko Araukotarren mugetaraiño. Orduan Ameriketako aurkitzen zan aginte-erririk zabalena da. Inkatarren jauntxoak ezarten eutsen bazter guzti areiri euren legea.

Cuzco uri nagusia Anginterri ain andiari egokion uria zan, andiz eta ederrez. Ango arlanduzko ormatzarrak ikusita, arriturik gelditu ziran espainarrak. Erregearentzat eta andikientzat eukan alderdian, dana zan an andia: erriko plaza nagusia, Eguzkiaren Jauretzea, Eguzkiaren Birjiñen Etxea eta Subeena. Erri zearen alderdiak ez eukan zer-ikusirik; baiña gaur be, Cuzco ara doazen ikusleen begi guztien arrigarri

da. Ia siñistu eziña egiten jake zelan lortu eben inkatarrak ain arri andiak araiño eroan eta alkarren gañean ipintea. Cuzco 1 IOOgarren urte inguruan eregitzat badago be, an Inka Nagusia buru eukan erreñuak amalaugarren gizalditik aurrera artuko dau gora ta gorako indarra. Orduan asita egingo da gero ta mugabarru zabalagoen jaube.

Eta lenengo ta bein, azpi-egitura ona, bide-sare ona bear eban Cuzcotik azkenengo mugetaraiño eldu eta azkengo bazterrak goiko agintarien eskupean eukiteko. Inkatarren bidegintza-lanak arrituta daukaz gaurko teknikoak be: Andes mendien bizkarretatik zear bide luzeak urratu bearra eukan, euren aginte-erriaren bazter guztietara eldu aal izateko. Bide orreek egiteko mendi goi pikeak egaletan baldak egiñik lautu bear ebezan, eta mendi bitarteetarako arroak zelanbaiteko zubi dingilizkoz bardindu. Eta gero beste arazo bat eukan: bideak ondo etozan, bearrezkoak ziran. Baiña ainbesteko kilometroko bidaldiak zelan egin? Gurpillik ezagutzen ez ebenez, ez zan an burdi txirrinkadunik, ez zama andirik eroateko zaldirik. Abere zamaririk andiena llama izenekoa eben, baiña ez zan berrogeta bost kiloko zamak baiño astunagorik eroateko gauza. Llama talde andiak bear ebezan janariak nai beste edozer alde batetik bestera aldatzeko, eta, arma-gizonak eta zerga-batzailleak lekuan lekuan ipinteko. Orretan goiko agintariak ez ziran lo egon. Armen indarra erabillita, luze-zabaldu eben euren aginte-barrutia.

Inkatarren ekonomi ta erri-erakundea

Ameriketako errietan inkatarrena nabarmen agertzen da euren ekonomi ta erri-erakundea aztertu dabenai. Inkatarrak nekazaritzako, eizako ta eungintzako lanetik bizi ziran ia uts-utsik. Lanak emoten eutsen biziteko bear ebena, jana eta soiña. Lurra aberatsa eben janaritako bear eben ainbat emoitian, errari, eltzekari, barazkari ugaritan. Artoa eta papa edo patatea, mota guztietako lur-sagarra, ziran lurak geien emoten eutsena. Patateak berez urtetan ei eban an. Gaur mundu guztian zabalduta dagoan janari au inkatarrai zor deusaguna da. Andik zabaldu da mundu guztira.

Ez etorren dana berez; gizonaren eskuak eta buruak laguntzen eutsoen lurrari geiago emoten. Ba ekien lurra ongarritzen, batez be txorisatzaz eta arrainkiaz ongarrituta. Ubide andiak egin ebezan ura lur landuetara eroateko.

Aragitako, beirik eta ardirik ezagutu ezarren, euren mendietan ez eukan abere gitxi: guanako, alpaka, bikuña eta geien eta onena llama izenekoa. Azkenengo onek premiña askotarako balio eutsen: aragi, esne, narru eta lanerako. Gure artzaiñen lana an llama-zaiñak egiten eben. Euren gorputzen estalgarritako, ba ekien oial apain bitxi nabarmenak egin eta margo ikusgarriz jazten, gaur be badakien lez. Euleen lana andrazkoak etxe guztietan egiten eben lana ei zan.

Ezagutu eben beste lanik be, zillarra ta urrea urtutekoa eta abar. Baiña olako euren urre ta zillar-lanik ia ez jaku bapere gelditu, XVIgarren mendetik aurrera an sartu ziran menderatzaille arraparien eskuetara joan ei zalako.

Nabarmengarriena, orraitio, inkatarren erri-ekonomia da, lanaren eta laneko irabazi edo emoién banakera.

Inkatarren aginterria, sozialista?

Inkatarren ekonomia, batzuen eretziz, sozialismoarena ei zan. Inkatarrak aurea artu ei eutsoen gaurko erri sozialistai... Lurra estaduarena, lanaren saria eta etekiña etxe bakotxean bear eben araura banandu lenengo, gaiñerakoa estaduaren eta guztien onerako ekintzetan eralgi, eta estaduaren serbitzari, zerga-batzaille eta gudarientzat kendu eta gorde: orra ango ekonomiaren arau nagusiak. Bardintasanaren ardurea ba ebela erakusten eben, alde batetik; baiña bestetik, agintarien eskuetan menpekoak naikoa zapaldu eta itota bizi bear ebena be egia dirudi.

Lurra estaduak beretzat artuta eukan, bera zan lur guztiaren jaube, alde batetik; baiña, bestetik, lur guztiak ez ziran bardiñak. Lur batzuk erregearentzat emon bear eben, erregearentzat eta Eguzkiaren erlejiñoko serbitzariarentzat; beste batzuk andiki, zerga-batzaille eta gudarientzat; gaiñerakoak, menpeko erriarentzat. Aparteko zerga batzuk aterateko, *mita* izeneko legea euken; amarna taldeko alkarte edo erri bakotxak onenbeste gizonen ainbat eguneko lana zerga bereziok ordaintzeko egin bear eben. Zergok zetarako? Erreiñuko lan andienak egiteko, meatokietakoak, zubi ta bidegintzakoak, kanpoko arerioai eusteko gaztelugintzakoak eta olangoak egiteko. Zergak, barriz, an dirurik ezagutzen ezanez eta ez ebillenez, janaritan eta soiñekotan batzen ziran, erreiñuko lan eta serbitzutan iñarduenak janaritu eta jazteko.

Eta nortzuk ziran zerga-batzailleak, eta errietatik ebilzan aparteko *mitaren* kontua eukenak? Geienak erregearen beraren senitartekoak. Eta ez ziran gitxi be izaten, erregeak andra asko ta ederrenak artzeko eskubidea artzen eben ezkerro. Ontzigintzan, llama-zaintzan lan egiten ebenak sari bako lana egiten ebelako ez euken mita-zergarik egin bearrik. Eta gizon guztiak prest egon bear eben, Inka Nagusiak deitu ezkerro, aren gudari joateko.

Inkatarra bere lurrari eta bere lanari ondo lotuta bizi zan, eta onek ezelango askatasun barik isten eban, eta eragozpen andiak ekarten eutsozan; ezeukan bere lurra isteko eskubiderik ez aukerarik. Aginte-erriko bidegintzak ez eutsan ezertako balio. Goikoen serbitzariarentzat zan dana, zerga-batzaille gudari eta olakoentzat. An ez eukan iñok merkataritzarik ez turismorik egiterik.

Alan be, ba euken inkatarrok zerbait guztiz ona; urte ugarietan ez eben aitzuten urrengo urtea ez-urtea izan zeitekela, eta lurrak bein gaiñezka emona ez-urteetarako gordetan ikasi eben estaduak eukazan gordelekuetan, batez be premiñarik andienetan aurkitu zeitekezentzat, geixo, zar eta ezinduentzat.

Baiña bardintasan kezka guztiok gora bera ezeukiak (Wakcha-k) ba ziran euren artean.

Aginte-erriaren azkena

Batez be, lapur aginterri biurtu zan inkatarren Aginte-erria gero ta andiago izateko edo egiteko aizeak artu zituanean, Pachacuti Inka Nagusiaren egunetan asita (1438-1471). Au asi zan bere agintea inguruetako errietara zabaltzen. Bide beretik jarraitu eben Yupanki (1471-1793), eta Huaina aren ondorengoak: Tupak Inka (jaun

gaztea) izentzat artu ebana (1493-1525). Agintari onein egunetan, armen indarra erabillita asko zabaldu zan euren aginte-barrutia. Ecuadorretik gora Colombiako mugak jo arte, alboetarantza Boliviako gaurko La Paz uriraiño, eta Argentinako Tucumaneraiño, eta berantza Chileko Santiago baiño berago. Guztiai ezarri eutsen Cuzcoko agintea, eta aginterria batago egiteko, kexua izkuntza. Menperatu barri ziran errietara, gudariakaz batera maixuak bialtzen ebezan izkuntza ori irakatsi egioen, alde guztietan izkuntza ori legezko izkuntza bakartzat ipinteko.

Lenago Eguzkiaren semetzat egozanak jainko txiki barri bat be asmau eben, *Birakotxa* izenekoa, gizonai, inkatarrai lurra irauli eta lantzen, eungintzako eta buztigintzako lanak eta beste erti-lanak egiten irakatsi eutselakotzat eukena.

Onak on eta akatsak akats, inkatarren agintea ez da iñondik iñora sozialista garbitzat artzekoa. Gizartearen onerako baiño estaduari geiago begiratzen eutson. Sozialista antzik baiño munduan sortu izan diran beste jauntxokeri eta agintekerizko aginte-errien antza geiago daukala esatea zuzenago legoke. Eta orretxek ekarri eutson bere azkena, ein andi batez.

Azken au aurreratzeko, 1525 Huayna Kapak (jaun gaztea) il zanean, Atahualpa izentau eban ondorengo izateko; baiña beste anai bat, Huaskar, agertu jakon aurka; eta erregenai bien arteko burruka sortu. Bien bitartean eta bien galgarri, ur ebilkien Pizarro erri-menderatzaillea. Atahualpak Huaskar menderatu eta españolen alde jarriko ete zan bildurrez, il egin eban, eta orrexegaitik antza, urrengo urtean (1533) Pizarrok eriotz-zigorra ezarri eutson Atahualpari. Azkenengo erregeak, Pizarrok ipiña izan arren, ez eban luzaro iraun. Bera eta bere urrengoa, Tupak Amaru españolen eskuz il ziran. Arrezkero, ez dabe bururik jaso, iñoz alegiñik egin daben arren. Egia esan, inkatar askok nausi barrien mende aurkitzeaz ez eben, antza, aldakuntza andirik asmau. Eta gitxiago Cuzcoko erregeen indarrez menperatuak izanak. Eginda egozan beti goikoen aginte eta esanera egotera. Eta bein, eskolatu eta nausi barrien izkuntza ikasi ebenean, euretarikoak egin ziran lekuko eta barri-emoillerik onenak, antziñako inkatarren oitura, siniskera, ipuin, kanta zar eta antzerkien barri munduan zabaltzeko. Gaur be, euren kexua izkuntza antziñako Amerindioen izkuntzetan zabalduena da, eta Perutik kanpo be bizirik dirau. Eta Aginterri andia galdu eben arren, izkuntzaz batera, euren oitura askok, euren eungintza, jazkera, soiñu, eta eresiak, bizirik dirae.

ANDRA MARIA BALENTIN BERRIOTXOAREN BIZITZAN*

Balentin Berriotxoa osozko santutzat autortuko dau Eleizeak aurtan. Emerezigarren gizaldian 1827ean jaioa eta 1861ean Tonkingo lurretan Kristoren alde bere bizia emotea egokitu izan jakon santua dogu. Eta santurik euskaldunenetakoa dala esan geinke. Berak ikusiriko martirioaren barri zabaldu zaneko, Bizkaian zelango pozikarea sortu zan ez da esatekoa. Gernikako Batzar nagusietan, urrenge orlean, Bizkaiko seme leialak ago batez erakutsi eben euren poza eta arrotasuntxoa. Nok eukazan orduan gogoan urte batzuk lenago Balentiñek esaniko berbak: «Santu egitera noa, Bizkaiak santu bat izan dagian?» Txantxetako berbak ziran, ez arrokerizkoak: fraide joateko erabillen asmoa iñori agertu gura ez-ta, «baiña nora zoaz joan» itandu eutsan lagun bati txantxetan emoniko erantzuna. Orain, txantxetako berba areik egiazko biurtzeko bidean dira.

Andik sei urtera, 1867garrenan, Xenpelarren bertsoak datoz Berriotxoaren izena eta martirioa ia Euskalerrri guztiaren agotan ipinten. Nori egokion obeto bertsolari ospetsu batek ospatua izatea euskerazko bertsoa bere amari egiñiko kartetan ia beti parra parra erioan Elorrioko seme argi oni baiño? Egia esan, Berriotxoak ez dau aurkitu sermolaririk ez libururik bere izena eta santutasuna ezagutuago egiteko bertso orreik baiño. Xenpelarrek bere 24 bertsoan martiriaren bizitzako barri andienak jaso eta entzuleen biotzeraiño sartzeko indarraz zabaldu zituen:

Berrogei urte orain zituen
gertatu balitz bizirik;
negarrez nabil aren pausuak
ezin adierazirik.

* Karmel 1988-2, 43-56.

Xenpelarren bertsoak agoz ago eldu dira gure egunotaraiño eta erriak gaur bere bere doiñu ezagunean kantetan daki.

Aurten, Andra Mari urte onetan, ain zuzen, Eleiza osoaren aurrerako santu osoen maillara jasoa izatea datorkio. Orra zergaitik *Karmel* onen orrietan eldu gura dau-tsagun santu barriari bere Andra Mariaren zaletasunetik. Ez dogu ezer asmetan burua nekatuko. Balentiñek bere kartetan, batez bere amari euskeraz egiten eutsazanetan, ondo agirian ipiñi deusku bere barrua, Andra Mariaganako maitasunez gaiñezka. Balentiñek ez eban asko idatzi; bere bizi laburrean eta bere eginbear estuen artean lumeari egiteko asti andirik ez eban aurkitu, bere nausientzat edo Erromara bialtzeko Mixioetako barri edo txosten batzuk; dana bear-bearrezkoa, berak eukan kargurako. Idatzi eban geien geiena etxekoentzat, bere adiskidentzat eta olan bialdu zituen kartetan daukagu. Eta, zorionez, karta orreitatik asko, amari bialdutakoak, euskerazkoak ditu. Geienetan, etxera karta bi bialtzen zituen, bata erderaz eta bestea euskaraz; erderazkoa aitarentzat, eta euskerazkoa amarentzat. Orregaitik edo, Ama Antzuolarra ebalako edo, askotan Balentiñen euskerari giputz-usai apur bat badario. Bein, orraitio, aita-ama bai euskerazko karteak idatzi eutsen. Eta bera, betiko agur egiten eutsela uste ebanekoa, Sevillatik Cadiz-era bidean, itxasontzia eta mixio-erritara abiatzeko egoanekoa. Une orretan bai euskera utsean bialdu deutse bere karteak. Eta beste euskerazko karta bat Tonkingo mixio-lurretik Ocañako moja karmeldarretan egoan moja bati bialdua dau.

Balentiñek bialduriko kartetan ustuten dau ondoen bere biotza eta eurotan erakusten dau era batera eta bestera bere Ama Birjiñaganako gogo beroa. Beste iturri batzuk aitzu barik, eurak izango doguz emen ituririk ugariena, Berriotxoaren bizi-tzako alderdi au ikusteko.

Andra Mari Berriotxoaren Elorrioko urteetan

Beste iturri batzuk aitzu barik, esan dot. Izan be, Berriotxoak gero erakusten dauan Andra Mariaganako oneraspena lendik, txikitarik banuan daroan landara baten adar eta lorak baiño ez dira. Elorrioko kristiñau-giroak, amaren altzoan ikasiriko oitura onen aziak emoniko emoi beteak dira. Berak etxean ikusi eta ikasi bakorik ez dau gero bere kartetan erakusten ez irakasten. Bear bada siñismen biziagoz eta gogo beroagoz eta oitura areik galduko ez ete diran bildurrez antzean, baiña gauza barririk ez dau esaten.

Gogoratu daigun orduko giroa, Berriotxoak bere umetan bizi izan dauana. Lenengo ta bein, Andra Mariaren zaindaritzapean sortu, azi eta bizi izan dan uria da. Bere sorreran Andra Maria, Sorrera Garbiaren misterioan, artu eban zaindari. Andra Mariaren Sorrera Garbiaren omenez eregiriko eleizarik zarrenetakoa dogu Elorriokoa. Gero, kristiñau-errian Andra Maria barru-banuraino sartu zaneke aldietako kristiñaua da Balentin. Gogoratzea baiño ez daukagu Euskalerrian orduan iñozkorik geien zabaldu zirala Ama Birjiñaren omenezko ainbat oitotz, oneraspen eta kanta. Orixe

diñoskue, aurreko gizaldian asita, argitaratu eta zabaldu ziran euskerazko liburu batzuk: Urkizu Durangoko alkatearenak, Bermeoko *Koroa Santua*, Kardaberaz, Mendiburu, Añibarro, Joan Jose Mogel eta abarren liburuak. Durangoko alkatearenak, eta beste batzuk, errosarioaren amarreko bakotzeko misterioak kantetako bertso ego-kiak zituezan. Olako bertso batzuk, Durangokoak nai Bermeokoak, kristiñau-dotri-ñetan be argitaratu ziran eta Bizkaiko euskalkitik Lapurdiko euskerara itzulirik zabaldu be bai. Emeritzagarren gizaldian Euskalerrian be sartuta geldituko da maiatzeko lorak Andra Mariari eskeintzea. Balentinen umetako egunetan agertu zan Andra Mariaren Illabete ori euskeraz, *Jauretze* idazlearen lumatik, eta gerbtxoago Bizkaian Uriarte aita Frantziskotarrarena. Oitura onek gure egunetararte sendo iraun dau. Baserririk txikienetan entzunda daukagu Uriarteren liburuko loretako deia:

Guzti guztiok alkar arturik
geure biotzak loraz beterik
opa deutsuguz, Maria,
zeruko izar argia.

Giro orretan jaio eta azia da Balentin Berriotxoia Elorrioko Andra Mariaren babespean. Eta bere biotzean giro ori beroagotu baiño ez jakon egingo Errosarioa ia ikurrintzat dauken moja dominikarren eleiz-mutil eta sakristautza bere arduratzat artu ebanean.

Edozetarako gai etorren Balentintxo. Mutiko alaiia zan, eta lagunarterako ezin ohea. Lagunak alaitzeko gauza asko ikasi ditu: dantzan, aureskua ateraten, txistua jotzen, uretan sartu eta uger egiten. Baiña bere etxekoen lagungarri, zurgintza, arotzeria ikasi dau, aitari eta etxekoai bere lanaz lagundu eta etxeko abe ona izateko. Eta etxeko eta erriko erlijio-giroan ikasi dau Andra Mariari egiteko otoitzak esaten, etxekoen eta bere neke eta larri-uneetan zeruko Amagana begiak jaso eta aren magalpera joaten. Mutiko zala eskeiñi eutsan Jaungoikoari bere gorputz-arimako garbitasuna, eta Andra Mariaren jai-egunik andienetan barriztau egiten dau eskeintza ori eta Zeruko Amaren ardurapean jarten.

Orain itauntxo bat: izan dau iñoz bere gazte-urteetan zeruko Amaren berarizko mesederik, santu batzuei jazo ei jakenez? Aita Garrastatxu dominikarrak olango zerbaiten berri emon euskun. Udako opor-egunetan ostera batzuk egiteko oiturea ei eukan bere Antzuolako senideak gana eta Getarian eukan osaba abadeagana. Eta Getariako plaian jazo ei jakon bein: uretan sartu, unetxo batzutan uger egin, eta alango baten, urak eroanda ondatu. Osaba abadeak ez dau iñon ikusten eta deiez asi jako, eta Balentiñen aztarrenik ez. Eta orra or, azkenean, non datorren ur-ertzera olatu andi-batek ekarrita. Eta osabeak «Balentintxo, zer izan da ori? Zer jazo jatzu?» Eta Balentiñek: «Neuk be eztakit, osabea. Or ibilli naz are eta uren artean galduta. Barru barrutik deitu deusat Ama Birjiñari, eta oso ta bizirik urten dot». Miraria ala ez, or agiri da argi bai argi, Balentiñen biotzak arriskueta nora jotzen dakian: zeruko Ama maiteagana.

Abadegei eta abade gazte

Logroñon abadegei dala, ez dau oraindiño sermogiñan asteko ordua etxerako kartetan. Ez dau, antza, orretarako bear-izanik ikusten. Baiña Logroñoko egunetan, beste alde batetik dakigu: Andra Mariaren jai-egunak ospetsuago egitea Balentiñen eskuetan ipinten ebela askotan Seminarioan. Berak pozik eta ardurarik andienaz artzen eban meza eta kanta barriak Elorriotik ekarri erazo eta irakastea, eta abar. Kartetan sermoirik ez da izango, baiña Andra Mariaren jaien edo eleizkizunen bat ona izan dabenean, bere poza bizi bizi agertuko dau etxera bialtzen dituen barrietan.

Logroñon bizi da abade eginda lenengo urteetan. Eta an asi dau bere sermolari eta arima-zain bizitza. Balentiñen sermoirik iragarten zanean, askok «goazen santuaren sermoia entzuten» esanda, ez ei eben ari entzuteko aukerarik galtzen. Bein, maiatzeko *Lorak* egiten ziran egun baten, sekulako sermoia egin ei eban Andra Mariaren anditasun eta bikaintasunak esaten. Batez be, azkenengo berbetan ia ixildu eziñean Andra Mariari zuzendu eutsan otoitzean, berak be negar, eta negar eragin ei eutsen entzule askori.

Logroñon Kalahorrako gotzaiñak ango abadegeien zuzendari egiñik emon zituen mezea emon ondoko urte bi inguru. Orduan Bizkaia eta Araba eta Gipuzkoako zati bat Kalahorrako eleiz barrutian sartzen zirala irakurleak ez dau aitzu beariko. Baiña aspalditxotik Balentiñek egoak beste nonbaitera egaz egiteko prest eukazan: Ocañara, Madrildik berako erri batera. Mixiolari eta domingotar egin nai dau. Orixe da arako «nora zoaz» itaundu eutsanari, argi esan gura izan ez eutsana. Eta zergaitik domingotar eta zergaitik Ocaña-ra? Domingotar joateko gogoa Elorrioko Santa Anako mojatxoak eta euron kapillau domingotarrak biztu eta berotu eutsoelako. Eta domingotarrak orduan beste fraide-etxerik ez eukelako. Orduko gobernuen kasketaldia izan zan ori. Urteak geroago Frantziako politiko eta agintari batek esana ei da fraide-abadeen aurkako politika ez zala atzerrietako kolonietara zabaldu eta saltzekoa. Madrilgo gobernuak aspalditik ebilzan politika ori euren eginda: fraideak etxetik kanpora bota, euren etxeak galazo, baiña kanpoko kolonietarako azitako etxe bat edo beste itxi. Iru etxe izentau ebezan orretarako, bat domingotarrena Ocañan. Ara joan bear eben guztiak domingotar egin eta Filipinas aldeetara mixiolari joateko. Orra zelán dogun gure Balentin Berriotxo domingotar eta mixiolari egiñik. Ocañara joaterakoan ba ekian zetara joian eta zelango martirio ikaragarriak jazo zirean Tonkingo mixio-lurretan.

Urrutiko lurretarantz

Orain asiko da sermolarien lana egiten. Sermolari, baiña ez pulpitutik berbaldi luzeak egiten dituenetakoa. Bai berba laburretan, berba gitxitan eta berba lau eta samurretan bere biotz Andra Marizalea erakusten dauana. Balentiñen kartak Ama Birjiñeari deusnaitasunez gaiñezka dagoz. Aren barruaren ispillu argi dira. Bein idatziko dau Andra Maria goraturik ikusiaz artu dauan poz-atsegiña erakusteko, beste bein karta-artzailleai Andra Mariaganako etsigitasuna (atxikitasuna) izan dagiela esa-

teko. Kadiztik itxasontzian urtenda, bost bat illebeteko urgaiñeko ibillaldia izan dabe. Joan eta joan Manilara eldu arte. Soiñeko askotako fraideak doaz. Euskaldunak gitxi batzuk. Baiña ontziko agintaria, kapitana, euskalduna da, Bermeoko semea. Askotan izan dabe euskeraz itz egiteko erea. Baiña Balentiñentzat egunik eta ordurik onenak eta pozgarrienak, ekatx andietan ontzia galdugordean ikusita guztiak laguntza eske Andra Mariagana jo izan dabenetakoak, Aste Santuko eleizkizun ederretakoak, eta batez be, Maiatz guztian zear Andra Mariari eskiñi deutsoezan loretakoak izan dira. Axe zan Balentiñen biotzarentzat ikuskizunik atsegingarriena: an itxasoaren erdian, olatuen dunbateko eta aize-irrintzien artean, ontziko guztiak alkar arturik Andra Mariari otoitz eta kantak zuzentzen ikustea. Ontziko guztiak, mariñelak eurak be bai, artzen ei eben parte Maiatzeko lora orreitan, eta bakotxak eskeintzen ei eutsan Andra Mariari bere eguneko loratxoa, txartel baten atarata. Poz onen barri etxera eta Logroñora bialdu dau. Logroñon famili ongille eta laguntzaille izan eban batenera. Familia au Migel Soret-arena da. Eurak emon eutsoen Logroñotik Ocañara, oiñez barik (berak gura eban lez), burdiz joateko bear eban dirua eta geiago. Etxe onetako geienentzat dau kartaren bat Manila aldetik idatzita. Neska ta mutillentzat be bai. Mutillok lege-gizon izatera jo eben eta Balentiñ ez da geldituko euren eginbearrak gogoratu barik: batez be, txiroen eta alargunen alde jokatu bear dabela, Jaungoiko Aitaren antzeko izateko. Eta gero liburu bat erakusten deutse, euren auzi guztietan argi egingo deusena, baiña egunero irakurteko liburua. Zein da liburu ori? Errosario Santua.

Mariaren oneraspena Manilan

Manilan, nabarmengarrien egin jakona urrian ikusi dau: ikaratuta gelditu da an Errosariooko illean ikusi dauanagaz, batez be Errosario egunean eta urrengo domekan. Goizeko lau ta erdietan asita, eleizea betean ei egozan Manilarrak, Errosarioa eskuetan, Errosariaren amabost amarrekoak esateko. Eta arratsaldean, ordu biak jo orduko bardin. Beste gauza bat aurkitu dau oso ereduakoa: Abemarietakoak jotean, jente guztia gelditzen da kalean bertan be, orgak (kotxeak) eurak be bai, bakotxak ixillean Agur Mariak esan arte. Eta Bizkaian ikusia jatorko gogora: oitura ori Bizkaian bizirik ei dago erri txikietan beintzat; baiña Españako uri argidunetan ez dau orren aztarrenik ikusi. Andra Maria olantxe maitatua eta goratua ikusi nai dau. Kristiñauak ez dau euki bear Zeruko Ama olan maitatzeko eta goratzeko lotsarik. Logroñoko adiskide bati (Damaso Amigori) erantzunez, gogoan dau an Maitasun Ederraren Amari eregi eutsoen irudia. Eta itaun bat egiten deutso: Ez deustazu Maitasun Ederrarenik ezer esaten? Ekin zintzo, beragaz, adiskide. Andra Mariari dagokozanetan, jaso burua gora eta zeu izan lenen are alde. Ama ona da bera... Gora Maria! Maitasun Ederraren Ama! Eta Migel Soret-arraren alaba Rufinari: «Andra Maria eta Andra Mariari geiago ospatzeko eginbearrari dagokenetan, mundutarren esamesak guztiak zapaldu egin bear dira eta kikileriarene gainetik, bear balitz, suziri bat artu eta doala zeruan gora Jaungoikoaren Amari txalo joten. Maite izan egizu Ama Birjiña eta ez zakioz aurretik aldendu gero ta maitasun geiago eskatu barik... Lan egizu zeure eskuakaz, aren

irudiak apaintzen... Ama Birjiñaren eta bere Seme guztiz Santuaren gogoko izan nai badozu, maitatu egizu gorputz-arimako garbitasuna».

Olantxe, Berriotxoaren kartak Andra Mariaren aitamenez eta berari izan bear dautsagun oneraspen eta gurtzara berotzeko berbaz beterik aurkitzen ditugu. Bere adiskide eta lagunai, bere berbak entzun gura ebezenai, bera maite dabenai idaztean, kristiñau-bizitza sendotzeko gaiak erabilten ditu eta Andra Mariaganako deboziñoa iñozko sarrien urtetan deutsan gaia da. Eta ori atzeentzat, bere arteko ez dituenentzat egin badau, bere aita-amentzat ez dau orretan ardura gitxiago erakutsi. Jaungoikoaren borondatera egotea, sakramentuak sarri artzea, etxean alkarren arteko bakea zaindu bearra, etxe guztien artean bake ona, alkarren arteko maitasuna, maitasun zintzo eta argia, arpegi illunik eta berba garratzik bakoa nai ditu beretarrentzat. Olan bizi bear dabe alkarregaz beti, Bakearen Erregiña dan Ama Birjiñaren gogoko eta atsegingarri izango badira: «Ezteyela iñok etxian egunik pasau errosarioa errezau barik eta al dauela mezia bere goxian entzun, bada onetan emoten dan denporia ezta galdua».

Balentin Ocañara joan zan fraide, guztien ixillean, etxeokoi agurrik egin barik, amaren agur egikerako negarrak ezin jasan izango zituelako bildurrez. Baiña amaren urrengo karta batetik jakin dau, semea fraide joateaz, Jaungoikoaren borondate osora daukala ama. Orrek emon eutsan poza eta asazkaldia! «Neure ama maitia: Ia predikadore baten legez eskritan ikasi dau» (Balentiñek gurasoakaz *berorika* diardu beti orduko oitura zanez), eta urrengo lerro batzuetan: «Jakin biar dau, baldin da biotz-biotzetik eskintzen badeutsa berorren semia (Jaungoikoari), Maria bitarteko ipiñita, mundu onetan egin al deian Jaunaren gustokuena egingo dabela uste dot... Ez gaizan Jaungoikuaz urri ibilli; zeruan leku zabalak daukaz guretzat, lurrian bere borondatia egiten badogu».

Umetako bateo-eguna geienok ez dogu ikusi, ez orduko graziaren poza nabaitu. Balentiñentzat bigarren bateo-eguna izan dau bere profesia-eguna. Eta ona zer diñotsen gurasoai: umetako bateo-eguna ezkerro, ez dauala berak egun gogoangarriagorik eza-gutu profesia egin ebaneko eguna baiño.

Oraindiño be naikoa kezkatu bizi da, amari atsekabe andiegia emon ete deutsan fraide joanaz. Eta alan diñotso beste bein amari: «Gauza batek beste askon artian dauka nere biotza penaz beteta, eta Maria Birjiñaren entraña garbiak gaitik eskatuten deusat konsuelua». Eta otoitz samur beroa bialtzen deutso kartan, amak maiatzeko ill aretan Mariari esan deion, seme maitea Jaungoikoari eskiñi eta bere mundurako galtzea onez eroateko. «Konsolatu bedi, amatxo, Maria Birjiñagaz... Negar egin nai dauenian, biua Mariagana, eta bere oñetan urtu bedi berorren biotza... Artu bei ainbat sarrien eskuetan errosario santua, eta errezau beio deboziño andi batekin, bada erro-sariua arma guztiz indartsua da».

Ocañan, ango karmeldegian mojatxo euskaldun bi ipiñi ebezan Balentiñen ardurapean, erdara modurik ez ekiela ta... Andik iru bat urtera, Manilatik karta bat etorriko jake, Balentiñek bialduta: bata euskeraz. Eta bertan, bigarren lekuan, burubide au emoten deutso mojeari: «Bigarren, ez aztu Ama Birjiña biotz-biotzez maitatzea; berari gusto eman nai badiozu, atenziño andiagaz errosario erreza egiozu, eta

egunian egunian mortifikaziñoen bat eskiñi». Ez dakigu zergaitik, moja bioi agindu eutsen, artu dabezan kartak irakurri ta gero erreteko, erre ta kiskaltzeko. Zorionean, ama nagusiaren aginduz, ez ebezan erre: biak gorde izan dira gaur arte.

Kadiztik Manilarantza urteniko itxasontzia azken-portura eldu zaneko barri, dana amari euskeraz eta bertsotan egindako karta baten emoten deutso:

«Bost illabete guenian,
lurreratu giñian;
zer pozik Birjiñaren arpegian
ipiñi nituan nere begiak!

Ez dabe okerrik izan, bakean eldu dira Manilara:

Birjiña Mariaren amparuan
galduko giñian ba itxasuan?
...Viva gure Birjiña Maria!
Berea izan dedilla biotz guztia.

Beste karta bat joako Amari Elorriora Manilatik bertatik, dana euskeraz. Karta orretakoak dira Errosario Santua zer dan amari argien adierazteko bertsook:

Errosario sendoa eskuan,
Aita guria eta Abe Mariak aguan,
pentsamentu santuak buruan:
zer gauza ederragorik munduan?

Mixiñoetan

Urrengo kartak mixio-lekuetatik idatziko ditu. «Laster utziko dot Manila, / bisitazten noia jentilla. / Agur ama, ondo bizi, ez larregi burua ausi. Biotza bada nasaitu dedilla, / ondo dago berorren mutilla. / Leituko ditu letra onek? Ala uste dau Balentiñek». (Gogoan izan bear da Berriotxoak letra andiaz idazten deutzazala kartak, errezagotako irakurri dagiazan).

Andik urte betera (1858ko azken aldean), Tonkindik datoz Elorriora Balentiñen kartak, eta Tonkingo kristiñauen alde Jaungoikoari eta Ama Birjiñari otoitz egiteko eskatzen dautse bere gurasoai, kristiñau-maitasunak orretara beartzen gaituela-ta. Urte areitan karta asko galtzen ei zirean bidean, bai Elorriotik Tonkinerakoak, eta bai andik onakoak. Karta bat edo beste galdutzat emon bear dira. Urrengo karta bat 1859ko aguztukoa daukagu, amari egiña, eta emen be Andra Maria darabil agoan: Ama Birjiñari otoitz egiten deutzala bere ama Monikatxo bere eskutik euki dagian eta azken ona emon deion.

Beti ardura barik egoteko, gogoia jasoteko berbak darabiltz gurasoekin. Eriotzea ur dabilkio. Azkenengoko karteaz ezkerre, lau lagun geiago il deuskuez jentillak, gure

arerioak, esan deutse gurasoai karta baten. Berak bizi dituen nekeak ez deutsez estaltzen. Obispo dala bera? Bai, ta zelango palazioan bizi da gero? Palazio orrek lastozko teillatua dauko, pekorotzezko ormak, kañazko abeak, kañazko kapiriuak, kañazko ateak, eta ez dauko bebarru bat baiño eta bera lurrezkoa. Baiña ez larritu, diñotse; ni palazio orretan «Erregiña berian baiño obeto bizi naiz». Obeto eta pozago, eta osasun onean. Beragaitik ardura barik egon bear dabe. Ez arduratu eta «ondo bizi, Ama, errosario senduari ez itxi eskutik jausten eta erregutu asko berorren seme bakartxuagaitik».

Tonkingo kristiñauak leial eta sendo erantzuten deutsoe arerioen erasoari, euren siñismenean iraunez. Ikaragarria da euren egoerea. Euren erlijiñoa ukatu eragin gura deutse, Kristo Salbatzailearen gurutzea zapaldu erazota. Ainbat martirik ixuri dabe odola, siñismentari eustearren. San Frantzisko, bein, Ejito ta Palestina aldetik ebillela, olangoxe estukura baten ipiñi nai izan eban musulmanen agintari batek; bere aurrera deitu eta agintariagana agertu bear eban atetan, kurutzearen irudia margoztu eban, ia zapalduten eban ikusteko. S. Frantzisko (bertsolari eta umore onekoa berau be), aurrera joan zan kurutzearen gañetil bape ardura barik. Eta musulman arek: «Zer da ori, zuk Kristoren kurutzea ostikopetu?» eta Frantziskok: «Ez, jauna, ori ezta Kristoren kurutzea, alboko lapurrena baiño».

Bizi-arriskuan

Tonkingo kristauak ez eben euren gauzea olan artu. Kristoren kurutzea zapalduz, euren siñismena ukatu erazo nai eutsen. Eta ez; eurak sendo iraun eben euren siñismenean, martirioraiño, iraun be. Olantxe iraungo dau Balentiñek be. Bere eguna noz etorriko, beste guztien kristiñautasuna sendotzen diardu, edo egun obeak noz etorriko zain. Eta iñoz be barruko bakea eta alaitasuna galdu barik. Bere larri eta nekeak ardura barik dauke. Besteen neke ta larriagaz dago arduratuago.

Obispo dala? Ainbat ardura geiago bere gañean eta, lenen lenen, bere mendeko kristiñau guztiena. Gotzain izateak orixe dakar, beragaz batera. «Amatxo maitia», idatzi deutso bein Monika amari: «Ni guztiz ondo bizi naiz, Obispo Jaun bat eginda, eta ez da ezer falta... Gosiak ez gaituz ilgo... Baiña ezpei pensau Obispo izanagaitik, kotxian gabilzela; ortosik egiten ditugu geure biajiak, lokotzik lokotza ta gabaren illunpian; baña alegre bizi gara. Gau baten ibilli nintzan sei legua, azpian lokotzia eta ganian euria nebala; sarritan meidu neban lurra neure luzetasunagaz, eta Obispo izanagaitik lokotzaz eta urez beterik eldu nintzan etxera. Ai nere semetxo maitia, esango dau berorrek. Ze bizi modu tristia ori! Ez neure amatxo maitia, bizi modu au ez da tristia; osasunagaz alegre eta bizkor dabil emen jentia. Jaungoikoak konsolatzten gaitu geure trabajuetan, eta mutil zarra izanagaitik, airoso salto egiten dogu lokotzetan. Amatxo, mendi-mutil bat eginda dago Balentintxo, eta bere okotzeko bizarrak ikaratuko lituke diabru zarrak». Olantxe, umore onezko bigungarriak ezarten daki Berriotxoak mixio errian igaro bear dituen nekeai. Neke onei «trabajillos» esaten deutse aitari eginiko karta baten.

Baiña, alan be, bere bizia arrisku ikaragarrian daukala badaki eta amari eskatu deutsa karta baten bere erreguetan gogoan izan dagiala: «Gauza bat berorrek pentsau biar dau eta Jesus Maitiari eta Ama Birjiñari biotz guztitik erregutu, neure azkenengo amaseraiño lagundu deidala bere grazia eta anpamagaz... Preparatu gaitian eriotza on baterako, alkar zeruan ikusteko».

Bere bumaz aitzuta beti ibilli danak emen badirudi eriotzea, martirioa, ez dauala ez-usteko gauzatat ikusten. Baiña zek emoten deutsa adorea, ainbeste larri ta estukuren artean, inguruan ainbeste eriotza ikusita, zek emoten deutsa adorea bildurrik ez agertzeko, bere barruko bake ta alaitasuna ez galtzeko? Ainbeste ezbear eta triskan-tzen artean zelango umorez gogoratzen deutson bere gaztetako fraide adiskide bati errian kantetan eben erri-abesti bat! Onelan idatzi deutso Ocañako fraide bati ilteko eguna baiño illabete lenago: «Esaiozu Aita Garairi emen ez dogula arako «Juan nintzan merkatura, erosi neban txilibitua» kantetarik. Emen kanta guztiak galazota dagoz».

Berriotxoak azkenengo egunetan be neketan egozanai Andra Maria Atsekabetuen Amagana, Gexoen Osasuna danagana joatea ekarten eutsen gogora. Balentiñek Andra Maria, *Causa nostrae laetitiae*, izan ebala esan geinke alaitasun iturri bere bizi guztian. Eta azkeneko egunetan geiago. «Gure alaitasunaren Amak» lagundu eutsan bidean, eta Martirien Erregiña danak lagundu eutsan bere azkenengo orduan, bere Kalbarioan, Kristori leial irauteko, alai eta pozik.

Andra Mari urte onetan eredutzat artzeko santua ez ete dogu Berriotxoa? Andra Mariagaz batera eta Andra Mariaren laguntzaz eroan dau bere santutasuneko bidea. Joan Paulo bigarrenak Andra Mari urtea dala-ta emon dituen irakatsiak bete betean bere bizira eroan ditu. Errosarioa auznartuz, Elorriion asita, artez eta zuzen eroan dau Andra Mariaren fedezko bidea, Maria bere semeagaz ain bat egiten dauan bidea. Andra Mariagaz bat egiñik bizi izan da bera. Errosarioko misterioak ama-semeenak dira, Kristorenak eta Mariarenak. Errosarioko misterioak gogoan erabilliz ikasi dau bere bizitzako pozak, eta naigabezko orduak emengo ordu zorionsuetarako eta betiko zorionerako bide egiten. Or ikasi dau Andra Mariaren eta Eleizearen amatasuna bizitzen, arimen alde lan egiten, kristiñau barrien aita eta ama izaten.

Balentin Berriotxoaren bizitza zuzen ibilli da bide orretatik. Leon XII garrenak esan ei ebanez, Balentin Berriotxoa santutzat autortzeko besteko kristiñaua izan da, martiriorik izan ez baleu be. Eta gaur, Eleizeak santu osozko izentetan dau Elorrioko seme mixiolaria, Andra Marizale beroa. Berak gaztetan txantxetan esana egiazko biurtu da.

BEGOÑAKO KARMELDARREN EUNURTEGARRENEAN LAU GIZON OSPETSU MUSIKAZALEEN GOMUTA*

Eungarren urtea ospatzea askok daben zoriona ez da. Gure artean, esaterako, edozeiñek ez dau gure Jose Migel Barandiaran andiaren sasoia. Ain zar egin arte bizitzea iñor gixik badau be, ez da gauza guztietan bardin jazoten; etxeko jauna il aren, etxeak aurrera jarraitzen dau. Erakunde baten bizi diranak emengo aldia egin eta betiko badoaz, beste batzuk etorten dira atzetik eta erakundeak aurrera egiten dau, eta eun urte asko betetaraiño eldu leiteke.

Begoñako Karmeldarren etxeari jazo jakona: ain zarra be ez dogu bera; lenengo eunurtea bete baiño ez dau egin. Eta eungarren urte au, lenengo gizaldi edo mendeurren au, zaratabarik, iaixileanjoanjako. Lengo urtean, 1987'n, irailaren zortzian eldu zan gure Karmelo eun urte betetara; eun urte lenago, 1887'ko irailaren egun orretan bedeinkatu eta zabalduak dira Karmeloko fraide-etxea eta eleizea. Bigarrenez etozan Karmeldarrak Bilbo aldera.

Amazazpigarren gízaldean, 1618garren urtean asita egozan Bilbon eta emen irauñ eben zelan edo alan 1834tara arte. *Correo* kalean euken euren etxea bere eleizatxo eta ortutxoa, ain zuzen 1936'ko gerratean, militarren bonba batek, goitik bera jaurtita etxe bat bera bota eban lekuan. Eurak an euken ortutxoaz egin zan 1828n geien batez oraingo Plaza Barria. Lenengo Karlistadan itxi egin bear izan eben dana: etxe, eleiza eta ortu. Askok atzerrira, Frantzialdera jo bear izan eben.

Eta Frantziatik etorriko dira ara joaniko Karmeldar batzuk, len itxitako abiak barriro artuz edo etxe barriak eregiz, karmeldarren fraide-bizitza Bizkai aldean barriro ipinten: Markinan lenengo (1868), Larrean urrengo (1878), eta Bilbo aldean, Be-

* Karmel 1988-3, 3-13.

goñan, Santutxu aldeko Landaburu baserrian. Gaur, lenagoko ortuaren lurretan egini-ko kale batek Landaburu Baserria dau izena.

Emen sartu ziran 1880n eta emen bizi izan ziran Karmeldarrak, etxe barria eta eleiza barria egin eta 1887n bedekatu, eta bertan bizitzen asi ziran arte. Karmelo arrezkero, ia bere bizi guztian, fraidegeien eta abadegei teologi-ikaslen Ikastetxe izan da, eta gaur parroki egirik dago, parrokiaren arduradun fraideak dituala.

Gizon ospetsu batzuk Karmelon

Idazlan onen asmoa ez da fraide-etxe onen eunurteotako goraberen barri zeatzik emotea. Apalagoa da gure asmoa. Fraide-etxe onetako eleizara eltzeko oituratxoa izan eben lau gizon ospetsu samar ekarri nai doguz gogora. Eta ez etozen ez Karmengo Amaren ez Karmengo fraideen maitez, bertan entzuten eben liturgiaren eta gergoriar musikaren maitez baiño. Gergoriartzat dagoan eleiz-musika entzungureak ekarrita etorten ziran. Eta urrintxotik etorri be. Ez ziran laurak musikolari, baiña musikazale, eleiz-musika aparteko baten zale bai.

Aurretiaz, argintasuntxo bat irakurleari emotea ez da alperrik izango: emen inguruan Karmeldarrak lenengotarikoak izan zirala eleiz-musika ori sartzen, Solesmes-ko beneditarren eskolari eta joerari jarraituz. Karmeldarren artean Euskalerritik zabaldu zan joera ori. Alde onetatik Karmeldarrak izentxoa lortu eben inguruan. Burgos-en, 1909n gregorianozko disko bat atera eben, Karmeldar euskaldunak abestua. Gasteiz'en, 1928n Eleiz-musika Batzar andia antolatu eben, aste osoan izana. Karmeldar ikasle gazteai deitu eutsen, batez be gregoriano abestuteko. Aita Donosti musikolariak, Gasteizen izaten zan domeketan, ez eban utsik egingo Karmeldarren eleizara meza nausirako joan barik, ango koruko kantariai entzutearren. Begoñan iñoz ezagutu dogu katalanik, Karmeloko meza nausira joan zanik; Montserrat-eko musikara eginda eukan belarria, eta bere Liber Usualis ta guzti etorren itaunka, ia zein eleizatan izango eban Bilbon gregorianozko mezea entzuteko zoria, eta norbaitek esanda Karmelora igon eban, eta ez zan damutu. Pozik agertu zan bertako fraideai zorianak emoten.

Migel Unamuno (1864-1936) eta Ramiro Pinedo (1872-1952)

Unamuno nor izan dan esan bearrrik ez daukagu. Baiña nor dogu Pinedo? Unamunoren adiskide andi bat da. Unamuno lez bilbotarra. Unamuno lez, bere ikasketak egitera kanpora joana; baina beste jakite-arlo baten sartua: farmazigaietan, bakterio- logian, Paris'en Pasteur-en Institutuan ikasia. Bilbora etorri eta farmazi-denda ipini-ko dau, eta farmazi-ostean, jakintza-zaleen eta pentsalari ziralakoen txokoa, batzarleku eta berbalekua. Goiarintxoa izan ei zan aldikada baten, eta 1906-n Silos-en, antziñako botiken bilduma ederra dauken beneditarren fraide-etxean egotalditxoa eginda gero, bizimodu ohera egin ei eban, eta urte batzuk geroago beneditarren soñnekoa eta bizi- modua artu dau. Erdi-Aroko ertilanen aztertzaile egin da, Erdiaroko etxegiñen eta irudigilleen aztertzaile. Erdiaroko etxegiñen eta irudigilleen irudien esangura eta sinbolismoa aztertuz, idatzi dituen liburuak ospea emon deutsoe. Silos'en fraidetu

zan; bertan egin zituen eleiz-ikasketak eta fraide mezadun izatera eldu. Baifia laster aldatu zan Eztibaliz-era, eta emen emongo zituen azken-urteak 1952-n il zan arte.

Pinedo eta Unamuno alkarren adiskide andi izan ziran gaztetarik eta beti. Adiskidetan onen barri izan gendun nik eta nire ikasle lagunak, Gasteizko karmeldarretan giñala, 1930-garren urtean, Gasteizko apaizgaitegi barria bedeinkatu eta zabaldu aurretxoan. Egun areitan, Gasteizera agertu zan Unamuno, Frantzialdeko erbestealdia amaituta, bere 64 alderditiko euskalduntasuna arro antzean autortzen ebal. Eta zek ekarren Gasteiz'era? Eztibaliz-en Ramiro Pinedo Aita bere adiskide miñari ikustaldia egin gureak. Olan autortu eben Gasteizko egunkariak. Eta orduan jakin genduan euren gazetako barri au: askotan igon ebela biak Bilbotik Karmelora, ango gregorianozko mezak entzutera, biak gogotsu igon be. Orregaitik izan ete zan, Bilbotik Karmengo Amaren Anaidikoak Santa Teresa donetzat emona izan zanetik irureungarren urtean Alba de Tormes eta Salamanca ikustera joan ziranean, Unamunok Salamancan egin eutsen ondo etorri beroa? Dana dala, gazteizko Karmeldarrak Aita Pinedo berberaren agotik ekien 1930'n guk orduan jakin genduana: Unamuno ta biak sarritan izan zirala Begoñako Karmelon, ango mezatako kantua entzuten. Noz? Bear bada, Pinedo Silos-era joaten asi aurreko urteetan, 1906 garren urtea baiño lenago.

Andres Isasi musikalaria (1890-1940)

Andres Isasi, Unamuno eta Pinedo lez, bilbotarra da, eta musikalaria andia, bere errian baiño geiago Europako musikalarie artean ezagunagoa eta entzute andiagokoa.

Carmonako espetxean, 1939-n abade-espetxe biurtutako espetxean bazan musikalaria mordo galanta. Besteiro be eurekaz zan lagun, eta Dueñasko espetxera eroan ebenean, bere andreari bein idatzi eutsanez, berak ez eukan iñongo teatrotara joan bearrik, kantaldi ederrak entzuteko; abade eta fraide musikalarie artean zan bat, Modesto Arana, Berrizko semea, espetxetik urtenda gero Bilboko *Sociedad Coral* dalakoaren zuzendari eta San Fernando Academiaiko kide izan zana. Oni eta beste batzuei entzun geuntsan lenengoz Andres Isasi onen izena. Eurai entzunik ikasi genduan orduan Isasi ez zala edozein musikalarie artean, eta bai gorengo maillako musikalaria, gure artean ia guztiz ez-ezaguna baiña, atzerrietan, Suezian, Berlin'en, Vienan, Budapesten sarritan entzuna eta ospe anditan egona.

Berlin'en ikasi eban geien baten, ango maisurik andien eskoletan. Eta an ezaguerazi zituen beste iñon baiño lenago bere musika-lan asko: eresiak (Lied) Heine-ren eta berak sortutako bertsotan emonda, sinfoniak, Lekobide euskal-opera (au galdutaz dagoena), eta abar. Ez da gure egitekoa guztiak aipatzea. Ez eban dana argitaratu; asko itxi eban eskuz idatzitako paperetan. Geiago jakin gura leukenak Errenderialdeko Eresbil-ekoak gana joatea dauko. Gure artean gitxi ezagutua bada be, Bilbon kale bat eskini izan jako, eta omenaldizko eresaldien bat emon izan da bere gomutaz.

Ona orain nondik nora dagoan musikalaria andi gitxi ezagun au Begoñako Karmeloz lotuta. Oraintsu agertu dan liburutxo batek ipinten gaitu jakitun, Bizkaiko Aurrezki-Kutxak ateraten dauan «Temas Vizcainos» sailleko liburutxo batek. Isasi,

Algortan bizi zan *Itxaso alde* izeneko bere jauregian, ia guztien ixilik, bere musika-lanetan murgilduta. Baiña domeketan 1936-ko gerratearen aurreko urte bietan, beintzat, goizean kotxea artuta, Bilborako bidea artzen ei eban, zertarako? Begoñako Karmeldarren eleizako meza nausia entzuteko. Esan bearrik ez, zek eroanda igoten eban ara: gregorianoz abesturiko mezea entzun gureak, eleiz-musika oni eutsan zaltetan eta musika orren maratil eta itzuliak agozatu eta ikasi naiak eroanda. Musikalari asko izan dira eleiz-musika onen miresle andi. Andres Isasi bilbotar au be bai. Musika ori non entzungo, eta Karmeloko eleizan aurkitzen eban entzuteko erea, eta orretarako amar kilometro baiño geiagoko bidea egingo dau, Karmelori eta eleiz-musikeari olantxe bere omenalditxoia egiñez.

Orixe

Gure Orixe be Karmeloko meza nagusiak entzungureak eroan eban ango eleizara. Baiña ez ebillan bera musika utsaren maitez, beste batzuk ibilli ziran lez beste zerbaitek geiago eragiten eutsan berari; gregoriar musikaren azpian eta inguruan eleiz-liturgian astiroago eta gogozago parte artzeko era egokiagoaren atzetik ebillen. Ori eukan gogoan beste ezer baiño geiago.

Orrexek ipinten deusku Orixeren kristau-nortasunaren alderdi bat ain argi: bere mistiko alderdia. Orixe ez zan kristau siñistun utsa; kristau-siñismena alik eta zintzoen eta beteen bizitzera egin eban beti. Idatzi zituen mistika-olerkiak ez zituen saio antzean idatzi, zeozer idaztearren, bere kristau-barrua ustutearren baiño, eta kristau fedeko misterioak, Jainkoak deuskun maitasuna eta abar gogoratzean, bein baiño geiagotan goragoraka eta gainezka jarten jakon biotza. Olango gaiñezka aldi bat, lenengoa, Begoñako Karmelon ango meza nausi baten nabaitu eban bein, berak olerki ontan autortu ebanez. Onelaxe diño:

Begoñako Karmel-
Eleizara noa
Gergori kanta-zun
Meza nagusira.
Asteko lan, kezka,
bizibear latzak,
atsendentxo apur bat
eskaten dida.

Otoitzez egarri,
biotza berela
guri biurtzen da
kantaren arira.
Kyrie, Gloria
emeki emeki
nere lapikoa
betetzen ari da.

Solus altissimus
entzunik, ito-nai
goxoak nerama
neronez gairidira.
Gaiñezka Jainkoaz?
-Ez, Beraren pozez.
Jainko ta poza
biak bat ez dira.

Olerkariari orduan eskuartzean erabillen laneraiño iraun deutso eleiza atan izan dauan biotzeko zauzkadak, gañezkaldiak:

Euskaltzaindiaren
etxean ginardun
Paul'en eskutitzak
aldatzen garbira...
Ez-orduko «Ene»,
oiu, amas-estu...
labur berritzen dut
lanaren segida.

Bakar-nai, gorde nai,
Bakarren ari, oin beste
kaxkarkeri arren,
otoitz-egarri da.
Zuk ematen zenun,
Jauna. Doatsu ni
nerezko zital au
kentzen bazenida.

Olerki onetan dogu Orixeko euskal-idazlea, bere animearen mistiko alderdia erakusten, Jesuiten arteko kanpo bizi bearra etorri jakon-arren, ez jako ori bere gogoz etorri, oso gogoz bestera baino, eta ez dau Eneko donearen eskolea iñoz itxiko. Bilbon diardu euskal-lanean, Euskaltzaindian, eta *Euskadi* egunkarian. Emen Aita Olabideren Biblia euskerara itzulia kopiatzen eta zuzentzen diardu, eta Orixeren lana ez da kopiatzaille edo zuzentzaille utsaren lana. Paulo apostoluaren eskutitzakaz dabil, eta berak eskutitz orrean azalari baiño geiago apostoluaren Kristau-irakatsiai eta barruko mamiari jaramon geiago egiten deutse. Jesuitarik jatorrena besteko otoitz-gizon jarraitzen dau. Otoitz-egarri da, eta otoitz-egarri ori asetzeko lagungarri guztien billa dabil. Lanetik otoitzera eta otoitzetik lanera. Bakarreko otoitza eta alkarteko otoitza, biak alkartzen ditu. Eta alkarteko otoitzik ederrena, Liturgiakoa, meza santukoa, batez be, meza ori bitarteko kantu ta guztikoa danean, mezako musikak kantuaren itzak eta mami guztia astiroago ausnartzeko erea emoten dauanean.

Gregoriar Kantu-zun, eleiz-musika orren billa joan da Karmeloko eleizara, berak esan deuskunez, bere otoitzari laguntzeko. Eta zer jazo jakon? Bere bizian izan dituen otoitzaldietako lenengo gañezkaldiak. Orixeri ez jako aitzu zein meza abestu eban Karmeloko fraideen koraak egun orretan: *Fons bonitatis* izenekoa. Olerkiaren alboan jarri dau izen ori: Meza ori jai-egunetan abestekoa da, Jainko Aitaren ondasunak kristauari emon bear deutson poz eta esker ona agertzeko lez egiña. Kyrie eta Glorian bere barrua, bere *lapikoa*, betetan doala nabaitu dau. *Meza* ori gregorianozko mezetan lirikoenetakoa da. Eta *Glorian Tu solus altissimus* berbetara eltzean, aurreko berbetan asita, kantua gora-goraka doa, Jainko andiaren anditasuna eta gorentasuna adierazten dauala, anditasun ori gero, *Jesu Christe* kantatzen gudanaiño bera ta bera jasteko. Une orretan pozikararik gozoena, pozezko eta esker onezko ganezkaldia izan dau Orixeko otoitz zaleak. *Lenengo gañezkaldiak* ipiñi deutso izentzat olerki oni, eta noztik nozartekoak? 1923-tik 1931-ra artekoak, Bilbon bizi izan arte guztikoak. Ona *Kiton arrebarekin* libuman egin eban autormena: «Araxe ioan oi nintzan igandero, eta badut eliza artako oroipen goxorik, batez ere Aste Santuetan eta Pazkoetan. Poliki kantatzen zuten».

Urte bitarte orretan, zortzi urteko bitarte orretan, olerki orrek diñoskuna zera da: sarritan igoten ebala Karmelora meza nagusia entzunez otoitz egitera eta bere

lenengo gaiñezkaldiaren gomutea barrizera. Au be mistikoen oiturea izan da: bai, lenengo grazi andien lekua gogoan ondo gordetea, bai grazi orrein gomutagarritzat bertsotan ipintea. Orixe emen egin dauan lez.

Eta guk ez genduan ezer jakingo, berak idatzi ezpaleu eta gero bere paperetatik artuta, argitaratu ezpaleuskue. Urte areitan euskalzale eta euskal-idazlerik ba egoan Karmeloko koruan abesten eben fraideen artean. Ez dogu iñoz entzun Orixe ezagutu ebenik be. Orixe ez joian Karmelora fraideakaz itz egitera, Jainkoagaz itz egitera baiño. Len aitatu dogun katalana, eleiz-musikazale Montserratren egiña, meza ostean fraide-etxera sartu zan, berari emon izan jakon poza erakustera. Orixe ez dakigu iñoz sartu zanik ez fraideakaz ezaupiderik izan ebanik. Musika egarriz baiño geiago otoitz-egarriz ebillen bera.

Bardintsu esan bearke dogu, beste irurai dagokiela, apur bat bestera bada be: otoitz-zale baino musika zaleago zirala, eta ez ebela fraideakaz artu-emonik izan. Fraideen arteko iñok ez zituen ezagutu Karmeloratzen ziranean. Unamuno eta Pinedorena, azkenengo onek Gasteizko Karmeldarrai esanetik jakin gendun, eta Andres Isasirena oraintsu Bizkaiko Aurrezki-Kutzak atera deutson bizitza-liburutik.

Bego emen lauron izena, Begoñako Karmeloren eun urteen gomutagarri.

JOSE JOAKIN ARTEAGA MIXIOLARI ANDIA (1878-1926)*

Manuel Lekuona zanari eskiñitako artikuluan esan zan oraintsu galdu genduan euskal-idazle onek Karmel aldizkarian ez ebala inoz idatzi ezer. Gaur geuk dakargu aren lan bat orri oneitara. Gaia ez dau berak asmatu, erderatik euskerara itzulia baiño ez da. Orain irurogetaka urte, GURE MIXIOLARIA aldizkarian argitaratua. Aldizkari au 1924n asi ta 1936ko gerratera artean argitaratu zan, izkuntza bitan, euskeraz eta erderaz, erderaz emoten zan lana bera euskeraz agertzen zala. Munduan zear mixio lanetan eragoien gure mixiolariak erderaz bialtzen ebezan barriak euskara itzulita agertzen ziran aldizkari orretan. Euskera errez eta txukunean, gaiñera. Jose Ariztimuño apaiza zan *Gure Mixiolaria* orren zuzendari. Berak itzultzen zituen euskerara erderazko lan asko. Baña beste asko beste euskaldun batzuei eskuratzen eutsezan itzultzeko. Emen dakargun au Ariztimuñok berak erderaz idatzia da, eta M. Lekuonak euskeratua. Zergaitik Ariztimuñok berak egin eikeana beste bati emon? Bear bada, artikuluan mixiolariaren erderazko bertso batzuk sartzen zituezalako. Bertsoak euskeratzeko bera baiño Lekuona esku obekotzat eukalako.

Eta nor dogu Jose Joakin Arteaga au? Aita Santuak karmeldar euskaldunen ardurapean 1918n ipiñi eban Urabako (Colombiako) mixioaren buru izateko izentau eban praillea, naparra, Lizarra'ko semea (ez ain zuzen artikuluan esaten dan lez, Iruñekoa). Urabako lurretara 1919 eldu eta an zazpi urte baiño egin ez zituen arren, itzalezko lana egin eban bertan: eleizak, eskolak (ume-eskolak eta lan-eskolak) eregi, aldizkariak sortu, bearrezko ziran bide barriak urratu, mixio aretako eleiz-edestia aztertu eta idatzi, eta abar. Bizi zala, Colombiako Academia de la Historia dalakoak bere bazkide egin eban eta 48 urte zituela adiñik ederrenean il zanean, Urabak eta Colombiako agintari eta kultur-erakundeak ikusgarritzko omenaldiak egin eutsoezan.

* Karmel 1988-3, 74-75.

Lizarrako seme onek, nafar garbi eta jator onek, ez eban ukatzen bere euskal-odola, eta bai Colombiar guztien aurrean agiri-agirian autortzen. Ameriketara joan baiño lentxoago, Azkue andiari mesedetxo bat egin eutsan: San Joseri atara eutsan kantu baten euskerazko bertsoak erderazko bertsotan ipiñi.

Eleiz-ikasketak Comillas-en asi zituen eta Karmengo Amaren soiñekoa jantzi ondoren, karmeldarren artean amaitu. Ariztimuñok, berau be Comillasen ikasturteak egiña zanez, an ezagutu eban, bere leenagoko Ikastetxera ikustalditxo bat egitera joan jaken baten, Santanderko gotzaiñak emoniko gotzaiñ-erestuna eskuan ebala, artikuluan ikusten dan lez.

Euskerazko titulua artikulua onelakoa dau: Gizon aundi baten egintza aundiak, eta erderazkoa: La vida fecunda de un héroe. Karmel onen orrietan jasotzea edo jaso izatea merezi daualakoan emoten dogu emen eta era batera orain irurogei urte idazten zan euskeraren erakusgarri*.

* Emen jarraitzen dau M. Lekuonak euskeratutako J. Ariztimuñoren lana (75-81.orr.).

FRANTZISKO PALAU KARMELDARRA PADAR ETA MIXIOLARI (1811-1872)*

Frantzisko Palau Quer aurtengo Pazko-astean Eleizeak doatsu egin dauan gizona da, gure artean gaixozaintzan eta irakaskuntzan lan ederra egiten diarduen Karmeldar Mixiolari deritxenen sortzaillea.

Politikako buruketan bizi zan gizaldian bizitzea jazo jakon, 181 l.n Leidako Aytona errian jaio eta Tarragonan 1872 il zan arte. Leidako seminarioan 1828n abadetzarako ikasketak asi eta 1832gn Karmengo Amaren soñekoa jantzi ebanean, baekian gizaldi atan arrisku andiko bizimodua artzen ebala. Urte areik etziran Madrilgo gobernupean bakezkoak fraideentzat. Arrisku guztiai buru egiteko Palau gazteak baeukan gogo eta adorerik naikoa, laster erakutsiko ebanez. Barcelonan da bera 1835n abadetza artzeko gertetan. Eta Santiago egunean jaietan da uria, zezenak eta guztiko jaietan.

Zezen-zaleak asarre dagoz zezenak zein baiño zein txarragoak diralako. Eta egun orretan zezen-plazara jatsi eta zezen illak tarraz daroezala or doaz kalez kale amorrubizian euren asarrea erakusten.

Orretan, ez jako, ba, burura etorri norbaiti (gero Biblioteca de escritores clásicos Rivadeneira sortuko ebanari), aldra amorratu aren indarra zerbait onuratsuego egitera zuzendu bear zala; eta aren «a los frailes» irrintziari jarraituz, an doaz guztiak komentuai su emon eta fraideak ilten. Beste komentu batzuei lez, karmendarrenari be su emon deutsoe eta bertako fraide bat il egin dabe. Beste guztiak, euren artean Palau gaztea dala, bizirik urten eben. Baiña urrengo egunean bizirik gelditu ziranak Barcelonako agintariak espetxean sartuko dabez. Erretzaille eta iltzailleak kalean, eta fraideak espetxera! Olangoxea zan orduko agintari liberal askoren lotsarizko jokabidea! Azken baten, fraideak be kalean itxi dabez, baiña fraide jarraitzeko baimen

* Karmel 1988-4, 50-63.

barik. Andik aurrera Palau gazteak komentutik kanpoan eroan bearko dau karmeldar fraideen bizitza. Fraide izatea ez deutso berari iñok ez ezek kenduko.

Liberalen susmo txarrak

Bere Nausiaren esana egiñez, ikasketak seminarioan jarraituta, abade izateraño eldu da urrengo urtean, meza esateko eta gañerako abade-eskubideen jabe egiñik. Bere gurasoen etxean, Aytonan, bizi, eta bertan asi da parrokoaren laguntzaille egiten. Baiña errian bertan bakarleku egokia billatu dau, len komentuan lez bere bakarreko otoitz-orduak eukiteko.

Aytona, orduko anai-arteke gerratean, liberalen agintepean dago. Eta agintariak ezin dabe ondo ikusi, komentutik indarrez atera dabenarren, fraide bizi gura dauan fraidea. Batez be aren sermoiak eztira euren gogoko. Eta Palau parrokuak egiten dituen kanporaldietan, askotan entzun bear izaten dabe fraide ordezko aren berbea eleizan; onen sermoiak eztira liberalen alderako sua biztutekoak edozelan be. Orduko agintari eta militarrentzat kristiñau-maitasuna, gorrotoari lekurik ez emotea, biraoen aurka ekitea eztira euren belarriak gogoz entzuteko zermoi-gaiak, eta gotzaitegitik aita Palauri sermoirik egiteko baimena kentzea lortu dabe.

Arrezkero, fraideak ez eukan bakardadean eta otoitzean bizitea besterik. Olantxe iraun dau 1839ko urtera arte. Urte orretan, Karlistapeko Cataluñan mixiolariak eskatu dabez erriz erri mixioak emoten ekiteko. Eta Palauk bere buruari badiñotso Paulo apostoluak esan ebanez: «Jaungoikoaren itza ezta lotuta egotekoa», eta bere erabagia artuko dau: Karlisten menpean andik ur egozan lurretara alde egitea.

Palau, karlista?

Palau ez zan beste aldera igaro, karlisten politikaren jarraitzaille zalako. Ez, bera mixiolari joan zan ara, mixiolari-lana egiteko aukerea eskintzen eutsoelako. Antxe emon deutso Eleizeak mixiolari titulua, eta erriz erri dabil Kataluña zear. *Conde* de España zana ebillan Karlisten buru nagusi, biotz-gogorreko gizona, azken baten bere menpekoak eurak il eta gorpua errekarra bota eutsoena. Berga errian aren aurrera aurkeztu zan bein fraidea, adore guztiaz esateko: «Jaungoikoaren izenean nator zugana. Jaungoikoaren eta erregearen izena ipiñi dozuez zeuon banderatan, eta zuenak liberalak baixen biraolari dira. «Gora erlijiñoa» da zuen oiua, baiña Jaungoikoak eztau entzuten zuen gorarik. Birao utsean zabiltzelako, ez dozue Jaungoikoa zuen alde, eta zuen erlijiñoaren alde goraka diarduzuelako, inpernua be aurka dozue. Zerua eta inpernua, biak dozuez aurka».

Olangoxe adoreko gizona zan Aytonako semea. Alan da guzti be karlistakaz batera alde egin eban Frantziara, emengo fraide-bizitza bakean eroaterik ez eukalako liberalak eutsen amorruez. Orregaitik Frantziara iges egin eben karlistai Parisko gobernuak diru-laguntza emoten eutsen arren, Palauk ez eban ango dirurik artu nai izan, bera ez zalako Karlistekin ibilli. Berak ez eukan karlisten politikaz zer ikusirik.

Palau Frantzian

Bergarako besarkadea dalakoa baiño geroago amaitu zan Kataluñan karlisten izeneko gerratea, 1840n. Urte onetan sartuta eldu zan aita Palau Frantziara eta 1851-ra arte amar-amaika urte egin zituen Frantzia aldean, bere fraide-bizitza egiteko ango legeen askatasunaz baliatuz. Perpiñan aldean, izkuntzaz katalanen anai diranen artean egin eban lenengo urtea.

Fraide gazte onen jokabidea ona zelangoa zan alde guztietan: lenengo, lekuan lekuko gotzaiñen aurrera aurkeztu, meza esateko eta eleizgizonen gañerako eskubi-deak eskatzeko, eta gero, bakardadean fraille bizimodua eroan al izateko, bazterren baten, koba zuloen baten toki egokia billatu. Olantxe, Perpiñango urtean, eta bardin gero Montauban inguruetan. An, batez be Livrongo Andra Mariaren inguruetan, asi zan bere inguruan bere gogoko ekintzetarako laguntzailleak billatzen Kataluñatik atzerriratu ziranen artean, eta Frantzia bertakoen artean.

Bitxitxoia egiten jaken askori Fraidearen bizimodua, kobazuluetan sartuta beti: baiña aurkitu zituen laguntzaille onak be, eta an Livrongo Andra Mariaren eleizan gogo beroz ospatu dabe aurten euren auzo-lagun izan eben Fraidearen gomutea, altaretara jasota ikusi dabenean. Aita Palau an ezagutu eta gizon andi banakotzat ezaguerazo ebana orduan Frantziak eukan andra olerkari ospetsua da: Eugene Guérin. An idatzi eban aitak bere lenengo liburua: *Lucha del alma con Dios*. Munduak, eta batez be, Eleizeak eukan egoera larriak kezkatu, guztiak otoitzean alkarturik ikusi nai zituen. Beñolako Jakob arbasoak lez Jaungoikoagaz otoitzean burrukan ekitea eizan orduan kristiñauen eginbearra egoera larri atatik urtetako. Otoitz-politika baiño eztago beretzat, ezta bear armen polikarik.

Orregaitik 1844n karlistak Kataluñan barriro armetara joteko asmotan ziralako barriaz kezkatu, bakardadea itxita, Frantzia goienera doa Karlos errege-naiareii aurrera, Jaungoikoaren izenean ari esateko: «Kendu egizuz, arren, asmo zorook zeure burutik. Ez zaitetz bide orretan aurrera joan. Kendu zeuon lematik Jaungoikoaren izena edo asi Jaungoikoaren aginduen bidetik zintzo ibiltzen. Bestela, zerua eta inpernua, bata eta bestea, aurka izango dozuez».

Kataluñan barriro: salaketa barriak

Frantzia itxita, 1851-n Kataluñan da, Barcelonan. Lenago be osterata bat egiña da bere errira: baiña ez eban giro onik aurkitu. Oraingoan Barcelonan dau adiskide zintzoa dauan gotzaiña besoak zabalik artzeko. Emen bakar-leku bat Montsant-en aurkituta, an egin dau lenengo otoitzeko egotaldia, eta gero Costa i Borrás gotzainaren eskuetan da. Seminarioko arima zuzendari ipiñi dau gotzaiñak, eta San Agustin parrokian katekesi barri bat, *Escuela de la Virtud* izenekoa sortu eta zuzentzeko baimena emon deutso.

Zertako eskola au sortu? Kristiñauak euren erlijioño egietan ondo ikasiak eta sendoago oiñarrituak ikusi nai dituelako. Ez-jakin andia ikusten dau arlo orretan.

Berak bide barriak dakaz kristiñau-ikasbidea irakasteko. Bide batez Kristiñautasuneko egiak aldi atako eritxi eta irakatsi okerrak aurrean salatzen beste jakite askoren argitasunak emon nai deutsez kristiñauai. Domekero da eskola ori San Agustin parrokian. Ara ekarri ditu Barcelonako eleizgizon eta laiko argituenak Katekesiaren ostean euren itzaldiak egiteko. Lau urtez iraun dau eskola orrek. Gotzaitegiko Boletinak eta beste egunkari batzuk be zabaltzen dabe ango irakatsien barri.

Baiña arerioak be baditu eta salaketan asi dira: karlisten aldeko azpilana ei zan. Eta ori naiko ez tala, 1854-n Barcelona inguruko lantegietan langilleak lenengoz opor egiten asi diranean, Aita Palauren katekesi-eskolari botaten deutsoe errua. Bata besteagaz ondo ez tatozen salaketak diran arren, Barcelonako Gobernador Militar danak, auzia bestela konpontzeko gauza ez tala, azkenego salakuntza orri siñiste osoa emon deutso, eta eskoleari giltzak bota eta Aita Palau Ibizara erbesteratzea erabagi dau. Gotzaiñaren, Palau beraren eta beste askoren alegiñak alperrik izan dira salakuntza ori Gobernadorearen burutik kentzeko. Palauk emoniko argitasun guztiak fraillaren arrokeriaren ezaugarritzat emoten ditu.

Ibizako bakartasunean

Aita Palauk bere gogoko lekuri egokiena aurkitu dau Ibizan Els Cubells inguruan bere otoitzerako gogoia asetzeko. Barcelonan, Vallcarca inguruan billatu eban zuloak eta bere bakar-otoitzerako erabilten ebanak ez eutzan Ibizakoari urrik emoten. Ibizan, Els Cubells-en aurrez aur an eukan itsasoak inguraturiko atx-txuntxur bildurgarri bat: *El Vedrá*. Txalupa baten bertara eldu eta atxaren barruan an dau zokondorik ez kutuena bere bakar-bizitza eta otoitzerako. Andik aurrera, bein Balear ugarteetan zear ibilteko bertako agintariak gizon baketsua zanez baimena eraon eutsonean, atx-zulo atara biurtuko da sarri, mixio-lanetarako indar barriak artzen. Els Cubells-en bertan bere laguntzailleakaz elexatxo eta etxetxo eregiko ditu eta ortuko lanaz eta itxasoko arraintxoakaz aterako dau beretzat eta beretarrentzat jana. Urte batzuetarako an daroa bere bizia: otoitzean jardunez, kartaz geroko serora-alkarteai oiñarriak sendotuz, errietan bere itzaldiaz kristiñauak argitu eta berotuz, eta auzokoen artean bakeak egifiz.

Noz edo bein etorri jako Ibizako erbestea isteko baimena: 1860-1861garrena da. Andik aurrera nasaiago dabil bere asmoak aurrera eroaten eta mixiolari-lanetan. Kataluñia geienean emongo ditu mixioak. Bein Madril-era be deitu deutsoe eta an emon dau Garizuma eta Aste Santu osoa eguneroko itzaldiak egiten ango katedral eta eleizarik andienetan, baiña emon deutseen gelatik sermoietarako baiño urten barik. Sermoi sakon, mamitsu eta orbelik bakoak dira Aita Palaurenak.

Ezta gitxien arduratzen dauana bere serora-taldetxoen etorkizuna. Frantzian asi zan olango taldeak sortzen, kristiñau erriari kristiñau izaten irakasteko, ez-jakiñak eta umeak eskolatzeko, geixoak eta adiñez ezinduak zaintzeko. Baiña era batera, Teresa deunaren alabak izaten jakin bear dabe, otoitz-egille eta otoitz-irakasle: 1860-

tik asita Balear ugarteetan eta Kataluñan olako taldetxoak sortu eta sendotu ditu; eurak dira gaurko Karmeldar Mixiolari eta Teresatarren asikiñ.

Alan be ezta Kataluñan guztiz osoa izan beti Aita Palauren zoriona. Kurutze mingarria ipiñi deutso Jaungoikoak bere errian bertan, Aytonan. Leidako Gotzain orrek kendu egin eutsan bere errian meza esateko baimena. Sarritan joan bear dau bere etxeoak ikustera, batez be etxean geixoen bat edo illen bat izan dauanetan. Len eukazan baimenak be kendu egin deutsoz, ezelango argitasunik emon barik, zergaitik dan esan barik. Erriko parrokoak eukan aitari gotzainaren debekua iragarteko agindua Aytonan agertzen zan bakotxean. Lege guztiak austen zituen jokabidea zan Gotzaiñarena. Ixillean eroan dau luzarotxoan kumtze ori. Parroko jauna be lotsatuta dago. Bein, orraitio, Aytonan izurriteak gogor jo dauan baten, aita Palau bertan dala, erriko agintariak geixoen alde eskea egiteko, berari eskatu deutsoe sermoe bat egin deiola erriari, erriko abadearen sermoiak iñor berotzekoak izaten ez zirala-ta. Eske ta eske daukoz guztiak, eta epikeiaz baliatuta, emon dau baietza eta egin dau itzaldia. Leidatik laster jatorko erritik alde egiteko agindua. Erriko abadeak, bere kontura, meza esateko baimena emon deutso inozkoren baten. Baiña berak gauzak legez baiño eztitu egin gura. Parroko jaunak eta berak bein baiño geiagotan jo dabe Gotzaiñagana, arrazoiak emoteko. Eztabe artzen erantzunik. Azkenez, karta luzea idatzi deutso gotzaiñari, lege guztien aurkako jokabide ori salatuz eta errian izena galduta olan daukan ezkeru, erabagia artuta daukala argi ta garbi esanez erantzunik ezpada, erri-epaikariagana, Tarragonako gotzaiñ-auzitegira eta Eleizak emonda Mixiolari titulu-duna dan ezkeru, Aita Santuagaño joko dauala. Orduan bakarrik makurtu eban buma Leidako gotzaiñak, eta baimenak emon eutsazan eta ixilleko debekuak kendu.

Azkenengo urteetan idatzirik eukazan bere alabentzako lege eta arauak. Eta bere betiko sermolaritaz ganera, bere ardurapeko alabatxoakaz batera, izurrite batek jokatoko erri baten lana ederra egiten ziarduala, azkenengo gatxak jo eban bera be. Tarragonara eroan eben eta an itxi zituen mundu onetako nekeak, bere bizitza gutziko lanen saria zeruan artzeko.

II zan bera, baiña bizirik dirau bere libumetan eta berak sorturiko alkarte bien alabetan. Bere libumetan bere arimaren zati ona itxi euskun. Idazle eta gazetari izan da. Azkenego urteetan berak sortu eta berak zuzendu eban astekari bat, geiena berak idatzita. Baiña beste libumetan erakutsi deusku bere arimaren bamia osoen eta argien. Euretan dakusgu ondo argi eta ditzitsu bere otoitz-zaletasuna, eta Eleizeaganako maitasuna. Euretan dogu berba sutsu ta imdi biziakaz esanda zer zan beretzat Eleizea, munduaren benetako salbamenerako bide eta sakramentu bakarra, munduak bere kaltetan ukatu egiten dauana. Vatikanoko Kontzilioak emon deuskun eleizearen irudia, ia guztia, aurretiaz emon euskun.

Aita Palau Euskalerrian

Katalan onen ekintzarik ederrenetakoa, berak egiñari iraun erazoten deusana, gure errian zabaldurik dago. Lan ederra, aren alabak geixozaintzan eta umeak eskola-

tzen egiten dabena gure artean. Euskalerrriak ez deutso alaba gitxi arek sorturiko moja-alkarteari emon. Eta euron artean bi gitxienez munduan zabaldua dagozan alkarte orrein mundu guztiko Nagusi edo Buru izan dira. Setien Gotzaiñak aita Franzisko Palau Aita Santuak doatsuen maillara jaso ebala-ta, Donostiako katedranean emon zan esker-mezan ondo azpimarratu eban Euskalerrriko Eleizeak doatsu barri oni eta berak sorturiko moja-alkarteai deutsen zorra.

V
LIBURUEN BARRI-EMOTEAK

«ARCHIMANDRIT SOPHRONIUS: **Staretz Siluan, Mönch vom Berg Athos. Leben, Lehre, Schriften.** Dusseldorf, Patmos, 1959, 21 cm., 352 p.»*

El archimandrita Sofronio nos ofrece en esta obra la vida, doctrina y escritos de un monje ruso contemporáneo, del «staretz» Siluan, monje del monte Athos.

Siluan, en el siglo Simeón Iwanowitsch Antonow, nace en la Rusia central, hijo de padres labradores, el año 1866. Cumplido el servicio militar, ingresa en el monasterio ruso de San Panteleimon en el monte Athos en 1892. Siguiendo la norma monástica oriental de tomar en el monasterio un nombre nuevo cuyas iniciales sean las mismas del nombre de pila, cambia su nombre de Simeón por el de Siluan. Viste el hábito de monje en 1896. Alcanza el último grado monástico, vistiendo el gran hábito, en 1911. Aunque carente de formación teológica, su profunda vida espiritual y su reconocida experiencia de los caminos del Señor le hacen acreedor al título de «staretz», de monje autorizado a asumir la dirección de las almas. Su fama de monje santo trasciende fuera y hasta algunos obispos rusos y serbios se comunican con él. Muere el 24 de septiembre de 1938.

El autor de la obra, el archimandrita Sofronio nació en Moscú en 1896. Se dedicó primero a la pintura, exponiendo en Moscú y en París. Después estudia teología en el Instituto ortodoxo de París, y en 1925 se traslada al monte Athos, donde se hace monje en el monasterio de San Panteleimon. Aquí permanece por espacio de veintidós años, siete de ellos como ermitaño y otros cinco como padre espiritual de varios monasterios. Y aquí, sobre todo, mantuvo íntimo y estrecho contacto durante diez años con Siluan, en calidad de dirigido suyo. A la muerte de su maestro se hace con sus apuntes y papeles espirituales, que los ordena y clasifica para darlos a la estampa

* Revista de Espiritualidad 20 (1961) 556-557.

en París en ruso el año 1952, precedidos de una sumaria biografía y de un estudio sobre la doctrina espiritual de Siluan. Es el libro que ahora se nos ofrece en su versión alemana.

La obra consta de dos partes. En la primera, biográfica y expositiva, nos traza Sofronio la fisionomía espiritual de su maestro, estudiando sus rasgos personales y los que hereda de la antigua espiritualidad monástica y hesicastai Siluan no es un erudito; pero, a través de la Liturgia, de la lectura de las vidas de los antiguos monjes y de las obras de los autores espirituales más en boga en el monasterio, desde Macario a Gregorio de Palamás, y de algún autor ruso más moderno, ha podido imponerse en los principios más fundamentales de la vida espiritual. Pero su formación la recibe principalmente de Dios en la oración, en el ejercicio constante de la «oración de Jesús», esa oración que el monje ha de repetir constantemente hasta conseguir que penetre en su corazón y se apodere de su alma entera, gracia que un buen día la Virgen le hace a Siluan.

Hay en la vida espiritual de nuestro «staretz» dos momentos cumbres, separados por un período de quince años, los primeros de su vida monástica. Cada uno de ellos ha sido precedido por un tiempo de fuertes pruebas interiores, que acaban conjuradas por la presencia del Señor que se le manifiesta y le habla. Con la presencia del Señor experimenta un nuevo nacimiento, una regeneración, una resurrección en su alma. Conoce ya a Cristo en el Espíritu Santo y entiende que el pecado es orgullo y que Dios es amor misericordioso y humildad. Estas dos virtudes quedarán grabadas en su alma, imprimiendo el sello a su espiritualidad y a su vida toda.

La segunda parte contiene los escritos de Siluan. No todos. Echamos de menos su epistolario (en la primera parte se nos ha hablado de la correspondencia espiritual que mantuvo con varios obispos). Sofronio nos lo presenta ordenados bajo 14 epígrafes. Los títulos principales nos hablan de Dios, de su conocimiento, su voluntad, las ansias del alma por El, la oración, la humildad, la paz, el amor, la gracia, la Madre de Dios, la obediencia del monje... En esas páginas, escritas en un estilo sencillo, se nos revela el alma misma de Siluan; en ellas, a vueltas de recuerdos de su vida y de sus experiencias espirituales, va vertiendo los pensamientos y sentimientos de que se nutría su oración y su vida espiritual toda. El tema que más se repite a lo largo de ellas es el amor misericordioso del Señor para con los hombres todos. El alma que quiera tener el espíritu de Dios ha de practicar ese mismo amor, haciéndolo extensivo a los enemigos. Y los enemigos para Siluan son, ante todo, los enemigos de Dios, los que no le conocen o le ofenden, los pecadores. Al leer a Siluan, se nos antoja no poco caricaturesca esa pintura que presenta al monje oriental, como lo hace recientemente el ex-padre Mendieta (*Le Mont Athos, La Presqu'île des Caloyers*. Desclée de Brouxver, 1955) como un ser exclusiva y morbosamente preocupado de su propia salvación. Pocas almas habrán sentido, como la de Siluan, tan honda y urgente la preocupación por los demás, la conciencia de su solidaridad con el Adán total. El monje, para él, no está sino para orar, llorar y sacrificarse por todos. Esta preocupación por los demás es para Siluan una de las características más firmes del verdadero espíritu, una de las señales más claras para discernir si un espíritu viene de Dios.

Y si este espíritu de amor es el que ha de imperar en las relaciones del cristiano para el mundo entero, con más razón tendrá lugar esto mismo en las relaciones entre cristianos y entre las Iglesias separadas. Una anécdota relatada en la primera parte nos revela de hecho que el alma de Siluan en este punto era perfectamente irénica.

El archimandrita Sofronio ha sacado del anonimato con la publicación de la presente obra un hermoso ejemplar de la espiritualidad atthoita que nos ayudará a conocer mejor a nuestros hermanos orientales, y que ojalá contribuya a apuntalar el casi agonizante monaquismo ruso, fomentando vocaciones monásticas entre los hermanos de raza del «staretz» Siluan, cosa que creemos no está fuera de los propósitos del autor al publicar esta obra.

«**VARIOS: Aufsätze zur portugiesischen Kulturgeschichte. I.** Hgb. von Hans Flasche. Münster in "Vestfalien, Aschendorffsche Verlagsbuchhandlung, 1960, 24'5 cm., 447 p.»*

Coincidiendo con el V centenario de la muerte de Don Enrique el Navegante, la «Görresgesellschaft» ha querido iniciar la publicación de un nuevo anuario, consagrado a investigaciones y estudios sobre la historia y cultura portuguesas. Constará de dos series: una, primera, de estudios y artículos diversos, que aparecerá anualmente, y otra, de monografías. Este volumen, que es el primero de la primera serie, presenta diversos trabajos históricos y críticos, redactados en alemán, portugués, francés e inglés, entre los que mencionaremos los dedicados a la Universidad de Evora en el IV centenario de su fundación; al filósofo y teólogo Pedro de Fonseca, a Francisco Sánchez, a Leonardo de Coimbra, a Camóes, a las reinas de la casa de Aviz, a los estudiantes portugueses (religiosos franciscanos, dominicos, agustinos y carmelitas) en Oxford durante la Edad Media y al estudio de los homónimos portugueses en la India, debido a la pluma del biógrafo de San Francisco Javier P. Schurhammer.

* Revista de Espiritualidad 20 (1961) 579.

«W. VOELKER: **Kontemplation und Ekstase bei Pseudo-Dyonisius Areopagita.** Wiesbaden, Franz Steiner, 1958, 25 c m, 263 p.»*

Hubo un tiempo en que los investigadores centraron sus esfuerzos casi exclusivamente en el intento de identificar la personalidad del Areopagita sin resultado positivo. Y a favor de esta discusión se fue afirmando en muchos la convicción de que no se trataba sino de un puro neoplatónico, un discípulo de Proclo, plagiaro de su maestro. El estudio directo y más profundo de su obra está llevando a conclusiones más matizadas y hasta opuestas a las que se sustentaban antes como seguras. Merecen especial mención los trabajos de Lossky, Puech y Roques. En la línea de este último es donde, sobre todo, ha tratado de profundizar y avanzar más adelante el autor del presente libro.

Vólker estaba bien preparado para esta tarea por sus anteriores trabajos sobre los capadocios y alejandrinos. Las conclusiones a que llega son de que ya no se puede considerar al Seudo Dionisio como un monolito, como un bloque errático en la espiritualidad patristica, sino como un eslabón más dentro de una de las líneas de la tradición cristiana. SiH negar cierto influjo neoplatónico, viene a afirmar que, con sus matices personales originales, es un claro heredero de la tradición alejandrina y capadocia; que tiene contactos muy estrechos con Clemente, Orígenes y, en particular, con Gregorio de Nissa. El autor no pretende estudiar aquí todo el sistema dionisiano; se ciñe a su mística, a su doctrina sobre la *contemplación* y el *éxtasis*.

La mística presupone una preparación ética. La que el Areopagita exige va estudiada en un primer capítulo (p. 25-83) que aborda esta materia. La doctrinaseudodionisiana sobre el pecado, sobre el bautismo como preparación para la lucha ascética, las pasiones, la postura cristiana frente al mundo, necesidad del auxilio divino, la cooperación a la acción de Dios, la imitación de Cristo, ejercicio de virtudes (caridad, fe, vida de oración): todo esto va tratando el autor con minucioso detalle a la luz de las obras del Seudo Dionisio, descubriendo y señalando extrañas coincidencias de fondo y de léxico con enseñanzas y textos de los alejandrinos y capadocios.

Con el mismo procedimiento comparativo, en los capítulos segundo y tercero (p. 84-217), sigue el autor buscando y analizando la noción de la *contemplación* y *éxtasis* dionisianos. Las funciones de la contemplación son: ilustrar al alma sobre el sentido simbólico de las Escrituras, sobre las realidades divinas, sobre las propiedades o nombres divinos. A la contemplación que alcanza su cima en la consideración de los nombres divinos sigue el éxtasis, la unión con Dios en el conocimiento y el amor. Volker analiza sus propiedades en Dionisio: don gratuito de Dios, conocimiento que participa de la naturaleza del de los ángeles, inmediato y sin intermediarios ni velos, visión y contacto con Dios, que produce en el alma efectos de luz y de tinieblas.

* Revista de Espiritualidad 2! (1961) 138-139.

Para Vólker la teología dionisiana no es pura especulación filosófica y su mística es fruto de la experiencia espiritual del autor, como lo fué en los padres de quienes es heredero.

Un epílogo a la obra (p. 218-263) hace la historia de la influencia pseudodionisiana en la espiritualidad cristiana posterior, a través de los comentarios que el primer capítulo de su *Mística Teología* ha merecido en las Edades Media y Moderna: los escolios de Máximo el Confesor, las exposiciones de los victorianos, de Tomás Galo, Balma, San Buenaventura, Grossatesta, San Alberto Magno, Dionisio Cartujano y, por último, ya en pleno siglo XVII, la *Enucleatio*, del Carmelita portugués José del Espíritu Santo, que recoge y apura la interpretación carmelitana del Seudo Dionisio, iniciada con San Juan de la Cruz. Ya nos ha advertido antes el autor que la contemplación y el éxtasis del místico Doctor Carmelita no se identifican con los de Dionisio.

El libro de Volker, valiosísima contribución, sin duda, al esclarecimiento de la personalidad y de la obra del Areopagita, no se ha escrito para lectores comunes: llama la atención el modo como el autor inserta, como formando parte de su propio texto, palabras y citas, no sólo de griego y latín, sino aun de varias lenguas modernas, sin ninguna aclaración ni traducción y sin ningún entrecomillado siquiera, las más de las veces.

«H. R. SCHLETTE: **Die Lehre von der geistlichen Kommunion bei Bonaventura, Albert dem Grossen und Thomas von Aquin.** München, Max Hueber, 1959, 24 cm., 226 p.»*

Se trata de un estudio histórico-dogmático sobre la «comuni3n espiritual» («comunio, comestio, manducatio spiritualis»), publicado por la Facultad Teol3gica de Munich. Quiere ser una contribuci3n a la historia de la comuni3n espiritual y a la fundamentaci3n teol3gica de esta pr3ctica de piedad eucarística. El autor se ciñe al estudio de la cuesti3n en los grandes maestros de la Escolástica: San Buenaventura, San Alberto Magno y Santo Tomás. El problema de la comuni3n espiritual que éstos abordan y tratan de esclarecer y resolver lo han recogido de los escolásticos primitivos, de Hugo de San Víctor y Pedro Lombardo, que fueron los primeros en plantearlo. Todos ellos parten y dependen de las palabras del Señor en el Evangelio, San Juan, capítulo sexto, y de la interpretaci3n agustiniana de las mismas.

* Revista de Espiritualidad 21 (1962) 139-140.

Schlette dedica tres extensos capítulos al examen de la cuestión en cada uno de esos grandes teólogos. La estudia principalmente en relación con lo que enseñan sobre los diversos modos de comer el Cuerpo de Cristo, sobre los diversos modos de recibir la Eucaristía. Distinguen comúnmente la manducación espiritual y sacramental. La manducación espiritual puede preceder, acompañar y seguir a la recepción sacramental de la Eucaristía. La manducación espiritual, sin la actual recepción de la Eucaristía, es la que el cristiano realiza mediante la fe y el amor, creyendo en Cristo y amándolo. El que está en gracia cree en Cristo y le ama, ya como el Cuerpo del Señor. La espiritual unida a la sacramental es signo de esta unión con el Señor, a la vez que la robustece y aumenta.

Santo Tomás añade alguna precisión a estas ideas, al distinguir entre «manducare spiritualiter Christum» y «manducare spiritualiter hoc sacramentum». Y así nos da tres modos de «manducación espiritual»: la meramente espiritual, unión con Cristo mediante la fe y el amor, unión que propiamente no es eucarística, cosa que no la expresaban con tanta claridad los escolásticos anteriores; la sacramental-espiritual, que consiste en la digna y provechosa recepción del sacramento eucarístico, y la meramente espiritual, pero con deseo y propósito firme de recibir el sacramento. Este último caso es excepcional, análogo al caso del bautismo de deseo. La comunión espiritual, como práctica de devoción que consiste principalmente en el deseo de recibir el sacramento, pero sin recibirlo de hecho, y repetible a voluntad, no ha sido conocida por ninguno de estos doctores. Ni conciben la posibilidad de hacer una comunión espiritual en un alma que no esté en estado de gracia. La práctica de esta forma de comunión espiritual en este último sentido se introduce en época posterior a estos escolásticos.

Esta es la conclusión a que llega el autor, que ve en las enseñanzas de estos santos y eminentes maestros una excelente base teológica para revitalizar la práctica de la comunión espiritual, poniendo la atención más que en la repetición y multiplicación de ciertos actos, en vivir en todo momento y conscientemente nuestra incorporación a Cristo, nuestra comunión pneumática permanente con El.

«W. NIGG: **Heimliche Weisheit**. Zurich-Stuttgart, Artemis, 1959, 23 cm., 500 p.»*

El autor de esta obra, profesor de teología protestante en Zúrich, ya no necesita presentación. *El secreto de las monjes* le ha hecho ya sobradamente conocido también entre nosotros. Allí hemos podido comprobar la objetividad, no exenta de admiración

* Revista de Espiritualidad 21 (1962) 151-152.

y de amor, con que ha estudiado el monacato católico en las figuras de sus máximos representantes. Los prejuicios de secta no han contado para nada con él.

La presente obra, que quiere ser como una historia del misticismo entre los protestantes, vista a través de algunos de sus más destacados representantes, obedece a una sugerencia recibida en una Cartuja en ocasión en que el autor daba por terminada una visita a ella para informarse sobre el terreno de la vida cartujana. «[^]Y qué me dice de la vida interior en su iglesia evangélica?», fué la pregunta con la que le sorprendió, dejándole bastante embarazado, el monje hospederero. La respuesta que entonces no pudo dar Nigg la viene a dar en este libro.

Lendik be bazan gure izkuntzan Bergili onen itzulpenik. Iturriagak bertso arin gozatsuetan emon euskuzan bere aldian Unai-kanta bi: lenengoa ta irugarrena. E-txeberria-tar P. asi jakun, 1928-an, «Euskal-Esnalea» aldizkarian, *Enearena*, *Eneis* izenaz, emoten. Baiña «urrengoan geiago» esanda, lenengo kantua amaitu baiño lentxoago ixildu jakun, eztakigu zergaitik. Tamalgarria izan zan lana aurrera ez eroatea; naiko jator, naiko bizi etorren euskeratuta.

Bizkaiko euskeraz, *Artzain-Abestijak* izenaz, 1912-an agertu ziran oraingo Unai-kanta oneik. Euskeratzalle: Gemikako semea, orduan Deustu-n abade zana, Mian-golarra ta Aberasturi-tar Kesara. Birjillio-zale sutsua gendun Miangolarra, erderazko ta latiñezko bertsojiñen be trebea. Erderazko bertso-liburu baten («Quejidos de mi

* Olerti 1967-1/2, 97-99, *Basabil* izenpean, ik. 82. orr.

salterio») egille dogu. *Itxarkundia-usaiñeko* batzuk itxita, or ezaguerazo zituen bere erderazko bertsorik ederrenak, eta azkenean ba-ditu latiñezko batzuk be, Jesus Umearen bizitza gaitzat arturik, Bergili andiaren antzera onduak.

Miangolarra onek euskeraz beste lanik egin eban ala ez eztaikit; baña, edozelan be, *Artzain-Abesti* orreitan euskeraren jabe zala igarten jako. Naiko gozatsu ta erreza da bere euskerea, berein erri esakera jatorrez josia. Zergaitik itxi ete eutson euskeraz idazteari? Gernikan jayo (1874) ta Gernikan il zan 1958-an, abenduaren iruan, zarzaro ederrera elduta.

Aita doguzan Bergili-ren euskeratzalleok olerkari ospetsu orren lan eta atal batzuk besterik ez euskuen emon. Oraingoan, liburu barri onetan, aren lan guztiak daukaguz zorionez.

Ezta makala euskeratzalleak lan au egiteko artu daben arazo ta nekea. *Olerti*-ren irakurleentzat oso ezagunak dira biak. Eta biak egin dabe euren egitekoa ataza ta apaltasunik andienaz.

«Ondo dakit, diño Ibiñagabeitiak, gure itzulpen au askok zoko bazterrera botako dutela, are urrunago bialtzen ezpadute... Eskerrak gaiñera lagun on baten eskutik natorrena. Nere zailtasun eta moldakaitzasuna Aita Onaindia-ren trebetasunak gozatuko dizkitzue noski baño noskiago. Nere lerroek aspertzen baldin bazaitute, zoazte aren orrialde gozoetara; aintxe gozatu al izango duzute nire itzulpenak utzi dizuten ao-keru minkaitza».

Edozeñek baietz esan apalegia dala autorpen au. Ibiñagabeitia maixu andia da gure izkuntzan. Euskera aberatsa, landua, txukuna, zerbait lagunabarrez goragokoa erabilten dau beti, Bergili-ren latin apain, landuari egokien jatorrena, aurki. Zaila ta moldakaitza bere euskera? Ez orixe! Bear bada, euskalerriatik urrin luzero egonak edo, bere jatorrizko eztauan euskera erabilteak edo, gozotasun apurren bat kendu dautso; baña ez besterik. Eta ori bere, bear bada, nire belarriaren gatxa besterik ez al da izango.

Aita Onaindia be apal jatorku, iya erruki-eske. Merezi ebela diñosku Bergili-ren lanak euskeraz jartzea. «Eta orrela egin dugu. Ondo ala ganora gabe? Ori geroak esango. Nik au eskatuko nioke irizle zorrotzari; berak egin dezala beste ainbeste, askoz errukiorrago bait-litzake maxio-lanean».

Olerti-ren irakurleak, ziur nago, ez tira egongo geroak esango dauanari begira auzi onetan. Aita Onaindia ezagutzen dabela-ta nago. Beronek etenbako ekiñean darabiltzan lanen barri ondo dakie. *Enearena* be ezta eurentzat guttiz ez ezaguna. Poema onen zati asko irakurrita daukez aldizkari onetxen orrietan. Orain emen dabe poema osoa irakurteko aukera atsegingarria. Irakurri ta zeuok ikusi zuen artean maxio-tzalle ta «irizlari zorrotzik» agertzen dan, irakurrita gero. Ezetz uste dot nik.

Ni be ez naz «irizle zorrotz» orreitakorik; maxiotzalle samarra, bear bada, bai. Eta, etzekoa nazan ezkerro, gauzatxo bat bakarrik esango dautsot liburu onen egille ta eragille andiari: L. Riber'i, Bergiliren lanak katalanez eta gazteleraz itzuli zituanari, batez be oar-argitasunetan zor izan dautsona garbiago erakutsi baleu, oba ebala.

GURE LIBURU ZAARREN SAILLEAN

Bozas-Urrutia'ri bi oartxo*

Gure literatura zaarraren sailletan eiztari bizkorrik ba degu zorionez. títa ez da arritzekoa noizik bein eiza ederrik jasota agertzen bazaizkigu. Iñoiz, ordea, gertatzen zaie lendik ilda zegoen eizaren bat lepoan arturik etortzea ere.

Olako zerbait gertatu zaio oraingoan Bozas-Urrutia eiztari trebeari. Iñok iñoiz aipatu gabeko liburutzat eman digu azkenengo BAP-en *Cembait Santuren bicitzac* izeneko liburua. Zorionekotzat daukat jaun au eiza ain ederra eskuratu duelako, ainbeste balioko pitxia arkitu duelako. Baña liburu ori ez zan iñork ezagutu gabekoa.

Vinson'ek ba dakazki orren bi argitaraldi. Ala ere, ez zuen bere titulua osorik eman: *Cembait Santuren bicitzac, bear dan licenciarequin. San Sebastian, 1843*. Olaxedakarlenbizikoaldian. Etabigarrenean, alegia, 1853'gnurtekoargitaraldikoan, laburrago ematen dio izena. Ez da, beraz, liburu ori gure bibliografoek aipatu gabea.

Baña ba degu emen illun-unetxo bat. Bozas-Urrutiak 1833'garreneko argitaraldia aipatzen digu. Inprentako utsik ezpada emen, orrek esan nai du beste bein ere argitaratu zela santuen bizitza-liburu ori. Au egia balitz, liburutxo ori ere zorionekotzat jo beargenduke, amar urtez amar urte iru aldiz argitaratua izatea merezi izan zuen ezkerero. Baña ez ote da emen inprentako utsen bat? Bozas-Urrutiak aipatzen duen 1833'gneko argitaraldia ta Vinson'ek lenengo dakarrena ez ote dira bat bera? Ez zegoen, 1833'n, euskerazko liburuentzat Euskalerrian giro ederrik.

Beste argitasuntxo bat Bozas-Urrutia'rentzat, *Eusquerazco Manuala* deritzaion luburuari buruz. Liburu orrek, izan ere, ala dio: bizkaiko euskeratik gipuzkoakora itzulia dala. Eta egia da, izan ere. Bost urte lenago agertua da bizkaierazkoa, alegia, 1845'gn, baña erderazko titulu onekin: *Manual Vascongado que contiene el modo de administrar los Santos Sacramentos*, Bilbao, Larumbe, 1845. Gutxienez beste bein ere agertu zan inprenta berean, 1863'gn urtean. Gipuzkoerazkoa ere ez da bakarra. Bozas-Urrutiak ezagutarazi digun 1897'gneko argitaraldiaz gaiñera, eta au baiño lenago, beste bat gutxienez agertu zan, 1868'gn urtean, *Francisco Machai-en moldizteguian*.

* Egan 29 (1969) 157.

IRATZEDERREK ETA LERTXUNDIK

Salmoak berriz*

Euskalerrian nork ez ditu onezkero ezagutzen Iratzeder eta Lertxundi? Iratzeder, olerkari bikain eta arnas aundikoa; Lertxundi, berriz, musikolari trebe ta jakintsua, euskal-doñuen muiña gutxik bezala ezagutzen duena.

Bi aita beneditar oiek elkaturik, biziki ugaritu ta aberastu dute euskalkantutegia gure elizetarako. Biok elkaturik, lan guztizko ederra eman digute sail ontan, elizarako kantuen saillean, alegia: Salmoak-liburua, oraingo luturjiako abiadura berrian Euskalerrarentzat ain zorionean etorri dena.

Ezta, izan, oraingoa. Len egiña berriz atera digute. Sei urte badira lenengo aldiz agertu zela. Baña tomo andiegia egiten zuten, eskuan artzeko ez ain egokia. Orregatik atera nai izan dute argitaraldi berri au. Eta txukun eman digute. Tomo polita egiten du, eskuan erabiltzeko errazago ta erosoagoa. Eta bai lengoa baiño aberatsagoa ere.

Itzaurreak ez, lengoak zeukan beste guztia dakar: salmo eta kantikak beren tarteko leloekin, lenbizi, doñurik gabe. Gero doñuak, bai salmo ta bai leloenak, denak saillean. Lengo argitaraldiak baiño egokiago ta argiago dakazki; beren lekuetan, salmo bakoitzaren xeetasunak, alegia, zer-nolako salmoa den, gorespenezkoa, eskerkantua ala beste nolabaitekoa; bertso bakoitza Vulgatako zein bertso txori dagokion, eta olako xeetasunak. Baita ere lelo bakoitzak bere doñua urrengo saillean non duen.

Eta zertan dugu oraingo argitaraldia lengoa baiño aberatsago? Bai doñuetan eta bai leloetan. Lelo berri batzuk baditu oraingo onek Aldareko Liburutik arturik. Zer esan nai du onek? Onek esan nai du, Aldareko Liburuan badirela salmo-zati batzuek ez berdin itzuliak. Eta oiei ere leku eman zaie oraingo liburu ontan. Letra bereziaz dijoaz idatzirik. Eta Aldareko Liburu ortatik artuak direla esaten zaigu bakoitzean.

* Zeruko Argia [32] (1969, 315.zenb.) 4; A. Zubero izenpean, ik. 43. orr.

Era berean, doñuak ugariago eman dira, batez ere aleluia kantatzeko doñu berri batzuek, euskal-abesti ta beste liturji-kantiketatik artuak. Guztitara, baditugu emen 157 lelo-doñu, 40 aleluia, eta salmoak kantatzeko 60 era edo aire.

Azkenean, arkibide batzuek erretasun aundia ematen dute liburua erabili bear duenarentzat, nai duenean nai duena kantatzeko aukera izan dezan.

Liburu onekin, esan bearrik eztago, laguntza aundia izango dute Baiona-aldeko gure elizek edozein elizkizun antolatatzeko. Jakingarri da izan ere, badutela salmo oiek baimena edozein elizkizun eta liturji-otoitzetan erabiliak izateko. Liburuak berak dakar baimen onen agiria eta argi dio orixe.

Eta eztu iñork ontaz arritu bear, zearo itzez itz egindako itzulpena ez dela-ta. Eztegu izan bear Aita Santua baiño Aita Santutarrago, ez Erroma baiño erromatarrago. Itzez itz egindako itzulpenak eztu berez esan nai egokiena ta zeatzena dela. Jatorra izateko, itzulpenak itz utsei baiño geiago erantzun bear dio esaldiak esaldiari ta zentzuak zentzuari. Bein baiño geiagotan gogorazi digute Erromatik auxe. Eta, bereziki, kantuz erabiltzeko diren itzak itzultzekoan gogoan izateko agindu du Erromak beste lege batzuk ere, esaterako, neurria, kantatu bear dituen erriaren gogoia, tankera ta oiturak eta abar. Salmoek berenez eskatzen dute bertso-tankera, eta ahapaldika jarri ezkerre, obe. Bestela, bizitasun eta jasotasun aundia galduko dute. Bestela, nekez izango dira erriaren gogorako.

Alde aurretik, iritzi ortakoak izan dira itzulpen au egin dutenak. Eta berentzat pozgarri izan da, noski Erromak Baionako apezpikuaren eskabideari amor emanez salmo oiek aintzat eman izana.

Gure zorion eta gorespenak bi egileei: Iratzeder eta Lertxundi, aita beneditar bie.

ZABALEGI, NEKAZARI-ESKOLA*

Donostiako Aurrezki-Kutzak, bere 90 urteak dirala-ta, liburu ederra atera du. Euskeraz eta erderaz. Euskerazko titulua onela du: **baserriko irabazbideak. Zabalegi Nekazari-Eskola.**

Ongietorri egin bearrean gaude liburu oni, eta zorionak eman bearrean or Donostiako Aurrezki-Kutxa orrek or erakusten duan lanari.

Baserriak kantari asko izan du beti, batez ere baserrikoetatik bai baiña, baserritik bizi bearrik izan ez dutenen artean. Baserriko pake-giroa, nekazariaren zorionezko bizia olerkari ziralako askok erabili dute kantagai. Baiña baserriak kantuak baiño beste zerbait bearrago du.

Nekazariak berak ez du, noski nekazaritza olerkari-begiz ikusten. Baserria bizibide izan du beste ezer baiño geiago. Bizibearrak egin du lur-langille, edo lur-lantzaille. Eta beste bizimodu oberik aukeran ikusi duaneko, baserria ez du leen aiña maite, nekagarri du, iguiña artu dio bere bizimodu orri eta baserritik ieska asi da guztion kalterako. Guztion kalterako zergatik? Gizonak oraindik ez dualako arkitu lurraren emaitzen utsunea betetzekorik. Baserrian bizi ez danak ere baserrikoetatik bizi bearra dauka. Orregatik guztiontzat kaltegarri, baserriaren ondamena.

Euskalerrria ere asi da nekazaritzaren egoera larri orren ondorenak sumatzen. Eta kezkatzen asiak dira asko, eta gaitz orren sendabideak arkitu nai lituzkete. Sendabiderik onena, bearrena, nekazaritza dirubidean jartzea, irabazpide egitea.

Ez dira urte asko asmo onekin liburu mamitsu bat agertu zala. **Baserria dirubidean** zuan izena. Liburuaren egillea: Manuel Oñatibia Aurela, Oiartzungo semea, Zarauzko albaitea.

* Zeruko Argia [33] (1970, 370. zenb.) 7; «L. A.» izenpean.

Oñatibia onek eta beste jaun batzuek urratu zuten bidea, eta bide ortatik aurrera joaz, olaxe sortu da Zabalegiko Nekazari-Eskola Donostiako Aurrezki-kutzaren liburu ontan ikusten deguez.

Zabalegiko Nekazari-Eskola 1958-an asia da. Donostiako Aurrezki-Kutzak 1962-an artu zuan bere babespean. Arrezkero an egiten dan lana daukagu liburu ontan. Lan onen berri ematea izan da liburu au egin dutenenen leenbiziko asmoa. Baiña irakurleak beste zer asko arkituko du bere orrietan, Gipuzkoako nekazaritzak zer tankera duan jakiteko argitasun asko.

Beren Itzetatik jakingo degu ongien zer asmoz ta zer gogoz diarduten lan ortan burubelarri dabiltzanak. Ona beren itzak: «Aurrezki Kutzak, asiera asieratik, alegiñik sutsuenak jarri zituan, ain zuzen, biotzeka zaigun lur- lantegi onen (Gipuzkoaren) biziera zalantzan jartzen duan eragozpena ezagutzen. Garbi dago eragozpenik nagusiena irabazbiderik-eza dala. Baserritarren bizitza latza da. Eta, jakiña, inguruko «erri» ta «lantegien» lillurak baserria uztera eragiten dio. Ain zuzen, baserriko irabazbide oien berri ematera eta baserritarren bizitzeko esperantzak agertzera dator liburu au».

Liburuak baditu iru zati. Leenbizikoan Zabalegi nola sortua dan esaten digu, aren leenbiziko pausuk, arik eta 1962-an Aurrezki-Kutzak beregain artu zuan arte. Bigarreanean, gain-begiratu bat egiñazten digu, Gipuzkoako nekazaritza ta ganadutegia, errialdez errialde, nola dauden ikusteko. Or degu Gipuzkoak zenbat baserri ta ikullu dituan, eta zer modutako ta zenbat etxalde. Irugarreanean, Gipuzkoako baserriak zer nolako irabazpideak dituan abere-janaritan, bei, txerri, koneju ta egaztietan. Gipuzkoako nekazariak olako sail bakoitzean zer irabazi atera lezakean zearo azaltzen zaigu. Eta guzti oien berri emandakoan, irugarren zati onek berak Zabalegin sartzen gaitu.

Zabalegi Donostiako-uriko mugabarruan dan baserria da, ez aundi, ez txiki, bai bien arteko, baserri-eredu izan dedin ola antolatua. Baserri-eredu ta nekazari-eskola, biak batean degu Zabalegi.

Baserri-eredu bezela, baserritik bizi litekeala eta irabaziak atera litezkeala erakutsi nai du. Eta emen ditugu, garbitasun guztiak emanik, ango sarrera ta irterak, eta zer irabazi ateratzen dan urtean ango abere, egazti, fruta-zuaitz, barazki ta belardietatik. Guzti oien kontua ematen zaigu, eta ortarako bear diran lan et tresnen zeaztasunak.

Baiña eredutzat jartzeko baserri baiño geiago nekezari-eskola degu Zabalegi, Euskalerriko neska-mutillentzat sortua. Euskalerrri guztiko neska-mutillak dabilta eskola ortara, baserriko lana ta nekazaritza nola obeto erabilli ta irabazgarriago egin ikastera joanak. Illean amabost egun egiten dituzte bertan mutillak, eta beste amabost egun neskak. Artzen dituzten ikaskaiak askotakoak dira: oiñarri-jakintza, ekonomia (batez ere, Gipuzkoako nekazaritzari geien dagokiona), ganadutza, ta abar. An ikasten dute neskak aur-azikuntza ta orratz-lana, eta mutillak, landareen gaitzak ezagutzen eta sendatzen, motor ta makiñak erailtzen. Eta bai neskak eta bai mutillak, soziologia ta euskera. Guztitara badira, ikastaldi bakoitzeko, mutillentzat 280 ordu, eta neskentzat, 210 ordu.

Benetan eredutzat artu gentzake Zabalegiko eskola ta esker onik merezi dute bera sortu ta berari eusten dioten guztiak. Liburuak ematen ditu oien izenak. Ez ditugu aipatu gabe utzi nai ango irakasle ta liburu onen egille diranak: Andoni Le-kuona, Jaime Zubia, Jose Perurena eta Miguel Garmendia.

Eta, jakiña, ez degu isillik utzi bear diruz lagintza oni eusten dion elkarte, Donostiako Aurrezki-kutxa.

Txalogarria da guztiok egin duten eta ari duten lana. Gure arteko nekazaritza indar artzen eta aurrera egiten lagunduko aal dio. Maitasunez, biotzez urbildu dira baserrira, nekazarien bizimodura. Eta esango nuke ekonomi-begiz bakarrik ez diotela begiratu baserriari, olerkari-begiz ere bai. Beren olerkari-begia ez dute bertsotan azaldu, baiña sarrerako itz batzuek nai salatzen dute. Gipuzkoarentzat nekazaritzak asko esan nai duala badakite. Baserria, onela diote berak, «Gipuzkoarraren eta onen oituren oiñarria izan da, gure izaeraren giza-ondasun ederren gordailu ta ixpillu», gure famili ondasunen iturri. Biotzak esan die ondasun oiei eutsi egin bear zaiela, biotzak egin ditu ameslari eta biotzak eman amesak mamitu ta egi biurtzeko oldarra ta kemena.

Olako laguntzak, olako gizonak bear ditu gure baserriak, eta guztien bearrean dago, noski, salbatuko bada, zutik iraungo badu, gaur gaiñean dituan arrisku ta galzoritik oso ta bizi aterako bada.

Geiago egin bearra dago oraindik, baserria edozein bizibideren maillan jarri nai bada; eta ori iritxi arte, ez du baserriak etorkizun argirik, nekazaritzak ez dio baserriari poz aundirik emango. Betoz argibide berriak, aurrerapen berriak baserriari laguntzeko. Ongi dago ola-lanak eta industriak artu duten indarra. Baiña nekazaritza bertan bera utzi gabe. Guztiok bizi gera baserriko emaitzetatik, eta iñolaz ere ez zaigu on aren ondamera.

Zabalegi sortu duan gogoak iraungo aal du, bide berriak urratuko aal ditu eta asitako pausuak aurrera eramango aal ditu.

Bien bitartean txalo jo dezagun gizon oiek oraiñartean egin duten lana eskertu ta goratzeko.

EUSKAL - ADITZA. BIZKAIERA*

Egilea: Pedro Pujana

Liburu berria degu emen euskal-aditzaz. Zeatzago esateko, Bizkaiko euskal-aditzaz.

Pedro Pujana, liburu orren egilleak, mesede egin nai izan die Bizkaiko euskera derabilten euskaldunei. Ain zuzen, Bizkaikoa omen da euskerarik edatuena, zabalduena, geien mintzatzen dana. Eta aditza dalarik euskerak duen zailtasunik andiena eta baita euskalki bakoitzak duen bereizgarririk nabarmenena ere, bizkaitarrek bakarrik ez, beste euskaldirik dei?bilenek ere ongi etorri egingo diotelakoan gaude liburu oni, euskeraren sail bat zeatzago ezagutzeko ta erabiltzeko aukera ematen dielako guztiei.

Egillearen asmoa bizkaitarrei laguntza ematea izan da, batez ere. Aditza ez omen dago ondo Bizkaian. Baiña non dago ongi?, galde egin genezake. Pujanak aipatzen dituen akatsak berak ditu aditzak beste euskalki batzuetan ere. Are andiagoak ere zabal dabilta oraintsuko liburu batzuetan. Oraintsu irakurri degu ainbat aldiz liburu batean *goaz*, euskaldun guztien *goazen* esateko.

Gure inguruko erderetan *goaz* eta *goazen* berdin esaten dira, noski. Eta orregatik edo, guri ere berdin esanerazi nai digute; edo ez-jakiñak eragin die. Eta euskeraren ongi-izana nai dutenak olako akatsetan erortzen balin badira, olako kezkarik ez dutenek zer ez ote dute egingo?

Pujanak, orraitio, kezka bat izan du liburu au egiterakoan, berak aitortu digunez; alegia, norbaitek, bear bada, bere barrurako esango duela, ez ote dan izango euskeraren batasunarentzat kaltegarri euskalki baten aditza bakarrik irakastea. Eta berak,

* Zeruko Argia [33] (1970, 404. zenb.) 7.

azken batean, ezetz uste du. Ez euskalki batek indar artzeak, ez euskalki ori obeto jakiteak, bere ustez, ez dio euskeraren batasunari kalterik egingo. Gaiñera, euskeraren batasuna baiño euskeraren bizia beiñago da, noski.

Orra, bada: orain arte, gure euskera bizi bada, euskalkietan bizi izan da ta bizi da. Ez degu beste euskerarik. Beste izkuntza batzuetan ez da ori gertatzen: izkelki bat, dialekto bat iltzen danean, beste batek artzen du aren lekua. Gurean ez: euskalki bat galtzen danean, erderak betetzen du aren utsunea.

Oraintsu samar illetak jo dira Zuberoko euskera badijoala-ta. Eta aren utsa zerk betetzen du? Erderak, ez beste goragoko ez beste iñungo euskeraren batek. Gure artean euskalkien bat galtzen dan bazterretan, an euskerarenak ere egin du. Ez da an beste euskera berririk sortzen. Biziak bizia sortu dezake. Euskeraren bizia ez diogu lagunduko, euskera bizirik, euskalkirik itoaz. Euskeraren zuaitz-adarretan batasunezko euskeraren bat txertatu nai badegu ere, ez da ortarako biderik egokiena izago zuaitz-ondoa sustraitik erauztea, ateratzea: txertoak ez du indarrak artuko, zuaitz-ondoa il ezker. Ez du, bada, norbaitek bizitz-indarra aipatu? Orra, bizitz-indarra ta bizi—legea. Eta bizi-legeekin kontu andia eduki bear da.

Orregatik Pedro Pujana ez da bildurtu ta ez du atzerakuntzarik izan bere liburu au ateratzeko, Bizkaiko euskalkiari nolabait laguntza ematearren.

Orixe, ain zuzen, laguntza eman nai izan die Bizkaiko euskera egiten dutenei beren euskera garbiago erabili dezaten, aditza jatorrago erabilliz. Esker onez artzeko asmoa. Eta laguntzatxo ori eman nai izan duelako, orretxegatik ez du egin nai izan lan oso-osoakorik ere. Esaterako, itanozko aditz-jokorik ez du eman, kanpoan utzi du.

Bere apalean, egilleak asmotan artu duen elburua iritxi duela uste degu: «Lantxo uts au onuragarri izan daitela euskerarentzat. Euskarri ta indargarri izan dakiola. Ez dot orixe beste saririk opa».

Pujanak ez dio bere indarrez goragoko egitekori eskua ezarri. Bizkaiera erabiltzen maisu degu bera. Eta erriari entzuteko belarri zoliak ditu, eta berdin antxiñako idazle ta maisuei: «Erriak, idazleak eta maisu jakintsu diranak izan dodaz irakasle». Denetatik baliatu da bere liburu ontan.

Gaiñera, esango al det?, neri begikoago egin zait liburua, bere egillea arabarra dalako. Arabarra ta euskaldun jatorra, Arabako erri bateko euskera bizi biziaren jabe dana. Ez ote ditu, beraz, merezi gure txaloak, gure oniritzia ta gure arrerarik onena?

ITSUEN ERRIAN... IKUSI NAI EZ DUENA ERREGE!*

Juan Garmendia jaunaren EUSKAL-ESKU-LANGINTZA
daia-ta

Bi illabete inguru da euskal-liburu eder bat eskuetaratu nuela. EUSKAL-ESKU-LAGINTZA du izena. Bi tomotan dator. Juan Garmendia da bere egillea, eta Joxe Miel Barandiaran jaunarena du sarrera. Aita-bitxi ona billatu dio egilleak, liburuaren aitak, bere semeari. Ez zion olakorik billatuko, semeak berak merezi ez balu. Liburu mardula Garmendia Jaunarena, edergarriz egoki apaindua gaiñera, gure errietako langintza zaarren berri, itzez eta irudiz, ain txukun ematen duena.

Liburu berdiñik nork noiz eman digu euskeraz? Zorionak eman bear dizkiogu egilleari. Donostiako egunkariak irakurtzeko oiturarik dutenek ezagun dute, noski, bera. Ain maitez eta ain zeatz ezagutarazi digu ainbat uztargille, ainbat joaregille, gure arteko aintziñako bizimoduen lekuko bezala gelditzen diran ainbat gizon langille zintzo. Eta gizonen berri emanaz batera, beren esku-lanen ainbat xeetasun eta argi eskaintzen digu. Eta guztia euskera errax, gozo, argi ta ixuri oneko batetan. Gaia, esku-langintza zaarra; baiña euskera gazte, bizi-bizia.

Garmendia, nik dakidanez, Tolosarra degu. Eta ori jakitea ez ote degu naiko, bere euskerak ederra bearco duela asmatzeko? Baiña, gaiñera, euskaldun jatorrekin izan du artu-emana lan ontarako gaien billa. Eta orrek aien euskera jatorraren kutsua ere utzi dio, nonbait ere. Euskera erabiltzen trebe da, bai, Garmendia jauna, eta zorionez gaude euskal-idazleen arlora azaldu zaigulako. Olako idazleen bearrean gaude. Euskera landu nai duenak ere ba du or zer ikasi.

Garmendia onek ez du, noski, iñoren legunkerien ez zurikerien bearrik. Nik ere ez diot emen txalo geiagorik jo nai. Baiña nola ez esan min artu dedala Bizkaiko

euskal-aldizkari batean irakurri dedanaz? Ez digu, bada, itz gutxitan baiña biribil-biribillik esan, Juan Garmendiaren liburu au, *Artesanía Vasca*, erdal-liburua dala, eta Joxe Miel jaunaren sarrera ere erderazkoa duela?

Au irakurtzean, txunditurik gelditu naiz, eta galdera batzuk egin dizkiot nere buruari: Ori idatzi duenak (zuzendaritzakoren batek, noski), non ikusi ote du aipatu duen liburu ori? Eta iñon ikusi ez badu, nola egin du aren aipamenik ez jakiñean? Zerk eraso dio gezur ain biribil orri? Aldizkari orrentzat erdal-liburua ote da edozein euskal-liburu, aldamenean erderazko testua dakarrela ta beste gabe? Berri-emaille argiak izango ditugu gure aldizkariak, baldin egiari lotsa anditxoagorik ez badiote!

Nik ez dakit ori idatzi duenak urrengo zenbakien batetan gezur ori aitortu ta zuzenduko duenez; baiña esana esanik dago, eta barruan daramagun gaitz zantarra atera du azalera: elkar ikusi ezifia: ain gutxi izan, ain urbil bizi, ta elkar ikusi eziña, Pemando Amezketarraren beiek zeukatena baiño azkoz gaiztoagoa. Ikusi eziña ala ikusi nai eza?

Itsuen errian begibakarra dala errege? Ala dio erdal-esaera batek; baiña ez ote degu zuzendu bear esaera ori? Itsuen errian, ikusi nai ez duena errege.

ATHEKA GAITZEKO OIHARTZUNAK*

Kontrabandistarik asko izan da Euskalerrian, noski bai mugaz andik, bai mugaz emendik. Baiña Ganix Antxordoki baizen ospetsu egin danik, bat ere ez. Zeri edo nori zor dio Lapurtar onek dituan ospe ta entzutea? Daskonagerre idazle sutsuari.

Orain dala eun urte azaldu zan euskeraz onen liburua: *Atheka Gaitzeko oiha-tzunak*. Ganix Antxordokik eman zion aria ta gaia. Kontrabandixta onek, beste auserdikeri askoren artean, au ere egin zuen: karlisten leendabiziko gerratean, mugaz onuntzaldera, Don Karlosengana iraganarazi Karlos orrekin ezkonberria zan andrea, Beira-ko Printzesa. Ganixek itz ederrak artu zituen esker-orde: itz utsak, zorigaitzez. Ola, zaartzaroa eldu zitzaionean, ondasunik gabe ikusi zuen bere burua; beste askori irabaziak egiteko bideak eman, baiña berari ez zitzaion ezer gelditzen; kalegorrian zegoen.

Bein, Daskonagerre jaunarengana jo bearra izan du, eta onek, aren egoera negargarriaz errukiturik, bertatik artzen du asmoa: liburu bat idatzirik, Ganix gaixoaren ezaupidea emango du, batez ere Don Karlosen andrearentzat egin zuenaren berri zabalduz. Ganixentzat izango ziran liburuak sortuko zituen irabaziak. Orra nola sortu zan liburua, eta orra liburuaren mamia.

Liburu orrek nolako arrera zabala izan zuen jakiteko, ona argibidea: bi urteren buruan, iru argitaldi izan zituen gutxienez frantzes-erderaz, eta laster izango zituen bi argitaldi Gaztelako erderara egindako itzulpenak ere.

Daskonagerrek erderaz egin zuen bere lana, baiña gezur bat zabaldu zuen, euskeratik frantzesera itzulia zala, alegia, lan ori euskeraz asmatua ta egiña zala leenengoz. Ez zan egia, baiña gezur orri eutsi bear zion. Nola? Liburua euskerara itzuliaraziz (bera ez baitzen ortarako gauza), eta euskerazko testoa argitaratuz. Bi

* Zeruko Argia [34] (1971, 411.zenb.) 7; *Basabil* izenpean, ik. 82. orr.

itzulpen-saiok uts eman ondoren, irugarrenak azken ona izan zuen. Daskonagerre beraren aide zan emakume batek eta sakristau batek egin zuten itzulpena, Vinson jauna ta besteren bat tartean zirala; 1869-an amaitua ta 1870-ean argitara emana zegoen.

Oraintxe joan dira, beraz eun urte. Ori dala-ta urteurren au ospatzeko datorkigu argitaldi berria. *Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones* dalakoak eskeintzen digu.

Zenbat garren argitaldia degu oraingoa? Laugarrena edo bosgarrena, bai. Onen aurretik, eta leendabiziko argitaldiaren ondoren, beste bi izan dira gutxienez liburu osorik eman dutenak: bata, Ameriketan, Califomian (*Californiako Euskal-Herria* zeritzan aldizkarian), eta bestea, Donostian, *Euskal-Esnalea-k* argitaraturik. Eta leenago (1888), «Gure izarra» izeneko aldizkari batean, azaldu zan beintzat zati bat, osoa emateko gogoz asirik. Arrera ona izan zuenik ezin uka, beraz.

Eta merezi ere bai. Liburu onekin bide berrietan sartzen zan gure izkuntza, irudimenak geiago agintzen duen sailletan. Zein sailletan, baiña? Zer da liburu au? Nobela, kondaira, biografia? Orain atera dutenek nobela-sailletan sartu dute, euskerazko leen-nobela bezela eskeiñi digute. Nolanai ere ez da bizitza utsa, ez ipui ere. Kontrabandixta baten egiazko gertaera bat dauka muintzat, eta orren inguruan ez du idazleak mataza andiko jokorik asmatu; baiña bere irudimenarekin Euskalerra osora edatzen da, Euskal-erri osoa artzen du begipean, gure erriaren izaera oitura, erri-lege eta batasun-amets guztiekin, eta Euskalerrriaren aurrerapidea bultzatu naia azaltzen du. Eta idazkera bero, bizi, zuzpergarrian, erromantiko-kutsuz oretuan, errax eta gogoz irakurtzekoan, eman digu dana. Liburu orrekin esan dezakegu aize berriak zetozela euskal-literaturaren alorrera. Itz lauz, prosaz, ez zan gure artean irudime-nezko libururik orren maillakorik.

Argitaldi berri au Bozas Urrutia jaunak antolatu du. Berak jarri dio itz-aurrea, eta bai beste argitasun asko ere, Vinson jaunaren bibliografia aunditik euskerara itzulita. Berak egin dio erderazko itzulpen berri bat, eta berak gaurko ortografiara aldatu lan osoa.

Ortografia berrian jarri besterik ez du egin? Ortografia azaleko zera da, baiña azal utsa ez dan zerbaiti ere ikutu ez ote zaion nago ni emen, eta zillegi zan baiño geixeago, esango nuke nik. Orain artean Euskaltzaindiak ez du eman letra batzuk kentzeko agindurik. Norbaitzuen joera besterik ez da ori. Liburu ontan, oraingoa, konsonante ondorengo *h* guztiak, kenduak daude, *ñ* ta / bikoitz guztiak ere bai. Ez det uste ori bearrezkoa zanik, ez guztien gogoko izango danik. Daskonagerrek bere erri-inguruko euskera erakutsi nai izan du bere liburuan. Zer galtzen zuen onek *iendea*, *langillia*, *gaiñian*, edo aditu ta begitarte? Ezer ez; baiña aldi artako edo toki bateko lekuko bezela ez du gutxi galtzen. Uskeriak dirala? Ain zuzen, uskerik diralako, ez ote ziran zeuden bezala utzi bear?

Haristschelhar jaunak, Etxahunen bertsoak eman dizkigunean, zentzu ohea erakutsi du, noski, eta iñork ez dio ortaz obenik ezarriko, nik uste. Zer ez ote zan esango. Etxahunen *nin*, *mementin* eta olakoak aldatu balitu eta *nuen* edo *mementuan* biurtu? Haritschelhar jauna mugaz bestaldekoa da, eta an ez dakite olako pekatutan

erortzen. An pekatu litzakeena emen gauzarik zuzenentzat daukagu. Astunago ta larriago biurtzen da pekatu ori, bertso-lanekin egiten danean. Mugaz emendik ez daukagu bertsoei ere ikutu okerrak egiteko kezkarik. *Uhin Berri* liburua, eta aldizkarien batean agertzen diran bertsoak ikusi besterik ez daukazute. Bost aldiz neurrian potu eginazten die gure bertsolariei, ez dakit noren lege edo legerkien izenean. Noizik bein, itz berriak asmatu ere bai. *Igo* esateko noiz esan edo idatzi ote dute euskaldunek *ih*o, gure egunotararte? Euskalki guztietan, *igo*, *igon* edo *igan* izan da itz ori. Gaiñera, bertsolariek nonnai ta beti izan dituzte lege berezi batzuk, eskubide edo baimen bereziak bide estuegietatik ez ibiltzeko. Gure artean, orain beintzat, ukatu egiten zaie eskubide ori. Ain gera egosgorrak, edo buru estu ta gogorrekoak edo irudimen gutxiakoak.

Atheka Gaitzeko Oihartzunak, ba zuen, ala esateko, bere nortasuna, eta bere euskerari ikuturik egin ez baliote, obe. Gure iritxi-miritxi aldakorrek ez dute nortasun orrek aiña balio. Beste akastxoren bat ere ba du oraingo argitaldi onek. Ez degu ikusten zergatik utzi diran sartu gabe liburu onek sarreran zeuzkan bertsoak. Eta zergatik ez dizkigute eman *Zuberotarrer*, *Baxe-Nafartarrer*, *Bizkaitarrai* eta *Gipuzkoatarrai* zuzendutako azken-itzak, bakoitzari bere euskalkian emanak? Egia da, leenbiziko aldiz ere ez zirala ale guztietan agertu, ale batzuetan baizik: baiña jakingarri ziran eta gogoangarri Daskonagerren asmoa argiago azaltzeko, alegia, euskaldun guztiengana iritxi zedilla bere deia, Ganixen alde guztien biotzak sustatu zitezten. Ez ote zuten oraingoan ere sartzea merezi?

Egia esan, uskeria oiek ez diote liburuari balio geiegirik kentzen. Orregatik, akatsak akats eta utsak uts, liburuak merezi du euskaldunen artean zabaldua izatea, batez ere irakurria izatea. Euskalerriaren maitez egiña dago, eta euskera ederrean, gaiñera. Vinson jauna ez zan errex asetzekoa. Ala ere, irakurgarritzat etaondo egintzat dauka lan au, euskeraren aldetik. Euskera garbi aberatsa du, eta joskera ere jatorra, egokia, naiz ta ez izan beti molde batekoa ta lotuegia. Euskeraz asmatutako ainbat liburu ez dira berau baizen gogoz irakurtzekoak.

Oraingo argitaldi onek, leenbiziko aldiz ditu tomo batean euskerazko ta erde-razko, gaztelerazko testoa; orregatik bai euskaldunek eta bai erdaldunek arrera ona egingo diotela uste degu, eta ala egin dezaiotela opa.

Zorionak Bozas Urrutia jaunari, eta liburua argitarazi duen alkarteari, ain gabon-sari ederra egin digutelako.

BAI, PEKATARI NAIZ*

Oraintsu atera diran bi liburu dirala-ta

Bozas Urrutia jaunak gogor artu nau, Atheka Gaitzeko Oihartzunak liburuaren ateraldi berriari buruz esan dedan zerbaitengatik (1). Eta *Nipekataria* esan bearrean nago. Nola esan ordea? Bai, pekatari naiz esango ote det, ala: bai, bekatari naiz? Bietara esan dezakedala argi dago. Pekatu ta bekatu, pekatari ta bekatari gauza bat bera dira. Gauza bat bera esan nai dute. Ala ere, agerian da ba dala alde puskaren bat batetik bestera.

Zertan dago aldea? Ortografian ote? Ez det uste. Ortografiaren aldetik ez batak ez besteak ez du okerrik; biak daude ongi ta jator. Ez *pekatari* ez *bekatari* ez dute ortografiarekin borrokarik. Berdin esan genezake beste itz batzuei buruz: beroa ta berua, beira ta begira, eta, zergatik ez?, langile ta langille. Emen ezer aipatzekotan, ortologia aipatu bear likete, ez ortografiarik. Ez ditugu bi gauzok naasi bear. Ez dezagun erbia katu egin. Besterik litzake «pecatari» edo «languille» erabiltzea. Ots bat berarentzat bi idazkera artzea litzake ori.

Daskonagerre-ren liburuak, leenago ere izan ditu ortografi-ikutuak, baiña itzak leenean utzirik. Orregatik aipatzen nuen nik Haritschelhar jaunaren liburua; Etxahunen ainbat bertso eman dizkigu ortografia berrian; baiña Etxahunen bertsoak, beren fonetismo ta guzti, zeuden zeudenean utzi ditu, aren aotik atera ziran bezala: baita H guztiak ere. Ez du orrekin, nere ustez, Euskaltzaindiaren legerik autsi. Hari buruz, ain zuzen, aukera utzi du Euskaltzaindiak nai duenak nai duena egiteko.

Zertarako dator, baiña, guzti au? Oraingo Atheka Gaitzeko Oihartzunak dalako liburuarekin gertatua argitzeko. Ez beza Bozas Urrutia jaunak gaizki artu, baiña auxe argi dago: liburu ori oraingoan ortografia berrian idatzia dagoela esatea ez da naikoa

* Zeruko Argia [34] (1971, 416.zenb.) 7.

(1) Ik. 1425-1427. orr.

or egin dan guztia esateko. Gauzak argi uzteko, zerbait geitxoago esan bearra zegoen. Daskonagerre-ren liburu orrek darabilen euskerari buruz argitasun geitxoago eman bear zan eta oraingoan nondik norako bidea artu dan zeatzago erakutsi. Jakiñean gaiñean geldituko zan irakurlea zer nolako ikututxoak egin izan zaizkion liburu orren euskerari, eta ez ortografia utsean. Orduan ez zuen iñork esatekorik izango. Ez al da egia?

Baiña neronek ere nere pekatua aitortu bearra daukat emen. Ez nuen au onen argi esan nere artikuluan. Ori esan nai, ta ez nuen esan. Ez eta ez nuen esan, Bozas Urrutiak dionez, neretzat *langillia* ta *beira* (ez behira, Daskonagerre-ren liburuan ez baitago h-rik bokal bi oien artean) obe zeudenik, nobelagille onek ola erabilli zituela baizik. Ez al dago au ere argi?

Eta orain esan dezadan beste *Ni pekatari* bat, nere pekatuak aitortuz NOELAK deritzan liburuan azaldu diran uts batzuegatik. Daskonagerre-ren liburuarekin bateratsu agertu zan Etxeberri-ren au ere eta aren saillean berean.

Nik ere, liburu ori antolatzerakoan, Editorialaren agindu berdintsua artu nuen, alegia: oraingo ortografian jarri bear nuela Etxeberri Ziburukoaren lana, bear ez zan ikuturik egin gabe, ordea. Liburu onek zorigaitz au izan du: utsez beterik agertu dala beti. Utsak nolabait estaltzen eta zuzentzen saiatu bear nintzan, aalik eta utsik gutxieneko edizioa ateratzeko. Baiña gure ametsak amets gelditu dira. Liburu ez da utsik gabe agertu. Eta, gaiñera, ez degu iñon, oi dan bezela, utsen arkibiderik edo aitormenik jarri.

Orregatik, liburu ori eskuratu dutenen onerako eta argibiderako, emen jartzen det uts-zerrenda bat, iñolaz ere Etxeberrik leporatu ez dezan berak egin gabeko pekatuak.

Sortze sainduak dio 59-garren orrialdean, *sortze sainduaz* esan bearrean, noski; *Zu baithariksorthu da*, 68-garreanean, eta *Zure bíz/i/kzn'*:esanbeardu; *milla laudarioz*, 81-n, eta *laudarioz* bear du; *fagore nazazu* (141), eta *fabora nazazu* da; *eskutari baleniak* (169), baiñak *balentak* izan bear du; *kontet* dio 173-n, eta *kontent* irakurri bear da. Uts txikiago batzuk, zetaren bat eseren orde, edo letra larriren bat txikiaren orde, ez dira aipatzekoak.

Egia esan, antziñako edizio zaarretan geiago ta andiagoak arkitzen dira; baiña guk ere, ageri danez, egin ditugu geureak, Eguberrietarako ateratzearren itoka ibilliak eraginda. Bego emen gure pekatuen aitormena.

Bai, pekatari naiz. Zorionez, Ni pekatari esateak ez dio beste iñori miñik emoten, eta irakurleen onerako izan dedilla nere au.

OIHENART:*

Atsotitzak eta Neurtitzak (Edizio berria)

Noizik ona dira ezagunak Oihenarten euskal-lanak gure artean? Orain dala 35 urte asita, esango nuke nik. Oihenarte lege-gizona eta kondaira maixua ezagunago izan degu, nik uste, euskal-idazlea baiño.

Egia da 1657-an argitaratuak izan zirela aren atsotitz eta neurtitzak, bertsoak. Baiña noren euskuetara iritxi da ifioiz orduko argitaldiaren alerik?

Egia da ere, joan dan mendearen erditsuan, bigarren edizio bat ere azaldu zela, Artxu alegigille ta maixuaren frantzes-itzulpenarekin. Baiña edizio au ere, Bidasoaz emendik ez zan asko zabaldu; ez zan eldu gutxi batzuen eskuetara baizik. Idazle zaar onen *Atsotitzak* beste argitaraldirik ere izan dute geroago, Stempf jaunak eta Haristoy apaizak argitaraturik; biak, ordea, Bidasoaz andik. Ez da, beraz, arritzekoa emendiko aldean oso gutxik ezagutu bazuten 1935-garren urterarte. Urte onetan eman zuen Julio Urkijo jaunak, RIEV-en orrietan, 1657-ko edizioaren berdin bat, fotokopiaz berrizaturik; eta, urrengo urtean, 1936-n, Isaac Lopez Mendizabal Tolosarrak separetak egin zituen Urkijok egin zuenetik, tomo bat egiten zutela. Tolosa-ko edizio onetan, oraingoan *beste zenbait olerki* titulutzat dutenak falta dira. Edizio ederra. Ala ere, fotokopia izanik, ez zan edoziñek erraz eta atsegiñez irakurtzekoa. Eta orra non degun, urte berean, apaiz eta idazle trebe baten saioa: Jose Markiegi apaiz jaunak, YAKINTZA-aldizkariaren orrietan, asi zuen lan berri bat, Oihenarteren bertsoak berriz ematekoa, osatu gabe utzi bazuen ere.

Markiegi zanaren asmoa Oihenarteren bertso guztiak ematea zan, noski; oraingo ortografiaz ematen zituen, gipuzkerazko itzulpena itz lauz aldamenen zutela. Lan

* Zeruko Argia [34] (1971, 426.zenb.) 15; *Nonzeberri* izenpean, ik. 138. orr.

ederra Markiegi-rena ere. Baiña urte artan sortu zan gerrateak eragotzi zion bere asmoa aurrera eramatea. Gerrate negargarri ark etenda utzi zuen, bai apaiz eta idazle pizkorra genduen apaiz aren bizia, eta bai YAKINTZA-aldizkariarena ere.

Orain, Larresoro idazle ugariaren eskutik datorkigu opari eder berri au: Oihenarte andiaren euskal-lan guztiak, bai atsotitz eta bai bertso, tomo batean. Auxe degu Oihenarte euskaldunaren ediziorik osoena egundaiño. Urteak ez baitira alferretan aurrera joaten. Azken-urteotan Oihenarteren euskal-lan berririk ere azaldu zaigu, eta Urkijo-Mintegiaren aldizkariak oraintsu argitara eman ditu. Urkijo zanak Oihenarteren paperetatik kopiatu eta argitaratzeko erdi prestatuak zeuzkanak dira. Urkijoren paperetatik Mitxelenak jaso eta aipatutako aldizkarian ezagutarazi zituen, orain dala lau urte, 1967-n, eta andik orain edizio berri au osatzera datoz: 707-garren atsotitzean asi ta 892-garrenekoak dira.

Ola, Oihenarteren ediziorik osoena degu oraingoa, aren euskerazko lanen ediziorik osoena, beintzat. Larresorok ez baitu nai izan berak antolatutako liburu ontan euskera erderarekin naastu. Atsotitzak frantzes-itzulpenarekin atera zituen Oihenartek, baiña oraingo ateraldi onetan ez zaio lekurik eman iñongo erderari. Esaera illunen batek argitasunik bear badu, euskeraz ematen du Larresorok itzulpena edo argitasuna. Ala egin du bai esaera zaarrekin, eta bai bertsoekin. Orain dala 15 urte, Lafon jaunak eman zuen neurtitzen frantzes-itzulpena; eta artaz eta bere jakitatez baliatu da Larresoro, bertsozik zaillen eta illunenei itz-lauzko itzulpena moldatzeko; baiña, Markiegi egin zuen bezela, testo osoaren itzulpenik eman gabe.

Larresorok emen egin duen lana laguntza andia izango da euskaldun irakurlentzat, Oihenarteren euskera zaar eta zailla erosoago irakurri ta errazago ulertzeko. Ez degu esango beti itzulpenik egokiena ta argiena eman duenik. Bein edo berriz, Oihenartek berak emandako frantzez-itzulpena argiago ta jatorrago gelditzen da, egia esan, emengo euskal-itzulpenean baiño. Esaterako, bigarren datorren atsotitz au: *Adiskidea zaharrik, kontua berririk*, ez det uste argiago gelditzen danik oraingo itzulpen edo azalpenarekin.

Ediziorik osoena izan arren ez da osoa. Zerbait falta du gutxi bada ere, osoa izateko. Badirudi ez duela Larresorok Vinson-en lana aztertu; edo, ez du aintzat artu. Aren Bibliografía irakurri balu, an ikasiko zuen zerbait jakingarri: Oihenartek ez zituela bere bertsoak bein bakarrik inprentaratu, bai bi aldiz gutxienez. An ikusiko zuen ikutu berriak egiten zizkiela bein baiño geiagotan, eta gure eskuetara iritxi diran ale banakak (iru oso ta bi erdikin), ez zirala egin, bear bada, saltzeko ta zabaltzeko asmotan. Ez daramate inprentaren izenik. Vinsonen iritiz, orrek auxe esan nai du, ain zuzen: liburu au ez zala salgei jartzeko atera. Baiña guretzat auxe da jakingarriena: egilleak noiztenka bere bertsoak zuzendu egiten baizituen, elkarren antzik ez duten bertsoak ere badirala an ta emen, batzuk besteen orde. Geiago ere baziran, nonbait; baiña olako ale erdi bat besterik ez zuen Vinsonek aurkitu. Ezberdintasun oiek ere sartu bearrekoak dira, osoa nai luken edizio batean. Iru orrialde bete zituen Vinsonek olako bertso ezberdiñez. Urrengo argitaraldiren batek jasoko al ditu.

Jaso bearko du emen kanpo utzi duten atsotik au ere: *Ahok ahoi berro: eskua ekuru bego*. Bere lekua 717-garren eta 718-garrenaren artean bear zuen.

Inprentetako sorgin edo zomorro dalakoak eragindako utsik ere aurkitzen degu. Azalean bertan Oihenarteren urteak oker daude: 1592-1675. Itzaurrean 1668-rako itzilat ematen da ta egia ori dala dirudi.

Irakurlearen onetan, aipatuko ditugu beste zenbait uts geiago: 765-garren atsotitza onela osatu bear da: *Dugun jakin ala den kathil ala matil*; 67-garren atsotitzean, azkenean, *askariaz* irakurri bear da, ez *askariak*; 191-garren orrialdean birritan dator *estealtzen*, eta bigarrenekoan estaltzen esan bear du. Azkenez, 208-garren orrialdean irugarren lerroa onela irakurri bedi: bait'egonik hedaturik.

Ez dakit nongo sorgiñak eragin duen beste uts bat. Larresorok (leen ere esan det) ez du sartu nai izan erdal-itzik bere liburuan. Nik ez diot ortan ogenik ezarten. Baiña delako sorgin edo zomorro orrek badaki edozeiñi marro egiten. Ala egin du emen: euskal-itza balitz bezela, erdal-itza sarrerazi, poliki poliki. Ona zer jarrerazi duen 830-garren atsotitzean: *Ixadonik xoria ezkondu nei alkanzaria*. Ezkondu ala eskondu izan bear duen or, utzi dezagun. Baiña *alkanzaria* ori alferrik dago. Liburu onetan ez zaigu eman esaera orren erderazko itzulpenik, ez euskerazko argitasunik. Zer da, bada, itz ori? Erderazko itzulpenaren zatia besterik ez: *Esperando alcanzaría alpájaro*. Orra or erdal-itza euskerazko egiñik, sorgin-irripar egiten diola liburu onen antolatzaillari.

Beste uts bat edo beste Larresoro-renak diranik ezin det siñetsi. *Zaldi madarikatuak biloa leun*, dio Oihenarten 423-garren atsotitzak. Azalpen labur bat jarri zaio emen, baiño *bilo leun* ori *bilo lehun* biurtu da. Larresorok badaki orrenbeste ta geiago ere. Itz ori leun edo legun izan da beti, sekula ez lehun. Berdin esango det 584-garren atsotitzari buruz: *Erregal'adi eure doiareki...* Oraingo euskerara itzulita, onela esanerazten die: Poz adi eure dohainarekin. Goiko *doi* orrek ez du ser ikusirik beko *dohaina* orrekin. Au ere ez da, nik uste, Larresororen utsa. Modu askotako sorgiñak sartzen dira inprenta-zuloetan, eta nolabaitekoren batek eragin du uts ori.

Olako uts batzuk ez dute inor arritzen bat ere. Argitaratzaillak askotan estuegi dabilta lanean; eta, bestetik, liburu gutxik dakarte azkenean utsen aurkibiderik edo aitormenik. Eta irakurlearentzat gelditzen da burua zuurtu edo zorrotzu bearra. Irakurleari lana arindu ta errazteko agertu ditugu emen.

Oihenarte ez da erraz eta bertatik ulertzeko idazlea. Orregatik oraingo edizio au ongi dator irakurleen lagungarri, bere oar eta argitasunekin. Emendik aurrera euskaltzale guztiek izango dute aukera aspaldietako euskal-idazle aundi au irakurri ta ulertzeko. Merezi du. Maixu aundia degu bera bertsogintzan, eta gutxi bezela da euskeraren izkutu guztien jabe, gure izkuntzarekin nai zuena egiteko gutxi bezela trebe.

Zorigaitzez, ez zuen jarraitzaillarik izan. Zergatik? Ezagutua izan ez zalako, nere ustez. Vinson jaunak zer zion ikusi degu: Oihenarteren euskal-lanen alerik gutxi zabaldu zan, agi danez. Nola ezagutu zezaketen?

Orain, Larresorori esker, eta Herri-Gogoa-ren bidez, irakurriagoa ta ezagunagoa izango al degu. Eta ikasiko al degu maixu onegandik gure izkuntza maitatzen eta berak aiñean lantzen.

LIBURU BERRIA EGILLE: LUIS EGIA APAIZA*

Nork ez daki gure eskolentzat, benetan euskal-ikastola izateko, euskera irakastea ez dala naiko? Edozein ikasgai euskeraz eman eta artzeko gai ez diran artean, ez dute izen ori bete betean merezi. Aspalditxo da euskalzaleak ortaz jabetu zirala. Izan ere, aspalditxotik izan ditugu saioak, eskolak euskalduntzeko, eskoletan ikasteko guztiak euskeraz emateko, maila batzuetan beintzat, gramatikatik asi ta beste gai askotaraino. Aipamen xeagorik egin bearrik ba ote dago?

Urrutiegia joan gabe, Azkue andiaren izena edozeiñek ezagutzen du. Euskera erabilli zuen berak bere Euskal-Izkindean, geroago gaztetako pekatutzat jo zuen gramatika artan. Geroztik, gure egunotako Arantzazutarrak eta beste batzuk baiño leenagotik, azaldu ziran beste batzuk ere bide beretik: Aita Zabala Arana bere Eliztira dalakoarekin, Arruza zana (Bilboko Gaceta egunkariaren orrietan) eta abar.

Gramatika-sailletik kanpo, Aita Jauregi Aramaiorrek eskoletan erabiltzeko egin zituen bere Pisia eta Kimia, bi tomo loditxo. Euskeraz eta eskoletarako ikasgaitzat agertu zan Barandiaran andiaren Euskalerriko Leen Gizona, eta Estornestarren Edes-tia. Nik ere gogoan det Jauregi orren soiñekodun batek (1937tik ona atzerrian da) euskeraz eman zigula, aundi aundika, gizonen kondaira osoa. Euskeraz atera zituzten Kalasandarrek aldi artan eskoletan oi ziran Gauzen Ikaskizunak (Lecciones de cosas) eta are geiago. La Salletarrak ere asiak ziran beren eskola-liburuak (Bruño-etxeoak) euskeraz ematen, aritmetika ikastekoak beiñik bein.

Sail ontan, ordea, izan zan aurrea artu zienik: Gure egunotan euskal-idazleen aitalen degun Isaak L. Mendizabal. Jaun onek, 1913an, atera zuen bere Zenbakizti

* El Diario Vasco [39] (1972, 11.800. zenb.) 10.

edo aritmetika euskeraz. Gero, bide beretik, aurrerago jo zuen Aita Zabala Aranak, euskal-zenbakiztiaz gaiñera Geometria (Daneurtiztia) ere emanaz.

Aipamenik gabe uztekoa ez degu Bizkaiko Diputazioak sail ontan sortu zuen giroa, edo egin eta eragin zuen lana. Aren babespean abiatu zan Euskaltzaindia, eta euskal-ikastolarentzat giro ta griña berria sortu. Aren babespean egin zuen eta inprestaturik utzi oraintsu joan zaigun idazle eta irakasle batek (Altuna'tar Josebak) eskoletarako leenengo irakur-liburua, Euskeldun Umien Laguna, irakurgai errez, labur eta ikaskizun askoko ainbat dituen, bi tomatan, itz lauz eta bai bertsoz ere. Aren aginduz antolatu zituen Olabidek euskal-testoak, Pizia, Kimia eta abereen eta landaren mundua ikasteko. Baiña (au gure bein ta berrizko baiñaren baten okerra!), andik laister politikan aize berriek jo zuten gure inguruan, eta Olabide zenaren lana galdu zan nonbaiten, eta Altuna Jaunarenari zabaltzeko baimena ukatu ta eskua ezarri zioten (gure liburuen leenengo sekuestroa, baikuntza?), eta ale bakarra edo da, oso ta bizi gelditu dana, norbaiten eskuetan.

* * *

Ez ote det luzeegi jo aspaldiko lan oien berri ematen, orain Egia apaizak atera duen Neurritzia liburuari atarixoa jartzeko? Ala ere, ez det uste alperrikako lana danik aien oroipena. Giro ohea degu nonbat orain. Aspaldiko amesak egi biurtuaz dijoaz. Gauza guztiek beren epea, beren giroa bear dute, sortu ta indar artzeko. Ez da berealakoan goizetik gabera fruturik sortzen ez eltzen. Au ere biziaren legea da. Biziak ez du astea naikoa, iraupenak erakutsi bear du aren indarra; geroak esan bearko oraingoaren jatortasuna eta balioa.

Leenaren jarrai, eta leena indartzen dator Egia apaizaren oraingo Geometri - liburu au. Oraintsu sariztatua eta argitaratua dan arren, bere sustriak leen asitakoen saioetan sartzen ditu, aien jarraitzaille da.

Euskaldunei euskeraz, Jainkoak nai du. Orra Kardaberaz sutsuaren beiñolako oiua. Euskaldunak euskeraz bear du edozein jakingai: orra euskaldun jator askoren aspaldiko amesa, poliki poliki mami biurtu nai dana, zuzenago edo okerrago ala biurtzen ari dana. Euskaldunei euskeraz eskola guztia: orra Kardaberaz aita agurgarriaren oiua orain artzen duen joera eta soiñu berria. Esan bearrik ez dago Kardaberaz Bazkunak, sortu zanetik, berea egiña zeukala lema ori, eta bera mamitzen lagundu nai duela gaur ere. Ortara dator liburu au. Egia jauna geometriaren zokomokoetan sartu da, gaurdaino iñor gutxik landu duen saillean, alegia. Eta liburu mardul au eskeiñi die euskaldunei, gure ikastoletako irakasleentzat ain egokia.

Joan dan urtean Venezuelan Andima Ibiñagabeitia saria irabazitako lana da. Egilleak ez du gorderik utzi nai izan, eta Kardaberaz Bazkunak argitaratu du. Gure egunotan asko ari da eskoletarako euskal - testoak antolatzen; askotan, bakoitzak bere eskolarako edo talderako baizik ez. Apaizgaitegieta badabilta eskuz esku teologi-testoak ere. Baiña asko lakaripean gorderik bezala. Egia jaunak geometri-gaiak irakasteko egin duen liburu au kalera dator, emen degu edozeiñen eskuetan jarrita,

euskaldunentzat emana. Emen ditugu jakintza otako ikaskizunak 45 ikasgaitan, 300 orrialdez gorako tomo sendoan, 200 inguru irudi dituela eta azkenean, geigarritzat 9 orrialdeko iztegi berezia.

Liburu onen berri ematean, zer geiago esango degu? Egokien deritzat egilleak ematen dituen oar batzuk emen jartzea: «Liburu-gai berriak euskerara naiean geranok ez degu, nik uste, itz berri zalegi izan bear: kontuz eta arretaz gabiltzan, izkera illunegiak kalterik egin ez dezaigun. Bañan ez gaitezen bildurrez kizkurtu. Itz berrien bildurregi izatea geren buruak itxutzea izango litzake; eta mundu bat egiteko daukagunean, lanerako erremintarik gabe gelditzea, alegia. Noiz itz berria artuko? Noiz auzokoa erabiliko? Or dago kozka. Euskeraren aberastasunari begiratu bear zaio eta euskaldunen ar-neurriari ere bai... Erdiko bidea asmatzen dunak, orretzek egingo digu mesederik aundiena».

Erdi-bide au gogoan, Egia jaunak kanpoko laguntzari ez dio muziñik egin; baiña beste zer au aaztu gabe, euskerak ez duela «kanpoko laguntza ori orrenbeste bear. Ez du geienetan iñungo itz zailen bearrik. Bere baratzean bait-ditu naiko esakun errez, argi eta garbi. Eta euskeraz ikasitakoak kabi beroa eta gozoa egiten dute euskal-buruan».

Baiña (berriz ere beste baiña bat) «euskerak matematika-gaietarako eunka milla esaera egoki dituelako, edo izan dezazkealako, zentzuz eta buruz jardun bear degu gure artean desbardintasun naasirik sortu ez dedin... Batera ari gaitezen, indarririk sakabanatu gabe, eta besteengandik ikasi dezagun».

Jokabide jatoretara garbia, gogo eta biotza zabalak dituen baten bidea. Bide ortatik jo nai izen du liburu onen egilleak, emen geometri-gauzak euskeraratu eta euskaldunei eskeintzean. Ameriketara saria izan du, baiña sari ohea luke orain euskaldunek arrera ona egitea. Bera ere orrexen zai dago, zure erantzunaren zai, euskalduna, «zer arrera on egingo diozun ameslari».

VILLASANTE AITAREN «AXULAR-EN HIZTEGIA»*

Aita Villasantek egin berri duen liburuak (Axularren Hiztegiak) ez du nik aurkeztu bearrik. Egilleak berak naiko aurkeztua du, an eta emen, Euskalerriko uririk nausienetan, eta euskal-aldizkariak ez dira otz egon aren gorespenetan. Gure klasikorik ospetsuena iñork ere ez omen du ezagutzen Euskaltzaindiaren buru degun onek baiño sakonago, eta oraingo onekin Axular zaarraren euskera ezagutzeko lanik egokien eta bearrezkoena egin omen du; eskuetatik ezin utzizkoa. Ez det uste iñork utsik edo akatsik aurkitu dionik. Oraintsu samar gure arteko idazle batek esan dituen itzak erabiltzeko, oso «crítica constructiva» egin zaio, alegia, edozeri AMEN esan bear diotenena, «en roman paladino conformismo beato» besterik ez danaren estalgarria. Baiña *amen-Jesuska* utsean ibilli bear ote degu? Eman diran gorespenei ezer kendu gabe, beste egitekorik ez ote degu izango? Axular guztiona da; guztiona aren eta gure euskera, ez bakarrik orrena edo onena. Eta edozeiñek izan dezake zer esan, eta guztiok lagundu bearko diogu elkarri argi billa. Ez da besterik nere asmoa ere, lerro auek idaztean. Idazlea lore utsez estalita utzirik zer aurreratzen degu? Ea uts batzuk salatuz, Aita Villasanteri, urrengo argitaraldiak (esan digutenez) obeak eta akats guxtiagokoak egiten laguntzen diogun.

Eta, asteko, utsune andi bat ikusten det nik Villasante Aitaren liburu onetan: ez atzizki ez aurre-izkirik ez du jaso, *bait-edo baitan* izan ezik. Euskal-iztegiek (Azkue, Lhande) leku andia ematen diete itzen osagarri oiei, eta bai bear ere. Axularrek badu ortan zer erakatsi, eta guk an zer ikasi: —*ago*, aditz-forma batzuekin (galtzenago, urruntzenago); —*gatik* ere berdintsu, nordun aditz-formekin (barka diazagungatik), besterik ez aipatzeko. Pisistrato, Kleomenes, Lisimako, Abradat eta euskerarekin ikuskizunik ez duten beste ainbat izenez liburuak betetzea baiño ez ote zan askoz bearrezkoago eta obe beste atzizki oien berri sartzea?

* El Diario Vasco41 (1974, 12.149. zenb.) Suplemento dominical, 9; Agur 5 (1974, 133. zenb.) 2.

EKIDIN itza ez du egilleak zegokion lekuan sartu, baiña uts ori zuzendu du gero. Beste utsune batzuk ere bete bear zituen eta ez du egin. *Salho* ez degu iñon aurkitu. Orain «proposamendu» edo «errekesta» esango lukete. «Iarraitunik izan eztuena, mandaturik edo *salhorik* egin etzaikana», dio andre batez. Itz ori ulertu nai duenak Azkue edo Lhanderengana jo bearko du. *Etxedun* sartu duenak *alabadun* ere zergatik ez? *Erraile*, *ahantz-ordu*, *goganbeharrazi*, *aldanahitu*, *abenikoazkoa* (ez aldaguratu eta abenikoa bakarrik), eta olako beste itz batzuk bear zuten beren lekua. *Gogora* itza ez da bakarrik A GUSTO; izentzat ere eta pluralen erabilli du Axularrek: *Bere gogorak* GATIK; *berri* eta *lehenbizi* sustantibotzat ere baditu: berri hartan, lehenbizi hartan.

Geienetan, iztegi onen egillea ez da asko saiatu itz bakoitzaren adiera bereziak zeatz eta maillaz mailla bezela ematen. Gauza jakिña da, itz bati aldamenean dituenek argi eta esan-nai berezia ezartzen diotela sarri. Ar dezagun, adibidetzat, EGITEKO itza. Klasikoetan asko irakurtzen da onako esaeretan (eta Axularrengan geien): egitekotan sartu, egitekotan ibeni, egitekotan ibilli, egitekotan izan (egitekoak egitekotan direnean). Villasantek ez du jakin, ez du asmatu olako esaerei beren adiera eta koska berezia billatzen, askotan beintzat. *Sendagailla* itzarekin alatsu gertatu zaio. Obe zuen, itz orrek zer esan nai duen Azkue edo Lhandenetik artu balu. Ez du jakin erderazko HAZAÑA eta PROEZATIK ateratzen, eta itz ori ez da egokiena Axularrek esan nai zuena adierazteko. Sarako erretorak esan-nai berdiñekotzat erabilli zituen prezatu, loriatu, *sendagailla* egin, *sendagailla eritzi*. Beste bein *sendagaillaz bezala* idatzi duenean, aldamenean dauka adierazgarria: *hore bailliz bezala*. Azkueren *Jactancia* eta Lhanderen *vanterie* egokiago daude, bata nai bestea, Axularrek esan zuena erderatzeko, Villasanteren erderakada badaezpadakoak baiño. Eta non utzi du *legun*, Axularrek leun eta legun erabilli baititu?

Goazen orain beste uts eta utsune batzuetara. Non da iztegi onetan Axularren *Aillioisa* ulerterazi eta erakusteko argibiderik? Azkuek eman zigun, Lhandek ere bai. Aurre-izki bat degu or. Aditzaren era batzuetan erabiltzen dana. Ez ote zegokion lekutxo bat Axularren itzen artean? Aaztu egin zaio Aita Villasanteri, oarkabez edo. Baiña beste bat oarkabez ez, ez-jakiñez utzi duela esango nuke, *albait* edo *albei* aurre-izkia, XVIII menderarte idazle batek baiño geiagok inperativo-era bat osatzeko erabilli oi zutena. Argirik naiko eman du ortaz orain il berri degun Lafon jaunak: *Prescriptif* esaten dio, eta Leizarragak eta Etxeberri Ziburukoak asko erabilli zuten: Axularrek ere bai, bein edo berritan. Lafon ez zan izan, orratio, aditz-era orren aurkitzaille eta leenengo maisu; askoz leenago eman zigun aren berri Etxeberri Sarakoak. Beste Etxeberriren bertsoetatik jasota, ainbat olako forma eman zizkigun, eta Axulartarrik axulartarren izan zan onek bere maisu maitearenak ez zituen jaso gabe utzi, latin irakasteko liburuan: «Gauza baten egitera zohazinean, eta zeure adiskideak eztzagizula erraiten deratzunean, ez albaitzenegi, gibela albaitzindezi». Villasantek ez du orko aginte-era ori ikusi, eta ez du zeatz itzuli al izan erderara. Zer dira ez *albaitzenegi* eta gibela *albeitzindezi* ori? Zer esan nai dute? Ez egizu egin eta ez zaitez atzera abia, besterik ez. Lafonek zioenez, inperatibo orrek ez du agintzen berealakoan egiteko ezer, geroago ordua datorrenean, egiteko zerbait baizik.

Azkenez beste *Ahantz-ordu* bat izan du Villasantek *ala* itzarekin (*ala* ez-jakiñen bat?). Lafittek *Exclamatif* esaten dion *ala* ori ez da Villasanteren liburuan ageri, mugaz andiko euskaldunen artean oso erabilia dan arren. «Bereterretxen» kantuan agertzen da: Andozeko ibarra, *ala* ibar luzia!... Ezpeldoiko bukata *ala* bukata ederra! Oraingoetan ere bai: «ALA baita dolu-egingarri amodioetan dena!», Olaxe, gero, H-rik gabe, *ala* Jainkoa, *ala* zu, eta olako oi-u-esaeretan bezela, «Ala ni, idazten du Axularrek, plazer apurragatik... errege eta librea nintzena, mutil eta gatibu egin bainaiz! Ala ni, deus gutigatik... Jainkoaren adiskide nintzena, etsaitu bainaiz!». Aita Villasantek ez du artu esaera orren muiña, eta *ala* orrek ez du lekurik bere iztegian. Gaiñera, beste pekatu bat egin du emen: azkenengo ALA ori, ESPIRITUALES ESPAÑOLES-entzat egin zuen argitaraldian H-kin eman du. Nonbait ere, gaizki eta oker ulertu zuelako. Bere maixuari zuzendu bearrez, zorioneko letra ori jainko txipi salbatzailletzat artu dutenei atsegin emateko edo, aren aldarera bere kandelatxoa ekarri gabe ez da gelditu.

Nik uste det, nola nai ere, pekatu ori erderazko *Vaqueta* itza euskal-iztegiatan ez sartzea baiño andiagoa dala; leenago aipatu ditugun utsak bame sartzen baditugu, areago. Gauza bitxia, erdaldun *espirituales* diranentzat esan zuena, jakin ez euskaldun jakintsuenak aien aurrean lotsagarri uzteko, *ala* bere burua farragarri jartzeko izan zan. *Vaqueta* zer zan jakiteko, erdaliztegitara jo bear izan omen zuen. Nonbait itz ori ez zitzaion gertatu erderaz ere berealakoan ulertzekoa, eta erderazko iztegiaren batean ikasi bear. Non, bada? Baiña euskal-iztegiek erdal-iztegia osorik bamean sartu bearra ote daukate? Urkijo zana iritzi zabalekoa zan gai onetan, baiña ez zuen orrenbesterik nai. Eta Aita Villasantek uste al du Urdazubiko semeak bein idatzi zuen itz ori Sarako semeek berak baiño errezagot ulertuko zutela? Ez du, bada, beste iñon aztama andirik utzi. Nik uste det «Espirituales Españoles» liburu-sortaren irakurtzaileek txunditurik gelditu zirala, baldin irakurri badute, Villasanteren ateraldi eta aserrearekin.

Danari «amen» esan eta omen egiteari utzita, *Conformismo beatorik* gabe aztertu nai duenak, zer zuzendu eta zeri *bainaren bat* ipiñi aurkituko du AXULARREN HIZTEGI onetan. SOIÑA itz arekin egiñak ere eman dezake aririk naiko. Baiña beldur naiz, gauzarik bitxienean izenean (ezkertiar-demokrata-neutralen izenean, esaterako) amenka eta omenka utsean ariko danik geiegi izango ez ote degun. Nik berriz diot: Axular eta euskera euskaldun guztiona dala eta guztiok egin bear degula al deguntxoa aren GERO obeki ulertzen eta aren urrengo argitaraldiak naiz itzulpenak obeak izan ditezten.

BIZKAIKO LEGE ZARRAZ, LIBURU BERRI BAT*

Zer zeukaten Bizkaiko semeek iraingarrizat? Zenbat irain mota zeuden Bizkaiko lege zarrean? Nora eta norengana jotzen zuten irainduak, edo iraiñaren salatzaileak? Nolako zigorra zegokion irain bakoitzari? Nork eta non eman bear zuen epaia? Galdera auei eta beste antzeko zenbaiti erantzuteko liburu egoki eta irakurgarria eman du Jacinto Martín Rodríguez Jaunak. Irakasle titulua ateratzeko, doktor egiteko tesia du, 1971-72-ko ikastaroan Madrilgo Unibersitate-barrutian aurkeztutako tesietan gorengo aipamena izan duena: *El Honor y la Injuria en el Fuero de Vizcaya*.

Erderaz egiña dagoela-ta, ez dio iñork obenik ezarriko egillari. Gaztelarra degu bera, eta Bizkaiko Diputazioaren eskutik datorkigu naiko sustraiz eta zeatz tajutu eta osatua dagoen lan au. Madrilgo jakintsuek eman dioten on-iritzi ori, lekuko. Gure ikastetxe Nagusietako, batez ere Bizkaiko ikasientzat eredu ederra benetan. Geure etxean badegu zer aztertu, zer argitu eta zer ikasi.

Gaztela-mutil onek maitekiro egin du bere lana. Ez du jo iturri ezagunetara bakarrik. Valladolid, Simancas eta Bizkaiko bertako iturrietara, aietako artxiboetara jo du. Artu duen gaia argitzeko ba omen da aietan 2.000tik gora auzi-ageri, 1494n asi eta 1834raíño, Bizkaian lege zarrak bizirik irauñ zuen arte guztian, eta 1.000tik gora aztertu omen ditu naiko zeatz eta astiro eta ainbat irain mota aurkitu ditu, bakoitzari zegokion zigor edo nekearekin: guztitariko iraiñak, urkoaren izen onaren eta zor zaion lotsa onaren galgarriak, agintarien aurkakoak, emakumeen iraingarri diranak eta abar. Iraiñak, berriz, gerta litezke egitez eta itzez, ziñuz eta aozko itzez, paperetakoez, bertso - paperez eta abar. Denetarik uzta ugaria bildu du aztertzaileak, itzezko iraiñetatik batez ere.

* El Diario Vasco 41 (1974, 12.238. zenb.) Suplemento dominical, 9.

Beti izan omen da euskalduna oore-kontuan, bere izen onari, odol garbiari, andizurenari eusten eta atxikitzen bero. Ortan bizkaitarra etzan, noski, beste edozein euskaldun baiño otzago; bai, minberago, bear bada. Gauza bat jakin naian gelditzen gera: nolako bertso-paperak izan ote ziran auzia piztu zutenak, nola esaten ote ziran ainbesten erderaz aipatutako irain-itz? Bi bakarrik aurkitu omen ditu egilleak euskeraz: *txarrizain* eta *kukudia*. Leenengoa errez da ulertzen. Bigarrenak zer esan nai du? Ageri dan lekutik, inguruko itzetatik aterata, esan genezake erderazko adardun esan nai duela; 1653ko auzi batean dator. *Txarrizain* itzik iraingarrietakoa omen zan. Errudunari 20 dukateko multa ezarri zioten eta bigarrenez erortzerakoan, 8 urteko atzerrialdiaz zemaitu zuten.

Eztegu emen itzezko ez egitezko irain-zerrenda ekarri nai. *Belar gaizto, oillo, ankoker, sorgin-seme, marimokordo* bizkaitar bati esateak auzitarako eta auzia galtzeko bidea omen zekarren. Eta *morokume*? Esan bearrik ez. Liburu au irakurtzeak gure asaben animan murgitaldi bat egiñeraziko digu, gaurko egunetarako ere jakingarri eta erakusmen onekoa, gauza askotan.

Egillearen esan guztiak ez dute indar bardiña. Caro Baroja baten zorroztasunak akatsik asko aurkitu dio. Batez ere, antziñeko kondairari buruz. Baiña liburuaren mamiari dagokionez, oiñarri onen gaiñean dabil.

Antziñako gure asabak gogorak zirala baiña, gauza azkotan gu baiño bigunakoak zirala argi dago. Elkarri lotsa geiago zioten, batez ere bakoitzaren nortasunari. Eta orduko aldietan ere, inguruko errietakoa baiño Bizkaiko legea gizonari lotsa, begiramen eta errespeto andiagoa ziona zala gauza ezaguna da, eta Jacinto Martin jaunak ala aitortzen du. Bizkaiko semeek beren etxea berena zuten eta an jaun ziran. Ondasunetan ere etzeukaten bat ere gabe gelditzeko bildurrik; multak etzuten iñor ondasunik bat ere gabe uzten.

Irain-kontuan ere, izan, bazan iltzeko epairik, baiña ez omen zan iñoiz egitera eramaten. Aldatu, eta oso bigun uzten zuten. Legeak gogor debekatzen zuen Bizkaiko semerik zigorkatzea. Bizkaiko guztiak zaldun, odol garbiko ziran: guztiei zor zitzairen itzal eta lotsa berdiña. Ezkontza-auste kontuan, legeak zigor berdiña zeukan gizonarentzat eta emakumearentzat. Bizkaiko legean etzegoen talion-legerik, iraiñari edo kalteari irain edo kalte berdiñez erantzutekorik. Biraolariak bazuen bere zigorra; baiña ez Jainkoaren aurkako pekatu bezela, entzulearen erligioari egindako irain bezela baizik. Gaiñerakoan, biraolaririk oso gutxi agertzen omen da. Eta nolako biraoak ziran? «Altareko sakramentuaren aurrean bada ere, San Pedrok nai badu ta ezpadu ere, au edo ori egingu dizut». Olakoak ziran birao urri aiek.

Eliza babes-lekutzat artzen zutenak legeak ongi zaindurik zeuden; olako bat elizatik ateratzen zuen agintariak atzera elizara itzulerazi bear zuen, eta gaiñera multa ederra ordaindu. Iraiñen gatik gastigurik gogorrenak (iñoiz betetzen etzan eriotz-epaiatz kanpo) erritik ateratzea (bizkaitarrentzat mingarriena) edo galeretara, ontzietara bialia izatea omen ziran. Gartzelarik, auzia garbitzen zan artekoa baizik, ez.

Orrela, alderdi asko, emen aipatuak eta geiago, erakusten ditu gaztelar gazte onen liburuak. Irakasle onen lana irakurgarria eta gure gogoentzat gauza askotan argigarria izango dala uste det. Min bat, kezka bat uzten du barnean: zergatik ez du euskaldun batek egin? Zergatik erdaldun bati utzi? Zergaitik bizkaitar batek ez du bere gain artu olako azterketa-lanik? Zergatik gure arteko gazte ikastunek ez dute alor ortara jotzen? Beste inon baiño, Bizkaian dago nire ustez gai auetarako gogoia piztu bear geiago eta landu gabeko saillik geien.

GIPUZKOA EKAIZPEAN (1520-1521)*

Itxaso irakiña izan zan Gipuzkoa 1520-tik 1521-ra; izugarrizko bi olatu, bi ur-mendi gora ta gorago zijoazten. Gipuzkoako mendi gorenak baiño beldurgarriago, bata bestearen gaiñera jo eta lertzeko zorian, ur-mendiak odol-ibai biurtu bearrez. Zorionez, baretu zan ekaitza: Jainkoz, beldur izatekoa zan odol itxurtzerik ez zan gertatu.

Azkona Aita kaputxinoak argitu dizkigu une larri artako zoko-moko batzuk eta Donostiako Boletín de Estudios Históricos aldizkariak argitaratu du kondaira-aztertzaille onen lana, lan ederra, kondairazaleak esker onez artu bear dutena.

Aide Nagusien aldikoak baiño bonoka gorri eta beltzagoa zan oraingoan zetorrena. Eta dana, Gaztelako «Comuneros» ziralakoen matxinadarekin batean. Goizetik gabera Gipuzkoa bi alderditan zatitua aurkitzen degu. Egia esan, lentxeagotik zegoen labea bero: 1517'n, Getariko batzarrak aldakuntza bat egin izan zuen Balzarraren arauetan: andik aurrera erri bakoitzak batzar-gizonik aiña autarki (boto) izatea nai zuten; autarkiak ez ziran zenbatuko erri bakoitzat zituen su edo sukaldeen araura, artean bezela. Bi alderdi gogor sortu ziran Gipuzkoan orduan, eztabaida ori zala-ta. Gorago jota, sukalderik geien zuten uriek irabazi zuten; lengo eran gelditu zan legea.

Oraingoan 1520-koan, «Corregidor» edo Erregeren Ordezkariaren izendapenak piztu zuen sua. Azkoitian bildurik, Batzarrak uste du Gipuzkoaren ixillik egin dala izendapen ori, ez zala legez ez oitura zan bezela egiña. Beraz Gipuzkoak ez du aintzat artzen legez kanpora izendatutako «Corregidor» ori; ez Gutierrez Quexada, ez Vazquez de Acuña. Ola erabaki du Batzarrak geienen autarkiz. Eta ez diote Acuñaari Batzarrera urbiltzen ere utzi. Are geiago, arren, alik lasterren alde egiteko esaten diote. Baiña orduan bi alderdi sortzen dira, bata Batzarraren aldekoa, eta Acuñaeren

* El Diario Vasco 41 (1979, 12.352. zenb.) Suplemento dominical, 14.

aldekoa bestea. Acuñaaren alde jarri da Donostia, eta beste erri asko alderdi ortara ekartzeko. Laguntza onekin, oillartu eta setaturik Gipuzkoarren ixillik edo gaifietik «Corregidor» izendatutako orrek ez dauka beldurrik eta gogor erantzuten dio Batzarraren eupadari. Bera Probintzi osoaren gaifietik dagoela uste du, Erregearen ordezkaria dala-ta. Eta nor da Probintzi osoa erregeren aginpidea zapaltzeko? Acuñaarekin daude, Donostiaz gaiñera, Bergara, Elgoibar, Ondarrabi, Errenderi, Usurbil, Zarauz, Orío, Leniz, Elgeta, Plaentzia, Saiaz, Aiztondo, Aia. Oien aurka zeudenak Tolosa, Ernani, Segura, Azpeitia, Azkoitia, Arrasate, Deba, Motriku, Getaria, Zestua, Zumaia, Areria, Eibar, Oiarzun, Irun, Ordizia. Besteak baiño geiago dira. Baiña Acuña asko du aurpegi ematera ausartzeko. Aurka zituenak ozpiñik gogorrenez jo zituen: eriotza erriko agintarientzat, gero aien etxeak oiñarri-oiñarrietatik irauli eta beste ondasunik gabe utzi. Armarik eskuetan artu zutenentzat zigor berdintsuak ezarri zituen. Gaztelan «Comunero» ziralakoekin ez omen zan ainbesteko gogorkeririk erabilili.

Batzarrekoak ez ziran kokildu. Acuñaarekin daudenak Gipuzkoaren eskubideen zapaltzailletzat jotzen diduzte, Probintziaren anaitasunaren apurtzailletzat, eta ortik Erregeren etsaitzat ere bai. Olakoentzat zigorrik aundienak zituen legeak: eriotza, ondasunak galtzea eta abar. Beraz zillegizat ematen dute aurka zituzten errikoiei kalterik geien egitea. Gipuzkoarrek armak eskuan bizi bear zuten eta elkarren kontra abiatu ziran. Donostiarrak asita, Ernaniarren aurka atera ziran, baiña beren kaltetan Aiei erantzunez, Ernaniarren aldekoek eraso gogorrak eman eta sekulako kalteak egin omen zituzten Donostialdetik Ondarrabiko mugetaraiño. Ba omen zituzten lau millatik sei millaraiño armadun. Ez zan, ez, atsegingarria izan 1520-ko Eguberri ingurua. Orduan iritxi zan bere bildurgarrienera ekaitz ura, anai-borroka ura.

Zorionez, laster asi zan baretzen. Ikustekoa da Erregeren inguruan piskaka egiten dan aldakuntza, guztizko, goikoz berako aldakuntza. Acuña orren eta Donostiarren alderdikoien esanei jaramon egiñez, lenbizikotan Gipuzkoako Batzarraren aurka gogor zeudenak atzera datoz, amor ematen dute, eta bitarteko bat izendatzen: Naparroan errege-orde zegoena, Najerako Dukea. Gipuzkoan zer gertatzen dan jakin bear ko du eta obendunak zigortu. Baiña gauzak urbillagotik ikusita, gutxien uste zitezkean urrats eta bideak artzen ditu. Erregeri eskatuko dio Acuña Gipuzkoatik kentzeko, eta ark erabakitako zigorrak ezeztatzeko, legez kontra emanak zeudela-ta. Ori gabe ez zegoela Gipuzkoan pakerik egiterik.

Bien bitartean, edo era batera, bateko eta besteko gizonak joan dira Alemaniara, Erregerekin itz egitera: Probintziaren aldetik, ain zuzen, Acuña eriotzerako epaitutako bi. Erregek ez entzun egin die Donostiarren eskariei eta beste ordeko bat ematen die gipuzkoarrei, guzien gogokoa. Orrela iritxi zan gipuzkoar guztiek, alderdi bateko eta bestekoek, elkar besarkatzeko ordua. Frantzesak mugetan barrena abiatzeko zeuden; eta, nonbait, ori ere gogoan izan zuen Najerako Dukeak bere pakebidea asmatu eta artzerakoan. Ori eta gipuzkoarren gizontasuna. Agerian erakutsi zuten ez ziotela leialtasunik ukatu, ez Erregeri, ez beren erriari.

Orain galdera batzuk: geroko Iñazio doneak pake-bide ortan parterik izan al zuen? Dukearekin artu-eman estuak izan zituen ezker, eziñik ez dago. Ala ere, Aita Azkonak ez du oraiñartean orren argibiderik aurkitu. Eta eliz-gizonek zer jokabide izan zuten auzi artan? Galdera onentzat ere ez dago erantzun garbirik. Donostiarren aldekoek salatu zuten bat edo beste gaiztoekin, **matxinoekin**, ibilli zelakoa; Sasiolako fraille-etxean billeren bat izan zalakoa; sermolarien bat ere erabilli zutela bere itzaldiez batzarrekoak alderdi ortara bildu eta berotzeko; prailleren bat ere ageri da Erregegana joan ziranen artean. Besterik ezer gutxi. Euskaldunen politikan elizgizonek egitekorik gutxi zeukaten, beste iñon baiño gutxiago. Ramos Oliveira zanak, euskaldunen «democracia parroquial» aipatzean besterik esan nai izan badu, eztaki euskaldunen berri andirik.

Irugarren galdera: Gipuzkoako batzarrekoak zer artu-eman izan zuten Gaztelako «comunero» ziralakoekin? Batzuk aiekin elkarrizketarik izan zuten; baiña ez dirudi aiekin batean jokatu zutenik. Salvatierrako Kondeak laguntza ezkeiñi zienean, artu ez egin zioten. Egia da gaztelarrek, Komuneroei erasoteko Ondarrabiko kañoiak eraman nai izan zituztenean, Goierrin utzi bear izan zituztela; baiña zergaitik? Komuneroen alde egitearren beartu zituzten orretara, ala Ondarrabin bearrago ziralako kañoi aiek? Gipuzkoarrek garbi jokatu nai zuten, beren auzian besterenik nasi gabe. Beren auzia berek garbitu nai zuten eta bai garbitu ere, eta ala lagundu Gipuzkoan sortu zan ekaitzik bildurgarrienatakoa pakerik onenean baretzen.

GERNIKAKO ANDRA MARI

(Liburu berria)*

Kastor Uriarte jaunak bi aldiz eta bi idazlanekin lotu du aurten bere izena Gemika uriarekin.

Idazlearen izena geien zabaldu duena Gemika erretzeari buruz idatzi berria duen liburua da, noski baiño noskiago. Onelako liburuek ez dute turuta-jotzaille aundirik bear, irakurleak irabazi eta erakartzeko. Eztabaidak gogortzeko izan, naiz eztabaidak argitzeko izan, orrelako liburuak Gernika bera erre zuen sua baiño arin eta lasterrago zabaltzen dira. Ez dira ortarako kilikagarri makalak gizonon berrizaletasuna edo jakin-naia, eta aker pekatariren bat aurkitu edo salatu naia.

Baiña zenbatek ote dakite Uriarte orrek berak beste liburutxo bat ere argitaratu duenik, eta aurten argitaratu ere, eta beste liburu ori baiño lenago?

Liburuxo onek onela dakar euskerazko zena: GERNIKAKO'KO ANDRA MARI. BERTAKO ALDARE ETA IRUDIAK. Gaia egilleari, arkitekto bati dago-kiona du. Arkitekto baita Uriarte jauna, edo berak euskeraz dioenez, elizgille (naiz eta pelotalekugintzan ere nabarmendua izan bera). Uriarte jaunak bere sail au ongi menderatua du, batetik, eta, bestetik, Gernika'ko gauzak maite ditu. Ango erri-arkitekto izana degu, urteak zear, 1937'raño. Urte artan, erriko arkitekto bezela, eta erriko su-iltzailleen buru bezela, al izan zuentxoa egitea gertatu zitzaion, Andra Mari-elizan asia zan sua itzaltzen. Ortik uler dezakegu Gemika'ri eta ango Eliza nagusiari dion maitasun berezia. Ortik ulertuko degu errazago zergatik egin duen orain bere lantxo an, lan laburra baiña mamitsua, maitez eta jakitez egiña eta txukun ateratakoa. Ortik atera dezakegu zergatik, munduan zear Gemika'ko berri geiagok izan dezaten edo, liburutxoa euskeraz eta iru erderatan atera duen, Gaztelako, Frainzia'ko eta Inglaterra'ko erderaz.

* El Diario Vasco 43 (1976, 12.882. zenb.) Suplemento dominical, 14.

Mamiari buruz zer esan? Or ditugula Andra Mari-eliza orren berri eta goraberarik irtenenak, XV'garren mende erditsuan asi eta gaurko egunetaraiño. Or ikusten degu nola 1471 'gnean, Kastillako Enrike laugarrenaren aldeko gudariek, Salinas'ko kondea buru, eliza orri lenengo aldiz su eman zioten. Bizkai'ko seillu ofizialaren billa joan eta aurkitu ez zutenean, baliozkorik aurkitu zuten guztia eraman eta su eman zioten elizari.

Or ikusten degu gure mendean, 1920 inguruan, an egin zan berriztapena. Bas-terra arkitektoaren ardurapean, zati bat Uriarte gazteak berak egiña. Berriztapen ontan, irudi berri batzuk egiten beste izen batzuk ere ageri dira. Ospetsuenetakoa, Mateo Iñurria, Cordoba'n jaioa, baiña euskalduna odolez. Onen «Kristo pillarrari lotua». Uriarte'k dioenez, «Eskultura forma utsa baiño geiago da». Losada pintoreak esan omen zuen aren aurreran: «Judeotar bat da baiña Jaungoiko andia be bai, batean».

Berriztaldi berean, aldare nausiko Andre Mariaren irudia ere berria jarri zuten. Capuz irudigilleak egiña, eta Uriarte jaunaren iritziz ez ain egoki jarria. «Eskas ikusten da, gutxituta, okotsa ageriegi, goregi dagolako. Besoak gorantz, esku-azpiak era-kusten, metalezko burestunaz koroaturik». Andre Mari zerura jasoan iruditu nai du.

Esan bearrik ez, liburutxo au an-emen irudiz ornitu eta apaindurik eskaintzen zaigula. Opari ederra egilleak era batera Gemika'ri eta Andre Mari zerura jasoari onekin egin diena, eta aiekin batera, euskal-irakurzaleei. Au bezelako lan txiki txukunak ongi etorriak bitez euskal-sailtxo apalera.

EUSKAL IKASGU NAGUSIA*

(Liburu berri baten inguruan)

Gure egunotan ikuskizun oso merkea dugu kalean egunero: neskamutillak soiñekorik bitxienetan, yankikeriren bat gaiñean idatzirik daramatela, itzak ingelesez idatzita, edo naiago ba'duzute, Yanki-manki oien izkuntzan.

Zorionez, ez da dana inglesa («Columbia University» edo txarragorik) gure artekoen soiñekoetan ikusten duguna. Ageri da besterik ere, euskerazko zirriborrorik ere bai. Eta ez bakarrik Deba'ko Nuklear-etxeari ezetza emateko. Bai Euskal-Unibersidadea eskatzeko ere. Pozgarri da auxe.

Zerbait ba-da gauza ain on eta bearrezkoa eskatzea, eta ongi dago. Baiña askoz obe eskari ori, asmo eder ori egi biurtzeko bideak argitzea. Auxe egin du, ain zuzen, Jose Lasa Jaunak atera berri duan liburuarekin: EUSKAL-IKASGU NAGUSI EDO UNIBERTSIDADEAZ.

Euskalerrriak bai al du bere izeneko Ikastetxe Nagusiaren bearrik? Nolakoa izan bearko luke? Ba ote dugu oraindik ames edo asmo eder besterik ez dan ori lortzeko edo burutzeko biderik?

Onelako galdera batzuk aspaldi zeduzkan Jose Lasa'k bere burumuiñetan egosten. Erraz ulertzekoa da. Ikastolen sortze eta aurrerapidearekin zer-ikusi aundia izan du. Barnean zerabilzkian galdera oiekin jo du berak gizon argitu eta jakintsu bazuengana. Ez dira edozein: Barandiaran, C. Baroja, Lafitte, Tovar, Mitxelena, J. Bilbao eta Goenaga aita. Liburuaren muifia gizon auen erantzunak osatzen dute. Egilleak zortzi urtez egindako ibilli eta elkar-izketen frutua da liburua, edo beintzat liburuaren mamirik geiena.

* Goiz-Argi 17 (1976, 300.zenb.) 10; *Berrikari* izenpean, ik. 86. orr.

Egia esan: ez gagoz orain 1922'an bezala. Oraindik bizi da urte artan Euskalerrarentzat Ikastetxe Nagusiaren eske oiu egin zualako itzalpeko orduak ikusi bear izan zituena: Leizaola jauna. Nork esango zion oni, andik amalau urteren buruan, 1936'an, berak emango ziola asiera Euskal-Unibersidade orri, zorigaitzez luzaroko izango ez ba'zan ere?

Geroztik, zoriobeko eguník etorri zaigu. Ikastetxe Nagusiak bata bestearen ondoan etorri dira. Euskaldunak etxean du gorengo maillako ikasteak egiteko aukera.

Baiña gaur ditugun Ikastetxeak benetan Euskal-Unibersidadeari dagozkionak ote ditugu? Or dago koska. Euskalerrriak zerbait geiago eskatzen duala dirudi. Bidezkoa da gazte askok, eranskin bezala, soñean daramaten eskaria: «Euskal-Unibersitatea bear dugu». Ortara jotzen dute Lasa jaunaren libumko zazpi jakintsuen erantzunek ere.

Ez da orrekin bukatzen libum onen mamia, edo, garbiago esateko, bi liburu auen mamia. Liburuak bi bai-dira, euskerazkoa bata, eta erderazkoa bestea. Eta bata bestearen itzulpen izan gabe, euskal-izaerari datxekon beste gairik ere arrotzen eta argitzen bai-da batean eta bestean, Lasa'k berea duan antze eta trebetasunez.

Erderazkoan, irakurgarria da Zizeroni buruz idatzi duana: nola zuan Erroma'ko izlari bikaiñen onek Laziotarren izkuntza, nekazari eta politikolari-izkuntza, filosofi-arloetarako gai egin. Egoera berdintsuan dagozen izkuntzentzat eredu eta jakingarri.

Euskerazkoan erakutsi du idazleak bere lumaren bizkortasuna. Munduko pentsalari aundienen gogoetak, euskal-idazle zaar eta berrienak, euskal-esaera zaarrerri darien jakinduria, gure bertsolarien txinpartak, dana batean aurkitzen dugu emen, dana darabil idazleak lasaiki, jakitez oretutako neurri egokian.

Lasa jaunari etzaio gertatzen gure arteko idazle bat edo besteri gertatzen zaiena: txepetxak izan eta arrano-egal bat artuta egin egin nai izatea. Olako idazleen luman txepetxa txepetxago gelditzen da, ta arranoa irrigarri.

Gure idazle au arranoen egalez baliatuko da, jakintsuen gogoetak bere egingo ditu, ala ere bere burua iñoren morroi eta mendeko egin gabe. Aisa dabil goitik naiz betik, bere egada iñolaz baldartu gabe. Jakinduri zaarra eta berria, etxekoa eta atzerrietakoa egoki uztartzen ba-daki, bein etxeko txakoliñaren gazia ta bein kanpoko arno beltzaren mama gozoa eskaiñiz.

Liburu ontako gaiak gaur-gaurkoak dira, gaurko aldizkari eta billeretan maiz erabilli oi diranak. Aldizkarietakoak sakabanaturik gelditzen dira geienetan; billeretakoak aizeak eramaten ditu. Emen liburu batean bildurik daduzkagu irakurleen zai. Euskera atsegiñean.

Paparrean eranskiñen bat eraman baiño zerbait geiago egin nai dutenek ba-dute zer egin: onelako libumak irakurri eta ausnartu.

JOXE MIGEL BARANDIARAN NOR DOGUN*

(Liburu barria)

Barandiaran, aitzu-eziña

Joxe Migel Barandiaran euskal-kulturan nor dogun jakiteko ez da neke andirik bear. Euskal-erriaren aztarrenak billatzen eta ezaguerazoten egin dituen lanen barri liburu eder mamintsuak emoten dauskue, abade langille onen eskutik urtenikoak eurak.

Euskalerrriak bere buruari lotsarik dautsan bitartean eta biotzean esker on apurrik gordetan badau, liburu argitsu orreek ez ditu bazterreratu ta aitzu bearko. Mundu jakinzale guztiaren aurrean burua gora eta lotsatu barik erakustekoak dira.

Euskaldunok gogoan izan bearko dogu Barandiaran onekin dogun zorra, eta ez dogu aitzu bearko ez beronen lana, ez mesede ezkergarri ori ekarri dauskun eskua bera, Barandiaran jauna bera. Eredue ederra gizon argi onen bizitza...

Liburu argi bat

Ain zuzen, bizitza onen barri emotera datorkigu gaur liburu irakurgarri bat: maitasunez idatzitako, zeaztasun osoz eta argibide jakingarriz ornidutako liburu lodi mardula.

Jakituna ez da berez sortzen ez beingoan egiten. Jakituna ez da zaletasun utsaren semea, eta bere bidea ez dau erreztasun-bidea, ez eragozpenik bakoa.

Liburu onetan daukagu zelangoa izan dan Barandiaran jaunaren bidea, euskaldun jakitun eta abade baten bidea, Euskalerrriak izan dauan serbitzaririk onen baten bidea, bide gogorra eta latza bein baiño sarriago, baiña beti atzerarik bakoa, beti gorakoa...

* Zer (1977. 2. zenb.) 2; *Nortani* izenpean.

Jakitun eta euskaldun

Euskaldun izatea be neketsua, aldatz-gorako gauzea ete da? Ez leuke izan bear, baiña giro batzuetan alan izan da. Amaika euskaldunek, ikasketa nausien bideari eldu dautsoenean, ez dabe jakin izan euskaldun irauten; euren euskalduntasuna itota gelditu da jakintza-itxurazko giro lanbrotsu baten sartu diraneko. Euren burua edo euren izatea aitzuteraiño eldu izan dira.

Barandiaran jauna ez da izan olakoen artekoa. Gazte-gazterik sartu jakon gogoan, eta sakon sartu be, antziñako esaera au: Ezagutu zeure burua. Barandiaran jaunarentzat esaera zur orrek zera esan nai eban: Ezagutu nor zarean, nondik zatozen, ezagutu zeure jatorria, zeure erria, zeure ingurukoen bizitzaren eta gizonen nondik norakoa.

Nekeak neke eta entzun-bearrak entzun (askorentzat zorakeria ei zan artu eban bidea), Ataungo seme leial onek, artutako bidetik zintzo eta kementsu aurrera egiten jakin dau bizi guztian zear...

Abade ta errigille

Abade-bizitza nekezkoa dala? Gure egunotan ikusten danetik, alan dirudi.

Eta batek baiño geiagok uste dau, abadetzeari agur eginda, garbatuta, Euskal-erriaren serbitzari ohea izango dala, euskal-kultura sailletan lanik geiago egiteko aukera izango dauala, gero uste orrek ustel urtengo ba dautse be.

Noiz agertuko eta da beste euskaldunik, Azkuek eta Barandiaran jaunek euren abadetzatik egin daben aiña Euskal-erriaren eta euskalduntasunaren alde egingo dau-nik?...

Bizitza latza

Jakitunaren bidea aldatz-gorakoa dala, ez dala erreza? Barandiaran jaunaren bizitza au irakurri dagianak ez dau ukatuko, ez dau ezetzik esango.

Amaika izerdi-ixurtze, amaika gose-egarri, otz bero, bustialdi ikusi bear izan dau an eta emen, euskal-mendietan euskal-aztamen billa, euskal-esaera, siñiskera eta abar batzen! Zorionez, alan bear eta, Jaungoikoak osasun on baten jabe egin dausku bera eta, burua argi eta gorputza zal eta giartsu, eldu da bere adin betera, larogeta-margarren urtera urreratzeraiño.

Urte askotako bizia izango al dau oraindik!...

Erosi eta irakurri

Irakurle: emen dozu edo nonai erosteko aukeran daukazu liburu barri au: Jose Miguel de Barandiaran, *Patriarca de la Cultura Vasca* (Donosti-Aurrezki-Kutxa).

Beste Barandiaran batek (Luis Barandiaran Irizarek) egiña da.

Emen dozu Joxe Migel Barandiaran bere neurri betean agertuta: euskaldun, abade, jakitun, eta ez neurri txikienean, gizon apal, atsegin eta serbitzari. Euskal-kulturaren serbitzari gorenetakoa.

IBILTARI, ETA NAPARROAREN ETA ARABA ZARRAREN KANTARI*

(Latxaga abade jauna)

Aiztuta daukagu

Ezta bera, erriz erri, gitarra zar edo barririk lagun dauala, kantari dabillenetakoa. Orain artean ezteusku bertsorik emon beintzat. Baiña Naparroak eztau euskal-kantari oberik aurkitu.

Arriturik nago eta ezin dot sinistu ez ulertu idazle onen izenik ain gutxi entzutea. Gaurko egunotan, euskerazko edozein uskeri, edozein txupatxu ustel edo marizikin-keri aogozagarririk *onenetakotzat* eta gure literaturaren aberasgarri anditzat eskintzen dauskuenean, ezin dot ulertu zelan daukagun ain ixilpean Latxaga jaunaren izena, zergaitik entzuten dan beronek idatzitako liburuen aitamenik ain gitxi.

Zordun gara

Euskalerrri guztia dago idazle onegaz zorretan. Baiña zordunen Naparroa dala esan bearko dogu. Orainarteko liburuetan Euskalerrria, Euskalerrri osoa, dau gogoan, baiña Naparroa, guztien gaiñetik.

Atera dituen liburuen izenak naiko argi diño: «*Naparroa, euskal-arrobia*», «*Aralar-ko San Migel*», «*Jaka-ra oñez Naparroan zear*», «*Errioxa-ko San Millan, Euskal-iturri*». Naparroa euskalduntzat dauken euskaldunak, liburuok irakurriaz, or dauke euskal-erreñu zar orren euskalduntasunean bete-betea murgiltzeko area.

* Zer (1978, 8. zenb.) 12.

Eta dana euskera bizi, errez eta giartsuan esanik. Latxagak barruan daroan sua ta bizia ezarten badaki idazten dauan guztiari.

Ibiltari eta idazle

Idazle asko izan dira ibiltari. Bizi-bearrak edo lur barriak eta erri barriak ezagutu-gureak ipiñi ditu bidean. Eta ibillian ibillian ikusia liburutan esaten eta adierazoten jakin dabe.

Euskalerrira be etorri izan da iñoz kanpoko idazle ibiltaririk, eta gure errien eta erriarren barri emon nai izan deuskue: gure mendi ta ibarretako ikusgarriak, gure erriarren izakera oiturak jaso eta lumaz zabaltzen alegindu dira.

Euskaldunak be bai

Bear bada, euskaldun idazleak izan dabe orretan ardurarik gitxien. Baiña arlo orretan sartu danik be izan dogu. Olakoen arteko egin geinke, esaterako, Iztueta zarra, joan dan gizaldikoa. Gizaldi onetan, barriz, or dogu Bidasoaz andi Etxepare, osagillea eta euskal-idazlea. Asmau-barria zan orduantxe automobilla, beribilla eta beribillez dabil bera Euskalerrria obeto ezagutzen eta *Beribillez* liburua idatzi euskun, berak ikusitako erri ta bazterren barri emonez.

Latxaga bidazti eta idazle

Bide onetan Latxaga gure artean beste iñor baiño aurrerago joan jakula esanaz eztoгу alan eztanik esango. Euskalerrria arakatuten, gure errietako bideak austen gitxi langoa dogu bera. Gero, ikusiaren barri besteai adierazoten oraiñarteko guztietan zeatzena, zabalena eta jarraituena.

Orretan benetan txapeldun da eta txapeldun jarraituko dau luzaroan, nik uste. Nekez agertuko da gure artean idazlerik, «*Naparroa euskal-arrobia*», eta «*Jaka'ra oñez Naparroan zear*» liburu biak baiño mardulagorik, argibidetsuagorik, biotzetikoagorik egingo dauskunik.

Gizaldiak zear ibiltari

Baiña Latxagak eztau gure begietaratu nai izan gaurko Naparroa utsa, gaurko nappar-lurra.

Lur au baterik bestera igaro dau, ango aixe garbiak artzen, ango ederrez begiak betetan, ango gizonak ezagutzen, amonatxoakaz izketan, euren euskera zarra entzuten, ikastolen lan pozgarriakaz poztuten, eta ango euskal-aztarrenak billatzen.

Orixe, euskal-aztarrenak be billatu nai izan ditu. Orregatik gaur ikusiak lenera daroa askotan eta antxiñakoa batera emoten dauskuz.

Or daukagu, dana batean, erri bakotxak zer dauan gaur jakingarri, baiña baita nor edo nortzuk izan dituen gogoangarri eta ospetsu joandako gizaldietan.

Araba zarraren kantari

Kantari edo kontari, Arabaraiño be eldu da Latxaga jauna antxiñako lorratz eta aztarrenen billa, argi egiten. Araba zarreko bazterretan egundoko azterketak egin ditu eta liburu baten eskiñi dautsez jakitunai eta jakingurakoai.

Liburu dotorea azalez be, eta euskeraz egiña geiena, baiña frantzesez eta Españako erderaz laburtuta, munduan zabalduago egin daiten gure erriaren argia eta egia, izena eta izana.

Baseleiza zarrak

«*Arkaitzetako Bisigotiko Baselizak Araban*» da liburua. Europa guztian ez ei da aurkitzen olango eleizarik Araban baiño geiago.

Atx-zuloetan egindako eleizarik geien Araban. Bisigodoen aldikoak ei dira, eta kristiñautasuna Euskalerrian noz sartu zan aterateko argibide barriak emoten ei dauskuez.

Ain zuzen egunotan agertu da beste liburu bat, gauza bera diñoskuna, Lekuona zarraren itzaldi baten erderaz.

Latxagak euskeraz emon dausku dana. Euskerazko liburu bat, frantzeragaz batera, gure erriaren ezaupidea munduan zear zabaltzeko izango dana.

Zordun, bai

Barriri esan bear dot: arriturik nago idazle onen aitamenik gure inguruan ain gitxi entzuteaz. Ain ixilik eta apalik Euskalerrriaren alde diarduen onegaz zordun gara. Zordun Euskalerra osoa; zordunago, Naparroa.

«JAUNAREN DEIA, EUSKAL TEOLOGOEN ALDIZKARIA (59-60-61GN ZENBAKIAK)»*

Kultura eta Erljioa. Demokrazia Elizan.

Jaunaren Deia-k iru zenbakiokin 1977ko urtea osatzen du. Azkenengo iru zenbakiak dira, iru zenbaki batean. Eta barneko lanen muiña bi gai nagusioin inguruan dator: *Kultura eta Erljioa eta Demokrazia Elizan*.

Gauza jakiña da aspaldi ontan aldizkari au euskal-teologoien aldizkari egin zai-gula. Euskal-teologoena, ala euskaraz teologi-gai batzuk eman nai dizkigutenena? Ez baitira gauza bat bera euskal-teologo izatea eta teologi-gai bat edo beste euskaraz ematea. Maizegi ikusten dugu emen euskal-teologoien batek erderaz xeetu duela beregaia, eta beste teologo dalakoren batek euskarara itzulirik eman. Beste askotan atzerrien bateko teologoien batek egindako lanik ere euskaraturik ematen zaigu. Irugarren zerbait da, noski, euskal-teologia eta euskal-teologo izatea. Zein? Ez, noski, edozein euskaldunek ikasi, sakondu eta eskolan ematen duena euskaraz naiz erdaraz. Ez euskara utsezkoa ere. Euskaldun batek ikasi eta beretutako teologia alemanena, frantzesena, naiz edonongoa izan daiteke, bakoitzak ikasi eta landu duenaren arabera. Ala euskal-teologi ori euskal-arimari dagokiona, euskal-kulturan txertatutakoa izango ote da? Edo ta, askapen-teologia, Euskalerriari begira egiña? Badu gai onek koskarik eta korapillorik eta ez dira askatzen errazak izango. Eta leenik, non da euskal-arima, eta euskal-kultura zer dan nok finkatzen du? Eta euskal-erriaren askapena zertan datza? Lanak izango dira, bai, guztiak eritzi batera ekartzen. Gai au gordin samar gelditzen da A. Balzategiren luman, argitu gabe. Ari dira, bai, ari zenbait arri ortan jotzen, baiña arriak ez du urik ematen, Moisek jotakoak eman zuen bezala. Agor

* Karmel 1978-2, 73-74; «L. A. A.» izenpean.

Aurrera beti lema-itx eder eta biotz-altxagarria da benetan. Eta biotz-alaigarria liburu onen mami guztia ere. *Zorionbidea* liburuak izan duen zoriona opa diogu: ura bezala zabaltzea. Merezi du. Gaurko literatura latz beltz-illun batzuei aurre egiteko ere. Eta egilleak inork esan bearrik ezpadu ere, onetsi beza guk biotzetik esatea berari: Aurrera beti!

«AURRERA BETI! DONOSTIA. 1978.
EGILLEA: M. M. ZUBIAGA,
JESUSEN LAGUNDIKOA»*

Duenari duena dario. Edo, berdintsu dana, daukanak daukana ematen du. Aita Zubiagak zer duen jakiteko, zer darion, zer ematen duen ikustea besterik ez daukagu: *Zoriona*. Euskal idazle gutxik izan oi duten zoriona du, beintzat. Ara: urte gutxi, oso gutxiren buruan bi aldiz atera du *Zorionbidea* izeneko liburua. Eta irugarrena (bizkaitarrentzat) atetan omen du. Askok nai lukete berentzat beste ain-beste.

Ori gutxi dala, ona non datorkigun, lengo leloari ekiñez, bigarren liburu onekin: *Aurrera beti!*, 225 orrialdeko liburu bete mamitsua. Gaia: lengoa bera, *Zoriona*, zoriontsu nortzuk, Kristoren bidetik zoriontsu nola izan, Ebanjelioak erakusten digun zorionbidea nola lortu, nola iritxi. Kristoren mendi-itzaldiko sortzi *zorionak* artu ditu gaitzat egilleak emen, eta 24 kapitulutan goxo eta poliki azaldu. Eta Kristoren egiak eta eskaintzak obeki adiarazi eta gozagarriago egiteko, iturri askotatik dakar argibidea: ez bakarrik Jaunaren Itza azaltzen duten gizon jakintsuetatik, bai idazleak berak ikusi eta ikasikotatik, bai non-naiko literaturatik (Tagore, Unamuno), bai gure Euskalerrikotik, gure bertsolarietatik ere (Uztapide, Xalbador, Oizartabal, Iratzeder). Ongi saiatu da liburuari euskaldunentzat euskal-usaia ematen. Euskal-usai eta kutsu garbia, paketsua, gaiari zegokiona bezalakoa.

Egoki dator, azkenean, Ebanjelioko zorion-itzei jarritako doiñua ere. Zenbait parrokitan illetetan kantatu izan omen da eta negarrik ere ixurarazi omen du. Aita Zubiagak nai luke, oitura ori, kanta ori kantatzeko oitura ori geitxeago zabalduko balitz.

* Karmel 1978-2, 73; «L. A. A.» izenpean

dago. Nonbait, edo jotzailleak ez dira Moise bezalakoak, edo ez dute arena bezalako makinarik. Edo okerreko arriren batean joka diardute.

Aldizkari ontako leenengo zatian, ala ere, gai batzuk koska gutxiagokoak, argi oberik darienak ba dira. Aipamen berezia merezi dute Joxe Azurmendik Mirande eta kristautasunagaiaz egiña, Xabier Basurkoren *kristau siñismena gaurko kulturaren ikuspegian*. Edorta Kortadi-ren *Erljioa Oteizaren lanetan*. Eta Pagolak Balzategi aitaren tesiari egindako azterketa.

Bigarren zatian, erdaratik itzuiirik daude bi lan: Iniesta, Madrilgo Goetzailagunaren itzaldi bat, eta Balducci-ren artikulua baten laburpena. Gero, azkenez, Goenagak an eta orko esperientzien berri ematen digu.

Lanik geienak, esango nuke, erderen ildotik dihoaz geiegitxo ala ere. Euskalteologia egitekotan, ez dakigu zergatik euskarari begiramen geixego izaten ez zaion. Erdal-kutsu gutxiago erakusten zergatik ez geitxoago saiatu?

BLASCO IBAÑEZ-KERIAK*

Begoñako Andra Mari, berísolariak, jesuitak eta abar dirala-ta.

Begoñako Andra Mari Bizkaiko Zaindariaren urtea oraintsu joan jaku, zeatzago esateko, Bizkaiak Begoñako Ama zaindaritzat artu ebanetik irurogeita amabosgarren urtea. Alde batetik, Bizkaiko erriak bere aldun guztien izenean eta Begoñak bere agintarienean eskaturik, eta bestetik, Begoñako bertako eleizgizonen eta Gasteizko Gotzain jaunaren eskabidez, 1903-ko jorraillaren 21-an Erroman Aita Santuaren ondoko arduradunak baiezkoa emon eutsoen Bizkaitarren eskariari: andik aurrera bizkaitarrak euren Zaindaritzat izango eben eleiz-legez Begoñako Ama.

Zaindaritza au ospatzeko, sekulako ospakizunek eragin ziran, eleiz-agintariak eta erri-agintariak buru zirala, bai Gernikan eta bai Begoñan. Ainbat liburu eta orritan gelditu da naiko zeatz urte atako ospakizunen barri.

Zaindaritza orren gomutagarri, aren irurogeita amabostgarren urtea dala-ta, Bizkai guztian, 1978-gnko. urtean zear, ospakizun barriak izan dira: eleizkizun, itzaldi, Andra Mari-aste eta abar. Danari azken ederra emotera etorri da Uriarte Gotzain Jaunaren artzain-idazki argitsu eta samurra, kristiñau-erriak eta Bizkaiak Andra Mariari zor deutsoen oneraspenaz. Gaurko mundu onek, gure artekoak be bai, berak darabil zaratarik naiko, eta bearbada orregaitik, Andra Mari-egunok ez dabe beiñolakoak añako durundurik atera, baiña ez dogu esango onura gitxiagokoak izan diranik.

Ez dogu aitzu bear, orraitio, orain irurogeta amabost urte be, ez zala dana poza eta atsegiña. Azkenengo egunean, geien batez, urrillaren amaikakoan, naste eta zarraparra negargarririk be izan zan Bilboko kaleetan, bilbotarrak Begofira joiazan arratsaldean. Egun orretako zarraparren oiartzuna, guzur eta abarrez andituta, andik

* Kamel 1979-1, 37-46.

urte betera nobela baten gelditu zalako, orregaitik dakart gaur emen nobela aren eta Blasco Ibañez-en izena. Erdal-idazle ospetsu onen alderdikeri zitaltxo batzuk salatu eta agirian ipiñi nai neukez, bere «El Intruso» nobelan agiri diran alderdikeri, Blasco Ibañez-keri batzuk andi-andika jorratuz.

Valencia aldetik gure artera

Idazle au, naiko gazterik, munduan zear ibiltzen asi eta ospea lortu baiño len agertu zan gure artera. Lurralde barriak ezagutu eta gizonen kezka eta arazo barriak jaso nai zituen eta gai barriak batu bere nobela baten sartzeko. Ez etorren, Mañé Flaque baten antzera, gure erriaganako maitasunak ekarrita. Ez; idazle au nor zan jakin ezkeru, errez ulertu geinke ez ebala aurkituko gure erria aitagarri. Nekez egingo jakon euskalduna begiko. Maitasunaren ordez, itsugarri bi baerioazan, gitxienez, buruan eta biotzean, euskaldunak ez maitatu ez ulertzeko: mediterraneotarren, latin-kulturadunen arrokeria, eta bera zan lango ezkerarren ainbat eratako amorrua eta gorrotoa. Euskaldunak ulertu eziña Ebroz berako politikorik geienakaz batera dauko.

Euskaldunen artean betosko illuna (S. Iñaziorena bera) eta Ebroz berakoentzako gorrotoa besterik ez dau ikusten. Indarraren gurtzaille ikusten ditu, baiña abere-indar utsaren gurtzaille. Ta emen mediterraneotar oni Grezia aldera joako gogoia. Zer dira emengo indartsuak Grezia zarrekoen aldean? Eta emengo bertsolariak, erri zeeak txotxoloturik entzun oi dituenak, zer dira or zearreko poeta nausien ondorako?

Orduko errepublikar beroen amorruak jesuitarik ikusi eziñera daroa. Ezin ditu ikusi, ez eleizan ez autorlekuan, ezta Deustuko Ikastetxe nausian irakasten. Eurak uxatu arte, ez dau gizarteak onik izango ez aurrerakadarik egingo. Eta, zoritxarrez, Bilboaldea jesuiten menpean ei dago. Gitxi batzuk dakie menpetasun orren azpilik urtetan: sekula eleizara ez doazen langilleak, an Gallarta aldean meatokietako langilleen artean dabillan osalari argitsu, jakitun eta biotz-zabalak, eta ... ontzi eta olajabe aberatsa dan gizon erlijiño gitxiko batek, andreak jesuiten eskuetara ekarten dauan arte. Baña goazen astiro.

Mea-gizonen (mineruen) artera

Blasco Ibañez onen nobelak Bizkaiko mea-errietara, Gallarta eta Galdames aldera garoaz. An jazoko da liburu onetako gorabera geienen aria. An dauke kontakizunik geienak euren ardatza. An ikusten ditugu meazuloetako langilleak bizi-bear gorrian, euren lan, izerdi, kezka eta burruka guztiekin. Geienak erdal-errietatik (Gaztela eta Galizia aldetik) etorriak dira. Batzuk su ta gar diardue gizarte-burrukan edo langille-burrukan, bein ugazabai lan-sari obe zuzenagoak emonazoten, bein txabola edo aterpe edo bizitoki egoki erosoagoak, edo laneko nekeak arintzea eskatzen; eta edozetarako batzarrak egiten, edo lana itxiaz eta opor egiñez ugazabok bildurtu eta langilleen asmoetara ekarten.

Beste askok olango langille-kezkarik ez dauke, ez dabe zarraparrrik nai eta nas-terik sortzen daneko, etorri ziran bidetik euren etxeetara, euren errietara biurtzen dira, gauzak aren baten atondu eta bakealdia etorri arte.

Ugazaba eta goikoen artean, gogorrenak ezerezetik gora egin dabenak dira. Len goseak illik ibilliak ez dautse, antza, erakutsi besteai errukirik izaten.

Batzuen eta besteen artean, goikoen eta bekoen artean, gizon bat agiri da guztien gañetik. Osagillea, medikua da bera. Benetako gizona. Osalaritzan jakituna eta esku ta begi onekoa. Guztien lagun eta guztien laguntzaille. Beti geixoen gañean egotea-rrren, nekez artzen dau Bilborañoko bat egiteko astirik be. Sekulako mirariak egiten ditu geixo eta zaurituekin. Eta, gañera, buru ta biotz langilleen alde dago beti. Eta ez da bape eleizkoia.

Osalari au, eta beronen osaba dan aberats bat dira nobela onetako protagonistak, ari-erabiltzaille nausiak. Aberats onek Gallarta aldetik Bilboko erreka-arrora eroaten gaitu. Bizkaiko burdiñeak kanpora-bidea bear dau. Eta or daukugu gizon au, ainbeste ola nausi, meatoki eta ontzien jabe dana. Ekintzarako gizona, lurreko aberastasunak irabazpidean jarten dakiena. Munduak olango gizonak be bearrezkoak ei ditu, Blasco Ibañez-en eritxian. Ezkertar amorratua izan arren, politika utsean ez da, antza, oso gorria, langille utsen agintaritzaren aldekoa. Au be erlejiñoz ez da bape beroa. Nobela-gilleak begiko dau.

Baiña... Jesuitak dabiltz tartean!

Baiña, ain zuzen, orixe: baiña bat sortzen eta sartzen da emen. Baiña ori jesuitak dira. Jesuitak, Blasco Ibañez'entzat gorrotogarri eta bildurgarriak! Jesuitak aiatu ezkeru, badakigu zein begiz begituko eutsen idazle onek, ezkerrekoaz bakarrik. Euren-gan ez dau gauza onik ikusiko.

Jesuitak ei euken galduta Bilbo alde guztia. Euren eleizetatik asita Deustuko Ikastetxe Nagusiraño, jesuiten eragiña Bizkaiarentzat galgarria da, Blasco Ibañez'en eretxiz. Zer egiten dabe Deustuko Ikastetxetik? Lege-gizon berba-lapiko ziztrin batzuk atera. Ez benetako jakintza-gizonik, ez ekintzarakorik. Ez jakintza, teknika eta gi-zarteko zuzentasuna aurrerabidean pinteko gizonik.

Jesuitak danean sartuta dagoz eta euren eskua geien baten andrazkoen artean agertzen da. Besterik eziñean, andrazkoak menderatuko dabez, eta andrazkoen bi-tartez, gizonetzkoak, batez be aberatsak. Olantxe dakie aberatsen sakelak ustuten eta euren gogoen jabe egiten.

Ortik, meazuloetako beargiñen osalariagaz ez dauke zer egin andirik. Ez da aberatsa eta ezkongai dago. Baiña diru eta ainbat lantegiren jabe eta eragille dan aberatsa laster eskuratuko dabe, andrea bitarteko artuta. Len eleizarako otza zana prozesiñoetan espakulario ta guzti agertuko da, len andre lizunen artean ebillana ezkontzako lege garbira dator, baiña lengo ekintzarako garra galtzen dau eta langilleentzako biotz ona otzituko jako. Ezetarako kemenik eta gogo barik dago, bein jesuitak tartean sartu diran ezkeru. Bein agertzen jako bere lantegi eta diru-iturri guztiak aurrerabidean jarteko erea, alabea injenieru gazte asmo barriko eta kementsu

bategaz ezkontuta; baiña maketua da berau, eta erlijioño bakoa eta jesuitak, beti eskua non sartuko dabiltenok (ortik nobelearen izena) tartean sartu, eta aberatsaren alaba ori Deustuko Ikastetxetik urteniko lege-gizon bategaz ezkontzen dabe.

Benetan, Blasco Ibáñez'en nobela au idazlearen aurre-erexiz jositakoa dala ukatzerik ez dago.

Euskalerriko biotzera

Gallarta aldean, Bizkaian egon arren, erdalerrian gagoz, egon. An, euskal-amasarik gitxi. Eta bein, Gipuzkoa aldetik aupada bat dator. arri-zulatzaille batek Bizkaiko mea-zuloetako zulatzaillerik onenari geiago egingo leuskiolakoa. Giputzak euren Txikitori geiago egin? Arroputzok, alangook!

Eta an doaz mea-gizonok, pilloka, euren osalari maite ospetsua lagun dabela, Txikito irabazle ikusteko usteaz. Ori ziurtzat dauke. Arro ta zaratatsu agertu dira Azpeitin, ango euskal-jaietara. Zaratatsu eta dirutsu, urrezko kateak agirian, tabernetan txanpon-otsa ateraten, ango baserritar kokoloai lotsea ta bildurra sartzeko edo. Eta?

Su ta gar asi zan bere lanean Txikito gallartarra; patxara osoan, giputza. Luzaroan olantxe joan da bien lana. Azkenerako, Txikito amas-estuka dago, eta atzeraka asi da. Giputza irabazle. Txikitotarrak ez dakie norabegitu, eta etxera-bidea artzen dabe. Alango lotsaririk!

Indar-probak, bertsolariak

Baiña ori jazo orduko, idazleak egun areitako beste ikusgarri batzuk aurkeztuten deuskuz: idi-probak, aizkolariak etabertsolariak. Euskaldunen nabarmentasun oneintzako ezin dau bere destaiña eta aintzat-eza agertu barik itxi. Greziako Olinpiar jokoetara joako gogo. Bata besteen antza ei dauke, bai, baiña arranoak eta oilloak alkarren antza daukien lez, biak egodunak diralako. Indarra da emen nagusi. Indarraren gurtzaille ei dira euskaldunak; baiña emengo indartsuak oilloak baiño ez dira Greziako arranoen aldean. Emengo gizonak, orixe, oilloak irudituten jakoz Valenciar oni, eta Greziakoak arranoak, oneik ezagun-ezagunak izan balitu lez. Gero emengo gizonetan, arpegi guztitik dariela, baltzai edo Ebroz berakoai dautsen gorrotoa besterik ez dau ikusten.

Bertsolariak dirala-ta diñoazanak ez doaz bide asko obetik. Plazaandoan, tabema baten aurrean, orra jentea moltzoan, gora begira. Balkoi batetik, agure zartxo luzanga bat, bere txapelaz ia goia joteraño bat, kantari, abade bat pulpitan baiño serioago. Bertsolariak serio jarraitu arren, entzuleak ezin dautse barreari eutsi. Barreok amaitu orduko, orra beste kantari bat, gazte tantaia berau, balkoiaren beste bazterretik agurari erantzuten, antza. Onek, zirkiñik be egin barik entzuten deutso, urrongo bertsoaz zer erantzungo asmatzen edo. Bertsolariak dira, ardoak zerbelduta bertsozinari ekin deutenak. Irakurten be ez dakien baserritarrak ei dira, bape eskolabakoak. Entzuleak,

baserritarrak eurok be, txaloka artzen dabez bataren eta bestearen erantzun zorrotzak, barregarrikeri zakarrak. Batak asi ta besteak erantzun; batak itxitako ariari besteak eutsiaz, an diardue amaibako bertso-sokan, entzule papaoen atsegingarri eta belarri-goazarri. Umeak izan bear gixajoak, olango uskerietan atsegin artzeko.

Eta emen (osalariaren izenean eta agotan idazleak berak diardu-ta), Blasco Ibañez'ek bere eretxia emongo dau, Mediterraneo aldeko kultur-girokoa gizon baten eretxia. Bertsolariak ez ei dakie poesiari, olerkiari usaiñik be artzen. Alkarren lepotik barre egiten edo eragiten, besterik egiteko ez dira gauza. Izadiak ez dautse ezer esaten: zerualdeko edertasunak ikusteko itsu ei dagoz. Ainbeste izerdi botazoten deutsen lur ederra, baserritarrak zelan eder ikusi? Bitxienetakoa da, gero, bertso-entzuleai ezarten deutsen au: «Badakie bertsolariak ditzolariak eta barre-erailleak direala, eta naikoa dabe ori, bertsoak ulertu baiño len, barreka asteko». Gauza jakiña da askotan igarten deusala entzuleak bertsolariaren azkenari eta onek amaitu orduko be barreka asten dala. Blasco Ibañez'ek ezin dau ulertu ori eta entzuleen papaokeritzat dauko. Beste erdaldun idazle bat asmauezin berberak jota ibilli zan geroago, eta ez euskun esan, ba, bertsolariak antxiña-antxiñatik, belaunik belauñ batak besteari irakatsitako bertsoak botaten dituezala? Orregaitik entzule askok buruz ikasita ei daukez, eta ez da bape arritzekoa, bertsoen azkena bertsolariagaz batera emoten badabe. Naiko argi dago batak eta besteak be ez deutsoela antz andirik artu gure bertsolarien doiari.

Begoñako eguna

Mea-zuloetako langilleak beste bein be agertzen jakuz liburu onetan euren txokoa itxi eta Bilboraño etorrita. Mitin bat dauke Bilbon euren eskubide batzuen alde. Besteak beste, lan-saria illean bein edo amabostero barik, astero eskuratzea eskatu eta lortu nai dabe. Ori zan mitiñaren asmoa, itxuraz. Baiña bazan besterik be. Egun berean (1903-ko urrillaren 11-an), emoten jake azkena Bizkaian Begoñako Amaren Zaindaritza ospatzeko izan diran jai-aldi eta eleizkizunai. Bilbotarren eguna da. Arratsaldean, bakotxa bere parrokitik edo eleizatik urtenda, aldra anditan igoteko dira Begoñako Amaren oiñetara, oso aurretiaz egindako programak diñoen lez. Ezkertar amorratuena ezin izan dabe ori onez ikusi. Eta zer asmetan dabe? Mitiñera etorriak Bilbon geldituko dira, arratsaldeko eleizkizun ori, Begoñara igote ori galazoteko. Aste bete lenagotik berotu dabe giroa. Santandertik be trenak bete lagun, eta itxasoz be ontzi bi bete ekarte lortu dabe. Baebillen or, tartean, langilleen onaren eta lan-sarien ardurarik ez ebanik.

Ezkertarren asmook Blasco Ibañez'ek argi ta garbi azaldu ditu bere liburuan, bere-bereak izan balitu lez. Ondo agirian ipiñi deusku arratsalderako guztiz aiztuta egozala goizeko mitiñeko eskariak. «Arratsaldean, bai, arratsaldean ikusiko da, entzuten ei zan, nortzuk diran Bilbon nausi: eurak ala gu. Sekulako musturrekoa emon bear deusagu arratsaldean zurezko tauki baten gurtzailleoi».

Olako berbakaz, idazleak ez dau besterik egin aste batzuk lenagotik Bilbon zabaldu ziran orrietako berbak bere nobelara aldatu baiño. Begoñako Andra Mari ori tauki bat besterik ez ei zan, sitsen eta saguen janari. Tomas Meabe zanak olakoxe berbak erabilli zituen orduko egunetan.

Bilbotarrak, ezkertarren alegin guztiak gora bera, ez eben atzerarik egin. Askao kale estuan estukurarik naiko igaro arren, Mallonako mailletan gora, Begoñara igon eben, bidean il bat eta zauritu mordoa itxita. Ezkertarrak ez eben euren asmoa lortu, ez ziran nausi gelditu. Andik gerotxoago, arratsalde atan bakea zaintzeko ezer gitxi egin ebalako, Bilboko gobernadorea kendu egin eben.

Nobelariak luze diardu arratsalde atako nasteen zeaztasunak emoten. Atsegin-bitsa dariola zeaztau eta eralgiko deuskuz bein Andramari-zaleak Begofiarako bidea zabaldu ebenean, gorriak Bilboko zazpi kaleetan etxe-ormetako santuekin egindako triskantzak.

Ez dau illaren aitamenik egin, baiña bai, ganora andibarik eta lotsa gitxiz, beste guzur batzuk asmau. Batzuk eta besteak, gorriak eta zuriak ei egozen ondo armauta, aga, makila, aitzo ta pistolaz. Abade batzuk be bai, antza. Eta berak bere begiz ikusi baleu lez, nondik eldu ez dauken onakoxe au asmau eta idatzi dau: Abade bat, ezkertar bategaz aurrez aur, oni bere pistolako bala-ontzi guztia ustuten, eta ezkertarra, iskin-txoka, okerka eta makurka, aren bala guztiai agur egiten, eta gero abadeari pistola ori eskutik kentzen! Mirarizko balak arexek, ez ezkertar gorri ari ez beste inguruko iñori ikuturik ez egiteko! Eta benetan gibel andiko eta garri biguneko gizona ezkertar ori, olan bala-parrastada ari agur egiteko! Idazlearen irudimena ez da oso argi gelditzen.

Bada beste guzurrik

Nobela onetako osalaria ez da Blasco Ibañez'ek asmaua. Azur eta mamizko gizona da. Liburuan Aresti daroa izena, baiña izan, Enrique Areilza da, gerotxoago ezkondu eta oraingo Areilza politikoaen aita izango zana. Ogetaka urte daroaz bere lanean, mea-gizonentzako geixoetxeen zuzendari. Ez dago laguntzaille barik. Eta laguntzaillerik maratz, zoli, gogatsu eta gozoenak Jesusen Mirabeak deritxen mojatxo batzuk, gazteiztar batek sortu-barriak. Gaixotegi areik sortu zireanetik diardue osalariari laguntzen, langille zauritu eta geixotuak zaintzen. Osalariak ez eban jakin eurak barik ezer egiten, eta laguntzaille izango zituen an, gero Bilbon eta Gorniz'en. Liburuan ez dago arein aitamenik. Egia ixiltzea askotan guzurrik txarrena da. Abade baten aitamena egin dauenak egin eikean mojatxo orreina be. Eta abadearena zetako egiten dau? Irrigarri eta gorrotogarri ipinteko. Bere astotxo ganean lanerako prest ei egoan beti. Baiña lana: illai lur emotea. Zenbat eta illik geiago, bera lanean gogatsuago. Eleizatxo bat egiten dau, San Antonioren izenekoa, abereen zaindariari eskiña. «Ainbeste abere bizi zirean errirako, zein zaindari egokiagorik»? Alan diño berak nobelagillearen agotik. Eleiz-gizonentzat ez dauko lotsa oberik.

Andik urte batzuetara, Ameriketako dolarren dolarrez dirupean murgildu zanean, gitxitu ei jakozan gaztetako gorrikeriok, eta eleiz-gizonentzako lotsa obeko nobelarik be idatzi ei eban; baiña orduan, aldean eroian gorri-narru ori, gorriña edo gorrien ori.

Blasco Ibañez'en nobela oni osalariak berak emon eutsan ezetzik eta guzurta-menik biribillena eta garbiena. Nobela ori agertu barritan, bilbotar ospetsu batek,

Berlin'en irakasle egoan Pedro Mujika izkuntzalariak, zorionak emon eutsazan karta baten, nobela orretan daukan parteagaitik.

Osalariak emondako erantzuna garratz samarra da. «Ezkerrik asko, erantzuten eutsan Areilzak, zeure zorionakatik. Baiña, ara, azak emon bear deutsudaz, ur otzeko zaparradea bota bear deutsut gañera. Nik ez daukat antz andirik nobela orretako osalari orregaz. Blasco Ibañez ori txinbo batzuk il eta eurakaz bere erriko paella bat egiteko etorri zan Bilbora. Nigaz egon gurea ekarren, bazterrak nastau gurarik dabil-tzan sasi-periodista batzuk niganantza bialduta. Lenengoan ez ninduan aurkitu, eta bere alderdiko batzuk lagun artuta, gure meatokiak arakutzen ibilli zan. Andik iru illabetera emen zan barriro, eta gau baten apart-lagun izan neban. Berba ta berba, ez eban oartxo bat be artu. Orduan nik esanetatik atera dau nobela orren lenengo zatia. Gauzak buruz artzen mutilla da, antza... Bestelakoa zan Unamuno. Nik ez daukat Blasco gauzak direan lez ikusten dakienetakotzat. Apariaren esker-saritzat edo, nobela orretako ardatz-gizon egin nai izan nau. Baiña oker dabil, oso oker. Nik ez daukat komendianta moduan agertzeko gogorik, eta gitxiago «gorro frigio» dalakoa buruan dodala, abade-saieskiak jaten... Ni ez naz orrek diñoana». (Ikusi Manuel Vitoria Ortiz, *Los Hospitales Mineros de Triano*, 171-72).

Ez ete dago naiko argi? Valenciar oni txinbokiz egiñiko paelleak ez deutso ondo urten. «Gorro frigio»-keri larregi sartu dau bertan. Aurre-eritxizko liburuada. Abade-jale baten, politikoko ezkertar beroegi baten berbontzikeria da an nagusi. Eta Ebroz berako geienak dauken euskaldunen arazoak ulertu-eziña eta ikusi-eziña.

Sasi-igarlea, gañera

Areilzak esan deuskunez, Blasco Ibañez onek ez daki aurrean daukana bere dantasunean ikusten, edo erakusten. Orain esan daigun geroa ikusteko ez daukazala begiak asko argiago. Igarlearena egin nai izan dau nobela onetan. Igarle ameslaria-rena, guzurrezkoarena, sasi-igarlearena. Bilbori guzurrezko etorkizuna iragarri nai dautsanarena. Gizarte guztiarentzat nai leuken lez.

Gizarte ohea nai leuke, bere amesetako gizartea, jakintza eta zuzentasuna nausi ta gidari dituana. Ames txarra ez da; ortik okerrik ez dator. Orraiño Gallartako osalariak lagun egingo leuskio, bat etorriko jako. Baiña Valenciarra ez da or gelditzen. Igarlearena egiten asten da. Ogeta amar urteko bizitza emoten deutse Bizkaiko meatokiai, Bizkaiko burdin-iturriai. Eta burdiña agortu ezkerro, agur Bilboko aberastasun guztia eta agur Bizkaia. Ixildu da lantegietako mailluotsa, eta ontzien joan-etorria amaitu da eta portuko eroan-ekarria lotu. Alde egiten dabe etorri zirean bidetik irabazitxo bat aterateko pozean etorritako kanpotarrak. Ez dago lanik, ez dago lanerako besorik. Bilbo antxiña baten eukan bakean eta urritasunean gelditzen da, lenagoko bizi estu ta nekezkoan, ia basamortu egiñik. Lengo aldean illerri bihurturik.

Berakada au, ondamendi au, alde batetik, negargarri bada be negargarri, bestetik pozgarri egiten jako idazleari, edo obeto, esateko, «gorro frigio» dun onek jesuitai deusean amorrú ezin gordearentzat pozgarri biurtzen da. «Dirua non, musturra an»

ei dabilzan zirtzillok zeregiñik ez dauke Bilbo dirubako eta burdinbakoan; eta kanpoko langilleak lez, edo oneik baño lenago anka egiten dabe eta iges doaz edo, bela baltzak lez, egaz doaz beste nonbaitera. Orduan dator Bilbo aldera bake santua. Burdiñik barik, diru barik, jesuitak barik, Bilbo barri bat, gizarte zoriontsuago bat sortzeko oiñarriak sendo geldituko dira.

Olantxe, Blasco Ibañez'ek azkenengo piper gorriak botaten deutsoz bere Valenciako paella orri. Baiña, olantxe, ain zuzen, geroaren asmatzaillea argi barik, bete betean sasi-igarle itsua agertu jaku.

Ogeta amar urte joan dira, beste ogetamar be bai. Irugarren ogetamarrean gara. Eta Bilbo ez da basamortu egin, eta egiteko itxura andirik ez dau agiri. Burdifiea ez da nonbait Bizkaiko ondatasun-iturri bakarra. Kanpoko langilleak ez dira iges joan, bai barriak etorri, ifiozko ugarien etorri be.

Bizkaiko Zaindari dan Begoñako Amaren irudia ez dabe ez sitsak ez saguak jan oraindiño, eta bizkaitarrak iñondiko eragozpenik barik ospatu dabe Ama ori zaindarizat artu ebeneko 75-garren urtea eta Zaindari orrek aldra anditan ikusten ditu urtero belaunaldi barriak bere oiñetara etorten.

Eta, azkenez, jesuitak, Blasco Ibañez orren begiko samarrik mingarrienak, ez dabe euren betiko lekurik ustu bearrik izan. Bertan jarraitzen dabe euren eleiza eta Ikastetxeetan, belaunaldi barriak eskolatzen, eta zergatik ez esan, jakintzaren alde eta zuzentasunaren alde, gizarte argituago eta obe eta zuzenagoa sortzearen alde, Valenciako idazle amorratuak egin eban baifio askoz geiago egiten. Bai, orixe!

**«ALTUNA BENGOCHEA, FRANCISCO M.:
Versificación de Dechepare: Métrica y Pronunciación.
351 pág., Mensajero, Bilbao, 1979»***

Estamos ante una obra que coloca a su autor a la cabeza de los investigadores de un tema que hasta ahora ha estado en manos casi exclusivas de figuras extranjeras. Es parte de una trilogía que nos ofrece el autor que ha de ser básica para el mejor conocimiento de Dechepare, autor de la primera obra impresa en euskera: **Linguae Vasconum Primitiae**. Completarán la trilogía un Léxico o vocabulario Decheparaino y una Edición crítica de su obra.

La obra de Dechepare, con ser tan corta (1159 versos en total), es interesantísima bajo muchos aspectos. El P. Altuna ha centrado su trabajo en el estudio de su versificación, pero no solamente bajo su aspecto material, sino también en relación con algunos aspectos gramaticales que subyacen bajo el rodaje del verso, como son la pronunciación, sintaxis, etc.

El autor arranca de la descripción del verso depecheriano, caracterizado por la rima, medida silábica y ciertas pausas y cesuras. El más frecuente en Dechepare es el de 15 sílabas, dividido en dos hemistiquios, de ocho y siete sílabas, y tres cesuras después de cada cuatro: 4-4-4-3. Aunque existen poemas en la obra que siguen otros esquemas, este esquema cuatripartito es el preferido por el poeta, que entronca así con una tradición ya existente, la vasca del canto de Beotibar y la latina del **Pange lingua**.

Dechepare se esmeró en ser fiel a las normas de esa versificación, a su medida, a sus pausas y cesuras; pero no pocas veces incurrirá en infracciones. Hay muchas excepciones a las normas en su obra que el P. Altuna anota y explica al detalle. Unas

* Mundaiz (1980, 16. zenb.) 105-106.

son más bien aparentes, otras reales; unas son fácilmente evitables, otras inevitables, como, por ejemplo, cuando en el verso figura una palabra de más de cuatro sílabas.

La explicación más obvia de los desacuerdos aparentes está en las elisiones, sinalefas, vocales en contacto, formando diptongos, en toda suerte de combinaciones, de las que el autor aduce un número casi exhaustivo hallado en los versos de Dechepare. Otro caso, que llamará la atención, es el de las consonantes que enmudecen o no se han de pronunciar, corao son algunas R y H. Así **arima** habría que leer algunas veces **aima**; **amorosos** en cambio **amos**; en mundu **honetan** enmudecerá la H y ligarán la U con la O, formando diptongo. La combinación **uyan** y **uyen** (**munduyan**, **luyen**) forma muchas veces una sola sílaba. De este modo queda bastante reducido el número de irregularidades o de excepciones al esquema general. Pero todavía quedan bastantes. ¿Como explicarlas? El P. Altuna sospecha que Dechepare ha tenido en cuenta algunas leyes sintácticas más importantes para él que la estricta fidelidad a las normas del verso y no ha querido sacrificar aquéllas a éstas.

Aquí, con Lafon y otros, echa de menos el autor un estudio acabado sobre las características de la versificación euskérica; metro, acentuación, ritmo. Pasa revista a algunas teorías sobre el tema y las discute: Arana Goiri, M. Lekuona, Leizaola, Goicoechea (Gaztelu). Interesantes son las conclusiones que apunta acerca del ritmo de la lengua vasca, en general, y de su poesía en particular, en tomo al llamado «grupo de palabras», o las unidades o núcleos melódicos o partes del discurso comprendidas bajo la acción de un acento principal; todo ello, con ejemplos ilustrativos al canto.

Concretándose al verso dechepariano, se hace eco de afirmaciones de Lafon y de Lewy sobre que Dechepare ha sido en este punto poco estudiado y de que un estudio del verso en nuestro poeta daría buenos resultados. Y partiendo del estudio del esquema cuatripartito por él hecho, pasa a hacer nuevos análisis para tratar de descubrir algunas de las leyes sintácticas que el poeta tuvo presentes para no alterar el orden de algunas palabras: leyes sobre interrogativas indirectas, proposiciones enunciativas afirmativas, oraciones de subjuntivo, orden de la oración vasca y algunas leyes más. En cada uno de estos apartados abundan observaciones sugerentes, que nos dan una idea de la seriedad con que tomó Dechepare su oficio de escritor y poeta. No menos sugerente es cuanto se dice acerca de otras características de su estilo poético, ya observado por Lafon y Michelena, y es que Dechepare gusta de encerrar en un verso todo un pensamiento; que cada estrofa tiene en él una unidad, sin encabalgamientos de verso sobre verso y aun apenas de hemistiquio sobre hemistiquio. A decir de Lafon, esto puede producir cierta impresión de monotonía; pero pronto se observa que es consecuencia de una técnica firme en la composición. El P. Altuna aporta a estas afirmaciones generales ejemplos concretos y señala los fenómenos de enlace más frecuentes en la poesía dechepariana y hasta qué punto se observan esos enlaces de adjetivo a sustantivo, de sustantivo a genitivo, de verbo auxiliar a participio, y de un semihemistiquio a otro. Es ésta una de las partes más instructivas de la obra, juntamente con los apartados que le siguen sobre el comportamiento de algunas voces en el hemistiquio, como **eta**, **banana**, **aldiz**, **bada**, etc. etc. Son páginas que delatan al gramático avezado que es el P. Altuna y que a veces aportan luces nuevas para captar el sentido más exacto de algunas palabras de Dechepare.

El autor ha escrito, además, la obra con talante de auténtico investigador, sin aferrarse a sus afirmaciones, siempre abierto a posibles nuevas pistas.

Creo que, si algo cabe achacar al autor en esta obra, es cierta nimia escrupulosidad en algunos aspectos. Me refiero a los aspectos técnicos del verso. Creo que existen irregularidades explicables por posibles erratas. Los especialistas han delatado la presencia de ellas en la obra de Dechepare. Parece que el autor no pudo vigilar su impresión. El caso del enmudecimiento de consonantes podría ser atribuible al editor o posible corrector. Es decir yo preferiría pensar que Dechepare escribió las palabras como las pronunciaba o como las pronunciaba su pueblo y que otro las completó. No me puedo hacer a la idea de que empleara una grafía para hacernos leer de otra manera que escribió.

Me parece que tampoco pueden calificarse de irregulares las omisiones de sinalefas entre vocales separadas por cesura. Donde hay cesura eso es normal. La mayor frecuencia de infracciones se denuncia en el segundo hemistiquio. Pero es que esa infracción, si es tal, es corriente en el modelo latino mismo, que Dechepare parece haber tenido presente. Léase en el **Pange lingua: Corporis mysterium, laus et iubilatio**. Sin duda, Dechepare no pretendió jamás superar el modelo.

Yo no sería tampoco partidario de tanto rigor en exigir el cumplimiento tan estricto del esquema 4-4-4-3. Este esquema y el del llamado **zortziko** mayor parecen parientes muy cercanos.

Basta añadir una sílaba al primero (meter un dácilo en vez de un espondeo, en términos de M. Lekuona o en notación musical dos corcheas en lugar de una negra) para que cambie al segundo, a **zortziko** mayor. Entre los versos dechepareanos hay para mí uno bastante claro: **Bercec verceric / gogoan eta / nic andre dona Maria**. El pueblo también ha sabido mezclar ambos tipos de versos. Un ejemplo claro tenemos en el Cancionero de Azkue, que no es sino una variante popular de dos estrofas de Dechepare. Azkue las recogió en tres puntos geográficos muy distantes entre sí: en Murélaga, en Olazagutía y en Abaurrea (n. 773, 774 y 775 del Cancionero). En todos ellos hay mezcla de ambos esquemas, que la música resuelve sin ninguna dificultad. No nos debe sorprender que Dechepare los mezclara, máxime si se admite que sus versos se escribieron más para ser cantados que para ser leídos.

Nada de lo dicho debe restar méritos a la obra del Prof. Altuna, que todos los estudiosos de nuestra literatura, y en particular, los de Dechepare, recibirán con gozo y la leerán con provecho.

IRU LIBURU EDER SENDOA-K BER-ARGITARATUAK*

SENDOA argitaletxeak euskera eta euskal-musika maite dituztenen oker-ona merezi du. Orain eun urte sortutako euskal-giroan agertu ziran libururik ederren eta baliozkoetakoak dira. Agorturik zeuden aspaldi. Orain argitaraldi txukun oni esker berriz eskuratzeko eta atsegiñez irakurtzeko aukera daukagu. Ona irurak, liburu bakoitzari jarrera-gisa argitaratuak, eta emen irurak batera emanak.

CANCIONERO BASCO

Jose Manterola

Ona emen euskal-literaturarentzat bultz-eragille aundi izan zan gizon baten izena: Jose Manterola. Eta ona emen ark euskaldunei beren izkuntza literatur-tresna egitera bultzatzeko egin zuen leen-lana: «Cancionero Vasco», ordurarte egindako euskal-poesiaren bildumarik ugariena deguna.

Jose Manterola (1849-1884), gazterik ikusten degu euskal-kulturaz kezkatu, euskal-literaturaren bultzatzaile; eta alor onetan nondik nora jo bear zan ongi ikusi zuen.

* Karmel 1982-1, 95-101. «L. A.» izenpean.

Gazterik ekingo zion amasa aundiko eginkizun bati: EUSKAL-ERRIA sortzen du, euskal-kulturazko aldizkarien aurrelaria, eta aren inguruan euskal-gaien aztertzaile mordoa eta euskal-idazle talde ederra biltzen.

Gazterik eraman zuen eriotzeak bizien artetik. Baiña epe laburrean ez zuen, ez, nolanaiko lana egin, eukal-literaturari etorkizun obe pozgarriagoa urratzeko.

Aurrera egiteko, atzera begiratu du leenbizi, eta *Cancionero Vasco* dalako au atera. Manterola gaztearen asmoa argi dago: Euskaldunek gutxi ezagutzen dute beren literatura, eta orregatik gutxi esten dute. Ikusi eta ikasi dezatela, bada, ez dala orren gutxiestekoa. Betor, beraz, euskal-antologia au. Eta arritzekoa da nola burutu zuen bere asmoa.

Gaur gure biblioteca eta liburutegiak garai artan baiño orniuago daude. Ez zegoen orduan gaurko aukerarik euskal-literatura zaarra ezagutu eta aztertzeko. Manterolak begiak eme bear zituen orduan erabili, ea non zer aurkituko zuen; astia bear zuen gaiñera al zuenik geien irakurri eta bere asmotako egokien zuena berezi eta jasotzeko. Billatu, irakurri eta autatu, dana urte gutxiren buruko egin du. Arrokeririk gabe, apalik, baiña gogo erneaz sartu da egiteko orretan. Arrokeri gabe, diot, bere aurretik iñork ezer egin ez zuela-ta, eupadaka asi gabe, bere aurretikoei zor diena zintzo aitortuz. *Michel* frantzesia aurrean izan du; Santesteban-en eta Sallaberri-ren kantutegiei bere aitorra egiten die. Ala ere, Manterola ez dabil aurretiko oien bide beretik. Sail geiagotara zabaltzen eta edatzen du bere billaketa.

Aldi guztietako literatura aztertzen eta bilzen du, antziñakoa eta bere garaikoa, errikoa eta idazle ikasi ta landuagoena; eta bakoitza bere saillean: Maite-kanta, lirikazko eta kondairazko, alegiazko, irri-jostazko, erlijiozko eta aberkoi, guztietariko olerkiak eman dizkigu saillez sail. Euskera ulertzeko gai ez diranen lagungarri, erdal-itzulpena ere jarri die aldamenean. Saillez sail eta mendez mende.

Olaxe, Beotibarko Gudukoetatik Iparragirre kantariaren kantuetaraiño; olaxe, Etxepare zarraren koplataetik orduan asi berri zan Arrese Beitia foruzalearen zortziko beteetaraiño. Bitarte orretako olerkari gutxi gelditu da kanpo. Ori bai, lekurik andiena bere mendekoentzat utzi du: Elizanburu, Bilintx et Arrese Beitia eta abarrentzat. Eta ez du dana bertso eta kantu. Itz-lauz eman ditu alegi bat edo beste, eta Bilintxen prosazko lan batzuk.

Sail bakoitzari bere sarrera ezarri dio, askotan idazleen bizitzako berri jakingarriekin (jakingarrienetakoak, Bilintx eta Iparragirre dagozkionak, noski), eta bil-tzailearen kritikazko oarrekin, sartu dituen poesien literatur-balioak aztertzen saiatuz. Azkenez, irakurleari, euskalkiak ulergarriago izan dakizkion, gramatika-oar asko eta iztegia ere eskaiñi dizkio. Ez da, bearbada, or dana on artzekoa izango; baiña orrela erakutsi du Manterolak bere ongi jokatu naia, lan oso betea eskaintzeko gogo zintzoa.

Euskal-kulturaz kezkarik zutenek kantutegi oni arrerarik zabal eta esker-onez-koena egin ziotela esan bearrik ote dago? Berau izan zuten geroko euskal-idazleek ere luzaro gure literatura zarraren ezaupidea izateko gidari bakarra. Askok jo izan dute iturri orretara gure egunotararte. Ola, esaterako, Lauaxetak. Nork esan bear du: «Ai, Lauaxetak Manterolaren lana irakurri izan balu!». Irakurri, aipatu eta aintzat

artu ere egin zuen. Gaurkook ez dezagula gutxietsi. Ez al degu baztertuko, ez arbuaiatuko.

Liburu au Iparragirre Arjentinatik Euskalerriratu-berritan asi zan argitaratzen, eta ain zuzen aren bertsoekin ematen zaio asiera. Euskal-kantari ospetsuaren mendeurren onetan, liburu onen ber-argitaratzea ez da, noski (iru tomo ederretan), arentzat omenaldirik txikiena izango.

AIRES VASCONGADOS

J. A. Santesteban

Joandako mendea, XIXkoa, erri-musikak pizkunde-mendea izan zuela gauza jakina da. Euskalerriko erri-musikarentzat ere bai. Baiña edozeinek daki ez zala ori berez gertatu, ez zala izan, inork landatu gabe, lurak berez emandako lorerik. Norbaiten bultzada bear zuen, edo «jaiki eta ibil adi» esango zioten norbaitzuen eragina.

Erri-musikarentzat olako jaikierazlerik Euskalerrriak eman du. Arlo onetan munduan aurrelari izandako biren izenak aipatzea aski bedi: J. A. Zamakola, Bizkaiko semea, eta J. A. Iztueta, Gipuzkoakoa. Bereziki, Zaldibiako seme eta dantza-maisu au, erri-dantza eta soiñuak aintzat artzen, Europa guztiari aurreratu zitzaiola askok aitortu dute.

Eta Iztuetaren urrengo, gure arteko erri-musikari munduko plazara ateratzen eta aurrera egiten lagundu zitotenen artean, Santesteban aita semeak ezingo ditugu azkenengotzat aipatu. Musikalari biok, Joan Jose (1809-1884), eta Jose Antonio (1835-1906), Donostian ia mende osoa bete zuten.

Gain-gaiñeko musikalaria izan ziran biak, garai artako maisurik andienekin, Parisen eta or zear ongi eskolatu eta trebe egiñak. Biak, Donostian, organu-jotzaillle eta musika-irakasle joxemaritar guztien begiko izanak dira. Ain zuzen, aita, Joan Jose, donostiarrentzat «Maisuba» izan zan bere bizian, eta il eta gero ere. Biak musika ugari utzi zuten, naiz elizarako, naiz kale eta teatorako. Eskola ona ikasiak ziralarik, goi-maillako musika egitera askotan jo zuten arren, erri-maillako musika ez zuten inñolaz iguindu, ez gogorik beroenaz landu gabe utzi, bai erri-doiñu berriak sortuz et bai erriarenak bildu eta atonduz.

Semea, Jose Antonio, gailendu zan onetan. Orain ber-argitaraturik, musikalazaleen eskuetara datorren liburu au lekuko. (Ez du berau bakarra, euskal-doiñuz osotutako *Pudente* operaz gaiñera, beste erri-musikazko lanik asko zor diogu).

Kantu-liburu onek joan dan mendean Donostian eta inguruetan zebillen musika-giroan murgiltzen gaitu. Bear bada, musika-giro naastu samarra. Egilleak iturri edo ur-txirripa askotara jo du billa. Ez du beti urik garbiena, edo musikarik jatorrena, erri-kutsuzkoena, emango. Orregatik, doiñu zaar errian sortu eta onduak eskeiñiko dizkigu bein; eta beste bein, berriagoak, egille jakien baten edo beste biltzailleren baten aztarna dutenak.

Orrela, noizik bein, Donostialdean Eguberriak eta Inauteriak alaitzeko asmatu edo erabilli oi ziran soiñuak entzun eraziko dizkigu. Bat baiño geiagori, erri-kutsuarekin batera, erraz asmatuko diegu maisuaren kutsua. Garai artako maisuen kutsua, ori bai. Nor ez da bere mendearen seme? Baiña, ala nai ola, eta iritziak iritzi, guretzat aberasgarri baizik ez da izango orduko musika-giroa ezagutzea eta gure asabak nolako soiñuekin jostatzen edo alaitzen ziran jakitea. Eta liburuak orixe eman-go digu.

Santesteban ez degu izan geroago azaldu zitzaizkigun kantu-biltzaille andien ezpalekoa. Ez zan ibilli erriz erri eta etxez etxe erri-kanta billa. Kale-gizona izan genuen eta ortatik berak bildutako doiñu askori kale usaia geiago somatuko diegu garo-usaia baiño. Ez da, ala ere, Donostialdeko giro utsean gelditu. Noizik bein Lapurdi eta Bizkaialdeko aize eta otsak ere ekartzen dizkigu.

Eta doiñuez landa, edo doiñuekin batera, badu liburu onek beste baliorik: orduko literatura-mota batzuen erakusgarri izatea. Alde onetatik ere, ez da gutxiestekoa Santestebanen lan au, doiñuari dagozkion bertsoak alik eta osoen ematen dituen ezkerok. Ez du au baliorik txikiena. Eta bertsoetako bat edo beste (*Amorez eri nago*, esaterako, norbaitek idatzi zuenez), bere-berea omen du, musika eta bertso.

Santesteban 1862n asi zan kantuok argitaratzen. Banaka banaka, lenbizi, txorta-txortaka, gero, olaxe larogei bat kantuzko kopurua osatu arte. Beraz, *Villehelio* eta *Sallaberri* baiño lenago asia degu kantu biltzen.

Lan onekin Santestebanen izenak laster ots egin zuen Euskalerriko mugaz aruntzagoko munduetaraiño. Pedrell kataluñatar musikalaria jakintsuak balio andikotzat jo zuen bilduma au. Berau dala-ta, eta gaiñerako musika-lanak gatik gogoangarri dala esan zuen Breton gaztelarrak, eta aberrigilleen artean zendatzekoa: «hizo patria».

Baiña, agian, gorespenik atsegingarriena ez ote zitzaion Vienatik bere bizian etorri? Europako musikazaleen artean ospetsuenetakoa dan uri ortan sari nagusia eman zioten, 1876n, Santestebanen kantubildumaoni. Egillearentzat eta Euskalerriko osoarentzat atsegingarria benetan.

Aspaldian agortua zegoen bilduma au, eta aurkitzen ain zail zegoena, gaur berargitaratua danean, bai musikalariek eta bai gure erri-literatura maite dutenek, esker onez eta pozik artuko dutelakoan gaude.

ECOS DE VASCONIA

Ettxeberria eta Guimon

Euskal-musika eta zabaltzen geien nabarmendu diranen artetik, gaur, edozeiñek bereziko ditu bi izen andi: Azkue eta A. Donostia. Bi gizonok Euskalerriko erri—musikaren bilketa andia egin zuten.

Zorioneko ordua, 1912ko urtearen inguruan, gure lau Aldundiek, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Naparroakoak (lauron izendapen onek badu gaur bere koska), euskal-kantazko bilduma ugarien eta onenari sari oparoa emateko erabakia artu zutenekoa! Zorioneko erantzuna, euskal-agintarien dei ari Azkuek eta Aita Donostiak eman ziotena! Arrezkero, gure folklore-biltzaille biok izenik onena eta euskaldunon betiko esker ona irabazi dute.

Euskal-musikaren ortzean, Aita Donostia eta Azkue bi izar andi ditugu; ez dute, ala ere, beste izar txikiagoen argirik estali bear eta ez dute estaltzen. Gure musikaren zeruan guztitariko izarrentzat dago lekua: aundientzat eta txikiagoentzat. Eta askotan leengo illunpeak urratu dituen izar txikiaren argitxoa, motelagoa izan arren, maitagarriago egingo zaigu gero zerua ditziratu duen izar andiarena baiño.

Joan dan mendean, orain eun urtez lenagotik asita, euskal-musikaren zeruan, andi edo txiki, izar batzuk agertzen asi ziran. Musika-alor au landu zutenen izenak dira. *Sendoa* argitaldariaik orain bertantxe eman du olako langille baten lana: Santestebanen kantu-bilduma, 81 kantuzkoa.

Eta orain ona emen *Etxeberria* eta *Guimon* ziranen *Euskalerriko Oiar-otsak* (Ecos de Vasconia). Berau da gure kantutegi zaarretan ugariena: eun kantu.

Santesteban ez zan gelditu ondorengorik eta jarraitzaillerik gabe. Aren bide bera urratuko zuten Martinez Villar zanak *Album de Cantos Vascos*, (lau Album), eta Bartolome Erzillak bere Bizkaiko 35 kantuekin. Bidasoaz andiko aldean, Villehelio eta Sallaberriren lana aurrera eramango zuten beste batzuek: Lamazou, Bordes, Hiriart eta abarrek.

Sendoa-k orain argitara dakarren kantutegia Santestebanena baiño aberatsago dator, kanturik geiago dakar: 100, guztitara. Banaka, lenbizi, eta gero ogetabost-nakako lau sortetan zabaldu ziran. Ez zaigu argitasunik ematen ez noiz asi ziran ateratzen ez noiz agertu zan azkenengoa. Nola nai ere, joandako mendearen azkenaldean asi eta gure mende onen asieran bukatu zirala dirudi.

Etxebarria eta *Guimon-ek* Santestebanenaren tankera bera eman diote beren bildumari: pianoz lagundurik emateko kantuz osatu dute. Doiñuak, zaarrak berriekin naste: egillearen izenik gabeak, erriak asmatu edo errian sustraituak, batetik; eta egille jakiñen baten izendunak, bestetik. Zaarrak gordetzera eta berriak sortzera jo dutela agerian dago. Edozein alditarako jokabide egoki eta zentzuzkoa, benetan, noizik bein, berrietan, Euskalerriko oiartzunak baiño geiago Danubio-aldekoak entzungo badira ere.

Egilletzat agertzen zaizkigun bioetatik zeñek zer egin duen, egia esan, ez degu argi ikusten. Biltzaille utsak diranik ez dirudi. Antolatzaillle eta piano-laguntzaren apaintzaillle ere bai, zenbaitetan. Baiña beste izenik daramaten piano-languntza jar-tzaillleak ere ez dira gutxi: Gorriti, Letamendia, Zendoia, Garmendia... Eta andik lastertxo musikolari bikain egingo zan J. M. Usandizaga gaztea.

Santestebanek bezela, Etxeberria eta Guimon-ek, gaiñera, jakin dute kantatzeko itzei zor zaien garrantzia eta leku betea ematen. Au ere, bilduma onek aintzat artu eta eskertzeko alderdia du, noski, garai artako literaturzaleen atsegingarritan.

Gaur, bi musikalarion egunetan baiño ezagunagoa da euskal-musika jatorra; baiña ain sakon ezagutzen ez zutenek egindako urrats eta bideen berri jakitea onuragarri baizik ez degu izango. Eta ortarako *Etxeberria* eta *Guimon-ena* bezelako kantubildumek berdiñik gabeko laguntza eskeiñiko digute.

GEZUR ZITALA, IRAIN IKARAGARRIA*

Gezur zitala, ezin zitalagoa, salatu bearrean gara. Orainsu Euskalerrian idatzia da: 1936ko gerratean ekarri zutenek illobira bialti zituzten apaiz euskaldunak eskuetan armak zituztela aurrean jarri zitzaizkielako il zituztela.

Nor, eta urte artan berean mundura etorritako idazle eta irakasle batek bota du gezur iguingarri ori: «Durante la guerra los nacionales fusilaron a 14 sacerdotes vascos, que se les opusieron con las armas en la mano». Olaxe, labur-laburrik, soil-soillik idatzi du, lerro bat eta erdi ozta-ozta egiten duten itzekin. Berak esan dau, eta kito.

Utzi dezagun oraingoz *nacionales* zirelako aiek armaz edo indarrez amalu apaiz euskaldun ala geiago il zituzten ala ez.

Amaikatxo liburu eta paper agertu da azkenengo berrogei-berrogeta amar urteotan zorigaiztoko gerrate ark ekarritako odol-ixurketaz. Apaiz euskaldunen zoritxarreko ilketa ere bai. Nor, non eta nola illak izan ziran ere argiturik gelditu dela uste dut, jakin nai duenarentzat. Gai ontaz oraingoa baiño gezur andiagorik eta biribillagorik ez dugu irakurri gaur arte, mundu guztiko kondaira (Historia Universal, 14-15 tomotan) eman nai digun lan onetan idatzita. Olaxe, itz bat geiago ez gutxiagoz gai onetan azken-itza baliz bezala.

Ainbesteko gezur zital zantarrrik zabaltzen ez da gaur arte iñor ausartu. Gerratea bukatu zanean or ibilli zan norbait (Bayle jesuita izan zela diote), gai au argitzen edo naasten, apaiz iltzailleen pekatua zuritu edo gutxitu naiez, apaiz aien pekatu eta erruak asmatu edo geitu bearrez. Baifia oraingo salatari eta epaikari onek asmatu duena añako gezurrik ez zuen aurkitu.

* Karmel 1986-1, 87-89.

Oraingo salatari ta epaikari onek ez du jakin edo ez du jakin nai Mateo Mujika Gotzai jaunak apaiz il aien alde egindako testigantzarik. Apaiz aiei ez zieten iñork armarik ikusi eskuetan ez iñon. Ez apaiz aiei, ez geroago gudarien kapellau ibillitakoei. Besterik asmatu eta idatzi duenak ez du *historiador* izenik merezi, naiz eta titulu guztiak izan. Nobelagille batek, *Un millón de muertos* idatzi zuenak asmatu zuen olako gezur bat, apaiz bat, azken sakramentua ematen baizen ametralladorari eragiten trebe zena. Baña gerrate artan il zituzten apaizetako bat ere ez da izan kapellau ibilli zirenetakoa. Kapellau ibilli aietako apaiz-mordoa erori zan azkenean militarren mende: bati ere ez zioten armarik erabilli zuelako salakuntzarik egin edo probatu.

Gerratean il zituzten apaiz aiek beren etxeetako paketik atera zituzten eta preso eramane. Eta aiek il zituztenek, ez kristautasunari bakarrik, zuzentasunari eta gizalegeari iraiñik andiena, iseka ta burlarik lotsagarriena egin zioten: «Sírvasse sea puesto en libertad» agindua eman, «puesto en libertad por orden del Sr. Juez Instructor» izenpetu, eta borerreruen eskuetan utzi, eta gero... fusilatu? Ez, ez da ori egoki datorren itza. Orri, Calvo Sotelo eta beste askori gertatua aipatzean *historiador* onek ere *Asesinar* esaten dio. Orixe da apaiz euskaldun aiekin egin zutena, kristautasunaren eta gizatasunaren lotsagarritan. Edo bada beste itz bat, ain zuzen gerrate artan erdaldunek asmatua: pasear, edo *dar el paseo*. Alde onetatik ere gezurra, gezur zitala, gezur iguingarria oraingo *Historia Universal* onetan, amairugarren tomoan idazleak eman diguna. Eta gezur ori, lotsagarriago egiteko, Euskalerrian bertan atera da eta emendik mundu guztira zabaldu nai dute.

Idazleak berak (Gonzalo Redondo izenez), aitortu bear izan du gerrate artan gertatuen inguruan alde bateko eta bestekoek geiegikeriak, ez diran gauza asko saldu eta zabaldu dituztela. Baiña bera ez da nonbait konturatu edo ez du jakin nai izan gezurrezko geiegikeri oietan ez dela beste iñor joan bera baiño urrunago. Itz gutxi erabilli ditu, baiña zitakeriz eta gezurrez ezin beteagoak.

Mateo Mujika Gotzain Jaunak kementsu atera zuen burua apaiz il aien alde. Zuzentasun izpirik gure artean baldin bada, geure buruen alderako lotsarik baldin badugu, atera gaitezen apaiz ain iraindu eta izen-belztu aien alde. Ez gaitezen ixildu gezur zital iguingarri orren salakuntza egin gabe, gure artean argitaratu edo illunperatu den liburu ortatik gezur ori kentzea lortu arte.

IRIZPIDEA*

(Jaime Balmes'en «EL CRITERO» Jose Zinkunegik
euskeratuta)

Urte mordo da egun bat antolatu zutela, euskal-jardunaldi batzuetan, eleizgizonak azken urteetan Liturgia berria euskeratzen egindako lana aurkezteko. Batzuen eta besteen itzaldi eta txostenak entzun ziranean, ondoren entzuleei etorri zitzairen itz egiteko txanda. Besteak beste, an ziran bi politiko: Irujo eta Monzon jaunak. Guztiak ixildu ziranean, Monzon jaunak artu zuen bere aldia, eta, labur esateko, gutxi gora bera, auxe izan zan esan zuanaren mamia: «Emen atsegiñez entzun eta ikasi degu eleizgizonek euskeraren alde egin duten eta egiten duten lana. Euskerak bizirik badirau, neurri eder baten elizgizonei zor izan zaie. Orain ara nik neure buruari egiten diodan gogoeta eta galdera: Elizgizonek berena duten sailean egindako lan ain txalogarri eta eskertzekoa gure izkuntzaren bizigarri izan baldin bada, zer egin dugu eta zer egiten dugu besteok, lege-gizon, osalari eta gaiñerakook? Zein bere sailean saiatu izan bagiña euskera lantzen elizgizonek egin duten ainean, gure euskera maiteak bestelako bizia izango zuen leen eta izango luke gaur, ezbairik gabe. Zer egin dugu besteok eta zer ez dugu egin bearco geureak ditugun sailletan?»

Zinkunegi jaunak, Monzonek baiño lenago egin zion gogoeta ori bere buruari. Eta ala, gartzetarik, 1916n asi zan idazten eta, ain zuzen, osalariari egokionez, osungaiak euskeraz erabilten. Non? Nire ustez gutxik ezagutzen duten eta Bilbon argitaratzen zuten «Eusko-Deya» aldizkarian.

Gaur zenbatak ote dakite aldizkari orren berririk, iñoiz izan danik ere? Ez dakite urte aietako idazle askok bialtzen zituztela beren euskal-lantxoak aldizkari orretara. Besteak beste, Elzo-Azpiazuk, Larrekok, Lizardik edo Zarautzko Sabiñek, Kirikiñok

* Euskerazaintza (1988, 3. zenb.) 1-5.

eta abar luze batek. «Euzko-Deya» onek bialdi izan zituen: lenengoa 1916tik 1920rako eta bigarrena 1921tik 1923raikoa, Primo de Rivera jeneralak debekatu zuen arte. Eta lenengo aldirian, lenengo zenbakian agertu zuen aldizkari orretan Zinkunegiren izena, eta osalariari zegokion gaiak azaltzeko, andik aurrerako zenbakietan egingo zuen bezela.

Zinkunegi aize berriak ekartzera zetorren euskal-alorrera. Bakoitzak bere saila, ongien ezagutzen duen saila jorratu eta landu bear zala uste du berak. Ori da bakoitzarentzat egitekorik egoki eta bearrezkoena. Ori egin du «Euzko Deya»ren lenengo aldirian. Eta irizpide ori berori dauka bigarren aldirian 1921n idatzi zuen lan batean. Bere itzez esan dezadan: «Edozein sailletan, orain emen eta gero an jardutea ez da egoki. Landa berean izan arren, sailak idekeak (ez-berdiñak) dira eta sail bakoitzean lankizun bereziak daude. Gizon orok ez dute gaitasun berdiña edozein lanetarako... Aberriak landubearrak dauzkan sailletan gure gaitasunari, gure ikasketari eta eguneroko lanari ongien dagokiena aukeratu bear degu, gure izerdia naroa izan dedintzat. Osalarientzat bada sail berezirik, egokirik»

Orra Zinkunegi idazlearen eta osalariaren irizpidea. Eta orra zergatik nere uztez, osasun gaiak lantzen eta aztertzen aritu zuen onek, berez bezela gogoaren osasuna zaintzeko eta gogoaren okerrak eta okerbideak zuzentzeko argibideak ematera jo zuen. Orretarako Balmes katalanaren *El Criterio* euskerara itzultzea, euskerara aldatzea gauza egokia iruditzen zitzaion.

Euskal-Esnalea aldizkariaren zatika emango du bere lana 1918n asi eta 1924n amaituko duen arte. Bere asmoak bumtzeko, Zinkunegik ez zuen aukera txarra egin. Gizonari bere gogoko indarrak egia zuzen aurkitzen eta bizitzako sail guztietan gizon jokatzeko irakasteko, liburu gutxi egokiagorik Balmesen liburu ori baiño. Ala uste du Zinkunegik eta ala uste izan dute gizon argi askok.

Nor da, baiña, Balmes eta zer da berak idatzi zuen *El Criterio* liburua? Esan ditzagun itz gutxi batzuk, bi galdera auei nolabaiteko erantzuna emateko.

Balmes, apaiz katalana, ez degu esango izenez beintzat naiko ezaguna ez danik. Urte zalapartatsu batzuetan jaio eta bizitza gertatu zitzaion: Vich'en, Barcelonako errian jaioa, 1810, eta bertan 1848 urtean illa. Bizi laburra urtez, baiña bai luzea ere, egin zituen eta idatzi zituen lanez. Bere gaztetako urteak irakurten, ikasten eta irakasten eman zituen eta azkenengo zortzi urteetan izugarritzko lana egin zuen bere argiak jakintza-sail askotara ixurtzen, filosofiatik asi etapolitika sailletaraino. Adimen argi eta zorrotzdun gizona zuen bera, oroimen andi eta zabalekoa. Amar milla liburuaren kapituluaren zerrenda osoa emateko gai zala erakutsi zuen bein, Parisen frantzes batek egiaztatu zuen bezela. Eta Balmesek bein ikasiak buman ongi sailkatuak zeuzkan, eta ez batera naas-maas. Bizi guztian irauan zion jakingaiak sakonago eta errotikago ikasteko eta argitzeko griñak, ikasitakoak gero bere idazlan eta aldizkarietara zabaltzen saiatzeko. Kataluan ikasia naikoa ez zuela, egotaldi luzea egin zuen Parisen, Europako filosofia eta pentsakera berriez jabetzen. Ikasteari ez zion ematen jakite utsean bertan goxo egiteko, ez ikastetxeetan irakasteko ere. Jakitea Balmesentzat aldirian aldiko gizartearen arazoak eta goraberak argitzeko erabili bear da. Danetik egingo du berak: ikastetxeetan irakatsi, filosofi-liburuak atera, gizarateko eta politikako

gaiak sakon aztertzeo aldizkariak sortu; baiña politikierietan sartu bageko lanak idatziko ditu, alderdi guztien gañetik egatuko da beti, batzuen eta besteen uts eta gezurrak salatuz, guztien alde onak aintzat artuz. Lan ori lasaiago eta erosoago egiteko, nai zuenean eta bear zuenean, bazekien inguruko zaparradei iges egiñez, nonbaiteko toki ezkutuen batean sartzen, an, beste iñor munduan ezbalitz bezela, gauzak baketsuago eta astiroago aztertu eta auznartzeko.

Orixe gertatu zitzaion 1843 garrenean, Espartero Agintaritzatik bota zutenean, Barcelona, burruka eta iskanbil gogorra sortuta, bonba-otsen artean zegoenetako egunetan, urte artako udazkenean, Balmesek, guztien ixilik billatu zuen Prat de Dalt'en. Barcelonatik zetozkion bonba otsak entzuten zituen bitartean, gogo bere auznar-lanean murgildurik zeukala, ia liburuik bat ere gabe, Urriaren lenetik azaroaren 21ra, an idatziko du, asi ta buka, ain epe laburrean bere liburu ederra: *El Criterio* izenekoa. Liburuaren gaia, antza, aurretiaz ondo gogoan erabillia eta auznartua zuen. Ez zitzaion, bestela, liburu ain biribilla aterako.

Egia zer dan, egia billatu eta jasotzeko zenbat eta nolako bideak ditugun, gauzetan eta gertaeretan egia non dan, egia zuzen ikusteak eta ulertzeak gure adimenarentzat nolako garrantzia duen; gure zentzuen bidez aurkitu eta ikusi gentzaken egia edo ta adimenaren bidez aurkitzen deguna zuzen ezagutzeko nolako eragozpenak izan ditzakegun, irudimenak nola lilluratu gintzazken eta gure grñak nola itsutu: guztiori saillean eta adibide egokiz argitu eta erakusten du Balmesek liburuan. Adimenak egia eta gezurra bereizten, gauzak argi eta garbi ulertzen eta jasoten jakin bear du, eta oker ikusi eta ez ulertzeko arriskuei alde egiten ikasi; aurre-iritzia utzi; grñak lilluraturik gezurrera edo okerrera eraman ez dezaten zur eta esna ibili, norbere burua aztertzen jakin, eta egiaren argiari atek zabal utzi.

Gero, badaude besteen esanetik eta lekukotasunetik jaso bear ditugun gauza asko ere. Urrutiko erri eta bazterren berri munduan zearreko ibiltarien lumatik edo esanetatik datorkigu. Zertan eta noraiño dira sinisgarri jakin bear. Iraitzean, egotaldi luzerik egin gabe, erriz erri ibilteak ez du ematen erri bakoitza sakon ezagutzeko aukerarik. Ibiltariak ikusi dituen gauza asko bere irudimenaz puztu eta anditu egin ditzazke. Edo geien batean, ikusi dituen erri, erritarren eta bazterren azaleko itxura ematen jakin dezake; baiña erritarren barruan sartu eta aien barrukoak ulertzen jakin gabe. Irakurle zurrak dana bereizten jakin bearko du, zer dan idazleak bere burutik asmatua eta zer dan egiatzkotzat sinistekoa.

Antziñako gertaeren berri edestilariak ematen dute. Ez dira izaten guztiak neurri bardiñean sinisgarri. Ez gertaeren aldetik, eta ez edestilariaren iritzien aldetik. Gazetalarik izan da Balmes eta gazetalarien jokabide oker askoren berri zekiena. Gazetalaritzan ez omen daukagu askotan egiaren iturri garbirik. Alderdikeriak askotan urruntzen du gazetalaria egiaren bidetik, bai gertatuak izan ez diran bezela kaleratuaz, edo ta erdizka esanez edo alderdien bat ixilduz.

Azkenez, egiaren eta gezurraren arazoa ez da jakite-ezjakite utsezkoa. Egiak gizonaren gidari izan bear du bere bizian. Gizona ez du jakite utsak gizon egiten. Ekintzak esango du nolako gizona dan. Eta Balmesen liburuak orretan ere gidari eta

bide-erakusle izan nai du. Zein bizibide artu, nolako elburuetara jo, nolako ekintzetan sartu, nok bere barruko indar eta grñak nola zuzendu eta ezi, nolako garrez elburu zuzenetara eta garbietara bizia zuzentzen ikasi. Gai guzti auetan Balmesek ematen dituen argibideak liburua onuratsuago eta irakurgaiago egiten dute, batez ere ikasurteetan bizi diranentzat. Gaurko egunetako pentsalari askoren iritziz ere, nork bere burua ezagutzen eta adimena zuzen erabiltzen jakiteko, gizonari gizonago egiten irakasteko, ez omen da liburu egokiagorik asko idatzi.

Guztia irakurgarriago eta atsegingarriago egiteko, idazleak bere irakatsiak gertakariz eta adibide arrigarriz omitu ditu. Gizonari egia billatzen, erlijioan, gizartean, politikan eta gaiñerako arremantetan zuzen ibiltzen laguntzeko egiña dan liburua da. Orain mende eta erdi egiña dan arren, gaurko egunetan ere bada liburu oso baliotsutatz daukan gizon jakintsurik. Europako Ikastetxe Nagusitako iraskaskintzaren berri ongi zekien Aita Errandonea euskaldunak eta berak esana da onako au: «Zentzun onaren araudia edo esku liburua dan au, berak ezagutu zuen Alemaniako irakasle batek Unibersitatean sartu aurreko ikasturtea egiten zutenei irakurri, ikasi eta idatziz laburtu erazi egiten zien». Lenengoz argitara berritan, zoraturik esan omen zuen Barzelonako irakasle jakintsu batek: «Zorioneko bonbaketa, au bezelako liburu ederra ekarri diguna». Europako izkuntza askotara itzulia izatea merezi izan du.

Barkatu baldin Balmesen berri ematen geiegi luzatu banaiz. Esan dedanetik, gauza bat gelditzen da argi: J. Zinkunegik ez zuela aukera txarra egin, apaiz katalan onen liburua euskeratzeko lana bere gain artu zuenean. Zatika zatika noiz eta non argitara eman zuen lentsuago entzun dezute: 1918tik 1924ra «Euskal-Esnalea» aldizkarian. IRIZPIDEA jarri zion izenburutzat. Beste izkuntza batzuetara ez zuten ain itzez itz itzuli: *Gogoia lantzeko antzea*, edo *Egia ezagutzeko bidea* eta ola.

«Euskal-Esnalea»k atsegiñezko ongi etorria egin zion: «Lan arduratsu eta txalogarria aux: asko poztu gaituena. Gogo-gogoz argitaratuko degu eta Euskal-Esnalea'koak poz pozik irakurriko dute noski». Eta «Eusko-Deya»tik, bi urte lenago asita Zinkunegi idazle laguntzaille zuen aldizkaritik, gogoia berotzeko eta aurrera jarraitzeko itzez agurtu zuten: «Bide orretatik jarraitu, aberri-elia biar dan Iekura jasoteko». Eta etorri zitzaizkioken esames eta erausai aurretiaz erantzuteko bezela, onela esaten zioten: «Olako idazkiak eztira edonork ulertzeko... Ala, uste dozu erdaldun guztiak ulertzen dabela *El Criterio* au, erderaz egonarren? Emon idazti ori edozein españarrei eta «ez dot ulertzen» esango dautzue geienak».

IRIZPIDEA euskerazko au ez da atera Euskal-Esnalea aldizkariaren orrietatik kanpora. Liburu egiñik, gaur agertzen zaigu, Zinkunegi zanaren jaiotzako eungarren urte onetan. Zor zaion omenaldia egin nai izan zaio euskeratzaille azkarrari.

Liburuaren mamiari dagokionez, arestian esan degu zerbait. Euskeratzaillearen lanaz, zer esan? Euskerazko **Irizpidea** liburu au, orain irurogeita amar urte euskal idazle askoren artean zerabilten euskeraren lekuko ikusten dut nik. Eta ori bi aldetatik, gutxienez. Gaiaren aldetik eta euskeraren aldetik. Gaiaren aldetik, nolako joera erakusten digun, asieran esan det nolako arrak eta garrak eragiñik zebillen Zinkunegi gaztea, euskera edozein jakintza-maillan erabilteko gai egin bearrez. Zinkunegi'rekin batean Eusko-Deyan bere idazle-asikiñak eman zituen Lizardiren geroagoko itzez esateko, jakintza-arlo guztiak nai dira euskeraz:

Baiña nik, izkuntza larrekoa,
 nai aunak ere noranaikoa,
 iakite egoek igoa,
 adifia zar, berri gogoa.

Izkuntza larrekoa, landu gabea dela euskera? Axular ezkerero, ainbat aldiz esan izan dana esan bearko degu: landu gabea izate ori ez dala izan euskeraren errua, euskaldunena baizik. Norbere alperkeria zuritzeko, errua besteei egoztea gauzarik errezena da. Monzonek ondo ikusi eta esan zuenez, elizgizonez besterik bada euskaldunen artean, euskera gutxi landua izanaren errudun danik. Zinkunegik ere ongi ikusi eta aitortu zuen euskaldun eskolatu askoren zabarkeria. Eta pekatu ori garbitzeko, lanean jarri zan beraberea zuen arloa lantzen, gorputzaren gaitzaz sendabideak euskeraz ematen. Eta gorputzarenak bakarrik ez, gogoaren gaitzak sendatzeko lanetan ere sartuko da, au ere ez baita goi-eskoladun baten arlotik kanpo gelditzen dana. Eta ez du naikoa izan bestei bidea erakustea; bera egin da bere irakatsien jarraitzaille eta egille. Osalariak gure artean euskera lantzen geien nabarmendu diranak izan ba dira be, Zinkunegi jauna bide orretan eredu izan dala argi dago; egille eta eragille, bide erakusle eta zuzpertzaille. Ori, gaiaren aldetik.

Eukeraren aldetik, Zinkunegiren lanak garai artako giroa erakusten du. Esan bearrik ez, orduko joera eta giroa euskera garbizaleena zala. Idazleak euskera garbi eta jatorra nai dute, eta itz berririk bear dutenean, nekez joko dute inguruko erderetara. Al dutela, euskeraren beraren erroetara dijoaz, itz berriak sortzeko. Ori da Zinkunegiren joera ere. Ortara jo du euskera gaurkotu eta jakintza-maillakotu bearrez. Kezkarik agertzen du noizik bein, okerreko bidea artu ez ote duen, laster ikusiko degunez. Baiña esan dan bidea artu duela ez dago zalantzarik.

Gaur badakigu beste joera bat sortu eta indar artzen ari dala: euskera kulto eta urbanoaren joera. Joera au, nik uste, nolabait aldi guztietako euskal idazleena izan da. Baiña bakoitzak ori lortzeko zein eta zelako bidea artzen duen, or da batzuen eta besteen arteko aldea. Esaterako, joan dan mendeko idazle batzuk euskera landua eta baserri-kutsu gitxiagokoa egiteko Larramendiren Iztegia jo eta Iztegi artako itzez josten zuten idazten zutena. Zinkunegi'ren egunak orduko ikusi zan bide orren okerra. Larramendiren iztegiako itz asko Larramendik asmatuak ziran, eta ala-ola asmatuak gaiñera. Ori ikusita, joan dan mendearen azkenerako, euskal kutsu geiagoko itzak, itz berriak sortzen saiatuko dira iztegi gille eta idazle asko. Gaur beste giro batek gaiña artu bear duela dirudi. Inguruko izkuntza eta iztegi guztietatik artuta, inguruko erdera guztien itzak txertatu nai dizkiogu euskerari. Eta askotan erderarik garbiernekoak ere ez, bai erdal-gaiztozkoak. Olaxe nai degu euskera aberastu, kultotu, modernotu, urbanotu. Eta askotan geure geureak ditugun itz eta esaera asko baztertu, gaizki ulertutako erdal-itx eta erdal-gaiztoz aberastu, jatortu eta gaurkotu nai dogu euskera. Egunkarietan eta kaleetan irakurten diran ainbat lan eta txartel lekuko. Noiz sartu bear ote gera zentzun obeko bideetan?

Zinkunegi berak, oar batean irakurleari autortzen zionez, Balmesen liburua euskeratzean, artean gure izkuntzan erabilli gabeko itz batzuk asmatzen edo aurkitzen

saiatu bear izan du. Korapillo ori askatzeko, erdal-itza bera artu zezakeala dio; orixe egin eta kito. Ala sortutako itzak ez-ezagunak izango dirala? Baiña beste izkuntzetan ere ez ote da berdin gertatzen? Jakintza-gaietan erabiltzen diran itzak azaldu eta argitu bearra izaten omen dute ongi ulertzeko. Eta Zinkunegik bertan eman du erabilli dituen itz batzuen argibidea eta azalpena. Ez dauzka berak akats gabekotzat eta apalik autortu du obeak agertu arteraño baizik ez dituela erabilliko. Urrengo batean beste itz-berri zerrenda bat dakar eta berdin dio: berak sortuak dirala-ta, jakintsuagoak besterik erabagi artean erabilliko dituela.

Itz batzuk, orraitio, ez det esango gaizki asmatu eta egokitu dituenik. Esateko, **gauzaldeko**, objetivo esateko eta **norberaldeko**, subjetivo adierazteko. Beste batzuk, nola nai ere, jakintsuagoen eskuetan uzten ditu. Eta apaltasun au eskertzekoa da. Itz berrien gorabera orretan, ez dago bere iritziak iñori ere gaiñetik ezartzera. Orren apalik datorren oni eta lenengo aldiz itzul saioetan sartu zen oni, nork egingo dio kritika gogorrik?

Zinkunegik, beretik ari danean, euskera argi, ulerterraz eta ixuri onekoa du. Oraingo lan au gaztetako lana du; eta gaia euskeraz jorratu eta landu gabea duenez, eta euskeratzailllea erdal itzei lotuegi ibilli danez, irakurtzeko gogor samarra izango zaio irakurle askori. Nola nai ere, esker onez artzea merezi du artan jarri duen ardura eta euskaldunai eman nai izan dien laguntza.

Euskal-Esnalea aldizkarian lanari azkena eman zionean, Itzultzailllek erantzi zizkion itzekin eman nai diot nere jardunari azkena: «Urte asko dira, amabost edo geiago, Gaztelako goituri batean arratsalde batez, adiskide eta ikaskide batekin egurazten nenbillen. Euzkotarrak biok. Nere lagunak ez ekian euskerarik... Bera euskera ikastera zirikatu nairik asi nintzan. Alako batean, bion adiskide zan beste euskera ez ekian, baiña ikasten gogor ziardun euskotar bat jarri nion eredutzat. Nere laguntza eskiñi nion. Amaika gogarpen egin nizkion. Guztiak alperrik. Nik zenbat ate, ark ainbeste maratilla. Ari ta ari, nardaberaki esan zidan berak euskera ikasiko zuala, baiña Kimistia eta Osakiztia beste orrelako yakidi-idaztiak euskeraz idatziko diranean. Bere apeta ulertu nuan... Ordura baiño len eta ordu ezkerotik orrelako ergelkeriak entzun izan ditut bein baiño geiagotan. Ez det ordea ainbesteko miñik artu eta min ura izan zan orain bukatu dutan lan onen yatorria. Ordutixe artu nuan yakidi gairen batetzaz idazteko asmoa, orrelako argalkeriai itzez baiño egiñez e-rantzutea euskerarentzat obaritsuago izango zala iritzita.

Gerotik yakidi batzuetako gaietzazko idazkiak or-emen argitaldu ditut. Orrekin ez nintzan asebetetzen ordea. Eta lan sakon, eder eta onuragari bat yo nuan begiz. Bein baiño geiagotan atsegiñez eta onuraz irakurritako **El Criterio**, Balmes jakintsu andiaren lan ospatsua, yakintsu batek zuzenki «gogoaren zuzenbide egiazkoa» deitu ziona... Bera euskeraz yartzera izango zan ergel aientzat erantzunik onena, nere ustez...

Orain bukatutako IRIZPIDEA au argitaltzen asi nintzan ezkeroko askok galdetu izan ditate, artu nuan lan onen zergatia: idatzitako lerroak izan bitez aiei eta beste guztiak erantzuteko. Euskeratze au ain aldin aundikoa ez dala ta akats asko ta ugari dauzkala bai dakit. Baiña beste irabazirik ezean, tarteka, artu-utzika, beste lan askoren

artean, nere yolas-orduai zatitxo bat kenduaz, gure euskera kutunari biotz biotzez egindako opari txatxarrena izango da beintzat».

Ager dezaiogun gaur Errezilen egiten diogun omenaldi onetan, euskerari opari au egin nai izan dion errezildar langilleari geure esker on eta zintzoena.

LATIEGFTAR BIXENTE

Elizaren edesti osoa*

Benetan lan aipagarria Latiegi'tar Bixente apaizak eskaiñi diguna. Gaurkoz bi tomo lodi argitaratu ditu. Beste iru agintzen dizkigu, Elizaren edesti guztia emateko. Bostak amaituta dauzka. Argitara emanda dituenak: *San Iñazioaren denboretako Eliza*, eta *Denbora berrietako Eliza*, bakoitzat berreun bat urte artzen dituela. Liburu biok gaur datoz argitara; baiña errez ulertzekoa da onelako lanak ez direla gauek goizera sortzen. Aurretiaz egunak eta urteak bear dira lanean igaro. Latiegi jaunak, ogei bat urte eman ditu gaiak bildu, sailkatu, aukeratu eta euskeraz jantzi eta moldatzen.

Nork eskatu bear izan dio konturik idazle oni, ea zergatik ez duen euskeraz idazten? Zergatik erderaz? Gaur baiño lenagotik ere Latiegi jaunak ez du euskeraz gutxi idatzi bai egunkari, bai aldizkari eta bai liburutan. Euskeraz erderaz baiño geiago, bearbada. Zer eta zenbat idatzi duen jakiteko, egunkarien batean erderaz idatzi duenari begiratzea ez da naikoa. Ainbat euskerazko lan atera du *Agur*, *Saski-Naski* eta *Karmel* aldizkarietan, eta Donostiako eta Iruñeko egunkarietan. Saski-Naski'n atera dituen ipui eta idazlanetan ongi erakutsi du euskal-luma zorrotzaren jabe eta irudimen andiko idazlea degula bera. Are geiago: Orain amar urte, gaur atera dituen liburuen berri eta asikiñak eman zizkigun Manuel Lekuona zarrari Kardaberraztarrek eskaiñi zioten iru tomozko Omen-Idazkien bilduman onelako idazlanarekin: *Elizaren Edestitik atal bat: Martin Luter*, Lan-Bilduma artan ateratzean, onela zion: «Aspalditik ari naiz Elizaren Edestia euskeraz idazten. Aurreratuxea daukadan liburu ortatik, gogorik onenaz eskintzen diot atal au D. Manuel Lekuona maixuari». Tolosako seme onek bere euskal-lumari ez dio iñoiz ere erdoitzen utzi eta euskeraz idazteko ez du beste iñork zirikatu bearrik izan. Eta idatzi ere, ez nolanai eta zabarki.

* Revista Internacional de los Estudios Vascos 33 (1988) 303-307.

Askok naiko lukete beronek duen erraztasuna eta jariora euskera erabiltzen. Gasteiz'en nagusi zen erdal-giroak ez zuen, ez, Latiegi onen euskalzaletasuna ez euskal-kemena ito ez gainditu.

Eta emen dugu orain an etengabeko ekiñean egin zuen lanaren emaitza. Orain ogei urte, Gasteizko Instituto Politeknikoan irakasle eta zuzendari izateak leporatzen zion lanaz gaiñera, Latiegik beste arnas andiko lan bati ekin zion. Ona nola aitortu digun berak: «1966n asi nintzan ni Elizaren Edesti au idazteko lanean. Eta ogei urte auetan, irakaskuntzak libre uzten zizkidan une labur guztiak eginkizun ontan akitu ditut. Eta pozik gaiñera. Beste batzuek eizara, arrantzara edo jokora jotzen duten bezala, edestirako eta edestiaren antzeko ikaskizunetarako izan bait da beti neronen poza. Fakultateko ikasketan ere Elizaren Edestiarekin zer ikusi aundia zuana izan zan *Summa cum Laude*-rekin saritu zidaten tesia».

Eta Gazteiz'en sekulako aukera eta laguntza izango du bere gogoia asetzeko: Seminarioko Liburutegia. An ditu Elizaren Edestia argitzeko eta ikasteko munduan idatzi izan diren libururik argitsuenak, nai aña argibidez beteak: Alemanian, Frantzia, Italian, Beljikan, Ingalaterran eta Ipar-Amerikan idatzi diren Eleiz edesti eta Enziklopediak. Gutxi batzuk aipatzeko, an ditu, Frantzia Fliche-Martin'en zuzendaritzapean agertua (emengo erderazko itzulpenean 33 tomo osatzen dituana), Daniel Rops frantzesak 9 tomo loditan idatzia, Alemanian Jedin'ek zuzendu eta argitaratua, eta abar eta abar. Enziklopedietan ere aukera ona du: katolikoak eta katoliko ez diranak, Juduenak ere bai; frantzesak, italiarrenak, inglesak, Ipar-Amerikakoak, eta guztietan, bere ustez, Enziklopedia Britanika, argiena eta ugariena. Edesti-aldizkariak ere, non-naikoak eta nai aña. Munduan zear mendez mende Elizak emandako urratsak or ditu, kritikarik zeatzenaren galbaitetik irazita.

Badu or lan-tresnarik gai bakoitzean egia aurkitzeko. Eta gaia bere gogokoena du. Zer bear du geiago lanari gogotik ekiteko? Eta lagunabarrean, askoren artean, alkar-lanean egitekoagoa zena, berak bakarrik egin du, ixil-ixillean.

Nik ez nion ongi ulertu bein eskuartearen zerabillen lanaren berri aurreratu zidan egun batez. Luteroren egunetatik onako Eliz-edestia idazten ari zela ulertu nion. Baiña ez; zabalagoa zen idazten ziarduen lanaren eremua. Elizaren asieratik gure egunetarainokoa, Elizaren mendez mendeko ibillaldiak osoan artzekoa.

Gaurkoz emen ditugu *San Iñazioaren denborako Eliza* eta *Denbora berrietako Eliza*, orrialdez bata 430 orrialde dituena, eta 530 orrialdeduna bestea, leenengoa 1985n eta bigarrena 1986n argitaratuak.

Leenengoa Loiolako gure Patroiaren izenpean jarri nai izan du. Omenaldi au egin nai izan dio gure Santuari, berak eta sortu zuen Lagundiak garai artan Elizaren alde egin zuten lana nabarmen jartzeko. Lutero eta Iñazioaren bizitzak mendebarru batean joan ziren, eta jakiña, asmo ta ekintza oso ezberdiñen buru agertuko dira liburuan. Baiña bi gizon auek munduan agertu baiño lentxeagotik asten da liburuaren gaia, 1450ko urtearen inguruan, Europako mundura, Aro Berria, Birjaiotzekoa diotena sortu zenean. Leenengo kapituluak aro berri orren giroa azaltzen digu, antziñako erromatarren kultura, literatura, artea eta bizikera berpiztu nai zutenekoen giroa. Eta

bereala, Nikolas Vgarrena Aita Santu izendatua izan zenetik, Aita Santuz Aita Santu darama gertakarien aria: Aita Santu bakoitzak zer-nolako ekintzak bultzatzen dituen, Aita Santu zen aldetik eta Erromako errege bezala.

Emen agertuko zaizkigu Aro berri artako humanisten ekintzei languntzen, Italia barneko jauntxoan artean pakeak egin nai eta ezinik, eta Turkoiei Europan aurrera egitea eragozteko kristauiei laguntza eske. Emen ikusiko ditugu Elizaren bizitza eta Kristauerriaren bizitza garbiago egiteko arduraz kezkatuak. Elizak garbitu bearra zeukala bere barnean guztien iritzia zen. Bai goikoetan eta bai bekoetan. Aita Santuaren ingurutik asita. Inguru ortan ere baziren pekatuak; errege izateak berak eta nepotismoak, senidei karguak emateak, ez zion irudi garbia ematen Erromako Elizari. Ola ezer onik gutxi lortzen zen borondaterik onenaz ere. Elizen batasuna ere Aita Santuen kezkabidea zen askotan. Baiña emen ere ez zen aurrerakadarik egin Erromako eta Sortaldeko Elizen arteko batasuna lortzeko. Latiegi-ren liburuan garbi agertzen dira Aita Santu bakoitzaren argi-itzalak, alde argia eta alde illuna.

Olaxe garamatza liburuak Aita Santu batetik bestera, Luteroren eraso sartuko den arte. Emen dugu tomo onen ardatza. Liburuko kapitulorik luzeena Luteroren bizitza eta irakatsiei dagokiena da, Alemanian zear aren alderdikideek egindako aurrerakadaekin. Bardintsu, baiña askoz laburrago egiten du Kalbino, Zuinglio eta Enrike VIIIgarrenekin. Eta kapitulu bana eskaintzen die batzuk eta bestek Europan errialde bakoitzean nola aurrera egin zuten erakusteko: Ingalaterran, Eskandinabian, Suezian, Suizan, Ungarian, Polonian, Boemian, Beljikan eta Olandan.

Ondoren, Erromako Elizaren erantzuna dator. Eta leenik, Elizaren alde, Eliza barnetik berritzen eta garbitzen saiatu ziren gizon-emakumeen berri. Besteak beste, Iñazio doneak, bere lagunekin batean, kapitulu berezia du. Eta gero, berriz eltzen dio Aita Santuen ariari, eta auen artean, Trentoko Kontzilorako deia egin zutenenak eta Kontzilioa bera dauzkagu. Kontzilioak bere kapitulua du, erabaki nausienen berri eman, artan Espiritu Santuaren erabakia eta lana eta gizonen bitartez egiña bereizteko. Espiritua Kontzilio artan ere gizonen bitartez mintzatu baitzen, lauso bat edo beste aurkitzen dizkio an gizonek egiñari: Elizaren irudi bakarkoia, bildurtiegitxoa eta teologizkoegia eman zutelakoa. Adimenari sentimenaren kaltetan indar geitxo eman ziotelakoa. Aita Santuen zerrenda Gregorio Vlgarren egunetararte eta Richelieu Kal-denalaren aldira arte luzatu du.

Teologoan alorreko gaietatik kanpo, eta Elizaren irudi pozgarriagoa emanez, iru kapitulu geiago ditugu urrengo, Elizan piztu zen kristau-bizitzaren itxarkundea eta azken-mendeko teologiaren berbizkundea azpimarratzeko. San Iñazioren lagundiaz eta anaidi berrien sorreraz, amasei-amazazpigarren mendeko bitartea santuaroa izan omen zen: orduko politikazko mundu zoro, gogor, odoltsu, zikin artan añako santurik, eta ain santu andirik, ez omen da beste iñoiz ikusi.

Eta bukatzeko, mixioetarako begirada bat zuzentzen du idazleak. Bazuen garaia, Europako burruka-giroa utzi eta mixio-lekuetan Eliza berrien ezaupidea emateko. Eta ala egin du. Eta kapitulu batean, bere ibillaldia egiñarazi digu, Afrikatik, aurkitu berri zen Amerikatik, India, Txina eta Japondik, ain beste mixiolarien artean, besteak beste, Andres Urdaneta, Joan Zumarraga eta Franzisko Xabier andiaren lagunartean.

Bigarren tomoa, *Denbora berrietako Eliza* titulutzat daramana, XVIIIgarren mendearen erditsutik XIXgarren mendean sartzen gaituela datorkigu. Aldi berrien egunsentian gaude. Gizonen gogoetan pentsakera eta ikuspegi berriak datoz azalera, gauza guztietan, politikan, eta erlijio-gaietan. Erregek aginpide osoa eskuratu nai dute gauza guztietan, erlijiozko gaietan ere. Laster erriak eskuratu naiko du aginpide ori, erregeei kenduta. Pentsalariak zerupeko gauzetara mugatuko dute beren azterketalana. Jainkoa ukatu nai ez dutenek ere, giza-arazoetatik urrun eta axola gabe ikusten dute, Izadi legeen sortzaillezat eta eusletzat gurtzen dutela. Izadia aztertu eta gizonen serbitzari egitera jotzen dute. Frantziako iraultzak erregeen agintekeria itzulaztea lortuko badu ere, erlijio askatasunari sekulako eragozpenak jarriko dizkio. Baiña, geroenean, kristau bizitzak berbizkunde ederra nabarituko du erasorik andiena artu zuen leku askotan.

Liburu au denbora berrien giro ori, Argikuntza (edo Aufklärung, Enlightenment, Illuminisme, Ilustración delako ori) nondik nora ibilli den azaltzen duen lenengo kapituluaz dator: non sortua den, zeintzuk diren pentsaera orren sortzaille eta maisu andiak. Arrazoia giza-arazo guztietan erabakitzaile bakartzat artzen du. Izadia dauka libururik garrantzientzat, dena mekanika indarren eta matematika arauen menpean daukana.

Olako pentsaerak zabalduz zijoazten bitartean, Elizan teologia motel zebillen, amaseigarren mendean bezalako izar andirik gabe. Atari au jarri ondoren, liburu au leengoaren ildotik dijoa, Aita Santuz Aita Santu, bakoitzaren egunetan non zer arazo izan zuten adieraziz eta tartean gai batzuei leku berezia emanaz, Frantziako jansenismoa eta galizismoa, Turkiako elizen egoera, Paraguaiako jesuiten Indi-erriena, masoien sorrera eta abar. Kapitulu batek katoliko eta protestanteen artean batasuna lortzeko izan ziren elkar-izketen berri ere luze samar ematen du, katolikoek aldetik Bossuet eta protestanteentik Hugo Grozio eta Leibnitz bitarteko zirala. Eta ainbeste istillu eta burruken artean, ez da argirik eman gabe gelditzen Elizaren santutasuna, eta elizgizon askok erri-misioen bitartez egindako lana errian kristaubizitza suspertzeko. La Colombière, Cadizko Diego, Klemente Hofbauer, Paulo Gurutzekoa, Montforteko Grignon eta gure Mendiburu eta Kardaberazen aldia da.

Frantziako Iraultzaren urratsak banan banan emanda daude. Urrats aietako bakoitzak bere kapitulua du. Elizarentzat kalte andiak ekarri zituen, batez ere Frantzian. Baiña egun txarrenak joandakoan, gizon eta emakume gartsurik ere jeiki zen, maitasuna ereiñez eta maitasun egintzak zabalduz, ez-eukiei laguntzeko, geixoak zaintzeko, aurrak eskolatzeko, eta abar.

Olaxe, beti bezala, itsas andiko olatuei buru egiñez dijoan ontzia bezala, Eliza ere aurrera dijoa barruko argalkeriei eta kanpoko erasoei buru egiñez. Olaxe, egun beltz larrien ondoren, egun argi paketsuak etortzen zaizkio Elizari. Olakoxea da Latiegi'ren liburuan ageri zaigun Elizaren irudia ere.

Eta dena eman digu bere euskera bizi giartsuan. Gertaera bakoitza bere inguruko ari eta xeetasunekin iruten daki. Nor bakoitza, Aita Santu naiz errege dela, siñspide zuzeneko naiz okerreko dela, ez du otz otzean eta legor legorrik aurkezten. Askoren

irudia bere esaera edo egiñen batzuez orniturik argitzen saiatzen da. Latiegi pozik jarri zen liburuok idazten. Atsegiñez lan egin du, berak aitortu digunez. Eta idazlearen atsegiña dario bein baiño geiagotan bere lanari.

Neretik geiago ez mintzatzeko, mintza bitez emen liburua argitaratu aurretik irakurri dutenen batzuk. Manuel Lekuonak esana: «Izugarri lan ederra egin dezue. Ain ederra, ez bait nuan uste orren luzea izanik, dana irakurtzeko beta izango nuanik; baiñan, *amigo*, bein irakurtzen asi nintzan ezkerero, ez det eskutik uzteko indarririk izan. Sinistazazu». Aita Mauro Elizondo beneditarrak: «Euskaldun bezala, nere esker beroena agertu nai nizuke gaur zuri. Izan ere ain ederra da zure lan ori... Liburu aberatsa! Azken urte auetan argitaratu diren ederrenetakoa, nere ustez. Baiñan ez orain lore tartean etzan. Lanari ekin eta jarrai bear diozu... Kemena badezu, baita nortasuna ere». Aita Ixidor Baztarrikak: «Berri on eta pozgarria euskaldunontzat, zure ardurari eta kemenari esker, Elizaren Edesti osoa euskeraz leenengo aldiz eskaintzen zaigulako, orain zati bat eta gero iru edo lau zati. Gaur euskeraz gero ta geiago irakurtzen da. Ona emen liburu interesgarria eta irakurtzeko errexia denentzat, eta baitipat kristautasunaren edestia eta ibillaldia gertutik ezagutu nai dutenentzat». Eta Bilbao'tar J. R'k Bizkaitik: «Lan onetan zure trebetasuna agirian dago. Euskera bizian idatzia, zure lana ulerterreza da, aria ondo eroaten dozu eta saiatzen edo alegintzen zara egintza baktotxa ondo argitzen».

Baiña dena lore eta laudorio izan ez dadin, uts txiki bat edo bi aipa eta atera ditzagun. Leenengoa, *lapsus calami*, lumaren irristada baizik bear bada ez dena. Jon Gurutzekoa Ubedan il zen, eta ez Osunan. Uts andiagoa da Espasa Iztegiak egiña, Fontiberos'ko seme ori, Guipuzkoako seme egin zuenean, Ondarribian jaioa, alegia.

Bigarrena, euskerari dagokiona: maizegi erabiltzen dituela, *uste*, *bildur eta kezka* itzekin onelako esaldiak: karguak luzeago gordeko *zituztelaren ustea*; galduko *zituelaren bildurra*; salbatuko *zelaren* eskiertasuna; mundu guztiko errege *zelaren ustea*, eta ola. Or, *zituztelako*, *zituelako* eta *zelako ustea* bear zen. Gaurko gazetalari batzuek txitean pitean erabiltzen dituzte orrelako esaldietan, *delaren*, *delaz*, *denaren* eta *denaz* ere. Adibidez: *urlia il delaren* edo *denaren* berria, edo albistea artu dugu, edo jakin dugu, il *delako* berria artu dugu esan bearrean. II denaren berri asko jakin dezakegu, baiña ori ez da izango il dela jakitea. Latiegi'ri noz edo bein atera zaio *delako ustea* ere, ala bear zuen bezala.

Akatsak akats, onelako uskeriak ez diote baliorik kentzen Latiegi jaunaren lan andi ederrari. Liburuokin opari oso ederra dakar egilleak euskerazko liburuen alorrera. Euskal-liburutegi guztietan arrera ona egitekoa. Eta andiago eta ederrago izango da oparia, bost tomoak argitara ditezenean.

PROLOGO *

Al lector que se adentre por las páginas de este libro, que hoy presenta EDICIONES DINOR, le costará creer que ellas no han sido escritas por pluma genuinamente católica. Nos adelantamos a advertirle que no lo son, y que ni siquiera la vida que en ellas se nos describe es la de una comunidad católica. Es la vida de una religiosa anglicana la que aquí se nos traza. Pero «Yo escogí el claustro» tiene valores tan universalmente aceptables, presenta la vida claustral de modo tan digno y con visión tan realista, de sus páginas se desprende una justificación tan plena y aun una apología tan serena y resuelta de la vocación y vida religiosa en general, y, por otra parte, constituye esta obra un documento tan elocuente del movimiento de acercamiento a la Iglesia Católica, iniciado por el protestantismo inglés de un siglo a esta parte, que no hemos dudado en incluirla en la serie de nuestros libros, permitiéndonos adelantarles a nuestros lectores, con objeto de ayudarles a comprender mejor este fenómeno religioso, algunos datos históricos sobre el origen, desarrollo y orientación del movimiento anglicano hacia la aceptación de la vida religiosa comunitaria.

Los orígenes de la vida claustral en el anglicanismo datan de mediados del siglo xix. El cierre de monasterios iniciado por Enrique VIII sería consumado por Isabel I, al parecer definitivamente. Si alguna vez, a partir del siglo xvii, hubo algún intento de restaurar la vida claustral entre las mujeres, estos intentos se estrellaron sobre todo contra la oposición de la Jerarquía anglicana que veía en ellos un movimiento de signo católico, o como gustaban de llamar, papista. Pasarán tres siglos hasta que se produzca una reacción favorable que sea eficaz. Fue al producirse el movimiento de Oxford o tractariano. Los promotores de este movimiento (Nexvman, Keble, Pusey) se contarían entre los que patrocinaron el retorno a la vida monástica.

* In: Rosemary HOWARD-BENNET, *YO escogí el claustro*, San Sebastián 1958, 9-15. Artikulo au emen jarri dogu berandu aurkitu dogulako.

Pero mientras éstos realizan su campaña teórica, exaltando los valores del monacato en el cristianismo y la conveniencia y necesidad de volver a él, otros, sin duda más prácticos, parten para el extranjero, visitan monasterios católicos, se procuran sus reglas y se informan de su vida para imitarla. Merece destacarse la colaboración que en este terreno les prestaron los católicos, en especial el clarividente Wiseman, a la sazón obispo titular de Milopótamos y auxiliar del Vicario Apostólico de Londres, y poco más tarde, al restaurarse la jerarquía católica en Inglaterra, primer Arzobispo de Westminster y Cardenal de la Santa Iglesia Romana; el cual, atento al nuevo movimiento y viendo en él un medio providencial por el que muchos anglicanos podrían encontrar la puerta de entrada al redil de la Santa Madre Iglesia, se apresuró a poner en manos de sus promotores las reglas de la Merced, de la Visitación y de las Hijas de la Caridad.

